

Euskal Autonomia Erkidegoa
MEMORIA
Sozioekonomikoa 2022



Consejo Económico
y Social Vasco
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Aranbatarako Batzordea



Gran Vía 81, 7 - 48011 Bilbao

Tlf: 944792150 - cesegab@cesegab.com



www.cesegab.com



@cesegab



Ziurgabetasuna nagusi

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, besteak beste, urtero Euskal Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoari eta sozialari buruzko bere gogoetak azaltzeko memoria bat idazteko eginbeharra du. Hala, 2023ko ekainaren 28ko ohiko bilkuran, aho batez onetsi zuen jarraian jasotako dokumentua.

Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren kontsulta-erakunde den aldetik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtero aztertzen du egoera ekonomikoa eta soziala, soilik datu ofizialak oinarri hartuta. Aitzitik, ez da batzorde honen eginkizuna eskuragarri dauden datu eta estatistika ugariak errepikatzea, horiei buruzko gogoetak egitea baizik. Gure eginbeharra, beraz, iturri ofizialek argitaratutako estatistika eta informazioei balio erantsia ematea da. Hartara, izandako bilakaera unean uneko denboratartean jartzen dugu, aurrerapenak eta atzerapenak egiaztatzen ditugu, bilakaerak aurreikusten ditugu, eta ohartarazpenak eta gogoetak egiten ditugu; hori guztia, dena egiaztatu eta adostu ondoren. Funtsean, honetan datza erakundearen zeregina: gizartea erabat ordezkatzeko duen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak egoeraren azterketa egitea eta horren harira adostutako proposamenak aurkeztea.

Pandemiako bi urtek astinduta hasi zen 2022a, ziurgabetasun-kutsuarekin. Bat-batean Ukrainako gerra hasi zenean, sentsazio hori areagotu zen, eta inflazioak izugarri egin zuen gora, azken hamarkadetan ikusi gabeko mailara igo baitzen. Testuinguru horretan, agerian geratu zen administrazio publikoek zergen eta aurrekontuen politika oinarritzeko zerbitzu publikoetan ardaztu behar zutela (nagusiki osasunean eta gizarte-zerbitzuetan), bai eta hezkuntzan eta ikerketan ere, egoera horretan sortutako beharrezan aurre egin ahal izateko.

2022ko memoria sozioekonomikoak Euskadin erregistratutako hazkuntza ekonomikoa islatzen du; hazkuntza horri esker, hain zuzen ere, mantendu ahal izan da enpleguaren susperraldia (urte-amaieran, BPGd-aren gehikuntza % 4,4koa zen, eta enpleguaren igoera % 3,1koa). Alabaina, industria-sektorean galdu diren enpleguei dagokienez EUSTATEk emandako datuak aintzat hartuta, adierazi nahi dugu euskal produkzio-sistemaren funtsezko katebegia dela, eta $-2,8\%$ okupazio-tasa izan duela 2021. urtearekin alderatuta.

Bestalde, adierazle nagusien arabera, okupazioa igo da eta pandemia-aurreko egoera berreskuratu ahal izan da; horrez gain, lan-erreformaren ondoriozko urteko balantzeak erakusten du lortu dela enpleguaren kalitatea hobetzea. Hala eta guztiz ere, oraindik ere arreta berezia eman behar zaie iraupen luzeko langabeziari, laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten zenbait kolektiboren langabeziari eta enplegu publikoaren behin-behinekotasunari. Hori dela eta, enplegura bideratutako partida publikoak sendotu behar dira eta Europako berreskuratze-funtsak aprobetxatu.

Egoera demografikoari dagokionez, dokumentuan argi eta garbi azaldu da Euskadik krisi demografiko izugarriari egin behar diola aurre. Krisi-definizioaren lehenengo adiera aintzat hartuta erabili dut terminoa: “zerbaiten bilakaeran gertatzen den une edo epe larria, ondorio garrantzitsuak dakartzana”. Bilakaera horretatik sortu da erakundearen agenda politikoan erronka demografikoa erdigunean jartzeko beharra. EAEn hazkunde natural negatiboa erregistratu da, migrazio-saldo positiboekin konpentsatzen ez dena. “Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia”, zeina 2022an onetsi baitzen, ekonomiari lotutako gaiak eta bizitzako baldintza materialak uztartzen dituen tresna izan behar da; halaber, aipatzekoa da bidegurutzetarako horrek bizi-garapena ulertzeko beste modu batzuk ere hartuko dituela barne, zeinek gure iraganarekiko haustura soziokulturala ekarriko baitute (jada ekarri dute).

Alderdi positiboari dagokionez, Euskadi oso ondo kokatzen da bizi-kalitateko nazioarteko rankingetan (GGI), bai eta Europako AROPE tasaren askotariko eremuetan nahiz Bizi-baldintzei buruzko Inkestako adierazle gehienetan ere. Hala eta guztiz ere, 2021eko memorian nabarmendu ziren EAeko bizi-kalitateari lotutako hainbat alderdi; 2022koan, ostera, aurreko aldiko hobekuntzarekin alderatuta, bizi-baldintza horiek zertxobait okertu izanaren zantzuak jaso dira. Horrenbestez, jarraipena egin behar zaie honako hauei: pobrezia edo gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden biztanleen kopuruan egondako igoerari, gutxienez astean bitan okela edo arraina jatea ordaindu ezin dezaketen etxebizitzaren portzentaje-gehikuntzari, eta energia-pobretasunaren igoerari. Aldaketa horiek prezioen bilakaerari lotuta egon daitezke, baina ez dira estatistika hutsak: gure gizartearen alderdirik zaugarrienaren erakusgarri dira, arreta handiena behar duena, alegia.

Hori dela eta, nahitaezkoa da Europako herrialde nagusietan dagoen gizarte-babeseko sistemaren antzekoa mantentzea eta, ahal den neurrian, sendotzea, gure gizarteak bere gain hartutako erronkei, sortutako beharrian berriei eta sortu daitezkeen erronka eta errealitate berriei aurre egiteko funtsezko tresna baita.

Amaitzeko, animatu nahi zaituztet hizpide dugun memoria irakurtzera eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea osatzen duten gizarte- eta ekonomia-eragileek identifikatu dituzten erronkak eta egindako gogoetak ezagutzera.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiet berriz ere memoria hau egin duten Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko kideei eta batzordearen zerbitzura dauden langileei, egindako esfortzuagatik eta erakutsitako arduragatik. Horiei guztiei, mila esker bihotzez egindako lanagatik eta izandako inplikazioagatik.



Emilia M. Málaga Pérez
Presidentea

MSE 2022ko AURKIBIDEA

I. KAPITULUA. DEMOGRAFIA EAE-N 1

1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA	4
1.1. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA	4
1.1.1. Jaiotzak	
1.1.2. Heriotzak	
1.1.3. Migrazio-mugimenduen estatistika	
1.2. EZKONTZAK	10
1.2.1. Ezkontzak	
1.2.2. Ezkontza desagiteak	
2. IMMIGRAZIOA EAE-N	13
2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUROPAR BATASUNEAN	13
2.2. INPAKTU DEMOGRAFIKOA	14
2.3. PERTZEPZIO SOZIALA: IKUSPEGI 2022 BAROMETROA 2022	17
3. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO "2030 ESTRATEGIA". ESPARRU OROKORRAREN LABURPENA ETA DOKUMENTU OPERATIBOA	20
3.1. ESPARRU OROKORRA	20
3.2. DOKUMENTO OPERATIBOA	21
ITURRIAK	27
4. DEMOGRAFIA: LABURPENA ETA ONDORIOAK	28

II. KAPITULUA EKONOMIA EAE-N

33

1. KANPOALDEKO INGURUNE EKONOMIKOA	35
1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK	35
1.2. EUOPAR BATASUNA. EUROGUNEA	37
1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA	40
1.3.1. Espainiako ekonomia	
1.3.2. Autonomia Erkidegoak: BPGd-a eta per capita BPGd-a	
ITURRIAK	44
2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA	45
2.1. BILAKAERA OROKORRA	45
2.2. ESKAINTZAREN ETA BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK	47
2.3. KANPO-ESKARIA	48
2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA	51
2.4.1. Atzerriko inbertsioa EAEn	
2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian	
2.5. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK	58
2.5.1. Kontsumoko prezioak (2021eko oinarria)	
2.5.2. Errentaren banaketa funtzionala, laneko kostuak eta produktibitate	
2.6. ERRENTA PERTSONALA, SEXUAREN ETA ERRENTA-SEGMENTUEN ARABERA. 2020KO DATUAK	62
ITURRIAK	64
3. SEKTORE PRODUKTIBOAK	65
3.1. ENPRESA DEMOGRAFIA ETA EGITURA	65
3.1.1. EAEko empresa egitura	
3.1.2. Enpresen demografia	
3.1.3. Gizarte Segurantzzen izena emandako enpresak	
3.2. EAEren EKOIZPEN-EGITURA	71
3.3. LEHEN SEKTOREA	72
3.4. INDUSTRIA	73
3.4.1. Industria-sektorearen bilakaera orokorra	
3.4.2. Industri Produkzioaren Indizea eta Industri Prezioen Indizea. 2022	
3.4.3. Industria Estatistikiaren emaitza nagusiak 2021eko datuak	
3.5. ERAIKUNTZA	79
3.5.1. Eraikuntzaren sektorearen bilakaera	
3.5.2. Eraikuntza kostuen indizea	

3.6. ZERBITZUAK	81
3.6.1. Zerbitzu-sektorearen bilakaera orokorra	
3.6.2. Zerbitzuen sektorearen egitura EAEn	
3.6.3. Merkataritza	
3.6.4. Turismo eta ostalaritza	
3.6.5. Finantza sektorea	
ITURRIAK	91
4. SEKTORE PUBLIKOA	92
4.1. DIRU-SARRERAK	92
4.2. GASTUAK	96
4.3. AURREKONTUKO SALDOA	98
4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA	99
4.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK	100
4.6. ENPLEGUA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN	102
ITURRIAK	104
5. PRODUKZIO-AZPIEGITURAK	105
5.1. EUROPA BARNEKO GARRAIO-SAREA (EBG-S)	105
5.2. EUSKADIKO GARRAIO-SISTEMAREN DESKRIKAPEN OROKORRA	106
5.3. ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEK INGENIARITZA ZIBILEAN EGINDAKO ESLEIPENAK	107
5.4. ERREPIDEKO GARRAIOA	107
5.4.1. Azpiegitura: errepide-sarea	
5.4.2. Salgaien errepideko garraioa	
5.5. TRENBIDEKO GARRAIOA	110
5.5.1. Trenbide-sarea	
5.5.2. Abiadura handia: Euskal Y-a	
5.5.3. Hegoaldeko trenbide-saihesbidea	
5.6. AIREKO GARRAIOA	114
5.7. ITSAS GARRAIOA	115
5.8. EAE-KO PLALTAFORMA LOGISTIKOAK	116
ITURRIAK	117
6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA	118
6.1. I+G+b JARDUERAK	118
6.1.1. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle paneletan	
6.1.2. I+G jarduerak	
6.1.3. Berrikuntza-jarduerak	

6.1.4. EAE Europako berrikuntza-adierazleen paneletan	
6.1.5. Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren jarraipena	
6.2. EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALA	133
6.2.1. Interneten erabilerak euskal herritarren aldetik	
6.2.2. Euskal enpresen web-orriaren erabilgarritasuna eta interneterako sarbidea	
6.2.3. Euskal enpresen eraldaketa digitala	
6.2.4. Telelana euskal enpresetan	
6.2.5. Merkataritza elektronikoa EAEn	
6.2.6. Administrazio elektronikoa EAEn	
6.2.7. Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea (DESI)	
ITURRIAK	141
7. GIZARTE-EKONOMIA EAEN	142
7.1. GIZARTE-EKONOMIAREN FORMA KLASIKOAK	142
7.1.1. Enpleguaren bilakaera	
7.1.2. Resultados económicos	
7.2. GIZARTE-EKONOMIAREN BESTE FORMA BATZUK	149
7.3. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO KONPAZIOA	150
7.4. EUSKO JAURLARITZAREN GIZARTE-EKONOMIARI LAGUNTZEKO POLITIKA	151
7.4.1. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren gastua	
7.4.2. Gizarte Ekonomiako Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa	
ITURRIAK	154
8. "NEXT GENERATION EU" (NGEU) EUROPAKO FUNTSAK: SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOA (SEM)	155
8.1. ESPAINIAKO ERRESUMAREN SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA	155
8.2. SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA GAUZATZEA	156
8.2.1. AA.EE.ek kudeaturiko inbertsioak. 2022an EAEn esleitutako funtsak:	
8.3. SEM-AUTONOMIA ERKIDEGOEN BANAKETA, OSAGAIEN ETA SAILEN ARABERA, EAEn	158
8.4. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA	165
8.5. EUSKADIK PARTE HARTZEA SEMren ESTATU-KUDEAKETAKO ZUZENEKO EMAKIDETAN, OSAGAIEN ARABERA	175
ITURRIAK	178
9. EKONOMIA EAE-N: LABURPENA ETA ONDORIOAK	179

III. KAPITULUA EMPLEGUA ETA LAN HARREMANAK EAE-N 195

1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA	199
1.1. JARDUERA	199
1.2. OKUPAZIOA	201
1.2.1. Okupazioaren datuak	
1.2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa	
1.3. LANGABEZIA	208
1.3.1. Langabeziaren datuak	
1.3.2. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua: Langabezia eta enplegu-eskatzaileak	
2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK	217
2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA	217
2.1.1. 2022ko lan-erreforma. Abenduaren 28ko 32/2021 LEDaren ikuspegi orokorra	
2.1.2. Kontratazioa 2022an	
2.2. KALERATZEEN ETA ERREGULAZIO ESPEDIENTEEN BILAKAERA	226
2.2.1. Kaleratzeak	
2.2.2. Enplegua Erregulatzeko Espedienteak	
2.2.3. Iraizpenen urteko bilakaera agregatua	
3. LAN HARREMANAK	231
3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA: SOLDATA IGOERA, LANALDIA ETA LAN ETA FAMILIA BIZITZA BATERAGARRI EGITEA	231
3.2. LAN GATAZKAK	233
3.3. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA	235
3.4. TELELANA	237
4. SOLDATAK EAE-N	239
4.1. SOLDATA EGITURARI BURUZKO 2020KO INKESTAREN EMAITZAK	239
4.2. LAN-KOSTUARI BURUZKO INKESTEN EMAITZAK	241
4.2.1. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta, 2021. urtean.	
4.2.2. Lan-kostuen Hiruhileko Inkesta. 2022. urtea	
4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN EMAITZAK (LPI) 2020	243
4.4. SOLDATEN BANAKETA: 2021EKO BAI-REN EMAITZAK	244
5. ENPLEGU POLITIKAK	246
5.1. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK	246
5.1.1. 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa. Oinarrizko ildoak eta jarraipena 2021	
5.1.2. LANBIDEn (Enplegurako Euskal Zerbitzua) jarduera	
5.1.3. Enplegurako prestakuntza, landunei lehentasunez zuzendutakoa	

5.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK	255
5.2.1.Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak	
5.2.2.Langabeziaren babeseko gastua eta diru-sarrera	
5.3. DESGAITUEN ETA BAZTERTZEKO ARRISKUA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNERAKO ETA GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO POLITIKAK	260
5.3.1.Ezinduen enplegu arrunta	
5.3.2.Enplegurako zentro bereziak	
5.3.3.Laneratzeko enpresak	
6. LANEKO OSASUNA	265
6.1. LAN ISTRIPUEN ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEN URTEKO BILAKAERA	265
ITURRIAK	267
7. ENPLEGUA ETA LAN HARREMANAK EAEn: LABURPENA ETA ONDORIOAK	268

IV. KAPITULUA BIZI-BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA EAE-N 279

1. BIZI BALDINTZAK	281
1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO TESTUINGURUAN: "AROE" TASA 2021	283
1.1.1. Pobrezia-atalasearen azpitik dauden biztanleak	
1.1.2. Gabezia material social larria	
1.1.3. Lan-intentsitate oso txikiko biztanleria	
1.2. 2021-EKO BIZI-BALDINTZEN INKESTAREN EMAITZAK	287
1.2.1. Errenta	
1.2.2. Gabezia materiala	
1.3. 2020-KO POBREZIAREN ETA GIZARTE-DESPAREKOTASUNEI BURUZKO INKESTAREN (PGDI) EMAITZAK: DESPAREKOTASUN-ADIERAZLEAK	291
1.4. FAMILIAK ETA LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIAREN KONTZILIAZIOA	294
1.4.1. Kontziliazio-premiak	
1.4.2. Familiei laguntzeko politika publikoak	
1.5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA EAE-N: GENERO-BERDINTASUNAREN INDIZEA 2022	301
ITURRIAK	305
2. GIZARTE-BABESA	306
2.1. GIZARTE-BABESAREN KONTUA. 2021 AURRERAPENA	306
2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK	308
2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak	
2.2.2. Kudeaketa transferitua duten prestazioak: Kotizazio gabeko prestazioak	
2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N	313
2.3.1. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren prestazioak	
2.3.2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera	
2.3.3. Gizarteratzea errazteko programak: Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak, gizartean esku hartzeko esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko	
2.4. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA	322
2.4.1. EUSTATen 2020ko Gizarte-zerbitzuei eta Gizarte-ekintzari buruzko Estatistikaren emaitzak	
2.4.2. 39/2006 Legearen Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) emaitzak	
2.5. GIZARTE-AURREIKUSPENENKO SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N	328
2.5.1. Magnitude nagusiak	
2.5.2. Zerga-araubidea	
ITURRIAK	332
3. BIZI BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA LABURPENA ETA GOGOETAK	333

VII

Aurkibidea

V. KAPITULUA BIZI KALITATE EAE-N

345

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA	347
1.1. UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK	347
1.1.1. Araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak	
1.1.2. Batxilergoa: modalitateen arabera matrikulatutako ikasleak	
1.1.3. Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa: lanbide-arloaren arabera matrikulatutako ikasleak eta ikasleen laneratzea	
1.2. UNIBERTSITATEKO MATRIKULAZIOA	355
1.2.1. Unibertsitateko matrikulazioa	
1.2.2. Unibertsitateko tituluak lortzea	
1.2.3. Unibertsitate-ikasleen laneratzea. 2018an egresatutako gradu-promozioa	
1.3. HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK	359
1.3.1. Eskolatze eta hezkuntza-ingurune adierazleak	
1.3.2. Hezkuntza-finantzaketaren adierazleak	
1.3.3. Hezkuntza-emaitzen adierazleak	
1.3.4. Unibertsitateko adierazleak	
1.4. KULTURA	379
1.4.1. Kultura ohiturak eta praktikak	
1.4.2. Kultura enpresak eta enplegua	
1.4.3. Kulturako gastu publikoa	
1.4.4. Familien gastua kulturaren kontsumoan	
1.5. EUSKARAREN EGOERA EAE-N: VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021	385
ITURRIAK	388
2. INGURUNEA ETA ENERGIA	
2.1. INGURUMEN-ADIERAZLEA: FAMILIAK	389
2.2. AIREAREN KALITATEA. 2021	390
2.2.1. Airearen kalitatearen indizea eta iraunkortasun-adierazlea. 2021	
2.2.2. EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostena. 2021.	
2.2.3. Emaitzak. 2021	
2.3. KLIMA-ALDAKETA. BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK. 2020	395
2.4. UR GEZA HARTZEA ETA KONTSUMITZEA. 2020	397
2.5. EKONOMIA ZIRKULARRA. HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA. 2020.	399

2.5.1. Hondakinak kudeatzea. 2020	
2.5.2. Hiriko hondakinak sortzea. 2020	
2.5.3. Hiriko hondakin arriskutsuak.2020	
2.6. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFATURA-INDUSTRIA. 2020	405
2.7. ENERGIAREN EKOIZPENA ETA KONTSUMOA	407
ITURRIAK	412
3. OSASUNA ETA OSASUN-SISTEMA	413
3.1. OSASUN EGOERA	413
3.1.1. Bizi-itxaropean	
3.1.2. Ospitaleko erikortasuna	
3.1.3. Osasun mentala: nahasmendu mentalak	
3.1.4. Heriotza-tasa	
3.2. OSASUN-BALDINTZATZAILE EZ-MEDIKOAK EAeko GAZTEEN ARTEAN	421
3.3. OSAKIDETZAREN ASISTENTZIA-JARDUERA	424
3.3.1. Baliabideen erabilera: batez besteko egonaldia eta okupazio-indizea	
3.3.2. Itxaron-zerrendak kanpo-konsultetan eta kirurgia programatuan programada	
3.4. OSASUN-ARRETA PRIBATUAREN ESTADISTIKA: ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEAK	427
3.5. OSASUN-SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA	429
3.5.1. EUSTATen Osasunaren kontua	
3.5.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gastua	
3.5.3. Osakidetzaren gastua	
3.6. EUSKO JAURLARITZAREN 2013-2020 OSASUN PLANAREN JARRAIPENA	435
ITURRIAK	445
4. ETXEBIZITZA	446
4.1. ETXEBIZITZA ESKAINTZA	446
4.1.1. Etxebizitzen salerosketa eta prezioak: Eusko Jaurlaritzaren Higiezinaren Salerosketaren Estadistika (HSEE)	
4.1.2. Eusko Jaurlaritzako alokairu merkatuaren estadistika (AME)	
4.1.3. Etxebizitzaren salerosketa prezioen konparazioa, autonomia erkidegoen arabera	
4.1.4. Etxebizitzaren egoitzazko alokairuko errenten alderaketa, autonomia-erkidegoen arabera	
4.2. ETXEBIZITZAK ERAIKITZEA	454
4.3. ETXEBIZITZEN ESKARIA	456
4.3.1. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta, 2021	
4.3.2. Familien finantza ahalegina	

4.3.3. Etxebiden, Euskal Etxebizitza Zerbitzuan, erregistratutako etxebizitza babestuen eskaria	
4.4. HIPOTEKA EGIKARITZEAK, BOTATZEAK ETA KALERATZEAK	463
4.4.1. Hipoteka egikaritzeak	
4.4.2. Kaleratzeak eta etxegabetzeak	
4.5. ETXEBIZITZA HUTSAK ETA JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZAK. 2021	466
4.6. ETXEBIZITZA POLITIKA	468
4.6.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika	
4.6.2. Foru aldundien etxebizitzarako zerga politikak	
ITURRIAK	475
5. BIZIA KALITATEA EAEN: LABURPENA ETA GOGOETAK	476
VI.KAPITULUA ARAUGINTZA EAE-N	499
DEFINIZIOEN ETA KATEGORIZAZIOEN GLOSARIOA	507

Kapitulu honek biztanleriaren berezko mugimenduari (jaiotzak eta heriotzak eta horri dagokion saldo begetatiboa), migrazio-mugimenduei eta ezkontzei (ezkontzak eta banatzeak) buruzko oinarritzko adierazle demografikoen datu nagusiak ematen ditu, betiere Estatuan eta Europar Batasunean izandakoarekin erkatuta. Datu horietako gehienak 2020. eta 2021. urteetakoak direnez, hainbat adierazletan ikusten dira azken urteetako joeren aurkako emaitzak, zalantzarik gabe COVID-19aren, osasunean izan duen eraginaren eta hartu behar izan ziren mugikortasun-murrizketen eraginak. Ziur asko, hurrengo memorieta adierazle horiek beren azken joeretara itzultzen ikusiko ditugu. Heriotzetan izandako eragin nabarmenaz gain, migrazio-mugimenduez eta beste aldagai batzuez ari gara, hala nola ezkontzari dagozkionak.

Ondoren, Euskadin bizi diren atzerritar jatorriko biztanleriari buruzko azken zifrak aurkezten dira (demografikoak eta pertzepzio sozialari dagozkionak, batez ere), Eusko Jaurlaritzaren "Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiaren" ildo nagusien aurkezpenarekin amaitzeko.

Nazio Batuen arabera, 2022ko azaroaren 15ean, 8.000 milioi pertsona bizi ziren munduan, duela hamabi urte baino 1.000 milioi gehiago.

Bestalde, EUROSTATen kalkuluen arabera, COVID-19aren eraginaren ondorioz EBn 2020an gertatu zen hazkunde demografikoaren lehen etenduraren ondoren, EB-27ko biztanleria berriro jaitsi zen 2021ean; 2021eko urtarrilean 447 milioi izatetik 2022ko urtarrilean 446,8 milioi izatera igaro zen (milako -0,4). Saldo begetatibo negatiboa (heriotza gehiago jaiotzak baino) (milako -2,8) ezin izan da konpentsatu, bigarren urtez jarraian, migrazio-saldo positiboarekin (milako +2,4).

Epe luzeko ikuspegian, egungo EBko biztanleria 1960an zituen 354,5 milioi biztanletik 2022ko urtarrilaren 446,8ra arte hazi da (+92,3 milioi). Hazkunde-erritmoa pixkanaka murriztuz joan da azken hamarkadetan; hala, 60ko hamarkadan urteko hazkundeak, batez beste, +3 milioioak baziren, batez besteko urteko hazkundera +0,7 milioiraino murriztu da 2005-2022 aldian.

EAEn, Biztanleen Udal Erroldako 2022ko urtarrilari buruzko azken datuen arabera ¹, EAEko biztanle-kopurua jaitsi egin da azken urtean, % 0,4 (8.991 biztanle gutxiago), eta guztira 2.176.918 biztanle ditu. Lurralde historikoei buruzko datuen arabera, batez ere Bizkaian jaitsi da biztanleria (-% 0,5; hau da, 6.190 biztanle gutxiago), bai eta Gipuzkoan ere (-% 0,4; hau da, 2.841 biztanle gutxiago). Araban, berriz, mantendu egin da (% 0,0; hain zuzen ere, 40 biztanle gehiago izan ditu).

I.0.1. KOADROA. EAEko BIZTANLERIAREN ARESTIKO BILAKAERA. 2019-2022.						
	2019	2020	2021	2022	ALD. 21-22	21/22 (%)
ARABA	327.682	329.873	329.758	329.798	40	0,0
BIZKAIA	1.137.190	1.142.713	1.139.871	1.133.681	-6.190	-0,5
GIPUZKOA	713.007	716.552	716.279	713.439	-2.841	-0,4
EAE	2.177.880	2.189.138	2.185.908	2.176.918	-8.991	-0,4

Iturria: EIN. Padrón Municipal de Habitantes. Berrikusitako zifra ofizialak (22/11/18).

2022ko biztanleria-zifrekin batera, aurrerago ikusiko dugun bezala, EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak % 11,5 dira, eta 2021eko urtarrilaren 1ean, berriz, % 11,2. Atzerritar jatorriko biztanleriaren garrantzia ere handitu egin da Estatu osoan, % 15,8ra arte (+4 hamarren). Beste urte batez, EAEko datua urruti dago Espainiako batez bestekotik — erroldaren azken eguneratzearen arabera, atzerritarrek 7,6 milioi inguru dira —.

¹ Udal-errolda administrazio-erregistro bat da eta horren eraketa, mantentzea eta kudeaketa Espainian dauden 8.000 udal baino gehiagori dagokie. Datuen bidez frogatzen da herritarra benetan udalerrian bizi dela eta aipaturiko erroldako egiaztapenek izaera publikoa eta fede-emaitza dute administrazioaren ondorio guztietarako.

1. OINARRIZKO ADIERAZLE DEMOGRAFIKOEN BILAKAERA

1.1. BIZTANLERIAREN BEREZKO MUGIMENDUA

2021erako behin-behineko datuek adierazten dute hazkunde naturala (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) negatiboa izan dela EAEn bederatzigarren urtez jarraian, aurreko hamarkadan bilakaera positiboa izan ondoren: aurten, 14.257 jaiotza erregistratu dira — aurreko urtean baino % 3,3 gutxiago—, eta 23.073 heriotza —2020an baino % 4,8 gutxiago; urte horretan aparteko igoera gertatu baitzen COVID-19aren ondorioz (24.232 heriotza, aurreko urtean baino % 12,4 gehiago)—. Hala ere, 2021eko kopuruari dagokienez, heriotzen % 7,3 COVID-19ak eragin zituen (1.682 heriotza, 2020an baino % 45,7 gutxiago).

Datu horien ondorioz, hazkunde begetatiboa -8.816 biztanlekoa izan da, hots, milako -4koa. Saldo negatibo hori 3 hamarren txikiagoa da 2020koa baino, zeina serie historikoko handiena izan baitzen, aipatu bezala, pandemiak eragindako heriotzen gehikuntzaren ondorioz.

2021eko hazkunde begetatiboak bilakaera negatiboa izan du hiru lurraldeetan: Bizkaiak, 2020. urtean 5.912 biztanle galdu zituenak, 5.529 galdu ditu 2021ean. Arabak, 2020. urtean 869 biztanle galdu zituenak, 602 galdu ditu; Gipuzkoak, berriz, 2.685eko saldo negatiboa du (2020an -2.712).

1.1.1. Jaiotzak

EUSTATen "Jaiotzen Inkestak" (ENAC) erakusten du jaiotzak jaitsi egin direla, beste urte batez, hiru lurraldeetan: 2021ean, EAeko batez besteko % 3,3ko jaitsieraren aurrean, Araban 2.368 haur jaio ziren (-% 1,2 2020koaren aldean), Bizkaietan 6.957 jaiotza (-% 4,9), Gipuzkoan 4.932 (-% 1,8).

Emaitza horiek, EAE osorako, milako 6,5eko jaiotza-tasa adierazten dute (milako 6,7 2020an). Ratio hori 19,1ekoa zen 1975. urtean, eta Estatuaren batez bestekoaren gainera zegoen. Gaur egun, EAek estatuko eta EBko batez bestekoak (milako 9,1 bietan) baino txikiagoak dauzka. Lurraldez lurralde, Arabak milako 7,2ko jaiotza-tasa du —hiru lurraldeetatik handiena—, Bizkaiak milako 6,1ekoa —txikiena— eta Gipuzkoak milako 6,9koa. EAeko jaiotza-tasa txikiena da EBko herrialde guztiekin alderatuta.

I.1.1. KOADROA. EAeko BIZTANLERIAREN MUGIMENDU NATURALA*						
	Bizirik jaiotak	Tasa	Heriotzak	Tasa	Hazkunde begetatiboa	Tasa
2014	19.378	8,9	20.157	9,3	-779	-0,4
2015	18.851	8,7	21.509	9,9	-2.658	-1,2
2016	18.240	8,4	21.223	9,8	-2.983	-1,4
2017	17.076	7,8	21.632	9,9	-4.556	-2,1
2018	16.090	7,4	21.745	10,0	-5.655	-2,6
2019	15.418	7,0	21.560	9,8	-6.142	-2,8
2020	14.739	6,7	24.232	11,0	-9.493	-4,3
2021	14.257	6,5	23.073	10,5	-8.816	-4,0

* Mila biztanleko tasak.

Iturria: Eustat. Jaiotzen eta Heriotzen Estatistika eta testuaren egileak egindakoa.

I.1.2. KOADROA. JAIOTZA- ETA HERIOTZA-TASAK EBn MILA BIZTANLEKO. 1975aren ETA 2021aren ARTEKO ERKAKETA

	JAIOTZAK			HERIOTZAK		
	1975	2020	2021	1975	2020	2021
EB	14,7	9,1	9,1	10,7	11,6	11,9
ALEMANIA	9,9	9,3	9,6	12,6	11,9	12,3
AUSTRIA	12,4	9,4	9,6	12,7	10,3	10,3
BELGIKA	12,2	9,9	10,2	12,2	11,0	9,7
BULGARIA	16,6	8,5	8,5	10,3	18,0	21,7
ZIPRE	16,3	11,1	11,3	9,8	7,2	7,9
DANIMARKA	14,2	10,4	10,8	10,1	9,4	9,8
ESLOVAKIA	20,6	10,4	10,4	9,5	10,8	13,5
ESLOVENIA	16,6	8,9	9,0	10,1	11,4	11,0
ESPAINIA	18,8	7,1	9,1	8,4	10,4	9,5
ESTONIA	14,9	9,9	10,0	11,6	11,9	14,0
FINLANDIA	13,9	8,4	9,0	9,3	10,0	10,4
FRANTZIA	14,1	10,9	10,9	10,6	9,9	9,7
KROAZIA	14,9	8,9	9,2	10,1	14,1	15,8
GREZIA	15,7	7,9	8,0	8,9	12,2	13,5
HERBEHEREAK	13,0	9,7	10,2	8,3	9,7	9,8
HUNGARIA	18,4	9,6	9,7	12,4	14,5	16,1
IRLANDA	21,1	11,2	11,6	10,4	6,4	6,6
ITALIA	14,9	6,8	6,8	10,0	12,5	12,0
LETONIA	14,2	9,2	9,2	12,2	15,2	18,4
LITUANIA	15,7	9,0	8,3	9,5	15,6	17,0
LUXENBURGO	11,1	10,2	10,5	12,2	7,3	7,0
MALTA	18,8	8,6	8,5	9,5	7,9	8,0
POLONIA	19,0	9,4	8,8	8,7	12,6	13,8
PORTUGAL	19,8	8,2	7,7	10,8	12,0	12,1
TXEKIA	19,1	10,3	10,6	12,4	12,1	13,3
ERRUMANIA	19,6	10,3	9,3	9,3	15,5	17,5
SUEDIA	12,6	10,9	11,0	10,8	9,5	8,8
EAE	19,1	6,7	6,5	7,1	11,0	10,5
ERRESUMA BATUA	12,4	10,7*	:	11,8	9,0*	:


Iturriak: EUROSTAT (23/02/07an ateratako datuak) eta EUSTAT.

* Erresuma Batuko datuak 2019koak dira.

EUROSTATen kalkuluen arabera, 2021ean 4,1 milioi jaiotza izan ziren EBn (9,1 mila biztanleko), aurreko urtean baino 100.000 bat gehiago. Jaiotza-tasarik handienak Irlandan (milako 11,6), Zipren (milako 11,3) eta Suedian (milako 11) gertatzen dira, eta txikiak, aldiz, Italian (milako 6,8), Espainian (milako 9,1) eta Portugalen (milako 7,7).

Jaiotza-tasak, bestalde, intentsitate desberdinarekin egiten du behera Euskadin, amaren nazionalitatea kontuan hartuz gero. Espainiako nazionalitatea duten amen artean, jaiotza-kopurua % 1,5 jaitsi zen 2021ean Euskadin. Atzeritarren artean, berriz, % 7,7ko jaitsiera gertatu zen. 2021. urtean bizirik jaio ziren 14.257 haurretatik 3.883k ama atzeritarra zuten, alegia, jaiotakoen % 27,2k (% 28,5 2020an), atzerriko nazionalitateko biztanleen proportzioa, ikusi den bezala, dezente txikiagoa den arren. Jatorriko herrialderik ohikoak Maroko (758 ama), Kolonbia (325) eta Nikaragua (261) dira.

I.1.1. GRAFIKOA. JAIOTZA-TASEN BILAKAERA LURRALDEKA, AMA EZKONGABEENGANDIK JAIOTAKOEN EHUNEKOAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTATen datuekin egina. ENAC


Beste urte batez, azpimarratu behar da ama ezkongabeengandik jaiotakoen portzentajea gero eta handiagoa dela². 2021ean ezkontzatik kanpo jaiotakoak 6.974 izan ziren, guztien % 48,9 (% 46,9 aurreko urtean). Oraingo datua duela hamar urtekoarekin erkatuta (% 34,3 2011n), ama ezkongabeengandik jaiotako umeen ratioa nabarmen igo dela ikusten da.

Herrialdeka, ama ezkongabeek izandako haurren ehunekoak EBn (2020ko datuak) Frantziako eta Bulgariako mailen —% 60 inguru (% 62,2 eta % 59,8, hurrenez hurren)— eta Greziako (% 13,8) eta Kroaziako mailen (% 22,8) artean daude. Batasuneko batez bestekoa % 42,7 da (2019ko datua), eta bertatik kanpo, nabarmentzekoa da Islandiako tasa handia. Bertan, 2019an jaiotakoen % 69,4en amak ezkongabeak izan ziren. Espainian, 2020an, ehuneko hori % 47,6koa zen.

Azken urteetan jaiotza-tasa jaisteari mesede egin dion faktoreetako bat, jakina den bezala, amatasuna pixkanaka atzeratu izana da. Joera mantendu da 2021. urtean, izan ere, seme-alabak izan zituzten emakumeen % 80,7k 30 urte edo gehiago zituzten. Talde ugariena 30 eta 34 urte artekoa da: jaiotza guztien % 35,2. Ondoren, 35 eta 39 urteko amek izandako haurren jaiotza kopurua dator (% 34,5), eta 25 eta 29 urte arteko taldea (% 13,3) nabarmen gaintzen du. Ama nerabeak guztizkoaren % 1,1 dira. Espainiar nazionalitateko amen batez besteko adina 34,4 urtekoa izan zen. Ama atzeritarrena, berriz, 31,2 urtekoa (33,5 emakume guztiak hartuta). Halaber, lehen haurra izan duten amen batez besteko adina, 2021ean, 32,6 urtekoa da.

² Ama ezkongabeek / ezkontzatik kanpo izandako jaiotzek ez dakarte, ezinbestean, bikoterik eza, zeren eta ezkontzarik izan gabe eta ezkontzatik kanpora izan baitaiteke bikotea.

Jaiotzetatik 6.978 (% 49,9) lehen seme-alabak izan ziren, 5.361 (% 37,6) aurretik beste seme-alaba zegoeneko familietara iritsi ziren eta hirugarren seme-alabak eta ondorengoak 1.918 izan ziren (guztien % 13,4).



EUSTATen 2021eko azken "Inkesta demografikoa" (bost urtean behin egiten da), ENACen ildo beretik, adierazten du joan den mendeko 50eko hamarkadatik aurrera jaiotako emakumeen belaunaldien azken ondorengoek behera egin dutela, eta 1,3 seme-alabara iritsi direla 1976 eta 1980 artean jaiotakoentzat (azken horien ugalkortasun-historia amaitutzat jo daiteke). 40ko hamarkadako bigarren zatian jaiotako emakumeak dira belaunaldien arteko ordezkatzeari lotu zuten azkenak, hots, batez beste 2,1 seme-alaba izan zituzten.

Bestalde, emakumeen azken belaunaldien amatasunaren batez besteko adina belaunaldirik zaharrenearen antzekoa da, 75 urte eta gehiago daukatenena; batez bestekoa 30 urte baino gehiagokoa da, baina kasu honetan, hori gertatzen zen hirugarren seme edo alaba eta gerokoak guztizkoaren ia ondorengoaren % 35 zirelako, eta aldiz, 2021ean 40 eta 50 urte bitarteko adina zuten emakumeen artean, hirugarren seme edo alaba edo gerokoak ez dira iristen ondorengoaren % 8ra³.

1.1.2. Heriotzak


EUSTATen "Heriotzen Estatistikaren" (HERE) 2021eko zifrek erakusten dutenez, urte horretan 23.073 heriotza izan ziren EAEn, lehen esan bezala, aurreko urtean baino % 4,8 gutxiago, ia % 50ean banatuta gizonen eta emakumeen artean (11.565 gizon eta 11.508 emakume).

2021ean hildakoen % 27,1 tumoreengatik hil ziren. Ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunak daude (% 25,6), eta hirugarren, buru-nahasteak eta portaera-nahasmenduak (heriotzen % 7,6). COVID-19a, % 7,3rekin (1.682 heriotza), hirugarren postutik laugarrenera jaitsi da⁴. Lurraldeen arabera, Araban 2.970 pertsona hil ziren (-% 9,1 2020arekin alderatuta), 12.486 Bizkaian (-% 5,7) eta 7.617 Gipuzkoan (-% 1,6 aurreko urtearekin aldean).

³ Inkesta honen emaitzei buruzko xehetasun gehiago emateko, 2021eko Memoria Sozioekonomikora jo behar da.

⁴ Memoria honetako "Osasuna eta osasun-sistema" deritzon V.3. kapituluaren zehatz aztertzen dira euskal biztanleriaren heriotzaren kausak.

2021ean hildakoen batez besteko adina 81 urtekoa zen gure erkidegoan, 78 gizonentzat eta 84 emakumeentzat, gehiago bizi direla. Hala, azken hamarkadan gure autonomiako bizi-esperantza gizonentzat 3,2 urte handitu da eta emakumeentzat, berriz, 2,2 (+2,9 urte biztanleria orokorrari dagokionez).



Azkenik, 2021ean EAEn hildako pertsonen 421ek 100 urte edo gehiago zituzten (2020an baino 12 gehiago), eta horietatik % 83,1 emakumezkoak ziren. 100 urte beteta hiltzen diren pertsonen ehunekoa, % 1,8, bikoiztu egin da azken hamarkadan.

Europar Batasunean, 2021ean 5,3 milioi heriotza izan ziren, hots, 2020an baino 100.000 lagun gehiago (milako 11,9ko heriotza-tasaren ondorioz). Horrenbestez, berezko hazkundea (jaiotzak ken heriotzak) negatiboa izan zen, -1,2 milioi pertsona inguru (milako -2,8).

Bestalde, HEREen arabera, EAEn heriotza-tasa, 2021ean, mila biztanleko 10,5 zen (milako 11 2020an).

1.1.3. Migrazio-mugimenduen estatistika

EUSTATen 2021eko "Migrazio Mugimenduen Estatistikak" (MME) agerian utzi du urte horretan COVID-19ak 2020an izandako eragina berreskuratu zela, urte horretan nabarmen murriztu baitziren barneko zein kanpoko migrazioak.

2021ean, gure erkidegoak 3.588 pertsona irabazi zituen guztira (2020an baino % 20,5 gutxiago; urte horretan 4.512 irabazi baitziren). Lurraldean arabera, Bizkaia 1.465 lagun gehiago ditu, Arabak 1.179 eta Gipuzkoak 944.

	I.1.3. KOADROA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N					
	ATZERRIKO HERRIALDEEKIKO	ESTATUKO GAINERAKO LURRALDE EKIKO	MIGRAZIO-SALDOA*			
EAE			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	
2015	2.415	947	3.362	555	970	1.837
2016	6.897	1.974	8.871	1.474	4.320	3.077
2017	10.005	720	10.725	2.349	5.461	2.915
2018	14.642	82	14.724	2.870	7.019	4.835
2019	18.133	1.335	19.468	2.862	11.217	5.389
2020	5.245	-733	4.512	799	1.583	2.130
2021	4161	-573	3588	1179	1465	944


(*) Estatuarekiko eta atzerriko herrialdeekiko migrazio-saldoarekin batuketa.
Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika".

EAEn eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko mugimenduei dagokienez, 2021ean saldo negatiboa izan da bigarren urtez jarraian, 573 pertsonakoa oraingoan (-733 2020an), hau da, sarrera baino irteera gehiago erregistratu dira beste erkidegoetara (2007tik ez zen horrelakorik gertatu Euskadin). Bestalde, atzerriko herrialdeekiko saldoa positiboa da (4.161 lagun); 2020an, ordea, +5.245 izan ziren (-% 20,7).

EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean izandako mugimenduei dagokienez, EUSTATen datuek erakusten dute, 90eko hamarkadan jaitsiera handia izan ondoren, nazioarteko migrazio-fluxuen saldo positiboa EEn datu positiboan egonkortu zela 2003tik hona, finkaturiko datuen arabera.

Bestalde, 2021ean migrazio saldoa +1,1 milioi lagunekoa (+827.000 milioi 2020an) izan da; migrazio-tasa gordina milako 2,4koa izan da, 2020an, berriz, milako +1,9koa. Saldo positiboaren % 29,3 Alemaniari dagokio, eta % 13,9 Espainiari. Gainera, Batasuneko lau herrialdek (Grezia, Kroazia, Errumania eta Eslovakia) migrazio-saldo negatiboak izan dituzte.


I.1.4. GRAFIKOA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N.



Iturria: EUSTAT. Migrazio-mugimenduen estatistika.

Bestalde, 2021ean, 229.926 lagunek, aurreko urtean baino %11,8 gehiagok, bizileku aldaketaren bat egin zuten EAEn (EAEko biztanleen % 10,5ek); mugikortasun horren % 43,5 udal beraren barruan izan zen (99.981 joan-etorri guztira).

I.1.5. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOEN ETA EMIGRAZIOEN BILAKAERA EAE-N, INDIZE-ZENBAKIETAN. 1988=100.



Iturria: EUSTATen datuekin egina. MME.

Kanpoko edo erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoari dagokionez, 2021ean EAEko mila biztanleko 34,3ri eragin die (Arabian milako 39,3, Bizkaian milako 33,4 eta Gipuzkoan milako 33,5); 2020koa baino 4,3 puntu handiagoa da ratioa, baina tasa nahiko txikia da beste autonomia-erkidego batzuekin alderatuz gero. Autonomia-erkidego horietan, batez beste, mila biztanletik 40,4 desplazatu ziren. Autonomia-erkidegoekiko migrazio-mugimenduak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu horietako 6rekin EAEk migrazio-saldo positiboa izan zuela; gainerako 11ekin, berriz, negatiboa. Gaztela eta Leonek, Madril, Kantabriak eta Kataluniak, lauren artean, gure Erkidegoa beste erkidego batzuetara joateko utzi zuten pertsonen % 50 jaso zuten.

Bestalde, Atzerritarren immigrazioak, 2021ean, 22.721 pertsonakoa izan ziren. Horietatik, 6.408 beste erkidego batzuetatik iritsi ziren (Madril, Katalunia eta Andaluzia, nagusiki) eta 16.363 zuzenean atzerritik. Atzerritarren emigrazioak 2021ean, bestalde, 16.167 pertsonakoa izan ziren; gutzitzaoren % 45.


Azkenik, MMEak agerian uzten duenez, etorkinen eta migratzaileen batez besteko adina desberdina da (34,1 eta 37,7 urte hurrenez hurren), baina kasu bietan 20-39 urtekoek migrazioen erdia egiten dute gutxi gorabehera, eta mugimenduak egiten dituzten biztanleen generoa kontuan hartuz gero, etorkinen % 53 gizonezkoak dira (% 47 emakumezkoak). Emigrazioetan, berriz, % 54 gizonezkoak eta % 46 emakumezkoak (2020ko ratio berdinak).

Migratzaileen titulazioari dagokionez, EUSTATen estatistikaren arabera, 2020ko migrazio-saldoa (eskuragarri dagoen azken datua) positiboa izan zen (aldi horretan, gure erkidegora immigratu zuten pertsona gehiago erregistratu ziren emigratu zuten pertsonak baino) ikasketa-maila guztietan, goi mailako titulazioetan (graduak, lizentziaturak, graduondoak, masterrak, doktoretzak eta espezializazioa) eta erdi-goi mailakoetan izan ezik. Edonola ere, ohiz kanpoko urtea da, pandemiagatik, eta, beraz, oraingoz ezin da ondorioz atera.

I.1.4. KOADROA. GOI-MAILAKO TITULAZIOA DUTEN PERTSONEN MIGRAZIO-MUGIMENDUEN BILAKAERA ETA 5 URTETIK GORAKO BIZTANLERIA OSOAREKIN ALDERAKETA. EAE.						
	GOI-MAILAKO IKASKETAK DITUZTEN HERRITARRAK			5 URTEZ GORAKOAK GUZTIRA		
	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA	IMMIGRAZIOA	EMIGRAZIOA	SALDOA
2010	2.814	1.963	851	36.345	32.091	4.254
2011	1.655	1.211	444	38.513	31.405	7.108
2012	5.463	3.930	1.533	32.358	33.080	-722
2013	3.736	3.886	-150	31.765	34.031	-2.266
2014	4.086	4.213	-127	33.101	30.384	2.717
2015	3.772	4.677	-905	33.655	31.178	2.477
2016	3.793	4.288	-495	37.650	29.722	7.928
2017	4.223	4.428	-205	39.490	29.686	9.804
2018	5.351	4.532	819	44.377	30.628	13.749
2019	5.123	4.758	365	49.538	31.200	18.338
2020	4.480	4.802	-322	33.476	29.476	4.000

Iturria: EUSTAT. "Migrazio Mugimenduen Estatistika". Guk geuk egina.

I.1.6. GRAFIKOA. MIGRAZIO-SALDOEN BILAKAERA EAE-N, IKASKETA-MAILAREN ARABERA (5 URTETIK GORAKO PERTSONAK)



I.1.6. grafikoan ikus daitekeen bezala, kontuan hartutako seriean zehar, migrazio-mugimenduen zati handi bat lehen mailako ikasketak dituzten (amaituta edo amaitu gabe) pertsoneri dagokie nagusiki eta, gainera, bilakaera markatzen duen lerroa oso aldakorra da, eta ziklo ekonomikoaren araberakoa (saldo positibo handiak krisiaren aurreko urteetan eta jaitsiera handiak gure ekonomiaren daturik okerrenak izan ziren urteetan).

Saldo hori kopuru positiboetara itzuli da azken zazpi urteetan, migrazio-mugimenduen joera orokorrarekin bat, migrazioen multzorako emaitzetan ageri den legez. 2020an, aldeko migrazio-saldoaren % 51,7 izan dira.

Datu absolutuetan, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio-saldoa 2020an +4.000 pertsonakoa izan zen, eta horietatik 2.067k lehen mailako ikasketak zituzten (amaituta edo amaitu gabe), 2.279k bigarren mailako ikasketekin eta 28 lanbide-ikasketekin. Bestalde, saldoa negatiboa izan zen (irteera gehiago sarrerak baino) goi-erdi mailako ikasketak zituztenentzat (-52) eta unibertsitate-titulazioak zituztenentzat (-322; aurreko urtean, berriz, +365).

2020an, goi-mailako tituluak dituzten pertsonen 4.802 emigrazio erregistratu ziren (emigrazioen % 16,3 5 urtetik gorako pertsonak izan ziren) eta 4.480 immigrazio (guztizkoaren % 13,4); hortaz, esan bezala, -322 pertsonako saldoa egon zen.

1.2. EZKONTZAK


1.2.1. Ezkontzak

“Ezkontzen Estatistika”, Jaiotzenarekin eta Heriotzenarekin batera, Biztanleriaren Berezko Mugimendua da. EUSTATEN arabera, 2021ean 6.427 ezkontza egin ziren EAEn, 2020an baino % 58,4 gehiago (2020a COVID-19aren pandemia eta haren murrizketak gertatu ziren urtea izan zen). Susperraldi horrek, garrantzitsua bada ere, ez dirudi oraindik osoa denik; izan ere, 2019. urtearekin alderatuta, 2021ean oraindik ere % 14 jaitsi da ezkontzen kopurua. 2021eko 6.427 ezkontzetatik, 6.161 sexu desberdineko pertsonen artekoak izan ziren (+% 57,5) eta 266 sexu bereko pertsonen artekoak (+% 82,2); 160 emakumeen artekoak eta 106 gizonen artekoak.

Zifra horiekin, EAeko ezkontza-tasak, 2020an minimo historikora iritsi zenak (1,7 ezkontza 1.000 biztanleko), puntu bat egin du gora 2021eko milako 2,7ra arte (3,2 2019an), Estatukoa (milako 3,1) eta Europar Batasuneko batez bestekoa (milako 3,2 2020an) baino txikiagoa (milako 4,3 2019an).

2020an ezkontza-tasa handienak izan zituzten Europako herrialdeak Letonia eta Lituania izan ziren (milako 5,6 eta 5,5, hurrenez hurren); ratio txikiak, berriz, Portugal (milako 1,8) eta Irlanda (1.000 biztanleko 1,9 ezkontza). Kontuan izan behar da, sarreran adierazi dugun bezala, pandemiak eragindako 2020ko atipizitatea, zeinak aldagai demografiko horiei eta beste batzuei eragin baitie.

I.1.7. GRAFIKOA. EZKONTZA ZIBILEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAE-N*



Horren arrazoa izan daiteke, halaber, 2021ean, hainbat urtez gora egin ondoren, sexu desberdineko pertsonen arteko ezkontza zibilen proportzioak apur bat behera egin duela gure erkidegoan, 2020an % 93,6 izatetik 2021ean % 92 izatera igaro baitira (1990ean % 23 baino ez ziren). Lurraldeka, ezkontza zibilek Araban eta Gipuzkoan izan zuten pisu handiena (% 92 eta % 90,7, hurrenez hurren), eta ondoren Bizkaian (% 89,6). Guztira, EAEn 2021ean 5.555 ezkontza zibil egon dira, 600 ezkontza katoliko eta beste erlijio batzuetakoak, berriz, 6 izan dira.


Halaber, 2021ean, ezkontzen diren pertsonen adinak behera egin du apur bat, serie historikoko ezkontzeko uea atzeratzeko joeraren kontrara. Erreferentziako urtean, ezkondu ziren gizon ezkongabeen batez besteko adina 38,8 urtekoa izan zen (39,2 2020an) eta 36,6koa emakume ezkongabeena (37,1 2020an). Azken 25 urteotan, ezkontideen batez besteko adinak 9 urte egin du gora, eta egonkor iraun du bien arteko urte biko aldeak. Eta, ezkondu aurreko egoera zibila kontuan hartuta, aurretik dibortziatutako gizonak senarren % 16,3 izan ziren, eta emazteen % 16,8 ziren dibortziatuak.

1.2.2. Ezkontza desegiteak

INEren "Estadística de Nulidades, Separaciones y Divorcios"⁵ (Banatzeen, Dibortzioen eta Baliogabeteen Estatistikak) estatistikan adierazten duenez, 2021ean apur bat suspertu da dibortzioen eta banantzeen kopurua gure erkidegoan (+% 2,6), 2020an izandako beherakada garrantzitsuaren ondoren (-% 19,9), eta Estatu osoan, berriz, % 13,2 igo da, eta ia irauli egin da 2020ko jaitsiera (-% 16,1).

⁵ "Estadística de Nulidades, Separaciones y Divorcios" estatistikak lehen auzialdiko, instrukzioko eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren epaitegiek emandako informazioaren bidez egiten da; informazio hori ezkontza bidezko loturaren baliogabetze-prozesuari buruzkoa da.

Erreferentziatzeko urtean, 3.398 dibortzio eta 144 banantze izan ziren EAEn. Baliogabetzen urteko kopurua Sekoa zen batez beste azken urteotan, eta 1ekoa izan da 2021ean. Azken batean, 3.543 ezkontza-disoluzio izan ziren, 2020an baino % 2,6 gehiago, eta datu horrek mila biztanleko 1,6 desegiteko ratioa erakusten du, Estatuko milako 1,9aren aldean.



Tasa handienak dituzten autonomia-erkidegoak Ceuta (2,4 desegite mila biztanleko) eta Valentziako Erkidegoa, Murtzia eta Katalunia dira (milako 2,1 hirurak). Etete-tasa txikienak dituztenak Gaztela eta Leon (milako 1,5) eta Aragoi, Extremadura eta Euskadi dira (mila biztanleko 1,6 desegite).

Nazioarteko konparazioei dagokionez, dibortzioen tasa gordina, azken urteetan, milako 2 ingurukoa zen Europar Batasun osoan (milako 1,6ra jaitsi da 2020an, berriz ere oso datu txikia), Maltako milako 0,5etik Danimarka, Letonia eta Lituaniako milako 2,7ra (EUROSTATen datuak).

Euskadin banantzen edo dibortziatzen diren pertsonen profilarri dagokionez, EINen datuek erakusten dute gehienak 40 eta 49 urte bitartekoak direla gizonezkoetan zein emakumezkoetan, eta emakumeen batez besteko adina 2021ean 45,6 urtekoa izan zen. Gizonena, berriz, 48 urtekoa.

Gainera, desegindako ezkontzen batez besteko iraupena 16,5 urtekoa da, eta kasuen % 56,8an seme-alabak dituzte ezkontideek, % 45,2 adingabeak.

I.1.5. KOADROA. EZKONTZAK EUROPAR BATASUNEAN. ADIERAZLE NAGUSIAK.


	EZKONTZAK (1.000 BIZTANLEKO)			DIBORTZIOAK (1.000 BIZTANLEKO)		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
EB	4,5	4,3	3,2	1,8	1,8	1,6
ALEMANIA	5,4	5,0	4,5	1,8	1,8	1,7
AUSTRIA	5,3	5,2	4,4	1,8	1,8	1,7
BELGIKA	3,9	3,9	2,8	2,0	2,0	1,8
BULGARIA	4,1	4,2	3,2	1,5	1,6	1,3
ZIPRE	7,8	8,9	:	2,4	2,6	:
DANIMARKA	5,6	5,3	4,9	2,6	1,8	2,7
ESLOVAKIA	5,7	5,4	4,4	1,8	1,7	1,5
ESLOVENIA	3,5	3,2	2,5	1,1	1,2	0,8
ESPAINIA	3,5	3,5	1,9	2,0	1,9	1,7
ESTONIA	5,0	5,1	4,6	2,4	2,1	1,9
FINLANDIA	4,3	4,0	4,0	2,4	2,4	2,4
FRANTZIA	3,5	3,3	2,3	:	:	:
GREZIA	4,4	4,4	2,9	:	:	:
KROAZIA	4,9	4,9	3,8	1,5	1,5	1,3
HERBEHEREAK	3,7	3,7	2,9	1,8	1,7	1,7
HUNGARIA	5,2	6,7	6,9	1,7	1,8	1,5
IRLANDA	4,3	4,1	1,9	:	:	:
ITALIA	3,2	3,1	1,6	1,5	1,4	1,1
LETONIA	6,8	6,7	5,6	3,1	3,1	2,7
LITUANIA	7,0	7,0	5,5	3,1	3,1	2,7
LUXENBURGO	3,1	3,5	2,9	2,0	3,1	2,3
MALTA	5,8	5,3	2,2	0,7	0,7	0,5
POLONIA	5,1	4,8	3,8	1,7	1,7	1,4
PORTUGAL	3,4	3,2	1,8	2,0	2,0	1,7
TXEKIA	5,1	5,1	4,2	2,3	2,3	2,0
ERRUMANIA	7,4	6,6	4,2	1,6	1,6	1,2
SUEDIA	5,0	4,7	3,6	2,5	2,5	2,5
EAE	3,3	3,2	1,7	2,0	2,0	1,6

Iturriak: EUROSTAT (23/02/08an ateratako datuak), EUSTAT eta INE.

2. IMMIGRAZIOA EAE-N

2.1. TESTUINGURUA: IMMIGRAZIOA EUOPAR BATASUNEAN

Nazioarteko migrazioak nazioarteko agenda politikoaren eta garapenaren funtsezko gaietako bat dira; izan ere, gizarte eta ekonomia globalen egungo berezitasunetako bat da.



Europar Batasuneko biztanleria etengabe hazi zen 2019ra arte (+1,1 milioi urte horretan, +1,9 milako) migrazio-saldo positiboak hazkunde begetatiboa konpentsatzen zuelako (jaiotzak ken heriotzak), zeina negatiboa baita 2015etik. 2020an, positiboa izan arren (+1,8 milako), saldo hori azken hamarkadako txikiena izan zen, eta, aldi berean, begetatiboa milako 2,5 jaitsi zen, pandemiak eragindako heriotzen zifra altuen ondorioz. 2021ean, ikusi dugun bezala, EB-27ko biztanleria berriro jaitsi da, 2021eko urtarrileko 447 milioietatik 2022ko urtarrileko 446,8 milioietara (milako -0,4). Hala, saldo begetatibo negatiboa (heriotza gehiago jaiotzak baino) (milako -2,8) ezin izan da konpentsatu, bigarren urtez jarraian, migrazio-saldo positiboarekin (milako +2,4).

Nolanahi ere, joera globalei buruzko ziurgabetasun handiko urte atipiko hauetan ere, migrazio-mugimenduak funtsezkoak dira Batasuneko herrialdeen dinamika demografikoetan.


Euskadin, 2019an, Lehendakariak “*Migraziorako Euskal Itun Soziala*” aurkeztu zuen. Ituna euskal administrazio guztiek eta migrazio-gertakariari lotuta diharduten gizarte-erakunde gehienek sinatu zuten, adostasun eta batasuneko irudia emateko, mezu xenofoboak agertu diren testuinguru batean. Onartzen da, ordea, Euskadik, orain arte, elkartzunez eta batasunez erantzun duela beti migrazioaren erronkak izan dituen adierazpen guztien aurrean.

Itun horrek “*Jaso nahiko genukeena eskaintzea*” du izenburu, onartuta edozein pertsona egon daitekeela migratzera behartuta eta migratzaile bagina jaso nahi genituzkeen duintasun baldintza unibertsal batzuk definitu behar direla, orain behar dutenei gauza bera eskaintzeko⁶. 2021aren amaieran hasi eta 2023ra arte luzatuko den Euskal Itun Sozialaren hedapenaren helburua da Itunaren eta haren balioen garrantzia euskal gizartearen eremu guztietara eramatea, eta, hura amaitzean, memoria honetan horren emaitzen berri emango da.

⁶ Itun honi buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo 2019ko Memoria Sozioekonomikora eta Eusko Jaurlaritzaren webgunera: https://bideoak2.euskadi.eus/2019/11/30/news_58860/Anexo_1_PACTO_ITUNA.PDF

2.2. INPAKTU DEMOGRAFIKOA

I.2.2. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLERIAREN URTE ARTEKO GEHIKUNTZA ABSOLUTUA EAE-N. 1999-2022




Iturria: IKUSPEGI (82. Begirada, 2022ko maiatzekoa), INEaren datuekin.

Udal Erroldako datuen arabera, 2022ko urtarilaren 1ean 253.038 atzerritar bizi ziren EAEn (guztizkoaren % 11,5). Zortzi urtez jarraian hazi da, 5.242 pertsona gehiago (+% 2,1), 2013-2014 biurtekoan jaitsiera txikia izan ondoren eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako igoera nabarmeneko aldia igarota.

I.2.2 grafikoan ikus daitekeen bezala, 2021eko eta 2022ko aldaketa positiboak aurreko urteetakoak baino askoz txikiagoak dira, pandemiaren ondoriozko murrizketek eraginda, zalantzarik gabe. Zifra horiek perspektiban jartzearren, 2022ko datuak (+5.254) % 73,4ko atzerakada adierazten du 2019ko igoerarekin alderatuta (+19.732), bai eta -% 13,3koa 2021ekoarekin alderatuta (+6.060).

I.2.3. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLERIAREN EHUNENKOAREN BILAKAERA ESTATUAN ETA EAE-N.



Iturria: IKUSPEGI, EINaren datuekin.

2022ko zifretara itzuliz, Bizkaian bizi da atzerritar gehien (124.766 atzerritar, guztizkoaren % 49,3), eta, ondoren, Gipuzkoan, 83.274 atzerritar (kolektiboaren % 32,9) eta Araban, 44.998 (% 17,8). Atzerritar jatorriko biztanleen kopuruak gora egin du hiru lurraldeetan, aurreko urteetan baino askoz ere erritmo txikiagoan. Biztanleria osoaren gaineko pisuari

dagokionez, ratorik handiena Araban dago (% 13,5) eta, ondoren, Gipuzkoan (% 11,5). Bizkaian dago atzerritar jatorriko pertsonen pisurik txikiena (guztizkoaren % 10,9).

2022ko urtarrilean erroldatutako atzerritar jatorriko 253.038 pertsona horiek biztanleriaren % 11,5 dira, 2021ean baino 3 hamarren gehiago; Estatuan, berriz, ratioa 4 hamarren hazi da, % 15,8ra iritsi arte. Gainera, gora egin du bosgarren urtez jarraian, 3 urtez zero hazkunde izan ostean (2015 eta 2017 artean).


Eusko Jaurlaritzaren Immigrazioaren Euskal Behatokiak (Ikuspegi) "Panoramika" buletinean (84. zenbakia, 2022ko maiatzeko a) erroldari buruz egindako datuen aurrerapenaren azterketak agerian uzten du Euskadik duen atzerritar jatorriko biztanleriaren pisua, autonomia-erkidegoen testuinguruan, Gaztela-Mantxarekin (% 11,7) eta Andaluziarekin (% 10,9) aldera daitekeela.

EAEEn atzerritar jatorriko biztanleria ia zati berdinetan banatzen da sexuaren arabera, eta emakumeak dira nagusi: % 47,7 gizonak dira eta % 52,3 emakumeak; hala ere, aldeak ikusten dira jatorrizko lurraldearen arabera: Latinoamerikatik etorritako biztanleen artean, emakumeen presentzia handiagoa da (% 60,9); Europakoan artean, berriz, ia % 50eko oreka dago. Asiar eta afrikar jatorriko biztanleriari dagokionez, gizonen pisua emakumeena baino handiagoa da, eta alderik handiena Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako kolektiboan dago (% 64,5 gizonak dira). Lurraldeka, eta aipatutako talde bakoitzaren presentzia handiagoarekin edo txikiagoarekin zuzenean lotuta, emakumeen pisu handiena Bizkaian dago (atzerritar jatorriko kolektiboaren % 52,9), gero Gipuzkoan (% 52,2) eta, azkenik, Araban (% 51 emakumeak). Azken horietan, afrikar jatorriko biztanleen presentzia handiagoa da.

Atzerriko jatorriko biztanleak eta atzerritar nazionalitatekoak erkatuta ikusten denez, atzerritar nazionalitatekoa atzerrian jaiotakoak baino gutxiago dira eta, neurri handi batean, aurreko urteetan izandako nazionalitateengatik gertatu da. Gaur egun, 70.000 lagunetik gorakoa da bien arteko diferentzia. Hala, atzerritar nazionalitatekoak 182.693 ziren 2022ko urtarrilean, atzerritar jatorrikoen % 72,2, hain zuzen ere.


Bestalde, etorkinen jatorrizko eskualdearen eta nazionalitatearen arabeko bilakaeraren analisiak erakusten du haien osaera aldatuz joan dela, baina joera argi batekin: 2022an latinoamerikar jatorriko biztanleria nagusi izaten jarraitzen du (% 52), eta EBko beste herrialde batzuetatik datorrena, berriz, pisua galtzen joan da (% 14,2 2022an). Afrikar jatorriak gora egiten ari dira 2003. urteaz geroztik, eta Magreb bigarren postuan kokatu da aurten, EBren aurretik, % 14,5ekin (+3 hamarren, 2021. urtearekin alderatuta). Saharaz hegoaldeko Afrikak pisu txikiagoa du: % 7,2 2022an.

I.2.4. GRAFIKOA. ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLERIAREN EHUNEKOA BIZTANLERIA OSOARI DAGOKIONEZ, AUTONOMIA-ERKIDEGOKA. 2021-2022.




Iturria: IKUSPEGI, EINaren datuekin

Asiako jatorri dagokienez, presentzia txikiagoa da, eta azken hamarkadan % 6tik % 7ra bitartean mantendu da (% 6,5 2022an).



Nazionalitateen arabera, 2022an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean, zortzi Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Venezuela, Honduras, Paraguai eta Peru), bat EBkoa (Errumania) eta bat Afrikakoa (Maroko). Hamar jatorri horien batura atzerritar jatorriko biztanleriaren % 57,1 bada ere, 2008ra atzera eginez gero, pilaketa hori handiagoa zela ikusiko dugu, eta horrek jatorriko herrialde desberdinen presentzia handiagoa eta dibertsifikazioa erakusten ditu, gaur egun, EAEn bizi diren atzerriko jatorriko taldeen osaeran.



2022an, eta etenik gabe 2014tik, marokoarra da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn, 29.701 pertsona baitaude erroldatuta, EAeko atzerriko jatorriko pertsona guztien % 11,7. Bigarren tokian kolonbiarrak daude, guztizkoaren % 11,3arekin.

I.2.1. KOADROA. EAEn BIZI DIREN ATZERRITAR JATORRIKO BIZTANLEEN JATORRIZKO HERRIALDE NAGUSIAK. DATUAK, LURRALDEKA. 2022.

EAE	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA						
	KOP.	%	KOP.	%	KOP.	%					
1. MAROKO	29.701	11,7	1. MAROKO	6.957	15,5	1. KOLONBIA	15.378	12,3	1. MAROKO	9.774	11,7
2. KOLONBIA	28.675	11,3	2. KOLONBIA	6.940	15,4	2. MAROKO	12.970	10,4	2. NIKARAGUA	7.513	9,0
3. NIKARAGUA	15.070	6,0	3. ALJERIA	2.447	5,4	3. BOLIVIA	9.765	7,8	3. KOLONBIA	6.357	7,6
4. ERRUMANIA	14.913	5,9	4. PAKISTAN	1.717	3,8	4. ERRUMANIA	8.746	7,0	4. HONDURAS	5.437	6,5
5. BOLIVIA	12.181	4,8	5. PERU	1.665	3,7	5. NIKARAGUA	7.124	5,7	5. ERRUMANIA	4.888	5,9
6. VENEZUELA	10.971	4,3	6. VENEZUELA	1.639	3,6	6. VENEZUELA	6.832	5,5	6. EKUADOR	3.615	4,3
7. EKUADOR	9.110	3,6	7. EKUADOR	1.556	3,5	7. PARAGUAI	5.994	4,8	7. PORTUGAL	3.118	3,7
8. HONDURAS	8.513	3,4	8. NIGERIA	1.523	3,4	8. EKUADOR	3.939	3,2	8. ARGENTINA	2.969	3,6
9. PARAGUAI	7.982	3,2	9. PARAGUAI	1.490	3,3	9. PERU	3.636	2,9	9. FRANTZIA	2.770	3,3
10. PERU	7.465	3,0	10. BRASIL	1.472	3,3	10. BRASIL	3.568	2,9	10. PAKISTAN	2.606	3,1
10 GUZTIRA	144.581	57,1	10 GUZTIRA	27.406	60,9	10 GUZTIRA	77.952	62,5	10 GUZTIRA	49.047	58,9
GAINERAKOAK	108.457	42,9	GAINERAKOAK	17.592	39,1	GAINERAKOAK	46.814	37,5	GAINERAKOAK	34.227	41,1
GUZTIRA	253.038	100,0	GUZTIRA	44.998	100,0	GUZTIRA	124.766	100,0	GUZTIRA	83.274	100,0


Iturria: IKUSPEGI EInen datuen bidez.

2.3. PERTZEPZIO SOZIALA: IKUSPEGI 2022 BAROMETROA

Ikuspegiren 2022ko Barometroaren arabera, euskaldunentzat immigrazioa ez da arazo bat. % 2,8k soilik aipatu du berez EAeko lehen arazo gisa (% 1,5ak 2021ean), eta aipamen guztiak % 6 dira (2021eko ratio berdina), gehienez hiru erantzunekin.


Iradozikun modura, elkarrizketatutako biztanleen % 5,7k aipatu du; 2021ean, berriz, % 9,8k. Eragin pertsonalari dagokionez, 2022an gehien aipatu diren arazoak arazo ekonomikoak (% 40,3) eta langabezia (% 19,8) izan dira; immigrazioa, berriz, inkestatutako pertsonen % 3,3rentzat soilik izan da hiru arazo pertsonal nagusietako bat (% 1arentzat, lehen aipamen gisa soilik jotzen bada).

I.2.7. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOA ARAZO PERTSONAL GISA EDO EUSKADIKO ARAZO GISA HARTZEN DUTENEN BILAKAERA. BAIEZKO ERANTZUNA EMAN DUTENEN EHUNEKOA*. EAE.




Enpleguari dagokionez, immigrazioarekiko ikuspegi funtzionala lan-merkatuari dagokionez, nabarmen higitu zen 2008an hasitako krisiaren ondorioz: 2004an, % 80ak uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko; 2014an, berriz, % 30,4ak bakarrik uste zuen hori. Gorabehera batzuekin, 2015az geroztik, ordea, berriro hazi zen ikuspegi utilitarista hori, 2022an % 76raino iritsi arte (+5,3 puntu 2021aren aldean).

Antzeko zerbitu gertatu zen beste baieztapen batekin ere, hain zuzen etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela. 2014. urtean, % 32,8 ados zegoen horrekin (kontuan hartutako serieko ratorik baxuena), eta berriro ere, zenbait gorabeherekin, 2022an % 77,6ra iritsi zen (+11,6 puntu 2021. urtearen aldean). Bi datu horiek argi erakusten dute immigrazioaren gutxi gorabeherako iritzi positiboa, tradizionalki ziklo ekonomikoarekin lotuta egon dena, dagoeneko ez dela berdin mantentzen, izan ere, immigrazioak ekonomian duen zereginaren balorazioak gorantz jarraitzen du baita gaur egungo une ekonomikoan ere.




Bestalde, biztanleria autoktonoak eskubide eta zerbitzu jakin batzuk etorkinen eskura egoteari buruz duen iritzia eskubide edo zerbitzu motaren arabera aldatzen da. Euskal gizartearen gehiengoak eskubide unibertsaltzat jotzen ditu hezkuntza (% 88,8) eta osasuna (% 83,3) eta, ondorioz, uste du eskubide horiek eskuratzeko etorkin guztientzat egon behar lukeela zabalik, egoera irregularrean egon zein ez. Eta, COVID-19ak eragindako osasun-larrialdiaren testuinguruan, EAEko biztanleen % 99k uste du egoera larrienean dauden pertsonen laguntza ematea lehenetsi behar dela, jatorria edozein dela ere (% 94,2 2020an).

Beste eskubide batzuez ari garenean (laguntza juridikoa, gizarte-laguntzak, berrelkartzea, BOE edo bozkatzeko eskubidea), euskal biztanle gehienak murriztearen eta egoera administratibo erregularrean dauden pertsonen baina ezin eskuratzearen alde daude, I.2.9. grafikoan ikus daitekeen bezala.



Azkenik, urteko inkestan bildutako datuak oinarri hartuta, IKUSPEGIK euskal biztanleriak immigrazioarekiko duen "tolerantzia-indizea" egin ohi du. 2020ko Barometroak 2019koak baino indize handiagoa eman zuen (65 puntu, aurreko urteko 60,67 puntuen aldean), serie historikoko handiena da. Bilakaera horri dagokionez, IKUSPEGIren txostenean ondorioztatu zen indize horretan lortutako emaitzak oso lotuta egon zirela ordura arte dinamika makroekonomikoekin, eta, beraz, hedapen ekonomikoko aldietan puntuazio altuagoak lortzen direla eta krisi-faseei atzerritar jatorriko pertsonetikiko konfiantza-galerak eta tolerantzia txikiagoa lotzen zaizkiela, eta lotura hori immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren fase goiztiarretan dauden gizarteetan gertatzen dela.

I.2.10. GRAFIKOA. IMMIGRAZIOAREKIKO TOLERANTZIA-INDIZEAREN BILAKAERA EAE-N



Iturria: IKUSPEGI. 2022ko barometroa.

Hala ere, 2020an hasitako COVID-19aren krisiak egoera berria ekarri du, lotura hori hausten duena; izan ere, ekonomiaren gainbeherarekin batera ez da tolerantzia jaitsi, guztiz kontrakoa baizik, eta indizeak gora egin zuen berriro 2021ean, 66,1era arte (+1,1 puntu), eta, berriz ere, 2022an, 69,3ra arte (+3,2). Azken urteko gorakada nabarmena, neurri batean behintzat, Errusiak Ukraina inbaditu izanak eta asilo eta babes bila iritsitako ukrainarrek eragin dute, Ikuspegiren arabera. Horrek elkartasun eta enpatia oldea eragin du bereziki herri honekiko eta, oro har, atzerritar jatorriko pertsonetikiko. Behatoki honek adierazi du ikusteko dagoela adierazlearen bilakaera positibo hori datozen urteetan mantenduko den.

3. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO "2030 ESTRATEGIA". ESPARRU OROKORRAREN LABURPENA ETA DOKUMENTU OPERATIBOA

Demografiaren gaia da, gaur egun, gizarte-trantsizioan eragin handiena duen faktoreetako bat. Familia, Emantzipazioa, Gizarte-politikak, Etxebizitza, Enplegua, Haur-hezkuntza eta antzeko politika sektorialek zuzenean eragiten duten erronka bat. Gazteek emantzipatzeko eta bizitza autonomoko proiektu bat garatzeko dituzten baldintzak aztertzea xede duen funtsezko adierazle bat. Hori dela eta, lehentasunezko kezka da, bai tokiko ikuspegitik, bai ikuspegi globaletik. Nazio Batuen 2030 Agendaren ikuspegi estrategikoaren parte da. EBk ere azpimarratu du desoreka demografiko gero eta handiagoa hurrengo urteetako makrojoeretakoa dela. EBko Kontseiluak, "Erronka demografikoen aurrean jarraitu beharreko bidea" dokumentuan, politika demografikoen esparru bat landu, mantendu eta eguneratzeko eskatu du, gizarte-solaskideen esku-hartzearekin.

Kapitulu honetan ikusi den bezala, Euskadi ugalkortasunari eta jaiotza-tasari buruzko daturik baxuenak dituen Europako herrialdeen artean dago. 2021ean, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sailen arteko gogoeta-prozesu bat bultzatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta erakundeen artekoa, foru-aldundiekin, erronka demografikorako euskal estrategia baten edukiak definitzeko. Prozesu hori 2022ko ekainean amaitu zen, "Erronka demografikorako 2030 Euskal Estrategia" onetsi zenean. Horren ildo nagusiak jarraian laburbiltzen dira.

3.1. ESPARRU OROKORRA

Hona hemen orain arte egindakoaren balantzetik eta nazioarteko erreferentzia nagusien azterketatik ateratako ondorio nagusiak:

- Euskadin orain arte garatu diren sailtetako politika askok (enpleguko, etxebizitzako, hezkuntzako, osasuneko edo gizarte-zerbitzuetako sektore-politikak; hainbat sektoretan edo biztanleria-taldetan oinarritutako politikak, hala nola gazterian, haurtzaroen eta familietan, migratzaileetan eta asilo-eskatzaileetan; eta zeharkako politikak, hala nola berdintasun-politikak) erronka demografikoari heltzen laguntzen dute, baina estrategia integratu eta koherente batean artikulatu eta optimizatu behar dira, jarduketa-sorta hori bateratu eta demografia-auziari modu autonomoan helduko diona, sailen eta erakundeen arteko zentzu- eta ikuspegi-batasunarekin.
- Biztanleriaren zahartze-joerak bere horretan jarraitzen du, gazteen emantzipazioaren batez besteko adinean ez da aurrerapen nabarmenik gertatu, eta jaiotza-tasetan ere ez da aldaketa aipagarririk hauteman, familiek nahi dutenean nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten laguntzeko irizpidearen ildotik. Gainera, ziurrenik, pandemiak eragin negatiboa izango du, epe labur eta ertainean, bai emantzipazioan, bai jaiotza-tasan.
- Testuinguru horretan, balio erantsi oso garrantzitsua hartzen du eragiteko jarduketa-plan bat duen estrategia bat definitzeak, gazteen emantzipaziorako batez besteko adina murriztera, familia berriak eratzea bultzatzera eta jaiotza-tasak handitzen laguntzera bideratua.
- Helburuek neurri espezifikokoak eta ekintza positiboko neurriak bideratu behar dituzte xede-talde jakin batzuetan, helburu estrategiko horiek lortze aldera, hargatik eragotzi gabe estrategia horren esparruan epe ertain eta luzerako lehentasunezko beste alderdi batzuk jorratzea. Adibidez, zahartzeari eta autonomiaren sustapenari dagokienez, 30eko hamarkadan, edo migratzaileen inklusioari eta landa-balioa handitzeari dagokienez. Nolanahi ere, gazteen emantzipaziorari eta jaiotza-tasari buruzko datuak aldatzea ezinbestekoa da gizartea gaztetzeko eta piramide demografikoa alderantzikatzeke.
- Nazioarteko erreferentzia nagusiei dagokienez, erakunde guztiek biztanleriaren gainbehera demografikoari eta zahartzeari lehentasunik handiena emateko gonbidapena egiten dute. Politika publikoen ahaleginak makrojoera hori iraultzea bideratzea proposatu dute, nahiz eta deialdi horrekin batera ez datorren argi eta garbi zehaztutako eta definitutako politiken ildo bat. Ekimen horiek aztertzeke eta adosteko gonbidapen orokor baten barruan sartzen da. Ekimen horiek apuntatuta daude soilik, eta haien eraginkortasuna oraindik ere agerian geratu behar da.

Horrek guztiak esplizituki aitortzen du zeregin horren konplexutasuna.

- Euskadiko datuen arabera, Europar Batasunean balantze demografiko txarrena duten herrialdeen artean gaude, eta, beraz, larrialdi baten eta erronka sozial oso garrantzitsu baten aurrean gaude. Horri gehitu behar zaio Espainiako Estatuan eta Euskadin ELGAko batez bestekoaren azpitik gaudela, familian inbertitzera bideratutako BPGaren ehunekoari dagokionez.
- Konparazioan, balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizi egiten dira, baliabide gehiago bideratzen dituztelako gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzera, askotariko neurriekin, eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak ematen dizkietelako seme edo alaba bakoitzeko. Horrez gain, bateragarritasun-neurriak sustatzen dituzte, migrazioaren etorrera eta gizarteratzea eta laneratzea errazten dute, eta, bestalde, zahartze aktibo eta osasungarriko politikak bultzatzen dituzte, adinekoen autonomia sustatzen dute, edo landa-ingurunearen potentziala birbalioesten dute.

I.3.1. KOADROA. ERRONKA DEMOGAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA. GAKO NAGUSIAK.

PRINTZIOIOAK

- UMILTASUNA ETA MUGATZE-KONTZIENTZIA
- AITORPENA ETA BALIO POSITIBO IRAUNKORRAREN KONTZIENTZIA
- ERANTZUKIZUNA ETA KONTZIENTZIA ETIKO PERTSONALA
- SOLIDARITATEA ETA GIZA DUINTASUNAREN KONTZIENTZIA

BALIOAK

- ELKARRIZKETA
- KOOPERAZIOA
- JARRAIKITASUNA
- PROAKTIBITATEA

PREMISA ESTRATEGIKOAK

- IKUSPEGI INTEGRALA, SISTEMIKOA ETA PROGRESIBOA
- GENERO-IKUSPEGIA
- DIBERTSITATEA ETA TRATU-BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIORIK EZA
- ERANTZUNKIDETASUNA
- IRAUNKORTASUNA
- ESKUBIDEEN ETA AUTODETERMINAZIOAREN BERMEA ETA ADINEKOEN AUTONOMIA
- GAZTEEN EMANTZIPAZIO-PROZESUAREN ZENTRALITATEA
- ZEHARKAKOTASUNA ETA POLITIKEN KOHERENTZIA
- ESKUBIDEEN IKUSPEGIA ETA GIZARTE-BABESA SENDOTZEA
- BELAUNALDIEN ARTEKO ELKARTASUNA.

Iturria: Eusko Jaurlaritza. ERRONKA DEMOGAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA (2022). Guk geuk egina.

3.2. DOKUMENTU OPERATIBOA

Estrategiaren **Jarduketa-plana**⁷ hiru bloke handitan banatzen da:

I. EPE LABURREKO INPAKTU-IRIZPIDEA DUTEN JARDUKETA BERRIAK BULTZATZEA

Helburua da datozen urteetan joera negatiboan aldaketa bat eragitea, bai emantzipazio-adinean, bai jaiotza-tasetan, epe ertainean gainbehera demografikoko egoera batetik susperraldi demografikoko agertoki batera igarotzea errazteko. Lehenengo gauza, beraz, joera-aldaketa bat lortzea da, epe laburrean. Bigarrena da bermatzea helburu horretara bideratutako jarduketak iraunkorrak eta jasangarriak izango direla ibilbide luzean ere, eta, horretarako, orientabide estrategikoak honako hauek dira:

1. Laguntza-sistema iraunkor eta jasangarri bat bultzatzea, emantzipaziorako eta familiek nahi dutenean nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten laguntzeko baldintza mesedegarrien esparrua sortuko duena.
2. Familiak eraikitzeke ekosistema egokia sustatzea, eta, zehazki, familiek hazkuntzarako jasotzen dituzten estimuluak handitzea, ardurapeko seme-alaba bakoitzeko zuzeneko laguntzak handituz, ebaluazioaren eta progresioaren ikuspegitik.
3. Gaur egungo maileguen ebaluazioan oinarrituta, mailegu-programak ezartzea, subsidiatuak edo interesik gabeak, epe luzera itzultzeko aukerekin, gazteentzako bideratuak ekintzailtza-proiektuetarako, prestakuntzarako eta ohiko etxebizitza erosteko.

⁷ Aurreikusitako helburuak eta jarduketak zehatzago azaltzeko, [estrategiaren dokumentura](#) jotzen da.

4. 0-3 haur-hezkuntzako plaza publikoen eskaintza eta eskaria egokitzea eta 2023. urtearen amaieran 0-2 urteko etapan doakotasuna lortzea, Haurreskolak Partzuergoa indartuz, kalitatezko eta doako zerbitzu publiko eta unibertsal gisa, eta haur zaugarriek plazak izan ditzatela sustatzea, informazio-kanpainen bidez, ordutegiak eta ereduak malgutzuz, unibertsaltasunean eta aukera-berdintasunean aurrera egiteko eta kontziliazioa indartzeko baldintzak sortzeko.
5. Ikuspegi demografikoa sustatzea, politika publiko guztiak garatzean kontuan hartu behar den zeharkako dimentsio gisa.

Honako jarduketak hauek aurreikusi dira:

- Ardurapeko seme-alaba bakoitzeko laguntza zuzenak areagotzea
- Gazteentzako mailegu-programa, ekintzailatza-proiektuetarako, prestakuntzarako edo etxebizitzarako
- Doakotasuna 0-2 urteko etapan, Haurreskolak Partzuergoaren bidez
- Ikuspegi demografikoaren arau-zeharkakotasuna

II. IBILBIDE LUZEKO INPAKTU-IRIZPIDEA DUTEN ETA MARTXAN DAUDEN JARDUKETAK INDARTZEA

1. ardatza. Gazteen emantzipazioa

Helburua belaunaldien arteko aldea murriztea da, belaunaldien arteko desberdintasuna konpentsatzea likideziaren eta bitartekoen eskuragarritasunari dagokionez, gazteen bizi-proiektuak babestea eta, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategiarekin bat etorritik, emantzipazio-adina aurreratzea; horretarako, gazteen bizi-proiektuen eraikuntzan, ekintzailatza eta autonomia erraztuko duten enplegu-, etxebizitza-, prestakuntza- eta laguntza-politiketan eragingo da.

Horretarako, **orientabide estrategikoak** honako hauek dira:

1. Gazteen emantzipazio-prozesuaren ikuspegia funtsezkoa da Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian, eta gazteek beren bizi-proiektuak autonomiaz eta aukerarik ezak eragindako atzerapenik gabe eraiki ahal izateko baldintza egokiak sustatzean oinarritzen da.
2. Zehazki, estrategia horrek lehentasuna ematen die Gazteen Euskal Legeak gazteen emantzipazioaren arloan ezartzen dituen xedapenei, bai eta esparru horretan bertan ekimen berritzaileak abiarazteari ere. Horren guztiaren helburua da emantzipatzeko batez besteko adina 2030. urterako 28 urtetik beherakoa izatea.

I.3.2. KOADROA. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA. GAZTEEN EMANTZIPAZIORAKO JARDUKETAK (I. ARDATZA)

A) LAGUNTZA PERTSONALIZATUA EMANTZIPAZIO-IBILBIDEETAN

- GAZ (GAZTEEN IBILBIDEAK ABIAN JARTZEKO ZERBITZUA) DISEINATZEA ETA MARTXAN JARTZEA

B) ETXEBIZITZA

- GAZTELAUN PROGRAMA HEDATZEA
- GIDATZE BERRITZAILAK MARTXAN JARTZEA

C) ENPLEGUA

- GAZTE-ENPLEGURAKO TALKA PLANA SUSTATZEA
- ERRELEBO-PLANA DISEINATZEA
- LAN-IKUSKAPENEN KANPAINEN JARRAITUTASUNA

D) PRESTAKUNTZA ETA LANERATZEA

- PRESTAKUNTZA SUSTATZEA ETA, NAGUSIKI, LANBIDE-HEZIKETA ETA UNIBERTSITATE DUALA, BEREZIKI EMAKUMEEK INDUSTRIA-SEKTOREAN DUTEN PARTE-HARTZEAN ERAGINEZ
- LAN-MERKATUAREN BEHARREN DIAGNOSTIKOA EGUNERATZEA

E) GARRAIO PUBLIKOA

- TARIFAK EGOKITZEA

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA (2022). Guk geuk egina.

2. ardatza. Familia-proiektuak eraikitzea

Helburua da politika zehatzak ezartzea eta garatzea familia bakoitzak nahi duen seme-alaba kopurua izan dezan, haur-pobrezia prebenitzeko eta lehenengo amatasunaren atzerapena ez dadin baldintzen defizitak behartua izan. Horretarako, **orientabide estrategikoak** honako hauek dira:

1. Norberaren bizitza, lana eta familia uztartzeko politika integrala bultzatzea, eta erabakitasunez aurrera egitea gizarte-antolaketa erantzukiderantz, eredu bat garatuz, zeinean gurasoek neurri berean parte hartzen duten ekoizpen- edo lan-zereginetan, eta ugalketarekin edo zaintzarekin loturiko lanetan.

2. Arreta berezia eskaintzea familia ugarietara, guraso bakarrekotako familiei eta mendeko pertsonak ardurapean dituzten familiei.

3. Osakidetzaren bidez, laguntza bidezko ugalketaren tratamendua bermatzea patologia batek eraginda ugalkortasun-arazoak dituzten emakumeei, baldin eta kontraindikazio medikorik ez badago, eta tratamendu horretarako beharrezkoak diren dohaintzak sustatzen dituzten informazio- eta sentsibilizazio-kanpainak egitea.

4. Euskal Osasun Sistema Publikoaren bidez haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea bermatzea, bai eta emakumeen gorputza eta ugalketa-eskubideak errespetatzeko eta sarbide unibertsala bermatzeko ezinbesteko neurriak ere.

5. 2030. urterako berdintasun-politiketan aurrekontu-ahalegina pixkanaka handitzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen bigarren aldaketa egiteko martxoaren 3ko 1/2022 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, eta, besteak beste, honako neurri hauek sortzera, indartzera eta bultzatzera bideratzea:

- a. Sail guztietako berdintasunerako administrazio-unitateak.
- b. Indarkeria matxisten biktimen antzematean, prebentzioan, arreta integralean, erreparazioan eta memorian espezializatutako zerbitzuak.
- c. Sexu-indarkerien biktimei laguntzeko 24 orduko krisi-zentroak koordinatzea.
- d. Haur eta nerabeen sexu-esplotazioaren aurkako ekintza-planean aurreikusitako zerbitzuak eta jarduketak.
- e. Berdintasun-planak eta sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako protokoloak EAEko 50 langiletik gorako administrazio eta enpresa guztietan.

3. ardatza. Adinekoen bizitza autonomoa eta betea sustatzea

Helburua honako hau da: bizi-ziklo osoan zehar adineko guztien autonomiaren, bizitza osoaren eta parte-hartze sozialaren sustapenaren esparruan jarduketara-ildo traktore bat definitzea eta garatzea, bizi-itzaropen osasungarria areagotzea bultzatuz, politikak, zerbitzuak eta programak adinekoen belaunaldien itzaropen, gaitasun edo interesetara egokituz, eta zahartze aktibo eta osasungarriarako politikak eta adinekoen ekarpen soziala bultzatuz. Hori guztia, OMEK sustatutako Zahartze Osasungarriaren Hamarkadaren esparruan eta Europako Batzordearen "Zahartzeari buruzko Liburu Berdearen" arabera.

I.3.3. KOADROA. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA. FAMILIA-PROIEKTUAK ERAIKITZEKO JARDUKETAK (II. ARDATZA)

A) HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO LAGUNTZA

- HAURRENTZAKO BERME-PROGRAMA BAT DISEINATZEA ETA MARTXAN JARTZEA
- GURASOBAKARTASUNARI BURUZKO TXOSTEN BAT EGITEA

C) KONTZILIAZIOA

- GURASOTASUN-BAIMENAK LUZATZEA
- ADINGABEEN ADINA HANDITZEA HORIEN ZAINKETARAKO KONTRATAZIOAN
- ORDAINSARI-BERDINTASUNARI BURUZKO KANPAINAK ETA BERDINTASUN-PLANAK MANTENTZEA

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA (2022). Guk geuk egina.

Horretarako, **orientabide estrategikoak** honako hauek dira:

- Zahartze aktiboa eta osasungarria sustatzen jarraitzea eta adinekoek beren gaitasunak eta talentua gara ditzaten laguntzea, beren autonomia, bizitza osoa eta gizarte-ekarpena bultzatuz bizi-ziklo osoan zehar, eta gizarte-koehosioa, belaunaldien arteko elkartasuna eta adinekoen eta gazteen bizi-proiektuak sustatzea.
- Zahartze aktiboa bizitza osoko ikuspegian integratzea, adineko autonomoak zein gero eta laguntza eta zainketa handiagoak behar dituztenak kontuan hartuta.
- Euskal Administrazio Publikoen lankidetzat sustatzea adineko pertsonen nahi gabeko bakardadeari aurrea hartzeko eta arreta integrala emateko programen garapenean, zahartze osasungarria lortzeko funtsezko faktoretzat hartuta.
- Belaunaldien arteko harremanak sustatzea, bereziki gazteen eta adinekoen artekoak, elkarrenginako eta elkartruko bitarteko gisa, lankidetzat eta elkarrekiko laguntza, elkar ulertzea, errespetua eta ezagutzen eta esperientzien transmisioa bultzatzeko.
- Adinekoentzako zaintza sozial eta sanitarioen eredu berri bateranzko trantsizio-politikak bultzatzea, eta zainketerako gaitasunen agenda bat prestatzea, zeinak profesional kualifikatuak eta kalitatezko enplegudunak eskaintzeko beharrezko arreta eskainiko baitie pertsona guztiei.
- Familien kontziliazioa eta erantzunkidetasuna bermatuko duten neurriak sustatzea; eta horretarako beharrezkoa da bestelako neurriak hartzea, besteak beste: zaintza instituzionala eta profesionalizazioa indartzea, zaintzaren sektorean zainketa profesionaleko eta kalitatezko enplegu-poltsak sortzea, eta lanbide-esperientziaren bidez edo bide ez-formalen bidez eskuratutako lanbide-gaitasunak egiaztatzeko sistema bat abian jartzea, prestakuntza kualifikatzaile espezializatua sustatzea, profil profesional berriak ikertu eta garatzea eta plangintza estrategikoa egitea; bai eta gizonek zainketetan parte har dezatela bultzatzea eta erantzunkidetasunari buruzko prestakuntza-planak eta horientzako zainketak sustatzea ere. Era berean, zainketen eta erantzunkidetasunaren arloko neurriek telelanak zainketetan eta erantzunkidetasunean duen eragina hartuko dute kontuan.

4. ardatza. Migratzaileen gizarteratzea

Helburua da jarduketa-ildo traktore bat zehaztea eta garatzea migratzaileek iritsieran izan ohi dituzten zailtasunak gainditzeko, eta gizarte- eta hezkuntza-laguntzako ibilbideak eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide erabilgarri eta eskuragarriak ezartzeko. Horretarako, **orientabide estrategikoak** honako hauek dira:

- Migratzaileentzako Euskal Itun Soziala migratzaileen eta asilo-eskatzaileen harreraren eta integrazioaren arloan euskal erakundearen eta gizarte-eragileen estrategia partekatua definitzen duen esparru orokorra da.
- Migratzaile guztiei inolako diskriminaziorik gabeko harrera duina bermatzea eta herritarrentzat ezarritako sistemetatik erantzun egokia ematea.
- Herritartasunaren, immigrazioaren eta asiloaren Kulturarteko VI. Planak (2022-2025) eta babes-sistemak eta gizarte-zerbitzuak egokitzea eta indartzea, bai eta egoera

I.3.4. KOADROA. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA. ADINEKOEN BIZITZA AUTONOMOA ETA BETEA SUSTATZEKO JARDUKETAK (III. ARDATZA)

A) ZAHARTZE BETEA ETA OSASUNGARRIA

- ADINEKOEKIKO EUSKAL ESTRATEGIA BULTZATZEA
- "EUSKADI LAGUNKOIA SUSTRAIETATIK" INDARTZEA

B) ZAINKETAK

- PROIEKTU PILOTUAK AKTIBATZEA
- ARRISKU SOZIOSANITARIOKO FAKTOREAK HAUTEMATEA
- BELAUNALDI-ERRELEBOAREN ZIKLOA KUDEATZEKO ESTRATEGIA BAT DISEINATZEA

Iturria: Eusko Jaurlaritza. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA (2022). *Guk geuk egina.*

I.3.5. KOADROA. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA. MIGRAZIOA GIZARTERATZEKO JARDUKETAK (IV. ARDATZA)

A) GIZARTERATZEA

- MIGRAZIORAKO EUSKAL ITUN SOZIALAREN GARAPENA ETA URTEKO EBALUAZIOA
- MIGRAZIOAREN ETA ASILOAREN TRANSFERENTZIA LEHENESTEIA ETA MIGRATZAILEAK HARTZEKO ETA GIZARTERATZEKO EUSKAL EREDUA DISEINATZEA

B) GIZARTERATZEA ETA LANERATZEA ETA MUGIKORTASUNA

- TALENTUA ATXIKITZEKO, GARATZEKO ETA ERAKARTZEKO PROGRAMA BAT MARTXAN JARTZEA
- "EUSKARRI" ESTRATEGIA GARATZEA

Iturria: Eusko Jaurlaritza. ERRONKA DEMOGRAFIKORAKO 2030 EUSKAL ESTRATEGIA (2022). *Guk geuk egina.*

desberdinei modu egokian, duinean eta nahikoan erantzun ahal izateko xedaturiko neurriak, zerbitzuak eta baliabideak ere.

III. ZEHARKAKO JARDUKETA-ILDOAK

1. ildo. Landa-balioa handitzea

Helburua da landa-garapenerako politika integrala bultzatzea, lurralde-orekan eta gizarte-kohesioan oinarritua, landa-ingurunearen zahartzea eta despopulazioa lehengoratzten lagunduko duena eta Euskadiko landa-eremuak bizitzeko eta jarduera sozioekonomiko bideragarriak eta jasagarriak egiteko gune erakargarriak izan daitezten lortuko duena, hau da, bizi-kalitatearekin eta lehiakortasunarekin. Horretarako, **orientabide estrategikoak** honako hauek dira:

1. Erronka demografikoari buruzko estrategia honetan, bere jarduketan aurreikuspen, diseinu eta aplikazioari dagokienez, zeharkako izaerarekin mantentzea hiri- eta landa-dimentsio bikoitza, landa-inguruneak planteatzen dituen premia berezietara egokitzeko eta horiei erantzuteko berariazko jarraibideak ezarri.
2. Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiak lurraldeen arteko oreka eta koherentzia bilatzen ditu, eta hiriburuen eremu geografikoan bizi ez diren landa-eremuetako herritarrek zerbitzuetara jotzeko zein garraio publikoa izateko duten eskubidea onartzen du.
3. Elikakatearen Legea betetzea, lehen sektoreko produktuei bidezko prezioak bermatzeko eta familien errentagarritasun ekonomikoa, jasagarritasuna eta landa-munduko bizi-proiektuak bultzatzeko.

Honako **jarduketa** hauek aurreikusi dira:

- Landa Garapenerako Legea onestea
- Landa-ingurura lotzeko pizgarriei buruzko azterlan bat egitea

2. ildo. Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa

Helburua da gai demografikoa lehenetsuzko arreta sozialeko, politikoko eta instituzionaleko lehenetsuen agendan kokatzera bideratutako prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-ekimenak modu artikulatuan garatzea. 2022tik aurrera irudikatuko da, "Maiatza demografikoa" demografiari buruzko hilabetearen urteko promozioan, maiatzean zehar. Aldi horretan, urtero, publikitate instituzionaleko kanpainak, dibulgazio-ekimenak, kongresuak, jardunaldiak edo mintegiak, azterlan espezifikoen argitalpena eta balantze eta jarduketa-planen aurkezpena sustatuko dira. Komunikabideak gai horri buruzko informazio, erreportaje edo kroniken bidez parte hartzerako gonbidatuko dira.

Horretarako, **orientabide estrategikoak** honako hauek dira:

1. Sentsibilizazio- eta informazio-kanpainak garatzea, arreta sozialeko, politikoko eta instituzionaleko lehenetsuen agendan kokatzera bideratutako komunikazio-bide guztietara jota.
2. Sail bakoitzetik eta GAZ zerbitzuetik, gazteen emantzipazioa errazteko eta familia-proiektuak eraikitzeke eskura dauden ekimen publiko guztien ezagutza sustatzea, bai prestazio eta laguntza ekonomikoei dagokienez, bai kontziliazioari, hezkuntzari, etxebizitzari edo enpleguari dagokienez.
3. Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian jasotako lan-ildoak garatzea, garapen-prozesu osoan beharrezkoak diren partaidetza- eta ebaluazio-tresnak sustatuz; eta proposamenak gauzatzeko behar adina partida ekonomiko izatea.

Honako **jarduketa** hauek aurreikusi dira:

- Prospekzio, dibulgazio eta komunikazioko urteko plan bat garatzea
- Aldian-aldian etorkizuneko azterlanak egitea
- Erronka demografikoak enpleguan dituen ondorioen azterketa bultzatzea
- Baliabideen gida bat egin eta hedatzea

3. ildo. Aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa

Helburua da aginte-koadro integral bat eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistema bat izatea, estrategia horren barruan aktibatzen diren neurrien eta politiken bilakaera demografikoa eta eragina baloratu ahal izateko. Aurrekontu-aurreikuspenarekin batera, aginte-koadro hori metodologikoki osatuko da jarraipeneko urteko memoriekin eta hiru urtean behin egingo diren ebaluazio-prozesuekin. Bi tresna horiek Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian unean-unean txertatu ahal izango diren neurri zuzentzaileak identifikatzera bideratuko dira.

Horretarako, **orientabide estrategikoak** honako hauek dira:

1. Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategian abiaraztea esparru-estrategia gisa, etengabeko diagnostiko eta ebaluazioan oinarrituta, irekia eta esperientzian oinarrituta alda daitekeena.
2. PDCA (planifikatzea [Plana], egitea [Do], egiaztatzea [Check] eta jardutea [Act]) ziklo bat metodologikoki garatzea, erronka demografikoaren kudeaketaren inguruan, zeina, ikaskuntza-testuinguru honetan eta saiakuntza moduan, honela ulertzen da:
 - biztanleria-piramidearen oreka egokia (nahitaez ezegonkorra) konfiguratzea eta mantentzea, bizi-ziklo osoa kontuan hartuta;
 - komunitate batek bere garapen ekonomikoa, bizi-kalitatea eta gizarte- eta lurralde-koheretza bermatzeko profil eta gaitasun egokiak eta banaketa egokia (monetarioa, geografikoa...) izan ditzan;
 - horrela, pertsonen eta familiek beren bizi-proiektuak garatu ahal izango dituzte, autodeterminazioaren bidez, beren aukeren arabera eta ahalik eta autonomia handienarekin.

Honako **jarduketa** hauek aurreikusi dira:

- Aurrekontuan jasotzea
- Jarraipen memoriak egitea urtero
- Ebaluazio-prozesuak bultzatzea.

ITURRIAK

1. **EUROSTAT (2022)**: Estadística demográfica, 2021
2. **EUSTAT (2022)**: Migrazio-mugimenduen estatistika (MME), 2021
3. **EUSTAT (2022)**: Jaiotzen Estatistika (JAIE), 2021
4. **EUSTAT (2022)**: Heriotzen Estatistika (HERE), 2021
5. **EUSTAT (2022)**: Ezkontzen estatistika (EZKE), 2021
6. **EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA (2019)**. Migraziorako Euskal Itun Soziala
7. **EUSKO JAURLARITZA LEHENDAKARITZA (2022)**. “Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia”. Esparru orokorra eta Dokumentu operatiboa
8. **IKUSPEGI (2022)**: Atzerriko biztanleriari buruzko azterketa. EINaren mikrodatuekin eginikoa, 2022
9. **IKUSPEGI (2022)**: 2022ko barometroa. Geure inkesta.
10. **EIN (2022)**: Padrón Municipal de habitantes. Datos oficiales a enero de 2022
11. **EIN (2022)**: Estadística de Nulidades, Separaciones y Divorcios 2021

4. LABURPENA ETA ONDORIOAK

4.1. LABURPENA

EAEn, Biztanleen Udal Erroldako 2022ko urtarrilari buruzko azken datuen arabera, EAeko biztanle-kopurua jaitsi egin da azken urtean, % 0,4 (8.991 biztanle gutxiago), eta guztira 2.176.918 biztanle ditu. Lurralde historikoei buruzko datuen arabera, batez ere Bizkaian jaitsi da biztanleria (% 0,5; hau da, 6.190 biztanle gutxiago), bai eta Gipuzkoan ere (-% 0,4; hau da, 2.841 biztanle gutxiago). Araban, berriz, mantendu egin da (% 0,0; hain zuzen ere, 40 biztanle gehiago izan ditu).

Bestalde, EUROSTATen kalkuluen arabera, COVID-19aren eraginaren ondorioz EBn 2020an gertatu zen hazkunde demografikoaren lehen etenduraren ondoren, EB-27ko biztanleria berriro jaitsi zen 2021ean; 2021eko urtarrilean 447 milioi izatetik 2022ko urtarrilean 446,8 milioi izatera igaro zen (milako -0,4). Saldo begetatibo negatiboa (heriotza gehiago jaiotzak baino) (milako -2,8) ezin izan da konpentsatu, bigarren urtez jarraian, migrazio-saldo positiboarekin (milako +2,4).

EAEn, berriz ere, 2021erako behin-behineko datuek adierazten dute hazkunde naturala (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) negatiboa izan dela EAEn bederatzigarren urtez jarraian, aurreko hamarkadan bilakaera positiboa izan ondoren: aurreko urtean baino % 3,3 gutxiago, eta 23.073 heriotza —2020an baino % 4,8 gutxiago; urte horretan aparte igoera gertatu baitzen COVID-19aren ondorioz (24.232 heriotza, aurreko urtean baino % 12,4 gehiago)—. Hala ere, 2021eko kopuruari dagokionez, heriotzen % 7,3 COVID-19ak eragin zituen (% 12,8 2020an). Datu horien ondorioz, hazkunde begetatiboa -8.816 biztanlekoa izan da, hots, milako -4koa. Saldo negatibo hori 3 hamarren txikiagoa da 2020koa baino, zeina serie historikoko handiena izan baitzen, aipatu bezala, pandemiak eragindako heriotzen gehikuntzaren ondorioz.

Bestalde, EUSTATen 2021eko “*Migrazio Mugimenduen Estatistikak*” (MME) agerian utzi du urte horretan COVID-19ak 2020an izandako eragina berreskuratu zela, urte horretan nabarmen murriztu baitziren barneko zein kanpoko migrazioak. 2021ean, gure erkidegoak 3.588 pertsona irabazi zituen guztira (2020an baino % 20,5 gutxiago; urte horretan 4.512 irabazi baitziren). Lurraldeen arabera, Bizkaian 1.465 lagun gehiago ditu, Arabak 1.179 eta Gipuzkoak 944.

Migratzaileen titulazioari dagokionez, 2020ko saldoa (eskuragarri zeuden azken datuak) positiboa zen (aldi horretan, gure erkidegora immigratu zuten pertsona gehiago erregistratu ziren emigratu zuten pertsonak baino) ikasketak maila guztietan, goi-mailako titulazioetan (graduak, lizentziaturak, graduondoak, masterrak, doktoretzak eta espezializazioa) eta erdi-goi-mailakoetan izan ezik. Edonola ere, ohiz kanpoko urtea da, bizi behar izan dugun pandemiagatik, eta, beraz, oraingoz ezin da ondorioz atera.

Migrazio-mugimenduen zati handi bat lehen mailako ikasketak dituzten (amaituta edo amaitu gabe) pertsonen dagokie nagusiki eta, gainera, bilakaera markatzen duen lerroa oso aldakorra da, eta ziklo ekonomikoaren arabera (saldo positibo handiak krisiaren aurreko urteetan eta jaitsiera handiak gure ekonomiaren daturik okerrenak izan ziren urteetan). Datu absolutuetan, 5 urtetik gorako pertsonen migrazio saldoa 2020an +4.000 pertsonakoa izan zen, eta horietatik 2.067k lehen mailako ikasketak zituzten (amaituta edo amaitu gabe), 2.279k bigarren mailako ikasketekin eta 28 lanbide-ikasketekin. Bestalde, saldoa negatiboa izan zen (irteera gehiago sarrerak baino) goi-erdi mailako ikasketak zituztenentzat (-52) eta unibertsitate-titulazioak zituztenentzat (-322; aurreko urtean, berriz, +365). 2020an, goi-mailako tituluak dituzten pertsonen 4.802 emigratio erregistratu ziren (emigrazioen % 16,3 5 urtetik gorako pertsonak izan ziren) eta 4.480 migrazio (gutzizkoaren % 13,4); hortaz, esan bezala, -322 pertsonako saldoa egon zen.

...

Immigrazioari dagokionez, Udal Erroldako datuen arabera, 2022ko urtarrilaren 1ean 253.038 atzerritar bizi ziren EAEn (guztizkoaren % 11,5). Zortzi urtez jarraian hazi da, 5.242 pertsona gehiago (+% 2,1), 2013-2014 biurtekoan jaitsiera txikia izan ondoren eta 90eko hamarkadaren amaieran hasitako igoera nabarmeneko aldia igarota. 2022ko urtarrilean erroldatutako atzerritar jatorriko 253.038 pertsona horiek biztanleriaren % 11,5 dira, 2021ean baino 3 hamarren gehiago; Estatuan, berriz, ratioa 4 hamarren hazi da, % 15,8ra iritsi arte. Gainera, gora egin du bosgarren urtez jarraian, 3 urtez zero hazkunde izan ostean (2015 eta 2017 artean).

Nazionalitateen arabera, 2022an, lehenengo hamar garrantzitsuenen artean, zortzi Latinoamerikakoak dira (Kolonbia, Nikaragua, Bolivia, Venezuela, Honduras, Paraguai eta Peru), bat EBkoa (Errumania) eta bat Afrikakoa (Maroko). 2022an, eta etenik gabe 2014tik, marokoa da atzerriko nazionalitate nagusia EAEn, 29.701 pertsona baitaude erroldatuta, EAEko atzerriko jatorriko pertsona guztien % 11,7. Bigarren tokian kolonbiarrak daude, guztizkoaren % 11,3arekin.

Fenomeno horren pertzepzio sozialari dagokionez, Ikuspegik jakinarazi du euskaldunek ez dutela immigrazioa arazotzat hartzen. % 2,8k soilik aipatu du berez EAEko lehen arazo gisa (% 1,5ak 2021ean), eta aipamen guztiak % 6 dira (2021eko ratio berdina), gehienez hiru erantzunekin. Iradokizun modura, elkarrizketatutako biztanleen % 5,7k aipatu du; 2021ean, berriz, % 9,8k.

Enpleguari dagokionez, immigrazioarekiko ikuspegi funtzionala lan-merkatuari dagokionez, nabarmen higitu zen krisiaren ondorioz: 2004an, % 80ak uste zuen etorkinak behar genituela zenbait sektoretan lan egiteko; 2014an, berriz, % 30,4ak uste zuen hori. Gorabehera batzuekin, 2015az geroztik, ordea, berriro hazi da ikuspegi utilitarista, 2022an % 76raino iritsi arte (+5,3 puntu 2021aren aldean). Antzeko zerbait gertatu zen beste baieztapen batekin ere, hain zuzen etorkinek bertakoek nahi ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela. 2014. urtean, % 32,8 ados zegoen horrekin (kontuan hartutako serieko ratorik baxuena), eta berriro ere, zenbait gorabeherekin, 2022an % 77,6ra iritsi zen (+11,6 puntu 2021. urtearen aldean). Bi datu horiek argi erakusten dute immigrazioaren gutxi gorabeherako iritzi positiboa, tradizionalki ziklo ekonomikoarekin lotuta egon dena, dagoeneko ez dela berdin mantentzen, izan ere, immigrazioak ekonomian duen zereginaren balorazioak gorantz jarraitzen du baita gaur egungo une ekonomikoan ere.

Azkenik, IKUSPEGIK euskal biztanleek immigrazioarekiko duten "tolerantzia-indizea" egin ohi du. 2020ko Barometroak 2019koak baino indize handiagoa eman zuen (65 puntu, aurreko urteko 60,67 puntuen aldean), serie historikoko handiena da. Bilakaera horri dagokionez, IKUSPEGIren txostenean ondorioztatu zen indize horretan lortutako emaitzak oso lotuta egon zirela ordura arte dinamika makroekonomikoekin, eta, beraz, hedapen ekonomikoko aldietan puntuazio altuagoak lortzen direla eta krisi-faseei atzerritar jatorriko pertsonen konfiantza-galerak eta tolerantzia txikiagoa lotzen zaizkiela, eta lotura hori immigrazioaren eta kultura-aniztasunaren fase goiztiarretan dauden gizarteetan gertatzen dela. Hala ere, 2020an hasitako COVID-19aren krisiak egoera berria ekarri du, lotura hori hausten duena; izan ere, ekonomiaren gainbeherarekin batera ez da tolerantzia jaitsi, guztiz kontrakoa baizik, eta indizeak gora egin zuen berriro 2021ean, 66,1era arte (+1,1 puntu), eta, berriz ere, 2022an, 69,3ra arte (+3,2).

Azken urteko gorakada nabarmena, neurri batean behintzat, Errusiak Ukraina inbaditu izanak eta asilo eta babes bila iritsitako ukrainarrek eragin dute, Ikuspegiren arabera. Horrek elkartasun eta enpatia oldea eragin du bereziki herri honekiko eta, oro har, atzerritar jatorriko pertsonen. Behatoki honek adierazi du ikusteko dagoela adierazlearen bilakaera positibo hori datozen urteetan mantenduko den.

...

Demografiaren gaia da, gaur egun, gizarte-trantsizioan eragin handiena duen faktoreetako bat. Familia, Emantzipazioa, Gizarte-politikak, Etxebizitza, Enplegua, Haur-hezkuntza eta antzeko politika sektorialek zuzenean eragiten duten erronka bat. Gazteek emantzipatzeko eta bizitza autonomoko proiektu bat garatzeko dituzten baldintzak aztertzea xede duen funtsezko adierazle bat. Kapitulu honetan ikusi den bezala, Euskadi ugalkortasunari eta jaiotza-tasari buruzko daturik baxuenak dituen Europako herrialdeen artean dago. 2021ean, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak sailen arteko gogoeta-prozesu bat bultzatu zuen, Eusko Jaurlaritzaren barruan, eta erakundeen artekoa, foru-aldundiekin, erronka demografikorako euskal estrategia baten edukiak definitzeko.

Prozesu hori 2022ko ekainean amaitu zen, “Erronka demografikorako Euskal Estrategia 2030” onetsi zenean. Lehenik eta behin, honako ondorio hauek hartu dira abiapuntutzat:

- Euskadin orain arte garatu diren sailetako politika askok (enpleguko, etxebizitzako, hezkuntzako, osasuneko edo gizarte-zerbitzuetako sektore-politikak; hainbat sektoretan edo biztanleria-taldetan oinarritutako politikak, hala nola gazterian, haurtzaroen eta familietan, migratzaileetan eta asilo-eskatzaileetan; eta zeharkako politikak, hala nola berdintasun-politikak) erronka demografikoari heltzen laguntzen dute, baina estrategia integratu eta koherente batean artikulatu eta optimizatu behar dira, jarduketa-sorta hori bateratu eta demografia-auziari modu autonomoan helduko diona, sailen eta erakundeen arteko zentzu- eta ikuspegi-batasunarekin.
- Biztanleriaren zahartze-joerak bere horretan jarraitzen du, gazteen emantzipazioaren batez besteko adinean ez da aurrerapen nabarmenik gertatu, eta jaiotza-tasetan ere ez da aldaketa aipagarririk hauteman, familiek nahi dutenean nahi duten seme-alaba kopurua izan dezaten laguntzeko irizpidearen ildotik.
- Testuinguru horretan, balio erantsi oso garrantzitsua hartzen du eragiteko jarduketa-plan bat duen estrategia bat definitzeak, gazteen emantzipazioaren batez besteko adina murriztera, familia berriak eratzea bultzatzera eta jaiotza-tasak handitzen laguntzera bideratua.
- Helburuek neurri espezifikokoak eta ekintza positiboko neurriak bideratu behar dituzte xede-talde jakin batzuetan, helburu estrategiko horiek lortze aldera, hargatik eragotzi gabe estrategia horren esparruan epe ertain eta luzerako lehentasuneko beste alderdi batzuk jorratzea.
- Nazioarteko erreferentzia nagusiei dagokionez, erakunde guztiek biztanleriaren gainbehera demografikoari eta zahartzeari lehentasunik handiena emateko gonbidapena egiten dute. Politika publikoen ahaleginak makrojoera hori iraultzera bideratzea proposatu dute, nahiz eta deialdi horrekin batera ez datorren argi eta garbi zehaztutako eta definitutako politiken ildo bat.
- Euskadiko datuen arabera, Europar Batasunean balantze demografiko txarra duten herrialdeen artean gaude, eta, beraz, larrialdi baten eta erronka sozial oso garrantzitsu baten aurrean gaude. Horri gehitu behar zaio Espainiako Estatuan eta Euskadin ELGAko batez bestekoaren azpitik gaudela, familian inbertitzera bideratutako BPGaren ehunekoari dagokionez.
- Konparazioan, balantze onenak eskaintzen dituzten herrialdeak bereizi egiten dira, baliabide gehiago bideratzen dituztelako gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzera, askotariko neurriekin, eta familiei zuzeneko laguntza ekonomiko handiagoak eta luzeagoak ematen dizkietelako seme edo alaba bakoitzeko. Horrez gain, bateragarritasun-neurriak sustatzen dituzte, migrazioaren etorrera eta gizarteratzea eta laneratzea errazten dute, eta, bestalde, zahartze aktibo eta osasungarriko politikak bultzatzen dituzte, adinekoen autonomia sustatzen dute, edo landa-ingurunearen potentziala birbalioesten dute.

Bigarrenik, Estrategiaren Jarduketa-plana⁸ hiru bloke handitan banatzen da:

I. EPE LABURREKO INPAKTU-IRIZPIDEA DUTEN JARDUKETA BERRIAK BULTZATZEA

Helburua da datozen urteetan joera negatiboan aldaketa bat eragitea, bai emantzipazio-adinean, bai jaiotza-tasetan, epe ertainean gainbehera demografikoko egoera batetik susperraldi demografikoko agertoki batera igarotzea errazteko. Lehenengo gauza, beraz, joera-aldaketa bat lortzea da, epe laburrean. Bigarrena da bermatzea helburu horretara bideratutako jarduketak iraunkorrak eta jasangarriak izango direla ibilbide luzean ere.

⁸ Aurreikusitako helburuak eta jarduketak zehatzago azaltzeko, [estrategiaren dokumentura](#) jotzen da.

II. IBILBIDE LUZEKO INPAKTU-IRIZPIDEA DUTEN ETA MARTXAN DAUDEN JARDUKETAK INDARTZEA

1. ardatza. Gazteen emantzipazioa: Helburua belaunaldien arteko aldea murriztea da, belaunaldien arteko desberdintasuna konpentsatzea likideziaren eta bitarteko eskuragarritasunari dagokionez, gazteen bizi-proiektuak babestea eta, Gazteen Emantzipaziorako Euskal Estrategiarekin bat etorritik, emantzipazio-adina aurreratzea; horretarako, gazteen bizi-proiektuen eraikuntzan, ekintzailatza eta autonomia erraztuko duten enplegu-, etxebizitza-, prestakuntza- eta laguntza-politiketan eragingo da.

2. ardatza. Familia-proiektuak eraikitzea: Helburua da politika zehatzak ezartzea eta garatzea familia bakoitzak nahi duen seme-alaba kopurua izan dezan, haur-pobrezia prebenitzeko eta lehenengo amatasunaren atzerapena ez dadin baldintzen defizitak behartua izan.

3. ardatza. Adinekoen bizitza autonomia eta betea sustatzea: Helburua honako hau da: bizi-ziklo osoan zehar adineko guztien autonomiaren, bizitza osoaren eta parte-hartze sozialaren sustapenaren esparruan jarduketa-ildo traktore bat definitzea eta garatzea, bizi-itxaropen osasungarria areagotzea bultzatuz, politikak, zerbitzuak eta programak adinekoen belaunaldien itxaropen, gaitasun edo interesetara egokituz, eta zahartze aktibo eta osasungarriko politikak eta adinekoen ekarpen soziala bultzatuz.

4. ardatza. Migratzaileen gizarteratzea: Helburua da jarduketa-ildo traktore bat zehaztea eta garatzea migratzaileek iritsieran izan ohi dituzten zailtasunak gainditzeko, eta gizarte- eta hezkuntza-laguntzako ibilbideak eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbide erabilgarri eta eskuragarriak ezartzeko.

III. ZEHARKAKO JARDUKETA-ILDOAK

1. ildo. Landa-balioa handitzea: Helburua da landa-garapenerako politika integrala bultzatzea, lurralde-orekan eta gizarte-kohesioan oinarritua, landa-ingurunearen zahartzea eta despopulazioa lehengorazten lagunduko duena eta Euskadiko landa-eremuak bizitzeko eta jarduera sozioekonomiko bideragarriak eta jasangarriak egiteko gune erakargarriak izan daitezen lortuko duena, hau da, bizi-kalitatearekin eta lehiakortasunarekin.

2. ildo. Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa: Helburua da gai demografikoa lehenetsuneko arreta sozialeko, politikoko eta instituzionaleko lehenetsunen agendan kokatzera bideratutako prospekzio-, dibulgazio- eta komunikazio-ekimenak modu artikulatuan garatzea.

3. ildo. Aurrekontua, jarraipena eta ebaluazioa: Helburua da agente-koadro integral bat eta jarraipen- eta ebaluazio-adierazleen sistema bat izatea, estrategia horren barruan aktibatzen diren neurrien eta politiken bilakaera demografikoa eta eragina baloratu ahal izateko. Aurrekontu-aurreikuspenarekin batera, agente-koadro hori metodologikoki osatuko da jarraipeneko urteko memoriekin eta hiru urtean behin egingo diren ebaluazio-prozesuekin.

4.2. ONDORIOAK

2022an, migrazio-saldo positiboak, pandemiaren ondorioz bigarren urtez jarraian asko murriztu direnak, ez dira gai izan hazkunde natural (jaiotzak ken heriotzak) negatiboa konpentsatzeko eta biztanleria-bolumenari eusteko, bai gure erkidegoan, bai EB osoan. Horrek ez du aurrekaririk, eta aurre egin behar diogun krisi demografiko sakonaren adierazgarri da.

Demografiaren gainbehera nabarmena ikusita, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu 2030 Estrategia sakontzea eta bizkortzea. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zaigu erronka demografikoa agenda politiko-instituzionalaren erdigunean kokatzea eta gizartea sentsibilizatzea egin beharreko jarduketa estrategikoen inguruan, ez baitute berehalako eragina izango, epe ertainean eta epe luzean baizik.

Eraldaketa horren funtsezko zati gisa, lehenik eta behin, migrazio-erronkaren garrantzia nabarmentzen dugu: Gogorarazi nahi dugu, aurten ere, immigrazioak gure gizartearen hazkunde- eta aurrerapen-prozesuan laguntzen duela, eta, horretarako, ezinbestekoa dela migratzaileak integratzea eta ekartzen duten kultura-dibertsitatea aprobetxatzea. Eta, hain zuzen ere, Estrategiak identifikatzen duen bezala, ezinbestekoa da migratzaileen gizarteratzea sustatzea, iritsieran izan ohi dituzten zailtasunak gainditzeko, eta gizarte- eta hezkuntza-laguntzako ibilbideak eta gizarteratzeko eta laneratzeko ibilbideak ezartzeko.

Era berean, Estrategian jasotzen den bezala, premiazkoa da familia-proiektuak sustatzea —haurrei eta familiei eskaintzen zaien laguntzaren bidez—, bai eta kontziliazioa hobetzeko tresnak sustatzea ere. Hori guztia familia bakoitzak nahi duen seme-alaba kopurua izan dezala ahalbidetzeko politikaren garapenaren baitan. Ildo horretan, azken hilabeteetan, dagoeneko neurri jakin batzuk jarri dira martxan, eta horien inpaktuaren jarraipena egingo dugu etorkizuneko memorietan.

1. KANPOALDEKO INGURUNE EKONOMIKOA

“EAEko ekonomia” izeneko II. kapituluko lehenengo apartatu honetan EAETik kanpoko ingurune ekonomiko jorratzen da, eta hiru puntutan banatuta dago. Lehenengo puntuan, munduko egoera ekonomiko azaltzeko faktore ekonomiko nagusiak aztertuko dira, arlo ekonomiko nagusien arteko desberdintasunak aintzat hartuta. Bigarrenik, eurogunearen egoera zehatza aztertzen da, baita Europar Batasunarena eta estatu kide bakoitzarena ere (per capita BPGd-a, BPGd-aren egiazko hazkundea, langabezia-tasak, produktibitateak, inflazioa eta finantza publikoak). Azkenik, hirugarren puntuan, Estatuako egoera ekonomiko aztertzen da (egoera makroekonomikoa, ordainketa-balantza, agente publikoen gastua, zerga-bilketa eta Estatuak aitortutako betebeharrak).

1.1. FAKTORE EKONOMIKO NAGUSIAK¹

2022an bilakaera ekonomiko bi garapen kontrajarririk markatu zuten. Urtearen hasieran, pandemiari lotutako murrizketak kentzearen ondorioz, jarduera biziki suspertu zen. Ondoren, Errusiak Ukraina inbaditu zuenean, bizkortu egin zen 2021az geroztik gertatzen ari zen lehengaien prezioen gorakada, eta horrek inflazio-presioak areagotzea ekarri zuen. Horri erantzunez, banku zentral gehienek diru-politikak gogortzea erabaki zuten. Ondorioz, jarduera ekonomiko globala nabarmen moteldu zen urtearen bigarren erdian. Horiek horrela, Nazioarteko Diru Funtzaren kalkuluen arabera, munduko BPGd-a % 3,4 hazi zen 2021etik 2022ra bitartean, termino errealetan, aurreko urtean baino % 6,3 gehiago.

Ekonomia aurreratuen BPGd-a % 2,7 hazi zen urtetik urterako terminoetan eta bolumenean, non euroguneko BPGd-a % 3,5 hazi zen, AEBetako % 2,1 eta Japoniako % 1,1.

Hazten ari diren eta garatzen ari diren merkatuetako ekonomietan, igoera % 4koa izan da, Europako ekonomia berriak % 0,8 hazi dira, Asiakoak % 4,4 (Txina % 3 hazi zen eta India % 6,8) eta Latinoamerika eta Karibekoak % 4. Errusia, bestalde, % 2,1 jaitsi da.

Merkataritza trukeei dagokienez, munduko merkataritza % 5,1 hazi zen, 2021arekin alderatuta.

II.1.1. KOADROA. ALDAGAI EKONOMIKO NAGUSIEN LABURPENA		
	2021	2022
BPGd (URTEKO EHUNEN ALDAKETA. BATEZ BESTEKOAK)		
MUNDUKOA	6,3	3,4
EKONOMIA AURRERATUAK (1)	5,4	2,7
AEB	5,9	2,1
EUROGUNEA	5,4	3,5
JAPONIA	2,1	1,1
BESTE EKONOMIA AURRERATU BATZUK	5,8	3,1
GARATZEN ARI DIREN EKONOMIAK ETA GARATU BERRIAK	6,9	4,0
ASIAN GARATZEN ARI DIREN EKONOMIAK ETA GARATU BERRIAK	7,5	4,4
TXINA	8,4	3,0
INDIA	9,1	6,8
EUROPAN GARATZEN ARI DIREN EKONOMIAK ETA GARATU BERRIAK	7,3	0,8
ERRUSIA	5,6	-2,1
LATINOAMERIKA ETA KARIBEA	7,0	4,0
BRASIL	5,0	2,9
MEXIKO	4,8	3,1
EKIALDE ERTAINA ETA ASIA ERDIALDEA	4,6	5,3
SAHARAZ HEGOALDEKO AFRIKA	4,8	3,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN MUNDUKO MERKATARITZA (ONDASUN ETA ZERBITZUEN MUNDUKO ESPORTAZIO ETA INPORTAZIOEN URTEKO % BILAKAERAREN BATEZ BESTEKOAK)	10,6	5,1
KONTSUMITZAILEAREN PREZIOAK (batez bestekoak)		
EKONOMIA AURRERATUAK	3,1	5,4
GARATZEN ARI DIREN EKONOMIAK ETA GARATU BERRIAK	5,9	9,8
LEHENGAIEN PREZIOAK (\$)		
ELIKAGAIK	30,8	15,6
INDUSTRIA-PRODUKTUAK	45,8	-9,4
INDUSTRIA-PRODUKTUAK (EZ-METALAK)	53,2	5,3
INDUSTRIA-PRODUKTUAK (METALAK)	43,7	-12,3
NORTH SEA BRENT PETROLIOAREN PREZIOA (\$/UPEL)	71,1	45,8

(1) Ekonomia aurreratuak: AEB, Kanada, Japonia, eurogunea, Erresuma Batua, Danimarka, Suedia, Norvegia, Txipre, industrializatu berriak diren ekonomia asiarak, Israel, Islandia, Australia eta Zeelanda Berria. Industrializatu berriak diren ekonomia asiarak: Hego Korea, Taiwan, Hong-Kong, Singapur.

(2) Bermerik gabeko maileguren egun baterako interes-tasa.

Iturria: NDF “Munduko ekonomiaren aurreikuspenak” (2023ko apirila) eta Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa “Adierazle ekonomikoaren laburpena”. Taulak eta grafikoak. 2023eko otsaila”

¹ Epigrafe honetan agertzen den informazioa hainbat iturritatik dator: Nazioarteko Diru Funtza, Europako Banku Zentrala, Espainiako Bankua eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Hornidura kateetan eta eskaintzan izandako tentsioek, energia krisiak eta Ukrainako inbasioak bultzatu zuten inflazioa. Udatik aurrera, lehengai energetikoen prezioaren jaitsierari esker inflazioa moteltzen hasi zen; hala ere, inflazio-presioek handiak izaten jarraitu zuten kontsumo-saski osora orokortu ondoren. Horiek horrela, ekonomia aurreratuetan inflazio orokorra % 5,4koa izan zen urte arteko terminoetan, eta % 9,8koa garatzen ari diren eta garatu berri diren ekonomietan.

Brent upelaren prezioa % 45,8 igo zen 2021etik 2022ra. Urtarrilean prezioa 88 \$/upela zen, martxoan 122,7 \$/upela preziora igo zen eta ekainean 127,4 \$/upelekoa izatera iritsi zen. Azkenik, 83,3 \$/upeleko prezioarekin amaitu zen urtea. Bestalde, elikagaien prezioak % 15,6 hazi ziren 2021etik 2022ra bitartean, metalikoak ez diren produktu industrialenak % 5,3 eta metalikoak diren produktu industrialenak % 12,3 (dolarretan neurtutako datuak).

Inflazio-presioaren testuinguru horretan, banku zentralak joera murriztaileenari eutsi zioten, eta agintari fiskalek babestu egin zituzten agintari monetarioek eta finantzarioek inflazioari aurre egiteko eta finantza-egonkortasunari eusteko hartu zituzten neurriak.

Testuinguru horretan, Japoniako Bankuak izan ezik (-% 0,1ean eutsi zion bere esku-hartze tasari 2022an), bai Europako Banku Zentralak bai AEBko Erreserba Federalak egun batera igo zituzten beren esku-hartze tasak 2021etik 2022ra bitartean: Europako Banku Zentralak % 2,5eraino igo zuen eta Erreserba Federalak % 4,5eraino.

Euroguneko moneta-merkatuko interes-tasei dagokionez (gordailuak), positiboak izan ziren urteko batez bestekoan, epe guztietan; zehazki, 2022ko abenduan, Euriborra honela kokatu zen: hilabetera +% 1,72; hiru hilabetera +% 2,06; sei hilabetera +% 2,56 eta urtebetera +% 3,02.

Bestalde, Espainiako Bankuaren "Estatistika Buletinaren" datuen arabera, finantza-erakunde monetarioek EBU bizi diren etxeko unitateei eman zizkieten interes-tasa 2021etik 2022ra igo zen kontsumorako kredituen kasuan, % 5,83tik % 6,37ra, eta etxebizitzarako kredituen kasuan, % 1,60tik % 2,33ra.

Dibisen merkatuari dagokionez, euroak balioa galdu zuen AEBetako dollarraren aldean, eta Japoniako yenaren eta libera esterlinaren aurrean nabarmendu zen. Zehazki, dollarraren kanbio-tasa erreal efektiboa 1,059 \$/€ izan zen 2022ko abenduan, eta 1,130 \$/€ 2021eko abenduan. Horrek esan nahi du euroak dollarrarekiko % 6,3ko balio-galera izan zuela.

Munduko burtsa-merkatuetan, Standard & Poor 's 500, Nikkei 225, Euro Stoxx zabala eta Ibex 35 merkatuek jaitsierak izan dituzte 2021 eta 2022 artean.

II.1.2. KOADROA. FINANTZEN ETA MONETEN EGOERA		
	2021	2022
Esku-hartzearen interes-tasa (denboraldiaren amaieran)		
EDB	0,00	2,50
AEB – funts federalen tasa objektiboa	0,25	4,50
Japonia – Call Money (1)	-0,10	-0,10
Erresuma Batua	0,25	3,50
Euroaren aldageta-tasa (EUROAREN balio-irabaztearen (+) edo balio-galtzearen (-) %, abendua-abendua)		
Euroko dolarra	-7,1	-6,3
Euroko libra esterlina	-6,3	2,5
Euroko yen japoniarra	2,0	10,8
Burtsa: kotizazio-indizea (urteko batez bestekoak)		
Standard & Poor's 500	4.278,76	4.077,66
Nikkei 225	28.550,37	27.112,69
Euro Stoxx zabala	446,61	412,92
Ibex 35	8.645,20	8.252,45
<i>Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina eta Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa "Adierazle ekonomikoen laburpena". Taulak eta grafikoak. 2023eko otsaila</i>		
<i>(1) Japoniako esku-hartze mota.</i>		

1.2. EUOPAR BATASUNA. EUROGUNEA

Euroguneko hazkunde ekonomikoa, 2022. urtearen lehen erdian bilakaera ekonomikoan ikusitako dinamismoaren ondoren, moteldu egin zen bigarren seihilekoan. Hala, hazkunde-tasa lehen hiruhilekoan % 5,5 izatetik urteko azken hiruhilekoan % 1,8 izatera igaro zen.

Lehen seihilekoan ikusitako hazkundeak lotura duten zerbitzu intentsiboen eskaeraren berreskurapenean izan zuen jatorria, pandemiari lotutako murrizketak desagertzearen ondorioz gertatutako irekiera ekonomikoari esker. Hala eta guztiz ere, munduko jarduera ahulak, ziurgabetasun geopolitiko handiak —Errusiak Ukrainaren aurka hasitako gerraren ondoriozkoak—, inflazio handiak eta finantzaketa-baldintza murriztailegoek hazkundea oztopatu zuten. Hain zuzen ere, faktore horiek gastua eta ekoizpena geldiarazten joan ziren, batez ere manufakturen sektorean.

Koiuntura-adierazleek eta argitaratutako datu nazionalak iradokitzen dutenez, barne-eskariak eta izakinen aldaketak eragin negatiboa izan zuten hazkundean laugarren hiruhilekoan, eta kanpo-eskari garbiaren ekarpena positiboa izan zen.

II.1.3. KOADROA. EUROGUNeko ADIERAZLE EKONOMIKO NAGUSIAK							
URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK							
	2020	2021	2022	2022			
				I	II	III	IV
BPGd MERKATUKO PREZIOETAN	-6,1	5,3	3,5	5,5	4,4	2,4	1,8
BARNE ESKARIA	-5,8	4,2	3,7	5,7	4,6	3,8	1,1
GASTUA AZKEN KONTSUMO PRIBATUAN	-7,7	3,7	4,3	8,2	5,9	2,3	1,2
GASTUA AZKEN KONTSUMO PUBLIKOAN	1,0	4,3	1,1	3,0	0,8	0,1	0,5
IOF FINKOA	-6,2	3,8	3,7	4,0	3,0	7,7	0,5
ESPORTAZIOAK	-8,9	10,6	7,0	8,6	7,7	7,6	5,0
INPORTAZIOAK.	-8,5	8,4	7,9	9,4	8,4	11,1	3,5
NEKAZARITZA	0,0	0,1	-1,2	-0,8	-1,8	-1,0	-1,5
INDUSTRIA ETA ENERGIA	-6,4	7,2	2,0	2,0	2,2	2,5	2,2
ERAIKUNTZA	-5,7	4,9	1,5	4,6	1,9	0,7	-0,5
ELIKADURA ZERBITZUAK, GARRAIOAK ETA MERKATARITZA	-14,1	7,8	8,2	14,5	11,7	5,0	2,9
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOA	1,9	7,1	5,9	6,7	7,0	5,3	4,7
FINANTZA ETA ASEGURUAK	0,5	2,7	-0,1	0,1	0,3	-0,3	-0,3
HIGIEZINEN AGENTZIAK	-0,9	1,7	2,0	3,0	2,3	1,5	1,3
ZERBITZU PROFESIONALAK ETA ENPRESAKOAK	-5,6	6,0	4,2	6,4	5,0	3,2	2,4
HERRI-ADMINISTRAZIOA, HEZKUNTZA, OSASUNA ETA GIZARTE- LANA	-2,8	3,5	1,5	1,9	1,2	1,2	1,8
ARTEA, ENTRETENIMENDUA ETA BESTE ZERBITZU BATZUK	-17,6	3,6	11,7	17,7	16,7	7,1	6,8

Iturria: Europako Banku Zentrala. *Ekonomia Buletina* (Issue 3/2022)

Euroguneko herrialdeen arabera analisiak honako hau erakusten du.

Per capita BPGd-a, EAPan neurtua². Mailen arabera egiten da azterketa, ez bilakaeraren arabera, betiere EB27ko batez bestekoa kontuan izanik (EB-27=100). 2022. urtean eurogunearen³ batez bestekoaren balio bera edo gainetik aurkeztu duten herrialdeak (104) honako hauek dira: Luxenburgoko (261), Irlanda (234), Danimarka (136), Herbehereak (130), Austria (125), Belgika (121), Suedia (119), Alemania (117) eta Finlandia (109). Espainiak 100etik beherako balioa erregistratu du (85).

² EAP: Erostea Ahalmenearen Parekotasuna

³ Eurozona19: Alemania, Austria, Belgika, Txipre, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Irlanda, Italia, Lituania, Letonia, Luxenburgoko, Malta, Herbehereak eta Portugal.

BPGd-aren aldaketa-tasa termino errealean. 2022an igoera % 3,5ekoa izan zen, bai EB27an bai eurogunean. Hona hemen tasarik handiena izan zuten estatuak: Irlanda (% 12), Malta (% 6,9), Portugal (% 6,7), Kroazia (% 6,2), Grezia (% 5,9), Txipre (% 5,6) eta Espainia, % 5,5eko ratioa erregistratu duena.

Langabezia-tasa. 2022an EB27an % 6,2koa izan da, eta eurogunean % 6,8koa. Langabezia-tasarik txikiak Txekiar Errepublikan (% 2,2), Polonian eta Maltan (bakoitzak % 2,9) eta Alemanian (% 3,1) erregistratu ziren. Altuenak, aldiz, Espainian (% 12,9), Grezian (% 12,5), Italian (% 8,1), Suedian (% 7,5) eta Frantzia (% 7,3) erregistratu ziren.

Enplegu-tasa. 2022an, EB27an % 74,6koa izan zen eta eurogunean %74,1ekoa. Tasarik altuenak honako herrialde hauetan jaso ziren: Herbehereak (% 82,9), Suedia (% 82,2), Estonia (% 81,9), Txekiar Errepublika (% 81,3), Malta (% 81,1) eta Alemania (% 80,7). Baxuenak, aldiz, Italian (% 64,8), Grezian (% 66,3), Errumanian (% 68,5), Espainian (% 69,5) eta Kroazian (% 69,7).

Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH)⁴. Eurogunean KPIH % 8,4 hazi zen batez beste 2021etik 2022ra bitartean. Espainiako estatuak % 8,3ko igoera erregistratu zuen. Azterketa zabalagoa nahi izanez gero, ikus beza irakurleak kapitulu honetako II.2. atala ("*Ekonomiaren egoera*").

Lan egindako ordu bakoitzeko lan-produktibitatea. Lan egindako ordu bakoitzeko lan-produktibitatea eskulan-unitate bakoitzeko ekoizpena bezala kalkulatzen da (lan egindako ordu kopuru osoaren arabera neurtuta). Lan egindako ordu bakoitzeko lan-produktibitatearen neurketak ekonomiaren produktibitatearen bilakaeraren irudi hobea ematen du enplegatutako pertsona bakoitzeko lan-produktibitateak baino, izan ere, herrialde eta urte bakoitzean lanaldi osoko/lanaldi partzialeko lan-indarraren osaeran dauden aldeak ezabatzen ditu.

Jarraian emango den analisia mailaren arabera egin da, ez bilakaeraren arabera, betiere EB-27ko batez bestekoa kontuan izanik(EB-27=100). 2022an, eskura ditugun azken datuen arabera, 19ko euroguneko batez bestekoa 104,2 izan zen 100eko oinarrian. Hona hemen produktibitate handieneko estatuak: Irlanda (223,6), Luxenburgo (162,2), Belgika (131,2), Danimarka (121,4), Austria (115,7), Suedia (114,2), Frantzia (111,4) eta Herbehereak (107,4). Eta txikienekoak Bulgaria (54,4), Grezia (68,6), Eslovakia (73,4), Portugal (89,9) eta Hungaria (74,7). Espainiako 94,1ekoa izan da, hortaz, EB27ko batez bestekoa baino txikiagoa da.

⁴ Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) Europar Batasuneko inflazioaren batez besteko komuna ematen du. Alderaketa homogeneo hauek lortzeko, KPIan biltzen diren eta haren %5 inguru hartzen duten kontsumoko partida jakin batzuk kanpoan utzi behar izan dira (horrela, adibidez, KPIHtik kanpo geratzen dira Osasun zerbitzuak, Irakaskuntza arautua, Sendagaiak eta diruz lagundutako farmaziako produktuak, eta abar).

II.1.4. KOADROA. EUOPAR BATASUNAREN BILAKAERA EKONOMIKOA												
	PER CAPITA BPGd-a EAP (1)		BPGd ERREALAREN HAZKUNDEA		LANGABEZIA- TASA		ENPLEGU-TASA (20-64 URTE)		INFLAZIOA (KPIH) (2) (urteko batezbestekoak)		LAN EGINDAKO ORDU BAKOITZEKO PRODUKTIBITATEA (3)	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
EB27 (2020tik aurrera)	100	100	5,4	3,5	7,1	6,2	73,1	74,6	2,9	9,2	100,0	100,0
EUROGUNEA (19)	105	104	5,3	3,5	7,7	6,8	72,5	74,1	2,6	8,4	104,7	104,2
BELGIKA	120	121	6,3	3,2	6,3	5,6	70,6	71,9	3,2	10,3	130,7	131,2
BULGARIA	57	59	7,6	3,4	5,3	4,3	73,2	75,7	2,8	13,0	53,4	54,4
TXEKIAR ERREP.	92	91	3,6	2,5	2,8	2,2	80,0	81,3	3,3	14,8	85,5	85,0
DANIMARKA	133	136	4,9	3,8	5,1	4,5	79,1	80,1	1,9	8,5	119,2	121,4
ALEMANIA	120	117	2,6	1,8	3,7	3,1	79,4	80,7	3,2	8,7	103,9	102,3
ESTONIA	89	87	8,0	-1,3	6,2	5,6	79,3	81,9	4,5	19,4	86,6	82,5
IRLANDA	219	234	13,6	12,0	6,2	4,5	74,9	78,2	2,4	8,1	214,6	223,6
GREZIA	64	68	8,4	5,9	14,7	12,5	62,6	66,3	0,6	9,3	66,4	68,6
ESPAINIA	83	85	5,5	5,5	14,8	12,9	67,7	69,5	3,0	8,3	92,3	94,1
FRANTZIA	104	101	6,8	2,6	7,9	7,3	73,2	74,0	2,1	5,9	114,6	111,4
KROAZIA	70	73	13,1	6,2	7,6	7,0	68,2	69,7	2,7	10,7	76,0	78,0
ITALIA	95	96	7,0	3,7	9,5	8,1	62,7	64,8	1,9	8,7	105,1	105,0
ZIPRE	91	92	6,6	5,6	7,5	6,8	75,9	77,9	2,3	8,1	85,8	87,2
LETONIA	72	74	4,3	2,8	7,6	6,9	75,3	77,0	3,2	17,2	73,9	75,8
LITUANIA	89	90	6,0	1,9	7,1	6,0	77,4	79,0	4,6	18,9	84,8	83,3
LUXENBURGO	268	261	5,1	1,5	5,3	4,6	74,1	74,8	3,5	8,2	165,7	162,2
HUNGARIA	75	77	7,2	4,6	4,1	3,6	78,8	80,2	5,2	15,3	72,4	74,7
MALTA	100	102	11,8	6,9	3,4	2,9	79,1	81,1	0,7	6,1	92,8	91,3
HERBEHEREAK	130	130	4,9	4,5	4,2	3,5	81,7	82,9	2,8	11,6	108,8	107,4
AUSTRIA	123	125	4,6	5,0	6,2	4,8	75,6	77,3	2,8	8,6	112,8	115,7
POLONIA	77	79	6,9	5,1	3,4	2,9	75,4	76,7	5,2	13,2	82,0	84,8
PORTUGAL	75	77	5,5	6,7	6,6	6,0	75,9	77,5	0,9	8,1	72,9	74,6
ERRUMANIA	74	77	5,8	4,7	5,6	5,6	67,1	68,5	4,1	12,0	76,9	80,9
ESLOVENIA	90	92	8,2	5,4	4,8	4,0	76,1	77,9	2,0	9,3	84,1	86,0
ESLOVAKIA	69	67	4,9	1,7	6,8	6,1	74,6	76,7	2,8	12,1	75,4	73,4
FINLANDIA	112	109	3,0	2,1	7,7	6,8	76,8	78,4	2,1	7,2	107,5	104,4
SUEDIA	123	119	5,4	2,6	8,8	7,5	80,7	82,2	2,7	8,1	118,3	114,2

(1) EAPan. UE27=100
(2) KPIH - item guztiak
3) EAPan. Labour productivity per person employed and hour worked (EU27=100)
Iturria: EUROSTAT.

Finantza publikoak:

Estatu kideek susperraldi ekonomikoa sendoagoa izateko eta pandemiaren aurreko BPGd-a lortzeko politikak ezar zituzten, 2020ko martxoan, Europako Batzordeak iragarri zuen Egonkortasun eta Hazkunde Itunean aurreikusitako babes-klausula orokorra aktibatuko zuela, eta aldi baterako indarririk gabe utziko zituela EBk bere estatu kide guztientzat defizit publikoa murrizteko finkatzen dituen betebeharrak. Neurri hori 2021eko ekitaldirako luzatu zen, eta 2021eko ekainean 2022an ere indarrean mantentzeko baldintzak betetzen zirela erabaki zen.

Ziurgabetasunaren gorakadak, aurreikuspen ekonomikoetarako beheranzko arrisku handiek, energiaren prezioen aurrekaririk gabeko igoerek eta hornidura-kateen etengabeko asaldurek klausula 2023ra arte luzatzea adostu zuten EBk eta Europako Kontseiluak 2022ko uztailean.

Testuinguru horretan, euroguneko administrazio publikoek BPGd-erikiko duten zorra % 84ra iritsi zen 2022an. Ratoririk handienak herrialde hauetan eman ziren: (% 171,3), Italian (% 144,4), Portugalen (% 113,9), Espainian (% 113,2), Frantzian (% 111,6) eta Belgikan (% 105,1); txikiak, aldiz, Estonian (% 18,4), Bulgarian (% 22,9) eta Luxenburgon (% 24,6).

Defizitari dagokionez, eurogunean 2022an BPGd-aren % 3,6an kokatu zen. 2022ko ratoririk handienak Italian (% 8), Errumanian eta Hungarian (% 6,2), Maltan (% 5,8) eta

II.1.5. KOADROA. HERRI-FINANTZAK EB-N				
	GOBERNUAREN HERRI-ZORRAREN %, BPGd-AREN GAINEAN		(-) DEFIZIT / (+) SUPERABIT PUBLIKOAREN %, BPGd-AREN GAINEAN (MONETA NAZIOALETAN)	
	2021	2022	2021	2022
EB27 (2020az geroztik)	95,4	91,5	-4,8	-3,4
EUROGUNEA (19)	88,0	84,0	-5,3	-3,6
BELGIKA	109,1	105,1	-5,5	-3,9
BULGARIA	23,9	22,9	-3,9	-2,8
TXEKIAR ERREP.	42,0	44,1	-5,1	-3,6
DANIMARKA	36,7	30,1	3,6	3,3
ALEMANIA	69,3	66,3	-3,7	-2,6
ESTONIA	17,6	18,4	-2,4	-0,9
IRLANDA	55,4	44,7	-1,6	1,6
GREZIA	194,6	171,3	-7,1	-2,3
ESPAINIA	118,3	113,2	-6,9	-4,8
FRANTZIA	112,9	111,6	-6,5	-4,7
KROAZIA	78,4	68,4	-2,5	0,4
ITALIA	149,9	144,4	-9,0	-8,0
ZIPRE	101,2	86,5	-2,0	2,1
LETONIA	43,7	40,8	-7,1	-4,4
LITUANIA	43,7	38,4	-1,2	-0,6
LUXENBURGO	24,5	24,6	0,7	0,2
HUNGARIA	76,6	73,3	-7,1	-6,2
MALTA	55,1	53,4	-7,8	-5,8
HERBEHEREAK	52,5	51,0	-2,4	0,0
AUSTRIA	82,3	78,4	-5,8	-3,2
POLONIA	53,6	49,1	-1,8	-3,7
PORTUGAL	125,4	113,9	-2,9	-0,4
ERRUMANIA	48,6	47,3	-7,1	-6,2
ESLOVENIA	74,5	69,9	-4,6	-3,0
ESLOVAKIA	61,0	57,8	-5,4	-2,0
FINLANDIA	72,6	73,0	-2,8	-0,9
SUEDIA	36,5	33,0	0,0	0,7

Iturria: EUROSTAT.

Spainian (% 4,8) eman ziren. Danimarkak, Ziprek, Irlandak, Suediak, Kroaziak eta Luxenburgok superabita izan zuten.

1.3. ESPAINIAKO EKONOMIA

1.3.1. Espainiako ekonomia

COVID-19aren ondorioz ezarritako murrizketen osteko eskariaren gorakadari mesede egin zion pandemian zehar etxeetan metatutako aurrezkiak eta 2021ean hasi eta 2022an areagotu zen krisi inflazionistaren ondorioak arintzeko agintariek zabaldutako neurriekin emandako bultzada fiskalak, gainerako eurogunean bezala.

Horrela, eskura dagoen informazioaren arabera (Estatistikako Institutuko Nazionalaren Hiruhilekoko Kontabilitate Nazionala eta Espainiako Bankuaren Aldizkari Ekonomikoa), 2022ko BPGd-k % 5,5eko urte arteko batez besteko igoera erreala izan zuen, eurogunekoa baino ehuneko 2 puntu handiagoa (+% 3,5).

Igoera horren osaerari dagokionez, zerbitzuen gorakada izan zen hazkunderaren motorra, bereziki 2022. urtearen lehen erdian. Aitzitik, input horien garestitzeak eragin handiagoa izan zuen kontsumo energetikoetako manufaktura intentsiboen adarretan. Era berean, nabarmentzekoa da esportazioen dinamismoa, BPGd-ren hazkunderari ekarpen

handia egin baitzioten. Bereziki aipagarria da nazioarteko turismoak izandako susperraldia, nahiz eta zerbitzu ez-turistikoen esportazioek ere portaera oso hedakorra erakutsi zuten.

II.1.6. KOADROA. ESTATUKO EGOERA MAKROEKONOMIKOA										
URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. KATEATUTAKO BOLUMENA. URTAROKO ETA EGUTEGIKO ONDORIOEN DATU ZUZENDUAK										
	2021	2022	2021				2022			
			I. HH	II. HH	III. HH	IV. HH	I. HH	II. HH	III. HH	IV. HH
BARNEKO PRODUKTU GORDINA merkatuko prezioetan	5,5	5,5	-4,4	17,9	4,2	6,6	6,5	7,7	4,8	2,9
ESKAERA NAZIONALA (*)	5,2	3,1	-3,6	17,7	3,8	4,9	4,7	3,8	2,9	1,0
Gastua azken kontsumoan	5,1	3,0	-2,2	17,4	3,7	3,2	3,1	3,0	3,2	2,8
Etxebizitzetako azken kontsumoaren gastua	6,0	4,5	-4,6	23,8	4,0	4,6	4,8	5,2	5,0	2,9
Herri Administrazioetako azken kontsumoaren gastua	2,9	-0,7	4,4	4,1	3,1	-0,1	-1,1	-2,6	-1,4	2,5
Kapitalaren Eraketa Osoa	5,9	3,5	-9,3	19,9	4,1	11,9	11,5	6,8	1,9	-5,0
Kapital finkoaren eraketa gordina (KFEG)	0,9	4,6	-6,1	17,5	-3,0	-1,7	3,8	6,0	6,3	2,4
KFEG Aktibo finko materialak	0,1	4,4	-7,0	19,8	-5,0	-3,4	3,1	5,8	6,2	2,7
Etxebizitzak eta bestelako eraikin eta eraikuntzak	-3,7	4,7	-11,5	9,5	-6,7	-3,9	0,6	6,5	6,9	4,7
Makinak, ekipamendu-ondasunak eta armamentu-sistemak.	6,3	4,0	0,3	42,0	-3,0	-3,3	7,0	4,6	5,1	-0,7
Landatutako baliabide biologikoak	10,2	5,6	6,3	9,1	12,1	13,2	9,5	7,0	4,0	2,5
KFEG. Aktibo finko immaterialak. Jabetza intelektualak sortutakoak	4,7	5,5	-1,7	8,1	6,7	6,3	7,1	6,8	6,7	1,5
KANPO-ESKARIA (*)	0,3	2,4	-0,9	0,1	0,4	1,7	1,8	4,0	2,0	1,9
Ondasun eta zerbitzuen esportazioak	14,4	14,4	-6,0	40,5	15,2	16,4	17,1	20,2	14,2	7,1
Ondasunen esportazioak	10,6	2,7	6,4	35,7	6,3	0,4	-0,8	3,3	2,7	5,8
Zerbitzuen esportazioak	27,0	51,6	-35,6	59,0	50,5	81,2	91,1	79,2	49,3	12,0
Ondasun eta zerbitzuen inportazioak	13,9	7,9	-3,7	40,8	14,3	11,6	12,5	8,5	8,9	2,2
Ondasunen inportazioak	13,8	5,5	0,2	40,5	12,2	9,0	10,0	5,1	6,7	0,6
Zerbitzuen inportazioak	14,4	20,6	-20,9	42,6	27,1	25,4	26,5	27,4	20,4	10,4
ESKAINNTZA										
Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	2,1	-1,1	4,1	0,0	2,5	1,8	4,2	-3,1	-2,7	-2,4
Industria.	6,6	3,0	-0,2	27,5	0,4	3,2	2,4	4,9	3,8	0,8
-Manufaktura-industria	8,9	3,8	-0,2	36,1	3,0	4,0	4,4	6,0	3,3	1,7
Eraikuntza	-3,0	4,1	-9,6	13,3	-8,2	-4,1	0,3	5,5	5,9	4,8
Zerbitzuak	6,0	6,5	-5,4	17,3	6,0	8,2	7,6	9,1	5,5	3,9
- Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	15,6	16,5	-10,7	48,6	16,1	21,9	21,3	24,9	14,2	7,6
- Informazioa eta komunikazioak	7,1	9,5	-2,9	13,0	7,3	11,8	10,4	11,1	9,3	7,3
- Finantza- eta aseguru-jarduerak	0,8	-5,7	4,6	2,5	-2,3	-1,6	-6,6	-5,3	-5,4	-5,6
- Higiezinaren arloko jarduerak	0,4	0,5	-0,4	5,0	-1,8	-1,0	2,8	1,7	-1,8	-0,5
- Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak eta beste batzuk:	7,2	7,8	-9,1	23,3	8,3	10,6	8,9	9,4	7,7	5,3
- Herri-administrazioa, osasuna eta hezkuntza	1,1	-1,4	1,6	3,2	1,2	-1,3	-2,8	-2,5	-1,4	1,0
- Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta bestelako zerbitzuak	2,6	13,8	-24,0	20,7	6,1	18,2	14,8	19,2	11,7	10,4
Produktuen gaineko zerga garbiak	6,7	4,6	-3,1	17,6	5,3	8,7	8,9	6,4	3,6	0,0

(*) Merkatuko prezioetako BPGd-ari egindako ekarpena.
Iturria: EIN. Hiruhileko Kontabilitatea

Ordainketa Balantzari dagokionez, 2022an berriz ere izan zuen Espainiako ekonomiak finantzatzeko ahalmena⁵. Finantzaketa ahalmen hori (superabita) 19.744 milioi eurokoa izan zen (2019ko 30.452 milioien aldean), hau da, BPGd-ren % 1,5; aldiz, 2019an BPGd-ren % 2,4 izan zen.

Estatuko administrazio publikoek defizitarekin bukatu zuten 2022. urtea, Nazio Kontabilitatearen arabera neurtua: 63.776 M€, hots, BPGd-aren % 4,8ko ratioa.

II.1.7. KOADROA. ESPAINIAKO EKONOMIAREN ORDAINKETA-BALANTZA				
EUROAK, MILIOITAN				
	2019	2020 p	2021 p	2022 p
BPGd bb	1.245.513	1.117.989	1.206.842	1.327.108
Finantziazio gaitasuna/premia	30.452	11.923	22.435	19.744
BPGd-aren gainean (%)	2,4	1,1	1,9	1,5
Kontu korrontearen eta kapitalaren saldoa	30.451	11.923	22.435	19.745
Kontu korrontea	26.236	6.789	11.523	7.769
Ondasunak eta zerbitzuak	36.617	16.288	17.922	18.706
Errentak	-10.381	-9.499	-6.399	-10.937
Kapital kontua	4.215	5.134	10.912	11.976
Finantza-saldoa	25.827	9.060	23.507	23.674
Espainiako Bankua.	15.758	-81.875	16.026	32.963
Gainerako sektoreak	10.069	90.935	7.481	-9.289
Akatsak eta omisioak	-4.624	-2.863	1.072	3.929

bb: behin-behinekoa
Iturria: Espainiako Bankua.

Bereizita, agente guztiek defizitarekin itxi zuten 2022. urtea, Administrazio Zentralak BPGd-aren % 3,1ekin, Autonomia Erkidegoek % 1,1ekin, Gizarte Segurantzak % 0,5ekin eta Tokiko Korporazioek, superabita erregistratzen ari zirenak, % 0,1eko defizita izan zuten.

II.1.8. KOADROA. SALDO PUBLIKOA AGENTEEN ARABERA								
MILIOI EUROTAN								
	milioi eurotan				BPGd-aren %			
	2019	2020	2021 p	2022 p	2019	2020	2021 p	2022 p
Herri Administrazioak Finantziazio gaitasuna (+) / premia (-), EKNren arabera	-38.116	-113.199	-82.946	-63.776	-3,1	-10,31	-6,9	-4,8
Administrazio Zentrala	-18750	-85.710	-73.734	-41.058	-1,5	-7,7	-6,1	-3,1
Autonomia Erkidegoak	-7.337	-1.984	-630	-15.085	-0,6	-0,2	-0,1	-1,1
Tokiko korporazioak	3.831	2.758	3.457	-1.647	0,3	0,2	0,3	-0,1
Gizarte Segurantzaren Administrazioa	-15.860	-28.263	-12.039	-5.986	-1,3	-2,5	-1	-0,5

bb: behin-behinekoa
**Guztizkoa ez dator bat partiden gehikuntzarekin. Hala argitaratu du Espainiako Bankuak*
Iturria: Espainiako Bankua.

Diru-sarrerei dagokienez, zerga nagusietan bildutako dirua, autonomia-erkidegoen eta toki-korporazioen partaidetza barne, % 14,5 hazi zen 2022an. Hazkunde horren arrazoia zerga zuzenen (+% 16,5) eta zeharkakoen (+% 12) bilketaren igoera da. Eta horietako bakoitzean sakontzen badugu, ikus dezakegu zuzeneko zergen kasuan PFEZaren (+% 15,8), sozietateen (+% 20,8) eta beste bi zergen (+% 6,1) bilketa hazi egin zela. Zeharkako zergen kasuan, berriz, zerga bakoitzaren bilketa igo egin zen: BEZarena % 13,9, bereziena % 2,5 eta “beste batzuen” % 23,4.

Bestalde, Estatuak onartutako obligazioak % 3,3 hazi ziren, partida guztien igoeraren ondorioz, interesak eta transferentzia arruntak izan ezik. Hazkunderik handiena inbertsioetan izan zen (% 50,9), ondoren ondasun eta zerbitzuen erosketan (% 41,2), kapital-transferentzietan (% 31,1) eta langileetan (% 5).

⁵Ekonomiaren sektoreek sortutako aurrezkia egindako inbertsioari aurre egiteko nahikoa denean sortzen da, eta Kontu Korronteko Balantzaren, Kapitalaren eta kanpoko egoiliarren inbertsioen saldoak batuta kalkulatu da.

II.1.9. KOADROA. ESTATUKO ZERGA-BILKETA*
(AUTONOMIA ERKIDEGOEK ETA TOKIKO KORPORAZIOEK PFEZ, BEZ ETA ZERGA BEREZIEI EGINDAKO EKARPENA BARNE) (MILIOI EUROTAN)

	Zuzeneko zergak				Zeharkako zergak				Guztira		
	GUZTIRA	PFEZa	SOZIETATEAK	BESTELA KOAK	GUZTIRA	BEZa	BEREZIAK	BESTEL AKOAK	ESTATUA	A AEE eta TTKK	GUZTIRA
2017	105.402	77.038	23.143	5.221	87.518	63.647	20.308	3.563	104.541	88.379	192.920
2018	113.363	82.859	24.838	5.667	94.278	70.177	20.528	3.573	115.287	92.354	207.641
2019	114.948	86.892	23.733	4.323	96.590	71.538	21.380	3.672	115.630	95.909	211.539
2020	107.750	87.972	15.858	3.921	85.445	63.337	18.790	3.318	90.545	102.650	193.196
2021	126.349	94.545	26.627	5.176	96.814	72.498	19.729	4.587	122.808	100.355	223.163
2022	147.153	109.485	32.176	5.492	108.480	82.595	20.224	5.661	159.731	95.902	255.633
Ald. 20-21	17,3	7,5	67,9	32,0	13,3	14,5	5,0	38,2	35,6	-2,2	15,5
Ald. 21-22	16,5	15,8	20,8	6,1	12,0	13,9	2,5	23,4	30,1	-4,4	14,5

*Biribildutako zifrak

Iturria: *Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa, Adierazle Ekonomikoen Laburpena. 2023ko maiatza*

II.1.10. KOADROA. AURREKONTUAREN BETEARAZPENA: ESTATUAK ONARTUTAKO OBLIGAZIOAK(milioi eurotan)*

	PERTSONALA*	ONDASUNEN ETA ZERBITZUEN EROSKETAK	INTERESAK	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	INBERTSIOAK	GUZTIRA
2017	15.966	3.472	30.325	85.379	8.241	5.603	148.987
2018	16.527	3.452	30.047	88.341	8.413	5.962	152.742
2019	17.301	4.020	29.055	92.481	7.642	5.732	156.231
2020	17.839	4.585	27.961	136.019	8.375	5.945	200.724
2021	18.538	5.082	26.924	155.993	26.221	7.358	240.116
2022	19.465	7.174	26.358	149.606	34.382	11.105	248.091
Ald. 20-21	3,9	10,8	-3,7	14,7	213,1	23,8	19,6
Ald. 21-22	5,0	41,2	-2,1	-4,1	31,1	50,9	3,3

*Biribildutako zifrak

Iturria: *Ekonomia Gaietako eta Eraldaketa Digitaleko Ministerioa, Adierazle Ekonomikoen Laburpena. 2023ko maiatza*

1.3.2. Autonomia Erkidegoak: BPGd-a eta per capita BPGd-a

INeren Eskualde Kontabilitateko azken datuen arabera (2021ekoak), biztanleko BPGd nominalaren maila altuenak dituzten autonomia-erkidegoak hauexek dira: Madrilgo Erkidegoa (34.821 euro), Euskadi (32.925 euro), Nafarroa (31.024 euro) eta Katalunia (29.942 euro). Estatuko batez bestekoa 25.498 euro izan zen.

Bolumenari dagokionez, Balear Uharteak, Kanariak, Nafarroa eta Katalunia izan ziren hazkunde handienak izan zituztenak, eta gutxien hazi zirenak Gaztela eta Leon, Aragoi, Errioxa, Extremadura eta Gaztela-Mantxa izan ziren.

	II.1.11 KOADROA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO BPGd ETA PER CAPITA BPGd			
	BPGd BOLUMEN-ALDAKUNTZA		PER CAPITA BPGd-a	
	2020 P	2021 A	2020 P	2021 A
ANDALUZIA	-10,8	5,5	17.545	18.906
ARAGOI	-8,7	4,4	26.642	28.912
ASTURIAS	-11,0	5,5	20.947	23.235
BALEAR UH.	-23,2	10,7	21.551	24.866
KANARIAK	-19,1	7,0	17.199	18.990
KANTABRIA	-10,5	5,6	22.048	23.730
GAZTELA ETA LEON	-8,8	4,3	22.925	24.428
GAZTELA-MANTXA	-7,7	4,8	19.257	20.655
KATALUNIA	-12,3	5,8	27.745	29.942
VALENTZIAKO E.	-10,9	5,6	20.780	22.289
EXTREMADURA	-9,3	4,6	17.834	19.072
GALIZIA	-9,1	5,1	21.730	23.499
MADRIL	-11,0	5,4	32.332	34.821
MURTZIA	-9,1	5,0	19.692	21.236
NAFARROA	-10,3	5,9	28.822	31.024
EAE	-10,7	5,5	30.338	32.925
ERRIOXA	-8,9	4,5	25.666	27.279
CEUTA	-8,6	4,0	19.797	21.244
MELILLA	-8,7	4,1	18.056	19.266
GUZTIRA	-11,3	5,5	23.608	25.498

BB: behin-behinekoa, A: aurrerapena.

Iturria: EIn. Eskualdeko kontabilitatea

ITURRIAK

1. **NDF:** Munduko ekonomiari buruzko aurreikuspenak. 2022ko apirila. 2022ko datuak.
2. **EKONOMIA GAIETAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO MINISTERIOA:**
 - ✓ Adierazle ekonomikoen laburpena. 2023ko otsaila. 2021-2022ko datuak.
 - ✓ Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta grafikoak. 2023ko otsaila. 2021-2022ko datuak.
3. **ESPAINIAKO BANKUA:**
 - ✓ Estatistikak. 2022ko datuak.
 - ✓ Estatistika aldizkaria. 2022ko datuak.
 - ✓ Adierazle ekonomikoak. 2022ko datuak.
4. **EUROSTAT:** Datu-basea. 2022.
5. **EUROPAKO BANKU ZENTRALA:**
 - ✓ Urteko txostena. 2023ko apirila.
 - ✓ Ekonomia Buletina. 2023ko maiatza.
6. **EIN:** Kontabilitate Nazionala. 2022ko datuak.
7. **EIN:** Eskualde-kontabilitatea. 2021eko datuak.

2. EAE-KO ABAGUNE EKONOMIKOA

Epigrafe honetan, EAEko abagune ekonomikoa aztertuko da. Lehenik eta behin, ekonomiaren bilakaera orokorra aztertuko dugu, eskaintzaren eta eskariaren ikuspegitik. Jarraian, kanpo-eskariaren azterketa zehatzagoa egingo dugu. Hurrengo atala atzerriko inbertsioei buruzkoa da, atzerritarrek gure Erkidegoan eginiko inbertsioaren nahiz EAEk atzerrian eginiko inbertsioaren gainekoa. Bosgarren atalean kontsumo-prezioak, errentaren banaketa funtzionala, lan-kostuak eta produktibitatea aztertuko dira. Eta, azken puntuan, errenta pertsonalaren banaketa aztertuko da, sexuaren eta errenta-segmentuen arabera.

2.1. BILAKAERA OROKORRA


EUSTATen *Kontu Ekonomikoen* arabera, BPGak % 4,4 egin zuen gora 2022an (balio errealean eta egutegiaren ondorioak kenduta), 2021arekin alderatuta. Urte urte arteko % 5,8ko hazkunde-tasarekin hasi zen lehenengo hiruhilekoan, eta, hortik aurrera, hazkundera moteltzen hasi zen. Hala, urte arteko hazkunde-tasa % 5koa izan zen bigarren hiruhilekoan, % 3,8koa hirugarrenean, eta % 2,9koa laugarren hiruhilekoan. Lurralde historikoen arabera, zenbatesten da BPGaren urteko hazkundera % 4,3 izango dela Araban, % 4,5 Bizkaian, eta % 4,2 Gipuzkoan.

Hazkundera Espainiako ekonomiarako zenbatetsitakoa (% 5,5, INEren arabera) baino txikiagoa da, baina Eurogunekoa (% 3,5, EUROSTATen arabera) eta EB27 osokoa (% 3,5, EUROSTATen arabera) baino handiagoa.

Bestalde, termino arruntetan, EAE osorako BPGaren balioa 84.972,6 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 8,9ko igoera, 2021. urtearekin alderatuta.

2022. urte osoko enplegua, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, % 3,1 hazi da, aurreko urtearen aldean. 2022an sortutako lanaldi osoko 30.000 lanpostu baliokiderekin, pandemia aurreko enplegu-mailak gainditu dira.

II.2.1 GRAFIKOA. EAE-KO BPG-A. ALDAKUNTZA-TASAK BOLUMEN KATEATUAN. 2015EKO OINARRIA




II.2.1. KOADROA. EAE-KO AGERTOKI MAKROEKONOMIKOAREN BILAKAERA KSE 2010. 2015eko OINARRIA.
 Urtetik urterako aldakuntza-tasa. Urtaroko eta egutegiko ondorioen datu zuzenduak

	2019	2020	2021	2022	I 2022	II 2022	III 2022	IV 2022
BPG ERREALA MERKATUKO PREZIOETAN	2,2	-9,6	5,9	4,4	5,8	5,0	3,8	2,9
ARABA	1,9	-10,5	5,9	4,3	5,6	4,9	3,9	2,7
BIZKAIA	2,2	-9,1	6,0	4,5	5,7	4,8	3,5	2,8
GIPUZKOA	2,6	-9,9	5,9	4,2	5,9	5,1	4,0	3,0
ESKARIA								
BARNE-ESKARIA (HAZKUNDEA)	2,3	-9,7	5,4	2,7	3,3	2,5	2,7	2,3
GASTUA AMAIERAKO KONTSUMOAN	2	-8,9	5,2	2,2	2,9	1,8	2	2,1
ETXEBIZITZETAKO AMAIERAKO KONTSUMOAREN GASTUA ETA ISFLSH	1,7	-12,1	5,6	3,0	3,5	3,2	2,7	2,3
AP-ETAKO AMAIERAKO KONTSUMOAREN GASTUA	3,1	2,9	3,9	-0,4	0,7	-2,9	-0,4	1,2
KAPITALAREN ERAKETA GORDINA (KEG)	3,3	-12,1	6,0	4,4	4,7	4,8	5,1	2,9
KFEGa EKIPAMENDU-ONDASUNETAN	3,0	-11,8	10,9	6,9	8,6	8,4	7,3	3,6
GAINERAKO KEGa	-	-	3,1	2,7	2,2	2,4	3,7	2,5
KANPO-ESKARIA								
ONDASUN ETA ZERBITZUEN ESPORTAZIOAK	-0,2	-15,9	12,7	10,2	13,5	13,7	9,2	4,9
ONDASUN ETA ZERBITZUEN INPORTAZIOAK	0	-15,8	11,6	7,5	10,6	8,8	6	4,7
ESKAINZA								
PRIMARIOA	5,9	-16,9	21,9	0,8	-1,7	-3,4	7,8	0,7
INDUSTRIA ETA ENERGIA	1,4	-12,2	6,1	4,6	6,5	5,9	3,6	2,5
MANUFATURA-INDUSTRIA	1,1	-13,1	5,6	4,3	5,9	5,7	2,6	2,8
ERAIKUNTZA	2,4	-14,4	4,5	2,0	1,9	1,3	2,3	2,4
ZERBITZUAK	2,5	-7,9	5,8	4,7	6,2	5,4	4,2	3,2
MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA GARRAIOA	2,2	-20,4	11,8	10,7	13,1	13,8	9,8	6,5
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA, HEZKUNTZA, OSASUNA ETA GIZARTE-ZERBITZUAK	3,2	1,1	3,1	1,8	3	1,1	1	1,9
GAINERAKO ZERBITZUAK	2,4	-4,3	4	2,8	3,9	2,7	2,5	1,9
OINARRIZKO PREZIOETAKO BALIO ERANTSI GORDINA	2,3	-9,4	5,9	4,5	6	5,2	4	3
PRODUKTUEN GAINENKOTZERA GARBIAK	2	-11,9	6,1	3,3	3,9	2,9	2,6	2,8
LANPOSTU BALIOKIDEAK. GUZTIRA								
NEKAZARITZA, ABELTZAINZTA ETA ARRANTZA	-2,8	-2,5	-3,9	-0,8	4,9	3,7	2	1,9
INDUSTRIA ETA ENERGIA	0,8	-8,4	5,4	1,6	-1,2	-1,3	1,1	-1,6
ERAIKUNTZA	4,1	-8,7	6,2	1,7	2,4	2,4	0,8	0,9
ZERBITZUAK	1,6	-5,4	6,2	3,7	3	1,5	0,6	1,5
GUZTIRA	1,5	-6,2	5,9	3,1	4,9	3,7	2	1,9

Iturria: EUSTAT. Kontu Ekonomikoak eta Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak (2022ko martxoaren 10a). Geuk egina

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren informazioaren arabera, euskal ekonomiaren termometroak⁶ (II.2.2 GRAFIKOA) 131,6 puntuko balioarekin hasi zuen 2022. urtea. Martxoan beherakada txiki bat izan zuen, eta joera-aldaketa horrek azarora arte jarraitu zuen, non 108,9 puntuko balioa erregistratu baitzuen; horrek dezelerazioa berretsi zuen, baina hazkunde sendoko eremuan mantendu zen. Termometroak 113,1 puntuan amaitu zuen urtea, oraindik ere hazkunde sendoko eremuan, eta zertxobait hobetuta.




⁶ Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak egin berri duen adierazle sintetiko bat da. EAeko BPGarekin korrelazio handia duten hileko ehun aldagai inguru konbinatzen ditu. Serieak moteldu egin dira, eta, beraz, haien ibilbidea aldagaiaren joeratzat har daiteke.

Beharpena: $x < 50$

Hazkunde txikia: $50 < x < 100$

Hazkunde sendoa: $x > 100$

II.2.2 GRAFIKOA. EUSKAL EKONOMIAREN TERMOMETROAREN BILAKAERA HILABETEZ HILABETE



Iturria: Ogasun eta Ekonomia Saila. Geuk egina

2.2. ESKAINTZAREN ETA BARNE-ESKARIAREN AGREGATUAK

II.2.1 taulak erakusten duen bezala, Eskaintzaren aldetik, sektore guztiek urte arteko aldaketa positiboak izan dituzte 2022. urte osoan, nahiz eta industriako eta zerbitzuetako jarduera motelduz joan den hiruhilekotik hiruhilekora.

Industria eta Energia sektoreak urte arteko +% 4,6ko aldakuntza-tasa izan du. Manufaktura-industria industria osoa baino eritmo pixka bat motelagoan hazi da, % 4,3ko tasa zenbatetsiarekin. Zerbitzuen sektorearen jarduera orokorra % 4,7 hazi da urte osoan. Eraikuntzaren sektoreak % 2ko gehikuntza izan du balio erantsian. Bestalde, lehen sektorean % 0,8ko hazkunde-tasa zenbatetsi da.


Zerbitzuen portaera desberdina izan da adarren arabera. Merkataritza, ostalaritza eta garraioaren adarrak % 10,7ko hazkundera izan du, pandemia kontrolatzeko ezarri ziren murrizketak kendu direlako eta birusa iritsi aurreko kontsumo-ereduetara itzuli delako. Hala ere, hazkunde-tasa handia izan arren, oraindik ez da berreskuratu 2019ko jarduera-maila. Administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen adarrean, hazkundeak apalagoak izan dira, % 1,8ko hazkunde-tasarekin. Azkenik, gainerako zerbitzuen adarrean bildutako jarduerak —hala nola higiezin-, lanbide-, zientzia- eta teknika-jarduerak, baita finantza- eta aseguru-jarduerak ere— % 2,8ko urte arteko hazkundera izan dute. Bi multzoetan gainditu dira pandemia aurreko jarduera-mailak.

Eskariaren aldetik, barne-eskariaren portaera ez da BPGarena bezain positiboa izan, % 2,7ko hazkundera izan baitu 2022. urte osoan. Hala, kanpo-eskariak BPGaren hazkunderari egiten dion ekarpena positiboa da (1,7 puntu).

Kapital-eraketa gordina (inbertsioa) da dinamismo handiena duen agregatua, eta, 2022. urte osoan, urte arteko aldakuntza-tasa % 4,4koa da. Ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioa % 6,9 hazi da, eta kapital-eraketa gordinaren gainerakoa hartzen duen agregatua, eraikuntzari lotuago dagoena, % 2,7. Urtean zehar, inbertsio-jarduera motelduz joan da, eta nabarmenagoa da ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioaren kasuan, haren hazkunde-tasa ehuneko bost puntu jaitsi baita lehen hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean (+ % 8,6tik +% 3,6ra igaro da).

Gastu pribatua (etxeetako azken kontsumoko gastua eta ISFLSH) % 3 igo da 2021. urtearekin alderatuta. Bestalde, kontsumo publikoa (administrazio publikoaren azken kontsumoko gastua) % 0,4 jaitsi da. Gastu pribatuaren eta gastu publikoaren baterako bilakaerak azken kontsumoko gastuaren % 2,2ko hazkundera ekarri du.

II.2.3 GRAFIKOA. BARNE- ETA KANPO-ESKARIAK BPG-AREN HAZKUNDEARI EGINDAKO EKARPENA



Horren ildotik, EUSTATen datuen arabera, kontsumoaren eta inbertsioaren koiunturazko adierazleek ere hazkundera moteldu dute.

Hala, kontsumo pribatuen egindako gastuaren aldakuntza-tasa % 3 hazi da (aurreko urtean % 5,6 hazi zen), kontsumo-ondasunen IPI % 4,5 hazi da (2021ean % 12 hazi zen), eta txikizkako merkataritzako salmenta-indizea % 2,9 igo da prezio konstanteetan (2021ean % 3,5 hazi zen). Bestalde, hoteletako gaudialdiak % 54,2 gehitu dira.

II.2.2. KOADROA. BARNE-ESKARIAREN ADIERAZLE BATZUEN BILAKAERA (URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA)			
	2020	2021	2022 b-b
KONTSUMO PUBLIKOAREN ADIERAZLEAK			
ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO KONTSUMO-GASTUA (HKEren arabera)	2,9	3,9	-0,4
KONTSUMO PRIBATUAREN ADIERAZLEAK			
KONTSUMO PRIBATUAREN GASTUA (HKEren arabera)	-12,1	5,6	3,0
KONTSUMO-ONDASUNEN IPI (ABENDUAN METATUA)	-6,6	12,0	4,5
BARNE-MERKATARITZAREN SALMENTA-INDIZEA (P. KORR.)	-4,9	3,5	2,9
BESTE BATZUK: HOTELETAN IGAROTAKO GAUAK	-61,5	73,4	54,2
INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK			
EKIPAMENDU-ONDASUNEN IPI (ABENDUAN METATUA)	-12,5	13,3	9,3
<i>bb: behin-behinekoa</i>			
<i>Iturria: EUSTAT. Geuk egina</i>			

Inbertsioaren adierazleei dagokienez, inbertsio ondasunen Industria Produkzioaren Indizea % 9,3 hazi da (aurreko denboraldian % 13,3 hazi zen).

2.3. KANPO-ESKARIA

Termino nominaletan, “Kanpo-merkataritzaren Estatistikak” (Aduanen Erregistroetan oinarritua) atzerriarekiko (ez du barne hartzen estatuaren gainerakoa) ondasunen kanpo-merkataritzari buruz ematen dituen behin-behineko datuek erakusten dute 2022an esportazioak % 26,8 hazi direla (32.538,4 milioi euro guztira). Zenbateko horrek aurtengo datua serie esportatzaile historikoaren erregistro onena bihurtzen du, erraz gaintzen baititu orain arte balio esportatzaile handiena izan duen urteko, hots, 2018ko 25.788 milioiak, % 26,2 gehiago baita Esportazio ez-energetikoak (guztizkoaren % 91,2) % 22,2 hazi dira, eta, energetikoak, % 108,8.

Lurralde historikoa ere urte bikaina izan da esportazioari dagokionez, hiru lurraldeek izan baitituzte maximo historikoak. Bizkaia da, 13.291,8 milioirekin (guztizkoaren % 40,8), esportazioen bultzadari ekarpen handiena egin diona; haren ondoren Gipuzkoa dago (9.904,7 milioi), eta, azkenik, Araba (9.341,9 milioi).

Inportazioen kasuan (29.411,5 milioi euro), hazkundera % 39,7koa izan da 2021. urtearekin alderatuta. Serie historikoaren baliorik handiena da; bigarren handiena aurreko urtean (2021) lortu zen hain zuzen ere, 21.060 milioiko ondasunak inportatu baitziren. Inportazio ez-energetikoak (guztizkoaren % 70,8) % 26,3 hazi dira, eta, energetikoak, % 88.

Euskadiko kanpo-merkataritzak 3.126,9 milioi euroko saldo positiboa izan zuen 2022an (2021ean baino % 32,1 gutxiago), eta estaldura-tasa % 110,6 izan zen.

Ukrainako gerrak eragin handia izan du energiaren merkataritzan; izan ere, produktu energetikoen defizit komertziala 2.600 milioi euro handitu da 2022an, 2021ean baino % 77,7 gehiago, eta 2021ean 3.346 milioiko defizit energetikoa izatetik 2022an 5.946 milioikoa izatera igaro da.

II.2.3. KOADROA. EUSKADIKO ONDASUNEN KANPO-MERKATARITZAREN BILAKAERA. EUROAK, MILAKOTAN.								
Metatua urtarrila - abendua								
	ESPORTAZIOAK			INPORTAZIOAK			SALDOA	
	2021	2022	Ald. (%)	2021	2022	Ald. (%)	2021	2022
GUZTIRA	25.665.434	32.538.407	26,8	21.059.909	29.411.492	39,7	4.605.525	3.126.915
PRODUKTU ENERGETIKOAK	1.365.126	2.850.743	108,8	4.567.797	8.586.037	88,0	-3.202.671	-5.735.294
PRODUKTU EZ-ENERGETIKOAK	24.300.308	29.687.664	22,2	16.492.112	20.825.455	26,3	7.808.196	8.862.209
ARABA	7.340.459	9.341.940	27,3	4.529.941	5.721.552	26,3	2.810.518	3.620.388
BIZKAIA	10.204.983	13.291.760	30,2	11.879.641	17.971.266	51,3	-1.674.658	-4.679.506
GIPUZKOA	8.119.992	9.904.707	22,0	4.650.326	5.718.674	23,0	3.469.666	4.186.033

b-b: behin-behinekoak (2023ko martxoak 15)
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika.

EAEko esportazio ez-energetikoak muga-zergen sekzioen arabera aztertuz gero, ikus daiteke esportazio adierazgarrienek (pisu handiena dutenek) gora egin dutela. Hala, bada, ekipamendu-ondasunek (makinek eta aparatuek 5.592,4 m € eta garraio-materialak 7.893,2 m €) esportazio guztien % 41,5 osatzen dute, eta % 13 eta % 18,5 egin dute gora, hurrenez hurren. Metal arrunten eta horien manufakturen esportazioak esportazio guztien % 24 izan ziren, eta % 27,3 gehitu ziren. Bestalde, plastikoen eta kautxuaren esportazioak esportazio guztiaren % 6,6 dira, eta +% 17,1eko aldaketa-tasa erakusten dute.

Esportazioen kasuan bezala, inportazio ez-energetiko adierazgarrienek (pisu handienekoek) hazkundera izan dituzte fluxuetan. Hala, bada, ekipamendu-ondasunek (makinek eta aparatuek 4.674,8 m € eta garraio-materialak 1.699,9 m €), zeinak esportazio guztien % 21,7 baitira, % 21,5 eta % 19,7 egin dute gora, hurrenez hurren. Metal arrunten eta horien manufakturen esportazioak esportazio guztien % 20,6 izan ziren eta % 26,8 gehitu ziren. Bestalde, produktu kimikoak inportazio guztien % 6,6 dira, eta +% 42,3ko aldakuntza-tasa erakusten dute.

II.2.4. KOADROA. EAE-K ATZERRIAREKIN DUEN ONDASUN ETA ZERBITZUEN KANPO-MERKATARITZA
 (MILIOI eurotan) (muga-zergako sekzioen arabera sailkapena)

		ESPORTAZIOAK				INPORTAZIOAK				SALDOA	
		2021 (b-b)	2022 (b-b)	BERT. %	Aldakuntza	2021 (b-b)	2022 (b-b)	BERT. %	Aldakuntza	2021 (b-b)	2022 (b-b)
Guztira		25.665,4	32.538,4	100	26,8	21.059,9	29.411,5	100,0	39,7	4.605,5	3.126,9
1. Animalia bizidunak eta animalia-erreinuko produktuak	Nekazaritza ko produktuak	241,7	357,6	1,1	47,9	410,7	520,2	1,8	26,6	-169,0	-162,6
2. Landareen erreinuko produktuak		152,8	249,7	0,8	63,4	673,6	859,2	2,9	27,6	-520,7	-609,5
3. Gantz eta olio mineral edo begetalak		259,3	408,7	1,3	57,6	273,3	458,1	1,6	67,6	-14,1	-49,4
4. Elikagaien industrietako produktuak eta tabakoa		835,5	996,5	3,1	19,3	463,0	569,7	1,9	23,0	372,5	426,9
5. Produktu eta mineral energetikoak		1.459,0	2.940,7	9,0	101,6	4.804,6	8.886,8	30,2	85,0	-3.345,6	-5.946,2
6. Produktu kimikoak		855,0	1.106,7	3,4	29,4	1.364,5	1.941,1	6,6	42,3	-509,5	-834,4
7. Plastikoko eta kautxua		1.821,3	2.132,6	6,6	17,1	1.073,7	1.250,2	4,3	16,4	747,6	882,4
8. Larruzalak, larruak, larrugintza eta horien manufakturak		25,8	22,4	0,1	-13,4	23,6	27,6	0,1	17,1	2,3	-5,2
9. Egurra, egur-ikatz, krotxoa eta horien manufakturak		119,9	144,9	0,4	20,9	115,9	137,4	0,5	18,6	4,0	7,5
10. Papera		696,9	919,5	2,8	31,9	514,8	732,3	2,5	42,3	182,1	187,2
11. Ehungintzako gaiak eta horien manufakturak		160,7	186,8	0,6	16,2	305,6	369,1	1,3	20,8	-144,9	-182,3
12. Oinetakoak eta jantzi-osagarriak		19,5	25,8	0,1	32,2	78,3	83,1	0,3	6,0	-58,8	-57,2
13. Eraikuntzako materialak, zeramika eta beira		349,6	414,0	1,3	18,4	197,9	240,0	0,8	21,3	151,7	174,1
14. Bitxigintza eta imitaziozko bitxiak		25,1	85,2	0,3	239,8	54,3	148,2	0,5	173,0	-29,2	-63,0
15. Metal komunak eta horien manufakturak		6.142,2	7.818,9	24,0	27,3	4.783,0	6.065,8	20,6	26,8	1.359,2	1.753,1
16. Makinak eta gailuak	Ekipamendu -ondasunak	4.950,5	5.592,4	17,2	13,0	3.847,5	4.674,8	15,9	21,5	1.103,0	917,6
17. Garraio-materiala		6.659,6	7.893,2	24,3	18,5	1.420,5	1.699,9	5,8	19,7	5.239,1	6.193,3
18. Optikako eta doitasunezko tresnak eta aparatuek		233,9	233,0	0,7	-0,4	317,7	386,4	1,3	21,6	-83,8	-153,4
19. Armak eta munizioak, horien atalak eta osagarriak		145,8	184,8	0,6	26,7	54,5	56,1	0,2	2,9	91,3	128,7
20. Salgaiak eta era askotako produktuak		233,7	241,1	0,7	3,2	254,3	226,4	0,8	-11,0	-20,7	14,7
21. Artelanak, bildumak edo antzinako gauzak		5,2	8,3	0,0	59,4	10,0	7,9	0,0	-20,1	-4,8	0,3
Saillatu gabeak		272,3	575,7	1,8	111,4	18,6	71,4	0,2	284,7	253,7	504,3

b-b: behin-behinekoak (2022ko martxoaren 15a)
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika-ECOMEX. Geuk egina

Jatorriaren eta helmugaren arabera kanpoko merkataritzari dagokionez, esportazioen % 84,6 ELGAko herrialderen batera joan ziren, eta inportazioen % 64 eremu horretatik datoz. Bestalde, esportazioen % 64 EB27ko herrialderen batera joan ziren, eta inportazioen % 45,7 eremu horretakoak ziren.

Herrialdeka, merkataritza-bazkide nagusiak Alemania (esportatutakoaren % 15,4; 2021ean baino % 22,2 gehiago), Frantzia (% 15,2; +% 20,3), Estatu Batuak (% 6,9; +% 41,9), Herbehereak (% 6,2; +% 55,4) eta Erresuma Batua (% 6,1; +% 17) izan dira. Inportazioei dagokienez, Alemania (inportatutako guztizkoaren % 12,8; % 21,5 hazi da), Frantzia (% 8,4; +% 21,8), Txina (% 7,4; +% 31), AEB (% 7,1; +% 207), Brasil (% 5,4; +% 251) eta Italia (% 4,5; +% 15,7) izan dira.

II.2.5. KOADROA. EAE-KO ESPORTAZIOEN JOMUGA ETA INPORTAZIOEN JATORRIA MERKATARITZA-BAZKIDE NAGUSIAK (EUROAK, MILAKA)										
	ESPORTAZIOAK					INPORTAZIOAK				
	2021 b-b	2022 b-b	PISUA (2021)	PISUA (2022)	ALDAK. 2021/22	2021 b-b	2022 b-b	PISUA (2021)	PISUA (2022)	ALDAK. 2021/22
GUZTIRA	25.665.434	32.538.408	100	100	26,8	21.059.909	29.411.493	100	100	39,7
EB27	16.319.744	20.823.985	63,6	64,0	27,6	10.963.887	13.426.427	52,1	45,7	22,5
EUROGUNEA	14.394.767	18.328.996	56,1	56,3	27,3	9.628.740	11.775.724	45,7	40,0	22,3
ELGA	21.659.137	27.538.185	84,4	84,6	27,1	14.211.428	18.835.638	67,5	64,0	32,5
ALEMANIA	4.092.297	5.000.393	15,9	15,4	22,2	3.101.939	3.770.134	14,7	12,8	21,5
BELGIKA	1.361.670	1.747.381	5,3	5,4	28,3	542.270	717.988	2,6	2,4	32,4
BRASIL	285.891	364.187	1,1	1,1	27,4	455.049	1.597.259	2,2	5,4	251,0
TXINA	665.044	711.898	2,6	2,2	7,0	1.653.699	2.166.120	7,9	7,4	31,0
ESTATU BATUAK	1.591.778	2.258.220	6,2	6,9	41,9	681.957	2.093.859	3,2	7,1	207,0
FRANTZIA	4.120.188	4.957.847	16,1	15,2	20,3	2.025.129	2.465.773	9,6	8,4	21,8
IRLANDA	129.958	120.170	0,5	0,4	-7,5	668.120	740.415	3,2	2,5	10,8
ITALIA	1.350.711	1.753.425	5,3	5,4	29,8	1.145.375	1.325.544	5,4	4,5	15,7
MEXIKO	463.362	574.716	1,8	1,8	24,0	991.234	981.878	4,7	3,3	-0,9
HERBEHEREAK	1.293.822	2.010.774	5,0	6,2	55,4	816.203	1.133.934	3,9	3,9	38,9
POLONIA	602.050	737.758	2,3	2,3	22,5	359.871	473.211	1,7	1,6	31,5
PORTUGAL	1.117.437	1.467.908	4,4	4,5	31,4	566.735	669.860	2,7	2,3	18,2
ERRESUMA BATUA	1.694.789	1.983.474	6,6	6,1	17,0	677.557	965.608	3,2	3,3	42,5
ERRUSIA	251.566	121.961	1,0	0,4	-51,5	1.378.775	813.179	6,5	2,8	-41,0
TURKIA	376.946	572.771	1,5	1,8	52,0	172.829	235.588	0,8	0,8	36,3

b-b: behin-behinekoak (2022ko martxoaren 15a)
Iturria: EUSTAT. Kanpoko Merkataritzako Estatistika. Geuk egina

2.4. ATZERRIKO INBERTSIOA

Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren Kanpo Inbertsioen Erregistroko datuen arabera⁷, 2022. urtean atzerriko inbertsioa 5.515,8 milioi eurokoa izan zen EAEn, eta gure erkidegoak atzerrian egindakoa, berriz, 965,4 milioi eurokoa.

II.2.6. KOADROA. EAE-KO KANPOKO INBERTSIOAREN ETA EAE-K ATZERRIAN EGINIKO INBERTSIOAREN ARTEKO ALDERAKETA (mila eurotan) (Atzerriko baloreak dituzten enpresak kenduta)							
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 b-b
ATZERRIKO INBERTSIOA EAE-N	2.126.819,5	2.691.308,0	1.190.160,4	535.871,3	904.390,9	1.539.801,4	5.515.767,7
EAE-REN INBERTSIOA ATZERRIAN	3.385.273,2	1.809.804,9	1.509.952,5	1.231.422,2	3.539.908,1	3.333.993,2	965.431,0


() Inbertsio gordina, ETVE gabe*
b-b: behin-behineko datuak
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa. Geuk egina

⁷Estatistika horren arabera, Estatuaren inbertsioa atzerriko inbertsioetat hartzen da, eta, beraz, EBren eta ELGAren zifren barruan sartzen da.

2.4.1. Atzerriko inbertsioa EAEn

Datu-iturri beraren arabera, atzerriak EAEn eginiko inbertsioak nabarmen egin zuen gora 2021 eta 2022 bitartean, atzeritar balioak dituzten enpresak kenduta (ETVE⁸); hala, 1.539,8 milioi €-tik 5.515,8 milioi €-ra igaro zen. EAEk Estatuko guztizkoarekiko duen proportzioa % 5,1etik % 16,1era igo da. Madrilo Erkidegoak jasotzen duen inbertsioa kenduta, % 32,5 da; 2021ean % 19,2 izan zen. Hala, 2022an EAE bigarren postuan dago inbertsioen bolumenari dagokionez, Madrilen (17.225,8 milioi euro jaso zituen) atzetik.

GRÁFICO II.2.4. INVERSIÓN BRUTA* EXTRANJERA EN LA CAPV



II.2.7. KOADROA. ATZERRIKO INBERTSIO GORDINA* AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA. GASTUA (milaka eurotan)

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 b-b
ERKIDEGO GUZTIAK	27.105.130,3	28.351.220,8	55.566.465,2	24.684.515,4	27.167.774,5	29.998.748,6	34.178.153,2
ANDALUZIA	474.226,9	459.762,3	460.277,6	834.214,5	785.949,3	970.683,2	1.264.970,3
ARAGOI	37.838,6	193.062,4	335.226,4	102.799,8	25.245,6	201.184,9	484.181,8
KANTABRIA	20.351,9	1.391,8	185.790,0	5.881,8	19,9	24.721,4	9.811,8
GAZTELA ETA LEON	668.289,9	55.864,5	47.594,5	1.865.943,7	57.084,2	136.350,3	471.222,6
GAZTELA-MANTXA	107.816,7	184.243,4	254.940,0	78.089,8	59.961,0	187.382,8	566.796,2
KATALUNIA	8.305.159,1	3.433.113,0	4.420.390,6	3.846.427,2	3.123.049,2	3.091.192,0	3.883.462,0
CEUTA ETA MELILLA	619,3	479,8	65,1	2.565,0	1.343,0	606,8	370,9
MADRILGO ERKIDEGO	12.284.512,0	18.140.468,7	46.453.075,8	14.957.555,2	20.964.947,0	21.960.565,5	17.225.818,2
VALENTZIAKO ERKIDEGO	174.233,4	1.207.029,2	973.332,3	770.666,1	353.961,5	867.240,1	2.036.206,1
EXTREMADURA	54.408,3	26.834,0	11.848,7	22.777,5	233.843,3	15.903,5	9.360,9
GALIZIA	107.721,3	467.632,2	65.452,6	723.043,5	89.930,1	222.973,4	172.002,8
BALEAR UHARTEAK	587.675,4	323.209,2	139.392,3	288.222,0	114.580,6	247.573,7	455.333,7
KANARIAK UHARTEAK	51.033,3	191.976,9	233.991,0	185.282,2	77.870,5	87.351,2	268.908,8
ERRIOXA	97.046,7	27.081,1	188.134,1	26.813,1	5.263,3	70.211,3	178.059,4
NAFARROA	838.952,3	37.506,6	197.330,3	125.123,8	120.680,7	118.026,9	790.107,1
EAE	2.126.819,5	2.691.308,0	1.190.160,4	535.871,3	904.390,9	1.539.801,4	5.515.767,7
ASTURIASKO PRINTZERRIA	292.504,7	31.710,4	11.889,4	125.139,0	51.023,5	45.443,3	298.007,3
MURTZIAKO ESQUALDEA	67.240,9	40.833,8	21.871,8	47.513,4	181.657,8	96.642,8	545.907,2
ESLEITU GABE	1.408.680,4	837.713,5	375.702,5	140.586,6	16.973,2	114.894,2	1.858,4

(* Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa eta geuk egina

⁸ ETVE: egoitza Espainiako lurraldean ez duten erakundearen funts propioak ordezkatzen dituzten baloreak kudeatzeko eta administratzeko jardueraren barne hartu behar du, baliabide materialak eta giza baliabideak antolatuz. ETVE-en zerga-araubidearen ondorioz, zergak ordaintzetik salbuetsita daude Euskadin bizi ez diren partaidetako sozietateen dibidenduak eta sozietate horien partaidetzen salmentatik eratorritako errentak.

Sektoreen ikuspegitik, bereziki nabarmenak dira inbertsioaren gutzitza duen pisuagatik honako hauetan eginikoak:

- Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrikazioak EAEn egindako inbertsioaren % 57,9 hartzen du, eta Estatuan sektore horretan egindakoaren % 99.
- Motordun ibilgailuen eta garraioko beste material batzuen fabrikazioa: EAEn eginiko inbertsioaren % 19,7 eta Estatuan sektore horretan eginikoaren % 95,4.
- Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura EAEn egindako inbertsioaren % 11,1 eta Estatuak sektore horretan eginikoaren % 18,3 da.

Lurraldearen ikuspegitik, 2022. urtean, Euskadin egin den inbertsioaren % 79,3 Europako herrialderen batetik dator, batez ere EB14tik (% 66,2). Esparru geografiko horren barruan, nabarmentzekoa da Alemaniatik egindako inbertsioa: 3.217 milioi euro. Europatik kanpo, AEBk egindako inbertsioa nabarmendu behar da (1.095,8 milioi €).

II.2.8. KOADROA. INBERTSIO GORDINA* EAE-N ETA ESTATUAN EGINDAKOAREKIN GAINEKO PARTAIDETZA SEKTOREEN ARABERA (mila €)									
	EAE			Estatur 2022 b-b	EAEko banaketa	Estatur aren gaineko %	ALDAKUNTZA EAEn		
	2020	2021	2022 b-b				20-21 %	21-22 %	
A Nek. Abeltz. Basog. eta arrantza	0,0	0,0	0,0	68.712,2	0,0	0,0			
B. Erauzketa-industriak	0,0	0,0	0,0	869.749,1	0,0	0,0			
C. Elikagaiak, Edariak eta Tabakoa	100.075,9	632,1	1.363,4	933.764,8	0,0	0,1	-99,4	115,7	
C. Oihalen industria eta janzkien eraketarena	60,0	0,0	0,0	31.529,5	0,0	0,0	-100,0		
C. Larruaren eta oinetakoaren industria	0,0	0,0	0,0	608,0	0,0	0,0			
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu.	0,0	0,0	0,0	244.330,1	0,0	0,0			
C. Paperaren eta arte grafikoen industria	31.560,0	0,0	71.076,5	111.414,7	1,3	63,8			
C. Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	5,0	0,0	0,0			
C. Ind. kimikoak eta kautxuaren eta plastikoaren transf.	3,0	0,0	10.467,9	132.584,3	0,2	7,9			
C. Prod. farmaz. fabrik.	18.169,2	0,0	0,0	155.155,6	0,0	0,0			
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	160.438,4	376.324,6	25.913,6	322.081,9	0,5	8,0		-93,1	
C. Prod. Informatik., elektr. eta optikoak fabrik.	13.002,0	37.667,0	13.966,0	300.978,3	0,3	4,6		-62,9	
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	0,0	4.647,7	3.192.454,0	3.225.323,3	57,9	99,0			
C. BESE makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	4.697,4	2.492,9	5.500,7	2.548.305,8	0,1	0,2	-46,9	120,7	
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio-mat. batzuen fabrik.	0,0	242,4	1.085.820,9	1.138.718,7	19,7	95,4			
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	1.068,1	0,0	0,0			
C. Bestelako enbriaturak	2.403,0	27,2	0,0	957.891,1	0,0	0,0	-98,9	-100,0	
C. Makineria konpontzea eta instal.	0,0	0,0	3,0	7.224,8	0,0	0,0			
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	479.154,7	846.359,0	613.320,6	3.360.352,1	11,1	18,3	76,6	-27,5	
E. Ur edangarriaren hornidura. Saneam. Hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa.	0,0	0,0	12,8	92.374,0	0,0	0,0			
F. Eraikuntza	400,0	0,0	191.092,9	846.389,6	3,5	22,6	-100,0		
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu	32.018,8	211.164,7	212.432,2	2.070.433,4	3,9	10,3	559,5	0,6	

motordunen eta motorren konponketa.									
H. Garraioa eta biltegiatzea.	2.520,0	2.384,0	3.593,1	1.468.308,1	0,1	0,2	-5,4	50,7	
I. Ostalaritza	3,0	1.663,7	5,0	1.006.787,6	0,0	0,0		-99,7	
J. Informazioa eta Komunikazioak	10.346,0	10.792,3	1.539,2	5.297.353,5	0,0	0,0	4,3	-85,7	
K. Finantza- eta aseguru- arloko jarduerak	250,2	11,6	11.759,3	1.316.646,4	0,2	0,9	-95,4		
L. Higiezin jarduerak	29.108,8	15.636,9	174,7	2.216.018,3	0,0	0,0	-46,3	-98,9	
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	6.732,7	9.737,3	64.536,2	1.695.557,7	1,2	3,8	44,6	562,8	
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak	3.005,0	0,3	380,0	987.495,5	0,0	0,0	-100,0	126.566,7	
O. Administrazio Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	4.735,2	0,0	0,0			
P. Hezkuntza	0,0	4,5	0,0	174.316,4	0,0	0,0		-100,0	
Q. Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	8.777,0	13,0	10.151,8	339.022,3	0,2	3,0	-99,9	77.990,8	
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	165,8	1,5	2,4	2.250.817,5	0,0	0,0	-99,1	58,0	
S. Bestelako zerbitzuak	1.500,0	19.998,8	1,6	2.100,5	0,0	0,1		-100,0	
T. Etxebizitzetako jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
U. Lurraldetik kanpoko erakunde eta antolamenduen jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
Inbertsioa guztira	904.390,9	1.539.801,4	5.515.767,7	34.178.153,2	100,0	16,1	70,3	258,2	

(*) Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa eta geuk egina

II.2.9. KOADROA. EAE-REN INBERTSIO GORDINA* EREMUKA (INBERTSIOAREN AZKEN TITULARRAREN BIZILEKUKO HERRIALDEAREN ARABERA (milaka eurotan)

	2020		2021		2022	
	GUZTIRA	%, GUZTITIK	GUZTIRA	%, GUZTITIK	GUZTIRA	%, GUZTITIK
GUZTIRA	904.390,9	100,0	1.539.801,4	100,0	5.515.767,7	100,0
ELGA	882.540,5	97,6	1.533.856,2	99,6	5.475.282,2	99,3
EUROPA	760.163,7	84,1	1.533.764,3	99,6	4.373.002,5	79,3
EB14	724.060,0	80,1	1.309.909,7	85,1	3.653.101,9	66,2
EB27	724.559,9	80,1	1.510.012,7	98,1	3.653.525,4	66,2
IPAR AMERIKA	118.746,6	13,1	32,0	0,0	1.095.843,6	19,9
LATINOAMERIKA	19.291,6	2,1	5.259,7	0,3	36.552,7	0,7
AMERIKAKO GAINERAKOAK	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
ASIA ETA OZEANIA	6.189,0	0,7	745,5	0,0	10.367,9	0,2
AFRIKA	0,0	0,0	0,0	0,0	1,0	0,0
ZERGA-PARADISUAK	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

(*) Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa eta geuk egina

II.2.10. KOADROA. EB14-KO HERRIALDEEK ETA IPAR AMERIKAK EAE-N EGINIKO INBERTSIO GORDINA*

	EAE			ESTATUA	EAE-KO BANAKETA	ESTATUA REN GAINEKO %	ALDAKUNTZA % EAE	
	2020	2021	2022	2022	2022	2022	20-21	21-22
GUZTIRA	904.390,9	1.539.801,4	5.515.767,7	34.178.153,2	100,0	16,1	70,3	
EB14	724.060,0	1.309.909,7	3.653.101,9	13.070.536,4	66,2	27,9	80,9	
ALEMANIA	17.607,7	411.210,4	3.217.542,0	4.790.244,7	58,3	67,2		
AUSTRIA	5.294,9	0,0	1.425,5	687.520,4	0,0	0,2		
BELGIKA	92.184,4	405,0	3,0	373.014,6	0,0	0,0	-99,6	-99,3
DANIMARKA	0,0	0,9	0,0	26.782,0	0,0	0,0		
ESPAINIA	32.389,3	28.905,5	205.195,9	889.299,3	3,7	23,1	-10,8	
FINLANDIA	0,0	3,0	0,0	69.840,3	0,0	0,0		
FRANTZIA	548.950,0	12.103,6	163.052,9	3.409.603,7	3,0	4,8	-97,8	
GREZIA	0,0	0,0	0,0	37.959,8	0,0	0,0		
IRLANDA	0,0	0,0	0,0	92.023,6	0,0	0,0		
ITALIA	5,8	2.370,2	326,1	991.456,2	0,0	0,0		-86,2
LUXENBURGO	3.414,6	726,1	135,0	137.467,3	0,0	0,1	-78,7	-81,4
HERBEHEREAK	22.695,2	2,6	9.719,7	1.011.827,5	0,2	1,0		
PORTUGAL	403,1	14,0	9.740,8	214.345,6	0,2	4,5	-96,5	
SUEDIA	1.115,1	854.168,5	45.961,0	339.151,3	0,8	13,6		-94,6
IPAR AMERIKA	118.746,6	32,0	1.095.843,6	10.198.691,5	19,9	10,7	-100,0	
KANADA	0,0	0,0	12,8	745.777,7	0,0	0,0		
AEB	118.746,6	32,0	1.095.830,8	9.452.913,8	19,9	11,6		


(*) Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa eta geuk egina

2.4.2. Euskal inbertsioa atzerrian

EAEk atzerrian egindako inbertsioa % 71 jaitsi da 2021 eta 2022 artean, ETVEak kenduta, eta 965,4 milioi €-koa izan da 2022an. EAEk atzerrian eginiko inbertsioa estatuko osoaren % 3,3 izan zen 2022an. Madrilgo Erkidegoak egindako inbertsioa kenduta, % 15,1era iristen da. Hala, EAE laugarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean atzerrian egiten duen inbertsioagatik, Madrilen (22.845,7 milioi €), Galiziaren (2.329,7 milioi €) eta Asturiasen (1.953,5 milioi €) atzetik.

II.2.5 GRAFIKOA. EAE-K ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA*



* ETVE kenduta.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa eta geuk egina

II.2.11. KOADROA. ATZERRIAN EGINDAKO INBERTSIO GORDINA* AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERA (milaka eurotan)							
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 b-b
ERKIDEGO GUZTIAK	39.877.604,7	39.942.731,0	37.015.117,8	24.829.374,9	32.598.671,5	27.172.623,8	29.228.680,4
ANDALUZIA	140.765,6	144.192,1	74.777,7	380.377,1	44.762,1	50.982,0	40.725,2
ARAGOI	136.852,2	1.796,8	614.944,5	22.990,8	87.178,5	35.379,9	77.103,1
KANTABRIA	62.982,6	171.872,2	4.753.954,9	400.080,9	48.429,6	60.386,6	152.771,1
GAZTELA ETA LEON	269.150,9	134.423,1	97.519,5	884.854,5	104.766,2	102.510,1	35.162,6
GAZTELA-MANTXA	22.144,7	5.830,7	1.335,5	548,2	30.804,5	426,3	71.343,4
KATALUNIA	2.223.640,2	2.567.574,7	5.825.015,0	2.016.123,7	3.899.682,5	1.989.983,9	505.401,8
CEUTA ETA MELILLA							
MADRILGO ERKIDEGO	30.579.506,6	32.249.367,9	19.766.882,7	15.859.612,4	20.686.140,3	19.404.650,0	22.845.698,8
VALENTZIAKO ERKIDEGO	257.556,9	1.237.311,6	1.280.268,1	201.420,3	494.675,7	719.646,1	72.529,5
EXTREMADURA	4.153,9	0,0	0,0	0,0	6.641,5	5,0	
GALIZIA	1.481.564,0	664.209,2	1.771.943,3	2.313.470,2	1.960.064,0	197.292,1	2.329.729,5
BALEAR UHARTEAK	221.675,2	226.660,6	706.352,0	269.599,4	136.856,0	236.534,1	163.365,2
KANARIAK UHARTEAK	82.157,0	36.052,8	34.632,2	8.191,8	126.341,2	71.871,2	13.754,1
ERRIOXA	4.547,8	955,5	1.686,2	0,0	29.027,6	165,2	14,3
NAFARROA	20.972,9	108.926,4	90.079,3	14.770,1	6.231,8	20.044,8	660,8
EAE	3.385.273,2	1.809.804,9	1.509.952,5	1.231.422,2	3.539.908,1	3.333.993,2	965.431,0
ASTURIASKO PRINTZERRIA	981.965,7	563.221,7	452.890,0	1.189.220,1	1.367.625,8	945.576,8	1.953.517,9
MURTZIAKO ESKUALDEA	2.695,7	20.530,9	32.884,2	36.693,2	29.536,3	3.176,7	1.471,9

(*) Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.
Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa. Geuk egina

Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira:

- Finantza- eta aseguru-jarduerak: kanpoko herrialdeek EAEn eginiko inbertsioaren % 45 eta Estatuak sektore horretan atzerrian eginikoaren % 7,6 dira.
- Ibilgailu motordunen eta bestelako garraio-materialen fabrikazioa: EAEko kanpo-inbertsioaren % 34,1 eta Estatuak sektore horretan kanpoan egindakoaren % 93,2 da.
- Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura: EAEk egindako kanpoko inbertsioaren % 9,1 eta Estatuak atzerrian sektore horretan eginikoaren % 2,7 da.

Lurraldearen ikuspegitik, EAEko inbertsioa ELGAko herrialderen batera bideratzen da kasuen % 80,7n.

% 78,1 Europara (EB27-ra gutzitzaoren % 43,1 bideratzen da), % 2,2 Ipar Amerikara, % 7,8 Latinoamerikara, eta % 10,1 Asiara eta Ozeaniara.

II.2.12. KOADROA. EAE-REN INBERTSIO GORDINA* ATZERRIAN ETA ESTATUAK ATZERRIAN EGINDAKOAREN GAINEKO PARTAIDETZA SEKTOREKA (milaka €)								
	EAE			Estatua 2022 b-b	Banak. EAE	Estatu aren gaineko o %	ALDAKUNTZA EAEn	
	2020	2021	2022 b-b				20-21 %	21-22 %
A Nek. abeltz. basog. eta arrantza	0,0	0,0	0,0	114.766,7	0,0	0,0		
B. Erauzketa-industriak	0,0	6.913,2	0,0	4.166.432,8	0,0	0,0		
C. Elikagaiak, Edariak eta Tabakoa	1.929,7	15.064,1	10.786,2	208.972,7	1,1	5,2		-28,4
C. Oihalen industria eta janzkien eraketarena	0,0	0,0	0,0	518,9	0,0	0,0		
C. Larruaren eta oinetakoien industria	0,0	0,0	0,0	14,3	0,0	0,0		
C. Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu.	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
C. Paperaren eta arte grafikoen industria	254,0	0,0	0,0	34.331,1	0,0	0,0		

C. Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
C. Ind. kimikoak eta kautxuaren eta plastikoaren transf.	1.793,1	0,0	0,0	201.967,5	0,0	0,0			
C. Prod. farmaz. fabrik.	29,6	24.992,0	0,0	47.412,5	0,0	0,0			
C. Metalurgia eta produktu metalikoen fabrik.	171.015,1	203.687,9	17.125,9	22.589,0	1,8	75,8	19,1	-91,6	
C. Prod. informatik., elektr. eta optikoak fabrik.	0,0	0,0	0,0	5.545,5	0,0	0,0			
C. Material eta ekipamendu elektrikoaren fabrik.	5.582,2	30.212,8	0,0	0,0	0,0				
C. BEG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.	3.606,9	0,0	0,0	0,0	0,0				
C. Ibilgailu motordunen eta beste garraio-mat. batzuen fabrik.	820.758,0	53.685,4	329.554,6	353.775,0	34,1	93,2	-93,5		
C. Altzarien fabrik.	0,0	0,0	0,0	86.569,8	0,0	0,0			
C. Bestelako manufakturak	7.400,0	10.380,2	4.800,0	7.073.687,1	0,5	0,1	40,3	-53,8	
C. Makineria konpontzea eta instal.	187.548,0	24,8	75,0	4.686,1	0,0	1,6			
D. Energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura	2.131.407,8	2.881.943,5	88.101,2	3.311.266,4	9,1	2,7	35,2	-96,9	
E. Ur edangarriaren hornidura. Saneam. Hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	71,8	12.891,1	0,0	385.393,5	0,0	0,0			
F. Eraikuntza	8.474,4	10.616,6	1.928,5	2.617.335,3	0,2	0,1	25,3	-81,8	
G. Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa.	15.719,5	6.513,1	5.306,6	501.318,4	0,5	1,1	-58,6	-18,5	
H. Garraioa eta biltegiak.	247,0	376,0	20,0	1.366.854,9	0,0	0,0	52,2	-94,7	
I. Ostalaritza	2.601,6	4,9	5,1	141.687,5	0,0	0,0	-99,8	4,1	
J. Informazioa eta Komunikazioak	5.096,8	11.430,8	15.061,1	1.156.129,9	1,6	1,3			
K. Finantza- eta aseguru-erloto jarduerak	133.679,3	27.716,8	434.811,6	5.725.385,9	45,0	7,6	-79,3		
L. Higiezin jarduerak	16.471,0	0,0	400,0	1.058.456,4	0,0	0,0			
M. Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	26.222,2	37.518,3	57.435,4	500.882,6	5,9	11,5	43,1	53,1	
N. Jarduera administratiboak eta zerbitzu lagungarriak	0,0	8,3	0,0	80.315,3	0,0	0,0			
O. Administrazio Publikoa eta defentsa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
P. Hezkuntza	0,0	0,0	0,0	7.252,7	0,0	0,0			
Q. Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuetako jarduerak	0,0	0,0	19,9	42.510,1	0,0	0,0			
R. Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	0,0	13,5	0,0	11.047,7	0,0	0,0			
S. Bestelako zerbitzuak	0,0	0,0	0,0	1.574,9	0,0	0,0			
T. Etxebizitzetako jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
U. Lurraldetik kanpoko erakunde eta antolamenduen jarduerak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
Inbertsioa guztira	3.539.908,1	3.333.993,2	965.431,0	29.228.680,4	100,0	3,3	-5,8	-71,0	

(*) Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa eta geuk egina

II.2.13. KOADROA. EAE-K ATZERIAN EGINIKO INBERTSIOA*, EREMUKA (milaka eurotan)

	2020		2021		2022	
	GUZTIRA	%, GUZTITIK	GUZTIRA	%, GUZTITIK	GUZTIRA	%, GUZTITIK
GUZTIRA	3.539.908,1	100,0	3.333.993,2	100,0	965.431,0	100,0
ELGA	3.386.528,1	95,7	3.226.232,5	96,8	779.584,1	80,7
EUROPA	2.572.201,0	72,7	266.588,9	8,0	753.746,2	78,1
EB14	2.461.184,8	69,5	100.828,9	3,0	248.655,7	25,8
EB27	2.567.608,6	72,5	201.828,0	6,1	416.444,5	43,1
IPAR AMERIKA	4.326,2	0,1	2.683.166,3	80,5	20.796,0	2,2
LATINOAMERIKA	68.271,9	1,9	192.453,9	5,8	75.696,8	7,8
AMERIKAKO GAINERAKOAK	3.230,6	0,1	0,0	0,0	0,0	0,0
ASIA ETA OZEANIA	888.733,4	25,1	163.967,7	4,9	97.796,6	10,1
AFRIKA	3.145,0	0,1	27.816,4	0,8	17.395,4	1,8
ZERGA-PARADISUAK	3.230,6	0,1	0,0	0,0	739,4	0,1

(*) Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa eta geuk egina

II.2.14. KOADROA. EAE-K EB27-KO ETA IPAR AMERIKAN EGINIKO INBERTSIO GORDINA*, INBERTSIOAREN BEREHALAKO HERRIALDEAREN ARABERA

	EAE			ESTATUA	EAE-KO BANAKETA	ESTATUA REN GAINeko %	ALDAKUNTZA % EAE	
	2020	2021	2022 b-b	2022 b-b	2022	2022	20-21	21-22
GUZTIRA	3.539.908,1	3.333.993,2	965.431,0	29.228.680,4	100,0	3,3	-5,8	-71,0
EB27	2.567.608,6	201.828,0	416.444,5	13.045.108,0	43,1	3,2	-92,1	106,3
ALEMANIA	189.948,0	875,0	13.489,4	1.457.018,1	1,4	0,9	-99,5	
AUSTRIA	119.458,1	4.975,0	4.800,0	8.400,0	0,5	57,1	-95,8	-3,5
BELGIKA	7,3	0,0	0,0	84.223,6	0,0	0,0		
DANIMARKA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
ESPAINIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
FINLANDIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
FRANTZIA	87.945,6	4.199,9	69.590,3	292.524,4	7,2	23,8	-95,2	
GREZIA	0,0	0,0	0,0	1.783,5	0,0	0,0		
IRLANDA	5.000,0	1.364,3	0,0	24.133,0	0,0	0,0	-72,7	
ITALIA	131.559,8	0,0	0,0	117.373,9	0,0	0,0		
LUXENBURGO	1.164.106,2	22.124,5	8,5	6.109.277,5	0,0	0,0	-98,1	
HERBEHEREAK	0,0	783,0	0,0	4.229.741,0	0,0	0,0		
PORTUGAL	1.901,1	57.225,8	155.467,6	279.330,9	16,1	55,7		
SUEDIA	761.258,8	9.281,3	5.299,9	28.368,9	0,5	18,7	-98,8	-42,9
BULGARIA	0,0	0,0	0,0	370,7	0,0	0,0		
TXEKIA	800,0	0,0	0,0	61.875,3	0,0	0,0		
ZIPRE	0,0	0,0	0,0	5.413,5	0,0	0,0		
ESLOVAKIA	75.003,8	0,0	84.077,0	117.482,4	8,7	71,6		
ESLOVENIA	0,0	0,0	0,0	5.750,0	0,0	0,0		
ESTONIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
HUNGARIA	0,0	0,0	0,0	3.367,3	0,0	0,0		
LETONIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
LITUANIA	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0			
MALTA	2.316,9	0,0	0,0	66.005,6	0,0	0,0		
POLONIA	13.493,1	100.999,1	83.711,8	147.283,6	8,7	56,8		-17,1
ERRUMANIA	14.810,0	0,0	0,0	2.547,0	0,0	0,0		
KROAZIA	0,0	0,0	0,0	2.838,0	0,0	0,0		
IPAR AMERIKA	4.326,2	2.683.166,3	20.796,0	4.170.356,6	2,2	0,5		-99,2
KANADA	120,0	250,0	0,0	588.985,6	0,0	0,0		
ESTATU BATUAK	4.206,2	2.682.916,3	20.796,0	3.581.370,9	2,2	0,6		-99,2

(*) Inbertsio osoa ETVE gabe. b-b: behin-behineko datuak.

Iturria: Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. Industria, merkataritza eta turismo ministerioa. Geuk egina

2.5. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

2.5.1. Kontsumoko prezioak (2021eko oinarria)⁹


2022ko abenduko KPIaren urte arteko tasa % 5,4koa izan zen EAEn (% 5,7koa Estatuan), eta inflazioa moteldu egin zen urteko azken herenean; hala, unerik txarrenetan erregistratutako maximoetatik aldendu zen, non tasa % 10,5koa izan baitzen (uztailean). Urteko batezbestekoa % 8koa izan da, eta, Europakoa, % 8,4koa.

Urteko bigarren erdian, batez ere, erregaien eta berokuntzarako gasolioaren prezioaren bilakaerak azaltzen du moteltze hori, baita elektrizitatea aurreko urtean baino gutxiago garestitu izanak ere. Hala ere, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak % 15,1era igo ziren, inflazio orokorra baino ia hiru aldiz gehiago, eta arazo horrek Espainiako Gobernuak produktu jakin batzuen BEZa murriztera behartu zuen 2023ko urtarrilaren 1az geroztik.

⁹ 2021eko oinarria duen lehen KPIa 2022ko urtarrilean argitaratu da.

Era berean, azpiko inflazioak¹⁰, prestatutako elikagaien prezio altuek bultzatuta, igotzen jarraitu zuen, energia-prezioen pixkanakako moteltzea ez baitzen artean gainerako produktueta iritsi. Zehazki, azpiko inflazioa % 6,7koa izan zen, hau da, inflazio orokorra baino 1,3 puntu handiagoa, zeina datuak argitaratzen direnetik izan den mailarik altuena baita.

Bestalde, hondar-inflazioa % 0,3 igo zen.



II.2.15. TAULA. KONTSUMORAKO PREZIOEN INDIZEA TALDE NAGUSIEN ARABERA 2021EKO OINARRIA ALDAKUNTZA-TASAK.

	EAE			ESTATUA		
	2021	2022		2021	2022	
	Abendua	Abendua	Urteko batezbestekoa	Abendua	Abendua	Urteko batezbestekoa
00 INDIZE OROKORRA	6,4	5,4	8,0	6,5	5,7	8,4
1. ELIKAGAIK ETA ALKOHOLIK GABEKO EDARIK	4,7	15,1	11,2	5,0	15,7	11,6
2. EDARI ALKOHOLDUNAK ETA TABAKOA	1,7	6,9	4,3	1,6	7,2	3,9
3. JANTZIAK ETA OINETAKOAK	1,1	1,9	2,8	1,0	1,8	2,7
4. ETXEBIZITZA, URA, ELEKTRIZITATEA, GASA ETA BESTE ERREGAI BATZUK	24,1	-5,3	15,8	23,3	-4,5	15,5
5. ALTZARIAK, ETXEKO ARTIKULUAK ETA ETXEKO MANTENTZE-LANETARAKO ARTIKULUAK	3,2	8,6	6,6	2,1	8,5	6,3
6. OSASUNA	1,3	0,8	0,6	0,9	1,0	1,1
7. GARRAIOA	10,2	3,0	11,2	10,9	3,3	12,1
8. KOMUNIKAZIOAK	-0,3	-1,8	-1,2	-0,3	-1,9	-1,3
9. AISIALDIA ETA KULTURA	1,5	4,3	3,2	1,7	3,8	2,8
10. IRAKASKUNTZA	1,6	1,9	1,6	1,2	1,4	1,2
11. JATETXEAK ETA HOTELAK	3,0	6,3	6,0	3,1	7,8	6,4
12. BESTELAKO ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK	2,3	4,6	3,8	1,5	4,5	3,5

Iturriak: EIN. Geuk egina

¹⁰ Azpiko inflazioa kontsumo-prezioen aldakortasuna guztizko inflazioa baino modu zehatzagoan erakusten duen adierazlea da. Produktu energetikoei eta landu gabeko elikagaiei (frutak, barazkiak...) dagokien zatia kenduta kalkulatzen da, zeinek hondar-inflazioa osatzen baitute. Hortaz, prezioen joera erakusteko adierazle egokiagoa da.

II.2.16 TAULA. KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKAPENA. 2021EKO OINARRIA
URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. ABENDUA

	2018	2019	2020	2021	2022
INFLAZIO OSOA (% 100)	1,0	1,2	-0,3	6,4	5,4
AZPIKO INFLAZIOA (% 82,6)	0,7	1,3	0,2	2,2	6,7
- LANDUTAKO ELIKAGAIEN KPIa (% 14,1)	-0,1	1,3	1,0	3,4	16,2
- INDUSTRIAKO ONDASUNEN KPIa (% 26,6)	-0,1	0,5	0,1	2,0	5,7
- ZERBITZUEN KPIa (% 41,9)	1,5	1,8	0,0	1,9	3,5
HONDAR-INFLAZIOA (% 17,4)	2,1	0,5	-2,3	23,5	0,3
- LANDU GABEKO ELIKAGAIEN KPI (% 6,8)	2,1	2,8	2,6	6,1	10,8
- ENERGIAREN KPIa (% 10,6)	2,1	-1,1	-5,7	40,0	-8,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA, Abagunea klik batean

Bestalde, EBko Kontsumorako Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) 2022ko abenduko datuek ¹¹ Estatu osorako erakusten dutenez, % 5,5eko hazkundera gertatu zen 2021eko abenduarekin alderatuta. EB27an, bestalde, % 10,4ko igoera izan zen prezioetan. Eurogunean % 9,2ko hazkundera izan zen, eta, beraz, gure Erkidegoak EDBaren aldean duen diferentziala -3,8 puntukoa da.

II.2.17. KOADROA. KPIH. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.
2015EKO OINARRIA (2015=100)

	2020KO ABE	2021EKO ABE	2022KO ABE
EB27	0,2	5,3	10,4
EUROGUNEA	-0,3	5,1	9,2
ESPAINIA	-0,6	6,6	5,5

Iturria: Eurostat. Harmonised Index of Consumer Prices (HICP) - monthly data. Geuk egina

Produktibitatea EBrekin, Estatuarekin eta EBko estatuarekin konparatzeko azterketen eta KPIHren gaineko informazio gehiago izateko, jo beza irakurleak kapitulu honetara: "II.1. Kapitulu. Kanpoko Ingurune Ekonomikoa".

2.5.2. Errentaren banaketa funtzionala, laneko kostuak eta produktibitatea

Gure ekonomian sortutako balio erantsia, hasieran, balio hori sortzeko lagungarriak izan diren ekoizpen-faktoreen artean banatzen da, honela: soldatapeko lanaren ordainsaria, soldatapekoa ez den lanerako ustiapeneko soberakin garbia, kapital finkoko kontsumoa urtean zehar ekoizpen-ekipamenduan izandako balio-galeragatik eta, azkenik, herri-administrazioari dagozkion ekoizpenarekin eta inportazioarekin loturiko zergak (diru-laguntzenak, garbiak). Bigarren mailan, errenta hori pertsonen eta familien artean banatzen da, ekoizpen-faktore horien eta jasotako errentetan duten jabetzaren partaidetzaren arabera.

Produktuaren banaketa funtzionalari dagokionez, EUSTATen "Kontu Ekonomikoetan" eskuragarri dauden azken datuek, 2021. urteari buruzkoek, agerian uzten dute erreferentzia gisa prezio arrunteko BPGaren % 8,6ko hazkundera hartuta (behin-behineko datuak) zerga garbiak % 16 igo zirela, ustiapeneko soberakin garbia % 16,3, kapital finkoaren kontsumoa % 3,8 eta soldatapeko pertsonen errenta % 3,5.

Estatuko errenten bilakaera aztertuz gero (2021ean BPGak gora egin zuen, prezio arruntetan, % 7,9), ikusten da aurten diru-laguntzen zerga garbiak (BPGaren gaineko proportzioa EAEkoa baino pixka bat txikiagoa dutenak: % 10,4) % 23,2 hazi direla, ustiapeneko soberakinaren eta errenta mistoaren batura % 7,8, eta soldata-errentak % 5,3.

¹¹ Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuak (KPIH) EBN izandako inflazioaren neurri komun bat ematen du, eta horrek nazioartean konparazioak egiteko aukera ematen du. Europar Batasuneko (EB) estatu kide bakoitzeko Kontsumoko Prezioen Indize bakoitzaren alderdi metodologiko garrantzitsuenak homogeneizatzearen emaitza da, alderagarriak izan daitezzen.

II.2.18. KOADROA. ERRENTAREN BANAKETA FUNTZIONALA EAE-N ETA ESTATUAN 2015EKO OINARRIA										
	Milioika eurotan				Bertikalaren %			urteko aldakuntzaren %		
	2018	2019	2020	2021 b-b	2019	2020	2021 b-b	18/19	19/20	20/21
EAE										
1. SOLDATAPEKOEN ORDAINSARIA	36.095	37.434	35.749	37.011	47,1	49,8	47,4	3,7	-4,5	3,5
2. USTIAPENAREN SOBERAKIN GARBIA	24.869	25.797	21.474	24.973	32,4	29,9	32,0	3,7	-16,8	16,3
3. KAPITAL FINKOAREN KONTSUMOA	7.764	7.961	7.611	7.904	10,0	10,6	10,1	2,5	-4,4	3,8
4. DIRU-LAGUNTZEN ZERGA GARBIAK	8.160	8.345	6.994	8.116	10,5	9,7	10,4	2,3	-16,2	16,0
BPGa MERKATUKO PREZIOETAN	76.888	79.537	71.829	78.004	100,0	100,0	100,0	3,4	-9,7	8,6
ESTATUA										
1. SOLDATAPEKOEN ORDAINSARIA	545.718	579.402	555.675	584.966	46,5	49,7	48,5	6,2	-4,1	5,3
2. + 3. USTIAPEN-SOBERAKIN GORDINA GEHIENEKO ERRENTA GORDINA*	531.960	538.532	460.376	496.252	43,2	41,2	41,1	1,2	-14,5	7,8
4. DIRU-LAGUNTZEN ZERGA GARBIAK	126.181	127.579	101.938	125.624	10,2	9,1	10,4	1,1	-20,1	23,2
BPGa MERKATUKO PREZIOETAN	1.203.859	1.245.513	1.117.989	1.206.842	100,0	100,0	100,0	3,5	-10,2	7,9

bb: behin-behinekoa
 Iturria: EUSTAT, "Kontu Ekonomikoak", eta EIN, "Espainiako Kontabilitate Nazionala" eta geuk egina
 * Ustiapeneko Soberakin Gordina edo Errenta Misto Gordina Soberakin garbiaren gehi kapital finkoaren kontsumoaren batura da. EAERen kasuan, EUSTATEk bi aldagaiak ematen ditu, baina ez EINek Estatuarentzat.

Lan-kostuei dagokienez, EINren "Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. LKHI" datuek¹² adierazten dute EAEn % 5,4 egin zuela gora enpresen laneko kostuak¹³ 2022ko laugarren hiruhilekoan, 2021eko epealdi berarekin alderatuta (Estatuan % 4,2 handitu zen), eta 3.564,8 eurora iritsi zela langileko eta hileko, hots, 568,2 euro gehiago Estatuan baino.

II.2.19. KOADROA. LANEKO KOSTUEN BILAKAERA. KOSTUA LANGILEKO ETA HILEKO (LAUGARREN HIRUHILEKOAK)		
	EAE	ESTATUA
2018	3.211,0	2.692,5
2019	3.258,0	2.755,2
2020	3.273,2	2.752,3
2021	3.383,0	2.874,6
2022	3.564,8	2.996,6
2021-22 %	5,4	4,2

Iturria: EIN, Laneko Kostuaren Hiruhileko Inkesta. Geuk egina

Azkenik, laneko itxurazko produktibitatea¹⁴, BPGaren bilakaeraren (Eustaten HKE-en arabera, 2022an % 4,4 hazi zen) eta lanaldi osoko lanpostu baliokideetako enpleguaren (% 3,1 hazi zen) arteko erlazio gisa kalkulatu, hazi egin zen, ekoizpenak enpleguak baino gehiago egin baitzuen gora, % 1,3 kopuru errealean 2022an¹⁵. Hazkunde horren arrazoia da produktibitatea handitu egin dela, batez ere industria-sektorean (+% 3). Eraikuntzaren sektorean % 0,3 hazi da, eta zerbitzuenean % 1.

II.2.20. KOADROA. LANEKO ITXURAZKO PRODUKTIBITATEAREN BILAKAERA EAEen* (BOLUMEN KATEATUA)				
	2019	2020	2021	2022*
PRIMARIOA	8,7	-14,4	25,8	1,6
INDUSTRIA	0,6	-3,8	0,7	3,0
ERAIKUNTZA	-1,7	-5,7	-1,7	0,3
ZERBITZUAK	0,9	-2,5	-0,4	1,0
GUZTIRA	0,7	-3,4	0,0	1,3

Iturria: EUSTATen Hiruhileko Ekonomia Kontuak eta geuk egina. Geuk egina
 (*) Behin-behineko datuak.

¹² Inkesta hau oinarri hartuta, Laneko Kostuaren Indize Harmonizatua lantzen da, hain zuzen ere EB osorako laneko kostuen neurri alderagarria.

¹³ Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeen enplegatzaile-jarduerak eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak izan ezik).

¹⁴ Produktibitate kontzeptua ekoizpenaren eta ekoizpena lortzeko erabilitako baliabideen arteko erlazioan datza, eta garrantzitsua da ekonomiaren lehiakortasuna neurtzeko. Kontzeptu erraza da, baina hura kalkulatzeko zaila da, askotariko faktoreek baitute eragina (landunen gaitasuna, kapitaleko ondasunen zuzkidura, baliabideen erabilera eraginkorra eta beste faktore batzuekin uztartuta erabiltzea, hala nola erakundeen ingurukoak, legearen ingurukoak, etab.). Horregatik, hurbilketara jotzen da lanaren itxurazko produktibitatearen kontzeptua erabiliz, zeina hainbat ikuspegitatik neurtzen baita.

¹⁵ Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatu.

2.6. ERRENTA PERTSONALA, SEXUAREN ETA ERRENTA-SEGMENTUEN ARABERA. 2020KO DATUAK

EUSTATen *Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistikaren* azken datuen arabera, EAEn bizi den 18 urteko edo gehiagoko biztanleriaren batez besteko errenta pertsonala (guztizko errenta) % 0,9 murriztu da 2019 eta 2020 artean, eta 22.343 €-koa izan da. % 57,3 lanaren errentetatik dator, 12.806 € batez beste (-% 5,6 aurreko urtearekin alderatuta); % 30,8 gizarte-transferentzia edo prestazioetatik¹⁶, 6.889 € batez beste (+% 14,2); % 7,4 kapital higiezin zein higigarriaren errentetatik (1.659 €); eta % 4,4 ekonomia-jardueren errentetatik (989 €).


Kontuan izan behar dugu 2020. urtea Covid-19ak eragindako pandemiaren lehen urtea izan zela. Errenta osoa, esan bezala, txikia da, eta hori osagai guztietara hedatu da, transferentziengatik errentara izan ezik, hark gora egin baitu.

II.2.21. KOADROA. EAE-KO BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONALA, ERRENTA-MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ETA SEXUAREN ARABERA (EUROAK)

	2017	2018	2019	2020							ALD. 2019-20
	GUZTIRA			GUZTIRA	BERTIKALAREN %	SEXUA		LUR. HIST.			
						GIZONAK	EMAKUMEAK	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	
ERRENTA, GUZTIRA	21.083	21.458	22.548	22.343	100,0	27.422	17.667	21.516	21.853	23.512	-0,9
LANEKO ERRENTA	12.681	12.966	13.563	12.806	57,3	15.823	10.028	12.591	12.731	13.025	-5,6
KAPITAL HIGIGARRIAREN ERRENTA	1.290	1.253	1.396	1.180	5,3	1.501	884	968	1.111	1.389	-15,5
KAPITAL HIGIEZINEN ERRENTA	454	464	501	479	2,1	445	510	444	438	562	-4,4
JARDUERA EKONOMIKOEN ERRENTA	995	1.029	1.056	989	4,4	1.356	651	876	986	1.046	-6,3
TRANSFERENTZIAK	5.662	5.747	6.033	6.889	30,8	8.296	5.593	6.637	6.588	7.490	14,2
ERRENTA ERABILGARRIA	17.615	17.860	18.768	18.699	83,7	22.751	14.969	17.969	18.345	19.606	-0,4

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika. Geuk egina

GRÁFICO II.2.7. EVOLUCIÓN DE LA RENTA PERSONAL MEDIA EN LA CAPV DISTINGUIENDO POR TIPO DE RENTA. EUROS



Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika. Geuk egina

¹⁶ Pentsioak eta hartzeko pasiboak, langabezia-prestazio edo -subsidiok, ekintza terroristen ziozko prestazio publikoak, giza immunoeskasiaren birusak erasandakoek jasotako laguntzak eta ezintasun iraunkorren ziozko prestazioak eta Gizarte Segurantzaren ardurapeko seme-alaba bakoitzeko prestazioak.

Sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko banaketa desberdina da, eta agerian geratzen da dagoen genero-aldea. Hala, gizonek, batez beste (guztira), 27.422 €-ko errenta dute. Emakumeek, berriz, 17.667 €-koa batez beste, hots, gizonen errenta emakumeena baino 9.755 euro handiagoa da. EUSTATen arabera, alderik handiena 70 eta 74 urte bitarteko adin-tartean dago; adin-tarte horretan, gizonen batez besteko errenta emakumeena baino 16.000 € handiagoa da. Alde nabarmenak dauden arren, 2020an 395 € gutxiago dira aurreko urtearekin alderatuta. Aldi horretan, laneko errentak gehiago jaitsi dira gizonen artean (-1.053 €) emakumeen artean baino (-482 €).

Bestalde, batez besteko errenta pertsonal erabilgarria, errenta osoa ken errentaren gaineko zerga eta langileen konturako gizarte-kotizazioak eginda kalkulatu, 18.699 € da, hau da, guztizko errentaren % 83,7.


Aldeak ikusten dira lurraldeen artean. Hala, errenta pertsonala nahiz errenta pertsonal eskuragarria, zergen ondoren, handiagoak dira Gipuzkoan.

- Errenta pertsonala: Gipuzkoan 23.512 €, Bizkaian 21.853 € eta Araban 21.516 €.
- Errenta pertsonal erabilgarria: Gipuzkoan 19.606 €, Bizkaian 18.345 € eta Araban 17.969 €.

Errenta (errenta osoa) biztanleriaren artean banatzeari dagokionez, 1,5 milioi baino gehiago dira errenta-motaren bat jasotzen duten 18 urteko eta gehiagoko pertsonak, hau da, % 85,4, eta adin-talde horietako biztanleriaren % 14,6 ez du inolako diru-sarrerarik izan 2020an. Gainera, 18 urteko eta gehiagoko biztanleria egoiliarren % 59,5ek baino gehiagok EAEko batezbestekoa (22.343 €) baino errenta pertsonal txikiagoa du, baina kontuan izan behar da talde horretan sartuta daudela 2020an errentarik jaso ez duten pertsonak (% 13,5); beste muturrean, biztanleria horren % 10en errenta batezbestekoaren ia bikoitza da, hau da, 44.958 € baino gehiago.

Aldi berean, biztanleen % 37,2k 12.000 eurotik beherako errenta pertsonala du, eta % 43,8k 15.000 baino gutxiagokoa (kasu bietan barne hartzen da errentarik ez dutenen % 14,6).

Mediana, biztanleria bi zati berdinetan banatzen duen errenta zein den ezartzen duen adierazlea, 17.811 €-koa da; hau da, 2020an, adin nagusiko biztanleriaren erdiak urteko 17.811 €-tik gorako batez besteko errenta pertsonala du, eta beste erdiak, berriz, kopuru horretatik beherako errenta.



Ondoko taulan ikusten denez, batezbestekoa baino errenta txikiagoa duten deziletan (2-5 dezilak) emakumeen ratioa gizonena baino handiagoa da: 2. dezilean, % 66,1 emakumeena, eta % 33,9 gizonena. Bestalde, errenta-dezil altuenean, emakumeen ratioa % 36,2 da, eta, gizonena, % 63,8.

II.2.22. KOADROA. EAE-KO 18 URTE ETA GEHIAGOKOEN ERRENTA PERTSONALEKO 9 DEZILAREN ARABERA, SEXUAREN ARABERA BANATUTA (ehunekoak) 2020

	EHUNEKO BERTIKALAK			EHUNEKO HORIZONTALAK		
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
GUZTIRA	100	100	100	100	47,9	52,1
2 DEZILA	20	14,1	25,4	100	33,9	66,1
3 DEZILA	10	7,4	12,4	100	35,6	64,5
4 DEZILA	10	7,2	12,6	100	34,6	65,4
5 DEZILA	10	8,8	11,1	100	42	58
6 DEZILA	10	10,8	9,3	100	51,5	48,5
7 DEZILA	10	12,4	7,8	100	59,4	40,6
8 DEZILA	10	12,9	7,3	100	61,9	38,1
9 DEZILA	10	13,1	7,1	100	62,8	37,2
10 DEZILA	10	13,3	6,9	100	63,8	36,2

Iturria: EUSTAT. Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika. Geuk egina

ITURRIAK

1. **ESPAINIAKO BANKUA.** Aldizkari estatistikoa. 2022.
2. **EUROSTAT.** Datu-basea 2022.
3. **EUROSTAT.** News release euroindicators.
4. **EUSTAT.** Hiruhileko Ekonomia Kontuak. 2022.
5. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2021 (n-2 urtekoa).
6. **EUSTAT.** Kanpoko Merkataritzako Estatistika-ECOMEX. 2022.
7. **EUSTAT.** EAEko Errenta pertsonalaren eta familiakoaren estatistika. 2020.
8. **EUSKO JAURLARITZA.** Ogasun eta Ekonomia Saila. Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Abagunea klik batean. 2022ko urtarrileko eta martxoko buletinak
9. **EIN.** Espainiako Urteko Nazio Kontabilitatea. 2021 (n-2 urtekoa).
10. **EIN.** Espainiako Hiruhileko Nazio Kontabilitatea. 2022.
11. **EIN.** Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. 2022.
12. **EIN.** Kontsumoko Prezioen Indizea. 2022.
13. **INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMO ministerioa.** Kanpoko Inbertsioen Erregistroa. 2022.

3. SEKTORE PRODUKTIBOAK

II. EAEko ekonomia kapituluko hirugarren atal hau sei puntutan banatzen da. Lehenengoan, enpresen Egitura eta Demografia aztertuko da, eta horri esker, informazioa lortu ahal izango da enpresetatik, jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik. Bigarrenak EAEko egitura produktiboa aurkezten du. Hirugarrenak lehen sektorearen magnitude batzuk biltzen ditu. Laugarrenean, sakon aztertuko da industriaren sektorea, eta horretarako, Kontu Ekonomikoez gain, koiunturako beste adierazle batzuk erabiliko dira hala nola Industri Produkzioaren Indizea (IPI), Industri Prezioen Indizea (IPRI) eta EUSTATen Industria Estatistikako hainbat magnitude. Bosgarrena eraikuntzaren sektorearen azterketa da, honako hauen bidez: Kontu Ekonomikoak, Eraikuntzaren Koiuntura Indizea (EKI) eta Eraikuntzako Kostuen Indizea (EKOI). Eta, azkenik, seigarrenak zerbitzuen sektorearen analisia jasotzen du, eta berariazko analisiak egiten ditu merkataritzarako, ostalaritzarako eta turismorako eta finantza-sektorerako.

Merkataritza-sektorearen kasu zehatzean, Txikizkako Merkataritza Indizearen (TMI) eta Azalera handiko eta elikadura-kateetako merkataritza-indizearen bilakaera aztertzen da. Ostalaritzari eta turismoari dagokienez, EUSTATen establezimendu turistiko hartzaileen inkestako adierazle batzuk aztertu dira. Eta, amaitzeko, finantza-sektorearen analisia hainbat adierazleren bidez egiten da, hala nola banku zentralen esku-hartze motak, interes-tasak, kredituak eta hipotekak, gordailuak eta burtsa-merkatuaren ikuspegia.

3.1. ENPRESA DEMOGRAFIA ETA EGITURA

3.1.1. EAEko enpresa egitura

EUSTATen “*Jarduera Ekonomikoen Direktorioak (JEGID)*” establezimendu eta enpresa guztien informazioa biltzen du, EAEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitateak diren aldetik; jarduera ekonomikoei buruzko oinarrizko informazio estrukturala ematen du, eta erreferentzia da sektoreko zentsuak eta inkestak egiteko; gainera, Erkidegoko establezimenduetako langileei buruzko azterketa ere ahalbidetzen du. Gaur egun, ez ditu biltzen etxeko langileei lana ematen dieten familien jarduerak, ezta lurraldez kanpoko erakundeak ere.

2022ko urtarrilaren 1ean, JEGIDen datuen arabera, EAEn 151.088 enpresa¹⁷ zeuden jardunean, guztira 911.656 langile, halako moldez non batez besteko tamaina 6,03 enplegukoa den enpresako. 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era bitartean, enpresen kopurua % 1 jaitsi da (1.466 enpresa gutxiago). Enpresa horietan erregistratutako langileen kopuruak aldakuntza positiboa izan du, % 0,2.

50 enplegu edo gehiagoko enpresen ratioak egonkor iraun du guztizkoaren % 1,3an, hau da, 2.018 enpresak 378.371 pertsonari ematen diete enplegua, hau da, enplegu osoaren % 41,5. Aitzitik, 112.744 enpresa, guztien % 74,6, ez da iristen 3 lanpostura eta enplegu osoaren % 16,1 baino ez dute hartzen.

¹⁷ Enpresa: establezimenduen jarduerari legezko euskarria ematen dien unitate juridikoa, hau da, beregaineko lege-nortasuna duen edozein elkarte, erakunde, organismo, pertsona fisiko edo edozein erakunde publiko edo pribatu, zeinaren ardurapean eta zuzendaritzapean jarduerak egiten baitira 2012az geroztik, EUSTATen estatistikak lehen sektoreko enpresak barne hartzen ditu.


II.3.1 KOADROA. EAEko ENPRESAK*, SOZIJATE EGOITZAREN ETA ENPLEGUAREN ARABERA								
	2018/01/01	2019/01/01	2020/01/01	2021/01/01	2022/01/01	19-20 (%)	20-21 (%)	21-22 (%)
ENPRESAK GUZTIRA (EAE ETA ESTATUA)	156.528	157.358	153.971	152.554	151.088	-2,2	-0,9	-1,0
EGOITZA EAE-N	152.637	153.267	149.720	148.324	146.701	-2,3	-0,9	-1,1
--ARABA	21.204	21.596	21.279	20.858	20.725	-1,5	-2,0	-0,6
--BIZKAIA	79.118	79.454	77.770	77.151	76.050	-2,1	-0,8	-1,4
--GIPUZKOA	52.315	52.217	50.671	50.315	49.926	-3,0	-0,7	-0,8
EGOITZA ESTATUKO GAINERAKOAN	3.891	4.091	4.251	4.230	4.387	3,9	-0,5	3,7
EGOITZA EAEn (%)	97,5	97,4	97,2	97,2	97,1			
EGOITZA ESTATUKO GAINERAKOAN (%)	2,5	2,6	2,8	14,1	14,1			
ENPLEGUA GUZTIRA	889.853	911.267	921.525	909.442	911.656	1,1	-1,3	0,2
BATEZ BESTEKO NEURRIA	5,68	5,79	5,99	5,96	6,03			

* Salbetsita daude etxeetako jarduerak, etxeko langileen enplegatzaile gisa eta norberaren erabilerarako ondasun eta zerbitzuen ekoizle gisa, eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak.
Iturria: EUSTAT. JEGID eta geuk egina

II.3.2 KOADROA. EAEKO ENPRESEN EGITURA, ENPLEGUAREN ARABERA										
	2021/01/01				2022/01/01				2021-22 ALDAKUNTZA	
	ENPRESAK (A)		ENPLEGUA (B)		ENPRESAK (A)		ENPLEGUA (B)		Enpresak	Enplegua
	k	%	k	%	k	%	k	%		
GUZTIRA	152.554	100	909.442	100	151.088	100	911.656	100	-1,0	0,2
=<2	114.324	74,9	137.456	15,1	112.744	74,6	147.159	16,1	-1,4	7,1
3-5	19.498	12,8	71.835	7,9	19.494	12,9	84.935	9,3	0,0	18,2
6-9	7.605	5,0	54.398	6,0	7.624	5,0	64.703	7,1	0,2	18,9
10-14	3.612	2,4	42.114	4,6	3.654	2,4	53.485	5,9	1,2	27,0
15-19	1.850	1,2	31.001	3,4	1.934	1,3	41.029	4,5	4,5	32,3
20-49	3.667	2,4	109.816	12,1	3.620	2,4	141.974	15,6	-1,3	29,3
50-99	1.074	0,7	74.731	8,2	1.088	0,7	103.274	11,3	1,3	38,2
100-249	629	0,4	97.697	10,7	631	0,4	119.156	13,1	0,3	22,0
250-499	168	0,1	57.833	6,4	171	0,1	58.902	6,5	1,8	1,8
>= 500	127	0,1	232.561	25,6	128	0,1	97.039	10,6	0,8	-58,3


Iturria: EUSTAT. JEGID.

II.3.1 GRAFIKOA. ENPRESEN BANAKETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA, 2022



Iturria: EUSTAT

II.3.2 GRAFIKOA. ENPLEGUAREN BANAKETA ENPRESEN TAMAINAREN ARABERA, 2022



Iturria: EUSTAT

II.3.3 KOADROAK erakusten duen bezala, EB27-n enpresa-sarearen batez besteko tamaina 4,8 enplegukoa da enpresa bakoitzeko (2020ko datuak), EAEn erregistratutakoa (6 enplegu) baino zertxobait txikiagoa. Batez besteko horien gainera daude Alemania (11,3 lanpostu), Luxenburgo (8,4), Danimarka (7,5), Austria (6,9) eta Kroazia (6,1).

Enpresa gehien dituzten jardura ekonomikoak (II.3.4 KOADROA) honako hauek dira: handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (enpresa guztien % 19,9, % 2,2ko murrizketarekin); jardura profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (enpresen % 13,8, % 1eko jaitzierarekin) eta eraikuntza (% 12,9, % 1,1eko jaitzierarekin). Bestalde, enplegu bolumen handiena biltzen duten jardura ekonomikoak honako hauek dira: manufaktura-industria (% 18,9, % 0,1eko jaitzierarekin), handizkako eta txikizkako merkataritza; motordun ibilgailuen eta motozikleten konponketa (% 14, % 0,2ko jaitzierarekin) eta osasun arloko jarduerak eta gizarte-zerbitzuak (% 11,1, % 5,8ko hazkundearekin).

Enpresako batez besteko tamaina, lehen ere aipatu dugun moduan, 6 enplegukoa da. Administrazio publikoa eta defentsa eta gizarte segurantzaren alde batera utzita (177,9 enplegu), enpresako batez besteko tamaina handiena ageri duten sektoreak hauek dira: Ur hornidura; saneamenduko, hondakinak kudeatzeko eta kutsadura garbitzeko jarduerak (22,5); manufaktura-industria (17,3) eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura (16,5).

Nortasun juridikoari¹⁸ dagokionez eta enpresa txikienak alde batera utzita (titularra pertsona fisikoa dutenak, batez beste 1,4 lagun enpresako), batez besteko tamaina 12,6 lagunekoa da. Sozietate anonimoek 42,8 pertsonako plantilla dute batez beste, eta kooperatibek 29,2koa.

"Pertsona fisikoen" estaldura juridikoarekin EAEko enpresa-jardueraren % 58,9 egiten da, baina enpleguaren % 13,8 baino ez da biltzen. Horrenbestez, "pertsona juridikoen" estaldura juridikopean egiten den enpresa jardura % 41,1ekoa da, eta enpresa horiek enpleguaren % 86,2 biltzen dute.

Pertsona fisikoak kontuan hartzen ez badira, enpresa-jardueraren % 75,7 sozietate anonimoen eta erantzukizun mugatuko sozietateen artean banatzen da: % 7,6 sozietate anonimoaren forma juridikoarekin (enpleguaren % 25,8) eta % 68,1 erantzukizun mugatuko sozietatearen forma juridikoarekin (enpleguaren % 39,4). Kooperatiba-sozietateek, bestalde, enpresen % 3 eta enpleguaren % 6,9 biltzen dituzte.

II.3.3 KOADROA. ENPRESEN BATEZ BESTEKO TAMAINA HANDIENAKO					
EBko ESTATUAK					
	2016	2017	2018	2019	2020
ALEMANIA	10,4	10,6	11,6	11,5	11,3
LUXENBURGO	8,2	8,2	8,3	8,4	8,4
DANIMARKA	7,6	7,6	7,8	7,6	7,5
AUSTRIA	6,7	6,9	7,0	7,2	6,9
KROAZIA	6,8	6,9	6,6	6,1	6,1
BULGARIA	5,6	5,7	5,7	5,8	5,6
LETONIA	5,5	5,6	5,8	5,7	5,5
ERRUMANIA	5,5	5,5	5,4	5,5	5,1
FINLANDIA	5,1	5,0	5,1	5,1	4,9
EB27	5,0	5,0	5,1	5,1	4,8
POLONIA	4,5	4,4	4,9	4,9	4,7
Iturria: EUROSTAT eta geuk egina					

¹⁸ Titularren edo enpresaren izaera juridikoa (IFK, IFZ, NAN), kategorian hauen arabera: pertsona fisikoak, sozietate anonimoak, erantzukizun mugatuko sozietateak, beste sozietate eta elkarte batzuk (ohiko elkarte kolektiboak, elkarte komanditarioak, elkarteak, gizarte zibila eta zehaztu gabeko beste sozietate mota batzuk), ondasun-erkidegoak, sozietate kooperatiboak eta beste forma juridiko batzuk (tokiko korporazioak, erakunde autonomoak edo antzekoak, erlijio-kongregazio edo -erakundeak eta estatuko eta autonomia-erkidegoetako organoak). EUSTAT (Metodologia, Definizioak)

II.3.4 KOADROA. EAE-KO ENPRESA ETA ENPLEGU KOPURUAREN EBOLUZIOA, JARDUERA ADARRAREN ETA NORTASUN JURIDIKOAREN ARABERA

	ENPRESAK				ENPLEGUA				ENPLEGUA, BATEZ BESTE	
	2021/01/01	2022/01/01	PISUA	21-22 ALD. (%)	2021/01/01	2022/01/01	PISUA	21-22 VAR. (%)	2021/01/01	2022/01/01
GUZTIRA	152.554	151.088	100,0	-1,0	909.442	911.656	100,0	0,2	6,0	6,0
A. NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZA	5.512	4.984	3,3	-9,6	10.832	9.985	1,1	-7,8	2,0	2,0
B. ERAUZKETA-INDUSTRIAK	38	35	0,0	-7,9	387	381	0,0	-1,6	10,2	10,9
C. MANUFATURA-INDUSTRIA	10.062	9.961	6,6	-1,0	172.974	172.725	18,9	-0,1	17,2	17,3
D. ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN ETA AIRE GIROTUAREN HORNIDURA	129	127	0,1	-1,6	2.076	2.092	0,2	0,8	16,1	16,5
E. UR HORNIDURA; SANEAMENDU-JARDUERAK, HONDAKINEN KUDEAKETA ETA KUTSADURA GARBITZEA	248	254	0,2	2,4	6.056	5.723	0,6	-5,5	24,4	22,5
F. ERAIKUNTZA	19.769	19.559	12,9	-1,1	52.865	53.535	5,9	1,3	2,7	2,7
G. HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA; MOTORDUN IBILGAILUEN ETA MOTOZIKLETEN KONPONKETA	30.717	30.056	19,9	-2,2	128.225	127.995	14,0	-0,2	4,2	4,3
H. GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	10.153	10.010	6,6	-1,4	43.452	42.594	4,7	-2,0	4,3	4,3
I. OSTALARITZA	12.390	12.268	8,1	-1,0	60.474	59.377	6,5	-1,8	4,9	4,8
J. INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	3.385	3.462	2,3	2,3	22.991	24.128	2,6	4,9	6,8	7,0
K. FINANTZA- ETA ASEGURU-ARLOKO JARDUERAK	2.836	2.824	1,9	-0,4	16.536	16.144	1,8	-2,4	5,8	5,7
L. HIGIEZINEN JARDUERAK	2.959	2.911	1,9	-1,6	5.138	5.115	0,6	-0,4	1,7	1,8
M. JARDUERA PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	21.118	20.923	13,8	-0,9	61.213	62.484	6,9	2,1	2,9	3,0
N. JARDUERA ADMINISTRATIBOAK ETA ZERBITZU LAGUNGARRIAK	5.261	5.211	3,4	-1,0	67.607	65.766	7,2	-2,7	12,9	12,6
O. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA DEFENTSA; DERRIGORREZKO GIZARTE SEGURANTZA	435	430	0,3	-1,1	76.607	76.482	8,4	-0,2	176,1	177,9
P. HEZKUNTZA	5.152	5.329	3,5	3,4	46.916	46.739	5,1	-0,4	9,1	8,8
Q. OSASUN JARDUERAK ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO JARDUERAK	9.359	9.521	6,3	1,7	95.701	101.225	11,1	5,8	10,2	10,6
R. ARTE, AISIALDI ETA ENTRETENITZEKO JARDUERAK	3.811	3.995	2,6	4,8	15.788	16.256	1,8	3,0	4,1	4,1
S. BESTELAKO ZERBITZUAK	9.220	9.228	6,1	0,1	23.604	22.910	2,5	-2,9	2,6	2,5
PERTSONA FISIKOAK	89.896	88.941	58,9	-1,1	127.877	125.718	13,8	-1,7	1,4	1,4
SOZIALTATE ANONIMOAK	4.870	4.741	3,1	-2,6	206.586	202.791	22,2	-1,8	42,4	42,8
ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIALTATEA	42.490	42.313	28,0	-0,4	303.661	309.741	34,0	2,0	7,1	7,3
BESTE SOZIALTATE ETA ELKARTE BATZUK	14.382	14.183	9,4	-1,4	129.448	129.677	14,2	0,2	9,0	9,1
• <i>BESTE SOZIALTATE BAT*</i>	6.971	6.991	4,6	0,3	58.354	58.826	6,5	0,8	8,4	8,4
• <i>ONDASUN-ERKIDEGOA</i>	5.603	5.337	3,5	-4,7	17.417	16.655	1,8	-4,4	3,1	3,1
• <i>SOZIALTATE KOOPERATIBOIA</i>	1.808	1.855	1,2	2,6	53.677	54.196	5,9	1,0	29,7	29,2
BESTE FORMA JURIDIKO BATZUK	916	910	0,6	-0,7	141.870	143.729	15,8	1,3	154,9	157,9
• <i>TOKIKO KORPORAZIOA</i>	359	356	0,2	-0,8	30.007	29.761	3,3	-0,8	83,6	83,6
• <i>ERAKUNDE AUTONOMOA EDO HAREN PAREKOA. ERLIJO ERAKUNDEA.</i>	517	517	0,3	0,0	27.982	27.668	3,0	-1,1	54,1	53,5
• <i>ESTATUKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ADMINISTRAZIOEN ORGANOKAK</i>	40	37	0,0	-7,5	83.881	86.300	9,5	2,9	2097,0	2332,4

* (Erregular kolektiboa, komandita, elkarte, sozietate zibila eta definitu gabeko beste mota batzuk).

Iturria: EUSTAT, JEGID eta geuk egina

3.1.2. Enpresen demografia

Enpresa-txandakatzeari buruzko azterlana (altak, bajak eta saldoa) funtsezkoa da enpresen dinamismoari buruzko ezaugarriak ondorioztatzeko, hots, enpresa berriak sortzeko ahalmenari buruzkoak¹⁹.

EUSTATen “*Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika*”ri esker, sortzen eta denborarekin desegiten diren enpresen kopurua zenbatetsi daiteke. Informazio demografiko hori zuzenean lortzen da *JEGIDetik*, eta gainera, iraupenari eta galerari buruzko tasak ere lor daitezke.

EAEko enpresa kopurua murriztu egin da (2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era bitartean) 13.627 enpresa berrik jarduera hasi dutelako eta 15.093 enpresek utzi dutelako euren jarduera. Horrela, saldo garbia 1.466 enpresakoa da. Beste alde batetik, enpresak sortzeko tasa gordina, dena delako urteko enpresa sortu berrien kopurua zati aurreko urtean zegoen enpresa-kopurua, % 9koa da; enpresen galera-tasa²⁰, aldiz, % 10ekoa izan zen.

II.3.5 KOADROA. EAEko ENPRESEN ALTAK, BAJAK ETA SALDO GARBIA					
	2018/01/01	2019/01/01	2020/01/01	2021/01/01	2022/01/01
AURREKO URTEAN ZEUDEN ENPRESEN KOPURUA*	156.528	157.358	153.971	152.554	151.088
ALTAK	13.550	16.472	14.445	12.693	13.627
BAJAK	15.094	15.550	17.832	14.110	15.093
SALDO GARBIA	-1.544	922	-3.387	-1.417	-1.466
ENPRESEN SORRERA-TASA GORDINA (%)	8,7	10,5	9,4	8,3	9,0
ENPRESEN GALERA-TASA GORDINA (%)	9,6	9,9	11,6	9,2	10,0

* Aurreko urtearen amaieran eta hurrengoaren hasieran zenbatuta
Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika eta geuk egina.

II.3.6. TAULAK 2017ko hasieran alta emandako eta hurrengo bost urteetan jardunean jarraitzen duten enpresen bilakaera jasotzen du. Egoitza EAEn duten enpresei dagokienez, 2017an sortutako 15.745 enpresen % 44,9k jardunean jarraitzen dute bost urteren ondoren (7.071), eta alderantziz, % 55,1 desagertu egin dira (8.674). Enpleguan izandako eragina ere negatiboa izan da, baina enpresa kopuruan erregistratutakoa baino txikiagoa: bizirik atera diren enpresak hasierako enpleguaren % 70,3 dira; hau da, enplegua galdu den arren (28.894 enplegutik 20.303 enplegura igaro da), galera ehuneko (-% 29,7) nabarmen txikiagoa da enpresa kopuru gisa izandako bilakaeran erregistratutakoa baino (-% 55,1).

Lurralde historikoen arabera, Araban 2017an alta emandako enpresen % 44,1ek jarraitzen dute aktibo (hasierako enpleguaren % 74,4), Bizkaian % 43,9k (hasierako enpleguaren % 66,4) eta Gipuzkoan % 46,8k (hasierako enpleguaren % 73,9).

Gauza horrela, 2017an alta eman zitzairen enpresek (egoitza EAEn dutenek) 1,8 laguneko enplegua izan zuten batez beste, eta gaur egun 2,8 lagun dira.

EUSTATen datuen arabera, txandakatze handiena adar hauetan gertatu da: Merkataritza, garraioa eta ostalaritza, Eraikuntza eta Jarduera profesional eta osagarriak. Demografia nortasun juridikoaren arabera aztertzean, Pertsona fisikoaren formularekin sortutako establezimenduak nabarmentzen dira.

¹⁹ Kontuan hartu behar da jardueren alta eta bajako egoeren zati bat ondokoan ondorioz gertatzen direla: erregistroko aldaketa, izen-aldaketak, bategiteak, erosketak-eragiketak... Alta edo bajaren arrazoia ez baita jasotzen.

²⁰ Galera-tasari dagokionez, zatidura bajeen arabera kalkulatu da.

II.3.6 KOADROA. 2017/01/01ean ALTAN DAUDEN ETA HURRENGO BOST URTEETAN JARDUNEAN JARRAITZEN DUTEN ENPRESAK ETA ENPLEGATUAK

	ALTAK 2017/01/01ean		AKTIBO URTE HAUETAN									
	ENPRESAK	ENPLEG UA	2018		2019		2020		2021		2022	
			ENPRESAK	ENPLEGU A	ENPRESAK	ENPLEG UA	ENPRESAK	ENPLEG UA	ENPRESAK	ENPLEG UA	ENPRESAK	ENPLEGU A
GUZTIRA	16.179	31.827	13.646	29.809	11.517	28.885	9.523	26.806	8.356	24.617	7.305	23.796
EGOITZA EAEn (%)	15.745	28.894	13.259	26.769	11.179	25.679	9.224	23.632	8.097	21.483	7.070	20.303
ARABA	2.279	4.580	1.954	4.207	1.671	4.484	1.408	4.078	1.188	3.658	1.006	3.407
BIZKAIA	8.288	14.249	6.897	12.931	5.804	12.097	4.721	11.150	4.158	10.122	3.640	9.459
GIPUZKOA	5.178	10.065	4.408	9.631	3.704	9.098	3.095	8.404	2.751	7.703	2.424	7.437
BIZIRAUPEN-TASA												
GUZTIRA	100	100	84,3	93,7	71,2	90,8	58,9	84,2	51,6	77,3	45,2	74,8
EGOITZA EAEn (%)	100	100	84,2	92,6	71,0	88,9	58,6	81,8	51,4	74,4	44,9	70,3
ARABA	100	100	85,7	91,9	73,3	97,9	61,8	89,0	52,1	79,9	44,1	74,4
BIZKAIA	100	100	83,2	90,8	70,0	84,9	57,0	78,3	50,2	71,0	43,9	66,4
GIPUZKOA	100	100	85,1	95,7	71,5	90,4	59,8	83,5	53,1	76,5	46,8	73,9

Iturria: EUSTAT. Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika eta geuk egina.

3.1.3. Gizarte Segurantzaren izena emandako enpresak

2022ko abenduaren amaieran langileak zituzten enpresak 57.820 izan ziren, hau da, 2021eko aldi berean baino % 0,6 gutxiago (325 enpresa gutxiago). Jarduera sektoreen arabera, jaitsi egin zen lehen sektorean (-% 2,3), industrian (-% 0,5) eta zerbitzuetan (-% 0,8), eta hazi eraikuntzan (-% 1,6).

II.3.7. KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAN IZENA EMANDAKO ENPRESAK, JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. EAE

	GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
2019	58.958	871	6.608	4.947	46.532
2020	57.522	876	6.511	4.945	45.190
2021	58.145	864	6.438	4.980	45.863
2022	57.820	844	6.403	5.061	45.512
ALDAKUNTZA (20ko ABE-21eko ABE)	1,1	-1,4	-1,1	0,7	1,5
ALDAKUNTZA (21eko ABE-22ko ABE)	-0,6	-2,3	-0,5	1,6	-0,8

Iturria: GIZARTERATZEKO, GIZARTE SEGURANTZAKO ETA MIGRAZIOETAKO MINISTERIOA eta geuk egina

3.2. EAE-REN EKOIZPEN-EGITURA

EUSTATen "Hiruhileroko Kontu Ekonomikoen" arabera (2023ko martxoan argitaratuak), 2021etik 2022ra bitartean agregatu ekonomiko handi guztiek beren BEGa handitu dute termino korronteetan zein enpleguan, eta euskal ekonomia osoaren BPGd % 8,9 hazi da termino korronteetan eta enpleguan (lanaldi osoaren baliokideetan (LOB) neurtuta) % 3,1.

Egiturari dagokionez, 2022an, lehen sektoreak 698 M€-ko BEGd-a eta lanaldi osoko 11.525 lanpostu zituen, hau da, guztizko BPGd-aren % 0,8, prezio korronteetan, eta enpleguaren % 1,2 LOBn. Industria-sektoreak, 18.784,7 M€-ko BEG eta 203.952 lanpostu izanda, BPGd osoaren % 22,1 hartzen zuen, prezio korronteetan, eta enplegu osoaren % 20,4. Eraikuntzak, 4.058 M€ eta 59.731 lanpostu izanda, BPGd osoaren % 4,8 eta enplegu osoaren % 6 hartzen zituen. Eta zerbitzuen sektorea, 52.911,7 M€ eta 722.881 lanpostu izanda, BPGd osoaren % 62,3 eta enplegu osoaren % 72,4 hartzen zituen.

II.3.8 KOADROA. EAEko BEGen ETA ENPLEGUAREN BILAKAERA. AGREGATU MAKROEKONOMIKOAK										
	2021				2022				ALDAKUNTZA (%)	
	BPGd		ENPLEGUA		BPGd		ENPLEGUA		BPGd	ENPLEGUA
	EUROAK, MILAKOTAN	% BERTIKALA	PERTSONAK	% BERTIKALA	EUROAK, MILAKOTAN	% BERTIKALA	PERTSONAK	% BERTIKALA		
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	654.012	0,8	11.614	1,2	698.014	0,8	11.525	1,2	6,7	-0,8
INDUSTRIA ETA ENERGIA	16.383.233	21,0	200.724	20,7	18.784.703	22,1	203.952	20,4	14,7	1,6
ERAIKUNTZA	3.863.756	5,0	58.754	6,1	4.057.987	4,8	59.731	6,0	5,0	1,7
ZERBITZUAK	49.080.650	62,9	696.941	72,0	52.911.713	62,3	722.881	72,4	7,8	3,7
BEGa oinarritzko preziotan	69.981.651	89,7			76.452.417	90,0			9,2	
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK	8.022.458	10,3			8.520.210	10,0			6,2	
BARNEKO PRODUKTU GORDINA merkatuko prezioetan	78.004.109	100,0	968.033	100,0	84.972.626	100,0	998.089	100,0	8,9	3,1

Iturria: EUSTAT, Hiruhileko Ekonomia Kontuak (2023ko maiatza) eta geuk egina

"Kontu ekonomikoen" arabera, ekoizpenari eta enpleguari dagokienez, industria-sektorearen adar nagusiak honako hauek dira: metalurgia eta metalezko produktuak (2021eko BPGd-aren % 5,6 eta 2020ko enpleguaren % 7), makinak eta ekipoa (kasu bakoitzean % 2,3) eta garraio-materiala (% 2,3 eta % 2, hurrenez hurren).

Zerbitzuen sektorean hauek nabarmentzen dira: ibilgailuen merkataritza eta konponketa (BPGd-aren % 9,8 eta enpleguaren % 13,7), garraioa eta biltegiatzea (% 4,8 eta % 5), ostalaritza (% 3,1 eta % 4,8), aholkularitzak eta beste jardura tekniko batzuk (% 4,6 eta % 4,9), administrazio publikoa eta defentsa (% 4,7 eta % 6,4), hezkuntza (% 5,2 eta % 8,3), osasun arloko jarduerak (% 5,6 eta % 5,7).

Higiezinaren jarduerak nabarmentzen dira BPGd-ari egiten dioten ekarpenetatik (% 10,5), baina ez hainbeste enpleguari egiten dioten ekarpenetatik (% 0,6).

II.3.9 KOADROA. EAEn EKOIZPEN-EGITURA: JARDUERAK BPGd-an ETA GUZTIZKO ENPLEGUAN DUTEN PISUA						
		2021 BPGd			2020 ENPLEGUA	
		MILAKA EURO	BPGd-aren GAINEKO %	BEGaren GAINEKO %	MILAKA EURO	% BERTIKALA
LEHEN SEKTOREA	1. NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA ARRANTZA	654.012	0,8	0,9	12.087	1,3
INDUSTRIA	2. ERAUZKETA-INDUSTRIAK	35.781	0,0	0,1	332	0,0
	3. ELIKAGAIEN INDUSTRIAK, EDARIAK, TABAKOAK	882.682	1,1	1,3	14.011	1,5
	4. EHUNGINTZA, EBAKETA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	81.520	0,1	0,1	1.813	0,2
	5. ZURA, PAPERAK ETA ARTE GRAFIKOAK	710.713	0,9	1,0	10.143	1,1
	6. KOKE-GAIKAK ETA PETROLIO-FINTZEA	187.077	0,2	0,3	889	0,1
	7. INDUSTRIA KIMIKOAK/8. FARMAZIAKO PRODUKTUAK	785.542	1,0	1,1	4.883	0,5
	8. KAUTXUA, PLASTIKOAK ETA METALEZKOAK EZ DIREN BESTE PRODUKTU BATZUK	1.489.080	1,9	2,1	16.732	1,8
	9. METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	4.336.074	5,6	6,2	63.806	7,0
	10. PRODUKTU INFORMATIKO ETA ELEKTRONIKOAK	414.685	0,5	0,6	6.978	0,8
	11. MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOAK	630.954	0,8	0,9	8.945	1,0
	12. MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	1.827.891	2,3	2,6	21.372	2,3
	13. GARRAIORAKO MATERIALA	1.765.335	2,3	2,5	17.956	2,0
	14. ALTZARIAK ETA BESTE MANUFAKTURA BATZUK	913.245	1,2	1,3	14.117	1,5
	15. ENERGIA ELEKTRIKOAK, GASA ETA LURRUNA	1.844.515	2,4	2,6	2.127	0,2
	16. UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	478.139	0,6	0,7	6.360	0,7
	ERAIKUNTZA	17. ERAIKUNTZA	3.863.756	5,0	5,5	55.345
ZERBITZUAK	18. MERKATARITZA; IBILGAILUEN KONPONKETA	7.672.659	9,8	11,0	125.604	13,7
	19. GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	3.716.412	4,8	5,3	45.348	5,0
	20. OSTALARITZA	2.396.858	3,1	3,4	43.467	4,8
	21. EDIZIOA, IRUDIA, IRRATIA ETA TELEBISTA	343.917	0,4	0,5	4.517	0,5
	22. TELEKOMUNIKAZIOAK	883.446	1,1	1,3	2.089	0,2
	23. INFORMATIKA	929.428	1,2	1,3	15.018	1,6
	24. FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	2.941.188	3,8	4,2	14.978	1,6
	25. HIGIEZIN-JARDUERAK	8.200.412	10,5	11,7	5.643	0,6
	26. AHOLKULARITZAK ETA BESTE JARDUERA TEKNIKO BATZUK	3.553.206	4,6	5,1	44.965	4,9
	27. IKERKETA ETA GARAPENA	526.653	0,7	0,8	8.299	0,9
	28. BESTE JARDUERA PROFESIONAL BATZUK	518.165	0,7	0,7	10.838	1,2
	29. ZERBITZU OSAGARRIAK	2.066.953	2,6	3,0	57.498	6,3
	30. ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK ETA DEFENTSA	3.628.991	4,7	5,2	58.891	6,4
	31. HEZKUNTZA	4.050.293	5,2	5,8	75.606	8,3
	32. OSASUN-JARDUERAK	4.340.893	5,6	6,2	52.280	5,7
	33. GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERAK	786.656	1,0	1,1	30.594	3,3
	34. AISIALDI- ETA KULTURA-JARDUERAK	890.085	1,1	1,3	12.418	1,4
	35. BESTE ZERBITZU BATZUK	925.060	1,2	1,3	22.175	2,4
	36. ETXEEN JARDUERAK	709.375	0,9	1,0	26.245	2,9
	37. LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	-	0,0	--	-	0,0
BEGa OINARRIZKO PREZIOAN		69.981.651	89,7	100,0	100,0	---
PRODUKTUEN GAINEKO ZERGA GARBIAK		8.022.458	10,3	--	---	---
GUZTIRA		78.004.109	100,0	--	914.369	100,0

3.3. LEHEN SEKTOREA

EUSTATen "Hiruhileroko Kontu Ekonomikoen" arabera, lehen sektoreko BEGaren batez besteko hazkundera, termino errealetan, +% 0,8 da 2021etik 2022ra bitartean. Bestalde, enpleguak (LOBetan neurtua) %0,8 egin zuen behera.

II.3.10 KOADROA. LEHEN SEKTOREKO ADIERAZLEAK				
	2019	2020	2021	2022
BPGd PREZIO KORRONTETAN (MILAKA)	630.417	515.277	654.012	698.014
ENPLEGUA LOBetan*	12.400	12.087	11.614	11.525
BEG ALDAKUNTZA (ERREALA)	5,9	-16,9	21,9	0,8
ENPLEGUAREN ALDAKUNTZA	-2,8	-2,5	-3,9	-0,8
*Lanaldi osoaren baliokideak				
Iturria: EUSTAT, Hiruhileko Ekonomia Kontuak (2023ko maiatza)				

3.4. INDUSTRIA

3.4.1. Industria-sektorearen bilakaera orokorra

EUSTATen "Hiruhileroko Kontu Ekonomikoek" erakusten dute, termino errealetan, industriako BEGa motelduz joan zela 2022an zehar. Hala, 2022ko lehen hiruhilekoan hazkundera % 6,5koa izan zen, bigarrenen % 5,9koa, hirugarrenean % 3,6koa eta laugarrenean % 2,5koa. Horrela, 2021etik 2022ra bitartean, industriako BEGak, balio errealetan, % 4,6ko batez besteko hazkundera izan zuen, hau da, aurreko urtean baino ehuneko 1,5 puntu gutxiago, orduan hazkundera +% 6,1koa izan baitzen. Manufaktura-industriak hazkundera txikiagoa izan zuen industriaren eta energiaren sektore osoak baino (+% 4,3 vs % 4,6).


II.3.11 KOADROA. INDUSTRIA-SEKTOREKO ADIERAZLEAK.					
	PREZIO ARRUNTEN BEGa (MILIOIAK)	BOLUMEN- INDIZEA KATEATUA 2015 OINARRIA	ENPLEGUA LOBetan*	BEG ALDAKUNTZA (ERREALA)	ENPLEGUAREN ALDAKUNTZA
				URTE ARTEKO ALDAKUNTZA	
2019	17.080.632	110,6	208.042	1,4	0,8
2020	14.822.920	97,1	190.464	-12,2	-8,4
2021	16.383.233	103,0	200.724	6,1	5,4
2022	18.784.703	107,8	203.952	4,6	1,6

**Lanaldi osoaren baliokideak
Iturria: EUSTAT, Ekonomia Kontuak (2023ko maiatza)*

EAEko industriako BEGaren urteko batez besteko hazkundera hori Estatuan izandakoa baino handiagoa izan zen, EINren arabera, +% 3koa izan baitzen.

Enpleguari dagokionez, lanaldi osoaren baliokidetan neurtuta, % 2,4 hazi zen urte artean 2022ko lehen hiruhilekoan, ehuneko bera bigarrenen eta hirugarren hiruhilekotik aurrera urte arteko hazkundera moteldu egin zen (+% 0,8ko aldakuntza-tasa). Laugarren hiruhilekoan urte arteko % 0,9ko hazkundera izan da. Urte osoan, batez beste, % 1,6ko hazkundera izan zen, eta aurreko urtean, berriz, % 5,4koa.

II.3.3 GRAFIKOA. INDUSTRIAREN SEKTOREAREN BILAKAERA




3.4.2. Industri Produkzioaren Indizea eta Industri Prezioen Indizea. 2022

EUSTATen "Industri Produkzioaren Indizea" (IPI), koiunturazko adierazlea, Industriako BEGaren bolumenak faktoreen kostuan izandako bilakaera neurtzen saiatzen da.

II.3.4. GRAFIKOAK erakusten duen bezala, EAEko industria-jardueraren hazkundera motelduz joan da 2022an, eta 2022ko abenduan, 2021eko abenduaren aldean, +% 5,7koa izan da. Lurraldeka, hiruretan urteko tasa metatu positiboak ikusten dira. Bizkaian % 7,2, Araban % 5,2 eta Gipuzkoan % 4,6.

Ondasunen xede ekonomikoaren arabera²¹, bilakaera positibo hori energiaren eta ekipamendu-ondasunen portaera onari zor zaio bereziki, urte osoan % 11,2ko eta % 9,4ko hazkunde metatuak izan baitituzte, hurrenez hurren. Produkzioa kontsumo iraunkorreko ondasunetan baino ez da jaitsi, % 1,2ko jaitsierarekin 2021. urtearekin alderatuta. Kontsumo ez iraunkorreko ondasunen kasuan, produkzioa % 5,9 hazi zen; beraz, kontsumo-ondasunen indizeak, oro har, % 4,5eko hazkundera izan zuen urteko metatuan.

Sektorekako analisiak erakusten duenez, hazkunderik handienak honako sektore hauek izan dituzte: farmaziako produktuak (% 18,2), koke-gaiak eta petrolio-fintzea (% 16,5), makinak eta ekipoak (% 11,1), energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 11) eta garraio-materiala (% 10,5). Horrela, EAEn pisu handiena duten hiru azpisektore industrialek aldakuntza positiboak izan dituzte. Hala ere, makinak eta ekipoak eta garraio-materiala batez bestekoaren gainera hazi diren bitartean, metalurgia haren azpitik hazi da.



²¹ Kontsumo-ondasun iraunkorren fabrikazioa: altzarien, etxeko tresnen edo produktu elektronikoaren fabrikazioa hartzen ditu.

Kontsumo-ondasun ez-iraunkorren fabrikazioa: besteak beste, elikagaiak fabrikatzea, prozesatzea eta kontserbatzea, garbiketarako eta higienarako produktuak fabrikatzea eta jantziak egitea.

Ekipamendu-ondasunen fabrikazioa: ibilgailu motordunen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbide-materialaren eraikuntza edo aeronautika- edo ontzigintza-eraikuntza.

Bitarteko ondasunen fabrikazioa: metalurgiako eta metalezko produktuen fabrikazioko jarduerak, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa.

Energia: jarduera aipagarrien artean energia elektrikoaren hornidura eta petrolio finketa daude.

II.3.12 KOADROA. IPiren BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ETA ONDASUNEN DESTINO EKONOMIKOAREN ARABERA. 2015ko OINARRIA. DATU ZUZENDUAK. URTETIK URTERAKO GEHIKUNTZA METATUA. ABENDUKO DATUAK

	EAE, GUZTIRA	LURRALDE HISTORIKOAK			ONDASUNEN XEDE EKONOMIKOA					
		ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	KONTSUMO-ONDASUNAK			EKIPAMENDU- ONDASUNAK	BITARTEKO ONDASUNAK	ENERGIA
					GUZTIRA	IRAUNKORRA	EZ- IRAUNKORRA			
2017-12	5,9	5,7	6,3	5,7	5,4	12	4	3,3	7,8	3
2028-12	2,1	-0,9	0,9	5,5	4,9	4,1	5,1	4,1	0,5	1,4
2019-12	1,6	-1,6	4,4	0,9	2,8	2,9	2,8	2	0,1	5,6
2020-12	-13,4	-13,4	-15,9	-10,7	-6,6	-13,3	-5,1	-12,5	-15,4	-11,9
2021-12	10,5	8,1	9,5	12,9	12	33,1	7,6	13,3	10,4	0,3
2022-12	5,7	5,2	7,2	4,6	4,5	-1,2	5,9	9,4	2,1	11,2

Iturria: EUSTAT IPI (2023ko maiatzeko datuak)

II.3.13 KOADROA. IET-REN BILAKAERA JARDUERA-ADARREN ARABERA 2015ko OINARRIA. DATU ZUZENDUAK. URTETIK URTERAKO GEHIKUNTZA METATUA. ABENDUKO DATUAK

	2017-12	2018-12	2019-12	2020-12	2021-12	2022-12
IPI	5,9	2,1	1,6	-13,4	10,5	5,7
02. ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-2,7	13,6	-2,5	2,3	4,0	0,2
03. ELIKAGAIEN INDUSTRIAK, EDARIAK, TABAKOA	6,0	7,2	0,1	-7,3	7,1	1,6
04. EHUNGINTZA, EBAKETA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	2,7	-7,7	2,2	-20,9	33,3	0,0
05. ZURA, PAPERERA ETA ARTE GRAFIKOAK	1,8	0,5	3,0	-6,9	4,2	-0,6
06. KOKE-GAIK ETA PETROLIO-FINTZEA	2,3	9,7	-15,3	-15,9	-0,1	16,5
07. INDUSTRIA KIMIKOA	7,2	0,7	-2,6	-9,6	14,4	-2,6
08. FARMAZIAKO PRODUKTUAK	-2,4	2,5	27,5	10,1	15,1	18,2
09. KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	8,6	0,2	1,9	-13,5	11,0	-0,4
10. METALURGIA	8,0	0,0	0,0	-20,1	12,3	5,0
11. PRODUK. INFORMATIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK	17,3	8,4	-3,4	-9,9	-4,1	7,1
12. MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOA	2,0	6,4	5,6	-9,3	6,0	4,0
13. MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	0,4	4,0	1,0	-7,3	14,9	11,1
14. GARRAIORAKO MATERIALA	6,5	3,9	0,8	-15,3	10,5	10,5
15. ALTZARIAK ETA BESTE MANUFATURA BATZUK	3,1	3,3	3,9	-7,2	27,3	0,3
16. ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	3,8	-1,5	14,7	-12,0	0,5	11,0
17. URA	-0,2	0,5	1,5	-0,1	-2,8	1,3

Iturria: EUSTAT IPI (2023ko maiatzeko datuak)

EUSTATen "Industri Prezioen Indizea"(IPRI) produktuak merkaturatzeko lehen urratsean industri prezioen bilakaeraren koiuntura-adierazlea da, hots, ekoizleak transakzioan benetan jasotako prezioena, zeharkako zergak eta diru-laguntza garbiak sartu barik, horrelakorik balego,. Indize horrek % 13,4 egin zuen gora gure Erkidegoan 2021eko abenduaren eta 2022ko abenduaren bitartean (2015eko oinarria)

Hazkunderik handienak hauetan gertatu dira: zura, papera eta arte grafikoak (% 23,8), energia elektrikoa, gasa eta lurrina (% 23,5), industria kimikoa (% 23,5) eta koke-gaiak eta petrolio-fintzea (% 18,4).

Manufaktura-industriaren barruan, eta EAEko funtsezko hiru azpisektore industrialetako bakoitzean arreta jarrita, metalurgiak eta metalezko produktuek % 14,5eko igoera izan dute prezioetan, makinek eta ekipoek % 3,4koa eta garraio-materialak % 0,9koa.

Ondasunen xede ekonomikoaren arabera, prezioen urtetik urterako aldakuntza positiboa izan da talde handi guztietan. Energiaren prezioak % 21 igo dira, bitarteko ondasunenak % 15 eta kontsumo-ondasunenak % 13,7, kontsumo iraunkorreko ondasunenak % 15 igo direlako eta kontsumo ez iraunkorreko ondasunenak % 5,9. Azkenik, ekipamendu-ondasunek urte arteko % 2,6ko igoera izan dute prezioetan.

II.3.14 KOADROA. IPRI ONDASUNEN XEDE EKONOMIKOAREN ETA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA. 2015ko OINARRIA. EJSN-2009 AURREKO ABENDUAREN ALDEAN IZANDAKO ALDAKUNTZA						
	2017-12	2018-12	2019-12	2020-12	2021-12	2022-12
INDIZE OROKORRA	2,4	1,3	1,7	-1,9	12,7	13,4
ONDASUNEN XEDE EKONOMIKOA						
KONTSUMO-ONDASUNAK	-0,1	1,9	1,2	2,9	2,3	13,7
---KONTSUMO IRAUNKORREKO ONDASUNAK	2,4	-0,2	2	0,9	2,2	5,9
---KONTSUMO EZ IRAUNKORREKO ONDASUNAK	-0,5	2,2	1	3,3	2,3	15
EKIPAMENDU-ONDASUNAK	2,8	1,3	1,7	0,6	1,8	2,6
BITARTEKO ONDASUNAK	2,8	1,4	-0,2	0,9	11	15
ENERGIA	2,7	1	7,1	-12,9	36	21
JARDUERA SEKTOREAK						
-ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-4,5	6,4	3,4	1,1	3,9	6,3
--ERAUZKETA-INDUSTRIAK	-4,5	6,4	3,4	1,1	3,9	6,3
-MANUFATURA-INDUSTRIA	2,5	1,0	1,8	-1,8	10,4	11,6
--ELIKAGAIEN INDUSTRIAK, EDARIAK, TABAKOA	-0,1	1,8	0,7	3,0	2,3	15,9
--EHUNGINTZA, EBAKETA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	-1,0	6,3	0,9	-4,2	-3,4	6,8
--ZURA, PAPERA ETA ARTE GRAFIKOAK	2,7	3,9	-0,8	-2,9	12,4	23,8
--KOKE-GAIK ETA PETROLIO-FINTZEA	2,9	-1,1	11,1	-20,5	37,4	18,4
--INDUSTRIA KIMIKOA	2,8	5,6	-1,2	1,6	13,6	23,5
--FARMAZIAKO PRODUKTUAK	6,1	2,6	-1,4	1,3	2,3	8,9
--KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	0,7	0,2	0,7	0,7	2,8	8,3
--METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	4,4	1,2	-0,7	1,6	16,1	14,5
--PRODUKTU INFORMATIKO ETA ELEKTRONIKOAK	1,8	-2,1	3,0	4,7	7,8	-1,4
--MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOAK	0,4	0,1	2,4	1,5	2,5	5,5
--MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	3,2	2,1	0,7	-3,7	2,5	3,4
--GARRAIO-MATERIALA	0,8	0,1	2,2	3,2	-2,3	0,9
--ALTZARIAK ETA BESTELAKO MANUFATURAK	3,1	1,5	2,3	-0,2	2,9	4,6
-ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	2,0	2,8	1,3	-2,9	28,4	23,5
--ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	2,0	2,8	1,3	-2,9	28,4	23,5
-URA	2,3	3,2	0,0	4,8	1,5	10,4
--URA	2,3	3,2	0,0	4,8	1,5	10,4

Iturria: EUSTAT. IPRI. (2023ko maiatzeko datuak)

3.4.3. Industria Estatistikaren emaitza nagusiak 2021eko datuak

2021ean, EAEko industriaren jarduerak aurreko urtean pandemiaren ondorioengatik izandako beherakada irauli zuen. Horrela, EUSTATen datuen arabera, faktoreen kostuko balio erantsi gordina (FKBEG)²² 14.455 M€-koa izan zen, 2020an lortutakoa baino % 9,9 handiagoa. Enplegua % 0,5 hazi zen, pandemiaren aurreko urteetako bide positibora itzuliz, baina ez zituen aurreko zifrak berreskuratu. Enplegatuak, guztira, 201.950 izan ziren. Bestalde, negozio-zifra % 19 igo zen.

Manufaktura-industriaren barruan, eta funtsezko hiru azpisektore industrialetako bakoitzean arreta jarrita, honako hau dugu:

- Metalurgia eta metalezko produktuak (BEGaren % 31, enpleguaren % 33,2 eta salmenten % 25,2) hazi egin ziren, bai fkbEGan, bai enpleguan eta bai negozio-zifran, hurrenez hurren, % 25,2, % 0,5 eta % 26,6 2020aren aldean.
- Makinak eta ekipoak ere (BEGaren % 11,2, langileen % 11,2 eta salmenten % 8,8) igoerak izan zituzten bere fkbEGan, enpleguan eta negozio-zifran, 2020aren aldean, % 11,7, % 1,8 eta % 12,7, hurrenez hurren.

²² Ondasunen eta zerbitzuen guztizko ekoizpenaren balio ekonomikoa adierazten duen adierazle makroekonomikoa, ekoizpen horretarako beharrezkoak izan diren inputak eta zeharkako zergak kenduta.


- Garraio-materialak (BEGaren % 10,1, langileen % 9,4 eta salmenten % 14) igoera izan zuen bere fkBEGan eta negozio-zifran, % 1,1 eta % 9,2, hurrenez hurren. Sektoreko enplegua, aldiz, % 2,5 jaitsi zen 2020aren aldean.

Hauek dira kontuan hartzeko balio erantsiak dituzten beste sektore batzuk: Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa (% 7,7), elikagaien, edarien eta tabakoaren industria (% 5,6) eta argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura (% 5,6). Lehenengo bi kasuetan, bakoitzaren balio erantsiarekin bat datozen enplegu ehunekoekin; hurrenez hurren: % 6,7 eta % 7,4. Hala ere, aipatu behar da argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren horniduraren sektoreak industriaren BEGaren % 5,6 hartzen duela, enplegatuen % 1,2 soilik izanik.

II.3.15 KOADROA. INDUSTRIAREN SEKTOREKO MAGNITUDEAK ATALKA											
		Banaketaren %a (Industria = 100) 2021				Zergen aurreko emaitzak*	Aldakuntza 2020/21				
		BEG ald.	Enplegua	Inbertsioa	Negozioren zifra		fk BEG	Enplegua	Inbertsioa	Negozioren zifra	Zergen aurreko emaitzak
Industria, guztira		100	100	100	100	100					
	Mila eurotan eta enplegua pertsonatan	14.454.664 Mila	201.950 pertsona	1.802.958 mila	58.757.265 mila	2.280.923 mila	9,9	0,5	1,2	19,0	110,3
B atala	Erauzketa-industria	0,2	0,2	0,1	0,2	-0,1	8,7	14,8	38,4	11,6	-233,1
C atala. Manufaktura-industria	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	5,6	7,4	7,8	7,0	7,7	0,9	1,0	0,5	6,7	36,0
	Ehuna, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	0,5	1,2	0,1	0,3	0,6	5,7	-0,2	-61,5	7,1	13,5
	Zura, papera eta arte grafikoak	4,7	5,6	5,4	4,1	6,1	13,0	0,9	-23,2	20,2	48,8
	Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	1,9	0,5	2,7	8,9	3,0	-379,0	-1,4	253,5	48,7	-130,7
	Industria kimikoa eta produktu farmazeutikoen fabrikazioa	4,2	2,5	7,9	3,3	11,2	8,2	4,8	41,7	21,9	21,2
	Kautxua eta plastikoa	7,7	6,7	7,5	5,7	13,7	14,9	-0,9	13,7	13,9	78,4
	Metalezkoak ez diren bestelako produktu mineralak	2,6	2,5	2,5	1,9	4,4	13,5	3,1	-15,1	21,4	261,9
	*Metalurgia eta metalezko produktuak	31,0	33,2	25,6	25,2	33,2	25,2	0,5	0,7	26,6	-674,6
	Produktu informatiko eta elektronikoen eta optikoak	2,5	3,4	2,6	1,7	3,4	10,6	1,6	46,9	4,2	51,5
	Material eta ekipoen, etxeko tresnen (elektrikoak) barne	3,6	4,5	2,1	3,2	2,0	1,1	0,9	-9,5	8,1	-24,2
	Makinak eta ekipoen	11,2	11,2	7,5	8,8	12,1	11,7	1,8	-2,7	12,7	93,6
	Garraio-materiala	10,1	9,4	5,8	14,0	3,4	1,1	-2,5	-13,5	9,2	-1.109,2
	Altzariak eta bestelako manufaktura	4,9	7,1	1,3	3,1	5,5	2,9	-0,7	10,3	8,1	24,0
	D atala	Argindarra, gasa eta lurruna	5,6	1,2	15,1	10,6	-11,3	-41,6	0,6	26,2	24,3
E atala	Ur-horniketa eta saneamendua	3,7	3,4	6,0	2,1	5,2	6,9	0,1	-43,9	11,2	54,5


*Operazio horien ustiapen eta finantza emaitza barne.
Iturria: EUSTAT. Industria estatistika eta geuk egina

II.3.5 GRAFIKOA. INDUSTRIAKO BEGAREN BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2021



Iturria: EUSTAT

II.3.6 GRAFIKOA. INDUSTRIAKO ENPLEGUAREN BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2021



Iturria: EUSTAT

II.3.16 KOADROA. EAeko MANUFATURA-INDUSTRIAREN HIRU JARDUERA SEKTORE NAGUSIETAKO FAKTOREEN KOSTUAREN ETA ENPLEGUAREN BEG

	ENPLEGUA			BEG, FAKTOREEN KOSTUAN		
	2020	2021	Ald.	2020	2021	Ald.
METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	66.666	67.030	0,5	3.576.649	4.476.323	25,2
25/26 SIDERURGIA/BURDINAZKOAK EZ DIREN METALEN EKOIZPENA	9.296	9.718	4,5	603.250	1.170.736	94,1
27 - METALEN GALDAKETA	6.532	6.697	2,5	359.140	384.735	7,1
28 - METALEZKO ERAIKUNTZA	9.444	9.517	0,8	429.214	476.540	11,0
29 - FORJAKETA ETA ESTANPAZIOA	6.757	6.769	0,2	429.295	485.602	13,1
30 - INGENIARITZA MEKANIKOA	20.161	20.289	0,6	964.775	1.097.466	13,8
31 - METALEZKO ARTIKULUAK	14.476	14.040	-3,0	790.975	861.244	8,9
MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	22.228	22.628	1,8	1.444.763	1.613.358	11,7
35 - ERABILERA OROKORREKO MAKINAK	18.129	18.633	2,8	1.209.128	1.342.252	11,0
36 - MAKINA-ERREMINTA	4.099	3.995	-2,5	235.635	271.106	15,1
GARRAIO-MATERIALA	19.551	19.071	-2,5	1.447.450	1.463.504	1,1
37 - IBILGAILU MOTORDUNAK FABRIKATZEA	12.216	11.993	-1,8	822.015	820.400	-0,2
38 - ONTZIGINTZA	427	391	-8,4	14.062	12.373	-12,0
39 - GARRAIORAKO BESTELAKO MATERIALA	6.908	6.687	-3,2	611.373	630.731	3,2

Iturria: EUSTAT. Industria estatistika. Geuk egina

Maila teknologiko²³ ertain eta altuko produktuen protagonismoa etengabe hazi da urteetan zehar, 2021ean (bigarren urte pandemikoa) salmenten % 31,3, langile okupatuen % 32,1 eta balio erantsiaren % 32,7 bereganatu arte. 2015ean, ehunekoak % 27 ziren salmentetan, eta % 30 inguru landunetan eta balio erantsietan.

²³ EUSTATEk erabiltzen duen ELGaren sailkapenaren arabera, maila teknologiko altuak hauek hartzen ditu: 1. Farmazia-produktuen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak fabrikatzea eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Ertain-altuan hauek daude: 4. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoaren fabrikazioa, makinak eta ekipoen fabrikazioa, ibilgailuen fabrikazioa, 7. Beste garraio-material batzuen fabrikazioa, ontzigintza eta eraikuntza aeronautikoa izan ezik, eta 8. Tresna eta hornidura mediko eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-baxuan hauek jasotzen ditu: 9. Euskarri grabatuen erreproduktzioa, 10. Koke-gaiak eta petrolio-fintzea, 11. Kautzuko eta plastikozko produktuen fabrikazioa, Metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuk fabrikatzea. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makinak eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzigintza, eta 14. Makineria eta ekipamendua konpontzea eta instalatzea. Baxuan hauen jasotzen ditu: 15. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta jantzigintzaren industria. Larrugintza eta zapatagintza. Zuraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoa, 17. Altzarigintza, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Saikatu gabe.

II.3.17 KOADROA. INDUSTRIAK EAE-N DUEN EDUKI TEKNOLOGIKOAK ELGA-REN SEKTOREEN ARABERA.
GUZTIZKOAREN GAINEAN DUTEN PISUA

	2015	2017	2018	2019	2020	2021
LANA DUTEN LANGILEAK						
GUZTIRA (KOPURUA)	194.458	203.497	206.349	207.324	201.017	201.950
MAILA TEKNOLOGIKO ALTUA	4,8	4,8	4,9	5,0	5,0	5,0
MAILA TEKNOLOGIKO ERTAIN-ALTUA	25,7	26,2	26,9	27,0	27,0	27,1
MAILA TEKNOLOGIKO ERTAIN-BAXUA	47,8	47,4	46,9	46,9	46,6	46,4
MAILA TEKNOLOGIKO BAXUA	17,3	16,9	16,8	16,5	16,5	16,7
SAILKATU GABE	4,4	4,6	4,5	4,6	4,8	4,8
FAKTOREEN KOSTUKO BALIO ERANTSI GORDINA						
GUZTIRA (KOPURUA)	13.542.946	14.443.320	15.084.027	15.369.283	13.150.189	14.454.664
MAILA TEKNOLOGIKO ALTUA	4,8	5,1	4,8	5,7	5,6	5,3
MAILA TEKNOLOGIKO ERTAIN-ALTUA	25,9	26,4	26,5	26,2	28,1	27,4
MAILA TEKNOLOGIKO ERTAIN-BAXUA	42,5	42,5	42,4	41,1	38,8	45,3
MAILA TEKNOLOGIKO BAXUA	13,5	13,4	13,1	13,1	12,8	12,5
SAILKATU GABE	13,4	12,6	13,1	13,8	14,6	9,5
SALMENTA GARBIAK						
GUZTIRA (MILA EUROTAN)	54.890.865	56.490.135	60.308.597	60.367.660	49.361.163	58.757.265
MAILA TEKNOLOGIKO ALTUA	3,5	4,2	4,0	4,6	4,2	3,7
MAILA TEKNOLOGIKO ERTAIN-ALTUA	23,5	26,3	26,0	26,9	29,3	27,6
MAILA TEKNOLOGIKO ERTAIN-BAXUA	43,6	43,5	44,8	42,6	40,3	43,0
MAILA TEKNOLOGIKO BAXUA	13,6	13,7	13,4	13,4	13,6	12,8
SAILKATU GABE	15,8	12,4	11,7	12,5	12,6	12,9

Iturria: EUSTAT. Industria estatistika. Geuk egina

3.5. ERAIKUNTZA

3.5.1. Eraikuntzaren sektorearen bilakaera

EUSTATen "Hiruhileroko Kontu Ekonomikoek" erakusten dute, termino errealetan, eraikuntzaren BEGak moteldu egin zuela bere hazkundera 2022ko lehen eta bigarren hiruhilekoen artean, nahiz eta nolabaiteko hobekuntza izan zuen urtearen bigarren erditik aurrera. Horrela, 2022ko lehen hiruhilekoan, urte arteko hazkundera % 1,9koa izan zen, bigarren hiruhilekoan % 1,3koa, hirugarrenean % 2,3koa eta laugarrenean % 2,4koa. Horrela, 2021etik 2022ra bitartean, eraikuntzaren BEGak, balio errealetan, % 2ko batez besteko hazkundera izan zuen, hau da, aurreko urtean baino ehuneko 2,5 puntu gutxiago, orduan hazkundera +% 4,5koa izan baitzen.


EAEko eraikuntzaren BEGaren urteko batez besteko hazkunde hori Estatukoa baino txikiagoa da. Izan ere, EINen arabera, +% 4,1 da Estatuan.

Enpleguari dagokionez, lanaldi osoaren baliokidetan neurtuta, % 3 igo zen urte artean 2022ko lehen hiruhilekoan, % 1,5 bigarreanean, % 0,3 bakarrik hirugarrenean, eta laugarren hiruhilekoa urte arteko % 1,5eko hazkundearekin amaitu zen. Urte osoan, batez beste, % 1,7ko hazkundera izan zen, eta aurreko urtean, berriz, % 6,2koa.

EUSTATen "Eraikuntzaren Koiunturaren Indizeari"²⁴ (EKI) buruzko urteko balantzeak, eraikuntzaren sektoreko produkzioaren eta enpleguaren bilakaera zenbatesten duen koiuntura-adierazleak, % 11,1eko urte arteko hazkundera erakusten du, lan-egutegi homogineoari dagokionez, eraikuntzan % 9,8ko hazkundera eta obra zibilean % 19,8koa.

²⁴ Indize honek eraikuntza obra mota biak bereizten ditu: eraikinak egitea (eraikuntza iraunkor oro, berezia edo independentea, etxebizitza familiar edo kolektiborako egiten dena, edo nekazaritza, industriarako, zerbitzuak emateko edo, oro har, jarduera bat egiteko —eskolak, siloak, eta abar— egiten dena) eta obra zibila (azpiegitura obra oro, eraikinak egitea ez dena, kolektiboki edo publikoki erabiltzeko dena).

II.3.7 GRAFIKOA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREAREN BILAKAERA



Iturria: HKE. EUSTAT

II.3.18 KOADROA. ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO ADIERAZLEAK

	HIRUHILEKOKO KONTU EKONOMIKOAK DATU ZUZENDUAK.					ERAIKUNTZAREN KOIUNTURA INDIZEA DATU ZUZENDUAK. EGUNEKO PREZIOAK. URTE ARTEKO ALDAKUNTZA			
	PREZIO ARRUNTEN BEGa (MILIOIAK)	BOLUMEN- INDIZEA KATEATUA 2015 OINARRIA	ENPLEGUA LOBetan*	BEG ALDAKUNTZA (ERREALA)	ENPLEGUAREN ALDAKUNTZA	GUZTIRA	ERAIKUNTZA	OBRA ZIBILA	
				URTE ARTEKO ALDAKUNTZA					
2019	4.190.915	108,4	60.615	2,4	4,1	8,7	9,2	5,6	
2020	3.616.736	92,8	55.345	-14,4	-8,7	-8,1	-8,4	-6,0	
2021	3.863.756	97,0	58.754	4,5	6,2	7,8	8,4	4,3	
2022	4.057.987	98,9	59.731	2,0	1,7	11,1	9,8	19,8	

*Lanaldi osoaren baliokideak

Iturria: EUSTAT, Kontu Ekonomikoak eta Eraikuntzaren Koiuntura Indizea (2023ko maiatzeko datuak) Geuk egina

3.5.2. Eraikuntza kostuen indizea

EUSTATen "Eraikuntzaren Kostuen Indizeak" (EKI) eraikuntzaren sektorearen kostu osoak izandako bilakaera neurtzen du. Kostu hori Bitarteko Kontsumoen, Langileen Kostuen eta Ustiapeneko Soberakinaren batura da, eta Bitarteko Kontsumoen Kostuaren Indizearen eta Eskulanaren Kostuaren Indizearen bilakaeraren bidez kalkulatzen da.

2021eko abendutik 2022ko abendura bitartean, eraikuntzaren kostuak % 8,5 igo dira, lehengaienak % 9,4 eta eskulanarenak % 5,8.

Eraikuntza eta Obra Zibila berezita, eraikuntzaren kostuak % 8,3 igo dira eta obra zibilarenak % 9,4.

II.3.19 KOADROA. ERAIKUNTZA KOSTUEN URTE ARTEKO ALDAKUNTZA TASA EAEn. AURREKO ABENDUAREN ALDEAN IZANDAKO ALDAKUNTZA

	KOSTUAK			LEHENGAIEN PREZIOAK			ESKULANA REN KOSTUA
	GUZTIRA	ERAI- KUNTZA	OBRA ZIBILA	GUZTIRA	ERAI- KUNTZA	OBRA ZIBILA	
2019-12	2,2	2,0	2,9	2,2	2,0	3,1	2,3
2020-12	1,0	1,3	-0,3	0,7	1,1	-1,0	1,8
2021-12	5,6	5,2	7,6	6,8	6,2	9,4	1,9
2022-12	8,5	8,3	9,4	9,4	9,1	10,5	5,8

Iturria: EUSTAT. EKI, 2023ko maiatzeko datuak. Geuk egina

3.6. ZERBITZUAK

3.6.1. Zerbitzu-sektorearen bilakaera orokorra



EUSTATen "Hiruhileroko Kontu Ekonomikoek" erakusten dute, termino errealean, zerbitzuen sektorearen BEGa motelduz joan zela 2022an zehar, nahiz eta laugarren hiruhilekoan nolabaiteko hobekuntza izan. Hala, 2022ko lehen hiruhilekoan % 6,2koa hazkundera izan da 2021eko hiruhileko beraren aldean, % 5,4koa bigarrenean, % 2,4koa hirugarrenean eta % 2,7koa laugarren hiruhilekoan.

Horrela, urte osoan, batez besteko hazkundera, balio errealean, % 4,7koa izan da, aurreko urtean baino ehuneko 1,1 puntu txikiagoa.

EAEko zerbitzuen sektorearen BEGaren urteko batez besteko hazkunde hori Estatukoa baino txikiagoa da. Izan ere, EINen arabera, +% 6,5 da Estatuan.

EAera itzuliz, jarduera pribatuek, bereziki merkataritza, garraio eta ostalaritzako jarduerak, % 10,7ko hazkundera izan dute (+% 11,8 2021ean). Gainerako zerbitzuen adarreko jarduerak (higiezin, lanbideen, zientziaren eta teknikaren arloko jarduerak, bai eta finantza- eta aseguru-jarduerak ere) % 2,8ko hazkundera izan dute, 2021ean erregistratutako % 4tik behera. Bestalde, Administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen taldeak barne hartzen dituen jarduerak % 1,8ko urte arteko hazkundera izan dute (+% 3,1 2021ean).

Enpleguari dagokionez, lanaldi osoaren baliokidetan neurtuta, % 3,7 igo zen urte artean.



II.3.20 KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN BILAKAERA.							
	BEG EGUNEKO PREZIOAK	LANPOSTUAK (lanaldi osoaren balioak)	ZERBITZUEN BEGa BOLUMEN-INDIZEA URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. DATU ZUZENDUAK.				LANPOSTU-ALDAKUNTZA (LOB)
			GUZTIRA	MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA GARRAIOAK	AD. PUBLIKOA, HEZK., OSASUNA ETA GIZ. ZERB.	GAINERAKO ZERBITZUAK	
2019	49.629.954	693.754	2,5	2,2	3,2	2,4	1,6
2020	45.963.221	656.473	-7,9	-20,4	1,1	-4,3	-5,4
2021	49.080.650	696.941	5,8	11,8	3,1	4,0	6,2
2022	52.911.713	722.881	4,7	10,7	1,8	2,8	3,7

Iturria: EUSTAT, 2023ko maiatzeko datuak. Geuk egina

3.6.2. Zerbitzuen sektorearen egitura EAEn


Atal honetan gure erkidegoko zerbitzuen sektorearen egitura aztertzen da. Kontuan izan behar da enpleguari dagokionez argitaratutako azken datuak 2020. urtekoak direla, eta BEGari dagokionez, 2021. urtekoak.

BPGd korronteari dagokionez, hauek nabarmentzen ziren 2021ean: higiezin arloko jarduerak (EAEko zerbitzuen sektorearen % 16,7), ibilgailuen merkataritza eta konponketa (% 15,6), osasun arloko jarduerak (% 8,8), hezkuntza (% 8,3) eta garraioa eta biltegiatzea (% 7,6). Enpleguaren aldetik, honakoak izan dira nabarmenenak 2020an: Ibilgailuen merkataritza eta konponketa (zerbitzuen sektoreko enpleguaren % 19,1), hezkuntza (% 11,5), administrazio publikoa eta defentsa (% 9), zerbitzu osagarriak (% 8,8) eta osasun arloko jarduerak (% 8). Aldi horretan, ostalaritzak COVID-19agatik ezarritako murrizketen eragina izaten jarraitzen du.

II.3.21 KOADROA. ZERBITZUEN SEKTOREAREN EGITURA ETA BILAKAERA										
	BPGd KORRONTEA (ZERBITZUEN SEKTOREKO BEGaren GAINEKO %)			ENPLEGUA (ZERBITZUEN SEKTOREKO ENPLEGUAREN GAINEKO %)			BPG*	PREZIOAK	ENPLEGUA	
	2019	2020	2021	2018	2019	2020				2017-21
9. MERKATARITZA; IBILGAILUEN KONPONKETA	15,2	14,9	15,6	19,3	19,1	19,1	0,4	1,3	-0,6	
20. GARRAIOA ETA BILTEGIATZEA	7,3	7,2	7,6	6,5	6,5	6,9	2,4	0,6	1,4	
21. OSTALARITZA	7,8	4,0	4,9	8,7	8,7	6,6	-9,8	1,5	-5,9	
22. EDIZIOA, IRUDIA, IRRATIA ETA TELEBISTA	0,8	0,8	0,7	0,8	0,8	0,7	-3,0	0,9	-4,4	
23. TELEKOMUNIKAZIOAK	1,8	1,9	1,8	0,3	0,3	0,3	0,1	-0,3	-1,6	
24. INFORMATIKA	1,7	1,9	1,9	2,1	2,1	2,3	4,2	0,9	3,6	
25. FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	5,6	6,3	6,0	2,4	2,2	2,3	4,7	-1,2	-2,9	
26. HIGIEZIN-JARDUERAK	16,6	17,7	16,7	0,8	0,8	0,9	0,8	1,0	2,0	
27. AHOLKULARITZAK ETA BESTE JARDUERA TEKNIKO BATZUK	6,5	7,1	7,2	6,7	6,5	6,8	3,3	0,9	1,9	
28. IKERKETA ETA GARAPENA	1,0	1,1	1,1	1,1	1,1	1,3	4,0	0,7	2,9	
29. BESTE JARDUERA PROFESIONAL BATZUK	1,1	1,0	1,1	1,8	1,8	1,7	0,6	0,6	-2,2	
30. ZERBITZU OSAGARRIAK	4,5	4,1	4,2	9,3	9,4	8,8	-0,6	0,9	-0,9	
31. ADMINISTRAZIO PUBLIKOA ETA DEFENTSA	7,0	7,8	7,4	8,3	8,3	9,0	1,4	1,2	1,4	
32. HEZKUNTZA	7,6	8,5	8,3	10,5	10,8	11,5	2,4	1,3	3,0	
33. OSASUN-JARDUERAK	8,1	8,8	8,8	7,1	7,2	8,0	3,2	1,4	3,1	
34. GIZARTE ZERBITZUEN ARLOKO JARDUERAK	1,5	1,7	1,6	4,2	4,3	4,7	1,7	1,3	4,1	
35. AISIALDI- ETA KULTURA-JARDUERAK	2,4	1,7	1,8	2,1	2,2	1,9	-4,9	0,3	-2,1	
36. BESTE ZERBITZU BATZUK	2,1	1,9	1,9	3,5	3,4	3,4	-2,8	0,5	-1,2	
37. ETXEEN JARDUERAK	1,4	1,5	1,4	4,5	4,3	4,0	0,9	1,7	-4,0	
38. LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0				
ZERBITZUAK, GUZTIRA (BPGd MILA EUROTAN ETA ENPLEGUA LANALDI OSOAN)	49.629.954	45.963.221	49.080.650	683.055	693.754	656.473	0,8	0,9	0,1	
EKONOMIA, GUZTIRA (BPGd MILA EUROTAN ETA ENPLEGUA LANALDI OSOAN)	79.537.107	71.828.616	78.004.109	960.396	974.811	914.369	0,2	1,2	0,2	


** BPG erreala (bolumen kateatuan)*
Iturria: EUSTAT. Ekonomia Kontuak (2023ko maiatzeko datuak) eta geuk egina

II.3.10 GRAFIKOA ZERBITZUEN SEKTOREKO BPGren BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2021



Iturria: EUSTAT

II.3.11 GRAFIKOA ZERBITZUEN SEKTOREKO BPGren BANAKETA SEKTOREEN ARABERA, 2020



Iturria: EUSTAT

2017 eta 2021 artean (hau da, COVID-19aren eragin handieneko bi urteak barne), zerbitzuen sektoreko BEGaren urteko batez besteko aldakuntza-tasa, balio errealetan, % 0,8koa izan zen. BPGd-aren jaitsierarik handienak hauetan erregistratu ziren: ostalaritzan (-% 9,8, urteko batez besteko tasa) eta aisia- eta kultura-jardueretan (-% 4,9); eta hazkunderik handienak finantza- eta aseguru-jardueretan (+% 4,7) eta informatikan (+% 4,2) izan dira.

Enpleguari dagokionez, 2016 eta 2020 artean, ostalaritzan izan zen beherakadarik handiena (-% 5,9) eta hazkunderik handienak honako hauetan izan ziren: gizarte zerbitzuen arloko jarduerak (+% 4,1, urteko batez besteko tasa), informatika (+% 3,6), osasun arloko jarduerak (+% 3,1) eta hezkuntza (+% 3)

Zerbitzuen sektoreko prezioen urteko batez besteko aldakuntza, 2017 eta 2021 artean, % 0,9koa izan zen.

3.6.3. Merkataritza

EUSTATen txikizkako merkataritzaren salmenta-indizearen bilakaera

EUSTATen "Txikizkako Merkataritza Indizea,(TMI)" EAEko txikizkako merkataritzaren sektoreko merkataritzako eta laneko koiunturaren bilakaeraren zuzeneko adierazlea da, eta informazioa jaso deneko bi aldagaien jokabidearen azterketan du oinarria: "salmentak" eta "landunak".

EUSTATen "Txikizkako merkataritzaren salmenta indizearen" datuek erakusten dutenez, 2021etik 2022ra bitartean txikizkako merkataritzaren salmentak % 2,9 igo dira (lan-egutegiaren termino homogeneoetan eta prezio finkoetan), aurreko urtean baino hazkunde-ratio txikiagoa (+% 3,5). Zerbitzuguneak alde batera utzita, salmentak % 2,6 hazi dira (+% 3,1 aurreko aldian).

Elikaduraren sektorean, 2022an metatutako salmentak 2021ean izandakoak baino % 0,4 txikiagoak izan dira. Bestalde, gainerako produktuen sektoreko txikizkako merkataritzaren salmentak % 5,2 hazi dira eta automoziorako erregaiarenak % 7,1.

Elikadurako txikizkako merkataritzaren barruan, elikagaietan, edarrietan eta tabakoan espezializatutako merkataritza (fruta-dendak, harategiak, arrandegiak, etab.) % 1,3 jaitsi da 2022an 2021. urtearen aldean, eta elikadura nagusi den espezializatu gabeko merkataritza, berriz, % 0,1 hazi da.

Gainerako produktuen txikizkako merkataritzan, portaera positiboa izan da pertsonen ekipamenduetan espezializatutako merkataritzan (+% 10,1) eta etxeko ekipamenduan espezializatutako merkataritzan (+% 8,2). Bestelako kontsumo-ondasunetan espezializatutako sektorean eta merkataritza espezializatu gabean, ordea, salmentak jaitsi egin dira aurreko urtearen aldean, -% 4,3 eta -% 5,2, hurrenez hurren.

II.3.22 KOADROA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN SALMENTA-INDIZEAREN BILAKAERA. URTETIK URTERAKO TASAK EGUTEGIAREN ERAGINAK ZUZENDUTA. PREZIO KONSTANTEAK											
	INDIZE OROKORRA	EAE									
		ELIKAGAIK			GAINERAKO PRODUKTUAK					AUTOMOZIORAKO ERREGAIA	INDIZE OROKORRA, ZERBITZUGUNERIK GABE
		Guztira	Espezializatua	Espezializatu gabea	Guztira	Pertsonaren ekipamendua	Etxeko ekipamendua	Kontsumoko beste ondasun batzuk	Espezializatu gabea		
2019	0,9	1,5	0,3	2	-0,1	-2,2	1,4	0,5	1,7	3,3	0,7
2020	-4,9	3,2	-4,9	7,3	-10,3	-13,9	-2,9	-9,2	-15,7	-16,1	-3,9
2021	3,5	-3,6	0,7	-5,4	9,9	7,4	19,6	5,9	-0,1	8,2	3,1
2022	2,9	-0,4	-1,3	0,1	5,2	10,1	8,2	-4,3	-5,2	7,1	2,6

Iturria: EUSTAT, TMI, 2023ko maiatzeko datuak

2022an, EAEko txikizkako merkataritzaren sektorean okupatutako langileen balantzeak % 1,7ko²⁵ hazkundera erakusten du.

Enplegua hazi egin da jangai eta edarien saltokietan (+% 1,2) eta gainerako produktuetan (+% 1,9), eta, bereziki, automoziorako erregaien saltokietan (+% 8,1).

II.3.23 KOADROA. TXIKIZKAKO MERKATARITZAN LAN EGITEN DUTEN LANGILEEN INDIZEA. URTETIK URTERAKO TASAK				
	INDIZE OROKORRA	ELIKAGAIK	GAINERAKO PRODUKTUAK	AUTOMOZIORAKO ERREGAIA
2019	-0,1	0,5	-0,7	3,2
2020	-2,1	1,0	-4,6	-3,8
2021	0,9	1,9	0,0	2,6
2022	1,7	1,2	1,9	8,1

bb: behin-behinekoa
Iturria: EUSTAT, TMI, 2023ko maiatzeko datuak

EUSTATen azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizearen bilakaera

Orain EUSTATen “Saltoki handietako eta elikagai-kateetako merkataritza indizea” aztertuko dugu EAEn biztanle. EAEko saltoki handietako eta elikagai-kateetako²⁶ merkataritzaren sektorearen salmenten bilakaera komertzialari eta langileei buruzko abagune-adierazlea da.

2021etik 2022ra, indize orokorrak % 0,2ko jaitsiera erakusten du, aurreko urtean erregistratutako % 0,4ari gehituta. Jaitsiera horren arrazoia elikagaien salmenten beherakada izan da (-% 4,2, 2021ean izandako -% 3,9ari

II.1.24 KOADROA. AZALERA HANDIKO SALTOKIETAKO ETA ELIKADURA-KATEETAKO MERKATARITZA-INDIZEA. EAE. URTETIK URTERAKO TASAK				
	EGUTEGIAREN ERAGINAK ZUZENDUTA. PREZIO KONSTANTEAK			PERTSONALA LANDUNAK (URTORRIK GABEKO DATUAK)
	INDIZE OROKORRA	SALMENTAK		
		ELIKAGAIK	GAINERAKO PRODUKTUAK	
2019	1,4	1,7	0,8	1,6
2020	3	8,4	-9,5	0,7
2021	-0,4	-3,9	8,6	3,9
2022	-0,2	-4,2	5,8	2,7

Iturria: EUSTAT, Azalera handiko saltokietako eta elikadura kateetako merkataritza-indizea, 2023ko maiatzeko datuak

²⁵ Adierazle ekonomiko koiuntural honetan eta beste batzuetan aintzat hartutako enplegatuen artean, Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espediente (ERTE) bati atxikitako pertsonak daude, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) Methodology of Short Term Business Statistics eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaeren definizioari jarraituz.

²⁶ 2.500 m2-ko edo gehiagoko salmenta azalera duten merkataritza establezimenduak hartzen dira saltoki handitzat, eta elikagai-kate deitzen zaie gutxienez hiru lokal, saltoki handiak barne, halakorik izanez gero, eta 100 langile baino gehiago dituzten enpresa guztiei. Informazioa lurralde historikoen mailan zabaltzen da 2015etik aurrera

gehituta). Aitzitik, gainerako salgaien salmentek % 5,8ko igoera izan zuten, aurreko aldiko % 8,6ari gehitu zaiona. Enpleguak, bestalde, % 2,7ko hazkundera erakusten du 2021aren aldean.

3.6.4. Turismoa eta ostalaritza

Establezimendu turistikoak: hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak

EUSTATen "Establezimendu turistiko hartzaileen inkestak" EAEko hotel-establezimenduen (hotelak eta pentsioak), landa-ostatuak (nekazaritza-turismoak eta landetxeak) eta apartamentu turistikoak okupazioari buruzko informazio estatistikoa ematen du. Honako hauek dira lortutako aldagai nagusiak: bidaiari kopurua, ostatu-gauen kopurua, batez besteko egonaldia eta okupazio mailak, plazaka zein gelaka, eta hotelen sektorearen errentagarritasun adierazleak, hala nola eguneko batez besteko tarifa (ADR) edo gela eskuragarriko diru-sarrerak (REVPAR).

Inkesta horren arabera, 2022an, EAEko establezimendu turistikoetako sarrerak eta ostatu-gauak (hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak) berreskuratu egin dira, 2019an lortutako zifrak gaindituta ere.

Hala, 2022an 3.651.240 sarrera izan ziren, 7.412.752 ostatu-gau guztira. Izan ere, zifra horiek 2019an izandakoak baino % 6,1 eta % 5,6 handiagoak dira, hurrenez hurren.

II.3.25 KOADROA. BIDAIRIAK, OSTATU-GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO MAILA ESTABLEZIMENDU TURISTIKOETAN (hotel-establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak)				
	BIDAIRIAK	OSTATU-GAUAK	EGONALDIA BATEZ BESTE	OKUPAZIO MAILA
2019	3.441.967	7.021.938	2,0	52,3
2020	1.351.804	2.820.063	2,1	30,1
2021	2.376.989	4.886.776	2,1	37,7
2022	3.651.240	7.412.752	2,0	49,3
2022ko aldakuntza 2021aren aldean	53,6	51,7		
2020ko aldakuntza 2019aren aldean	-60,7	-59,8		
Ald. 2021 2021aren aldean	75,8	73,3		
2022ko aldakuntza 2019aren aldean	6,1	5,6		

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta.

Sarreraren % 91,5 eta ostatu-gauen % 86,9 hotel-establezimenduetan egin direnez, xehetasun handiagoz aztertuko ditugu establezimendu horietako jarduerak.

Hotel-establezimenduak

2022an bidaiariaren 3.340.493 sarrera erregistratu ziren, eta guztira 6.442.631 ostatu-gau eragin zituzten. Zifra horiek 2019an izandakoak baino % 4,9 eta % 2,8 handiagoak dira, hurrenez hurren. Sarrera kopuruaren igoera horren arrazoia da atzerritik datozen bidaiariaren kopuruak gora egin duela (% 3,8) 2019aren aldean, eta Estatuko gainerako herrialdeetatik datozenen kopuruak ere gora egin duela (% 4,3). Batez besteko egonaldia 1,9 egunekoa izan zen 2022an, 2019ko 1,97 egunen antzekoa.

Plazen okupazio maila % 53,9koa izan da 2022an, eta gelen okupazio mailaren kasuan % 63,5koa.

II.3.26 KOADROA. HOTEL-ESTABLEZIMENDUETAN ESKAINITAKO BIDAIARIAK, OSTATU-GAUAK, BATEZ BESTEKO EGONALDIA, OKUPAZIO MAILA ETA HOTELEKO PLAZAK

	BIDAIARIEN SARRERAK				OSTATU-GAUAK	OKUPAZIO MAILA		BATEZ BESTEKO EGONALDIA, EGUNETAN
	GUZTIRA	JATORRIA				PLAZEN ARABERA	GELEN ARABERA	
		ESTATUKOA (EAE GABE)	EAE	ATZERRIA				
2019	3.184.904	1.516.708	321.256	1.346.940	6.265.610	57,4	68,4	1,97
2020	1.238.100	664.580	211.616	361.904	2.409.708	0,0	0,0	1,95
2021	2.172.927	1.174.602	361.900	636.425	4.178.716	41,1	48,8	1,92
2022	3.340.493	1.582.624	360.360	1.397.509	6.442.631	53,9	63,5	1,9
ALD. 2020 2019AREN ALDEAN	-61,1	-56,2	-34,1	-73,1	-61,5			
ALD. 2021 2020AREN ALDEAN	75,5	76,7	71,0	75,9	73,4			
ALD. 2022 2019AREN ALDEAN	4,9	4,3	12,2	3,8	2,8			

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta, geuk egina.

2019 eta 2022 bitartean, hotel-establezimenduen kopuruak % 2,3 egin du gora, 603 izatetik 617 izatera igaro da, eguneko eskainitako logelen kopurua % 7,8 igo da eta eguneko eskainitako plazena % 9,3. Bestalde, landunak % 4,6 gutxitu dira. Errentagarritasun-adierazleei dagokienez, eguneko batez besteko tarifa edo gela okupatu bakoitzeko eguneko batez besteko diru-sarrerak²⁷ (ADR-Average Daily Rate) 98,73 eurokoak izan dira 2022an, hau da, % 5,7ko igoera izan da 2019aren aldean, baina gela eskuragarriko batez besteko diru-sarrerak (RevPAR- Revenue Per Available Room) 62,71 eurokoak dira, 2019ko 63,93 euroen azpitik oraindik.

II.3.27 KOADROA. EAEn IREKITAKO HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK, EGUNEKO ESKAINITAKO LOGELAK, ESKAINITAKO PLAZAK, LANDUNAK ETA ERRENTAGARRITASUNA GELA ERABILGARR BAKOITZEKO


	HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK	ESKAINITAKO GELAK EGUNEKO	ESKAINITAKO PLAZAK	ESKAINITAKO PLAZAK EGUNEKO	LANDUNAK	EGUNEKO BATEZ BESTEKO TARIFA GELA BAKOITZEKO (ADR)	EGUNEKO BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERAK GELA BAKOITZEKO (REVPAR)
2019	603	15.351	10.925.615	29.933	4.388	93,44	63,93
2020	600	10.387	7.356.784	20.101	2.632	73,1	29,98
2021	601	14.223	10.177.125	27.883	3.099	84,56	41,27
2022	617	16.547	11.944.140	32.724	4.184	98,73	62,71
2022ko aldakuntza 2019aren aldean	2,3	7,8	9,3	9,3	-4,6	5,7	-1,9

Iturria: EUSTAT, Establezimendu turistikoko hartzaileen inkesta.

II.3.12 GRAFIKOAN hotel-establezimenduetan ostatu hartutako bidaiarien kopuruaren bilakaera zehazten da, taldeak zehaztuz eta EAekoak direnak bereiziz. Ikus daitekeenez, 2021etik 2022ra bitartean atzerritik etorritako bidaiariak 636 mila izatetik 1.398 mila izatera igaro dira (+% 119,6), Estatutik etorritakoak 1.175 mila izatetik 1.583 mila izatera igaro dira (+% 34,7) eta EAekoak 362 mila izatetik 360 mila izatera (-% 0,4). Kasu guztietan gaintu dira 2019an erregistratutako balioak.

²⁷ Bainugela duen logela bikoitz bati aplikatzen zaio, ostatu bakoitzeko, beste edozein zerbitzu edo zerga kenduta.

II.3.12 GRAFIKOA. EAEko ESTABLEZIMENDUETAN SARTUTAKO BIDAIARIEN BILAKAERA, JATORRIAREN ARABERA.



Iturria: EUSTAT

3.6.5. Finantza sektorea

Espainiako Bankuaren "Estatistika Buletinaren" arabera, 2022an, Japoniako Bankuak izan ezik (-% 0,1ean eutsi zion bere esku-hartze tasari), bai Europako Banku Zentralak bai AEBko Erreserba Federalak egun batera igo zituzten beren esku-hartze tasak 2021etik 2022ra bitartean, Europako Banku Zentralak % 2,5eraino eta Erreserba Federalak % 4,5era iritsi arte.

Euroguneko moneta-merkatuko

interes-tasei dagokienez (gordailuak), positiboak dira urteko batez bestekoan, epe guztietan; zehazki, 2022ko abenduan, Euriborra honela kokatzen da: hilabetera +% 1,72; 3 hilabetera +% 2,06; sei hilabetera +% 2,56 eta urtebetera +% 3,2.

Finantza-erakundeetan jarritako gordailuen analisiak, Espainiako Bankuaren "Aldizkari Estatistikoaren" datuen arabera, erakusten du administrazio publikoen jabetzapekoen guztizko saldoa 9.839 milioi eurokoa izan zen EAEn 2022 amaizean. Kopuru horrek % 5,3ko igoera ekarri dio urteko tasari, eta % 10,3 dira Estatuko gordailuetan. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 87.806 milioi eurokoa izan zen, hau da, horien balioak % 1,1eko igoera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean, eta % 6,2ko ratioa estatuko guztizkoaren gainean.

Sektore pribatuko gordailuen modalitateak aztertuta (agerikoa, eperakoa eta aktiboen aldi baterako lagapena (AAL), gordailu guztien % 82,7 ageriko gordailuak dira, % 6,4 eperako gordailuak eta % 0,8 AALei dagozkie. Ageriko gordailuek gora egiten jarraitzen duten bitartean, neurri txikiagoan bada ere (+% 3,2, eta aurreko urtean, aldiz, +% 5,6), eperako gordailuek behera egiten jarraitzen dute.

II.3.28 KOADROA. MONETA-MERKATUKO ESKU-HARTZE MOTAK ETA INTERES-TASAK

	ESKU-HARTZE MOTA (*)				DIRUZKO MERKATUAREN EUROGUNeko INTERES-TASAK. GORDAILUAK. EURIBORRA			
	EDB	AEB	JAPONI A	ERRES UMA BATUA	HILAB ETERA	3 HILABE TERA	6 HILABE TERA	URTEB ETERA
2019	0,00	1,75	-0,10	0,75	-0,40	-0,36	-0,30	-0,22
2020	0,00	0,25	-0,10	0,10	-0,50	-0,43	-0,36	-0,30
2021	0,00	0,25	-0,10	0,25	-0,56	-0,55	-0,52	-0,49
2022	2,50	4,50	-0,10	3,50	0,09	0,34	0,67	1,09
2022ko IV. hiruhilekoa					1,35	1,77	2,29	2,83
2022ko abendua					1,72	2,06	2,56	3,02
* Aldiaren amaierako datuak								
Iturria: Espainiako Bankuaren Estatistika Buletina								

II.3.29 KOADROA. SEKTORE PRIBATUAK ETA ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN GORDAILU-ENTITATEETAN DITUZTEN GORDAILUAK (XII-31ko SALDOAK)										
	EAE								ESTATUA M€	EAEKO % ESTATU- KO GUZTIZ- KOAREN GAINEAN 2022
	EUROAK, MILIOITAN					BANAK ETA (% BERT.)	ALDAKUNTZA (%)			
	2018	2019	2020	2021	2022		2020-21	2021-22		
Pribatua eta publikoa guztira	81517	86.935	91.862	96.160	97.644	100	4,7	1,5	1.506.442	6,5
Sektore publikoa guztira	4407	4.800	6.102	9.345	9.839	10,1	53,1	5,3	95.644	10,3
Sektore pribatua (BSE) guztira	77110	82.135	85.759	86.815	87.806	89,9	1,2	1,1	1.410.799	6,2
Ageriko gordailuak	60083	66.238	74.079	78.243	80.775	82,7	5,6	3,2	1.293.586	6,2
Eperako gordailuak	15061	13.030	10.405	7.637	6.243	6,4	-26,6	-18,3	104.673	6,0
AAL	1967	2.868	1.275	935	788	0,8	-26,7	-15,7	12.541	6,3

Iturria: Espainiako Bankua. Aldizkari estatistikoa. Geuk egina

Espainiako Bankuaren "Estatistika Buletinaren" datuen arabera, finantza-erakunde monetarioek EBU bizi diren etxeko unitateei ematen dieten interes-tasa 2021etik 2022ra igo da kontsumorako kredituen kasuan, % 5,83tik % 6,37ra, eta etxebizitzarako kredituen kasuan, % 1,60tik % 2,33ra.

EAEn, gordailu-erakundeek administrazio publikoen eta beste sektore egoiliar batzuen aurrean emandako kredituaren saldo bizia % 0,5 jaitsi da (70.253tik 69.903 M€-ra). Beherakada hori administrazio publikoari (-% 0,7) eta sektore pribatuari (-% 0,5) emandako kredituaren saldoaren jaitsierak eragin du. Azken hori guztizkoaren % 86,6 da.

II.3.30 KOADROA. DIRUZKO FINANTZA-ERAKUNDEEK EUROGUNEN SEKTORE EGOILIARREI APLIKATUTAKO INTERES-TASA (ERAGIKETA BERRIAK)		
	ETXEEI (URTEKO TASA BALIOKIDEA)	
	KONTSUMORAKO KREDITUA	ETXEBIZITZA EROSTEA
2019	6,24	1,92
2020	5,82	1,67
2021	5,83	1,60
2022	6,37	2,33


Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

II.3.31 KOADROA. GORDAILU ENTITATEEK SEKTORE PUBLIKOARI ETA PRIBATUARI EMANDAKO KREDITUA (saldoak 12/31n).										
	EUROAK, MILIOITAN						BANAKETA EAE 2022	ESTATUA 2022	ESTATUAR EN GAINEKO %	2021-22 ALDAKUNTZA (%)
	2017	2018	2019	2020	2021	2022				
Guztira	70.862	68.467	68.515	70.155	70.253	69.903	100,0	1.246.574	5,6	-0,5
Administrazio publikoak	6.612	7.148	7.618	8.150	9.437	9.369	13,4	79.811	11,7	-0,7
Sektore Pribatua (BSE)	64.250	61.319	60.897	62.005	60.816	60.533	86,6	1.166.763	5,2	-0,5

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa.

Beste sektore egoiliar batzuei etxebizitza erosteko hipoteka-bermedun kreditu-saldoei dagokienez, Espainiako Bankuak Estatu osorako emandako datuen arabera (ez dago daturik autonomia-erkidegoen mailan), % 0,1 jaitsi da aurreko urtearen aldean, 487.146 milioi eurotik 486.890 milioi eurora.

II.3.13 GRAFIKOA. ETXEBIZITZA EROSTeko BERMEA DUTEN KREDITUAK ESTATUAN (IV. hiruhilekoa).



Iturria: Espainiako Bankua.

Bestalde, Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren datuek (ENiren "Hipoteken Estatistika" n argitaratu dira) adierazten dutenez, EAEn hipoteka kopurua eta hipotekatutako finkaren batez besteko zenbatekoa hazi egin dira 2021etik 2022ra bitartean, % 5,6 eta % 6,3, hurrenez hurren. Hipotekatutako finkaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa 177.604 eurora iristen da.

Hipoteka kopuruaren hazkunde hori hiri-finken gaineko hipoteken gorakadak (+% 5,9) eragin du, landa-finken gaineko hipoteken kopuruak behera egin baitu (-% 12).

Etxebizitzen gaineko hipoteken kopurua % 8,6 igo da eta etxebizitza hipotekatuaren gainean mailegatutako batez besteko zenbatekoa % 1,9 igo da, 157.304 eurotik 160.310 eurora.

II.3.32 KOADROA. LANDA-FINKEN ETA HIRI-FINKEN HIPOTEKAK EAEn

	2020			2021			2022 bb			ALDAKUNTZA		
	Kopurua	Zenbatekoa (euroak, milakotan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kop.	Zenbatekoa (euroak, milakotan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	Kop.	Zenbatekoa (euroak, milakotan)	Batez besteko zenbatekoa (€)	2021-22		
										Kop.	Zenbatekoa	Zenbatekoa batez beste
HIPOTEKAK GUZTIRA	25885	4.237.071	163.688	28.026	4.944.114	176.412	29.602	5.257.424	177.604	5,6	6,3	0,7
Landa-finkak	449	73.606	163.933	475	84.119	177.093	418	80.444	192.450	-12,0	-4,4	8,7
Hiri-finkak	25.436	4.163.465	163.684	27.551	4.859.995	176.400	29.184	5.176.980	177.391	5,9	6,5	0,6
Etxebizitzak	19.252	2.847.888	147.927	21.098	3.318.808	157.304	22.905	3.671.896	160.310	8,6	10,6	1,9
Orubeak	324	420.160	1.296.790	363	610.980	1.683.140	366	558.074	1.524.792	0,8	-8,7	-9,4
Beste hiri-finka batzuk	5.860	895.417	152.802	6.090	930.207	152.743	5.913	947.010	160.157	-2,9	1,8	4,9

bb: behin-behinekoa.

Iturria: INE Hipoteken Estatistika (Jabetza, Merkataritza eta Ondasun Higigarrien Erregistratzaileen Espainiako Elkargoa)

Burtsari dagokionez, Espainiako Bankuaren “Estatistika Buletinaren” arabera, IBEX-35 indizeak % 5,6 egin zuen behera 2021eko abendutik 2022ko abendura bitartean.

Madrilgo Burtsaren urteko batez besteko kapitalizazioa, 620.552 milioi 2022an, % 9,4 jaitsi da aurreko urtearen aldean eta batez besteko kontratazio bolumena, 362.602 milioi euro, % 4,1 jaitsi da.

II.3.33 KOADROA. BALOREEN BIGARREN MAILAKO MERKATUA. MADRILGO BURTSA			
	IBEX 35 Abendua	KAPITALIZAZIOA (sozietate egoiliarak, milioi euroak)	KONTRATAZIO- BOLUMENA (euroak, milioitan)
2018	8.539,9	630.628	587.203
2019	9.549,2	709.648	469.732
2020	8.073,7	620.715	425.170
2021	8.713,8	684.820	378.141
2022	8.229,1	620.552	362.602
2021-22 ald.	-5,6	-9,4	-4,1

Iturria: Espainiako Bankua. Buletin Estatistikoa

Bestalde, Bilboko Burtsaren 2000 Indizeak 1.310,5 puntu izan zituen 2022ko abenduan, hau da, % 6,2 jaitsi zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta.

Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak), 2022an, 64.979,2 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 22 jaitsi egin zen 2021aren aldean.

II.3.34 KOADROA. BILBOKO BURTSA		
	Burtsaren indizea XII/31n (2000ko oinarria 1999/12/31n)	KONTRATAZIO-BOLUMENA (euroak, milioitan)
2018	1.330,1	112.921,6
2019	1.485,4	88.089,1
2020	1.291,2	96.625,4
2021	1.397,4	83.264,7
2022	1.310,5	64.979,2
2021-22 ald.	-6,2	-22

Iturria: Bilboko Burtsa.

ITURRIAK

1. **ESPAINIAKO BANKUA.** Estatistika buletina. 2022ko datuak.
2. **BILBOKO BURTSA** Datuen eskaera. 2022.
3. **EUROSTAT.** Datu-basea 2022.
4. **EUSTAT.** Ekonomia Kontuak. 2022.
5. **EUSTAT.** Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda (JEGID). 2022.
6. **EUSTAT.** Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta. 2022.
7. **EUSTAT.** Industria Estatistika 2021.
8. **EUSTAT.** Enpresen sorrerari eta galerari buruzko estatistika 2022.
9. **EUSTAT.** Eraikuntzaren Koiuntura Indizea (EKI) 2022.
10. **EUSTAT.** Azalera handiko saltokietako eta elikadura-kateetako merkataritza-indizea. 2022.
11. **EUSTAT.** Eraikuntza kostuen indizea. 2022.
12. **EUSTAT.** Industriako Prezioen Indizea. 2022.
13. **EUSTAT.** Produkzio Industrialaren Indizea. 2022.
14. **EUSTAT.** Txikizkako merkataritzaren salmenten indizea. 2022.
15. **EIN.** Eskualde-kontabilitatea. 2022.
16. **EIN.** Hipoteken estatistika. 2022.
17. **EIN.** IPI. 2022.
18. **EKONOMIA GAIETAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO MINISTERIOA.** *Adierazle ekonomikoen laburpena. Taulak eta grafikoak. 2022ko otsaila. 2022ko datuak.*

4. SEKTORE PUBLIKOA

COVID-19aren ondoriozko krisiak 2020an eragin handia izan du EAEko finantza publikoetan, eta 2021ean nabarmen suspertu ziren (2022an ere susperraldi nabarmena izaten ari dira), hurrengo orrialdeetan ikusiko dugun bezala. Bertan, erreferentziako urteko sektore publikoari buruzko zifra nagusiak aurkezten dira, diru-sarrerara, gastu eta aurrekontu-saldoei dagokienez, baita zorpetzearen eta EAEko administrazio-mailen arteko transferentzien bilakaera ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak emandako informazioan eta EUSTATen estatistiketan oinarrituta. Halaber, berrikuntza legez, Herri Administrazioetako enpleguari buruzko azken atala sartu da.

Lehenik eta behin, nabarmentzekoa da 2022an diru-sarrerara publikoak % 2,5 jaitsi direla, aurreko ekitaldiko +% 11,7aren aldean, zerga-bilketaren hazkunde txikiaren (+% 7,3 zerga itunduak; 2021ean +% 14,4 izan ziren) eta zorpetzearen beherakada handiaren ondorioz (-% 67,1). Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren gastuak % 7,7 igo dira (2021. urtean +% 7,6).

Diru-sarreraren eta gastuaren bilakaeraren ondorioz, aurrezki publikoa % 1,5 jaitsi da (BPGd-aren % 2,5), eta 2021eko superabita (1.000 milioi euroak gainditu zituen) 596,6 milioi euroko superabitean geratu da, hau da, EAEko 2022rako zenbatetsitako BPGd-aren % 0,7.

Superabit horrek 76 milioi euroko defizit txiki batean bilakatu da (BPGd-aren % 0,1) (2021eko % 0,87ko superabitaren aurrean), baldin eta Ogasun Ministerioaren eskualdeko administrazioen berrorekarako plan ekonomiko-finantzarioetatik ondorioztatzen den defizitaren kalkulua kontuan hartzen badugu (EAEko Administrazio Orokorraz gain, erakunde autonomoen, LANBIDEn eta Osakidetzaren zifrak hartzen dituzte kontuan). Hori da EBko erakundeei buruzko erreferentzia, EBk ezarritako helburuen jarraipena egiteko.

II.4.1. KOADROA. EAE-KO SEKTORE PUBLIKOA ERREFERENTZIAZKO ADIERAZLEAK.					
	ZERGA ITUNDUENGATIKO BILKETAREN BARIAZIOA %	ESPren AURREKONTUKO SALDOA BPGd-AREN GAINEAN		ESPren* ZORPETZEA	
		AURREZPEN GORDINA	SUPERABITA / DEFIZITA	ALDAKUNTZA (%)	% S/BPGd
2017	11,8	2,1	0,6	2,3	15,5
2018	3,5	2,6	1,1	-0,2	14,7
2019	3,3	2,4	0,9	-6,1	13,4
2020	-9,8	0,7	-0,8	15,3	17,1
2021	14,4	2,7	1,3	7,0	16,8
2022	7,3	2,5	0,7	-3,2	15,0

* Zor bizia epealdiaren amaieran.
Iturria: EUSTATen eta Eusko Jaurlaritzaren datuekin landutakoa.

Bestalde, EAEko sektore publiko osoaren (kanpoan utzitako toki-erakundeak) zorpetze garbia negatiboa izan da 2022an, hau da, amortizazioa handiagoa da zor berriaren jaulkipena baino. Zehazki, -422,8 milioi eurora iritsi da, 2021ean ordea +856,3 milioi eurora iritsi zen.

4.1. DIRU-SARRERAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu Betearazpenari buruzko Estatistikaren" datuen arabera, 2022an Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru aldundiek likidatutako guztizko diru-sarrerak 19.773,8 milioi euro izan dira, eta % 2,5eko jaitsiera izan dute aurreko urtearekin alderatuta (+% 11,7 izan zen 2021ean); izan ere, zuzeneko eta zeharkako zergen bidez bildutako diru-kopuruak gora egin badu ere (+% 7,3 eta +% 10,5, hurrenez hurren), transferentzia arruntek % 57,6 egin dute behera. Aurreko urteko joera berari jarraituz, pasibo finantzarioek % 67,1eko beherakada izan dute (2021ean baino zorpetze txikiagoa, ekitaldi horretan % 29,8 jaitsi baitzen). Zorpetzearen beherakada hori Eusko Jaurlaritzaren finantzetan (-% 57,6) eta foru-aldundienetan (-% 85,4) gertatu da.

Diru-sarreraren igoera Foru Aldundietan bakarrik gertatu da, % 3,7 hazi baitira. Eusko Jaurlaritzan, ordea, % 2,9 jaitsi dira, eta agregatua, esan bezala, -% 2,5.

Balantze gisa, Euskal Sektore Publikoak Erkidegoko BPGd-arekiko dituen diru-sarreraren multzoa, 2021ean % 26 zena, 2,7 puntu jaitsi da 2022an, % 23,3ra arte (behin-behineko datuak), BPGd-a diru-sarrerara publikoak baino proportzio handiagoan hazi baita (+%8,9 termino arruntetan, behin-behineko datuen arabera).

II.4.2. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA. EUROAK, MILAKOTAN.									
	2021			2022			2021/22 ALD. %		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Zuzeneko zergak	-	7.794.880	7.794.880	-	8.362.820	8.362.820	-	7,3	7,3
Zeharkako zergak	3.149	8.152.068	8.155.217	3.757	9.007.874	9.011.631	19,3	10,5	10,5
Tasak eta bestelako diru-sarrerak	168.735	242.185	410.920	233.498	180.778	414.276	38,4	-25,4	0,8
Ohiko transferentziak	12.044.566	593.171	1.661.678	12.033.847	382.771	704.691	-0,1	-35,5	-57,6
Ondare-sarrerak	1.756	3.425	5.190	164	9.501	9.665	-90,7	177,4	86,2
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZTIRA	12.218.215	16.785.729	18.027.884	12.271.266	17.943.744	18.503.083	0,4	6,9	2,6
Inbertsio errealen bester.	2.866	5.223	8.088	981	2.057	3.038	-65,8	-60,6	-62,4
Kapital-transferentziak	341.598	49.867	388.209	606.786	72.731	649.161	77,6	45,8	67,2
KAPITAL-ERAGIKETAK, GUZTIRA	344.464	55.090	396.297	607.767	74.788	652.199	76,4	35,8	64,6
Finantza-aktiboen aldakuntza	73.533	2.928	76.461	29.063	2.869	31.931	-60,5	-2,0	-58,2
Finantza-pas. ald. (zorra)	1.165.110	617.140	1.782.250	496.615	90.000	586.615	-57,4	-85,4	-67,1
FINANTZA-SARRERAK, GUZTIRA	1.238.643	620.068	1.858.711	525.678	92.869	618.546	-57,6	-85,0	-66,7
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	13.801.322	17.460.887	20.282.893	13.404.711	18.111.401	19.773.828	-2,9	3,7	-2,5
SARREREN % / BPGd-a	17,7	22,4	26,0	15,8	21,3	23,3			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

Zerga itunduen ziozko bilketa 2022an:

Zerga itunduek zuzeneko eta zeharkako diru-sarrera gehienak osatzen dituzte, eta guztizkoaren % 90 baino gehiago, eta 2022rako 17.130,7 milioi euro bildu dituzte, hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 7,3 gehiago. Zifra horiek aurreikuspen baikorrenak gainditzen dituzte, pandemiaren aurrekoak baino askoz erregistro historiko handiagoekin (2019an baino 1.661,1 milioi gehiago bildu dira). Errekor hori, neurri handi batean, inflazioaren gorakadak bultzatu zuen, urtearen erdialdean bereziki.


II.4.3. KOADROA. FORU ALDUNDIAK: ITUNDUTAKO ZUZENENKO ETA ZEHARKAKO ZERGENGATIKO DIRU-SARREREN LIKIDAZIOA EUROAK, MILAKOTAN								
	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		FFAA, GUZTIRA	
	ZUZENENKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENENKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENENKOAK	ZEHARKAKOAK	ZUZENENKOAK	ZEHARKAKOAK
2018	1.158.369	1.234.852	3.860.775	3.813.991	2.273.296	2.521.752	7.292.440	7.570.595
2019	1.146.601	1.293.223	3.919.587	4.009.178	2.340.954	2.650.369	7.407.142	7.952.770
2020	1.087.581	1.097.749	3.663.987	3.406.507	2.348.744	2.268.229	7.100.312	6.772.485
2021	1.165.410	1.313.878	3.996.277	4.084.205	2.573.653	2.738.253	7.735.340	8.136.336
2022	1.305.306	1.412.711	4.377.693	4.426.005	2.626.392	2.946.662	8.309.391	8.785.378
19/20 (%)	-5,1	-15,1	-6,5	-15	0,3	-14,4	-4,1	-14,8
20/21 (%)	7,2	19,7	9,1	19,9	9,6	20,7	8,9	20,1
21/22 (%)	12,0	7,5	9,5	8,4	2,0	7,6	7,4	8,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Ekonomia eta Ogasun Saila.

Biak hazi diren arren, 2022an zeharkako zergen portaera hobea izan da (+% 8) zuzenekoarena baino (+% 7,4). Bilakaera hori ez da berdina gure erkidegoko hiru lurraldeetan; izan ere, Araban eta Bizkaian zuzeneko zergen bidezko bilketak portaera hobea du zeharkakoek baino (ikus II.4.3 taula). Laburbilduz, Bizkaian 8.803,7 milioi euro bildu ziren (guztizkoaren % 51,5, 2021ean baino % 9 gehiago), Gipuzkoan 5.573,1 (guztizkoaren % 32,6, +% 4,9) eta Araban 2.718 milioi (bilketaren % 15,9, +% +9,6).

Zuzeneko zergapetzean (+% 7,4), pisurik handiena PFEZak du, % 6,3 hazi baita. Beste ekitaldi batzuetan bezala, laneko atxikipenengatiko diru-sarreraren bilakaera bikainak aurrera egiteko elementu erabakigarria izaten jarraitzen du, hain zuzen ekonomia suspertzearen ondorioz enplegua berreskuratu delako (Gizarte Segurantzako afiliazio-altak handitu dira). Sozietateen gaineko zergak ere hazkunde nabarmena izan du (+% 17), baita susperraldi ekonomikoak ere, prezioen bilakaera positiboaren ondorioz.

Zeharkako zergen atalean (+ %8), BEZagatiko diru-sarrerek (+% +10,6), sozietateen gaineko zergaren kasuan bezala, prezioen igoerak bilketan duen eragina nabaritzen dute. Gainera, goranzko joerari eutsi zaio kontsumoari dagokionez, susperraldi ekonomikoaren adierazle gisa, eta 2020an pandemiak mugikortasunean eragindako mugak desagertu ondoren hasi zen joera hori.



Azkenik, **zerga bereziak** % 10,1 jaitsi dira 2021arekin alderatuta. Bilketaren murrizketa, batez ere, energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zergaren murrizketa handiak eragin du, horren bilketa % 97,4 murriztu baita.

II.4.4. KOADROA. EAE-KO FORU ALDUNDIETAKO ZERGA ITUNDUETATIK BILDUTAKOAK (EUROAK, MILAKOTAN).

	EAE 2021	2022				20/21 ALD. %	21/22 ALD. %
		AFA	BFA	GFA	EAE		
ZUZENEKO ZERGAK	7.735.340	1.305.306	4.377.693	2.626.392	8.309.391	8,9	7,4
PFEZa	6.114.393	993.325	3.367.781	2.136.592	6.497.698	8,2	6,3
SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA	1.155.151	257.350	757.063	336.854	1.351.267	10,8	17,0
EZ EGOILEEN ERRENTA GN. ZERGA	62.212	10.667	81.674	16.123	108.464	22,5	74,3
OINORDETZAK ETA DOHAINTZAK	179.944	17.579	76.077	59.097	152.753	47,3	-15,1
ONDAREAREN GAINEKO ZERGA	171.456	21.832	79.480	68.423	169.734	-3,2	-1,0
Kreditu-entitateetako gordailuen gaineko zerga	27.509	4.196	15.484	9.155	28.835	-0,4	4,8
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	24.673	357	135	149	641	-17,1	-97,4
ZEHARKAKO ZERGAK	8.136.336	1.412.711	4.426.005	2.946.662	8.785.378	20,1	8,0
BEZa	6.256.924	1.118.497	3.487.688	2.315.205	6.921.389	21,2	10,6
- BEZ, berezko kudeaketa	4.152.038	680.440	2.121.744	1.408.461	4.210.645	17,5	1,4
- BEZaren doiketa	2.104.886	438.056	1.365.944	906.744	2.710.744	29,2	28,8
OEZ	182.440	23.711	83.712	71.059	178.482	29,9	-2,2
EJZ	40.945	7.680	23.090	14.590	45.360	14,3	10,8
GARRAIOAREN Z.B.	20.279	4.082	12.774	7.957	24.813	26,2	22,4
FABRIKAZIOAREN GAINEKO ZERGA BEREZIAK, GUZTIRA	1.521.390	220.927	688.893	457.303	1.367.123	14,6	-10,1
ASEGURUEN PRIMEN Z.	104.638	16.117	61.088	35.253	112.458	31,2	7,5
TASAK ETA BESTELAKO DIRU-SARRERAK	91.533	11.140	-224	25.031	35.948	19,7	-60,7
JOKO TASAK	29.955	5.639	23.359	11.759	40.758	11,9	36,1
ERREKARGUAK, BERANDUTZAK ETA ZEHAPENAK	61.579	5.501	-23.583	13.272	-4.810	24	-107,8
ZERGA ITUNDUAK GUZTIRA	15.963.209	2.729.157	8.803.474	5.598.085	17.130.717	14,4	7,3

Iturria: Ekonomia eta Ogasun Saila. EUSKO JAURLARITZA.

Bilakaera horren ondorioz, zuzeneko zergen bidezko bilketa, 2022an, guztizkoaren % 48,5 da, eta zeharkakoena, berriz, % 51,3 (tasen eta beste diru-sarrera batzuen % 0,2). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, zuzeneko zergak bere horretan jarraitu du, eta zeharkakoak ehuneko 0,3 puntu irabazi ditu.

Labur adieraztearren, bildutako bolumena 17.130,7 milioi eurokoa da. Zenbateko hori, behin-behineko datuen arabera, EAEko BPGd arruntaren % 20,2 izan da 2022. urtean (2021ean % 20,5). Bildutako guztiaren % 37,9 PFEZari dagokio, % 40,4 BEZari (kudeaketa propioa, eta barne eragiketengatiko eta aduanengatiko doikuntza), % 7,9 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 13,8a, zenbait zerga bereziri.

II.4.5. KOADROA. ZERGA NAGUSIEN BILKETAREN BILAKAERA, BPGd-aren GAINEKO EHUNEKOAN. EAE.				
	PFEZa	SOZIETATEEN Z.	BEZa	GUZTIRA
2014	6,6	1,7	7,2	18,6
2015	6,8	1,5	7,2	18,4
2016	6,8	1,4	7	18,2
2017	7	1,5	8,2	19,6
2018	7,1	1,9	7,6	19,6
2019	7,2	1,6	7,6	19,5
2020	7,9	1,5	7,2	19,4
2021	7,8	1,5	8	20,5
2022*	7,6	1,6	8,1	20,2

*Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN eta EUSTATen datuak erabiliz egina.
* Behin-behineko datuak.*

II.4.6. KOADROA. URTEKO BILAKAERAREN AZTERKETA ETA EAE-KO FORU ALDUNDIEK ZERGA ITUNDUEN BIDEZ BILDUTAKO 2007. URTEKO (OINARRIZKO URTEA) EMAITZEKIN ALDERATZEA:									
	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ZENBATEKOA (EUROAK, MILAKOTAN)									
Zuzeneko zergak	5.864.350	5.958.577	6.168.926	6.615.897	7.292.440	7.407.142	7.100.312	7.735.340	8.309.391
Zeharkako zergak	6.351.443	6.538.776	6.661.099	7.751.233	7.570.595	7.952.770	6.772.485	8.136.336	8.785.378
Tasak eta beste batzuk	103.970	115.277	120.701	106.798	118.510	109.675	76.453	91.533	35.948
ZERGA-BILKETA	12.319.763	12.612.630	12.950.926	14.473.928	14.981.545	15.469.587	13.949.250	15.963.209	17.130.717
URTEKO ALDAKUNTZA (%)									
Zuzeneko zergak	1,2	1,6	3,5	7,2	10,2	1,6	-4,1	8,9	7,4
Zeharkako zergak	8,7	2,9	1,9	16,4	-2,3	5	-14,8	20,1	8,0
Tasak eta beste batzuk	-8,5	10,9	4,7	-11,5	11	-7,5	-30,3	19,7	-60,7
ZERGA-BILKETA	4,8	2,4	2,7	11,8	3,5	3,3	-9,8	14,4	7,3
(2007=100)									
Zuzeneko zergak	87,4	88,8	92	98,6	108,7	110,4	105,9	115,3	123,9
Zeharkako zergak	91,4	94,1	95,9	111,6	109	114,5	97,5	117,1	126,5
Tasak eta beste batzuk	87,8	97,3	101,9	90,2	100	92,6	64,5	77,3	30,3
ZERGA-BILKETA	89,5	91,6	94	105,1	108,8	112,3	101,3	115,9	124,4

Iturria: Ogasun eta Ekonomia Sailaren datuekin Ogasuna EUSKO JAURLARITZA.

II.4.7. KOADROA. GASTU FISKALAK EAE-N ZERGA ITUNDUENGATIK. EUROAK, MILAKOTAN.							
	2017	2019	2020				2019/20 ALD. %
			ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE	
PFEZa	1.804.546	1.931.483	293.410	1.036.169	682.119	2.011.701	4,2
Sozietateen zerga	448.121	455.868	66.520	231.395	153.008	450.924	-1,1
Ondarearen Z.	175.801	235.635	33.014	109.553	89.254	231.821	-1,6
ZUZENEKO ZERGA GUZTIRA	2.428.468	2.622.985	392.944	1.377.117	924.381	2.694.446	2,7
BEZa	3.312.977	3.355.884	541.719	1.677.764	1.110.074	3.329.557	-0,8
OEEJDZ	136.861	169.868	43.737	24.436	40.134	108.307	-36,2
Garraioaren Z.B.	4.373	5.095	619	1.130	3.527	5.277	3,6
Fabrikazioko ZZ.BB.	173.302	198.580	38.638	119.661	79.173	237.470	19,6
Elektrizitatearen Z.	1.732	1.658	165	511	338	1.014	-38,8
Aseguruen primen Z.	25.718	27.362	4.444	13.763	9.110	27.318	-0,2
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	3.654.963	3.758.446	629.322	1.837.265	1.242.356	3.708.943	-1,3
GUZTIRA	6.083.431	6.381.431	1.022.266	3.214.382	2.166.737	6.403.389	0,3

Iturria: ZERGA KOORDINAZIOKO ORGANOKO oinarrituta egina.

Diru-sarreraren murriztapena dakarten partidei dagokienez, aurrekontuaren arabera 2020rako **gastu fiskala**²⁸—urte hori baita informazio zehatza ematen duen azkena— (hau da, beren zergetan eta foru aldundien ekarpenetan kontabilizatutako zergetan eragina duten onura fiskalen zenbatekoak: salbuespenak, gastu kengarriak, murriztapenak, kenkariak, hobariak, atzerapenak eta abar izan daitezkeenak) 6.403.4 milioi eurokoa izan da, aurreko urtean baino % 0,3 gehiago, hau da, diru-sarrera teorikoen % 35 (aurrekontuan sartutako diru-sarrerak eta gastu fiskalak). Gastu

²⁸ Gastu fiskalaren kontzeptuak ogasun-doktrinaren barruan definizio argirik eta eskuarki onarturik ez badu ere, gastu fiskalen aurrekontua honela defini daiteke: politika ekonomiko eta sozialeko helburu jakin batzuk lortzera bideratutako onura fiskalak aplikatzearen ondoriozko zerga-sarreraren murrizketaren aurreikuspenaren kuantifikazioa. ELGAK honela definitzen ditu: zergaren egitura "normalaren" edozein desbideratze. Ohikoena eta erabilienak zerga-oinarriaren murrizketak eta kuotaen kenkariak dira.

fiskalen % 43,8 (2.802,7 milioi) araudi autonomoko zerga itunduei: PFEZ, sozietateen gaineko zerga, ondarearen gaineko zerga (aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga Gipuzkoan) eta AJD.

4.2. GASTUAK

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren "Aurrekontu Betearazpenari buruzko Estatistika"ren arabera, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua (tokiko erakundeak alde batera utzita) 20.064,4 milioi eurokoa izan da 2022an, eta % 7,7 igo da 2021aren aldean, aurreko urteko +% 7,6aren aldean. Hala, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gainean duen ehuneko hiru hamarren murriztu da, % 23,9tik % 23,6ra, BPGd-aren bilakaera dela eta (% 8,9 hazi da uneko terminoetan, behin-behineko datuen arabera).

Gastuaren susperraldia bai Eusko Jaurlaritzan (+% 7,9) bai foru aldundietan (+% 7,1) gertatu da, eta +% 7,7ko agregatuaren aldakuntza gertatu da, partida batzuk erakundeen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat, adibidez).

II.4.8. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN GASTUEN LIKIDAZIOA. EUROAK, MILAKOTAN.

	2021			2022			2021/22 ald. %		
	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP	EJ	FF.AA.	ESP
Langile-gastuak	2.359.681	413.499	2.773.180	2.500.247	430.505	2.930.752	6,0	4,1	5,7
Funtzionamendu-gastuak	4.226.198	640.018	4.866.216	4.373.027	676.899	5.049.926	3,5	5,8	3,8
Finantza gastuak (interesak)	147.559	28.540	176.100	141.459	32.969	174.428	-4,1	15,5	-0,9
Ohiko transferentziak	4.178.518	14.895.801	8.098.260	4.239.098	15.737.538	8.264.609	1,4	5,7	2,1
ERAGIKETA ARRUNTAK, GUZTIRA	10.911.957	15.977.858	15.913.755	11.253.831	16.877.911	16.419.715	3,1	5,6	3,2
Inbertsio errealak	196.296	307.879	504.175	185.122	333.848	518.970	-5,7	8,4	2,9
Kapital-transferentziak	751.650	216.997	965.391	1.156.681	493.687	1.620.011	53,9	127,5	67,8
KAPITAL-ERAGIKETA, GUZTIRA	947.946	524.877	1.469.566	1.341.803	827.535	2.138.981	41,5	57,7	45,6
Finantza-aktiboen aldakuntza	190.014	128.587	318.600	380.023	116.295	496.318	100,0	-9,6	55,8
Finantza pasib. aldak. (zor amort.)	668.066	257.895	925.961	746.218	263.203	1.009.421	11,7	2,1	9,0
FINANTZA GASTUAK GUZTIRA	858.079	386.482	1.244.561	1.126.241	379.498	1.505.739	31,3	-1,8	21,0
GASTUA, GUZTIRA	12.717.982	16.889.216	18.627.882	13.721.875	18.084.944	20.064.435	7,9	7,1	7,7
% LIKIDATUTAKO GASTUA / BPGd-a	16,3	21,7	23,9	16,1	21,3	23,6			

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika.

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetak aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero.

Lehenik eta behin, langile-gastuek aurreko urteetako joera positiboari eutsi diote, eta 2021ean baino gehiago hazi dira (+% +5,7, aurreko urtean baino 0,9 puntu gehiago), eta proportzio txikiagoan aldundietan (+% 4,1) gobernuan baino (+% 6), eta, aldi berean, transferentzia arruntak finkatu dira, baina aurreko urteetan baino neurri txikiagoan (+% +2,1, 2021ean baino 6,4 puntu gehiago). Funtzionamendu gastuek (ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokionez), aurreko urteetako joerari eutsi diote, eta 2021ean baino proportzio txikiagoan hazi dira (+% 3,8ko igoera izan dute, 2021ean, ordea, +% 6,5 hazi zen).

II.4.9. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN GASTU BATERATUA URTEKO HAZKUNDE-TASAK INTERESEKO PARTIDETAN

	LANGILEAK	FUNTZIONA-MENDUA	TRANSF. ARRUNTAK	INBERTSIO ERREALAK	ZORPETZEA	INTERESAK ZORRA	GUZTIRA
2012	-6,4	-2,2	-6,5	-12,1	1,7	22,3	-2,6
2013	4,3	-1,6	1,3	-9,6	8,3	9,4	-2,6
2014	1,3	2,7	3,4	-23,8	66,5	10,8	4,1
2015	2	1,1	3,9	-27,4	26,7	-12,8	1,9
2016	2	2,9	1,2	4,7	-11,6	-12,9	0,9
2017	2,5	2,4	7,3	-0,3	9,6	-8,1	5,3
2018	1,5	1,3	-1,4	7,1	63,4	-3,7	3,2
2019	5,6	4,9	3,4	0,6	13,2	-2,6	6,2
2020	3,6	6,1	3,8	-4,4	-45,9	-16	-2,1
2021	4,8	6,5	8,5	24,1	1,9	-1,7	7,6
2022	5,7	3,8	2,1	2,9	9,0	-0,9	7,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Ekonomia eta Ogasun Saila.

Inbertsio errealei dagokionez, 2021ean nabarmen errekuperatu ziren aurreko urteko jaitsieratik (+% 24,1 igo ziren; 2020eko inbertsioak, ordea, -% 4,4 izan ziren), eta 2022an % 2,9an kokatu dira, goranzko joerari eutsiz, proportzio askoz

txikiagoan bada ere. Hori foru-aldundien bilakaera positiboaren (+% 8,4) eta Eusko Jaurlaritzaren bilakaera negatiboaren (-% 5,7) arteko konpentsazioaren ondorio da.

Bestalde, aurreko urteko joerari eutsita, zorpetzetik eratorritako gastuak % 9 hazi dira (+7,1 puntu, 2021arekin alderatuta), finantza-pasiboen bilakaeraren ondorioz (zorraren amortizazioa). Suspertze hori aldundietan gertatu da (+% 2,1) eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzan (+% 11,7). Finantza-gastuak (interesak), azkenik, % 0,9 jaitsi dira, eta negatiboak izan dira Jaurlaritzarentzat (-% 4,1; foru-aldundietan, berriz, +% 15,5).

Era berean, 2022ko "EAEko Aurrekontu Orokorren Betearazpenaren" datuen arabera (2022ko abenduan likidatutako datuak), Eusko Jaurlaritzaren gastua % 7,9 handitu da 2021ekoarekin alderatuta, urte horretan % 8 handitu baitzen aurreko urtearekin alderatuta. Gastu bolumenagatik, bi sail nagusiak Hezkuntza (% 24,6) eta Osasuna (% 34,9) dira. 2022an betearazitako saldoa 13.721,9 milioi eurokoa da, hau da, gure Erkidegoak urte horretan izan duen BPGd-aren % 16,1, behin-behineko datuen arabera.

II.4.10. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN GASTUA SAILKA. EUROAK, MILAKOTAN.							
	EUROAK, MILAKOTAN			2022 BAN. %	% 19/20**	20/21 (%)	21/22 (%)
	2020	2021	2022				
00 LEGEBILTZARRA	31.950	31.500	32.445	0,2		-1,4	3,0
01. JAURLARITZAKO LEHENDAKARITZA	79.818	21.515	25.834	0,2		-73,0	20,1
02 GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	126.089	138.660	142.734	1,0		10,0	2,9
03 GARAPEN EKONOMIKOA ETA AZPIEGITURAK	402.441						
04 ENPLEGUA ETA GIZARTE POLITIKAK	761.025						
05 INGURUMEN, LURRALDE P. ETA ETXEBIZITZA	125.907						
06 EKONOMIA ETA OGASUNA	77.165	221.361	128.981	0,9		186,9	-41,7
07 HEZKUNTZA	3.047.202	3.189.797	3.372.801	24,6		4,7	5,7
08 OSASUNA	4.106.892	4.382.392	4.788.159	34,9		6,7	9,3
09 TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONSUMOA	68.515	98.781	109.107	0,8		44,2	10,5
10 KULTURA ETA HIZKUNTZA P.	277.265	304.581	334.083	2,4		9,9	9,7
11 SEGURTASUNA	643.117	660.729	683.407	5,0		2,7	3,4
12 LANA ETA JUSTIZIA	144.828						
13 LANA ETA ENPLEGUA*	236.689	921.223	1.015.907	7,4		289,2	10,3
14. GARAP. EK. IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA*	504.835	687.282	872.326	6,4		36,1	26,9
15.. LURR. PLANG., ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK*	155.730	476.472	625.439	4,6		206,0	31,3
16. BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAK*	102.404	478.956	478.972	3,5		367,7	0,0
51 LAN HARREMANEN KONTSEILUA	2.574	2.610	2.688	0,0		1,4	3,0
52 EKONOMIA ETA GIZARTE KONTSEILUA	1.458	1.479	1.629	0,0		1,4	10,1
53 KOOPERATIBEN KONTSEILU GORENA	1.051	1.065	1.097	0,0		1,3	3,0
54 EUSKAL KONTUEN AUZITEGIA	7.926	6.037	8.278	0,1		-23,8	37,1
55 DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGENTZIA	1.792	1.817	1.872	0,0		1,4	3,0
90 ZOR PUBLIKOA	832.106	814.907	877.623	6,4		-2,1	7,7
95 ERAKUNDEEN BALIABIDE ETA KONPROMISOAK.	40.897	276.818	218.494	1,6		576,9	-21,1
GUZTIRA	11.779.674	12.717.982	13.721.874	100,0	-2,2	8,0	7,9
% BPGd bb	16,4	16,3	16,1				

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontu orokorren betearazpena. 2022ko abendua.


* Sail berriak, 2020ko uztaillean izandako legegintzaldi-aldaketaren ondorioz.

** Sailen araberako gastua ezin da 2019 eta 2020 artean konparatu, 2020an hasitako legegintzaldi berriaren ondorioz sailak berrantolatu egin direlako eta funtzionalki berrantolatu direlako.

4.3. AURREKONTUKO SALDOA

2022an, Euskal Sektor Publikoaren (Eusko Jaurlaritza gehi foru aldundiak) sarrera arruntek % 2,6 egin zuten gora, eta gastu arruntak % 3,2 hazi dira. Hori dela-eta, % 1,5eko beherakada izan da aurrezpen gordinean, hau da, 2.083,4 milioi euro guztira. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGd-aren % 2,5 hartzen du (behin-behineko datuak). Horrez gain, 596,6 milioi euroko (BPGd-aren % 0,7) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, 1.040,9 milioi euroko superabita izana zen (BPGd-aren % 1,3).

II.4.2 GRAFIKOA. AURREZKIAREN ETA SUPERABIT/DEFIZIT PUBLIKOEN BILAKAERA (FINANTZATZEKO GAITASUNA/BEHARRA) EAE-N. BPGren GAINEKO %.



Iturria: EUSKO JAURLARITZAren datuekin egin da.

Finantza-aldagaia sartuta, eta batez ere zorpetzearen ondorioz, 596,6 milioi euroko superabit publikoa 457,4 milioi euroko aurrekontu-superabita izan zen, BPGd-aren % 0,5, 2021ean superabit hori 2.533,7 milioi eurokoa izan bazen ere (-% 81,9).

II.4.11. KOADROA. EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA: AURREKONTU-MAGNITUDE BATERATUAK. EUROAK, MILAKOTAN.

	2020	2021	2022	% 20/21	% 21/22
1.- OHIKO SARRERAK	15.382.348	18.027.884	18.503.084	17,2	2,6
2.- OHIKO GASTUAK	14.856.820	15.913.755	16.419.715	7,1	3,2
2.1.- LANGILE-GASTUAK	2.646.462	2.773.180	2.930.752	4,8	5,7
2.2.- FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	4.568.207	4.866.216	5.049.926	6,5	3,8
2.3.- FINANTZA-GASTUAK	179.066	176.100	174.428	-1,7	-0,9
2.4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	7.463.086	8.098.260	8.264.609	8,5	2,1
3.- AURREZKI GORDINA (1-2)	525.528	2.114.129	2.083.369	302,3	-1,5
4.- KAPITAL SARRERAK	103.093	396.297	652.199	284,4	64,6
5.- KAPITAL GASTUAK	1.224.757	1.469.566	2.138.981	20	45,6
5.1.- INBERTSIO ERREALAK	406.297	504.175	518.970	24,1	2,9
5.2.- KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	818.461	965.391	1.620.011	18	67,8
6.- FINANTZAZIO GAITASUNA (+) / BEHARRA (-) (3+4-5)	-596.136	1.040.861	596.587	-	-42,7
7.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	-183.326	-242.139	-464.386	-	-
7.1.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. DIRU-SARRERAK	131.824	76.461	31.931	-42	-58,2
7.2.- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	315.150	318.600	496.318	1,1	55,8
8.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	1.630.651	856.289	-422.806	-47,5	-
8.1.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. DIRU-SARRERAK	2.539.662	1.782.250	586.615	-29,8	-67,1
8.2.- FINANTZA PASIBOEN ALDAKUNTZA. GASTUAK	909.011	925.961	1.009.421	1,9	9,0
9.- AURREKONTU SUPERABITA / DEFIZITA (6+7+8)	851.189	1.655.011	-290.605	94,4	-
9.1.- ORDAINDU GABEKO OBLIGAZIOAK	1.232.434	1.652.917	1.567.401	34,1	-5,2
9.2.- KOBRATU GABEKO ESKUBIDEAK	791.464	774.192	819.352	-2,2	5,8
10.- AURREKONTUKO SUPERABITA / DEFIZITA, KUTXARI DAGOKIONEZ	1.292.159	2.533.736	457.444	96,1	-81,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika.

4.4. SEKTORE PUBLIKOAREN ZORPETZEA

Eusko Jaurlaritzaren “Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistikak” erakusten duenez, lehenik eta behin, EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundiak) zorpetze garbia (zorpetze gordinaren eta amortizazioaren arteko aldea), 2020ko igoseratik 2021ean erreperatu zena, negatiboa da 2022an, hau da, amortizazioa handiagoa da zor berriaren jaulkipena baino. Zehazki, -422,8 milioi eurora iritsi da, 2021ean ordea 856,3 milioi eurora iritsi zen.

Zorpetze gordinak % 67,1eko beherakada izan du 2022an, eta 586,6 milioi eurokoa izan da. Horietatik 496,6 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-% 57,4) eta gainerako 90 milioiak Foru Aldundiei (-% 85,4, 2021eko datuekin alderatuta).

II.4.12. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETA FORU ALDUNDIEN ZORPETZEAREN BILAKAERA. (EUROAK, MILAKOTAN)							
	ZORPETZE GORDINA		AMORTIZAZIOA	ZORPETZE GARBIA		ZOR BIZIA URTE AMAIERAN	
	(1)	ALDAKUNTZA (%)	(2)	(1) – (2) = (3)	ALDAKUNTZA (%)	GUZTIRA	ALDAKUNTZA (%)
EUSKO JAURLARITZA							
2018	1.273.711	30,6	1.215.003	58.708	-81,7	9.491.653	0,6
2019	870.696	-31,6	1.359.776	-489.080	-933,1	9.002.573	-5,2
2020	2.092.610	140,3	686.639	1.405.971	-387,5	10.408.544	15,6
2021	1.165.110	-44,3	668.066	497.044	-64,6	10.905.588	4,8
2022	496.615	-57,4	746.218	-249.603	-	10.655.985	-2,3
FORU ALDUNDIAK							
2018	184.186	-1,7	268.447	-84.261	26,4	1.846.818	-4,4
2019	119.388	-35,2	319.724	-200.336	137,8	1.646.482	-10,8
2020	447.052	274,5	222.372	224.680	-212,2	1.871.162	13,6
2021	617.140	38,0	257.895	359.245	59,9	2.230.407	19,2
2022	90.000	-85,4	263.203	-173.203	-	2.057.204	-7,8
EUSKAL SEKTORE PUBLIKOA, GUZTIRA							
2018	1.457.897	25,4	1.483.450	-25.553	-	11.338.471	-0,2
2019	990.084	-32,1	1.679.500	-689.416	2598,0	10.649.055	-6,1
2020	2.539.662	156,5	909.011	1.630.651	-336,5	12.279.706	15,3
2021	1.782.250	-29,8	925.961	856.289	-47,5	13.135.995	7,0
2022	586.615	-67,1	1.009.421	-422.806	-	12.713.189	-3,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpenari buruzko estatistika. Guk geuk egina.


Zorpetze gordinaren jaitiera horrekin batera, gainera, dagoen zorraren amortizazio handia egin da, 2020 eta 2021ekoaren antzekoa (1.009,4 milioi euro, eta horietatik 746,2 Eusko Jaurlaritzari dagozkio). Hala, ekitaldiaren amaieran zor bizia % 3,2 jaitsi da. Ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 12.713,2 milioi euroko zorra aurkeztu dute (BPGd-aren % 15, behin-behineko datuen arabera; 2021ean, berriz, % 16,8). Beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (zor osoaren % 83,8; aurreko urtean % 83 izan zen).

Beste alde batetik, EUSTAT erakundearen “Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika” delakoari esker (eskuragarri dugun azken informazioa 2020koa da), foru aldundien eta udal guztien zorpetzea zenbatekoa den jakin dezakegu, baita EAEko Administrazio osoaren (gubernua + aldundiak + udalak) zorpetzearen zenbatekoa ere.

Foru Aldundiei dagokienez, 2020an 528,8 milioi euroko zorra jaulki zuten (aurreko ekitaldian baino % 146,8 gehiago). Horietatik 81,7 milioi Arabako Foru Aldundiari dagozkio, 32,5 Gipuzkoakoari eta gainerako 414,6ak Bizkaikoari. Horrez gain, 263,2 milioi euroko balioarekin amortizatzen dute, aurreko ekitaldian baino % 2,1 gutxiago. Amortizatutako kopurutik 116 milioi Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, 78,7 Gipuzkoakoari eta gainerako 73,8 milioiak Arabako Foru Aldundiari. Aldundien zorraren saldo bizia, 2.204,4 milioi, % 13,4 handitu da aurreko urtekoaren aldean. BPGd-arekiko harremanean ere hala egin du: 2019an % 2,4 izan zen eta 2020an % 3,1.

EAEko udalei dagokienez, arestian aipatutako estatistikan oinarri harturik, badakigu 2020an 30,4 milioi euroko zorra jaulki zutela, eta 52,4 milioi euro amortizatu zutela. Beraz, ekitaldiaren amaieran, ordaindu gabeko zorra 22 milioi euro gutxitu zen eta 320,7 milioi eurokoa izan zen.

Guztira hartuta, EAEko herri-administrazio guztiek (gobernuak, foru-aldundiak eta udalek), 2020ko ekitaldian, 12.587,1 milioi euroko zor bizia izan zuten urtearen amaieran (hau da, 2019an baino % 14,5 gehiago). Zenbateko hori aipatutako urteko BPGd-aren % 17,5koa izan zen (2019an, aldiz, % 13,8koa izan zen).



Guztizko zorraren % 79,9 Eusko Jaurlaritzari dagokio, % 11,6 Bizkaiko Foru Aldundiari, % 1,9 Arabakoari eta % 4 Araba Foru Aldundiari. Gainerakoa, 320,7 milioi euro, hain zuzen, EAEko udaletako finantza-zorrari dagokio, eta EAEko administrazioen zor osoaren % 2,5 da (2019an % 3,6).

4.5. ERAKUNDEETAKO TRANSFERENTZIAK

EAEk bere jardura finantzatzeko sistema berezia dauka. Zergarik gehienak biltzeko gaitasuna du. Kupoa deritzonaren bidez EAEk jaso ez dituen eskumenetan, estatuaren gastuak ordaintzen laguntzen du. EAEn eskumenen banaketaren barruan, zerga-bilketa lurralde historiko bakoitzeko Foru Aldundiak egiten dute batez ere. Eusko Jaurlaritzaren finantzazioan laguntzen dute, ekarpenen bidez. Udalek ere zerga-bilketa egiten dute.

EAEko administrazio publikoek jasotzen dituzten baliabide propioez gain, Europar Batasunak eta estatuak zenbait fondo ematen diete: BEZaren bidez eta zerga berezien bidez bildutako dirua egokitzeko, Foru Aldundiak eta Udalek zerga ez itunduetan duten partaidetzagatik, elkarrekiko, kiroleko eta ongintzako apustuetatik eta Estatu Loteria eta Apustuen Erakunde Nazionaletik bildutako diruaren partaidetzagatik, eta estatu administrazioek eta erakunde autonomoek egiten dituzten eta akordioen ondorioz.

Lehenik eta behin, **Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzari egiten dizkieten ekarpenak** aipatu behar ditugu, bolumen handia baitute. Baliabideak banatzeko metodologia Ekarpenen Legean jasota dago. Hamabost egunean behin Foru Aldundiak biltzen dituzten zerga itunduetatik zein zati transferitu behar dioten Aldundiak Eusko Jaurlaritzari erabakitzen du legeak, gastu komunak ordaintzeko ekarpen gisa (horrela, Eusko Jaurlaritzak jasotzen dituen diru-sarreraren %90 baino gehiago ekarpen horietatik datoz).

II.4.13. KOADROA. FORU ALDUNDIEK EAE-ko ERAKUNDE KOMUNEI EGITEN DIZKIETEN EKARPENEN BILAKAERA. EUROAK, MILAKOTAN									
KONTZEPTUA	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	ALD. % 20/21	ALD. % 21/22
EK. OROKORRA	8.224.923	8.134.577	9.366.098	9.633.564	8.561.419	10.203.963	11.091.024	19,2	8,7
BERARIAZKO EK.	509.580	1.698.393	631.329	738.100	656.394	625.790	507.730	-4,7	-18,9
EAE, GUZTIRA	8.734.503	9.832.970	9.997.427	10.371.664	9.217.813	10.829.753	11.598.754	17,5	7,1
ARABAREN EK.	1.430.712	1.617.523	1.643.577	1.698.879	1.499.738	1.756.586	1.874.359	17,1	6,7
BIZKAIAREN EK.	4.423.152	4.981.382	5.035.704	5.228.356	4.644.856	5.446.283	5.844.612	17,3	7,3
GIPUZKOAREN EK.	2.880.639	3.234.064	3.318.146	3.444.429	3.073.219	3.626.884	3.879.783	18	7,0
ARABAREN %	16,38	16,45	16,44	16,38	16,27	16,22	16,16		
BIZKAIAREN %	50,64	50,66	50,37	50,41	50,39	50,29	50,39		
GIPUZKOAREN %	32,98	32,89	33,19	33,21	33,34	33,49	33,45		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. *Ekonomia eta Ogasun Saila. Kupoaren eta Finantza-Ekarpenen Zuzendaritza.*

2022an, ekarpen horiek 11.598,8 milioi euro izan ziren, 2021ean baino % 7,1 gehiago (hasierako aurrekontuan baino 594,9 milioi gehiago).

2022-2026²⁹ aldiko berrikuntza legez, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak hainbat aldaketa erabaki ditu baliabideak banatzeko eta aldundien ekarpenak zehazteko. Horien artean, nabarmentzekoak dira banaketa bertikaleko koefizientea % 70,04tik % 70,81era igo dela eta Egokitzapenerako Funts Orokorrean aldaketak izan direla, 2007-2011³⁰ aldian ez bezala, 2022-2026 aldian bi tarte bereizitan egituratuko baita. Egokitzapenerako Funts Orokorrearen gehieneko zenbateko bateratua EAEko erakundeen artean banatu beharreko baliabideen % 1,45 da (% 1 aurreko aldirako).

II.4.14. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK LIKIDATUTAKO DIRU-SARRERAK. MILA EUROTAN							
	2016	2017	2018	2019	2019 BAN. %	17/18ko ALD. %	18/19ko ALD. %
1. FORU ALDUNDIEN EKARPENAK	8.734.503	9.832.970	9.997.427	10.371.664	89,1	1,7	3,7
. EKARPEN OROKORRA	8.224.923	8.134.577	9.366.098	9.633.564	82,8	15,1	2,9
. BERARIAZKO EKARPENAK	509.580	1.698.393	631.329	738.100	6,3	-62,8	16,9
2. ERAKUNDEEN BESTELAKO DIRU-SARRERAK	266.144	237.267	203.675	167.579	1,4	-14,2	-17,7
. EUSKADIKO ERAKUNDEEN TRANSFERENTZIAK	2.725	3.500	518	19	0,0	-85,2	-96,3
. ESTATUAREN TRANSFERENTZIAK	157.453	143.134	107.726	68.285	0,6	-24,7	-36,6
. EUOPAR BATASUNAREN FUNTSAK	105.966	90.633	95.431	99.276	0,9	5,3	4,0
- EGIF	9.296	1.479	788	16.257	0,1	-46,7	1963,1
- EGEF	29.313	3.137	23.156	11.074	0,1	638,2	-52,2
- LGENF	5.448	18.707	20.422	11.885	0,1	9,2	-41,8
- NBEUF	57.541	57.715	50.677	51.076	0,4	-12,2	0,8
- IFOR (FEP)	1.813	6.900	-	-	-	-	-
- FEMP	-	2.438	-	8.111	0,1	-	-
- BESTE FUNTS BATZUK	2.555	257	388	872	0,0	51,0	124,7
3. BESTE BALIABIDE BATZUK	1.405.625	1.194.227	1.489.928	1.095.173	9,4	24,8	-26,5
- ZOR PUBLIKOA	1.106.042	975.047	1.273.711	870.696	7,5	30,6	-31,6
- ZEHARKAKO ZERGAK	3.918	3.992	4.134	4.147	0,0	3,6	0,3
- ONDAREKO SARRERAK	36.198	2.152	1.663	3.397	0,0	-22,7	104,3
- INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEAK	946	177	12.074	47	0,0	6.721,5	-99,6
- BESTE TRANSFERENTZIA BATZUK	36.198	2.152	4.888	16.349	0,1	127,1	234,5
- FINANTZA AKTIBOEN ALDAKUNTZA	66.574	23.787	23.447	20.725	0,2	-1,4	-11,6
- TASA ETA PREZIO PUBLIKOAK	181.564	178.022	170.011	179.812	1,5	-4,5	5,8
DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	10.406.271	11.264.484	11.691.031	11.634.417	100,0	3,8	-0,5

Iturria: ZERGA KOORDINATZEKO ORGANOA

* 2017ko urtariletik aurrera, ABFT (AEF) desagertu eta FEMP sortu zen.

Bestalde, **Europar Batasunaren fondoetatik datozen dirulaguntzak** aurrekontu konpromisoen arabera gauzatzen dira. Diru-laguntza horien forma aurrerakinena edo behin betiko ordainketena izan daiteke, kasu bakoitzean araututa dagoenaren arabera. 2019an (informazioa duen azken urtea) % 4 handitu dira, aurreko ekitaldian % 5,3ko igoera izan ondoren, Horrenbestez, 99,27 milioi eurokoak izan ziren.

²⁹ 4/2021 Legea, urriaren 7koa, Baliabideak banatzeko eta foru-aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa.

³⁰ 2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideak Banatzeko eta Foru Aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologiari buruzkoa, 2007-2011 aldian aplikatzeko, baina 2021eko abenduaren 31ra arte indarrean.

Partida nagusia Bermerako Nekazaritzako Europako Funtsa da (2007. urtean sortua Landa Garapenerako Nekazaritzako Europako Funtsarekin batera, nekazaritzarako Europako laguntzak kudeatzeko), 51,1 milioi euroekin, guztizkoaren % 51,4. Zenbateko horri LGENF funtsaren 11,9 milioi euro gehitzen badizkiogu, 63 milioi euro (Europako funtsen % 63,4) nekazaritzara bideratzen dira erreferentziako urtean.


Beste partida interesgarri bat **Estatuarentzako kupoa** da. Kupoaren zenbateko likidoa, Kupoaren Bost Urteko Legearen bidez urtero zehazten dena, 2022. urtean (behin-behineko likidazioen arabera) 927,88 milioi eurokoa da. 2021. urtearen aldean % 29 handitu da.

II.4.15. KOADROA. EAE-K ESTATUARI ORDAINDUTAKO KUPOAREN BILAKAERA. EUROAK, MILAKOTAN.						
	2019	2020	2021	2022	% 20/21	% 21/22
SARTUTAKO KUPOA	1.021.640	1.107.908	791.495	1.001.223	-28,6	26,5
KONPENTSAZIOAK*	-79.049	-73.947	-72.022	-73.342	-2,6	1,8
ORDAINDUTAKO KUPOA	942.591	1.033.961	719.473	927.881	-30,4	29,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. *Ekonomia eta Ogasun Saila.*

* *Finantza konpentsazioak fabrikazioaren gaineko zerga bereziengatik.*

Amaitzeko, Estuari egiten zaizkion ordainketa horiek ez ezik, zenbait zenbateko ere jasotzen dira; horietatik nabarmenena **Balio Erantsiaren gaineko Zergaren doikuntza** da, barne merkatuan eta inportazioetan (azken hori Estatuko Ogasunak soilik egiten du) egindako eragiketengatik. Doikuntza hori Estatuko administrazioen eta EAEko administrazioaren arteko finantza-doikuntza da, zerga-administrazioen artean zerga-bilketa teorikoak eta errealak egokitu beharra dagoelako, zerga administrazio horiek beren lurraldean jarduten baitute muga fiskalik gabeko espazio batean. Doikuntza horiei zerga bereziei dagozkienak erantsi zitzaizkien 1997. urtean. Zerga berezi horiek beharrezkoak dira honen ondoriozko distorsioa zuzentzeko: zerga horiek kargatzen dituzten produktuen behin betiko kontsumoa produktua fabrikatu den lurraldetik kanpo egiten da.



2019an (informazioa duen azken urtea) BEZagatik doikuntza 1.899 milioi eurokoa izan zen EAEn. Kopuru hori % 6,9 handitu zen, 2018. urtekoarekin erkatuta. Partida horretan, % 63,7 aduanetako diru-bilketaren egokitzapenari dagokio, eta gainerako % 36,3 barne-eragiketei. Lurralde banaketa urtero egiten da, koefiziente horizontalen arabera.

4.6. ENPLEGUA ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN

EAEko administrazio publikoek 146.636 enplegatu zituzten 2022ko³¹ urtarrilaren 1ean, EUSTATen " *Administrazio Publikoen Direktoria*"ren arabera. Hau da, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago eta EAEn 2022ko lehenengo hiruhilekoan lan egiten zuten guztien % 15,4 (2021eko ratio bera), BJAren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero.

³¹ Lanaldi osoko langile landunen baliokidea.

Datu horiek ez dituzte kontuan hartzen Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren mendeko langileak, baina Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2022ko urtarrileko estatistika-buletinean, kalkulatu zuen Euskadiko Estatuko Administrazio Publikoko langileak 9.747 zirela data horretan (4.110 Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura eta 5.637 "beste batzuk" kategorian, Estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak barne). Zenbateko biak batzen baditugu, lanpostu publikoak, 2022a hastean, 156.383 inguru lirateke (aurreko urtean baino +% 2,3 gehiago). Edozelan ere, zenbatespen bat baino ez da zenbateko hori, erreferentzia-data eta metodologia desberdinak erabili baitira³².

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2022ko urtarrilean ziren 146.636 enplegatu publikoetatik % 65,6 EAEko administrazioakoa zen, % 18,4 tokiko erakundeetakoa, % 8,3 foru aldundietakoa eta gainerako % 7,6a unibertsitatekoa, fundazioetakoa eta beste erakunde publiko batzuetakoa.

II.4.16. KOADROA. EAE-KO ADMINISTRATIOETAKO ENPLEGATUEN BILAKAERA URTARRILAREN 1EAN								
	2017	2018	2019	2020	2021	2022	% 20/21	% 21/22
EUSKO JAURLARITZA	86.405	88.137	90.875	90.374	92.887	96.253	2,8	3,6
FORU ALDUNDIAK	10.842	11.037	11.523	11.708	11.947	12.225	2,0	2,3
TOKIKO ERAKUNDEAK	25.800	26.114	26.818	27.170	26.826	27.054	-1,3	0,8
FUNDAZIOAK ETA ISAL*	2.594	2.754	3.304	3.555	3.824	4.040	7,6	5,6
BESTE ERAKUNDE PUBLIKO BATZUK	372	373	425	434	437	434	0,7	-0,7
UPV/EHU	6.429	6.510	6.624	6.644	6.605	6.630	-0,6	0,4
GUZTIRA	132.442	134.925	139.569	139.885	142.526	146.636	1,9	2,9

Iturria: EUSTAT. Administrazio publikoen direktorioa.
* Irabazi-asmorik gabeko erakundeak.

2021eko urtarrilarekin alderatuta, EAEko administrazioetako enplegua 4.110 pertsonatan hazi zen (% 2,9), eta modu positiboan nabarmendu zen Jaurlaritzaren eta foru-aldundien bilakaera: % 3,6 (+3.366) eta +% 2,3 (+278). Toki-erakundeena ere hazi egin zen (+% 0,3, hau da, +228 pertsona).

II.4.17. KOADROA. EUSKAL ADMINISTRATIO PUBLIKOETAKO ENPLEGATUAK, ARAU-ESPARRUAREN ARABERA. 2022-01-01EKO DATUAK					
	GUZTIRA	EUSKO JAURLARITZA ETA MENDEKO ERAKUNDEAK	FORU ALDUNDIAK ETA MENDEKO ERAKUNDEAK	TOKI- ERAKUNDEAK ETA MENDEKO ERAKUNDEAK	GAINERAKO ERAKUNDE PUBLIKOAK
GOI-KARGUAK	1.403	335	215	681	172
FUNTZIONARIOAK	90.805	65.064	7.373	15.260	3.108
-FINKOAK	63.261	47.854	4.509	8.647	2.251
-BARNEKOAK	27.544	17.210	2.864	6.613	857
LAN-ITUNPEKOAK	54.428	30.854	4.637	11.113	7.824
-FINKOAK	17.902	6.956	2.356	5.355	3.235
-ALDI BATERAKOAK	36.526	23.898	2.281	5.758	4.589
GUZTIRA	146.636	96.253	12.225	27.054	11.104


Iturria: EUSTAT. Administrazio publikoen direktorioa.

Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 61,9 ziren, % 37,1 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutuetakoa pertsonala barne; % 1 goi-mailako kargudunak ziren. Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta estatutuetakoa) pertsonalaren % 55,3 zen (2021ean baino -1,2 puntu gutxiago), % 18,1 bitarteko funtzionarioak ziren (+0,2 puntu) eta % 24,9 aldi baterako pertsonala zen (+0,8 puntu). Hala, bitartekotasun eta behin-behinekotasun maila % 43,7koa izan zen (% 42,5koa aurreko urtean).

Sexuari dagokionez, 2022ko urtarrilaren 1ean, euskal administrazio publikoetako enplegatu guztien % 36 gizonezkoak ziren, eta emakumeak % 64 (+2 hamarren gehiago aurreko urtearen aldean). Emakumeen nagusitasun hori areagotu egin da urtean. Hala, 2011tik hasita, emakumeen kopurua % 20,1 hazi da, eta gizonena, berriz, % 4,7 gutxitu. Horrela, emakumeek 3,2 puntu irabazi dituzte guztizkoarekiko.

³² Ministerioaren datuek egonkorra deritzon plantilla zenbatesten dute, 6 hiletik beherako aldi baterako kontratuak baztertuz.

II.4.5. GRAFIKOA. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO LANGILEEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. URTARRILAREN 1EKO DATUAK.



Iturria: EUSTAT. Administrazio Publikoen direktorioa.

Feminizazio-tasa hori bereziki handia da Eusko Jaurlaritzan eta haren mendeko erakundeetan, emakumeen ehunekoa % 69,8 baita. Foru-aldundietan emakumeen partaidetza % 59,6koa da, eta toki-erakundeetan, azkenik, gizonen eta emakumeen pisua nahiko berdinduta dago: gizonak % 49,9 dira eta emakumeak % 50,1.

ITURRIAK

1. **BOE.** 4/2021 Legea, urriaren 7koa, baliabideak banatzeko eta foru-aldundiak Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2022-2026 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2021eko azaroaren 5ekoa, 265 zk., 134336-134352 orriak.
2. **EUSTAT (2022).** Administrazio publikoen direktorioa. 2022-01-01eko datuak
3. **EUSTAT (2022).** Sektore Publikoaren Aurrekontu Estatistika 2020
4. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2022).** Zergak Koordinatzeko Organoa. Euskal ogasunaren urteroko txosten integratua, 2019
5. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2023).** Zerga itunduen bilketa-zifrak. 2022ko abendua
6. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2023).** Foru Aldundien kupoari eta ekarpenei buruzko datuak 2022
7. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2023).** EAeko aurrekontu orokorren betearazpena 2022
8. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2023).** Aurrekontuaren Betearazpenari buruzko Estatistika. 2022ko IV. hiruhilekoa
9. **OGASUN MINISTERIOA (2023).** Autonomia erkidegoen defizit-zifrak 2022an (behin-behinekoak).
10. **LURRALDE POLITIKAKO MINISTERIOA (2022).** Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Buletin Estatistikoa. Urtarrila 2022

5. PRODUKZIO-AZPIEGITURAK

Azpiegitura fisikoak oinarrizko elementua dira garapen ekonomikoa, ongizate orokorra eta edozein gizarteren kohesioa posible izan daitezen, eta eragin garrantzitsua dute herrialde baten ekonomia orokorraren jardunaren gainean. Zehazki, produktibitatea eta hazkundea areagotzen laguntzen dute. Kapitulu honetan, Europan zeharreko garraio-sarea aurkezteaz eta gure erkidegoko garraio-sistemaren deskribapen orokorra egiteaz gainera, Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF, PORTUAK eta RENFE) EAEko ingeniariak zibilean egindako esleipenei buruzko datuak aztertzen dira, eta EAEko errepideko garraioari, trenbide-garraioari, aireko garraioari eta itsas garraioari buruzko hainbat adierazle aurkezten dira.

5.1. EUROPA BARNEKO GARRAIO-SAREA (EBG-S)

Europako erakundeek Europa barneko garraio sarea (EBG-S / TEN-T, ingelesez) diseinatu eta garatu nahi dute, osoa eta integratua, estatu kide eta eskualde guztiak hartuko dituen, eta garraio modu guztien garapen orekaturako oinarria emango duena, sareak Europarentzat duen balio erantsia ahalik eta gehiena aprobetxatzeko. Europako Batzordeak ondorioztatu zuen EBG-S garatzeko modurik onena geruza bikoitzeko sistema bat zela, sare orokor batez eta oinarrizko sare batez osatua. **Sare orokorra** lehendik dauden azpiegitura guztiak osatzen dute, EBko eskualde guztien irisgarritasuna eta konektibitatea planifikatzen eta bermatzen dute, eta beranduenez 2050eko abenduaren 31n amaituta egon behar du. **Oinarrizko sarea** Europa barneko garraio-sarearen garapen helburuak lortzeko garrantzi estrategiko handiena duten sare orokorreko zatiek osatuko dute. Sare horrek lotura estrategikoak ezarriko ditu hiri-nodo garrantzitsuenen eta beste nodo mota batzuen artean, hala nola portuen, aireportuen eta mugako pasabideen artean. Sarearen bi aldeek garraibide guztiak eta horien interkonekzioak jasoko dituzte, garraio-azpiegitura berriekin garatzeko eta lehendik daudenak modernizatzeko interes komuneko proiektuak sortu ahal izateko. Oinarrizko sareak 2030eko abenduaren 31n egon behar du amaituta.

Hala definitutako sarearen barruan, oinarrizko sareko **igarobide** multimodalak ezartzen dira. Ez dira sarearen hirugarren maila bat, baizik eta sarearen garapena eraginkorra eta koordinatua izan dadin bultzatzeko tresna bat. Atlantikoko eta Mediterraneoko igarobideen zati bat Espainiatik igarotzen da.

Sarearen osaera	<ul style="list-style-type: none"> Azpiegitura nodalak: Hiri-nodoak, portuak, aireportuak eta salgaien terminal multimodalak (Rail-Road Terminals, RRT), hala nola JLZak (Jarduera Logistikoaren Zonak), portu lehorrak eta bestelako plataforma logistikoak. Azpiegitura linealak edo nodoen arteko loturakoak: trenbidea, errepidea, barneko bide nabigagarriak, itsasoko autobideak.
Sarearen egituraketa	<ul style="list-style-type: none"> SARE OROKORRA edo osoa (COMPREHENSIVE Network), EBG-S sarearen kontzepturik zabalena da, interes komuneko elementu guztiak osatua. EBko eskualde guztietarako irisgarritasuna bermatzen du. OINARRIZKO SAREA (CORE Network) Batasuneko garraio politikaren helburuak lortzeko garrantzi estrategiko handiena duten sare orokorreko elementuek osatzen dute, eta lehenetsia ematen zaie Erkidegoaren laguntza duten jardueri.

II.5.1. KOADROA. EAE-KO EBG-S NODOAK

OINARRIZKO SAREKO HIRI-NODOAK	Bilbo
PORTUAK	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko sarea: Bilbo Sare orokorra: Bilbo eta Pasaia
ERREPIDE ETA TRENBIDEETAKO TERMINAL INTERMODALAK (PORTUETAN KOKATUTAKO EZ GAIN)	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko RRT: Bilbo. RRT orokorra: Bilbo eta Gasteiz.
AIREPORTUAK	<ul style="list-style-type: none"> Oinarrizko sarea: Bilbo (hala ere, ez da erregistratzen 2030erako Erregelamenduko baldintzak bete beharra ezartzen duen trafiko bolumena) Sare orokorra: Donostia eta Gasteiz

Iturria: Garraio Ministerioa eta geuk egina.

2022ko abenduan, Europako Kontseiluak negoziazio-agindu bat adostu zuen ("orientazio orokorra") Europar Batasunak Europa barneko garraio-sarea garatzeko dituen orientabideei buruzko erregelamendu-proiekturako, eta, haren bidez, 2021/1153 (EB) Erregelamendua eta 913/2010 (EB) Erregelamendua aldatzen dira eta 1315/2013 (EB) Erregelamendua indargabetzen da. Helburua da Europa barneko garraio-sare fidagarri bat eraikitzea, pitzadurarik gabea eta kalitate handikoa, EB osoan konektibitate jasagarria bermatuko duena, etendura fisikorik, botila-leporik eta egiteke dauden lotunerik gabea. Proposamenak EBG-S sarearen garapena EBko klimaren eta garapen jasagarriaren

helburuetara egokitzen du, garraio multimodala sustatuz, EBG-S sarearen erresilientzia indartuz eta gobernantza-tresnen eraginkortasuna hobetuz.

Testuak ezartzen du Europa barneko garraio-sarea hiru etapatan garatu behar dela, pixkanaka-pixkanaka: oinarrizko sare bat amaitzea hemendik 2030era bitartean, oinarrizko sare bat hedatzea hemendik 2040ra bitartean, eta sare globala hedatzea 2050era bitartean. Hau da, oinarrizko sareaz gain, oinarrizko sare hedatu bat zehaztu behar da, Europako garraio-igarobideen parte diren sare orokorraren lehentasuneko tarteetan oinarrituta.

5.2. EUSKADIKO GARRAIO-SISTEMAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Egoera estrategikoagatik nahiz industria-jarduera handiagatik, era guztietako trafikoaren maila handienetakoa ageri duen Europako eremu bat da EAE. Errepide-sare trinkoa, trenbideak, bi itsas portu handi eta hiru aireportu dira barruko trafikoan nahiz kanpokoan ageri diren beharrak estaltzen saiatzen direnak, egunetik egunera osatuagoak eta kalitate handiagokoak diren zerbitzu batzuk eskainita. Ondoko taulan, garraio-sistemaren osaera ageri da, azpiegituraren titulartasuna eta operadorea kontuan izanik betiere.

II.5.2. KOADROA. EUSKADIKO GARRAIO-SISTEMA				
SISTEMA	AZPIEGITURA		ORGANO TITULARRA	ERAKUNDE OPERADOREA
BIDE-SISTEMA	A-1.	A-1. Iparraldeko autobia (Burgos-Armiñon)	Foru Aldundiak	Garraioaren Zerbitzu Publikoaren emakidaduna / hura ematen duena Erabiltzaile partikularra
		AP-1. Gasteiz-Eibar (ordainpekoa)		
	A-8/AP-8	A-8: Kantauriko autobia (Bizkaia-Kantabria probintzia-mugaraino)		
		AP-8: Kantauriko autobidea (Irun-Bilbo, ordainpekoa) Hegoaldeko saihebidia (Supersur) ere sartzen da (baita ordainpekoa ere)		
	AP-68. Ordainpeko EAE-Aragoiko autobidea (zero KP, Bilbon, 77,5 kilometroraino, Araba eta Burgos arteko mugan)			
	Artxandako tunelak (ordainpekoa)			
	Errei anitzeko errepidea edo arrunta	Bi autonomia-erkidegoren artean.		
Eskualdekoa		Foru Aldundiak		
Hirikoa		Udalak		
TRENBIDE-SISTEMA	Europa Barneko Sarea		Estatua	ADIF ³³ (RENFE)
	Penintsulako Sarea			
	Sare metrikoa		EAE	EUSKOTREN ETS ³⁴
			Estatua	ADIF
	Metroa/tranbia		EAE	Metro Bilbao, EUSKOTREN ETS
	Zubi Esekia		Bilboko Portuko Agintaritza	Pribatua
PORTU-SISTEMA	Interes Orokorreko Portuak: Bilbo eta Pasaia		Estatua	Portuko Agintaritza
	Erkidegoko Portuak		EAE	EAE
AIREKO SISTEMA	Interes Orokorreko Aireportuak: Gasteiz, Bilbo eta Donostia		Estatua	AENA
KABLE-SISTEMA	Iggogailuak eta funikularrak. Funikularren artean, Artxandako, Larreinetako, Igeldoko eta Mamarigako funikularrak daude, guztiak Bizkaian kokatuak, Igeldoko Funikularra izan ezik.		EAE	Pribatuak Publikoak
GARRAIO INTERMODALAREN SISTEMA	Garraio eta Logistika Zentroak: GGZ Gasteiz, ZAISA Irun (Gipuzkoa), APARCABISA (Bizkaia)		Partzuergo/entitate publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

Iturria: Euskadiko garraioaren panoramika, Euskadiko Garraio Behatokia (EUSGABE) eta geuk egina

³³ ADIF, Trenbide Azpiegituren Administrazioa, Sustapen Ministerioaren menpeko enpresa-erakunde publikoa da. Trenbide azpiegituren administrazioa (trenbideak, geltokiak, salgaien terminalak, etab.), trenen zirkulazioaren kudeaketa, tren operadoreen ahalmenaren esleipena eta azpiegitura, geltokiak eta salgaien terminalak erabiltzeagatik kanonak hartzen ditu bere gain.

Trenbide-jardueren gero eta espezializazio handiagoa dela eta, Sustapen Ministerioari atxikitako bi enpresa-erakunde publikotan banatu da ADIF: ADIF eta ADIF Abiadura Handia

³⁴ ETS, Euskal Trenbide Sarea/Red Ferroviaria Vasca EAEn eskumeneko trenbide azpiegituren administrazioaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzaren erakunde publikoa da. Haren xede nagusia Euskal Autonomia Erkidegoaren menpeko trenbide azpiegiturak eraikitzea, artatzea, kudeatzea eta administrazioa da, trena garraio-sistema modernoa, eraginkorra eta jasangarria izan dadin.

5.3. ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN INGENIARITZA ZIBILEAN EGINDAKO ESLEIPENAK

Ingeniaritza zibileko Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF eta PORTUAK eta RENFE) EAEn egindako esleipenei buruz Garraio Ministerioak argitaratutako datuek erakusten dute erakunde guztiek behera egin dutela, ADIFek izan ezik, 2021etik 2022ra. Hala, ADIFenak 66,4 milioi eurotik 156,4 milioi eurora igaro dira (+% 135,6), PORTUenak 47,5 milioitik 16,2 milioira, AENArenek 6,1 milioitik 4,4 milioira eta RENFE OPERADOREn 3,6 milioitik 207 mila eurora.

II.5.3. KOADROA. ESLEIPENAK ESTATUAN ETA EAE-N INGENIARITZA ZIBILEAN, GARRAIO MINISTERIOAREN, ERAKUNDE AUTONOMOEN ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOEN ALDETIK. EUROAK, MILAKA

	EAE						ESTATUA			EAE/ESTATUA (%)	
	2018	2019	2020	2021	2022 b-b	ALDAK. 2021-22	2020	2021	2022 b-b	2021	2022 b-b
MINISTERIOA, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	419.212	133.336	81.170	110.433	102.112	-7,5	1.465.772	2.333.835	4.288.261	4,7	2,4
ESTATUKO ERAKUNDE PUBLIKOAK	419.212	133.336	81.170	110.433	102.112	-7,5	1.031.708	2.195.751	3.634.818	5,0	2,8
AENA	10.391	15.647	12.036	6.098	4.357	-28,6	268.015	270.926	564.108	2,3	0,8
ADIF	400.873	131.424	62.836	66.377	156.390		743.122	1.903.353	3.871.555	3,5	4,0
PORTUAK	11.911	10.128	15.955	47.517	16.245	-65,8	269.726	288.212	383.496	16,5	4,2
RENFE OPERADOREA	408	9.334	10	3.606	207	-94,3	30.985	35.304	37.769	10,2	0,5

b-b: behin-behinekoa

Iturria: Guk geuk egina Garraio Ministerioaren datuak oinarri hartuta, eta geuk egina

5.4. ERREPIDEKO GARRAIOA

5.4.1. Azpiegitura: errepide-sarea

Errepideak, beren ezaugarriak direla eta, honela sailkatzen dira: autobideak, autobiak, errei anitzeko errepideak eta errepide arruntak (37/2015 Legea, Errepideei buruzkoa).

- Autobideak ezaugarri hauek dituzten errepideak dira: aldameneko jabetzak autobideetara ez sartzea; beste komunikazio-bide edo bide-zor batetik ere ez gurutzatzea, ezta maila berean gurutzatzea ere; eta zirkulazioaren noranzko bakoitzerako galtzada desberdinak izatea, zirkulaziorako ez den lur-zerrenda baten bidez edo, salbuespenezko kasuetan, beste bide batzuen bidez bereizita, salbu eta puntu berezietan edo aldi baterako.
- Autobiak dira autobideen betekizun guztiak betetzen ez dituzten errepideak, galtzada bereziak dituztenak zirkulazioaren noranzko bakoitzerako eta mugakide diren jabetzetara eta jabetzetatik sartzeko mugak dituztenak, eta gurutzagunerik ez dutenak.
- Errei anitzeko errepideak dira, autobide edo autobia izan gabe ere, noranzko bakoitzean zirkulaziorako gutxienez bi errei dituztenak, noranzko horietatik bereizita edo mugatuta daudenak, eta sestran sarbideak edo bidegurutzak izan ditzaketenak³⁵.
- Errepide arruntak dira aurrekoen ezaugarriak betetzen ez dituztenak.

Titulartasunari dagokionez, nahiz eta Espainiako Konstituzioak Estatuaren esku uzten duen erkidego baten baino gehiagoren lurraldetik igarotzen diren trenbideen eta lurreko garraioen gaineko eskumen eskusiboa, irailaren 26ko 2769/1980 Errege Dekretuaren bidez eskualdatu zitzaizkion EAeri errepideen alorreko eginkizunak eta zerbitzuak, eta

³⁵ Errepide horietako erreiak zenbatzean, ez dira kontuan hartuko errei gehigarriak, itzaroteko erreiak, txirikorda-erreiak eta abiadura-aldaketako erreiak.

abenduaren 3ko 174/2018 Dekretuaren bidez zabaldu egin ziren EAeri eskualdatutako eginkizunak eta zerbitzuak; beraz, EAEko erakunde guztiak dira EAEko errepideen titularrak.

Zehatzago, 2019az geroztik, bide-azpiegituren titulartasuna lurralde bakoitzeko foru aldundiei dagokie soilik, Artxandako tunelei izan ezik (Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate emakidaduna). Aurten, Estatuko Administrazioetik EAera errepideen arloko transferentziak egiteko prozesua amaitu da. AP-1 autobidea, hegoaldeko zatian Armiñoneraino, 2018ko abenduan eskualdatu zen, eta AP-68 autobidea, berriz, 2019ko apirilean. Ondoren, Bizkaiko eta Arabako foru aldundiei eskualdatzen zaie. A-8 autobidean, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, hurrenez hurren, Bidegi eta Interbiak sozietateen esku uzten dute hura ustiatzeko kudeaketa; Arabako Foru Aldundiak, berriz, Arabat sozietate publikoaren esku utzi zuen AP-1 autobidearen Arabako zatia.

Garraio Ministerioaren 2019ko *Urtekari estatistikoa* argitaratutako azken datuen arabera, gure erkidegoko errepide-sarea Europako sarerik trinkoenetako bat da, azalerako dentsitate handienetakoa baitu (0,58 km errepide km²-ko, ia Estatuko (0,33) halako bi), nahiz eta dentsitate txikiagoa izan biztanleko (1,89 km errepide 1.000 biztanleko; Estatuan, 3,49 km errepide 1.000 biztanleko). % 15,2 baino gehiago edukiera handiko bideek osatzen dute (% 10,5 Estatuan); ordainpeko autobideak dira edukiera handiko bideen % 39,6 (Estatuan, berriz, % 17,2).

II.5.4. KOADROA. ERREPIDE-SAREAREN INDIZEEN BILAKAERA							
	EAE					ESTATUA	
	2015	2016	2017	2018	2019	2018	2019
Km errepide	4.178	4.180	4.161	4.147	4.142	165.624	165.470
Biztanleak	2.164.066	2.167.283	2.170.868	2.177.880	2.189.372	46.937.060	47.355.685
Sare osoa (km) / azalera	0,58	0,58	0,58	0,58	0,58	0,33	0,33
Sare osoa (km) / 1.000 biztanle	1,93	1,93	1,92	1,90	1,89	3,53	3,49

Iturria: Garraio Ministerioaren Urtekari estatistikoa eta geuk egina

II.5.5. KOADROA. ERREPIDE-SAREA, BIDE-MOTAREN ETA ALDIAREN ARABERA. (Km) (1)					
	2015	2016	2017	2018	2019
ESTATUA					
Errepide-km guztira	166.003	165.483	165.686	165.624	165.470
Galtzada bateko errepideak	148.982	148.375	148.523	148.396	148.082
Edukiera handiko bideak guztira	17.022	17.109	17.163	17.228	17.387
Bidesaria duten autobideak	3.040	3.039	3.039	2.957	2.997
Autobiak	12.296	12.405	12.484	12.626	12.725
Errei anitzeko errepideak (1)	1.686	1.665	1.640	1.645	1.665
EAE					
Errepide-km guztira	4.178	4.180	4.161	4.147	4.142
Galtzada bateko errepideak	3.561	3.556	3.537	3.522	3.513
Edukiera handiko bideak guztira	617	624	624	624	628
Bidesaria duten autobideak	255	255	255	248	249
Autobiak	234	241	241	247	250
Errei anitzeko errepideak (2)	128	128	128	129	129

(1) Zifra biribilduak; batura ez da zehazki zenbateko osoa.
(2) 2015az geroztik, galtzada bikoitzeko errepideen definizioa aldatu da, eta errei anitzeko errepide deitzen zaie (37/2015 Legea, irailaren 29koa, Errepideei buruzkoa). Errepide horiek edukiera handiko errepideetan sartzen dira. Nazioarteko egoerarekin alderatzeko, ordainpeko autobideak, autobide libreak eta autobiak soilik hartzen dira halako errepidetzat.
Iturria: Garraio Ministerioaren Urtekari estatistikoa eta geuk egina

5.4.2. Salgaien errepideko garraioa

Garraio Ministerioaren datuek erakusten dutenez, jatorria edo helmuga EAEn zutela garraiatutako salgaien bolumena 105 milioi tonakoa izan zen 2022an (igarobideko nazioarteko garraioa alde batera utzita), hau da, % 0,2ko igoera 2021. urtearekin alderatuta % 45,5 eskualde barruko garraioa da; % 48,1, eskualde artekoa; eta % 6,4, nazioartekoa. Izan ere, garraiatutako salgaien kopuruak behera egin du eskualde arteko joan-etorrietan (-% 0,2) eta nazioartekoetan (-% 5). EAEn garraiatzen diren salgaiek gora egin dute, nahiz eta udalerrien barruan salgaien mugimenduak jaitsi egin diren (-% 20,1).

II.5.6. KOADROA. TONA GARRAIATUAK, JOAN-ETORRI MOTAREN ARABERA, ABIAPUNTUA EDO HELMUGA EAE-N DUTENAK MILA Tm

		2017	2018	2019	2020	2021	2022	% bertikala	Aldak. 2021-22
GUZTIRA		97.157	95.738	102.051	93.902	105.179	105.007	100	-0,2
ESKUALDE BARRUKOA	GUZTIRA	43.859	44.490	45.954	42.995	47.544	47.829	45,5	0,6
	UDAL BARRUKOA	7.830	7.953	5.305	7.623	10.402	8.310	7,9	-20,1
	UDAL ARTEKOA	36.029	36.537	40.649	35.372	37.142	39.520	37,6	6,4
ESKUALDE ARTEKOA	GUZTIRA	46.908	45.157	49.248	44.806	50.569	50.468	48,1	-0,2
	JASOTAKOA	24.119	23.717	24.828	21.589	27.182	24.143	23,0	-11,2
	BIDALITAKOA	22.789	21.440	24.420	23.218	23.387	26.325	25,1	12,6
NAZIOARTEKOA	GUZTIRA	6.390	6.092	6.849	6.101	7.065	6.710	6,4	-5,0
	JASOTAKOA	3.157	3.070	3.072	2.983	3.447	3.098	2,9	-10,1
	BIDALITAKOA	3.233	3.022	3.777	3.118	3.618	3.612	3,4	-0,2


Iturria: Garraio Ministerioa. Datu-basea eta geuk egina

Eskualdeen arteko eremuan (argitaratu diren 2020ko datuen arabera), Gaztela eta Leon da euskal ekonomiaren merkataritza-bazkide nagusia, 10 milioi tona inguru trukatu baititu; hau da, EAEn eta gainerako erkidegoen arteko garraioaren % 11,5. Bigarrenik, Nafarroa dago 7,6 milioi tonarekin (eskualdeen arteko garraioaren % 8,9ko kuota). Hirugarren postuan Kantabria dago, 4,9 milioi tona garraiatu baititu, eta salgaien errepideko garraioaren % 5,8ko partaidetza du.

II.5.7. KOADROA. ERREPIDEZ GARRAIATZEN DIREN SALGAIEN HELMUGA ETA JATORRIA, AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA. (mila tona)

	2019		2020	
	HELMUGA EAE	JATORRIA EAE	HELMUGA EAE	JATORRIA EAE
ANDALUZIA	548	666	643	710
ARAGOI	1.810	1.998	1.786	2.198
ASTURIAS	827	860	631	555
BALEAR UH.	-	-	-	-
KANARIAR UHARTEAK	-	-	-	-
KANTABRIA	2.947	2.849	2.434	2.526
GAZTELA-MANTXA	951	695	593	611
GAZTELA ETA LEON	5.562	5.710	5.267	4.590
KATALUNIA	2.448	1.735	2.033	1.591
VALENTZIAKO E.	1.314	1.244	1.325	1.498
EXTREMADURA	138	53	170	136
GALIZIA	152	1.192	1.056	806
MADRIL	1.433	1.252	1.511	1.524
MURTZIA	167	277	114	246
NAFARROA	3.841	4.898	2.896	4.737
EAE	45.954	45.954	42.995	42.995
ERRIOXA	1.245	973	1.134	1.489
CEUTA-MELILLA	-	-	-	-
GUZTIRA	70.782	70.374	64.583	66.212
HORIEATIK, BESTE AUTONOMIA-ERKIDEGO BATZUETARA BIDALIA	24.828	24.420	21.588	23.217

*Iturria: Garraio Ministerioaren Urtekari estatistikoa eta geuk egina
Koadro honen eta aurrekoaren arteko aldeak biribiltzeak azaltzen ditu.*

II.5.1 GRAFIKOA. EAE-REN ETA GAINERAKO AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARTEKO SALGAIEN ESKUALDE ARTEKO GARRAIOA. 2020


Iturria: Garraio Ministerioaren urtekari estatistikoa eta geuk eina

5.5. TRENBIDEKO GARRAIOA

5.5.1. Trenbide-sarea

Gaur egun, trenbide-sareak zabalera iberikoa (1.668 mm-ko trenbide-zabalera), zabalera estandarra (1.435 mm) eta zabalera metrikoa (1.000 mm) duten lineak ditu³⁶. Zabalera estandarra da zabalerrarik ohikoena eta lehenetsita aplikatzen dena linea berri gehienetan. Zabalera iberikoko sarea eta zabalera estandarreko zabalera-aldaketa automatikoko sistemen bidez daude konektatuta. Zabalera mistoko lineak ere badaude (1.435/1.668 mm), hirugarren erreiko sistemaren bidez.

Trafikoari dagokionez, sarearen zatirik handiena trafiko mistoko lineek osatzen dute (salgaiak eta bidaiariak).

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, bi administratzailek kudeatzen dituzte EAEko trenbide-azpiegiturak:

- Adif - Trenbide-azpiegituren administratzailea, zeinaren bidez RENFEko operadore nagusiak Estatuko hiriburu nagusiek inotzen baitu EAE. 2013ko urtarrilaren 1ean, Ferrocarriles de Vía Estrecha (FEVE) integratuta geratu zen Adifen, trenbide-azpiegiturak mantentzeko eta eraikitzeko dagokionez, uztailaren 20ko 22/2012 Errege Lege Dekretuan ezarritakoa betez. Egun horretatik aurrera, RENFE Operadoreak ematen ditu Kantauri isurialdeko zerbitzuak.
- ETS-RFV (Euskal Trenbide Sarea-Red Ferroviaria Vasca). ETSren azpiegituretako eragileak honako hauek dira: EuskoTren, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udalerrri zeharkatzen dituen hiriarteko zerbitzuaren eskaintzan; Metro Bilbao, Bizkaiko hiriburuko eta metropoliko eremuan bidaiariak garraiatzen dituen; eta Euskotreneko tranbiak, Bizkaiko eta Arabako hiriburuak barne hartzen dituztenak, Bilboko tranbiaren eta Gasteizko tranbiaren zerbitzuen bitartez.

Bestalde, Zubi Etekiaren (Bizkaiko Zubia) jardueraren kudeaketa honako sozietate honen erantzukizuna da: "Transbordador de Vizcaya SL."

Garraio Ministerioaren 2019ko *Estatistika urtekariaren* datuen arabera, EAEko trenbide-sarea 549,4 kilometro trenbidek osatzen dute Haietatik, 517,4 (% 94,2) elektrifikatuta daude, eta haietatik % 64,7 ADIFenak dira. Esan dugunez, hark kudeatzen ditu distantzia ertaineko eta penintsularanzko ibilbide luzeko zerbitzuei lotutako azpiegitura eta Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak.

Gainerako % 34,33 Euskal Trenbide Sarea-ETSk kudeatzen du (Bilbo-Donostia-Hendaia linea barne). Linearik zabalena Bilbo-Donostia da; era berean, Metro-Bilbaoren 3. linea, Txorierriko linea, Zornotza-Bermeo adarra eta Donostia-Hendaia linea kudeatzen ditu. Urolaren adar zaharra ere ETSren ondarearen parte da; gaur egun, Trenbidearen Euskal Museoko lurrunezko tren turistikoa baino ez da ibiltzen Azpeitia - Lasao tartean. Elektrifikazioari dagokionez, ETSk kudeatzen duen sarearen zatirik handiena elektrifikatuta dago; elektrifikatu gabea Urolako (Azpeitia - Lasao) trenari eta Larreinetako funikularrari dagokie.

II.5.8. KOADROA. ADIF-EK EAE-N KUDEATUTAKO LINEEN ADIBIDEAK, BIDE-ZABALERAREN ARABERA		
ZABALERA IBERIKOA (RENFE)	Bidaiariak	Aldiriko lineak: C1 Bilbo-Santurtzi C2 Bilbo-Muskiz C3 Bilbo-Urduña C1 Irun-Brinkola
	Salgaiak	Miranda Ebro - Urduña
ZABALERA ESTANDARRA	Bidaiariak	Abiadura handiko sarea (Euskal Y-a)
	Salgaiak	
ZABALERA METRIKOA (LEHEN FEVE)	Mistoa	La Robla Bilbo (Concordia)-León
	Bidaiariak	Bilbo (Concordia)-Basurtu
	Salgaiak	Basurtu - Ariz adarra

Iturria: Geuk egina

³⁶ Bide zabaleko trenbideak dira estandarra baino zabalera handiagoa dutenak, hala nola zabalera iberikoa; eta bide estukoak dira estandarra baino zabalera txikiagoa dutenak, adibidez, zabalera metrikoa. Zabalera metrikoko sarea kantauriar erlaitzetik eta Murtziatik igarotzen diren hiriarteko lineen multzo batek osatzen du. Linea horietan bidaiarien eta salgaien trenak ibiltzen dira, Madrilgo Cercedilla-Cotos linearen ondoan (bidaiarientzat bakarrik).


II.5.9. KOADROA. TRENBIDE KM-A EAE-N. 2019								
	LINEAREN LUZERA (KM)					BIDEAREN ZABALERA (KM)		
	GUZTIRA	ELEKTRIFIKATU GABE	ELEKTRIFIKATUA	BIDE BAKARRA	BIDE BIKOITZA	UIC	ZABALERA IBERIKOA	GAINER AKOAK *
GUZTIRA	549,44	32,01	517,43	254,43	295,01	0	301,65	247,80
ADIF	335,93	25,95	309,98	129,71	206,22	0	276,70	59,22
ADIF ABIADURA HANDIA	24,95	0	24,95	1,78	23,17	0	24,95	0
EUSKOTREN ETS	188,58	6,07	182,51	122,95	65,63	-	-	188,57

* Barne hartzen ditu zabalera metrikoa, zabalera mistoa, yarda ingelesa eta bide industrialaren zabalera.
Iturria: Garraio Ministerioaren urtekari estatistikoa eta geuk egina

Hala, EAEko trenbide-lineen kontzentrazioa Estatuko eta EB28ko gainerako lurraldeetako dentsitatea baino handiagoa da. Zenbakitan, bide-dentsitatea 77,9 m/km²-koa da, eta Europakoa (EB28) eta Estatukoa (48,4 m/km² eta 31,6 m/km², hurrenez hurren) baino nabarmen handiagoa da. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-linea guztiakin alderatuta, trenbide elektrifikatuek Estatuan eta Europan baino ratio handiagoa dute, trenbidearen egituraren % 94,2, % 64,3 eta % 54,6, hurrenez hurren.

5.5.2. Abiadura handia: Euskal Y-a

II.5.2 GRAFIKOAN, gaur egun Estatuan abiadura handiko (linea morea) eta distantzia luzeko (linea grisa) trenetan egin daitezkeen ibilbideak jasotzen dira. Urdinez Euskal Y-a erakusten da, zeina egiten ari baita, eta II.5.10 KOADROAN AHT linea horien xehetasun handiagoa agertzen da.



ABIADURA HANDIKO LINEEN (AHL) TARTE BAKOITZA AMAITU DEN URTEA	ERAIKITZEN ARI DIREN EDO PROIEKTUAN JASOTA DAUDEN ABIADURA HANDIKO LINEAK (AHL)
<ul style="list-style-type: none"> - 1992: Madril-Sevilla AHL - 2003: Madril-Zaragoza-Lleida tartea (Madril-Bartzelona-Frantziako muga AHL) - 2003: Zaragoza-Huesca AHL - 2005: Madril-Toledo AHL - 2006: Kordoba-Antequera tartea (Kordoba-Malaga AHL) - 2006: Lleida-Camp de Tarragona tartea (Madril-Bartzelona-Frantziako muga AHL) - 2007: Madril-Segovia-Valladolid AHL - 2007: Antequera-Malaga tartea (Kordoba-Malaga AHL) - 2008: Camp de Tarragona-Bartzelona tartea (Madril-Bartzelona-Frantziako muga AHL) - 2010: Figueres-Pertuseko tunela eta Molleteko lotunea-Girona (Madril-Bartzelona-Frantziako muga AHL) - 2010: Madril-Cuenca-Albacete-Valentzia tartea (Madril - Gaztela-Mantxa - Valentziako erkidegoa - Murziako eskualdea AHL) - 2011: Ourense-Santiago-A Coruña tartea (Madril-Galizia AHL eta Ardatz atlantiko AHL) - 2013: Bartzelona-Figueres tartea (Madril-Bartzelona-Frantziako muga AHL) - 2013: Albacete-Alacant tartea (Madril - Gaztela-Mantxa - Valentziako erkidegoa - Murziako eskualdea AHL) - 2015: Valladolid-Palenzia-León tartea - 2015: Olmedo-Zamora tartea - 2018: Valentzia-Castelló tartea (Madril - Gaztela-Mantxa - Valentziako erkidegoa - Murziako eskualdea AHL) - 2019: Antequera Santa Ana-Granada tartea - 2020: Vandellòs-Tarragona tartea (Mediterraneoko igarobidearen eta Madril-Bartzelona AHLaren arteko lotura) - 2020: Zamora-Pedralba de la Pradería tartea (Madril-Galizia AHL) - 2021: Monforte del Cid-Elx tartea (Madril - Gaztela-Mantxa - Valentziako erkidegoa - Murziako eskualdea AHL) - 2021:-Pedralba de la Pradería-Ourense tartea (Madril-Galizia AHL) - 2022: zabalera estandarreko tunela Madril-Chamartín-Clara Campoamor eta Madril-Atocha artean, eta Madrilera iristeko bi bide berri Atocha eta Torrejón de Velasco artean - 2022: Venta de Baños-Burgos tartea - 2022: Plasencia-Cáceres-Badajoz tartea - 2022: Beniel-Murziako El Carmen geltokia tartea (ipar-atala), Monforte del Cid-Murtzia linean 	<ul style="list-style-type: none"> - Ourenseko kanpoko saihebidia - Pajareseko saihebidia: zabalera iberikoko bideak mendebaldean, eta zabalera mistoa ekialdean. - Palenzia-Santander abiadura handiko linea: zabalera estandarreko bideak. - Burgos-Gasteiz abiadura handiko linea: zabalera estandarreko bideak. - Gasteiz-Bilbo-Donostia abiadura handiko lineak: zabalera estandarreko bideak. - Astigarraga-Irun tartean hirugarren erreia jartzea: hirugarren erreiko bideak (mistoak). -Zaragoza-Iruña-Euskal Y-a abiadura handiko linea: zabalera iberikoko bideak. - Madril-Extremadura abiadura handiko linea (bigarren fasea) - Mediterraneoko itsasertzeko igarobidea: Valentzia-Castelló konexio berriak zabalera estandarrean, Murtzia-Almeria AHL eta zabalera estandarra ezartzea Castelló eta Vandellòs artean. - Abiadura handiko konexioa Madril-Barajas-Adolfo Suárez aireportuarekin. - Zeharkako konexioak: Madril-Bartzelona eta Madril-Levante AHLen artean; Madril-Galizia eta Madril-Valladolid AHLen artean; eta Madril-Sevilla eta Kordoba-Malaga AHLen artean.
<p><i>Iturria. Adif (2023) eta geuk egina</i></p>	

Euskal Y-a

Abiadura handiko linea (Gasteiz/Bilbo/Donostia/Frantziako muga) EBren lehentasuneko 3. proiektuaren adar atlantikoaren parte da, eta Espainiako lurraldean jarraipena ematen dio Madril Valladolid/Gasteiz/Frantziako muga lineari. Lisboa-Estrasburgo igarobide atlantikoan sartzen da, beraz, oinarrizko sarearen barruan, Europako proiektua baita, baina baita herrialde-proiektua ere, euskal hiriburuak intercity zerbitzu baten bidez batuko baititu eta Euskadi Penintsula osora eta Frantziara hurbilduko baitu.

Bi adar desberdinek osatzen dute: Gasteiz-Bilbo, 90,8 km-koa, eta Bergara-Donostia-Frantziako muga, 89,7 km-koa. ADIF arduratu da Gasteiz eta Bilbo arteko plataformaren proiektuak idazteaz eta egikaritzeaz. Gainera, Arrasate-Elorrio-Bergara trenbide-lotuneari dagozkion tarteen plataformaren proiektuak idatzi eta gauzatu ditu.

2006ko apirilean, Estatuko Administrazio Orokorrak, Eusko Jaurlaritzak eta ADIFek lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen, Estatuko Aurrekontu Orokorraren kontura, Gipuzkoako adarrean plataformaren proiektuak idaztea eta plataforma eraikitzea, Bergarako 9,00 kilometro-puntutik Iruneraino, hirirako sarbidea barne (Donostia).

2017ko azaroaren 28an, Eusko Jaurlaritzak lankidetzeta-hitzarmena aldatzea eta gomendioa eguneratzea onartu zuen, euskal administrazioen eta administrazio zentralaren artean lortutako akordioaren ondorioz.

Obren egoera eta kudeaketa-enkargu berriak

- Gipuzkoako adarra
 - Hernani-Astigarraga tartea (2006an sinatutako lehenengo kudeaketa-enkargua osatzen duten 18 tarteetan azken-aurrekoa): Abiadura handirako tirantez finkatutako Estatuko lehenengo zubibidea eraikitzeke lanak osatzear daude. Tarte horretan, nazioarteko zabalera duten bideak sartu dira zabalera arrunta dutenen artean; gero, Donostiako Atotxako geltokirantz jarraitzen du bideak, plataformatik hirugarren erreiarekin, zeinak zabalera mistoa baitu.
 - Astigarraga-Oiartzun-Lezoko tartea. 2022ko apirilean, Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak baimena eman zuen Eusko Jaurlaritzari lanak egiteko aukera emango dion kudeaketa-enkargurako hitzarmena sinatzeko. Hala, forma eman zaio administrazio eskudunen arteko iazko akordioari, tarte horretarako hitzarmen espezifiko bat sortzeko eta Gipuzkoan amaitu gabe dauden obren multzorako dagoen enkargutik ateratzeko.
- Bilbo/Abandoko eta Gasteizko sarbideak. 2021eko azaroan, Eusko Jaurlaritzak eta Garraio Ministerioak bi kudeaketa-enkargu berri gauzatu zituzten, zeinek Eusko Jaurlaritzak Gasteizen eta Bilbon abiadura handiko sarbideetako obrei aurre egiteko aukera ematen baitute.
 - 2022ko martxoan, Eusko Jaurlaritzak Gasteizko eta Bilboko sarbideetako obra zibilaren zati bat Espainiako Gobernuaren kudeaketa-enkarguaren bidez gauzatu duela ezartzen duten protokoloak sinatu ziren.
 - ✓ *Bilbo-Abandoko geltoki berria eta Basauriko behin-behineko geralekua eraikitzeke protokoloak* adierazten du alderdiek modu koordinatuan jardun nahi dutela esparru hauetan:
 - ❖ Abiadura handia Bilbora iristeko lurpeko geltoki berriaren informazio-azterlana eta eraikuntza-proiektua garatzea eta administrazio-izapideak egitea.
 - ❖ Behin-behineko geraleku bat eraikitzea Miranda Ebrotik Bilborako 700 linea arruntarekiko bidegurutzean; aldiriko geltoki berri bat ere eraikiko da, abiadura handiko zerbitzuak Bilbo ingurura iritsi ahal izateko, behin betiko geltokiaren obrak egiten diren bitartean. Behin-behineko geraleku hori sarbide-tunelaren eta Abandoko lurpeko geltokiaren lanak hasten direnean jarriko da martxan.

Basauriko behin-behineko geralekua udalerrir horretan ahalik eta inpaktu txikiena eragiteke moduan eraikiko da, eta ez du errepide bidezko ibilgailuen intermodalitate sortuko (autobusak, taxiak, ibilgailu pribatuak...).
 - ❖ Garraio Ministerioak Eusko Jaurlaritzaren esku utziko ditu Abandoko lurpeko geltokiaren trenbide-ustiapenari eragiten ez dion Bilborako sarbide-tarteko plataforma eta obra zibila egiteko lanak.
 - ✓ *Abiadura handia Gasteiza iristea bultzatzeko eta trena hirian integratzeko protokoloak* honako jarduerak esparru hauek ezartzen ditu:
 - ❖ Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Gasteizko Udala lankidetzan arituko dira Garraio Ministerioarekin informazio-azterlan berriaren ingurumen-ebaluazioa egiteko garaian ingurumenari buruzko dokumentazio osagarriari buruzko kontsultak ebatzeko.
 - ❖ Garraio Ministerioak, ingurumen-izapideak amaitu ostean, trenbidea Gasteizen integratzeari buruzko informazio-azterlan berria onartuko du.
 - ❖ ADIF – Abiadura Handia erakundeak Gasteiz hirian trenbidea integratzeko oinarritzko proiektua, hiriko zatia eta Arkautiko lotunea barne hartzen dituen, idazteko lizitazioa egingo du.

- ❖ Arkautiko lotunearen zatiko plataformaren obrak, trenbide-ustiapenari eragiten ez diotenak, Eusko Jaurlaritzaren esku utziko dira.
- ❖ Era berean, beste enkargu bat egingo zaio Eusko Jaurlaritzari, Gasteizko hiri-tartean trenbide-ustiapenari eragiten ez dion obra zibila egiteko.
- 2022ko apirilean, Eusko Jaurlaritzak baimena eman zuen Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren (AHT) Bilbo-Abando geltokira sartzeko igarobidearen obrak kudeatzeko ardura ematen dion hitzarmena sinatzeko.

Hitzarmen horrek jasotzen duenez, ADIF Abiadura handia erakundeak EAeko administrazioaren esku uzten du eraikuntza-proiektua eta haren aldaketak idaztea, obra kontratatzea eta gauzatzea, baita Bilboko etorkizuneko geltokiaren behealdeko zabalera estandarreko igarobiderako plataformaren obra-zuzendaritzak ere. Tarte hori informazio-azterlana behin betiko onartzeko zain dago, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioaren zain. Estatuko trenbide-administratzailea arduratuko da eraikuntza-proiektua, haren aldaketak eta obrak gainbegiratzeko eta onartzeaz, baita gainegiturako, elektrifikazioko, segurtasuneko eta komunikazioko eta trenbidekoak ez diren segurtasun-instalazioetako proiektua egiteaz eta lanak gauzatzeaz ere.

Zenbatetsitako aurrekontua, informazio-azterlana amaitu bitartean, 220,30 milioi eurokoa da. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzak aurreratuko du, eta, gauzatze-gastuak konpentsatzeko, beharrezko murrizketak egingo dira kupoaren bidez. ADIF- Abiadura Handia erakundeak bere gain hartuko du gainegiturari eta instalazioei dagokien 52,68 milioiko kostua.

5.5.3. Hegoaldeko trenbide-saihesbidea

2017ko martxoaren 15ean, Eusko Jaurlaritzak akordio bat lortu zuen Espainiako Gobernuarekin Estatuko Administrazio Orokorraren, Trenbide Azpiegituren Administrazioarekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko, azken horren esku uzteko hegoaldeko trenbide-saihesbidearen proiektuak eta obrak egitea. Ondoren, ekainaren 2an, Ministroen Kontseiluak onartu zuen Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidea Euskal Autonomia Erkidegoari gomendiotan ematea, trenbide-azpiegituren garapena bultzatzeko.

Enkargua Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak berretsi zuen, eta honako hauek biltzen ditu: eraikuntza-azterlanak eta -proiektuak idaztea, obrak kontratatu eta gauzatzea, desjabetze-espeditenteen administrazio-kudeaketan laguntzea, baita hegoaldeko trenbide-saihesbidearen lanek eskatzen dituzten obra-zuzendaritzak eta bestelako zerbitzuak ere. Jarduerak Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko ekonomia-itunaren esparruan finantzatu dira (kupoa).

5.6. AIREKO GARRAIOA

EAeko airetiko sistema Bilbo, Donostia eta Gasteizko aireportuetako aireko azpiegiturek osatzen dute. Azpiegitura horiek guztiak estatuaren titulartasunekoak dira eta AENAK kudeatzen ditu.

Garraio Ministerioaren Espainiako aireko garraioari buruzko txostenetako datuen arabera, 2022an 5.748 mila bidaiari igaro ziren EAeko hiru aireportuetatik (% 89,2 Bilboko aireportutik), hau da, 2021eko bidaiariak halako bi (2.864 izan ziren 2021ean). Bestalde, salgaien trafikoa % 1,8 gehitu zen, eta 74.292 tonakoa izan zen. (% 99,1 Gasteizko aireportuan erregistratu zen).

Bilboko aireportuan 5.129 mila bidaiari izan ziren, hau da, 2021. urtean baino % 98,7 gehiago. Salgaien trafikoari dagokionez, % 42,4 hazi zen.

Gasteizko aireportuan, salgaien trafikoa % 1,5 igo zen, 73.620 tonakoa izan baitzen³⁷. Hala, Gasteizko aireportuak laugarren tokian jarraitzen du aireportuen rankingean garraiatu-rik salgaien bolumenari dagokionez, honako hauen atzetik: AS Madril-Barajas, Bartzelona-El Prat eta Zaragoza. Bestalde, bidaiarien trafikoa 128 mila pertsonatik 235 mila pertsonara igaro zen.

Donostiako aireportuan ere bikoiztu egin zen aurreko urteko bidaiarien kopurua, 155 mila pertsonatik 384 mila pertsonara igaro baitzen.

II.5.11. KOADROA. AIREKO TRAFIKO ZIBILAREN BILAKAERA, KONTZEPTUAREN ETA AIREPORTUAREN ARABERA												
	EAE GUZTIRA			GASTEIZ			BILBO			DONOSTIA		
	Aire-ontziak	Pertsonak (milakotan)	Salgaiak (Tm)	Aire-ontziak	Pertsonak (milakotan)	Salgaiak (Tm)	Aire-ontziak	Pertsonak (milakotan)	Salgaiak (Tm)	Aire-ontziak	Pertsonak (milakotan)	Salgaiak (Tm)
2017	62.348	5.340	62.444	8.434	84	60.484	46.989	4.974	1.956	6.925	282	3
2018	66.136	5.900	63.379	9.755	141	62.156	49.966	5.470	1.216	6.415	289	7
2019	68.861	6.400	65.443	10.797	174	64.463	51.591	5.906	980	6.473	320	0,4
2020	33.134	1.819	64.718	10.317	45	64.334	20.496	1.690	384	2.321	84	0,02
2021	42.225	2.864	72.995	12.677	128	72.522	26.429	2.581	472	3.119	155	1,1
2022 b-b	63.841	5.748	74.292	13.343	235	73.620	44.919	5.129	672	5.579	384	0
Aldakuntza 2020-21	27,4	57,4	12,8	22,9	184,4	12,7	28,9	52,7	22,9	34,4	84,5	
Aldakuntza 2021-22	51,2		1,8	5,3	83,6	1,5	70,0	98,7	42,4	78,9		

bb: Behin-behinekoa
Iturria: Espainiako aireko garraioari buruzko txostenak, Garraio Ministerioa eta geuk egina

5.7. ITSAS GARRAIOA

Merkataritza-portu nagusiak Bilboko Portua eta Pasaiaiko Portua dira, interes orokorreko eta Estatuaren titulartasuneko portu bakarrak. Gainerako portu autonomikoek (15 guztira) euskal portu-sistema osatzen dute, eta Estatuako Administrazioak maiatzaren 14ko 2.380/1982 Errege Dekretuaren bidez Euskal Administrazioari transferitu ondoren, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira.

Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2021. eta 2022. urteen artean, Bilboko portuko trafikoa (salgaiak, hornidura eta arrantza) % 5,1 hazi zen; guztira 32,9 milioi tona izan ziren, eta horietatik 24,2 milioi ontziratu gabeak ziren, eta haietatik % 84,5 (20,5 milioi tona) likidoak ziren. Bestela esanda, garraiatu-rik salgaien % 62,2 ontziratu gabeko likidoak dira, gehienbat petrolioaren produktuak. Bestalde, 25 ontzi gutxiago daude, 2.669tik 2.644ra igaro baita ontzi-kopurua. Hala ere, bidaiari-kopurua 75.853 pertsonatik 214.028 pertsonara igaro da.

Pasaiaiko portuak askoz kopuru txikiagoak biltzen ditu, eta horietan % 6,4ko beherakada bat izan da salgaien trafikoaren aldetik; guztira 3,3 milioi Tm izan dira. Ontzien kopurua 967tik 885era jaitsi zen, eta bidaiarien kopurua, berriz, 138tik 2.846 pertsonara igo zen.

³⁷ Gasteizko aireportuak 2018ko apirilaren 25etik aurrera berreskuratu zuen H24 kalifikazioa, eta eguneko 24 orduetan jardun zuen berrir.

II.5.12. KOADROA. ONTZIAK, BIDAIRIAK ETA ITSASOKO GARRAIOAK MUGITUTAKO SALGAIK, MOTAREN ARABERA SAILKATUTA

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 b-b	%	ALD. % 2021-22	
BILBO	PORTUKO TRAFIKOA, GUZTIRA (MILAKA TONA)	32.067	34.308	35.697	35.562	29.646	31.299	32.890	100,0	5,1
	ONTZIRATU GABEKO LIKIDOAK	18.087	19.784	20.490	20.821	18.157	17.765	20.453	62,2	15,1
	SOLIDO SOLTEAK	4.362	4.543	4.758	4.681	3.668	4.651	3.753	11,4	-19,3
	SALGAIK ORO HAR	9.500	9.870	10.337	9.945	7.720	8.764	8.561	26,0	-2,3
	BESTELAKO TRAFIKOA	119	112	112	115	101	120	124	0,4	3,5
	ONTZIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	2.815	2.855	2.925	2.818	2.338	2.669	2.644		-0,9
	BIDAIRIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	190.626	186.546	200.631	160.544	45.583	73.853	214.028		
PASAIA	PORTUKO TRAFIKOA, GUZTIRA (MILAKA TONA)	3.458	2.974	3.139	3.245	3.037	3.535	3.310	100,0	-6,4
	ONTZIRATU GABEKO LIKIDOAK	0	0	0	0	0	0	2	0,1	
	SOLIDO SOLTEAK	1.099	834	996	1.031	1.009	1.104	871	26,3	-21,2
	SALGAIK ORO HAR	2.295	2.085	2.092	2.167	1.984	2.388	2.396	72,4	0,3
	BESTELAKO TRAFIKOA	61	55	50	47	43	42	41	1,2	-2,5
	ONTZIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	994	865	911	933	846	967	885		-8,5
	BIDAIRIAK, GUZTIRA (KOPURUA)	0	0	0	0	4	138	2.846		

5.8. EAE-KO PLATAFORMA LOGISTIKOAK

EUROPLATFORMSen arabera, plataforma logistikoa eremu mugatua da, eta horren barruan logistikako eta salgaien banaketako jardura guztiak egiten dituzte hainbat operadore logistikok, bai nazioarteko garraioetarako, bai garraio nazionaletarako. Monomodalak edo multimodalak diren kontuan hartuta, honelaxe sailkatzen dira: Salgaien Zentro Integratuak (SZI), Jardura Logistikoaren Zonak (JLZ) eta Portu lehorrak.

- Salgaien Zentro Integratuak (SZI): plataforma logistikoak modu bakarrean, errepidea, industria- eta kontsumo-eremu baten inguruan zerbitzua ematen dutenak.
- Jardura logistikoaren zonak (JLZ): portuetatik eta edukiontzien terminaletatik gertu daude, eta aireko garraioarekin ondo komunikatutako logistika intermodala eskaintzen dute, trenbidez edo errepidez.
- Portu lehorrak: salgaien terminal intermodala, ondo komunikatutako erreferentzia-eremu baten barruan kokatu ohi dena, gertuen dauden portuekin trenbidearen edo errepideko garraioaren bidez konektatu ahal izateko.

Koadro honetan, EAEn daudenak jasotzen dira, kokapena, tamaina eta titulartasuna deskribatuta.

II.5.13. KOADROA. EAE-KO PLATAFORMA LOGISTIKOAK			
	KOKAPENA	HEDADURA	TITULARTASUNA (AKZIODUNAK)
PLATAFORMA LOGISTIKO INTERMODALA, ARASUR (RIBABELLOSA, ARABA)	Hiru errepide garrantzitsu daude, N-1, A-68 eta A-1, eta hiru trenbide: <ul style="list-style-type: none"> • AP-1, AP-68 eta A-1erako sarbideak • Trenbide-ardatzen elkargunea <ul style="list-style-type: none"> ✓ Lisboa/Madril – Irun – Paris ✓ Madril - Bilbo ✓ Bartzelona - Bilbo • Forondako aireportua (20 km) • Bilboko portua (65 km) • 2021eko lehenengo astetik Bilboko Portuarekiko trenbide-konexioa du astero (horrek portu lehor bihurtzen du Arasur). 	200 ha parke logistiko eta industrial	Kutxabankek, Arabako Foru Aldundiak, Eusko Jauriaritzak, Erribera Beitiako Udalak eta Merlin Parke Logistikoek parte duten sozietatea.
GASTEIZKO GARRAIO ETA LOGISTIKAKO ZENTRO INTERMODALA, GGZ (JUNDIZ, ARABA)	Gasteizko Jundizko Enpresa Parkean <ul style="list-style-type: none"> • A-68, A-1, N-1 eta N-240 errepideekin zuzenean lotzen duen saihesbidetik 500 bat metrora. • Gasteiz (3 km) • Forondako aireportua (4 km) • ADIFen karga-terminala kontaktu fisikoan dago GGZrekin 	718.141 metro koadro (120.000 m2, biltegiatarako trenbide-adarra duten lur-zati industrialak, bagoi-kamioi sarbide bikoitzarekin)	Kutxabank, Arabako Foru Aldundia, Arabako Garapen Agentzia, Arabako Merkataritza Ganbera, Eusko Jauriaritza, Gasteizko Industria Lurra SA, GILSA; eta SEA
MUGAZ GAINDIKO PLATAFORMA LOGISTIKOA, ZAISA (IRUN, GIPUZKOA)	Irungo mugako hirian, ardatz atlantikoko funtsezko lotunea <ul style="list-style-type: none"> • A-8 eta A-68 autobideen ondoan • Hondarribia-Donostia eta Biarritz-Parma aireportuetatik eta Pasaiaiko portutik hurbil. 	400.000 metro koadro	Publikoa ehuneko handi batean
BIZKAIKO GARRAIO ZENTROA, APARCABISA (ZIERBENA, BIZKAIA)	<ul style="list-style-type: none"> • A-8/AP-8 autobidearen oinean • Bilbotik 7 minutura • Bilboko aireportutik 5 minutura • Bilboko portutik 3 minutura. 	312.560 metro koadro	Publikoa

Iturria: Geuk egina, plataformetako web-orrialdeetan oinarrituta

ITURRIAK

1. **Bizkaiko GARRAIO PARTZUERGOA, APARCABISA.** Web-orria.
2. **Gasteizko Garraio eta Logistikako Zentro Intermodala, GGZ** Web-orria.
3. **EUSKO TRENBIDE SAREA.** Web-orria.
4. **GARRAIO MINISTERIOA.** Urtekari estatistikoa. Zenbait urte.
5. **GARRAIO MINISTERIOA.** Hegazkintza zibila. 2022ko datuak.
6. **GARRAIO MINISTERIOA.** Datu-basea 2022ko datuak.
7. **GARRAIO MINISTERIOA.** Portuak. 2022ko datuak.
8. **PLATAFORMA LOGISTIKO INTERMODALA, ARASUR.** Web-orria.
9. **PLATAFORMA LOGISTIKO intermodala, ZAISA.** Web-orria.

6. ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

Bigarren kapituluko atal hau bi bloke handitan dago banatuta; alde batetik, I+G+b jarduerak aztertzen dira eta, bestetik, Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia (IKT).

I+G+b jardueren blokearen barruan, honako hauek aztertzen dira: I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak, enpresa-sareko I+G jarduerak, berrikuntza-jarduerak, eta EAEk Europako berrikuntza-adierazleen paneletan duen posizioa. Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren *Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2014-2020* (ZTBP) delakoaren jarraipena egiten da, EJK igorritako aginte-taula oinarri hartuta.

Bestalde, IKTei buruzko blokean, herritarrek eta euskal enpresek Internet nola erabiltzen duten, enpresen eraldaketa digitalaren maila, telelana, merkataritza elektronikoa (herritarrena eta enpresena), administrazio elektronikoa, eta ekonomiaren eta gizarte digitalaren indizea aztertzen dira.

6.1. I+G+B JARDUERAK

6.1.1. I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak

EUSTATen “*Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistikaren*” arabera, 2021ean I+G+b-ko Euskal Sistemaren adierazle nagusiak honako hauek dira.

I+G-ko gastua. 1.647 M € inbertitu ziren (+% 10,5, aurreko urtearen aldean).

I+G-ko gastua BPGd-arekiko (ahalegina). 2021ean, % 2,11n egon da (aurreko urtean % 2,07), goranzko joerarekin jarraituz.

Ratio hori estatuko batez bestekoa (% 1,43) baino handiagoa da, EINen datuen arabera, baina eurogunean ikusitakoa (% 2,31) baino txikiagoa, baita erreferentziako herrialdeetan arlo horretan izandakoa baino txikiagoa ere, ondoko taulan ikus daitekeen bezala. Bereziki nabarmenak dira Hego Korean (% 4,81), Suedian (% 3,49), AEBn (% 3,45), Belgikan (% 3,38), Japonian (% 3,26), Austrian (% 3,22) eta Alemanian (% 3,13) antzemandako ratioak, 2020ko datuen arabera.

I+G gastua biztanleko (intentsitatea). EINen datuen arabera, Euskadi da biztanleko gastu handiena duen autonomia-erkidegoa (765,5 euro), ondoren Madril (670,4 euro) eta Nafarroa (591,9 euro) daudela. Estatuko batezbestekoa 363,7 eurokoa da.

II.6.1. KOADROA. I+G ARLOKO AHALEGINAREN BILAKAERA. ERREFERENTZIAKO HERRIALDEAK, EB27, EUROGUNEA ETA EAE						
	2016	2017	2018	2019	2020	2021
EAE	1,81	1,85	1,85	1,86	2,07	2,11
SUITZA	:	3,03	:	3,15	:	:
HEGO KOREA	3,99	4,29	4,52	4,63	4,81	:
SUEDIA	3,25	3,36	3,32	3,39	3,49	3,35
AEB	2,85	2,86	2,96	3,18	3,45	:
BELGIKA	2,52	2,67	2,86	3,16	3,38	3,19
JAPONIA	3,11	3,17	3,22	3,2	3,26	:
AUSTRIA	3,12	3,06	3,09	3,13	3,22	3,22
ALEMANIA	2,94	3,05	3,11	3,17	3,13	3,13
DANIMARKA	3,09	2,93	2,97	2,93	2,96	2,81
FINLANDIA	2,72	2,73	2,76	2,8	2,91	2,98
ISLANDIA	2,11	2,08	2	2,32	2,47	2,79
TXINA (HONG KONG SALBU)	2,1	2,12	2,14	2,23	2,4	:
EUROGUNEA 19	2,14	2,18	2,22	2,26	2,35	2,31
EB27	2,12	2,15	2,19	2,23	2,31	2,27
HERBEHEREAK	2,15	2,18	2,14	2,18	2,31	2,25
FRANTZIA	2,22	2,2	2,2	2,19	2,3	2,21
NORVEGIA	2,04	2,1	2,05	2,16	2,28	1,97
ESLOVENIA	2,01	1,87	1,95	2,05	2,15	2,15
TXEKIAR ERREP.	1,67	1,77	1,9	1,93	1,99	2
ESTONIA	1,24	1,28	1,42	1,63	1,79	1,8
PORTUGAL	1,28	1,32	1,35	1,4	1,62	1,69
HUNGARIA	1,18	1,32	1,51	1,48	1,6	1,64
GREZIA	1,01	1,15	1,21	1,28	1,51	1,44
ITALIA	1,37	1,37	1,42	1,46	1,51	1,49
ESPAINIA	1,19	1,21	1,24	1,25	1,41	1,43

Iturria: EUSTAT ETA EUROSTAT eta geuk egindako lana.

II.6.2. KOADROA. ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIARI BURUZKO ADIERAZLEAK									
	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
I+G arloko gastuak									
GUZTIRA (M EUROTAN)	1.316,8	1.289,8	1.273,2	1.290,9	1.363,2	1.423,4	1.481,4	1.490,0	1.647,0
URTEKO IGOERA (%)	-4,1	-2,1	-1,3	1,4	5,6	4,4	4,1	0,6	10,5
BPGd-AREN GAINAN (%)	2,03	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86	2,07	2,11
LANGILEAK (AOB)									
GUZTIRA	18.279,5	18.535,4	18.217,1	17.898,0	18.577,3	19.274,1	19.618,5	19.510,9	20.804,2
URTEKO IGOERA	-2,2	1,4	-1,7	-1,8	3,8	3,8	1,8	-0,5	6,6
LANGILE IKERTZAILEAK (AOB)									
GUZTIRA	11.959,3	12.030,3	12.089,1	11.915,5	12.607,9	13.165,1	13.520,4	13.628,7	14.366,6
URTEKO IGOERA	1,6	0,6	0,5	-1,4	5,8	4,4	2,7	0,8	5,4

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika.

I+G arloko gastua egikaritze-sektorearen arabera³⁸. I+G arloko gastuaren zatirik handiena, % 77,4 (1.275,2 m €), enpresek egin zuten; % 16,2 (267,1 milioi) goi-mailako irakaskuntzak egin zuen, eta gainerako % 6,4 (104,7 milioi) administrazioaren mendeko erakundeek. Enpresa-sektoreak egikaritzen du gastu handiena, eta, gainera, beste igoera txiki bat izan du partaidetza-ehunekoan (% 76,7tik % 77,4ra). Estatuan, enpresek³⁹ partaidetza txikiagoa dute guztizkoarekiko, eta goi-mailako irakaskuntzak, berriz, handiagoa (% 56,2 eta % 26,6, hurrenez hurren).

Aurreko urtearen aldean, hiru sektoreek igo zuten I+G arloko gastua: enpresek % 11,6, administrazioaren menpeko erakundeek % 18,6 eta goi-mailako irakaskuntzak % 3,2.

II.6.3. KOADROA. I+G ARLOKO BARNE-GASTUAK, DIZIPLINA ZIENTIFIKOAREN, EGIKARITUTAKO SEKTOREAREN ETA FUNTSEN JATORRIAREN ARABERA. EUROAK, MILAKA												
	GUZTIRA	2021					ALDAKUNTZAREN %A 2020- 21					
		FUNTSEN JATORRIA					GUZTIRA	FUNTSEN JATORRIA				
		ADMIN.	GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	ENPR.	IAGEP	ATZER.		ADMIN.	GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	ENPR.	IAGEP	ATZER.
GUZTIRA	1.646.957	541.283	34.194	933.104	7.460	130.916	10,5	6,2	0,8	14,8	-2,6	4,0
EGIKARITZE-SEKTOREA												
ENPRESAK ETA IAGEP	1.275.153	260.696	6.074	901.918	1.448	105.017	11,6	5,2	1.924,7	14,6	-18,9	-0,9
ADMINISTRATIO PUBLIKOA	104.689	89.621	159	9.410	1.899	3.600	18,6	14,8	-4,2	91,2	-22,7	36,6
GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	267.115	190.966	27.961	21.777	4.113	22.299	3,2	3,9	-16,4	5,3	20,3	28,3
DIZIPLINA ZIENTIFIKOA												
ZIENTZIA ZEHATZAK ETA NATURALAK	130.550	91.029	5.553	18.974	1.844	13.150	10,3	7,1	24,5	18,3	94,5	10,8
INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA	1.160.078	241.898	10.110	811.969	956	95.145	9,4	0,0	-20,8	13,8	22,4	3,6
MEDIKUNTZA-ZIENTZIAK (FARMAZIA BARNE)	190.882	100.634	1.793	74.778	2.839	10.837	15,8	9,9	-4,1	28,7	-27,2	14,7
NEKAZARITZA-ZIENTZIAK (ABELTZAINZA, BASOGINTZA ETA ARRANTZA BARNE)	52.597	31.179	6.511	11.642	151	3.115	16,9	27,3	1147,3	-7,8	29,1	-57,0
GIZARTE- ETA GIZA ZIENTZIAK	112.850	76.543	10.227	15.741	1.670	8.669	11,6	14,9	-28,5	23,9	-12,8	56,1

Iturria: EUSTAT. Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika eta geuk egindako lana.

³⁸ Komeni da kontuan hartzea I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.

³⁹ Europako Estatistika Sistemaren arabera, EINEK, Ikerketa eta Garapeneko (I+G) Jardueren gaineko Estatistikan, enpresen sektorean, enpresa-kontzeptu estatistiko berria ezarri du. Aldaketa horren arabera, enpresa estatistikoa bat etor daiteke legezko unitatearekin, enpresa-taldearekin edo enpresa-talde baten zati batekin (azken bi kasuak kopuru osoaren % 3 inguru dira). Ondorioz, eragina izan dezake bai sektore horretako eragiketaren emaitzan, bai enpresen jardueren, tamainan eta egoitza sozialen autonomia-erkeidgoen araberrako banaketan. Aldaketa metodologiko horren ondorioz, enpresen sektoreko adierazleak ezin dira alderatu aurreko urtetako datuekin.

I+G arloko gastuaren finantzaketa (funtsen jatorriaren arabera gastua).

Sektore pribatuak gastuaren finantzaketan izan duen partaidetza % 56,7koa da (aurreko

urtearen aldean, % 14,8 gehiago), horixe izanik oraindik ere finantzabide nagusia. Bestalde, finantzaketa publikoa % 6,2 igo da aurreko urtearen aldean eta, barneko I+G arloan egindako gastu osoaren % 32,9 ordezkatzeko du. Hala ere, igoera sendoa gorabehera, finantzaketa osoan izan duen pisua jaitsi egin da.

Finantzaketa publikoaren jatorriari dagokionez, Administrazio Autonomoaren ekarpena da nagusi (433,4 milioi), % 5,3 igo baita aurreko urtearen aldean. Administrazio Publikoak 2021ean finantzatzeko gutzizkoaren % 80,1 da. Bestalde, Administrazio Zentralaren finantzaketa (87,3 milioi) % 16,9 hazi da aurten, eta bere partaidetza administrazio publikoek finantzatzeko gutziaren % 16,1koa da. Azkenik, aldundiek eta toki-administrazioek (20,6 milioi) % 3,8ko partaidetza izan zuten, baina haien ekarpena % 11,6 murriztu zen aurreko urtearen aldean.

Estatuan, 2021ean, EINen datuen arabera, sektore pribatuak % 50,2 finantzatzeko du eta administrazio publikoak, berriz, % 37,5. Eurogunean, EUROSTATen 2020ko datuen arabera, portzentajeak % 58,2 eta % 30,4 dira.

I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia izan da 2020an honako leku hauetan: Japonia (% 78,3), Txina, salbu Hong Kong (% 77,5), Hego Korea (% 76,3), AEB (% 66,3), Suitza (% 64,7), Alemania (% 62,6) eta Malta (% 60,2).

I+G arloko gastua, diziplina zientifikoaren arabera. Berriro nabarmentzen dira ingeniariak eta teknologia (gastu osoaren % 70,4), eta horren atzetik, alde handiarekin, medikuntza-zientziak (% 11,6), zientzia zehatzak (% 7,9) eta gizarte-zientziak (% 6,9). Bestalde, nekazaritzakoak % 3,2 dira.

Funtsen jatorriari dagokionez, ingeniarietako ikerketa batik bat enpresen sektoreak finantzatzeko du. Hala, % 70 enpresek finantzatzeko dute eta % 20,9 sektore publikoak. Medikuntza-zientzietan, zientzia zehatzetan, gizarte-zientzietan eta nekazaritza-zientzietan kontrakoa gertatzen da, administrazioak gastuaren % 69,7, % 52,7, % 59,3 eta % 67,8 finantzatzeko baitu, hurrenez hurren.

I+G-ko langileak (aritze osoko baliokidetzan neurtua (AOB)). 20.804,2 pertsona dira (+% 6,6, aurreko urtearen aldean); egikaritze-sektoreen arabera, % 71,6 enpresei dagokie, % 22,2 goi-mailako irakaskuntzari eta % 6,2 Administrazio Publikoari. Okupazioa kontuan hartuta (ikertzaileak, teknikariak edo laguntzaileak), ikertzaileen kopurua 14.366,6 pertsonakoa da (gutzizkoaren % 69,1), aurreko urtearen aldean % 5,4ko igoera izan ostean (ikus II.6.2. KOADROA).

Sexuaren arabera azterketak agerian uzten duenez, jardura horietan diharduten langileen % 36,2 emakumeak dira (aurreko urtekoaren antzekoa). Hala ere, EUSTATen arabera, denbora-perspektiba handiagoarekin, pisuak gora egin du, zehazki, ehuneko 3,1 puntu 2010.

urtearekin alderatuta, eta 4,8 puntura arte 2005. urtearekin alderatuta.

II.6.4. KOADROA. SEKTORE PRIBATUAK ETA SEKTORE PUBLIKOAK FINANTZATUTAKO I+G GASTUA. GASTU OSOAREN GAINEKO EHUNEKOAK*										
	SEKTORE PRIBATUAK FINANTZATUTAKOAK					ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK FINANTZATUTAKOAK				
	2017	2018	2019	2020	2021	2017	2018	2019	2020	2021
EAE (EUSTAT)	54,7	54,2	53,9	54,6	56,7	33,6	33,1	33,8	34,2	32,9
ESTATUA (EIN)	47,7	49,5	49,1	49,2	50,2	38,9	37,6	37,9	38,5	37,5
EUROGUNEAN (EUROSTAT)	59,5	59,6	59,4	58,2	dg	29,8	29,6	29,3	30,4	dg

* Ez dute 100 batzen, beste finantzabide batzuk daudelako
Iturria: EUSTAT, EIN, EUROSTAT eta geuk egindako lana.

II.6.5. KOADROA. I+G-KO EMAKUME LANGILEAK (AOB), EGIKARITZE-SEKTOREAREN ARABERA						
	GUZTIRA		EMAKUMEAK			
	BALIO ABSOLUTUAK		ABSOLUTUAK		% HORIZONTALAK	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
GUZTIRA	19.510,9	20.804,2	7.130,0	7.533,7	36,5	36,2
ENPRESAK ETA IAGEP	13.800,5	14.887,4	4.244,7	4.531,2	30,8	30,4
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	1.164,2	1.295,2	648,5	742,6	55,7	57,3
GOI-MAILAKO IRAKASKUNTZA	4.546,2	4.621,6	2.236,8	2.259,9	49,2	48,9

Iturria: EUSTAT, I+G jardueren buruzko estatistika, eta geuk egindako lana.

I+G-ko egikaritze-sektorea kontuan hartuta, enpresen sektorean eta goi-mailako irakaskuntzan dago emakumeen presentzia kuantitatiboki nabarmenena: 4.531,2 eta 2.259,9 emakume, hurrenez hurren, eta 742,6 emakume Administrazio Publikoaren sektorean. Hala ere, Administrazio Publikoan, termino erlatiboetan, emakumeak langile guztien % 57,3 dira, goi-mailako irakaskuntzan % 48,9 eta enpresen sektorean % 30,4.

Ezagutza-aktiboak.

Geroago sakonago aztertuko den “Berrikuntza-adierazleen panela, IUS” deritzonak dakarren informazioan oinarrituta aurkeztuko dugu adierazle honen azterketa.

Datuek erakusten duten bezala, gure erkidegoak berrikuntzaren adierazle sintetikoaren balioa lortu du, 2022koa, 0,60koa, estatuarena (0,48) eta EB27rena (0,54) baino handiagoa, eta, halaber, “goi-mailako berrikuntza” duten herrialdeena baino handiagoa.

Hala ere, IUSen “Ezagutza-aktiboak” dimentsioak berrikuntza-prozesuetan etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide-moduak biltzen ditu, eta 0,35 da adierazlea, EB27ko batezbestekoaren (0,56) eta are estatukoaren (0,43) azpitik.

II.6.6. KOADROA. EZAGUTZA-AKTIBOEN ADIERAZLEAK 2022KO IUS SISTEMAN						
	IUS 2022 SAILKAPENA	EZAGUTZA-AKTIBOAK				
		ADIERAZLE KONPOSATUA	PCT PATENTEEN ESKABIDEAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	EBren MARKA KOMERTZIALAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	EBren DISEINUAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	
1	SUEDIA	0,74	0,69	9,31	10,01	3,78
2	FINLANDIA	0,73	0,73	7,54	9,26	5,04
3	DANIMARKA	0,73	0,80	5,95	9,35	7,61
4	HERBEHEREAK	0,70	0,62	4,97	8,11	4,35
5	BELGIKA	0,70	0,48	3,17	6,85	2,67
6	IRLANDA	0,64	0,34	1,40	4,49	1,79
7	LUXENBURGO	0,64	0,62	1,55	19,86	4,29
8	AUSTRIA	0,64	0,80	4,62	12,49	7,61
9	ALEMANIA	0,64	0,69	6,14	8,39	5,16
	EUSKADI	0,60	0,35	1,68	5,80	1,16
10	ZIPRE	0,58	0,58	0,57	41,87	3,79
11	FRANTZIA	0,57	0,45	3,70	4,00	2,54
	EB27	0,54	0,56	3,49	7,39	3,99
12	ESTONIA	0,54	0,67	1,36	22,33	5,16
13	ESLOVENIA	0,51	0,43	1,58	9,20	2,18
14	TXEKIA	0,50	0,35	0,66	5,49	2,69
15	ITALIA	0,50	0,59	2,14	8,32	5,61
16	ESPAINIA	0,48	0,43	1,44	8,68	2,55
17	PORTUGAL	0,47	0,43	0,99	8,43	3,15
18	MALTA	0,46	0,69	1,23	49,87	5,55
19	LITUANIA	0,45	0,38	0,48	10,91	2,14
20	GREZIA	0,43	0,30	0,69	6,30	1,09
21	HUNGARIA	0,38	0,29	1,47	3,84	0,78
22	KROAZIA	0,36	0,24	0,56	3,62	0,98
23	ESLOVAKIA	0,35	0,29	0,52	5,00	1,80
24	POLONIA	0,33	0,47	0,51	6,07	5,63
25	LETONIA	0,28	0,38	0,83	7,58	2,34
26	BULGARIA	0,25	0,41	0,47	9,15	3,35
27	ERRUMANIA	0,18	0,18	0,18	3,01	0,80

Iturria: EUSTAT, Berrikuntza-adierazleen panela.

Berez, beste lurralde-eremuekin erkatuta, hauxe ondoriozta daiteke: 1,68 adierazlea duela EAEk BPGd-ko bilioi bakoitzeko EEP⁴⁰ patenteen eskabideetan (EAP eurotan), 5,80 adierazlea BPGd-ko bilioi bakoitzeko EBko marka komertzialetan (EAP eurotan) eta 1,16koa BPGd-ko bilioi bakoitzeko (EAP eurotan) EBko diseinuetan. Beraz, EB27koen batezbestekoen (3,49 / 7,39 / 3,99) azpitik dago, eta urruti erreferentziako herrialdeetatik, baita estatuko batezbestekoen azpitik ere.

Historikoki aztertuta, EAEk I+G jardueretan inbertsio handiak egin dituen bitartean, dirudienez, oraindik ere zailtasunak dauzka inbertsio hori emaitzetara eramateko, ezagutza-aktiboaren adierazleek baxuak izaten jarraitzen dutelako; horrek efizientzia edo produktibitate txikiagoa erakusten du.

⁴⁰ Patenteen gaineko Lankidetzeta Ituna.

II.6.7. KOADROA. AHALEGINA I+G-N ETA AKTIBO INTELEKTUALEN ADIERAZLEAK. 2014-2021

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021
AHALEGINA I+G-N (GASTUA BPGd-AREN GAINEAN)	1,94	1,86	1,81	1,85	1,85	1,86	2,07	2,11
PCT PATENTEEN ESKBIDEAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	1,52	1,65	1,53	1,35	1,68			
EBren MARKA KOMERTZIALAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	5,43	5,75	5,84	5,98	5,70	5,96	5,53	5,80
EBren DISEINUAK BPGd-ko BILIOI BAKOITZEKO (EAP eurotan)	1,61	1,28	1,78	2,02	1,68	1,57	1,37	1,16

*Oharra: Europako IUS 2021 eraikitzeko, letra lodiz erabili dira datuak
Iturria: EUSTAT. Berrikuntza-adierazleen panela.*

6.1.2. I+G jarduerak

a) Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen sektoreko I+G jarduerak, ZTEseko zentro teknologikoak alde batera utzita

EUSTATen datuen arabera, 2021ean I+G-ko jarduerak egin zituzten enpresen kopurua 1.399 izan zen (Zientzia eta Teknologiako Euskal Sareko zentro teknologikoak kontuan hartu gabe) (2020an baino % 1,5 gehiago). Horietatik, 554 industria-sektorekoak dira (2020an baino 17 gutxiago, -% 3), 786 zerbitzuen sektorekoak (44 gehiago, +% 5,9), 45 eraikuntza-sektorekoak (5 gutxiago, -% 10), eta 14 lehen sektorekoak (2020an baino 1 gutxiago). Bestalde, enpresek jarduera horietan egiten duten guztizko gastua % 13 igo da 2020tik 2021era bitartean, eta 1.011.656 mila eurora iritsi da.

II.6.8. KOADROA. I+G ARLOKO ENPRESA-KOPURUAREN ETA BARNE-GASTUAREN BILAKAERA (ZTEseko ZTak gabe)

	GUZTIRA		NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA, ARRANTZA, ERAUZKETA-INDUSTRIAK ETA ENERGIA		INDUSTRIA		ERAIKUNTZA		ZERBITZUAK	
	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)	Enpresak, guztira	Gastua (mila eurotan)
2016	1.254	761.561	13	21.785	577	376.978	26	7.154	638	355.644
2017	1.312	799.792	13	22.825	600	411.694	36	8.932	663	356.341
2018	1.334	853.873	12	18.819	607	401.200	41	10.672	674	423.182
2019	1.313	878.518	12	14.371	534	418.864	36	10.873	731	434.410
2020	1.378	895.445	15	16.900	571	414.817	50	9.130	742	454.598
2021	1.399	1.011.656	14	23.487	554	460.019	45	8.562	786	519.588
Aldakuntza (%) 20-21	1,5	13,0	-6,7	39,0	-3,0	10,9	-10,0	-6,2	5,9	14,3
Aldea 20-21	21	116.211	-1	6.587	-17	45.202	-5	-568	44	64.990

Iturria: EUSTAT.

Jarduera horietan dedikazio osoa duten langileei dagokienez, jarduera horiek 10.915,3 pertsonatik 11.794,7 pertsonara igo dira AOBen. Langile horiek gehienak industrian eta zerbitzuetan daude bilduta: % 43,1 industrian (5.080,7 AOBen) eta % 53,7 (6.328,1 AOBen) zerbitzuetan.

11.794,7 pertsona horiek enpresa-sektoreko (ZTES zentro teknologikorik gabe) enplegu osoaren (AOB) % 1,3 dira, eta ratio hori apur bat igo da azken urteen aldean. Adar handien arabera banakatuta, industriako enplegu osoaren % 2,9 I+G-ko jardueretan aritzen da (% 2,8 2020an); zerbitzuen sektorean % 0,9 (azken urteetan egonkorra) eta eraikuntzaren sektorean % 0,3 (azken urteetan egonkorra).

II.6.9. KOADROA. I+G ARLOKO LANGILE-KOPURUAREN BILAKAERA (ZTEseko ZTak gabe)								
	2018		2019		2020		2021	
	GUZTIRA	SEKTOREKO ENPLEGU GUZTIAREN GAINEKO %A	GUZTIRA	SEKTOREKO ENPLEGU GUZTIAREN GAINEKO %A	GUZTIRA	SEKTOREKO ENPLEGU GUZTIAREN GAINEKO %A	GUZTIRA	SEKTOREKO ENPLEGU GUZTIAREN GAINEKO %A
GUZTIRA	10.820,1	1,2	10.953,6	1,2	10.915,3	1,2	11.794,7	1,3
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA, ERAUZKETA-INDUSTRIAK ETA ENERGIA	304,6	1,9	203,1	1,3	195,1	1,3	248,0	1,8
INDUSTRIA	4.722,1	2,6	4.517,2	2,5	4.850,3	2,8	5.080,7	2,9
ERAIKUNTZA	161,0	0,3	154,2	0,3	144,2	0,3	137,9	0,3
ZERBITZUAK	5.632,4	0,8	6.079,1	0,9	5.725,7	0,9	6.328,1	0,9

Iturria: EUSTAT

I+G-ko⁴¹ jardueren eta beste enpresa-jarduera batzuen adarra alde batera utzita, hauek dira I+G-ko jardueretan langile gehien ematen duten sektoreak: jarduera informatikoak (% 9,8), bestelako makineria eta etxekeko aparatuak (% 7,7), garraio-materiala (% 6,9) eta metalezko gaiak (% 5,4).

Oraindik ikusten dugu euskal enpresek I+G gastuak beren funtsekin finantzatzen jarraitzen dutela, neurri handi batean.

Azkenik, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 75 langile dira, euskal enpresaren multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa (6 lagunekoa), Memoria honen II. kapituluaren jasotzen den bezala. "EAEko Ekonomia", "Ekoizpen-sektoreak" atalean.

II.6.10. KOADROA. ENPRESA-SEKTOREKO ADIERAZLEAK (ZTEseko ZTak gabe) JARDUERA-ADARREN ARABERA. I+G 2021							
	ENPRESA-KOPURUA	LANPOSTUA, BATEZ BESTE	LANGILEAK, AOB	BARNE-GASTUA	FUNTS PROPIOEN %A	INOREN FUNTSEN %A	EAE-KO ENPLEGUA, GUZTIRA
GUZTIRA	1.399	75	11.794,7	1.011.656	73,7	26,3	911.656
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, ARRANTZA, ERAUZKETA-INDUSTRIAK ETA ENERGIA	14	134	248	23.487	93,9	6,1	13.854
INDUSTRIA	554	113	5.080,7	460.019	82,4	17,6	174.822
M-A KIMIKA ETA PETROLIO-FINKETA	40	82	292,7	31.956	87,8	12,2	5.771
M-B KAUTXUA ETA PLASTIKOA	30	138	285,5	21.419	62,0	38,0	12.747
M-B METALAREN AZALAREN APARATEKO INDUSTRIA	14	56	51,8	3.314	68,8	31,2	3.941
M-B METALURGIA	37	230	223,6	23.084	64,0	36,0	15.931
M-B METALEZKO ARTIKULUAK	127	74	637,2	49.953	83,8	16,2	41.513
M-A MAKINA-ERREMINTAK	32	87	394,1	26.852	76,8	23,2	3.375
M-A ETXEKO APARATUAK	**	330	**	2.849	**	**	724
M-A BESTELAKO MAKINERIA+ETXEKO APARATUAK**	98	102	913,7	77.712	85,1	14,9	24.219
M-A MATERIAL ELEKTRIKOA	41	104	443,0	34.444	77,1	22,9	7.730
A MATERIAL ELEKTRONIKOA	20	86	388,6	28.941	82,0	18,0	4.422
A DOITASUN-MATERIALA	36	49	461,2	34.497	75,1	24,9	3.370
M-A GARRAIORAKO MATERIALA	25	524	818,4	111.340	92,8	7,2	18.844
BESTE MANUFKATURA BATZUK	54	73	170,9	13.658	76,0	24,0	32.235
ERAIKUNTZA	45	46	137,9	8.562	70,0	30,0	53.729
ZERBITZUAK	786	46	6.328,1	519.588	65,2	34,8	669.251
A INFORMATIKA-JARDUERAK	145	42	1.160,9	64.393	79,9	20,1	17.268
A I+G JARDUERAK	114	27	2.349,8	249.055	61,9	38,1	8.438
BESTE ENPRESA-JARDUERA BATZUK	222	43	1.382,2	112.590	57,2	42,8	64.101
BESTE ZERBITZU BATZUK	305	58	1.435,2	93.550	73,1	26,9	579.444

**** Ez dago nahikoa unitate, sekretu estatistikoa bermatzeko**
Iturria: EUSTAT.

⁴¹ Jarduera nagusizat I+G jarduerak (ingeniaritza eta aholkularitza teknologikoa) dituzten eta, beraz, gainerakoek ez bezalako profil eta helburuak dituzten enpresak.

6.1.3. Berrikuntza-jarduerak

a) Enpresa berritzaileak

EUSTATen *Berrikuntzaren Inkestak*, beste aldagai batzuen artean, enpresa berritzaileen ehunekoa kontabilizatzen du, baita ere jarduera berritzaileetako gastuaren zenbatekoa eta jardueren arteko banaketa, haren finantzaketa publikoa eta jarduera berritzaileak egiteko lankidetzak.

II.6.11. KOADROA. BERRIKUNTZA-JARDUERAK GAUZATZEN DITUZTEN ENPRESEN PORTZENTAJEAREN BILAKAERA* ENPRESA GUZTIEN ALDEAN			
	2017-19	2018-20	2019-2021
ENPRESAK, GUZTIRA	18,2	18,6	19,9
10 LANPOSTU EDO GEHIAGOKO ENPRESAK (EIN-EKO ETA EUROSTATE-KO DATUEKIN ALDERATZEKO...)	30,8	31,4	32,6

*Ez dira sartzen abian diren edo huts egin duten berrikuntzakoak
Iturria: EUSTAT. Berrikuntzaren inkesta eta bertan egindako lana.

Inkesta horretako datuen arabera, 2021ean EAEn enpresen % 19,9 berritzaileak ziren, 2020an baino ehuneko 1,3 gehiago. Berrikuntza-motaren arabera bereiziz gero, produktuaren berrikuntza enpresen % 9,5ek egiten dute, eta negozio-prozesuena % 18,1ek.

10 lanpostu eta gehiagoko enpresak bakarrik aintzat hartuz gero (EINekoekin alderatu ditzakegu, horiek ez baitute 10 lanpostu baino gutxiagoko enpresei buruzko informaziorik), enpresa berritzaileen portzentajea handiagoa da, % 32,6, hain zuzen (2020an baino % 1,2 gehiago). Berrikuntza-motaren arabera bereiziz gero, produktuaren berrikuntza enpresen % 19,9k egiten dute, eta negozio-prozesuena % 28,8k.

Lurralde historikoen arabera bereizita, eta EUSTATen estatistika erabiliz, Araban 10 lanpostu edo gehiago dituzten enpresen % 28 berritzaileak dira, Bizkaian % 32,2 eta Gipuzkoan % 35,6.

EINen datuen arabera, estatuan 2018-20 aldian 10 lanpostu edo gehiagoko enpresen % 22,6 berritzaileak izan dira (azken datua, memoria honen kapitulu hau ixtean argitaratua). 2018-20 aldian enpresa berritzaileen ehuneko handiena izan zuten autonomia-erkidegoak EAE (% 28ko ratioa, INEren arabera), Madril (% 25,7) eta Katalunia (% 25,1) izan ziren.

Sektoreka, 10 langile eta gehiagoko industria-enpresen % 38,5, zerbitzu-establezimenduen % 31,1 eta eraikuntza-enpresen % 27,8 dira berritzaileak. Jarduera-azpisektoreen arabera, industria nabarmentzen da: energia elektrikoak, gasa eta lurruna (% 72,2), produktu informatikoak eta elektronikoak, material eta ekipo elektrikoak (% 68,7) eta makinak eta farmazia-produktuak (% 59,9). Zerbitzuetan: finantza- eta aseguru-jarduerak (% 65), osasun-jarduerak (% 47), eta telekomunikazioa, informatika eta hedabideak (% 43,5).

II.6.12. KOADROA. EAE-N BERRIKUNTZA (PRODUKTUKOIA ETA PROZESUKOIA, EZ DA SARTZEN ABIAN DENA EDO HUTS EGIN DUENA) EGITEN DUTEN 10 LANGILE EDO GEHIAGOKO ENPRESEN EHUNEKOA, LURRALDEAREN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA. 2019-21	
GUZTIRA	32,6
ARABA	28,0
BIZKAIA	32,2
GIPUZKOA	35,3
INDUSTRIA	38,5
ERAUZKETA-INDUSTRIAK, KOKEGINTZA ETA PETROLIO-FINKETA	16,7
JANARI IND., EDARIAK, TABAKOA	31,3
EHUNGINTZA, EBAKETA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	31,9
ZURA, PAPEREA ETA ARTE GRAFIKOAK	31,7
INDUSTRIA KIMIKOIA ETA FARMAZIA-PRODUKTUAK	54,0
KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	24,3
METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	34,8
PROD. INFORMATIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK. MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOIA	68,7
MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	59,9
GARRAIORAKO MATERIALA	48,0
ALTZARIAK ETA BESTE MANUFAKTURA BATZUK	27,0
ENERGIA ELEKTRIKOIA, GASA ETA LURRUNA	72,2
UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	25,1
ERAIKUNTZA	27,8
ZERBITZUAK	31,1
IBILGAILUEN MERKATARITZA ETA KONPONKETA	34,4
GARRAIOA ETA BILTEGIARITZA	18,1
OSTALARITZA	18,0
TELEKOMUNIKAZIOA, INFORMATIKA ETA HEDABIDEAK	43,5
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	65,0
HIGIEZIN-JARDUERAK	37,8
I+G, AHOLKULARITZA ETA BESTE JARDUERA PROFESIONAL ETA TEKNIKO BATZUK	39,5
ZERBITZU OSAGARRIAK	14,3
BIDAIA-AGENTZIA ETA BIDAIA-OPERADOREAK	41,4
HEZKUNTZA	36,6
OSASUN-JARDUERAK	47,0
GIZARTE-, AISIA- ETA KULTURA-JARDUERAK ETA BESTE BATZUK	23,4

Iturria: EUSTAT. Berrikuntzaren inkesta.

b) Jarduera berritzaileetarako gastuak

2021ean, jarduera berritzaileetarako gastuak lehen aldiz izan zituen 3.000 M€ baino gehiago (3.029,8 M€, + % 8,7 2020ko datuen aldean). Hala, BPGd-aren % 3,88 litzateke. 10 lanpostu eta gehiagoko enpresei dagokienez, gastua 2.619 M€-koa da, hau da, BPGd-aren % 3,36.

II.6.13. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, BPGd-AREN EHUNEKOAREN ARABERA						
	ENPRESAK, GUZTIRA			>= 10 LANGILE		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
GASTUA, GUZTIRA (milioi EURO)	2.894,7	2.788,1	3.029,8	2.449,3	2.379,2	2.619
BPGd-aren GAINEKO %A	3,64	3,90	3,88	3,08	3,33	3,36
I+G BARNE-JARDUERAK	1,87	2,08	2,11	1,76	1,96	1,99
I+G KANPO-JARDUERAK	0,56	0,58	0,57	0,44	0,46	0,47
BESTE JARDUERA BERRITZAILE BATZUK	1,22	1,23	1,20	0,88	0,91	0,90

Iturria: EUSTAT. Berrikuntzaren inkesta.

Jarduera-sektoreen arabera eta 10 lanpostu eta gehiagoko enpresen artean, industriaren barruan, aurreko urteetan bezala, gastua garraio-materialean kontzentratzen da, gastuaren % 9,7, metalurgia eta metalezko gaiak % 7, makineria eta ekipamendua % 5,6 eta produktu informatikoak eta elektronikoak; material eta ekipo elektrikoak % 5,8. Zerbitzuen sektorean hauek azpimarratu behar dira: I+G, aholkularitza eta beste jarduera profesional eta tekniko batzuk, gastuaren % 27,6, hezkuntza, % 9,4 eta osasun-jarduerak % 8,5.

Lurraldeka, gastu-ratorik handiena Bizkaian dago (% 51,2), gero Gipuzkoan (% 32,9) eta, azkenik, Araban (% 15,9).

c) Finantzaketa publiko berrikuntza-jarduerak egiteko

Enpresa berritzaileek erakunde publiko baten edo gehiagoren laguntzak jaso ditzakete finantzaketa publikoaren bidez berrikuntza-jarduerak egiteko. EUSTATen datuen arabera, 2021ean 10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 52,6k laguntza publikoak jasotzen zituen, eta Eusko Jaurlaritza zen tamaina horretako berrikuntza-jardueretan gastuak dituzten enpresen kopuru handiena finantzatzen zuena; zehazki, % 38,1. Foru-aldundiek eta toki-administrazioek % 20,6 eta % 9,9 finantzatzen zuten, hurrenez hurren; estatuko Administrazioak, berriz, era horretako enpresen % 16,6 finantzatzen zituen. Bestalde, EBk % 11,9 finantzatzen zuen: % 7,7 2020ko Horizon programaren bidez, eta % 6,2 Europako beste finantzaketa-mota baten bidez.

II.6.14. KOADROA. BERRIKUNTZA TEKNOLOGIKOKO JARDUERETARAKO GASTUAK, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA. 10 LANPOSTU ETA GEHIAGOKO ENPRESAK. 2021		
	EUROAK, MILAKA	%a
GUZTIRA (MILIOI EUROTAN)	2.619.001	
ARABA	417.139	15,9
BIZKAIA	1.339.959	51,2
GIPUZKOA	861.904	32,9
INDUSTRIA	986.135	37,7
ERAUZKETA-INDUSTRIAK, KOKEGINTZA ETA PETROLIO-FINKETA	10.603	0,4
JANARI IND., EDARIAK, TABAKOA	17.455	0,7
EHUNGINTZA, EBAKETA, LARRUGINTZA ETA OINETAKOAK	1.191	0,0
ZURA, PAPEREA ETA ARTE GRAFIKOAK	7.089	0,3
INDUSTRIA KIMIKOA ETA FARMAZIA-PRODUKTUAK	44.048	1,7
KAUTXUA ETA PLASTIKOAK	72.391	2,8
METALURGIA ETA PRODUKTU METALIKOAK	184.635	7,0
PROD. INFORMATIKOAK ETA ELEKTRONIKOAK. MATERIAL ETA EKIPAMENDU ELEKTRIKOAK	151.179	5,8
MAKINAK ETA EKIPAMENDUA	145.068	5,5
GARRAIORAKO MATERIALA	253.117	9,7
ALTZARIAK ETA BESTE MANUFATURA BATZUK	50.652	1,9
ENERGIA ELEKTRIKOA, GASA ETA LURRUNA	42.919	1,6
UR-HORNIDURA ETA SANEAMENDUA	5.787	0,2
ERAIKUNTZA	25.200	1,0
ZERBITZUAK	1.607.667	61,4
IBILGAILUEN MERKATARITZA ETA KONPONKETA	89.086	3,4
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	22.236	0,8
OSTALARITZA	2.150	0,1
TELEKOMUNIKAZIOA, INFORMATIKA ETA HEDABIDEAK	263.655	10,1
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	22.419	0,9
HIGIEZIN-JARDUERAK	1.424	0,1
I+G, AHOLKULARITZA ETA BESTE JARDUERA PROFESIONAL ETA TEKNIKO BATZUK	723.787	27,6
ZERBITZU OSAGARRIAK	939	0,0
BIDAIA-AGENTZIA ETA BIDAIA-OPERADOREAK	37	0,0
HEZKUNTZA	246.251	9,4
OSASUN-JARDUERAK	222.743	8,5
GIZARTE-, AISIA- ETA KULTURA-JARDUERAK ETA BESTE BATZUK	12.939	0,5

Iturria: EUSTAT. Berrikuntzaren inkesta.

d) Berrikuntza zailtzen duten faktoreak

EUSTATen arabera, 10 langile edo gehiagoko enpresen % 66,6k uste zuen bazirela berrikuntza oztopatzen duten faktore batzuk. Faktore nagusien artean honako hauek daude: “Enpresaren barruan beste lehentasun batzuk daude”, “kostu altuegiak”, “laguntza edo dirulaguntza publikoak eskuratzeko zailtasunak” eta “merkatuko eskariaren gaineko ziurgabetasuna”.

II.6.15. KOADROA. BERRIKUNTZA ZAILTZEN DUTEN FAKTOREAK. 10 LANGILE EDO GEHIAGOKOKO ENPRESAK. (Enpresaren %a). 2021	
BERRIKUNTZA ZAILTZEN DUTEN FAKTOREAK DAUDELA USTE DUTEN ENPRESEN %A	66,6
FAKTOREEN ARABERA	
ENPRESAREN BARRUAN BESTE LEHENTASUN BATZUK DAUDE	49,8
KOSTU ALTUEGIAK	47,1
LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK ESKURATZEKO ZAILTASUNAK	38,3
MERKATUKO ESKARIAREN GAINEKO ZIURGABETASUNA	37,2
ENPRESAREN BARRUKO FINANTZAKETA-FALTA	34,5
MERKATUKO GEHIEGIZKO LEHIA	33,6
KANPOKO ITURRI PRIBATUEN FINANTZAKETA-FALTA	28,9
ENPRESAREN BARRUKO LANGILE KUALIFIKATUEN FALTA	28,1
KANPO-EZAGUTZETARAKO SARBIDE-FALTA	23,2
LANKIDETZARAKO BAZKIDE-FALTA	18,1
<i>Iturria: EUSTAT. Berrikuntzaren inkesta.</i>	

6.1.4. EAE Europako berrikuntza-adierazleen paneletan

6.1.4.1. EAE Europako berrikuntza-adierazleen panelean - European Innovation Scoreboard (EIS), 2022


“Europako berrikuntza-adierazleen panela” herrialdeen ekonomiek berrikuntza-jarduerak egiteko zenbaterainoko gaitasuna duten eta zenbateraino garatzen dituzten neurtzen saiatzen da. Etengabe berrikusten ari den adierazleen panela da. Urtero aldatzen da, bai hura osatzen duten adierazleetan, bai hura kalkulatzeko formulatan. Aldaketa horiek direla eta, ezin da konparaziorik egin aurreko urteetan argitaratutako EISekin. EIS bakoitzean zortzi urterako datuak ematen dira, 2015-2022 EISen kasuan, 2022an eskuragarri dauden azken datuak erabiliz.

EB27ko herrialdeak lau mailatan daude sailkatuta, lortu duten puntuazioaren eta batezbesteko europarreararen ekoizkeraren arabera:

- Lehenengo taldean, “Berrikuntza-arloan aitzindari diren herrialdeak”, Europako batezbestekoaren % 125 baino gehiagoko puntuazioa duten herrialdeak daude. Suedia (berrikuntzaren adierazle sintetikoa: 0,735), Finlandia (0,735), Danimarka (0,731), Herbehereak (0,701) eta Belgika (0,698) dira; ordea, Suitza da Europako abangoardia (0,772).
- Bigarren taldea, “herrialde berritzaile indartsuak”, Europako batezbestekoaren % 100 eta % 125 bitarteko puntuazioa lortzen duten herrialdeek osatzen dute. Kasu honetan, eta behearazko ordenan, Irlanda (0,645), Luxenburgoko (0,643), Austria (0,641), Alemania (0,637), Zipre (0,579) eta Frantzia (0,571) leudeke. Euskadi, 0,597 punturekin, talde horren mailan legoke, Alemania eta Zipre artean, EB27ko batezbestekoaren % 110,1era iritsita.
- Hirugarren taldean, “erdi mailako berrikuntza duten herrialdeak” (batezbestekoaren % 70 eta % 100 artean) Estonia, Eslovenia, Txekiar Errepublika, Italia, Espainia (0,481), Portugal, Malta, Lituania eta Grezia daude, Estoniako 0,542tik Greziako 0,435era bitartean.
- Azkenik, laugarren taldean, “goranzko herrialde berritzaileak” (batezbestekoaren % 70 baino gutxiago) daude, behearazko ordenan, Hungaria, Kroazia, Eslovakia, Polonia, Letonia, Bulgaria eta Errumania, lehenengoan 0,378 puntu eta azkenekoan 0,177 puntu lortu baitituzte.

Azkenik, EAE, 0,597ko balioarekin, estatuaren (0,481) eta EB27ren (0,542) gainetik dago.

II.6.1. GRAFIKOA. BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN EUROPAKO PANELA EIS 2022. EAE eta EB-27



Adierazleen Panela lau bloke nagusitan (Esparru-baldintzak, Inbertsioak, Berrikuntza-jarduerak eta Eraginak) eta 12 dimentsiotan dago egituratuta, guztira 32 adierazlerako.

a) **Esparru-baldintzak:** enpresetatik kanpoko berrikuntzako emaitzen eragile nagusiak neurtzen ditu, eta hiru dimentsio hartzen ditu: giza baliabideak, ikerketa-sistema erakargarriak eta digitalizazioa.

b) **Inbertsioak:** ikerketan eta berrikuntzan egindako inbertsio publikoa eta pribatua neurtzen ditu, eta hiru dimentsio hartzen ditu: finantzaketa eta babesa, enpresen inbertsioak eta informazioaren teknologien erabilera.

c) **Berrikuntza-jarduerak** enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten dituzte, hiru dimentsiotan taldekatuta: berritzaileak, laguntzaileak eta ezagutza-aktiboak.

d) **Eraginak** enpresen jarduera berritzaileen ondorioak hartzen ditu barnean, hiru dimentsiotan: eraginak enpleguan, eraginak salmentetan eta ingurumen-jasangarritasuna.

II.6.16. KOADROA. EUROPAKO BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN PANELA, 2022. 4 BLOKE ETA 10 DIMENTZIO. ADIERAZLE KONPOSATUAK.			
	EB27	EAE	ESTATUA
EIS 2021	0,54	0,60	0,48
ESPARRU-BALDINTZAK	0,46	0,66	0,57
GIZA BALIABIDEAK	0,42	0,61	0,54
IKERKETA-SISTEMA ERAKARGARRIAK	0,42	0,60	0,41
DIGITALIZAZIOA	0,58	0,82	0,86
INBERTSIOAK	0,59	0,66	0,43
FINANTZAKETA ETA BABESA	0,66	0,64	0,49
ENPRESEN INBERTSIOA	0,62	0,71	0,39
INFORMAZIOAREN TEKNOLOGIAREN ERABILERA	0,45	0,61	0,41
BERRIKUNTZA-JARDUERAK	0,50	0,46	0,36
BERRITZAILEAK	0,60	0,45	0,30
LAGUNTZAILEAK	0,37	0,65	0,33
EZAGUTZA-AKTIBOAK	0,56	0,35	0,43
ERAGINAK	0,62	0,59	0,6
ERAGINAK ENPLEGUAN	0,52	0,45	0,31
ERAGINAK SALMENTETAN	0,69	0,57	0,67
INGURUMEN-JASANGARRITASUNA	0,61	0,76	0,62

Iturria: EUSTAT eta Europako Batzordea.

ESPARRU-BALDINTZEN blokean, EAEk 0,66 puntu lortu ditu EB27ko 0,46en aldean; gainera, gure Erkidegoak Europako batezbestekoa gainditu du osatzen duten hiru dimentsioetan: “Giza baliabideak”, “Ikerketa-sistema erakargarriak” eta “Digitalizazioa”.

- “Giza baliabideak” dimentsioan, kualifikazio handia duen eta trebatuta dagoen lan-indarrak berrikuntzarako elementu gako gisa duen erabilgarritasuna neurtzen da. Dimentsio horretan, Euskadi nabarmentzen da Europako batezbestekoarekin alderatuta, berau osatzen duten hiru adierazleetan: *25 eta 34 urte bitarteko doktore graduatu berriak* milako 1,05era iristen dira Euskadin; EB27n, berriz, milako 0,7koa da; hirugarren mailako hezkuntza duen 25 eta 34 urte bitarteko biztanleriaren ehunekoa Euskadin % 50,4koa eta, aldi, z EBn % 41,2koa; eta *etengabeko ikaskuntzan parte hartzen duten 25 eta 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa* % 12,7ra iristen da, EB27ko % 10,8rekin alderatuta.
- “Ikerketa-sistema erakargarriak” –zientzia-sarearen nazioarteko lehiakortasuna neurtzen duen dimentsioa– hiru adierazle osatzen dute, eta hiruretan Euskadi nabarmentzen da EB27ren aldean. Hala, *milioi biztanleko nazioarteko lankidetzako argitalpen zientifikoaren kopurua* 1.957koa da Euskadin, eta 1.181ekoa EB27n; *nazioartean gehien aipatu diren argitalpen zientifikoaren ehunekoan* (bikainak), balioa % 10,4 da Euskadirentzat, eta EB27rentzat, berriz, % 9,8; azkenik, *atzerriko doktoreen ehunekoa Euskadiko doktore guztien* % 29,2 da, eta EB27an, berriz, % 17,8.
- Aztartzen ari garen lehen blokearen hirugarren dimentsioa hau da: Digitalizazioa. Teknologia digitalaren maila neurtzen du. Bi adierazle biltzen ditu, eta Euskadi bietan nabarmentzen da. *Banda zabala sartzean*, % 66,3 da Euskadiko balioa, EB27ko % 52ren aldean; bereziki esanguratsua da adierazle horren bilakaera; izan ere, 2014an % 6,4ko sartzetik abiatu zen; EB27an, aldiz, % 10ekoa zen. *Batezbestekotik gorako trebetasun digitalak dituzten pertsonen* kasuan ere, EAEk, % 33,7rekin, EB27 gainditzen du, azken horrek % 26ko balioa baitu.

Bigarren blokean (**INBERTSIOAK**), Euskadik, 0,66ko puntuazioarekin, Europako batezbestekoa (0,59) baino puntuazio hobea lortu du. Eta hiru dimentsiotako bitan –“Enpresen inbertsioa” eta “Informazioaren teknologien erabilera”– Euskadik EB27k baino puntuazio hobea du; aldiz, batean, “Finantzaketa eta babesak”, EB27 da puntuazio altuena duena.

- “Enpresen inbertsioa”. Dimentsio honetan, enpresek berrikuntza sortzeko egiten dituzten hiru inbertsio-adierazle sartzen dira, bai I+Gkoak bai I+Gkoak ez direnak. Horietako bitan –*enpresen sektoreko I+Gren arloko gastuak BPGd-aren % gisa* eta *Berrikuntzaren gaineko gastua, langileko, enpresa berritzaileetan*–, Euskadi Europa baino gorago dago (% 1,6 versus % 1,5 eta 11.004 € eta 7.484 €, hurrenez hurren). Hala ere, *I+G gabeko berrikuntzaren gastua (negozio-zifren gaineko %a)* aztertuz gero, EB (% 0,8) EAEn aurretik dago (% 0,7).
- “Informazioaren teknologiaren erabilera”. Dimentsio honek informazioaren teknologien erabilera jasotzen du bi adierazleren bidez. Lehenengoan, *langileei IKT prestakuntza ematen dieten enpresei* dagokienez, Euskadik EB gainditzen du (37,9 eta 20, hurrenez hurren); bigarrean, berriz, *IKTetako langile espezialistek* dagokienez, EB da (4,5 puntu) Euskadi (3,4) gainditzen duena.
- “Finantzaketa eta babesak” dimentsioan (berrikuntza-proiektuetarako finantzaketaren erabilgarritasuna eta gobernuek ikerketa- eta berrikuntza-jarduerei ematen dieten laguntza neurtzen ditu) hiru adierazle sartzen dira. Puntuazio txikiagoa duten bi daude Euskadin: *I+Gko gastu publikoa (BPGd-aren %a)*, EAEn % 0,5 eta EBn % 0,8, eta *arrisku-kapitaleko inbertsioa (BPGd-aren %)*, % 0,1 Euskadin eta % 0,2 Europan. Hala ere, dimentsio horretako hirugarren adierazlean –*I+Gn inbertitzen duten enpresentzako zuzeneko finantzaketako eta zerga-laguntzako politika publikoak*–, Euskadi 0,3ekin, EBren aurretik dago, 0,2rekin.


Bestalde, **BERRIKUNTZA-JARDUEREN** hirugarren blokean (enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu), Euskadik Europako batezbestekoa baino puntuazio txikiagoa lortu du: 0,46 eta 0,50. Bloke honetako hiru dimentsioetatik –*Berritzaileak, Laguntzaileak eta Ezagutza-aktiboak*– Euskadi bigarrean soilik dago EB27ren aurretik.

- “Berritzaileak” atalean, zeinak merkatuan edo beren erakundeetan berrikuntzak sartu dituzten ETEen proportzioa neurtzen baitu, produktuak nahiz negozio-prozesuak berrikuntzat hartuta, EAEk 0,45 puntu lortu ditu EB27ren 0,6ren aldean.
- “Laguntzaileak” atalean, zeinak enpresa berritzaileen arteko eta sektore publikoarekiko lankidetzeta-ahaleginak neurtzen baititu, EAEk 0,7 puntu ditu EB27ko 0,4en aldean.
- “Ezagutza-aktiboak” atalean, zeinak berrikuntza-prozesuetan etekin gisa sortutako jabetza intelektualaren eskubideen forma desberdinak hartzen baititu, EAEk 0,4 puntu ditu EB27ren 0,6en aldean.

Bestalde, **ERAGINEN** laugarren blokean (enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu), Euskadik Europako batezbestekoa baino puntuazio txikiagoa lortu du: 0,59 eta 0,62. Bloke honetako hiru dimentsioetatik, *Eraginak enpleguan*, *Eraginak salmentetan* eta *Ingurumen-jasangarritasuna*, Euskadi hirugarrenean soilik dago EB27ren aurretik.

- “Eraginak enpleguan” atalean, zeinak enpleguan berrikuntzaren arrakasta ekonomikoa neurtzen baitu, EAEk 0,45 puntu ditu EB27ren 0,52en aldean.
- “Eraginak salmentetan” atalean, zeinak enpleguan berrikuntzaren arrakasta ekonomikoa neurtzen baitu, EAEk 0,6 puntu ditu EB27ren 0,7en aldean.
- “Ingurumen-jasangarritasuna” atalean, zeinak ingurumenaren gaineko eragin negatiboa murrizteko hobekuntzak jasotzen baititu, Euskadik 0,8 puntu ditu EB27ren 0,6en aldean.

II.6.2. GRAFIKOA. BERRIKUNTZAREN DIMENTSIONAK EAE-N ETA EB27-AN.
BERRIKUNTZA-ADIERAZLEEN EUROPAKO PANELA (EIS 2022)



Iturria : EUSTAT. Berrikuntza-adierazleen Europako Panela EIS eta Europako Batzordea

6.1.4.2. EAE Eskualdeko berrikuntza-adierazleen panelean - Regional Innovation Scoreboard (RIS)

Eskualdeko berrikuntza-adierazleen panelak (RIS, ingelesez) EIS metodologia berrikusia jarraitzen du, eta Europako eskualdeen berrikuntza-errendimendua ebaluatzen du adierazle-kopuru mugatu batean.

Panela bi urterik behin argitaratzen denez, 2021eko Memoria Sozioekonomikoaren gure ediziora jo bezate interesdunek.

6.1.5. Eusko Jaurlaritzaren Euskadiko 2030erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren jarraipena

Planaren ezarpen-maila zehazteko, Eusko Jaurlaritzak jarraian jasotzen diren agente-taulak egin ditu (Lehendakaritza. ZTBP Euskadi 2030). Horietan, ZTBP 2020ren ezarpena amaitzean egoera zein den aurkezten da, hau da, plan berriaren hasieran (abiapuntuko datuak 2019koak dira) eta 2021ean. Halaber, 2023, 2026 eta 2030erako helburuak ere aipatzen dira. Euskadiko EGABek, agente-taula hau erabiliz eta semaforoaren metodologia aplikatuz, 2030 ZTBPre bilakaeraren balorazioa egingo du jarraian, hura abiarazi zenetik aurrera (Gobernu Kontseiluan 2021eko otsailaren 23an onartu zen).

II.6.17. KOADROA. EUSKADI 2030 ZTBP-REN AGINTE-TAULA

HELBURU OPERATIBOIA	NEURKETA-EREMUA	ADIERAZLEA	ITURRIA	ABIAPUNTUKO DATUAK 2019	EGUNERATUA (2023ko urtarrila)		2021	XEDEA 2023	XEDEA 2026	XEDEA 2030	
					2019	2020					
1. Euskadiko I+G+b-ren orientazioa emaitzetara bideratzea	Emitza sozioekonomikoak	1	Enplegu intentsiboa ezagutzan	EUROSTAT	% 17,7	% 17,7	% 18,8	% 20,1	% 18,3	% 18,6	% 19,0
	Emitzak zientziaren eta teknologiaren arloetan	2	Nazioarte-mailan gehien aipatu diren top 10eko argitalpen zientifikoak ⁽¹⁾	IKERBASQUE	% 18,8	% 13,61	% 14,48	% 13,54	% 20	% 21	% 22
		3	Goi-mailako eta erdi- eta goi-mailako teknologiko produktuen esportazioak		% 55,3	% 55,50	% 55,61	% 51,68	% 56	% 57	% 58
		4	Produktu berrien salmenta fakturazio osoaren gainean		% 18,3	% 18,29	% 14,91	% 13,70	% 19	% 19,50	% 20
2. Enpresetan I+G eta berrikuntza bultzatzea, batez ere ETEetan	Jarduerak eta baliabideak berrikuntzarako	5	I+G inbertsioak (euroak, milioiak)	EUSTAT	1.481	1.481	1.490	1.647	1.630	1.892	2.300
		6	I+Gren gaineko inbertsioa, enpresek finantzatuta (mil. euro)		799	799	813	933	810	920	1.100
		7	Negozio-prozesuetan edo/eta -produktuetan berritzaileak diren enpresak		% 42,20	% 42,20	% 39,91	% 40,48	% 50	% 55	% 60
		8	Berrikuntzaren gaineko inbertsioak (fakturazioaren gainean)		% 0,68	% 0,68	% 0,69	% 0,61	% 0,80	% 0,90	% 1,00
	Informazioaren babesa	9	EPO patenteen eskabide-kopurua	ENPLEGU-BULEGOA	194	194	213	223	220	240	260
		10	EBko marka komertzialen	EUSTAT	463	474	392	436	600	700	800

3.	Euskal I+G+b nazioartekotzea bultzatzea	Lidergotza eta nazioarteko lehiakortasuna	eskabide-kopurua ⁽²⁾ ⁽³⁾									
			11	EBko diseinu industrialen eskabide-kopurua ⁽²⁾	125	125	97	87	155	185	225	
			12	I+G arloko nazioarteko finantzaketa (mil. eurotan)	128	128	126	131	145	170	200	
			13	Europako Horizon proiektuen lidergotza	% 27	% 24,29	% 20,85	% 20,0	% 20	% 20	% 20	
			14	Euskal enpresen partaidetza Europako Horizon programan	77	85	82	77	100	110	120	
			15	Argitalpen zientifikoak nazioarteko lankidetzan	1.651	1.664	1.918	1.952	1.920	2.220	2.560	
4.	Ikertzaile talentudunak sustatzea, batez ere emakumeak	Talentua eta bokazio berriak sustatzea	16	Ikerlari doktoreak	EUSTAT	% 30,9	% 30,88	% 30,40	% 30,55	% 33	% 34	% 35
			17	Graduko STEM titulazioetarako sarbide berriak (*)	UNIBERTSITATEEN MINISTERIOA	% 29,1	% 29,15	% 28,77	% 29,68	% 31	% 33	% 35
	18	Emakume ikertzaileak	EUSTAT	% 36,3	% 36,31	% 36,34	% 36,25	% 37,50	% 38,50	% 40,00		
						ZBTP 2020	ZBTP 2030					

(1) Aldaketa metodologikoa: Lehen, aipamen guztiak berdin zenbatzen ziren; orain, diziplina zientifikoaren arabera haztzen dira, nazioarteko metodologiarekin bat egiteko.

(2) Adierazle hau Erosketa Ahalaren Paritatearen BPGd-arekin kalkulatzen da (Eurostatek argitaratua). 2021eko daturik ez dagoenez, Eustatek argitaratutako benetako BPGd-aren aldakuntzaren arabera balioa erabili da.

(3) Aldaketa metodologikoa. Adierazlea berrikusi egin da EIS 2021ean, eta dagoeneko ez ditu kontuan hartzen Jabetza intelektualaren Mundu Erakundeak erregistratutako marka-eskabideak.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA (Euskadiko EGABek margotua).

II.6.18. KOADROA. ESZENATOKI EKONOMIKOAK ZBTP 2030								
I+G+b bultzatzeko aurrekontuak	Eusko Jaurlaritzak onartutako aurrekontuen datuak				ZBTP 2030eko balioespenak (urteko batezbestekoa +% 6)			
	2020	2021	2022	2023	2023	2026	2030	
EUSKO JAURLARITZA (milioi euro)	490,4	535,8	587,8	658,5	580	690	870	
(horren barruan sartzen dira ikerketa zientifikoa eta unibertsitate-ikerketa, ikerketa teknologikoa eta industrialak, nekazaritzako elikagaien ikerketa, osasun-arloko ikerketa, ikerketa eta berrikuntza publikoa, eta berrikuntza-funtsa)								
Hazkundera aurreko urtearen aldean (%)		% 9,3	% 9,7	% 12				
	ZBTP 2020	ZBTP 2030						
	EUSTAT-EN BENETAKO DATUAK				ZBTP 2030EN BALIOESPENAK			
I+G arloko inbertsioak finantzaketa-iturrien arabera	2020	2021	2022	2023	2023	2026	2030	
I+G arloko inbertsioak, guztira	1.490	1.647			1.630	1.892	2.300	
Finantzaketa publikoa	543	575			676	801	1.001	
Eusko Jaurlaritza*	445	467			571	680	857	
Foru-aldundiak (**) eta toki-erakundeak	23	21			23	25	28	
Estatuko Administrazio Orokorra	75	87			82	96	116	
Enpresen finantzaketa (***)	821	941			810	920	1.100	
Nazioarteko finantzaketa	126	131			145	170	200	
* Goi-mailako irakaskuntzagatiko I+G finantzaketa barne hartzen du	ZBTP 2020	ZBTP 2030						
** Ez ditu barne hartzen Aldundien berrikuntza eta ekintzailtza babesteko aurrekontuak, ez eta I+Gren zerga-arintzeak ere								
*** Irabazi-asmorik gabeko erakunde publikoen I+G arloko finantzaketa barne hartzen du								
Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA.								

Kontseiluak, oraindik ere balorazioak egiteko goiz dela jakitun, honako hau ondorioztatzen du 2019-2021 aldiko datuetatik:

- Bilakaera positiboa azaltzen duten adierazleak honako hauek dira: enplegu intentsiboa ezagutzan; I+G arloko inbertsioa; enpresek finantzaturako I+Gren gaineko inbertsioa; EPO patenteen eskabide-kopurua; I+Gren nazioarteko finantzaketa; argitalpen zientifikoak nazioarteko lankidetzan; eta graduko STEM titulazioetarako sarbide berriak.
- Bilakaera negatiboa duten adierazleak honako hauek dira: nazioartean gehien aipatu diren top 10eko argitalpen zientifikoak, produktu berrien salmenta fakturazio osoaren gainean eta EBko diseinu industrialen eskabideen kopurua.
- Gainerako adierazleetan (laranjaz margotuta), 2019-2021 arteko bilakaera ez da argia.

6.2. EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALAK

EUSTATen “*Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-IGI-Familiak*” eragiketa estatistikoak informazioa ematen du Euskadiko herritarren artean IKTek izan duten ezarpenari buruz.

Bestalde, EUSTATen “*Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-IGI-Enpresak*” eragiketa estatistikoak informazioa ematen du Euskadiko enpresen artean IKTek izan duten ezarpenari buruz. Zehazki, interneten erabilera-maila zenbatzen du establezimendu desberdinetan: internetera sartzeko sistemak, internet bidez garatutako jarduerak, eta web-orriaren erabilgarritasuna. Gainera, merkataritza elektronikoaren salerosketen ezarpena neurtzen du jarduera ekonomikoan. Bere biztanleria-eremua edozein tamainako eta jarduera-sektoreko establezimenduak dira, baldin eta EAEn jarduten badute. Salbuespena lehenengo sektorea eta etxeko zerbitzua dira.

6.2.1. Interneten erabilerak euskal herritarren aldetik

Informazioaren gizarteari buruzko inkestaren (familiak) arabera, 2022an, 15 urte edo gehiagoko Internet erabiltzaileak adin horretako EAEko biztanleen % 86,3 ziren, eta ehuneko hori 1,4 puntu handitu da 2021aren aldean.

Komunikazioari eta informazioa eskuratzeari lotutako zerbitzuak dira erabiltzaileek gehien erabiltzen dituztenak, hala nola WhatsApp zerbitzua eta mugikorrerako antzeko beste aplikazio batzuk, adina, sexua edo jarduerarekiko harremana edozein dela ere, eta beti % 97 gainditzen dute modalitate horietan guztietan. Aipatzekoak dira, halaber, mezu elektronikoak jaso edo bidaltzea (% 83,1), ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea (% 71,8) eta gaurkotasuneko berriak, egunkariak edo aldizkariak irakurtzea (% 71,4).

Kontsumora eta entretenimendura bideratutako jarduerak Internet bidez egindako eragiketa askoren (% 84,7) erantzuleak dira.

2022ko bigarren hiru hilabeteetan, EAEko gizarteak pandemia aurreko zifrak berreskuratu ditu COVID-19ak gehien kaltetu zituen zerbitzuetan. Hala, 2021arekiko igoerarik handiena (ehuneko +32,9 puntu) bidaiekin eta ostatuekin lotutako zerbitzuen erabileran gertatu da, erabiltzaileen % 49,5ek erabiltzen baitu. Aitzitik, Internet bidezko deiak eta bideoak (erabiltzaileen % 52,7k erabili dute zerbitzu hori) jaitsi dira gehien (-7,2 puntu).

Erabiltzaileen % 60,7k administrazio elektroniko erabili du, eta, administrazioek emandako zerbitzuen artean, administrazio-izapideak telematikoki egitea (betetako

II.6.19. KOADROA. AZKEN HIRU HILABETEETAN INTERNET ERABILI DUTEN 15 URTEKO ETA GEHIAGOKO BIZTANLEAK, ARRAZOI PARTIKULARRENGATIK ERABILITAKO ZERBITZU-MOTAREN ARABERA (%).

	2021	2022
ERABILITZAILEAK (EHUNEKOA)	84,9	86,3
KOMUNIKAZIOA ETA INFORMAZIOA ESKURATZEA	99,9	99,4
WHATSAPP EDO BEREHALAKO MEZULARITZAKO	97,5	97,3
BESTE APLIKAZIO BATZUK		
POSTA ELEKTRONIKOA JASOTZEA EDO BIDALTZEA	82,4	83,1
ONDASUNEI EDO ZERBITZUEI BURUZKO	63,3	71,8
INFORMAZIOA BILATZEA		
ALBISTEAK, EGUNKARIAK EDO GAURKOTASUNEO	74,9	71,4
ALDIZKARIAK IRAKURTZEA		
SARE SOZIALETAN PARTE HARTZEA	53,9	56,5
TELEFONOZ DEITZEA EDO BIDEO-DEIAK EGITEA	59,9	52,7
ENTRETENIMENDUA ETA SORMENA	83,3	84,7
PARTEKATZEKO GUNEETAKO BIDEO-EDUKIAK	68,2	68,0
IKUSTEA		
MUSIKA ENTZUTEA	55,5	56,6
FILMAK EDO BIDEOAK IKUSTEA ESKAERAREN	47,7	50,4
ARABERA		
TELEBISTA-PROGRAMAK IKUSTEA	30,8	33,4
JOLASTEAK EDO JOLASAK DESKARGATZEA	29,1	26,0
NORBERAREN EDUKIAK WEB-ORRI BATEAN	19,8	22,2
ZINTZILIKATZEA, PARTEKATZEKO		
OSASUNA	52,5	55,6
OSASUN-GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA BILATZEA	48,0	47,1
HITZORDU MEDIKOA HITZARTZEA	23,5	33,0
POLITIKAN ETA GIZARTEAN PARTE HARTZEA	7,7	8,8
BIZITZA PROFESIONALA	19,2	19,7
SARE PROFESIONALETAN PARTE HARTZEA	9,3	13,0
LANA BILATZEA EDO ESKAERA BIDALTZEA	14,4	12,7
IKASKUNTZA	31,5	40,4
IKASTEKO MATERIALA ERABILTZEA	14,7	22,1
IKASTAROREN BAT ON-LINE EGITEA	13,9	16,1
FITXATEGIAK BILTZEA	43,5	46,8
ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA (*)	54,5	60,7
INPRIMAKIAK BETETA BIDALTZEA	45,4	56,3
INFORMAZIOA LORTZEA	45,6	49,0
INPRIMAKI OFIZIALAK DESKARGATZEA	37,3	44,8
BESTE JARDUERA BATZUK	75,3	79,5
BANKA ELEKTRONIKOA	67,7	70,2
PRODUKTUAK EDO ZERBITZUAK EROSTEA	54,7	55,1
BIDAIEKIN ETA OSTATUAREKIN LOTUTAKO	16,6	49,5
ZERBITZUAK ERABILTZEA		
ONDASUNAK EDO ZERBITZUAK SALTZEA	11,3	13,0

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-IGI-Familiak.

inprimakiak bidaltzea) izan da erabiliena (% 56,3), baita gehien igo dena ere 2022an (% +10,9). Banka elektronikoari dagokionez, estimatzen da erabiltzaileen % 70,2k erabili duela (+2.5 puntu 2021arekiko).

6.2.2. Euskal enpresen web-orriaren erabilgarritasuna eta interneterako sarbidea

EUSTATen “*Informazioaren gizartearen panorama*” txostenaren arabera, 2022. urtean euskal enpresek internetera izan duten sarbide-mailak % 93,5ekoak dira eta web-orrien erabilgarritasuna % 54,3koa. Beraz, postu altuak dira EB27ko herrialdeen testuinguruan.

Aipatzekoa da urtez urte murriztu egiten direla enpresa handien eta enpresa txikien arteko ekipamendu teknologikoen mailan dauden distantziak. Izan ere, bi joera daude horren atzetik: batetik, enpresa handiak teknologia nagusien ekipamendu-maila gorenera heltzen ari dira; eta bestetik, enplegu gutxiagoko enpresen ekipamendu teknologikoko maila gero eta handiagoa da.

Era berean, enpresetan ekipamendu teknologikoak erabiltzen dituzten langileen proportzioak ere gora egin du pixkanaka.

6.2.3. Euskal enpresen eraldaketa digitala

Euskadiren eraldaketa digitalerako 2025eko estrategian azaltzen den bezala, *Hamarkada Digitala*⁴² izenekoan murgilduta gaude. Hamarkada horrek honako ezaugarri hauek ditu: arlo guztietan digitalizazioa azkar hedatzen da, espazio fisikoa eta birtuala uztartzen dira eta, batez ere, aukera berriak daude berrikuntzan eta hazkunde ekonomikoan, gizartearen “datifikazio” geroz eta handiagoaren ondorioz. Hala ere, datuak berez ez du baliorik. Teknologia digitalak ahalbidetzen dute balioa ematea, atzematen, transmititzen, biltegitratzen eta aztertzen direnetik.

Datua atzitzearekin eta sortzearekin lotutako teknologien artean, *Internet of Things* (IoT) delakoaren eremua nabarmentzen da. Bertan biltzen dira gailu medikoak, domotikoak, ekipo industrialak edo garraio bideetan ontziratutako, adimendunak eta interkonektatuak, denbora errealean informazioa sortzen dutenak, aztertzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna dutenak⁴³.

Biltegitratzeari dagokionez, *cloud computing*-ari lotutako teknologiek irtenbide malguagoak, efizienteagoak, merkeagoak, gaitasun handiagoa dutenak eta informazioa kudeatzeko sarbide errazagoa dutenak eskaintzen dituzte.

Datu-kopuru handiak (*big data analytics*) aztertzea ahalbidetzen duten teknologiak erabiltzeak lehiarako abantailak eragin ditu bai eragile publikoentzat, bai eragile pribatuentzat. Esparru horretan, datuen analisiari laguntzeko *adimen artifiziala* (IA) eta *machine learning* delakoa agertzeak aukera ematen du erronka eta premia espezifikoen aurrean erantzun azkarrak sortzeko, baita merkatu-nitxo berriak identifikatu eta sortzeko ere. *Augmented analytics* edo *continuous intelligence* sistemetan oinarritutako teknologiak erabiltzeak, adibidez, datuen analitika eta proiektzioak denbora errealean enpresa-eragiketekin integratzea ahalbidetzen du, erabakiak hartzean ziurgabetasuna automatizatuz eta murriztuz.

Hala eta guztiz ere, sortutako eta prozesatutako informazio-kopuru handiak, bai eta arestian aipatutako teknologiei esker konektatutako biltegitratze- eta analisi-gailuen bolumen handiagoak ere, erronka garrantzitsuak sortzen ditu datuaren babesari, haren eskuragarritasunari, erabilerari, segurtasunari eta kontserbazioari dagokienez. Halaber, datu pertsonalen erabilerarekin, informazioaren osotasunarekin eta egiazkotasunarekin edo datuaren jabetzarekin eta merkataritza-aktibo gisa erabiltzearekin lotutako arazoak sortzen ditu. *Zibersegurtasuna*, gizartearen digitalizazioan zeharkako eremua den aldetik, erronka horiei erantzuteko sortzen da, *blockchain* teknologien bidez, blokeen arteko transakzioen trazabilitatea eta gardentasuna bermatzen baititu, edo *deep learning* delakoa, zibermehatxuak detektatzeko erabiltzen dena.

⁴² Europako Parlamentuak sartutako kontzeptua 2020-2030 hamarkadari erreferentzia eginez.

⁴³ Datuen transmisioa erritmo esponenzialean hazten ari da, 5G bezalako teknologiei esker.

EUSTATEk bederatzi adierazle erabiltzen ditu enpresen eraldaketa digitala ebaluatzeko. Hauek dira: enpresa-xedeetarako sare sozialak erabiltzea, "Hodeian" informatika-zerbitzuak erabiltzea, zerbitzu mugikorrek erabiltzea, Internet bidez urrutitik monitorizatu edo kontrolatu daitezkeen gailu interkonektatuak erabiltzea (gauzen Internet, Internet of Things (IoT)), zibersegurtasun jarduerak, makrodatuen analisia (big data), adimen artifizialeko sistemak erabiltzea, 3D-ko inprimagailuak erabiltzea eta robotika erabiltzea.

2022ko lehen hiruhilekoan, enpresa-xedeetarako sare sozialak dira adierazlerik azpimarragarrienak, enpresatamaina edozein dela ere (establezimenduen % 55,2 eta 10 lanpostuko edo gehiagoko establezimenduen % 73,8).

Gainerako adierazleetan, aldeak ikusten dira erabilera-rankingan, enpresaren tamainaren arabera.

Establezimendu guztiei dagokienez, hauek dira erabilera adierazgarrienak: enpresaren jarduerarekin eta ekoizpen-prozesuekin lotutako aplikazioen erabilera (zerbitzu mugikorrek) establezimenduen % 33,5ekin, cloud computing (% 26,6), zibersegurtasun-jarduerak (% 20,8), gauzen Internet -IoT- (establezimenduen % 13,6) eta bigdataren analisia (% 12,2). Urrunago, establezimenduen % 5etik behera adimen artifizialeko sistemak (% 4,9), 3D inprimagailuak (% 2,6) eta robotikaren erabilera (% 2,3) daude.

10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduen kasuan, aldaketa-prozesu horiek azkarrago ezartzen ari direnak honako hauek dira: cloud computing (% 50,2), zerbitzu mugikorrek (% 49,3), zibersegurtasuneko jarduerak (% 47,7), big data analisia (% 25,9), eta gauzen Internet (% 25,6). Urrunago daude: robotika (% 12,9), 3D inprimagailuen erabilera (% 8,7) eta adimen artifizialeko sistemak (% 8,4).

II.6.20. KOADROA. EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAKO ERALDAKETA DIGITALAREN ADIERAZLEAK, ENPLEGU-GERUZAREN ETA JARDUERA-ADARRAREN ARABERA. LEHEN HIRUHILEKOA										
	ESTATUKO GUZTIZKOAREN GAINEKO %-a		10 LANGILE EDO GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUEN %-a							
	2021	2022	GUZTIRA		INDUSTRIA		ERAIKUNTZA		ZERBITZUAK	
			2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
SAREA SOZIALAK ENPRESA-XEDEETARAKO ERABILTZEA	51,5	55,2	70,3	73,8	53,1	55,7	40,8	51,9	77,8	81,0
"HODEIKO" INFORMATIKA-ZERBITZUEN ERABILERA (CLOUD COMPUTING)	23,1	26,6	46,0	50,2	41,3	43,0	49,5	60,7	47,1	51,5
ZERBITZU MUGIKORREN ERABILERA	30,2	33,5	46,3	49,3	40,5	37,6	44,0	47,9	48,3	52,9
GAUZEN INTERNETEN ERABILERA (IoT)	12,9	13,6	21,1	25,6	14,0	18,8	21,5	21,7	23,3	27,9
ZIBERSEGURTASUNeko JARDUERAK	20,1	20,8	43,1	47,7	32,8	34,9	25,7	38,7	47,6	52,3
MAKRODATUEN ANALISIA (BIG DATA)	12,1	12,2	22,9	25,9	11,7	15,4	14,8	15,9	26,9	29,8
ADIMEN ARTIFIZIALEKO SISTEMEN ERABILERA	4,1	4,9	7,4	8,4	2,6	3,7	7,5	5,7	8,8	10,0
3D INPRIMAGAILUEN ERABILERA	2,6	2,6	8,6	8,7	11,3	13,4	3,8	5,9	8,2	7,5
ROBOTIKAREN ERABILERA	2,7	2,3	11,8	12,9	22,9	22,0	4,0	11,5	9,1	10,2

Unitatea: establezimenduen gaineko ehunekoa
Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-IGI-Enpresak.

Orain EAEko egoera estatukoarekin erkatuko dugu arlo horretan. Horretarako, EINek 2022ko lehen hiruhilekoari buruz argitaratutako "Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoaren erabilerari buruzko inkesta"ko datuak erabiliko ditugu, 10 enplegu edo gehiagoko enpresetarako.

Euskadi estatuko batezbestekoaren gainetik dago interneten eta web-orrien erabileran (bigarren postua du sailkapenean, Kataluniaren ostetik), urrutiko sarbidean (bigarren postua du sailkapenean, Kataluniaren ostetik), IKT segurtasun-neurrien erabileran (laugarren postua du sailkapenean, Asturias, Katalunia eta Madrilen ostetik) eta roboten erabileran (hirugarren postua du sailkapenean, Nafarroa eta Gaztela eta Leonen ostetik).

Hala ere, gizarte-bitartekoaren erabilera, adimen artifiziala eta big data analisia aztertuta, EAE estatuko batezbestekoaren azpitik dago, eta erdi inguruan autonomia-erkidegoen sailkapenean.

II.6.21. KOADROA. IKT-EN ERABILERA ENPRESAREN EGOITZA SOZIALA DAGOEN AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA. 2022KO LEHEN HIRUHILEKOA 10 LANGILE EDO GEHIAGOKOKO ENPRESAK.

	ENPRESEN %A							LANGILEEN %A
	INTERNET ETA WEBEA (1)	GIZARTE-BITARTEKOAK (1)	URRUTIKO SARBIDEA (2)	ADIMEN ARIFIZIALA	BIG DATA ANALISIA	IKT SEGURTASUNA	ROBOTEN ERABILERA	TELELANEAN ERREGULARTASUNEZ (3)
ESTATUA	78,5	67,3	82,7	12,6	15,1	89,3	8,3	19,5
ANDALUZIA	69,7	63,1	78,8	10,5	15,0	87,9	9,2	10,4
ARAGOI	81,2	64,7	81,5	14,2	14,4	88,0	10,5	11,8
ASTURIAS	78,9	65,4	84,1	9,7	14,1	92,2	8,7	9,4
BALEAR UHARTEAK	75,9	67,1	85,0	9,7	15,7	83,4	5,2	15,1
KANARIAR UHARTEAK	73,9	65,4	80,4	9,7	9,7	88,4	6,1	5,9
KANTABRIA	71,6	59,6	80,3	7,0	10,2	89,0	7,1	9,6
GAZTELA ETA LEON	77,6	61,7	79,9	7,2	11,5	89,4	12,1	8,7
GAZTELA-MANTXA	70,5	64,6	82,7	9,2	8,9	83,0	9,3	6,0
KATALUNIA	86,4	77,0	87,2	14,3	18,6	92,1	7,9	20,4
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	78,5	64,4	81,8	14,9	15,4	90,7	10,4	7,9
EXTREMADURA	69,3	62,1	74,2	11,5	8,8	78,6	7,3	5,0
GALIZIA	77,0	62,1	78,6	12,2	12,5	86,0	8,3	8,0
MADRIL	81,3	71,7	85,2	16,4	18,1	91,2	4,7	33,1
MURTZIA	68,9	56,3	72,5	9,6	13,3	86,8	7,4	4,5
NAFARROA	82,6	61,3	83,2	11,2	10,0	88,3	13,8	15,0
EAE	83,1	62,6	86,6	10,3	11,8	91,1	11,9	14,2
ERRIOXA	80,2	66,6	81,8	12,3	17,7	83,7	9,5	7,9
CEUTA	63,7	45,6	78,4	5,0	5,5	88,9	0,9	19,5
MELILLA	47,6	45,2	72,5	2,5	2,5	73,4	0,9	10,4

(1) Interneteko konexioa duten enpresa guztien gaineko ehunekoa

(2) Urrutiko sarbidea enpresaren merkataritza elektronikora, agirieta edo aplikazioetara

(3) Telan ahalbidetzen duten enpresetan kalkulaturako ehunekoa

Iturria: EIN. Enpresetako IKTen erabilera eta merkataritza elektronikoa buruzko inkesta. Prentsa-oharra

6.2.4. Telan euskal enpresetan

EINen datuen arabera (II.6.21. KOADROA), 2022an, erregulartasunez telan aritzen diren langileen ratioa (telan ahalbidetzen duten enpresetan) %14,2koa da EAEn, estatuko 19,5en aldean. Gure erkidegoan seigarren postua betetzen du estatuko sailkapenean, Madrilen (% 33,1), Kataluniaren (% 20,4), Ceutaren (% 19,5), Balearren (% 15,1) eta Nafarroaren (% 15) ostetik.

EUSTATen arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan euskal enpresetan IKTen erabiltzaileen ehunekoa kopuru osoaren % 76 zen (% 75,2, 10 enplegu edo gehiagoko enpresetan).

IKT sistemetan espezializatutako langileen ratioa % 10,5 zen (% 10, 10 enplegu edo gehiagoko enpresetan). Emakumeen partaidetza gizonena baino baxuagoa izan da 2022an: % 34,3 eta % 65,3. Aldi berean, langileen % 39,5ek (% 38,4k, 10 enplegu edo gehiagoko enpresetan) urrutiko konexioa zuen, erabilera profesionalerako gailu eramangarri baten bidez, eta enpresaren kokapen fisikotik kanpo lan egiteko aukera ematen zuen. Eta langileen % 10,2k (% 11, 10 enplegu edo

II.6.22. KOADROA. LANGILEEN HARREMANA IKT-EKIN EUSKAL ENPRESETAN. EHUNEKOA, GUZTIAREN GAINEAN. LEHEN HIRUHILEKOA

	2020	2021	2022	
	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	>= 10 LANGILE
IKT-EN ERABILTZAILERAK	74,7	75,8	76,0	75,2
GIZONAK	dg	49,9	50,2	52,2
EMAKUMEAK	dg	50,1	49,8	47,8
IKT ADITUAK	10,9	10,4	10,5	10,0
GIZONAK	dg	65,1	65,7	67,3
EMAKUMEAK	dg	34,9	34,3	32,7
URRUNEKO KONEXIOA DUTEN LANGILEAK	33,5	37,2	39,5	38,4
GIZONAK	dg	52,1	52,5	53,4
EMAKUMEAK	dg	47,9	47,5	46,6
ENPRESAREN LOKALETATIK KANPO LAN EGITEN DUTEN LANGILEAK (TELELANGILEAK, ENPLEGU GUZTIAREN GAINEAN)	5,4	12,0	10,2	11,0
GIZONAK	dg	50,7	50,7	51,7
EMAKUMEAK	dg	49,3	49,3	48,3

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizaritari buruzko inkesta-IGI-Enpresak.

gehiagoko enpresetan) enpresaren lokaletatik kanpo lan egin zuen, gutxienez lanaldiaren heren bat modu erregularrean, sare telematikoak erabiliz IKT sistemekin konektatzeko. Ehuneko hori, 2021ean lortutako horren aldean behera egiten duen arren, pandemiaren hasieran izandakoaren ia erdia da oraindik ere.

6.2.5. Merkataritza elektronikoa EAEn

6.2.5.1. Herritarrak

EUSTATen Informazioaren gizarteari buruzko inkestaren (familiak) informazioaren arabera, 2022ko lehen hiruhilekoan, 15 urteko edo gehiagoko euskaldunen % 55,1ek erosi zituen ondasunak eta zerbitzuak internet bidez azken hiru hilabeteetan, internet-erabiltzaileen artean. Kopuru hori 15 urte edo gehiagoko euskal biztanle guztien % 47,6 da. 10 urte lehenago internet bidezko erosketak egiten zituzten pertsonen kopurua ia hirukoiztu egiten du (zehazki, 2,6 aldiz altuagoa) eta bost urte lehenago (2017an) baino % 40,1 gehiago da.

II.6.23. KOADROA. EUSKADIKO 15 URTEKO EDO GEHIAGOKO BIZTANLEAK, AZKEN HIRU HILABETEETAN INTERNET BIDEZKO EROSKETAREN BAT EGIN DUTENAK.

LEHEN HIRUHILEKOA

	%A, INTERNET ERABILTZAILEEN DUTEN BIZTANLEEN GAINEAN	%A, BIZTANLE GUZTIAN GAINEAN
2021	54,7	46,5
2022	55,1	47,6

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-IGI-Familiak.

Kolektibo honetan nabarmenak dira arropa, oinetako eta osagarrien erosketak, etxerako ondasunak, ostatuak, ekitaldi kulturaletarako sarrerak, zaintza pertsonalak eta higieinarekin lotutakoak, garraioa eta kirol-materiala.

6.2.5.2. Enpresak

EUSTATen Informazioaren gizarteari buruzko inkestaren (enpresak) arabera, 2021ean 44.800 establezimendu inguruk egiten dute merkataritza elektronikoa EAEn; hau da, establezimendu guztien % 28,0 (aurreko urtean baino ehuneko 1,1 gehiago). Igoera hori erosketak elektronikokoak egiten dituzten establezimenduetan oinarritzen da (ratioa aurreko urtea baino ehuneko bat altuagoa da), eta, neurri txikiagoan, salmenta elektronikoen (ehuneko 0,7 igo dira). Hala, establezimendu guztien % 25ek elektronikoki erosi zuten, eta % 8,3k salmenta elektronikokoak egiten zituzten.

EAEko merkataritza elektronikokoak berriro ere gora egin du zifra ekonomikoetan, aurreko urtearen aldean. Hala, sortutako negozio-bolumenak, sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoen bidez (EDI, datu elektronikoen trukea, eta abar), % 9,7 egin zuen gora salmenta elektronikoei dagokienez, eta orotara 24.224,9 M€ dira, eta % 8,7 erosketen aldetik, guztira 18.241,3 M€-ra iritsita.

Merkataritza elektronikoko bidezko salmentak egin zituzten establezimenduen salmenta guztien artean batez beste % 44,0 izan ziren salmenta elektronikokoak egin zituztenak. Bestalde, enpresek 2021ean egindako erosketak guztien % 38,2 izan ziren erosketak elektronikokoak.

Zenbaki horiek aldatu egiten dira establezimenduen tamaina kontuan hartuz gero. Hala, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduetatik % 33,5ek merkataritza elektronikoa egiten du, aurreko urtean baino % 1,8 gehiago. Segmentu horretan ere gehiago dira erosketak elektronikokoak egiten dituztenak (% 30,2) eta pisu txikiagoa dute salmenta elektronikokoak egiten dituztenek (% 14,9), nahiz eta segmentu horretan gora egin duten bai erosten dutenek (1,3 puntu) bai saltzen dutenek (0,7 puntu).

EUROSTATen datuen arabera, EB27an, 10 lanpostu edo gehiago (finantza-sektorerik gabe) izan eta on line saldu zuten enpresen ehuneko (aurrekontuaren % 1 gutxienez) (Internet, EDI edo beste sare batzuen bidez) % 19 izan zen 2021ean.

**II.6.24. KOADROA. EROSKETAK ETA SALMENTAK ENPLEGU-GERUZAREN ARABERA. MILIOI EURO.
ABENDUAREN 31KO DATUAK**

	EROSKETAK					SALMENTAK				
	2017	2018	2019	2020	2021	2017	2018	2019	2020	2021
GUZTIRA	12.758,8	14.065,9	15.851,3	16.784,1	18.241,3	17.274,1	19.142,9	21.521,6	22.092,4	24.224,9
ENPLEGU-GERUZAK										
0-9	3.949,7	4.101,3	4.780,6	4.998,5	5.405,0	3.044,4	3.192,9	3.586,2	4.196,4	4.250,9
10ETIK GORA	8.809,1	9.964,7	11.070,6	11.785,6	12.836,3	14.229,7	15.950,0	17.935,5	17.896,1	19.974,0

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-IGI-Enpresak.

**II.6.25. KOADROA. MERKATARITZA ELEKTRONIKOA EGITEN DUTEN ESTABLEZIMENDUEN BILAKAERA (EB28-KO ETA EUROGUNEKO ENPRESAK). (%)
EHUNEKOAK. ABENDUAREN 31KO DATUAK**

	EAEko ESTABLEZIMENDUAK, GUZTIRA					10 LANGILE EDO GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUAK							
	2017	2018	2019	2020	2021	EAE					EB27**		
						2017	2018	2019	2020	2021	19	20	21
MERKATARITZA ELEKTRONIKOA	25,1	26,3	27,1	26,9	28,0	29,0	31,6	33,2	33,5	35,3	---	---	--
EROSKETAK	23,0	24,1	24,7	24,0	25,0	25,1	27,0	28,3	28,9	30,2	Dg	dg	dg
SALMENTAK	6,8	6,9	7,0	7,6	8,3	12,6	13,1	13,8	14,2	14,9	17,2	18,1	19,0
EROSKETEEN %a *	36,2	36,4	38,4	40,2	38,3	32,4	33,1	32,9	34,0	35,5	---	---	--
SALMENTEN %a *	41,4	40,6	43,7	46,6	44,0	43,2	45,9	44,2	43,3	43,2	---	---	--

* Merkataritza elektronikoa aritzen diren establezimenduetan, erosketak eta salmenta guztien arteko erosketak eta salmenta elektronikoen batez besteko ehunekoak.

** (gutxienez % 1). Finantza-sektorea kontuan hartu gabe

Iturria: EUSTAT. IGI-enpresak, EUROSTAT (e-commerce) eta geuk egindako lana.

6.2.6. Administrazio elektronikoa EAEn
6.2.6.1. Eskaria
a) Administrazio elektronikoa erabiltzen duen biztanleria

Aipatu dugun bezala, 2022an EAEko 15 urteko edo gehiagoko biztanleen % 60,7k administrazio elektronikoa erabili du (ikus 6.19. KOADROA), eta, administrazioek emandako zerbitzuen artean, administrazio-izapideak telematikoki egitea (betetako inprimakiak bidaltzea) izan da erabiliena (% 56,3), baita gehien igo dena ere 2022an (% +10,9).

b) Administrazio elektronikoa erabili duten establezimenduak

EUSTATen arabera "Administrazio elektronikoa erabiltzeak" esan nahi du administrazio publikoen atarietan informazioa bilatu dutela, formularioak jaitsi eta/edo bidali dituztela edo izapide edo prozedura bat administrazio elektronikoa medio bideratu dutela oso-osorik.

II.6.26. KOADROA. EAE-KO ESTABLEZIMENDUEK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN EGINDAKO IZAPIDE ELEKTRONIKOAK, EGINDAKO IZAPIDE-MOTAREN, ALDIAREN ETA TAMAINAREN ARABERA. ESTABLEZIMENDU-PORTZENTAJEA

	ESTABLEZIMENDU GUZTIAK			10 LANGILE EDO GEHIAGOKO ESTABLEZIMENDUAK		
	2020	2021	2022	2020	2021	2022
ADMINISTRAZIOAREKIN IZAPIDEAK EGITEN DITUZTEN ESTABLEZIMENDUAK	93,5	92,1	94,3	96,7	95,9	97,5
--ZUZENEAN	51,8	51,9	54,7	84	83,1	85,5
--HIRUGARRENEN BITARTEZ (AHOKULARITZA-ENPRESAK...)	73,9	73	76,1	57,8	55,2	58,3
IZAPIDE-MOTA						
INFORMAZIOA LORTZEA	68,2	69,5	71,1	88,2	87,1	88,5
INPRIMAKIAK ETA FORMULARIOAK LORTZEA	64,7	67,2	68	83,9	84,4	86,9
BETETAKO INPRIMAKIAK ETA FORMULARIOAK ITZULTZEA	56,8	58	63,1	79,8	80,3	83,4
PROZEDURA ADMINISTRATIBO BAT MODU ERABAT ELEKTRONIKOAN IZAPIDETZEA	52,1	56,2	60,3	75,5	74,4	78,7

LIZITAZIO ELEKTRONIKOKO SISTEMA BATEAN PROPOSAMENAK AURKEZTEA (E-PROCUREMENT)	19,3	19,1	20,2	30,3	34,5	34,2
LANGILEEN GIZARTE-KOTIZAZIOA AITORTZEA	64,6	65,6	67,7	79,7	78,1	82,2
SOZIALATEEN GAINEKO ZERGA AITORTZEA	61	57,3	61,3	75,7	75,4	76,5
BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA AITORTZEA (BEZ)	79,4	78,1	79	77,9	76,9	80,2
ZERGA BEREZIAK EDO ADUANA-ESKUBIDEAK AITORTZEA	11,5	12,4	12,8	26,7	28,9	29,4
BESTE IZAPIDE EDO ZERBITZU BATZUK	11,3	14,6	12,2	8,3	11,8	10,6

Iturria: EUSTAT. Administrazioaren Informazioaren gizaritari buruzko inkesta-IGI-Administrazioa. Datu-basea.


Enpresa-sare osoan (hirugarrenen bidez Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimenduak eta Internet eduki ezin dezaketena barne), 2022. urtean, enpresa guztien % 94,3 eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 97,5 izan ziren elektronikoki jarduten zutenak.

Izapidetze zuzena izan daiteke, hirugarrenen bitartez (aholkularitza-enpresak...) edo bi prozedurok erabiliz. Hala, enpresen % 54,7k egiten ditu izapideak zuzenean, eta % 76,1 da hirugarrenen bitartez izapideak egiten dituzten enpresen portzentajea (horietako zenbaitek zuzenean ere egin ditzakete). Bestalde, 10 langile edo gehiago dituzten enpresek, handiagoak direnez bitarteko gehiago izanik, neurri handiagoan egiten dituzte izapideak zuzenean. Hala, hauexek dira portzentajeak, hurrenez hurren: % 85,5 eta % 58,3.

Enpresek Administrazioarekin egiten dituzten izapideei dagokienez, honako hauek nabarmentzen dira establezimendu guztietarako: BEZa aitortu (guztizkoaren % 79), informazioa lortu (% 71,1), inprimakiak eta formularioak lortu (% 67,2), langileen kotizazio sozialak aitortu (% 68). 10 enplegu edo gehiagoko establezimenduen arloan, nabarmentzekoak dira: informazioa eskuratzea (tamaina honetako establezimenduen % 88,5), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 86,9), eta betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 83,4).

Euskal enpresek izapide horiek bitarteko elektronikoak erabiliz zein administrazioarekin egiten duten galdetuta, Foru-aldundiak (% 87,1) eta Administrazio Zentrala (% 73,8) nabarmentzen dira, eta zerga nagusien gaineko eskumenek dute eragina portzentaje horietan. Ondoren, Eusko Jaurlaritza (% 63,6), toki-erakundeak (% 33,4), Europar Batasuna eta beste batzuk (% 8,9) daude. Portzentaje horiek, beste behin, handiagoak dira soilik 10 langile edo gehiago dituzten enpresak hartzen badira kontuan. Tamaina horretan, lehenik eta behin, tamaina horretako enpresen % 89k dute elkarrekin elektronikoa Administrazio Zentralarekin. Ondoren, Foru-aldundiak (% 88,5), Eusko Jaurlaritza (% 83,2), toki-erakundeak (% 50,3) eta, azkenik, EB eta beste batzuk (% 22,7) daude.

II.6.3. GRAFIKOA. IZAPIDEAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREKIN EAE-KO ESTABLEZIMENDUETAN (INTERNETEKO KONEXIOAREKIN EDO HALAKORIK GABE), ESTABLEZIMENDUAREN TAMAINAREN ARABERA (establezimenduen %a), 2022



Iturria: EUSTAT. ESI-Administrazioa.

6.2.6.2. Eskaintza elektronikoa publikoa

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak bost urtean behin egiten duen “Zerbitzu Publiko Elektronikoen Estatistikaren” helburuetako bat da Euskadiko erakunde-unitate publiko guztien zerbitzu elektronikoen eskaintza eta ezaugarriak ezagutztea.

2016ari buruzko azken datuek erakusten dute posible zela EAEko erakunde publikoek eskainitako prozedura eta izapide guztien % 66,8 elektronikoki egitea (osorik). 2010eko ehunekoa % 27,3 zen. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2018ko gure Memoria Sozioekonomikora.

6.2.6.3. Telelana administrazioan

EUSTATen datuen arabera, 2021. urtean, euskal administrazio publikoko langileen % 11,6k bere lantokitik kanpo egin zuen lan, gutxienez lanaldiaren heren bat, erregulartasunez, sare telematikoak erabiliz IKT sistemekin konektatzeko. Ondorioz, telelangiletzat jo daitezke. Ratio hori 2022an jaitsi egin da, % 5,4ra.

Euskal administrazio publikoan telelanean aritzen diren pertsonen ehunekoan ia ez dago alderik establezimenduen tamainaren arabera.

II.6.27. KOADROA. EUSKAL ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN TELELANEAN ARI DIREN PERTSONEN EHUNEKOA, ESTABLEZIMENDU-TAMAINAREN ARABERA

	2021	2022
ESTABLEZIMENDUAK, GUZTIRA	11,6	5,4
10 LANGILE EDO GEHIAGOKOKO ESTABLEZIMENDUAK	11,4	5,2

Iturria: EUSTAT. Administrazioaren Informazioaren gizaritari buruzko inkesta-IGI-Administrazioa.

6.2.7. Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea (DESI)

Europako Batzordeak 2014az gerotik gainbegirutzen ditu estatu-kideen aurrerapen digitalak, Ekonomia eta Gizarte Digitalen Indizearen txostenen bidez. DESI txostenetan herrialdekako profilak eta gaikako kapituluak sartzen dira. Gainera, estatu-kide bakoitzerako telekomunikazioei buruzko kapitulu xehatu bat erantsi zaie txostenei.

II.6.28. KOADROA. EKONOMIA ETA GIZARTE DIGITALAREN INDIZEA (DIGITAL ECONOMY AND SOCIETY INDEX- DESI)

	EAE		ESTATUA		EB28
	POSTUA	PUNTUAZIOA	POSTUA	PUNTUAZIOA	PUNTUAZIOA
DESI 2018	6	55,2	10	50,2	46,5
DESI 2019	6	58,3	10	53,6	49,4
DESI 2020	7	61,5	11	57,5	52,6

Iturria: DESI eta ORKESTRA (EAErako).

DESI bost dimentsiotan eraikitzen den indize konposatua da: banda zabaleko konektibitatea, herritarren gaitasun digitalak, herritarrek internet-zerbitzuak erabiltzea, enpresen digitalizazioa eta zerbitzu publiko digitalak.

ORKESTRAK argitaratutako azken indizean (DESI 2020, 2019ko datuekin), EAEk 61,5 puntu eskuratu ditu. Hala, ia ehuneko 10eko abantaila du Europako batezbestekarekiko (52,6) eta laukoa estatuko batezbestekorekiko (57,5). Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2021eko gure Memoria Sozioekonomikora.

ITURRIAK:

1. **EUROPAKO BATZORDEA.** Europako berrikuntza-adierazleen panelak.
2. **EUROSTAT.** Digital Economy and Society. 2022ko datu-basea.
3. **EUROSTAT.** Science and Technology. 2022ko datu-basea.
4. **EUSTAT.** Berrikuntzaren inkesta. Aldia: 2019. 2021.
5. **EUSTAT.** Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Administrazioa. 2022.
6. **EUSTAT.** Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Enpresak. 2022.
7. **EUSTAT.** Informazioaren gizarteari buruzko inkesta. Familiak. 2022.
8. **EUSTAT.** Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko estatistika. 2021.
9. **EUSTAT.** Europako berrikuntza-adierazleen panela. IUS 2022.
10. **EUSTAT.** Enpresetako I+G jardueri buruzko eskaera. 2021.
11. **EUSTAT.** Informazioaren gizartearen panorama.
12. **EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA.** Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2030 delakoaren jarraipena.
13. **EIN.** Enpresetan IKTak eta merkataritza elektronikoa erabiltzeari buruzko inkesta. 2022ko lehen hiruhilekoa.
14. **EIN.** Enpresen berrikuntzari buruzko inkesta. 2020.
15. **EIN.** I+G jardueri buruzko estatistika. 2021.
16. **Ekonomia eta Gizarte Digitalaren Indizea (DESI)**

7. GIZARTE-EKONOMIA EAEN⁴⁴

Kontabilitate Nazionalak, Gizarte-Ekonomiaren barruan, bi zati handi bereizten ditu: a) merkatuarena edo enpresarena eta b) merkatukoak ez diren ekoizleena, “*hirugarren sektorea*”⁴⁵ ere esaten zaiona.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak, *Gizarte Ekonomiaren Estatistika (2020 eta 2021 Aurrerapena)* eta *Gizarte Ekonomiaren Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa* dokumentuetan, sailkapen bat egiten du, “gizarte-ekonomiaren forma klasikoak” eta “gizarte-ekonomiaren beste forma batzuk” bereizten dituena.

- Gizarte-ekonomiaren forma klasikoak (GEFK): sozietate kooperatiboak eta lan-sozietateak.
- Gizarte-ekonomiaren beste forma batzuk (GEBF): fundazioak, onura publikoko elkarteak, laneratzeko enpresak, enplegurako zentro bereziak, eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, arrantzaleen kofradiak eta borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.

Hemen, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak bi urtean behin egiten duen estatistika-eragiketa horren emaitza nagusiak aurkezten dira. Ondoren, autonomia-erkidegoen arabera konparazio labur bat dator, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren datuekin. Ondoren, Eusko Jaurlaritzak 2021-2024 Plan Estrategikoaren bidez gizarte-ekonomiari laguntzeko dituen ildo nagusiak zerrendatzen dira, bai eta Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren bidez egindako transferentzien eta dirulaguntzen datu orokorrak ere.

7.1. Gizarte-ekonomiaren forma klasikoak


EAEn, 2020rako “*Gizarte Ekonomiaren Estatistika*”ren azken datuen arabera, merkatuko gizarte-ekonomia (GEFK) 2.570 enpresak osatzen dute guztira, eta 3.424 establezimendu daude EAEn. Aipatutako urtean 60.401 pertsonari lan eman zieten (erkidegoko lanpostuen % 6,5) eta 2.958,2 milioi euroko Balio Erantsi Gordina (BEG) sortu zuten (euskal ekonomiaren BEGaren %4,6).

⁴⁴ *Gizarte Ekonomiari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Estatu Legea mugarrria izan ZEN. Haren arabera, gizarte ekonomiaren erakunde dira “kooperatibak, mutualitateak, fundazioak eta jarduera ekonomikoa garatzen duten elkarteak, lan sozietateak, gizarteratzeko enpresak, enpleguko zentro bereziak, arrantzaleen kofradiak, eraldaketako nekazaritza sozietateak”, eta baita jarduera ekonomikoa eta enpresakoa egiten duten erakundeak ere, betiere, haien funtzionamenduak arauaren 4. artikuluan bildutako printzipio multzoari erantzuten badie. Printzipio horiek honakoak dira:*

- Pertsonak eta gizarte-xedea gailendu egingo zaizkio kapitalari; horretarako, kudeaketa autonomo eta gardena, demokratikoa eta partaidea egingo da, eta erabakiak hartzerakoan pertsonak eta horiek erakundeari eskaini dizkieten lana edo zerbitzuak zein gizarte-xedea gehiago hartuko dira kontuan sozietatearen kapitalari egindako ekarpenak baino.*
- Jarduera ekonomikoa bidez lortutako emaitzak batez ere egindako lana eta zerbitzua zein bazkide edo kideek egindako jarduera kontuan hartuta aplikatzea, edo erakundearen gizarte-xedean aplikatzea.*
- Erakunde barruko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, tokiko garapenarekiko, gizon eta emakumeen arteko aukera berdintasunarekiko, gizarte-kohesioarekiko, gizarte-bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen gizarteratzearikiko, kalitatezko enplegu egonkorra sortzearekiko, bizitza pertsonala, familiarra eta lanekoa bat egitearekiko eta iraunkortasunarekiko konpromisoa bultzatze aldera.*
- Botere publikoekiko mendekotasunik eza.*


⁴⁵ *Horrela, merkatu edo enpresako gizarte ekonomia, funtsean, kooperatibek eta lan sozietateek eta mutuek eta mutualitateek osatuko lukete. Bestalde, merkatukoak ez den gizarte- ekonomia batez ere elkarteek eta fundazioek osatzen dute. Beste forma juridiko batzuk dauzkaten erakundeak ere egon litezke. Kontabilitate nazionalan ezarritako irizpideen arabera, merkatuz kanpoko ekoizleak diren gizarte-ekonomiako erakundeak osatzen dute, hau da, beren ekoizpena batez ere dohanik edo prezio ekonomikoi ez-esanguratsuetan hornitzen dituzten erakundeak osatzen dute.*

II.7.1. GIZARTE EKONOMIAREN (GEFK) GARRANTZIAREN BILAKAERA EAEn



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

II.7.2 GRAFIKOA GIZARTE-EKONOMIAREN ENPLEGUEN ETA FAKTURAZIOAREN BILAKAERA (GEFK) EAEn




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

7.1.1. Enpleguaren bilakaera

2020an, pandemia agertu zen urtean, EAEko gizarte-ekonomiak enpleguari eustea lortu zuen (-% 0,3 eta -% 0,6, hurrenez hurren), zerbitzuen sektoreari esker, zeina % 4,5 hazi baitzen (+% 0,4 hirugarren sektoreko enplegu osoaren kasuan); aldiz, gizarte-ekonomiaren industriak beherakada handia izan zuen (-% 7,3), eta ratio horrek bikoiztu egin zuen EAEko industrian okupatutako biztanleriaren beherakada (-% 2,9). Bilakaera horri esker, 2020an gizarte-ekonomiaren enpleguak EAEko enplegu osoan duen pisuari eutsi ahal izan zaio, 2018an lortutako % 6,5ean, hain zuzen ere.

II.7.3 GRAFIKOA GIZARTE-EKONOMIAK (GEFK) ENPLEGUAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOAREN BILAKAERA: PISUA EHUNEKOTAN, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

EAEko enplegu osoaren gaineko % 6,5eko ratio horrek 2008ko eta 2010eko mailak gainditzen ditu, eta 2004an markatutako % 6,6ra eta 2002an lortutako ordezkartitza-maila gorenera hurbiltzen da (% 6,8).

Ikuspegi sektorialetik, zifra absolutuetan, zerbitzuen sektoreak 33.126 langile enplegatzen ditu 2020an (+% 4,5); hala ere, lehen sektorea eta eraikuntza dira, 300 eta 2.165 enplegurekin, hurrenez hurren, enplegu-sorrerari dagokionez dinamismo handiena duten sektoreak (+% 57,9 eta +% 11,4, hurrenez hurren, batez bestekoaren -% 0,3ren aldean). Industria, esan bezala, % 7,3 jaitsi da, 24.811 enplegu izanik.

II.7.1 KOADROA. ENPLEGUAREN BANAKETA SEKTORIALA GIZARTE-EKONOMIAN (GEFK) EAEn. 2018-2020 BILAKAERA.					
	2018		2020		Ald. % 2018-20
	ABS.	% BERT.	ABS.	% BERT.	
LEHEN SEKTOREA	190	0,3	300	0,5	57,9
INDUSTRIA	26.779	44,2	24.811	41,1	-7,3
ERAIKUNTZA	1.944	3,2	2.165	3,6	11,4
ZERBITZUAK	31.697	52,3	33.126	54,8	4,5
GUZTIRA	60.609	100,0	60.401	100,0	-0,3


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

Euskal ekonomia osoari eragiten dion hirugarren sektorerako joera gizarte-ekonomiaren sektorean ere gertatzen da. Horrela, 2008an hirugarren sektoreko enpleguaren pisu erlatiboak (% 51,1) lehen aldiz gainditu zuen industriakoa (% 46,4), eta joera hori sendotuz joan da; horrela, 2020an hirugarren sektoreko enplegua gizarte-ekonomiaren guztizko enpleguaren % 54,8 da, neurri handi batean merkataritzaren jarduera-adarrei (10.409 enplegu, guztizkoaren % 17,2) eta hezkuntza-arloari (8.652 enplegu, % 14,3) lotuta.

Bestalde, industria-sektorea, -1.968 enpleguko jaitsiera garbia duena, euskal gizarte-ekonomiako enpleguaren % 41,1 da, eta 2020an dituen 24.800 enpleguak urrun daude 2006an lortu zuen 32.250 enpleguko maximotik. 2020an, industria-kooperatibako enplegu horren % 80 baino gehiago metalurgiari, makina-erremintari eta/edo ekipo mekanikoen fabrikazioari lotuta dago.

Horrela, argi eta garbi ikusten da industriak gizarte-ekonomian duen garrantzi erlatiboa, enpleguan duen aipatutako % 41,1eko pisuak EAEko enplegu osoaren % 21,5 bikoizten baitu. Zerbitzuen sektorean kontrakoa gertatzen da; izan ere, gizarte-ekonomian enpleguan duen pisua % 54,8koa da, eta EAEko enplegu osoan, berriz, % 72,2koa.

II.7.4 GRAFIKOA GIZARTE-EKONOMIAK EAEko ENPLEGUAN DUEN GARRANTZI ERLATIBOA. ENPLEGUAREN GUZTIZKOAREN GAINEKO EHUNEKOAK.




Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

Lurraldeen ikuspegitik, hainbat bilakaera hauteman dira. Lehenik eta behin, Gipuzkoan, nabarmen industrialia den lurralde gisa, enpleguak % 2,2 egin du atzera oro har gizarte-ekonomian (-700 enplegu garbi), eta Arabak, berriz, bere enpleguaren % 1,2 galdu du (-68 enplegu garbi). Bizkaia, bestalde, bilakaera positiboa izan du eta % 2,5 egin du gora (+559), hirugarren sektoreak duen pisuari esker.

Pisu erlatiboari dagokionez, Gipuzkoak, bere bilakaera gorabehera, posizio konparatibo hobea dauka. Lurralde horretan, gizarte-ekonomiaren enpleguak biztanleria landunaren guztizkoaren gainean duen pisua % 10,2koa da (% 10,4 2018an). Bizkaiko eta Arabako pisu erlatiboak apalagoak dira: % 4,9 eta % 3,9, hurrenez hurren; 2018an baino bi hamarren gehiago eta bat gutxiago, hurrenez hurren. Bilakaera horien ondorioz, Gipuzkoak Euskadiko gizarte-ekonomiako enpleguaren % 52,3 pilotzen du 2020an (-1 puntu 2018koaren aldean), Bizkaia % 38,4 (+1 puntu) eta Arabak 2018ko pisuari eusten dio, % 9,3.

II.7.5. GRAFIKOA GIZARTE-EKONOMIAKO ENPLEGUAREN LURRALDE-BANAKETAREN BILAKAERA EAEn.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

Pilaketa motari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren txostenak nabarmentzen du euskal gizarte-ekonomiaren berezitasunetako bat sozietateen enplegua dela. Zifra zehatzetan, 2020an EAEko gizarte-ekonomiak 36.676 bazkide zituen (% 90 inguru bazkide kooperatibistak dira), hau da, euskal gizarte-ekonomiaren guztizko enpleguaren % 61. Bestalde, soldatapeko enpleguak urteko 23.726 enplegu biltzen ditu guztira; horietatik 12.316 finkoak dira eta 11.410

behin-behinekoak. Sozietateen kolektiboak, aurreko biurtekoan hasitako geraldieren testuinguruan, eutsi egin dio, baita % 0,5 gehitu ere (+% 0,5 kooperatiba-sozietateek eta +% 0,2 lan-sozietateek); soldatapeko enpleguak, berriz, %1,6 egin du behera, batez ere enplegu finkoan (-% 3,8, 2018aren aldean).

II.7.2 KOADROA. GIZARTE-EKONOMIAKO LANPOSTUEN BILAKAERA EAEn FORMA JURIDIKOAREN ARABERA. 2018-2020					
	2018		2020		ALD. % 2018-20
	LANPOSTUAK	%	LANPOSTUAK	%	
KOOPERATIBAK	53.390	88,1	53.524	88,6	0,3
LAN-SOZIEATEAK	7.219	11,9	6.878	11,4	-4,7
---LSA	3.029	5,0	2.713	4,5	-10,4
---EMLS	4.190	6,9	4.165	6,9	-0,6
GUZTIRA	60.609	100,0	60.401	100,0	-0,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

Forma juridikoari dagokionez, 2020ko

Gizarte-ekonomiaren estatistikaren arabera, azken biurtekoan gizarte-ekonomiaren enpleguari eusteko (-% 0,3) zioetako bat kooperatiben bilakaera ona izan dela (+% 0,3, 2020an haien 53.524 enpleguak EAeko gizarte-ekonomiaren enpleguaren % 88,6 baino zertxobait gehiago dira). Horrela, forma juridiko horrek urteko 134 enpleguko saldo positiboa ematen du; azken biurtekoan, berriz, 208 enpleguko galera garbi izan du.

II.7.3 KOADROA. EUSKAL GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN ENPLEGU KOPURUAREN BILAKAERA, DIMENTSIONAREN ARABERA. 2018-2020.			
	2018	2020	ALD. % 2018-20
GEHIENEZ 5 LANPOSTU	4.391	4.446	1,3
6-15	4.239	4.187	-1,2
16-50	6.032	6.180	2,5
51-100	6.761	6.777	0,2
101-200	6.902	7.213	4,5
201-500	7.531	8.698	15,5
500 LANPOSTU BAINO GEHIAGO	24.751	22.900	-7,5
GUZTIRA	60.609	60.401	-0,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika

Lan-sozietate anonimoak (LSA), berriz, termino absolutuetan erori dira: -% 10,4 azken biurtekoan (-316 lanpostu). Forma juridiko hori enpleguak nabarmen galtzen ari da 2008tik, urte hartan 7.451 baitziren guztira, eta 2020an 2.713. Bestalde, lan-sozietate mugatuek (LSM) enpleguaren % 0,6 galdu dute azken biurtekoan (-25 enplegu), 2016ra arte joera positiboa izan ondoren: +% 6,8 2012 eta 2014 artean, eta +% 5 2014 eta 2016 artean.

Enpresen dimentsioari dagokionez, enplegu-galera dimentsio handieneko enpresetan pilatzen da (> 500), eta establezimendu kopuruari eutsi arren, langileen % 7,5 galdu dituzte (-1.851 enplegu). Bestalde, 5 enplegu baino gutxiagoko mikroenpresek eta 50 enplegu baino gutxiagoko enpresen tarteak zifrei eustea lortu dute (% 1 inguruko hazkundeak), 2018 eta 2020 artean kooperatiba-establezimenduen kopuruan izandako gorakadari esker (+% 7).

200 enplegu baino gehiagoko enpresa handiek EAeko gizarte-enpleguaren % 52 baino gehixeago biltzen dute, baina enpleguaren % 2,1 galdu dute oro har. Bestalde, 50 enplegu baino gutxiagoko enpresek, gizarte-ekonomiako establezimenduen % 73 ingururekin (2.485 establezimendu), gizarte-ekonomiako 4 enplegutik 1 baino zertxobait gutxiago biltzen dute, nahiz eta 2018-2020 aldian enpleguaren % 1 baino apur bat gehiago batzea lortu duten (16-50 enpleguko enpresen artean % 2,5eraino).

II.7.4 KOADROA. EAeko GIZARTE-EKONOMIAREN BILAKAERA. ALDAGAI BATZUEN ALDAKUNTZA (EHUNEKOTAN). 2006-2021.					
	ENPLEGUA	ESTABLEZIMENDUAK	FAKTURAZIOA	MOZKINAK	ESPORTAZIOAK
2006/08	-1,4	-3,6	2,4	-52,9	:
2008/10	-4,3	0,4	-12,2	-59,8	-7,2
2010/12	-6,9	2,7	-3,3	-20,5	18,8
2012/14	-2,2	1,6	-7,1	16,2	-0,7
2014/16	4,5	2,1	1,4	449,8	3,5
2016/18	6,3	4,5	8,8	-18,0	10,6
2018/20	-0,3	2,6	-4,8	-24,6	-17
2020/21*	+1,74	:	+3,65	:	:

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika. Guk geuk egin.
* Datuen aurrerapena. Sektorearen zenbatespenak.

Nolanahi ere, establezimenduen guztizko kopuruaren hazkunde erritmoa, 5 enplegu baino gutxiagoko kooperatibak eta lan-sozietateak kontuan hartuta (+%2,8), txikiagoa da pandemiaren aurreko bi biurtekoetan izandako hazkunde-tasa handiak baino (2014-2016: +% 14,5 eta 2016-2018: +% 13,4); hazkunde horien ondorioz, aurreko 2016-2018 biurtekoan, mikroenpresa horien artean enplegua % 4,7 hazi zen.

7.1.2. Emaidza ekonomikoak

EAEko gizarte-ekonomia, COVID testuingurua gorabehera, establezimenduen zifretan % 2,6 hazi da 2018-2020 aldian; hala, 2020an, gizarte-ekonomiak 3.424 establezimendu ditu guztira, eta zifra horrek maximo berri bat ezartzen du 1994an hasitako serie historikoan.

Eusko Jaurlaritzaren txostenak nabarmentzen duen bezala, pandemiaren agerpenak ez du eragin hain zuzenik izan enpleguaren zifretan -orokorrean mantentzen dira, nahiz eta industriako enplegua jaitsi den- eta establezimendu-parkean -hazkundera ere izan du berak-, baina eragin negatiboa izan du fakturazio-parametro handietan, esportazio-mailetan, emaitzen uzkurduan eta, neurri txikiagoan bada ere, baita BEGean ere.

Hala, negozio- edo fakturazio-bolumenari dagokionez, 2020an, EAEko gizarte-ekonomiak 2018an baino % 5 inguru gutxiago fakturatu du, guztira 8.074 milioi euro, eta sektoreka aldeak daude bilakaeran: industriaren kasuan, fakturazioa % 16 murriztu da 2018ko ekitaldiaren aldean, eta hirugarren sektoreak, berriz, ia % 11 igo ditu salmentak aldi berean (batez ere merkataritzaren adarra eta osasun- eta laguntza-jarduerak). Fakturazio osoaren % 51 industriatik sortzen da, eta % 46 zerbitzuen sektoretik.

2020an, EAEko gizarte-ekonomiak lortutako mozkinen bolumenak % 25 inguruko murrizketa izan du 2018an sortutakoekin alderatuta, eta 313 milioi eurokoa da, aldagai horrek industriaren (-% 34), zerbitzuen (-% 13) eta eraikuntzaren (-% 73) sektoretan jasan duen uzkurduaren ondorioz, eta hori ez da konpentsatzen lehen sektoretik sortutako mozkinen hazkunderarekin.


Era berean, hazkunde negatibo hori gizarte-ekonomiak sortutako BEGean islatzen da; izan ere, 2020an 2.958 milioi euro ziren guztira (-% 1,9 eta +% 3,6, berriz, aurreko biurtekoan), batez ere industriako BEGaren jaitzieragatik (-% 8,8), aurreko biurtekoan izandako % 6,6ko hazkundera geldiarazi baitzuen, eta ez zen konpentsatzen zerbitzuen sektoreko BEGak izandako igoerarekin, % 5,6 hazi baitzen (2016-2018 aldiko % 10etik beherako erritmoan). 2020ko ekitaldian, industriako BEGa EAEko gizarte-ekonomiaren BEGaren % 49 da, eta zerbitzuen sektoreko BEGa % 48 baino pixka bat gehiago.

EAEko ekonomiak, oro har, portaera txarragoa izan du gizarte-ekonomiak pairatutakoarekin alderatuta, eta, horren ondorioz, EAEko gizarte-ekonomiak aurrera egin du BPGd-aren gaineko partaidetzari dagokionez, 2018an % 4,4 izatetik % 4,6 izatera igaro baita.

II.7.5 KOADROA. EAEko GIZARTE EKONOMIAREN BEGaren DINAMIKA 2018-2020 BIURTEKOAN. SEKTOREEN BILAKAERA. BALIO ABSOLUTUAK EGUNEKO PREZIOETAN. EUROAK, MILAKOTAN.						
	2018			2020		
	ABS.	% BERTIKALA	PARTE-HARTZE SEKTORIALAREN %*	ABS.	% BERTIKALA	PARTE-HARTZE SEKTORIALAREN %*
LEHEN SEKTOREA	4.882	0,2	:	10.900	0,4	:
INDUSTRIA	1.588.913	52,7	9,5	1.448.832	49,0	9,7
ERAIKUNTZA	75.645	2,5	1,9	75.432	2,5	1,9
ZERBITZUAK	1.347.295	44,7	2,8	1.423.014	48,1	3,1
GUZTIRA	3.016.735	100,0	4,4	2.958.178	100,0	4,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. GIZARTE-EKONOMIAREN ESTADISTIKA.
** Parte-hartzea EAEko sektorearen guztizkoarekiko. EUSTATen 2020ko Kontu Ekonomikoen datuak.*

II.7.6 GRAFIKOA ESPORTAZIOEK FAKTURAZIO OSOAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA. EAEko GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESAK



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

Eusko Jaurlaritzaren txostenak dioenez, 2020ko ekitaldian EAEko gizarte-ekonomiaren esportazioen bolumena 2.527 milioi eurora iritsi zen, eta 2004. urtetik lehen aldiz murriztu zen, fakturatutako salmenta guztien % 4,5, 2018ko % 35,8tik 2020. urteko % 31,3ra.


Enpresa esportatzaile guztien kanposalmentak aztertuta, ikusten da salmenta horien % 51,3 kanpo-merkatuetan egiten direla, % 62,2 2018an. Ikuspegi globaletik, gizarte-ekonomiaren esportazioak % 17 inguru jaitsi dira (gogora dezagun 2016-2018 aldian % 18ko hazkundera izan zela), euskal ekonomia osoak izandako joera negatiboarekin bat etorritz.

II.7.6 KOADROA. GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN BILAKAERA ESKUALDEKA. ZIFRA ABSOLUTUAK MILA EUROTAN ETA PARTE-HARTZEA. 2018-2020.

	2018		2020		Ald. % 2018-20
	ABS.	% BERT.	ABS.	% BERT.	
EUROPA	1.917.403	63,1	1.661.910	65,8	-13,3
EUROPAR BATASUNA	:	:	1.333.311	52,7	:
ERRESUMA BATUA	:	:	109.350	4,3	:
GAINONTZEKO EUROPA	:	:	219.250	8,7	:
ASIA	417.673	13,8	283.083	11,2	-32,2
AEB	253.097	8,3	213.604	8,5	-15,6
HEGO ETA ERDIALDEKO AMERIKA	251.980	8,3	187.860	7,4	-25,4
BESTE BATZUK	196.970	6,5	180.482	7,1	-8,4
GUZTIRA	3.037.123	100,0	2.526.939	100,0	-16,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.

II.7.7 GRAFIKOA EAE-KO GIZARTE-EKONOMIAREN ESPORTAZIOEN HELMUGA



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren kontuak.

*2020ko edizioan, berrikuntza gisa, Brexitaren ondoren Europako kontinenteko esportazioen desagragazioa gehitu da, hiru eremutan: Europar Batasuna, Europako gainerako herrialdeak eta Erresuma Batua.

2020ko ekitaldiko pandemiaren egoera globalari erreparatuta, esportazioak behera egin du helmuga geografiko guztietan, eta nabarmentzekoak dira Asiako merkatuak (% 32 jaitsi da) eta Hego Amerikako merkatua (% 25 gutxiago).

Kanpo-salmentak biltzen dituzten merkatuei dagokienez, Europako merkatua da, oro har (Europar Batasuna, Erresuma Batua eta Gainerako Europa), esportazioen ehuneko handiena biltzen duena (% 66 inguru), eta haren atzetik datoz Asiako merkatua, % 11,2 (% 2,6ko jaitsiera izan du fakturazio osoan aurreko aldiarekin alderatuta), Estatu Batuak, aurreko biurtekoaren antzeko mailekin, % 8,5ekin, eta Erdialdeko Amerika eta Hego Amerika (% 0,9ko murrizketa izan du fakturazio globalaren pisuari dagokionez), esportazioen bolumen osoaren % 7,4, eta, ondoren, gainerako kanpo-merkatuak, zeinek % 0,6ko igoera izan baitute.

Azkenik, inbertsioen kapituluari dagokionez, 2018-2020 biurtekoan ere murriztu egin da inbertsio-ahalegina aurreko biurtekoaren aldean, % 30 baino pixka bat gehiago, 212,5 milioi euro guztira, ibilgetu materialean (% 75 eta % 77,2, hurrenez hurren, aurreko aldian) eta industria-sektorean (% 64; 2016-2018 aldian ehunekoa % 68,4koa izan zen) banatuta. Jarduera-sektoreen arabera, inbertsio-mailaren jaitsiera % 34,7ra iritsi da industriaren kasuan, eta % 15 baino zertxobait gutxiagora zerbitzuen sektorean.

7.2. GIZARTE-EKONOMIAREN BESTE FORMA BATZUK

Eusko Jaurlaritzaren Gizarte-ekonomiaren Estatistikak zenbait kopururekin osatzen ditu estatistikako eragiketa horren gune tradizionalaren analisia (kooperatibak eta laneko sozietateak), eragiketan sartu ez diren erakundeen gainean, baina beren beregi aipatzen dira 2011ko Gizarte-ekonomiaren Legean. Fundazioak eta elkarteak, enplegurako zentro bereziak, laneratze enpresak, BGAEak, arrantzale-kofradiak eta eraldaketako nekazaritzako sozietateak dira.

II.7.7 KOADROA. EAEko GIZARTE-EKONOMIAREN BESTE FORMA BATZUK: DATU NAGUSIAK 2016-20.								
	2016		2018		2020		ALD. % 2018-20	
	KOPURUA	ENPLEGU ORDAINDUA	KOPURUA	ENPLEGU ORDAINDUA	KOPURUA	ENPLEGU ORDAINDUA	KOPURUA	ENPLEGU ORDAINDUA
1. FUNDAZIOAK**	608	11.811	606	13.045	597	12.673	-1,5	-2,9
2. ELKARTEAK	239	3.704	254	4.103	258	5.037	+1,6	+22,8
3. ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAK**	40	9.047	37	9.986	37	10.626	0	+6,4
4. LANERATZE ENPRESAK*	65	924	43	757	44	817	+2,3	+7,9
5. BGAE	165	79	155	74	113	72	-27,0	-2,7
6. ARRANTZALE-KOFRADIAK	15	62	14	91	14	96	0	+5,5
7. ERALDAKETAKO NEKAZARITZA-SOZ.	79	170	84	233	85	240	+1,2	+3,0
GUZTIRA	1.211	25.797	1.196**	26.015**	1.147**	27.321**	-4,0	+5,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarte-ekonomiaren estatistika.
* 2018tik aurrera, LANBIDEn Erregistroan inskribatutako laneratze enpresak bakarrik sartzen dira; beraz, ezin da aurreko datuekin konparatu.
**2018tik, Enplegu Zentro Bereziak eta Lantegi Batuak Fundazioak sortutako bikoiztasuna kontuan hartu gabe

2020rako zenbatespenean, aztertutako sei kategorien multzo agregatuak 1.147 erakunde biltzen ditu EAEn, honelaxe: 597 fundazio, 258 elkarte, 37 enpleguko zentro berezi, 44 laneratze enpresa, 113 BGAE, 14 arrantzale-kofradia eta 85 eraldaketako nekazaritzako sozietate. Erakunde horiek erreferentziako urtean zenbatetsitako enplegu ordainduaren bolumena 27.321 enplegukoa da, 2018an baino 1.306 gehiago, eta boluntarioek parte-hartze handia dute, bereziki fundazio eta elkarteetan; izan ere, kolektibo horrek 15.000 pertsona baino gehiago hartzen ditu 2020an.

7.3. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO KONPARAZIOA

Gainerako autonomia-erkidegoekin alderatuta gizarte-ekonomiak gure erkidegoan duen pisua ezagutzeko, kooperatiba sozietateetako eta lan-sozietateetako enpresen eta langileen zifrak aurkezten dira, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren datuen arabera, eta jakitun izanik EAerako zifra horiek ez datozela bat aurreko ataleko Gizarte-ekonomiaren estatistikaren arabera aurkeztutakoekin.

Lehenik eta behin, EAEk Gizarte Segurantzaren alta emanda zeuden 2.127 enpresa zituen 2020an (ekainaren 30eko datuak, eskura zeuden azkenak), eta kooperatiba- eta lan-sozietate gehien zituen laugarren autonomia-erkidegoa zen, Andaluziaren, Kataluniaren eta Valentziako Erkidegoaren atzetik. Enpresa horietatik 1.618 (% 76,1) kooperatibak ziren eta 509 (% 23,9) lan-sozietateak.


II.7.8 KOADROA. SOZIEKATE KOOPERATIBOAK ETA LAN-SOZIEKATEAK. GIZARTE SEGURANTZAN ALTA EMAN DUTEN ENPRESEN ETA LANGILEEN KOPURUA. 2020KO EKAINA.						
	ENPRESA			LANGILEAK		
	KOOP.	L-S	GUZTIRA	KOOP.	L-S	GUZTIRA
ANDALUZIA	3.758	1.702	5.460	55.282	10.496	65.778
ARAGOI	536	278	814	7.279	1.306	8.585
ASTURIAS	187	292	479	2.415	2.103	4.518
BALEAR UH.	150	77	227	1.739	467	2.206
KANARIAR UH.	222	204	426	4.435	1.162	5.597
KANTABRIA	86	105	191	950	983	1.933
GAZTELA-MANTXA	1.055	691	1.746	10.245	3.534	13.779
GAZTELA ETA LEON	1.059	460	1.519	8.314	2.261	10.575
KATALUNIA	3.063	628	3.691	36.908	5.745	42.653
VALENTZIA	2.180	587	2.767	40.682	4.363	45.045
EXTREMADURA	559	224	783	6.738	1.672	8.410
GALIZIA	735	417	1.152	7.917	2.162	10.079
MADRIL	737	890	1.627	15.150	6.534	21.684
MURTZIA	1.468	483	1.951	19.114	3.760	22.874
NAFARROA	485	221	706	8.636	2.119	10.755
EAE	1.618	509	2.127	56.442	6.082	62.524
ERRIOXA	108	28	136	941	154	1.095
CEUTA	15	3	18	150	38	188
MELILLA	14	2	16	230	13	243
GUZTIRA	18.035	7.801	25.836	283.567	54.954	338.521

Iturria: LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.

II.7.9 KOADROA. SOZIEKATE KOOPERATIBOAK ETA LAN-SOZIEKATEAK: ALTEN URTEKO BILAKAERA (HASIERAKO SOZIEKATEAK ETA BAZKIDEAK) EAE-N.												
	ERATUTAKO SOZ. KOOPERATIBOAK						ERREGISTRATUTAKO LAN-SOZ.					
	2020		2021		2022		2020		2021		2022	
	SOZ.	BAZKIDE AK	SOZ.	BAZKIDE EAK	SOZ.	BAZKIDE AK	SOZ.	BAZKIDE EAK	SOZ.	BAZKIDE AK	SOZ.	BAZKIDE AK
ANDALUZIA	398	1.316	365	1.079	456	1.258	17	47	15	62	14	46
ARAGOI	25	118	31	185	22	186	4	12	6	18	4	11
ASTURIAS	6	25	7	94	2	13	16	50	11	34	15	38
BALEAR UH.	22	109	26	90	21	55	0	0	0	0	0	0
KANARIAR UH.	2	23	12	67	7	30	9	22	3	9	12	38
KANTABRIA	14	48	16	38	11	56	9	24	11	34	7	21
GAZTELA-MANTXA	24	92	32	118	45	179	6	21	6	21	7	24
GAZTELA ETA LEON	45	153	40	123	39	233	9	25	13	31	6	13
KATALUNIA	149	652	183	885	170	905	4	11	6	20	1	3
VALENTZIA	163	523	171	469	160	1.071	13	59	11	28	14	43
EXTREMADURA	22	58	18	49	24	366	5	18	4	12	4	28
GALIZIA	98	255	135	443	132	518	22	54	28	78	24	58
MADRIL	51	211	88	312	63	248	48	137	91	212	51	135
MURTZIA	127	348	127	462	108	292	37	103	29	79	35	87
NAFARROA	62	156	89	235	80	274	2	7	0	0	2	9
EAE	138	431	223	864	173	837	10	31	20	82	15	39
ERRIOXA	3	28	4	49	5	13	0	0	0	0	0	0
CEUTA	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
MELILLA	0	0	1	3	0	0	0	0	0	0	0	0
ERREGISTRO ZENTRALA	15	64	38	145	40	156	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	1.364	4.610	1.606	5.710	1.558	6.690	211	621	254	720	211	593

Iturria: LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.

Langile kopuruarekiko duen pisua neurtuta, EAE Estatu mailako bigarren erkidegoa zen 2020an (62.524 langile, Estatu osoko % 18,5), Andaluziaren ondoren (65.778, % 19,4).



Bigarrenik, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak adierazi du 2022an 1.558 kooperatiba-sozietate eratu zirela Estatuan (-% 2,98, 2021aren aldean), eta hasierako 6.690 bazkide izan zituztela (+% 17,16). Horietatik, 173 kooperatiba EAEn eratu ziren (guztien % 11,11, eta aurreko urtean baino % 22,42 gutxiago), 837 bazkide izanik (Estatuko guztien % 12,51 eta 2021ean baino % 3,13 gutxiago). Zifra horiekin, gure erkidegoa bigarren postuan dago Estatu rankingean eratutako kooperatibetan, Andaluziaren (456 kooperatiba berri, % 29,27) eta Kataluniaren (170 kooperatiba, Estatu guztien % 10,91) atzetik. Hasierako bazkideei dagokienez, EAeko datua Estatu laugarren altuena da, Andaluziaren (guztien % 18,81), Valentziako Erkidegoaren (% 16) eta Kataluniaren (% 13,53) atzetik.

Halaber, 2022an 211 lan-sozietate berri erregistratu ziren Espainian (-% 16,93 2021aren aldean), hasierako 593 bazkiderekin (-% 17,64). Horietatik 15 sozietate EAEn erregistratu ziren (guztien % 7,11, aurreko urtean baino bost sozietate gutxiago), 39 bazkiderekin (Estatuko guztien % 6,57, eta 2021ean baino % 52,44 gutxiago). Horrela, Euskadi laugarren postuan dago urte horretan erregistratutako lan-sozietateen Estatu rankingean, Asturiasekin berdinduta, Madrilen (guztizkoaren % 24,17), Murtziaren (% 16,58) eta Galiziaren (4 sozietate gutxiago, Estatuaren % 11,37) atzetik. Hasierako bazkideei dagokienez, EAeko datua Estatu seigarrena da, Madrilen (guztien % 22,76), Murtziaren (% 14,67), Galiziaren (% 9,78), Andaluziaren (% 7,76) eta Valentziaren (% 7,25) atzetik.

7.4. EUSKO JAURLARITZAREN GIZARTE-EKONOMIARI LAGUNTZEKO POLITIKA

7.4.1. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzaren gastua

2021ean (eskuragarri dagoen azken datua), Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ekonomiako Zuzendaritzak egindako gastua (aitortutako obligazioak) 5,62 milioi eurokoa izan zen, 2020koa baino % 39 handiagoa. Hazkunde garrantzitsu hori enpresei beren inbertsioetan laguntzeko laguntzen bilakaerak eragin zuen batez ere; izan ere, laguntza horiek guztizkoaren % 48 baino gehiago dira, % 46,1 hazita.

Gastuaren banaketa kontuan hartuta, eta langile- eta funtzionamendu-gastuak deskontatuta, partida garrantzitsuenak gizarte-ekonomiako enpresei emandako transferentzia eta dirulaguntzei dagozkie, 3.327,6 mila euro, guztizkoaren % 59,2 (+%37,3 aurreko urtearen aldean); horietatik 624,8 mila euro transferentzia korranteak dira eta 2.702,8 kapital-transferentziak (inbertsioetara bideratuak). Bigarrenik, 1.152,8 mila euro (guztizkoaren % 20,5) erabili

ziren irabazi asmorik gabeko erakundeei transferentziak egiteko; partida hori % 12,8 hazi da 2020aren aldean. Halaber, familiek 395,4 mila euroko laguntzak jaso zituzten (gutzizkoaren % 7).

II.7.10 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE EKONOMIAIKO ZUZENDARITZAREN GASTUAREN BILAKAERA. AITORTUTAKO OBLIGAZIOAK. EUROAK, MILAKOTAN.

	2018	2019	2020	2021	% bert. 2021	20/21 %
PERTSONALA	605,8	621,7	175,1	614,6	10,9	251,0
FUNTZIONAMENDUA	10,1	12,2	2,6	69,2	1,2	2.561,5
TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA KORRONTEAK	2.066,4	2.728,7	2.019,2	2.237,2	39,8	10,8
Gizarte Ekonomiaren Behatokia	60,0	59,7	42,0	64,2	1,1	52,9
Enpresak	587,2	652,2	573,7	624,8	11,1	8,9
Familiak	313,4	793,7	363,7	395,4	7,0	8,7
Irabazi-asmorik gabeko erakundeak	1.105,9	1.223,1	1.021,8	1.152,8	20,5	12,8
KAPITAL TRANSFERENTZIAK ETA DIRULAGUNTZAK	1.425,5	1.635,2	1.849,6	2.702,8	48,1	46,1
Enpresak	1.425,5	1.635,2	1.849,6	2.702,8	48,1	46,1
GUZTIRA	4.107,8	5.002,7	4.046,5	5.623,9	100,0	39,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontua gauzatzea. Zenbait urte.

Enpresentzako laguntzen artean, esan bezala, funts gehien hartzaileak direnak dira, eta, lehenik eta behin, "Gizarte-ekonomian ekitea" programa nabarmentzen da, 2021ean enpresentzako laguntzen % 64,2 biltzen baititu, guztira 2,13 milioi euro (+% 32,6, 2020koaren aldean). Bigarrenik, ekintzailtzarako tresnen programak funtsen % 9,3 bildu zituen erreferentziako urtean, 308.400 euro guztira, eta, hirugarrenik, gizarte-ekonomiako enpresen lurralde-plangintzako ekimenek 257.900 euroko laguntzak bildu zituzten, 2020an baino % 10,3 gehiago, eta gizarte-ekonomiako enpresentzako funtsen % 7,8.

II.7.11 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO GIZARTE EKONOMIAIKO ZUZENDARITZA. ENPRESENTZAKO TRANSFERENTZIA ETA DIRULAGUNTZA PROGRAMAK. EUROAK, MILAKOTAN.

	2020	2021	% bert. 2021	20/21 %
PRESTAKUNTZARAKO LAGUNTZAK	237,8	249,0	7,5	4,7
LAGUNTZA TEKNIKOA	135,1	152,9	4,6	13,2
ELKAR-LANKIDETZA	77,6	111,6	3,4	43,8
LANGILEEN PARTE-HARTZEA	108,2	36,6	1,1	-66,2
ENPRESAREN ERANTZUKIZUN SOZIALA	15,0	74,7	2,2	398,0
GIZARTE-EKONOMIAN EKITEA	1.611,1	2136,5	64,2	32,6
LURRALDE PLANGINTZA	233,9	257,9	7,8	10,3
EKINTZAILE BERRIENTZAKO TRESNA BERRIAK	4,6	308,4	9,3	6604,3
GUZTIRA	2423,3	3327,6	100,0	37,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EAEko aurrekontua gauzatzea. Guk geuk egina.

7.4.2. Gizarte Ekonomiako Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa

Gizarte Ekonomiako Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoak (2021eko abendua) Eusko Legebiltzarraren aginduari erantzuten dio, zeinak, 2021eko martxoaren 4an egindako bilkuran, 5/2021 Mozioa onartu baitzuen: "Eusko Legebiltzarrak Lan eta Enplegu Sailari eskatzen dio Gizarte Ekonomiaren plan estrategikoa egiten jarrai dezala, sailen arteko zeharkakotasunetik eta sektorearen partaidetzarekin, 2021eko bigarren seihilekoan Legebiltzar honetara bidaltzeko, Jaurlaritzak Lan eta Enplegu Batzordeari jakinarazteko, eztabaida monografikoa egin dezan, Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduaren 199. artikulua araberan"

Euskadiko gizarte-ekonomiako lehen plan estrategikoa da, eta gizarte-ekonomiako familia guztien ikuspegi integrala hartzen du, inplikaturako Eusko Jaurlaritzako sailen ekarpenak barne hartzen dituena. Sailartekoa izateak esparru integratu bat eratzen laguntzen du, inplikaturako politiken eta araudien koherentzia, osagarritasuna eta koordinazioa hobetzeko.

Honela definitzen da haren xedea: "lurraldean errotuta dauden eta ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspegitik iraunkorrak diren gizarte-ekonomiaren balioak onartzen eta garatzen dituzten enpresak eta erakundeak sortzea eta sendotzea".

Helburu estrategikoak eta jarduera-ildoak taula honetan jasotzen dira⁴⁶:

HELBURUA:	GIZARTE-EKONOMIAKO EKINTZAILETZA-EREDUA ZABALTZEA ETA INDARTZEA: ENPRESA ETA ENPLEGU GEHIAGO ETA HOBEAGOAK
1. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiako ekintzailletza bultzatzea, dauden enpresak indartzea, informatzaileen eta preskriptoreen sarea eta aholkularitza-zerbitzuak hobetzea
2. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiako produktuen eta zerbitzuen eskaria bultzatzea, erosketa publiko arduratsuen bidez
HELBURUA:	GIZARTE-EKONOMIAKO PRESTAKUNTZA SUSTATZEA
3. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiako prestakuntza sustatzea eta integratzea hezkuntza- etapa guztietan, tartean diren eragileen artean eta sektorean bertan
HELBURUA:	GIZARTE-EKONOMIAKO ENPRESEN/ERAKUNDEEN FINANTZAKETARAKO SARBIDEA ZIURTATZEA ETA ZABALTZEA, ETA EREDUARI KOHESIOA ETA ERAKARGARRITASUNA EMATEA, LANKIDETZAREN BIDEZ
4. ARDATZA.-	Enpresa-ekimen, enpresa eta erakunde txiki berrietarako behar den finantza-euskarria ematea, sendotzea bideragarri eta jasangarri eginez.
5. ARDATZA.-	Ereduari kohesio eta erakargarritasun handiagoa ematea, haren gizarte-babesa hobetu
HELBURUA:	EREDUA ERAKARGARRIAGO EGITEA ETA IKUSGARRITASUN HANDIAGOA EMATEA, HAREN BERTUTEAK ZABALDUZ
6. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiako ereduaren ikusgarritasuna eta gizarte-harmena hobetzea, eredu hori hedatzea eta sendotzea errazteko bitarteko gisa, eta haren jardueraren hedapena ziurtatzea
7. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiari buruzko neurketa- eta ezagutza-sistema garatzea
HELBURUA:	POLITIKA PUBLIKOEN GOBERNANTZA HOBETZEA ETA LANKIDETZA PUBLIKO-PRIBATUA SUSTATZEA
8. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiari laguntzeko politika publikoen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea
9. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiaren esparru juridikoa aztertzea eta garatzea, haren hedapena mugatzen duten oztupoak ezabatuz
10. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiako enpresetan eta erakundeetan genero-berdintasuna sustatzea
11. ARDATZA.-	Gizarte-ekonomiako familien arteko aliantzak eta osagarritasunak bultzatzea, EGESen bidez, topaleku gisa
HELBURUA:	LANGILEEK ENPRESETAN PARTE HAR DEZATEN SUSTATZEA
12. ARDATZA.-	EGEren eta GJHen garapena eta langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzea

Planak 328,5 milioi euroko **aurrekontua** du, eta jarduera-ildoen araberako urteko xehetasuna koadro honetan jasotzen da:

EUROAK		2021	2022	2023	2024	2022-2024
		GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	AURREKONTUA
1. ARDATZA	Gizarte-ekonomiako ekintzailletza bultzatzea, dauden enpresak indartzea, informatzaileen eta preskriptoreen sarea eta aholkularitza-zerbitzuak hobetzea	74.415.000	79134185	81256415	83460825	318266425
2. ARDATZA	Gizarte-ekonomiako produktuen eta zerbitzuen eskaria bultzatzea, erosketa publiko arduratsuen bidez	BALIABIDE PROPIOAK				
3. ARDATZA	Gizarte-ekonomiako prestakuntza sustatzea eta integratzea hezkuntza etapa guztietan, tartean diren eragileen artean	348.500	468500	608500	738500	2164000
4. ARDATZA	Enpresa-ekimen, enpresa eta erakunde txiki berrietarako behar den finantza-euskarria ematea, sendotzea bideragarri eta jasangarri eginez.	795.800	875800	925800	1025800	3623200
5. ARDATZA	Ereduari kohesio eta erakargarritasun handiagoa ematea, haren gizarte-babesa hobetu	---	30.000	85000	160000	275000
6. ARDATZA	Gizarte-ekonomiako ereduaren ikusgarritasuna eta gizarte-harmena hobetzea, eredu hori hedatzea eta sendotzea errazteko bitarteko gisa, eta haren jardueraren hedapena ziurtatzea	348.500	348500	408500	438500	1544000
7. ARDATZA	Gizarte-ekonomiari buruzko neurketa- eta ezagutza-sistema garatzea	66.000	66000	126000	146000	404000
8. ARDATZA	Gizarte-ekonomiari laguntzeko politika publikoen efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea	---	60.000	60000	85000	205000
9. ARDATZA	Gizarte-ekonomiaren esparru juridikoa aztertzea eta garatzea, haren hedapena mugatzen duten oztupoak ezabatuz	---	30.000	60000	150000	240000
10. ARDATZA	Gizarte-ekonomiako enpresetan eta erakundeetan genero-berdintasuna sustatzea	---	---	60.000	60000	120000
11. ARDATZA	Gizarte-ekonomiako familien arteko aliantzak eta osagarritasunak bultzatzea, EGESen bidez, topaleku gisa	---	80.000	160000	190000	430000
12. ARDATZA	EGEren eta GJHen garapena eta langileek enpresetan parte har dezaten bultzatzea	290.000	290000	320000	350000	1250000
GUZTIRA		76263800	81382985	84070215	86804625	328521625

⁴⁶Jarduera-ildoak eta ekintzak zehazteko, [Planaren dokumentura](#) jotzen da.

Proposatutako gobernantza-ereduak Plana bultzatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko tresnak biltzen ditu, baita Plana kontrastatzeko eta haren jarraipena egiteko tresnak ere. Planean jasotako jarduerak bultzatzeko, kudeatzeko eta koordinatzeko eginkizunari dagokionez, tresna nagusiak bi izango dira:

1. Gizarte Ekonomiako Sailarteko Batzordea: sailburuordeek osatzen dute, gizarte-ekonomiaren sustapena industria-politikarekin, berrikuntza-politikarekin, enplegu-politikarekin, hezkuntza-politikarekin eta abarrekin bateratzeko ekimen zehatzak garatzeko.

2. Batzorde tekniko tematikoak, proiektu zehatzak bultzatzeko.

Planaren kontrasteari eta jarraipenari dagokienez, Gizarte Ekonomiaren Zuzendaritzaren gidaritzapean, Sailarteko Batzordea izango da lortu nahi diren helburuak behar bezala betetzen direla zaintzeko tresna. Batzorde horrek ebaluazio-txosten bat jasoko du urtero, aurreikusitako jardueren aurrerapen-mailarekin.

ITURRIAK

1. **EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA ENPLEGU SAILA:** Gizarte-ekonomiaren estatistika, 2020 (2021eko aurrerapena).
2. **EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA ENPLEGU SAILA:** Gizarte Ekonomiako Sailarteko 2021-2024 Plan Estrategikoa. 2021eko abendua.
3. **EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** EAEko aurrekontua gauzatzea. Zenbait urte.
4. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA:** Gizarte-ekonomiako enpresen eta Gizarte Segurantzaren inskribatutako langileen egoeraren laburpena. 2020ko II. hiruhilekoko datuak (argitaratu diren azkenak).
5. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA:** Eraturtako sozietate kooperatiboak eta erregistratutako lan-sozietateak. 2022ko datuak.

8. "NEXT GENERATION EU" (NGEU) EUROPAKO FUNTSAK: SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOA (SEM)

Pandemiak aldatu egin ditu Batasunaren eta Batasuneko kide guztien hurrengo urteetako aurreikuspen ekonomikoak, baina estatu guztiak ez dira modu berean kaltetu, eta ez dituzte eskura baliabide berberak haren ondorioei aurre egiteko eta susperraldia bultzatzeko. Egiaztapen horrek agerian uzten du merkatu bakarraren berdintasun-baldintzak hausteko eta Batasuneko kideen arteko desadostasun ekonomikoak areagotzeko arrisku argia dagoela, eta suspertzeko funts espezifikoak ezartzeko adostasuna ahalbidetu duen funtsezko argudioa bihurtu da.

Hala, 2020ko uztailaren 17-21eko Europako Kontseiluak akordio politiko historikoa lortu zuen azkenean, Europako Batzordeak proposatutako irismen handiko neurri-sorta bati buruz, 2021-2027 aldirako Erkidegoko aurrekontuek izango dituzten finantza-aurreikuspenekin lotuta dagoena. Europako suspertze-tresna da, *NextGenerationEU* izenekoak, 750.000 milioi eurokoa, eta haren zati nagusia, 672.500 milioi euro, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari (SEM) dagokio.

Laguntza lortzeko, estatu kideek suspertze eta erresilientzia plan nazionalak egin beharko dituzte, zeinetan erreformen eta inbertsioen programa azalduko baitira.

8.1. ESPAINIAKO ERRESUMAREN SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA.

2021eko uztailaren 13an, Europako erakundeek, ECOFIN Kontseiluaren bidez, Espainiako Erresumaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana onartu zuten. Plan horrek 140.000 milioi euroraino emango dizkio Espainiari transferentzia eta kredituetan 2021-2026 aldiran.

Plana zeharkako lau ardatzen inguruan dago egituratuta. Ardatz horiek ekonomia osoaren eraldaketa egituratuko dute, eta erabat lerrokatuta daude EBren agenda estrategikoeekin, 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen GJHeekin: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, genero-berdintasuna eta gizartearen eta lurraldearen kohesioa.

Lau ardatz horiek 10 palanka-politikatan eta 30 osagaitan zehazten dira, eta 2023ra begirako erreformen eta inbertsioen programa garrantzitsua egituratzen dute. Osagai bakoitzak erronka edo helburu zehatz bat du ardatz, eta helburu horiek lortzen edo erronkak gainditzen laguntzen duten erreformak eta inbertsioak barne hartzen ditu, modu koherente eta osagarrian. Horietarako guztietarako, tarteko jomugak eta mugarriak, espero diren emaitzak, onuradunen kopurua eta elementu bakoitzaren kostu xehatua identifikatzen dira.

I. PALANKA. Hiri eta landa agenda, despopulazioaren aurkako borroka eta nekazaritzaren garapena	1. osagaia: Mugikortasun iraunkor, seguru eta konektatuko talka-plana hiri eta metropoli inguruneetan 2. osagaia: Etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko plana 3. osagaia: Nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sistemaren ingurumen-eraldaketa eta eraldaketa digitala
II. PALANKA II Azpiegitura eta ekosistema erresilienteak	4. osagaia: Ekosistemak eta horien biodibertsitatea kontserbatzea eta leheneratzea 5. osagaia: Itsasertza eta ur-baliabideak babestea 6. osagaia: Mugikortasun iraunkorra, seguru eta konektatua
III. PALANKA. Trantsizio energetiko bidezkoa eta inklusiboa	7. osagaia: Energia berriztagarriak hedatzea eta integratzea 8. osagaia: Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunen sustapena eta malgutasunaren eta biltegitratzearen hedapena 9. osagaia: Hidrogeno berriztagarriaren ibilbide-orrria eta haren integrazio sektoriala 10. osagaia: Bidezko Trantsizio Estrategia
IV. PALANKA. Administrazio bat XXI. menderako	11. osagaia: Administrazio publikoen modernizazioa

V. PALANKA Industria-sarea eta ETEak modernizatzea eta digitalizatzea, turismoa berreskuratzea eta Espainia nazio ekintzailea bultzatzea	12. osagaia: Espainiako Industria Politika 2030 13. osagaia: ETEak bultzatzea 14. osagaia: Turismo-sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana 15. osagaia: Konektagarritasun digitala, zibersegurtasuna bultzatzea eta 5G hedatzea
VI. PALANKA. Zientziaren eta berrikuntzaren aldeko ituna. Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak indartzea	16. osagaia: Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala 17. osagaia: Erakundeen erreforma eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistema nazionalaren gaitasunak indartzea 18. osagaia: Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak berritzea eta handitzea
VII. PALANKA. Hezkuntza eta ezagutza, etengabeko prestakuntza eta gaitasunen garapena	19. osagaia: Gaitasun Digitalen Plan Nazionala (digital skills) 20. osagaia: Lanbide Heziketa sustatzeko plan estrategikoa 21. osagaia: Hezkuntza-sistema modernizatzea eta digitalizatzea, 0-3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne
VIII. PALANKA. Zaintzen ekonomia berria eta enplegu-politikak	22. osagaia: Zaintzen ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze-politikak indartzea 23. osagaia: Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak
IX. PALANKA. Kulturaren eta kirolaren industria bultzatzea	24. osagaia: Kultura-industriaren balioa handitzea 25. osagaia: Europako Espainia ikus-entzunezkoen hub-a (Spain AVS Hub) 26. osagaia: Kirol-sektorea sustatzeko plana
X. PALANKA. Zerga-sistemaren modernizazioa, hazkunde inklusibo eta jasagarriak	27. osagaia: Iruzur fiskala prebenitzeko eta borrokatzeko neurriak eta jarduketak 28. osagaia: Zerga-sistema XXI. mendeko errealitatera egokitzea 29. osagaia: Gastu publikoaren eraginkortasuna hobetzea 30. osagaia: Pentsio-sistema publikoaren epe luzeko iraunkortasuna, Toledoko Itunaren esparruan

8.2. SUSPERTZE, ERALDAKETA ETA ERRESILIENTZIA PLANA GAUZATZEA

Ministerioek, Estatuko enpresa publikoek, autonomia-erkidegoek, udalek eta beste tokiko erakunde batzuek argitaratzen dituzten deialdien bidez eskuratzen dira funtsak. Gainera, funtsak errazago eskuratzeko, Espainiako Erresumako Gobernuak interes-adierazpenak eta PERTEak jarri zituen abian.

- 2022aren amaieran, Estatuko Administrazio Orokorrek 19.000 milioi euro bideratu ditu ekonomia errealerara, ebatzitako lizitazio eta diru-laguntzen deialdien, hitzarmenen eta zuzeneko emakiden bidez. Informazio publikoaren azterketaren arabera, 14.100 milioi euro baino gehiagoko deialdiak ebatzi dira, baita 5.100 milioi euro gehiago ere, hainbat tresnaren bidez, hala nola hitzarmenak edo zuzeneko emakidak eta lurralde mailako deialdiak erabiliz, autonomia erkidegoen kudeaketarekin eta parte-hartzearekin ebatzita. Hedapen horren ondorioz, 150.000 enpresak baino gehiagok, 5.000 ikerketa-zentrok baino gehiagok eta 27.000 pertsona fisikok baino gehiagok jaso dituzte Europako funtsak. Enpresen sektorea da planaren onuradun nagusia, eta 10.000 milioi euro baino gehiago ditu bere proiektuak gauzatzeko. Azpiegitura fisikoetan, digitaletan, sozialetan eta ezagutzakoetan egindako inbertsio publikoekin batera, datu horiek funtsek ekonomia errealean duten eragin zuzena islatzen dute.
- Adierazpen interesgarriak: ministerioek balizko jarduera-eremuak aztertzeke egiten dituzten kontsultak dira. 2022an, 6 adierazpen interesgarri argitaratu ziren, eta 2021ean argitaratutako 27ei gehitu zitzaizkien. Interes-adierazpen horiei esker, deialdiak proiektu heldu gehien eta emaitzak lortzeko berme handiena duten arloetara bideratu ahal izan dira, baita proiektu zehaztuetan gauzatu diren ekimenak eta ideiak bizkortu ere.
- PERTE: proiektu estrategiko handiak dira, administrazioen, enpresen eta ikerketa zentrozen arteko lankidetzak eskatzen dutenak. Ministroen Kontseiluak onartzen ditu. Hauek izan ziren 2021ean onartutakoak:
 - Ibilgailu elektrikoa eta konektatua garatzeko PERTE.
 - Abangoardiako osasunerako PERTE.
 - Energia berriztagarrien, hidrogeno berriztagarriaren eta biltegiatzearen PERTE.

Hauek dira 2022an onartutako PERTEak:

- Nekazaritzako elikagaien PERTE
- Hizkuntzaren ekonomia berrirako PERTE
- Ekonomia zirkularraren PERTE
- Ontzigintzarako PERTE
- PERTE aeroespaziala
- Uraren zikloaren digitalizazioaren PERTE
- Mikroelektronikaren eta erdieroaleen PERTE
- Ekonomia sozialaren eta zaintzen PERTE
- Industria-deskarbonizazioko PERTE

Autonomia erkidegoak eta hiri autonomoak, udalak eta gainerako tokiko erakundeak funtsezkoak izan dira Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana diseinatzeko, eta funtsezko zeregina dute banatzen ari diren Europako funtsak betearazteko.

Estatuak Suspertze Planaren lurralde-erakundeei esleitzen dizkien baliabide gehienak konferentzia sektorialetan adosten dira. Konferentzia horiek alde askotariko lankidetzako organoak dira, eta autonomia erkidego guztiek, Ceutak eta Melillak parte hartzen dute horietan. Konferentzia sektorialek ezarritako banaketa-irizpide objektiboen arabera egiten dira esleipen horiek, eta, beraz, adostuta.

Plana aztertu deneko konferentzia sektorialen bidez eta beste mekanismo batzuen bidez, 2022ko abenduaren 31n 20.628 milioi euro esleitu zitzaizkien autonomia erkidegoei Next Generation EB Europako funtsetatik, beren eskumenen esparruan proiektuak finantzatzeko, Suspertze Plana Betearazteari buruzko hirugarren txostenean aurkeztutako datuen arabera⁴⁷. Funts horiek hauekin lotutako politika publikoetara bideratzen dira: trantsizio ekologikoa (ekosistemak eta biodibertsitatea leheneratzea, energia berriztagarriak, mugikortasun iraunkorra, eraikinen birgaitze energetikoa eta trantsizio bidezkoa), digitalizazioa (ETEen digitalizazioa, administrazioaren modernizazioa, hezkuntzaren digitalizazioa, proiektu berritzaileak eta konektibitatea indartzea), gizarte-babesa (berdintasuna, gizarteratzea eta osasuna), hezkuntza eta lanbide heziketa (hezkuntza, lanbide heziketa, programak indartzea), turismo iraunkorra, enplegua, kultura eta zientzia.

Gobernuak kalkulatu du Europako funtsak egikaritzeko urte anitzeko aldira (2021-2026) autonomia erkidegoek % 54raino kudeatuko dutela beren eskumenen eremuetan inbertsioak hedatzeko.

8.2.1. AA.EE.ek kudeaturiko inbertsioak. 2022an EAEn esleitutako funtsak:

Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren palanka politikan eta osagaietan oinarrituta, Espainiako Erresumako Gobernuak erabilitako kategorizazioak modu didaktikoan laburbildu nahi ditu Planaren sartutako politiken lehentasun nagusiak; horietarako funtsak esleitu zaizkie autonomia erkidegoei. Hauek dira lehentasunak:

- Zientzia eta berrikuntza
- Espainiako kultura-industria bultzatzea
- Gure ekonomiaren eraldaketa digitala
- Giza kapitala indartzea hezkuntzaren eta lanbide heziketaren bidez
- Enplegu politikak
- Gizarte-babesa eta zainketen ekonomia indartzea
- Ekoizpen-eredua birbideratzeko inbertsioak, trantsizio berdea sustatuz
- Espainiako turismoaren sektorearen modernizazioa

⁴⁷ [Suspertze Plana gauzatzeari buruzko hirugarren txostena](#)

Kategoria horiek politikaren arlo jakin batzuei dagozkie, hain zuzen ere Administrazio Publikoaren maila desberdinen eskumen-esparrua errespetatuta, AA.EE.ekin inbertsioak lurraldean hedatzea adostu den politikaren arloei, AA.EE.ek eskualde bakoitzaren behar partikularrak hobeto ezagutzen dituztela aprobetxatuz.

II.8.1. TAULA. EAE-RA TRANSFERITUTAKO SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIA MEKANISMOAREN FUNTSAK (MILOI EUROTAN). 2022.	
SEM-EUSKADIREN FUNTSEN ZUZENEKO BANAKETA	1.025,05
EUSKADIREN PARTE-HARTZEA SEMen ESTATUKO DEIALDIETAN	508,76
EUSKADIREN PARTE-HARTZEA SEMen ESTATU-KUDEAKETAKO ZUZENEKO EMAKIDETAN	37,18
GUZTIRA	1.570,99
<i>Iturria: Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia, MRR funtsak, EGABen Osoko Bilkuran</i>	

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren informazioaren arabera⁴⁸, 2022ko abenduaren 31n EAEn zuzenean banatu zaizkio Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 1025,05 M €. Gainera, Euskadik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren estatuko deialdietan duen partaidetza guztira 508,76 M €-koa da (banatutako zenbatekoa). Eta, azkenik, gure erkidegoak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren estatuko kudeaketako zuzeneko emakidetan duen partaidetza 37,18 M €-koa da. Guztira 1.570,99 milioi euro banatu dira EAEn.

8.3. SEM-AUTONOMIA ERKIDEGOEN BANAKETA, OSAGAIEN ETA SAILEN ARABERA, EAEn

II.8.2 taulan, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren datuekin, 2021-2023 aldirako 30 osagaietatik 23tan (1.025,05 milioi euro) EAEn Udal Autonomoen banaketa zehazten da, baita EAEn sartutako zenbatekoa ere.

⁴⁸ [Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia, SEM funtsak, Eusko Legebiltzarra, 2023ko otsailaren 10ekoa](#)

II.8.2. TAULA SEM-AA.EE.-EN BANAKETA OSAGAIEN ARABERA 2021/12/31N EUROAK, MILIOITAN

OSAGAIA		GUZTIRA, AUTONOMIA ERKIDEGOAK				GUZTIRA, EUSKADI					SARTUTAKO ZENBATEKO A *
		BANANDUA	2021	2022	2023	BANANDUA	BANANDUA (%)	2021	2022	2023	
1	MUGIKORTASUN IRAUNKOR, SEGURU ETA KONEKTATUKO TALKA PLANA HIRI ETA METROPOLI INGURUNEETAN	1.700,40	1.474,00	226,40		86,38	8,42	67,45	18,92		86,38
2	ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO ETA HIRI BERRONERATZEKO PLANA	4.965,04	2.083,50	1.951,54	930,00	277,11	27,03	139,24	92,69	45,18	198,19
3	NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ETA ARRANTZAREN SISTEMAREN INGURUMEN-ERALDAKETA ETA ERALDAKETA DIGITALA	262,93	115,36	147,57		2,04	0,19	1,93	0,11		2,04
4	EKOSISTEMAK ETA HORIEN BIODIBERTSITATEA KONTSERBATZEA ETA LEHENERATZEA	856,00	696,00	160,00		14,05	1,37	7,96	6,09		13,10
5	ITSASERTZEKO ESPAZIOA ETA UR-BALIABIDEAK ZAINTEZA	394,50	200,00	194,50		13,91	1,35	4,87	9,04		13,91
6	MUGIKORTASUN IRAUNKORRA, SEGURUA ETA KONEKTATUA	220,00	47,50	172,50		10,29	1,01	2,22	8,06		10,29
7	ENERGIA BERRITAGARRIAK HEDATZEA INTEGRATZEA	1.621,06	700,00	921,06		68,76	6,71	38,85	29,91		68,76
8	AZPIEGITURA ELEKTRIKOAK, SARE ADIMENDUNEN SUSTAPENA ETA MALGUTASUNAREN ETA BILTEGIRATZEAREN HEDAPENA	193,14	110,00	83,14		14,53	1,41	7,26	7,26		14,53
10	BIDEZKO TRANTSIZIO ESTRATEGIA	150,00	150,00			0,00	0				0,00
11	ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MODERNIZAZIOA	841,72	202,14	400,36	239,22	45,38	4,42	15,02	18,71	11,65	33,73
12	ESPAINIAKO INDUSTRIA POLITIKA 2030	591,25	416,25	175,00		18,08	1,76	13,53	4,55		18,08
13	ETEak BULTZATZEA	100,00		50,00	50,00	4,15	0,40		2,08	2,08	2,08
14	TURISMOAREN SEKTOREAREN MODERNIZAZIO ETA LEHIAKORTASUN PLANA	1.809,31	683,17	1.126,14		67,46	6,58	24,13	41,11	2,22	33,57
15	KONEKTIBITATE DIGITALA, ZIBERSEGURTASUNA BULTZATZEA ETA 5G HEDATZEA	323,25	205,00	75,00	43,25	13,98	1,36	8,49	2,69	2,80	11,18
17	ERAKUNDEEN ERREFORMA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO SISTEMA NAZIONALAREN GAITASUNAK INDARTZEA	264,17	133,79	130,37		18,88	1,84	12,59	6,29		18,88
18	OSASUN SISTEMA NAZIONALAREN GAITASUNAK BERRITZEA ETA HANDITZEA	853,37	418,99	406,38	28,00	34,15	3,33	17,53	15,26	1,36	32,79
19	GAITASUN DIGITALEN PLAN NAZIONALA (DIGITAL SKILLS)	1.635,37	1.240,13	395,24		65,87	6,43	47,45	18,42		63,04
20	LANBIDE HEZIKETA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA	875,43	394,97	480,47		40,81	3,98	16,71	24,10		40,81
21	HEZKUNTZA SISTEMA MODERNIZATZEA ETAE DIGITALIZATZEA, 0-3 URTE BITARTEKOEN HEZKUNTZA GOIZTIARRA BARNE	1.104,32	308,59	487,73	308,00	31,37	3,06	8,59	13,45	9,33	14,34
22	ZAINKETA EKONOMIARAKO TALKA PLANA ETA GIZARTE POLITIKAK INDARTZEA	1.746,79	800,60	946,19		121,76	11,88	35,56	42,13	44,07	77,69
23	LAN-MERKATU DINAMIKO, ERRESILIENTE ETA INKLUSIBO BATERAKO POLITIKA PUBLIKO BERRIAK	1.252,53	665,75	403,63	183,15	65,82	6,42	43,81	22,01		65,82
24	KULTURA-INDUSTRIAREN BALIOA HANDITZEA	148,51	33,08	93,92	21,50	6,96	0,68	1,61	4,09	1,26	5,70
25	EUROPAKO ESPAINIA IKUS-ENTZUNEZKOEN HUB-A (SPAIN AVS HUB)	17,00	17,00			1,15	0,11	1,15			1,15
26	KIROLAREN SEKTOREA SUSTATZEKO PLANA	101,90	49,00	48,90	4,00	2,16	0,21	0,66	1,32	0,18	1,98
GUZTIRA		22.027,99	11.144,83	9.076,04	1.807,12	1.025,05	100	516,62	388,29	120,14	828,03

Iturria: Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia, SEM funtsak, EGABen Osoko Bilkuran

* 2022/12/31ra arte

Eusko Jaurlaritzako sailen arabera, Euskadiri esleitutako SEM funtsen banaketa II.8.3 taulan agertzen da, 2022ko abenduaren 31n eguneratutako datuekin. Hurrengo orrialdeetako gainerako koadroetan funtsak Sailaren arabera zuzentzen zaizkien proiektu zehatzen xehetasunak agertzen dira.

II.8.3. TAULA. SEM-AA.EE.-EN BANAKETA DEPARTAMENTUEN ARABERA 2021/12/31N EUROAK, MILIOITAN	
LAN ETA ENPLEGU SAILA	79,76
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	36,56
SEGURTASUNA	3,75
EKONOMIAREN GARAPENA, IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA	254,71
HEZKUNTZA	138,17
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOAK	247,56
OSASUNA	45,61
BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA	137,08
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA	14,18
TURISMOA, MERKATARITZA ETA TURISMOA	67,67
GUZTIRA	1025,05
<i>Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak sailen arabera, NEXT; GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak⁴⁹</i>	

II.8.4. TAULA. SEM-AA.EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN		
LAN ETA ENPLEGU SAILA		
GAITASUN DIGITALEN PLAN NAZIONALA (DIGITAL SKILLS)(C.19)	Gaitasun digitalak langabeentzat, ekintzailletza eta landa-garapena sustatzeko eta genero-arrakala gutxitzeko. (C.19 I.3)	7,01
LANBIDE HEZIKETA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (C.20)	Landunen eta langabetuen Reskilling eta Upskillingerako prestakuntza modularra. Jarduteko eremua: Pertsonen zaintza. (C.20 I.1)	1,26
	Landunen eta langabetuen Reskilling eta Upskillingerako prestakuntza modularra. Jarduteko eremua: Despopulazioa. (C.20 I.1)	0,85
	Landunen eta langabetuen Reskilling eta Upskillingerako prestakuntza modularra. Jarduteko eremua: Sektore estrategikoak. (C.20 I.1)	4,83
LAN-MERKATU DINAMIKO, ERRESILIENTE ETA INKLUSIBO BATERAKO POLITIKA PUBLIKO BERRIAK (C.23)	Lehen lanbide-esperientziak administrazio publikoetan. (C.23 I.1)	13,76
	Investigo programa. (C.23 I.1)	16,30
	Enplegurako politika aktibo guztietan genero-zeharkakotasuna sustatzeko ekintzak (C.23 I.2)	0,12
	Landako eta hiriko eremuetan emakumeei laguntzea. (C.23 I.2)	1,20
	Genero-indarkeriaren edo sexu salerosketaren eta esplotazioaren biktima diren emakumeentzako prestatzeko eta laneratzeko programak, kontratatzeke konpromisoarekin. (C.23 I.2)	0,13
LAN-MERKATU DINAMIKO, ERRESILIENTE ETA INKLUSIBO BATERAKO POLITIKA PUBLIKO BERRIAK (C.23)	Eraldaketa digital, berde eta produktiborako gaitasun berriak eskuratzea. Prestakuntzaren gaineko beharrak detektatzea. (C.23 I.3)	0,05
	Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo bereziki kalteberak. (C.23 I.4)	10,77
	Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailletza eta mikroenpresak (C.23 I.4)	13,92
	Orientazio eta ekintzailletza zentroyen sarearen jarduerak. Enplegurako laguntza eta berrikuntza (C.23 I.5)	1,50
	Orientazio eta ekintzailletza zentroyen sarea sortzea. Enplegurako laguntza eta berrikuntza (C.23 I.5)	1,19
	PAE bultzatzeko gobernantza - Etengabeko prestakuntza (C.23 I.5)	0,29
	Gizarteratzea - Proiektu pilotu berritzaileak (C.23 I.7)	6,59
GUZTIRA	79,76	
<i>Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak</i>		

⁴⁹ [Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektua, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi](#)

II.8.5. TAULA. SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN		
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		
ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO ETA HIRIA BERRONERATZEKO PLANA (C.2)	Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP) (C.2 I.5)	2,25
ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MODERNIZAZIOA (C.11)	Lurralde-administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa (C.11 I.3)	16,3
KONEKTAGARRITASUN DIGITALA, ZIBERSEGURTASUNA BULTZATZEA ETA 5G HEDATZEA (C.15)	(UNICO - Ikastetxe publikoak) Erreferentziazko zentroetan eta zerbitzu publikoetan konektibitatea indartzeko ekintzak. (C.15 I.2)	7,04
	(UNICO – Bono Soziala) - Kolektibo kalteberentzako bonu digitalak. (C.15 I.3)	0,56
	(UNICO - Eraikinak) - Eraikinetako telekomunikazioetarako azpiegiturak egokitzea. (C.15 I.4)	4,06
GAITASUN DIGITALEN PLAN NAZIONALA (DIGITAL SKILLS)(C.19)	Herritar guztien gaitasun digitalak bultzatzea (C.19 I.1)	6,35
GUZTIRA		36,56
<i>Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak</i>		

II.8.6. TAULA. SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN		
SEGURTASUN SAILA		
ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO ETA HIRIA BERRONERATZEKO PLANA (C.2)	Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP) (C.2 I.5)	3,75
GUZTIRA		3,75
<i>Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak</i>		

II.8.7. TAULA SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN		
EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA		
MUGIKORTASUN IRAUNKOR, SEGURU ETA KONEKTATUKO TALKA PLANA HIRI ETA METROPOLI INGURUNEETAN (C.1)	Bidaariak eta salgaiak garraiatzeko flotak eraldatzea errepideko garraio-zerbitzuak ematen dituzten enpresa pribatuetan, bai eta garraio pribatu osagarria egiten duten enpresetan ere. (C.1 I.1)	6,62
	Mugikortasun Eraginkor eta Jasangarrirako Pizgarrien MOVES III. Plana. (C.1 I.2)	37,64
ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO ETA HIRIA BERRONERATZEKO PLANA (C.2)	Lehendik dauden eraikinen birgaitze energetikoa. (C.2 I.3)	59,25
	Erronka demografikoko eremuetako udalerrietako jarduketak (C.2 I.4)	0,93
	PREE 5000. Eraikinen birgaitze energetikoa erronka demografikoa duten udalerrietan (C.2 I.4)	1,61
	Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP). (C.2 I.5)	4,25
NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN ETA ARRANTZAREN SISTEMAREN INGURUMEN-ERALDAKETA ETA ERALDAKETA DIGITALA(C.3)	Abeltzaintzako mintegietan eta ustiatzietan gaikuntza eta biosegurtasun sistemak indartzea, animalien gaixotasunen eta landare-izurriteen prebentzioa hobetuta (C.3 I.3)	0,50
	Abeltzaintzako hondakinen kudeaketa, energia-eraginkortasunaren hobekuntza ekonomia zirkularraren bidez eta berotegiaren modernizazio integrala (C.3 I.4)	1,54
EKOSISTEMAK ETA HAIEN BIODIBERTSITATEA KONTSERBATzea ETA LEHENERATzea (C.4)	Jarduketak biosfera erreserbetan. (C.4 I.2)	0,76
	Lurreko biodibertsitatea kontserbatzea, kudeaketa, hedapen eta erabilera publikoko azpiegiturak hobetzea (C.4 I.2)	2,00
	Faunarentzako bereziki kaltegarriak diren linea elektrikoak zuzentzea. (C.4 I.2)	0,35
	Meatzaritzak kaltetutako lurzorua eta eremuak leheneratzea. (C.4 I.3)	7,32
	Basoen kudeaketa iraunkorra (C.4 I.4)	3,62
ITSASERTZA ETA UR-BALIABIDEAK ZAINTEZA (C.5)	Udalerrri txiki eta ertaintetako sareetan hornidura hobetzeko eta galerak murrizteko plana. 20.000 biztanletik beherako udalerrriak. (C.5 I.1)	4,08
	5.000 biztanletik beherako aglomerazioetarako saneamendu eta arazketa plana - baliokideak. (C.5 I.1)	0,79
	Ibai-ekosistemak leheneratzea eta uholde-arriskua murriztea (C.5 I.2)	3,80
	Uraren zikloaren digitalizazioa (C.5 I.3)	5,24
ENERGIA BERRITZAGARRIAK HEDATzea ETA INTEGRATzea (C.7)	Autokontsumo berriztagarria eta biltegitratzea zerbitzuen sektorean (C.7 I.1)	59,82
	Energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarrien programak. (C.7 I.1)	8,94
AZPIEGITURA ELEKTRIKOAK, SARE ADIMENDUNEN SUSTAPENA ETA MALGUTASUNAREN ETA BILTEGIRATZEAREN HEDAPENA (C.8)	Autokontsumo berriztagarria eta biltegitratzea zerbitzuen sektorean (C.8 I.1)	14,53
ESPAINIAKO INDUSTRIA POLITIKA 2030 (C.12)	Hondakinen araudia ezartzen laguntzeko plana (C.12 I.3)	18,08
TURISMO SEKTOREAREN MODERNIZAZIO ETA LEHIAKORTASUN PLANA (C.14)	Turismo enpresetan energia-eraginkortasuneko eta ekonomia zirkularreko proiektuak finantzatzea (hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea) (C.14 I.4)	3,94
KONEKTAGARRITASUN DIGITALA, ZIBERSEGURTASUNA BULTZATzea ETA 5G HEDATzea (C.15)	(UNICO - Industria eta enpresak) Konektibitatea indartzeko ekintzak (gigabit poligonoetan eta zentro logistikoetan (C15 I.2)	2,33
ERAKUNDEEN ERREFORMA ETA ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO SISTEMA NAZIONALAREN GAITASUNAK INDARTzea (C.17)	Plan osagarriak autonomia erkidegoekin - Osasunari aplikatutako bioteknologiarekin (C.17 I.1)	4,50
	Plan osagarriak autonomia erkidegoekin - Energia & H2 Berdea (C.17 I.1)	2,28
GUZTIRA		254,71

Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak

II.8.8. TAULA. SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN

HEZKUNTZA SAILA		
ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO ETA HIRIA BERRONERATZEKO PLANA (C.2)	Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP) (C.2 I.5)	8,31
ERAKUNDEEN ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZAKO SISTEMA NAZIONALAREN GAITASUNAK INDARTZEA (C.17) 5,81 M ERREFORMA ETA PLAN OSAGARRIAK AUTONOMIA ERKIDEGOEN - KOMUNIKAZIO KUANTIKOA (C.17 I.1)	Erakundeen erreforma eta plan osagarriak autonomia erkidegoekin - Komunikazio kuantikoarekin (C.17 I.1) 5,81 M Ezentzia, teknologia eta berrikuntzako sistema nazionalaren gaitasunak indartzea (C.17)	5,81
	Plan osagarriak autonomia erkidegoekin - Biodibertsitatea (C.17 I.1)	0,73
	Plan osagarriak autonomia erkidegoekin - Material aurreratuak (C.17 I.1)	5,56
GAITASUN DIGITALEN PLAN NAZIONALA (DIGITAL SKILLS)(C.19)	Haurrentzako Gaitasun Digitalen Programa (CODI) (C.19 I.1)	1,68
	Gaikuntza digitaleko gelen sarea (SDI) (C.19 I.1)	1,15
	PCT #EcoDigEdu - Gela digitalak. (C.19 I.2)	28,60
	PCT #EcoDigEdu - Gaikuntza eta euskarriak (SDI) (C.19 I.2)	0,66
	PCT #EcoDigEdu - Gailu mugikorren hornidura. (C.19 I.2)	5,93
	Hezkuntzako gaitasun digitala hobetzeko CompDigEdu programa. (C.19 I.2)	14,50
LANBIDE HEZIKETA SUSTATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA (C.20)	Lanbide Heziketa Modernizatzeako Plana: Gaitasunak ebaluatzea eta egiaztatzea (C.20 I.1)	15,73
	Lanbide Heziketa Modernizatzeako Plana: Ekintzailtza-gelak (C.20 I.2)	0,56
	Lanbide Heziketa Modernizatzeako Plana: Teknologia aplikatuko gelak (C.20 I.2)	1,23
	Lanbide Heziketa Modernizatzeako Plana: Irakasleen prestakuntza digitalizazioan eta jasangarritasunean (C.20 I.2)	0,11
	Lanbide Heziketa Modernizatzeako Plana: Ziklo elebidunak sortzea (C.20 I.3)	8,10
	Lanbide Heziketa Modernizatzeako Plana: Plazen eskaintza birdimentsionatzea (C.20 I.3)	8,14
HEZKUNTZA SISTEMAREN MODERNIZAZIOA ETA DIGITALIZAZIOA, 0 ETA 3 URTE BITARTEKO HEZKUNTZA GOIZTIARRA BARNE (C.21)	Titulartasun publikoko haur-hezkuntzako lehen zikloko plazak sortzea (lehentasunez, urte 1 eta 2koak) C.21 I.1)	15,48
	Hezkuntza Orientazioko, Aurrerapeneko eta Aberasteko Programa, hezkuntza-konplexutasun bereziko ikastetxeetan (#PROA+ Programa) (C.21 I.2)	12,55
	Hezkuntzaren aldetik kalteberak diren ikasleei laguntza eta orientazio pertsonala eta familiarra emateko unitateak sortzea (C.21 I.3)	3,34
GUZTIRA		138,17

Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak

II.8.9. TAULA. SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA		
MUGIKORTASUN IRAUNKOR, SEGURU ETA KONEKTATUKO TALKA PLANA HIRI ETA METROPOLI INGURUNEETAN (C.1)	Mugikortasuna metropoli inguruneetan eraldatzea. 50.000 biztanletik gorako udalerriei lotutakoak. (C.1 I.1)	42,12
ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO ETA HIRIA BERRONERATZEKO PLANA (C.2)	Auzo mailako birgaitze-jarduketaren programa (C.2 I.2)	47,41
	Eraikinen birgaitze integralerako programa. (C.2 I.1)	96,87
	6. programa: Erronka demografikoko udalerrietan alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzea (C.2 I.2)	48,58
MUGIKORTASUN JASANGARRIA, SEGURUA ETA KONEKTATUA (C.6)	Digitalizazioa - Autonomia erkidegoei transferentziak egitea haiek zuzenean egin beharreko inbertsioetarako, beren eskumenean arabera. (C.6 I.4)	5,15
	Enpresentzako laguntzak, autonomia erkidegoen bidez ETEen digitalizazioa eta digitalizazioa sustatzeko (C.6 I.4)	5,14
ZAINKETEN EKONOMIARAKO TALKA PLANA ETA INKLUSIO-POLITIKAK INDARTZEA (C.22)	Adinekoentzako, desgaitasuna dutenentzako eta/edo mendetasun-egoeran daudenentzako etxebizitzarako irisgarritasun unibertsala bermatzen duten obrak eta esku-hartzeak finantzatzea (C.22 I.3)	2,29
GUZTIRA		247,56

Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak

II.8.10. TAULA SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN

OSASUN SAILA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MODERNIZAZIOA (C.11)	Lurralde-administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa – AA.EE. (Osasuna) (C.11 I.3)	11,46
OSASUN SISTEMA NAZIONALAREN GAITASUNAK BERRITZEA ETA ZABALTZEA (C.18)	INVEAT plana - Osasun Sistema Nazionalako goi-teknologiako ekipoetan inbertitzeko plana. (C.18 I.1)	31,19
	Osasunaren Sistema Nazionalaren minbiziaren estrategia. (C.18 I.2)	0,48
	Osasun Publikoko Zaintza Sarea. (C.18 I.3)	0,80
	Osasun-profesionalen prestakuntza etengabeko prestakuntza planen esparruan (C.18 I.4)	0,32
	Data Lake Sanitario (C.18 I.6)	1,36
GUZTIRA		45,61

Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak

II.8.11. TAULA SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEN MODERNIZAZIOA (C.11)	AVANTIUS (C.11 I.2)	17,62
ZAINKETEN EKONOMIARAKO TALKA PLANA ETA INKLUSIO-POLITIKAK INDARTZEA (C.22)	Iraupen luzeko laguntza eta zainketen plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia (C.22 I.1)	91,95
	Gizarte Zerbitzuak Modernizatzeko Plana: Haurren arretaren eraldaketa teknologikoa, berrikuntza, prestakuntza eta errefortzua (C.22 I.1)	24,03
	Sexu-indarkeriaren biktimentzako 24 orduko arreta integraleko zerbitzuak sortzea. (C.22 I.4)	3,51
GUZTIRA		137,08

Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak

II.8.12. TAULA SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko plana (C.2)	Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP) (C.2 I.5)	3,90
Kultura-industriaren balioa handitzea (C.24)	Kultura eta sormen industriren lehiakortasuna eta profesionalizazioa. Kultura-bizkortzaileei laguntzea. (C.24 I.1)	1,99
	Hiriguneetatik kanpoko kultura-eskaintza zabaltzeko eta dibertsifikatzeko laguntzak (C.24 I.2)	0,78
	Liburutegiz hornitzea. (C.24 I.2)	0,58
	Azpiegitura eszenikoaren eta musikalen modernizazioa eta kudeaketa jasangarria. (C.24 I.2)	1,69
	Espainiako kultura-ondarea zaharberritzea eta balioestea. (C.24 I.2)	1,70
	Estatuaren titulartasuneko eta kudeaketa autonomikoko dokumentu-funtsak digitalizatzea (C.24 I.3)	0,08
	Espainiako Ondare Historikoaren digitalizazioa eta dokumentazioa (C.24 I.3)	0,14
Europako Espainia ikus-entzunezkoen hub-a (Spain AVS Hub)(C.25)	Zinema-aretoetarako laguntzak (C.25 I.1)	1,15
	Kirol segurua, osasungarria eta inklusiboa (C.26 I.1)	0,34
Etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko plana (C.2)	Errendimendu handiko zentroen modernizazioa:	1,01
	P2_Kontratuan berdintasuna sustatzea (C.26 I.3)	0,81
GUZTIRA		14,18

Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak

II.8.13. TAULA SEM-AA-EE.-EN BANAKETA PROIEKTUEN ARABERA, 2022/12/31 EUROAK, MILIOITAN**TURISMO, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA**

ETE-AK BULTZATZEA (C.13)	Merkataritza modernizatzeko programa: Funts teknologikoa. (C.13 I.4)	4,15
TURISMO SEKTOREAREN MODERNIZAZIO ETA LEHIAKORTASUN PLANA (C.14)	Helmugako turismoaren iraunkortasunerako planak. (C.14 I.1)	58,02
	3. azpineuria: Turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu jasangarriak finantzatzea - Xacobeo 2021 - 2022. (C.14 I.4)	5,50
GUZTIRA		67,67

Iturria: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak, sailen arabera, NEXT GEN Euskadi, 2022ko abenduaren 31ko datuak

8.4. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA

Hurrengo orrialdeetan, Euskadin Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren estatu-deialdien arabera banatutako funtsen xehetasunak aurkezten dira, osagaien, inbertsio-ildoaren eta ekimenen arabera banatuta. Bide horren arabera banatutako funtsen guztizkoa 508,76 M € da.

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
1	Mugikortasun iraunkor, seguru eta konektatuko talka-plana hiri eta metropoli inguruneetan	1.1	Emisio txikiko eta hiriko garraioaren eta garraio metropolitarraren eraldaketa digitala eta jasangarriko eremuak	Udalerrientzako laguntza-programa, emisio txikiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioaren eraldaketa digitala eta jasangarria egiteko	1000,00	1000,00	65,27
					500,00	0,00	0,00
		1.2	Birkarga-puntu publikoak eta pribatuak instalatzeko, ibilgailu elektrikoak eta erregai-pilak eskuratzeko eta proiektu bereziak eta elektromugikortasuneko, birkargarako eta hidrogeno berdeko berrikuntza-proiektuak bultzatzeko pizgarrien plana	Ibilgailu arinen flotak elektrifikatzea. MOVES FLOTAK	50,00	0,00	0,00
				MOVES Proiektu bereziak	50,00	0,00	0,00
			100,00	89,99	5,43		
		264,00	0,00	0,00			
2	Etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko plana	2.5	Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP)	Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP) - EELL	600,00	306,30	22,74
		2.6	Hezkuntza planen proiektu pilotuak egiteko laguntza-programa Espainiako Hiri Agendaren tokiko ekintza	Espainiako Hiri Agendaren tokiko ekintza planen proiektu pilotuak egitea finantzatzeko laguntzak	20,00	20,00	0,85
3	Nekazaritzako elikagaien eta arrantzaren sistemaren ingurumen-erlaldaketa eta eraldaketa digitala	3.8	Arrantza-sektorearen jasangarritasuna, ikerketa, berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzeko plana (III) Partenariatu publiko-pribatuak sortzea sektorean hazkunde urdina bultzatzeko	Arrantzaren eta akuikulturaren sektorean hazkunde urdinaren arloko proiektuak egiten dituzten erakundeentzako diru-laguntza	2,00	0,00	0,00
				Arrantzaren eta akuikulturaren sektorean garapen teknologikoa, berrikuntza eta merkaturatze-katearen oreka lortzeko ikerketa	9,00	9,00	0,07
		3.9	Arrantza-sektorearen jasangarritasuna, ikerketa, berrikuntza eta digitalizazioa bultzatzeko plana (IV) Arrantza-flota zaintzeko bitartekoen digitalizazioa	12 metro edo gehiagoko luzera duten ontzi-armadoreentzako laguntzak. Urrutiko Jarraipen Elektronikoko Sistemak (REM) instalatzea.	0,79	0,00	0,00
				Arrantzaren sektoreari laguntzeko laguntzak, ekoizpen-eredua berreskuratzea eta modernizatzea sustatzeko. 3. xedapen gehigarria	0,40	0,00	0,00
4	Ekosistemak eta horien biodibertsitatea kontserbatzea eta leheneratzea	4.2	Lurreko eta itsasoko biodibertsitatea kontserbatzea	Biodibertsitatearen kudeaketaren arloko ikerketa programak eta proiektuak babestea	4,50	2,50	0,06
				Konfiskatutako ale bizien gordailuzaintzako erreskate-zentroei laguntzea, baldin eta CITES 2021 Hitzarmenean jasotako legez kanpoko merkataritzarengatik arriskuan dauden basafauna eta basafiorako espezieak kontserbatzen laguntzen badute.	4,00	1,06	0,00
				Zientzia eta teknika arloko proiektu eraldatzaile handiei laguntzea, bioekonomia eta trantsizio ekologikoa sustatzeko.	20,00	20,00	0,86
		Itsas espezieak lehorreratzeko eta erreskatatzeko sareak indartzea	4,25	4,07	0,35		
		4.3	Ekosistemak eta azpiegitura berdea leheneratzea	Espainiako hirien birnaturalizazioa eta erresilientziara bideratutako jarduketak sustatzea (hiri-berdatzea)	120,00	58,00	1,89
5	Itsasertzeko espazioa eta urbaliabideak zaintzea	5.1	Azpiegituren arazketa, saneamendu, efizientzia, aurrezpen, berrerabilpen eta segurtasun jarduerak	Uraren hiri-zikloaren eraginkortasuna hobetzeko proiektuak	200,00	0,00	0,00

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA		
			gauzatzea						
		5.2	Ibai-ekosistemen jarraipena eta lehengoratzeta, akuiferoak berreskuratzea eta uholde-arriskua arintzea	Ibai-ekosistemak leheneratzea eta uholde-arriskua murriztea	75,00	75,00	4,33		
6	Mugikortasun iraunkorra, segurua eta konektatua	6.4	Garraio iraunkor eta digitalerako laguntza programa	Trenbide-garraioa bultzatzeko eko-pizgarria	20,00	0,00	0,00		
				Salgaien itsas garraioa bultzatzeko eko-pizgarria	20,00	0,00	0,00		
				Norgehiagoka bidezko garraio jasangarri eta digitalerako laguntzen programa	460,00	445,37	4,99		
7	Energia berriztagarriak hedatzea eta integratzea	7.1	Eraikuntzan eta ekoizpen-prozesuetan integratutako energia berriztagarri berritzaileak garatzea	Energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten bero- eta hotz-sareen proiektuetarako pizgarrien programa (1)	70,00	0,00	0,00		
				Biogas-instalazioen proiektu berezietarako pizgarrien programa (1)	75,00	0,00	0,00		
				Energia-iturri berriztagarriak erabiltzen dituzten bero- eta hotz-sareen proiektuetarako pizgarrien programa (2)	30,00	0,00	0,00		
				Biogas-instalazioen proiektu berezietarako pizgarrien programa (2)	75,00	0,00	0,00		
				Itsas berriztagarrietarako proiektu pilotuak eta entsegu-plataformak eta portuko azpiegiturak, 1. azpi-programa: Saiakuntza-plataforma, ikerketako erakundearen arabera	90,00	0,00	0,00		
				Itsas berriztagarrietarako proiektu pilotuak eta entsegu-plataformak eta portuko azpiegiturak 2, 3 eta 4 azpi-programak	240,00	0,00	0,00		
				BERRINDARTZE ZIRKULARRA. 1. programa: Instalazio eolikoak berriz indartzea	132,50	0,00	0,00		
				BERRINDARTZE ZIRKULARRA. 2. programa: 10 MW-ra arteko minizentral hidroelektrikoak teknologiaren eta ingurumenaren aldetik berritzeko jarduketak	40,00	0,00	0,00		
				BERRINDARTZE ZIRKULARRA. 3. programa: Aerosorgailuen palak birziklatzeko instalazio berritzaileak	30,00	0,00	0,00		
				Energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarrien programaren laugarren deialdia (CE Implementa programa).	30,00	0,00	0,00		
				Komunitate energetikoak sustatu eta dinamizatzeko eraldaketa komunitarioko bulegoei laguntzak emateko pizgarrien programaren lehen deialdia (CE OFICINAS programa)	20,00	0,00	0,00		
				7.3	Energia-komunitateen garapena (energia berriztagarrien komunitateak eta tokiko energia-komunitateak)	Energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarrien programaren laugarren deialdia (CE Implementa programa).	30,00	0,00	0,00
						Energia-komunitateak sustatu eta dinamizatzeko eraldaketa komunitarioko bulegoei laguntzak emateko pizgarrien programaren lehen deialdia (CE OFICINAS programa)	20,00	0,00	0,00

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
				Komunitate energetikoen proiektu pilotu berezietarako programaren lehen deialdia (CE Implementa programa).	10,00	14,74	1,43
				Energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarrien programaren bigarren deialdia (CE Implementa programa).	30,00	30,00	4,55
				Energia-komunitateen proiektu pilotu berezietarako pizgarrien programaren hirugarren deialdia (CE Implementa programa).	10,00	0,00	0,00
8	Azpiegitura elektrikoak, sare adimendunen sustapena eta malgutasunaren eta biltegitzearen hedapena	8.1	Energia biltegitzearen hedapena	Energia biltegitzeko I+G proiektu berritzaileen lehen deialdia.	50,00	0,00	0,00
				Energia-iturri berriztagarrien bidez energia elektrikoa sortzeko instalazioekin energia hibridoa biltegitzeko proiektu berritzaileak	150,00	0,00	0,00
				BERRINDARTZE ZIRKULARRA. 1. programa: Instalazio eolikoak berriz indartzea	17,50	0,00	0,00
				BERRINDARTZE ZIRKULARRA. 2. programa: 10 MW arteko minizentral hidroelektrikoen berrikuntza teknologikorako eta ingurumen-berrikuntzarako jarduketak	2,50	0,00	0,00
9	Hidrogeno berriztagarriaren ibilbide-orria eta haren integrazio sektoriala	9.1	Hidrogeno berriztagarria: herrialde-proiektua	Lehen deialdia. Hidrogeno berriztagarriko proiektu aitzindariak eta bereziak sustatzeko programa.	150,00	150,00	0,00
				Lehen deialdia. Balio-kate berritzailea sustatzeko eta hidrogeno berriztagarria ezagutzeko programa (1).	30,00	0,00	0,00
				Lehen deialdia. Balio-kate berritzailea sustatzeko eta hidrogeno berriztagarria ezagutzeko programa (2).	80,00	0,00	0,00
				Lehen deialdia. Balio-kate berritzailea sustatzeko eta hidrogeno berriztagarria ezagutzeko programa (3).	100,00	0,00	0,00
				Lehen deialdia. Balio-kate berritzailea sustatzeko eta hidrogeno berriztagarria ezagutzeko programa (4).	40,00	0,00	0,00
10	Bidezko Trantsizioarako Estrategia	10.1	Inbertsioak bidezko trantsizioan	Trantsizioan dauden udalerrri eta lurraldeetako ingurumen, digitalizazio eta gizartearen arloko azpiegituren plana	91,00	0,00	0,00
11	Administrazio publikoen modernizazioa	11.2	Estatuko Administrazio Orokorren digitalizazio-proiektu eragileak	Kontsumoko Arbitraje Batzordeak digitalizatzea eta modernizatzea	0,84	0,00	0,00
		11.3	Lurralde-administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa	Lurralde-administrazio publikoen eraldaketa digitala eta modernizazioa- AA.EE.	3,34	0,00	0,00
				Eraldaketa digitala eta modernizazioa. 20.000 eta 50.000 biztanle arteko udalerrietako udalenzako diru-laguntzak	154,51	0,00	0,00
				Eraldaketa digitala eta modernizazioa. 50.000 biztanletik gorako udalerrietako udalenzako diru-laguntzak	92,77	89,40	3,81
12	Espainiako Industria Politika 2030	12.2	Industriaren lehiakortasuna eta iraunkortasuna sustatzeko programa	Ibilgailu elektrikoaren eta konektatuaren industria-katearen jarduketa integralak.	1550,00	877,22	236,28
				Manufaktura-industriaren arloko berrikuntza eta jasangarritasun planetarako laguntza	59,00	19,51	1,42
				4.0 Industria Konektatuaren esparruko I+G+b	55,00	3,51	0,28

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA		
				proiektuetarako laguntza (ACTIVA_Finantzaketa)					
				Nekazaritzako elikagaien sektoreko industria indartzeko jardueretarako laguntzak	310,00	0,00	0,00		
				Ontzigtzaren sektoreko balio-kate industrialak integratzeko eta eraldatzeko jardueretarako laguntzak	120,00	0,00	0,00		
				Proiektu estrategikoak	25,00	3,39	0,80		
				12.3	Hondakinen araudia ezartzen eta ekonomia zirkularra sustatzen laguntzeko plana	Ekonomia zirkularra sustatzeko laguntzak	192,00	0,00	0,00
		13	ETEak bultzatzea	13.1	Ekintzailetza	Ekosistema ekintzaile berritzailea bultzatzeko programa	4,00	0,00	0,00
				13.2	Hazkundera	«Activa Startups» ekimenaren bidez berrikuntza sustatzeko laguntzak	16,08	1,85	1,20
				13.3	Digitalizazioa eta berrikuntza	Enpresa-talde berritzaileei laguntzea, 2021	20,00	19,60	0,70
						Enpresa-talde berritzaileei laguntzeko ezarritako laguntzak, enpresa txiki eta ertainen lehiakortasuna hobetzeko.	49,60	48,18	3,67
						Landa-inguruneetarako Acelera PYME bulego-sarea sortzea	23,80	20,68	0,80
Digital Innovation Hub-ei Laguntzeko Programa (PADIH)	16,65					0,00	0,00		
Kit - Digital programa. I. segmentuko enpresak	500,00					406,00	18,88		
Kit - Digital programa. II. segmentuko enpresak	500,00					184,86	8,50		
Kit - Digital programa. III. segmentuko enpresak	500,00					89,87	4,18		
13.4	Merkataritzari laguntzea			Landa-eremuetako merkataritza	4,82	4,82	0,06		
				Merkatu jasangarriak eta merkataritzako hiri-eremuak	126,94	126,54	9,46		
13.5	Nazioartekotzea			Esportatzaileen elkarte eta federazioetan komunikazio-sistemak eta zerbitzu telematikoak indartzea	0,90	0,84	0,06		
				Atzerriko Espainiako Merkataritza Ganbera Ofizialetan eta Ganbera Federazioetan komunikazio-sistemak eta zerbitzu telematikoak indartzea	0,83	0,61	0,00		
14	Turismoaren sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	14.2	Turismo helmugetarako eta sektorerako digitalizazio eta inteligentzia programa	Turismoaren sektoreko enpresetan azken milia digitalizatzeko proiektuetarako laguntzak	25,00	0,00	0,00		
				Ikerketarako eta ezagutzen zabalkunderako erakundeentzako laguntza programa,	1,00	0,00	0,00		
				Turismo Helmugako Adimendunen Sarea osatzen duten toki-erakundeen eraldaketa digitala eta modernizazioa	6,00	0,00	0,00		
				Done Jakue bidea osatzen duten toki-erakundeen eraldaketa digitala eta modernizazioa	5,00	0,00	0,00		
		14.4	Lehiakortasunaren arloko jarduketak bereziak	Merkataritza eremu turistikoetan	61,55	61,28	3,54		
				"Espainiako Turismo Esperientziak" programa	26,00	25,17	0,00		
15	Konektagarritasun digitala, zibersegurtasuna bultzatzea eta 5G hedatzea	15.1	Lurraldea egituratzen laguntzea sareak hedatuz: Banda zabal ultralasterraren hedapena	Banda zabala urruneko landa-eremuetan (UNICO - Landa-eremuko eskaria)	0,00	0,00	0,00		
				Kohesiorako eta banda zabalerrako azpiegitura digitalak unibertsalizatzeko programaren deialdia (UNICO-Banda	250,00	250,00	3,54		

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
				zabala 2021)			
				Kohesiorako Azpiegitura Digitalak Unibertsalizatzeko Programaren proiektuen deialdia – Banda zabala 2022 PRTR.	250,00	244,61	0,00
		15.6	5G: sareak, aldaketa teknologikoa eta berrikuntza hedatzea	(UNICO - 5G I+G) Ikerketa eta berrikuntzako ekosistema 5G - Proiektu berritzaileen inguruan	416,70	0,00	0,00
				Telefonia mugikorrek sare publikoetako kokalekuak zuntz optikoaren bidez Backhaul konexioz hornitzeko laguntzak. UNICO 5G SAREAK Backhaul zuntz optikoa programa.	450,00	0,00	0,00
				UNICO programa: I+G 6G	62,00	0,00	0,00
16	Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala	16.1	Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala	2021eko Adimen Artifizialeko I+G-ko Misioren Programa. Nekazaritzaren sektoreko IA misioak	9,76	9,76	0,00
				2021eko Adimen Artifizialeko I+G-ko Misioren Programa. Energia jasangarriaren sektoreko IA misioak	12,54	12,54	0,00
				2021eko Adimen Artifizialeko I+G-ko Misioren Programa. Osasunaren sektoreko IA misioak	27,70	27,70	0,26
		16.R1	Erreforma guztiak	Unibertsitate-enpresa katedrak IA - ENIA katedrak	16,00	0,00	0,00
17	Erakundeen erreforma eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistema nazionalaren gaitasunak indartzea	17.2	SECTIko eragileen gaitasunak, azpiegiturak eta ekipamenduak indartzea	Azpiegitura zientifiko eta tekniko bereziak (AZTB)	37,78	36,59	0,43
					37,52	37,13	0,36
				IZTBEP 2017- 2020. Ekipamendu zientifiko-teknikoa eskuratzea.	180,00	180,00	4,43
				IZTBEP 2017- 2020. Europa Bikaintasuna	1,20	1,20	0,18
				IZTBEP 2017- 2020. Europa Ikerketa	3,00	1,99	0,08
				IZTBEP 2017- 2020. Europa Sareak eta Kudeatzaileak - Europa Zentro Teknologikoak	7,00	7,00	0,17
				IZTBEP 2021- 2023. Europa Bikaintasuna	2,50	2,50	0,09
				IZTBEP 2013- 2016. Kontzeptu-probak egitea.	40,00	40,00	1,51
				IZTBEP 2017- 2020. Cervera 2020 laguntzak	15,00	15,00	0,00
				IZTBEP 2017- 2020. "Nazioarteko baterako programazioko" ikerketa-proiektuei zuzeneko emakidak	4,20	3,02	0,25
		IZTBEP 2017- 2020.- Nazioarteko baterako programazioa	22,14	20,77	0,24		
		IZTBEP 2017 - 2020 ikerketa-proiektuak ildo estrategikoetan, lankidetzatza publiko-pribatua.	43,00	43,00	2,74		
		IZTBEP 2021- 2023.- Zientzia eta Berrikuntza Misiok - GTIZ	141,25	121,24	1,56		
			125,00	109,77	10,84		
		IZTBEP 2021- 2023.- Nazioarteko lankidetzatza proiektuak	14,72	13,80	0,66		
			18,11	17,91	1,07		
			27,32	27,32	1,56		
			IZTBEP 2021- 2023.- Lankidetzatza publiko-pribatuko proiektuak (ikerketa-erakundeen jarduera ez-ekonomikoetarako laguntzak).	105,00	134,28	7,73	
			IZTBEP 2021- 2023.- Lankidetzatza publiko-pribatuko proiektuak (KASEOri lotutako laguntzak)	150,00	15,01	1,20	
			IZTBEP 2021- 2023.- Lankidetzatza publiko- pribatuko proiektuak.	110,00	0,00	0,00	

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
				IZTBEP 2021- 2023.- Ildo estrategikoetako proiektuak (KASEOri lotutako laguntzak)	35,00	0,58	0,00
				IZTBEP 2021- 2023.- Trantsizio ekologikora eta trantsizio digitalera bideratutako proiektu estrategikoak.	296,07	288,69	8,57
				IZTBEP 2021- 2023. Kontzeptu-probak egitea.	40,00	39,96	1,30
		17.4	Karrera zientifiko berria	Torres Quevedo laguntzak 2020	25,00	14,40	0,80
				Doktorego industrialak	4,00	3,91	0,19
				IZTBEP 2017- 2020.- Juan de la Cierva - prestakuntza laguntzak	14,62	14,04	0,74
				IZTBEP 2017- 2020.- Juan de la Cierva - prestakuntza laguntzak	44,15	26,41	0,88
				IZTBEP 2021- 2023.- Juan de la Cierva - prestakuntza laguntzak	32,40	31,17	1,49
					33,70	0,00	0,00
				IZTBEP 2021- 2023.- Ikertzaileen finkapenerako pizgarriak emateko laguntzak	76,00	0,00	0,00
				IZTBEP 2021- 2023.- Ramon y Cajal laguntzak	152,92	150,08	5,91
		17.5	Ezagutza transferitzea	Bikaintasun-zigilua lortu duten Espainiako proiektuetarako laguntzak,	20,00	20,00	1,97
				Horizonte Europa programaren Berrikuntzarako Europako Kontseiluaren azeleratzaileari dagozkionak	30,00	0,00	0,00
				NEOTEC Enpresa berritzaileen programa	36,46	36,46	2,51
					35,00	0,00	0,00
		17.6	Osasuna	GLL 2017 - 2020 Ekintza Estrategikoa Osasunean	59,50	58,80	2,61
				GLL 2017 - 2020 Biomedikuntzan eta Osasun Zientzietan I+G+b bultzatzeko ISCII plataformak	18,00	18,00	1,00
				GLL 2017 - 2020 Doitasunezko Medikuntza Pertsonalizatuko Ikerketa Proiektuak	29,50	29,48	0,88
				GLL 2017 - 2020 Azpiegituren Estatuko Azpiprograma	15,00	14,99	0,56
				GLL 2021 - 2023 Ekintza Estrategikoa Osasunean	144,07	148,15	2,47
				GLL 2021 - 2023 Doitasunezko Medikuntza Pertsonalizatuko Ikerketa Proiektuak	81,50	81,47	0,11
				GLL 2021 - 2023 Azpiegitura eta ekipamendu zientifiko eta teknikoko Estatuko azpiprograma	15,00	14,99	0,51
				GLL 2021-2023 Terapia Aurreratuko Medikamentuak Garatzeko Estatu Partzuergoko (CERTERA) kideak hautatu eta finantzatzeko dirulaguntzak	45,00	0,00	0,00
				AES 2021- 2023.- ISCII - HEALTH bikaintasun-zigilua	6,00	0,00	0,00
				Medikuntza pertsonalizatuko eta terapia aurreratuko I+G+B proiektuak	10,00	9,78	0,17
		17.8	I+G+B automozio jasagarrian (AJPT)	Automozio Jasagarriarako Programa Teknologikoa (AJPT)	40,00	40,00	6,76
		17.9	Sektore aeroespaziala	Aeronautikako programa teknologikoa	40,00	40,00	0,00

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
18	Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak berritzea eta handitzea	18.2	Osasunaren prebentzioa eta sustapena indartzeko ekintzak	Adikzioen prebentzioaren eta tratamenduaren arloko proiektuak garatzea	3,30	3,30	0,03
				Adikzioen prebentzioaren eta tratamenduaren arloko proiektuak garatzea, Europako funtsekin finantzatuta	6,60	3,30	0,10
19	Gaitasun Digitalen Plan Nazionala (digital skills)	19.3	Enplegurako kompetentzia digitalak	Aldaketa teknologikoein eta eraldaketa digitalarekin lotutako kompetentzia profesionalak eskuratzeko eta hobetzeko estatu-mailako prestakuntza-programak gauzatzeko dirulaguntza publikoak emateko deialdia, lehentasunez pertsona landunentzat.	50,00	50,00	1,50
				Trebakuntza digitalerako eta jasangarritasunerako prestakuntza-ikastaroak garraioaren eta mugikortasunaren arloan	10,50	0,00	0,00
				"ETEen sorkuntza digitala: zuzendaritza-taldeetako pertsonak eta ETEetan enplegatutako pertsonen kualifikazioa" programa	147,52	0,00	0,00
				"Sorkuntza digitala: Aldaketaren eragileak "	55,08	0,00	0,00
20	Lanbide Heziketa sustatzeko plan estrategikoa	20.1	Reskilling Lanbide Heziketaren eta lanbide-kualifikazioei lotutako biztanleria aktiboaren berrikuntza eta nazioartekotzea	Kualifikazio-prestakuntza eta biztanleria aktiboaren birkualifikazioa	24,50	0,00	0,00
				Mentor Gela programa Prestakuntza irekiko gelak sortzea	3,33	1,31	0,01
				Mentor Gela programa Lanbide Orientazioko Unitateak (LOU) sortzea	2,85	0,00	0,00
				Mentor Gela programa Prestakuntza irekiko gelak sortzea	1,80	1,80	0,01
		20.2	Lanbide Heziketaren eraldaketa digitala	Lanbide Heziketako Bikaintasun eta Berrikuntza Zentroen Sarea sortzea	50,00	42,62	3,00
		20.3	Lanbide Heziketaren berrikuntza eta nazioartekotzea	Berrikuntza eta ikerketa aplikatuko proiektuak eta ezagutzaren transferentzia Lanbide Heziketan	23,84	23,84	3,83
21	Hezkuntza-sistema modernizatzea eta digitalizatzea, 0-3 Urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne	21.2	Hezkuntza Orientazioko, Aurrerapeneko eta Aberasteko Programa, hezkuntza-komplexutasun bereziko ikastetxeetan (#PROA+ Programa)	PROA+ Ceuta eta Melilla programa	0,37	0,37	0,00
		21.R2	Funtsezko gaitasunen arabera curriculum-eredu berria diseinatzea eta aplikatzea, oinarrizko ikaskuntzak lehenetsiz, eta antolamendu akademiko inklusiboa arautzea	Irakasleak etengabe prestatzeko ikastaroak	0,19	0,19	0,00
22	Zaintzen ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze-politikak indartzea	22.1	Iraupen luzeko laguntza eta zaintza plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia	Berrikuntza-proiektuak instituzionalizazioaren, desinstituzionalizazioaren eta laguntza-zerbitzu komunitarioen garapenaren prebentzioaren arloan, iraupen luzeko zaintzen esparruan	110,00	106,94	4,37
		22.2	Gizarte Zerbitzuak Modernizatzeko Plana: Haurren arretaren eraldaketa teknologikoa, berrikuntza, prestakuntza eta errefortzua	Hirugarren sektoreko erakundeak modernizatzeko laguntza	85,00	0,00	0,00
23	Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko	23.1	Gazteen enplegua	Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa	112,75	34,33	0,65
				Investigo programa.	71,13	57,89	0,40

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA		
24	berriak	23.2	Emakumeen enplegua eta genero-zeharkakotasuna enplegurako aktibazioa bultzatzeko	TandEM programa Estatuko sektore publikoko erakundeetan	120,00	5,09	0,00		
				Ceuta. Landa- eta hiri-eremuetan emakumeei laguntzeko programa.	4,17	3,89	0,00		
		23.3	Eraldaketa digital, berde eta produktiborako gaitasun berriak eskuratzea	Melilla. Emakumeen gaikuntza eta laneratzea	4,17	2,91	0,00		
				Langabeak kontratatzeko konpromisoak biltzen dituzten prestakuntzako ekintzak	120,00	0,00	0,00		
				Estatu mailako prestakuntza-programak gauzatzea, batez ere turismoaren sektore-eremuko pertsona landunentzat	79,00	0,00	0,00		
		23.4	Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak	Estatu mailako prestakuntza-programak. Langileen birkualifikazioa.	118,00	0,00	0,00		
				Ceuta Oreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo kalteberak	1,50	1,80	0,00		
				Ceuta Oreka eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak eta kolektibo kalteberak	2,50	2,50	0,00		
				Ceuta. Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak	1,00	0,00	0,00		
				Melilla. Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Kolektibo kalteberak	0,60	0,60	0,00		
				Melilla. Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak	5,00	0,00	0,00		
				Melilla. Berrorekarako eta ekitaterako lurralde-proiektu berriak. Ekintzailatza eta mikroenpresak eta kolektibo kalteberak	2,00	1,85	0,00		
		23.5	Enplegurako aktibazioari laguntzeko politiken gobernantza eta sustapena	Estatu mailako prestakuntza-programak gauzatzea, batez ere turismoaren sektore-eremuko pertsona landunentzat	40,00	39,98	1,61		
		23.6	Gizarte-ekonomia bultzatzeko plan integrala, sare ekonomiko inklusibo eta jasangarria sortzeko	Gizarte-ekonomia bultzatzeko plan integrala, sare ekonomiko, inklusibo eta jasangarria sortzeko	99,34	0,00	0,00		
		24	Kultura-industriaren balioa handitzea	24.1	Kultura-industrien lehiakortasuna bultzatzea	Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzen dituzten operadoreak digitalizatzeko proiektuak babesteko laguntzak	5,00	4,33	0,00
						Argitalpen-dukien digitalizazioa	1,71	0,25	0,02
						Jabetza intelektualeko eskubideak kudeatzeko operadoreak digitalizatzea	10,00	9,19	0,00
Literatura-egileen nazioarteko mugikortasuna sustatzea (idazleak, itzultzaileak eta ilustratzaileak)	1,00					0,75	0,00		
Arte-galeriak nazioartekotzea	1,00					1,00	0,00		
Kudeaketa artistikoko egiturak modernizatzea arte eszenikoen eta musikaren eremuan	17,93					0,00	0,00		
Liburuaren sektoreko enpresa txiki eta ertainak modernizatzea	9,02					5,58	0,33		
24.3	Kultura-zerbitzu handien digitalizazioa eta sustapena			Erakundeen, kultura-agentziaren, argitalpen-proiektuen eta komunitateekiko harremanen arloko prestakuntzako	0,38	0,38	0,00		

II.8.14. TAULA. EUSKADIK SEM-EN ESTATUKO DEIALDIETAN PARTE HARTZEA, OSAGAIEN ARABERA 2022/12/31n. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
				bekak 2021-23rako			
				Dokumentu-ondarea duten artxiboak deskribatzeko eta digitalizatzeko laguntzak	0,75	0,00	0,00
25	Europako Espainia ikus-entzunezkoen hub-a (Spain AVS Hub)	25.1	Ikus-entzunezko sektorea sustatzeko, modernizatzeko eta digitalizatzeko programa	Ekosistema digitalak sortzea edo hobetzea ikus-entzunezkoen sektorean.	24,81	24,81	0,00
				2022an eta 2023an egingo diren ikus-entzunezko proiektuak sortzeko eta garatzeko laborategiak eta inkubagailuak	9,00	9,00	0,34
				Zinemaldiak eta zinema-lehiaketak antolatzea Espainian	0,30	0,21	0,00
					0,35	0,48	0,07
				Espainiako filmen parte-hartzea 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko urriaren 30era bitarteko jaialdietan	0,80	0,48	0,01
				Espainiako filmen parte-hartzea 2020-2021 jaialdietan	0,30	0,30	0,03
				Film luzeen ekoizpena, proiektuaren arabera	58,00	57,00	0,54
				Ikus-entzunezko teknologien eta bideo-jokoan I+G proiektuen programa	30,00	29,65	1,11
				Bideo-jokoaren sektorea eta sorkuntza digitaleko beste formatu batzuk sustatzea	8,00	0,00	0,00
				26	Kirol-sektorea sustatzeko plana	26.1	Kirol-sektorea digitalizatzeko plana
Osasunerako eta kirol-medikuntzarako onuragarria den jarduera fisikoari aplikatutako zientzia eta teknologia ikerketako proiektuak	3,90	0,00	0,00				
Emakumezkoen futbol-kategoria gorenean parte hartzen duten klub eta ELZentzako laguntzak, lehiaketarako beharrezkoak diren egiturazko hobekuntzei ekiteko	16,00	16,00	3,79				
26.3	Kiolaren Sektoreko Gizarte Plana	Emakumeen futbol maila gorenean parte hartzen duten eta 2022/2023 denboraldirako kategoria horretara igo diren klub eta ELZentzako laguntzak	1,50			0,00	0,00
			16,00			0,00	0,00
GUZTIRA						15619,47	7314,04

8.5. EUSKADIK PARTE HARTZEA SEMren ESTATU-KUDEAKETAKO ZUZENeko EMAKIDETAN, OSAGAIEN ARABERA

Hurrengo orrialdeetan, Euskadin banatutako funtsen xehetasunak aurkezten dira, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren estatu-kudeaketako zuzeneko emakiden arabera, osagaien, inbertsio-ildoaren eta ekimeneren arabera banatuta. Bide horren arabera banatutako funtsen guztizkoa 37,18 M € da.

II.8.15. TAULA. EUSKADIK 2020-12-31N PARTE HARTZEA SEMren ESTATU-KUDEAKETAKO ZUZENENKO EMAKIDETAN. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESELEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
2	Etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko plana	2.4	Berroneratzeko programa eta erronka demografikoa (5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriak)	DUS 5000. Erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu bereziak egiteko inbertsioetarako laguntzak	325,00	325,00	5,17
5	Itsasertzeko espazioa eta ur-baliabideak zaintzea	5.1	Azpiegituren arazketa, saneamendu, efizientzia, aurrezpen, berrerabilpen eta segurtasun jarduerak gauzatzea	Itsaso Txikia berreskuratzeko lehenetsuneko jarduketak	20,00	20,00	0,00
13	ETEak bultzatzea	13.5	Nazioartekotzea	Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialarentzako diru-laguntza, digitalizazio-planerako	2,00	2,00	0,00
14	Turismoaren sektorearen modernizazio eta lehiakortasun plana	14.1	Turismoaren sektorearen modernizaziorako eta lehiakortasunerako plana	Helmugako Jasangarritasun Turistikoko Planak - Xacobeo Plan Nazionala 2021-2022	22,50	22,50	2,65
		14.4	Lehiakortasunaren arloko jarduketak bereziak	Erabilera turistikoko ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu jasangarriak finantzatzea Gizateriaren Ondare Hirien Sarea + Manresako Inaziotar Bidea.	47,71	47,71	0,00
15	Konektagarritasun digitala, zibersegurtasuna bultzatzea eta 5G hedatzea	15.5	Mugaz gaindiko azpiegitura digitalen hedapena	Cloud I+G UNICO Programaren hodeiko konputazio-arloko proiektu berritzaileak	42,97	42,97	0,00
		15.6	5G: sareak, aldaketa teknologikoa eta berrikuntza hedatzea	(UNICO - 5G I+D) Ikerketa eta berrikuntzako ekosistema 5G - Proiektu berritzaileen inguruan	95,25	95,25	1,28
				5G larrialdietarako	15,00	15,00	0,00
5G babes mugikorra eta larrialdiak kudeatzeko erakunde publikoentzat	15,00	15,00	0,00				
16	Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala	16.1	Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala	Diru-laguntza RAeri, "Lengua Española e Inteligencia Artificial (LEIA)" proiektua gauzatzeko	5,00	5,00	0,00
		16.R1	Erreforma guztiak	Zuzeneko dirulaguntza ematea Espainiako Superkonputazio Sareko zenbait zentrori, Quantum proiektua garatzeko	22,00	22,00	0,00
				Adimen Artifizialari eta Demokraziari buruzko Katedraren jarduerak garatzeko zuzeneko emakida	1,40	1,40	0,00
				Dirulaguntzak hainbat zentro zientifikori, hizkuntzaren teknologiak sustatzeko	15,00	15,00	5,00
17	Erakundeen erreforma eta zientzia, teknologia eta berrikuntzako sistema nazionalaren gaitasunak indartzea	17.2	SECTIko eragileen gaitasunak, azpiegiturak eta ekipamenduak indartzea	Azpiegitura zientifiko eta tekniko bereziak. Europako espalazio bidezko neutroien iturrirako ESS - BILBAO Partzuergoa	3,30	3,30	3,30
				Azpiegitura zientifiko eta tekniko bereziak. Argi Sinkrotriko Laborategia (CELLS)	7,53	7,53	0,00
				Azpiegitura zientifiko eta tekniko bereziak. Javalambreko Behatoki Astrofisikoa	1,00	1,00	0,00
		17.7	Ingurumena, klima-aldaketa eta energia	Cacereko Energia Biltegitartzeko Ikerketa Zentro Nazionala	23,60	29,33	0,00
18	Osasun Sistema Nazionalaren gaitasunak berritzea eta handitzea	18.2	Osasunaren prebentzioa eta sustapena indartzeko ekintzak	Bizimodu osasungarrien sustapena indartzeko, ingurune osasungarriak sortuz edo birgaituz	12,40	6,00	0,00
19	Gaitasun Digitalen Plan Nazionala (digital skills)	19.3	Enplegurako kompetentzia digitalak	Gaitasun digitalen plan nazionala (digital skills) S.A:	76,88	76,88	0,00
				Germán Sánchez Ruipérez Fundazioa. Liburu-kateko eragileen prestakuntza-programa (PARIX programa)	3,38	3,38	0,00
				Espainiako Kirolaren Elkartearantzako dirulaguntza, gaitasun digitalei buruzko prestakuntzarako (ADESP)	12,00	12,00	0,00
				UNEDI dirulaguntza ematea, kultura-ondarearen arloko profesionalak gaitasun digitaletan	13,96	13,96	0,00

II.8.15. TAULA. EUSKADIK 2020-12-31N PARTE HARTZEA SEMren ESTATU-KUDEAKETAKO ZUZENENKO EMAKIDETAN. EUROAK, MILIOITAN

NC	OSAGAIA	NLI	INBERTSIO-LERROA	IDENTIFIKATUTAKO EKIMENAK	ESLEITUA GUZTIRA	BANATUA GUZTIRA	EUSKADIN BANATUA
				prestatzeko.			
20	Lanbide Heziketa sustatzeko plan estrategikoa	20.1	Lanbide Heziketaren berrikuntza eta nazioartekotzea Kualifikazioei lotutako biztanleria aktiboaren reskilling eta upskilling	P01_Espainiako Merkataritza, Industria, Zerbitzu eta Nabigazioko Ganbera Ofizialarentzako dirulaguntza	0,20	0,20	0,00
				Ekoizpen-sektorearen digitalizazioa	30,63	30,63	0,00
21	Hezkuntza-sistema modernizatzea eta digitalizatzea, 0-3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne	21.4	Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen prestakuntza eta gaikuntza	Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen prestakuntza eta gaikuntza	361,56	361,56	16,25
		21.5	Unibertsitateko azpiegitura digitalak, ekipamendua, teknologiak, irakaskuntza eta ebaluazio digitalak hobetzea	Unibertsitateko azpiegitura digitalak, ekipamendua, teknologiak, irakaskuntza eta ebaluazio digitalak hobetzea	76,85	76,85	3,12
22	Zaintzen ekonomiarako talka-plana eta gizarteratze-politikak indartzea	22.3	Espainia Herralde Irisgarria Plana	Irisgarritasun unibertsalaren arloko berrikuntza teknologikoko, ikerketako eta dibulgazio zientifikoko proiektuak.	2,96	2,96	0,42
			Espainia Plana indarkeria matxistaren aurka babesten zaitu	Indarkeria matxistaren biktimei arreta eta babesa emateko tresnak modernizatzea eta zabaltzea - ATENPRO zerbitzua	32,68	32,68	0,00
		22.4	Espainia Plana indarkeria matxistaren aurka babesten zaitu (III)	Salerosketaren biktime diren emakumeak eta neskek gizarteratzea eta laneratzea	12,94	12,94	0,00
23	Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak	23.7	Hazkunde inklusiboa sustatzea, gizarteratze-politikak Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerarekin lotuz	Gizarteratzea - EELL proiektu pilotu berritzaileak	6,53	4,51	0,00
				Gizarteratzea - Proiektu pilotu berritzaileak HIRUGARREN SEKTOREA	53,00	51,39	0,00
				Gizarteratzea - Proiektu pilotu berritzaileak AA.EE.	42,50	42,48	0,00
25	Europako Espainia ikus-entzunezkoen hub-a (Spain AVS Hub)	25.1	Ikus-entzunezko sektorea sustatzeko, modernizatze eta digitalizatze programa	Emakume Zinegile eta Ikus-entzunezko Hedabideen Elkarte (CIMA)	0,10	0,10	0,00
				Zuzeneko dirulaguntza bat ematea Spain Film Commission enpresari	5,00	5,00	0,00
GUZTIRA					1407,81	1403,49	37,18

Iturria: Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia, SEM funtsak, EGABen Osoko Bilkuran

ITURRIAK

1. **ESPAINIAKO GOBERNUA.** [Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana](#)
2. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** [Next Generation Euskadi](#)
3. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** [Euskadi Next 2021-2026 programa](#)
4. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** [Suspertze Plana gauzatzeari buruzko hirugarren txostena](#)
5. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** [Ekonomia eta Ogasun sailburuaren agerraldia, SEM funtsak, Eusko Legebiltzarra, 2013ko otsailaren 10ekoa](#)
6. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** [Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren proiektuak sailen arabera, NEXT GEN Euskadi](#)

9. LABURPENA ETA ONDORIOAK

9.1. LABURPENA

Mundu mailako 2022ko hazkundearen dinamika bi garapen kontrajarriren arabera izan da. Urtearen hasieran, pandemiari lotutako murrizketak bertan behera uzteak jarduera nabarmen suspertzea ekarri zuen. Ondoren, Errusiako Ukrainaren inbasioak bizkortu egin zuen 2021etik lehengaien prezioen gorakada, eta, horren ondorioz, presio inflazionistak areagotu ziren. Horri erantzuteko, banku zentral gehienek euren diru politikak gogortzea erabaki zuten. Ondorioz, jarduera ekonomiko globala nabarmen moteldu zen urtearen bigarren erdian. Hala, NDFren zenbatespenen arabera, munduko BPGd-ak % 3,4 egin zuen gora 2021etik 2022ra, balio errealean. Aurreko urtean, berriz, % 6,3 egin zuen gora.

Ekonomia aurreratuen BPGd-a % 2,7 hazi zen, urte arteko terminoetan eta bolumenari dagokionez. Euroguneko BPGd-a % 3,5 hazi zen, AEBkoa % 2,1 eta Japoniakoa % 1,1. Goraka eta garatzen ari diren merkatu-ekonomietan, igoera % 4koa izan zen, Europan goraka ari diren ekonomietan % 0,8 hazi zen, Asian % 4,4 (Txinan % 3 hazi zen eta Indian % 6,8), Latinoamerikan eta Kariben % 4. Errusiak, berriz, % 2,1 egin zuen behera.

Munduko merkataritza, berriz, % 5,1 hazi zen 2021. urtearen aldean.

Inflazioari dagokionez, udatik aurrera, lehengai energetikoen prezioaren jaitsierak inflazioa moteltzen hasia ahalbidetu zuen. Hala eta guztiz ere, presio inflazionistek gora egiten jarraitu zuten kontsumo-saski osora zabaldu ondoren. Hala, inflazio orokorra % 5,4 izan zen urte arteko kopuruetan ekonomia aurreratuetan, eta % 9,8 goraka ari diren eta garatzen ari diren ekonomietan.

Brent upelaren prezioa % 45,8 igo zen 2021etik 2022ra. Urtarrilaren hasieran, upelaren prezioa 88 \$ zen, martxoan 122,7 \$-ra igo zen, ekainean 127,4 \$-ra eta urtearen amaiera upelaren prezioa 83,3 \$ izan zen. Bestalde, elikagaien prezioak % 15,6 igo ziren 2021etik 2022ra, produktu industrial ez-metalikoenak % 5,3 eta produktu industrial metalikoenak % 12,3 jaitsi ziren, betiere dolarretan neurtutako datu horiek guztiak.

Presio inflazionistaren testuinguru horretan, banku zentralak orientaziorik murriztaileenari eutsi zioten. Hala, Japoniako Bankuak izan ezik (-% 0,1eko esku-hartzeari eutsi zion 2022. urtean), Europako Banku Zentralak eta Estatu Batuetako Erreserba Federalak igo egin zituzten esku-hartze tasak egun batean 2021 eta 2022 artean, Europako Banku Zentralak % 2,5ean kokatu zuen eta Erreserba Federalak % 4,5era. Euroguneko diru-merkatuaren interes-tasei dagokionez (gordailuak), positiboak izan ziren, urteko batez bestekoan, epe guztietan. Zehazki, 2022ko abenduan, Euriborra honela kokatu zen: hilabete batera +% 1,72, 3 hilabetera +% 2,06, sei hilabetera +% 2,56 eta urtebetera +% 3,02.

Bestalde, Espainiako Bankuaren Estatistika Buletinaren datuen arabera, finantza-erakunde monetarioek EDBn bizi diren etxeei emandako interes-tasa % 5,83tik % 6,37ra igo zen 2021etik 2022ra, kontsumorako kredituaren kasuan, eta % 1,60tik % 2,33ra etxebizitzarako kredituan.

Dibisa-merkatuan, euroak balioa galdu zuen Estatu Batuetako dolarrarekiko, eta balioa handitu Japoniako yenarekiko eta libra esterlinarekiko. Zehazki, dolarraren benetako kanbio-tasa 1,059 \$/€ izan zen 2022ko abenduan, eta 2021ko abenduan, berriz, 1,130 \$/€, hots, % 6,3ko balio galera dolarrarekiko.

Burtsako munduko merkatuetan, bai Standard & Poor 's 500ek, bai Nikkei 225ek, Euro Stoxx zabalak eta Ibex 35ek behera egin dute 2021etik 2022ra.

Eurogunean, lehen seihilekoan ikusitako hazkundearen sorburua hau ere izan zen: kontaktuko zerbitzu intentsiboen eskaria berreskuratu izana, pandemiarekin lotutako murrizketak kendu ondoren ekonomia ireki zelako. Hala ere, munduko jarduera ahul egoteak, Errusiak Ukrainaren aurka izandako gerraren ondoriozko ziurgabetasun geopolitiko handiak, inflazio handiak eta finantzaketaren baldintza murriztailegoek zaildu egin zuten hazkundera.

Testuinguru horretan, euroguneko administrazio publikoek BPGd-aren gainean zuten zorra % 84koa izan zen 2022an. Ratorik handienak Grezian (% 171,3), Italian (% 144,4), Portugalen (% 113,9), Espainian (% 113,2), Frantzian (% 111,6) eta Belgikan (% 105,1) izan ziren, eta txikiak Estonian (% 18,4), Bulgarian (% 22,9) eta Luxenburgon (% 24,6). Defizitari dagokionez, eurogunean BPGd-aren % 3,6 izan zen. Ratio handienak Italian (% 8), Errumanian eta Hungarian (% 6,2), Maltan (% 5,8) eta Espainian (% 4,8) izan ziren. Danimarkak, Ziprek, Irlandak, Suediak, Kroaziak eta Luxenburgok soilik izan zuten superabita.

Horren guztiaren ondorioz, 2022ko uztailan, EKK eta Kontseilu Europarrak babes-klausula 2023ra arte luzatzea erabaki zuten.

Espainiako ekonomiari dagokionez, COVID-19ak ezarritako murrizketen ondoren eskariak gora egin zuen, eta horren arrazoi izan ziren pandemian familiek metatutako aurrezkiak eta agintariak krisi inflazionistaren ondorioak arintzeko hedatutako neurriak emandako zergaren arloko bultzada. Hala, BPGd-ak % 5,5eko urte arteko batez besteko igoera erreala izan zuen, eurogunekoa baino ehuneko 2 puntu handiagoa (+% 3,5).

Osaerari dagokionez, hazkundearen eragilea zerbitzuen gorakada izan zen, bereziki 2022. urteko lehen erdian. Aitzitik, input horien garestitzeak eragin handiagoa izan zuen energia-kontsumoetako manufaktura intentsiboen adarretan. Era berean, esportazioen dinamismoa nabarmentzen da, BPGd-aren hazkundeari ekarpen handia egin baitzioten. Bereziki aipagarria da nazioarteko turismoaren susperraldia, nahiz eta zerbitzu ez-turistikoen esportazioetan hedapen handirako portaera ageri den.

Orain, **EAEko ekonomiaren bilakaera** azalduko dugu.

EUSTATen Jarduera Ekonomikoen Gida-zerrendako (JEGID) azken datuek, 2022ko urtarrilekoek, EAEn 151.088 enpresa aktibo kontabilizatzen dituzte guztira, eta 911.656 pertsonari ematen diete lana. Hortaz, batez besteko tamaina 6 lanpostukoa da enpresako. 2021eko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era, enpresen kopurua % 1 jaitsi da (1.466 enpresa gutxiago). Enpresa horietan erregistratutako langileen kopuruak aldakuntza positiboa izan du: % 0,2.

28ko EBn batez besteko tamaina 4,8 lanpostukoa da enpresako (2020ko datuak), EAEn baino apur bat gutxiago (6 lanpostu). Batez besteko horien gainera daude Alemania (11,3 lanpostu), Luxenburgoko (8,4), Danimarka (7,5), Austria (6,9), Kroazia (6,1).

Gizarte Segurantzaren inskribatutako enpresei dagokienez, datuek erakusten dute 2022ko abenduaren amaieran langileak zituzten enpresak 58.720 izan zirela, hau da, % 0,6 gutxiago 2021eko aldi berarekin alderatuta (32 enpresa gutxiago). Jarduera-sektoreen arabera, lehen sektorean (-% 2,3), industrian (-% 0,5) eta zerbitzuetan (-% 0,8) jaitsi egin zen, eta eraikuntzan hazi (+% 1,6).

Eustaten Kontu Ekonomikoek erakusten dutenez, EAEko ekonomiak % 4,4ko igoera izan zuen 2022. urte osoan. Urtea urte arteko % 5,8ko hazkunde-tasarekin hasi zen lehenengo hiruhilekoan, eta, hortik aurrera, hazkundera moteltzen hasi zen. Hala, urte arteko hazkunde-tasa % 5koa izan zen bigarren hiruhilekoan, % 3,8koa hirugarrenean, eta % 2,9koa laugarren hiruhilekoan.

Hazkunde hori (% 4,4) Espainiako ekonomiarako zenbatetsitakoa (% 5,5) baino txikiagoa da, baina eurogunean (% 3,5) eta EB27n (% 3,5) erregistratutakoa baino handiagoa.

Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailaren informazioaren arabera⁵⁰, Euskal Ekonomiaren Termometroa 2022an hasi zen, 131,6 puntuko balioarekin. Martxoan beherakada txiki bat izan zuen, eta joera-aldaketa horrek azarora arte jarraitu zuen, non 108,9 puntuko balioa erregistratu baitzuen; horrek dezelerazioa berretsi zuen, baina hazkunde sendoko eremuan mantendu zen. Termometroak 113,1 puntuan amaitu zuen urtea, oraindik ere hazkunde sendoko eremuan, eta pixka bat hobetuta.

Eskariaren aldetik, barne-eskariaren portaera ez da BPGd-arena bezain positiboa izan, % 2,7ko hazkundea izanik, 2022. urte osoan. Hala, kanpo-eskariak BPGd-aren hazkundeari egiten dion ekarpena positiboa da (1,7 puntu).

Kapital-eraketa gordina (inbertsioa) da dinamismo handiena duen agregatua, eta, 2022. urte osoan, urte arteko aldakuntza-tasa % 4,4koa da. Ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioa % 6,9 hazi da, eta kapital-eraketa gordinaren gainerakoa hartzen duen agregatua, eraikuntzari lotuago dagoena, % 2,7. Urtean, inbertsio-jarduera motelduz joan da, eta nabarmenagoa da ekipamendu-ondasunetan egindako inbertsioaren kasuan, haren hazkunde-tasa ehuneko bost puntu jaitsi baita lehen hiruhilekoaren eta laugarrenaren artean (+% 8,6tik +% 3,6ra igaro da).

Gastu pribatua % 3 gehituko da, 2021. urtekoarekin erkatuz gero. Bestalde, kontsumo publikoa % 0,4 jaitsi da. Gastu pribatuaren eta gastu publikoaren baterako bilakaerak azken kontsumoko gastuaren % 2,2ko hazkundea ekarri du.

Kopuru nominaletan, “Kanpo-merkataritzaren Estatistikak” (Aduanen Erregistroetan oinarritua) atzerriarekiko ondasunen kanpo-merkataritzari buruz ematen dituen behin-behineko datuek erakusten dute 2022. urtean esportazioak % 26,8 hazi direla (32.538,4 milioi euro guztira). Zenbateko horrek aurtengo datua serie esportatzaile historikoaren erregistro onena bihurtzen du, erraz gainditzen baititu orain arte balio esportatzaile handiena izan duen urteko, hots, 2018ko 25.788 milioiak, % 26,2 gehiago baita Esportazio ez-energetikoak (guztizkoaren % 91,2) % 22,2 hazi dira, eta, energetikoak, % 108,8. EAEko esportazio ez-energetikoak muga-zergen sekzioen arabera aztertuz gero, ikus daiteke gora egin dutela. Aldi berean, inportazioak % 39,7 hazi ziren 2022an (29.411,5 milioi euro). Serie historikoaren baliorik handiena ere bada, eta ondoren dator, hain zuzen, aurreko urtekoa. Inportazio ez-energetikoak (guztizkoaren % 70,8) % 26,3 hazi dira, eta, energetikoak, % 88.

Euskadiko kanpo-merkataritzak 3.126,9 milioi euroko saldo positiboa izan zuen 2022an (2021ean baino % 32,1 gutxiago), eta estaldura-tasa % 110,6 izan zen.

Ukrainako gerrak eragin handia izan du energiaren merkataritzan; izan ere, produktu energetikoen defizit komertziala 2.600 milioi euro handitu da 2022an, 2021ean baino % 77,7 gehiago, eta 2021ean 3.346 milioiko defizit energetikoa izatetik 2022an 5.946 milioikoa izatera igaro da.

Eskaintzaren ikuspegitik, sektore guztiek izan dituzte urte arteko aldakuntza positiboak 2022. urte osoan, baina industriako eta zerbitzuetako jarduera hiruhilekoz hiruhileko motelduz joan da.

Balio errealetan, industriako BEGak % 4,6ko batez besteko hazkundea izan du. Manufaktura-industria industria osoa baino erritmo pixka bat motelagoan hazi da, % 4,3ko tasa zenbatetsia izanik. EAEko industriako BEGd-aren urteko batez besteko hazkunde hori Estatuan erregistratutakoa baino handiagoa da. Izan ere, EINen arabera, Estatuan +% 3 da.

2022ko abenduko IPIren urte arteko aldakuntza metatua, 2021eko abenduaren aldean, +% 5,7koa da EAE osorako, aurreko aldiko +%10,5aren aldean.

⁵⁰ Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailak egin berri duen adierazle sintetiko bat da. EAEko BPGd-arekin korrelazio handia duten hileko ehun aldagai inguru konbinatzen ditu. Serieak moteldu egin dira, eta, beraz, haien ibilbidea aldagaiaren joeratzat har daiteke.

Beharpena: $x < 50$

Hazkunde txikia: $50 < x < 100$

Hazkunde sendoa: $x > 100$

Maila teknologiko⁵¹ ertain eta altuko produktuen protagonismoa etengabe hazi da urteeta eta 2021ean (pandemiaren bigarren urtea) salmenten % 31,3, landunen % 32,1 eta balio erantsiaren % 32,7 xurgatu ditu. 2015ean, ehunekoak % 27 ziren salmentetan, eta % 30 inguru langile okupatuetan eta balio erantsian.

Eraikuntzaren sektoreak, balio errealetan, % 2ko batez besteko hazkundera izan du, hau da, aurreko urtean (urte horretako hazkundera % 4,5 izan zen) baino % 2,5 gutxiago. Eraikuntzaren Koiuntura Indizearen urteko balantze erlatiboak % 11,2ko urte arteko hazkundera erakusten du, lan-egutegiaren baldintza homogeneotan: % 9,8 eraikuntzan eta % 19,8 obra zibilean.

Zerbitzuen sektoreak, balio errealetan, % 4,7ko batez besteko hazkundera izan du urte osoan. Jarduera pribatuek, bereziki merkataritzako, garraioko eta ostalaritzako jarduerak, % 10,7ko hazkundera izan dute (+% 11,8koa 2021ean). Gainerako zerbitzuen adarrean sartzen diren jarduerak (higiezinen jarduerak, jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak, finantza- eta aseguru-jarduerak) % 2,8ko hazkundera izan dute, 2021eko % 4aren azpitik. Bestalde, administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen taldeak barne hartzen dituen jarduerak % 1,8ko urte arteko hazkundera izan dute (+% 3,1ekoa 2021ean).

EUSTATen txikizkako merkataritzaren salmenta-indizeak erakusten du 2021. eta 2022. urteen artean txikizkako merkataritzaren salmentak % 2,9 igo direla (lan-egutegiaren baldintza homogeneotan eta prezio konstanteetan). Hazkunde-ratio hori aurreko urtekoa baino txikiagoa da (+% 3,4). Zerbitzuguneak alde batera utzita, salmentak % 2,6 hazi dira (% +3,1 aurreko aldian). Elikaduraren sektorean, 2022. urtean metatutako salmentak 2021ean ikusitakoak baino % 0,4 txikiagoak izan dira. Gainerako produktuen sektoreko txikizkako merkataritzaren salmentak % 5,2 hazi dira eta automobilgintzarako erregaiarenak % 7,1.

Bestalde, azalera handietako eta elikadura-kateetako merkataritzaren indizeak (AHKI) % 0,2 egin du behera, aurreko urteko % 0,4ari gehituta. Jaitsiera gertatu da elikagaien salmentek behera egin dutelako (-% 4,2, eta horri gehitu behar zaio 2021ean izandako -% 3,9). Gainerako salgaien salmentek, aldiz, % 5,8 egin dute gora, aurreko aldiko % 5,8ari gehituta.

EUSTATen Establezimendu Turistiko Hartzailen Inkestako datuak erakusten dute 2022an berreskuratu egin direla EAeko establezimendu turistikoetako (hotel establezimenduak, landa-ostatuak eta apartamentu turistikoak) sarrerak eta ostatuko gauak, eta 2019. urtean lortutako zifrak ere gainditu egin direla. Hala, 2022. urtean 3.651.240 sarrera izan dira, 7.412.752 gaualdi orotara. Zifra horiek 2019an ikusitakoak baino % 6,1 eta % 5,6 handiagoak dira, hurrenez hurren.

Finantzen sektoreari dagokionez, Espainiako Bankuaren datuen arabera, administrazio publikoen titulartasuneko gordailuek 99.839 milioi euroko guztizko saldoa izan zuten EAEn 2021eko itxieran, hau da, urtean % 5,3 eta % 10,3 igo ziren Estatuko gordailuak. Beste sektore egoiliar batzuetako gordailuen (BSE) balioa 87.806 milioi eurokoa izan zen, hots, balioak % 1,1eko igoera izan zuen aurreko ekitaldikoaren aldean, eta % 6,2ko ratioa estatuko guztizkoaren gainean. Beste sektore egoiliar batzuen gordailuak modalitate desberdinen arabera aztertzen baditugu (agerikoa, epera eta aktiboen aldi baterako lagapena), hau ikusiko dugu: % 82,7 ageriko gordailuak dira, % 6,4 eperako gordailuak eta % 0,9 aktiboen aldi baterako lagapenak (ALL). Ageriko gordailuek hazten jarraitzen dute, neurri txikiagoan bada ere (+% 3,2, aurreko urtean +% 5,6 izan bazen ere), baina eperako gordailuek murrizten jarraitzen dute.

⁵¹ELGaren sailkapenaren arabera (EUSTATEk erabiltzen duena), maila teknologiko altuak 1 barne hartzen du. Farmazia-produktuen fabrikazioa, 2. Produktu informatikoen, elektronikoaren eta optikoen fabrikazioa, eta 3. Eraikuntza aeronautikoa eta espaziala. Erdi-altuan 4 daude. Industria kimikoa, 5. Armen eta munizioen fabrikazioa, 6. Material eta ekipo elektronikoaren fabrikazioa, makineriaren eta tresneriaren fabrikazioa, ibilgailuen fabrikazioa, 7. Garraioko beste material batzuen fabrikazioa, ontzizintza eta eraikuntza aeronautikoa eta 8 izan ezik. Tresna eta hornidura mediko eta odontologikoen fabrikazioa. Ertain-baxua 9 da. Euskarri grabatuen erreproduktzioa, 10. Koke-lantegiak eta petrolioaren fintzea, 11. Kautxuzko produktuen eta plastikoen fabrikazioa, metalezkoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa. Metalurgia, 12. Metalezko produktuen fabrikazioa, makineria eta armak eta munizioak izan ezik, 13. Ontzizintza, eta 14. Makineriaren eta tresneriaren konponketa eta instalazioa. Behekoa 15 da. Elikagaien, edarien, tabakoaren, ehungintzaren eta jantzizintzaren industria. Larruaren eta oinetakoaren industria. Zuraren eta paperaren eta kortxoaren industria, 16. Arte grafikoak, 17. Altzarien fabrikazioa, 18. Beste manufaktura-industria batzuk; eta 19. Sailkatu barik.

Gordailu-erakundeek administrazio publikoekiko eta beste sektore egoiliar batzuekiko emandako kredituaren saldo bizia % 0,5 jaitsi da (70.253 milioi eurotik 69.903 milioi eurora). Beherakada hori administrazio publikoei (-% 0.7) eta sektore pribatuari (-% 0,5) emandako kredituaren saldoaren jaitsierak eragin du. Gastu hori hain zuzen BPGd-aren % 86,6 da.

EINen datuen arabera, etxebizitzaren gaineko hipoteken kopurua % 8,6 igo da, eta etxebizitza hipotekatuaren gainean emandako batez besteko zenbatekoa % 1,9 handitu, 157.304 eurotik 160.310 eurora.

Bestalde, Bilboko Burtsaren 2000 Indizeak 1.310,5 puntu izan zituen 2022ko abenduan, hau da, % 6,2 jaitsi zen aurreko urteko abenduko datuekin alderatuta. Bilboko Burtsaren kontratazio-bolumena (erosketak eta salmentak) 64.979,2 milioi eurokoa izan zen, hau da, % 22 jaitsi egin zen 2021aren aldean.

Inflazioari dagokionez, KPIaren urte arteko tasa, 2022ko abendurako, % 5,4koa izan zen EAEn (% 5,7koa Estatuan). Inflazioa, berriz, apaldu egin zen urtearen azken herenean, eta urrundu egin zen unerik txarrenetako maximoetatik, orduan tasa % 10,5koa izan baitzen (uztaila). Urteko batezbestekoa % 8koa izan da, eta, Europakoa, % 8,4koa. Urteko bigarren erdian, batez ere, erregaien eta berokuntzarako gasolioaren prezioaren bilakaerak azaltzen du moteltze hori, baita elektrizitatea aurreko urtean baino gutxiago garestitu izanak ere. Hala ere, elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak % 15,1era igo ziren, inflazio orokorra baino ia hiru aldiz gehiago, eta arazo horrek Espainiako Gobernuak produktu jakin batzuen BEZa murriztera behartu zuen 2023ko urtarrilaren 1az geroztik. Hala, azpiko inflazioak gora egiten jarraitu zuen

EINen *Hiruhilekoko Lan Kostuaren Inkestaren* arabera (LKHI), EAEn, % 5,4 egin zuen gora enpresen⁵² laneko kostuak 2022ko laugarren hiruhilekoan 2021eko epealdi beraren aldean. (Estatuan % 4,2 handitu da), eta 3.564,8 euroan kokatzen da langileko eta hileko, hots, 568,2 euro gehiago Estatuan baino.

Lanaren itxurazko produktibitateari dagokionez, ekoizpena enpleguak baino pixka bat gehiago hazi denez gero, % 1,3 igo da 2022⁵³an kopuru errealean. Hazkunde horren arrazoia da produktibitatea handitu egin dela, batez ere industria-sektorean (+% 3). Eraikuntzaren sektorean % 0,3 hazi da, eta zerbitzuenean % 1.

EAEn bizi diren 18 urteko edo gehiagoko biztanleen batez besteko errenta pertsonala (errenta osoa), EUSTATen Errenta Pertsonal eta Familiarraren Estatistikaren arabera, % 0,9 jaitsi da 2019 eta 2020 artean, 22.343 €-ra iritsita. % 57,3 lanaren errentetatik dator, 12.806 € batez beste (-% 5,6 aurreko urtearekin alderatuta); % 30,8 gizarte-transferentzia edo prestazioetatik⁵⁴, 6.889 € batez beste (+% 14,2); % 7,4 kapital higiezin zein higigarriaren errentetatik (1.659 €); eta % 4,4 ekonomia-jardueren errentetatik (989 €). Kontuan izan behar dugu 2020. urtea Covid-19ak eragindako pandemiaren lehen urtea izan zela. Errenta osoa, esan bezala, da, eta hori osagai guztietara hedatu da, transferentziengatik errentara izan ezik, hark gora egin baitu.

Sexuaren arabera, gizonen eta emakumeen arteko banaketa desberdina da, eta agerian geratzen da dagoen genero-aldea. Hala, gizonek, batez beste (guztira), 27.422 €-ko errenta dute. Emakumeek, berriz, 17.667 €-koa batez beste, hots, gizonen errenta emakumeena baino 9.755 euro handiagoa da.

⁵² Industria, eraikuntza eta zerbitzuak (etxeen enplegatzaile jarduerak eta lurraldez kanpoko erakunde eta organismoen jarduerak izan ezik).

⁵³ Benetako produktibitatea bolumen kateatuko indizeetan, EUSTATen datuetatik abiatuz kalkulatu.

⁵⁴ Pensiones y haberes pasivos, prestaciones o subsidios de desempleo, prestaciones públicas por actos de terrorismo, ayudas percibidas por los afectados del virus de inmunodeficiencia humana y prestaciones por incapacidad permanente y prestaciones de la Seguridad Social por hijo a cargo.

Errentaren banaketari dagokionez (gutzizko errenta), 18 urte eta gehiagoko biztanleria egoiliarren % 59,5ek EAEko batez bestekoa (22.343 €) baino errenta pertsonal txikiagoa du, baina kontuan hartu behar da talde horretan sartuta daudela 2020an errentarik jaso ez duten pertsonak (% 13,5). Beste muturrean, biztanleria horren % 10ek batezbestekoa bikoizten duen errenta du, hau da, 44.958 eurotik gorako errentak.

Aldi berean, biztanleen % 37,2k 12.000 eurotik beherako errenta pertsonala du, eta % 43,8k 15.000 baino gutxiagokoa (kasu bietan barne hartzen da errentarik ez dutenen % 14,6).

Bestalde, Kanpo Inbertsioen Erregistroko datuen arabera, EAEko atzerriko inbertsioa, ABEEak kenduta, handitu egin da 2021etik 2022ra, 1.539,8tik 5.515,8 milioi eurora. Hala, EAE bigarren postuan dago inbertsioen bolumenari dagokionez, Madrilen atzetik. Sektoreka, inbertsio hauetan egindako inbertsioak bereziki nabarmenak dira, inbertsio osoan duten pisuagatik: material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa, ibilgailu motordunen eta garraiorako beste material batzuen fabrikazioa eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura. Lurraldearen ikuspegitik, 2022. urtean, Euskadin egin den inbertsioaren % 79,3 Europako herrialderen batetik dator, batez ere EB14tik (% 66,2). Esparru geografiko horren barruan, nabarmentzekoa da Alemaniatik egindako inbertsioa: 3.217 milioi euro. Europatik kanpo, AEBk egindako inbertsioa nabarmendu behar da (1.095,8 milioi €).

Bestalde, atzerrian egindako euskal inbertsioa, ABEEak kenduta, % 71 jaitsi da 2021. urtearekin alderatuta, eta 965,4 m € zen 2022an. Hala, EAE laugarren tokian da AA.EE.en rankingean atzerrian eginiko inbertsioan. Hauexek ditu aurretik: Madril, Galizia eta Asturias. Sektoreen aldetik, hauexek nabarmentzen dira: finantzen eta aseguruaren arloko jarduerak, ibilgailu motordunen eta garraiorako beste material batzuen fabrikazioa eta energia elektrikoaren, gasaren, lurrunaren eta aire girotuaren hornidura. Lurraldearen ikuspegitik, EAEko inbertsioa ELGAko herrialderen batera bideratzen da kasuen % 80,7. % 78,1 Europara (EB27-ra gutzizkoaren % 43,1 bideratzen da), % 2,2 Ipar Amerikara, % 7,8 Latinoamerikara, eta % 10,1 Asiara eta Ozeaniara.

EAEko sektore publikoari dagokionez, lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Estatistikaren arabera, Eusko Jaurlaritza osoak eta hiru foru aldundiek 2022an likidatutako diru-sarrerak 19.773,8 milioi eurokoak dira guztira, eta % 2,5eko beherakada izan dute aurreko urtearekin alderatuta (+% 11,7 2021ean). Izan ere, zuzeneko eta zeharkako zergen bidezko bilketa hazi bada ere (+% 7,3 eta +% 10,5, hurrenez hurren), transferentzia arruntak % 57,6 jaitsi dira. Aurreko urteko joera berari jarraituz, finantza-pasiboek % 67,1eko beherakada izan dute (horrek esan nahi du 2021ean baino zorpetze txikiagoa izan dutela). Zorpetzearen beherakada hori Eusko Jaurlaritzaren finantzetan (-% 57,6) eta foru aldundietakoetan (-% 85,4) gertatu da. Diru-sarreren igoera foru aldundietan bakarrik gertatu da (+% 3,7). Eusko Jaurlaritzan % 2,9 jaitsi dira, eta agregatua, esan bezala, % -2,5 izan da.

Balantzea eginda, Euskal Sektore Publikoak Erkidegoko BPGd-aren gainean dituen diru-sarreren multzoa, 2021ean % 26 zena, 2,7 puntu jaitsi da 2022an % 23,3ra arte (behin-behineko datuak), BPGd-a diru-sarrera publikoak baino gehiago hazi baita (+% 8,9 termino arruntetan, behin-behineko datuen arabera).

Zerga itunduek zuzeneko eta zeharkako diru-sarrera gehienak osatzen dituzte, eta gutzizkoaren % 90 baino gehiago, eta 2022rako 17.130,7 milioi euro bildu dituzte, hau da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 7,3 gehiago. Zifra horiek aurreikuspen baikorrenak gainditzen dituzte, pandemiaren aurreko datuak ere gainditzen dituzten erregistroekin (2019an baino ia 1.661,1 milioi gehiago biltzen dira). Diru-bilketaren hazkunde hori ekonomiaren hazkundera baino handiagoa da, baina kontuan hartu behar da bai inflazioak bai foru aldundiek enpresen diruzaintzako tentsioak arintzeko ezarritako ordainketa geroratzeko neurri jakin batzuek lagundu dutela diru-bilketa hori maximo historikoetan egiten. Biak hazi diren arren, 2022ean zeharkako zergen portaera hobea izan da (+% 8) zuzenekoarena baino (+% 7,4).

Guztira, 17.130,7 milioi euro bildu dira, hau da, 2021ean EAEko BPGd arruntaren % 20,2, behin-behineko datuen arabera (% 20,5koa 2021ean). Bildutako guztiaren % 37,9 PFEZari dagokio, % 40,4 BEZari, % 7,9 Sozietateen gaineko Zergari eta gainerakoa, % 13,8 zenbait zerga bereziri.

Bestalde, Euskal Sektore Publikoaren guztizko gastua (toki-erakundeak kontuan hartu gabe) 20.064,4 milioi eurokoa izan da 2022an, eta % 7,7 igo da 2021arekiko. Hala, magnitude horrek EAEko BPGd-aren gainean duen ehunekoa hiru hamarren murriztu da, % 23,9tik % 23,6ra, BPGd-aren bilakaera dela eta (% 8,9 hazi da uneko kopuruetan, behin-behineko datuen arabera). Gastuaren susperraldia bai Eusko Jaurlaritzan (+% 7,9) bai foru aldundietan (+% 7,1) gertatu da, eta +% 7,7ko agregatuaren aldakuntza gertatu da, partida batzuk erakundeen artean konpentsatzen direlako (transferentzien zati bat, adibidez).

Euskal Sektore Publiko osoko (tokiko erakundeak kanpoan utzita) gastu kapituluetak aldakuntzarik garrantzitsuenek zenbait alde erakusten dute aurreko urteetakoekin alderatuz gero. Lehenik eta behin, langile-gastuek aurreko urteetako joera positiboari eutsi diote, eta 2021ean baino gehiago hazi dira (+% 5,7, aurreko urtean baino 0,9 puntu gehiago), eta proportzio txikiagoan aldundietan (+% 4,1) gobernuan baino (+% 6), eta, aldi berean, transferentzia arruntak finkatu dira, aurreko urtean baino gutxiago (+% 2,1, 2021ean baino 6,4 puntu gutxiago). Funtzionamendu gastuek (ondasun eta zerbitzuen erosketari dagokionez), bestalde, aurreko urteetako joerari eutsi diote, eta 2021ean baino proportzio handiagoan hazi dira (+% 3,8, 2021eko +% 6,5ren aldean). Inbertsio errealei dagokienez, 2021ean nabarmen berreskuratu ziren aurreko urteko beherakadatik (+% 24,1), eta 2022an % 2,9 izan ziren, goranzko joerari eutsita, baina proportzio askoz txikiagoan. Foru aldundien bilakaera positiboaren (+% 8,4) eta Eusko Jaurlaritzaren bilakaera negatiboaren (-% 5,7) arteko konpentsazioari zor zaio hori.

Eusko Jaurlaritzaren gastuari dagokionez, EAEko 2022ko Aurrekontu Orokorrek Gauzatzeari buruzko datuen arabera, Eusko Jaurlaritzaren gastua % 7,9 handitu da 2021. urtearekin alderatuta, urte horretan % 8 handitu baitzen. Gastu bolumenagatik, bi sail nagusiak Hezkuntza (% 24,6) eta Osasuna (% 34,9) dira. 2020an betearazitako saldoa 13.721,9 milioi eurokoa, hau da, gure Erkidegoak urte horretan izan duen BPGd-aren % 16,1, behin-behineko datuen arabera.

Bestalde, 2022an Euskal Sektore Publikoaren (Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundiak) diru-sarrerak % 2,6 hazi izanak eta izaera bereko gastuak % 3,2 hazi izanak aurrezki gordina % 1,5 jaisteak ekarri du, 2.083,4 milioi euro guztira. Zenbateko honek gure erkidegoko BPGd-aren % 2,5 hartzen du (behin-behineko datuak). Horrez gain, 596,6 milioi euroko (BPGd-aren % 0,7) superabit publikoa izan da (finantzatzeko ahalmena), zeren eta finantzakoak ez diren gastuak (ohikoak gehi kapitalekoak) txikiagoak baitira horrelako sarrerak baino. Aurreko ekitaldian, 1.040,9 milioi euroko superabita izana zen (BPGd-aren % 1,3).

Eusko Jaurlaritzaren Aurrekontuen Betearazpenari buruzko Estatistikaren arabera, halaber, EAEko sektore publiko osoaren (Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundiak) zorpetze garbia (zorpetze gordinaren eta amortizazioaren arteko aldea), 2021ean berreskuratua 2020ko igoeratik, negatiboa da 2022an, hau da, amortizazioa handiagoa da zor berriaren jaulkipena baino. Zehazki, -422,8 milioi eurora iritsi da, 2021ean, aldiz, 856,3 milioira. Zorpetze gordina nabarmen murriztu da 2022an, % 67,1ekoa, 586,6 milioi eurora iritsi da. Horietatik 496,6 milioi Eusko Jaurlaritzari dagozkio (-% 57,4) eta gainerako 90 milioiak foru aldundiei (-% 85,4 2021arekin alderatuta).

Zorpetze gordinaren beherakada horrekin batera, gainera, dagoen zorraren amortizazio handia egin da, 2020koaren eta 2021ekoaren antzekoa (1.009,4 milioi euro, eta horietatik 746,2 Eusko Jaurlaritzari dagozkio). Hala, zor bizia % 3,2 jaitsi da ekitaldiaren amaieran. Ekitaldiaren amaieran, Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek 12.713,2 milioi euroko zorra aurkeztu dute (BPGd-aren % 15, behin-behineko datuen arabera; 2021ean, berriz, % 16,8). Beste urte batez, zorrik handiena Eusko Jaurlaritzak dauka (osoaren % 83,8, % 83 aurreko urtean).

Eta, azkenik, enplegu publikoari dagokionez, euskal administrazio publikoek 146.636 langile zituzten 2022 ko urtarrilaren 1ean⁵⁵, EUSTATen "Administrazio Publikoen Gida-zarrenda"ren datuen arabera. Hau da, aurreko urtean baino % 2,9 gehiago eta EAEn 2022ko lehen hiruhilekoan lan egiten zuten guztien %15,4 (2021eko ratio bera), BJaren okupazioari buruzko kopuruak kontuan hartuz gero. Datu horiek ez dituzte kontuan hartzen Estatuko Administrazioaren eta Gizarte Segurantzaren Sistemaren mendeko langileak, baina Lurralde Politikako eta Funtzio Publikoko Ministerioak, 2021eko urtarrileko estatistika-buletinean, kalkulatu zuen Euskadiko Estatuko Administrazio Publikoko langileak 9.747 zirela egun horretan (4.110 Estatuko Administrazio Orokorraren zerbitzura eta 5.637 "beste batzuk" kategorian, Estatuko segurtasun indarrak eta kidegoak barne). Zenbateko biak batzen baditugu, lanpostu publikoak, 2022aren hasieran, 156.383 inguru lirateke (aurreko urtean baino % 2,3 gehiago). Edozelan ere, zenbatespen bat baino ez da zenbateko hori, erreferentzia-data eta metodologia desberdinak erabili baitira⁵⁶.

EUSTATen kopuruak berriz ere aztertuta, 2022ko urtarrilean ziren 146.636 enplegatu publikoetatik % 65,6 EAEko administrazioa zen, % 18,4 tokiko erakundeetako, % 8,3 foru aldundietako eta gainerako % 7,6a unibertsitateko, fundazioetako eta beste erakunde publiko batzuetako. Bestalde, funtzionarioak langile guztien % 61,9 ziren, % 37,1 lan-itunpeko pertsonala zen, kasu bietan Osakidetzaren estatutuetoako pertsonala barne; %1 goi-mailako kargudunak ziren. Gainera, pertsonal finkoa (funtzionarioak, lan-itunpekoak eta estatutuetoakoak) pertsonalaren % 55,3 zen (2021ean baino -1,2 puntu gutxiago), % 18,1 bitarteko funtzionarioak ziren (+0,2 puntu) eta % 24,9 aldi baterako pertsonala zen (+0,8 puntu). Hala, bitartekotasun eta behin-behinekotasun maila % 43,7koa izan zen (% 42,5koa aurreko urtean).

Ekoizpenerako azpiegituri dagokienez, ingeniariaritzaz zibileko Estatuko erakunde publikoek (AENA, ADIF eta PORTUAK eta RENFE) EAEn egindako esleipenei buruz Garraio Ministerioak argitaratutako datuek erakusten dute erakunde guztiek behera egin dutela, ADIFek izan ezik, 2021etik 2022ra. Hala, PORTUenak 47,5 M €-tik 16,2 M €-ra igaro dira, AENarenak 6,1 M €-tik 4,4 M €-ra, eta RENFE OPERADOREARENAK 3,6 M €-tik 207 mila eurora. Bestalde, ADIFenak 66,4 M €-tik 156,4 M €-ra igaro dira.

Bide-azpiegiturari dagokionez, azpimarratu behar da, 2019ko datuekin, EAEko errepide-sarearen % 15,2 baino gehiago edukiera handiko bideak direla, eta Estatuan, berriz, % 10,5; bidesari-autobideak edukiera handiko errepideen % 39,6 dira EAEn, eta Estatuan, berriz, % 17,2.

Abiapuntua edo helmuga EAEn izanik (igarobideko nazioarteko trafikoa alde batera utzita) errepidez garraiatutako salgaien bolumena 105 milioi tonakoa izan zen 2022an, hau da, % 0,2ko igoera 2021. urtearekin alderatuta. % 45,5 eskualde barruko garraioa da; % 48,1, eskualde artekoa; eta % 6,4, nazioartekoa. Eskualdeen arteko eremuan, trukeen bolumen handiena Gaztela eta Leon, Nafarroa eta Kantabriarekin egin da berriz.

Trenbide azpiegiturari dagokionez, 2019. urteari buruz argitaratu diren datuen arabera, EAEko trenbide-sarea 549,4 kilometro burdinbidek osatzen dute. Haietatik, 517,4 (% 94,2) elektrifikatuta daude, eta horietatik % 64,7 ADIFenak dira; hark kudeatzen ditu distantzia ertaineko eta penintsularanzko ibilbide luzeko zerbitzuei lotutako azpiegitura eta Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuak.

EAEko trenbide-lineen kontzentrazioa Estatuko eta EB28ko gainerako lurraldeetako dentsitatea baino handiagoa da. Zenbakitan, bide-dentsitatea 77,9 m/km²-koa da, eta Europakoa (EB28) eta Estatukoa (48,4 m/km² eta 31,6 m/km², hurrenez hurren) baino nabarmen handiagoa da. Aldi berean, Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-linea guztiekin alderatuta, trenbide elektrifikatuek Estatuan eta Europan baino ratio handiagoa dute, trenbidearen egituraren % 94,2, % 64,3 eta % 54,6, hurrenez hurren.

⁵⁵ Lanaldi osoko langile landun baliokideak

⁵⁶ Ministerioaren datuek egonkorra deritzon plantilla zenbatesten dute, 6 hiletik beherako aldi baterako kontratuak baztertuz.

Euskal Y-ari dagokionez, 2022ko martxoan, Eusko Jaurlaritzak Gasteizko eta Bilboko sarbideetako obra zibilaren zati bat Espainiako Gobernuaren kudeaketa-enkarguaren bidez gauzatuko duela ezartzen duten protokoloak sinatu ziren; eta 2022ko apirilean, Eusko Jaurlaritzak baimena eman zuen Espainiako Gobernuak Eusko Jaurlaritzari Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriaren (AHT) Bilbo-Abando geltokira sartzeko igarobidearen obrak kudeatzeko ardura ematen dion hitzarmena sinatzeko.

Aireko garraioari dagokionez, Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2022an 5.748 mila bidaiari igaro ziren EAEko hiru aireportuetatik (% 89,2 Bilboko aireportutik), hau da, 2021eko bidaiariak halako bi (2.864 izan ziren 2021ean). Bestalde, salgaien trafikoa % 1,8 gehitu zen, eta 74.292 tonakoa izan zen. (% 99,1 Gasteizko aireportuan erregistratu zen).

Portuko trafikoari dagokionez (salgaiak, hornidura eta arrantza), Garraio Ministerioaren datuen arabera, 2021etik 2022ra % 5,1 egin zuen gora Bilboko Portuan. Bestalde, Pasaiaiko portuan, zeinak askoz ere kota apalagoak baititu, trafikoa % 6,4 jaitsi zen.

2021. urtean, EAEn **I+Gko jardueretan** 1.647 M€ inbertitu ziren EUSTATen arabera (% 10,5 gehiago, aurreko urte datuarekin alderatuz gero). Ahaleginari dagokionez, BPGd-aren % 2,11 da (% 2,07 aurreko urtean). Hala, goranzko joerak jarraitu egiten du.

Ratio hori estatuko batezbestekoa (% 1,43) baino handiagoa da, baina eurogunean ikusitakoa (% 2,31) eta gai horretan erreferentzia diren herrialdeetan erregistratutakoa baino txikiagoa. Azpimarragarriak dira, 2020ko datuen arabera, Hego Korean (% 4,81), Suedian (% 3,49), AEBn (% 3,45), Belgikan (% 3,38), Japonian (% 3,26), Austrian (% 3,22) eta Alemanian (% 3,13) antzemandako ratioak.

Gastua egikaritzeari dagokionez, % 77,4 enpresek egin zuten⁵⁷, % 16,2 goi mailako irakaskuntzak eta gainerako % 6,4 administrazioaren mendeko erakundeek. Horrela, enpresa-sektoreak jarraitzen du gasturik handiena gauzatzen, eta, gainera, haren pisua 7 hamarren igo da aurreko urtearekin alderatuta.

Gastu horren finantzaketari dagokionez, sektore pribatuaren partaidetza % 56,7koa da. Administrazio publikoak gastuaren % 32,9 finantzatzen du. Eurogunean, EUROSTATen 2020ko datuen arabera, portzentajeak % 58,2 eta % 29,3 dira. I+G arloko gastuaren finantzaketa pribatuaren ratioa oso handia izan da 2020an honako leku hauetan: Japonia (% 78,3), Txina, salbu Hong Kong (% 77,5), Hego Korea (% 76,3), AEB (% 66,3), Suitza (% 64,7), Alemania (% 62,6) eta Malta (% 60,2).

AOBko I+G-ko jardueretan enplegatutako langileak (20.804,2 pertsona) % 6,6 igo dira aurreko urtearen aldean. Sexuaren araberako azterketak agerian uzten du jarduera horietan enplegatutako langile guztien % 36,2 soilik direla emakumeak. I+G-ko egikaritze-sektorea kontuan hartuta, enpresen sektorean eta goi-mailako irakaskuntzan dago emakumeen presentzia kuantitatiboki nabarmenena: 4.531,2 eta 2.259,9 emakume, hurrenez hurren, eta 742,6 emakume Administrazio Publikoaren sektorean. Hala ere, Administrazio Publikoan, termino erlatiboetan, emakumeak langile guztien % 57,3 dira, goi-mailako irakaskuntzan % 48,9 eta enpresen sektorean % 30,4.

Orain, enpresaren sektoreko I+G-ko adierazleak aztertuko ditugu, betiere Zientzia eta Teknologia Euskal Sareko zentroak alde batera utzita. Lehenik, 2021an 1.399 enpresak egin zituzten I+G-ko jarduerak, aurreko urtean baino % 1,5 gehiago da. Horietatik 554 industria-sektorekoak dira (aurreko urtean baino 17 gutxiago), 786 zerbitzuen sektorekoak (44 gehiago), 45 eraikuntzakoak (5 gutxiago) eta 14 lehen sektorekoak (1 gutxiago). Jarduera horietan dedikazio osoan (AOB) diharduten langileei dagokienez, 10.915,3tik 11.794,7ra igo da, hau da, enpresa-sektoreko (ZTBEko zentro teknologikorik gabe) enplegu osoaren (AOB) % 1,3 osatuz. Ratio hori apur bat igo da aurreko urtearen aldean. Enpresek

⁵⁷ *Komeni da kontuan hartzea I+G arloko gastuaren zati handi bat Zentro Teknologikoen Sarearen bitartez bideratzen dela; izan ere, zentro horiek, haien izaera juridikoa dela eta, enpresa-sektorearen parte dira eragiketa estatistiko horretan.*

jarduera horietan egindako gastua ere igo egin da, % 13 hain zuzen ere, 1.011.656 mila eurora iritsita. Bukatzeko, nabarmentzekoa da I+G egiten duten euskal enpresen batez besteko tamaina handia; izan ere, 75 langile dira, euskal enpresaren multzoaren batez besteko tamaina baino askoz handiagoa (6 lagunekoa).

Enpresen berrikuntza-jarduerari dagokienez, 2021ean, EUSTATen arabera, 10 enplegu eta gehiagoko enpresen % 32,6 berritzaileak ziren, aurreko urtean baino ehuneko 1,2 puntu gehiago. Sektoreen aldetik, industria-enpresen % 38,5, zerbitzu-establezimenduen % 31,1 eta eraikuntza-enpresen % 27,8 dira berritzaileak.

EINen datuen arabera, EAEn 2020an 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 28 dira berritzaileak (memoriaren kapitulu honen itxieran argitaratutako azken datua), estatuko batezbestekoa baino ratio handiagoa (% 22,6). Autonomia-erkidegoen sailkapenean, EAE lehena da, eta ondoren doaz Madril eta Katalunia.

Jarduera berritzaileetarako gastuak lehen aldiz gainditzen ditu, EUSTATen arabera, 3.000 M € (3.029,8 M€), BPGd-aren % 3,88 osatuz. Gastu horretatik, gehiena barne I+G-ari dagokio.

Berrikuntza zailtzen duten faktoreei dagokienez, 10 lanpostu edo gehiago dituzten enpresen % 66,6k uste du hiru faktore nagusiak hauek direla: "enpresaren barruan beste lehentasun batzuk daude"; "kostu handiegia" eta "laguntzak edo dirulaguntzak eskuratzeko zailtasunak".

EUSTATen datuen arabera, 2021ean 10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 52,6k laguntza publikoak jasotzen zituen, eta Eusko Jaurlaritzaren tamaina horretako berrikuntza-jardueretan gastuak dituzten enpresen kopuru handiena finantzatzen zuena; zehazki, % 38,1. Foru-aldundiek eta toki-administrazioek % 20,6 eta % 9,9 finantzatzen zuten, hurrenez hurren; estatuko Administrazioak, berriz, era horretako enpresen % 16,6 finantzatzen zituen. Bestalde, EBk % 11,9 finantzatzen zuen: % 7,7 2020ko Horizon programaren bidez, eta % 6,2 Europako beste finantzaketa-mota baten bidez.

"Europako berrikuntza-adierazleen panelak (EIS) 2022" erakusten du EAE berriz ere "berrikuntza handiko herrialdeak" taldearen barruan kokatzen dela. Zehazki, sintesi-adierazleak 0,60ko balioa du, estatuaren (0,48) eta EB27ren (0,54) gainetik.

ESPARRU-BALDINTZEN blokean, EAEk 0,66 puntu lortu ditu EB27ko 0,46en aldean; gainera, gure Erkidegoak Europako batezbestekoa gainditu du osatzen duten hiru dimentsioetan: *Giza baliabideak*, *Ikerketa-sistema erakargarriak* eta *Digitalizazioa*. *Giza baliabideak* atalean, zeinak kualifikazio altua eta trebakuntza duen lan-indarraren erabilgarritasuna neurtzen baitu berrikuntzarako elementu gako gisa, Euskadi nabarmentzen da Europako batezbestekoaren gainean, hura osatzen duten hiru adierazleetan.

Bestalde, BERRIKUNTZA-JARDUEREN hirugarren blokean, zeinak enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten baititu, Euskadik Europako batezbestekoa baino puntuazio txikiagoa lortu du: 0,46 eta 0,50. Bloke honetako hiru dimentsioetatik –*Berritzaileak*, *Laguntzaileak* eta *Ezagutza-aktiboak*– Euskadi bigarrenaren soilik dago EB27ren aurretik. Bestetik, *Ezagutza-aktiboak* atalean, zeinak berrikuntza prozesuetan etekin gisa sortutako jabetza intelektualeko eskubide-moduak biltzen baititu, 0,35 da adierazlea, EB27ko batezbestekoaren (0,56) eta are estatukoaren (0,43) azpitik. Historikoki aztertuta, EAEk I+G jardueretan inbertsio handiak egin dituen bitartean, dirudienez, oraindik ere zailtasunak dauzka inbertsio hori emaitzetara eramateko, ezagutza-aktiboen adierazleek baxuak izaten jarraitzen dutelako; horrek efizientzia edo produktibitate txikiagoa erakusten du.

Bestalde, ERAGINEN blokean (enpresen berrikuntza-ahaleginak erakusten ditu), Euskadik Europako batezbestekoa baino puntuazio txikiagoa lortu du: 0,59 eta 0,62. Bloke honetako hiru dimentsioetatik (*Eraginak enpleguan*, *Eraginak salmentetan* eta *Ingurumen-jasangarritasuna*) Euskadi hirugarrenaren soilik dago EB27ren aurretik. *Eraginak enpleguan* atalean, zeinak enpleguan berrikuntzaren arrakasta ekonomikoa neurtzen baitu, EAEk 0,45 puntu ditu EB27ren 0,52en aldean.

Azkenik, Euskadi 2030 ZTBPre balantzeari dagokionez, Kontseilu honek, balorazioak egiteko oraindik goiz dela jakinik, honako hau antzeman du 2019-2021 aldian:

- Bilakaera positiboa adierazten duten adierazleak honako hauek dira: enplegu intentsiboa ezagutzan; I+G arloko inbertsioa; enpresek finantzaturako I+Gren gainera inbertsioa; EPO patenteen eskabide-kopurua; I+Gren nazioarteko finantzaketa; argitalpen zientifikoak nazioarteko lankidetzan; eta graduko STEM titulazioetarako sarbide berriak.
- Bilakaera negatiboa duten adierazleak honako hauek dira: nazioartean gehien aipatu diren top 10eko argitalpen zientifikoak, produktu berrien salmenta fakturazio osoaren gainean eta EBko diseinu industrialen eskabideen kopurua.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiei dagokienez 2022ko lehen hiruhilekoan, 15 urte edo gehiagoko internet-erabiltzaileak adin horretako EAEko biztanleen % 86,3 ziren, eta ehuneko hori 1,4 puntu handitu da 2021aren aldean. Komunikazioari eta informazioa eskuratzeari lotutako zerbitzuak dira erabiltzaileek gehien erabiltzen dituztenak, hala nola WhatsApp zerbitzua eta mugikorrerako antzeko beste aplikazio batzuk, adina, sexua edo jarduerarekiko harremana edozein dela ere, eta beti % 97 gainditzen dute modalitate horietan guztietan. Aipatzekoak dira, halaber, mezu elektronikoa jaso edo bidaltzea (% 83,1), ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa bilatzea (% 71,8) eta gaurkotatutako berriak, egunkariak edo aldizkariak irakurtzea (% 71,4).

EUSTATen *“Informazioaren gizarteari buruzko inkesta-IGI-enpresak”* delakoak bederatzi adierazle darabiltza enpresen eraldaketa digitala aztertzeko (4.0 industria)⁵⁸. 2022an, adierazlerik azpimarragarriena eta enpresa-tamaina alde batera utzita, enpresa-helburuetarako sare sozialak dira (establezimenduen % 55,2 eta 10 lanpostuko edo gehiagoko establezimenduen % 73,8). Gainerako adierazleetan, aldeak ikusten dira erabilera-rankinean, enpresaren tamainaren arabera. 10 lanpostu edo gehiagoko establezimenduen kasuan, aldaketa-prozesu horiek azkarrago ezartzen ari direnak honako hauek dira: cloud computing (% 50,2), zerbitzu mugikorak (% 49,3), zibersegurtasuneko jarduerak (% 47,7), big data analisia (% 25,9), eta gauzen Internet (% 25,6). Urrunago daude: robotika (% 12,9), 3D inprimagailuen erabilera (% 8,7) eta adimen artifizialeko sistemak (% 8,4).

Orain, EAEko egoera estatukoarekin erkatuko dugu arlo horretan. Horretarako, EINek 2022ko lehen hiruhilekoari buruz argitaratutako *“Enpresetako IKTen eta merkataritza elektronikoen erabilerari buruzko inkesta”*ko datuak erabiliko ditugu. Euskadi estatuko batezbestekoaren gainetik dago interneten eta web-orrien erabileran (bigarren postua du sailkapenean, Kataluniaren ostetik), urrutiko sarbidean (bigarren postua du sailkapenean, Kataluniaren ostetik), IKT segurtasun-neurrien erabileran (laugarren postua du sailkapenean, Asturias, Katalunia eta Madrilen ostetik) eta roboten erabileran (hirugarren postua du sailkapenean, Nafarroa eta Gaztela eta Leonen ostetik). Hala ere, gizarte-bitartekoen erabilera, adimen artifiziala eta big data analisia aztertuta, EAE estatuko batezbestekoaren azpitik dago, eta erdi inguruan autonomia-erkidegoen sailkapenean.

Telelanari dagokionez, EINen datuen arabera, 2022an, erregulartasunez telelanean aritzen diren pertsonen ratioa (telelana ahalbidetzen duten enpresetan) % 14,2koa da EAEn estatuko 19,5en aldean. Gure erkidegoan seigarren postua betetzen du estatuko sailkapenean, Madrilen (% 33,1), Kataluniaren (% 20,4), Ceutaren (% 19,5), Balearren (% 15,1) eta Nafarroaren (% 15) ostetik.

Transakzio elektronikoei dagokienez, EUSTATen datuen arabera, 2022an, 15 urteko eta gehiagoko euskal biztanleen % 55,1ek erosi ditu ondasunak eta zerbitzuak Interneten bidez. Kopuru hori 15 urte edo gehiagoko euskal biztanle

⁵⁸ Hauexek: sare sozialak enpresaren xedeetarako erabiltzea, “hodeiko” zerbitzu informatikoak erabiltzea, zerbitzu mugikorak erabiltzea, gauzen internet (IoT) erabiltzea, zibersegurtasuneko jarduerak, makrodatuen analisia (big data), adimen artifizialeko sistemak erabiltzea, 3D inprimagailuak erabiltzea eta robotikaren erabilera.

guztien % 47,6 da. 10 urte lehenago internet bidezko erosketak egiten zituzten pertsonen kopurua ia hirukoiztu egiten du (zehazki, 2,6 aldiz altuagoa) eta bost urte lehenago (2017an) baino % 40,1 gehiago da.

Bestalde, 2021ean 44.800 establezimendu inguruk egiten dute merkataritza elektronikoa EAEn; hau da, establezimendu guztien % 28,0 (aurreko urtean baino ehuneko 1,1 gehiago). Igoera hori erosketak elektronikokoak egiten dituzten establezimenduetan oinarritzen da (ratioa aurreko urtea baino ehuneko bat altua da), eta, neurri txikiagoan, salmenta elektronikoen (ehuneko 0,7 igo dira). Hala, establezimendu guztien % 25ek elektronikoki erosi zuten, eta % 8,3k salmenta elektronikokoak egiten zituzten.

EAEko merkataritza elektronikokoak berriro ere gora egin du zifra ekonomikoetan, aurreko urtearen aldean. Hala, sortutako negozio-bolumenak, sarearen bidez edo bestelako sistema elektronikoen bidez (EDI, datu elektronikoen trukea, eta abar), % 9,7 egin zuen gora salmenta elektronikoei dagokienez, eta orotara 24.224,9 M€ dira, eta % 8,7 erosketen aldetik, guztira 18.241,3 milioi eurora iritsita.

Jarraian, herritarrek eta enpresa-sareak **Administrazio Elektronikoen** gainean egiten duten erabilera aztertuko dugu.

Biztanleriari dagokionez, 2022an EAEko 15 urteko edo gehiagoko biztanleen % 60,7k administrazio elektronikoa erabili du, eta, administrazioek emandako zerbitzuen artean, administrazio-izapideak telematikoki egitea (betetako inprimakiak bidaltzea) izan da erabiliena (% 56,3), baita gehien igo dena ere 2022an (% +10,9).

Enpresa-sare osoan (hirugarrenen bidez Administrazio Elektronikoa erabiltzen duten establezimenduak eta Internet eduki ezin dezaketenak barne), 2022. urtean, enpresa guztien % 94,3 eta 10 enplegu edo gehiagoko enpresen % 97,5 izan dira administrazio publikoarekin elektronikoki jarduten zutenak. Datuek erakusten dutenez, 10 langile edo gehiago dituzten enpresek, baliabide gehiago dituztenez, izapide gehiago egiten dituzte zuzenean.

Enpresek Administrazioarekin egiten dituzten izapide-motak aztertuta, 10 enpleguko edo gehiagoko establezimenduen arloan, nabarmentzekoak dira: informazioa eskuratzea (tamaina honetako establezimenduen % 88,5), inprimakiak eta formularioak lortzea (% 86,9), eta betetako inprimakiak eta formularioak itzultzea (% 83,4). 10 langile edo gehiagoko euskal enpresek izapide elektronikoen horiek zein administrazioarekin egiten dituzten aztertuta, lehenik eta, Administrazio Zentrala dago, tamaina horretako enpresen % 89k harreman elektronikoa baitu harekin. Ondoren, Foru-aldundiak (% 88,5), Eusko Jaurlaritza (% 83,2), toki-erakundeak (% 50,3) eta, azkenik, EB eta beste batzuk (% 22,7) daude.

Azkenik, Administrazioaren telelana aztertuta, EUSTATen datuen arabera, 2021. urtean, euskal administrazio publikoko langileen % 11,6k bere lantokitik kanpo egin zuen lan, gutxienez lanaldiaren heren bat, erregularitasunez, sare telematikokoak erabiliz IKT sistemekin konektatzeko. Ratio hori 2022an jaitsi egin da, % 5,4ra. Euskal administrazio publikoan telelanean aritzen diren pertsonen ehunekoan ia ez dago alderik establezimenduen tamainaren arabera.

Next Generation dagokienez, gogoratu behar dugu 2021ean, Europako erakundeek Espainiako Erresumaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana (STEP) onartu zuten. Planak 140.000 M €-raino emango dizkio Espainiari transferentzietan eta kredituetan 2021-2026 aldian.

Plana zeharkako lau ardatzen inguruan dago egituratuta. Ardatz horiek ekonomia osoaren eraldaketa egituratuko dute, eta erabat lerrotatuta daude EBren agenda estrategikoekin, 2030 Agendarekin eta Nazio Batuen GJHeekin: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, genero-berdintasuna eta gizartearen eta lurraldearen kohesioa. Lau ardatz horiek 10 palanka politikan eta 30 osagaitan zehazten dira, eta 2023ra begirako erreformen eta inbertsioen programa garrantzitsua egituratzen dute. Osagai bakoitzak erronka edo helburu zehatz bat du ardatz, eta helburu horiek lortzen edo erronkak gainditzen laguntzen duten erreformak eta inbertsioak barne hartzen ditu, modu koherente eta

osagarrian. Horiatarako guztietarako, tarteko jomugak eta mugarriak, espero diren emaitzak, onuradunen kopurua eta elementu bakoitzaren kostu xehatua identifikatzen dira. Gaur egun, Euskadik funtsak jaso ditu STEPeko ia osagai guztiak estaltzen dituzten proiektuak abian jartzeko (30etik 26, besteak beste, Euskadin aplikatzen ez diren osagaiak daudelako).

2022aren amaieran, Estatuko Administrazio Orokorrak 19.000 milioi euro bideratu ditu ekonomia errealerara, ebatzitako lizitazio eta diru-laguntzen deialdien, hitzarmenen eta zuzeneko emakiden bidez. Informazio publikoaren azterketaren arabera, 14.100 milioi euro baino gehiagoko deialdiak ebatzi dira, baita 5.100 milioi euro gehiago ere, hainbat tresnaren bidez, hala nola hitzarmenak edo zuzeneko emakidak eta lurralde mailako deialdiak erabiliz, autonomia erkidegoen kudeaketarekin eta parte-hartzearekin ebatzita. Hedapen horren ondorioz, 150.000 enpresak baino gehiagok, 5.000 ikerketa-zentrok baino gehiagok eta 27.000 pertsona fisikok baino gehiagok jaso dituzte Europako funtsak. Enpresen sektorea da planaren onuradun nagusia, eta 10.000 milioi euro baino gehiago ditu bere proiektuak gauzatzeko. Azpiegitura fisikoetan, digitaletan, sozialetan eta ezagutzakoetan egindako inbertsio publikoekin batera, datu horiek funtsek ekonomia errealean duten eragin zuzena islatzen dute.

Lizitazioez, diru-laguntzez, hitzarmenez eta zuzeneko kontzesioez gain, Euskadik STEP funtsen onura ere jasotzen du, Eusko Jaurlaritzak eta euskal enpresek ESEPE-etan (PERTE) parte hartuta betiere. Ekonomia suspertzeko proiektu estrategiko handi horiek administrazioen, enpresen eta ikerketa-zentroen arteko elkarlana eskatzen dute, eta Ministro Kontseiluak onartzen ditu.

Planari heldu zaion konferentzia sektorialen bidez eta beste mekanismo batzuen bidez, 2022ko abenduaren 31n 20.628 milioi euro esleitu zitzaizkien autonomia erkidegoei Next Generation EB Europako funtsetatik, beren eskumenen esparruan proiektuak finantzatzeko, Suspertze Plana Betearazteari buruzko hirugarren txostenean aurkeztutako datuen arabera.

Funts horiek hauexekin lotutako politika publikoetara bideratzen dira: trantsizio ekologikoa (ekosistemak eta biodibertsitatea leheneratzea, energia berriztagarriak, mugikortasun iraunkorra, eraikinen birgaitze energetikoa eta trantsizio bidezkoa), digitalizazioa (ETEen digitalizazioa, administrazioaren modernizazioa, hezkuntzaren digitalizazioa, proiektu berritzaileak eta konektibitatea indartzea), gizarte-babesa (berdintasuna, gizarteratzea eta osasuna), hezkuntza eta lanbide heziketa (hezkuntza, lanbide heziketa, programak indartzea), turismo iraunkorra, enplegua, kultura eta zientzia. Gobernuak kalkulatu du Europako funtsak egikartzeko urte anitzeko aldian (2021-2026) autonomia erkidegoek % 54raino kudeatuko dutela beren eskumenen eremuetan inbertsioak hedatzeko.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren informazioaren arabera, 2022ko abenduaren 31n EAEn zuzenean banatu zaizkio Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren 1025,05 M €. Gainera, Euskadik Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren estatuko deialdietan duen partaidetza 508,76 M €-koa da (banatutako zenbatekoa). Eta, azkenik, gure erkidegoak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren estatuko kudeaketako zuzeneko emakidetan duen partaidetza 37,18 M €-koa da. Guztira, 1.570,99 milioi euro banatu dira EAEn.

2021arekin alderatuta, aurrerapen nabarmena egin da Euskadin banatutako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren funtsei dagokionez. 2021ean esleipena 481 M €-koa zen. 2022an kopuru hori, berriz, 1.500 M € baino gehiago da. Funts kopuru horri esker, Euskadik proiektuak jarri ahal izango ditu abian STEPeko ia osagai guztietan.

Lehenik eta behin, *SEM autonomia erkidegoei banatzeari dagokionez* (1.025,05 M €, Euskadiri banatuak), hauexek nabarmentzen ditugu:

- Funtsen % 27 etxebizitza birgaitzeko eta hiria berronertzeko planaren 2. osagaiarekin lotutako proiektuetara bideratu da (198,2 milioi euro).
- Funtsen % 11,9 zainketen ekonomiarako eta gizarteratze-politikak indartzeko talka planaren 22. osagaiarekin lotutako proiektuetara bideratu da (77,7 milioi euro).
- Funtsen % 6,7 energia berriztagarriak hedatzeko eta integratzeko 7. osagaiarekin lotutako proiektuetara bideratu da (68,8 milioi euro).

- Funtzen % 6,4 Gaitasun Digitalen Plan Nazionalaren 19. osagaiarekin (digital skills) lotutako proiektuetara bideratu da (63 milioi euro).

Gainera, funts horietatik Eusko Jaurlaritzak dagoeneko sartu den zenbatekoari buruzko informazioa ematen duela esan behar da, eta 2022ko abenduaren 31n 828 milioi euro zirela.

SEMen Estatuko deialdietan Euskadik duen parte-hartzeari dagokionez (508,76 M €), finantzazioaren bolumenagatik industriarekin, mugikortasun iraunkorarekin, etxebizitzak birgaitzearekin eta ETEen digitalizazioarekin lotutako proiektuak nabarmentzen dira:

- 65,3 M €, emisio txikiko eremuak ezartzeko eta hiri-garraioaren eraldaketa digitala eta iraunkorra egiteko udalerriei laguntzak emateko programarako (1. osagaia: Mugikortasun iraunkorrekotalka plana, segurua eta konektatua hiriko eta metropoliko inguruneetan).
- 22,7 M € etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko planerako (Osagaia: 2 Eraikin publikoen birgaitzea bultzatzeko plana (EPBUP) - EELL).
- 236,3 M € ibilgailu elektriko eta konektatuaren kate industrialeko jarduketa integraletarako (12. osagaia: Espainia 2030 Industria Politika).
- 18,9 M € I. segmentuko Kit - Digital-Enpresak programarako (13. osagaia: ETEak bultzatzea)

Euskadik SEMen estatuko kudeaketako zuzeneko emakidetan duen partaidetzari dagokionez (37,18 M €), finantzazio-bolumena dela eta, nabarmentzekoak dira etxebizitzak birgaitzearekin, landa-ingurunekeo energia garbiarekin eta hezkuntza sistemaren modernizazioarekin eta digitalizazioarekin lotutako proiektuak:

- 5,2 M €, DUS 5000rako: erronka demografikoa duten udalerrietan energia garbiko tokiko proiektu bereziak egiteko inbertsioetarako laguntzak (2. osagaia: etxebizitza birgaitzeko eta hiria berroneratzeko plana).
- 5 milioi euro, hainbat zentro zientifikori diru-laguntzak emateko, hizkuntzaren teknologiak sustatzeko (16. osagaia: Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionala).
- 16,3 M € hezkuntza sistema modernizatzeko eta digitalizatzeko, 0 eta 3 urte bitarteko hezkuntza goiztiarra barne (21. osagaia: Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen prestakuntza eta gaikuntza).

9.2. EKONOMIA

Kezkagarria da ziurgabetasun handiko agertokiak bere horretan jarraitzea, lehenik COVIDagatik eta gero Ukrainako gerragatik, ziurgabetasun horrek lasaitasuna galarazten baitie merkatuei, enpresen jarduera, prezioak eta etxe eta enpresen finantzaketa-kostua. Hala eta guztiz ere, enpresak ondo moldatzen ari dira jarduerari eta esportazioari dagokienez, eta horrek agerian uzten du oso garrantzitsua dela gure produkzio-sarearen lehiakortasun-indarguneari eustea eta hura hobetzea.

Hala ere, sektore guztiek urte arteko aldakuntza positiboak izan badituzte ere 2022. urte osoan, industriako eta zerbitzuetako jarduera hiruhilekoz hiruhileko dezeleratuz joan da. Hori dela eta, gure kezka adierazten dugu berriz ere, eta eskatzen dugu akordioak lortu eta neurriak hartu behar direla sortutako egoera ahalik eta modurik onenean eta inpaktu txikiarekin gainditzeko.

Bestalde, komeni da enpresa kopuruaren murrizketari erreparatzea, egoera konplexuaren isla izan daitekeena. Egoera horrek neurri gehigarriak hartzera eraman gaitzake produkzio-sareari eusteko eta enpresa-bokazioak eta ekintzailtza sustatzeko, zeren eta funtsezkoak baitira gure herriaren etorkizun ekonomikorako.

EAEko sektore publikoari dagokionez, Kontseilu honek nabarmentzen du, lehenik eta behin, COVID-19ak eragindako krisi ekonomiko eta sozial larriaren ondoren, 2022an amaitu dela 2021ean hasitako finantza publikoen susperraldia, batez ere inflazioak bultzatutako diru-bilketaren bilakaera positiboari esker. Izan ere, ez da deflaktatu diru-bilketan inflazio handiagoaren eragina osorik neutralizatzeko beharrezkoa izango zena.

Era berean, pandemiak inflazio handiari dagokionez sortutako desoreka handiak direla-eta, moneta-politikaren norabidean aldaketa gertatu den punturaino, zergen eta aurrekontuen gaineko politikak, funtsezko zerbitzu publikoak – batez ere osasuna eta gizarte zerbitzuak–, hezkuntza eta ikerketa hobetzeaz gain, kolektibo kalteberen eta funtsezkoen prezioen igoeraren presioa arintzeko laguntza tresna den aldetik erabili behar dira, kostuak pixkanaka birbanatuta horretarako.

Bestalde, inbertsio errealak, herrialdearen garapenerako funtsezkoak direnak ondo bideratuta daudenean, antza denez, bultzada galdu dute 2022. urtean (izan ere, Eusko Jaurlaritzak egindakoek behera egin dute). Ildo horretan, uste dugu beharrezkoa dela aurrekontuen arloko ahalegin garrantzitsua eta etengabea egitea etorkizunean inbertsio-maila onargarriei eusteko. Eta, ildo horretan, behin eta berriz esan nahi dugu Europako funtsen "Next Generation" aukera baliatu behar dela funtsezko zerbitzuak, inbertsio publikoa eta pribatua indartzeko.

Enplegu publikoari dagokionez, Kontseilu honek ohartarazi du beharrezkoa dela EAEko administrazio publikoetan bitartekotasunaren eta behin-behinekotasunaren tasa handiak zuzentzea, egiturazkoa bihurtu den irregulartasun bat zuzentzeko.

2022rako **ekoizpen-azpiegituren** egoerari dagokionez, azken urteotako inbertsio-erritmoak behera egin duela ikusita, badirudi komeni dela Europar Batasunak Arku Atlantikoko trenbide-azpiegiturarako ezarritako denbora-helburuak betetzeko, oinarrizko sareari dagokionez, eta, zehazki, Euskal Y-ari dagokionez, erakundeen konpromisoa indartzea eta eskumena duten administrazio eta erakunde publiko guztien inbertsioak ekonomikoki bultzatzea.

Ikerketa, garapen eta berrikuntza gakoak dira klima-aldaketaren, biodibertsitatearen galeraren, osasunaren, biztanleriaren zahartzearen, desberdintasunaren eta digitalizazioaren ziozko lehentasunezko erronkei aurre egiteko. Bestela esanda, I+G+b gakoak da erronka handi horiei aurre egiteko, aise gainditzen baititu ezagutzaren muga aurrera egiteko eta ekonomien lehiakortasuna sustatzeko helburu klasikoak.

Ezagutza berriek eta berrikuntzek gure gizartean martxan dauden eraldaketa ekologiko, digital eta sozialak sustatuko dituzte eta, modu bidezko, kontziente eta partaidean kudeatzen badira (adostuta), lagundu egingo digute azkarrago lortzen etorkizun jasagarria eta oparoa bai pertsonentzat bai planetarentzat, horixe baita denon desioa.

Pozeg egiaztatu dugu gure erkidegoak I+G+b arloan abantailak dituela, eta, horren arabera, Europako berrikuntza-adierazleen panelean goi-mailako berrikuntzako eskualdearen kategorian kokatuko litzatekeela.

Hala ere, azpimarratu beharra dugu gure enpresek oraindik ere zailtasunak dituztela merkatuan eta beren erakundeetan berrikuntzak sartzeko, bai eta I+G arloan egiten duten inbertsioa emaitzetara helarazteko ere. Horrenbestez, enpresa txiki eta ertainek berrikuntzarako dituzten oztopo nagusiak gainditzeko lan egitea komeni da.

Trantsizio digitalak eragin handia dauka eta izango du gure bizitzako alderdi guztietan. Beraz, kontuan izan behar dugu gure enpresek oraindik ere hobetzeko aukera handiak dituztela (zibersegurtasuneko jarduerak, big-data, IoT eta, neurri handiagoan, adimen artifiziala, robotikaren erabilera eta 3D inprimagailuak).

Politika industrialak (hau da, oro har, ekonomiako ekoizpen-sektoreen garapena sustatzeko eta ekoizpen-prozesuen egiturazko eraldaketa bultzatzeko politika publikoen multzoa) berariaz sartu behar du lan-dimentsioa, eta, beraz, neurriak hartu aldaketa teknologikoa teknologia berrien garapenera birbideratzen laguntzeko, enpleguaren alde eginez. Horretarako, teknologia distiratsuen erabilera sustatuko du, hala moduzkoak edo ordezkokoak diren horien aldean, ahal dela inomatizazioaren printzipioak jarraituz. Azken horretan, berrikuntza aplikatzen da, automatizazioa giza kapitalaren gaineko inbertsioarekin uztartuz. Enpleguaren gaineko ondorioak ez direnean seguruak, kualifikazio eta birkualifikazioko politikak aktibatu beharko dira.

Aurrerapen teknologikoak hainbestekoak dira, ezen zalantzan jartzen baita teknologia horien ongi komuna lortzeko erabilera arduratsu eta onuragarria egiteko gure gaitasuna. Beraz, bistan da zein garrantzitsua den gizartea eta enpresak sentibilizatzea aldaketa teknologikoen eta horien ondorio positibo nahiz negatiboen gainean.

Hori guztia dela eta, komenigarria iruditzen zaigu enpresak sentibilizatzen jarraitzea, beren tamaina edozein dela ere, beren egunerokoan I+G eta berrikuntza sartzeko, eta gizarteari eta gure enpresa-sareari orientazioa ematea, agertzen diren aldaketa eta trantsizioen gobernantza-modurik onenari buruz, hartara nahi ez diren ondorioak saihesteko eta nahi diren ondorioak areagotzeko.


Next Funts dagokienez, modu positiboan nabarmentzen dugu 2022an Europako funtsak azkarrago iristea, eta espero dugu egoera horrek hobetzen jarraitzea 2023an eta hurrengo urteetan, datozen urteetan posizio sendoan kokatuko gaituen eraldaketa sozioekonomiko bati aurre egin behar diogulako.

Gainera, ezinbestekoa da mekanismo burokratikoak hobetzen jarraitzea, produkzio-sarera funtsak iristea errazteko eta optimizatzeko. Hala, funtsen aparteko erabilgarritasun hori ahalik eta gehien aprobetxatuko da, horiek eskatzeko eta aplikatzeko epeak bete aurretik.

Ondoren, EAEko enpleguaren eta lan harremanen 2022ko bilakaerari buruzko zifra nagusiak emango dira. Lehenik eta behin, jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren bilakaera aztertuko da, baita gure Erkidegoak Europa mailan aldagai horien inguruan duen egoera erlatiboa ere. Geroago, lan-merkatuko sarreren eta irteeren balantzea eskainiko da (kontratazioak, aldi baterako kontratuen amaiera eta irazpenak), baita azken urtean EAEn izan diren laneko harremanen balantzea, soldaten zifrekin jarraituta, eta Estatu mailarekiko alderatzea ere.

Bigarren zatiaren ardatza enplegurako politika aktiboak dira: landunak, langabetuek lana eskuratzea lortzeko eta landunen enpleguari eusteko eta lanbidean promozionatu ahal izateko. Politika pasiboak, berriz, langabetuen babes ekonomikora bideratuta, eta baztertuak izateko arriskuan daudelako edo ezintasunaren bat dutelako arreta berezia behar duten pertsonentzako bestelako politika guztiak.

Kapitulua amaieran, Euskadin erreferentziako urtean lan osasunak eman dituen kopuru nagusiak ageri dira.



Hamabost urtez lanpostuak sortu ondoren, EAEko lan-merkatuan okupazio zifren jaitsiera aldi berean murgildu zen EAE. Ondorioz, 100.000 lanpostu galdu ziren 2013ra arte, guztizkoaren % 10. 2014. urtean berriz hasi ziren tasa positiboak ikusten, eta 2019ra arte eutsi zitzaion joera horri 2020an, 2019. urtean sumatzen zen motelaldiaren ondorioz eta, batez ere, eragiten digun pandemiaren ondorioz, lan-merkatuak okupazio-galera handia izan du: aurten, urtearen amaieran, BJAren 2,3ko jaitsiera izan zen, altako afiliazioaren oso antzeko datua (-% 2,2). BAIren Inkestak, bestalde, enpleguaren beherakada txikiagoa izan zela kalkulatu zuen, % 1,4koa.

2021ean, bigarren hiruhilekotik aurrera, lan-merkatuak okupazioaren pixkanakako susperraldia izan du. Hala, urtearen amaieran BJAk -laugarren hiruhilekoa- % 1,8ko hazkundera izan du (datu berrikusiak). Afiliazioen kopuruak, aldiz, pixka bat handiagoak izan dira (+% 2,2) BAIren Inkestak, bestalde, enpleguaren gorakada are handiagoa kalkulatu zuen, % 4koa.

2022an, lan-merkatuak, oro har, datu positiboak eutsi die, baina beherantzko joera progresiboarekin. Hala, lehenengo hiruhilekoan, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, enplegua % 5,7 igo zen, BJA % 3,2 eta Gizarte Segurantzako afiliazioa % 2,7. Laugarren hiruhilekoko datuak ez dira hain baikorrak: BAren arabera, enplegua % 0,8 jaitsi da. BJAr dagokionez, urtearen amaieran okupazioa % 1,6 hazi da. Altako afiliazioak, berriz, % 1,4 egin du gora 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Era berean, kapitulu honen 2. apartatuan zehatz-mehatz aztertzen denez, lan-kontratazioak, sei urteko bilakaera positiboaren ondoren, behera egin zuen 2020an (-% 30,2), eta nabarmen egin zuen gora 2021ean (+% 22,5). 2022an, lan-kontratuen guztizko kopurua % 5,3 jaitsi da, baina, lan-erreformaren ondorioz, aldaketa handiak izan dira haien izaeran: kontratatutako pertsonen kopurua % 6,9 igo da, eta kontratazio mugagabearen pisua, urte bakar batean, % 9,3tik % 24,5era.

Azkenik, BJAr arabera, 2022ko abenduan 89.800 pertsona inguru daude langabezian, 2021ean baino 14.400 pertsona gutxiago (eta 2019an baino 11.000 gutxiago, pandemia hasi aurretik). Hortaz, azken urtean langabeen kopurua % 13,8 jaitsi da.


1. JARDUERAREN, OKUPAZIOAREN ETA LANGABEZIAREN BILAKAERA

Atal honetan, gehienbat EUSTATen BJaren, LANBIDERen, EUROSTATen eta EEZPren datuak erabili dira nazioarteko erkaketak egiteko eta Gizarte Segurantzakoak afiliazioari buruzko informaziorako. Era berean, iturri horietan garrantzitsutzat jotzen diren lan-merkatuaren adierazleei buruzko informaziorik ez badago, eta autonomia-erkidegoen araberrako konparazioa egiten bada, EINen BJara jo da. Azkenik, ez dira kontuan hartzen EUSTATen Hileko Ekonomia Kontuetako (HEK) enpleguari buruzko datuak. Hori begiratzeko, jo beza irakurleak Memoria honetara: "II. Kapitulu. EAEko ekonomia".

1.1. JARDUERA

EUSTAT-en "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestaren" (BJSI) datuen arabera¹, EAEko **biztanleria aktiboa 2022. urtearen amaieran 1.052.700 pertsonakoa zen**, eta horietatik, % 51,8, gizonak ziren (545.700) eta % 48,2, emakumeak (507.000). Bi hamarkada lehenago, 2000. urtean, sexuaren araberrako banaketa 60/40 zen. Beraz, argi geratu da lan-merkatuan dagoen emakume kopurua handitu dela.

III.1.1. GRAFIKOA. EAE-KO BIZTANLERIA AKTIBOAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK. (MILAKOAK)



Iturria: EUSTAT. BAJ. Datu-bankua.

Gizonen biztanleria aktiboa nabarmen jaitsi zen 2008 eta 2012 bitartean, noiz-eta enplegurako aukerarik ezagatik lanerako adinean zeuden langabeen zati handi bat zuzenean joan zenean langabeziara. Emakumeek, ordea, 2011ra arte jarraitu zuten lan-merkatuan sartzen, eta aktibo kopuruak behera egin zuen 2012an eta 2016tik aurrera (ikus III.1.1 grafikoa). Bi bilakaera horien baturaren ondorioz, biztanleria aktiboa hazi egin zen Euskadin 2011ra arte. 2012tik 2017ra biztanleria aktiboa murriztu zen, zenbait intentsitaterekin. 2018an eta 2019an, aldiz, igoera txikiak izan ziren, eta biurteko horretan 14.000 aktibo irabazi ziren, kopuru absolututan. 2020an, biztanleria aktiboaren galera 4.600 pertsonakoa izan zen (-% 0,4), eta 2021ean 2.900 pertsona aktibo gehiago izan ziren (+% 0,3), berrikusitako datuen arabera. 2022an, biztanleria aktiboa ia ez da hazi, % 0,1 igo baita 2021arekin alderatuta (+700 pertsona).

Sexuaren arabera, azken urteko bilakaera ezberdina izan da: emakume aktiboak % 0,3 gehitu dira (+1.300). Gizon aktiboak, berriz, % 0,1 gutxitu dira, hau da, -600 pertsona². Bilakaera horien ondorioz, emakumeek EAEko lan-merkatuan duten partaidetza hamarren bat handitu da 2022an, % 48,1etik % 48,2ra.

¹ EUSTATen BJaren 2015eko metodologiaren arabera, hiru datu lortzen dira hiruhileko bakoitzerako. Aribideko urteko datuak "behin-behinekoak" dira, eta aurreko urteko urtarrilaren 1eko behin betiko biztanleria kontuan hartuz kalkulatu dira. Aurreko urteko datuak, urte horretako urtarrilaren 1ean egindako aurreikuspenarekin "berrikusi" dira. Bestalde, aurreko urteetako datuak, "behin betikoak" dira, behin betiko biztanlerian oinarritzen direlako. Horiek guztiak aldatu egiten dira urte bakoitzaren lehen hiruhilekoan aldatzen direnekin: [EUSTATen web gunea](#).

² Sexuaren araberrako aldateten batura maiz ez dator bat saldo osoarekin, datuak milaka adierazita daudelako, eta BJAk datuak biribiltzen dituelako.

Halaber, demografiaren bilakaeraren eta jarduera-mailen ondorioz, azken urtean **pertsona ez-aktibo**en kopuruak gora egin du pixka bat (+% 0,5) 814.800 izateraino, hain zuzen ere 2021eko amaieran baino +3.800 gehiago (-% 0,4 2020 eta 2021 bitartean). Horietatik % 43,1 gizonezkoak ziren eta % 56,9 emakumezkoak.


EAEko **jarduerata** orokorra % 56,4koa da 2022aren amaieran (2021ean baino hamarren bat gutxiago); emakumeena % 52,2koa da, eta

gizonena % 60,9koa (-0,2). EBN, 2022ko laugarren hiruilekoaren batezbestekoa % 74,8koa da (% 80,1 gizonen kasuan; % 69,6, emakumeena), aurreko urtean baino puntu bat gehiago.

Jarduera-tasek bilakaera desberdina dute adin-taldearen arabera: behera egin dute pixka bat, aurreko urtearekin alderatuta (-0,2 puntu), 45 urtetik gorakoaren artean (% 46,9), eta gora gainerako adin-taldeetan: 25-44 urteko tarteko adin-taldean, % 89ra iritsi da (+% 0,8), eta 25 urtetik beherakoaren artean, % 30,4ra (+0,9). Ratio hori 4,6 puntu txikiagoa da EBko batez bestekoa baino, % 35era iritsi baita 2022ko laugarren hiruilekoan. Aurreko krisiaren hasierari dagokionez, gazteen jarduerata ehuneko 1,2 puntutan murriztu da (2008an % 31,6 zen), eta 25-44 adin-taldean 7,3 puntu handitu da (% 81,7 2008an); 9,3 puntu, berriz, 44 urtetik gorakoetan (% 37,6 2008an).

Datuak sexuaren eta adinaren arabera gurutzatzen badira (III.1.2 grafikoa), ikus daiteke sexuaren araberrako arrakala handitu egiten dela adinak gora egin ahala. Lehenik eta behin, gazteen artean, jarduerata 3,3 puntu txikiagoa da emakumeen artean (% 28,7) gizonen artean baino (% 32). Tarteko adin-taldean (25-44 urte), bi sexuen arteko aldea handiagoa da: 5 puntu gehiago gizonen artean emakumeen artean baino (% 91,5 eta % 86,5). Eta 45 urteko eta hortik gorako pertsonen kasuan, sexuaren arabera alde hori askoz ere handiagoa da: % 52,2, gizonen jarduerata, emakumeen % 42,2ko tasaren aldean (10 puntuko tartea edo arrakala sexuen artean, 2021eko tasa berdina).

III.1.2. GRAFIKOA. EAE-KO JARDUERA-TASAK, SEXUAREN ETA ADIN-TALDEAREN ARABERA. 2022KO IV.




Azkenik, eginiko zenbatespenen arabera 2022ko 4. hiruilekoan **908.300 familia inguru dauden EAEn**: horietatik 602.500ek pertsona aktiboren bat dute (% 66,3) eta % 33,7k ez dute pertsona aktiborik (305.800). Halaber, 532.500 familietan, pertsona horien guztien erdia baino gehiago lanean ari zen (% 58,6), eta pertsona guztiak lanean ari ziren familiak guztizkoaren % 3,3 ziren, 29.700 lagun.

1.2. OKUPAZIOA

1.2.1. Okupazioaren datuak

BJAren datuek erakusten dutenez, gure Erkidegoan 2022an enpleguan izandako bilakaeran **okupazio edo enplegu tasa** % 51,6an kokatu zen urte amaieran³ (% 56,1, gizonen kasuan, eta % 47,4, emakumeenean), aurreko urtean baino 7 hamarren gehiago.

III.1.3. GRAFIKOA. EAE-KO OKUPAZIO-TASA, SEXUAREN, ADINAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.




Iturria: EUSTAT. BJA. Datu-bankua.

Lurraldeka, tasarik handiena Gipuzkoakoa da (% 52,8, 9 hamarren handitu da azken urtean). Haren atzetik Araba dago, % 51,6rekin (-1,4 puntu), eta azkenik, Bizkaiak dauka ratorik murriztuena, % 50,7. 1,1 hamarren irabazi du 2021ko laugarren hiruhilekoaren aldean.

Azken urtean, **2021eko abendutik 2022ko abendura** (IV. hiruhilekoa), **enplegua** % 1,6 igo da Euskadin (+15.100 lanpostu). Aurreko urtean, berriz, % 1,8 hazi zen (berrikusitako datuak), eta emakume landunen kopurua 6.900 hazi da (guztizko hazkundearen % 45, 2021ean % 28,7), eta gizonena, berriz, 8.300 (% 55). Ondorioz, urtea 962.900 landunekin amaitzen da, 502.600 gizonekin eta 460.300 emakumerekin (% 52,2 eta % 47,8, hurrenez hurren).

III.1.4. GRAFIKOA. EAE-KO OKUPAZIOAREN BILAKAERA, ADIN-TALDEEN ARABERA. MILAKOAK, IV. HIRUHILEKOAK.



Iturria: EUSTAT. BJA.

³ Oharra: bestelakorik ez bada esaten, okupazio-tasak 16 urtetik gorakoentzat dira, goitik adin-mugarik zehaztu gabe.

Adinaren arabera, 25 urtetik beherakoen okupazioa % 5,5 hazi da (2.400 landun gehiago). Hortaz, guztizkoan duten partaidetza % 4,6tik % 4,7ra igo da. 25 eta 44 urte arteko pertsona landunen kopuruak gora egin du: % 1,5 (5.700 pertsona gehiago). Hortaz, okupazioaren % 41,4 dira (2021ean, % 41,2); 45 urtetik gorakoen kopuruak ere gora egin du (+% 1,4 eta +% 7.000), eta % 53,8 dira (2021ean, % 54,2).

Estatuaren

testuinguruan, okupazioa % 1,4 hazi da batez beste (IV. hiruhilekoa, Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak) (+% 4,3 2021ean). Autonomia erkidego gehienek 2022an eutsi egin diete 2021ean suspertu ziren saldo positiboari, 2020an enpleguak beherakada handia izan ondoren.

BAIren datuen arabera, EAEk, 2021ean % 4 handitu ondoren, % 0,8 egin du behera 2022an.

III.1.2. TAULA OKUPAZIOAREN HAZKUNDEAREN ETA LANGABEZIA-TASEN BILAKAERA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

	HAZK. % OKUPAZIOA				LANGABEZIA-TASA			
	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022
ANDALUZIA	1,5	-1,7	5,4	0,4	20,8	22,7	20,2	19,0
ARAGOI	2,5	-3,9	3,7	-0,8	9,9	12,5	9	9,4
ASTURIAS	0,4	-1,9	3,1	-3,8	13,1	13,5	10	14,4
BALEAR UHARTEAK	2,5	-8,1	2,5	6,3	9,9	17,3	14,9	10,9
KANARIAR UHARTEAK	2,9	-12	13,4	5,6	18,8	25,2	18,9	14,6
KANTABRIA	1,3	-3	2,1	0,7	11,2	11,8	11,5	10,3
GAZTELA ETA LEON	1,3	-2,7	1,2	2,6	11,2	11,6	10,3	8,8
GAZTELA-MANTXA	-0,7	-0,3	5,8	0,4	16,6	17,4	13,3	14,4
KATALUNIA	2,6	-4	4,7	0,6	10,5	13,9	10,2	9,9
VALENTZIAKO ERK.	2,1	-3,4	4	4,9	14,1	16,4	14,4	13,5
EXTREMADURA	-0,1	1,4	2,6	2,4	23,5	21,3	18,9	17,6
GALIZIA	0,7	-1,4	1	1,2	11,7	11,7	11	10,6
MADRIL	4,6	-3,4	3,5	0,5	10	13,5	10,1	11,5
MURTZIA	1,2	0,4	6,1	0,8	16,1	15,4	12,9	12,9
NAFARROA	1	-3,2	3,4	1,8	9	11,7	9,9	10,1
EAE	0,3	-1,4	4,0	-0,8	9,1	10	8,4	8,7
ERRIOXA	1,3	0,3	0,1	3,0	9,9	10,4	10,5	8,6
CEUTA	1,1	-3,2	-1,1	9,0	27,6	26,7	26,9	30,6
MELILLA	-9,4	16,4	2,2	-8,1	26,8	23,8	20,2	21,2
ESTATUA	2,1	-3,1	4,3	1,4	13,8	16,1	13,3	12,9

Iturria: EIN: EPA.

III.1.3. TAULA OKUPAZIOAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.

		BATEZ BESTE (MILAKOTAN)					IGOERA (MILAKOTAN)		URTE ARTEKO ALDAKUNTZA-TASA (%)	
		2018	2019	2020	2021	2022	20-21	21-22	20/21	21/22
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	7,8	6,9	7,2	6,7	7,5	-0,5	0,8	-6,9	11,9
	INDUSTRIA	161,8	158,8	154,1	152,1	154,7	-2,0	2,6	-1,3	1,7
	ERAIKUNTZA	45,9	43,8	42,4	49,6	52,0	7,2	2,4	17,0	4,8
	ZERBITZUAK	276,7	289,9	278,9	286,1	288,4	7,2	2,3	2,6	0,8
	GUZTIRA	492,2	499,5	482,7	494,3	502,6	11,6	8,3	2,4	1,7
EMAKUMEAK	LEHEN SEKTOREA	2,6	1,6	0,9	1,3	1,8	0,4	0,5	44,4	38,5
	INDUSTRIA	42,9	43,8	44,7	46,0	37,8	1,3	-8,2	2,9	-17,8
	ERAIKUNTZA	5,1	5,6	7	5,9	7,2	-1,1	1,3	-15,7	22,0
	ZERBITZUAK	396,2	402,5	396,1	400,2	413,6	4,1	13,4	1,0	3,3
	GUZTIRA	446,8	453,5	448,7	453,4	460,3	4,7	6,9	1,0	1,5
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	10,4	8,5	8	7,9	9,3	-0,1	1,4	-1,3	17,7
	INDUSTRIA	204,7	202,6	198,9	198,1	192,5	-0,8	-5,6	-0,4	-2,8
	ERAIKUNTZA	51	49,5	49,4	55,5	59,1	6,1	3,6	12,3	6,5
	ZERBITZUAK	673	692,4	675,1	686,3	702,0	11,2	15,7	1,7	2,3
	GUZTIRA	939,1	953	931,4	947,8	962,9	16,4	15,1	1,8	1,6

Iturria: EUSTAT. "BJA". Datu bankua.

Jarduera-sektoreen arabera bilakaerari dagokionez, eta BJAren datuetara itzuliz, Euskadin azken urteko okupazioaren hazkundera batez ere zerbitzuetan gertatu da, 15.700 enplegu irabazi baitituzte (+% 2,3), okupazioaren guztizko irabazia baino handiagoa (+15.100). Bestalde, lehen sektorean 1.400 langile gehiago daude, % 17,7 igota. Industriak 800 lanpostu galdu zituen 2021ean (-% 0,4), eta 5.600 gehiago zituen 2022an, -% 2,8ko tasarekin, gizonen enpleguaren datu positiboaren (+% 1,7) eta emakumeen enpleguaren datu negatiboaren (-% 17,8) agregatu gisa, baina kontuan hartu behar da, 2022an ere, industriako enpleguaren % 80,4 gizonekoena zela. Eraikuntzaren sektorean 3.600 langile gehiago daude, % 6,5eko tasarekin (2021ean baino 5,8 puntu gutxiago).

Lanaldi motari dagokionez, EAEko lanaldi partzialeko enpleguaren ratioa, BAIren arabera, % 15,3 zen 2022ko 4. hiruhilekoan aurreko urtearen aldean. Estatukoa, berriz, % 13,6koa, (% 13,3 EUROSTATen arabera). Bai gure erkidegoan, bai

III.1.4. TAULA. LANALDI PARTZIALEKO OKUPAZIOAREN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA IV HIRUHILEKOAK.								
		2018	2019	2020	2021	2022	ALD. 20-21*	ALD. 21-22*
EAE	GUZTIRA	16,4	17,5	15,8	16,7	15,3	0,9	-1,4
	GIZONAK	7,1	7,3	6,2	7,6	7,5	1,4	-0,1
	EMAKUMEAK	26,5	28,5	26,2	26,2	24,1	0,0	-2,1
ESPAINIA	GUZTIRA	14,8	14,7	14,5	13,6	13,6	-0,9	0,0
	EMAKUMEAK	6,9	7	6,9	6,2	6,7	-0,7	0,5
27KO EB	GUZTIRA	18,2	18,3	18,1	17,8	17,6	-0,3	-0,2
	GIZONAK	8,3	8,4	8,4	8,1	8,2	-0,3	0,1
	EMAKUMEAK	29,9	29,9	29,4	28,9	28,4	-0,5	-0,5

Iturria: EUROSTATen eta EINen (BAI) datuekin guk geuk egina (22/04/22ko datuak).
*Aldaketa ehuneko puntuetan.

Estatuan, alde handia dago sexuaren arabera: EAEn, lanaldi partzialeko enplegu-tasa laurden bat baino gehiago da emakumeen artean (% 24,1). Gizonen artean, berriz, % 7,5 da. Espainian (batez beste), emakumeen ratioa % 21,6 da eta gizonena, berriz, % 6,7. Lanaldi partzialeko enpleguaren ratioa azken urtean soilik handitu da EAEn gizonen artean (-1,4 puntu batez beste, eta -0,1 puntu gizonetan; emakumeen tasa -2,1 da). Hortaz, sexuaren araberako aldea murriztu egin da, 2021ean 18,6 puntukoa izatetik 2022an 16,6koa izatera.

EBn, lanaldi partzialeko enplegu-tasa, 2022an (IV. hiruhilekoa), % 17,6 da (% 20,5 eurogunean), halakorik ia existitzen ez den herrialdeekin (% 1,6 Bulgarian, % 3,1 eta % 3,2 Eslovakian, eta % 3,2 Errumanian), eta % 25 gaintzen duten beste batzuekin: Austria (% 29,7) eta Alemania (% 28) eta, bereziki, Herbehereak (% 42,2). Gainera, EBko herrialde guztietan, EAEn bezala, emakumeen lanaldi partziala gizonen baina askoz handiagoa da (batez beste % 28,4, gizonen % 8,2aren aldean), eta % 40 gaintzen da herrialdeetako hirutan: Alemania, Austria eta Herbehereak.

III.1.5. TAULA. ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKO BIZTANLEEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.								
		2018	2019	2020	2021	2022	ALD. 20-21*	ALD. 21-22*
EAE	GUZTIRA	26,5	24	22,6	25,3	19,6	2,7	-5,7
	GIZONAK	24	21,3	19,2	21,9	15,3	2,7	-6,6
	EMAKUMEAK	29,2	26,7	26	28,6	24,2	2,6	-4,4
ESPAINIA	GUZTIRA	26,9	26,1	24,6	25,4	17,9	0,8	-7,5
	EMAKUMEAK	26,2	24,9	22,8	23,1	15,5	0,3	-7,6
27KO EB	GUZTIRA	15,4	14,8	13,5	14,0	13,5	0,5	-0,5
	GIZONAK	14,8	14,3	12,8	13,3	13,2	0,5	-0,1
	EMAKUMEAK	16	15,4	14,4	14,8	14,9	0,4	0,1

Iturria: EUROSTATen eta EINen (BAI) datuekin guk geuk egina (23/05/02ko datuak).
*Aldaketa ehuneko puntuetan.

Behin-behinekotasun mailei dagokienez, 2022ko 4. hiruhilekoan aldi baterako lan-kontratu zuten soldatapeko pertsonen portzentajea Euskadin % 19,6 zen, aurreko urtean baino 5,7 puntu gehiago. Estatuko batez bestekoa, berriz, % 17,9 (% 18 EUROSTATen arabera) zen, 7,5 hamarreneko jaitsierarekin.

Sexuaren arabera, % 24,2ko tasa da Euskadin emakumeentzat, gizonen tasa baino 8,9 puntu handiagoa. Arrakala hori 2,2 puntu igo da azken urtean (III.1.5. taula).

Behin-behinekotasun maila handi horiek, Espainian ez ezik, Herbehereetan ere gertatzen dira (% 27,5), eta horien atzetik daude, baina urruti, Italia, Portugal eta Finlandia, % 16 eta % 17 inguru hiruretan). Europar Batasun osoan, batez bestekoa % 13,5 da (gizonen % 13,2 eta emakumeen % 14,9), eta euro-gunean % 14,6koa (gizonen % 14,5 eta emakumeen % 16,2, hurrenez hurren). EUROSTATen datuak 2022eko laugarren hiruhilekorako dira.

III.1.6. TAULA. SEKTORE PUBLIKOAN ETA PRIBATUAN ALDI BATERAKO KONTRATUA DUTEN SOLDATAPEKO BIZTANLEEN EHUNEKOAREN BILAKAERA. EAE ETA ESTATUAREN ARTEKO ALDEA IV. HIRUHILEKOAK.						
	GUZTIRA		SEKTORE PRIBATUA		SEKTORE PUBLIKOA	
	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA
2016	23,4	26,5	21,8	27,4	31,5	22,8
2017	26,1	26,7	24,2	27,3	34,6	24,1
2018	26,5	26,9	24,3	27	35,6	26,3
2019	24	26,1	20,5	25,7	39,1	27,8
2020	22,6	24,6	18,4	23,2	40,2	29,9
2021	25,3	25,4	23,2	23,9	44,6	31
2022	19,6	17,9	13,5	14,8	43,9	30,2
ALD. 20-21*	2,7	0,8	4,8	0,7	4,4	1,1
ALD. 21-22*	-5,7	-7,5	-9,7	-9,1	-0,7	-0,8

Iturria: EIN. EPA.
*Aldaketa ehuneko puntuetan.

Sektore pribatuko eta sektore publikoko soldatapekoen behin-behinekotasun tasak alderatuta ikusten denez, alde nabarmena dago Estatuko kopuruaren eta EAEkoaren artean. EAEn, nabarmen handiagoa da behin-behinekotasun tasa sektore publikoan sektore pribatuaren baino, eta alde horri eusten zaio, zenbait gorabeherarekin, azken hamarkadan baino denbora luzeagoan.

2022ko laugarren hiruhilekoan, sektore publikoko behin-behinekotasun tasa EAEn % 43,9 izan zen sektore pribatuaren % 13,5aren aldean. Horrenbestez, 30,4ko puntu daude sektore publikoaren alde. Estatuko batez bestekoan, aldiz, % 30,2ko eta % 14,8ko ratioak ziren hurrenez hurren, eta, beraz, 15,4 puntu positiboko aldea dago.

III.1.7. TAULA. ENPLEGU ADIERAZLEAK EB-N. IV HIRUHILEKOAK.										
	L. PARTZIALEKO ENPLEGUAREN %					ALDI BATERAKO ENPLEGUA %				
	2020	2021	2022	20-21*	21-22*	2020	2021	2022	20-21*	21-22*
27KO EB	18,1	17,8	17,6	-0,3	-0,2	13,5	14,0	13,5	0,5	-0,5
EUROGUNEA	21,3	21	20,5	-0,3	-0,5	14,4	15,5	14,6	1,1	-0,9
BELGIKA	24,1	24,2	23,8	0,1	-0,4	10	10,3	9,9	0,3	-0,4
BULGARIA	1,6	1,6	1,6	0	0	3,2	3,7	3,4	0,5	-0,3
TXEKIAR ERREP.	5,5	5,9	6	0,4	0,1	7,2	5,8	6,1	-1,4	0,3
DANIMARKA	23,1	24,3	24,2	1,2	-0,1	10,5	11,6	10,4	1,1	-1,2
ALEMANIA	:	28,2	28	:	-0,2	:	11,3	12,4	:	1,1
ESTONIA	12,8	12,4	13,2	-0,4	0,8	3	:	2,9	:	:
IRLANDA	17,8	20,8	20,1	3	-0,7	9,1	8,7	7,9	-0,4	-0,8
GREZIA	7,7	9	8	1,3	-1	9,6	9,2	9,1	-0,4	-0,1
ESPAINIA	14,3	13,4	13,3	-0,9	-0,1	24,7	25,5	18	0,8	-7,5
FRANTZIA	16,8	17	16,5	0,2	-0,5	15,3	15,7	15,2	0,4	-0,5
KROAZIA	4,8	4,6	4,7	-0,2	0,1	15,5	12,5	14,1	-3	1,6
ITALIA	18,1	18,5	17,9	0,4	-0,6	15,5	17,2	16,4	1,7	-0,8
ZIPRE	10,3	10,1	9,3	-0,2	-0,8	13,1	12,4	11,4	-0,7	-1
LETONIA	9,2	6,9	6,6	-2,3	-0,3	3	2,8	2,7	-0,2	-0,1
LITUANIA	6,1	5,9	5,7	-0,2	-0,2	1,1	1,7	2,1	0,6	0,4
LUXENBURGO	17,6	17,6	18,2	0	0,6	8	7,7	7,2	-0,3	-0,5
HUNGARIA	4,4	4,5	4,2	0,1	-0,3	5,6	5,5	5,4	-0,1	-0,1
MALTA	10,9	10,1	11	-0,8	0,9	9,3	8,1	7,6	-1,2	-0,5
HERBEHEREAK	51,2	42,7	42,2	-8,5	-0,5	17,9	27,5	27,5	9,6	0
AUSTRIA	27,5	29,2	29,7	1,7	0,5	8,1	8,7	8,9	0,6	0,2
POLONIA	5,6	4,9	5,4	-0,7	0,5	17,6	14,4	14,9	-3,2	0,5
PORTUGAL	7,3	7,1	6,8	-0,2	-0,3	17,6	16,2	17,4	-1,4	1,2
ERRUMANIA	5,4	3,2	3,3	-2,2	0,1	1,1	2	2,3	0,9	0,3
ESLOVENIA	8,2	9,6	8,7	1,4	-0,9	9,7	12,5	10,3	2,8	-2,2
ESLOVAKIA	4,4	3,1	3,1	-1,3	0	5,8	4,5	4,3	-1,3	-0,2
FINLANDIA	15,7	17,6	16,9	1,9	-0,7	13,7	15,2	15,1	1,5	-0,1
SUEDIA	22,4	20,4	20,2	-2	-0,2	14,5	13,5	14,1	-1	0,6
EAE	15,8	16,7	15,3	0,9	-1,4	22,6	25,3	19,6	2,7	-5,7

Iturria: EUROSTATen eta EINen datuekin guk geuk egina (23/05/03ko datuak).
*Aldaketa ehuneko puntuetan.


1.2.2. Gizarte Segurantzako afiliazioa

2019aren amaieran, EAEk 980.592 afiliatu zituen (abenduko batez besteko datua). 2020an sortutako pandemiaren ondorioz, afiliazioa % 2,2 jaitsi zen, eta urte hartako abenduan 959.132 pertsona zeuden. Hala, 21.460 afiliatu galdu ziren altan, sei urtez jarraian bilakaera positiboa izan ondoren. 2021eko abenduan, altako afiliazioak berriz ere gora egin zuen, % 2,2 aurreko urtearekin alderatuta, 980.022 pertsona, eta ia pandemiaren aurreko zifrak berreskuratu ziren.

2022an, afiliazioak hazten jarraitu du Euskadin, eta, abenduan, 994.077 afiliatu zeuden alta emanda. % 48,2 emakumeak ziren, eta % 51,8 gizonak (aurreko urteko ratioen antzekoak). Zifra hori % 1,4 igo da aurreko urteko hil beraren aldean (+% 2,4, batez beste, Estatuan), eta altan afiliatutako 14.055 pertsona irabazi ditu, pandemiaren aurrekoak, III.1.5 grafikoan ageri denez. Gainera, 2022. urtearen amaieran, 2008ko uztailleko maximo historikotik gora dago afiliatuta Euskadin; urte horretan 982.935 pertsona zeuden afiliatuta.

Estatuan, bestalde, 2022ko abenduan, 20,3 milioi afiliazio daude alta emanda, pandemia hasi aurretik baino 890.000 pertsona gehiago.

III.1.5. GRAFIKOA. GIZARTE SEFGURANTZAKO AFILIZAZIOA EAE-N, SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEAK.



Iturria: INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIOEN MINISTERIOA.

Lurraldeka, Bizkaiak izan du bilakaerarik onena (+% 2,2), 10.842 afiliatu gehiago altan, eta Arabak 2.808 pertsona zale gehiago, % 1,7ko igoerarekin. Gipuzkoan ere gora egin du, baina batez bestekoa (% 1,4) baino gutxiago, eta 3.776 afiliazio irabazi ditu (+% 1,2) 2021eko abenduaren aldean. Azken urte honetan, autonomia erkidego guztietako afiliazioak gora egin du altan. 2021ean bezala, hazkunderik handiena Kanarietan izan da (+% 5,2), ondoren Ceutan eta Balear Uharteetan (+% 4,5 eta +% 4, hurrenez hurren).

III.1.8. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZATZAILEAK*, LURRALDEAREN ETA SEXUAREN ARABERA⁴. ABENDUAN NEURTUTAKO DATUAK.

		ABENDUKO BATEZ BESTEKO DATUAK						ALDAKETA 20-21		ALDAKETA 21-22		
		2017	2018	2019	2020	2021	2022	Abs.	%	Abs.	%	
ARABA	GIZONAK	85.743	86.418	87.466	84.524	86.261	87.880	1.737	2,1	1.619	1,9	
	EMAKUMEA	70.568	72.258	74.028	71.762	74.367	75.555	2.605	3,6	1.188	1,6	
	GUZTIRA	156.311	158.676	161.494	156.286	160.628	163.436	4.342	2,8	2.808	1,7	
GIPIZKOA	GIZONAK	167.374	170.784	172.561	168.064	170.714	172.731	2.650	1,6	2.017	1,2	
	EMAKUMEA	147.435	150.732	155.155	153.228	156.195	157.953	2.967	1,9	1.758	1,1	
	GUZTIRA	314.809	321.516	327.716	321.293	326.909	330.685	5.616	1,7	3.776	1,2	
BIZKAIKA	GIZONAK	245.332	249.422	251.749	246.458	248.334	254.667	254.667	1.876	0,8	6.333	2,6
	EMAKUMEA	227.535	232.490	239.632	235.094	240.780	245.289	5.686	2,4	4.509	1,9	
	GUZTIRA	472.867	481.912	491.382	481.553	489.114	499.956	7.561	1,6	10.842	2,2	
EAE, GUZTIRA	GIZONAK	498.442	506.624	511.776	499.047	508.322	515.278	9.275	1,9	6.956	1,4	
	EMAKUMEA	445.538	455.480	468.815	460.085	471.700	478.797	11.615	2,5	7.097	1,5	
	GUZTIRA	943.987	962.104	980.592	959.132	980.022	994.077	20.890	2,2	14.055	1,4	

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

Sexuaren arabera, aldea oso txikia bada ere, emakumeen afiliazioak portaera hobea izan du, % 1,5 igo baita, eta gizonena, berriz, % 1,4. Bestela esanda, urtean 6.956 gizon afiliatu gehiago daude alta emanda Gizarte Segurantzaren (igoera osoaren % 49,5) eta 7.097 emakume afiliatu gehiago (% 50,5).

Araubideen arabera, 10 afiliatuetatik, 8 (% 82,7) altan zeuden 2022ko abenduan, Araubide Orokorrean. Horrez gain, guztizko datuek baino bilakaera hobea izan du, azken urtean % 1,8 handitu baita, batezbestekoaren +% 1,4aren aldean. Bigarrenik, afiliazioaren % 17 langile autonomoei dagokie, eta % 0,4ko beherakada izan da 2021arekin alderatuta. Azkenik, itsasoko afiliazioaren araubideak kopuru osoaren % 0,3 barne hartzen du (-% 2,2 aurreko urtearen aldean).

⁴ Guztizkoa, batzuetan, ez dator bat gizon eta emakumeen baturarekin, zenbait erregistrotan ez delako jasotzen afiliatuaren sexua.

III.1.9. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA EAE-N, ARAUBIDE ETA LURRALDEEN ARABERA. ABENDUKO BILAKAERA 2020-2022.

	2020	2021					ALDAK.: 20-21		ALDAK.: 21/-22		
			ARABA	GIPIZKOA	BIZKAIA	EAE	Abs.	%	Abs.	%	
ARAUBIDE OROK.	OROKORRA	756.010	776.853	139.670	254.396	397.653	791.719	20.843	2,8	14.866	1,9
	NEKAZARITZA	2.118	2.109	733	605,55	64.725	1.985	-9	-0,4	-124	-5,9
	ETXEKO Z.B.	27.872	28.008	2.849	9.633	15.600	28.081	136	0,5	73	0,3
	GUZTIRA	785.999	806.971	143.251	264.635	413.900	821.786	20.972	2,7	14.815	1,8
AUTONOMOAK	169.618	169.680	20.185	65.425	83.385	168.995	62	0	-685	-0,4	
ITSASOA	3.515	3.371	0	624,95	2.671	3.296	-144	-4,1	-75	-2,2	
GIZ. SEG. SISTEMA, GUZT.	959.132	980.022	163.436	330685	499956	994077	20890	2,2	14055	1,4	

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa. GSDN. Guk geuk egina.

Eta, **araubide orokorreko kontratu motaren arabera** (nekazaritzako eta etxeke kontratu bereziak alde batera utzita), guztiek bilakaera positiboa izan dute +% 12,4), eta afiliazioaren gorakadarik handiena aldizkako langile finkoen artean gertatu da (+% 88,5), guztizkoaren % 3,4 baino ez badira ere. Afiliazio mugagabearen artean, gehikuntzarik handiena lanaldi partzialeko mugagabeen izan da (+% 27,7, hau da, 22,1 puntu gehiago 20/21 aldakuntza baino), eta lanaldi osoko mugagabearen igoera, berriz, 2021ean baino 6,6 puntu handiagoa izan da, % 9,4koa.

Aldi baterako kontratudun altako afiliazioak, bestalde, nabarmen egin du behera (-% 30,4), lanaldi osoko behin-behineko afiliazioak behera egin baitu (-% 24,2), eta, bereziki, lanaldi partzialekoak (-% 41,1). Aldaketa horien arrazoia, neurri batean behintzat, 2022ko lan-erreforma indarrean jartzea da. Aurrerago hitz egingo dugu horri buruz.

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektoreak % 0,9 egin du behera, eta pixka bat jaitzi du altan dagoen afiliazio osoaren gaineko pisua (% 1,1, eta % 1,2 2021ean). Bestalde, industria % 1,1 hazi da, batez bestekoaren azpitik (+% 1,4), eta afiliazioaren gaineko pisuaren % 18,2ari eusten dio. Eraikuntza batez bestekoaren azpitik hazi da, % 1,8, eta afiliazioaren % 5,9 dauka (hamarren bat gehiago). Azkenik, zerbitzuen sektoreak ere portaera hobea du batez bestekoa baino, % 1,5 hazi baita, nahiz eta altan dagoen afiliazioaren % 74,8ko pisuari eusten dion.

Ekoizpen-adarren arabera⁵, afiliazio gehienak handitu egin dira 2021eko abenduaren aldean, salbuespen batzuekin: erauzketaren industriak (-% 3,3), ur-hornidura eta hondakinen kudeaketa (-% 1), merkataritza eta konponketa (-% 0,7), finantza-jarduerak (-% 0,7) eta lehen sektorea (-% 0,9). Nabarmentzekoak dira Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimendukoak (+1.046 afiliazio altan, +% 5,9), Informazioa eta komunikazioak (+1.176 afiliazio, +% 4,8), Garraioa eta biltegiatzea (+1.458 afiliazio altan, +% 3,4), Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak (+% 3,2), eta Ostalaritza (+1.781 afiliazio, +% 2,7). Guztiak % 1,4ko hazkunde orokorraren gainetik daude.

III.1.10. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA, KONTRATU MOTAREN ARABERA (ARAUBIDE OROKORRA) EAE-N. BATEZ BESTEKO DATUAK, 2019-2021EKO ABENDUETAKOAK.

	ABE. 2019	ABE. 2020	ABE. 2021	ABE. 2022	% Ald. 20/21	% Ald. 21/22
MUGAGABEA, LANALDI OSOA	385.969	388.385	399.452	437.092	2,8	9,4
MUGAGABEA, L. PARTZIALA	73.789	73.216	77.308	98.709	5,6	27,7
MUGAGABEAK, GUZT.	459.758	461.601	476.760	535.801	3,3	12,4
ALDIZKAKO LANGILE FINKOAK	13.446	12.890	14432	27.201	12	88,5
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK, LANALDI OSOA	138.297	132.049	132.841	100.633	0,6	-24,2
BEHIN-BEHINEKO LANGILEAK, LANALDI PARTZIALA	86.597	74.726	77.875	45.852	4,2	-41,1
BEHIN-BEHINEKOAK, GUZTIRA	224.894	206.775	210.716	146.485	1,9	-30,5
BESTERIK*	77.197	74.744	74.951	74.504	0,3	-0,6
GUZTIRA	775.296	756.010	776.859	791.719	2,8	1,9

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa. GSDN. Guk geuk egina.

*Kontraturik gabeko afiliatuak, funtzionarioak, profesionalak ez diren zaintzaileak, prestakuntza-programak eta enpresako lanekoak ez diren praktikak, eta akatsengatik edo omisioagatik fitxategian kontratu-motarik ez dutenak.

⁵ Hiruhilekoetako Ekonomia Kontuek informazio osagarria ematen dute ekoizpenaren eta enpleguaren bilakaerari buruz, ekoizpen-adarren arabera. Ikus Memoria honetako II. Kapituluak: "EAEko ekonomia".

III. 1.8. TAULA. GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOAREN BILAKAERA, PRODUKZIO-ADARREN ARABERA. ABENDUAN NEURTUTAKO DATUAK.

	2019	2020	2021	2022	ALD. %. 20/21	ALD. %. 21/22	ALD. ABS. 21-22
LEHEN SEKTOREA, GUZTIRA	11.781	11.722	11.354	11.250	-3,1	-0,9	-104
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA, BASOGINTZA, ARRANTZA*	9.632	9.604	9.245	9.265	-3,7	0,2	20
NEKAZARITZAKO SISTEMA BEREZIA	2.149	2.118	2.109	1.985	-0,4	-5,9	-124
INDUSTRIA GUZTIRA	183.437	176.969	178.571	180.587	0,9	1,1	2.016
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	566	552	553	534,8	0,2	-3,3	-18,2
MANUFATURA-INDUSTRIA	175.063	168.494	169.893	171.980	0,8	1,2	2.087
ENERGIA ELEKTRIK., GASAREN, LURRUNAREN HORNIKUNTZA	1.502	1.577	1.589	1.600	0,8	0,7	11
URAREN HORNIKUNTZA, HONDAKINEN KUDEAKETA	6.306	6.346	6.536	6.471	3	-1,0	-65
ERAIKUNTZA	57.092	56.624	57.154	58.183	0,9	1,8	1.029
ZERBITZUAK, GUZTIRA	728.282	713.817	732.943	744.057	2,7	1,5	11.114
MERKATARITZA ETA KONPONKETAK	138.906	136.136	136.897	135.965	0,6	-0,7	-932
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	43.145	42.621	43.175	44.633	1,3	3,4	1.458
OSTALARITZA	68.088	61.007	65.650	67.431	7,6	2,7	1.781
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	23.275	23.571	24.500	25.676	3,9	4,8	1.176
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	17.795	17.352	16.941	16.815	-2,4	-0,7	-126
HIGIEZINEN ALORREKO JARDUERAK	4.157	4.132	4.194	4.290	1,5	2,3	96
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	57.301	57.009	59.145	61.044	3,7	3,2	1.899
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	66.735	66.784	68.409	68.588	2,4	0,3	179
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	49.243	48.530	49.517	50.992	2	3,0	1.475
HEZKUNTZA	75.999	75.349	79.058	80.338	4,9	1,6	1.280
OSASUN-JARDUERAK ETA GIZARTE-ZERBITZUETAKO JARDUERAK	107.646	110.636	111.418	113.007	0,7	1,4	1.589
JARDUERA ARTISTIKOAK, JOLASERAKO ETA ENTRETENIMENDURAKO JARDUERAK	17.517	15.626	17.846	18.892	14,2	5,9	1.046
BESTELAKO ZERBITZUAK	28.709	26.131	27.128	27.273	3,8	0,5	145
LANGILEAK, ETXEO ENPLEGATZAILEAK	1.069	1.004	979	954	-2,5	-2,6	-25
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK ETA ORGANISMOAK	57	57	78	77,25	36,8	-1,0	-0,8
ETXEO LANGILEAK	28.640	27.872	28.008	28.081	0,5	0,3	73
GUZTIRA	980.592	959.132	980.022	994077	2,2	1,4	14055

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioa. GSDN. Guk geuk egina.

* Itsas araubide bereziko afiliazioa barne Itsas. araubidea Mar.

Azkenik,
Euskadiko
kotizatzaile
atzeritarrak
Euskadiko afiliazio
guztiaren % 8,4
ziren 2022ko
abenduan
(aurreko urtean
baino 8 hamarren
gehiago) % 11,4

III.1.12. TAULA. G. SEGURANTZAKO KOTIZATZAILE ATZERRITARRAK*, JATORRIAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO BATEZBESTEKOA.

		ABENDUKO KOTIZATZAILEAK				ALDAKETA 20/21		ALDAKETA 21/22	
		2019	2020	2021	2022	ABS.	%	ABS.	%
EUROPAR BATUSUNA	GIZONAK	13.120	12.241	12.391	12.752	150	1,2	361	2,9
	EMAK.	8.272	7.503	8.021	8.253	518	6,9	232	2,9
	GUZTIRA	21.391	19.744	20.412	21.005	668	3,4	593	2,9
BESTELAKOAK	GIZONAK	24.990	25.693	28.471	32.728	2.778	10,8	4.257	15,0
	EMAK.	22.989	23.218	25.808	29.489	2.590	11,2	3.681	14,3
	GUZTIRA	47.979	48.911	54.279	62.217	5.368	11	7.938	14,6
GUZTIRA	GIZONAK	38.110	37.934	40.862	45.480	2.928	7,7	4.618	11,3
	EMAK.	31.260	30.721	33.829	37.742	3.108	10,1	3.913	11,6
	GUZTIRA	69.371	68.655	74.691	83.222	6.036	8,8	8.531	11,4

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzak eta Migrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

egin zuen gora azken urtean, aurreko urtekoaren oso gainetik (% 1,4). Bilakaera positiboa da bi sexuetan: gizonen artean % 11,3 hazi da, eta emakumeen artean % 11,6. Gainera, hobekuntza are handiagoa da EBtik kanpotik etorritakoen artean, afiliazio horiek % 14,6 egin baitute gora, eta EBko beste herrialde batzuetatik etorritakoen artean, berriz, % 2,9.

1.3. LANGABEZIA

1.3.1. Langabeziaren datuak

EAEn 2022. urtean lan-merkatuak izandako bilakaeraren emaitza, BJAREN **langabezia-tasa orokorra** % 8,5koa izan da urtearen amaieran (4. hiru-hilekoan)⁶, aurreko urtean baino 1,4 puntu handiagoa. Beraz, Europar Batasunaren batez bestekoa gainditu da (EBn % 6,1koa izan da eta Eurogunean % 6,7koa).


III.1.13. TAULA. EAE-KO BIZTANLERIA LANGABEA. ALDAGAI NAGUSIEN BILAKAERA. MILAKOTAN (IV. HIRUHILEKOAK)																	
	PERTSONA KOPURUA (MILAKOTAN)					ALDEA (MILAKOTAN)				ALDAKUNTZAREN %				LANGABEZIA-TASA			
	2018	2019	2020	2021	2022	18-19	19-20	20-21	21-22	18/19	19/20	20/21	21/22	2019	2020	2021	2022
GUZTIRA	110	100,8	117,7	104,2	89,8	-9,2	16,9	-13,5	-14,4	-8,4	16,8	-11,5	-13,8	9,6	11,2	9,9	8,5
GIZONAK	56,7	48,9	63,2	52	43,1	-7,8	14,3	-11,2	-8,9	-13,8	29,2	-17,7	-17,1	8,9	11,6	9,5	7,9
EMAKUMEAK	53,3	51,9	54,5	52,2	46,8	-1,4	2,6	-2,3	-5,4	-2,6	5	-4,2	-10,3	10,3	10,8	10,3	9,2
ADINA: 16-24	9,4	10,1	13,4	11,5	11,1	0,7	3,3	-1,9	-0,4	7,4	32,7	-14,2	-3,5	22,2	23,3	21,0	19,6
ADINA: 25-44	57	51,7	60	50,6	41	-5,3	8,3	-9,4	-9,6	-9,3	16,1	-15,7	-19,0	10,6	13,1	11,4	9,3
ADINA: 45+	43,5	39	44,4	42,1	37,7	-4,5	5,4	-2,3	-4,4	-10,3	13,8	-5,2	-10,5	7,5	8,3	7,6	6,8

Iturria: EUSTAT, BJA. Datu bankua.

Sexuaren arabera, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa izan da (% 9,2 eta % 7,9 hurrenez hurren). Bestalde, adin-taldearen arabera, 25 urtetik beherako gazteengan izan du eraginik handiena (% 19,6), eta 45 urteko eta hortik gorakoengan txikiena (% 6,8). 2021eko amaierari dagokionez (berrikusitako datuak), langabeziaren eragina murriztu egin da bi sexuetan (neurri handiagoan gizonen kasuan, -1,6 puntu, emakumeen kasuan baino, -1,1) eta adin-talde guztietan. Hala, gazteen langabezia-tasa 1,4 puntu jaitsi da eta, esan bezala, % 19,6an kokatu da. Bitarteko taldean, berriz, langabezia 2,1 puntu jaitsi da, e% 9,3raino, eta 45 urtetik gorakoaren artean, ratioa 8 hamarrenetan jaitsi da, % 6,8 hori izan arte).

Europar Batasunean, langabeziak hartzen duen balio-sorta oso zabala da: Greziakoa eta Espainiakoa kopuru handiak batetik (% 11,8 eta % 12,9, hurrenez hurren) eta, bestetik, % 3-4 inguruko ratioak Txekiar Errepublikan, Polonian eta Maltan. Lituaniak, Eslovakiak eta Portugalek Europar Batasuneko batez bestekotik hurbilen dauden langabezia-tasak dituzte (% 6,1 laugarren hiru-hilekoan); Estatu Batuek 2022an % 3,5eko langabezia-tasa izan zuten, eta Japoniak % 2,5koa, erreferentziatzko beste herrialde batzuk aipatzearen.

III.1.6. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-TASA, ADIN-TALDEEN ARABERA. IV. HIRUHILEKOAK.



Estatuaren testuinguruan, langabezia batez beste % 12,9 izanik (IV. hiru-hilekoa, EINen Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak), 2022aren amaieran erkidego gehienek berreskuratu dituzte, edo hobetu, 2019ko ratioak, 2020an langabeziak gora egin ondoren. Iturri horrekin, EAEK % 8,7ko langabezia-tasa du (+0,3 puntu 2021eko IV. hiru-hilekoarekin

⁶ Ikus BJAren metodologiari buruzko kapitulu honetako 1. rri-oina.

alderatuta), Estatuko bigarren txikiena, eta horren atzetik Errioxa (% 8,6) dago. Ondoren, Gaztela eta Leon (% 8,8), Aragoi (% 9,4) eta Katalunia (% 9,9) (ikus kapitulu honetako III.1.2 taula).

III.1.14. TAULA. LANGABEZIA EB-N: ADIERAZLE NAGUSIAK. IV HIRUHILEKOAK.															
	LANGABEZIA TASA OROKORRA			GIZONAK			EMAKUMEAK			GAZTEEN L. TASA (<25 URTE)			LUZAROKO LANGABEZIA % (>1 URTE)		
	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022
27KO EB	7,4	6,5	6,1	7,1	6,3	5,8	7,7	6,7	6,5	16,9	14,4	14,5	38,1	41,4	36,5
EUROGUNEA	8,2	7,2	6,7	7,9	7	6,2	8,6	7,4	7,1	17,5	14,5	14,3	40,3	42,8	37,8
BELGIKA	5,8	5,8	5,7	6,1	6,9	6	5,5	4,5	5,3	15,9	15,4	16,3	46,5	42,9	39,5
BULGARIA	5,3	4,6	3,9	5,4	4,9	4,1	5,2	4,2	3,7	14,1	15,9	9,1	49,7	55,2	52,6
TXEKIAR ERREP.	3,1	2,3	2,3	2,5	1,9	1,9	3,8	2,7	2,8	9,6	7,3	7,5	21,8	32	26,5
DANIMARKA	5,9	4,4	4,7	5,7	4,4	5	6,1	4,4	4,4	11,8	9,5	11,8	17,7	21	6,3
ALEMANIA	:	3,2	3,1	:	3,6	3,2	:	2,7	2,9	:	5,2	6,1	:	33,5	30,1
ESTONIA	7,8	5,4	5,4	7,9	6	6,3	7,8	4,8	4,6	22,6	17,7	16,7	18,6	28,5	24,2
IRLANDA	5,9	5	4,4	6,1	5,1	4,2	5,6	4,9	4,5	13,8	10,2	10,5	26,7	36,4	28,9
GREZIA	16,4	13,4	11,8	13,4	9,9	8,7	20,1	17,7	15,6	35,3	31,8	29	66,1	65	62,8
ESPAINIA	16,3	13,4	12,9	14,3	11,9	11,2	18,5	15,2	14,8	40,1	30,7	29,4	35,5	42,8	36,9
FRANTZIA	8,3	7,7	7,2	8,4	7,8	7,4	8,2	7,5	7	19,6	16,6	16,9	39,2	28,5	26,4
KROAZIA	9,2	6,3	6,6	9,8	5,7	6,1	8,6	7,1	7,2	22	20,3	16,1	31,8	40	40,7
ITALIA	9,7	9,2	7,9	9,1	8,7	6,8	10,5	9,9	9,2	31	28	22,7	55,1	60,8	54,5
ZIPRE	8,2	6,4	7,1	8,6	6,1	6,2	7,8	6,8	8,1	19,9	17,4	19,3	29,7	36,1	31,8
LETONIA	8,2	7,5	6,8	8,8	8	8,6	7,6	6,9	5	11,3	11,3	17,3	27,3	32,4	27,2
LITUANIA	9,4	7,2	6,1	10	8,3	6,5	8,7	6,2	5,7	19,2	11,2	12,6	27,3	42,8	39,9
LUXENBURGO	6,6	4,3	4,6	5,8	4,4	4,5	7,5	4,2	4,7	25,7	17,1	15,6	29,8	40,9	29,9
HUNGARIA	4,2	3,7	3,9	4	3,5	4,1	4,5	4	3,8	11,5	12,5	11,1	30,3	34,9	31,6
MALTA	4,5	3	2,9	4,4	3,4	3,1	4,6	2,6	2,7	10,9	10,5	9,1	26,1	26,6	30,2
HERBEHEREAK	4	3,7	3,5	3,9	3,4	3,2	4,3	4	3,8	9,4	7,8	7,5	24,4	21,4	16,5
AUSTRIA	5,5	5,1	5	5,6	4,9	5,3	5,5	5,3	4,7	9,4	8,9	9,6	27,1	31	23,5
POLONIA	3,2	2,9	2,9	3,1	2,9	2,9	3,2	3	2,9	12,8	9	12,3	21	28,6	29,4
PORTUGAL	7,5	6,5	6,5	7,3	6,4	6	7,6	6,6	6,9	24,3	23,4	19,2	34,6	47,7	42,5
ERRUMANIA	5,4	5,9	5,6	5,5	6,5	6	5,3	5,1	5	17,1	23,4	21,7	32,4	38	36
ESLOVENIA	5,1	4,5	3,6	4,6	4,1	3,3	5,7	4,9	3,8	15,2	10,2	8,9	39,4	50,5	36,9
ESLOVAKIA	7	6,6	6	6,4	6,7	5,8	7,8	6,5	6,2	20,8	19,2	20	45,2	68,2	69
FINLANDIA	7,6	6,4	6,8	7,9	7	7,3	7,2	5,8	6,3	18,4	11,5	15,5	18,7	26,7	20,5
SUEDIA	8,1	7,6	7,4	8,2	7,1	7,1	8,1	8,1	7,8	20,4	20,8	22,7	15,2	28,3	23,6
EAE (EUSTAT)	11,2	9,9	8,5	11,6	9,5	7,9	10,8	10,3	9,2	23,3	21	19,6	:	:	:
EAE (EIN)	10	8,4	8,7	8,6	8,9	8,1	11,4	7,9	9,3	35,7	27,2	20,9	:	:	:

Iturria: EUROSTATen, EInen eta EUSTATen datuekin guk geuk egina (23/05/03ko datuak).

2020an, sei urtez behera egin ondoren, langabeen kopurua % 16,8 igo zen Euskadin. 2021ean % 11,5 murriztu da (berrikusitako datuak) eta 2022an joera horrek jarraitu egiten du, % 13,8 jaitsi baita. Hortaz, zenbatespenen arabera, **urte 89.800 langabetearekin amaitu zen** (-14.400 pertsona, horietatik % 61,8 gizonak eta % 37,5 emakumeak).

Langabezia % 17,1 murriztu da gizonen artean eta % 10,9 emakumeen artean. Horren ondorioz, urte amaieran sexuaren arabera langabezia-tasetan 1,3 hamarreko aldea egon da: emakumeen kasuan % 9,2koa izan delako; gizonen kasuan, berriz, % 7,9koa. Adinaren arabera, langabeen kopurua bereziki murriztu da tarteko taldean (25 urtetik 44ra) (-% 19, hau da, -9.600), % 10,5 45 urtetik gorakoetan (-4.400) eta, neurri txikiagoan bada ere, 25 urtetik beherakoetan (-% 3,5, -400 pertsona).

Ondorioz, **gazteen langabezia-tasa** % 19,6ra jaitsi da (-1,4 puntu). EBn, gazteen langabezia-tasa % 14,5ean kokatu da 2022aren amaieran, Europar Batasun osoan, eta % 14,3an eurogunean, % 29 inguruko balioekin, besteak beste Grezia eta Espainian (% 29 eta % 29,4 hurrenez hurren). Beste muturrean, % 6-7 inguru Alemania, Txekia eta Herbehereak daude.

III.1.15. TAULA. LANGABEEN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA SEKTOREEN ARABERA. IV HIRUHILEKOAK.


		BATEZ BESTE (MILAKOTAN)				ALDAKUNTZA (MILAKOTAN)			URTEK URTERAKO ALDAKETA TASA (%)		
		2019	2020	2021	2022	19-20	20-21	2022	19/20	20/21	21/22
GIZONAK	LEHEN SEKTOREA	1,2	1,1	1,5	2,4	-0,1	0,4	0,9	-8,3	36,4	60,0
	INDUSTRIA	10,8	15,2	12,4	7,5	4,4	-2,8	-4,9	40,7	-18,4	-39,5
	ERAIKUNTZA	8,8	9,9	6,3	4,2	1,1	-3,8	-2,1	12,5	-36,4	-33,3
	ZERBITZUAK	24,2	32,2	28,9	25,4	8	-3,3	-3,5	33,1	-10,2	-12,1
	LAN BILA	3,9	4,9	2,9	3,6	1	-2,0	0,7	25,6	-40,8	24,1
	GUZTIRA	48,9	63,2	52,0	43,1	14,3	-11,2	-8,9	29,2	-17,7	-17,1
EMAKUMEAK	LEHEN SEKTOREA	0,4	0,1	0,0	0,0	-0,3	-0,1	0,0	-75	-100,0	-
	INDUSTRIA	5,3	4,1	5,1	1,9	-1,2	1,0	-3,2	-22,6	24,4	-62,7
	ERAIKUNTZA	0,4	1	1,3	1,5	0,6	0,3	0,2	150	30,0	15,4
	ZERBITZUAK	42,1	42,7	40,2	40,1	0,6	-2,5	-0,1	1,4	-5,9	-0,2
	LAN BILA	3,7	6,7	5,6	3,3	3	-1,1	-2,3	81,1	-16,4	-41,1
	GUZTIRA	51,9	54,5	52,2	46,8	2,6	-2,3	-5,4	5	-4,2	-10,3
GUZTIRA	LEHEN SEKTOREA	1,6	1,2	1,5	2,4	-0,4	0,3	0,9	-25	25,0	60,0
	INDUSTRIA	16,1	19,3	17,4	9,3	3,2	-1,9	-8,1	19,9	-9,8	-46,6
	ERAIKUNTZA	9,2	10,9	7,6	5,7	1,7	-3,3	-1,9	18,5	-30,3	-25,0
	ZERBITZUAK	66,3	74,9	69,1	65,5	8,6	-5,8	-3,6	13	-7,7	-5,2
	LAN BILA	7,6	11,5	8,5	6,9	3,9	-3,0	-1,6	51,3	-26,1	-18,8
	GUZTIRA	100,8	117,7	104,2	89,8	16,9	-13,5	-14,4	16,8	-11,5	-13,8

Iturria: EUSTAT. "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta". Datu bankua.

Sektoreka, 2022ko laugarren hiruhilekoan, langabeen % 72,9 zerbitzuen sektorekoak dira, eta sektore horretan % 5,2 murriztu da langabezia (-3.600 pertsona, horietatik % 97,2 gizonak). Bestalde, industrian, 2022. urtearen amaieran langabezia osoaren % 10,4 izanik, langabezia % 46,4 murriztu da (-8.100 pertsona), sektore horretan gizon langabeen kopurua (-4.900) eta emakume langabeen kopurua -3.200,) jaitsi izanaren ondorioz⁷. Bestalde, eraikuntzan, berriz, % 25 jaitsi da langabetuen kopurua (-1.900 lagun garbi).

Azkenik, **lehen enplegua bilatzen ari direnen kolektiboa** 1.600 pertsonatan murriztu da (-% 18,8), eta 6.900 zenbatu dira hiruhilekoan batez beste: % 47,8 emakumeak dira eta % 52,2 gizonak.

III.1.7. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABETZIA-TASAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA




Lurraldeka, langabezia-tasa guztiek egin dute behera 2022eko 4. hiruhilekoarekin alderatuta. Intzidentziarik txikiena, urtebete gehiago, Gipuzkoan izan da (-% 0,9 2021aren aldean; Bizkaian eta Araban berdinketa gertatu da, biak % 9,3arekin; Bizkaian % 9,3 jaitsi da eta Araban % 0,4.

⁷ Ikus kapitulu honetako 2. orri-oina.

1.3.2. LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua: Langabezia eta enplegu-eskatzaileak

Gure erkidegoak 2019aren amaieran 114.162 langabe zeuzkan (abenduko batez besteko datua). 2020ko martxoan hasi zen pandemiaren eta jarduera ekonomikoaren geldialdiaren ondorioz, LANBIDEN 129.240 langabetu erregistratu ziren urtearen amaieran (+% 13,2). 2021ean, 114.845 langabe erregistratu ziren (-% 11,1).



Urtebete geroago, **2022. urtea amaitzean, LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak 110.798 langabetu** erregistratu zituen, 2021ean baino 4.047 gutxiago (-% 3,5, eta Estatuko batez bestekoaren -% 8,6, non erregistratutako langabezia 2,84 milioi pertsonatik gorakoa baita). Aurreko atalean ikusi den bezala, urteko laugarren hiruhilekoan 89.800 pertsona erregistratu zituen EUSTATen Biztanleria Jardueraren Arabera Inkestak. Hortaz, 683 pertsonatan baino ez da gaitzitzen 2019ko abenduko kopurua, III.1.16. taulan ageri denez.

III.1.16. TAULA. EAE-N ERREGISTRATUTAKO LANGABEAK, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEAK.

		ABENDUKO LANGABEAK					ALDAKETA 20-21		ALDAKETA 21-22	
		2018	2019	2020	2021	2022	ABS.	%	ABS.	%
< 25 URTE	GIZONAK	3.789	4.161	5.730	4.639	4.407	-1.091	-19	-232	-5,0
	EMAKUMEAK	3.650	3.718	4.978	4.179	3.814	-799	-16,1	-365	-8,7
	GUZTIRA	7.439	7.879	10.708	8.818	8.221	-1.890	-17,7	-597	-6,8
25 - 44 URTEKOAK	GIZONAK	22.374	21.035	24.309	19.402	17.279	-4.907	-20,2	-2.123	-10,9
	EMAKUMEAK	29.410	27.045	33.430	25.826	24.939	-7.604	-22,7	-887	-3,4
	GUZTIRA	51.784	48.080	57.739	45.228	42.218	-12.511	-21,7	-3.010	-6,7
45 URTE ETA HORTIK GORAKOAK	GIZONAK	26.854	25.972	28.859	27.190	26.159	-1.669	-5,8	-1.031	-3,8
	EMAKUMEAK	33.592	32.231	31.934	33.609	34.200	1.675	5,2	591	1,8
	GUZTIRA	60.446	58.203	60.793	60.799	60.359	6	0	-440	-0,7
GUZTIRA	GIZONAK	53.017	51.168	58.898	51.231	47.845	-7.667	-13	-3.386	-6,6
	EMAKUMEAK	66.652	62.994	70.342	63.614	62.953	-6.728	-9,6	-661	-1,0
	GUZTIRA	119.669	114.162	129.240	114.845	110.798	-14.395	-11,1	-4.047	-3,5


Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Lurraldeka, Arabak izan du beherakada txikiena urte arteko saldoan, batez bestekoa baino txikiagoa: - % 2,1 (-414 pertsona eta 19.000 langabe urtearen amaieran); Gipuzkoa eta Bizkaia, berriz, batez bestekoa baino pixka bat gehiago jaitsi dira: Gipuzkoan % 3,7 jaitsi da (-1.116 eta 29.437 langabe), eta Bizkaian % 3,9 jaitsi da (-2.517 eta 62.361 langabe urtearen amaieran).

Langabezia murriztu egin da **bi sexuetan**, eta gehiago gizonen artean (-% 6,6) emakumeen artean baino (-% 1,0). Bilakaera horren ondorioz, langabeen % 56,8 emakumeak dira (2021ean baino 1,4 puntu gehiago).

Adinaren arabera, erregistratutako langabeziak behera egin du adin-talde guztietan. III.1.16 taulan ageri denez, langabezia bereziki jaitsi da 25 urtetik beherakoen artean (-% 6,8, -% 5 gizonentzat eta -% 8,7 emakumeentzat) eta tarteko adin-taldean (-% 6,7, -% 10,9 gizonentzat eta -% 3,4 emakumeentzat). 45 urtetik gorakoen taldean ere jaitsi da langabezia, baina gainerako taldeetan baino gutxiago, % 0,7, eta ez bi sexuetan: gizonena % 3,8 jaitsi da, eta emakumeena % 1,8 igo.

III.1.9. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO LANGABEEN BANAKETAREN BILAKAERA, ADINAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEAK.



Iturria: EEZPren datuekin egina.

Ikasketa mailaren arabera, erregistratutako langabezia ia maila guztietan murriztu da 2021eko abenduarekin alderatuta, 2. eta 3. zikloko bigarren eta hirugarren zikloen arteko ikasketen kasuan izan ezik, % 0,6 igo baita. Beherakadarik handienak, batez bestekoaren gaineratik, ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen artean gertatzen dira (-% 7,4), bigarren mailako hezkuntza orokorra dutenen ondoren (-% 4,6). Lehen mailako ikasketa osoak dituzten pertsonen kasuan ere (-% 3,6) eta bigarren mailako ikasketen ondoko lehen zikloko ikasketak dituztenen kasuan (-% 2,8) behera egin du, baina azken kasu horretan batez bestekoaren azpitik.

III.1.17. TAULA EAE-KO LANGABEAK IKASKETA MAILAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEAK.


		ABENDUKO LANGABEAK					ALDAKETA 21-22	
		2019	2020	2021	2022	2022 (%)	ABS.	%
LEHEN IK.	IKASKETARIK GABE, ETA LEH. MAILAKOAK AMAITU GABE	10.050	12.634	12.561	11.634	10,5	-927	-7,4
	OSORIK AMAITUTA	15.677	16.976	15.258	14.709	13,3	-549	-3,6
BIGARREN IK	LANBIDE HEZIKETA	10.110	11.567	10.269	10.200	9,2	-69	-0,7
	HEZKUNTZA OROKORRA	53.643	58.844	51.731	49.368	44,6	-2.363	-4,6
DBH ONDOKOAK	TECN. PROF. SUPERIOR	10.620	12.890	11.179	11.072	10,0	-107	-1,0
	LEHEN ZIKLOA	3.587	3.910	3.339	3.245	2,9	-94	-2,8
	BIGARREN ETA HIRUGARREN ZIKLOA	10.293	12.189	10.298	10.359	9,3	61	0,6
	BESTELAKOAK	182	230	210	211	0,2	1	0,5
GUZTIRA		114.162	129.240	114.845	110.798	100,0	-4.047	-3,5

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Bilakaera, aurreko urteetan bezala, oso antzekoa da bi sexuetan. Titulazio-talde handien arabera, 2022ko abenduan erregistratutako langabeen % 44,6k hezkuntza orokorreko bigarren mailako ikasketak zituen (% 45k, 2021ean), eta emakumeen artean pisu hori pixkan bat txikiagoa da (emakume langabeen % 42,3 eta gizonen % 47,6). Kopuru absolutuetan, emakumeen taldea handiagoa da, ordea (26.613 emakume eta 22.755 gizon). Izan ere, emakume langabeak ugariagoak dira ikasketa maila guztietan gizonak baino (ikus III.1.10. grafikoa), baina beheranzko joera izan da horietan guztietan, arestian esan dugun legez, eta halaxe gertatu da sexu bietan.

Aurten ere, 10 langabetutatik ia 7 (% 68,4, ikus III.1.17 taula) kualifikazio txikikotzat har daitezke (hezkuntza orokorreko lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenak). Informazio hori ez badaukagu ere, interesgarria litzateke ikasketa mailaren arabera erregistratutako langabezia zifrak langabezian emandako denboraren zifrekin gurutzatuta ezagutzea.

III.1.10. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIAREN BANAKETA IKASKETA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA. 2022KO ABENDUA.



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Aurreko lan-esperientzia duten langabe inskribatuen jarduerari dagokionez, SEPEk emandako datuen arabera, 2022. urteko abenduan jarduera-atal guztietan jaitsi da langabe kopurua, 2021. urteko abenduarekin alderatuta betiere. Gainera, enpleguan (eta langabezia) pisu handia duten zenbait sekziotan langabezia murriztu egin da, $-3,5$ inguruko jaitsierekin, edo are gehiago, batez bestekoaren gainetik. Hala, ostalaritzak langabeziaren $9,9$ metatu du, eta $2,9$ murriztu da. Bigarrenik, manufaktura-industriak erregistratutako langabeziaren 10 metatu du ($15,1$ gizonen artean), eta langabezia 15 murriztu da. Merkataritza eta konponketak, bestalde, erregistratutako langabeziaren $13,8$ biltzen du, eta langabezia $6,2$ murriztu da. Nabarmentzekoa da, halaber, langabeziak behera egin duela arte, jolas eta entretenimendu jardueretan ($-6,8$), nahiz eta multzoan duen pisua txikiagoa izan (erregistratutako langabeziaren $1,7$). Hala ere, administrazio-jarduerak erregistratutako langabeziaren $15,8$ biltzen dute, eta $7,6$ jaitsi dira. Jasotako langabezia osoan gutxieneko pisua duten beste jarduera batzuek langabezia murriztu dute, hala nola energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren hornidurak ($-31,4$) eta jarduera profesional, zientifiko eta teknikoak ($-13,5$).


III.1.18. TAULA EAE-KO LANGABEZIA, SEXUAREN ETA JARDUERAREN ARABERA (CNAE 2009). ABENDUKO HILABETEA.

	2021	2022KO LANGABEAK				20/21 (%)	21/22 (%)
		GIZONAK	EMAK.	GUZT.	BERT. %		
NEKAZARITZA, ABELTZAIANTZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	2.632	1.524	655	2.179	2,0	-3	-17,2
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	45	22	17	39	0,0	-29,7	-13,3
MANUFAKTURA-INDUSTRIA	12.976	7.224	3.808	11.032	10,0	-14,7	-15,0
ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIKUNTZA	51	26	9	35	0,0	-3,8	-31,4
URAREN HORNIKUNTZA, HONDAKINEN KUDEAKETA	636	526	106	632	0,6	-4,4	-0,6
ERAIKUNTZA	7.717	5.585	843	6.428	5,8	-10,7	-16,7
MERKATARITZA ETA KONPONKETAK	16.344	5.276	10.053	15.329	13,8	-10	-6,2
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	3.127	2.100	883	2.983	2,7	-8,5	-4,6
OSTALARITZA	11.288	3.599	7.360	10.959	9,9	-20,8	-2,9
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	2.037	975	901	1.876	1,7	-14,1	-7,9
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	890	369	486	855	0,8	-6,1	-3,9
HIGIEZIN-JARDUERAK	395	110	276	386	0,3	-3,2	-2,3
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	5.169	1.587	2.885	4.472	4,0	-16,6	-13,5
ADMINISTRAZIO-JARDUERAK	16.300	8.233	9.304	17.537	15,8	-8,5	7,6
ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK	3.089	1.914	1.981	3.895	3,5	-2,9	26,1
HEZKUNTZA	2.972	955	2.421	3.376	3,0	-16,1	13,6
OSASUN-JARDUERAK ETA GIZARTE-ZERBITZUETAKO JARDUERAK	5.668	1.317	5.168	6.485	5,9	-0,6	14,4
JARDUERA ARTISTIKOAK, JOLAS ETA ENTRETENIMENDU JARDUERAK	2.005	962	906	1.868	1,7	-17,6	-6,8
BESTE ZERBITZU BATZUK	3.329	973	2.243	3.216	2,9	-12,5	-3,4
FAMILIA, LANGILEEN ENPLEGATZAILE	3.926	356	3.804	4.160	3,8	-3,6	6,0
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK	29	10	13	23	0,0	-21,6	-20,7
AURREKO ENPLEGURIK GABE	14.220	4.202	8.831	13.033	11,8	-8,5	-8,3
GUZTIRA	114.845	47.845	62.953	110.798	100	-11,1	-3,5

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Sektore handien arabera, zerbitzuetan emakumeen langabeziaren % 77,3 biltzen da, eta gizonen langabeziaren % 60,1. Industrian eta eraikuntzan, bestalde, gizonen presentzia askoz handiagoa da (% 16,3 eta % 11,7 emakumeen kasuan), langabezian gertatzen den bezala.

III.1.11. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIAREN BILAKAERA, JARDUERA-SEKTOREAREN ETA SEXUAREAN ARABERA. 2021-2022KO ABENDUA.



Iturria: EEZPren datuekin egintakoa.

Bestalde, **aurreko lanik gabekoak** langabe guztien % 11,8 ziren 2022ko abenduan (% 12,4, 2021ean), eta batezbestekoa baino gutxiago murriztu ziren, % 8,3. Talde horretan, emakumeen presentzia nabarmentzen da. Izan ere, kategoria horretan inskribaturiko 13.033 pertsonen % 67,8 dira (% 66,3, 2021eko abenduan).

Langabezia daramaten denbora kontuan hartzen badugu, 2022an murriztu egin da 6 hilabete baino gutxiago daramatenen kopurua (-% 1,9), baina emakumeen kasuan gora egin du (-% 6,4 gizonak, +% 2,6 emakumeak). 6 hilabetetik urtebetara langabezia daramaten pertsonen kopuruak gora egin du, bereziki emakumeen kasuan (% 10,3). Iraupen luzeko langabezia, urtebetetik gorakoa dena, jaitsi egin da bi sexuetan (-% 7 guztira, - % 8,8 gizonetan eta - % 5,8 emakumeetan).


III.1.19. TAULA. EAE-KO LANGABE ERREGISTRATUAK, LANGABEZIAREN IRAUPENAREN ETA SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEAK.

		ERREGISTRATUTAKO LANGABEAK					ALDAKUNTZA (%)	
		2018	2019	2020	2021	2022	2020/21	2021/22
< 6 HILABETE	GIZONAK	22.499	22.772	21.438	21.724	20.338	1,3	-6,4
	EMAKUMEAK	21.419	21.057	19.728	21.246	21.803	7,7	2,6
	GUZTIRA	43.918	43.829	41.166	42.970	42.141	4,4	-1,9
6 HILABETE - URTEBETE	GIZONAK	7.206	7.215	11.092	6.768	6.724	-39	-0,7
	EMAKUMEAK	8.458	8.855	11.417	7.813	8.616	-31,6	10,3
	GUZTIRA	15.664	16.070	22.509	14.581	15.340	-35,2	5,2
> URTEBETE	GIZONAK	23.316	21.181	26.368	22.793	20.783	-13,6	-8,8
	EMAKUMEAK	36.776	33.082	39.197	34.555	32.534	-11,8	-5,8
	GUZTIRA	60.092	54.263	65.565	57.348	53.317	-12,5	-7,0
GUZTIRA	GIZONAK	53.021	51.168	58.898	51.231	47.845	-13	-6,6
	EMAKUMEAK	66.653	62.994	70.342	63.614	62.953	-9,6	-1,0
	GUZTIRA	119.674	114.162	129.240	114.845	110.798	-11,1	-3,5

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Ondorioz, **luzaroko langabeen ehunekoak** guztizkoaren aldean 1,8 puntu jaitsi da 2022ko abenduan, % 48,1eraino (-7,5 puntu Estatu osoan, % 42,6ra iritsita). Ratio hori % 43,4 da gizonen artean (-1,1 puntu) eta % 51,7 emakumeen artean (-2,6 puntu).


III.1.12. GRAFIKOA. EAEN-ERREGISTRATURIKO LANGABEA: BANAKETA, IRAUPEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2022KO ABENDUA.



Fuente: EEZP. Geuk egina.

Bi sexuen arteko diferentzia, beraz, 8,3 puntukoa zen 2022ko abenduan, eta 1,5 txikiagotu da azken urtean.

III.1.13. GRAFIKOA. IRAUPEN LUZEKO LANGABEZIA TASA* EAE-N, SEXUAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEA.



Iturria: EEZP. Geuk eginikoa.

* Lanik gabe urtebetetik gora daramatenen ehunekoa

Bestalde, **lana eskatzen duten pertsonen guztizko kopuruak**, langabeen eta langabeen baturak, 2021ean % 27,4 jaitsi ondoren, joera horretan jarraitzen du, % 14,7 jaitsita, teknikoki langabezian ez dauden lan-eskatzailen kopurua nabarmen jaitsi delako (-% 20,8)⁸, enplegu-eskatzailen langabeen beherakada baino askoz handiagoa (-% 3,5).

Lan-eskatzailen guztizko kopurua, 2022ko abenduan, 278.339 pertsonakoa da, 2021eko abenduan baino 47.975 gutxiago. Jaitsiera hori, batez ere, gizonen lan-eskariaren bilakaerak eragin du, % 19,2 jaitsi baita, baina emakumeen artean ere nabarmen jaitsi da, % 11,2). Estatuan, guztira, % 8,4 murriztu da enplegu-eskaria, 4,4 milioi pertsona izateraino (-% 34,4, 2021ean).

⁸ Enplegu-eskatzailen kopuru osoa erregistratutako langabeek osatzen dute (2019ko abenduan EAEko enplegu-eskatzailen guztien % 41a zirenak), gehi beste enplegu bat eta beste egoera batzuk nahi dituzten landunek, hala nola enplegurik ez duten baina baldintza bereziak eta jardun mugatua (etxean bakarrik, atzerrian telelana eta abar) duten eskatzailak.

Alabaina, 2022ko BJaren arabera (IV. hiruilekoa), langabeen % 32,7 ez zegoen erregistraturik langabe gisa LANBIDEN (36.200 lagun inguru) (% 33,8 2021ean).

III.1.20. TAULA. ENPLEGU ESKAERAREN BILAKAERA EAE-N, SEXUAREN ETA LAN EGOERAREN ARABERA. ABENDUKO HILABETEA.									
		2018	2019	2020	2021	2022	ALDAKUNTZA (%)		
							19/20	20/21	21/22
LANGABEAK	GIZONAK	53.021	51.167	58.898	51.231	47.845	15,1	-13	-6,6
	EMAKUMEAK	66.653	62.992	70.342	63.614	62.953	11,7	-9,6	-1,0
	GUZTIRA	119.674	114.159	129.240	114.845	110.798	13,2	-11,1	-3,5
LANGABEAK EZ DIRENAK	GIZONAK	62.803	66.755	157.801	91.629	67.556	136,4	-41,9	-26,3
	EMAKUMEAK	87.769	97.697	162.412	119.840	99.985	66,2	-26,2	-16,6
	GUZTIRA	150.572	164.452	320.213	211.469	167.541	94,7	-34	-20,8
GUZTIRA	GIZONAK	115.824	117.922	216.699	142.860	115.401	83,8	-34,1	-19,2
	EMAKUMEAK	154.422	160.689	232.754	183.454	162.938	44,8	-21,2	-11,2
	GUZTIRA	270.246	278.611	449.453	326.314	278.339	61,3	-27,4	-14,7

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

Azkenik, LANBIDEn bulegoetan erregistraturiko langabeziaren datuek erakusten dutenez, 2022an murriztu egin zen **atzerritarren** langabezia, baina guztizko langabezia ez bezala (-% 3,5), % 1,5 igo baita. Hortaz, gora egin zuen atzerritar langabetuen pisuak, % 16,2tik % 17,2ra.

Estatuan, atzerritarrak langabetuen % 13 dira, aurreko urtean baino 2 hamarren gehiago, zeren eta atzerritarren langabezia % 5,9 gutxitu baita. Guztizko enplegua, berriz, - % 8,6 da.

III.1.21. TAULA. ATZERRITARREN LANGABEZIAREN BILAKAERA EAE-N ETA ESTATUAN, JATORRIAREN ARABERA. ETA ESTATUAREKIN ALDERATZEA ABENDUKO HILABETEA.				
		EAE	ESTATUA	EAE/ESTATUA %-TAN
2019	EB	3.643	143.150	2,5
	EB-TIK KANPO	14.790	255.144	5,8
	GUZTIRA	18.433	398.294	4,6
	Guzt. langab. %	16,1	12,6	-
2020	EB	4.038	198.644	2
	EB-TIK KANPO	16.397	366.736	4,5
	GUZTIRA	20.435	565.380	3,6
	Guzt. langab. %	15,8	14,5	-
2021	EB	3.382	138.963	2,4
	EB-TIK KANPO	15.179	257.439	5,9
	GUZTIRA	18.561	396.402	4,7
	Guzt. langab. %	16,2	12,8	-
2022	EB	3.216	116.456	2,8
	EB-TIK KANPO	15.618	256.459	6,1
	GUZTIRA	18.834	372.915	5,1
	Guzt. langab. %	17,2	13,0	-
ALD. % 20/21	EB	-16,2	-30	
	EB-TIK KANPO	-7,4	-29,8	
	GUZTIRA	-9,2	-30,0	
ALD. % 21/22	EB	-4,9	-16,2	
	EB-TIK KANPO	2,9	-0,4	
	GUZTIRA	1,5	-5,9	

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.

2. KONTRATAZIOEN BILAKAERA, ALDI BATERAKO KONTRATUEN AMAIERA ETA IRAIZPENAK

2.1. KONTRATAZIOAREN EGOERA

2.1.1. 2022ko lan-erreforma. Abenduaren 28ko 32/2021 LEDaren ikuspegi orokorra

32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presako neurriei buruzkoa, 2022ko abenduaren 31n jarri zen indarrean, baina lan-kontratazioko arau berriak 2022ko martxoaren 30era arte ez ziren indarrean jarri. Espainiako Gobernuaren Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 23. osagaiarekin («*Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak*») zuzenean lotzen da arau hori, eta CCOO eta UGT sindikatuen eta CEOE eta CEPYME enpresa-erakundeen arteko elkarriketa sozialaren esparruan lortutako akordioaren emaitza da.

Helburu nagusia Espainiako lan-merkatuaren egiturazko erreformari ekitea da, aldi baterako kontratuen tasa altuak murrizteko eta, hala, behin-behinekotasun horren ondoriozko enpleguaren prekarietateari aurre egiteko. Funtsezko helburu horrekin batera, erreformaren beste helburu garrantzitsu batzuk ere lortu nahi dira, hala nola lanaldia murrizteko eta eteteko neurriak bultzatzea, ABEEE direlakoak, lan-kontratuak azkentzearen ordezkioa den aldetik, langileen prestakuntza indartzea eta negoziazio kolektiboa modernizatzea.

Hauek dira ezaugarri nagusiak:

1. Behin-behinekotasuna murriztea. Helburua kontratu mugagabea arau orokorra izatea eta aldi baterako kontratuak kausa hutsezko jatorria izatea da, abusuzko erabilera gerta ez dadin. Horretarako, Legegintzako Errege Dekretuan artikulatutako neurri esanguratsuenak obra edo zerbitzu jakin baterako kontratua desagertzea eta iraupen mugatuko kontratuak bi modalitatetara mugatzea dira: ekoizpenaren gaineko gorabeherengatiko kontratua eta langilearen ordezkapen-kontratua. Lehenengoa, ekoizpenaren inguruabarrei buruzkoa, bi motatan banatzen da, erantzuna ematen dioten inguruabarren arabera: ustekabekoak edo aurreikus daitezkeenak. Ordezkapen-kontratuari dagokionez -bitarteko lan-kontratuaren birformulazioa da-, hiru kasu hauetarako hitzartu daiteke: lanpostua gordeta duen langile bat ordeztzeko, lanaldi murriztua beste langile batekin osatzeko, baldin eta murrizketa hori hitzarmen kolektiboan legez ezarritako edo araututako kausetan oinarritzen bada, edo hautatzeko eta sustatzeko prozesuan lanpostu bat aldi baterako betetzeko, kontratu finkoaren bidez behin betiko betetzeko.

2. Aldizkako kontratu finkoa indartzea. Obra-kontratua erabiltzen zen kasu gehienen beste aukeratzat planteatzen da, eta, beraz, behin-behinekotasuna murrizteko funtsezko beste neurri bat da. Kontratua urte sasoiko lanak edo sasoiko produktzioko jarduerekin lotutako lanak egiteko aurreikusita dago, edo, bestela, halakoa izan ez arren, aldizkako prestaziokoak izanik, gauzatzeko aldi zehatzak edo zehaztugabeak dituzten lanak egiteko.

3. Prestakuntzako kontratuen erregulazio berria. Aurreko prestakuntzarako eta praktikaldiko kontratuei, orain, txandakako prestakuntzako kontratua eta praktika profesionala eskuratzeko kontratua deituko zaie. Lehenaren helburua ordaindutako lan-jarduera eta LHko, unibertsitateko ikasketetako edo Prestakuntza Espezialitateen Katalogoko prestakuntzako prozesuak bateragarri egitea da. Kontratu mota horretan, aldaketa esanguratsuenetako bat izan da benetako laneko denbora murriztu dela prestakuntzako denbora handitzeko, eta kontratuaren gehieneko iraupena 2 urtekoa izan daitekeela (lehen hiru urtekoa). Bestalde, praktika profesionala eskuratzeko kontratua (praktikaldiko aurreko kontratua) unibertsitateko titulua, erdi edo goi mailako titulua, espezialista, master profesionala edo Lanbide Heziketako sistemaren ziurtagiria duten pertsonekin hitzartu daiteke. Gutxienez sei hilabete iraun dezake, eta gehienez urtebete (lehen bi).

4. ABEEEtan egindako aldaketak. Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedienteen erabilera errazteko eta arintzeko neurriak bideratzen dira, kontratuak azkentzearen ordezko eta lehentasunezko formula den aldetik. Egindako aldaketak COVID-19aren ondoriozko ABEEEn araubidea ABEEEn erregulazioan etengabe sartzera bideratuta daude. Izan ere, frogatu dute eraginkorrak direla enplegua eta enpresa-sarea babesteko kontingentzien eta krisien aurrean.


5. Negoziazio kolektiboko neurriak. Besteak beste, nabarmentzekoak dira soldatari dagokionez enpresa-hitzarmena aplikatzeko lehentasuna kentzea (enpresa-hitzarmenak lehentasuna izaten jarraitzen du, soldataren aldetik izan ezik; kasu horretan, lehentasuna sektoreko hitzarmenari dagokio, salbu eta enpresa-hitzarmenak baldintza hobek ezartzen baditu) eta hitzarmen kolektiboen aurreraeragin mugagabea berreskuratzea, hau da, hitzarmen kolektibo batean ezarritako baldintzek indarrean jarraitzea, nahiz eta berariazko indarraldia amaitu eta hitzarmen berririk adostu ez.

Jarraian, Euskadiko 2022ko kontratazioaren zifra nagusiak emango dira, non 32/2021 Legegintzako Errege Dekretuaren ondorioak islatzen baitira: kontratuen guztizko kopuruaren beherakadarekin batera (-% 5,3), kontratatutako pertsonen kopurua hazi egin da (+% 6,9), eta kontratu mugagabeen sinaduraren gorakada garrantzitsua gertatu da (+% 148,3).

2.1.2. Kontratazioa 2022an

Kontratazioak nabarmen egin zuen behera Euskadin 2020an (-% 30,2), COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta eten egin zuen 2014-2019 aldiko bilakaera positiboa. 2021ean susperraldi handia izan zen, kontratuak nabarmen hazi baitziren (+% 22,5). 2022an, kontratazioak % 5,3 egin du behera 2021arekin alderatuta, eta aldaketa handiak izan dira osaearen, hurrengo orrialdeetan ikusiko dugunez.


III.2.1. GRAFIKOA. EAE-KO LAN-KONTRATUEN URTEKO ALDAKUNTZA (%): HASIERAKOAK ETA GUZTIZKOAK. ESTATUKO GUZTIZKOAREKIN ALDERATZEA



Iturria: LANBIDEren datuekin eginikoa.

Guztira, **EEZPk 815.719 lan-kontratu erregistratu zituen 2022an gure erkidegoan** (kontratu berriak gehi bihurketak), eta ia % 50ean banatzen dira gizonen eta emakumeen artean (ikus III.2.2 grafikoa). Gizonek, berriz, kontratatutako pertsonen % 52,1 hartzen dute (aurrerago, urtean sinatutako kontratuen batez besteko kopurua –txandakatzea– eta sexuaren arabera aldea aztertuko dira). Aurreko urtearen aldean, emakumeen kontratazioa gizonena baino pixka bat gutxiago jaitsi da (-% 3,4 eta -% 7,2, hurrenez hurren).

III.2.2. EAE-KO KONTRATAZIOAREN BILAKAERA: KONTRATU KOPURUA SEXUAREN ARABERA



Iturria: LANBIDE. Geuk eginikoa.

Lurraldeka, Bizkaiak batez bestekoaren gainetik egin du behera, kontratazioetan % 7,5 egin baitu behera. Gipuzkoan eta Araban batez bestekoa baino gutxiago jaitsi da, % 3 eta % 3,5, hurrenez hurren. Banaketari dagokionez, Bizkaiaren kontratuen % 49,2 sinatu zen (401.684), % 30,7 Gipuzkoan (250.463) eta gainerako % 20,1a Araban (163.572). Estatuan, berriz, 18,3 milioi kontratu erregistratu ziren 2022an, 2021ean baino 1,1 (-% 5,7) gutxiago.

Sektore guztietan egin du behera kontratazioak, eta industriak izan du bilakaerarik txarrena (-% 12,3). Ondoren, eraikuntzak (-% 9). Kontratazioa gutxien murriztu duen sektorea zerbitzuena da, % 3,8 jaitsi baita 2021arekin alderatuta, eta, ondoren, lehen sektorea dago (-% 4). Zerbitzuen sektoreko kontratazioak gutzitzkoaren % 80 dira, eta industriakoak, berriz, % 14,8.

III.2.1. TAULA. EAE-N ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, SEXUAREN ETA JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	20/21 (%)	21/22 (%)
GUZTIRA	867.255	926.599	958.100	1.001.181	1.008.175	703.355	861.726	815.719	22,5	-5,3
GIZONAK	433.438	458.363	479.693	500.925	502.030	356.019	437.788	406.391	23	-7,2
EMAKUMEAK	433.817	468.236	478.407	500.256	506.145	347.336	423.938	409.328	22,1	-3,4
LEHEN SEKTOREA	17.890	18.563	16.738	18.456	17.618	15.598	15.484	14.865	-0,7	-4,0
INDUSTRIA	140.145	147.712	149.237	155.153	150.691	109.719	137.257	120.377	25,1	-12,3
ERAIKUNTZA	34.434	34.069	34.808	35.560	34.049	28.146	30.286	27.546	7,6	-9,0
ZERBITZUAK	674.786	726.255	757.317	792.012	805.817	549.892	678.699	652.931	23,4	-3,8

Iturria: LANBIDE. Guk geuk egina.

Jarduera-atalen arabera, ia guztiek bilakaera negatiboa izan dute, bereziki Garraioa eta biltegiatzea (-% 20,1) eta Informazioa eta komunikazioak (-% 15,6). Hala ere, ikusten da igoera nabarmena izan dela energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren horniduran egindako kontratazioetan (+% 40,5). 2021eko joera berarekin jarraituz, ostalaritzan eta arte, jolas eta entretenimenduko jardueretan egindako kontratazioak % 17,5 eta % 22,5 hazi dira (kontratuen % 13,4 eta % 4,9 dira, hurrenez hurren). Manufaktura-industria kontratuen % 14 da, eta % 12,8 jaitsi da.

Aurreko urteetan bezala, sexuaren araberako aldeak ageri dira. Izan ere, manufaktura-industriak gizonen sinatutako kontratuen % 21,2 hartzen du (2021ean baino 1,4 puntu gutxiago), eta emakumeen artean, berriz, pisu handiena duten jarduera-atalak Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuen jarduerak eta Ostalaritza dira (bien artean, emakumeek sinatutako kontratuen % 36,1).

III.2.2. TAULA. KONTRATAZIOA EAE-N, SEXUAREN ETA JARDUERA-SEKTOREAREN (EJSN 2009)


	2021	2022KO KONTRATUAK				ALD. % 20/21	ALD. % 21/22
		GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	BERT. %		
NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA, BASOGINTZA, ARRANTZA	15.484	13.300	1.565	14.865	1,8	-0,7	-4,0
ERAUZKETA-INDUSTRIAK	129	121	33	154	0,0	12,2	19,4
MANUFATURA-INDUSTRIA	131.117	86.223	28118	114.341	14,0	25,9	-12,8
ENERGIA ELEKTRIKOAREN, GASAREN, LURRUNAREN HORNIKUNTZA	153	123	92	215	0,0	13,3	40,5
URAREN HORNIKUNTZA, HONDAKINEN KUDEAKETA	5.858	5.053	614	5667	0,7	9,5	-3,3
ERAIKUNTZA	30.286	25.571	1.975	27.546	3,4	7,6	-9,0
HANDIZKAKO ETA TXIKIZKAKO MERKATARITZA, KONPONKETAK...	105.570	41.459	55.268	96.727	11,9	14	-8,4
GARRAIOA ETA BILTEGIRATZEA	81.833	53.560	11.840	65.400	8,0	16,6	-20,1
OSTALARITZA	93.324	42.757	66.860	109.617	13,4	40,4	17,5
INFORMAZIOA ETA KOMUNIKAZIOAK	29.339	14.769	9.992	24.761	3,0	30,3	-15,6
FINANTZA- ETA ASEGURU-JARDUERAK	3.298	1.302	2006	3.308	0,4	2,2	0,3
HIGIEZIN-JARDUERAK	1.124	377	764	1141	0,1	15,8	1,5
PROFESIONALAK, ZIENTIFIKOAK ETA TEKNIKOAK	31.178	12.818	14.114	26.932	3,3	49,4	-13,6
ADMINISTRATIO-JARDUERAK	93.931	37.141	49.116	86.257	10,6	20,8	-8,2
ADMINISTRATIO PUBLIKOA	12.461	5.326	6.691	12.017	1,5	25	-3,6
HEZKUNTZA	47.400	14.542	34.249	48.791	6,0	42,6	2,9
OSASUN-JARDUERAK ETA GIZARTE-ZERBITZUETAKO JARDUERAK	112.149	21.064	81.288	102.352	12,5	8,2	-8,7
ARTE, JOLAS ETA ENTRETENIMENDUKO JARDUERAK	32.404	23.973	15.722	39.695	4,9	55,3	22,5
BESTE ZERBITZU BATZUK	16.237	5.656	10.318	15.974	2,0	40	-1,6
FAMILIAK, LANGILE ENPLEGATZAILE	18.370	1.244	18679	19.923	2,4	15,9	8,5
LURRALDEZ KANPOKO ERAKUNDEAK EXTRATERRITORIALES	81	12	24	36	0,0	-34,1	-55,6
GUZTIRA	861.726	406.391	409.993	815.719	100,0	22,5	-5,3

Iturria: LANBIDE. Guk geuk egina.

2022an **kontratutako pertsonen** dagokienez, guztira 304.208 kontratatu dira (2021arekin alderatuta, + 6,9), erregistratutako kontratuen kopurua baino zifra txikiagoa, 815.719 (-% 5,3), EEZPk emandako datuen arabera.

LANBIDEK **adinaren eta ikasketa-mailaren arabera banaketari** buruzko informazioa ematen du⁹.

III.2.3. GRAFIKOA. EUSKADIN KONTRATATURIKO PERTSONEN BANAKETA* ADIN-TALDEAREN ARABERA. 2018-2022.



Iturria: LANBIDE. Geuk eginkoa.

* Ikusi 9. orri-oina.

Pertsona horietako gehienak, gizonak zein emakumeak, 35 eta 54 urte bitartekoak dira (% 41,2), 35 eta 44 urte bitartekoak (guztizkoaren % 22,2) eta 45 eta 54 urte bitartekoak (% 19). 25 eta 34 urte bitartekoek ere kontratu bat sinatu dute (% 26,8). 25 urtetik beherakoek, berriz, % 22,6 osatzen dute, 2021eko % 20,7 baino ratio handiagoa, eta biztanleria aktiboan duten pisua baino askoz handiagoa (% 5,4, 2022ko azken hiru hilabeteak datua). 2021arekiko bilakaerari dagokionez, portaera nahiko antzekoa da bi sexuetan, eta gehien hazten diren adin-taldeak (guztiak dituzte bilakaera positiboak) 25 urtetik beherakoak (+% 16,2) eta 54 urtetik gorakoak (+% 8,1) dira, ondoren 25-29 urtekoak (+% 4,9) eta 45-54 urtekoak (+% 4) daude. 30-34 urteko eta 35-44 urteko taldeak gutxiago hazi dira (+% 3,0 eta +% 2,1, hurrenez hurren).

⁹ 2022ean kontratatutako pertsonen kopurua (297,717: horri buruzko ematen du Lanbidek hemen aurkezten den informazioa) EEZPk emandakoa baino txikiagoa da (304.208).

III.2.3. TAULA EAE-N KONTRATATUTAKO PERTSONAK*: SEXUAREN, ADINAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERAKO BANAKETA. 2022.

		2022AN KONTRATATUTAKO PERTSONAK			PERT. % 2022KO KONTRATUAK			HAZK. % 2021/22		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
ADINA	< 25	35.703	31.558	67.261	23,1	22,1	22,6	15,4	17,2	16,2
	25 - 29	23.818	21.522	45.340	15,4	15,0	15,2	5,9	3,9	4,9
	30 - 34	18.266	16.382	34.648	11,8	11,5	11,6	3,1	2,9	3,0
	35 - 44	34.592	31.559	66.151	22,4	22,1	22,2	1,4	3,0	2,1
	45 - 54	28.119	28.595	56.714	18,2	20,0	19,0	2,5	5,2	4,0
	> 54	14.175	13.428	27.603	9,2	9,4	9,3	9,1	7,1	8,1
IKASKETA MAILA	DBH GEHIENEZ	70.913	56.703	127.616	45,8	39,6	42,9	6,3	7,4	6,8
	BATXILERGOA	31.425	31.897	63.322	20,3	22,3	21,3	8,3	9,8	9,1
	LH	25.968	20.313	46.281	16,8	14,2	15,5	2,2	1,6	1,9
	UNIBERTS. IK.	26.122	31.488	57.610	16,9	22,0	19,4	7,3	3,7	5,3
	EZEZAGUNA	245	2.643	2.888	0,2	1,8	1,0	35,4	51,8	50,3
GUZTIRA		154.673	154.673	143.044	297.717	100	100	6,2	6,8	6,5

Iturria: LANBIDE. Guk geuk egina.

* Ikus 9. oin-oharra.

Kontratutako pertsonen banaketari dagokionez, ikasketa mailaren arabera, % 42,9k derrigorrezko edo beheragoko ikasketak ditu, proportzio handiagoa gizonen artean (kontratutakoen % 45,8) eta pixka bat txikiagoa emakumeen artean (% 39,6). Bestalde, kontratuen % 21,3, Batxilergoa duten pertsonen dagokie. Ondoren, % 15,5 ikasketa profesionalak dituzten pertsonen dagokie (antzeko proportzioa bi sexuetan) eta % 19,4 unibertsitate-ikasketak dituztenei. 2021. urtearekin alderatuta, ikasketa maila guztiek gora egin dute, antzeko proportzioetan; gehien egin dutenak Batxilergoa eta derrigorrezko edo beheragoko ikasketak izan dira (+% 9,1 eta +% 6,8, hurrenez hurren), eta lanbide heziketa dutenen taldea izan da gutxien igo dena (+% 1,9).

Lanaldi motari

dagokionez, bilakaera negatiboa izan dute lanaldi partzialeko kontratuek, eta lanaldi osokoek oso igoera nabarmena izan dute lanaldi finko eteneko kontratuek (% 695,4 igo dira 2021arekin alderatuta).

Erregistratutako kontratuen % 4,5 dira kontratu horiek, 2021ean baino 4 puntu gehiago.

		2017	2018	2019	2020	2021	2022	20/21 (%)	21/22 (%)
LANALDI PARTZIALA	GIZONAK	128.959	133.023	135.479	91.181	117.560	103.454	28,9	-12,0
	EMAKUM EAK	256.813	266.899	270.460	177.726	221.915	197.129	24,9	-11,2
	GUZTIRA	385.772	399.922	405.939	268.907	339.475	300.583	26,2	-11,5
LANALDI OSOA	GIZONAK	349.576	366.614	364.729	263.845	318.188	283.327	20,6	-11,0
	EMAK.	220.230	231.623	233.174	168.175	199.443	195.061	18,6	-2,2
	GUZTIRA	569.806	598.237	598.233	432.020	517.631	478.388	19,8	-7,6
LANALDI FINKO ETENA	GIZONAK	1.158	1.288	1.827	993	2.048	19.613	106,2	857,7
	EMAK.	1.364	1.734	2.506	1.435	2.572	17.135	79,2	566,2
	GUZTIRA	2.522	3.022	4.333	2.428	4.620	36.748	90,3	695,4
GUZTIRA	GIZONAK	479.693	500.925	502.032	356.017	437.796	406.394	23	-7,2
	EMAK.	478.407	500.256	506.143	347.338	423.930	409.325	22,1	-3,4
	GUZTIRA	958.100	1.001.181	1.008.175	703.355	861.726	815.719	22,5	-5,3

Iturria: EEZP. Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa.


Lanaldi partzialeko kontratuak 300.583 dira EAEn (-% 11,5, 2021 urtearekin alderatuta; hau da, guztira baino gehiago igo dira), hots, kontratu guztien % 36,8 (-2,6 puntu, 2021 urtearekin alderatuta).

Lanaldi osoko kontratuak, bestalde, 478.388 dira, aurreko urtean baino % 7,6 gutxiago (eta guztien % 58,6 dira). Bi kasuetan, sexuaren arabera bilakaerak ia berdina dira (ikus III.2.4 taula)¹⁰.

¹⁰ Emakumeek eta gizonek 2022an erregistratutako kontratuen kopuruari buruz EEZPk ematen duen informazioa zertxobait aldatzen da LANBIDEk emandakoarekin alderatuta (EEZPren arabera, gizonek sinatutako 406.394 kontratu eta gizonek sinatutako 409.325 kontratu; LANBIDEren arabera, gizonek sinatutako 406.391 kontratu eta emakumeek sinatutako 409.328).

Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia baita (% 48,2 2022an, aurreko urtean baino 4,1 puntu gutxiago), gizonen sinatutako kontratuen % 25,5aren aldean (-1,4 puntu 2021arekin alderatuta). Hala, 2022. urtean emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratuen % 65,6 (% 65,4 2021ean).

III.2.4. GRAFIKOA. LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUEN EHUNENKOAREN BILAKAERA EAE-N. SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZP. Geuk eginikoa.

Iraupenari dagokionez, sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak dira oraindik (guztizkoaren % 75,5), 615.724, nahiz eta datu hori 2021ean baino % 21,2 txikiagoa den. Aitzitik, 2022an, kontratu mugagabeek nabarmen egin dute gora: 199.995 sinatu dira, 2021ean baino % 148,3 gehiago, eta erregistratutako kontratuen % 24,5 dira.


III.2.5. TAULA. EAE-N ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUEN BILAKAERA, IRAUPENAREN ETA SEXUAREN ARABERA

		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	19/20 (%)	20/21 (%)	21/22 (%)
MUGAGABEAK	GIZONAK	32.941	38.202	46.057	43.483	29.917	40.983	102.698	-31,2	37	150,6
	EMAKUMEAK	32.589	35.126	42.568	40.448	29.531	39.562	97.297	-27	34	145,9
	GUZTIRA	65.530	73.328	88.625	83.931	59.448	80.545	199.995	-29,2	35,5	148,3
ALDI BATERAKOAK	GIZONAK	425.422	441.491	454.868	458.549	326.100	396.805	303.696	-28,9	21,7	-23,5
	EMAKUMEAK	435.647	443.281	457.688	465.695	317.807	384.376	312.028	-31,8	20,9	-18,8
	GUZTIRA	861.069	884.772	912.556	924.244	643.907	781.181	615.724	-30,3	21,3	-21,2
GUZTIRA	GIZONAK	458.363	479.693	500.925	502.032	356.017	437.788	406.394	-29,1	23	-7,2
	EMAKUMEAK	468.236	478.407	500.256	506.143	347.338	423.938	409.325	-31,4	22,1	-3,4
	GUZTIRA	926.599	958.100	1.001.181	1.008.175	703.355	861.726	815.719	-30,2	22,5	-5,3

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa. Kontratuen estatistikak.

Kontratazio mugagabearen eta aldi baterakoaren bilakaerak ez dute alde handirik erakusten sexuaren arabera; hala ere, kontratazio mugagabearen garrantzia zertxobait handiagoa da gizonen artean (% 25,3 eta % 23,8).

III.2.5. GRAFIKOA. EAE-KO KONTRATU MUGAGABEEN EHUNENKOA SEXUAREN ARABERA



Iturria: EEZP. Geuk eginikoa.

Aldi baterako kontratu motei dagokienez¹¹, erdia (% 64,8) produkzioaren zirkunstantziek eragindako behin-behineko kontratuak dira, eta % 1,7 jaitzi dira 2021aren aldean. Bigarrenik, bitarteko kontratuak daude, guztizkoaren % 24,8 baitira (% 0,7 jaitzi dira). Obra- edo zerbitzu-kontratuak, 2021ean guztizkoaren % 26,9 zirenak, guztizkoaren % 6,1 izatera igaro dira 2022an, lan-erreformaren ondorioz (% 82,1 jaitzi dira aurreko urtearekin alderatuta). Hiru kontratu mota horiek batuta, aldi baterako kontratuen % 95,7 osatzen dute (% 98,4 2021. urtean). Eta aldi baterako kontratuak gizonen eta emakumeen artean ia % 50ean banatzen badira ere (gizonek % 49,3 sinatzen dute eta emakumeek % 50,7), emakumeen presentzia bereziki garrantzitsua da bitarteko kontratuetan, horietan % 68,4 sinatu baitzuten. Aitzitik, emakumeen parte-hartzea txikiagoa da obra edo zerbitzuko kontratuetan (% 41,2), eta berdintsueagoa produkzioaren inguruabarrengatik kontratuetan (guztizkoaren % 45,7).

Aldi baterako kontratuen lanaldi motari dagokionez, lanaldi partzialaren batez besteko pisua % 40,1ekoa da (% 38,1, 2021ean), eta ez da desbideratze handirik hauteman aipaturako aldi baterako hiru kontratu mota nagusietan.

III.2.6. TAULA. EAE-N 2019AN SINATUTAKO ALDI BATERAKO KONTRATUEN BANAKETA, MOTA, SEXU ETA LANALDI MOTAREN ARABERA	GUZTIRA		GIZONAK	EMAKUMEAK	LANALDI OSOA	LANALDI PARTZ.
	ABS.	% BERTIK.				
	OBRA EDO ZERBITZUA	37.517				
EKOIZPENAREN GORABEHERAK	397.762	64,8	215.827	181.935	246.294	151.468
BITARTEKO KONTRATUA	152.531	24,8	48.202	104.329	90.312	62.219
DESGAITUAK	1.543	0,3	962	581	1.245	298
TXANDAKOA	737	0,1	343	394	361	376
ERRETIRO PARTZIALA	2.664	0,4	1.934	730	-	2.664
64 URTEREKIN ERRETIROAGATIK ORDEZKATZEA	9	0,0	1	8	9	-
PRAKTIKALDIA	5.180	0,8	3.309	1.871	4.393	787
PRESTAKUNTZA	1.393	0,2	981	412	1.393	-
DOKTOREGO AURREKO IKERTZAILEA PRESTATZEN	529	0,1	256	273	529	-
BESTELAKOAK	14.234	2,3	8.979	5.255	12047	2187
GUZTIRA	614.099	100	302.866	311.233	379.949	234.150

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa. Kontratuei buruzko estatistika, 2022.


Aldi baterako kontratazioak pisu handia duenez gero, kontratatutako pertsona asko urtean behin baino gehiagotan kontratatzen dira. Hala, esan bezala, 2022an kontratatutako pertsonen kopurua (304.208 lagun) (+% 6,9 2021. urtearekin alderatuta) jasotako kontratu guztiak (815.719) baino askoz txikiagoa da (-% 5,3). Horrez gain, 2022ean kontratatutako pertsonen % 52 gizonak izan ziren; emakumeen % 48aren aldean (% 52,3 eta % 47,7 hurrenez hurren 2021ean).

Zifra horiek kontuan hartuz, **laneko txandakatze-indizea** kalkulatu da (sinatutako kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsona kopuruaren arteko zatidura), emakumeentzat handiagoa izan dena aztertutako sail guztian. Txandakatzea, 2017an eta 2018an ez bezala, handitu egin zen 2019an, eta 2020an nabarmen jaitzi zen kontratazioaren beherakadaren ondorioz (kontratuak % 30,2 murriztu ziren, eta kontratatutako pertsonak % 21). 2021ean gora egin dute bai kontratuen kopuruak (% 22,5), bai kontratatutako pertsonen kopuruak (% 16). Beraz, laneko txandakatzearen ratioa kontraturiko pertsonako 3,03 kontratu izan da.

2022an, kontratatutako pertsonen kopuruak gora egin badu ere (% 6,9), kontratu kopuruak behera egin du (-% 5,3), eta, beraz, lan-txandakatzea 2,68 kontratukoa izan da kontratatutako pertsona bakoitzeko (-35 ehunekoak 2021. urtearen aldean). Emakumeen kasuan, datua 2,81 kontratukoa da (-31 ehunen) eta gizonena 2,57 (-38 ehunen). Horrenbestez, bi sexuen arteko aldea mantendu da (24 ehunen, aurreko urteko 18ren aldean).

¹¹ Kontuan hartu behar da 32/2021 Errege Lege Dekretuaren ondoriozko kontratazio-tipologiaren aldaketak 2022ko martxoaren 30ean jarri zirela indarrean, eta, beraz, 2022ko zifra erantsietan bi araudiak/sailkapenak daude.


III.2.6. GRAFIKOA. LAN-TXANDAKATZEAREN BILAKAERA (KONTRATATURIKO PERTSONAKO KONTRATUEN BATEZ BESTEKO), SEXUAREAN ARABERA EAE-N



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Lan-txandaketa hori islatzeko beste modu bat da 2022an kontrataturiko pertsonen erdiak urtean kontratu bat izan zuela azpimarratzea da (guztizkoaren % 53,2, % 55,6 gizonen artean eta % 50,7 emakumeen artean), % 28,6k 2 edo 3 lan-kontratu izan zituen, % 17,2k 4-20 kontratu sinatu zituen eta gainerako % 0,9k 20 kontratu baino gehiago sinatu zituen urtean. Banaketa antzekoa da sexuen arabera, hala ere, esan bezala, emakume gehiago dago urtean zehar sinatutako kontratu kopururik handieneko kategorietan (txandakatze handiagoa).

III.2.7. GRAFIKOA. EAE-N KONTRATATURIKO PERTSONEN BANAKETA EAE-N, SEXUAREN ETA KONTRATU KOPURUAREN ARABERA. 2022.



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena, berriz, 43 egunekoa da 2022an (2021ean baino 5 egun gutxiago), eta Estatu osoan baino 5 egun gutxiago. Kontratu motaren arabera, laburrenak bitarteko kontratuak dira (31 egun batez beste), eta, ondoren, bitartekoei dagozkienak (39 egun, 2021ean baino 9 gehiago). Sexuaren arabera, batez beste, gizonek sinatutako aldi baterako kontratuek emakumeek sinatutakoak baino egun gehiago irauten dute (50 egun eta 41 egun). Aldea ez da Estatu osoan gertatzen: 2022an emakumeek sinatutako aldi baterako kontratuek, batez beste, gizonek sinatutakoak adina iraun zuten (49 egun eta 48 egun).

III.2.7. TAULA. EAE-N SINATUTAKO ALDI BATERAKO KONTRATU MUGATUEN BATEZ BESTEKO IRAUPENA (EGUN)												
	2019			2020			2021			2022		
	GIZONAK	EMAKUMEA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA	GUZTIRA
ERRETIRO PARTZIALA	1181	1183	1181	1146	1090	1129	1090	1060	1081	1074	1043	1066
TXANDAKOAK	899	950	924	914	932	923	844	748	789	900	853	875
DOKT. AURREKO IKERTZ	793	801	797	621	657	638	672	688	680	654	662	658
LANGILE DESGAIUA	379	376	378	375	369	372	369	370	369	365	368	366
PRESTAKUNTZA	364	364	364	351	374	358	355	360	356	343	352	345
AURRET. ERRETIROA	360	372	367	360	360	360	360	360	360	360	360	360
PRAKTIKALDIA	266	274	269	264	275	269	266	276	269	304	327	312
OBRA EDO ZERBITZUA	48	48	48	61	68	64	62	62	62	74	73	73
EKOIZP. INGURUABARRAK	37	35	36	36	36	36	37	37	37	33	30	31
BITARTEKO KONTRATUA	30	28	29	30	30	30	31	29	30	46	37	39
BESTELAKOAK	374	322	351	334	343	338	364	343	354	737	710	721
EAE, GUZTIRA	48	41	44	50	45	48	51	45	48	50	41	43
ESTATUA, GUZTIRA	49	49	49	52	54	53	53	53	53	48	49	48

Iturria: EEZPren datuekin egindakoa.


EAE 20212an izandako kontratazioa kontratuen iraupenaren eta lanaldi motaren arabera aztertuta, **bi aldagaiak gurutzatzen** hauxe egiaztatzen: sinaturiko 815.719 kontratuetatik ia erdia, (% 46,7, hain zuzen % 54,3 2021ean) lanaldi osorako aldi baterako kontratuak izan ziren, eta modalitate hori % 18,6 jaitsi zen (kontratu guztien -% 5,3). Bigarrenik, lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak daude, guztizkoaren % 28,8 (% 36,4 2021ean), % 25,1 jaitsi direnak. Hirugarrenik, lanaldi osoko kontratazio mugagabea, % 12 dena (+6,2 puntu), eta % 95,4 handitu da. Laugarren tokian, lanaldi partzialeko kontratazio mugagabea, % 8,1ean kokatu da (% 3 2021ean), eta % 152,8 handitu da. Bestalde, lanaldi finko eteneko kontratuak % 4,5 dira, 2021ean baino +4 puntu gehiago. Azkenik, aldi baterako kontratuak kontratu mugagabe bihurtu ziren kontratu guztien % 5,5 (% 3,9 eta 2021ean, hurrenez hurren), % 31,9 gehiago.

III.2.8. TAULA. EAE-N ERREGISTRATUTAKO LAN KONTRATUAK: LANALDI MOTAREN ETA IRAUPENAREN ARABERAKO DATUAK, ETA BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK										
		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	20/21 (%)	21/22 (%)
LANALDI PARTZIALA	MUGAGABEAK	23.780	25.292	30.416	27.995	20.106	25.981	65.674	29,2	152,8
	ALDI BATERAKOAK	347.952	360.480	369.506	377.614	248.801	313.494	234.909	26	-25,1
	GUZTIRA	371.732	385.772	399.922	405.609	268.907	339.475	300.583	26,2	-11,5
LANALDI OSOA	MUGAGABEAK	39.258	45.514	55.187	51.603	36.914	49.944	97.573	35,3	95,4
	ALDI BATERAKOAK	513.117	524.292	543.050	546.630	395.106	467.687	380.815	18,4	-18,6
	GUZTIRA	552.375	569.806	598.237	598.233	432.020	517.631	478.388	19,8	-7,6
LANALDI FINKO ETENA	MUGAGABEAK	2.492	2.522	3.022	4.333	2.428	4.620	36.748	90,3	695,4
KONTRATUAK GUZTIRA		926.599	958.100	1.001.181	1.008.175	703.355	861.726	815.719	22,5	-5,3
KONTRATU BERRIAK		905.528	932.989	969.338	975.677	680.409	828.010	771.242	21,7	-6,9
BIHURKETAK		21.071	25.111	31.843	32.498	22.946	33.716	44.477	46,9	31,9
LANALDI PARTZIALEKO TASA		40,1	40,3	40,0	40,2	38,2	39,4	36,9	3,1	-6,5
ATZERRITARREI EGINDAKO KONTRATUAK		93.887	103.574	126.658	140.355	104.693	127.987	135.821	22,2	6,1

Iturria: EEZP. Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa. Guk geuk egina.

Azkenik, EEZPren datuek erakutsi dutenez, 2022an, gure erkidegoan sinatutako kontratu guztietatik, 135.821 **atzeritarrek** sinatu zituzten, kontratu guztien % 16,7 (% 14,9 2020an eta 2021ean). Atzeritarrek sinatutako kontratuetatik, % 54,3 gizonezkoie dagokie (% 56,6 2020ean), eta % 45,7 (% 43,4 2021ean) emakumei. Kontratu horietatik, % 73,5 hirugarren sektorekoak dira, % 13 industriakoak, % 7,4, lehen sektorekoak, eta % 6,1, eraikuntzakoak.

III.2.8. GRAFIKOA. EAE-N SINATURIKO LAN-KONTRATUEN BILAKAERA IRAUPENAREN ETA LANALDI MOTAREN ARABERA



Iturria: EEZPren datuekin eginikoa.

2.2. KALERATZEEN ETA ERREGULAZIO ESPEDIENTEEN BILAKAERA

Erregistraturiko kaleratze indibidualak Autonomia Erkidegoko lan-administrazioko agintaritzaren aurrean (Eusko Jaurlaritzako Lan Sailaren ordezkariarekin) egindako adiskidetzeeen ondorioz eta bi aldeak ados egonik egin direnak dira, baita Lan arloko Epaitegien bidez izapidetutakoak ere; kaleratze horiek Lan eta Ekonomia Ministerioari jakinarazten zaizkio.

Bestalde, kaleratze kolektiboak dira enpresak erabakitakoak (langileen legezko ordezkariak erabakita, edo erabaki gabe), aldi jakin bat, aldi osoa eta legez ezarritako lan-kontratu kopuru edo ehuneko jakin bat iraungitzeko, arrazoik ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketa edo ekoizpen arrazoengatik, iraungitzeko enplegu-erregulazioko espediente (EEE) baten bidez.

2.2.1. Kaleratzeak¹²

Lehenik eta behin, **Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren "Lan-estatistikak"** direlakoetan, 2022an orotara 5.384 langile zeuden bitartekaritza, arbitraje eta adiskidetze (BAA) gaien eraginpean, eta aldean artean hala adostuta ebatzi ziren (behin-behineko datua), 2021ean baino % 1,3 gehiago. Horren ondorioz, batez beste 20.331,5 euroko kalte-ordaina izan da langileko (-% 3,1).


Halaber, beste 4.728 langileri eragin zieten gizarte arloko epaitegien bidez izapideturiko irazpenek (gizarte gai judizialak, GGJ), aurreko urtean baino % 15,2 gutxiago. Hala, adosturiko kantitateen batez besteko zenbatekoa 6.310,5 euro da, 2021ean baino % 15,2 gutxiago. Azken finean, 10.112 langile izan ziren irazpen horien eraginpean (-% 7,1 2021aren aldean), eta orotara 132,8 milioi euroko kalte-ordainak mugiarazi zituzten, 2021ean baino % 7,8 gutxiago.

¹² Banakako kaleratzeak diziplinazko arrazoiak edo arrazoi objektiboak izan dezake. Kaleratze objektiboen kasuan, arrazoiak enpresan eragiten badu, zenbait langilerengan izan dezake eragina, hala ere, kopurua ez inoiz heltzen kalera kolektiboaren tartetara. Informazio gehiagorako, irakurri dagokion glosarioa memoria honen barruan.

III.2.9. TAULA BANAKAKO KALERATZEAK ETA KALERATZE OBJEKTIBOEN BILAKAERA EAE-N (LAN MINISTERIOA).							
	BALIO ABSOLUTUAK					ALDAKUNTZA (%)	
	2018	2019	2020	2021	2022	2020/21	2021/22
UKITURIKO LANGILEAK							
BITARTEKOTZA, ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA (BAA) *	5.837	5.980	4.672	5.316	5.384	13,8	1,3
GIZARTEKO GAI JUDIZIALAK	4.458	4.626	5.470	5.573	4.728	1,9	-15,2
GUZTIRA	10.295	10.606	10.142	10.889	10.112	7,4	-7,1
ADOSTASUNEZ EGINDAKO ADISKIDETZE EKITALDIETAN ERABAKITAKO KOPURUAK:							
ZENBATEKOA, GUZTIRA (MILA €)							
BITARTEKOTZA, ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA *	102.760	116.463	80.668	111.584	109.465	38,3	-1,9
GIZARTEKO GAI JUDIZIALAK	25.064	28.171	33.641	32.506	23.373	-3,4	-28,1
GUZTIRA	127.824	144.634	114.309	144.090	132.838	26,1	-7,8
BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA (€)							
BITARTEKOTZA, ARBITRAJEA ETA ADISKIDETZEA *	17.604,9	19.475,4	17.266,2	20.990,2	20.331,5	21,6	-3,1
GIZARTEKO GAI JUDIZIALAK	5.622,3	6.089,7	6.150,0	5.832,8	4.943,5	-5,2	-15,2
GUZTIRA	12.416,1	13.637,0	11.270,9	13.232,6	13.136,7	17,4	-0,7

Iturria: LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. LAN-ESTATISTIKAK. Guk geuk egina.
* 2022ko datuak behin-behinekoak dira.

Denboraren ikuspegitik, kaleratze kopurua 10.000 inguru da, azken urteetan gertatu den bezala.



2.2.2. Enplegua Erregulatzeko Espedienteak

2012ko otsailan indarrean sartu zen lan erreformak taldeko irazpenetarako administrazio baimenaren behar historikoa ezabatu zuen. Horrenbestez, orduetik aurrera enpresak berez erabakitzen du, langileen ordezkariak ados egonda edo ados egon gabe, eta nahitaezko kontsulta-aldiaren ondoren, lan agintaritzari taldeko irazpena gauzatzeko erabakia jakinarazi besterik ez du egin behar. Kasu berezi gisa, ezinbesteko irazpenei dagokienez, oraindik lan agintaritzak egiaztatu

III.2.10. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK: UKITURIKO LANGILEEN KOPURUA (EUSKO JAURLARITZA)					
	ESPEDIENTEAK	UKITURIKO LANGILEAK			
		GUZTIRA	BEHERAPENA	ETENALDIA	AZKENTZEA
2017	266	4.342	481	2.864	997
2018	187	3.187	355	2.299	533
2019	173	2.449	219	1.933	297
2020	30.558	210.019	26.243	182.463	1.313
2021	1.858	32.723	3.332	28.477	914
2022	565	19.772	1.265	18.070	437
20/21 (%)	-93,9	-84,4	-87,3	-84,4	-30,4
21/22 (%)	-69,6	-39,6	-62,0	-36,5	-52,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Enplegu Saila.

behar du zirkunstantzia hori egon badagoela, enpresak irazpen horiek gauzatu ditzan. Edozelan ere, kontuan izan behar arlo publiko honi buruz emandako estatistiketan ez direla biltzen izandako irazpen guztiak, zeren eta ez baititu jasotzen


arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla izandako irazpenak, noiz-eta irazpen kolektibotzat¹³.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak **EAEen izandako EEEei buruzko estatistikak** argitaratzen ditu, eta 2022an 565 espediente izan ditu (2021ean 1.858), eta 19.772 langileri eragin die (-% 39,6), % 78, gizonak (% 74,2 2021ean).

Espediente motaren arabera, eragindako langileen % 9,14 aldi baterako etete espedienteengatik dira (-% 36,5 2021aren aldean), % 6,4, lanaldia murrizteko (-% 62), eta gainerako % 2,2a, azkentze EEErengatik (-% 52,2, aurreko urtearen aldean). Azken horiek, azkentze edo kaleratze kolektiboko EEE-ek, beraz, 437 langileri eragiten diete.

Ondorioz, aldi baterako etendurako edo lanaldi-murrizketako espedienteek, 2022an, guztira 19.335 langileri eragingo liekete, hau da, EEE-ek eragindako ia langile guztiei (% 97,8), eta 31.809 izan ziren 2021ean (-% 39,4). Hori dela eta, jarraian egiten den EEE-en urteko zifren analisia, oro har, ABEE-en irudiari aplikatu dakiok, hori hain garrantzitsua baita 2020an eta, neurri txikiagoan, 2021ean eta 2022an.

III.2.10. GRAFIKOA. EEE-EN BILAKAERA HISTORIKOA EAE-N, MOTAREN ARABERA*



Iturria. EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Enplegu Saila.


* AEEE-ak eteteko eta murrizteko espedienteen baturari dagozkio.

Enpresa motaren arabera, eraginpeko langileen % 62,4k sozietate anonimoetan egiten du lan, % 33,9k sozietate mugatuetan eta gainerako % 3,8k beste sozietate modu batzuetan. **Tamainari** dagokionez, % 13, 25 langiletik beherako plantilla duten enpresei dagokie (% 23,8, 2021ean), eta % 50,9, berriz, 250 langiletik gorakoek (% 35,8, 2021ean). Bi kategorien artean, % 8,9 eta % 50 bitarteko plantillei dagokie, % 6,8, 51-100 langileko plantillei eta gainerako % 20,3a 101-250 langilekoek.

¹³ Taldeko irazpentzat jotzen da hark 5 langiletik gorako langileria osoari eragiten dionean, enpresa jarduera erabat amaitzearen ondorioz edo, laurogeita hamar eguneko epean, 100 langiletik beherako enpresetan gutxienez 10 soldatapekori, langileen % 10i 100 eta 300 langile arteko enpresetan edo 30 soldatapekori 300 langiletik gorako enpresetan (Langileen Estatutuaren Legeko 51. artikulua). Ez badira atalase horiek lortzen, kaleratze objektibo bat dela hartuko da (52. art.).

Lurraldeka, Bizkaia jaitsi da gehien eragindako langileen kopurua (-% 48,4), 6.827 langile izateraino. Araban, bestalde, 7.496 pertsonari eragiten die, Gipuzkoa 5.449 pertsonari. Guztira honela banatu da: % 37,9 Araban, % 27,6 Gipuzkoan eta % 34,5 Bizkaian.

III.2.11. GRAFIKOA. EUSKADIN EEE-EK UKITURIKO LANGILEEN BANAKETA, ENPRESAREN TAMAINAREN ARABERA. EHUNEKOAK. 2022.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Geuk eginikoa.

Kausen arabera, eskariaren edo ekoizpenaren murrizketak, 2022an, gaixotasun arraroen eraginpean dauden pertsonen % 82,4 hartzen du, eta, ondoren, ezinbesteko kausak (% 7,6). % 7,5 arazo ekonomiko edo finantzarioei zor zaie, eta % 2,3, azkenik, arrazoi tekniko edo antolamendukoiei.

Eta, **jarduera-sektoreen arabera**, Euskadin industria-sektorean planteatzen dira EEE gehien betidanik, espediente kopurua eta eragindako langileak kontuan hartuta. 2020an, aldiz, espedienteen % 67,1ek zerbitzuen sektoreari eragin zioten (% 38,2k ostalaritzari zehazki). 2021ean, industria da berriz ere sektore nagusia, EEEek ukituriko langileen % 68,7 baitira; ondoren, zerbitzuak (% 30) daude. 2022an, espedienteen % 57,9k zerbitzuen sektoreari eragin diote; ondoren, industria (% 32,4), eraikuntza (% 5) eta, azkenik, lehen sektorea (% 4,8). Eragindako pertsonen kopuruari dagokionez, % 65,8 industriakoak dira, eta % 31,3 zerbitzuen sektorekoak.

Eusko Jaurlaritzaren estatistikaren bidez, azkenik, **bi aldeen arteko** adostasuna duten espedienteek eragindako langileen proportzioa jakin daiteke: 2022an¹⁴, EEE batek eragindako langileen % 53,8 alderdiek itundutako espedienteek eragindakoak izan ziren, eta % 63,4 berriz, 2021ean (% 67,9, batez beste, Estatuan, Lan Ministerioaren arabera). Erregulazio espediente motaren arabera asko aldatzen da akordioaren proportzio hori, halako moldez non % 66 izan baitzen etenaldi-espedienteetan, % 55,9 murrizpenekoetan eta % 57,1 taldeko irazpenetan.

III.2.11. TAULA. EAE-N ERREGISTRATURIKO ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK: UKITURIKO LANGILEAK LURRALDEKA (EUSKO JAURLARITZA)

	ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	EAE
2017	1.330	1.188	1.824	4.342
2018	1.364	565	1.258	3.187
2019	365	845	1.239	2.449
2020	43.821	70.282	95.916	210.019
2021	12.021	7.472	13.230	32.723
2022	7496	5449	6827	19772
19/20 (%)	11905,8	8217,4	7641,4	8475,7
20/21 (%)	-72,6	-89,4	-86,2	-84,4
21/22 (%)	-37,6	-27,1	-48,4	-39,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Enplegu Saila.


2.2.3. Iraizpenen urteko bilakaera agregatua

Laburbilduz, banakako kaleratzeek eta azkentzeko EEE-ek 2022an eragindako langileen agregatua kontuan hartzen badugu, eta iturriztat Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioa hartzen badugu (10.112 kaleratze, ikusi den bezala, gehi

¹⁴ Salbuetsita daude ratio honetan nahitaezko espedienteak. Ikusi den moduan 2022an eraginpeko pertsona guztien % 7,6ko ratioa da.

Ministerioak kontabilizatzen dituen azkentzeko 731 EEE), ikusten da % 3,5eko igoera izan dela, aurreko urtean % 5,8 igo baitziren 2020. urtearekin alderatuta.

III.2.12. GRAFIKOA. KALERATZEAK EAE-N: BILAKAERA MOTAREN ARABERA



Iturria: LAN ETA GIZARTE EKONOMIAREN MINISTERIOA. Laneko estatistikak. Geuk eginikoa
 BAA: Bitartekotza, Arbitrajea eta Adiskidetzea
 GGJ: Gaizarte Gai Judizialak
 Iraung EEE: Iraungitzeko ENplegua Erregulazio Espedientea (Iraizpen kolektiboak)


Guztira, 10.843 langile daude eraginpean, nabarmen handitu da azkentzeko EEEren eraginpean daudenen kopurua (+% 113,7), neurri txikiagoan hazi dira BAAren eraginpean daudenen kopurua (+% 1,3) eta murriztu egin dira GGJen eraginpean daudenen kopurua (-% 15,2). EEEren eraginpeko langileen % 6,7 dira, eta krisiaren hasierako urteetan iraizpenen oso zati handia ziren. Bestalde, BAAk eragindakoak % 49,7 izan dira, eta GGJ kaleratzeen % 43,6.

3. LAN-HARREMANAK

3.1. NEGOZIAZIO KOLEKTIBOIA: SOLDATA IGOERA, LANALDIA ETA LAN ETA FAMILIA BIZITZA BATERAGARRI EGITEA

LHKren “Euskadiko Gizarte eta Lan Egoera”ren emaitzen 2022ko aurrerapenaren arabera, hitzarmena indarrean zuten langileen % 27,2rekin hasi zen urtea, eta % 44,3k luzatutako hitzarmen bat zuten berritzeke, eta % 9,8k hitzarmena indarririk gabe zuten. **Negoiazio kolektiboaren** estaldurak, beraz, langileen % 90,2 hartzen zuen (aurreko urteko ehuneko bera).

III.3.1. GRAFIKOA. EAE-N ERREGISTRATURIKO HITZARMENEK UKUTIRKKO LANGILEAK. EHUNEKOAK



Iturria: LHK

2022. urtea amaitzean, egoera honako hau da: langileen % 45,4k indarrean zuten hitzarmen bat (% 18,9k, urtean erregistratutako hitzarmenekin, eta % 26,5k, aurreko urteetan); % 47,3k luzatuta zuten, berritzeke, eta gainerako % 7,2k hitzarmena indargabetuta zuten (beraz, egiteke zeuden hitzarmenen % 54,5). Ondorioz, 2022. urtean negoziazio kolektiboaren estaldura % 92,8koa izan zen (2021ean baino +2,6 puntu gehiago)¹⁵. Sexuaren araberako banaketari dagokionez, 2022. urtea amaitzean, hitzarmenak indarrean dituzten gizonen ehunekoak behera egin du (2021eko % 51,5etik 2022ko 49,5era), eta emakumeekiko ehunekoa % 38,8tik % 40ra igo da.

2022an **293 hitzarmen erregistratu ziren Euskadin**, 2021ean baino % 13,6 gehiago, eta horrek berekin ekarri du 116.296 pertsonarentzako laneko baldintzak berritzea (langileen % 18,9). EAEn eremuan, akordio gehiago erregistratu ziren (203 hitzarmen, sektoreko 21 eta enpresako 182) EAEn eragina izan zuten estatukoan baino (90 hitzarmen erregistratu ziren), eta aldi berean, lehenengok langile gehiago hartu zituzten (80.144 pertsona; estatu mailako hitzarmenetan, berriz, 36.152).

Horren guztiaren ondorioz, urtearen amaierako kopuruak ageri dira ondoko III.3.2. taulan: indarreko 641 hitzarmen, 273.938 langile orotara, eta beste 693 hitzarmen luzatu (eraginpeko 286.721 langile) eta 30 hitzarmen agortu, orotara eraginpeko 43.752 langile.

III.3.1. TAULA. SINATUTAKO HITZARMENEN BILAKAERA ETA ERAGINDAKO LANGILEAK EAE-N

	SINATUTAKO HITZARMENAK	ERAGINDAKO LANGILEAK
2019	289	103.536
2020	193	109.648
2021	258	118.142
2022	293	116.296
20/21 (%)	33,7	7,7
21/22 (%)	13,6	-1,6

Iturria: LHK.

¹⁵ LHKk bere txostenean azaltzen duenez, 2022an hitzarmenak berriki zituzten pertsonen ehunekoa (% 18,9) aurreko urteetakoaren antzekoa izan bazen ere, urtea 2020an eta 2021ean baino langile gutxiagorekin hasi izanak ekarri du 2022a amaitzean hitzarmen eguneratuak zituzten soldatapekoak % 50etik behera egotea gure Erkidegoan.

Enpresa-hitzarmenek babestutako langileen % 53,8k 2022an amaitu zituzten beren hitzarmenak eguneratuta, sektoreko hitzarmenen % 42,6aren aldean. Hortaz, igoera nabarmena kasu bietan. Bestalde, sektoreko eremuan biltzen dira oraindik ere langile gehienak, beren hitzarmenak indargabetuta (% 9,5).

III.3.2. TAULA. HITZARMEN KOLEKTIBOAK ETA EAE-N ERAGINDAKO LANGILEAK 2022/12/31, EGOERAREN ARABERA

	INDARREKOAK		LUZATUTAKOAK		ERORITAKOAK*		GUZTIRA	
	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.	HITZ.	LANG.
GUZTIRA (1 + 2)	641	273.938	693	286.721	30	43.752	1.364	604.411
1. EAE-N ERREGISTRATUTAKOAK	463	170.461	533	221.172	23	42.713	1.019	434.346
- ARABA	94	33.461	94	24.177	4	3.522	192	61.115
- BIZKAIA	207	64.930	253	113.995	9	14.332	469	193.257
- GIPIZKOA	145	61.538	160	49.640	10	24.859	315	136.037
- LURRALDE ARTEAN	17	10.577	26	33.360	0	0	43	43.937
2. ESTATUA	178	103.477	160	65.549	7	1.039	345	170.065

Iturria: LHKren datuekin egindakoa.
* Hitzarmena indargabetuta duten, eta babesten duten goragoko esparru bateko hitzarmenik ez duten langileak


Bestalde, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan 2022rako **itundutako batez besteko soldata-igoera** % 4,08koa da, Estatu osoko igoera (% 2,89) baino handiagoa. Bestalde, EAEn negoziaturiko hitzarmenen batez besteko igoera, EAEn eragina duten estatu mailakoak alde batera utzita, % 4,8 da, 2021ean baino handiagoa (% 1,16).

Gainera, 2022an aurreko ekitaldiarekin alderatuta **lanaldia murriztu** duten hitzarmenen proportzioa pixka bat jaitsi da 2020an eta 2021ean indarrean dauden hitzarmenekin alderatuta. Hitzarmen horien % 10,1k murriztu dute (2020an % 12,7 eta 2022an % 10,3). Ratio horiek, 2009an lanaldia murrizten zuten hitzarmenen % 22,9tik oso urruti jarraitzen dute.

III.3.3. TAULA. EAE-N ERABAKITAKO SOLDATA IGOEREN BILAKAERA

	2019	2020	2021	2022
ARABA	1,81	1,71	2,63	4,78
BIZKAIA	1,7	1,74	1,34	4,29
GIPIZKOA	1,62	1,13	0,57	5,76
LURRALDE ARTEKOAK	2,3	1,96	1,25	2,39
EAE-N ERREGISTRATURIKOAK	1,74	1,55	1,16	4,80
ESTATUA	2,39	1,96	1,37	2,89
EAE, GUZTIRA	2	1,69	1,23	4,08

Iturria: LHK.




EAEn eragina izanda berritu diren hitzarmen guztietan 0,75 orduko murrizketaren batezbestekoa lortu da urtean (aurreko urteko +0,13aren aldean). Ondorioz, hitzarmenetan 2022rako itundutako (indarrekoak nahiz luzatuak) batez besteko lanaldia 1.687 ordukoa izan zen EAEn (1.736 batez besteko ordu kopurua Estatuan), EAEn erregistraturiko hitzarmenetan eta 1.703 ordukoa EAEn eragina duten Estatuan erregistraturiko hitzarmenetan.

LHKren txostenak aukera ematen du jakiteko, halaber, EAEn 2021eko abenduaren 31n zenbat hitzarmen kolektibotan dauden indarrean **lana eta familia bateragarri egiteko neurriak**: guztira 297 dira, guztizkoaren % 48,7 (% 47,2, 2020an). Hitzarmen horietako gehienetan bildutako neurriek edoskitzarorako eskubidea lanaldi osoetan metatzeko aukerarekin dute zerikusia, baita indarreko legerian ezarrita dauden eta familiaren edo norberaren inguruabarren zioz ordaindutako zenbait baimenekin ere.

Indarreko enpresa-hitzarmenetatik, % 48,8k bateragarri egiteko neurriak txertatzen dituzte; sektorekoetan, berriz, % 47,6 murriztu dira. Lurraldeka, EAEn negoziatutakoetan, % 43,7k mota horretako neurriak erregulatzen dituzte; Estatuan negoziatutakoetan, berriz, ratioa % 61,4 da. Kasu honetan, tamaina handiko enpresen hitzarmenak edo estatu mailako sektoreko hitzarmenak dira, Estatuan eragindako langile kopuru handiarekin hain zuzen.

III.3.3. GRAFIKOA. EAE-N INDARREAN DAUDEN ETA KONTZILIAZIO NEURRIAK EZARRI DITUZTEN HITZARMENEN EHUNEKOA, MOTAREN EAT APLIKAZIO-EREMUAREN ARABERA



Iturria: LHK. Geuk eginikoa.

Azkenik, 2019an (azken datu eskuragarria), Euskadin indarrean zeuden enpresa-hitzarmen kolektiboen kopurua 179 da (**berdintasun-planak** dituztenak), eta 44.177 langileei eragiten zien. Hortaz, indarreko enpresa-hitzarmenen % 28,4k, eta mota horretako hitzarmen motari atxikita dauden langileen % 51,6k, berdintasun-planak dituzte. Tamaina handiko enpresek, legez, hitzarmen horiek izan behar dituzte, eta horiek dira horrelako planak barne hartzen dituztenak beren hitzarmen kolektiboetan.

3.2. LAN GATAZKAK


Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailaren informazioaren arabera, 2022an eutsi egin zaio 2021eko goranzko joerari lan-gatazkei dagokienez: behin-behineko datuekin, gora egin dute greba-kopuruak, horien parte-hartzaileek eta landu gabeko lanaldiek.

EAEn, aurtan, 342 greba erregistratu dira. Horietan, 106.998 parte-hartzaile izan dira, eta, guztira, 384.459 lanegun sortu dira. Kopuru horiek 2021. urtearekin alderatuta, % 37,9 hazi dira greba-kopurua eta % 173,1 lan egin gabeko lanaldiak. Nabarmen, greba horietan parte hartu duten langileak % 620,6 igo dira 2021. urtearekin alderatuta.

III.3.4. TAULA. LAN GATAZKAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA						
	GREBAK	PARTAIDEAK	LAN EGIN GABEKO EGUNAK	PARTAIDEAK GREBAKO	LAN EGIN GABEKO EGUNAK GREBAKO	LAN EGIN GABEKO ORDUAK GREBAN EGONDAKO LANGILEKO
2018	264	48.696	110.838	184	420	18
2019	308	79.860	391.830	259	1.272	39
2020	190	25.642	59.741	135	314	19
2021	248	14.848	140.775	60	568	76
2022	342	106.998	384.459	313	1.124	29
19/20 (%)	-38,3	-67,9	-84,8	-48	-75,3	-51,3
20/21 (%)	30,5	-42,1	135,6	-55,6	80,9	300,0
21/22 (%)	37,9	620,6	173,1	421,7	97,9	-61,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin guk geuk egina. Lan eta Enplegu Saila.

Datu horiekin, partaide kopurua grebako 313 langilekoa izan da (+% 421,7 2021aren aldean), lan egin gabeko egun kopurua, 1.124 (+% 97,9), eta lan egin gabeko ordu kopurua greban egondako langileko, 29 (-% 61,8, 2021. urtearen aldean).



Sektoreka, greba kopuru handiena zerbitzuetan metatu zen (2021eko urtarriletik azarora bitarteko datuak), 243 grebarekin (guztizkoaren % 71,05), baina soilik 24.844 langilerekin (guztizkoaren % 23,22) eta lan egin gabeko 75.368 lanegunekin (% 19,6). Industrian, berriz, greben % 27,8 izanik (95), ukituriko langile gehien daude (82.013, % 76,7) eta lan egin ez den lanegunen % 80 (306.608). Eraikuntzan 4 greba erregistratu ziren (% 1,17), eta bat ere ez lehen sektorean. Eta, aurreko urteetan bezala, negoziazio kolektiboa nabarmentzen da gatazkaren lehen arrazoi gisa: greben % 85,4 eta eraginpeko langileen % 97,6.

Lurraldeka, Bizkaian izan ziren greba gehienak 2022an (166), 81.547 parte-hartzaile eta 307.017 lanegun lanik gabe. Araban, 52 greba egon ziren, 15.835 partaide eta lan egin gabeko 43.819 egunekin. Gipuzkoan, 124 greba izan ziren, 9.616 partaide eta lan egin gabeko 33.623 egun.

Estatu osoan, 2022. urtean, grebak 679 izan ziren (2021. urtean baino 73 gehiago), parte-hartzaileak 6.275 gutxiago izan ziren (192.751) eta lanik egin ez zuten lanaldiak 709.099 izan ziren (2021ean baino 286.286 gehiago).

3.3. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

Baliagarria da langileek benetan eginiko lan egunak eta enpresarekin hitzarturikoarekin duen erlazioa zein den jakitea, baita lan egin gabeko egunak eta kasuen banakapena ere. EINek, “*Lan Kostuen Hiruhileko Inkestak*”, informazio zabala ematen du horren inguruan, eta horri esker, jarraipena egin daiteke denboran, kopuru absolutuetan (lan egindako eta lan egin gabeko orduen kopuruaren bilakaera) nahiz estatu mailako kopuru erlatiboetan (lan egin gabeko orduen banaketa), eta xehetasun maila txikiagoarekin, autonomia erkidegoka.

Hona hemen aintzat harturiko aldagai nagusiak (xehetasun handiagoa nahi bada, begiratu Memoria honetako glosategia, amaieran):

- Benetako orduak: benetan lan egindako orduak dira. Hitzartutako orduen (hitzarmenen, hitzezko akordioaren edo banako kontratuaren bidez ezarritakoak) eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak (horietatik aparte gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetan lan egindako ordutzat hartzen baitira). Kopuru erlatiboetan, hitzartutako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.
- Lan egin gabeko orduak: ordaindutakoak (oporrak, jaiak, aldi baterako ezintasuna, amatasunaren ziozko baimena eta antzekoak, aparteko orduak konpentsazioaren ziozko atsedendialdiak, sindikatu-ordezkaritzako orduak, azterketak, medikuaren kontsultara joatea...) edo ordaindu gabeak izan daitezke (lan-gatazka, ugazaben itxiera, legezko zaintza –zaintzarako lanaldi murrizketak-, etab.). Kopuru erlatiboetan, benetan lan egindako orduen gaineko proportzioa aztertzen da.


Lehenik eta behin, ***Estatuan lan egindako eta lan egin gabeko orduen*** xehetasuna ageri da, betiere aldiko urteko batez bestekoak kontsideraturik. Estatuko langileek batez beste 127,2 ordu lan egin zituzten 2022an, 2021ean baino % 1,5 gehiago. Lan egindako ordu horiek (benetako orduak) enpresarekin itundutakoan % 84,1 dira (hitzarmen bidez, kontratu bidez, etab.), hau da, 2021eko ratioa baino 1,2 puntu gehiago.

III.3.5. TAULA LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA. BANAKAPENAREN BILAKAERA							
ESTATUAN . ORDU KOPURUA, LANGILEKO ETA HILEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK							
	2019	2020	2021	2022		ALD. % 2020/21	ALD. % 2021/22
				ABS.	BERT. %		
1. HITZARTUTAKO ORDUAK	149,5	150,1	151,2	151,3	118,9	0,7	0,1
2 ORDU ORDAINDUTA	149,9	150,3	151,5	151,7	119,3	0,8	0,1
3. BENETAKO ORDUAK	128,3	118,1	125,4	127,2	100,0	6,2	1,4
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	21,9	32,6	26,5	24,8	19,5	-18,7	-6,4
- LAN EGIN GABEKO ORDUAK ETA ORDAINDUTAKOAK	21,6	32,3	26,2	24,5	19,3	-18,9	-6,5
Oporrak	7,9	7,2	7,7	5,2	4,1	6,9	-32,5
Jaiegunak	6,4	6,4	6,5	10,2	8,0	1,6	56,9
ABE	5,6	6,7	6,7	7,0	5,5	0,0	4,5
Amatasuna	0,9	0,9	1,1	1,1	0,9	22,2	0,0
Ordaindutako baimenak*	0,5	0,8	0,5	0,5	0,4	-37,5	0,0
Arrazoi tekniko edo ekonomikoak	0,1	10,0	3,5	0,2	0,2	-65,0	-94,3
Aparteko orduen konpentsazioa	0,1	0,1	0,0	0,0	0,0	-100,0	-
Lantokian galdutako orduak**	0,0	0,0	0,0	0,2	0,2	-	-
Beste batzuk	0,2	0,2	0,2	0,0	0,0	0,0	-100,0
- LAN EGIN GABEKO ORDUAK ETA ORDAINDU GABEKOAK	0,3	0,3	0,3	0,3	0,2	0,0	0,0
Lan-gatazka	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	-	-
Beste batzuk	0,3	0,3	0,3	0,3	0,2	0,0	0,0
5. APARTEKO ORDUAK	0,7	0,6	0,6	0,7	0,6	0,0	16,7
BENETAKO / HITZARTUTAKO ORDUEN %	85,9	78,7	82,9	84,1			
LAN EGIN GABEKO / BENET. ORDUEN %	17,1	27,6	21,1	19,5			

Iturria: EIN. Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. Guk geuk egina.
**Sindikatuaren ordezkatzea, azterketak, medikuaren kontsultak, eta abar.*
*** Lege ondorioetarako, lan egindako ordutzat hartzen dira.*

Horrez gain, batez beste lan egin gabeko 24,8 ordu zenbatetsi dira langileko eta hileko, horietatik 24,5 (% 99) ordaindutakoak izan ziren. Lan egin gabeko orduak % 6,2 egin dute behera azken urtean.

III.3.5. GRAFIKOA. LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK: ESTATU-EAE ALDERATZEA RATIO NAGUSIETAN



Iturria: EIN. LKHK. Geuk eginikoa.

Lan egin gabeko orduen barruan, kategoria nagusia (ikus III.3.5 taulako xehetasuna) 2022an Jaiegunak dagokie (10,2 ordu), ondoren gaixotasunagatik lan egin gabeko orduak daude (AE), hau da, 7 langile eta hilabeteko, Oporrak (5,2). Laugarren postuan amatasuna dago (1,1 ordu hilean langile bakoitzeko). Lau kategorien artean, lan egin ez diren orduen % 94,8 eta benetako orduen % 18,5 dira. Kopuru erlatibotan, 2022an lan egin gabeko orduak benetako (lan egindako) orduen % 19,5 dira, 2021ean baino 1,6 puntu gutxiago.

Bigarrenik, **autonomia erkidegoen arteko** erkaketa ageri da, baina horien gaineko lan egin gabeko orduen xehetasunik ez dugu. Benetan lan egindako orduak hitzarturiko eta lan egin gabeko orduak benetan lan egindako orduen gainean izan dituzten ratioak kalkulatu dira 2019tik 2022ra, baina interpretazio zehatzagoa egiteko, beste aldagai batzuk aztertu beharko lirateke hala nola ekoizpenaren egitura edo lanaldi partzialaren pisua (Memoria honen helburuetatik harago doaz).

2022an, benetan lan egindako orduen ehunekorik handiena, itundutakoan aldean, Andaluziari eta Valentziako Erkidegoari dagokie (% 84,7 eta % 85,3), eta txikiak Asturias eta Aragoiri (% 81,5 eta % 82,5, hurrenez hurren). EAEk % 82,9 du. Estatuko batezbestekoa, ikusi denez, % 84,1 da.

Lan egin ez diren orduak dagokienez, benetako orduen gaineko proportzioa hauexen artekoa da: Aragoi % 18,1 eta Valentziako Erkidegoan % 15,3. EAEk % 21 du (-3 puntu 2021eko batez bestekoarekin alderatuta), Estatuko batez bestekoaren gainetik (% 19,5).

III.3.6. TAULA LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO ORDUAK, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA: ALDAGAI ERLATIBOEN BILAKAERA

	BENETAKO ORDUEN %, HITZARTUTAKOEN GAINEAN				LAN EGIN GABEKO ORDUEN %, BENETAKO ORDUEN GAINEAN			
	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	85,9	78,7	82,9	84,1	17,7	27,6	21,1	19,5
ANDALUZIA	87,1	80,3	83,8	84,7	15,3	24,9	19,7	15,6
ARAGOI	84,8	79,1	82,6	82,5	18,8	27,0	21,7	18,1
ASTURIAS	84,9	78,5	82,4	81,5	18,4	27,9	21,8	18,9
BALEAR UHARTEAK	88,8	73,3	82,2	83,9	13,0	36,8	22,0	16,5
KANARIAR UHARTEAK	85,8	71,6	79	83,2	17,0	39,9	27,0	17,1
KANTABRIA	86	79,7	83,3	82,8	16,7	25,8	20,3	17,4
GAZTELA ETA LEON	85,2	79,3	83,1	82,8	17,8	26,5	20,6	17,6
GAZTELA-MANTXA	86,3	81,1	83,6	84,9	16,4	23,8	20,0	15,5
KATALUNIA	85,3	77,4	82,4	84,1	18,0	29,9	22,1	16,6
VALENTZIAKO E.	86,3	79,3	83,3	85,3	16,5	26,7	20,8	15,3
EXTREMADURA	86,1	81,7	83,7	83,9	16,4	22,8	19,7	16,4
GALIZIA	85,2	79,7	82,8	83,6	18,0	26,0	21,2	16,8
MADRIL	86,6	80	83,9	84,6	16,0	25,4	19,6	15,9
MURTZIA	85,1	79,9	83,4	84,1	18,0	25,8	20,4	16,4
NAFARROA	84,3	79	82,5	83,2	19,4	27,1	21,7	17,4
EAE	81,7	76,5	80,8	82,9	22,7	31,0	24,0	21,0
ERRIOXA	85,8	79,8	82,7	84,3	17,2	25,8	21,4	16,2

ITURRIA: EIN, ETAB. Geuk egina

Hirugarrenez, **EAEko kopuru absolutuen bilakaera** aurkeztuko dugu (III.3.7. taula). 2022an, batez beste, enpresen eta langileen artean hitzartutako hileko ordu kopurua 147,8 izan zen, 2020an baino % 0,9 gutxiago. Ordu horietatik, 122,6 (+% 1,7), % 82,9, benetan lan egindako orduak izan ziren; ratioa 2,1 puntu igo da azken urtean. Era berean, 2022an lan egin gabeko orduak 25,7 dira langile eta hilabete bakoitzeko, 2021ean baino % 11,2 gutxiago benetan lan egindako ordu bakoitzeko.

III.3.7. TAULA. LAN EGINDAKO DENBORA ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA. EAE-KO ALDAGAIEN BILAKAERA. ORDU KOPURUA, LANGILEKO ETA HILEKO. URTEKO BATEZ BESTEKOAK								
	2018	2019	2020	2021	2022	ALD. % 2019/20	ALD. % 2020/21	ALD. % 2021/22
1. HITZARTUTAKO ORDUAK	147,4	147,5	146,88	149,1	147,8	-0,4	1,5	-0,9
2 ORDU ORDAINDUTA	147	146,98	146,53	148,75	147,6	-0,3	1,5	-0,8
3. BENETAKO ORDUAK	122,83	120,68	112,43	120,53	122,6	-6,8	7,2	1,7
4. LAN EGIN GABEKO ORDUAK	25,08	27,35	34,85	28,93	25,7	27,4	-17	-11,2
5. APARTEKO ORDUAK	0,45	0,55	0,38	0,38	0,5	-30,9	0	31,6
BENETAKO/HITZARTUTAKO ORDUEN %	83,3	81,7	76,5	80,8	82,9			
LAN EGIN GABEKO/BENETAKO ORDUEN %	20,4	22,7	31,0	24,0	21,0			

Iturria: EIN. Laneko Kostuen Hiruhileko Inkesta. Guk geuk egina.

Itundutako orduen eta lan egin ez diren orduen ratioek alde batzuk dituzte EAEn eta Estatuko batez bestekoaren artean, III.3.5 grafikoan agerienez: benetako orduak itundutako orduetik duten pisua txikiagoa da EAEn, eta lan egin ez dutenek pisu handiagoa dute benetako orduetik, nahiz eta bietan azken urteko bilakaerak norabide berari jarraitu dion.

Azkenik, EINen BAri esker, badakigu zein den egindako **aparteko orduen banakapena, Estatu osoan: ordaindutakoak eta ordaindu gabekoak**. 2022an, Estatuko soldatapeko langile guztiek, batez beste astean, aparteko 6.783,9 mila ordu egin zituzten, 2021ean baino % 18 gehiago. Horietatik 3.886,7 mila ordaindu ziren, aurreko urtean baino % 24 gehiago. Ordaindutako ordu horiek, aparteko ordu guztien % 57,2 dira (% 54,6 2021ean).

3.4. TELELANA¹⁶

COVID-19aren pandemiaren ondorioz 2020an lan-merkatuan gertatutako fenomenoetako bat, enpleguaren beherakadaz gain, telelanaren hedapena izan zen, eta une honetan ez dakigu zer neurritan bizkortu den behin betiko ezarpena.

2022an EAEko pertsona landunen % 9,1ek telelana egin zuen (% 3,4k noizean behin eta % 5,7k egunen erdia baino gehiago), hau da, ehuneko 0,2 puntuko beherakada 2021eko datuen aldean. Gainera, zifra horiek erakusten dute behera egin duela telelana noizean behin egiten duen biztanleriak (1,1 puntu jaitsi da), eta gora ohiko telelanak (+0,9).


III.3.8. TAULA ERREFERENTZIAKO ASTEAN TELELANA EGIN ZUEN BIZTANLERIA LANDUNAREN EHUNEKOA. EAE ETA ESTATUA.						
	EAE			ESTATUA		
	NOIZEAN BEHIN	EGUNEN ERDIAK BAINO GEHIAGO	GUZTIRA	NOIZEAN BEHIN	EGUNEN ERDIAK BAINO GEHIAGO	GUZTIRA
2015	3,0	3,1	6,2	2,9	3,6	6,4
2016	3,2	2,9	6,1	2,9	3,5	6,4
2017	3,1	3,3	6,4	3,0	4,3	7,3
2018	2,9	3,7	6,6	3,2	4,8	8,0
2019	3,5	4,3	7,8	3,5	4,8	8,3
2020	4,2	7,0	11,2	4,2	10,8	15,0
2021	4,5	4,8	9,3	5,8	9,5	15,3
2022	3,4	5,7	9,1	4,6	5,9	10,5

Iturria: EIN. EPA.

Estatuan, era berean, telelanaren erabilera orokorra murriztu egin da aurreko urtearekin alderatuta: % 10,5 (-4,8 puntu), eta noizbehinkako telelana (-1,2) eta ohikoa (-3,6) jaitsi egin dira. Hala eta guztiz ere, estatu mailan telelanak izan duen beherakada kontuan hartuta, gure erkidegoan telelana egiten duten biztanleen ehuneko txikiagoa da. Dena dela,

¹⁶ II. Kapituluua ("Zientzia, teknologia eta berrikuntza), telelanaren erabilera ere aztertzen da, ikuspegi teknologikotik, beste eragiketa estatistiko batetik (EUSTATen Informazioaren Gizarteari buruzko Inkesta), eta, beraz, ez du zertan bat etorri haren emaitzak eta interpretazioa.

alde horien interpretazio zuzena egiteko, zenbait aldagai aztertu behar lirateke, hala nola egitura produktiboa, eta gainera kontuan hartu Estatuko batez bestekoak era askotako errealitateak eta datuak jasotzen dituela.



Sexuaren arabera, pandemiaren hasieratik gertatu den fenomeno bat da, bai Estatuan, bai EAEn, aurreko arrakala. Horren arabera gizonak emakumeek baino telelan gehiago egiten dute. 2020tik, telelana egiten duten emakumeen tasa gizonena baino handiagoa da. EAEn, 2022ko batez besteko arrakala 3 hamarrenkoa da emakumeen alde (% 9,2 eta % 8,9, hurrenez hurren); 2021ean, berriz, 7 hamarrenkoa aldea zegoen.

Estatuan, oro har, genero-aldea handiagoa da, halako moldez non 9 hamarrenkoa baita 2022an (emakume telelangileen % 10,5 eta gizon telelangileen % 9,6), 2021ean baino bat gehiago.

4. SOLDATAK EAE-N

4.1. SOLDATA EGITURARI BURUZKO 2020KO INKESTAREN EMAITZAK

EINen¹⁷ Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren arabera, **langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia** 2020an (azken datua) EAEn 30.224 € zen, hots, % 3,5eko igoera aurreko urtearekiko (+2,5). Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 20,1 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da. Ondoren Madril eta Nafarroa datoz. Hiru erkidego horiek, Kataluniarekin batera, Estatuko batez bestekoa baino urteko batez besteko irabazi handiagoa dute aipaturiko datan. Gainerakoak, berriz, batez bestekoa baino soldata txikiagoa du. Extremadurak, Uharte Kanariarrek eta Andaluziak dituzte soldatarik txikiak.

III.4.1. TAULA. LANGILE BAKOITZAREN URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIAK /(EUROTAN). 2019-2020.

	GUZTIRA 2019	2020			2019/2020 ALDAKUNTZA %			GENERO- ARRAKALAREN %	
		GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	2019	2020
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	24.396	25.166	27.643	22.467	3,2	2,6	3,6	19,5	23,0
ANDALUZIA	22.061	22.324	24.786	19.518	1,2	1,1	0,6	20,9	27,0
ARAGOI	23.565	24.114	26.506	21.365	2,3	0,4	4,9	22,9	24,1
ASTURIAS	24.866	24.528	27.948	21.308	-1,4	-1,9	0,0	25,2	31,2
BALEAR UHARTEAK	23.325	23.881	25.700	21.998	2,4	3,1	1,7	13,2	16,8
KANARIAR UHARTEAK	20.861	21.631	22.698	20.462	3,7	2,8	4,7	11,5	10,9
KANTABRIA	23.348	23.495	25.804	20.997	0,6	0,0	1,9	20,1	22,9
GAZTELA ETA LEON	22.061	22.949	25.550	20.315	4,0	3,6	4,6	21,3	25,8
GAZTELA-MANTXA	21.909	22.575	24.029	20.762	3,0	2,3	4,1	15,1	15,7
KATALUNIA	25.968	27.100	30.004	24.097	4,4	3,6	4,8	20,6	24,5
VALENTZIako E.	22.046	22.857	25.239	20.166	3,7	3,0	4,4	21,2	25,2
EXTREMADURA	19.941	20.479	22.072	18.791	2,7	1,1	4,3	17,5	17,5
GALIZIA	22.177	22.835	25.276	20.447	3,0	3,0	3,2	19,3	23,6
MADRIL	27.818	28.829	31.495	25.900	3,6	3,2	4,1	18,5	21,6
MURTZIA	22.124	22.920	25.227	20.007	3,6	3,9	3,0	20	26,1
NAFARROA	27.494	27.996	31.318	24.047	1,8	2,5	1,3	22,4	30,2
EAE	29.476	30.224	33.040	27.126	2,5	1,6	3,5	19,5	21,8
ERRIOXA	22.877	23.293	25.665	20.959	1,8	1,3	2,9	19,6	22,5

Iturria: EIN 2020

Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena baino autonomia erkidego guztietan 2020an. Hala ere, aldea desberdina da batzuen eta besteen artean. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren % 77 zen, eta beraz, arrakala % 23koa da (3,5 puntu aurreko urtearen aldean). U. Kanariarrek zuten genero-arrakalarik handiena, eta ondoren U. Balearrek eta Gaztela-Mantxako Erkidegoak. Alderik handiena, berriz, Asturiasen dago, eta ondoren Nafarroan eta Andaluzian. EAEn, 2020an, emakumeen soldataren ratioa gizonen soldataren % 78,2 zen batez beste (% 21,8eko arrakala, 2019an baino 2,3 puntu gehiago). Hortaz, Estatuko batez bestekoaren azpitik dago. Kopuru absolutuetan, EAEn, gizonen batez besteko soldata 33.040 € zen 2020an (+% 1,6, 2019arekin alderatuta), eta emakumeena, berriz, 27.126 € (+% 3,5).

Kontratu-harreman motaren araberako soldatei dagokienez, 2020ko urteko soldata gordina % 31 handiagoa zen, batez beste, kontratu mugagabea zuten EAeko langileentzat, aldi baterako kontratua zuten langileentzat baino. Alde hori, gainera, askoz handiagoa zen gizonen artean (% 51,3) emakumeen artean baino (% 10,5), eta Estatu mailan ere gertatzen da.

¹⁷ LEINen Soldata-egituraren urteko Inkesta k autonomia erkidegoetako datuak ematen ditu, beste aldagai batzuen artean, sexuaren eta lanbidearen araberako soldatei buruz. Ordura arte lau urterik behin baino ez zen lortzen horren inguruko informazioa soldata-egituraren inkesten bidez, hain zuzen ere, eta gainera, 10 langile edo gehiagoko enpresei buruzkoa baino ez zen. Inkesta horrek hainbat iturritako administrazio-erregistroak erabiltzen ditu, hala nola, Gizarte Segurantza edo Zerga Agentziak, baita EINen beraren lan-kostuari buruzko hiruhilekoko inkestako informazioaren zati bat ere, eta soldaten alderirik estrukturalenak aztertzea ahalbidetzen du. Emaitzetan erabiltzen diren soldaten kontzeptuak balio gordinetan daude, hau da, PFEZren konturako atxikipena edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin gabe..

III.4.2. TAULA. URTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA EAE-N ETA ESTATUAN, SEXUAREN ETA KONTRATU MOTAREN ARABERA. 2019-2020. EUROAK.

	BI SEXUAK			EMAKUMEAK			GIZONAK		
	2019	2020	ALD. %	2019	2020	ALD. %	2019	2020	ALD. %
EAE									
GUZTIRA	29.476	30.224	2,5	26.198	27.126	3,5	32.529	33.040	1,6
IRAUPEN MUGAGABEA	31.559	31.569	0,0	27.128	27.634	1,9	35.673	35.038	-1,8
IRAUPEN JAKINA	22.501	24.094	7,1	23.100	25.003	8,2	21.938	23.144	5,5
MUGAGAB./IRAUP. JAKINA % DET.	40,3	31,0		17,4	10,5		62,6	51,4	
ESTATUA									
GUZTIRA	24.296	25.166	3,6	21.682	22.467	3,6	26.934	27.643	2,6
IRAUPEN MUGAGABEA	26.459	26.624	0,6	23.129	23.455	1,4	29.540	29.486	-0,2
IRAUPEN JAKINA	17.932	19.228	7,2	17.257	18.617	7,9	18.586	19.828	6,7
MUGAGAB./IRAUP. JAKINA % DET.	47,6	38,4		34,0	26,0		58,9	48,7	

Iturria: EIN. Soldaten egiturari buruzko inkesta.

Bestalde, inkestari esker, **lanordu arrunteko irabazia** zein den jakin daiteke¹⁸, ezinbestekoa dena lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasunez aztertzeko. Orduko irabazi hori, 2020an, 19,94 eurokoa izan zen gure erkidegoan, 2019an baino % 2,15 handiagoa. Orduko irabazia, urteko batez bestekoa bezala, autonomia-erkidego guztietako handiena da (eta Estatuko batez bestekoa (16,15 euro orduko) baino % 23,5 handiagoa, Nafarroaren eta Madrilén atzetik. Beste muturrean Extremadura Uharteak eta Kanariak daude.

III.4.3. TAULA. LANORDU ARRUNTEKO BATEZ BESTEKO IRABAZIA SEXUAREN ARABERA (EURO). 2019-2020.

	GUZTIRA 2019	2020			2019/20 ALDAKUNTZA %			GENERO- ARRAKALAREN %	
		GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	2019	2020
ESTATUKO BATEZBESTEKOA	15,85	16,15	16,92	15,22	1,89	1,74	2,01	10,30	11,17
ANDALUZIA	14,59	14,52	15,19	13,65	-0,48	-0,26	-1,02	9,50	11,28
ARAGOI	15,43	15,48	16,29	14,45	0,32	-0,18	1,19	12,50	12,73
ASTURIAS	16,29	16,12	17,30	14,87	-1,04	-1,82	0,34	15,90	16,34
BALEAR UHARTEAK	14,87	15,31	15,66	14,90	2,96	3,16	2,76	4,50	5,10
KANARIAR UHARTEAK	13,24	13,61	13,73	13,46	2,79	2,08	3,70	3,50	2,01
KANTABRIA	15,02	15,04	15,62	14,34	0,13	-1,08	2,06	11,00	8,93
GAZTELA ETA LEON	14,49	14,98	15,63	14,23	3,38	2,76	4,17	10,20	9,84
GAZTELA-MANTXA	14,22	14,41	14,51	14,27	1,34	1,04	1,71	2,30	1,68
KATALUNIA	16,86	17,33	18,42	16,11	2,79	2,39	3,07	13,10	14,34
VALENTZIako E.	14,54	14,82	15,66	13,78	1,93	2,42	1,32	11,10	13,64
EXTREMADURA	13,15	13,40	13,46	13,33	1,90	0,67	3,41	3,60	0,98
GALIZIA	14,19	14,52	15,19	13,78	2,33	1,88	2,84	10,10	10,23
MADRIL	17,74	18,08	19,11	16,87	1,92	1,81	2,00	11,90	13,28
MURTZIA	14,22	14,64	15,28	13,72	2,95	4,16	1,03	7,40	11,37
NAFARROA	18,28	18,45	19,56	16,95	0,93	1,56	0,12	12,10	15,40
EAE	19,52	19,94	20,72	18,99	2,15	1,57	2,87	9,50	9,11
ERRIOXA	14,96	15,21	15,73	14,62	1,67	0,06	3,69	10,30	7,59

Iturria: EIN 2020 Guk geuk egina.

Sexuaren arabera, EAEko emakumeen orduko batez besteko irabazia 18,99 eurokoa zen 2020an (+% 2,87 2019ko datuekin alderatuta); gizonen kasuan, berriz, irabazia 20,72 eurora igotzen da (+% 1,57). Sexuaren aldeko alde hori Estatuko erkidego guztietan gertatu da, eta horren ondorioz, emakumeek orduko gizonen kobratu zutenaren % 90,89 kobratu zuten Euskadin, hau da, orduko irabazia % 9,11 txikiagoa izan zen. Arrakala hori 0,39 puntu txikitu da azken urtean.


¹⁸ Orduko irabazia urteko irabazi gisa zenbatetsi, erreferentziako urtean lan egindako orduekin zatituz. Informazio-iturri nagusia, Lan-kostuaren hiruhileko inkestaren langileko hitzartutako orduak dira, hala ere, Gizarte Segurantzaren datu-baseetan eskuragarri dagoen informazioarekin osatuta; bereziki lanaldi partzialeko langileei dagokienez.

4.2. LAN-KOSTUARI BURUZKO INKESTEN EMAITZAK

4.2.1. Lan-kostuei buruzko urteko inkesta, 2021. urtean.

Langileen soldatei eginiko hurbilketa dakarren EINen beste estatistika bat "Lan-kostuei buruzko inkesta" da. Urtero egiten da eta lanaren eta bere osagaien faktorearen kostuaren urteko maila ezagutzeko aukera ematen du. Horien artean, "Lansariak eta soldatak" partidak besteren konturako langileei diruz zein gauzaz emandako ordainsari guztiak hartzen ditu barne. Soldata-egituraren Inkestaren kasuan bezala, zenbatekoak gordinak dira, hau da, atxikipenak edo langileak Gizarte Segurantzarako kotizazioak egin aurrekoak.

III.4.1. GRAFIKOA. LANEKO KOSTUAREN "SOLDATAK ETA ORDAINSARIAK" PARTIDAREN ZENBATEKOA, LANGILEKO ETA URTEKO. EAE-ESTATUA ALDERATZEA.



Iturria. Laneko Kostuen Urteko Inkesta.

III.4.4. TAULA. LAN KOSTUA LANGILEKO ETA URTEKO. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO DATUAK. 2020-2021.

	2020			2021			%Ald. 2020-2021	
	KOSTU GORDINA	SOLDATAK	SOLDATAK GUZTIRA %	KOSTU GORDINA	SOLDATAK	SOLDATAK GUZTIRA %	KOSTU GORDINA	SOLDATAK
ESTATUA	31.150	22.838	73,31	31.376	23.024	73,34	0,73	0,81
ANDALUZIA	27.910	20.322	72,81	29.200	21.219	72,67	4,62	4,41
ARAGOI	29.809	21.772	73,04	31.714	23.235	73,26	6,39	6,72
ASTURIAS	32.110	23.687	73,77	32.905	24.349	74,00	2,47	2,79
BALEAR UHARTEAK	27.255	19.844	72,81	29.703	21.985	74,02	8,98	10,79
KANARIAR UHARTEAK	24.190	17.301	71,52	26.069	19.003	72,89	7,77	9,84
KANTABRIA	29.956	21.929	73,2	30.583	22.300	72,91	2,09	1,69
GAZTELA ETA LEON	28.634	20.896	72,98	29.887	21.968	73,5	4,38	5,13
GAZTELA-MANTXA	28.018	20.399	72,81	29.306	21.413	73,07	4,60	4,97
KATALUNIA	32.788	24.040	73,32	35.172	25.992	73,9	7,27	8,12
VALENTZIako ERK.	27.623	20.193	73,1	29.779	21.751	73,04	7,81	7,72
EXTREMADURA	25.359	18.483	72,88	26.580	19.436	73,12	4,81	5,16
GALIZIA	28.651	20.876	72,86	29.854	21.856	73,21	4,20	4,70
MADRIL	37.296	27.775	74,47	39.031	29.333	75,15	4,65	5,61
MURTZIA	28.198	20.665	73,29	29.776	21.781	73,15	5,59	5,40
NAFARROA	34.678	25.442	73,36	35.447	26.016	73,39	2,22	2,26
EAE	37.106	26.958	72,65	38.882	28.229	72,60	4,79	4,71
ERRIOXA	28.135	20.610	73,25	29.508	21.535	72,98	4,88	4,49

Iturria: EIN: Lan-kostuei buruzko urteko inkesta.

2021eko Lan-kostuari buruzko Inkestaren arabera, langile bakoitzeko lan-kostu gordina 38.882 €-koa zen EAEn (2020. urtearekiko +% 4,8), eta horietatik % 72,6 "soldatei eta lansariei" zegokien, hots, 28.229 €-koa da (aurreko urtearekiko +% 4,7). Gainerako % 27,4a nahitaezko kotizazioei (% 23,9) borondatezkoei (% 0,93) eta zuzeneko gizarte-prestazioei (% 1,47) zegokien eta gainontzeko % 1,11 beste partida batzuei (gizarte-gastuak, kalte-ordainak, etab.). Batez besteko soldata hori Estatuko batez bestekoa baino % 22,6 handiagoa zen erreferentziako urtean, eta, Madrilgo Erkidegoarekin batera, autonomia erkidego guztietako handiena zen.

4.2.2. Lan-kostuen Hiruhileko Inkesta. 2022. urtea

Deskribatutako urteko inkestaz gain, EINEK "Lan-kostuen hiruhileko inkesta" (LKHI) ere egiten du, EUROSTATen lan-kostu bateratuaren indizea egiteko funtsezko iturria dena, Europako Banku Zentralak Europar Batasuneko herrialdeen arteko konbergentzia prozesuaren jarraipena egiteko eskatutako "euroadierazle" direlakoetako bat delako. Halaber, Inkesta horrek lan egindako eta lan egin gabeko denborari (ikus kapitulu honen 3.3. atala) eta lan-kostuei buruzko informazioa ematen du, lan egindako pertsonako eta hileko (soldaten kontu-sailaren osoa antzekoa da, Urteko Inkestan oinarrituz)¹⁹, eta baita lan egindako benetako orduko ere.

Lan-kostuak, enpresak benetako lanordu baten ordaindu behar duen kostua neurtzen du, kopuru garbitan adierazita, eta lan-kostu osoa eta soldata-kostua bereiz daitezke (kostu osoaren % 75-76 ingurukoa dena; ratioa oso egonkorra da denboran eta autonomia-erkidegoaren arabera), langileei egindako ordainketak barne hartzen dituen, eskudirutan edo gauzaz, besteren konturako lan-zerbitzuen emate profesionalarengatik, ordainketa modua edozein dela, eta lan gisa kontuan hartzen diren atsedendialdiak²⁰.

III.4.5. TAULA. LAN KOSTUAREN ETA SOLDATA KOSTUAREN BILAKAERA, ORDUKO, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA HIRUHILEKOAK €) IV. HIRUHILEKOAK.										
	LAN KOSTUA			SOLDATA KOSTUA			ALD. % 20/21		ALD. % 21/22	
	2020	2021	2022	2020	2021	2022	LK	SK	LK	SK
ESTATUA	22,66	22,72	23,55	16,97	17,12	17,83	0,3	0,9	3,7	4,1
ANDALUZIA	20,4	20,15	20,62	15,15	15,01	15,43	-1,2	-0,9	2,3	2,8
ARAGOI	22,56	22,42	23,26	16,92	16,74	17,45	-0,6	-1,1	3,7	4,2
ASTURIAS	24,67	23,86	24,52	18,42	18,04	18,61	-3,3	-2,1	2,8	3,2
BALEAR UHARTEAK	21,45	21,61	22,99	16	16,24	17,37	0,7	1,5	6,4	7,0
KANARIAR UHARTEAK	19,01	18,71	19,23	13,86	13,82	14,24	-1,6	-0,3	2,8	3,0
KANTABRIA	21,98	21,16	22,86	16,5	15,9	17,2	-3,7	-3,6	8,0	8,2
GAZTELA ETA LEON	21,64	21,19	22,78	16,25	16,04	17,28	-2,1	-1,3	7,5	7,7
GAZTELA-MANTXA	19,54	20,29	21,15	14,37	15,04	15,77	3,8	4,7	4,2	4,9
KATALUNIA	23,86	24,32	25,24	17,89	18,4	19,19	1,9	2,9	3,8	4,3
VALENTZIAKO ERK.	19,84	20,3	20,93	14,75	15,11	15,62	2,3	2,4	3,1	3,4
EXTREMADURA	18,82	18,68	19,97	14,05	14,07	15,03	-0,7	0,1	6,9	6,8
GALIZIA	20,41	21,11	21,13	15,2	15,71	15,9	3,4	3,4	0,1	1,2
MADRIL	26,02	25,8	26,81	19,79	19,8	20,65	-0,8	0,1	3,9	4,3
MURTZIA	20,62	21,05	21,35	15,46	15,76	16,1	2,1	1,9	1,4	2,2
NAFARROA	25,94	25,7	26,73	19,52	19,34	20,26	-0,9	-0,9	4,0	4,8
EAE	27,6	27,68	29,08	20,61	20,75	21,97	0,3	0,7	5,1	5,9
ERRIOXA	20,72	21,25	21,92	15,55	15,92	16,38	2,6	2,4	3,2	2,9

Iturria: EIN: Lan-kostuen Hiruhileko Inkesta.

Lehenik eta behin, LKHik adierazten du 2022ko laugarren hiruhilekoan **laneko ordu bakoitzeko lan-kostua** 29,08 eurokoa zela EAEn, duela urtebete baino % 5,1, eta % 23,5 gehiago Estatuko batez bestekoa baino, aldi horretan % 3,7 hazi baitzen.


Bestalde, **benetako lanorduko lan-kostua** 21,97 euro zen EAEn 2022ko laugarren hiruhilekoan (laneko kostu osoaren % 75), aurreko urtean baino % 5,9 gehiago. Horrez gain, zenbateko hori, eta gauza bera gertatzen da lan-kostu osoarekin, autonomia erkidegoetako handiena da. Atzetik, Madril eta Nafarroa daude. Bestalde, Estatuko batezbestekoa baino % 23,2 handiagoa da (17,83 euro). Beste muturrean U. Kanariarrak daude, 14,24 € lan egindako ordu bakoitzeko, eta Extremadura, 15,03 €

¹⁹ Lan-kostuei buruzko urteko inkestak, hileron nominetan jasotzen ez diren soldatek kontu-sail batzuei buruzko datuekin osatzen da. Ez da jasotzen hain zuzen mugaeguna hila bete baino handiagoa delako (aurrezki-planak, gauzazko ordainketak, borondatezko kotizazioak eta abar). Zenbatespenen arabera, inkesta horrek lan-kostu osoaren % 98,4 barne hartzen du, eta horregatik ez dator bat bi inkestaren emaitzak, antzekoak badira ere.

²⁰ Xehetasun gehiagorako, Memoria honen amaierara jo daiteke, terminoen glosariara.

4.3. LANEKO PREZIOEN INDIZEAREN EMAITZAK (LPI) 2020

III.4.2. GRAFIKOA. LANEKO PREZIOEN INDIZEA. URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK. EAE-ESTATUA ALDERATZEA



Iturria: LPI. 2016ko oinarria.

EINen "Laneko prezioen indizeak" lan-eskuak denboran duen prezioaren aldaketa neurtzen du, soil-soilik lan-merkatuaren prezioen ondorioz, hots, neurri hori ez dago eginiko lanaren kalitatearen eta kantitatearen aldaketen eraginpean (esaterako, lan-indarraren eraketaren aldaketengatik, soldatapeko pertsonen ezaugarrien aldaketengatik, etab.), hau da, eraketa-efektua deskontaturik²¹.

Kontsumo eta zerbitzu ondasunen "oinarrizko otzara" estandarizatu neurtzen duen kontsumorako prezioen indizeak bezala (KPI), lanpostuen "oinarrizko otzara" estandarizatuaren prezioaren aldaketak neurtzen ditu LPIk²².

III.4.6. TAULA. LANEKO PREZIOEN INDIZEA. AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERAKO DATUAK. 2014-2020.

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
ESTATUA	1	0,7	-0,2	-0,3	5,6	0,5	-0,6
ANDALUZIA	1,5	1,6	0	-0,6	5,2	0,4	-1,6
ARAGOI	2,2	-0,4	0,3	0,3	4,9	1,3	-2
ASTURIAS	1,7	1,9	-0,8	0,7	4,2	2,2	-1,2
BALEAR UHARTEAK	3,8	-0,6	-0,1	-1,6	5,4	0	-3,4
KANARIAR UHARTEAK	-1,6	0,6	-0,7	0,3	6	0,4	-1,1
KANTABRIA	3,2	0,6	-0,3	1,2	3,1	2,9	-0,9
GAZTELA ETA LEON	-1,6	2,1	0,7	-0,5	5,3	-0,6	0,8
GAZTELA-MANTXA	0,9	-0,6	-1	-1,3	7,8	-0,9	-0,4
KATALUNIA	0,2	1,7	-0,4	0,4	5,9	0,5	-0,2
VALENTZIAKO ERK.	1	1,6	-0,2	-0,7	6,3	0,6	-0,8
EXTREMADURA	-3,9	0,2	1,8	-1,1	6,7	-1	-1
GALIZIA	1	2,6	-0,2	1,1	5,2	-0,7	-0,4
MADRIL	2,4	-2,4	0	-0,9	5,7	1,2	-0,6
MURTZIA	2,1	-0,8	0,1	0,8	4,8	0,3	1,8
NAFARROA	-1,3	2,5	1,7	-0,1	3,9	1,2	-0,7
EAE	0,1	3	-1,3	-0,9	4,9	0,1	1,1
ERRIOXA	3,6	2	0	-1,2	4,8	-0,6	1,5

Iturria: EIN: Lanaren prezioen indizea 2016. oinarria.


LPI % 1,1 handitu zen 2019 eta 2020 urte bitartean EAEn (eskuratutako azken datua). Estatuko batez besteko aldakuntza, berriz, -% 0,6 izan da. Oinarrizko urtetik (2016-2020) izandako bilakaera aztertuz gero, indize-zenbakiek adierazten duten bezala, igoera % 5,21ekoa da: 2020rako EAEko datua 105,21 da, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, 105,17; horrek adierazten du aldi berean soldatak % 5,17 igo direla.

²¹ Gaur egun, Espainian LKHI, LKUI eta EES inkestetatik jasotako informazioan, lan- eta soldata-kostuaren batez besteko emaitzak besterik ez dira adierazten, langileko. Horrela, kostuaren aldaketa zein enpleguren konposizioan gertatutako aldaketak barne hartzen dituzte.

²² Informazio gehiagorako, eragiketa estatistiko honen Metodologiara jo daiteke:

http://www.ine.es/dynqs/INEbase/es/operacion.htm?c=Estadistica_C&cid=1254736177027&menu=metodologia&idp=1254735976596

III.4.3. GRAFIKOA. LPI: URTEKO HAZKUNDEA 2016AREN ALDEAN, OINARRIKO URTEA. EAE-ESTATUKO BATEZBESTEKOA ALDERATZEA



Iturria: EIN. LPI. 2016ko oinarria.

4.4. SOLDATEN BANAKETA: 2021EKO BAI-REN EMAITZAK

Analisirako eremu zabal horren barruan, EINen “Biztanleria Aktiboaren Inkestak (BAI) familiaren “enplegu nagusiaren soldata” aldagaia kodetzen du deziletan, eta informazio hori biltzeko, informazioa ematen duten etxeekin loturiko administrazio-erregistroak erabiltzen ditu. Soldata horren barruan, laneko errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenak eta langileak gizarte segurantzako sistemei eginiko nahitaezko kotizazioak daude, baita aparteko pagei, aparteko orduei eta beste osagarri batzuei dagozkien hainbanaketak ere. Kontuan hartu behar da etxeetako soldaten aldagai hori ezin izan daitekeela esanguratsua, kopuru absolutuetan, zeren eta etxe bakoitzeko bat baizik ez baitu erregistratzen. Hala ere, soldata-masak gure gizartean konparaziozko datuetan duen banaketari buruzko informazioa ematen du dezilen araberako kodetzeak.

Horretarako, jasotako soldaten zenbatekoaren arabera antolatzen da soldatapeko pertsonen lagina estatu mailan, eta ondoren 10 talde berdinetan zatitzen da, hots, langileen % 10arekin haietako bakoitzean. Eginiko zenbatespenen arabera, soldatapeko 16,2 milioi lagun zeuden 2018an eta, beraz, dezil bakoitzak soldatapeko 1,6 milioi lagun biltzen ditu gutxi gorabehera. Horrez gain, batez bestekoak (taldearen batez besteko soldata) eta hura mugatzen duten behegoko eta goragoko soldatek zehaztu dute dezil bakoitza. Hainbat urtetako magnitudeak alderatuz gero, kontuan hartu behar da dezil bakoitzaren mugak urte bakoitzeko informazioaren arabera zenbatesten direla.

Estatistika-eragiketa horri esker, soldatapekoek Estaturako definituriko soldaten dezil bakoitzean EAEn duten pisua jakin ahal izango dugu, hots, gure Erkidegoak Estaturako eginiko banaketa perfektuarekiko duen presentzia erlatiboa eta, era berean, gainerako autonomia erkidegoekiko²³.

Lehendabizi, nabarmen dezakegu, 2021. urtean, barne hartzen duen sail guztian bezala, euskal soldatuen parte-hartzea 1 eta 6 arteko deziletan baino % 10 txikiagoa dela, hau da, soldatarik baxuenetan. 7 (% 11,4) eta 10 (% 15,4) arteko deziletan, berriz, handiagoa da (% 15,4). Bestela esanda, Estatuko soldaten % 50eko teorikorik handienak EAeko soldatapekoen % 64,8 biltzen du. Estatuko ratorik handiena da, eta ondoren, Nafarroakoa (% 63,3) eta Madrilgo Erkidegokoa (% 56,6) daude, Ceutako ezohiko kasua alde batera utziz gero. Beste muturrean, 1etik 3ra arteko dezilek (soldatarik txikiak) EAeko soldatapekoen % 21,9koa biltzen dute % 30 teorikoaren aldean, autonomia erkidego guztietako bigarren txikiena. Haren atzetik Nafarroa dago (% 19,4), eta beste autonomia erkidego batzuk, aldiz, % 40aren inguruan dabilta, hala nola Extremadura edo Murtzia.

²³ Ez dugu kontuan hartuko, ordea, zenbatekoei buruzko informazioa, izan ere, familien soldata guztiak ez dituzenez barne hartzen (nagusia bakarrik), ez da errealitatearen adierazgarria.

III.4.7. TAULA. SOLDATAKOEN EHUNEOA, ESTATURAKO FINKATUTAKO SOLDATEN DEZILEKO.
AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO DATUAK. 2021.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	GUZTIRA
ESTATUA	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	10,0	100,0
ANDALUZIA	12,4	12,3	12,8	10,7	10,2	9,8	8,3	8,7	7,7	6,9	100,0
ARAGOI	9,9	7,8	7,6	10,8	13,8	14,1	10,7	9,6	8,6	7,0	100,0
ASTURIAS	11,0	7,7	11,6	7,5	8,1	10,9	12,1	8,7	13,2	9,3	100,0
BALEAR UHARTEAK	7,7	7,0	11,2	10,9	12,0	11,9	12,2	9,0	9,6	8,4	100,0
KANARIAR UHARTEAK	8,5	14,1	12,0	13,3	9,2	7,5	8,6	9,6	8,7	8,4	100,0
KANTABRIA	8,4	9,9	10,9	8,9	10,3	12,5	11,5	8,6	8,9	10,1	100,0
GAZTELA ETA LEON	9,5	9,3	9,4	12,3	11,0	10,9	10,7	10,4	9,2	7,3	100,0
GAZTELA-MANTXA	10,1	10,0	10,0	12,8	12,0	10,5	10,5	7,9	9,0	7,2	100,0
KATALUNIA	8,9	9,2	7,7	9,2	9,0	10,2	12,1	10,2	11,8	11,5	100,0
VALENTZIako ERK.	13,2	8,7	10,8	11,5	10,5	10,4	8,8	9,1	9,6	7,4	100,0
EXTREMADURA	13,8	12,2	15,5	12,0	12,0	10,9	9,1	7,1	5,1	2,4	100,0
GALIZIA	9,2	11,8	10,7	10,3	10,8	11,8	9,1	9,4	8,4	8,4	100,0
MADRIL	8,6	8,9	8,9	7,9	9,2	8,3	9,6	11,6	10,9	16,1	100,0
MURTZIA	10,8	14,1	14,0	9,4	12,2	10,4	6,2	8,3	7,1	7,5	100,0
NAFARROA	7,3	7,3	4,8	8,0	9,2	13,8	11,9	14,9	12,5	10,2	100,0
EAE	7,5	8,8	5,6	6,7	6,6	7,4	11,4	14,5	16,1	15,4	100,0
ERRIOXA	7,2	6,4	12,2	11,6	12,7	11,7	11,6	11,9	7,9	6,7	100,0
CEUTA	9,6	5,8	9,3	6,0	9,3	17,6	12,6	9,1	10,6	10,1	100,0
MELILLA	5,5	11,9	9,0	15,2	8,9	8,3	10,3	5,0	15,6	10,4	100,0

Iturria: EIN: Biztanleria Aktiboaren inkesta.

Azken finean, BAiren emaitzetatik ondorioztatzen denez, dezilik handienetara desbideratzen da soldaten banaketa EAEn estatuko batez bestekoarekiko, zeren eta soldatapekorik gehienak banaketaren eskuineko aldean baitaude kokatuta.

Denborari dagokionez, EAEko soldaten banaketa erlatibo horri nahiko egonkor eutsi zaio, baina Estatuko batez besteko banaketarekin bat egiteko nolabaiteko joerarekin.

2009-2021 aldian, adibidez, soldaten dezil txikiena % 7tik % 7,5era igo da, eta bigarrena % 7,4tik % 8,8ra. Beste muturrean, dezil handiena % 14tik % 15,4ra igo da, baina bederatzigarrena % 16,8tik % 16,1era jaitsi da.

III.4.8. TAULA. EAE-KO SOLDATAPEKOEN BANAKETAREN BILAKAERA DEZILEN ARABERA
ESTATUKO SOLDATAK DATUAK EHUNEOETAN.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2009	7,0	7,4	6,0	6,3	6,6	8,9	14,0	13,0	16,8	14,0
2010	8,0	6,8	5,4	6,8	8,6	10,3	12,1	13,4	14,4	14,1
2011	8,3	7,8	5,2	5,8	7,3	9,7	12,0	13,5	15,9	14,4
2012	7,5	9,0	6,5	5,4	8,6	9,6	11,4	12,1	14,5	15,3
2013	7,5	8,4	6,0	6,9	9,0	8,7	11,2	13,0	15,3	14,1
2014	8,5	7,5	6,3	6,1	7,8	9,5	11,1	13,4	16,4	13,5
2015	8,0	7,3	6,1	5,8	6,8	8,5	10,7	14,9	17,5	14,5
2016	8,8	7,8	4,4	7,0	6,6	8,5	11,8	13,8	15,6	15,8
2017	7,6	7,5	6,5	6,4	6,8	8,9	12,0	14,5	14,5	15,3
2018	8,1	7,2	5,9	6,8	7,9	8,4	12,1	13,5	15,6	14,6
2019	8,1	7,2	6,4	5,7	6,8	10,4	12,1	11,4	15,6	16,3
2020	9,7	8,0	6,5	7,5	8,1	9,1	10,9	11,5	14,0	14,7
2021	7,5	8,8	5,6	6,7	6,6	7,4	11,4	14,5	16,1	15,4

Iturria: EIN: Biztanleria Aktiboaren inkesta.

5. ENPLEGU POLITIKAK

5.1. ENPLEGU POLITIKA AKTIBOAK

Enplegu politika aktiboak (EPA) tresna nagusietako bat dira Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak ezarritako Enplegu Estrategiak eta horiek garatzen dituzten Planak garatzeko, laneratzea, mantentzea eta lan sustatzeko bultzatzeko, pertsonen enplegarritasuna hobetzeko, enplegu-mailak handitzeko eta Euskadin enpleguaren egonkortasuna eta kalitatea indartzeko.

5.1.1. 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa. Oinarrizko ildoak eta jarraipena 2021

2017-2020 Enplegu Plan Estrategikoaren indarraldia amaitu ondoren, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa egin zen, 2021eko apirilean onartutako 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia zehazteko eta hedatzeko. EEE 2030, *kalitatezko enplegu inklusiboaren aldeko ituna, Euskadiren garapen ekonomikoan eta sozialean lagunduko duena*, 2021-2024 Planaren estrategia inspiratzailea da²⁴.

III.5.1. TAULA 2021-2024 ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOAREN JARDUERA-EREMUAK ETA HELBURU OPERATIBOAK.

JARDUKETA-EREMUAK	HELBURU OPERATIBOAK
1. ENPLEGUA BERRESKURATU, MANTENDU ETA SORTZEA	1. Enplegua berreskuratzea, sortzea eta/edo mantentzea sustatzea.
	2. Enpresak berreskuratzeko, sortzeko eta/edo finkatzeko laguntza.
	3. Langabezia-tasa murrizten laguntzea eta pandemiaren aurreko tasa hobetzea.
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	4. Landunen behin-behinekotasun tasa murrizten laguntzea.
	5. Enplegu publikoan behin-behinekotasunaren tasa murrizten laguntzea.
	6. Landunek desiragarria ez duten lanaldi partzialaren tasa murrizten laguntzea.
	7. Gizonengan eta emakumeengan heriotza sortzen duten lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen intzidentzia-tasa murrizten laguntzea.
	8. Negoziazio kolektiboaren estaldura duten langileen % gehitzen laguntzea.
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTSIZIOTAN: DIGITALA, ENERGETIKO-KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	9. Hiru trantsizioetarako langabeen eta landunen lanbide-gaitasunak hobetzea.
	10. Zaintzen sektorean landunen lanbide-gaikuntza sustatzea.
	11. Sektore pribatuan errelebo-kontratuen bidez gazteak kontrata ditzaten sustatzea.
	12. Euskal enpresetan adina ordezkatzeko eta kudeatzeko proiektuak garatzea.
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	13. Talde kalteberentzat, baztertutakoentzat edo baztertze-arriskua dutenentzat enplegu-prestakuntza programak garatzea.
	14. Sektore tradizionalan, funtsezkoetan edo hasten ari direnetan behe-mailako prestakuntza duten pertsonentzat prestakuntza- eta enplegu-programak garatzea.
	15. GDSBESren Lege berria implementatzea.
	16. Orientazio-aktibazio programen, prestakuntza-gaikuntzaren eta laneratze laguntza-jarduketan bidez langabeen enplegarritasuna hobetzea.
	17. Bilakatzen ari den lan-ingurunean landunen lanbide-gaitasunak hobe trebatzea edo egokitzea.
5. ENPLEGURAKO EUSKADIKO PRESTAKUNTZA-EREDUA	18. Enpresen enplegu- edo trebakuntza-eskea langabeen eta landunen gaitasunekin lerrokatzeko prospekzio- eta informazio-sistemak hobetzea.
	19. Enpresen eta pertsonen beharretara egokituta, prestakuntza-enplegu planak diseinatzen sakontzea.
6. LANBIDE HOBETZEN	20. Lanbideren bulego-sarean esku hartzeko, arretarako eta zerbitzuetarako eredu berria ezartzea.
	21. Enpresetarako zerbitzuen zorroa gehitzea (prospekzio-bisitak, arreta pertsonalizatua, enplegu-hautagaiak arinago izatea,
7. ENPLEGUAREN POLITIKA AKTIBOAK EBALUATZEA	22. Programak eta jarduketa-ildoak ebaluatzeko proiektu pilotuak garatzea Espainiako eta Europako gidalerroak kontuan hartuta, ebaluazio-eredu eskalagarria ezartzeko.
8. ENPLEGUKO EUSKAL SISTEMAREN LEGEA	23. Erakunde eta arlokako eragileen artean ituntze-prozesua garatzea elkarlaneko gobernantza-eredua adosteko; hark sistematika aurreko enplegu-planen alboratzea gaindituko du eta sistema antolatua, kooperatibo eta lankidetzakorantz urratsa egingo du.
	24. Enpleguko Euskal Sistemaren Legea garatu eta onestea.
9. BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN	25. Gizonekiko emakumeen ordainsari-arrakala erdira murrizten laguntzea.
	26. Emakume landunen behin-behinekotasun tasa murrizten laguntzea.
	27. Emakume landunek desiragarria ez duten lanaldi partzialaren tasa murrizten laguntzea.
	28. EB-27rekin bat etorritik gazteen enplegu-tasa murrizten laguntzea.
	29. EB-27rekin bat etorritik luzaroko langabeen tasa murrizten laguntzea.

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa.

²⁴ EEE 2030ari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero, ikusi Memoria Sozioekonomiko honen 2021eko edizioa.

Hauek dira Estrategiaren eta Planaren **jarduteko printzipioak**, Enplegurako Euskal Estrategia 2030ek ezarritakoak: aukera-berdintasuna; aurea hartzea, berrikuntza, erantzuteko abiadura eta erresilientzia; lurralde-oreka; adostasuna eta lankidetzatza; eta gobernantza irekia eta maila askotarikoa.

2021-2024 aldirako KLPk, halaber, 16 **helburu estrategiko** lortzea proposatzen du. Helburu horien ildotik, 29 **helburu operatibo** planteatzen dira guztira, zortzi jarduera-eremuren inguruan bideratzen direnak, gehi bederatzigarren bat, zeharkakoa, lan-merkatuko berdintasunari erreferentzia egiten diona, generoari, adinari eta abarri dagokienez. Aurreko orrialdeko III.5.1 taulan jaso dira helburuen xehetasunak.

Planaren **helburu kualitatiboak** honako hauek dira: enpleguaren behin-behinekotasuna, nahi gabeko partzialtasuna, lan-istripuak, lan-merkatuan genero-berdintasuna sustatzea, gazteen enplegua, iraupen luzeko langabezia murriztea eta enplegatuen nahiz langabeen enplegua eta prestakuntza babestea hiru trantsizioetarako. Era berean, talde kalteberei eta enplegurako orientazio, ekintzaitza, laguntza eta berrikuntza-zentroen sareari laguntzea bilatzen du, LANBIDEN esku hartzeko eredu berri bat garatzea, laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak garatzea eta Enpleguaren Euskal Legea egitea.

Helburu kuantitatiboak, berriz, hauexetan zehazten dira: 80.000 lanpostu sustatzea, 23.000 enpresari laguntzea, 48.000 pertsonaren gaikuntza eta kualifikazioa hobetzea, beste 16.000 pertsona prestatzea gaitasun digitaletan, 5.000 pertsona gaitzea zaintzaren sektorean, 52.000 langileren enplegarritasuna hobetzea eta langabezia-tasa % 10etik behera jartzea.

III.5.2. TAULA. 2021-2024KO ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOAREN AURREKONTU-BALIAKIZUNAREN ZENBATESPENA. JARDUERA-EREMUEN ARABERA BANAKATUTA. EUROAK.	
JARDUKETA-EREMUAK	AURREKONTU ZUZKIDURA
1. ENPLEGUA BERRESKURATU, MANTENDU ETA SORTZEA	1.252.779.559
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	18.906.000
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTSIZIOTAN: DIGITALA, ENERGETIKO-KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	166.105.473
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	510.370.478
5. ENPLEGURAKO EUSKADIKO PRESTAKUNTZA-EREDUA	72.713.918
6. LANBIDE HOBETZEN	
7. ENPLEGUAREN POLITIKA AKTIBOAK EBALUATZEA	50.505.000
8. ENPLEGUKO EUSKAL SISTEMAREN LEGEA	
GUZTIRA	2.071.380.428

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa.

2021-2020ko Enplegu Plan Estrategikoaren **aurrekontuko baliakizunaren** zenbatespena 2.071 milioi eurokoa da 2021-2024 epealdirako, eta banaketa hau du arlo operatiboaren arabera III.5.2. taulan,

2022an, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Planaren "2021eko jarraipen-txostena" egin du. Txosten horren arabera, jarduketaren gauzatze-mailari dagokionez, Planean aurreikusitako 141 jarduketetatik 117 egin ziren 2021ean, eta, beraz, betetze-maila handia izan zen. Programatutako jardueren betetze-maila handieneko jarduketa-eremuak (ikus hurrengo orrialdeko III.5.3 taularen xehetasuna) hauexek izan ziren: 2.a (Enpleguaren kalitatea), 5.a (Enplegurako prestakuntzaren euskal eredu), 6.a (Lanbide hobetzen) eta 7.a (Enpleguko Politika Aktiboen Ebaluazioa).

Aurrekontu-betearazpenari dagokionez, 2021ean 317,5 milioi euroko gastu globala gauzatu zen (programatutako aurrekontuaren % 74). Azkenik, txostenak dakarrenez, 2021erako planteatutako 26 gauzatze-adierazleetatik 17k betetze-maila handia izan zuten, eta 9k betetze-maila txikia.

III.5.3. TAULA ENPLEGU PLAN ESTRATEGIKOA 2021-2024:

2021EKO EMAITZA NAGUSIAK ILDO ESTRATEGIKOEN GAUZATZE-MAILA

JARDUKETA-EREMUAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	PROGRAMATUTA KO JARDUKEREN KOP.	GAUZATUTAKO JARDUKEREN KOP.	2021EKO BETETZE MAILA	
1. ENPLEGUA BERRESKURATU, MANTENDU ETA SORTZEA	1.1. EKINTZAILATZA SUSTATZEA ETA ENPRESAK FINKATZEA	18	17	% 94,4	●
	1.2. TOKIKO ENPLEGUA SUSTATZEA	5	3	% 60,0	●
	1.3. ENPLEGU PULBIOKA SORTZEA	1	1	% 100,0	●
	1.4. EKONOMIA SOZIALA BABESTEA	6	4	% 66,7	●
	1.5. ARLOKAKO PROGRAMAK	11	9	% 81,8	●
2. ENPLEGUAREN KALITATEA	2.1. ELKARRIZKETA SOZIALA ETA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOA	6	6	% 100,0	●
	2.2. IKUSKAPENA BABES- ETA BERME-TRESNA	7	7	% 100,0	●
	2.3. LAN-SEGURTASUNA ETA -OSASUNA	9	9	% 100,0	●
	2.4. LAN-BALDINTZAK ETA ENPLEGUAREN EGONKORTASUNA	5	3	% 60,0	●
3. ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA 3 TRANTSIZIOTAN: DIGITALA, ENERGETIKO-KLIMATIKOA ETA DEMOGRAFIKOA	3.1. ENPLEGATUEN ETA LANGABEEN ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA TRANTSIZIO DIGITALERAKO	8	6	% 75,0	●
	3.2. ENPLEGATUEN ETA LANGABEEN ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA TRANTSIZIO ENERGETIKO-KLIMATIKORAKO	6	4	% 66,7	●
	3.3. ENPLEGATUEN ETA LANGABEEN ENPLEGUA ETA PRESTAKUNTZA TRANTSIZIO SOZIAL ETA DEMOGRAFIKORAKO	7	5	% 71,4	●
4. ENPLEGU ETA PRESTAKUNTZA ERRESILIENTE ETA INKLUSIBOA	4.1. ENPLEGU-PRESTAKUNTZA PROGRAMAK LANGABE ETA TALDE KALTEBERENTZAT	11	11	% 100	●
	4.2. LANDUNAK TREBATZEKO ETA LANBIDE-GAITASUNAK EGOKITZEKO PROGRAMAK	17	10	%58,8	●
	4.3. GDSBESren LEGE BERRIA INPLEMENTATZEA	0	0	----	●
5. ENPLEGURAKO EUSKADIKO PRESTAKUNTZA-EREDUA	5.1. INFORMAZIO- ETA PROSPEZKIO-SISTEMAK HOBETZEA	4	4	% 100,0	●
	5.2. PRESTAKUNTZA-ENPLEGU PLANEN DISEINUAN SAKONTZEA	8	7	% 87,5	●
6. LANBIDE HOBETZEN	6.1. ESKU HARTZEKO, ARRETARAKO ETA ZERBITZUETARAKO EREDU BERRIA EZARTZEA	4	4	% 100,0	●
	6.2. ENPRESENZAKO ZERBITZUEN ZORROA GEHITZEA	2	2	% 100,0	●
7. ENPLEGUAREN POLITIKA AKTIBOAK EBALUATZEA	7.1. EBALUAZIO PROIEKTUAK DISEINATU, GARATU ETA HEDATZEA	6	5	% 83,3	●
8. ENPLEGU EUSKAL SISTEMAREN LEGEA	8.1. ENPLEGU EUSKAL SISTEMAREN LEGEA GARATU ETA ONESTEA	0	0	----	----
GUZTIRA		141	117	% 83,0	
9. ZEHARKAKO EREMUA: AUKERA-BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN	9.1. GENERO-BERDINTASUNA LAN-MERKATUAN	12	11	%91,7	●
	9.2. GAZTEENTZAKO ENPLEGUA	17	11	%64,7	●
	9.3. 45 URTETIK GORAKOENTZAKO ENPLEGUA	5	3	% 60,0	●
	9.4. ENPLEGU INKLUSIBOA	8	8	% 100,0	
	9.5. HIZKUNTZA-BERDINTASUNA	2	2	% 100	

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa. Jarraipen txostena 2021.


Memoria honen ondorengo edizioetan, 2021-2024ko Enplegu Planaren jarraipena eta balorazioa egingo dira.

5.1.2. LANBIDEren (Enplegurako Euskal Zerbitzua) jarduera.

LANBIDEk-Enplegurako Euskal Zerbitzua funtsezko eginkizuna du eratzekia EAEko enplegurako politika aktiboak garatzeko eta Enplegu Plana abiarazteko, zeren eta haren funtzioak lan jardura (enplegua sustatzeko programekin, bitartekaritzarekin, orientazioarekin, etab.) eta enplegurako prestakuntza baitira, landunena nahiz langabetuena, baita Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta beste prestazio osagarri batzuk kudeatzea ere.

Aurrekontu-likidazioetatik abiatuta (aitortutako obligazioak), LANBIDEk 2022an 1.029 milioi euroko gastua izan zuela ezagutzen da, 2021ean baino % 26,5 gehiago (aurreko ekitaldian % 4,3 egin zuen behera). Horietatik 543,8 milioi euro bideratu ziren Gizarteratze Programara (2021ean baino % 19,7 gehiago), 294,4 milioi euro (guztien % 28,6) Enplegu Programara (2021ean baino % 28,1 gehiago) eta 114,8 milioi (gastuaren % 11,2) Prestakuntza Programara (2021ean baino % 18,5 gehiago). Era berean, LANBIDEk 2,3 milioi euroko ezohiko partida izan zuen 2022an COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurrietarako, eta 40,3 milioi euroko beste bat Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen Programaren kontura.

Enplegu politika aktiboetako gastua prestakuntza eta enplegu programen batura dela pentsatzea sinplifikatzea bada ere (gizarteratzeko programekin duen berariazko lotura dela eta), LANBIDEk 2022an enplegu politika aktiboetan gauzaturako gastua 409,3 milioi eurokoa izango dela kalkula daiteke, 2021ean baino % 25,2 handiagoa, hau da, gorakada handia, aurreko urteko % 1eko jaitsieraren aldean.



III.5.4 taulan, LANBIDEk 2021ean garatutako enplegu politika aktiboen programen xehetasunak ageri dira (azken datuak).

III.5.4. TAULA. LANBIDEK 2021EAN GARATUTAKO ENPLEGU POLITIKA AKTIBOEN EKIMENAK.
EKINTZEN XEHETASUNAK ETA EMAITZAK.

PROGRAMA/ DEIALDIA	Ekintzaren deskribapena	2021eko aurrekontu programatua	2021ean gauzatu aurrekontua	Emaitzak	OHARRAK
1. Ekintzailtzarako laguntzak (Sortzea eta sendotzea)	Mikroenpresa eta enpresa txiki berriak garatzen eta abian jartzen laguntzea, betiere euskal administrazioaren tresnetatik emandako zerbitzuen bidez edo beste eragile batzuekin lankidetzan.	3.705.000 €	Ez dago behin betiko daturik.	1.435 diru-laguntza eman dira 4 laguntza-lerroen artean (379 ideiak, 204 jarduerak, 177 establezimendua eta 675 finkapena).	2021eko datuak behin-behinekoak dira
2. ABEEEn dauden pertsonentzako aparteko laguntzak	Krisialdian enplegua ez desagerrarazteko sistemak babestea (ABEEEn osagarriak, txanda-kontratuen osagarriak eta abar).	7.541.900 €	872.995 €	2.201 eskabide onartu dira	ABEEE osagarrien bi deialdi egin dira 2021ean. Guztira 2.683 eskabide aurkeztu dira, eta horietatik 2.201 eman dira.
3. Langabezia-prestazioen onuradunei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak, ordainketa bakarreko modalitatean	Langabezia-prestazioen onuradunei Gizarte Segurantzako kuotak ordaintzeko diru-laguntzak, ordainketa bakarreko modalitatean.	500.000 €	161.517 €	538 diru-laguntza eman dira	Langile autonomoek hobari ugari baliatu ahal izango dituzte kuota murrizteko, baldin eta ordaindu beharreko diru-laguntzen zenbatekoa txikiagoa bada.
4. Hiru unibertsitateentzako diru-laguntzak (EHU, Arrasate, Deustu)	Unibertsitateekin lankidetzan hitzarmenak eta ekimenak garatzea, laneratzeari eta ekintzailtzari buruz sentsibilizatzeko eta unibertsitatearen arloan sortutako ekimen ekintzaileak babesteko (graduak, graduondokoak eta doktoregoak).	DEUSTUKO UNIBERTSITATE A 166.138 € MONDRAGON UNIBERTSITATE A 87.482 € EHU 262.448 €	DEUSTUKO UNIBERTSITATEA 166.138 € MONDRAGON UNIBERTSITATEA 87.482 € EHU 262.448 €	- 1.450 unibertsitariori eman zaie arreta - Zerbitzua jaso duten pertsonen kontratazioa: 141	Deialdia (20/07/01 - 21/06/30)
5. Tokiko enplegua garatzeko eta sortzeko proiektuak	Langabeen laneratzeari sustatzea tokiko eta eskualdeko enplegu-planen bidez	36.100.000 €	- 2020ko deialdia, likidazioa amaitzeko: 16.550.700,26 € - 2021eko deialdia: 17.539.270,30 €	- Ekintzak aurkezten dituzten 49 udalerriri edo mankomunitate - 774 ekintza proposatu dira - 4.095 kontratu aurreikusita	2021eko deialdia ez da likidatuko 2022. urtearen amaierara arte. Adierazleentzako datuak aurkeztutako proiektuen arabera aurreikusitakoak dira.
6. Gazteak kontratatzea	Gazteak kontratatzea	6.500.000,00 €	4.983.280,00 €	- 38 toki-erakunde onuradun - 208 gazte kontratatu dira.	250 kontratutarako diru-laguntzak eman dira, baina, azkenean, 208 kontratu egin dira.
7. 177/2010 Dekretua, familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa	Kontratazioa sustatzea, enpresei laguntza emanez lana eta familia bateragarri egiteko neurrien erabilera sustatzeko	2.200.000,00 €	1.142.660,36 €	- 853 dirulaguntza eman dira (290 kontratazio berriengatik eta 563 luzapenengatik eta/edo lehendik zeuden kontratazioen lanaldi-luzapenengatik)	

<p>8. 2021eko deialdia, Enplegu Nitxo Berrien (ENB) esparruan konpetentzia profesionalei buruzko prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzak emateko, A blokea - Konpetentzia digitalak. Deialdiaren eremu horretako prestakuntza-ekintzak langabeentzat.</p>	<p>Langabeen gaikuntza eta birkualifikazioa bultzatzea, trantsizio digitalaren arloko prestakuntza-ekintzen bidez</p>	<p>3.622.325,29 €</p>	<p>3.475.330,95 €</p>	<p>791 langabek parte hartu dute enplegurako prestakuntza-ekintzetan</p>	
<p>9. 2021eko deialdia, Enplegu Nitxo Berrien (NNE) esparruan lanbide-gaitasunei buruzko prestakuntza-ekintzak egiteko diru-laguntzak emateko, C blokea - Energia arloa-Ekologikoa.</p>	<p>Langabeak gaitzea eta birkualifikatzea bultzatzea, trantsizio energetiko klimatikorako prestakuntza-ekintzen bidez</p>	<p>1.400.950,99 €</p>	<p>1.306.176,66 €</p>		<p>Ekintzak 2022an gauzatuko dira, baina prestakuntza planen lehen ordainketa 2021ean egin da.</p>
<p>10. Trantsizio energetiko-klimatikoaren eremuko lanbide-arloei lotutako prestakuntza-ekintzak kontratatze konpromisoaren deialdia.</p>	<p>Langabeen enplegarritasuna hobetzea trantsizio energetiko-klimatikoan eragina duten prestakuntza-ekintzen bidez, enpresek kontratatze konpromisoa hartuta.</p>	<p>631.961,03 €</p>	<p>631.961,03 €</p>	<p>- 287 pertsonak parte hartu dute kontratatze konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetan</p> <p>- 103 pertsona kontratatu dira kontratatze konpromisoa duten prestakuntza-ekintzen ondorioz</p>	
<p>11. 2021eko enplegu-nitxo berrien deialdia</p>	<p>Langabeen gaikuntza eta birkualifikazioa bultzatzea, trantsizio sozial eta demografikoko prestakuntza-ekintzen bidez.</p>	<p>1.226.180,74 €</p>	<p>1.143.229,61 €</p>		<p>Ekintzak 2022an gauzatuko dira, baina prestakuntza planen lehen ordainketa 2021ean egin da.</p>
<p>12. Kudeaketa-gomendioa Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoei langileen nekazaritzako, itsasoko, arrantzako eta elikagaigintzako gaikuntza langabeak 2020.</p> <p>HAZI Fundazioari enkargatzea nekazaritza-gaikuntzarako prestakuntza-programazioa, Itsaso, arrantza eta elikagai zerbitzuak, langabeentzat</p> <p>Kudeaketa agindua Hezkuntza Saileko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoei, prestakuntzarako langabeak</p> <p>Ikastetxe pribatu eta publikoetan prestakuntza emateko deialdia 2020-2023</p> <p>Ikastetxe pribatu eta publikoetan prestatzeko deialdia. 2022-2024.</p>	<p>Langabeen gaikuntza eta birkualifikazioa bultzatzea, lan-merkatuaren beharretara egokitutako enplegurako prestakuntza-ekintzen bidez.</p>	<p>39.479.346,98 €</p>	<p>39.474.370,49 €</p>	<p>20.946 langabek parte hartu dute enplegurako prestakuntza-ekintzetan</p>	
<p>13. Gomendioa HABE - Hizkuntza Lanera Programa</p>	<p>Euskararen ikaskuntza Lanbide Heziketaren bidez integratzea (LANBIDErekin hitzarmena, langabeak euskalduntzeko)</p>	<p>350.000,00 €</p>	<p>244.605,20 €</p>	<p>292 langabek parte hartu dute euskarazko prestakuntzan</p>	

<p>14. Enplegu Zentro Bereziak (EZB) eta Laneratzeko enpresak</p>	<p>Desgaitasuna duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen gaikuntza hobetzea, Enplegu Zentro Berezien eta Laneratzeko Enpresen jarduerari lagunduz, urtean lanpostuak mantenduz.</p>	<p>55.100.000,00 €</p>	<p>55.100.000,00 €</p>	<p>10.038 pertsonak parte hartu dute urtero Enplegu Zentro Berezien eta Laneratzeko Enpresen jardueretan.</p>	
<p>15. Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntetan kontratu MUGAGABEAK egiteko laguntzak</p>	<p>Desgaitasuna duten edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonak merkatu arrunteko enpresetan laneratzeko laguntza</p>	<p>700.000,00 €</p>	<p>505.320,68 €</p>	<p>139 pertsona desgaitasuna duten edo baztertzeko arriskuan daudenak, merkatu arrunteko enpresetan kontratuak</p>	
<p>16. Enplegu lagundua</p>	<p>Laguntza-jarduera integraletan parte hartzen duten bazterketa-egoeran dauden pertsonen % 10 lan-merkatuan sartzea lortzea, laguntza-prozesuen ondoren</p>	<p>1.000.000,00 €</p>	<p>500.000,00 €</p>	<p>- 77 laneratzeko justifikatuko 24 kontratu mugagabe - 2021ean lan-kontratu bat lortu duten 77 desgaitasuna duten pertsonak</p>	<p>Emandako datuak justifikatu diren datuak dira, baina berrikustea falta da bigarren ordainketa egiteko eta espedienteak itzeko. % 50eko lehen ordainketari dagokion milioi erdi euro gauzatu dira.</p>
<p>17. 30 urte edo gehiagoko luzaroko langabeak kontratatze laguntzen deialdia.</p>	<p>Luzaroko langabeen lan-merkatuan sartzen laguntzea, lan-munduan sartzen laguntzeko jarduera integralen bidez.</p>	<p>1.410.000,00 €</p>	<p>586.644,30 €</p>	<p>Luzaroko 70 langabe, > 30 urtekoak, kontratuak</p>	
<p>18. Enplegurako prestakuntzaren eskaintza: pertsona landunak 2020-2023. Enplegurako prestakuntzaren eskaintza: pertsona landunak 2022-2024. Kudeaketa agindua Hezkuntza Saileko LHko ikastetxe publikoekin, pertsona landunen prestakuntzarako 2020. Kudeaketa agindua Hezkuntza Saileko LHko ikastetxe publikoekin, nekazaritzaren, itsas arrantzaren eta elikaduraren arloko gaikuntza emateko 2020an. HAZI Fundazioari enkargatzea nekazaritza, itsas arrantza eta elikagaigintzaren arloko gaikuntzarako prestakuntza-programazioa, langile landuntzat.</p>	<p>Langileen enplegarritasuna hobetzea, enplegurako prestakuntza-ekintzetan parte hartuz.</p>	<p>18.920.323,73 €</p>	<p>18.638.801,14 €</p>	<p>51.278 langilek parte hartu dute enplegurako prestakuntza-ekintzetan</p>	
<p>19. AUKERABERRI</p>	<p>Krisian dauden sektoreak. Birkualifikazioa.</p>	<p>2.000.000,00 €</p>	<p>77.903,43 €</p>	<p>- 477 gonbidatu - 241 parte-hartzaile (182 gizon eta 59 emakume), harremanetan jarritako 158 enpresa - 173 lan-eskaintza - 254 lanpostu eskaintza horietan</p>	<p>Programa, taldea, aplikazio informatikoa, prozedurak eta prozesuak sortzea. Pertsonekin eta enpresekin ekintzak egin dira</p>
<p>20. HEZIBI</p>	<p>Hezkuntzaren arlotik lanaren arlora igarotzeko esperientzia praktikoa erraztea unibertsitateko eta lanbide-heziketako azken mailako ikasleei</p>	<p>875.583,67 €</p>	<p>862.704,95 €</p>	<p>693 ikaslek parte hartu dute</p>	

21. ERRELEBO-KONTRATUA	Sektore pribatua errelebo-kontratu bidez gazteak kontrata ditzaten sustatzea	1.000.000 €	997.080 €	116 diru-laguntza eman dira	2021eko ekitaldian 17 eskaera ukatu ziren aurrekontua agortu zelako.
22. LEHEN AUKERA	Gazteak lan-merkatuan (enpresetan) sartzeko ekintza, haien enplegarritasuna hobetuz eta haien laneratzea sendotzen lagunduz	4.000.000 €	2.060.778,37 €, 2021eko deialdikoak 1.113.896,33 €, 2020eko deialdikoak	- 395 praktikaldiko kontratu, gazteei egitekoak - 130 kontratu mugagabe	
23. ENPLEGU-ORIENTAZIOAKO DEIALDIA 2021-2023	Orientazioa erakunde laguntzaileen bidez		21-23 deialdiko 1.190.000 €	27.500 pertsona ingururi eman zaie arreta	

Iturria: LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzua. 2021-06-15eko datuak

5.1.3. Enplegurako prestakuntza, landunei lehentasunez zuzendutakoa

Indarrean dauden araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, langileei zuzendutako etengabeko prestakuntzako jarduerak Estatuko Enplegurako Prestakuntzarako Estatuko Fundazioaren (FUNDAE) eta LANBIDEn bidez kudeatzen dira EAEn, HOBETUZ Langileen Prestakuntzarako Euskal Fundazioaren likidazio-prozesua amaitu eta LANBIDEn integratu ondoren. Ekintza horien finantzaketa, nagusiki, baterako diru-bilketaren kuoten eta aurrekontu publikoetatik datozen funtsen kargura egiten da, bai Administrazio Zentraletik datozenak (EEZPri esleituak), bai Eusko Jaurlaritzatik datozenak LANBIDEn kasuan (ikus III.5.4 taulako 18. atala).

Langileen etengabeko prestakuntzarako **FUNDAEK -Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioak-** (enpresa-planetarako, sektorearteko prestakuntza-planetarako, sektoreko planetarako, gizarte-ekonomiarako eta langile autonomoentzako) sustatutako ekintzei dagokienez, 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua), EAEko 119.869 langilek 250.109 prestakuntza-ekintzatan parte hartu zuten (aurreko urtean baino % 34,5 gehiago), Prestakuntza ematen duten 14.445 enpresaren esku-hartzeari esker (2020aren aldean, % 3,8 gehiago), 28,5 milioi euro erabilita enplegurako prestakuntzarako dauden funtsetatik (+% 26,7), hobariak eman zitzaizkien Gizarte Segurantzako kuotetan. Jardueraren eta erabilitako baliabideen beherakada hori, ziurrenik, prestakuntza-jarduerak galarazi zituen urte batean gertatu zen.

Enpresa trebatzaileen estaldura-tasa % 22,1 izan zen. Aurreko urtean, berriz, % 21,1 izan zen (% 17,4 batez beste Estatuan). Partaidetza-tasa hori oso desberdina da enpresaren tamainaren arabera: % 15,7 mikroenpresetan (1-9 langilekoak), % 51,7 enpresa txikietan (10-49 langilekoak), % 84,7 ertainetan (50-249 langilekoak) eta % 89,2 enpresa handietan (250 langile baino gehiago dituztenak). Horrenbestez, oro har, azken urtetako aldeak mantendu dira. Kontuan izan behar da, gainera, mikroenpresek Euskadin erreferentziatzeko urtean (2021) Gizarte Segurantzaren izena emandako soldatapekoen % 84,5 enplegatzen dutela, hau da, enpresa prestatzaileen % 60,1.

III.5.5. TAULA. FUNDAE. ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA EAE-N: PARTAIDETZA ZIFRA NAGUSIEN BILAKAERA.

	2017	2018	2019	2020	2021	19/20 (%)	20/21 (%)	
EAE-N PRESTATUTAKO PARTAIDEAK								
IKASKETA MAILAREN ARABERA	PRESTAKUNTZA EKINTZAK, GUZTIRA	209.071	223.873	232.382	185.994	250.109	-20	34,47
	% NAHITAEZKO LEHEN ETA BIGARREN MAILAKO IKASKETARIK GABE	26	23,8	22,6	23,4	23,6	3,5	0,9
	% BIGARREN HEZKUNTZA ETA LH	41,4	42,2	45,5	42,8	32,2	-5,9	-24,8
	% UNIBERTSITATEKO IKASKETAK	32,1	34	31,9	33,8	43,2	6	27,8
JARDUERA SEKTOREAREN ARABERA	ENPRESA FORMATZAILEAK							
	GUZTIRA	17.054	16.681	15.915	13.919	14.445	-12,5	3,78
	Nekazaritza	209	117	148	114	121	-23	6,1
	Industria	2.991	2.992	2.909	2.627	2.653	-9,7	1,0
	Eraikuntza	1.751	1.844	1.760	1.554	1.809	-11,7	16,4
	Merkataritza	3.498	3.511	3.308	2.834	2.775	-14,3	-2,1
	Ostalaritza	2.308	1.988	1.896	1.583	1.817	-16,5	14,8
Beste zerbitzu batzuk*	6.297	6.229	5.894	5.207	5.270	-11,7	1,2	
PRESTAKUNTZA ORDUAK, PARTE-HARTZAILEKO (PRESTAKUNTZA BAKOITZETAKO)	16,7	15,7	15,5	14,9	13,8	-3,9	-7,4	
FINANTZIAZIOA: ERABILITAKO KREDITUA (MILIOIA €)	28,1	28,4	29,8	22,5	28,5	-24,5	26,7	

Iturria: ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN FUNDAZIOAREN datuekin egindakoa.
* Barne hartzen dira, Osasuna eta gizarte-zerbitzuak, Hezkuntza, finantza bitartekotza, higiezin jarduerak, garraioa eta komunikazioak eta gizarte eta kultura jarduerak.

Jarduera-sektoreen arabera, hauexek nabarmentzen dira: % 19,2 da merkataritza eta % 12,5 ostalaritza. Enpresa trebatzaileen % 18,4 industriaren sektorekoak dira eta % 12,5 eraikuntzakoak.

Prestakuntzako ekintzotan parte hartu zutenei dagokien, Euskadin prestakuntza jaso zuten sektore pribatuko soldatapekoen ehunekoa 10etik 2 baino gehixeago izan zen, jaitsiera txiki bat aurreko urteko ia % 30aren aldean. Gainera, prestakuntza jaso zuten 141.840 langileetatik, proportzio handiena gizonena izan zen (% 58), eta alde nabarmena dago gizonen eta emakumeen estaldura-tasen artean: % 40,7 eta % 33,6.

Gainera, prestakuntzako ekintzetan gehiago parte hartzen dute 46 eta 55 urte bitartekoak (parte-hartzaileen % 34,8), eta, ondoren, 36 eta 45 urte bitartekoak (% 31,4). Era berean, parte-hartzaile gehienak goi-mailako ikasketak dira (prestakuntza-orduen % 40), ondoren, bigarren mailako ikasketak dituztenak (% 28) eta, ondoren, lehen mailako eta bigarren mailako derrigorrezko ikasketak dituztenak (% 27,8). Hala, prestakuntzako jardueraren onuraduna den pertsona profila hauxe izango litzateke: 46 eta 55 urte artekoa, langile trebatua eta soldatapekoa, 250 langile baino gehiagoko enpresa handi batekoa.

III.5.6. TAULA. FUNDAE. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA EUSKADIN. ENPRESEK PRESTAKUNTZA HOBARITUAN DUTEN PARTAIDETZAREN BILAKAERA

	ENPRESAK PRESTAKUNTZA-EMAILEAK	ESTALDURA	PARTAIDEAK (PRESTAKUNTZA EKINTZAK)	PRESTAKUNTZA ORDUAK (MILAKA)	BATEZ BESTEKO ORDUAK PARTAIDEKO
2016	17.465	26,9	206.049	3.559	17,3
2017	17.054	25,9	209.071	3.490	16,7
2018	16.681	25,3	223.873	3.525	15,7
2019	15.915	24,1	232.382	3.611	15,5
2020	13.919	21,1	185.994	2.771	14,9
2021	14.226	22,1	238.728	3.296	13,8
19/20 (%)	-12,5	-12,4	-20	-23,3	-3,9
20/21 (%)	2,2	4,7	28,4	19,0	-7,4

Iturria: FUNDAE. Enpresetako prestakuntza 2021. Euskadi. Guk geuk egina.

III.5.7. TAULA. FUNDAE. PARTAIDETZA PRESTAKUNTZA JARDUERETAN, EAE-N, EDUKIAREN ARABERA. PARTAIDETZA HANDIENEN 10 TIPOLOGIEN XEHETASUNA. 2021.

	PARTAIDEAK		BB ORDUAK
	KOP.	BERT. %	
SEGURANTZA ETA INGURUMENA	75.152	26,5	10,5
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	64.224	22,6	11,2
SERV. GIZARTE ETA KULTURA ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	29.636	10,4	9,6
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	12.245	4,3	19,2
PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	14.999	5,3	31,2
MERKATARITZA ETA MARKETING	14.681	5,2	14
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	6.740	2,4	24,1
JANARI INDUSTRIAK	6.283	2,2	17,7
OSASUNA	3.811	1,3	14,9
FABRIKAZIO MEKANIKOA	2.650	0,9	22,7
GAINERAKOAK	53.307	18,8	-
GUZTIRA	283.728	100	13,8

Iturria: FUNDAE. Enpresetako prestakuntza 2021. Euskadi. Guk geuk egina.

Prestakuntzako edukiei dagokienez, prestakuntza-ekintzak, besteak beste, honako hauekin lotzen dira: segurtasuna eta ingurumena (parte-hartzaileen % 26,5), administrazioa eta kudeaketa (% 22,6), gizarte- eta kultura-zerbitzuak (% 10,4) eta prestakuntza osagarria (% 5,3). Segurtasunaren eta ingurumenaren prestakuntza segurtasunari eta prebentzioari eta ingurumen-kudeaketari buruzko ekintzek osatzen dute; Administrazioari eta kudeaketari buruzko prestakuntzak, berriz, Administrazioaren eta auditoriaren, Finantzen eta Aseguruaren eta IKTen Kudeaketaren eskumeneko arloetako prestakuntzako ekintzak biltzen ditu. Gizarte-kulturako zerbitzuen eta erkidegoarentzako zerbitzuen gaineko prestakuntza, azkenik, trebakuntza, hezkuntza eta gizarte arretarako eskumenetara dago bideratuta.

Azkenik, prestakuntza-modalitateak aldaketak izan zituen 2016an. Urte horretatik aurrera, prestakuntza hobariduna hiru prestakuntza-metodologiaren bidez egin daiteke: aurrez aurrekoa, teleprestakuntza eta mistoa, urrutiko prestakuntza tradizionala alde batera utzita. Hala, online irakaskuntza sustatu daiteke, teknologia berrien bilakaerarekin bat etorrita.

III.5.8. TAULA FUNDAE. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA EUSKADIN, EMATEKO MODALITATEAREN ARABERA.									
	PARTAIDEAK			PRESTAKUNTZA ORDUAK			BB IRAUPENA		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
ZUZENEKOA	186.829	119.384	161.201	2.241.948	1.404.875	1.832.979	12	11,8	11,4
TELETREBAKUNTZA	43.344	64.524	75.130	1.243.973	1.269.098	1.354.220	28,7	19,7	18,0
MISTOA	2.209	2.086	2.397	125.471	96.984	108.856	52,3	46,8	45,4
GUZTIRA	232.382	185.994	238.728	3.611.392	2.770.957	3.296.055	15,5	14,9	13,8

Iturria: FUNDAE. Enpresetako prestakuntza 2021. Euskadi. Guk geuk egina.

2021ean, aurrez aurreko prestakuntza da oraindik ere gehien erabiltzen den modalitatea, parte-hartzaileen % 67,5ek jaso baitu prestakuntzarik laburrena, 11,4 orduko iraupeneko prestakuntza-ekintzekin, batez beste. Teletrebakuntzak batez beste 18 orduko iraupena du, eta langile partaideen % 31,4 biltzen du. Azkenik, trebakuntza mistoak presentziako irakaskuntza eta teletrebakuntza uztartzen ditu, eta batez besteko iraupenik luzeeneko modalitatea bihurtu da, 45,4 ordu partaideko, baina partaideen % 1ek baino ez du aukeratu.

Azkenik, 2021ean 3,3 milioi ordu eman ziren prestakuntzan. 100etik 55,6 geletan egin ziren, 41,1, telematika bidez eta 3,3 ordu presentziako trebakuntza eta online trebakuntza uztartzen dituzten ekintza mistoei dagokie.

5.2. ENPLEGU POLITIKA PASIBOAK


Langabeziagatiko prestazioek lan egin ahal eta nahi dutenak baina aldi baterako edo behin betiko lana galdu edo lanaldiaren zati handi bat murriztuta dutenak eta, horren ondorioz, soldatak antzeko moduan murriztuta dituztenak babesten dituzte. Kotizaziopeko prestazioak (erabateko langabezia edo langabezia partziala) eta laguntzako prestazioak (langabeziagatiko subsidioa) daude. 2012ko uztailean, aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna²⁵, sustatzeko neurriei buruzko 20/2012 Errege Lege Dekretua aplikatzearen ondorioz, langabezia-prestazioen zenbatekoak murriztu ziren, eta zenbateko hauek geratu ziren:

- Kotizaziopeko prestazioen zenbatekoa langileek eta enpresariak Gizarte Segurantzari egoera horretarako ordaindutako kotizazioekin finantzatzen da, eta langabeziaren lehenengo 6 hiletan langabearen kotizazio oinarriaren % 70 da (gainerakoan % 50), langabe bakoitzaren familia egoeraren arabera zenbait muga dituela betiere.

²⁵ BOE, 168 zk., 2012ko uztailearen 14koa.

- Langabeziagatiko subsidioa familia egoeraren arabera Askotariko Efektuen Errentaren Adierazle Publikoaren (AEEAP) gaineko ehuneko jakin baten erreferentzia duen prestazio ekonomikoa da. 2022rako AEEAP 564,90 eurokoa izan da hilean, 2021ean baino % 2,5 gehiago.

III.5.2. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-PRESTAZIOEN HARTZAILEEN HILEKO BILAKAERA. (MILAKOETAN)



Iturria: Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioaren datuekin eginikoa.

5.2.1. Langabeziako estaldura eta prestazioen jasotzaileak

2022an langabeziagatiko **prestazioen onuradunak**, batez beste, 51.089 lagun izan ziren EAEn, aurreko urtean baino % 10,1 gutxiago, eta 2020 eta 2021 artean izandako jaitsierarekin jarraitu da, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak emandako batez besteko datuen arabera. Hartzaile horietatik % 54,5 emakumeak dira (-% 7,3) eta % 45,5 (-% 13) gizonak.

III.5.9. TAULA LANGABEZIA PRESTAZIOEN ONURADUNEN KOPURUAREN BILAKAERA EAE-N. URTEKO BATEZ BESTEKOAK

	ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PRESTAZIOAK			LANGABEZIA-SUBSIDIOAK			PRESTAZIOAK GUZTIRA*		
	GIZONAK	EMAKUMEA K	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA K	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEA K	GUZTIRA
2018	13.126	16.302	29.428	8.510	9.232	17.742	21.636	25.533	47.169
2019	14.043	16.901	30.944	8.913	10.420	19.333	22.956	27.321	50.277
2020	33.577	35.332	68.909	10.699	12.236	22.935	44.276	47.568	91.844
2021	15.749	17.499	33.248	9.619	11.084	20.703	26.780	30.052	56.832
2022	13.517	16.228	29.745	8.772	10.388	19.160	23.220	27.869	51.089
19/20 (%)	139,1	109,1	122,7	20,0	17,4	18,6	92,9	74,1	82,7
20/21 (%)	-53,1	-50,5	-51,8	-10,1	-9,4	-9,7	-39,5	-36,8	-38,1
21/22 (%)	-14,2	-7,3	-10,5	-8,8	-6,3	-7,5	-13,3	-7,3	-10,1

(*) Gizarteratzeko Errenta Aktiboa barne.

Iturria: EEZP, LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA.


Prestazio horiek jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren **hileko bilakaerak** hautsi egin zuen profil tradizionala 2020an, gutxi gorabehera lineala, eta gorakada bat izan zuen uztaile-abuztuko hilabeteetan, COVID-19ak eragindako krisi sakonaren ondorioz (III.5.5. grafikoa) 2021ean, prestazioen kopuruak nabarmen egin zuen behera. Hala, urtea 50.601 prestaziorekin amaitu zen (-% 20,5), eta 2022an zifra hori egonkortu egin zen, abenduan 50.474 prestaziora pixka bat jaitsita (-% 0,3), eta, beraz, pandemiaren aurreko mailetara itzuli zen.

Erregistraturiko langabezia guztiaren kopuruak kontuan izanik, esan liteke ezen, 2022ko abenduan (110.798 langabetu erregistratuta egonda), EAeko 100 langabetatik 56k ez zutela prestaziorik jasotzen (51ek 2020an), jasotzen zuten 44etatik 25ek kotizaziopeko prestazioa jasotzen zutela, 17k subsidiarioa eta 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Abenduko langabezia-prestazioak jaso zituzten 50.474 pertsonetatik, % 58,2, kotizaziopeko prestazioenak ziren (29.357 pertsona), % 37,5, laguntzenak (18.930) eta % 4,3k laneratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen (2.187).

Estatuan, hilabete horretan bertan, 1,8 milioi onuradun erregistratu ziren, 2021eko abendukoaren antzeko kopurua, eta kotizaziopeko prestazioa jasotzen zuten pertsonen ratioa % 46,5 eta % 43,5 izan zen sorospenetarako, eta % 5,3 gizarteratzeko errenta aktiborako. Gainera, % 4,7k nekazaritzako aldi baterako langileen subsidioa jasotzen zuten.

III.5.3. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-PRESTAZIOEN ONURADUNEN HILEKO BILAKAERA. 2019-2022.



Iturria: LGSMren datuekin eginikoa

Estatuan, **langabezia-prestazioen estaldura**, erregistratutako langabeziarekiko, nabarmen aldatu da erkidegoen artean. Alde batetik, nabarmendu behar da Balearren kasuan, hor, eskura ditugun datuen arabera, aurretik lan-esperezentzia duten langabe guztiek (Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren metodologiak, kalkulu hori egiteko, lan-esperezentziarik gabeko langabeak ez dituelako kontuan hartzen), prestazioen bat jasotzen dutelako. Bestalde, Melillan, langabezia dauden pertsonen % 40 baino gutxiagok jasotzen dute.

2022ko abenduko datuekin jarraituz, Estatuko batez besteko estaldura % 68,7koa zen (2021eko abenduan baino % 6,1 gehiago), eta hori baino txikiagoa da EAEkoa (lehenago hil horretan erregistraturiko langabetuen % 51,6 Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioak darabilen metodologiaren arabera). Estaldura hori 1,3 puntu handitu da azken urtean. Ohikoa denez, EAEk autonomia-erkidego guztietatik langabeziaren estaldura-tasarik txikienetako bat dauka, Ceuta eta Melilla alde batera utzita berarekin²⁶.

Sexuaren arabera, estaldura baxuagoa da emakumeentzat, bai EAEn, bai gainerako autonomia-erkidegoetan. 2022ko abenduan, langabezia-prestazioaren estaldura-tasa gure erkidegoan % 49 da emakumeen kasuan, eta % 54,9 gizonenean. Beraz, bi sexuen arteko aldea 5,9 puntukoa da. Azken urteko estalduraren igoera desberdinak (+1,2 ehuneko-puntu gizonentzat eta +1,6 emakumeentzat) diferentziala murriztu du (6,3 puntukoa zen 2021eko abenduan).

²⁶ Arrazoietako bat da langabezia-laguntzari lotzeko, behin kotizaziopeko prestazioa amaituta, bizikidetzaren unitatearen errenta kontuan hartzen dela, eta errenta hori, EAEn, laguntza lortzeko gehieneko tartearren gaineratik egoten dela askotan. Hori dela eta, langabezia dauden pertsona askok ezin dute laguntza hori eskuratu, eta sistema horretatik kanpo geratzen dira.

III.5.10. TAULA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEKO, LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOEN GASTUAREN ETA ESTALDURAREN ADIERAZLEAK. ABENDUKO HILABETEAK.


	ESTALDURA TASA*					KOTIZAZIOPEKO PRESTAZIOAREN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA, ONURADUNEKO (€/HILABETE)				
	2020	2021	2022	20-21	21-22	2020	2021	2022	20/21 (%)	21/22 (%)
ANDALUZIA	63,6	65,4	70,3	1,8	4,9	829,3	868,8	904,4	4,8	4,1
ARAGOI	57,8	66,1	73,1	8,3	7,0	848,5	896,1	916,1	5,6	2,2
ASTURIAS	59,5	54,9	59,3	-4,6	4,4	828,7	860,1	884,8	3,8	2,9
BALEAR UH.	136,8	167,2	238,9	30,4	71,7	1.030,8	1.042,8	1.120,3	1,2	7,4
KANARIAR UHARTEAK	72,5	54,7	55,4	-17,8	0,7	882,2	817,7	863,2	-7,3	5,6
KANTABRIA	63	57,7	63,8	-5,3	6,1	828,4	870,4	906,9	5,1	4,2
GAZTELA-MANTXA	57,3	57,2	63,1	-0,1	5,9	830,6	869,2	894,3	4,6	2,9
G. ETA LEON	61,8	61,8	65,6	0	3,8	818,9	861,6	886,8	5,2	2,9
KATALUNIA	62,3	67,6	74,8	5,3	7,2	889,7	924,9	963,4	4	4,2
VALENTZIAKO E.	56,2	53,9	61,8	-2,3	7,9	818,8	854	899,1	4,3	5,3
EXTREMADURA	74,2	76,8	85,4	2,6	8,6	757,2	801,4	831,2	5,8	3,7
GALIZIA	68,8	63,7	68,0	-5,1	4,3	819,6	861,2	887,4	5,1	3,0
MADRIL	56	51,9	60,3	-4,1	8,4	873,6	912,5	940,2	4,5	3,0
MURTZIA	58,6	67,4	72,6	8,8	5,2	809,2	862,8	891,6	6,6	3,3
NAFARROA	49,2	54,5	60,4	5,3	5,9	918,7	971,4	992,2	5,7	2,1
EAE	56	50,3	51,6	-5,7	1,3	904,8	939,8	953,8	3,9	1,5
ERRIOXA	53,9	47,8	66,2	-6,1	18,4	851,3	897,7	935,4	5,5	4,2
CEUTA	46,2	47,8	46,3	1,6	-1,5	850,9	898,7	929,8	5,6	3,5
MELILLA	39,5	35,8	37,3	-3,7	1,5	851,6	868,3	902,1	2,0	3,9
GUZTIRA	63,3	62,6	68,7	-0,7	6,1	864,1	896,7	929,6	3,8	3,7

Iturria: LGEMren datuekin egindakoa.

(*) Estaldura-tasak Ministerioaren metodologiaren arabera kalkulatu dira, hala nola hileko azken egunean altan zeuden prestazioen onuradunak (kotizaziopekoak gehi subsidioak), eta lan-esperientzia zuten langabeak gehi behin-behineko nekazaritza-onuradunak (Andaluzian eta Extremaduran) zatituz.

Langabeziagatiko kotizaziopeko kontribuzioaren batez bestekoak gora egin du beste urte batez EAEn, 2022ko abenduan 953,8 euro EAEn (aurreko urtean baino % 1,5 gehiago), Estatu batez bestekoaren gainetik (929,6 €, 2021eko abenduan baino % 3,7 gehiago). Hala, prestazio horren batez besteko zenbatekoa oraindik ere handiagoa da Euskadin: % 2,6 handiagoa EAEn, Estatu osoan baino. EAE aldagai honen lehen tokietan dago, Nafarroarekin, Balearrekin eta Kataluniarekin batera.

III.5.4. GRAFIKOA. LANGABEZIA-PRESTAZIOAREN ESTALDURA-TASAK SEXUAREN ARABERA, EAE-N ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOA. ABENDUAN




Iturria: EEZP. Geuk eginikoa

5.2.2. Langabeziaren babeseko gastua eta diru-sarrera

Enplegurako politika pasibo dagokienez, EAEn 2022an langabezia prestazioetarako gastua, behin-behineko datuen arabera, 700,5 milioi eurokoa izan zen, 2021ean baino % 24,2 gutxiago. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 0,82 da (% 1,18 aurreko urtean), eta Estatu osoko langabeziako gastu osoaren % 3,25. Estatuan 21.500 milioi baino gehiago da gastu


hori (2020an baino -% 23,6 gutxiago). Gastu horretatik eta jasotzaileen zifretatik, urteko 13.708 €-ko batez besteko gastua zenbatetsi da, hots, 2021ekoa baino % 15,8 gutxiago.

III.5.5. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIA-PRESTAZIOEN GASTUA ETA DIRU-SARRERA (MILIOI EUROTAN)



Iturria. EEZPren eta EUSTATen datuekin eginikoa.

III.5.6. GRAFIKOA. EAE-KO LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK: HARTZAILEEN KOPURUAREN ETA GASTUAREN BILAKAERA



Iturria. EEZPren datuekin eginikoa.

III.5.11. TAULA. EAE-KO LANGABEZIA GASTUAREN ETA EEZP-REN GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOEN ONDORIOZ DIRU-SARREREN BILAKAERA (EUROAK MILIOIKA)

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	% 20/21	% 21/22
ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PRESTAZIO GORDINAK	363,87	444,14	404,86	959,69	621,1	406,2	-35,3	-34,6
(-) Gizarte Segurantza langabetuaren kontura/	29,48	28,94	30,91	96,71	55,2	34,8	-43,0	-36,9
(-) PFEZren atxikipean	1,83	1,78	1,8	2,97	1,8	1,8	-40,1	-0,6
1- ORDAINDUTAKOAREN ARABERAKO PRESTAZIO GARBIAK	332,56	413,42	372,15	860,01	564,2	369,6	-34,4	-34,5
2- LANGABEZIAGATIKO PRESTAZIOAK	103,85	88,61	95,64	115,06	128,9	117,3	12,1	-9,0
3- EEZPren kotizazioak Gizarte Segurantzara SOZIALA	170,33	166,65	187,48	247,45	231,2	213,6	-6,6	-7,6
-EEZPren kargura, ordaindutakoaren araberako prestazioko	147,51	141,92	151,74	199,31	180,5	162,2	-9,4	-10,1
-EEZPren kargura, laguntzako prestazio bakoitzeko	22,82	20,67	35,74	48,14	50,7	51,4	5,2	1,5
(1 +2 +3) LANGABEZIAREN GASTUA GUZTIRA	606,74	668,68	655,27	1.222,52	924,2	700,5	-24,4	-24,2
ESTATUKO GASTU OSOAREN GAINEKO %	3,47	3,87	3,55	3,24	3,28	3,25	1,2	-0,8
EEZP-RENTZAT BILDUTAKO KUOTAK	1.190,36	1.239,66	1.316,05	1.269,62	1.356,06	...	6,8	...
SALDOA	583,62	570,98	660,78	47,10	431,86
DIRU SARRERA/GASTUA	1,96	1,85	2,01	1,04	1,47

Iturria: EEZPren eta GSDOren datuekin eginikoa. Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioa eta Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioa.

Bestalde, enpresek eta soldatapekoek **EEZPrako ordaindutako kotizazio sozialen ziozko sarrerak**, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak bilduak EAEn, 1.356,06 milioi eurokoak ziren 2021ean (eskuragarri dugun azken datua), hots, aurreko urtean baino % 6,8 gehiago. Hala, EAEn langabeziaren kontingentzia estaltzeko gastuen eta sarreren arteko aldeak, urte horretan, saldo positiboa izan zuen, 431,86 milioi eurokoa. Aurreko urtean, 2020an alegia, berriz, 47,1 milioi euro ziren.

5.3. DESGAITUEN ETA BAZTERTZEKO ARRISKUA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNERAKO ETA GIZARTERATZEKO ETA LANERATZEKO POLITIKAK

Jarraian, egoera sozial eta ekonomikoagatik (gizarte-bazterkeriaren egoera edo horretarako arriskua) edo desgaitasuna aitortua izateagatik lan-merkatuan berdintasun-baldintzetan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen zuzendutako enplegu-politiken zifrak aurkeztuko ditugu. Kasu honetan, helburu nagusia ordaindutako enplegu duina eta inklusiboa bermatzea da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioei buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi berean, lan-merkatu arruntean sartzeko bitarteko bat izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere enplegua pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

5.3.1. Ezinduen enplegu arrunta

Ezinduentzako enplegu babesturako laguntzez gain, betiere Enplegurako Zentro Berezien bidez, LANBIDEk ezinduen enplegua sustatzen du merkatu arruntean, bi laguntza programa mota baliatuz:

Lehenik eta behin, laneko prestatzaile adituek lanpostuan eskainitako banako laguntza ematean dautza **lagundutako enplegu programak**, eta horiei esker, zailtasun bereziak dituzten langile

ezinduek beren jarduera egin dezakete lan-merkatu arruntean. Hala, beharrezko baliabideak ematen zaizkie langileei laneratzeko prozesua errazteko, baita laneratzeko ezinduek lanean aurrera egitea eta jarraitzea ere.

2022ko aurrekontuei esleituta, 1,2 milioi euro bideratu ziren programa horretara, baina ekitaldian azkenean zenbatekoa 600.000 euro izan zen, hau da, aurrekontuan jasotakoaren % 50 eta 2021ean baino % 34,2 gutxiago. Laguntza horien bidez, desgaitasuna zuten 81 pertsona enpresa arruntetan laneratzeko lagundu zen (77 pertsona 2021ean). 47 gizonak ziren eta 34 emakumeak. Horrez gain, jada laneratzeko 200 langileren jarraipena egin zen. Hala, azken 10 urtean (2013-2022), 8 milioi euro erabili dira programa horretarako; 670 ezinduren laneratzeko erraztu da eta Beste batzuk 1.542 ezinduren jarraipena egin da.

Bigarrenik, desgaitasuna dutenen **enplegu mugagabea sustatzeko programan**, 136 ezinduren kontratazioarako diru-laguntza eman zuen 2022an, horietatik 93 (% 68,4) lanaldi osoan eta 43 lanaldi partzialean (% 31,6). Hala, 497.100 euro erabili

ziren (-% 1,6 2021aren aldean), eta horietatik % 52, 9 kontratazioetarako diru-laguntzak emateko erabili ziren Bizkaian, % 29,4 Gipuzkoako 39 kontratazioetan eta % 17,7 Arabako kontratazioetan (kontraturiko 23 ezindu).

III.5.12. TAULA. EZINDUEI LAGUNTZEKO ENPLEGU PROGRAMA EAE-N: EMAITZA NAGUSIAK.						
	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	949,0	1.000,0	736,7	898,5	913,8	600,0
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	69	78	95	64	77	81
JARRAIPENAK	148	154	156	181	197	200
<i>Iturria: LANBIDE.</i>						


III.5.13. TAULA EZINDUEN LAN MUGAGABEA SUSTATZEKO PROGRAMA EAE-N: EMAITZA NAGUSIAK.						
	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	498,2	496,0	265,1	447,6	505,3	497,1
KONTRATATUTAKO LANGILEAK	149	150	78	130	139	136
- LANALDI OSOA	101	114	55	87	98	93
- LANALDI PARTZIALA	48	36	23	43	41	43
<i>Iturria: LANBIDE.</i>						

5.3.2. Enplegurako zentro bereziak

Ezinduen eskubideei eta horien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onetsi duen azaroaren 29ko 1/2013 EDaren 37.1. artikularekin bat etorritz, hauxe da ezinduen enplegu politikaren xedea: *“Haien jarduera-tasak eta okupazio-tasak eta laneratzea handitzea, baita enpleguaren kalitatea hobetu eta haien lan-baldintzak hobetzea ere, betiere diskriminazioaren kontra aktiboki jardunda...”*

Arau horren arabera, desgaitasuna hauxe da: *“Egoera bat da, urritasun aurrez ikusteko moduan iraunkorrak dituzten pertsonen oztupoak aurkitzen dituztenean sortzen dena, oztupo horiek mugatu edo eragotzi egiten dietelarik gizartean egiaz eta erabat parte hartu ahal izatea, gainerakoen baldintza berdinekin”*. Euskadin, Administrazioaren konpromisoari eta jarduketa koordinatuari esker, gizarte-solaskideek eta desgaitasunaren elkarte eta enpresa egiturak jarduera garrantzitsuak egin dituzte araudi, programazio eta aurrekontu arloetan, desgaitasuna duten pertsonen laneratzen laguntzeko. Eta enplegu babestua, enplegu zentro berezien bidez (EZB), oinarrikoa bihurtu da, zeren eta langile ezinduei ekoizpen-lan ordaindua emateko helburu nagusia duten enpresak baitira. Izan ere, lan hori lagungarria izango da lan-merkatu arrunterako trantsizioa eta integrazioa errazteko.

III.5.7. GRAFIKOA. EAE-KO EZB-ETAN LAN EGITEN DUTEN ETA DESGAITASUNA DUTENEN BILAKAERA




Iturria: LANBIDE.

2022ko abenduan, EAEn 10.011 ezindu (horietatik % 64,3 gizonak ziren eta % 35,7 emakumeak) ari ziren lanean 84 EZBren plantilletan sartuta. Sexuaren arabera banaketa ia ez da aldatu, baina kolektibo horrek 354 pertsona gutxiago ditu (% +3,7) 2021eko abenduarekin alderatuta. Lurraldeka, Gipuzkoa da 19 EZBetan lan egiten duten desgaituen kopuru handiena duena (guztizkoaren % 47,1), gero Bizkaia (% 38,7) eta azkenik Araba (% 14,2). Eta ezintasun motaren arabera, talde horren % 51,4k ezintasun psikikoa du, % 39,2k fisikoa eta gainerako % 9ak zentzumen-ezintasuna du.

Horrez gain, araudian ezarrita dagoenez, gutxienez enpresako plantillaren % 70 ezinduekin osatuta egon behar dute EZBek. EAEn, ratio hori % 86,8koa zen 2020an (eskura daukagun azken datua, EUSTATen Gizarte Zerbitzuen Estatikaren arabera).

III.5.8. GRAFIKOA. EAE-KO EZB-AK MANTENTZEKO LAGUNTZEN BILAKAERA. MILA EUROTAN.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Inklusio Zuzendaritza.

EAEko **EZBei eusteko laguntzei** dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, orotara, 60,77 milioi euro erabili zituen horretarako 2022an (+% 10,3 2021aren aldean), eta horietatik % 35,5 Bizkaiko 48 EZBri esleitu zitzaizen, Bizkaia 19 EZBri eta funtsen gainerako % 13,5a Araban diharduten 17 zentroentzat.

Azkenik, laneratzeko zailtasun handiak dituzten ezinduentzat (buruko paralisia, buruko gaitza, ezintasun intelektuala eta % 65eko edo hortik gorako gabezia fisiko aitortua duten pertsonak) diru-laguntzak ematen ditu LANBIDEK EZBetako **lanbide-jarduera laguntzeko unitateentzat**. Lanbide arlo askotako taldeak dira, pertsona horien barrerak, oztopoak edo zailtasunak gainditzen laguntzeko, betiere gaitasun pertsonalak eta profesionalak eskuratzeko eta etengabe hobetzeko laguntza sistema osoa baliatuz.

III.5.14. TAULA. JARDUERA PROFESIONALARI LAGUNTZEKO UNITATEAK EEE, EAE-N: EMAITZA NAGUSIAK.						
	2017	2018	2019	2020	2021	2022
ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	4.200	4.523	4.200	5.000	4.807	5.308
LAGUNDUTAKO LANGILEAK	4.352	4.545	4.573	4.686	4.568	4.760
ENPLEGU ZENTRO BEREZIAK (EZB)	36	35	36	36	38	35
LAGUNTZA UNITATEAK (ADITUAK)	477	510	500	556	517	530

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Lan eta Inklusio Zuzendaritza, LANBIDEREN datuak erabiliz

LANBIDEK, 2022an, 5,3 milioi euro erabili zituen (+% 10,4, 2021aren aldean) 4.760 langile ezinduri laguntzeko (+% 4,2) EAEko 35 EZBetan, laguntza-unitateetako 530 adituren lanari) esker.

5.3.3. Laneratzeko enpresak

Laneratzeko enpresak honela defini daitezke: gizarte bazterkeriako egoera paira dezaketen edo pairatzen ari diren pertsonen gizarteratzea eta laneratzeko erraztea helburu duten enpresak dira, pertsona horiek lan-merkatu sartzeko zailtasun handiak dituztelako. Enpresa horien ezaugarri nagusia helburu sozial bikoitza da: alde batetik, enpresa osatzeko arrazoia izan den jarduera ekonomikoa burutzea; bestetik, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonak gizarteratzea eta laneratzeko. Azken urteetan, Espainiar Estatuan laneratzeko enpresei dagokienez, asko sortu dira. Alde batetik, hainbat autonomia erkidegok (horien artean EAE) figura hori arautu, aitortu eta diru-laguntza espezifikoak eman dizkiote; horrez gain, enpresa kopurua modu izugarri hazi da.

Euskadin, Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko abenduaren 23ko 14/2022 Legean xedatuta dagoenez, lanerako eskubidea ezinbesteko baldintza da herritartasun osoa eskuratu ahal izateko, eta lan-merkatuan hondar-partaidetza ez izateak, ezinbestean, bazterketa prozesua dakar, eta beste eskubide sozial batzuk erabiltzeko zuzeneko ondorioak ditu. Lana gizarteratzeko baliabidea dela onartuta, eta bizitzako oinarritzko beharrei aurre egiteko diru-baliabideak izateko aitortzen diren prestazioekin batera, hauxe ezarri da Legean: herri administrazioek neurriak bideratu behar dituztela beren ezaugarriak direla-eta lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasunak izan ditzaketen edo

dituzten pertsonak edo taldeak laneratzen laguntzako eta errazteko²⁷. Neurri horien artean, laneratze enpresak sortzeko eta eusteko laguntza bildu da, izan ere, 2002tik eman izan da laguntza hori urte hartan abenduaren 11ko Agindua onetsita, laguntza horiek araupetzen dituena.

Laguntza horien xedea laguntzarako zenbait formula ematea da enpresa mota horiei, beren berezitasunetara eta beharretara egokituta. Hartara, haientzat beren beregi sortutako diru-laguntzak arautzeko oinarriak ezarri dira. Haren esparruan, laneratze enpresak sortzeko erakunde sustatzaileentzako diru-laguntzak eta laneratze enpresei eurei, irauteko, zuzendutako diru-laguntzak aurreikusten dira.

Hala, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako sailburuaren 2009ko maiatzaren 4ko AGINDUAREN bidez, laneratze enpresak sortzeko eta horiei eusteko laguntzak arautu dira, gaur egun Lanbideren menpe daudenak.

Tresna horien bidez, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori hedatzea sustatu nahi du. Haren bidez, pertsona bat, besteren konturako langile, bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzea kontratu baten bidez bideratzen da, laneko kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarreanean, eta lehenago txertaketarako hitzarmen bat sinatetik ondorioztatzen da.

2003tik 2022ra, 160 milioi euro inguru banatu ditu Eusko Jaurlaritzak laguntza-lerro horren bidez, urtean 38 erakunde onuradun batez beste eta 5.000 laneratze-langile onuradun. 2022an 43 laneratze-enpresari eman zitzaizkien laguntzak, eta horien zenbatekoa 14,2 milioikoa izan zen. Laguntza horiek eman ziren 306 laneratze posturi eta ekoizpenari eta laneratzeari laguntzeko 131 teknikariren lanposturi laguntzeko. Hala, 2022. urtearen amaieran, laneratze-postuak, guztira, milatik gora dira (aurreko deialdikoak, berriagoak eta berrituak).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Laneratze Enpresen Erregistroan 44 laneratze-enpresa zeuden 2020aren amaieran, aktibo, **eta horietatik 41ek GIZATEA-N (Gizarteratze eta laneratze Euskadiko Enpresen Elkarte)** parte hartzen zuten. Bere 2021eko "Memoria soziala" deritzonetik datu hauek atera ditugu:

Urte horretan, 1.438 langile zeuden (2020an baino 273 gehiago), eta horietatik, 777 (+80 2020. urtearen aldean, eta guztien % 54), laneratze-langileak ziren, COVID-19aren pandemiak markatutako urtean. Horrela, aurreko urteetako bilakaera positiboa eten da.

2021ean, gutxi gorabehera 32,41 milioi euroko sarrerak dituzte (+5,1 milioi), eta horietatik 24,12 jardueraren ziozko fakturazioari dagokio eta gainerako 8,29 laguntza publikoei.


Laneratze prozesuaren emaitzari dagokionez, GIZATEA Memoriak erakusten duenez 2021ean laneratze prozesuan zeuden 777 lagunetatik 528k (% 68) laneratze prozesuan jarraitzen zuten urtearen bukaeran, 29 lagunek (% 4) prozesua utzita zuen bukatu baino lehen, 44k (% 6) laneratze kontratua bukatu zuten eta 176k (% 22) laneratze prozesua bukatu zuten. Eta 176 lagun horietatik % 60,8 lan-merkatuan sartu ziren (% 47,7 inoren konturako lanpostuetan, % 2,9 norberaren konturakoetan eta % 10,2 beste laneratze-enpresa batzuetan). Gainerako % 39,2a (69 lagun) langabezia gelditu ziren.

III.5.15. TAULA. LANERATZE ENPRESETARAKO LAGUNTZA PROGRAMAREN BILAKAERA EAE-N. 2016-2020.			
	ERAKUNDEAK	EMANDAKO LAGUNTZAK (MILAKA EUROTAN)	GIZARTERATZE LANPOSTUAK, GUZTIRA*
2016	41	8.177	546
2017	37	8.128	604
2018	35	8.887	644
2019	36	10.899	699
2020	38	7.226	637
2021	37	12.500	922
2022	43	14.200	1.228

Iturria: EUSKO JAURLARITZAKO datuekin guk geuk egina. Lan eta Enplegu Saila.
** Aurreko deialdiak, berriagoak eta berrituak.*

²⁷ Laneratze enpresen inguruko 18/2008 Legearen arauzko garapenaren xehetasuna ezagutzeko, azaroaren 11ko 182/2008 Dekretura jo daiteke. Horren bidez, laneratze enpresen kalifikazioa arautzen da. Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako kontseilariaren 2009ko maiatzaren 4ko agindura ere jo daiteke. Horren bidez, 2002ko abenduaren 11ko agindua aldatzen da.

III.5.9. GRAFIKOA. GIZATEA: LANERATZEAREN EMAITZAK. BANAKETA EHUNEKOTAN



Iturria: GIZATEA. 2021eko Memoria Soziala. Geuk eginikoa.

6. LANEKO OSASUNA

6.1. LAN ISTRIPUEN ETA GAIXOTASUN PROFESIOALEN URTEKO BILAKAERA

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2022an 34,41 **lan-istripu** izan ziren milako (lanaldian baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatu dena) gure Erkidegoan (milako 33,66 2021ean eta, beraz, ratioa 0,75 puntu handitu da).

Sektore bakoitzari dagokionez, intzidentzia handiena eraikuntzan gertatzen da (milako 71,39), eta 4,84 puntu igo da 2021. urtearekin alderatuta. Horren atzetik daude lehen sektorea, milako 62,38rekin (+1,52) eta industria, milako 62,03rekin, eta 1,67 puntu igo da 2021aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoa baino txikiagoa da, milako 24,73 (+0,34 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak kalkulatu den lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, Balear Uharteak ziren rankingeko buruan istripuetan 2022. urtean, eta ondoren Errioxa zegoen. EAEn, milako 29,47ko indizearekin, % 2,49 jaitsi da ratioa eta, beste urte batez, Estatuko batez bestekoaren gainetik eutsi dio (milako 28,52), hein batean sektorearen egitura eta, industriak pisu handiagoa baitu, sektore horretan ezbeharren tasa batez bestekoa baino handiagoa baita.

III.6.1. TAULA LANEKO ISTRIPUEN ERAGINA, JARDUERA ETA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. DATUAK KONTINGENTZIA BARNE HARTUTA DUTEN MILA PERTSONAKO 2021-2022.

	2021				
	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZU AK	GUZTIRA
ARABA	44,66	52,35	70,9	29,58	37,2
BIZKAIA	71,03	63,82	66,75	24,51	33,42
GIPUZKOA	60,44	61,46	64,42	21,7	32,23
EAE	60,86	60,36	66,55	24,39	33,66
	2022				
	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZU AK	GUZTIRA
ARABA	36,82	53,98	76,55	26,59	35,56
BIZKAIA	78,52	66,72	71,74	26,01	35,29
GIPUZKOA	60,97	61,77	68,63	21,74	32,45
EAE	62,38	62,03	71,39	24,73	34,41
	2021-2022 ALDAKUNTZA				
	LEHEN SEKTOREA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZU AK	GUZTIRA
ARABA	-7,84	1,63	5,65	-2,99	-1,64
BIZKAIA	7,49	2,90	4,99	1,50	1,87
GIPUZKOA	0,53	0,31	4,21	0,04	0,22
EAE	1,52	1,67	4,84	0,34	0,75

Iturria: OSALAN. EUSKO JAURLARITZA.

III.6.2. TAULA. AUTONOMIA ERKIDEGO BAKOITZEAN LANALDIAN BAJAN EGOTEA ERAGIN DUEN ISTRIPU KOPURUA DATUAK, MILA LANGILEKO

	2019	2020	2021	2022*	20/21 ALD. %	21/22 ALD. %*
ESTATUA, GUZTIRA	30,2	24,55	28,10	28,52	3,55	0,42
ANDALUZIA	34,05	27,68	29,50	29,69	1,82	0,19
ARAGOI	29,48	28,37	29,19	29,41	0,82	0,22
ASTURIAS	30,22	25,87	28,81	34,10	2,94	5,29
BALEAR UHARTEAK	43,49	29,17	37,86	47,15	8,69	9,29
KANARIAR UHARTEAK	28,76	20,27	23,54	26,90	3,27	3,36
KANTABRIA	28,12	25,21	28,15	42,06	2,94	13,91
GAZTELA-MANTXA	36,59	32,91	37,26	39,81	4,35	2,55
GAZTELA ETA LEON	29,76	25,44	28,28	27,61	2,84	-0,67
KATALUNIA	28,92	22,8	26,71	27,18	3,91	0,47
VALENTZIako ERK.	28,25	24,01	27,85	26,79	3,84	-1,06
EXTREMADURA	31,66	27,1	29,79	29,88	2,69	0,09
GALIZIA	31,59	25,52	29,22	25,31	3,70	-3,91
MADRIL	24,37	18,64	22,29	22,37	3,65	0,08
MURTZIA	30,73	27,71	32,00	30,80	4,29	-1,20
NAFARROA	37,66	31,45	36,86	37,18	5,41	0,32
EAE	32,53	27,28	31,96	29,47	4,68	-2,49
- ARABA	36,17	29,69	36,03	31,73	6,34	-4,30
- GIPUZKOA	29,38	25,79	29,58	27,50	3,79	-2,08
- BIZKAIA	33,44	27,5	32,23	30,05	4,73	-2,18
ERRIOXA	33,97	28,64	36,37	42,34	7,73	5,97
CEUTA	24,13	22,98	27,56	26,42	4,58	-1,14
MELILLA	26,19	20,78	26,65	29,10	5,87	2,45


Iturria: LAN ETA EKONOMIA MINISTERIOA. Lan istripuei buruzko estatistikak.

(*) Datuen aurrerapena.

Bestalde, **kontratu motaren** arabera lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zenaldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Halaxe erakusten dute 2021ekoak diren Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioako azken datuek.

Zehazki, kontratu mugagabea duten pertsonen ezbehar-tasa 30,8 izan zen mila soldatako (EPA inkestaren enplegu sailak erabiliz). Aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, berriz, 46,3 izan zen, milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2009an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea 26,5 istripuko zela 1.000 soldatapeko bakoitzeko, eta 2021ean 15,5ra gutxitu zen.

III.6.1. GRAFIKOA. EAE-KO LAN ISTRIPUAK KONTRATU MOTAREN ARABERA: ISTRIPUAK 1.000 SOLDATAPEKO



Iturria: EINen (BAI) eta Lan eta Gizarte Ekonomiaren Ministerioaren datuekin eginikoa.

Datu absolutuei helduta, 2022an 36.573 lan-istripu gertatu ziren EAEn, 2021ean baino % 4,9 gehiago (istripua izan eta baja hartu zuten langileen kopurua kontuan hartuta, lanaldian eta in itinere gertatutako istripuak barne). Bereiziz, lanaldian 32.651 istripu gertatu ziren (+% 4,5), eta 3.922 'in itinere' (+% 8,4). 2020ko datuek (ikus III.6.3 taula), COVID-19ak lan-jardueran izan zituen ondorioak kontuan hartuta, 2014-2019 aldiko goranzko joera hautsi zuten (-%18,6 jaitsi ziren lan-istripu guztiak, 2019. urtearekin alderatuta). 2022an badirudi eusten zaiola 2021ean berreskuratutako goranzko joerari, baina pandemiaren aurreko datuetara iritsi gabe

III.6.3. TAULA. LAN-OSASUNA EAE-N:
BAJA EKARRITAKO ISTRIPU BERRIEK ETA GAIXOTASUN PROFESIONALEK ERAGINDAKO LANGILEAK

	LANALDIKO ISTRIPUAK								ISTRIPUAK IN ITINERE	ISTRIPUAK, GUZTIRA	ENF. PROF.
	GUZTIRA	LARRITASUNA			SEKTOREAK						
		ARINAK	LARRIAK	HILGARRIAK	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK			
2018	30.115	29.912	169	34	641	10.524	2.998	15.952	3.857	33.972	1.512
2019	33.007	32.819	162	26	679	11.794	3.766	16.768	4.099	37.106	1.514
2020	26.958	26.768	169	21	562	9.133	3.426	13.837	3.244	30.202	1.242
2021	31.232	31.017	184	31	578	9.867	3.749	17.038	3.619	34.851	1.347
2022	32.651	32.410	216	25	573	10.253	4.093	17.732	3.922	36.573	1.360
20/21 (%)	15,9	15,9	8,9	47,6	2,8	8,0	9,4	23,1	11,6	15,4	8,5
21/22 (%)	4,5	4,5	17,4	-19,4	-0,9	3,9	9,2	4,1	8,4	4,9	0,9

Iturria: OSALAN.

Horrez gain, 2022an, 37.351 lan-istripu gertatu ziren bajarik gabe (-%2,4 2021aren aldean), eta 1.469 birgaixotze, aurretiko bajadun istripuen aldean (+% 8,7).

Lanaldian istripua izandako pertsonen erreparatzen badiegu (32.651, arestian esan dugunez), % 75 gizonak izan ziren, eta % 25 emakumeak, aurreko urteen antzera. Gainera, Larritasunaren arabera, azken urtean gora egin dute gorabehera arin eta larriek (+% 4,5 eta +% 17,4, hurrenez hurren) eta behera egin dute istripu hilgarriek (% 19,4). Bestalde,

sektorekako azterketak erakusten du istripu kopurua bereziki hazi dela eraikuntzan (+% 9,2) eta, neurri txikiagoan, zerbitzuetan (+% 4,1), eta industrian (+% 3,9). Nekazaritzan, berriz, % 0,9 besterik ez.

Azkenik, 2022an aitortutako lanbide-gaixotasunak 2.830 izan ziren, 2021ean baino % 4,8 gehiago. 1.360 baja eragin dute (+% 0,9, 2021. urtearekin alderatuta) eta 1.469, baja eragin gabe (+% 8,6). Horietatik, % 37,7 emakumeei dagokie, eta % 62,3 gizonei. Gaixotasun profesionalen tipologiari dagokionez, % 89,5 agente fisikoek sortzen dituzte, eta, ondoren, larruzalak (%4,1), agente kimikoek eta inhalazioek (% 2,5 eta % 2,4, hurrenez hurren); eta, azkenik, agente infekziosoek eta agente kantzerigenoek (% 1,3 eta % 0,2). Azken urteetako bilakaeraren azterketan jakinarazpen sisteman egindako aldaketak barne hartu dira, beraz, zifrak zuhertasunez hartu behar dira.

ENPLEGUA ETA LAN HARREMANAK EAEN: ITURRIAK

1. **LAN HARREMANEN KONTSEILUA (2023):** Euskadiko gizarte-laneko egoera. 2022ko aurrerapena.
2. **EUROSTAT (2023):** Lan indarrari buruzko inkesta (LII) 2022ko laugarren hiruhilekoa (2023/05/02ko datuak)
3. **EUSTAT. BJA (2023):** IV-2022 datuak (2022ko maiatzaren 4an berrikusitako datuak). Datu bankua.
4. **ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZAREN FUNDAZIOA (FUNDAE)(2022):** Trebakuntza enpresetan. EAeko emaitzen txostena 2021.
5. **GIZARTEA. EAeko Laneratze-enpresen Elkartea (2022):** Memoria SOZIALA 2021
6. **EUSKO JAURLARITZA. OGASUN ETA EKONOMIA SAILA (2023):** Aurrekontuko likidazioa LANBIDE 2022
7. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA ENPLEGU SAILA (2023):** EEE datuak. 2022ko abendua
8. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA ENPLEGU SAILA (2023):** 2022ko lan-gatazkei buruzko datuak
9. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA ENPLEGU SAILA (2022):** 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa
10. **EUSKO JAURLARITZA. LAN ETA ENPLEGU SAILA (2023):** 2021-2024ko Enplegu Plan Estrategikoa. Jarraipen txostena 2021
11. **EIN (2022):** Lan-kostuei buruzko urteko inkesta. 2021
12. **EIN (2022):** Soldaten egiturari buruzko inkesta. 2020
13. **EIN (2022):** Lanaren prezioen indizea, 2020.
14. **EIN (2023):** Biztanleria Aktiboari buruzko Inkesta (BAI) IV-2022
15. **EIN (2023):** Lan-kostuen Hiruhileko Inkesta. IV-2022. urtea
16. **LANBIDE (2023):** Kontratuen estatistika. 2022ko abendua
17. **LANBIDE/SEPE (2023):** Erregistraturiko langabezia. 2022ko abendua
18. **INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA. GIZARTE SEGURANTZA (2023):** Afiliazioa altan. 2022ko abendua
19. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA (2023):** Lan istripuei buruzko estatistikak. 2022ko datuak
20. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA (2023):** Enplegua erregulazioko estatistikak. 2022ko datuak
21. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA (2023):** LAN-ESTATISTIKAK. 2022ko abendua
22. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAK MINISTERIOA (2023):** Erregistraturiko langabeziari buruzko hileko txostena. 2022ko abendua
23. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. EEZP (2023):** Langabezia prestazioen jasotzaileen datuak, mota eta sexuaren arabera. 2022ko batezbestekoak.
24. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. EEZP (2023):** Kontratuen estatistika. 2022ko abendua
25. **OSALAN (2023):** Lan istripuei buruzko estatistikak. 2022ko abendua
26. **32/2021 REAL Dekretua**, abenduaren 28koa, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presako neurriei buruzkoa. Estatuko Aldizkari Ofiziala, 313 zk., 2022ko abenduaren 30ekoa.

7. ENPLEGUA ETA LAN HARREMANAK EAEN: LABURPENA ETA ONDORIOAK

7.1. LABURPENA

Kapitulu honetan, EAEko enpleguaren (okupazioa, langabezia, lan-merkatuko sarrerak eta irteerak, soldatak, lan-osasuna, politika aktiboak eta pasiboak...) eta lan-harremanen urteko bilakaeraren laburpena egingo dugu, lan-merkatuari buruzko beste aldagai interesgarri batzuekin batera. Oro har, 2022an finkatu egin da 2021ean hasitako enpleguaren susperraldi garrantzitsua, aztertutako aldagai gehienetan, COVID-19ak 2020an eragin izugarria izan ondoren.

Lehenik eta behin, *EUSTATen Biztanleria Jardueraren arabera Sailkatzeko Inkestak* (BJA) erakusten du **EAEko biztanleria aktiboa** 1.052.700 pertsonakoa dela 2022. urtearen amaieran. Horietatik % 51,9 gizonak dira (545.700) eta % 48,1 emakumeak (507.000). 2020an, biztanleria aktiboaren galera 4.600 pertsonakoa izan zen (-% 0,4), eta 2021ean 2.900 pertsona aktibo gehiago izan ziren (+% 0,3), berrikusitako datuen arabera. 2022an, biztanleria aktiboa ia ez da hazi, % 0,1 igo baita 2021arekin alderatuta (+700 pertsona). Sexuaren arabera, azken urteko bilakaera ezberdina izan da: emakume aktiboak % 0,3 gehitu dira (+1.300). Gizon aktiboak, berriz, % 0,1 gutxitu dira, hau da, -600 pertsona. EAEko jarduerata tasa orokorra % 56,4koa da 2022aren amaieran (2021ean baino hamarren bat gutxiago); emakumeena % 52,2koa da, eta gizonena % 60,9koa.

Bestalde, **2021eko abendutik 2022ko abendura** (IV. hiru hilabetea), **enplegua** % 1,6 igo da Euskadin (+15.100 lanpostu),. Aurreko urtean, berriz, % 1,8 hazi zen (berrikusitako datuak), eta emakume landunen kopurua 6.900 hazi da (guztizko hazkundearen % 45, 2021ean % 28,7), eta gizonena, berriz, 8.300 (% 55). Estatuaren testuinguruan, okupazioa % 1,4 hazi da batez beste (EINen BAI) (+% 4,3 2021ean). Autonomia erkidego gehienek 2022an eutsi egin diete 2021ean suspertu ziren saldo positiboak, 2020an enpleguak beherakada handia izan ondoren.

Sektoreen arabera, Euskadin azken urteko okupazioaren hazkundera zerbitzuetan gertatu da batez ere, zeren eta 15.700 enplegu irabazi baitituzte (+%2,3), okupazioaren guztizko irabazia baino gehiago (+% 15.100). Bestalde, lehen sektorean 1.400 langile gehiago daude, % 17,7 igota. Industriari 800 lanpostu galdu zituen 2021ean (-% 0,4), eta 5.600 gehiago galdu zituen 2022an, -% 2,8ko tasarekin, gizonen enpleguaren datu positiboaren (+%1,7) eta emakumeen enpleguaren datu negatiboaren (-% 17,8) agregatu gisa, baina kontuan hartu behar da, 2022an ere, industriako enpleguaren % 80,4 maskulinoa zela. Eraikuntzaren sektorean 3.600 langile gehiago daude, % 6,5eko tasarekin (2021ean baino 5,8 puntu gutxiago).

2022an kontuan hartu beharreko EAEko lan-merkatuaren beste alderdi batzuk hauexek dira: 2021ean ez bezala, lanaldi partzialean lan egiten duten pertsonen ehunekoa 1,4 puntu jaitsi da, % 15,3raino, eta behin-behinekotasuna ere bai, 5,7 puntu jaitsi baita, soldatapekoen % 25,3tik % 19,6ra, sektore pribatuan (-9,7 puntu) nahiz publikoan (-0,7). Gainera, EAEn, nabarmen handiagoa da behin-behinekotasunaren tasa sektore publikoan sektore pribatuan baino, eta alde horri eusten zaio, zenbait gorabeherarekin, azken hamarkadan baino denbora luzeagoan. 2022ko laugarren hiruhilekoan, aldi baterako kontratuen tasa % 43,9koa izan zen EAEn sektore publikoan, eta % 13,5koa sektore pribatuan.

Bestalde, Euskadin **Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten pertsonen** (altan dauden afiliatuak) batez besteko kopurua 994.077 da 2022ko abenduan. Horietatik % 48,2 emakumeak dira eta % 51,8 gizonak. Kopuru hori % 1,4 igo da aurreko urteko hilabete beraren aldean (+% 2,4 Estatuan), eta 14.055 afiliatu gehiago daude alta emanda. Hortaz, 2022aren amaieran, Euskadin afiliazioa 2008ko uztaileko gehieneko historikoaren ginetik dago (982.935).

Jarduera-sektore handien arabera, lehen sektoreak % 0,9 egin du behera, eta pixka bat jaitsi du altan dagoen afiliazio osoaren gaineko pisua (% 1,1 eta % 1,2, hurrenez hurren, 2021ean). Bestalde, industria % 1,1 hazi da, batez bestekoaren azpitik (+% 1,4), eta afiliazioaren gaineko pisuaren % 18,2ari eusten dio. Eraikuntza batez bestekoaren azpitik hazi da, % 1,8, eta afiliazioaren % 5,9 dauka (hamarren bat gehiago). Azkenik, zerbitzuen sektoreak ere portaera hobea du batez bestekoa baino, % 1,5 hazi baita, nahiz eta altan dagoen afiliazioaren % 74,8ko pisuari eusten dion.

Ekoizpen-adarren arabera, afiliazio gehienak handitu egin dira 2021eko abenduaren aldean, salbuespen batzuekin: erauzketaren industriak (-% 3,3), ur-hornidura eta hondakinen kudeaketa (-% 1), merkataritza eta konponketa (-% 0,7), finantza-jarduerak (-% 0,7) eta lehen sektorea (-% 0,9). Nabarmentzekoak dira Jarduera artistikoak, aisialdikoak eta entretenimendukoak (+1.046 afiliazio altan, +% 5,9), Informazioa eta komunikazioak (+1.176 afiliazio, % 4,8), Garraioa eta biltegiatzea (+1.458 afiliazio altan, +% 3,4) eta Ostalaritza (+1.781 afiliazio, +% 2,7) gehikuntzak, guztiak ere % 1,4ko hazkunde orokorraren gainetik.

...

EAEko lan-merkatuaren 2022ko bilakaeraren ondorioz, BJAren **langabezia-tasa orokorra** % 8,5era iritsi da urtearen amaieran (IV. hiruhilekoa) (aurreko urtean baino 1,4 puntu gutxiago), eta Europar Batasuneko batez bestekoa gainditu du (% 6,1 EBn, % 6,7 eurogunean). Europar Batasunean, langabeziak hartzen duen balio-sorta oso zabala da: Greziakoa eta Espainiakoa kopuru handiak batetik (% 11,8 eta % 12,9, hurrenez hurren) eta, bestetik, % 3-4 inguruko ratioak Txekiar Errepublikan, Polonian eta Maltan. Lituaniak, Eslovakiak eta Portugalek Europar Batasuneko batez bestekotik hurbilen dauden langabezia-tasak dituzte (% 6,1 laugarren hiruhilekoan); Estatu Batuek 2022an % 3,5eko langabezia-tasa izan zuten, eta Japoniak % 2,5ekoa, erreferentziazko beste herrialde batzuk aipatzearen.

2020an, sei urtez behera egin ondoren, langabeen kopurua % 16,8 igo zen Euskadin. 2021ean % 11,5 murriztu da (berrikusitako datuak) eta 2022an joera horrek jarraitu egiten du, % 13,8 jaitsi baita. Hortaz, zenbatespenen arabera, urtea 89.800 langabetuekin amaitu zen (-14.400 pertsona, horietatik % 61,8 gizonak eta % 37,5 emakumeak). Adinaren arabera, langabeen kopurua bereziki murriztu da tarteko taldean (25 urtetik 44ra) (-% 19, hau da, -9.600), % 10,5 45 urtetik gorakoetan (-4.400) eta, neurri txikiagoan bada ere, 25 urtetik beherakoetan (-% 3,5, -400 pertsona). Ondorioz, gazteen langabezia-tasa % 19,6ra jaitsi da (-1,4 puntu).

Era berean, 2022. urtearen amaieran, **LANBIDE-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak erregistratutako langabezia** BJAk zenbatetsitakoen antzekoa da. Abenduan 110.798 langabe erregistratu dira, 2021ean baino 4.047 gutxiago (-% 3,5, eta Estatuan -% 8,6 non 2,84 milioi pertsona baino gehiago baitaude langabezian). BJAk, berriz, 89.800 langabe kalkulatu ditu urteko laugarren hiruhilekoan, ikusi dugunez. Horrenbestez, 2019ko abenduan baino 3.364 langabe gutxiago erregistratu dira.

Langabeziak behera egin du bi sexuetan, eta gehiago gizonen artean (-% 6,6) emakumeen artean baino (-% 1,0). Bilakaera horren ondorioz, langabeen % 56,8 emakumeak dira (2021ean baino 1,4 puntu gehiago). Adinaren arabera, erregistratutako langabeziak behera egin du adin-talde guztietan. Bereziki jaitsi da 25 urtetik beherakoaren artean (-% 6,8, -% 5 gizonentzat eta -% 8,7 emakumeentzat) eta tarteko adin-taldean (-% 6,7, -% 10,9 gizonentzat eta -% 3,4 emakumeentzat). 45 urtetik gorakoaren taldean ere jaitsi da langabezia, baina gainerako taldeetan baino gutxiago, % 0,7, eta ez bi sexuetan: gizonena % 3,8 jaitsi da, eta emakumeena % 1,8 igo.

Ikasketa-mailaren arabera, erregistratutako langabezia ia maila guztietan murriztu da 2021eko abenduarekin alderatuta, bigarren eta hirugarren zikloko bigarren eta hirugarren zikloen arteko ikasketen kasuan izan ezik, % 0,6 igo baita. Beherakadarik handienak, batez bestekoaren gainetik, ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen artean gertatzen dira (-% 7,4), bigarren mailako hezkuntza orokorra dutenen ondoren (-% 4,6). Lehen mailako ikasketa osoak dituzten pertsonen kasuan ere (-% 3,6) eta bigarren mailako ikasketen ondoko lehen zikloko ikasketak dituztenen kasuan (-% 2,8) behera egin du, baina azken kasu horretan batez bestekoaren azpitik. Aurten ere, 10 langabetatik ia 7k (% 68,4) kualifikazio txikia dutela esan daiteke (lehen edo bigarren mailako hezkuntza orokorreko

ikasketak dituztenak). Informazio hori ez badaukagu ere, interesgarria litzateke ikasketa-mailaren arabera erregistratutako langabezia zifrak langabezia emandako denboraren zifrekin gurutzatuta ezagutzea.

Langabezia daramaten denbora kontuan hartzen badugu, 2022an murriztu egin da 6 hilabete baino gutxiago daramaten pertsonen kopurua (-% 1,9), baina emakumeen kasuan gora egin du (-% 6,4 gizonak, +% 2,6 emakumeak). 6 hilabetetik urtebetara langabezia daramaten pertsonen kopuruak gora egin du, bereziki emakumeen kasuan (10,3). Iraupen luzeko langabezia, urtebetetik gorakoa dena, jaitsi egin da bi sexueta (-% 7 guztira, - % 8,8 gizonetan eta - % 5,8 emakumeetan). Ondorioz, luzaroko langabezia ehunekoa guztizkoaren aldean 1,8 puntu jaitsi da 2022ko abenduan, % 48,1eraino (-7,5 puntu Estatu osoan, % 42,6ra iritsita). Ratio hori % 43,4 da gizonen artean (-1,1 puntu) eta % 51,7 emakumeen artean (-2,6 puntu).

...

2022an, **lan-erreforma berria** sartu da Espainian. 32/2021 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko presako neurri buruzkoa, 2021eko abenduaren 31n jarri zen indarrean, nahiz eta lan-kontratazio arau berriak 2022ko martxoaren 30era arte ez ziren indarrean jarri. Espainiako Gobernuaren Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren 23. osagaiarekin («*Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak*») zuzenean lotzen da arau hori, eta CCOO eta UGT sindikatuen eta CEOE eta CEPYME enpresa-erakundeen arteko elkarrizketa sozialaren esparruan lortutako akordioaren emaitza da.

Helburu nagusia Espainiako lan-merkatuaren egiturazko erreformari ekitea da, aldi baterako kontratuen tasa altuak murrizteko eta, hala, behin-behinekotasun horren ondoriozko enpleguaren prekarietateari aurre egiteko. Funtsezko helburu horrekin batera, erreformaren beste helburu garrantzitsu batzuk ere lortu nahi dira, hala nola lanaldia murrizteko eta eteteko neurriak bultzatzea, ABEEE direlakoak, lan-kontratuak azkentzearen ordezkia den aldetik, langileen prestakuntza indartzea eta negoziazio kolektiboa modernizatzea.

Kontratazioak nabarmen egin zuen behera Euskadin 2020an (-% 30,2), COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta eten egin zuen 2014-2019 aldiko bilakaera positiboa. 2021ean susperraldi handia izan zen, kontratuak nabarmen hazi baitziren (+% 22,5). 2022an, kontratazioa % 5,3 jaitsi da 2021arekin alderatuta (-% 5,7 Estatu osoan), eta aldaketa handiak gertatu dira osieran.

Jarduera-atalen arabera, ia guztiek bilakaera negatiboa izan dute, bereziki Garraioa eta biltegiatzea (-% 20,1) eta Informazioa eta komunikazioak (-% 15,6). Hala ere, ikusten da igoera nabarmena izan dela energia elektrikoaren, gasaren eta lurrunaren horniduran egindako kontratazioetan (+% 40,5). 2021eko joera berarekin jarraituz, ostalaritzan eta arte, jolas eta entretenimenduko jardueretan egindako kontratazioak % 17,5 eta % 22,5 hazi dira (kontratuen % 13,4 eta % 4,9 dira, hurrenez hurren). Manufaktura-industria kontratuen % 14 da, eta % 12,8 jaitsi da. Aurreko urteetan bezala, sexuaren arabera aldeak ageri dira. Izan ere, manufaktura-industriak gizonen sinatutako kontratuen % 21,2 hartzen du (2021ean baino 1,4 puntu gutxiago), eta emakumeen artean, berriz, pisu handiena duten jardueren Osasun-jarduerak eta gizarte-zerbitzuen jarduerak eta Ostalaritza dira (bien artean, emakumeek sinatutako kontratuen % 36,1).

2022an kontratatutako pertsonen dagokienez, guztira 304.208 kontratatu dira (2021arekin alderatuta, + 6,9), erregistratutako kontratuen kopurua baino zifra txikiagoa, 815.719 (-% 5,3), SEPEk emandako datuen arabera. Adin-taldearen arabera, pertsona horietako gehienak, gizonak zein emakumeak, 35 eta 54 urte bitartekoak dira (% 41,2), 35 eta 44 urte bitartekoak (guztizkoaren % 22,2) eta 45 eta 54 urte bitartekoak (% 19). 25 eta 34 urte bitartekoek ere kontratu bat sinatu dute (% 26,8). 25 urtetik beherakoek, berriz, % 22,6 osatzen dute, 2021eko % 20,7 baino ratio handiagoa, eta biztanleria aktiboan duten pisua baino askoz handiagoa (% 5,4, 2022ko azken hiruhilekoko datua). 2021arekiko bilakaerari dagokionez, portaera nahiko antzekoa da bi sexueta, eta gehien hazten diren adin-taldeak (guztiak dituzte bilakaera

positiboak) 25 urtetik beherakoak (+% 16,2) eta 54 urtetik gorakoak (+% 8,1) dira, ondoren 25-29 urtekoak (+% 4,9) eta 45-54 urtekoak (+% 4) daude. 30-34 urteko eta 35-44 urteko taldeak gutxiago hazi dira (+% 3,0 eta +% 2,1, hurrenez hurren).

Kontratatutako pertsonen banaketari dagokionez, ikasketa mailaren arabera, % 42,9k derrigorrezko edo beheragoko ikasketak ditu, proportzio handiagoa gizonen artean (kontratatutakoen % 45,8) eta pixka bat txikiagoa emakumeen artean (% 39,6). Bestalde, kontratuen % 21,3, Batxilergoa duten pertsonen dagokie. Ondoren, % 15,5 ikasketa profesionalak dituzten pertsonen dagokie (antzeko proportzioa bi sexuetan) eta % 19,4 unibertsitate-ikasketak dituztenei. 2021. urtearekin alderatuta, ikasketa-maila guztiek gora egin dute, antzeko proportzioetan; gehien egin dutenak Batxilergoa eta derrigorrezko edo beheragoko ikasketak izan dira (+% 9,1 eta +% 6,8, hurrenez hurren), eta lanbide heziketa dutenen taldea izan da gutxien igo dena (+% 1,9).

Lanaldi motari dagokionez, bilakaera negatiboa izan dute lanaldi partzialeko kontratuak (-% 11,5) eta lanaldi osokoak (-% 7,6), eta igoera nabarmena izan dute lanaldi finko eteneko kontratuak (% 695,4 igo dira 2021. urtearekin alderatuta). Erregistratutako kontratuen % 4,5 dira kontratu horiek, 2021. urtean baino 4 puntu gehiago. Sexuaren arabera, lanaldi partzialeko kontratazioaren pisua oso desberdina da, emakumeek sinatutako kontratuen ia erdia baita (% 48,2 2022an, aurreko urtean baino 4,1 puntu gutxiago), gizonen sinatutako kontratuen % 25,5aren aldean (-1,4 puntu 2021arekin alderatuta). Hala, bada, 2022. urtean emakumeek sinatu zituzten lanaldi partzialeko kontratuen % 65,6 (% 65,4 2021. urtean).

Iraupenari dagokionez, sinatutako kontratu gehienak aldi baterakoak dira oraindik (guztizkoaren % 75,5), 615.724, nahiz eta datu hori 2021ean baino % 21,2 txikiagoa den. Aitzitik, 2022an, kontratu mugagabeek nabarmen egin dute gora: 199.995 sinatu dira, 2021ean baino % 148,3 gehiago, eta erregistratutako kontratuen % 24,5 dira.

Gainera, aldi baterako kontratazioak pisu handia duenez gero, kontratatutako pertsona asko urtean behin baino gehiagotan kontratatzen dira. Hala, arestian esan bezala, 2022an kontratatutako pertsonen kopurua (304.208) erregistratutako kontratuen guztizkoa (815.719) baino askoz txikiagoa da. Zifra horiek kontuan hartuz, laneko txandakatze-indizea kalkulatu da (sinatutako kontratu kopuruaren eta kontratatutako pertsona kopuruaren arteko zatidura), emakumeentzat handiagoa izan dena aztertutako sail guztian. 2022an, kontratatutako pertsonen kopuruak gora egin badu ere (% 6,9), kontratu kopuruak behera egin du (-% 5,3), eta, beraz, lan-txandakatzea 2,68 kontratukoa izan da kontratatutako pertsona bakoitzeko (-35 ehuneneko 2021. urtearen aldean). Emakumeen kasuan, datua 2,81 kontratukoa da (-31 ehunen) eta gizonena 2,57 (-38 ehunen). Aldi baterako kontratuen batez besteko iraupena, berriz, 43 egunekoa da 2022an (2021ean baino 5 egun gutxiago), eta Estatu osoan baino 5 egun gutxiago.

...

Kaleratzei eta enplegu-erregulazioko espedientei dagokienez, 2020an (eta neurri txikiagoan 2021ean) ABEEek izan zuten erabateko nagusitasuna, eteteko eta murrizteko enplegu-erregulazioko espedienteek. Enpresek metaka eskuratu dute neurri hori eta, horri esker, pandemiak eragindako egungo koiunturazko egoerak enpleguan eragin negatiboa izatea saihestu ahal izan da, enpleguari eustea kontratuak azkentzearen gaineratik lehenetsita.

Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak EAEn erregistratutako enplegu-erregulazioko espedientei buruzko estatistikak argitaratu ditu, eta 565 espediente zenbatu ditu 2022an (1.858 espediente 2021ean); 19.772 langileri eragin die (-% 39,6), horietatik % 78 gizonak. Espediente motaren arabera, eragindako langileen % 91,4 aldi baterako etenaldiko espedienteek eragin dute (-% 36,5 2021arekin alderatuta), % 6,4 lanaldi-murrizketak (-% 62) eta gainerako % 2,2 kontratu-amaierako enplegu-erregulazioko espedienteek (-% 52,2). Azken horiek, azkentze edo kaleratze kolektiboko EEE-ek, beraz, 437 langileri eragiten diete. Ondorioz, ABEEek 19.335 langileri eragingo liekete 2022an, EEEak eragindako kolektibo ia osoa (% 97,8), 2021eko 31.809en aldean (-% 39,2).

...

Lan Harremanen Kontseiluaren (LHK) 2022ko behin-behineko datuen arabera, urtea indarreko hitzarmena zuten langileen % 27,2rekin hasi zen; % 44,3k, berriz, luzatutako hitzarmen bat zuten berritzeke, eta % 9,8k bertan behera zuten bere hitzarmena. **Negoiazio kolektiboaren** estaldurak, beraz, langileen % 90,2 hartzen zuen (aurreko urteko ehuneko bera).

Negoiazteko jarduerari dagokionez, 2022an 293 hitzarmen erregistratu ziren Euskadin, 2021ean baino % 13,6 gehiago, eta horrek berekin ekarri du 116.296 pertsonarentzako laneko baldintzak berritzea (langileen % 18,9). EAEn eremuan, akordio gehiago erregistratu ziren (203 hitzarmen, sektoreko 21 eta enpresako 182) EAEn eragina izan zuten estatukoan baino (90 hitzarmen erregistratu ziren), eta aldi berean, lehenengoek langile gehiago hartu zituzten (80.144 pertsona; estatu mailako hitzarmenetan, berriz, 36.152).

Horrenbestez, negoziazio kolektiboaren egoera, urtea amaitzean, hauxe da: langileen % 45,4k indarrean zuten hitzarmen bat (% 18,9, urtean erregistratutako hitzarmenekin, eta % 26,5, aurreko urteetan); % 47,3k luzatuta zeukan berritzeko eta gainerako % 7,2ak hitzarmena indargabetuta zuten (beraz, egiteko zeuden hitzarmenen % 54,5). Ondorioz, 2022. urtean negoziazio kolektiboaren estaldura % 92,8koa izan zen (2021ean baino +2,6 puntu gehiago).

Lortutako akordioen edukiei dagokionez, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan 2022rako itundutako batez besteko soldaten igoera % 4,08 da (% 2,87 Estatu osoan). Lanaldiaren urteko batez besteko murrizketa, ostera, 0,75 ordukoa da (-0,62 ordu 2021ean), hau da, urteko batez besteko lanaldi itundua 1.687 ordukoa da. Lana eta familia bateragarri egiteko neurriak dagokionez, LHKren txostenak nabarmentzen du indarreko hitzarmenen % 48,7k soilik hartzen dituela barnean 2021ean horrelako neurriak (% 47,2 2020an), horietako gehienek edoskitzeko eskubidea metatzeko aukerarekin lotuta, baita indarreko legerian ezarritakoa hobetzen duten ordaindutako baimen batzuk ere.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak **lan-gatazkei** buruz emandako datuek erakusten dute 2022an eutsi egin zaiola 2021eko goranzko joerari lan-gatazkei dagokionez: EAEn, aurtan, 342 greba erregistratu dira. Horietan, 106.998 parte-hartzaile izan dira, eta, guztira, 384.459 lanegun sortu dira. Kopuruok 2021. urtearekin alderatuta, % 37,1eko igoera ekarri dute greben kopuruan eta % 173,1ekoa lan egin gabeko lanaldietan. Nabarmen, greba horietan parte hartu duten langileak % 620,6 igo dira 2021. urtearekin alderatuta.

Bestalde, EINen Lan Kostuen Hiruhileroko Inkestako zifren arabera, 2022an (urteko batez bestekoak), enpresen eta langileen artean **itundutako hileko ordu** kopurua 147,8 izan zen, 2021ean baino % 0,9 gehiago. Ordu horietatik, 122,6 (+% 1,7), % 82,9, benetan lan egindako orduak izan ziren; ratioa 2,1 puntu igo da azken urtean. Era berean, 2022an lan egin gabeko orduak 25,7 dira langile eta hilabete bakoitzeko, 2021ean baino % 11,2 gutxiago benetan lan egindako ordu bakoitzeko.

Zifra horiei zuzenean lotuta, gogoratuko dugu 2020an lan-merkatuan pandemiaren ondorioz izandako gertakarietako bat, enpleguaren jaitsieraz gain, **telelanaren** zabalkundea izan dela, baina une honetan ez dakigu zein neurritan bizkortu den berau betiko ezartzea.

Estatistikako Institutu Nazionalaren Biztanleria Aktiboaren Inkestaren arabera, 2022an EAeko pertsona landunen % 9,1ek telelana egin zuten (% 3,4k noizean behin eta % 5,7k egunen erdia baino gehiago), hau da, ehuneko 0,2 puntuko beherakada 2021eko datuen aldean. Gainera, zifra horiek erakusten dute behera egin duela telelana noizean behin egiten duen biztanleriak (1,1 puntu jaitsi da), eta gora ohiko telelanak (+0,9). Estatuan, era berean, telelanaren erabilera orokorra murriztu egin da aurreko urtearekin alderatuta: % 10,5 (-4,8 puntu), eta noizbehinkako telelana (-1,2) eta ohikoa (-3,6) jaitsi egin dira. Hala eta guztiz ere, estatu mailan telelanak izan duen beherakada kontuan hartuta, gure erkidegoan telelana egiten duten biztanleen ehuneko txikiagoa da. Dena dela, alde horien interpretazio zuzena egiteko, zenbait aldagai aztertu behar lirakeke, hala nola egitura produktiboa, eta gainera kontuan hartu Estatuko batez bestekoak era askotako errealitateak eta datuak jasotzen dituela.

...

Soldatei dagokienez, EINen Soldaten Egituraren Urteko Inkestaren arabera, langile bakoitzeko urteko batez besteko irabazia 2020an (azken datua) EAEn 30.224 € zen, hots, % 2,5eko igoera aurreko urtearekiko. Kopuru hori Estatuko batez bestekoa baino % 20,1 handiagoa da denboraldi berean, eta autonomia erkidegoen zerrendako lehenengoa da. Ondoren Madril eta Nafarroa datoz. Sexuen araberako soldaten aldeari dagokionez, emakumeen batez besteko soldata txikiagoa zen gizonezkoena bainoa autonomia erkidego guztietan 2020an. Hala ere, aldea desberdina da batzuen eta besteen artean. Enpleguak eta okupazioak erkidego bakoitzean duten egitura desberdina funtsezko faktorea da aldakortasun hori azaltzeko. Batez beste, emakumeen soldata gizonen soldataren % 77 zen, eta beraz, arrakala % 23koa da (3,5 puntu aurreko urtearen aldean).

Eta, lanaldi desberdinak dituzten langileak berdintasunean ikasi ahal izateko beharrezkoa den lan-orduko irabazia kontuan hartuta, irabazia, 2020. urtean, 19,94 eurokoa izan zen gure erkidegoan, 2019. urtean baino % 2,15 handiagoa. Orduko irabazia, urteko batez bestekoa bezala, autonomia erkidego guztietako handiena da (eta Estatuko batez bestekoa (16,15 euro orduko) baino % 23,5 handiagoa). Sexuaren arabera, EAeko emakumeen orduko batez besteko irabazia 18,99 eurokoa zen 2020an (+% 2,89 2019ko datuekin alderatuta). Gizonen kasuan, berriz, irabazia 20,72 eurora igotzen da (+% 1,57). Sexuaren araberako alde horrek esan nahi du emakumeek orduko kobratu zutela Euskadin gizonek jaso zutenaren % 90,89, edo, bestela esanda, orduko irabazia % 9,11 txikiagoa izan zela. Aipaturiko arrakala hori 0,39 puntu txikitu da azken urtean.

Bestalde, EINen “*Laneko Prezioen Indizeak*” (lan-merkatuaren presioen ondorioz soilik eskulanaren prezioan izandako aldaketa neurtzen du, egindako lanaren kalitatean eta kantitatean izandako aldaketek eraginik izan barik) erakusten du 2019tik 2020ra (azken datua) % 1,1 izan dela, Estatuko batez besteko aldakuntzarekin alderatuta (- % 0,6). Oinarritzko urtetik (2016-2020) izandako bilakaera aztertuta ageri denez, igoera % 5,21ekoa izan da: 2020rako EAeko datua 105,21 da, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, 105,17. Datu horrek adierazten du aldi berean soldatak % 5,17 igo direla.

...

Enplegurako politikei helduta, gaur egun indarrean dago 2021-2024 aldirako Enplegu Plan Estrategikoa, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategia zehaztu eta garatzen duena. Horren definizioa kalitatezko enplegu inklusiboaren aldeko ituna da, Euskadiren garapen ekonomiko eta sozialean lagunduko duena. Hauek dira Estrategiaren eta Planaren jarduteko printzipioak: aukera-berdintasuna; aurrea hartzea, berrikuntza, erantzuteko abiadura eta erresilientzia; lurralde-oreka; adostasuna eta lankidetzatza; eta gobernantza irekia eta maila askotarikoa.

Planaren 2021eko jarraipen-txostenaren arabera, aurreikusitako 141 jarduketetatik 117 egin ziren urte horretan, eta, beraz, betetze-maila handia izan zen. Programatutako jardueren betetze-maila handiena izan zuten jarduera-eremuak hauek izan ziren: 2.a (enpleguaren kalitatea), 5.a (enplegurako prestakuntzaren euskal eredia), 6.a (Lanbide hobetzen) eta 7.a (Enplegu politika aktiboen ebaluazioa). Aurrekontu-betearazpenari dagokionez, 2021ean 317,5 milioi euroko gastu globala gauzatu zen (programatutako aurrekontuaren % 74). Azkenik, txostenak dakarrenez, 2021erako planteatutako 26 gauzatze-adierazleetatik 17k betetze-maila handia izan zuten, eta 9k betetze-maila txikia.

Bestalde, **LANBIDEK, Euskal Enplegu Zerbitzuak**, funtsezko zeregina du EAeko enpleguaren gaineko politika aktiboen garapenean eta Planaren ezarpenean, zeren eta haren eginkizunak lan-aktibazioa (enplegua sustatzeko, bitartekotza, orientazioa, eta abar) eta enplegurako prestakuntza (landunak nahiz langabeak) baitira.

Aurrekontu-likidazioak (aitortutako obligazioak) oinarri hartuta, jakin badakigu LANBIDEK 1.029 milioi euroko gastua izan zuela 2022an, 2021ean baino % 26,5 gehiago (aurreko ekitaldian % 4,3 jaitzi zen). Horietatik 543,8 milioi (guztizkoaren % 52,8) Gizarteratzeko Programara bideratu ziren (2021ean baino % 19,7 gehiago), 294,4 milioi euro (guztizkoaren % 28,6) Enplegu Programara (2021ean baino % 28,1 gehiago) eta 114,8 milioi euro (gastuaren % 11,2) Prestakuntza Programara (2021ean baino % 18,5 gehiago). Era berean, LANBIDEK 2,3 milioi euroko ezohiko partida izan zuen 2022an COVID-19ak eragindako krisiaren aurkako neurrietarako, eta 40,3 milioi euroko beste bat Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen Programaren kontura. Enplegu politika aktiboetako gastua prestakuntza eta enplegu programen batura dela pentsatzea sinplifikatzea bada ere (gizarteratzeko programekin duen berariazko lotura dela eta),

LANBIDEk 2022an enplegu politika aktiboetan gauzatutako gastua 409,3 milioi eurokoa izango dela kalkula daiteke, 2021ean baino % 25,2 handiagoa, hau da, gorakada handia, aurreko urteko % 1eko jaitsieraren aldean.

Langileentzako **etengabeko prestakuntza** ere enplegurako politika aktiboen barruan sartzen da. EAEn, indarrean dagoen araudiaren eta eskumenen banaketaren ondorioz, jarduera horiek LANBIDEk eta Estatuko Enpleguan Prestatzeko Estatuko Fundazioak (FUNDAE) kudeatzen dituzte.

FUNDAEk sustatutako ekintzei dagokienez, 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua), 250.109 prestakuntza eman ziren EAEn, 254.673 laguntzat, aurreko urtean baino % 34,5 gehiago, 14.445 enpresa prestatzaileraren esku-hartzeari esker (2020rako baino % 3,8 gehiago). Enpresa horiek 28,5 milioi euro erabili zituzten enplegurako prestakuntzarako erabilgarri zeuden funtsetatik (+% 26,7), eta, horregatik, hobaria jaso zuten Gizarte Segurantzako kuotetan. Jardueraren eta erabilitako baliabideen beherakada hori, ziurrenik, prestakuntza-jarduerak galarazi zituen urte batean gertatu zen hala.

...

Enplegurako politika pasiboei dagokienez, EAEn 2022an langabezia prestazioetarako gastua, behin-behineko datuen arabera, 700,5 milioi eurokoa izan zen, 2021ean baino % 24,2 gutxiago. Zenbateko hori EAeko BPGd-aren % 0,82 da (% 1,18 aurreko urtean), eta Estatu osoko langabeziako gastu osoaren % 3,25. Estatuan 21.500 milioi baino gehiago da gastu hori (2020an baino -% 23,6 gutxiago).

Prestazio horiek jasotzen dituzten pertsonen kopuruaren **hileko bilakaerak** hautsi egin zuen profil tradizionala 2020an, gutxi gorabehera lineala, eta gorakada bat izan zuen uztaila-abuztuko hilabeteetan, COVID-19ak eragindako krisi gogorraren ondorioz. 2021ean, prestazioen kopuruak nabarmen egin zuen behera. Hala, urtea 50.601 prestaziorekin amaitu zen (-% 20,5), eta 2022an zifra hori egonkortu egin zen, abenduan 50.474 prestaziora pixka bat jaitsita (-% 0,3), eta, beraz, pandemiaren aurreko mailetara itzuli zen.

Abenduko langabezia-prestazioak jaso zituzten 50.474 pertsonetatik, % 58,2, kotizaziopeko prestazioenak ziren (29.357 pertsona), % 37,5, laguntzenak (18.930) eta % 4,3k laneratzeko errenta aktiboa jasotzen zuen (2.187). Estatuan, hil horretan bertan, 1,8 milioi onuradun erregistratu ziren, 2021ko abenduko antzeko datuak gutxi gorabehera. Eta, erregistraturiko langabezia guztiaren kopuruak kontuan izanik, hauxe esan liteke: 2022ko abenduan (110.798 langabetu erregistratuta egonda), EAeko 100 langabetatik 56k ez zutela prestaziorik jasotzen (56k 2021ean), jasotzen zuten 44etatik, 25ek kotizaziopeko prestazioa jasotzen zutela, 17k subsidiarioa eta 2k Gizarteratzeko Errenta Aktiboa.

Zifra horiekin, langabezia-prestazioen batez besteko estaldura, Estatuan erregistratutako langabeziari dagokionez, % 68,7koa zen (2021eko abenduan baino 6,1 puntu gehiago), eta EAeko datua hori baino txikiagoa da (hilabete horretan erregistratutako langabeen % 51,6k lehenago lan egin zuen, Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioaren metodologiaren arabera). Estaldura hori 1,3 puntu igo da azken urtean. EAek autonomia-erkidego guztietatik langabeziaren estaldura-tasarik txikienetako bat dauka, Ceuta eta Melilla alde batera utzita berarekin.

...

Halaber, bere inguruabar sozialengatik eta ekonomikoengatik (gizartean baztertuta edo arrisku horretan egotea) edo ezintasunen bat izateagatik **lan-merkatuan berdintasunean sartzeko zailtasun bereziak** dituzten pertsonentzako enplegu politikaren kopuruak aurkeztuko dira. Kasu honetan, helburu nagusia ordaindutako enplegu duina eta inklusiboa bermatzea da, desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei eta pertsona horiek behar dituzten egokitze pertsonal eta sozialeko zerbitzuen prestazioei buruzko Konbentzioaren 27. artikuluan ezarritakoaren arabera. Aldi berean, lan-merkatu arruntan sartzeko bitarteko bat izan nahi dute. Hori guztia hain zuzen ere enplegua pertsonak gizarteratzeko bide nagusia dela onartuta.

Lehenik eta behin, 2022ko abenduan, EAEn, desgaitasuna zuten 10.011 pertsonak (horietatik % 64,3 gizonak ziren eta % 35,7 emakumeak) 84 EEEko plantilletan sartzen ziren lan-jarduera betetzen zuten. Sexuaren araberako banaketa ia ez da aldatu, baina kolektibo horrek 354 pertsona gutxiago ditu (% +3,7) 2021eko abenduarekin alderatuta. Eta, zentro horiek mantentzeko laguntzei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Enplegu Sailak, 2022an, 60,77 milioi euro bideratu zituen horretarako LANBIDEren bitartez (+% 10,3 2021arekin alderatuta). Horrez gain, LANBIDEK, 2020an, 5,3 milioi euro erabili zituen (+% 10,4 2021aren aldean), 4.760 langile ezinduri laguntzeko (+% 4,2) EAEko 35 EZBetan, EZBko jarduera profesionalerako laguntza-unitateetako 530 adituren lanari esker.

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak gizarteratze eta laneratze modalitate berezi hori laneratze enpresen bidez hedatzea sustatu nahi du. Hori baliatuta, pertsona bat, bai besteren konturako langile, bai bazkide langile edo laneko bazkide, laneratze enpresa batean sartzeko kontratu batekin bideratzen da, lan kontratua lehen kasuan eta sozietatekoa bigarreanean, eta lehenago sartzeko hitzarmen bat sinatuztik ondorioztatzen da.

2003tik 2022ra, 160 milioi euro inguru banatu ditu Eusko Jaurlaritzak laguntza-lerro horren bidez, urtean 38 erakunde onuradun batez beste eta 5.000 laneratze-langile onuradun. 2022an 43 laneratze-enpresari eman zitzaizkien laguntzak, eta horien zenbatekoa 14,2 milioikoa izan zen. Laguntza horiek eman ziren 306 laneratze posturi eta ekoizpenari eta laneratzeari laguntzeko 131 teknikariren lanposturi laguntzeko. Hala, 2022. urtearen amaieran, laneratze-postuak, guztira, miltatik gora dira (aurreko deialdikoak, berriagoak eta berrituak).

...

OSALANek (Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea) agerian utzi duenez, 2022an 34,41 **lan-istripu izan ziren** (**lan**-egunetan baja eragin duten istripu berriak, hain zuzen ere 1.000 langileko istripu kopuruaren eta berariaz laneko istripuen kontingentzia estalia duten Gizarte Segurantzako afiliatuen kopuruaren arteko zatiduraren bidez kalkulatu den kopurua) gure Erkidegoan milako (33,66 milako 2021ean eta, beraz, ratioa 0,75 puntu handitu da). Sektore bakoitzari dagokionez, intzidentzia handiena eraikuntzan gertatzen da (milako 71,39), eta 4,84 puntu igo da 2021. urtearekin alderatuta. Horren atzetik daude lehen sektorea, milako 62,38rekin (+1,52) eta industria, milako 62,03rekin, eta 1,67 puntu igo da 2021aren aldean. Azkenik, zerbitzuen intzidentzia batez bestekoa baino txikiagoa da, milako 24,73 (+0,34 puntu).

Autonomia erkidegoei dagokienez, Lan eta Gizarte Ekonomia Ministerioak kalkulatu duen lanaldiko istripuen intzidentziaren indizeak erakusten duenez, Balear Uharteak ziren rankingeko buruan istripuetan 2022. urtean, eta ondoren Gaztela-Mantxa zegoen. EAEn, milako 29,47ko indizearekin, % 2,49 jaitsi da ratioa (ehuneko 2,49 puntu), eta, beste urte batez, Estatuko batez bestekoaren gainetik eutsi dio (milako 28,52), hein batean sektorearen egitura eta, industriak pisu handiagoa baitu, sektore horretan ezbeharren tasa batez bestekoa baino handiagoa baita.

Bestalde, kontratu motaren arabera lan istripuen datuek erakusten dutenez, lan ezbeharren kopurua handiagoa zen aldi baterako kontratua zuten pertsonen artean kontratu mugagabea zutenen artean baino. Halaxe erakusten dute 2021ekoak diren Lan eta Gizarte Ekonomiako Ministerioko azken datuek. Zehazki, kontratu mugagabea duten pertsonen ezbehar-tasa 30,8 izan zen mila soldatiko (EPA inkestaren enplegu sailak erabiliz). Aldi baterako kontratua duten pertsonen artean, berriz, 46,3 izan zen, milako. Istripuen banaketa zein den jakin beharko litzateke sektoreen, adinaren eta okupazio motaren arabera, behin betiko ondorioak atera ahal izateko. Baina, ikuspegi dinamikoaren arabera, nabarmentzekoa da 2009an kontratu mugagabea eta aldi baterako kontratua duten pertsonen arteko istripuen indizea

26,5 istripukoa zela 1.000 soldatapeko bakoitzeko, eta 2021ean 15,5ra gutxitu zen. Larritasunaren arabera, azken urtean gora egin dute gorabehera arin eta larriek (+% 4,5 eta +% 17,4, hurrenez hurren) eta behera egin dute istripu hilgarriek (% 19,4). Gainera, istripua izan zuten pertsonen % 75 gizonezkoak izan ziren.

7.2. GOGOETAK

EAEko lan-merkatuak 2022. urtean izan duen bilakaera, oro har, positiboa izan da. Izan ere, adierazle nagusiek agerian uzten dute okupazioa handitu egin dela, eta horri esker, COVID-19a iritsi eta bi urtera, pandemiaren aurreko egoera berreskuratu ahal izan da.

Hazkunde ekonomikoari esker, enpleguaren susperraldiari eutsi ahal izan zaio, eta lan-erreformak enpleguaren kalitatea hobetzeko urteko balantzea lortu du. Egoera ekonomikoak eragin handia izan du, alde batetik, Europatik datozen laguntza ekonomikoetan, baina, bestetik, Ukrainako gerrak eragindako edo larriagotutako ondorio gutzietan.

Enpleguaren eta enpleguaren kalitatearen susperraldi hori, lan-erreformaren ondorioz, 2021ekoaren oso bestelako egoera batean gertatu da, eta, horren ondorioz, nabarmen jaitsi dira partzialtasuna eta behin-behinekotasuna, nahiz eta soldaten erosteko ahalmenaren galerak egoera hori ilundu.

2021. urtean gertatzen zen bezala, enpleguaren susperraldia zerbitzuen sektorean gertatu da nagusiki, eta industriak, berriz, datu kontrajarriak ditu; EUSTATEk adierazten du enpleguak galdu egin direla industrian eta Gizarte Segurantzako afiliazio-datuek adierazten dute industriako afiliazio-hazkundera batez bestekoa baino txikiagoa izan dela. Sektore horrek gure produkzio-sisteman duen garrantzia kontuan hartuta, kezkatuta gaude eta adi egon beharko dugu.

Ildo horretan, Europako berreskuratze-funtsek etorkizuneko jarduera eraldatzaileetan enplegua sortzen eta bultzatzen lagundu nahi dute, mundu mailako produkzio sistema aurreratu eta lehiakorrerako trantsizioa erraztuko duten ekimen estrategikoak bultzatuta. Izan ere, azken horren etorkizuneko bilakaerak ezezagun garrantzitsuak planteatzen ditu une honetan, enpleguaren kalitate-estandarrak eta gizarte eta lurralde mailako kohesioa ahal den neurrian mantenduta eta hobetuta.

Enpleguaren susperraldia gorabehera, gure inguruko Europako herrialdeekin alderatuta, jarduera-tasa txikiak jarraitzen dute, bi sexuetan eta adin-talde guztietan, eta egoera hori bereziki kezagarria da emakumeen eta adin handiagoko pertsonen kasuan, zeren eta horiek baitira, hain zuzen ere, langabezia orokorrak eta luzaroko langabeziak gehien kaltetzen dituenak. Egoera hori zuzendu egin beharko litzateke, kontuan hartuta, gainera, jomugan dugun egoera demografikoa.

Era berean, erregistratutako bilakaera eskasaren datuak ikusita, premiaz heldu behar zaio enplegu publikoko behin-behinekotasun tasa altuen zuzenketari.

Bestalde, kontuan izan behar da, hobekuntza orokorra eta jarduera-tasa baxua gorabehera, langabeziaren intzidentzia handia dagoela, batez ere Europako testuinguruarekin alderatuta. Langabeziaren barruan, bereziki kezagarria da luzaroko langabeziaren intzidentzia iraunkorra eta laneratzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektibo jakin batzuen langabezia, hala nola kualifikazio txikieneko pertsonena eta 55 urtetik gorakoena. Gazteek eta emakumeek ere langabeziak eragin handiagoa du.

Prestakuntza maila txikiena duten taldeek jarduera maila txikia dutenez, berriro diogu enplegurako politika aktiboek ahaleginak egiten jarraitu behar dutela pertsona horiei prestakuntza emateko, lan-merkatuan aktiba ditzaten, enplegua lortzeko aukera gehiago izan ditzaten.

Horrexegatik, enplegurako oro har eta, bereziki, laneratzeko eta enpleguari eusteko zailtasun handienak dituzten kolektiboentzako partida publikoak indartzen jarraitu behar da, baita gizarte-babesekoak ere, enpleguaren gaineko helburuak lortzen ez diren bitartean.

Ondo bideratutako politika aktiboetan gastu handiagoa egiteak lagundu egiten du politika pasiboetan gastu txikiagoa egiten, eta lan-erreformak ere lagundu du horretan.

1. BIZI-BALDINTZAK

Memoria honen hurrengo orrialdeetan jorratuko diren bizi-baldintzen eremu desberdinen adierazle argigarriek erakusten dutenez, Euskadik bizi-kalitatearen estandar altuak ditu, bai estatuan, bai nazioartean.


Mundu-mailan, EAEk bere horretan jarraitzen du 2021ean (eskuragarri dagoen azken datua, 2022ko azaroan argitaratua), 14. postuan —Zeelanda Berriaren eta Kanadaren artean—, **NBEren Giza Garapenaren Indizeko (GGI)** herrialdeen sailkapenaren arabera. Mundu mailako giza aurrerapenaren indize sintetikoa da, osasunari, hezkuntzari eta pertsonen diru-sarrerei buruzko informazioa konbinatzen duena, eta EUSTATEk indize horretarako EAEko datua kalkulatu du, Garapenerako Nazio Batuen Programaren (GNBP) metodologia aplikatuta¹.

GNBParen txostenak mundu mailako sailkapena ezartzen du, 189 herrialdez osatua, bakoitzaren bizi-baldintzen arabera ordenatuta. Azterlanak horietako bakoitzari GGI bat esleitu dio (0tik 1erako eskala batean), eta EAEko gizartea, 0,936ko puntuazioarekin, planetako garatuenen artean kokatzen du, Suitza (0,962), Norvegia, Islandia, Hong-Kong, Australia, Danimarka, Suedia, Irlanda, Alemania, Herbehereak, Finlandia, Singapur eta Zeelanda Berriaren atzetik. Espainia 27. postuan dago (2019ko rankingean baino bi postu beherago) GNBParen txostenean, 0,905eko GGirekin. Sailkapena Hego Sudanek ixten du 0,385ekin.

2010-2021 aldian, Euskadiko GGIaren osagai guztiek hobera egin dute: bizi-itxaropena 82,4 urtetik 83,7 urtera igaro da; espero den eskolatzte-urteen adierazleari dagokionez, 18,1etik 18,5era igo dira. Batez besteko eskolatzte-urteei dagokionez, 10,2tik 11,4ra igaro dira, eta per capita errenta 50.877 dolarretik 54.791 dolarrera igo da. Horren ondorioz, EAEko GGia 0,912tik 0,936ra igaro da.

Era berean, IV.1.1 koadroan ikus daitekeen bezala, 2021erako datuek adierazten dute gure erkidegoko giza garapena hobetu egin dela azken urtean: indize orokorra 0,930etik 0,936ra igo da, jaiotzako bizi-itxaropenaren bilakaera

IV.1.1 GRAFIKOA. GIZA GARAPENAREN TXOSTENA 2021.



¹ GGI indize konposatua da, giza garapenaren oinarritzko hiru dimentsiotan ardatzen dena: bizi-itxaropena, jaiotzako bizi-itxaropenaren arabera neurtzen dena; ezagutzak eskuratzeko gaitasuna, batez besteko eskolatzte-urteen eta espero den eskolatzte-urteen arabera neurtzen dena; eta bizi-maila duina lortzeko gaitasuna, per capita diru-sarrera nazional gordinaren arabera neurtzen dena. Informazio gehiagorako: [Giza garapenaren indizeak eta adierazleak 2020](#) (2019ko datuak).

positiboaren (83,1etik 83,7ra), espero diren eskolatzte-urteen (18,5) eta per capita errentaren igoera nabarmenaren (51.954 dolarretik 54.791 dolarrera, hau da, % 5,4) ondorioz.

IV.1.1 KOADROA. EAE-KO GIZA GARAPENAREN INDIZEAREN BILAKAERA, DIMENTSIOEN, ADIERAZLEEN ETA INDIZEEN ARABERA. 2010-2021.

	GGI	1. OSASUNAREN ALDERDIA		2. HEZKUNTZAREN ALDERDIA			3. BIZITZA-MAILAREN ALDERDIA	
		BIZI-ITXAROPENA JAIOTZEAN (URTEAK)	OSASUN-INDIZEA	ESPEROTAKO ESKOLATZE-URTEAK	BATEZ BESTEKO ESKOLATZE-URTEAK	HEZKUNTZA-INDIZEA	PER CAPITA ERRENTA NAZIONAL GORDINA (US\$) PPP-TAN	BIZITZA-MAILAREN INDIZEA
2010	0,912	82,4	0,959	18,1	10,2	0,841	50877	0,941
2011	0,913	82,4	0,96	18,2	10,3	0,842	51046	0,942
2012	0,915	82,7	0,964	18,4	10,4	0,846	50320	0,94
2013	0,919	83,1	0,971	18,6	10,6	0,854	49573	0,937
2014	0,921	83,3	0,973	18,8	10,8	0,86	48867	0,935
2015	0,923	83	0,969	18,8	10,9	0,863	50642	0,941
2016	0,928	83,4	0,975	18,8	11	0,866	52597	0,946
2017	0,931	83,5	0,977	18,8	11	0,867	54415	0,952
2018	0,934	83,6	0,978	18,7	11,1	0,87	56659	0,958
2019	0,937	83,9	0,938	18,6	11,2	0,872	57438	0,96
2020	0,930	83,1	0,971	18,5	11,3	0,876	51954	0,945
2021	0,936	83,7	0,980	18,5	11,4	0,879	54791	0,953

Iturria: EUSTAT. Giza Garapenaren Indizea.

EAE ez dago gizarte-bazterketaren arazotik kanpo, gizarte garaikideen zeharkako errealitatea baita. Erakunde eta ikertzaileek urte askoan erabili duten "pobrezia" kontzeptuak ez ditu agortzen bere horretan gizarte-bazterketaren errealitatea eta dinamikak. Horrexegatik dago adostasun zabala azken hamarkadetan, bai gizarte-ikeruntzaren ikuspegitik, bai kudeaketa publikoko erantzukizunak dituztenen artean: pobrezia-kategoria "gizarte-bazterketa" kategoriaraz zabalduta da, pobrezia ekonomikoaren gaineko ideia zorrotza gairatu delako eta, batez ere, egungo gizarteetan gertatu diren eraldaketa sakonengatik, hain zuzen ere, aurrerapen teknologikoen, bizimodu aldaketek eta aribideko gizarte erreformek eragindakoak.

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, EUROSTATen Bizi-baldintzen Inkestaren (EU-SILC) azken datuetatik abiatuta, EBko bizi-baldintzei buruzko zifra nagusiak aurkezten dira, eta EAEn eta Estatuaren egoerarekin lotzen dira, Europako Batzordeak finkatutako helburuen jarraipena egiteko erabiltzen den "AROE" (*population at risk of poverty and exclusion*) tasaren osagaiak xehetasunez aztertuz.

Jarraian, EINaren 2021eko Bizi-baldintzen Inkestaren emaitzak emango dira. Horiei esker, EAEk gainerako autonomia-erkidegoen aldean izan duen bilakaera erka daiteke, errenta eta gabezia materiala adierazle nagusiei dagokienez. Era berean, Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Pobrezia-kategoria eta Gizarte-desparekotasunei buruzko Inkestako (PGDI) desparekotasun-adierazleak aurkezten dira².

EAEko familien problematikaren gaineko azterlanak, horien kontziliazio-beharrek eta horretarako garatzen diren politikak osatzen dute kapitulu honetako bigarren blokea. Azkenik, 2020ko Memoriaren datuak eguneratuz, 2022ko Genero-berdintasunaren Indizea jorratzen da, eta EAEk Europar duen egoera aztertzen da.

² Eusko Jaurlaritzaren 2020ko Pobrezia-kategoria eta Gizarte-desparekotasunei buruzko Inkestari (PGDI) buruzko 1.3 ataleko edukian 2018ko PGDIari buruzko informazio bera eguneratzen da, 2020ko Memoria Sozioekonomikoan jasoa.


1.1. EAE-KO BIZI-BALDINTZAK EUROPAKO TESTUINGURUAN: "AROPE" TASA 2021

Europar Batasunean, 2008ko krisiak eragin oso larriak izan zituen jardura ekonomikoan eta enpleguan. Pobrezia- edo bazterketa-arriskuan zegoen EBko biztanleria nabarmen hazi zen urte hartatik aurrera, eta 2012an jo zuen goia (% 24,9). Ordutik 2019ra arte, ordea, behera egin zuen, poliki-poliki; 2020an 1,1 puntu igo zen.

IV.1.2 KOADROA. BIZI-BALDINTZAK EAE-N. "EUROPA 2020" ERREFERENTZIA-ADIERAZLEAK ETA ALDERAKETA ESTATUAREKIN ETA EB-REKIN.				
	EAE		ESTATUA	EB 27
	2008	2021	2021	2021
"AROPE" TASA	13,9	16	27,8	21,7
- pobreziaren atalasearen azpitik dagoen biztanleriaren % (medianaren % 60) – moneta-pobrezia	9,1	12,2	21,7	16,8
- Gabezia material larria	2,8	4,6	8,3	6,3
- Lan-intentsitatea baxua (< 59 URTE)	6,5	7,5	11,6	0,9

Iturriak: EUROSTAT eta EIN.

IV.1.2 GRAFIKOA. POBREZIAREN ETA BAZTERKETAREN ARRISKU-TASAREN ETA HORREN HIRU OSAGAIEN BILAKAERA EUROPAR BATASUNEAN (EB 27)



2021ean (eskuragarri dagoen azken datua), egoera horrek biztanleriaren % 21,7ri eragin dio, eta badirudi beheranzko bideari ekin diola berriro, 0,3 puntu jaitsi baita 2020tik, edo, bestela esanda, EBko 95,3 milioi herritarri eragiten die, Europa 2020 Estrategian³ —"AROPE tasa" (population at risk of poverty and exclusion) izenekoa—ezarritako irizpideen arabera. Horietatik % 53,3 emakumeak ziren (haien AROPE tasa % 22,6koa da, batez bestekoa baino 9 hamarren handiagoa) eta % 46,7 gizonezkoak (pobrezia edo bazterketa arrisku-tasa: % 20,7).

2020arekin alderatuta, Batasuneko batez besteko tasa, esan bezala, 0,3 puntu jaitsi da; beraz, eragindako pertsonen kopurua 1,5 milioi jaitsi da.

Eta 2008ari dagokionez, EBko batez bestekoa urte hartako datua baino % 2 puntu beherago dago (eraginpeko 20,8 milioi lagun), baina EBko 10 herrialderen kasuan —tartean Espainia— pobrezi-a eta bazterketa-arriskua oraindik krisiaren aurretik baino handiagoa da. Gogora dezagun 2030 Agendak ezarritako helburua dela pobrezia-arriskuan dauden biztanleen proportzioa, dimentsio guztietan, gutxienez erdira murriztea 2015. urtearekin alderatuta, nazioko definizioen arabera (1.2 helburua). Era berean, kontuan hartu behar da interesgarritzat jotzen dela oraindik ere 2008ko kopuruekin alderatzea, Europako bizi-kalitatearen bilakaera baloratzeko urte hartan hasitako atzeraldi handiaren aurreko aldiarekin alderatuta.

³ "2030 Agendaren" ondorioetarako, pertsona bat pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskuan dagoela ulertuko da, baldin eta langabezia-arazoak edo lan-intentsitate oso txikia duen familia-unitate batekoa bada, gizarte-transferentzien ondoren pobrezia-arriskuan badago eta/edo gabezia material eta sozial larria badu.

IV.1.3 KOADROA. EB-N POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, "EUROPA 2020 ESTRATEGIAKO" IRIZPIDEEN ARABER. 2030 AGENDAREN IRIZPIDEEN ARABERA								
	EHUNEKOA				ABSOLUTUAK (MILIOITAN)			
	2008	2019	2020	2021	2008	2019	2020	2021
EB 27	23,7	20,9	22	21,7	116,1	91,4	96,8	95,3
BELGIKA	20,8	19,5	18,9	18,8	2,2	2,2	2,2	2,1
BULGARIA	44,8	32,5	32,1	31,7	3,4	2,3	2,2	2,2
TXEKIAR ERREPUBLIKA	15,3	12,5	11,9	10,7	1,6	1,3	1,2	1,1
DANIMARKA	16,3	16,3	15,9	17,3	0,9	0,9	0,9	1,0
ALEMANIA	20,1	17,4	24	21	16,4	14,2	19,7	17,3
ESTONIA	21,8	24,3	23,3	22,2	0,3	0,3	0,03	0,3
IRLANDA	23,7	20,6	20,9	20	1,1	1	1	1,0
GREZIA	28,1	30	28,9	28,3	3,1	3,1	3	3,0
ESPAINIA	23,8	25,3	26,4	27,8	10,8	11,8	12,4	13,0
FRANTZIA	18,5	17,9	18,2	19,2	11,2	11,1	11,7	12,2
KROAZIA	:	23,3	23,2	20,9	:	0,9	0,9	0,8
ITALIA	25,3	25,6	24,9	25,2	15,1	15,4	14,8	14,8
ZIPRE	23,3	22,3	21,3	17,3	0,2	0,2	0,2	0,2
LETONIA	34,2	27,3	26	26,1	0,7	0,5	0,5	0,5
LITUANIA	27,6	26,3	24,8	23,5	0,9	0,7	0,7	0,7
LUXENBURGO	15,5	20,6	20,9	21,1	0,1	0,1	0,1	0,1
HUNGARIA	28,2	18,9	17,8	19,4	2,8	1,8	1,7	1,9
MALTA	20,1	20,1	19	20,3	0,1	0,1	0	0,1
HERBEHEREAK	14,9	16,5	16,1	16,6	2,4	2,8	2,8	2,9
AUSTRIA	20,6	16,9	17,5	17,3	1,7	1,5	1,5	1,5
POLONIA	30,5	18,2	17,3	16,8	11,5	6,7	6,4	6,3
PORTUGAL	26	21,6	19,8	22,4	2,8	2,2	2	2,3
ERRUMANIA	44,2	31,2	30,4	34,5	9,4	6,1	5,9	6,6
ESLOVENIA	18,5	14,4	15	13,2	0,4	0,3	0,3	0,3
ESLOVAKIA	20,6	16,4	14,8	15,6	1,1	0,9	0,8	0,8
FINLANDIA	17,4	15,6	16	14,2	0,9	0,8	0,9	0,8
SUEDIA	14,9	18,8	17,9	17,2	1,4	1,9	1,8	1,8
EAE	13,9	14,4	13,9	16	0,3	0,31	0,22	0,35

Iturria: Guk geuk egina, EUROSTATen eta EINaren datuekin.

2021eko datuek erakusten dutenez, Errumanian pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dago biztanleriaren % 34,5, eta egoera zaugarrian dauden pertsonen tasarik handiena duen herrialdea da. Ondoren, Bulgaria (% 31,7) eta Grezia (% 28,3) daude; Txekiar Errepublikak (% 10,7), Esloveniak (% 13,2) eta Finlandiak (% 14,2) dituzte tasarik txikiak.

Espanian, 2021eko ratioa % 27,8koa da, Europako batez bestekoa (13 milioi pertsona kaltetuta) baino 6,1 puntu handiagoa, eta 1,4 puntu igo da aurreko urtearekin alderatuta (2008ko datuan baino 4 puntu gorago). Sexuaren arabera, emakumezkoen AROPE tasa % 28,9koa da eta gizonezkoena % 26,7koa. Espainia, beraz, intzidentzia-maila ertain-altuan dago, Letoniaren pareko posizioan.

EAEn, pobrezia- eta bazterketa-arriskuak biztanleriaren % 16ari eragiten dio 2021ean (EUROSTAT eta EINaren metodologiaren arabera), edo, bestela esanda, 350.000 pertsonari (oso interesgarria izango litzatekeen arren, ez dago sexuaren araberako informaziorik), 2020an eta 2008an baino 2,1 puntu gehiago. Intzidentzia hori mantendu egin da beste urte batez; nahiko baxua da Europarekin alderatuta, eta Eslovakiakoarekin aldera daiteke (% 15,6), Europar Batasuneko laugarren tasarik baxuena duena, Finlandiaren (% 14,2), Esloveniaren (% 13,2) eta Txekiar Errepublikaren (% 10,7) atzetik.

Estatuko autonomia-erkidegoen artean, EAE bigarren postuan dago (% 16), Nafarroaren atzetik (% 14,7); azken hau hirugarren urtez jarraian rankingeko lehenengoa da. 2021ean, estatuko batez bestekoan bezala, guztira 13 erkidegotan egin du gora "ARPE" tasak, eta 5 erkidegotan bakarrik murriztu dute. Ratorik handienak Ceutan (% 43), Andaluzian (% 38,7) eta Extremaduran (% 38,7) daude.

IV.1.4 KOADROA. POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN BIZTANLEAK, "2030 AGENDAREN" IRIZPIDEEN ARABERA: "AROPE" TASAREN OSAGAIAK. BIZTANLERIA OSOAREN GAINEKO EHUNEKOA, 2019-2021.

	"AROPE" TASA OROKORRA			1. POBREZIA-ARRISKUA (ATALASEA % 60)			2. GABEZIA MATERIALA ETA SOZIAL LARRIA			3. LAN-INTENTSITATE OSO TXIKIA		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
ESTATUA, GUZTIRA	25,3	26,4	27,8	20,7	21	21,7	4,7	7	8,3	10,8	9,9	11,6
ANDALUZIA	37,7	35,1	38,7	31,3	28,5	32,3	5,9	8	10,3	18	13,5	18,4
ARAGOI	21,1	18,5	20	17,9	16	15,8	2,3	1,7	6,5	5,5	6,1	7,5
ASTURIAS	24,6	27,7	26,3	20,7	22,2	20,4	3,4	4,5	5,8	14,1	17,8	14,2
BALEAR UHARTEAK	15,1	22	22,4	12	14,1	17,6	2,9	6,9	6,1	3,5	4,5	7,3
KANARIAR UHARTEAK	35	36,3	37,8	28,5	29,9	28,4	3,9	10,7	15,7	14,8	15,3	21,1
KANTABRIA	19,4	23,7	21,4	17,3	18	15,4	0,9	4,4	5,3	7,9	7,8	11,1
GAZTELA-MANTXA	16,7	19,8	23,1	12,9	15,1	17,9	2,3	3,6	6,1	7,4	7,9	7,8
GAZTELA ETA LEON	30,7	29,8	32,5	26,2	25,1	27,4	7,4	3,1	7,5	11,8	8	8,4
KATALUNIA	18,8	22,8	22,3	13,9	16,7	14,8	5,7	6,2	9	8,3	9,8	9,6
VALENTZIAKO ERK.	27	29,3	30,6	23,7	24,6	25,1	4,8	11,5	7,6	10,1	11,3	11,1
EXTREMADURA	37,7	38,7	38,7	31,5	31,4	32,3	6,3	8,8	7,6	12,9	11,9	13,6
GALIZIA	24,3	25,7	25,2	20	22,1	20,2	3,6	5,2	6,2	11,9	8,5	10,2
MADRIL	19	20,9	21,6	15	15,4	15,2	4,5	6,9	7,4	6,8	6	7,6
MURTZIA	31,9	29,7	33,8	27,7	25	27,7	4,3	7,6	10,2	9,2	9,2	11
NAFARROA	11,7	12	14,7	7,7	9,9	9,8	3	6,2	3,4	5,5	7,5	9
EAE	14,4	13,9	16	10	10	12,2	3,5	5	4,6	10,3	7,4	7,5
ERRIOXA	15,2	19	21,3	12,3	15	16,1	1,6	2,3	5,2	6,3	6	6,7
CEUTA	45,9	38,8	43	40,6	35,3	32,3	6,2	6,4	23,3	29,9	22,5	22,2
MELILLA	38,5	42,4	35,2	35,7	36,3	30,1	12,9	13,9	14,5	24,8	38,2	25,8

Iturria: EIN. Encuesta de Condiciones de Vida.

1.1.1. Pobrezia-atalasearen azpitik dauden biztanleak

Adierazle horren osagaiei dagokienez, batetik, 2021ean EBko biztanleen % 16,8 pobrezia-arriskuan zegoen gizarte-transferentzien ondoren (moneta-pobrezia); egoera horretan daude, zehazki, diru-sarreraren kontsumo-unitateko banaketaren herrialde bakoitzeko medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituztenak ("pobrezia-atalasea" bezala ezaguna; osagai horiren bidez neurtzen da herrialde bakoitzean gutxieneko errenta-atalase horretara heltzen ez diren biztanleen ehuneko).

Ehuneko hori 3 hamarren jaitsi da 2020ko datuekin alderatuta, eta bost pertsonatik bat baino gehiago daude egoera horretan, besteak beste, Bulgarian (% 22,6), Errumanian (% 22,6), Letonian (% 23,4), Espainian (% 21,7), Lituanian (% 20) eta Estonian (% 20,6). Ratorik txikiak Txekiar Errepublikan (% 8,6), Finlandian (% 10,8) eta Eslovenian (% 11,7) daude. 2008arekin alderatuta, pobrezia-arriskuan daudenen proportzioa handitu egin da 13 herrialde kidetan (informazioa ematen dutenen artean), eta jaitsi egin da 13tan.

EAEn, tasa % 12,2ra iritsi da 2021ean, 2,2 puntu igo da 2020tik eta 3,1 puntu 2008tik, eta 267.500 pertsona ingururi eragiten die (2020an baino 48.200 gehiago).

Autonomia-erkidegoen testuinguruan, Euskadi batez besteko orokorraren oso azpitik dago AROPE tasaren lehen osagaian (% 12,2 eta % 21,7, hurrenez hurren); bigarren postuan, Nafarroaren atzetik (% 9,8). Beste muturrean, zenbait autonomia-erkidegok % 30eko ratioak gainditzen dituzte; Andaluziak, Extremadurak eta Ceutak (hirurek % 32,3) eta Melillak (% 30,1) dituzte tasarik altuenak.

1.1.2. Gabezia material sozial larria

Bigarrenik, 2021ean, EBko herritarren % 6,3k gabezia material eta sozial larria izan dute; izan ere, baliabide-faltak eragindako bizi-baldintzak dituzte; hala nola fakturei aurre egiteko gaitasuna (etxeko ohiko gastuei buruzkoak), etxea

bero edukitzea edo urtean astebeteko oporraldia hartu ahal izatea⁴. Ratio hori mantendu egin da 2020koaren aldean, baina 2008ko % 8,5aren azpitik dago.

Batasunean, gabezia horren intzidentzia oso modu zabalean aldatzen da herrialdeen artean, Suediatik eta Finlandiatik hasi (% 1,5etik behera daude) eta Bulgariaraino (ia % 20ra iristen da), azken urtean horietako talde handi batek (horietako 11k) bere emaitzetan okerrera egin baitu. 2008aren aldean, gabezia larria dutenen proportzioa hazi egin da 8 herrialdetan (informazioa ematen dutenen artean), eta behera egin du 17 herrialdetan.

Espainiak % 8,3ko tasa du (2020an baino 1,3 puntu gehiago), eta EAEk % 4,6koa (2020an % 5), hau da, 101.200 pertsonari eragiten die, aurreko urtean baino 8.800 pertsona gutxiagori. 2008-2021 aldian aztertuta, bilakaera negatiboa izan du, % 2,8tik % 4,6ra; gainera, 2021eko datua 0,4 puntu jaitsi da 2020koaren aldean, Bizi-baldintzen Inkestako serie osoko altuena. Autonomia-erkidegoetan, Ceutan, Kanarrietan eta Melillan izan dira intzidentziarik handienak (% 23,3, % 15,7 eta % 14,5, hurrenez hurren), eta txikienak, berriz, Nafarroan (% 3,4), Euskadin (% 4,6) eta Errioxan (% 5,2).

IV.1.5 KOADROA. POBREZIA- EDO BAZTERKETA-ARRISKUAN DAUDEN EB-KO BIZTANLEAK, "EUROPA 2020 ESTRATEGIAKO" IRIZPIDEEN ARABERA "AROE" TASAREN OSAGAIK: EHUNEKOA, BIZTANLERIA OSOARI DAGOKIONEZ. 2008-2021.												
	1. POBREZIA-ARRISKUA (ATALASEA % 60)				2. GABEZIA MATERIAL ETA SOZIAL LARRIA				3. LAN-INTENTSITATE OSO TXIKIA			
	2008	2019	2020	2021	2008	2019	2020	2021	2008	2019	2020	2021
EB 27	16,6	17,2	17,1	16,8	8,5	5,5	6,3	6,3	9,2	8,3	8,5	8,9
BELGIKA	14,7	14,8	14,1	12,7	5,6	4,4	3,9	6,3	11,7	12,4	11,9	11,9
BULGARIA	21,4	22,6	23,8	22,6	41,2	20,9	19,4	19,1	8,1	9,3	8,5	8,4
TXEKIAR ERREPUBLIKA	9	10,1	9,5	8,6	6,8	2,7	2,4	1,8	7,2	4,2	4,4	5,4
DANIMARKA	11,8	12,5	12,1	12,3	2	2,6	2,4	3,1	8,5	9,3	9,1	9,7
ALEMANIA	15,2	14,8	18,5	15,8	5,5	2,6	6,6	4,2	11,7	7,6	9,5	9,5
ESTONIA	19,5	21,7	20,7	20,6	4,9	3,3	2,8	1,9	5,3	5,4	4,7	5,1
IRLANDA	15,5	13,1	13,9	12,9	5,5	5,4	4,9	5,1	13,7	13,6	12,5	13
GREZIA	20,1	17,9	17,7	19,6	11,2	16,2	16,5	13,9	7,5	13,8	12,8	12,1
ESPAINIA	19,8	20,7	21	21,7	3,6	4,7	7	8,3	6,6	10,8	9,9	11,6
FRANTZIA	12,5	13,6	13,8	14,4	5,4	4,7	4,8	5,9	8,8	7,9	8,8	10,7
KROAZIA	:	18,3	18,3	19,2	:	7,2	6,9	3,5	:	9,2	8,6	7,5
ITALIA	18,9	20,1	:	20,1	7,5	7,4	:	5,9	10,4	10	:	10,8
ZIPRE	15,9	14,7	14,3	13,8	9,1	9,1	8,3	2,6	4,5	6,8	5,6	5,8
LETONIA	25,9	22,9	21,6	23,4	19,3	7,8	7,3	5,3	5,4	7,6	7,9	6,6
LITUANIA	20,9	20,6	20,9	20	12,5	9,4	7,7	6,4	6,1	7,5	7,3	8,1
LUXENBURGO	13,4	17,5	17,4	18,1	0,7	1,3	1,7	2,4	4,7	7,5	7,9	5,5
HUNGARIA	12,4	12,3	12,3	12,7	17,9	8,7	8	10,2	12	5	5	5,4
MALTA	15,3	17,1	16,9	16,9	4,3	3,6	3,3	5,4	8,6	4,9	5,4	5,3
HERBEHEREAK	10,5	13,2	13,4	14,4	1,5	2,5	2,1	2,1	8,2	9,2	8,9	8,6
AUSTRIA	15,2	13,3	13,9	14,7	5,9	2,6	2,7	1,8	7,4	7,8	7,1	7,4
POLONIA	16,9	15,4	14,8	14,8	17,7	3,6	2,6	2,9	8	4,7	4,3	4,2
PORTUGAL	18,5	17,2	16,2	18,4	9,7	5,6	4,6	6	6,3	6,2	5,1	5,3
ERRUMANIA	23,6	23,8	23,4	22,6	32,7	14,5	15,2	23,1	8,5	6	6,3	3,5
ESLOVENIA	12,3	12	12,4	11,7	6,7	2,6	3	1,8	6,7	5,2	4,8	3,6
ESLOVAKIA	10,9	11,9	11,4	12,3	11,8	7,9	5,9	5,7	5,2	6,2	4,3	5
FINLANDIA	13,6	11,6	12,2	10,8	3,5	2,4	2,6	1,1	7,5	9,7	9,9	8,6
SUEDIA	12,2	17,1	16,1	15,7	1,4	1,8	1,8	1,4	5,5	8,6	8,5	8,8
EAE	9,1	10	10	12,2	2,8	3,5	5	4,6	6,5	10,3	7,4	7,5

Iturria: Guk geuk egina, EUROSTATen eta Elnaren datuekin.

1.1.3. Lan-intentsitate oso txikiko biztanleria

Azkenik, 2021ean, EBko biztanleen % 8,9 lan-intentsitate oso baxuko etxeetan bizi zen; izan ere, egoera hori dela jotzen da etxeko 64 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean gutzizko lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan

⁴ Hain zuzen ere, EUROSTATek uste du **gabezia material eta sozial larria** izaten dela honako item hauetako zazpi gutxienez ematen badira: fakturak garai ordaindu ezin izatea, etxebizitza behar bezala berotzea, ezusteko gastuei aurre egitea, haragia, arraina edo antzeko proteinak bi egunean behin jatea, urtean behin oporrak hartzea, autoa izatea, egoera txarrean dauden altzariak, arropa edo oinetakoak ordeztzea, lagunekin edo familiarekin elkartzea, bazkaltzeko edo hilean diru pixka bat hartzea..

egiten dutenean (2020an baino 4 hamarren gehiago eta 2008an baino 3 hamarren gutxiago). Irlanda (% 13), Grezia (% 12,1) eta Belgika (% 11,9) dira Europar Batasuneko zerrendaburuak, eta Eslovakia, Polonia, Eslovenia eta Errumania, berriz, % 5aren azpitik daude. 2008arekin alderatuta, tasa horrek gora egin du EBko zati handi batean (14 herrialdeetarako ditugu datu eguneratuak), baina batez bestekoa ia ez da aldatu denboran zehar.

EAEko datuak apur bat okerrera egin du azken urtean: 7,4 puntutik 7,5era igo da 2021ean (164.500 pertsona inguru, 2020an baino 2.200 gehiago), EBko batez bestekoaren (% 8,9) azpitik, eta 2008ko datua baino puntu 1 gehiago.

IV.1.6 KOADROA. AROPE TASAREN BILAKAERA ETA BERE OSAGAIK.								
ALDERAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOAREN ARTEAN.								
	POBREZIA- ETA BAZTERKETA-ARRISKUA (ARPE)		1. POBREZIA-ARRISKUA (<% 60-KO ATALASEA) (MONETA-POBR.)		2. GABEZIA MATERIAL ETA SOZIAL LARRIA		3. LAN-INTENSITATE TXIKIA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	23,8	13,9	19,8	9,1	3,6	2,8	6,6	6,5
2017	26,6	14,5	21,6	9,7	5,1	3,7	12,8	7,7
2018	26,1	12,1	21,5	8,6	5,4	3,2	10,7	7,1
2019	25,3	14,4	20,7	10,0	4,7	3,5	10,8	10,3
2020	26,4	13,9	21,0	10,0	7,0	5,0	9,9	7,4
2021	27,8	16	21,7	12,2	8,3	4,6	11,6	7,5
Ald. 20/21 *	1,4	2,1	0,7	2,2	1,3	-0,4	1,7	0,1
Ald. 08/21 *	4,0	2,1	1,9	3,1	4,7	1,8	5,0	1,0

*Iturria: EINaren datuak oinarri hartuta egina.
Aldakuntzak ehuneko puntuetan.

Espainia Batasuneko batez bestekoaren

gainetik dago, eta 1,7 puntu egin du okerrera 2020arekin alderatuta (% 9,9tik % 11,6ra igaro da). Autonomia-erkidegoen artean, horietako askok, nabarmen hobetu badira ere, oso ratio altuak mantentzen dituzte: Melillan (% 25,8), Ceutan (% 22,2) eta Kanarietan (% 21,1). EAE, Balearrak eta Errioxa beste muturrean daude, tasarik txikiak baitituzte (% 7,5, % 7,3 eta % 6,7, hurrenez hurren).

1.2. 2021-EKO BIZI-BALDINTZEN INKESTAREN EMAITZAK

EINaren “Encuesta de Condiciones de Vida” (Bizi-baldintzen inkesta) Errentari eta Bizi-baldintzei buruzko Europar Batasuneko estatistikak —“Statistics on income and living conditions” (EU-SILC) izenekoa— harmonizatzeko prozesu baten parte da. Helburu nagusietako bat pobrezia eta gizarte-bazterketa aztertu ahal izateko informazioa ematea da. Alde horretatik, askotariko informazioa ematen du, hain zuzen ere, etxebizitzari buruzko datuak, horrek sortzen dituen gastuak, diru-sarrerak, ekipamendua, egoera ekonomikoa, helduen jardura, osasuna, osasun-arretarako sarbide, hezkuntza eta datu biografikoak⁵.

1.2.1. Errenta

Bizi-baldintzen inkestaren 2021eko emaitzek adierazten dutenez, EAEn **pertsonako batez besteko errenta** 15.544 eurora jaisten da urtean (ez dago sexuaren araberako informaziorik), aurreko urtean baino % 1,7 gutxiago (ikus 7. Oin-oharra); lehenengo postuan, eta atzetik Nafarroa. Estatuko batez bestekoa, berriz, % 0,2 jaitsi da. 2008arekin alderatuta, batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera positiboa izan da EAEn, % 10,7 hazi baita, estatuko batez bestekoa (% 14,3 igo dena) baino ratio txikiagoa. Gainera, Euskadik errentarik txikiak jasotzen dituzten pertsonen ehuneko txiki samarra du (pertsonen % 5,9 lehen dezilean, ehuneko txikiena Aragoiren atzetik), eta, erkidego guztien artean, errentarik handienak kobratzen dituztenen ehunekorik handiena du (% 19,5 hamargarren errenta-dezilean); jarraian Madril dago.

⁵ Bizi-baldintzen inkesta inkesta egin ohi dio etxe-lagin bati urte bakoitzeko laugarren hiruhilekoan, eta elkarrizketa egin zenean zituzten bizi-baldintzei eta aurreko urteko diru-sarrerei buruzko informazioa jasotzen du. COVID-19aren pandemiak 2020ko bizi-baldintzen inkestaren datuetan duen eragina, beraz, partziala baino ez da, datu ekonomikoek aurretiko egoera islatzen baitute (2019koa). Hori kontuan hartu behar da 1.2 atal honetan aurkezten diren adierazleak interpretatzerakoan.

Bestalde, aurreko urtean EAEn jasotako **etxeko batez besteko errenta** % 1,9 murriztu da aurreko urtearekin alderatuta, eta 36.887 eurokoa da, Estatuko batez bestekoa (30.552 euro; % 0,5 jaitsi da) baino % 20,7 handiagoa. EAeko datua, kasu honetan, hirugarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean; izan ere, Nafarroak (etxeko batez besteko diru-sarrera 38.086 eurokoa du)⁶ eta Madrilek (37.687 eurokoa) gainditu dute. Eta 2008-2020 aldia kontuan hartuta, etxeko batez besteko errenta % 2,2 hazi da EAEn; Estatu osoan, aldiz, iguera % 6,1ekoa izan da. Madrilen iguera hori % 10etik gorakoa da (% 11,2); Asturiasen, berriz, familia-errenta % 3,7 murriztu da aztertutako aldian.

IV.1.7 KOADROA. URTEKO BATEZ BESTEKO ERRENTA GARBIAREN BILAKAERA PERTSONAKO ETA ETXEKO (ELKARRIZKETAREN AURREKO URTEA), AUTONOMIA-ERKIDEGOAREN ARABERA. 2008-2021. EUROTAN.

	BATEZ BESTEKO ERRENTA PERTSONAKO					BATEZ BESTEKO ERRENTA ETXEKO				
	2008	2020	2021	ALD. % 20/21	ALD. % 08/21	2008	2020	2021	ALD. % 20/21	ALD. % 08/21
EXTREMADURA	8.107	9.147	9.500	3,86	17,2	21.756	22.250	22.947	3,13	5,5
ANDALUZIA	9.007	9.990	9.915	-0,75	10,1	25.248	25.909	25.601	-1,19	1,4
GAZTELA-MANTXA	9.064	10.485	10.257	-2,17	13,2	24.974	26.722	26.060	-2,48	4,3
KANARIAR UHARTEAK	8.902	9.935	10.161	2,27	14,1	24.510	25.855	26.392	2,08	7,7
MURTZIA	9.119	9.850	9.931	0,82	8,9	26.995	26.925	27.027	0,38	0,1
VALENTZIAKO ERK.	9.864	11.332	11.237	-0,84	13,9	25.802	27.948	27.603	-1,23	7
GALIZIA	9.482	11.469	11.453	-0,14	20,8	25.859	27.862	27.698	-0,59	7,1
ASTURIAS	11.880	12.786	12.861	0,59	8,3	29.473	28.284	28.369	0,3	-3,7
GAZTELA ETA LEON	10.488	12.697	12.656	-0,32	20,7	26.525	29.125	28.890	-0,81	8,9
BALEAR UHARTEAK	11.229	12.658	11.235	-11,24	0,1	28.981	33.115	29.368	-11,32	1,3
KANTABRIA	11.232	12.748	12.848	0,78	14,4	29.576	30.309	30.447	0,46	2,9
ESTATUKO BATEZ BEST.	10.737	12.292	12.269	-0,19	14,3	28.787	30.690	30.552	-0,45	6,1
ERRIOXA	10.916	13.504	12.913	-4,38	18,3	27.835	32.096	30.598	-4,67	9,9
CEUTA	8.047	9.853	10.397	5,52	29,2	29.776	28.824	31.494	9,26	5,8
ARAGOI	11.485	13.097	13.345	1,89	16,2	29.506	31.529	32.067	1,71	8,7
KATALUNIA	12.436	14.170	14.159	-0,08	13,9	32.561	35.030	34.982	-0,14	7,4
MELILLA	11.065	11.427	12.012	5,12	8,6	33.986	37.138	36.038	-2,96	6
EAE	14.038	15.813	15.544	-1,7	10,7	36.110	37.598	36.887	-1,89	2,2
MADRIL	12.496	14.580	14.836	1,76	18,7	33.889	37.051	37.687	1,72	11,2
NAFARROA	13.123	15.094	15.269	1,16	16,4	35.370	37.728	38.086	0,95	7,7

Iturria: EIN. Encuesta de Condiciones de Vida.

Autonomia erkidegoen araberako rankingeko posiziorik txarrenen artean, hauexek daude bi aldagaietan (familiako errenta eta pertsonako errenta), aurreko urteetan bezala: Extremadura, Kanariar Uharteak, Andaluzia eta Gaztela-Mantxa.

1.2.2. Gabezia materiala

Etkeen bizi-baldintzak eta errenta-maila erakusten dituen beste adierazle bat **hilaren amaierara iristeko zailtasunak** dituzten etheen ehunekoari dagokio: egoera horrek gure erkidegoko familien % 31,7ri eragiten die 2021ean, aurreko urtean baino ehuneko 0,7 puntu gutxiago. Estatuko batez bestekoa altuagoa da, % 43,7koa baita, baina ez da aldatu 2020koaren aldean. 2008ko egoerarekin alderatuta, zailtasunak 12,3 puntu egin du behera EAEn eta 17,2 Estatuan.

IV.1.8 KOADROA. ZAILTASUN MATERIALAK DITUZTEN ETA/EDO ZENBAIT GASTU ORDAINDU EZIN DITUZTEN ETXEEN EHUNEKOA. ALDERAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA ESTATUKO BATEZ BESTEKOAREN ARTEAN. ALDAKUNTZA EHUNEKO PUNTUETAN.

	EZIN DUTE URTERO GUTXIENEZ ASTEBETEKO OPORRALDIA HARTU		HILAREN AMAIERARA IRISTEKO ZAILTASUNAK		ATZERAPENAK ETXEBIZITZA NAGUSIAREN ORDAINKETETAN*		USTEKABEKO GASTUAK ORDAINTZEKO EZINTASUNA	
	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA	EAE
2008	34,5	15,8	60,9	44	6	3,5	29,9	17,7
2018	34,2	18,1	53,7	35,5	7,3	5	36	22,2
2019	33,4	23,5	47,9	38,2	6,9	7,3	33,9	25,2
2020	33,8	19,4	43,7	32,4	10,7	6,8	35,4	20,2
2021	32,7	16,4	43,7	31,7	12,6	7,4	33,4	18,4
Ald. 20-21	-1,1	-3,0	0,0	-0,7	1,9	0,6	-2,0	-1,8
Ald. 08-21	-1,8	0,6	-17,2	-12,3	6,6	3,9	3,5	0,7

* Etxebizitza nagusiarekin lotutako gastuen ordainketetan (hipoteka edo alokairua, gasaren, erkidegoaren, etab.en ordainagiriak,...) atzerapenak izan dituzte azken 12 hilabeteetan.

Iturria: EIN. Encuesta de Condiciones de Vida.

⁶ Melillako datu altua (36.038 €) tentuz hartu behar da, lagina txikia baita.

Horrez gain, kontuan izan behar da, 2021ean, hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituztela dioten euskal familien % 6,3tik % 4,9k “zailtasun handiak” dituztela (% 5,7k 2020an), % 6,3ak “zailtasunak” beste barik eta gainerako % 20,5ak “nolabaiteko zailtasunak”. Banaketa hori estatukoaren antzekoa da, baina zailtasun gehien dituztenen ehunekoa handiagoa da, % 8,6 hain zuzen ere.

Halaber, Inkestak **gastu jakin batzuk ordaindu ezin dituztela**⁷ dioten etxeen ehunekoa kalkulatu du: EAEko etxeen % 16,4ak 2021ean ezin du urtean astebeteko oporraldirik hartu (% 32,7 Estatuan), eta % 18,4k ezin dio ustekabeko gastuei aurre egin (Estatuko batez bestekoa % 33,4 da). Ratio horrek ehuneko 1,8 puntu egin du behera 2020arekin alderatuta. Gainera, etxeen % 7,4k etxebizitzarekin lotutako ordainketetan atzerapenak aitortu ditu, 2020an baino 6 hamarren gehiago, eta Espainiako familien % 12,6k (2020an baino 1,90 puntu gehiago).

EBn (Eurostaten datuak), familien % 30,1k ezin dio ustekabeko gastuari aurre egin, eta % 27,6k ezin du urtean astebeteko oporraldia onartu. Herrialdeen arteko aldeak handiak dira, eta Grezia, Kroazia, Errumania eta Zipre nabarmentzen dira, horien bizi-mailek okerrera egin dutelako (etxeen ia erdiek zailtasunak dituzte ustekabeko gastuei aurre egiteko, adibidez).

IV.1.9 KOADROA. EUOPAR BATASUNEN ETXEEN GABEZIA-ADIERAZLE NAGUSIAK. ALDERAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ETA EUOPAREN ARTEAN. 2019-2021.									
	USTEKABEKO GASTUAK ORDAINTZEKO EZINTASUNA			GABEZIA MATERIALAREN INDIZEA			ETXEA TENPERATURA EGOKIAN MANTENTZEKO EZINTASUNA		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021	2019	2020	2021
EB 27	30,9	32,5	30,1	12	12,7	11,9	6,9	8,2	6,9
BELGIKA	25,3	23,3	22,3	9,3	9,7	10,2	3,9	4,1	3,5
BULGARIA	36,5	43,5	36,4	32,1	31,9	30,4	30,1	27,5	23,7
TXEKIAR ERREPUBLIKA	21,8	19,6	18,1	7	6,1	4,8	2,8	2,2	2,2
DANIMARKA	22,9	22,7	19,5	6,1	6,6	5,9	2,8	3	2,8
ALEMANIA	26	37,9	32,3	6,8	15,2	9,0	2,5	9	3,3
ESTONIA	31,4	30,5	27,1	9,1	8,3	5,1	2,5	2,7	2
IRLANDA	38	35,6	29,7	12,6	13,8	9,7	4,9	4,2	3,2
GREZIA	47,8	50,4	46,3	30,4	32,6	29,2	17,9	16,7	17,5
ESPAINIA	33,9	35,4	33,5	12,4	16,7	15,4	7,5	10,9	14,2
FRANTZIA	30,6	30,4	27,6	11,1	10,8	11,4	6,2	6,5	6
KROAZIA	51,7	48,9	46,5	19,6	17,4	8,4	6,6	5,7	5,7
ITALIA	33,8	:	32,7	14,1	:	11,3	11,1	:	8,1
ZIPRE	47,5	44,6	43,4	23,1	18,8	11,2	21	20,9	19,4
LETONIA	49,8	45,6	41,7	16,4	16,3	11,1	8	6	4,9
LITUANIA	46,8	41,8	36,4	20,9	18,5	13,6	26,7	23,1	22,5
LUXENBURGO	16,7	22,5	21,3	3,7	5,2	5,3	2,4	3,6	2,5
HUNGARIA	33	3,7	34,8	18,5	19,1	17,7	5,4	4,2	5,4
MALTA	15,1	16,3	15,7	8,4	8,7	9,8	7,8	7,2	7,8
HERBEHEREAK	21,9	19,1	15,1	6,2	5,5	4,6	3	2,4	2,4
AUSTRIA	18,5	17,6	18,6	5,9	6,3	4,4	1,8	1,5	1,7
POLONIA	29,3	25,7	24,5	9,4	7,1	6,3	4,2	3,2	3,2
PORTUGAL	33	30,8	31,2	15,1	13,5	13,5	18,9	17,5	16,4
ERRUMANIA	44,3	47,3	47,3	27,8	29,3	34,5	9,3	10	10,1
ESLOVENIA	33	29,6	24,6	8,5	8,2	4,8	2,3	2,8	1,7
ESLOVAKIA	30	26,1	:	15,2	12,6	:	7,8	5,7	5,8
FINLANDIA	26,4	25,4	23,5	7	7,6	3,6	1,8	1,8	1,3
SUEDIA	20,5	19,8	18,4	4,7	5	3,5	1,9	2,7	1,7
EAE	25,2	20,2	20,2	8,9*	6,9*	9,3*	5,6	8,1	9,2

Iturria: EUROSTATen eta EINaren datuekin egina.
* Zenbatespena, zenbait alde metodologiko daudelako.

Ildo horretatik, EUROSTATEk **“pribatazio materialaren indizea”** definitu zuen, hain zuzen ere, 1.1.2 atalean baino gastu eta ekipamendu txikiagoen kontzeptuen zerrenda batetik gutxienez hiru baimendu ezin diren etxeetako pertsonen ehunekoak zehazten duena, non gabezia material eta sozial larria aipatzen baita (ikus 7. oin-oharra). Atal horretan, gabezia material “larria” aipatzen da (9tik 4 gutxienez) (ikus 6. orri-oina). Definizio horren arabera, Europako familien

⁷ Honako aldagai hauek aztertzen dira: fakturak garaiz ordaindu ezin izatea, etxebizitza behar bezala berotzea, ustekabeko gastuei aurre egitea, haragia, arraina edo proteina baliokideak bi egunetan behin jatea, urtean astebetetz oporretan egotea, autoa, garbigailua, koloretako telebista edo telefonoa izatea (mugikorrek barne).

% 11,9ak gabezia materiala pairatzen zuen 2021. urtean, eta alde handiak daude herrialdeen artean, gehienbat EBko kide berrien eta gainerakoen artean.

Alde batetik, familien % 5 baino gutxiago daude egoera horretan Suedian, Finlandian, Eslovenian, Austrian, Herbehereetan eta Txekiar Errepublikan, eta gabezia materialaren indizea % 30 ingurukoa da Bulgarian, Grezian eta Errumanian. Iturri horren arabera, Espainiak % 15,4ko ratioa du.

EINak, Bizi-baldintzen Inkestako parte bezala, antzeko adierazle bat kalkulatzen du autonomia erkidegoentzat. Horren arabera, 2021ean, EAEk % 9,3ko gabezia-indizea izango luke, eta Estatuko batez bestekoa % 16,9koa izango litzateke (EUROSTATen arabera, % 15,4). Beraz, bi adierazleak —Europako eta Espainiakoa— konparagarritzat jo litezke, baina zuhurtziaz hartu beharrekoak dira.


Bestalde, gabeziaren beste adierazle bat dago, **“pobrezia energetikoa”** deritzona. Etxe bat energia-pobreziako egoeran dagoela esaten da etxeko beharrak asetzeko adinako energia-kantitatea ordaintzeko gauza ez bada eta/edo, energia-faktura ordaintzeko helburuz, etxeko diru-sarreraren gehiegizko zatia erabili behar badu. Euskal Autonomia Erkidegoan duela gutxi hasi da fenomeno horretan arreta jartzen. Europan, ordea, **“fuel poverty”** deritzona agenda politikoan dute aspalditik hainbat herrialdetan; Erresuma Batuan, Irlandan eta Belgikan, esate baterako.

Europan, EUROSTATen zifrekin, 2021ean etxeen % 6,9ri eragiten dio etxea temperatura egokian mantentzeko ezintasunak (2020an baino 1,3 puntu gutxiago), eta tasa horrek, 2012-2014 aldian % 10etik gorakoa zenak, beheranzko joera du ordutik. Iturri horren arabera, balio-aniztasun handia du arazoak: oso balio handiak dira Bulgarian (% 23,7) edo Lituanian (% 22,5) esaterako, eta % 2tik beherako indizeak Suedian, Eslovenian, Austrian eta Finlandian. Estatuan, EBko batez bestekoa baino handiagoa da arazo horren intzidentzia, % 14,2 (2020an baino +3,3 puntu).

IV.1.10 KOADROA. POBREZIA ENERGETIKOA ESTATUAN: ETXEBIZITZAN TEMPERATURA EGOKIA MANTENDU EZIN DUTEN ETXEEN EHUNEKOA. 2008-2021.

	2008	2017	2018	2019	2020	2021
ESTATUA, GUZTIRA	6,2	8,3	9,6	7,7	11,1	15,2
ANDALUZIA	8,3	8,4	14,6	9,5	11,6	19,3
ARAGOI	2,8	4,4	4,2	4,3	2,1	7,6
ASTURIAS	4,2	18,2	12,0	8,1	10,4	14
BALEAR UHARTEAK	5,1	16,2	11,4	7,6	19,8	15,1
KANARIAR UHARTEAK	3,7	8,7	7,1	6,5	20,4	17,5
KANTABRIA	2,5	4,4	4,8	2,9	4,9	12,4
GAZTELA-MANTXA	3,6	2,6	6,1	6,5	7,1	10,2
GAZTELA ETA LEON	4,7	12,6	14,7	12,7	10,5	17,2
KATALUNIA	5,4	6,1	8,6	8,8	9,8	16,6
VALENTZIAKO ERK.	6,0	9,5	5,1	5,3	13,7	16,8
EXTREMADURA	8,8	11,8	18,7	11,6	12,9	19,1
GALIZIA	9,4	6,8	6,4	6,5	9,8	13,8
MADRIL	7,3	7,9	9,0	7,6	10,8	11,6
MURTZIA	9,8	14,2	16,9	5,2	12,9	21
NAFARROA	2,8	4,8	6,4	9,1	9,5	6,8
EAE	3,4	7,9	6,7	5,6	8,1	9,2
ERRIOXA	4,1	5,7	6,9	3,4	7,3	9,6
CEUTA	9,8	0,0	11,5	4,9	1,8	30,9
MELILLA	17,7	6,3	12,2	6,8	15,4	16,4

Iturria: EIN. Encuesta de Condiciones de Vida.



Bestalde, EINaren Bizi-baldintzen Inkestak erakusten duenez, 2021ean, euskal etxeen % 9,2k ezin zuen etxea temperatura egokian mantendu, eta Estatu mailan, berriz, tasa % 15,2koa zen —% 14,2 EUROSTATen arabera (2021)—. Autonomia-erkidego kaltetuenak Ceuta (% 30,9), Murtzia (% 21), Andaluzia (% 19,3) eta Extremadura (% 19,1) dira, eta

kontrako muturrean daude Errioxa eta Aragoi (% 9,6 eta % 7,6ko intzidentziekin, hurrenez hurren). Aurreko urtearen aldean, EAEko datuak 1,1 puntu egin du behera, eta Estatuko batez bestekoa 4,1 puntu. Eta 2008an gertaturikoa kontuan hartzen badugu, gabezia horren intzidentziak 5,8 egin zuen gora EAEn eta 9 Estatuko batez bestekoa.

Azkenik, gutxienez bi egunetik behin **haragi, oilasko edo arraina jatea** onartu ezin duten etxeen ehunekoa, pobrezia energetikoa bezalaxe, zailtasun ekonomiko eta gabezia handienak dituzten pertsonak adierazten dituzten adierazleak dira, ziurrenik muturreko pobrezia-egoeran daudenak. EAEn, ratio hori % 1 eta % 3,5 artean mugitu da tradizioz (ikusi IV.1.3 grafikoa), baina 2021ean serie historikoaren gehieneko ratioa lortu da, % 4,3, 2020an baino 1,4 puntu gehiago. Estatuko batez bestekoa % 4,7koa da (-0,8 puntu). EBN, gabezia mota horrek etxeen unitateen % 7,3ari eragiten die 2021ean, 2020an baino 8 hamarren gutxiago, Bulgariako % 22,4tik Zipreko % 0,4ra edo Irlandako % 1,6ra bitarteko ratioekin.

1.3. 2020-KO POBREZIAREN ETA GIZARTE-DESPAREKOTASUNEI BURUZKO INKESTAREN (PGDI) EMAITZAK: DESPAREKOTASUN-ADIERAZLEAK

Eusko Jaurlaritzak bi urterik behin egiten du “Pobreziaren eta Gizarte-desparekotasunei buruzko Inkesta” (PGDI), eta horri esker, posible da pobrezia gure gizartean duen intzidentzia, horri eragiten dioten arrisku faktoreak eta banaketa desberdina zein den jakitea. 2020ko Inkestaren emaitza nagusia da, 2016 eta 2018 artean gertatu zen prekaritate-adierazle orokorren okertze orokorrarekin kontrastean, azken biurtekoan hobekuntza (jaitiera) garrantzitsua antzeman dela PGDI adierazle desberdinetan, bai ongizaterik ezari dagokionez, bai pobrezia hertsiaeren arriskuari dagokionez⁸.

IV.1.11 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN PGDI-KO OINARRIZKO ADIERAZLEEN BILAKAERA										
		1996	2000	2004	2008	2012	2014	2016	2018	2020
MANTENTZE-POBREZIA	POBREZIA-ARRISKUA	13,3	7,9	5,6	5,7	7,3	8,2	7,1	8,0	8,0
	ONGIZATERIK EZA	36,3	24,7	21,9	16,4	19,9	21,9	18,4	22,4	19,6
METATZE-POBREZIA	POBREZIA-ARRISKUA	3,6	4,2	3,6	1,5	1,4	2,0	1,6	0,9	0,3
	ONGIZATERIK EZA	25,3	17,2	19,4	18,6	17,5	20,0	17,0	20,2	13,9
BENETAKO POBREZIA	POBREZIA-ARRISKUA	8,7	5,1	4,5	4,2	5,3	5,9	5,7	6,1	5,6
	ONGIZATERIK EZA	16,5	11,0	11,2	8,2	10,1	11,5	10,8	12,5	9,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2020.

2022ko Memoriaren edizio honek 2020ko PGDIaren atala du ardatz, desparekotasun-adierazle nagusien bilakaera aztertzen duena, errentaren banaketaren azterketatik abiatuta. Halaber, azterketa honen emaitzak EUROSTATen (EB-SILC) zenbakiekin erkatuko dira. Horrela, 2018. urteari buruzko informazioa eguneratzen da, 2019ko Memoria Sozioekonomikoan jasotakoa.

PGDI inkestaren 2018ko emaitzen txostenak nabarmentzen zuen 2008an hasitako krisiaren garapenarekin batera desberdintasuna nabarmen handitu zela 2014ra arte, eta 2014 eta 2016 artean enplegua berreskuratu izanak eta egoera ahulenean zeuden kolektiboan emigrazioak lagundu zutela gorakada hori neurri batean murrizten. Ildo positibo hori hautsi egin da 2016 eta 2018 artean; biurteko horretan, desberdintasun-adierazleak areagotu egin dira berriro Euskadin. PGDIaren arabera, 2018 eta 2020 artean desberdintasuna handitu egin da:

IV.1.12 KOADROA. DESPAREKOTASUN-ADIERAZLE NAGUSIEN BILAKAERA EAE-N			
	GINIREN KOEFIZIENTEA	RATIOA S80/S20	% DIRU-SARRERAK % 10 POBREAGO
1996	28,0	4,2	3,68
2000	27,3	4,1	3,55
2004	26,0	3,9	3,76
2008	25,2	3,6	3,88
2012	25,3	3,7	3,75
2014	27,1	4,2	3,41
2016	25,8	3,9	3,48
2018	26,7	4,1	3,35
2020	28,2	4,4	3,18

Iturria: PGDI 2020.

Lehenik eta behin, **Giniren koefizienteak** neurtzen du ekonomia baten barruan gizabanakoen edo etxeen arteko diru-sarreraren banaketa zenbateraino urruntzen den banaketa guttiz ekitatibo batetik; hala, Oko indize batek ekitate perfektua adierazten du, eta 100eko indize batek, berriz, ekitaterik eza

⁸ 2021eko Memoria Sozioekonomikoak zehatz-mehatz aurkeztzen ditu 2020ko PGDIaren emaitza nagusiak.

perfektua. 2012ko 25,3ra arte etengabe jaitsi (hobetu) ondoren, 2014an 27,1era igo zen, eta 2016an berriz ere 25,8ra jaitsi zen. 2018an, goranzko joerari heldu zion berriro eta 26,7ra arte hazi zen. Joera horri eutsi zaio azken biurtekoan, eta 28,2ra iritsi da 2020an (denbora-serieko baliorik altuena).

Europar Batasunean, 2012-2014 aldian desperekotasuna egonkor mantendu zen oro har (30,9ko batez bestekoa ez zen aldatu), eta, beraz, murriztu egin zen herrialde kideetako 11tan, baina berdin jarraitu zuen edo hazi egin zen gainerakoetan (Espainian nabarmen handitu zen, 34,7ra arte). 2016an, EBko batez bestekoa 3 hamarren jaitsi zen; Espainian, berriz, 2 hamarren. 2018an, EBko batez bestekoa 2 hamarren jaitsi (hobetu) zen, 30,6tik 30,4ra, eta Espainiako datua nabarmen jaitsi zen (-1,5 puntu), 33ra arte. 2020an, EBko batez bestekoak hobetzen jarraitu du, 2018an baino 4 hamarren gutxiago (30,4tik 30era). Espainian, hobekuntza 9 hamarrenekoa izan da, 33tik 32,1era jaitsi baita.

Gainerako herrialdeei dagokienez, herrialde gehienetan behera egin du koefizienteak. Ratorik handienak (desberdintasunik handiena) Bulgarian (40), Lituanian (35,1) eta Letonian (34,5) daude; tasarik txikienak, berriz, Eslovakian (20,9), Eslovenian (23,5) eta Txekiar Errepublikan (24,2). Ikusten denez, beraz, EAEko datua (28,2), goranzko joera izan arren, EBko baxuenen artean dago, Herbehereen parean.

IV.1.13 KOADROA. DESPAREKOTASUN-ADIERAZLEEN BILAKAERA EB-N: ALDERAKETA PGDI-KO EAE-RAKO EMAITZEKIN										
	GINIREN KOEFIZIENTEA					S80/S20 RATIOA				
	2008	2014	2016	2018	2020	2008	2014	2016	2018	2020
EB 27	30,9	30,9	30,6	30,4	30	5	5,2	5,2	5,1	4,9
EUROGUNEA	30,5	30,9	30,7	30,6	30,3	4,9	5,2	5,2	5,1	4,9
BELGIKA	27,5	25,9	26,3	25,7	25,4	4,1	3,8	3,8	3,8	3,6
BULGARIA	35,9	35,4	38,3	39,6	40	6,5	6,8	7,9	7,7	8
TXEKIAR ERREPUBLIKA	24,7	25,1	25,1	24	24,2	3,4	3,5	3,5	3,3	3,3
DANIMARKA	25,1	27,7	27,7	27,8	27,3	3,6	4,1	4,1	4,1	4
ALEMANIA	30,2	30,7	29,5	31,1	30,5	4,8	5,1	4,6	5,1	4,9
ESTONIA	30,9	35,6	32,7	30,6	30,5	5	6,5	5,6	5,1	5
IRLANDA	29,9	31,1	29,5	28,9	28,3	4,4	4,9	4,4	4,2	4,1
GREZIA	33,4	34,5	34,3	32,3	31,4	5,9	6,5	6,6	5,5	5,2
ESPAINIA	31,9	34,7	34,5	33	32,1	5,7	6,8	6,6	6	5,8
FRANTZIA	29,8	29,2	29,3	28,5	29,2	4,4	4,3	4,3	4,2	4,4
KROAZIA	28	30,2	29,8	29,7	28,3	4,5	5,1	5	5	4,6
ITALIA	31	32,4	33,1	33,4	32,5	5,1	5,8	6,3	6,1	5,8
ZIPRE	29	34,8	32,1	29,1	29,3	4,3	5,4	4,9	4,3	4,3
LETONIA	37,5	35,5	34,5	35,6	34,5	7,3	6,5	6,2	6,8	6,3
LITUANIA	34,5	35	37,7	36,9	35,1	6,1	6,1	7,1	7,1	6,1
LUXENBURGO	27,7	28,7	31	31,3	31,2	4,1	4,4	5	5,2	5
HUNGARIA	25,2	28,6	28,2	28,7	28	3,6	4,3	4,3	4,4	4,2
MALTA	28,1	27,7	28,5	28,7	30,3	4,3	4	4,2	4,3	4,7
HERBEHEREAK	27,6	26,2	26,9	27,4	28,2	4	3,8	3,9	4,1	4,1
AUSTRIA	27,7	27,6	27,2	26,8	27	4,2	4,1	4,1	4	4,1
POLONIA	32	30,8	29,8	27,8	27,2	5,1	4,9	4,8	4,3	4,1
PORTUGAL	35,8	34,5	33,9	32,1	31,2	6,1	6,2	5,9	5,2	5
ERRUMANIA	36	35	34,7	35,1	33,8	7	7,2	7,2	7,2	6,6
ESLOVENIA	23,4	25	24,4	23,4	23,5	3,4	3,7	3,6	3,4	3,3
ESLOVAKIA	23,7	26,1	24,3	20,9	20,9	3,4	3,9	3,6	3	3
FINLANDIA	26,3	25,6	25,4	25,9	26,5	3,8	3,6	3,6	3,7	3,7
SUEDIA	24	25,4	27,6	27	26,9	3,5	3,9	4,3	4,1	4,1
EAE	25,2	27,1	25,8	26,7	28,2	3,6	4,2	3,9	4,1	4,4

Iturria: EUROSTATen eta EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egindakoa. PGDI 2020.

Bigarrenik, deskribatutako joera antzekoa da EAEko biztanleriaren % 20 aberatsenaren diru-sarrerak % 20 pobreenekin (S80/S20) lotzen dituen zatidura kontuan hartzen bada.


Kasu horretan, indize hori 4,2tik 3,6ra jaitsi zen 1996-2008 aldian, eta 2012an 3,7ra igo zen apur bat, eta nabarmenago 2014an, 4,2ra arte. 2016an 3,9ra jaitsi zen ratio hori, baina 2018an 4,1era igo zen berriro. 2020an gora egiten jarraitu zuen eta 4,4ra iritsi zen (+3 hamarren). Giniren indizea bezala, 2020ko S80/20 ratioak 1996koa (3,6) gainditzen du.

EBn, aitzitik, batez besteko datua nahiko egonkor mantendu da aztertutako urteetan (beti 5 inguruan), eta 4,9ra iritsi da 2020an, 2018an baino bi hamarren gutxiago. Bulgaria (8) da egoera okerreanean dagoen herrialdea (desberdintasunik handiena errentaren banaketan), eta haren atzetik daude Errumania (6,6), Lituania (6,1) eta Letonia (6,3). Italia eta Espainia, biak 5,8rekin, bosgarren postuan daude. Hala ere, nahiz eta Espainiak nabarmen egin zuen okerrera 2008 eta 2014 artean, beharazko joera izan du 2014tik, eta 2020an bi hamarren hobetu da 2018arekin alderatuta (6). Balio txikiak, bestalde, Eslovakian (3), Txekian (3,3) eta Eslovenian (3,3) daude.

EAEk (4,4), Giniren koefizienteak bezalaxe, azken lau-urtekoan okerrera egin arren, aldeko posizioan jarraitzen du, Frantzia edo Zipreren aldean.

Bestalde, aztertutako seriean, dinamika kezkarri bat **biztanleriaren diru-sarreraren guztien zatiari** dagokion adierazleari dagokio, hau da, EAEn **baliabide guztien dituzten pertsonen % 10i**. 2000ko % 3,55etik 2008ko % 3,88ra igo ondoren, adierazlea % 3,41era jaitsi zen 2014an. 2016an % 3,48ra igo ondoren, 2018an 3,35era jaitsi da berriro. 2020an, adierazle horrek beste minimo bat lortu du 1996tik (% 3,2).

Bilakaera hori Europar Batasunean gertaturikoarekin alderatzen badugu, azken bi hamarkadetan, tasak bere horretan jarraitu zuen, % 3 inguruan, EBn, eta 2020an 2,9ra iritsi zen. Espainia % 3an zegoen 2000. urtean, eta 2014ko 1,8ra arte jaisten joan da, baina ordutik 4 hamarren berreskuratu ditu, 2020ko 2,2ko ratoria arte, EAEko 3,2aren oso azpitik.



PGDIaren emaitzetara itzuliz, adierazle horretan EAEn ikusitako okertzea **biztanleriaren dezilen araberako diru-sarreraren bilakaerarekin** lotzen da, **batez besteko diru-sarreraren mailarekin alderatuta**. Horrela, biztanle bakoitzeko batez besteko diru-sarrera arrunt garbiak 2020an 2008koak baino % 6,9 eta % 20,2 handiagoak dira biztanleriaren % 80 ez behartsuenen artean (3 eta 10 arteko dezilak), baina % 20 prekarioagoen dinamika ez da hain positiboa (1 eta 2 dezilak). Errenten bigarren dezilean, diru-sarrera arruntak 2020an 2008koak baino % 2,0 handiagoak besterik ez dira, eta biztanleriaren % 10 behartsuenean, berriz, % 9,2ko jaitsiera erregistratu da, 2018an erregistratutakoa baino 3,2 puntu txikiagoa.

Dinamikarik berrienak (2018 eta 2020 artean) erakusten du, ordea, hobekuntza erlatiboa izan dela diru-sarrerera arruntetan biztanleria-dezil prekarioenetan, % 8,8 eta % 12,4 arteko igoerekin % 30 pobreenen diru-sarreretan (1., 2. eta 3. dezilak). Bestalde, aurreko biurtekoan bezala (2016-2018), errenta-hazkunderik handiena (% 22,6) 10 biztanleri aberatsenari dagokio.

IV.1.14 KOADROA. BATEZ BESTEKO DIRU-SARRERA BALIOKIDEAK PER CAPITA, DIRU-SARREREN DEZILEN ARABERA (HILEKO DIRU-SARRERA GARBI ARRUNTAK). EAE, 2008-2020 ALDIA.								
	2008	2012	2014	2016	2018	2020	Ald. % 18/20	Ald. % 08/20
% 1-10 POBREAGO (D1)	653	601	519	558	544	592	8,8	-9,2
% 10-20 (D2)	930	871	783	862	844	949	12,4	2,0
% 20-30 (D3)	1.104	1.045	968	1.067	1.047	1.180	12,6	6,9
% 30-40 (D4)	1.289	1.224	1.153	1.233	1.238	1.400	13,1	8,6
% 40-50 (D5)	1.461	1.391	1.328	1.404	1.416	1.591	12,4	8,9
% 50-60 (D6)	1.631	1.572	1.500	1.585	1.594	1.798	12,8	10,2
% 60-70 (D7)	1.823	1.760	1.697	1.779	1.779	2.024	13,8	11,0
% 70-80 (D8)	2.055	2.007	1.933	1.981	2.039	2.280	11,8	10,9
% 80-90 (D9)	2.375	2.337	2.276	2.312	2.362	2.688	13,8	13,2
% 10 ABERATSAGO (D10)	3.403	3.140	3.156	3.235	3.335	4.090	22,6	20,2
BATEZ BESTEKOA	1.673	1.595	1.531	1.602	1.621	1.860	14,7	11,2

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. PGDI 2020.

1.4. FAMILIAK ETA LANA, NORBERAREN BIZITZA ETA FAMILIAREN KONTZILIAZIOA

EAEko familia-sistemen tipologia aldaketa nabarmena izan du azken hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa aipagarrienen artean honako hauek daude: etxe moten aniztasun handiagoa, horien batez besteko tamainaren jaitsiera, etxe horietako erreferentziatzeko pertsonen profilean izandako aldaketa garrantzitsuak, etxean adingabeen proportzioaren jaitsiera, mendetasun-egoeren gorakada eta guraso bakarreko familien gizarte-errealitatea, beharrezko bilakaeran bada ere, mantentzea.

EINaren "Encuesta Continua de Hogares" (Familien Etengabeko Inkesta) inkestak erakusten duenez, EAEk 911.100 etxe zituen 2020an (azken datua) (Estatuko familien % 4,9) 2019an baino % 0,4 gehiago; horietatik % 30,3 seme-alabadun bikoteek osatzen dute, % 28,2 pertsona bakarrik, eta % 22,6 seme-alabarik gabeko bikoteek. Batez besteko tamaina 2,37 pertsonakoa da etxeak, Estatuko 2,50ekoa baino txikiagoa. Euskadi etxeak kide gutxien dituen hirugarren autonomia-erkidegoa da, Asturiasekin (2,20) eta Gaztela eta Leonekin (2,29) batera.

Eusko Jaurlaritzaren "Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategiak" (2022), zeinaren edukia xehetasunez aztertzen baita memoria honen "I. Demografia EAEn" kapituluak, agerian uzten du izan den seme-alaben benetako kopurua ez dela egokitzen idealarekin, % 52k baitote eduki nahiko lituzkeen edo nahiko lituzkeen baino seme-alaba gutxiago izan dituela. 18 eta 29 urte bitarteko artean, ehuneko hori % 81era iristen da, eta % 54k etorkizunean izatea espero du. Hala ere, gurasotasunari uko egiten dioten jarrerak gora egin du; izan ere, 0 seme-alaba izatea gustatuko litzaiekeela dioten biztanleen ehuneko 10 puntu hazi da sei urtean (% 15ekoa izan zen 2022an).

Lehenengo semea edo alaba izateko adinik egokienari dagokionez, jasotako erantzun guztien batez bestekoa 28 urtekoa da. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeek batez beste 32,6 urterekin dute lehen semea edo alaba.


Gazteen emantzipazioari dagokionez, txostenak agerian uzten du nahi baino 5 urte beranduago egiten dela; izan ere, euskaldunen iritziz, emantzipatzeko batez besteko adin egokiena 25 urte dira. Hala ere, euskal gazteen emantzipatzeko batez besteko adina 30,2 urtekoa da.

Azkenik, Estrategiak agerian uzten du erronka demografikoa lehentasuna dela euskaldunentzat, eta arazo demografikoak garrantzitsuenetakotzat jotzen dira, 10etik 7ko "larritasun" eskalan, "gizarte-desparekotasunen eta pobrezia" atzean (7,1).

1.4.1. Kontziliazio-premiak

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko adin egokiak eta lanean hasteko eta laneko promoziorako adinak bat datoz eta horrek oso egoera zailean kokatzen ditu emakume gazteak ondorengoak edukitzeko erabakiari dagokionez. Ama izan nahi duten gehienek enpleguarekin bateragarri egin nahi dute, eta gero eta familia gehiagotan daude biek lan egiten duten 15 urtetik beherako seme-alabak dituztenak.

Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen "Familia 2020" txostenaren emaitzen arabera, elkarriketatutako pertsonen % 51en ustez, ondorengoak izateak nabarmen eragozten du emakumearen ibilbide profesionala (% 44 2016an), eta % 22aren ustez, "asko" eragozten du (% 26 2016an). Gizonen kasuan, berriz, galdetutako pertsonen % 12k soilik ikusten ditu oztopo asko edo dezente ibilbide profesionalan seme-alabak izateagatik (% 13, 2016ko inkestan).



2018an, Europar Batasunean bizi ziren 18 eta 64 arteko 308 milioi pertsonetatik, % 34k (106 milioi) zainketa-erantzukizunak aitortzen zituzten (EUROSTAT, Lan-indarraren Inkestan 2018ko modulua). Erantzukizun horiek 15 urtetik beherakoak (% 29), mendeko senideak (% 4) edo biak (% 1) zaintzea eskatzen zuten. Sexuaren arabera, tasa % 37koa zen emakumeentzat eta % 32koa gizonentzat, eta aipatutako hiru kategorietan alde hori mantendu zen. Egoera horiek arazo berriak sortu dituzte bizikidetzaren barruan, ordaindutako lana eta familia-zainketa uztartzeko premiaren inguruan; hala, adibidez, adingabeak zaintzeko erantzukizuna duten EBko soldatapekoen % 27k beren lanak egokitu behar izan dituzte enplegua eta zaintza bateragarri egiteko (lanaldi-murrizketak, enplegu- edo zeregin-aldaketak eta abar), sexuaren araberrako arrakala oso handiarekin: emakume langileen % 39 eta gizonen % 17 (EUROSTAT, 2018). Horregatik guztiagatik, herritarrek familia-bizitza beren konpromiso pertsonalekin eta lan-bizitza uztartu ahal izatea gizarte-politikari buruzko eztabaidaren zati nagusi bihurtu da.

Bestalde, EUSTATEk EAEn bizi diren familia okupatuek beren lan-bizitza familiakoarekin eta bizitza pertsonalarekin bateragarri egiteko dituzten aukerak ikertzen ditu 2010az geroztik, "Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestan" bitartez.

2021eko emaitzek lehendabizi nabarmentzen dute 2021ean EAEn lan egiten ari ziren pertsonen zailtasun ertaina (4,1/10) aitortu zutela lana eta ondorengo zainketa bateratzeko, eta zertxobait handiagoa (4,4/10) seme-alabak adingabeak artatzeko. Ez zegoen alde handirik sexuen artean mendetasuna duten pertsonak zaintzeari dagokionez. Bai, ordea, seme-alaba adingabeak zaintzeari dagokionez: emakumeentzat zailtasuna 4,1ekoa zen, eta gizonentzat, 4,6koa.

Bestalde, etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonen baino % 40 ordu gehiago ematen dituzte seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 57 gehiago mendetasuna duten pertsonak zaintzen. Horrez gain, % 31 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan, gizonen baino. Gizonen 3,5 ordu ematen dituzte egunero adingabeak zaintzen (3,4 ordu 2020an); emakumeek, berriz, 4,9 (4,6 2020an). Alde hori dezente handiagoa da mendetasuna duten pertsonen zaintzari dagokionez; jarduera horretan egunean 1,4 ordu ematen dituzte gizonen (2020an 1,6) eta 2,2 ordu emakumeek (2020an 2,3). Gainera, emakumezkoek, batez beste, 2,1 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, gizonzkoek, aldiz, 1,6 ordu (2,2 eta 1,6, hurrenez hurren, 2020an). Batez besteko horiek batuz, emakumeek etxeko lanetan eta zainketa lanetan emandako denbora, guztira, 9,2 ordu dira, gizonen 6,5 orduen aurrean. Beraz, arrakala % 41,5ekoa da. Ratio hori % 37,9koa zen 2020an; beraz, arrakala hori handitu egin da.


IV.1.15 KOADROA. BIZTANLERIA LANDUNAK ETXKO LANETAN EGUNEAN EMANDAKO ORDUAK, EZAUGARRIEN ARABERA. ARRAKALA-EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA. EAE. 2020-2021.

	2020				2021			
	GUZTIR A	GIZONA K	EMAKUMEA K	% ARRAKAL A	GUZTIR A	GIZONA K	EMAKUMEA K	% ARRAKAL A
ETXKO LANAK	1,9	1,6	2,2	% 37,5	1,8	1,6	2,1	% 31,0
SEME-ALABA ADINGABEEN ZAINKETA	4	3,4	4,6	% 35,3	4,2	3,5	4,9	% 40,0
MENDEKOTASUNA DUTEN PERTSONEN ZAINKETA	2	1,6	2,3	% 43,8	1,8	1,4	2,2	% 57,0
GUZTIRA	7,9	6,6	9,1	% 37,9	7,8	6,5	9,2	% 41,5

Iturria: EUSTATen datuekin egindakoa (Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta).

Bere gain hartutako kargen desberdintasun horrek etxeko lanen banaketarekiko gogobetetze-mailari eragiten dio; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 6,1eko gogobetetze-maila adierazten dute beren ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko eskaintzen duen lankidetzari buruz, eta gizonen 7,5ekoa.

IV.1.6 GRAFIKOA. BIZTANLERIA LANDUNAK KONTZILIAZIO-ALDERDIETAN EMANDAKO DENBORAREKIN DUEN GOGOBEETZE-MAILA, SEXUAREN ARABERA. EAE, 2021.




Iturria: EUSTAT. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta, 2021.

Kontziliazio-alderdiei dagokionez, seme-alaba adingabeak zaintzeko denborarekiko batez besteko gogobetetze-maila 6,6koa da, eta handiagoa emakumeen artean (6,8 puntu; gizonen artean 6,4). Gogobetetze hori txikiagoa da, bai gizonen artean, bai emakumeen artean, mendetasuna duten pertsonak zaintzeari dagokionez (batez besteko maila 6 da, emakumeen artean 6,2 eta gizonen artean 5,8). Bizitza pertsonalerako (aisia, ikasketak, gizarte-bizitza) duten denborari dagokionez, batez besteko gogobetetze-maila 5,9koa da, eta txikiagoa emakumeentzat (5,7 emakume eta 6,1 gizon).

Enpresan edo erakunde baimen jakin batzuk eskatzeko zailtasunari dagokionez, datuek erakusten dute zailtasun horiek areagotu egin direla 2017ra arte, eta harrezkero murrizten ari direla aztertutako aldagai gehienetan.

EUSTATen inkestaren arabera, landunek, batez beste, 10etik 3,3ko zailtasun-maila dute (2010ean 2,6koa), eta, 2,4koa, zehazki, norberaren arazoak konpontzeko lanetik irteteko baimena lortzeko (2010ean 1,4koa). Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea errazteko neurrien artean, eszedentziek 3,9ko batez besteko zailtasuna dute (3,2koa 2010ean), lanaldi-murrizketak ere 3,9ko zailtasuna (3,2koa 2010ean), eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 10etik 3,1eko zailtasun-indizea dute (2,4koa 2010ean).



2020arekiko aldaketei dagokienez, 2021ean zailtasunek behera egin dute apur bat, eta, oro har, 2018an hasi ziren. Horrek joera aldatzea ekar lezake, adierazitako aldagaietan (ikusi IV.1.12 grafikoa). Zailtasun horietan ez da antzeman sexuaren araberako desberdintasunik, eta adinak, ziur aski lanpostuko antzinatasunari lotuak, aipatutako uztartze-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeen artean gizonen artean baino beldur handiagoa dago uztartzearekin lotutako zenbait alderdik beren ibilbide profesionalean izan dezaketen eragin negatiboa dela eta (emakumeen % 30,5ek uste zuten hori, eta gizonen artean, berriz, % 26,5ek, 202an) (eskuragarri dagoen azken datua).

Horren isla da gizonen neurri horietan (eszedentzien eta lanaldi-murrizketen eskaerak) izan duten parte-hartze baxua, eta, gainera, ez da modu esanguratsuan aldatu azken urteotan. Hala, Eusko Jaurlaritzari adingabeak zaintzeko lan-eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko egindako laguntza-eskaeren % 11,2 soilik sinatu zituzten gizonen 2020an. Gauza bera esan litzake mendeko senideak zaintzeko laguntzei dagokienez. Hala ere, horietan, gizonen parte-hartze ratioetan zertxobait handiagoak dira (eskaeren % 15,5 2020an), Eusko Jaurlaritzaren datuekin, Legebiltzarrari egindako txosten batean (eskuragarri dagoen azken datua).

Arrakala hori Europar Batasun osoan gertatzen da; izan ere, EUROSTATEk adierazten du, batez beste, 2018an zainketa-lanak bateratzeko lanaldia murriztu zuten langileen % 18 baino ez zirela gizonak (% 82 emakumeak), baina herrialdeen arteko aldeak oso nabarmenak dira (gizonen % 42 Finlandian, alderdi horretan herrialde berdinezaleena; Txekian, aldiz, % 3,2 baino ez).


Ordutegi-motei eta malgutasunari dagokienez, EUSTATen Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestaren arabera, 2021ean, EAEko langileen % 21,4k ia egunero luzatu behar dute lanaldia (eta % 17,9k batzuetan). 2020. urteari dagokionez, lanaldia normalean edo noizbehinka luzatu behar duten pertsonen ehunekoa pixka bat murriztu da.

Ildo beretik, EUROSTATEk "Antolaketari eta lanaldiari" buruz egindako inkestaren arabera, 2019an, EBko langileen % 21ek, astean behin, lanaldia egokitu behar zuten beren enpleguaren eskakizunetara eta % 19 baino gehiagok hilean behin (ratioak % 13 eta % 10 dira Espainian, hurrenez hurren) (eskuragarri zeuden azken datuak).

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestaren arabera, irteera-ordutegi malgua, uztartzea hobetzeko tresna osagarria, EAEko langileen % 47,1k baliatzen dute (% 32,6k 2020an), eta neurri txikiagoan emakumeek (% 43,3) gizonek baino (% 50,6). Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, % 10,3k lantzean behin egiten du lan etxean eta % 8,4k egun erdia gutxienez (2020an baino 2,4 puntu gutxiago). Oro har, beraz, enplegua duten pertsonen % 18,7k noizean behin edo maizago lan egiten du etxean (% 18,1 2020an eta % 15,5 2019an), eta ziur asko COVID-19ak eragin dio ratio horri⁹. Hala ere, etxetik gutxienez egunen erdia lan egiten duten pertsonen ratioak behera egin du 2020arekin alderatuta, ziurrenik COVID-19aren ostean aurrez aurreko modalitatean lan egitera itzuli direlako.

2010az geroztik, langileek beren lanaldiarekiko duten gogobetetasuna eta ordutegi-malgutasuna ia ez dira aldatu lehenengo kasuan, eta zertxobait hobetu da bigarrenean, eta, aldi berean, sexuaren arabera oso txikiak dira. Gizonen artean, lanaldiari dagokionez, batez besteko gogobetetze-maila 2010eko 10etik 7koa izatetik 2020ko 7,1ekoa izatera igaro da, eta ordutegiaren malgutasunari dagokionez, handitu egin da (6,2 eta 6,6 artean). Emakumeen kasuan, lanaldiari buruzko gogobetetzea 7,2tik 7,4ra igaro da; ordutegiaren malgutasunari dagokionez, berriz, gogobetetzea txikiagoa zen seriearen hasieran, baina handitu egin da azken urtean gizonenarekin ia berdindu arte: 2010eko 5,9tik 2021eko 6,4ra. 2020arekin alderatuta, datuak ez dira nabarmen aldatu.

IV.1.8 GRAFIKOA. LANALDIAREN BATEZ BESTEKO GOGOBEETZE-MAILAREN (10ETIK) BILAKAERA ETA KONTZILIAZIORAKO ORDUTEGI-MALGUTASUNA, SEXUAREN ARABERA. EAE.



Iturria: EUSTAT. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta. Datu-bankua.

Baldintza horien ondorioz, bikoteko bi kideek lan egiten duten etxeetan, adingabeen zainketa lanaldian eta eskola-orduetatik kanpo egiten duten pertsonen % 35,7 senideak edo ordainsaririk gabeko pertsonak dira; kasuen % 42,7an, berriz, bikoteko kide batek edo biek egiten dute, eta kasuen % 3,9an, berriz, ordaindutako beste pertsona batzuek. Bestalde, mendetasuna duten pertsonak lanaldian zaintzen dituzten pertsonen % 51,2 ordaindu gabeko senideak dira, % 24,7 ordainsaria duten beste pertsona batzuk eta % 18an gizarte-zerbitzuak.

Adingabeak zaintzeari dagokionez, aitona-amonek funtsezko zeregina dute: "Familia 2020" inkestari buruzko txostenak adierazten duenez, bilobak dituzten pertsonen (laginaren % 23) galdetuta, % 18k adierazi dute egunero zaintzen dituztela (% 20 2016an) eta % 19k astean behin baino gehiagotan (%23 2016an). % 22ak hilean zenbait alditan zaintzen ditu (% 10ak 2016an). Bilobak zaindu ohi dituzte adineko pertsonen % 59k (duela 4 urte baino 6 puntu gehiago, baina intentsitate txikiagoarekin), eta lan hori zama eramangarria da adineko pertsonentzat (1,4, 0tik —ez da inola ere karga bat— 10era —karga zaila da— bitarteko eskalan), 2016ko 2tik beherakoa.

⁹ Ikusi "III. Enplegua eta lan-harremanak EAEn" kapituluari dagokion atala, memoria honetan.

Era berean, familia-ingurunean mendetasuna duten adineko pertsonen zaintzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen 2018ko "Adinekoak" txostenaren arabera, gizonen % 59k eta emakumeen % 61ek uste dute, aurreko belaunaldiekin alderatuta, adineko aitek eta amek arreta okerragoa dutela gaur egun, eta balorazio hori, gainera, oso antzekoa da adin-talde guztietan (kasu guztietan % 50etik gorako ratioekin).

1.4.2. Familiei laguntzeko politika publikoak

Deskribatutako egoerak arintzeko, Eusko Jaurlaritzak 2002tik aurrera Familiei Laguntzeko Planak jarri zituen abian, familiei seme-alaben kopurua askatasunez erabakitzea eragozten dieten oztopo ekonomikoak eta soziolaboralak gainditzeko, eta 2008an Familiei Laguntzeko Legea onartu zuen, familia-politika integralaren esparruari eta oinarriei maila juridiko handiagoa emateko.

Familiantzako zuzeneko laguntzak 2002an hasi ziren, I. Familia Planarekin. Orduetik 2015era arte, kalkulatu da laguntza horien gastu globala 640 milioi eurotik gorakoa izan zela, % 50 inguru, jaiotza, adopzio edo adopzio aurreko harreragatiko zuzeneko laguntzen eta kontziliaziorako laguntzen artean banatuta.

2011n, "EAEko Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana (2011-2015)" jarri zen abian, eta 674,6 milioi euroko aurrekontu zenbatetsiarekin, aurreko biekiko bilakaera bat lortu nahi zen, familia-politiken zeharkako ikuspegi baterantz, haien sailen eta erakundeen arteko lana indartuz. Lehendik dauden neurriak nahiz neurri berriak modu koherentean ordenatu nahi ditu, printzipio honen inspirazioarekin: lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea familiako eta gizartearen kide guztiei dagokie, denok baitauek erantzukizun maila handiago edo txikiagoa.

Horren garapenaren emaitza gisa¹⁰, planaren indarraldian 133,3 milioi euro bideratu ziren seme-alaben jaiotzagatiko eta mantenuagatiko laguntzetara; guztira 157.738 espediente. Kontziliazio-laguntzek, bestalde, 136,3 milioi euroko gastua eragin zuten, eta guztira 97.086 onuradun. Bai espedienteek dagokienez, bai gastuari dagokienez, % 96 adingabeak zaintzeko kontziliazio-laguntzei dagokie, eta, beraz, beste bi ildoetan (mendetasuna duten pertsonak zaintzeko kontziliazio-laguntzak eta zaintzaileak kontratatuzko laguntzak) presentzia gutxieneko da. Laburbilduz, aztertutako familiantzako laguntzen bi ildoetan, 2011-2015 aldian, 270 milioi euroko gastua izan da, gutxi gorabehera % 50a bakoitzean.

III. Planaren ebaluazioa familia-politikei buruzko hausnarketarako abiapuntu izan zen, plan berri bat egiteko. 2017an, Familiaren Euskal Kontseiluak "Familia eta Haurren Ituna" adostu zuen, EAEko administrazio guztiek sinatua 2018an. Itun hori diagnostiko partekatutako batean¹¹ oinarritzen da, eta, horri esker, "2018-2022 Familiei laguntzeko IV. plana" definitu ahal izan zen, inplikaturako eragile adostasunetik abiatuta, eta ondoren 18 helburutan eta 116 ekintzatan¹² garatutako 5 ardatz identifikatu ziren. Ardatzak honako hauek ziren:

- i. Gazteen emantzipazioa eta familia berrien eraketa erraztea.
- ii. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea erraztea, bai eta emakumeek eta gizonek seme-alabak zaintzeko lanetan duten baterako erantzukizuna ere.
- iii. Familiei laguntzea.
- iv. Haurren eta nerabeen ongizatea sustatzea.
- v. Familien eta haurren aldeko politiken lidergoa eta gobernantza bultzatzea.


¹⁰ III. Familia Planaren balantzeari buruzko xehetasun gehiago emateko, 2017ko Memoria Sozioekonomikora jo behar du irakurleak.

¹¹ Diagnostiko hori zehazteko, memoria honen 2019ko ediziora jo behar da.

¹² Plan honi buruzko xehetasun gehiago izateko, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren webgunera jo behar da: http://www.euskadi.eus/contenidos/plan_departamental/20_plandep_xileg/es_def/adjuntos/IV%20Plan%20Interinstitucional%20de%20Apoio%20a%20las%20Familias%20de%20la%20CAE%202018_2022

Plan horren garapenak 460 milioi euroko gastua aurreikusi zuen 2018 eta 2022 artean Gizarte Politiketako Sailburuordetzaren neurrietan, batez ere kontziliazioaren arloan (286 milioi euro), eta horiei 785 milioi gehitu behar zaizkie seme-alabak dituzten familientzako errentak bermatzeko politiketan eta gazteen enplegu-programetan. Halaber, 220 milioi bideratzea aurreikusi zen Haurreskolen Partzuegorako, 250 milioi beketarako, 50 milioi gehiago gazteentzako etxebizitza politiketarako, 1.575 milioi seme-alaben ziozko zerga-kenkarietarako eta 415 milioi euro Gizarte Zerbitzuetan.

2016-2022 aldiari dagokionez, ekitaldi horietako "EAEko Sektore Publikoaren Urteko Kontuen" aurrekontu-betearazpenari buruzko zifrak daude, zehazki Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren 3124 Programari (*Familia eta Komunitate Politika*) dagozkionak. Azken sei urteetan 325,5 milioi euro bideratu dira familientzako laguntzetara, eta berriz ere % 50 inguru banatu dira seme-alabak dituzten familientzako laguntzen eta kontziliaziorako laguntzen artean.



2022an, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak 44,6 milioi euro bideratu zituela guztira familientzako transferentzia horietara, 2021ean baino % 11,4 gutxiago; horietatik 22,9 milioi seme-alabak dituzten familientzako laguntzetarako (guztizkoaren % 51,4) eta 21,7 milioi uztartzeko laguntzetarako (guztizkoaren % 48,6).

IV.1.16 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN FAMILIEI LAGUNTZEKO POLITIKA: FAMILIEI EGINDAKO TRANSFERENTZIEN BILAKAERA, PROGRAMEN ARABERA. EUROTAN.

		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
SEME-ALABAK DITUZTEN FAMILIENTZAKO LAGUNTZAK	30/2015 DEKRETUA	24.928.600	25.706.450	24.209.000	26.607.117	14.890.100	21.960.800	22.878.400
	255/2006 DEKRETUA	1.471.200	65.500	32.300	400	-	-	-
	176/2002 ETA 109/2006 DEKRETUAK	5.400	-	900	-	-	-	-
	GUZTIRA	26.405.200	25.771.950	24.242.200	26.607.517	14.890.100	21.960.800	22.878.400
	ADINGABEAK ZAINTEKO	28.278.185	23.056.734	23.260.936	20.071.769	13.387.599	22.523.077	19.489.037
KONTZILIAZIORAKO LAGUNTZAK	3 URTEK BEHERAKO SEME-ALABENTZAKO ZAINTZAILEEK KONTRATATZEKO	326.813	210.167	262.255	270.092	216.630	455.156	295.261
	MENDEKATASUNA DUTEN PERTSONAK ZAINTEKO	711.927	644.937	657.260	671.297	511.517	975.618	895.025
	AMATASUN-LIZENTZIA BALIATZEN EZ DUTEN GURASOAK	-	-	-	-	116.496	4.411.822	716.444
	3 ETA 13 URTE ARTEKO SEME-ALABENTZAKO ZAINTZAILEEK KONTRATATZEKO	-	-	-	-	-	-	336.598
	GUZTIRA	29.316.925	23.911.838	24.180.451	21.013.158	14.232.243	28.365.673	21.732.365
LAGUNTZAK, GUZTIRA	55.722.125	49.683.788	48.422.650	47.620.675	29.122.343	50.326.473	44.610.765	

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Aurrekontuaren betearazpena. Aitorutako obligazioak. Guk egindakoa.

Bestalde, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak 2021eko maiatzean, Eusko Legebiltzarrak hala eskatuta, landutako informazioan oinarrituta, 2018-2020 aldian seme-alabak dituzten familientzako laguntzen eta kontziliaziorako laguntzen onuradun izan diren pertsonen (familien) kopuruaren berri izan dugu (ikus iturriak).

Txosten horren arabera, 2018-2020 aldian 127.820 familiak jaso zituzten laguntza horiek, eta horietatik % 67k seme-alabengatiko laguntzak jaso zituzten. Era berean, % 31,3k gurasoetako batek seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketagatik edo eszedentziagatik egin zuten, eta % 1ak mendetasuna duten senideak zaintzeagatik.

2020an, datuak eskuragarri dauden azken urtean, familia onuradunak 39.251 izan ziren, 2019an baino % 12,2 gutxiago, eta laguntza moten araberrako banaketa 2018-2020 aldirako bera da.

1.5. EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNA EAE-N: GENERO-BERDINTASUNAREN INDIZEA 2022

Genero-berdintasunaren Indizea (GBI) adierazle sintetiko bat da, eta gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunak laburbiltzen ditu, horien ongizatean eta garapen pertsonalean eragina duten zenbait alderditan.

IV.1.17 KOADROA. GENERO-BERDINTASUNAREN INDIZEA: EAE-EB 28/EB-27-ESPAINIA ALDERAKETAREN BILAKAERA, KATEGORIEN ARABERA												
	2010			2015			2017			2019		
	EAE	EB-28	ESPAINIA	EAE	EB-28	ESPAINIA	EAE	EB-28	ESPAINIA	EAE	EB-27	ESPAINIA
GENERO-BERDINTASUNAREN INDIZEA	68,8	65	67,4	69,3	66,2	68,3	71,1	67,4	70,1	73,1	68,0	73,7
1. ENPLEGUA	70,3	71	72,3	72,2	71,5	72,4	72,5	72	72,9	74,6	71,6	73,7
Parte-hartzea	76,7	78,7	77,5	80,6	79,8	78	81,9	80,9	79,1	83,0	81,3	80,2
Banantzea eta kalitatean lanean	64,4	64	67,4	64,7	64	67,3	64,1	64	67,1	67,1	63,1	67,8
2. DIRUA	83,1	78,4	76	84,5	79,6	75,9	83,7	81,4	76,7	85,4	82,4	78,4
Finantza-baliabideak	73,6	70	69,9	76,1	73	71	76,5	73,8	72,2	80,7	76,9	73,5
Egoera ekonomikoa	93,8	87,9	82,9	93,9	86,7	81,2	91,5	87,7	81,4	90,3	88,3	83,7
3. EZAGUTZA	61,2	62,8	64,2	63,9	63,4	65,3	65,2	63,5	67,4	65,6	62,7	67,9
Lorpena eta parte-hartzea	70,6	70,4	73	70,8	72,1	73,3	73,1	72,8	76	74,8	72,5	76,4
Banantzea	53	56,1	56,6	57,7	55,6	58,1	58,2	55,4	59,7	57,6	54,1	60,3
4. DENBORA	73,4	68,9	65,8	70,7	65,7	64	72,4	65,7	64	74,1	64,9	64,0
Zaintzekin lotutako jarduerak	88,7	72,6	71,4	89,3	70	74,5	88,4	70	74,5	93,7	69,1	74,5
Gizarte-jarduerak	60,8	65,4	60,6	56	61,6	55	59,3	61,6	55	58,5	61,0	55,0
5. BOTEREA	54,3	43,5	52,9	52,9	48,5	57	58	51,9	62	62,7	55,0	76,9
Botere publikoa	81,7	48,3	69,7	80,4	52,7	72,3	87,7	55	76,8	96,7	58,5	86,5
Botere ekonomikoa	38,6	31,8	35,8	36,3	39,5	43,5	41,3	43,6	53,4	45,1	48,8	70,1
Gizarte-boterea	50,7	53,7	59,2	50,7	55	58,9	53,9	58,2	58,1	56,5	58,2	75,1
6. OSASUNA	91,3	87,2	89,1	90,9	87,4	89,6	92,4	88,1	90,1	92,4	87,8	90,3
Osasun-egoera	97	91,1	93,6	96,2	91,2	93,2	97,3	92,2	94,1	97,2	92,1	95,2
Jokabide osasuntsua	80,6	75,4	78,6	80,6	75,4	78,6	81,3	75,4	78,6	81,3	74,8	78,6
Osasunerako sarbidea	97,4	96,5	96,2	96,8	97,1	98,3	99,8	98,3	98,9	99,8	98,2	98,6


Iturria: EUSTAT. EGITURAZKO ADIERAZLEAK. Genero-berdintasunaren indizea 2022.

EAEra, EUSTATEk kalkulatu du, [“Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren” \(EIGE\)](#) metodologia erabiliz, bai eta erakunde horrek Europar Batasuneko 27 herrialdeei buruz emandako informazioa erabiliz ere. Metodologia horren aplikazioak, beraz, EAEn genero-berdintasunean egindako aurrerapenak EBko herrialdeek eskaintzen duten erreferentziarekin alderatzeko aukera ematen du.

Adierazle sintetikoa da, eta eskala adimentsionalean laburbiltzen ditu gizonen eta emakumeen ongizatean eta garapen pertsonalean eragina duten zenbait alderditan oraindik ere gizonen eta emakumeen artean dauden desparekotasunak. Osaerari dagokionez, 31 adierazlek hartzen dute parte, sei dimentsiotan egituratuta, eta 14 azpidimentsiotan¹³ banatzen dira, IV.1.17 koadroan ikus daitekeen bezala. Hona hemen neurtzea horren emaitza nagusiak:

¹³ Adierazle eta iturrien xehetasunerako, memoria honen Glosariora jo behar da.

- EAEko GBI 2022 73,1 puntutan dago 100etik (2019ko datuak). Aurreko neurketan bezala (2017ko datuak), EB-27ko batez bestekoak baino puntuazio hobea lortu du aztertzen diren dimentsio guztietan. Gainera, baliorik altuenak, Euskadin, osasunaren, diruaren eta enpleguaren dimentsioetan lortzen dira, eta baxuena, berriz, boterean.
- Aztertutako aldiaren (2010-2019), EAEko GBlaren bilakaera positiboa izan da: 68,8 puntu lortu zituen 2010ean, 69,1 2012an, 69,3 2015ean, 71,1 2017an eta 73,1 2019an. Gainera, genero-berdintasunaren adierazleak hobetu egin dira arlo guztietan, batez ere Ezagutzaren arloan, adierazleak 4,4 puntu irabazi baititu. Boterearen dimentsioan ere hobekuntza bat dago; izan ere, aurrerapena 8,4 puntukoa da, 62,7ra iritsi arte. Botere politikoaren azpidimentsioa nabarmentzen da, 15 puntu hobetu baitu, 96,7ra iritsi arte. Denboraren arloari dagokionez, 74,1 puntu lortu ditu, 2010ean baino 0,7 puntu gehiago. Hobekuntza hori, batez ere, zainketekin lotutako jardueren hobekuntzari zor zaio, 2010ean 88,7 puntu izatetik 2019an 93,7 izatera igaro baita.




- Europako alderaketa: EAE Suedia, Danimarka, Herbehereak, Frantzia, Finlandia, Espainia eta Irlandaren atzetik dago, baina Europar Batasuneko gainerako 20 kideen aurretik, bai eta Europako batez bestekoaren aurretik ere.
- Espainiako GBl a EAEkoa baino altuagoa zen 2017an; lehen aldiz 2010az geroztik (0,6 puntu gehiago). Hala ere, Euskadik 2019an Espainiak baino balio altuagoak lortu ditu GBlaren dimentsioen erdia baino gehiagoko adierazle partzialetan: Espainiako emaitzak nasaigo gainditzen dituen dimentsioa Denborarena da, non distantzia 10,1 puntukoa baita, baina Dirua (+7), Osasuna (+2,1) eta Enplegua (+0,9) arloen aurretik ere dago. Aitzitik, desabantailan dago Ezagutzaren (-2,3) eta, batez ere, Boterearen (-7) dimentsioetan, eta, bereziki, Botere sozialaren (-18,6) eta Ekonomiaren (-25) azpidimentsioetan, baina ez, ordea, Botere politikoaren dimentsioan, non EAEk ia 10,2 puntutan gainditzen baitu Estatua.
- Genero-arrakala nulua da osasun-arretaren eta odontologia-arretaren adierazleetan, baina oso handia botere ekonomikoaren adierazleetan.
- Europar Batasunarekiko eta herrialde kideekiko alderaketaz gain, Euskadiren barne-egoera azter daiteke genero-arrakalaren adierazlea erabiliz, hau da, gizonen eta emakumeen artean lehen deskribatutako arloetan dagoen aldea (aztertutako 31 osagaiak, ikusi IV.1.18 koadroa), 0 (erabateko desparekotasuna) eta 1 (erabateko berdintasuna) arteko balioak dituen.

Horrela, egiaztatu daiteke genero-arrakala nulua edo oso txikia dela osasunarekin lotutako osagaietan, hala nola honako hauetan: osasun-arreta eta odontologia-arreta (1,00 bietan), bizitza-urteak osasuntsu (0,99), norberaren osasunaren pertzepzioa (0,97), bizi-itxaropena (0,97) eta tabakoaren eta edari alkoholdunen kontsumoa (0,94). Diru-sarreraren banaketan eta pobrezia-arriskuan ere oso txikia da (0,99 eta 0,98, hurrenez hurren).

Aitzitik, genero-arrakala handiena botere-kategorian dago: Kirol-federazioak (0,34), banku publikoen edo erdipublikoen zuzendaritza (0,40), I+Gko finantzaketa publikoa (0,38), enpresen zuzendaritza (0,49), jarduera-sektoreen araberako bereizketa (0,44) eta ikasketa-arloen araberako banantzea (0,66); horietan generoen araberako aldeak baitaude. Hala ere, 2017. urtearekin alderatuta, botere politikoarekin lotutako osagaiak gora egin dute, batez ere gobernuaren ordezkariarenak (0,77 2017an eta 0,93 2019an).

2010arekin alderatuta, bilakaerak daude zentzu positiboan eta negatiboan, baina honako hauetan izandako hobekuntza nabarmentzen da: informazio-bitarteko publikoetan (0,67tik 0,96ra), enpresa-zuzendaritzan (0,26tik 0,49ra) eta gobernu-ordezkaritzan (0,73tik 0,93ra), eta I+Gko finantzaketa publikoaren adierazleak (0,51tik 0,38ra) eta banku publiko edo erdipublikoaren zuzendaritzan (0,50etik 0,4ra).

IV.1.11 GRAFIKOA. GBI 2019: EUROPAKO ALDERAKETA



Iturria: EUSTAT 2022.

IV.1.18 KOADROA. GENERO-ARRAKALAREN BILAKAERA EAE-N, GENERO-BERDINTASUNAREN INDIZEAREN OSAGAIEN ARABERA								
		2010	2012	2015	2017	2019	DIF. 2019-2010	DIF. 2017-2010
ENPLEGUA	LANALDI OSOKO ENPLEGUA	0,8	0,84	0,82	0,83	0,82	0,02	-0,01
	LAN-BIZITZAREN IRAUPENA	0,9	0,94	0,95	0,96	0,96	0,06	0,00
	BANANTZEA, JARDUERA-SEKTOREEN ARABERA	0,5	0,53	0,53	0,49	0,44	-0,06	-0,05
	LAN-MALGUTASUNA ARRAZOI PERTSONALETARAKO ETA FAMILIARAKO	0,87	0,81	0,83	0,83	0,94	0,07	0,11
	IBILBIDE PROFESIONALA	0,99	0,99	0,99	0,99	0,99	0,00	0,00
DIRUA	SOLDATAK	0,89	0,86	0,88	0,88	0,90	0,01	0,02
	DIRU-SARRERAK	0,97	0,98	0,98	0,97	0,98	0,01	0,01
	POBREZIA-ARRISKUA	0,97	0,98	0,98	0,98	0,98	0,01	0,00
	SOLDATEN BANAKETA	0,98	1	1	0,98	0,99	0,01	0,01
EZAGUTZA	UNIBERTSITATE-IKASKETAK	0,95	0,94	0,95	0,91	0,92	-0,03	0,01
	ETENGABEKO PRESTAKUNTZA	0,98	0,95	0,95	0,99	0,99	0,01	0,00
	BANANTZEA, IKASKETA-ESPARRUAREN ARABERA	0,62	0,62	0,66	0,66	0,66	0,04	0,00
DENBORA	PERTSONEN ZAINKETA	0,83	0,82	0,83	0,86	0,90	0,07	0,04
	ETXEKO JARDUERAK	0,94	0,93	0,95	0,9	0,97	0,03	0,07
	KIROL-, KULTURA- ETA AISIALDI-JARDUERAK	0,93	0,98	0,89	0,94	0,95	0,02	0,01
	BOLUNTARIOTZAKO ETA ONGINTZAKO JARDUERAK	0,94	0,97	0,93	1	0,95	0,01	-0,05
BOTEREA	GOBERNUAREN ORDEZKARITZA	0,73	0,8	0,65	0,77	0,93	0,20	0,16
	PARLAMENTUKO ORDEZKARITZA	0,89	0,9	0,85	0,96	0,99	0,10	0,03
	ORDEZKARITZA LURRALDE-BATZARRETAN	0,82	0,94	0,9	0,9	0,98	0,16	0,08
	ENPRESEN ZUZENDARITZA	0,26	0,27	0,34	0,44	0,49	0,23	0,05
	BANKU PUBLIKO EDO ERDIPUBLIKOETAKO ZUZENDARITZA	0,5	0,43	0,38	0,37	0,40	-0,10	0,03
	FINANTZAKETA PUBLIKOA I+G	0,51	0,51	0,51	0,4	0,38	-0,13	-0,02
	INFORMAZIO-BITARTEKO PUBLIKOAK	0,67	0,67	0,67	0,86	0,96	0,29	0,10
KIROL-FEDERAZIOAK	0,33	0,33	0,33	0,34	0,34	0,01	0,00	
OSASUNA	NORBERAREN OSASUNAREN PERTZEPZIOA	0,98	0,96	0,97	0,97	0,97	-0,01	0,00
	BIZI-ITXAROPENA	0,96	0,96	0,96	0,96	0,97	0,01	0,01
	BIZITZA-URTEAK OSASUNTSU	0,98	0,98	0,98	0,98	0,99	0,01	0,01
	TABAKO- ETA ALKOHOL-KONTSUMOA	0,94	0,94	0,94	0,94	0,94	0,00	0,00
	BIZI-OHITURA OSASUNTSUAK	0,85	0,85	0,85	0,86	0,86	0,01	0,00
	OSASUN-ARRETA	1	1	1	1	1	0,00	0,00
ARRETA ODONTOLOGIKOA	0,98	0,99	0,98	1	1	0,02	0,00	

Iturria: EUSTAT 2022.

ITURRIAK

1. **EUROSTAT (2019):** Lan-indarrari buruzko inkesta 2018. Familia Kontziliazioari buruzko modulua
2. **EUROSTAT (2020):** "Antolaketa eta lanaldia" inkesta 2019
3. **EUROSTAT (2022):** Bizi-baldintzen Inkesta (UE-SILC) 2021
4. **EUSTAT (2022):** Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta 2021
5. **EUSTAT (2022):** Genero-berdintasunaren indizea.
6. **EUSTAT. EGITURAZKO ADIERAZLEAK (2021):** Giza garapenaren indizea 2021 (2020ko datuak).
7. **EUSKO JAURLARITZA (2022).** Erronka Demografikorako 2030 Euskal Estrategia.
8. **EUSKO JAURLARITZA.** Ogasun eta Ekonomia Saila: Aurrekontu-likidazioak. Jarduketan memoriak. Hainbat urte.
9. **EUSKO JAURLARITZA.** Berdintasun, justizia eta gizarte politiketako saila (2018). Familiei Laguntzeko IV. Plana 2018-2022
10. **EUSKO JAURLARITZA.** Berdintasun, justizia eta gizarte politiketako saila (2021): Pobreziaren eta Gizarte-desparekotasunei buruzko Inkestari (PGDI) 2020
11. **EUSKO JAURLARITZA.** Berdintasun, justizia eta gizarte politiketako saila (2021):Elkarrekin Podemos legebiltzar-taldeko kide Isabel González andreak lana eta familia bateragarri egiteko EAEn dauden laguntzen irismenari eta bilakaerari buruz egindako galderaren erantzuna (2021eko ekainaren 23a). Eusko Legebiltzarrak bere webgunean argitaratutako txostena.
12. **EUSKO JAURLARITZA.** Prospekzio Soziologikoen Kabinetea (2018): Adinekoak 2017
13. **EUSKO JAURLARITZA.** PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2020): "*Familia 2020*" Inkesta
14. **INE (2019):** Encuesta de Fecundidad 2018
15. **EIN (2021).** Encuesta Continua de Hogares 2020
16. **EIN (2021):** Encuesta de Condiciones de Vida 2021

2. GIZARTE-BABESA

IV. kapituluko bigarren atal honetan, gure erkidegoko gizarte-babesa osatzen duten eremu nagusien gaineko gainbegirada egingo dugu.

Lehenik eta behin, EAEn gizarte-babesean eginiko gastua azalduko dugu, eta EUSTATEk EBren metodologia jarraituz eginiko kontuak emango ditugu. Kasu honetan, zifrak 2021eko datuen aurrerapen bati buruzkoak direnez, pandemiaren ondorioak antzeman daitezke.

Jarraian, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legearen ondoriozko Gizarte Segurantzaren prestazioak eta pobrezia eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokaren tresnak aztertzen dira. Lege horren tresna nagusia DSBEa da, eta aurten titular hartzaileen kopurua eta gastua pixka bat hazi dira, 2020an behera egin ondoren. Atal hau osatzeko, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerari buruzko informazioa dugu; Estatuaren titulartasuneko prestazio berria da, eta horren agerpena 2020an bizkortu egin zuen COVID-19ak eragindako osasun-krisiak.

Ondoren, Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legetik ondorioztatzen den Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren deskribapena egiten da, bai eta dagokion estatistikaren emaitza nagusiak ere, eta, horrekin batera, EAEn mendetasunari arreta emateko sistema ezartzearen jarraipena egiten da, dagokion estatuko legeak arautua. Amaitzeko, eta memoria honen aurreko edizioetan bezala, Euskadiko gizarte-aurreikuspeneko sistema osagarrien zifra handiak emango dira.

Azkenik, gogorazi nahi dugu Europako Batzordearen 458/2007 Erregelamenduak, gizarte-babesak barne hartzen dituen eremuen sailkapenean, langabeziagatiko prestazioak berariaz barne hartzen dituen arren, horiei buruzko informazioa memoria sozioekonomiko honetako "III. Enplegua eta lan-harremanak EAEn" kapitulura eramatea erabaki dela, enplegu-politiken panorama osoa eskaintzeko, politika aktiboak eta pasiboak batera jorratuz.

2.1. GIZARTE-BABESAREN KONTUA. 2021 AURRERAPENA.


Gizarte-babeserako estatistiken sistema europarrak (SEEPROS) honela definitzen du gizarte-babesa: "arrisku edo behar jakin batzuek etxeentzat eta gizabanakoentzat eragiten dituzten kargak arintzeko erakundeek jarduera guztiak, baldin eta ez badago ez aldi bereko ez elkarrekiko akordiorik, ez eta indibidualik ere¹⁴".

IV.2.1 KOADROA. GASTUA GIZARTE-BABESEAN EAE-N. ADIERAZLE NAGUSIAK.										
	2008	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Ald. 2019/20	Ald. 2020/21 *	Ald. 2008/21
GASTUA GUZTIRA (MILIOIKA EUROTAN)	13.798	17.397	17.835	18.470	19.561	21.464	22.084	9,7	2,9	60,1
GASTUA %-TAN, BPGdARI DAGOKIONEZ	19,8	24,4	24,2	24,0	24,6	29,9	28,3	21,5	-5,4	42,9
GASTUA EUROTAN/BIZTANLEKO	6.402	8.003	8.188	8.456	8.916	9.772	10.085	9,6	3,2	57,5
GASTUA PPC-ETAN BIZTANLEKO	6.744	8.636	8.802	9.022	9.464	9.967	:	5,3		
GASTUA PRESTAZIOETAN (MILIOIKA EUROTAN)	13.500	17.132	17.578	18.221	19.312	21.199	21.815	9,8	2,9	61,6
- GAIXOTASUNA/OSASUN ARRETA	4.168	4.446	4.627	4.740	5.088	5.557	5.952	9,2	7,1	42,8
- ZAHARTZAROA	5.230	7.406	7.685	8.123	8.565	8.843	9.266	3,2	4,8	77,2
- LANGABEZIA	1.027	1.081	999	948	1.027	2.037	1.595	98,3	-21,7	55,3
- BESTELAKO FUNTZIOAK	3.075	4.199	4.267	4.410	4.632	4.762	5.002	2,8	5,0	62,7
GASTUA ERAKUNDE-UNITATEKA										
- GIZ. SEG. ETA ESTATUKO ADMIN. SISTEMA	8.169	10.480	10.815	11.236	11.926	13.380	13.586	12,2	1,5	66,3
- EUSKAL ADMINISTRAZIOAK	4.522	5.676	5.773	5.947	6.285	6.665	7.056	6,0	5,9	56,0
- ERAKUNDE PRIBATUAK	1.108	1.242	1.248	1.287	1.350	1.419	1.442	5,1	1,6	30,1

Iturria: EUSTAT. Gizarte-babesaren kontua EAEn. Guk egindakoa.
** Behin-behineko datuak. ** Diferentzia ehuneko puntuetan.*

¹⁴ Ikusi terminoen glosarioa memoria honen amaieran.

Gizarte-babesaren arloko beste estatistika batzuen aldean, hala nola LANErena, zeinak Gizarte Segurantzako sistemetako erakundeek egindako ekintzak bakarrik barne hartzen baititu, SEEPROS metodologian, behaketa-eremua gizarte-babeseko ekintzak egiten dituen edozein erakundetara zabaltzen da, publikoa zein pribatua, definizio orokorraren baldintzen arabera. Kontzeptua osatzeko, definizioan aipatzen diren arriskuen eta beharren zerranda dago; Funtzioak deritze horiei guztiei. Honako hauek dira: Gaixotasuna / Osasun-arreta, Baliaezintasuna, Zahartzarora, Bizirik irauten dutenak, Familia / Seme-alabak, Langabezia, Etxebizitza, beste inon sailkatuta ez dagoen gizarte-bazterketa.




EUSTATen “EAEko Gizarte-babesaren Kontuaren” azken datuen arabera, 2021ari dagozkionak (behin-behineko datuak), Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabide guztiak 22.084 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2020an baino % 2,9 gehiago (+620 milioi). Kopuru hori urte horretako BPGdaren % 28,3 da (+8,5 puntu 2008aren aldean, eta 2020an baino 1,6 puntu gutxiago). Kasu honetan, kontuan hartu behar da joan den ikasturtean BPGdak izan duen igoera handia.

Gizarte-babeseko gastu osoak etengabe egin du gora denbora serie erabilgarrian, eta biztanleko gastua 6.402 eurokoa izan zen 2008an, eta 10.085 eurokoa 2021ean (+% 57,5).

Administrazio-gastuak kenduta, gizarte-prestazioen zenbatekoa 21.815 milioi eurokoa da, 2020an baino % 2,9 gehiago. Funtzioka egindako gastu horren azterketak erakusten duenez, egoitzako eta etxeko arretako pentsioak eta laguntza-prestazioak barne hartzen dituen “Zahartzarora” funtzioari dagokion zatia da pisurik handiena duena, 9.266 milioi euro, guztizkoaren % 42,5. 2020. urtearekin alderatuta, % 4,8 hazi da, prestazioen batez besteko hazkundera (% 2,9) baino gehiago. Bigarren funtziorik garrantzitsuena “Gaixotasuna/osasun-arreta” da, 2021ean 5.952 milioi euroko gastuarekin, guztizkoaren % 27,3, eta % 7,1 hazi da 2020arekin alderatuta (hala ere, prestazioen multzoa baino gutxiago hazi da). Bien artean, beraz, gizarte-prestazioetako gastuaren % 70 hartzen dute (ikus IV.2.1 grafikoa).

Bestalde, 2021ean langabeziako partidei dagokien kopuruaren murrizketa nabarmendu behar da, ia % 21,7 murriztu baitira. Hori COVID-19aren krisiaren osteko susperraldi ekonomikoari eta Gizarte Segurantzaren afiliatutako langileen kopuruaren igoerari egotzi zaio, dagokion langabeziaren beherakadarekin.

Erakunde-unitateen araberako gizarte-babeseko gastuari dagokionez, Gizarte Segurantzaren sistemak eta Estatuko Administrazioak egiten duten gastua % 61,5 zen 2021ean, eta % 1,5 hazi da aurreko urtearekin alderatuta. Bestalde, euskal administrazioen gastua % 2 da, 7.056 milioi euro; 2020an baino % 5,9 gehiago. Gainerakoa, 1.442 milioi euro, erakunde pribatuek egiten duten gastuari dagokio (+% 1,6).



Amaitzeko, EUROSTATek argitaratutako azken datuekin, 2020an, Euskadiko gizarte-babeseko per capita gastua, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 9.967 eurokoa izan zen, EBko batez bestekoa (9.536 €) baino handiagoa, bai eta Estatuko batez bestekoa (7.230 €) baino handiagoa ere, nahiz eta euroguneko 10.095 € per capita baino txikiagoa izan.

2.2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK¹⁵

2022an, milioi erdi pertsona baino gehiago (527.881, lehen zenbatespenaren arabera) Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen onuradunak izan ziren gure Erkidegoan (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak¹⁶), aurreko urtean baino % 0,5 gehiago. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen kolektiboaren pisuaren eta bilakaeraren ondorio da, gainerako modalitateak, oro har, gutxieneko kopuruetan mantentzen baitira. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen ehuneko % 25,8ra heldu zen, aurreko urtean baino 1,8 puntu gehiago.

IV.2.2 KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN PENTSIOK EAE-N, MOTAREN ARABERA. LABURPEN-TAULA

		2017	2018	2019	2020	2021	2022	% 20/21	% 21/22
ONURADUNAK (URTEKO BATEZ BESTEKOA)	-KOTIZAZIOPEKO P.	494.736	501.398	507.617	509.327	512.782	514.961	0,7	0,4
	-KOTIZAZIO GABEKO P.	11.717	11.846	12.093	12.172	12.581	12.920	3,4	2,7
	GUZTIRA	506.453	513.244	519.710	521.499	525.363	527.881	0,7	0,5
	- BIZTANLEEN %	23,3	23,5	23,7	23,7	24	25,8	+0-3pp	+1-8pp
GASTUA (MILIOIKA EUROTAN)	-KOTIZAZIOPEKO P.*	8665,4	9.111,20	9.597,60	9.835,10	10.279,10	10.718,96	4,5	4,3
	-KOTIZAZIO GABEKO P.	61,2	64,2	67,5	68,9	72,0	84,0	4,5	16,7
	GUZTIRA	8.726,6	9.175,4	9.665,1	9.904,0	10.351,1	10.803,0	4,5	4,4
	- % BPGD	11,6	11,7	12	13,8	13,4	14,1	(-0,4pp)	(+0,7pp)

Iturria: Guk egindako, Inklusio, Gizarte Segurantza eta Migrazio Ministerioaren datuekin. Boletín de Estadísticas Laborales eta ESTADISSaren eta IMSERSOaren datu-baseak.

**_-Kotizaziopeko pentsioen gastua ESTADISSEk argitaratzen dituen pentsio horien urteko nominatik abiatuta zenbatespen da.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (onuradunen % 97,6 eta gastuaren % 99,3), 2022an batez beste 514.961 onuradun daude (+% 0,4), eta 568.500 pentsio jasotzen dituzte (+% 0,5). Izan ere, pertsona batek kotizaziopeko pentsio bat baino gehiago jaso ditzake, eta urteko gastua 10.781,96 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2021ean baino % 4,3

¹⁵ Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak kudeatzen dituen transferitu gabeko Gizarte Segurantzaren prestazioak bi motatakoak dira:

- Kotizaziopekoak, aurretik kotizatu den denboraren eta zenbatekoaren arabera egiten direnak, iraupen zehaztugabea dute eta gizarte-babeseko guztizko gastuaren % 50 inguru dira. Funtsean, baldintza jakin batzuk betez prestazio hori jasotzeko eskubidea sortu duten pertsonen errentak lortzeko jarraitutasuna bermatzeko funtzioa betetzen dute, lan-bizitza iraungitzea eragin dezaketen gertakizunak direla-eta errentak eteten direnean.
- Kotizazio gabekoak, hala nola erretiro- eta baliaezintasun-pentsioak, kotizazio gabeko modalitatean, eta amatasun- eta familia-prestazioak.

¹⁶ Kalkulu horietan ez dira barne hartu laguntza-pentsioak eta Desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Legearen ondoriozkoak, desagertuz joan direnak. Gainera, ez dago informazio eguneraturik. Dena den, guztizkoaren gaineko pisua % 0,4 azpitik dago.

gehiago. Kotizazio gabeko pentsioek, bestalde, 12.920 pertsona estaltzen zituzten 2022an (urteko batez besteko datua), eta 84 milioi euroko gastua sortzen zuten (+% 16,7, 2021. urtearekin alderatuta).

Laburbilduz, EAEn pentsioetan egindako guztizko gastua, 2022an, 10.803 milioi eurora igo zen, behin-behineko datuekin, eta % 4,4ko igoera izan zuen 2021. urtearekin alderatuta. Hala, BPGdari dagokionez, ehunekoa 7 hamarren igo da, % 14,1eraino (EUSTATen behin-behineko datuekin).

2.2.1. Transferitu gabeko kudeaketa duten prestazioak

a) Pentsioen eta onuradunen kopurua

2022an, guztira 514.961 pertsonak jaso zituzten Gizarte Segurantzaren kotizaziopeko pentsioak EAEn, Estatuko guztizkoaren % 5,7 (2020ko eta 2021eko ratio bera) eta aurreko urtean baino % 0,5 gehiago. Sexuaren arabera, ia % 50ean banatzen dira (urteko batez besteko datuan, gizonak % 51,6 dira).

Bestalde, kotizaziopeko pentsioen kopurua 568.500 da (+%0,5 2021ekoaren aldean); beraz, hartzailerako bakoitzeko pentsioen ratioa (urteko batez bestekoa) 1,1 da, eta balio hori iraunkorra da. Pentsio horien batez besteko zenbatekoa hileko 1.351,10 eurokoa da (Estatuko batez bestekoa baino % 24,1 handiagoa da, 2021ean baino hamarren bat gutxiago), eta horrek % 5,3ko igoera dakar 2021arekin alderatuta, pentsio berriek (oro har zenbateko handiago dutenak) batez besteko pentsioaren zenbatekoa igotzen baitute. Erretiro-pentsioari dagokionez (kotizaziopeko pentsioen % 66), 2022ko batez besteko zenbatekoa 1.537 € da hilean, 2021ean baino % 5,3 gehiago.

Gainerako pentsioen batez besteko zenbatekoek gora egin dute 2022an: baliaezintasun iraunkorragatiko pentsioak batez bestekoaren azpitik igo dira (% 4), eta gainerakoak batez bestekoaren inguruan (% 5,3). Batez besteko zenbatekoa 1.326,40 € (baliaezintasun iraunkorra), 947 € (alarguntza) eta 560 € (zurztasuna eta fabore familiarra) izan da.

IV.2.3 KOADROA. GIZARTE-SEGURANTZAKO KOTIZAZIOPEKO PENTSIEN BILAKAERA EAE-N ETA HORREN BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA (€)									
	2018	2019	2020	2021	2022	% 2022**	% LGSari dagokionez 2022***	% 20/2 1	% 21/2 2
PENSIO-KOPURUA (MILAKOETAN)									
GUZTIRA	551,3	558,5	560,9	565,4	568,5	100		0,80	0,55
BALIAEZINTASUN IRAUNKORRA	42,9	43	42,3	41,7	40,6	7,3		-1,4	-2,6
ERRETIROA	355,2	362,3	365,8	370,7	375,1	65,2		1,3	1,2
ALARGUNTZA	135,4	135,4	134,9	135,1	134,6	23,8		0,1	-0,4
ZURZTASUNA/FABORE FAMILIARRA	17,8	17,8	17,8	18	18,1	3,2		1,1	0,6
BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA (EUROAK/HILEKO)									
GUZTIRA	1.173,80	1.231,50	1.255,90	1.283,10	1.351,10	100	128,3	2,2	5,3
BALIAEZINTASUN IRAUNKORRA	1.212,90	1.248,40	1.259,90	1.275,60	1.326,40	99,4	127,6	1,2	4,0
ERRETIROA	1.347,30	1.401,60	1.428,90	1.459,80	1.537,00	113,8	146,0	2,2	5,3
ALARGUNTZA	795,2	865,8	882,6	900,5	947	70,2	90,1	2,0	5,2
ZURZTASUNA/FABORE FAMILIARRA	488,8	511,8	521,7	531,6	560	41,4	53,2	1,9	5,3
<i>Iturria: Gizarteratze, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren datuetatik ("Boletín de Estadísticas Laborales") abiatuta egindakoa.</i>									
<i>* Aztertutako aldian, Gizarte Segurantzaren pentsioen birbalorazioak honako hauek dira: % 0,25 2017an, % 1,6 2018an eta 2019an, eta % 0,9 2020an eta 2021ean.</i>									
<i>** Ehuneko bertikalak, pentsioen guztizko eta prestazio horien batez besteko zenbatekoa % 100 gisa hartuta.</i>									
<i>*** Kalkulu hori egiteko, 2022ko LGSa (1.000 €) hartu da kontuan, 2022ko otsailaren 23ra arte indarrean jarraitu zuena.</i>									

Erretiro-pentsioak, esan bezala, EAeko pentsiodunen kolektiboaren gehiengoak jasotzen dituenak dira. 2022ko pentsio guztietatik, 378.811, % 61,1, gizonen zegozkien, eta % 38,9, emakumeen.

IV.2.4 KOADROA. ERRETIROA-PENSIOEN ZENBATEKOA EAE-N: BATEZ BESTEKO PENSIO OSOAREN ETA ALTA BERRIEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA BEREZITA. URTEKO BATEZ BESTEKOAK. EURO/HILEAN.

	GUZTIRA, ERRETIRO-PENSIOAK			ERRETIRO-PENSIOEN ALTA BERRIAK			% DIF. GIZONAK/EMAKUMEAK*	
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	PENSIO GUZTIAK	ALTAK
2011	1.370,95	694,6	1.136,36	1.704,63	990,47	1.477,52	97,4	72,1
2018	1.592,25	934,43	1.347,32	1.795,91	1.389,02	1.625,28	70,4	29,3
2019	1.650,15	992,5	1.401,55	1.816,75	1.408,65	1.647,33	66,3	29
2020	1.679,06	1026,01	1.428,91	1.871,65	1.484,97	1.707,53	63,6	26
2021	1.711,96	1.064,14	1.459,79	1.854,26	1.473,76	1.688,06	60,9	25,8
2022	1.793,80	1.130,19	1.532,65	1.903,70	1.564,42	1.756,44	58,7	21,7
% Ald. 20/21	2,0	3,7	2,2	-0,9	-0,8	-1,1	-4,2	-0,8
% Ald. 21/22	4,8	6,2	5,0	2,7	6,2	4,1	-3,6	-15,9

Iturria: GSIN-AREN DATU-BASEA. Guk egindakoa.

** Gizonen batez besteko pentsioa emakumeen batez bestekoa baino handiagoa den ehuneko.*

Eta pentsio horien zenbatekoak aztertuz gero, 2022ko batez besteko datuekin, gizonentzako erretiro-pentsioa % 58,7 handiagoa zen EAEn emakumeena baino, eta arrakala hori ere jaisten ari da urtez urte (36,5 puntu murriztu da azken hamarkadan). Eta, batez besteko zenbateko horiek azken urtean egindako alta berrien pentsioen arteko erkaketa eginda, aldea % 21,7koa zen 2022an; aurreko urtekoa baino ia 4 hamarren baxuagoa eta serie historiko osoko baxuena.

Era berean, pertsona erretiratu guztien batez besteko erretiro-pentsioak erretiroan sartutako azken pertsonenekin alderatuz gero, 2022an, azken horiek kolektibo osoak baino % 14,6 gehiago kobratzen dutela ikus daiteke (% 15,6 2021ean) (1.756,44 €, batez beste, eta 1.532,65 €, berriz, guztira).

Amaitzeko, 2022ko abenduaren 31n, EAeko batez besteko pentsioa 1.351,11 eurokoa zen, eta % 5,3 igo zen 2021eko abenduarekin alderatuta.

IV.2.5 KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAKO KOTIZAZIOPEKO PENSIOAK EAE-N, MOTAREN ARABERA. ONURADUNAK ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA, SEXUAREN ARABERA, 2022KO ABENDUAREN 31N.

	ONURADUNAK			BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA (€)		
	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA *	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA
BALIAEZINTASUN IRAUNKORRA	26.936	13.674	40.610	1.408,83	1.164,13	1.326,43
ERRETIROA	226.912	148.215	375.128	1.798,06	1.137,20	1.536,95
ALARGUNTZA	9.716	124.934	134.650	668,86	968,66	947,03
ZURZTASUNA	8.437	7.388	15.826	532,00	519,36	526,1
FABORE FAMILIARRA	640	1.613	2.252	790,38	801,22	798,14
KOTIZAZIOPEKO PENSIOAK GUZTIRA	273.005	295.823	568.465	1.677,82	1.056,66	1.351,11

Iturria: GSIN-AREN DATU-BASEA. Guk egindakoa.

**Guztizkoa ez dator bat gizon eta emakumeen baturarekin, zenbait erregistrotan ez delako jasotzen pertsonaren sexua.*

b) Gastua eta diru-sarrerara

Pentsioetan zenbatetsitako guztizko gastua % 5 hazi zen 2022an (IV.2.2 koadroa) eta % 5,9 kotizaziopeko pentsioen urteko batez besteko kopuruaren eta horien batez besteko zenbatekoen emaitza kalkulatzuz gero (IV.2.6 koadroa).

Kotizaziopeko pentsioen gastuaren bilakaera Gizarte


Segurantzaren afiliatutako langileen kopuruarekin alderatzen badugu, balioetsi dezakegu pentsio horiek alta emanda dagoen afiliatutako pertsona bakoitzeko ordaintzeak dakarren ahalegina, hileko eurotan. 2022an 783,13 euro/hileko da, aurreko urtean baino % 3,2 gehiago (+% 2,1 2021ean), pentsio-gastuaren igoeraren (+% 5,3) ondorioz, zeina kotizatzaile-kopurua baino dezente handiagoa baita (+% 2,6, urteko batez bestekoan).

IV.2.6 KOADROA. PENSIOEN ARLOKO AHALEGINAREN HURBILKETA EAE-N

	KOTIZAZIOPEKO PENSIOAK (1)	BATEZ BESTEKO ZENBAT. €/HILEAN (2)	ZENBATEK OA, GUZTIRA €/HILEAN (3) = (1)*(2)	GIZARTE-SEGURANTZAKO AFILIATUAK* (4)	AHALEGINA : €/HILA AFILIATU BAKOITZEKO (3) / (4)
2018	551.300	1.173,80	647.115.940	941.900	687,03
2019	558.500	1.231,50	687.792.750	962.400	714,66
2020	560.900	1.255,90	704.434.310	947.600	743,39
2021	565.400	1.283,10	725.464.740	956.000	758,85
2022	568.500	1.351,10	768.100.350	980.808	783,13
% Ald. 20/21	0,80	2,17	2,99	0,89	2,08
% Ald. 21/22	0,55	5,30	5,88	2,59	3,20

Iturria: Inklusio, Gizarte Segurantzaren eta Migrazio Ministerioaren datuekin egindakoa.

** Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden kotizatzaileak.*

IV.2.3 GRAFIKOA. GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIO BIDEZKO DIRU-BILKETAREN* BILAKAERA EAE-N.


Bestalde, 2021ean (datu bateratuak dauden azken urtea), Gizarte Segurantzaren Sistemak 7.896,63 milioi euro bildu zituen EAEn, aurreko ekitaldian baino % 8,2 gehiago, eta Estatuan bildutako guztizkoaren % 6,1 (2020an bildutako ratio bera). Zenbateko hori gure Erkidegoko urte horretako BPGdaren % 10,2 da, behin-behineko datuen arabera (aurreko urteko zenbateko berdina). Bildutako bolumen horretatik, 1.331 milioi Arabari dagozkio (% 17), 2.639 milioi Gipuzkoari (% 33,3) eta 3.926 milioi Bizkaiari (guztizkoaren % 50).

Zenbateko horretatik % 89,7 Gizarte Segurantzaren Kuotei dagokie; gainerako % 10,3, berriz, lan-istripu eta eritasun profesionalen mutualitateei. % 74aren jatorria araubide orokorra da, eta guztira 5.837,49 milioi euro dira (+% 6,7 aurreko urtearen aldean). Halaber, Gizarte Segurantzak Langabeziari, Soldatak Bermatzeko Funtsari eta Lanbide Heziketari dagozkien kuotak biltzen ditu, eta horien guztizko batura, gure Erkidegoan, 1.534 milioi euro zen 2020an, 2020an baino 91 gehiago.

IV.2.7 KOADROA. GIZARTE-SEGURANTZAREN DIRUZAINZTA OROKORRAREN KUOTEN DIRU-BILKETAREN BILAKAERA EAE-N. MILIOIKA EUROTAN.

	BEHIN BETIKO DATUAK (MEMORIA)					Desb. 2021	ALDAKUNTZA %	
	2017	2018	2019	2020	2021		19/20	20/21
OROKORRA	5.108,50	5.288,30	5.629,80	5.471,30	5.837,49	73,92	-2,82	6,69
AUTONOMOAK	704,3	707,7	711,5	597,4	682	8,63	-16,04	14,11
ITSASOKO LANGILEAK	31,3	32,4	35,3	35	35	0,44	-0,85	0,00
IKATZAREN MEATZARITZAKOAK	0	0	0	0	0	0,00	-	-
LI ETA LG KUOTAK (DIRUZAINZTA)	6,7	6,9	11,3	10	10	0,13	-11,50	0,00
SEPEKO LANGABEAK	299,5	302	333,7	428,8	516	6,53	28,50	20,34
GSDN KUOTAK GUZTIRA (A)	6.150,30	6.337,40	6.721,70	6.542,50	7.080,20	89,66	-2,67	8,22
LI ETA LG MUTUALITATEAK	443,9	464,3	532,3	521,5	560,9	7,10	-2,03	7,56
ITC ARRUNTAK	214,1	234,9	229,7	222,8	234,17	2,97	-3,00	5,10
JARDUERA ETETEA	4,5	4,3	14,7	10,9	21,36	0,27	-25,85	95,96
MUTUALITATEAK, GUZTIRA (B)	662,5	703,5	776,6	755,2	816,43	10,33	-2,76	8,11
GS-KO SISTEMAREN DIRU-BILKETA, GUZTIRA(A+B)	6.812,80	7.040,90	7.498,30	7.297,70	7.896,63	100,00	-2,68	8,21
LANGABEZIARAKO KUOTAK	1.190	1.240	1.316	1.270	1.356	17,17	-3,50	6,77
SOLDATAK BERMATZEKO FUNTSA	30	31	33	31	28	0,35	-6,06	-9,68
LANBIDE HEZIKETA	130	135	144	142	150	1,90	-1,39	5,63

Iturriak: GIZARTE SEGURANTZA. Informazio ekonomikoa eta finantzarria. GSDN: Memorias anuales. Guk egindakoa.

Gizarte Segurantzaren kontribuziopeko pentsioen EAEko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketa-zifrak erlazionatzen baditugu, 2021ean, bi zifrak eskuragarri dauden azken ekitaldian, gastua 10.279,1 milioikoa zen, 7.896,63 milioiko diru-sarreraren aurrean, eta, beraz, saldoa negatiboa izango litzateke, 2.382,47 milioi eurokoa, 2020an baino % 6,1 txikiagoa.

Emaizta defizitario hori, kotizaziopeko pentsioen diru-sarreraren eta gastuen arteko bilakaeraren ondorioz, aurreko ekitaldian baino gutxiago hazi zen: 2021ean gastua % 4,5 igo zen, eta diru-sarrerak % 8,2 igo ziren. Hortaz, EAEn kotizaziopeko pentsioen saldo negatiboa % 6 baino gehiago jaitsi zen.

IV.2.8 KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN DIRUZAINZTA NAGUSIAREN KOTIZAZIOPEKO PENTSIOTAKO GASTUAREN ETA KUOTAK BILTZEAGATIKO DIRU-SARREREN BILAKAERA EAE-N (MILAKA EUROTAN)

	2018	2019	2020	2021	2022*	% ALD. 19/20	% ALD. 20/21	% ALD. 21/22
GSIN-TIK BILDUTAKO KUOTENGATIKO DIRU-SARRERA	7.040,90	7.498,30	7.297,70	7.896,63	...	-2,7	8,2	...
KOTIZAZIOPEKO PENTSIEN GASTUA GIZARTE SEG.**	9.111,30	9.597,60	9.835,10	10.279,10	10.802,96	2,5	4,5	5,1
SALDOA	-2.070,40	-2.099,30	-2.537,40	-2.382,47	...	20,9	-6,1	...
DIRU-SARRERA / GASTUA	0,77	0,78	0,74	0,77	...			

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Informazio ekonomikoa eta finantzarioa. Guk egindakoa.

** Behin-behineko datuak.*

*** Kotizaziopeko pentsioen gastua ESTADISek argitaratzen dituen pentsio horien urteko nominatik abiatuta zenbatesten da.*

2.2.2. Kudeaketa transferitua duten prestazioak: Kotizazio gabeko prestazioak

Kotizazio gabeko prestazioak inoiz kotizatu ez duten edo kotizaziopeko prestazioak lortzeko behar besteko denboraz kotizatu ez duten eta iraupeneko bitartekorik ez izateagatik beharrezko egoeran dauden pertsonen ematen zaizkienak dira. Errenta ekonomikoa bat aitortzeaz gain, laguntza mediko eta farmazeutikoa eta gizarte zerbitzuak jasotzeko eskubidea ere badute; hortaz, premia-egoeran egonez gero estaldura osoa ematen zaie. Estatuan autonomia-erkidegoek dute eskumena. Aldiz, EAEn, eginkizunak eta zerbitzuak besterendu ondoren, prestazioa aitortzea, kudeatzea eta finantzatzea foru aldundiei dagokie. Kotizazio gabeko prestazio horiek hiru motatakoak izan daitezke: Gizarte Segurantzaren kotizazio gabeko pentsioak, laguntza-pentsioak eta Desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Legeko prestazioak. Jasotzen den zenbatekoa errenten eta norberaren egoeraren arabera ezartzen da.

EAEko foru-aldundiek emandako kotizazio gabeko pentsioak, kopuruari eta zenbatekoari dagokienez, kotizazio gabeko prestazioen artean nabarmenenak dira. Diru-sarrera nahikoak ez dituzten pertsonentzat dira (diru-sarrerak nahikoak ez direla zehazteko, urteko diru-sarreraren baturak pentsioaren urteko zenbatekoak baino txikiagoa izan behar du) eta zenbatekoak berdintsu eutsi dio 2013tik. Pentsio horiek 2022an 12.920 pertsonak jaso zituzten guztira (batez besteko datuak), aurreko urtean baino % 2,6 gehiago, 6.961 erretiro modalitatean eta 5.959 baliaezintasunagatik.

Kotizazio gabeko pentsioen zenbatekoak Estatu osorako ezartzen dira urtero. 2022rako, 493,75 euro finkatu ziren hilean erretirorako eta % 65koa edo hortik gorakoa baliaezintasunerako, eta, gainera, zenbait osagarri onartu ziren. Horiek aplikatuta, hileko 491,98 euroko batez besteko pentsioa dugu baliaezintasunerako eta 440,92 eurokoa pentsioa erretirorako (14 ordainsari bi kasuetan).

IV.2.9 KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN ERRETIROAGATIKO KOTIZAZIO GABEKO PRESTAZIOAK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK.

	ERRETIROAGATI KO KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOK*	ZENBATEKOA GORDINA (€)	BATEZ BESTEKO PENTSIOK (€)
2017	5.405	26.270.956	352,31
2018	5.602	28.378.613	363,81
2019	5.949	30.929.791	376,86
2020	6.131	32.483.756	378,45
2021	6.535	34.973.000	389,81
2022	6.961	42.479.311	440,92

Iturria: IMSERSOren datuekin egindakoa. Prestazio ekonomikoa arloa.

** Urteko batez besteko datua.*

IV.2.10 KOADROA. GIZARTE SEGURANTZAREN BALIAEZINTASUNAGATIKO KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOK EAE-N: ADIERAZLE NAGUSIAK.

	BALIAEZINTASUNAGATIKO KOTIZAZIO GABEKO PENTSIOK*	ZENBATEKOA GORDINA (€)	BATEZ BESTEKO PENTSIOK (€)
2017	6.312	34.932.106	391,71
2018	6.244	35.836.414	404,55
2019	6.144	36.619.313	418,12
2020	6.041	36.379.322	423,68
2021	6.046	36.995.378	434,77
2022	5.959	41.684.325	491,98

Iturria: IMSERSOren datuekin egindakoa. Prestazio ekonomikoa arloa.

** Urteko batez besteko datua.*

2.3. POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKAKO NEURRIAK EAE-N

Pobrezia, tradizioz, desparekotasun ekonomikoei lotuta egon da, eta diru-sarrera txikiak dituzten biztanleria-geruzei lotuta. Hala ere, azken urteotan, gure gizartean gertatutako aldaketekin batera —bai ekonomiari, bai gizarteari, bai familiari lotutakoak—, marjinazio-adierazpen berriak agertu dira. Ekonomia hutsari lotutakoaz gain, beste faktore batzuk daude (bakardadea, mendetasuna, “adinkeria”) gizarte-bazterketako prozesuak eragiten dituztenak.

EAEko pobrezia, marjinazioari eta gizarte-bazterketari aurre egiteko tresna nagusien artean —Gizarte-zerbitzuei buruzko Legean, Bazterketaren aurkako Legean eta Eskubide Sozialen Gutunaren Legean, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legean eta Gizarte-larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretuan jasoak—, honako hauek daude: gaur egungo diru-sarrerak bermatzeko errenta (lehenago Oinarrizko Errenta) (DSBE), etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) eta gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL), Pobreziaren kontrako plan integralean sartutako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko programak. Horiek ez ezik, gizarteratze-, prestakuntza- eta laneratze-programak ere badaude, alde esku-hartzaileen (laneratze-enpresak sortu ahal izatea aintzat hartu da), udalen eta bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arteko hitzarmenen bidez.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak hainbat plan egin izan ditu pobrezia eta bazterketaren kontra. Izen desberdinak izan dituzten plan horien helburua pobrezia eta gizarte-bazterketaren kontrako borrokaren oinarriak ezartzea eta aipaturiko araudia garatzeko abiatu beharreko helburuak eta neurriak egituratzea da. Gaur egun, **"Gizarteratzeko V. Euskal Plana 2022-2026"** dago indarrean, eta plan horren estrategia bost ardatz eta helburu estrategikotan oinarritzen da:

IV.2.11 KOADROA. GIZARTERATZEKO V. EUSKAL PLANA 2022-2026. ARDATZ ESTRATEGIKOAK.
1. ardatza. Herritartasun-eskubideak eskuratzea
2. ardatza. Desparekotasuna murriztea
3. ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, artikulazioa eta gobernantza
4. ardatza. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea, komunitate-aktibazioa eta sentsibilizazioa
5. ardatza. Gizarteratzeko politiken lurraldearen araberako sailkapena

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Gizarteratzeko V. euskal plana 2022-2026.

- ✓ 1. ardatza. Herritartasun-eskubideak eskuratzea: enpleguarekin, diru-sarreraren bermearekin, gizarte-zerbitzuekin, hezkuntzarekin, osasunarekin eta etxebizitzarekin lotutako politiken irismena zabaltzea eta diseinua hobetzea, herritar guztiei eta, bereziki, gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen behar bezala erantzuteko.
- ✓ 2. ardatza. Desparekotasuna murriztea: konpentsazio-politikak garatzea, pertsonen sexuaren, adinaren eta jatorriaren arabera gizarte-eskubideetarako sarbidean sortzen diren era guztietako aldeak murrizteko.
- ✓ 3. ardatza. Berrikuntza, koordinazioa, artikulazioa eta gobernantza: zerbitzuen eskaintzan eta politiken artikulazioan berrikuntza sustatzea, sektoreen arteko koordinazioa hobetzea eta gizarteratzeko politiken esparruan esku hartzen duten eragileen artikulazio hobea bermatzea.
- ✓ 4. ardatza. Erantzunkidetasuna, parte-hartzea, komunitate-aktibazioa eta sentsibilizazioa. Herritar guztien erantzunkidetasuna sustatzea gizarteratzeko politikan, bazterketa-egoerei ematen zaizkien erantzun komunitarioak indartzea eta herritarrak pobrezia-, bazterketa- eta desberdintasun-egoeren inguruan sentsibilizatzea.
- ✓ 5. ardatza. Gizarteratzeko politiken lurraldearen araberako sailkapena. Gizarteratze-politikak lurralde-mailan egituratzea bultzatzea, tokiko eta eskualdeko ekintza-sareak garatuz eta bereziki premia sozioekonomiko handienak dituzten udalerrien eta auzoen beharrezanetan ardaztutako politikak aplikatuz.

V. plana abiarazteko, 1.202 milioi euro zenbatetsi dira urtean, honelaxe banakatuta:

- Urtean 325 milioiko gastu zenbatetsia, DSBEa finantzatzeko.
- Urteko 173 milioiko gastu zenbatetsia, bizitzeko gutxieneko diru-sarrerara finantzatzeko, haurrentzako laguntza-osagarria barne. - Urtean 46 milioi inguruko gastua GLL gisa.
- 80 milioi euro inguruko gastua urtean, etxebizitzarako prestazio osagarria eta etxebizitzarako prestazio ekonomikoa finantzatzeko.
- Urteko gastua 260 milioi euro ingurukoa izango da Enplegu Plan Estrategikoaren baita kokatzen diren enplegua berreskuratzeko, mantentzeko eta sortzeko programetarako.
- Urtean 266 milioi euro inguruko gastua etxebizitza erosteko eta hiri-plangintzarako politika autonomikoak finantzatzeko.
- Urtean 52 milioi euroko gastu zenbatetsia bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zentro eta zerbitzuetan (Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretuan jasoak).

Adierazitako datuetatik abiatuta, urtean 1.202 milioi euro inguruko zenbatekoan pentsa daiteke —hezkuntzako eta osasuneko gastuak kontuan hartu gabe—, eta horrek planaren indarraldi osoan zehar 6.010 milioi euro inguruko gastu metatua suposatuko luke. Ekimen horien bilakaeraren berri emango da memoria honen hurrengo edizioetan.


2.3.1. Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemaren prestazioak

2009an, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea jarri zen indarrean. Lege horren helburu nagusiak ditugu, alde batetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema eratzea, sistema autonomo gisa —honen kudeaketan gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek parte hartzen dute eta administrazio publikoetako beste esparru batzuek kolaboratzen dute—, eta bestetik, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistemaren funtzionamendu-printzipioak eta egiturazko oinarriak finkatzea, euskal herritarrek prestazio ekonomikoa eta gizarteratzeko nahiz laneratzeko tresnak eskuratzeko aukera izan dezaten, berdintasun- eta ekitate-irizpideei jarraikiz, horiek lurralde osoan modu homogineoan aplikatzen direla bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuz.

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2022an, 418,9 milioi euro gastatu zituen, 2021ean baino % 10,4 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 302 milioi diru-sarrerak bermatzeko errentan egindako gastuari dagozkio (gutzizkoaren % 72,1 eta 2021ean baino % 13,7 gutxiago), 77,7 milioi etxebizitzarako prestazio osagarriarako (gutzizkoaren % 18,5 eta 2021ean baino % 1 gehiago) eta, azkenik, 39,2 milioi euro gizarte-larrialdietarako laguntzetarako (Sistemaren gutzizkoaren % 9,4 eta 2021ean baino % 4,2 gutxiago); azken zifra hori kalkulu bat da, ez baitugu datu ofizialik.

Prestazio horiek EAEko bizi-baldintzetan dituzten ondorioei dagokienez, gogora dezagun Eusko Jaurlaritzaren 2020ko “Pobreziaren eta Gizarte-despreekotasunei buruzko Inkestaren” (PGDI) arabera, Euskadin % 33,3 murrizten dela pobreziaren atalase-mailaren pean bizi diren pertsonen kopurua laguntza horien ondorioz (% 33,6 2018an, aurreko inkestaren urtean). Prestazio horiek izan ezean, benetako pobrezia duten pertsonen kopurua biztanleriaren % 8,4 izango litzateke (182.150 pertsona), % 5,6ra jaisten da (121.503 pertsona) prestazio horiek banatu ondoren: % 3,1, oraindik ere laguntza jaso arren pobreziatik irteten ez dena, gehi % 2,5, laguntzarik jasotzen ez duena. Kopuru horiek ikusita ondorioztatzen denez, 2020an EAEko Diru-sarrerak Bermatzeko Sistemak pobrezia-arriskuan zeuden biztanleen % 70,2rengana iritsi zen (% 69,3 2016an eta 2018an): 127.953 pertsona (biztanleria osoaren % 5,9).

IV.2.4 GRAFIKOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO EUSKAL SISTEMAREN PRESTAZIOETAKO GASTUAREN BILAKAERA (MILIOIKA EUROTAN)



Iturria: Enplegu eta Inklusioko Zuzendaritzaren datuetatik abiatuta egindakoa. EUSKO JAURLARITZA. 2021eko eta 2022ko GLLen datuak dagozkien aurrekontu-likidazioetatik abiatuta kalkulatu dira.

a) Diru-sarrerak bermatzeko errenta

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) ematen zaie EAEn gutxienez urtebetean erroldatuta dauden eta oinarrizko premiei eta laneratzeko eta gizarteratzeko prozesuaren ondoriozko premiei aurre egiteko nahikoa diru-baliabiderik ez duten pertsoneri, baldin eta 18/2008 Legean eta hura garatzeko araudian ezarritako baldintzak betetzen badituzte¹⁷.

IV.2.12 KOADROA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: GASTUAREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA. MILIOIKA EUROTAN.

	2018	2019	2020	2021	2022	% ALD. 2020/21	% ALD. 2021/22
Araba	57,5	56,6	62,6	63,2	54,8	1	-13,3
Gipuzkoa	79,8	77,3	85,1	79,3	66,7	-6,8	-15,9
Bizkaia	220,7	212,8	225,7	207,2	180,4	-8,2	-12,9
EAE	357,9	346,7	373,4	349,7	301,9	-6,3	-13,7

Iturria: LANBIDE. Analisis, Azterlan eta Estatistika Zerbitzua.


DSBE gisa ordaindutako zenbateko osoa 2022tik 301,9 milioi eurora igo da (2021ean baino % 13,7 gutxiago). Beraz, gastuaren beherakadari eutsi zaio, 2021ean % 6,3 murriztu ondoren. Nabarmentzekoa da gastuaren beherakada lurralde historiko osoan ikusten dela, eta Gipuzkoan eta Bizkaian nabarmentzen dira murrizketak, % 16 eta % 13koak, hurrenez hurren.

Bestalde, 2022an 49.413 bizikidetz-unitatek jaso zuten DSBEa (abenduko datua; 82.263 onuradun), eta laguntza horiek 52.723 izan ziren 2021. urtearen amaieran. Horrek esan nahi du % 6,3ko jaitsiera izan dela, eta aurreko aldiko beherakadarekin jarraitzen duela, % 3,7koa izan baitzen.

Lurraldeka, Bizkaiak du bizikidetz-unitate hartzaile gehien, 29.141 guztira, hau da, EAEko guztizkoaren % 59; Gipuzkoak, berriz, bizikidetz-unitate hartzaileen % 23,8 biltzen du (11.777 guztira), eta Arabak gainerako % 17,2a (8.495 titular).

¹⁷ <http://www.lanbide.euskadi.eus/rqi/-/informacion/rqi-legislacion-y-normativa/>


IV.2.5 GRAFIKOA. DSBE: BIZIKIDETZA-UNITATE HARTZAILEEN BILAKAERA ABENDUAREN 31N, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.



Iturria: LANBIDE.

LANBIDEn 2022ko espediente aktiboen fitxari esker, jakin badakigu bizikidetza-unitateetako 49.413 pertsona titular zeudela inskribatuta, % 43,3 gizonezkoak ziren eta % 56,7 emakumezkoak. Onuradun gehien biltzen dituen adin-tartea 45-54 urte bitartekoa da (guztizkoaren % 24), eta nabarmentzekoa da, halaber, 7.636 jasotzailek 34 urte baino gehiago dituztela (% 15,5).


IV.2.6 GRAFIKOA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA JASOTZEN DUTEN TITULARREN BILAKAERA, ADIN-TARTEEN ARABERA. ABENDUKO HILABETEETAKO ESPEDIENTE AKTIBOAK.



Iturria: LANBIDE. Guk egindakoa.

LANBIDEn zifren arabera, bizikidetza-unitate hartzailearen titularraren profila (aztertutako seriean ia ez da aldatzen) honako hau da: emakumea, Espainiako nazionalitatearekin, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituen (% 68,6k derrigorrezko ikasketak ditu, % 10,1ek lanbide-tituluren bat, eta % 4,3k unibertsitate-titulazoren bat).

IV.2.7 GRAFIKOA. DSBE DIRU-SARREREN OSAGARRI GISA: PRESTAZIOA SOLDATAREN OSAGARRI GISA JASOTZEN DUTEN PENTSIODUNEN ETA LANGILEEN KOPURUJAREN BILAKAERA. ABENDUKO HILABETEA*.



Bestalde, prestazioa jasotzen duten atzerritarrak, 15.842, titular hartzaileen % 32,1 dira (% 30 2021ean), eta titular hartzaileen % 25,8 pentsiodunak dira (% 24,5 2021ean). Era berean, 7.677 pertsonak, hau da, bizikidetza-unitate hartzaileen % 15,5ak, jasotzen dute DSBEa, soldata-errenten osagarri gisa (-0,2 puntu 2021arekin alderatuta).

DSBEaren osagarriari dagokienez, lehena etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) da, erreferentziazko datan 23.527 bizikidetza-unitate jasotakoa, hau da, guztizkoaren % 47,6k (ikusitako hurrengo atala), eta, aldi berean, unitate horien 7.157 titularrek guraso bakarria izateagatik osagarria jasotzen dute (% 14,5).

IV.2.13 KOADROA. DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA: TITULARREN BANAKETAREN BILAKAERA, KONTZERTU APLIKAGARRIEN ARABERA. EHUNEKO, GUZTIZKOARI DAGOKIONEZ. ABENDUKO HILABETEA*.

	MODALITATEA		PENTSIODUNA		OSAGARRIAK		GUZTIRA
	DIRU-SARREREN OSAGARRIA LANA	ONARRIZKOA	EZ	BAI	GURASO BAKARREKOA	EPO	
2018	19,9	80,1	74,3	25,7	16	46,7	100
2019	19,9	80,1	74,4	25,6	16,7	46,7	100
2020	18	82	76,4	23,6	16,9	47,3	100
2021	15,7	84,3	75,5	24,5	16,0	47,4	100
2022	15,5	84,5	74,2	25,8	14,5	47,6	100
Desb. 20/21	-2,3	2,3	-0,9	0,9	-0,9	0,1	-
Desb. 21/22	-0,2	0,2	-1,3	1,3	-1,5	0,2	-

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. LANBIDEn datuekin egindakoa.

Bestalde, Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioaren “Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostenari” esker, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien urteko jarraipen konparatiboa egin daiteke, araudien heterogeneotasuna eta sistema horien garapen-mailak kontuan hartuta betiere.

2021ari buruzko txostenaren arabera (argitaratutako azkena), urte horretan, gure erkidegoak 6.209,69 euroko urteko gastua zuen prestazio horien titular bakoitzeko; estatuko batez bestekoa, berriz, 5.618,9 eurokoa (% 10 gehiago), eta estaldura-tasa, berriz, 52,43 mila biztanleko, Estatukoa 13,62 izanik.

Azterlanaren arabera, gure erkidegoak 2021ean Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien % 24,9 erabili zuen DSBERako gehi EPO, autonomia-erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokena baino askoz ehuneko handiagoa da; izan ere, % 4,7koa zen erreferentziazko urtean. Bestalde, 2021ean, DSBEaren oinarritzko zenbatekoa hilean 706,22 eurokoa zen, autonomia-erkidego guztietako handiena, Katalunia (664 €) eta Nafarroa (636,73 €) atzetik zituela.

IV.2.14 KOADROA. GIZARATERATZEKO GUTXIENEN ERRENTAK ALDERAKETA, AUTONOMIA ERKIDEGOEN ARABERA. 2020-2021 DATUAK.

	Estandura-tasa (1.000 biztanleko)		Titular hartzaileak				Gastua (milioika eurotan)			
	2020	2021	2020	2021	2021%	% ALD. 20/21	2020	2021	2021%	% ALD. 20/21
ANDALUZIA	3,98	8,11	33.721	24.280	8	-28,0	135,75	90,877	5,3	-33,1
ARAGOI	6,44	10,48	8.574	6.376	2	-25,6	47,69	22,65	1,3	-52,5
ASTURIAS	21	36,89	21.326	17.893	6	-16,1	116,71	103,88	6,1	-11,0
BALEAR UHARTEAK	7,8	9,58	9.478	5.339	2	-43,7	24,17	33,55	2,0	38,8
KANARIAK	4,76	11,03	10.683	12.787	4	19,7	42,83	51,04	3,0	19,2
KANTABRIA	11,97	15,14	6.973	4.956	2	-28,9	31,69	22,93	1,3	-27,6
GAZTELA- MANTXA	1,35	1,34	2.752	1.371	0	-50,2	12,68	5,91	0,3	-53,4
GAZTELA ETA LEON	4,82	6,43	11.526	7.273	2	-36,9	52,69	26,8	1,6	-49,1
KATALUNIA	12,07	15,95	92.415	55.441	18	-40,0	427,08	429,22	25,0	0,5
CEUTA	1,12	6,79	94	161	0,1	71,3	0,27	0,16	0,0	-40,7
EXTREMADURA	7	17,06	7.414	6.600	2	-11,0	42,12	24,27	1,4	-42,4
GALIZIA	4,93	7,54	13.317	11.482	4	-13,8	53,04	43,98	2,6	-17,1
MADRIL	3,61	6,56	24.415	14.550	5	-40,4	133,79	59,48	3,5	-55,5
MELILLA	3,46	7,12	292	190	0,1	-34,9	0,71	0,19	0,0	-73,2
MURTZIA	3,88	5,93	5.848	4.092	1	-30,0	17,26	10,87	0,6	-37,0
NAFARROA	25,31	62,93	16.637	18.452	6	10,9	114,46	110,68	6,5	-3,3
EAE	30,84	52,43	67.529	68.701	22	1,7	449,87	426,611	24,9	-5,2
ERRIOXA	9,59	14,81	3.031	2.386	1	-28,0	13,34	2,38	0,1	-33,1
VALENTZIAKO ERK.	6,6	16,62	33.264	43.010	14	-25,6	254,03	250,18	14,6	-52,5
ESTATUA	7,8	13,62	369.289	305.340	100	-16,1	1.970,18	1.715,66	100	-11,0

Iturria: Gizarte Eskubideen eta Agenda 2030en Ministerioaren datuekin egindakoa. Informe de Rentas Mínimas de Inserción 2021.


b) Etxebizitarako Prestazio Osagarria

Atal honetan jasotako informazioak epigrafe honetako a) ataleko DSBEaren etxebizitarako prestazio osagarriari buruzko informazioa osatzen du.

Etxebizitarako prestazio osagarria (EPO) eskubide subjektiboko prestazio gisa eratu izanak sistemaren funtsezko osagai bilakatu du, eta 18/2008 Legearen helburuaren isla da; zehazki: diru-sarrerak bermatzeko errenta osatzeko prestazio ekonomikoen sistema bat eratzea, biztanlerik zaugarrienei etxebizitzari lotutako gastuei aurre egiteko aukera emateko. Funtsezko gastuak estaltzeko gutxieneko egonkortasuna bermatu ez ezik, jarduketa-tresna horren xedea GLLak jatorrizko helbururantz birbideratzea ere bada, hots, gastu bereziak estaltzera. Horrela, bilakaera negatiboa zuzendu da, izan ere, premiak direla-eta, urteen poderioz GLLek, praktikan, aldizkako izaera hartu zuten eta, proportzio handi batean, etxebizitza-gastuak ordaintzeko bideratu ziren. Arestikoak ez du inondik inora esan nahi etxebizitza-gastuak lege-esparru berriak gizarte-larrialdietarako laguntzei emandako xedeetatik at geratu direnik, halako gastuak estaltzeko diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrak ez diren pertsonen bakarrik esleituko zaizkiela baizik. EPOaren xehetasunak, DSBEaren prestazio osagarri den aldetik eta gehienez hilean 250 eurokoa izanik, Etxebizitarako prestazio osagarriari buruzko urtarilaren 12ko 2/2010 Dekretuan daude araututa.

Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 51 milioitik gorako gastua eragin zuen EPOak, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi eurotara iritsi arte (orain arteko zenbatekorik altuena). 2022an 77,7 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako (+% 1,1 2021eko datuekin alderatuta). Zenbateko horretatik, 14,8 milioi Arabari dagozkio (guztizkoaren % 19), 44,09 milioi Bizkaiari (% 57) eta 18,66 milioi euro Gipuzkoari (% 24). Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2022ko abenduan DSBEaren 23.527 bizikidetz-unitate onuradunek gainera EPOa jaso zuten (aurreko urtean baino % 9 gutxiago).

IV.2.8 GRAFIKOA. ETXEBIZITZARAKO PRESTAZIO OSAGARRIA: DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA OSATZEKO URTEKO GASTUAREN BILAKAERA. MILIOIKA EUROTAN.



Iturria: LANBIDE

Gizarte-larrialdietarako laguntzak

Gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) aldian-aldian emango ez diren prestazioak dira eta oinarrizko premia zehatzei aurre egitera daude bideratuak. Premia horiek batez ere etxebizitzari daude lotuta eta ustekabean agertu ohi dira, eta gizarte-bazterketa egoerak prebenitu, saihestu edo arintzeko behar diren gastuei aurre egiteko behar beste baliabiderik ez duten pertsonentzat dira. Izaera finalista dute, eta eman diren xederako baino ezin dira erabili.

Laguntza horien bidez estalitako berariazko gastuak honako hauekin lotuak daude: etxebizitzaz edo ohiko bizitokiaz gozatzeari eta mantentzea, etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren epe luzerako bizigarritasunari eta oinarrizko ekipamenduari (altzariak, linea zuriko etxetresna elektrikoak, oinarrizko instalazioak edo horiek egokitzeko eta/edo konpontzeko gastuak). Era berean, honako gastu hauek estaltzen dituzte: sistema publikoek estaltzen ez dituzten jantzi, hezkuntza, prestakuntza edo osasun-arretari buruzko oinarrizko premiei lotutako ezohiko premiak, ustekabekoak eta ohikoak ez direnak, edo, oinarrizko gizarte-zerbitzuen iritziz, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoa den antzeko beste edozein premia.


IV.2.15 KOADROA. GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK 2019-2020. KONTZEPTUEN ARABERAKO BANAKETA ETA BATEZ BESTEKO ZENBATEKOAK.

	2019			2020		
	LAGUNTZA-KOP.	ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA LAGUNTZAKO (€)	LAGUNTZA-KOP.	ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	BATEZ BESTEKO ZENBATEKOA LAGUNTZAKO (€)
ALOKAIRUA	7.895	9.811,97	1.242	12.328	14.845,50	1.204
AMORTIZ. INTERESAK	3.540	5.687,80	1.606	3.807	5.668,73	1.489
BESTE GASTU BATZUK MANTENUA	18.356	7.586,07	413	20.442	9.089,67	445
ALTZARIAK ETA ETXKO TRESNA ELEKTRIKOAK	1.631	546,13	334	981	392,50	500
KONPONKETAK ETA INSTALAZIOAK	1.522	775,31	509	681	397,85	584
ONARRIZKO PREMIAK	8.694	3.829,39	440	10.000	4.846,41	485
ZORPETZEA	977	641,37	656	4.508	5.153,24	1.143
ENERGIA	14.726	5.174,74	351	16.180	5.744,69	355
LAGUNTZAK, GUZTIRA	57.341	34.052,77	593	68.928	46.138,59	669
BIZIKIDETZA-UNITATEA HARTZAILEAK	28.467			33.304		
HARTZAILEAK	59.502			63.276		

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Inklusio Zuzendaritza.

EPOa indarrean jarri ondoren, GLLek jatorrizko helburua berreskuratu zuten eta, horregatik, nabarmen murriztu zitzaizen aurrekontu-partida. Hala, 2010ean, 24 milioi euro erabili ziren guztira laguntza horietarako. Aurreko urtean, aldiz, 54,5 milioi euro baliatu ziren. 2020an, datu ofizialak ditugun azken urtean, laguntza horietarako 46,14 milioi euro bideratu ziren (2019an baino +% 35,5 gehiago). Zenbateko horretatik, % 53,6 Bizkaiari dagokio, % 27,6 Gipuzkoari eta gainerako % 18,8a Arabari.

IV.2.9 GRAFIKOA. GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK: TITULAR HARTZAILEEN KOPURUAREN BILAKAERA, LURRALDEEN ARABERA.



Iturria: Enplegu eta Inklusio Zuzendaritza. EUSKO JAURLARITZA.

2020an, 33.304 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu ziren, 2019an baino % 17 gehiago; horietatik 4.582 Araban bizi ziren (guztizkoaren % 13,8), 8.863 Gipuzkoan (% 26,6) eta gainerako 19.859ak Bizkaian (% 59,6). Guztira, urtean 68,928 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik, hala nola oinarritzko premiak (10.000 laguntza), alokairua (12.328) edo interesen amortizazioa (3.807). Batez bestekoa 669 eurokoa izan zen laguntza bakoitzeko (2019an baino +% 12,8).

Gainera, 2020an, laugarren urtez, kategoria espezifiko gisa sartu zen “energia” (2016ra arte, Mantentze-lanetako beste gastu batzuen barruan zegoen); 16.180 laguntza jasotzen ditu (2019an baino % 9,9 gehiago), eta laguntza horietara 5,74 milioi euro bideratzen dira, hau da, GLLetarako funtsen % 12,5.

2.3.2. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrerera

2020ko maiatzaren 29an 20/2020 Errege Lege Dekretua onartu zen, Espainian bizitzeko gutxieneko diru-sarrerera ezartzeko. Pandemiaren krisialdi bete-betean agertu zen, eta COVID-19ak Espainian eragindako zaugarritasun ekonomiko eta sozialaren gorakadari erantzun zion. Hala ere, ez da pandemiari lotutako koiunturazko neurria, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena osasun-krisiak bizkortu baitu. Tresna honen helburua da konponbidea ematea diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari.

Diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren gabeziak sarritan aipatu dira Europako erakunde txosten eta gomendioetan, eta azken urteotan hainbat ekimen egin dira Espainian gutxieneko diru-sarreraren prestazio bat aztertzeke eta ezartzeko. Bizitzeko gutxieneko diru-sarrerera Gizarte Segurantzaren prestazio ekonomiko gisa sortu da, kotizazio gabeko modalitatean, bakarrik edo bizikidetzaren batean integratuta bizi diren pertsonen pobrezia- eta gizarte-bazterketako arriskua prebenitzeko prestazioa izan dadin, baldin eta pertsona horiek egoera zaugarrian badaude, beren oinarritzko premiak estaltzeko behar beste baliabide ekonomikorik ez dutelako. Prestazio ekonomiko gisa, gutxieneko errenta bat bermatzen du. Alderdi ekonomikoaz gain, onuradunen gizarteratzeko eta laneratzeko benetako aukerak hobetzea du helburu.

EAEn, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren kudeaketa Lanbideri esleitu zaio. Honek kudeatzen du DSBEa ere eta, kasu batzuetan izan ezik, eskaintzen dituen prestazioen zenbatekoa handiagoa da eta Estatuko prestazioan sartzen ez diren kolektibo batzuk biltzen ditu, hala nola pentsiodunak. DSBEa, beraz, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren prestazio osagarri eta subsidiario gisa eratu da.

Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera 2020ko ekainaren 1etik aurrera jarri zen abian ondorio ekonomikoekin. Euskadin, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren baldintzak betetzen zituztenek soilik egin behar zituzten eskaera-izapideak, baina ez DSBEarenak betetzen zituztenek. DSBEa jasotzen duten eta bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren baldintzak betetzen dituzten pertsonentzat, Lanbidek ofizioz kudeatzen du prestazio berria. Bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren osagarria eta subsidiarioa da DSBEa, eta aurrezpen handia ekarriko du Eusko Jaurlaritzaren diru-kutxarako; izan ere, Estatuaren erantzukizuna izango da, Gizarte Segurantzaren bidez, diru-sarrerak bermatzeko errentaren prestazioaren zatia finantzatzea, horren kasua bat badator bizitzeko diru-sarrerarekin. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 30.000 bat bizikidetz-unitate sar daitezke batz bestekoan, eta 50.000 familia baino gehiago daude DSBEarekin instalita.

IV.2.16 KOADROA. BIZITZEKO GUTXIENEO DIRU-SARRERA: ESPEDIENTEEN EGOERA 2022-12-31-N. AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ARABERAKO DATUAK				
	EBAZPEN ONARTUAK	ONURADUN HELDUAK	ONURADUN ADINGABEAK	GUZTIRA ONURADUNAK
ESTATUA, GUZTIRA	595.511	968.223	731.805	1.700.028
ANDALUZIA	182.771	311.984	230.418	542.402
ARAGOI	15.611	25.211	20.957	46.168
ASTURIAS	15.880	22.869	13.412	36.281
BALEAR UHARTEAK	7.591	11.646	9.494	21.140
KANARIAR UHARTEAK	29.859	44.164	24.268	68.432
KANTABRIA	6.258	9.569	6.817	16.386
GAZTELA-MANTXA	23.614	39.683	33.171	72.854
GAZTELA ETA LEON	27.096	43.957	33.397	77.354
KATALUNIA	50.922	80.575	70.758	151.333
VALENTZIAKO ERK.	67.169	109.104	84.415	193.519
EXTREMADURA	20.481	33.731	24.878	58.609
GALIZIA	29.764	46.082	31.469	77.551
MADRIL	55.698	90.800	74.284	165.084
MURTZIA	22.172	37.795	32.825	70.620
NAFARROA	6.924	10.565	8.244	18.809
EAE	23.778	32.526	16.755	49.281
ERRIOXA	4.297	6.819	5.603	12.422
CEUTA	2.601	5.303	4.646	9.949
MELILLA	3.025	5.840	5.994	11.834

Iturria: GIZARTE SEGURANTZA. Online aldizkaria.

Espanian, martxan jarri zen unean gobernuak kalkulatu zuen bizitzeko gutxieneko diru-sarrera 850.000 etxek jaso ahalko zutela, 2,3 milioi lagunek gutxi gorabehera. 2022ko abenduan, GSInk 549.679 etxeri aitortu zien prestazio hori, eta, beraz, 1.542.675 pertsonak jaso zuten prestazioa (% 42,7 adingabeak).

EAEEn, 22.968 ebazpen onartu ziren 2022ko abenduaren 31n, 47.402 onuraduni dagozkienak; horietatik % 33,7 adingabeak. Era berean, LANBIDEK “bizitzeko gutxieneko errentaren kotizazio gabeko prestazio” gisa 2022ko aurrekontu-likidazioan aitortutako obligazioen zifretatik abiatuta, Euskal Enplegu Zerbitzuak 133,84 milioi euroko laguntza horiek izapidetu zituela ezagutzen da.


2.3.3. Gizarteratzea errazteko programak: Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzak, gizartean esku hartzeko esparruan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko

Hauxe xedatu da Gizarte-zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 6.3 artikuluan: “Gizarte-ongizatea, gizarteratzea eta gizarte-kohesioa ez dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren berezko helburuak, baizik eta gizarte-babeseko beste sistema eta politika publiko batzuekin batera gauzatu beharrekoak; hala bada, horiek gauzatzeko orduan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema bereak diren helburu eta eginkizunen esparruan arituko da elkarlanean. Halaber, elkartasuna eta elkarbizitza sustatzea eta gizartearen parte-hartzea sustatzea beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatutako helburutzat joko dira.” Hortaz, gizarteratzea gizarte-zerbitzuen helburu gisa identifikatzen da, baina beste sistema eta politika publiko batzuekin partekatzen da; eta, modu koherentean, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko 18/2008 Legeak gizarteratze-politikaren zeharkakotasunari egiten dio erreferentzia, bi sistemek — Gizarte Zerbitzuenak eta Diru-sarrerak Bermatzekoak — lagundu behar dute.

Hirugarren Sektoreko jarduerak EAEko gizarte esku-hartzearen arloan sustatzeko diru-laguntzak arautzeari buruzko abenduaren 29ko 649/2009 Dekretuan, gizarte esku-hartzea, funtsean, pertsona guztiak gizarteratzera bideratuta zegoela aitortzen zen, baina hainbat laguntza-lerro edo esku-hartze agintzen zituen, ez soilik gizarte inklusioaren arloari lotutakoak, baizik eta bestelako zeharkako modalitateak hartzen ziren aintzat, honako hauek bilduta: familiaren babesa, droga-mendetasunaren prebentzioa, haurren eta nerabeen arreta eta babesa, etorkinen gizarteratzea eta, oro har,

kulturartekotasuna, adinekoen arreta eta babesu, mendetasunean bizi direnak eta, oro har, baliaezintasuna eta maitasun-sexu askatasuna eta aniztasuna¹⁸.

IV.2.10 GRAFIKOA. GIZARTE ESKU-HARTZEAREN EREMUAN HIRUGARREN SEKTOREKO JARDUERAK INDARTZEKO DIRULAGUNTZEN



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Enpleau eta Inklusio Zuzendaritza.

2022an (Gobernu Kontseiluaren datuekin), Eusko Jaurlaritzak 4,79 milioi euroko dirulaguntzak mantentzen ditu esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko, aurreko urteko zenbateko bera. Laguntza horietatik, 3,74 milioi (% 78,1) “esku-hartze soziala” ildora bideratu ziren, % 12,5 (599.000 euro) “indartze asoziatibora” eta gainerako % 9,4a (450.000 euro) “ezagutzaren kudeaketa” ildora. Hala ere, kontuan hartu behar da Eusko Jaurlaritzaren programa zehatz horren zenbatekoak direla, baina beste erakunde batzuek (foru-aldundiek eta udal ugari) funtsak bideratzen dituztela helburu horietara. Hala ere, ez dago horri buruzko informazio erantsirik.

2.4. GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMA

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) erantzukizun publikoko sare publiko arautu gisa eratu da, eta bere helburua pertsona, familia eta talde guztiak gizarteratu daitezen eta gizarte-autonomia eta -ongizatea lor dezaten laguntzea da; horretarako, sustapen-, prebentzio-, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuko du, batez ere pertsonalak eta harremanezkoak diren prestazio eta zerbitzuen bidez. Titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz dago osatua, eta bere jardunak gizarte-ongizatea lortu nahian ari diren beste sistema eta politika publiko kideko edo osagarri batzuekin koordinatu behar dira. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (GZL) arautzen eta antolatzen du sistema hori, eta hauek dira haren ezaugarri nagusiak: gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzea, Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzea eta, horrela, eskubide horren irismena zehaztea eta haren garapena eta ezarpena bermatzea, eta, azkenik, katalogo horren garapeneren aurreikuspena, prestazio eta zerbitzuen zorro baten bidez, horren ezaugarri nagusiak eta sarbide-baldintzak definituko dituena¹⁹.

GZES “Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoarekin” osatzen da. Plan horren 2016-2019 aldirako lehenengo edizioan, sarbide-baldintzak betetzen dituzten eta hala eskatzen duten pertsona guztiei Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietarako sarbidea bermatzea bilatzen zen, eta horrek berekin dakar GZESren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estaldurak —eta, hala badagokio, intentsitatea— mapan eta haren eranskinetan

¹⁸ Ondoren, abenduaren 4ko 271/2012 Dekretuak EAeko esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko diru-laguntzak arautuko litzake, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, eta horietatik kanpo geratuko litzateke droga-mendetasunen prebentzioa, izan ere, eskumen-egitura dela-eta, jarduketako arlo hori garai hartako Osasun eta Kontsumo Sailera igaro zen.

¹⁹ Informazio gehiagorako, Eusko Jaurlaritzaren webgunera jo behar da; bertan jasotzen baita [gizarte-zerbitzuen araudia](#).

(lurralde-mapak) ezarritakora egokitzea, eta gastu publiko arrunta handitzea, kontuan hartuta GZESren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan lurralde bakoitzeko abiapuntua (plaza erabilgarriak edo erabiltzaileak edo hartzaileak).²⁰


Planaren Ebaluazio Txostenak (2021) agerian utzi zuen, lehenik eta behin, ikuspegi kuantitatibotik eta inplikaturako erakunde bakoitzaren autoebaluazioa kontuan hartuta, bere gauzatze-maila orokorra % 77,3koa izan zela. 1. ardatzeko ekintzak (arretaren unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean) eta, ondoren, 4. ardatzekoak (baliabideak optimizatzea, baliabideak premietara egokitzea eta efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea) izan ziren ekintza horien ardura duten erakundeek gehien gauzatu dituztenak. 2. ardatzeko ekintzak (eredu komunitarioa finkatzea eta garatzea eta, bereziki, ikuspegi prebentiboa eta arretaren pertsonalizazioa) eta, bereziki, 5. ardatzekoak (beste sistema batzuekiko lankidetzak) modu ezberdinean gauzatu zituzten erakundeek, eta 3. ardatzekoak (sistemaren barne-artikulazioa eta GZESren gobernu eta kudeaketa sistemaren garapena) orekatuagoak izan dira.

Helburu kuantitatiboei dagokienez, ondorioztatzen da ibilbide luzeko krisiaren testuinguruan sendotu den GZESA dugula, eta, beraz:

- Hazkunde nabarmena izan du magnitude nagusietan, bai gastu korrante publikoan (+222,8 milioi 2011 eta 2018 artean), bai plazetan (+5.665 2011 eta 2018 artean), bai erabiltzaile/jasotzaile eta estalduretan, bai eta udal- eta foru-gastuan ere, gizarte-zerbitzuek zuzentzen baitute gastua bi mailetan, eta Gobernuaren eskumeneko zerbitzu eta prestazioetako gastua ere handitzen baita.
- Testuinguru horretan, lurraldeen arteko konbergentzia-adierazlea ere hobetu zen, EAEko batez besteko estalduraren +/-% 15 marjinen barruan dauden zerbitzu eta prestazioen kopurua handituta.

2.4.1. EUSTATen 2020ko Gizarte-zerbitzuei eta Gizarte-ekintzari buruzko Estatistikaren emaitzak

EAEko Gizarte-zerbitzuen gastua 2020an (urte horretakoa da daukagun azken informazioa) 2.865 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 0,83 gehiago, EUSTATen "Gizarte-zerbitzuei eta Gizarte-ekintzari buruzko Estatistikaren" arabera²¹. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGdaren % 4 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.303 euroko gastua, 2019an baino % 0,3 gehiago.



²⁰ Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa 2023-2026 aldirako egin da. Ildo nagusiak 2023ko martxoan aurkeztu dira, eta datorren urteko Memoria Sozioekonomikoan zehaztuko da horien edukia.

²¹ Kontuan izan behar da diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) eta enplegurako zentro bereziak ez daudela Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren barruan, estatistika horrek barne hartzen dituen arren. Horiei buruzko informazio zehatza eskuratzeko, kapitulu honetako (DSBE) 2.3.2 atalera eta III. kapitulura (Enplegua eta lan-harremanak EAEn) jo daiteke (enplegurako zentro bereziak).

Gastuaren % 71,4, 2.047,43 milioi euro, gastu arruntei dagokie, eta horietatik 787,8 milioi familiei transferentziak egiteko erabili ziren (2019an baino % 6,2 gehiago). Gainera, administrazio publikoek 2.098,15 milioi euro finantzatu zituzten (+% 5,7), guztizkoaren % 73,1; sektore pribatuak, berriz, gainerako % 26,7a finantzatu zuen.

Sektoreko giza baliabideei dagokienez, EAEko gizarte-zerbitzuen multzoak 62.568 langile zituen 2021ean, 2020an baino % 10,1 gehiago. % 56 langile propioei dagokie, eta % 44 boluntarioei. Hala, 27.532 langile ari ziren lanean, 2019an baino 5.180 gutxiago (-% 4).

IV.2.18 KOADROA. GIZARTE-ZERBITZUAK EAE-N: MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA					
	2018	2019	2020	18/19 (%)	19/20 (%)
GASTUA (milaka eurotan)	2815136	2842232	2865828	1	0,83
- Gastu arruntak	2002079	2058128	2047433	2,8	-0,5
- Familientzako transferentziak	761000	741805	787828	-2,5	6,2
- Kapital-gastuak	52057	42299	30567	-18,7	-27,7
Gastua / biztanleak (eurotan)	1291,10	1299,00	1303	0,6	0,3
Gastua / BPGd (%)	3,7	3,6	4
- Finantzaketa publikoa	1940520	1984499	2098105	2,3	5,7
- Finantzaketa pribatua	874616	857733	767734	-1,9	-10,5
Langileak, guztira	56870	56811	62568	-0,1	10,1
- Norberaren langileak	33588	34459	35036	2,6	1,7
- Borondatezko langileak	23282	22352	27532	-4	23,2
- Erakunde kopurua	1393	1389	1378	-0,3	-0,8
- Zentro kopurua	3577	3569	3544	-0,2	-0,7
- Egoitza kopurua	1442	1441	1436	-0,1	-0,3
- Egoitzetako plazak	29041	30036	30675	3,4	2,1

Iturria: EUSTAT. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika. Guk egindakoa

Gizarte-zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen dituztenak, bien artean gastuaren % 56,2 hartzen baitute (guztizkoaren % 33,1 eta % 23,1, hurrenez hurren). Herritar guztientzako baliabideen artean, familientzako transferentziak nabarmentzen dira, 787,8 milioi euro, gastu osoaren % 27,4; azken urtean % 2 hazi dira. Adinekoei dagokienez, haiei ematen zaien arreta, nagusiki, honako prestazio hauek dira: egoitza-zerbitzuak, eguneko laguntza-zentroak, etxez etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza.

IV.2.19 KOADROA. GIZARTE-ZERBITZUAK EAE-N: GASTUAREN BANAKETA BIZTANLERIA HARTZAILE MOTAREN ETA KONTZEPTUAREN ARABERA. EUROAK, MILAKOTAN.						
	2017	2018	2019	2020	% 18/19	% 19/20
GASTUA (milaka eurotan)	2.751.101	2.815.136	2.842.232	2.867.135	1	0,9
Biztanleria orokorra	1.062.030	1.035.212	1.010.460	950.511	-2,4	-5,9
Haurrak-Gazteak	106.967	119.189	129.518	92.470	8,7	-28,6
Adinekoak	711.632	749.763	774.317	661.296	3,3	-14,6
Desgaitasuna duten pertsonak	730.580	765.475	767.299	140.339	0,2	-81,7

* Enplegurako zentro bereziak.

Iturria: EUSTAT. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika. Guk egindakoa.

Adinekoentzako egoitza-zentroei dagokienez, EAEn 434 zentro zeuden 2020an (2019an baino 14 gutxiago), eta horietatik 146 titulartasun publikoak ziren eta 288 titulartasun pribatukoak. Sistema horrek, erreferentziako urtean, 661 milioi euroko gastua eragin zuen (-% 14,6 2019ko datuekin alderatuta), gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 23. 30.675 egoitza-plaza eskaintzen ziren; horietatik 11.863 (% 38,7) titulartasun publikoak ziren, eta 18.812 (% 61,3) titulartasun pribatukoak. Lurraldeka, plazen % 15,6 Araban zeuden, % 54,6 Bizkaian eta % 29,8 Gipuzkoan. 2020ko adineko pertsona erabiltzaileen kopurua 17.206koa da (-% 9), hau da, plaza guztien kopurua baino txikiagoa. Horietatik 6.240, % 36,2, plaza publikoen erabiltzaileak dira, eta gainerako % 63,7 plaza pribatuen erabiltzaileak.

2.4.2. 39/2006 Legearen Mendetasunaren Arretarako Sistemaren (AMAS) emaitzak

Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko Legea ²² (Mendetasunaren Legea), 2007. urtean indarrean jarri zen Estatu mailako araudia, zeina honako helburu honekin sortu baitzen: *“Egoera berezi batean egoteagatik kalteberak diren pertsonen, dituzten premietan laguntza eskaintzea, hau da, eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak aurrera eramateko laguntza eskaintzea, autonomia pertsonal handiagoa eskuratu eta herritar gisa dituzten eskubideez oso-osorik baliatu ahal izateko”*. Aurrerapen garrantzitsua da gizarte-politikei dagokienez, mendetasun-egoeran dauden pertsonen legean bertan ezarritako prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko duten eskubide subjektiboa aitortzen eta arautzen baitu Estatuan. Prestazio eta zerbitzu horien kudeaketa, EAEn, autonomia-erkidegoetako administrazioek egiten dute, lehen aipatutako Gizarte Zerbitzuen Zorroaren baitan.

IMERSOren 2022ko abenduaren 31ko datuek adierazten dute, lehenik eta behin, erreferentziako datan EAEk 108.938 balorazio-eskaera zituela erregistratuta Mendetasunaren Arretarako Sistemari (AMAS), eta horietatik gehienak mendetasun-maila aitortzeko berrikuspenei dagozkiela, gainerako erkidegoetan bezala. Eskaera-kopuruaren ratioa EAEko biztanleriaren % 4,92ko da (+0,08 puntu aurreko urtearekin alderatuta).

Eskaera horiek, gainera, Estatuan erregistratutako % 5,50 dira. Gure erkidegoko biztanleria, berriz, % 4,67 da, izan ere, Euskadik Estatu populaziorik zaharkituenetakoa baitu.

IV.2.20 KOADROA. MENDE TASUNERAKO ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. EGOERA KONPARATIBOA 2022KO ABENDUAREN 31N.												
	ESKAEREN % BIZTANLERIARI DAGOKIONEZ			EBAZPENEN % ESKAEREI DAGOKIENEZ			AITORTUTAKOEN % EBAZPENEI DAGOKIENEZ			AITORTUTAKOEN % BIZTANLERIARI DAGOKIONEZ		
	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022
ANDALUZIA	4,69	4,75	4,99	88,67	90,07	88,76	81,04	81,6	81,90	3,37	3,49	4,43
ARAGOI	3,61	3,67	3,86	93,27	94,51	91,79	81,26	82,45	83,27	2,73	2,86	3,54
ASTURIAS	3,86	4,05	4,34	90,74	93,24	91,61	76,34	77,85	78,99	2,68	2,94	3,97
BALEARRAK	2,8	3,01	3,36	96,19	93,51	91,28	80,82	81,64	81,87	2,18	2,3	3,07
KANARIAK	2,51	2,67	2,66	70,65	72,91	82,30	85,76	86,85	87,94	1,52	1,69	2,19
KANTABRIA	4,35	3,98	3,96	97,93	97,54	96,80	84,66	82,58	82,17	3,61	3,21	3,84
GAZTELA-MANTXA	5,88	5,96	6,17	93,94	94,16	94,75	79,85	81,36	82,16	4,41	4,57	5,84
GAZTELA ETA LEON	4,15	4,26	4,39	95,8	65,44	96,44	79,57	80,16	80,62	3,17	3,26	4,23
KATALUNIA	4,13	4,35	4,57	93,34	93,47	93,15	76,77	77,69	77,97	2,96	3,16	4,26
VALENTZIako ERK.	3,08	3,3	3,68	87,41	90,56	90,95	84,82	85,12	85,39	2,28	2,55	3,34
EXTREMADURA	4,98	5,12	5,36	93,02	93,84	94,80	70,15	71,34	72,23	3,27	3,43	5,09
GALIZIA	2,86	2,89	2,95	99,57	99,68	99,22	87,56	89,07	90,33	2,5	2,56	2,93
MADRIL	3,3	3,2	3,33	96,79	99,89	99,91	74,8	75,63	77,00	2,39	2,42	3,33
MURTZIA	3,45	3,57	3,65	86,95	87,73	90,40	88,34	88,49	88,37	2,65	2,77	3,30
NAFARROA	2,98	3,09	3,22	99,46	99,57	99,73	73,81	74,65	75,42	2,19	2,3	3,21
EAE	4,77	4,84	4,92	99,54	99,55	99,48	75,24	73,93	72,93	3,57	3,56	4,90
ERRIOXA	4,59	4,83	4,49	99,94	99,95	99,96	73,62	75,68	73,47	3,38	3,66	4,49
CEUTA ETA MELILLA	2,62	2,72	2,92	95,86	96,21	95,05	70,66	71,67	73,05	1,78	1,88	2,77
ESTATUA, GUZTIRA	3,9	3,99	4,18	92,35	93,42	93,5	79,35	80,07	80,58	2,86	2,99	3,90

Iturria: IMERSOREN datuekin egindakoa. Información estadística del Sistema para la Autonomía y la Atención a la Dependencia (SAAD). Abenduaren 31ko datuak

Eskatzailearen profila honako hau da: emakumea (gutzizkoaren % 63,2) eta 80 urte edo gehiagokoa (eskaeren % 60,4). Hurrengo adin-talde nagusia 65 eta 79 urte bitartekoa da, eskaera gutzietan % 21,9.

Erregistratutako 107.110 irizpen-eskaeretatik, % 99,48k zegokion ebazpena jaso zuten jada (Estatuan, batez beste, % 93,5), eta 70.067 pertsonari, irizpena jaso zuten kasuen % 72,93, prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zieten. Ehuneko hori Estatu batez bestekoa (% 80,58) baino txikiagoa da. Baina biztanleria osoaren gaineko onuradunen ratioa kontuan hartzen badugu, tasa handiagoa da EAEn Estatuan baino: Biztanleriaren % 4,9 EAEn, eta % 3,9 Estatuan (ikusi IV.2.20 koadroa).


²² 39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa.

Onuradunen % 17,72k III. mendetasun-gradua²³ zuen aitortua, % 23,46k II. gradua eta % 31,75ek I. mendetasun-gradua.

Bestalde, erreferentziazko datan, 89.904 prestazio eman ziren (2021ko datuekin alderatuta, +% 1,3), eta horietatik % 37,55 familia-zaintzagariko prestazio ekonomikoari dagozkio (Estatuko batez bestekoa baino ratio handiagoa, % 29,93koa), % 12,75 egoitza-arretari, % 21,76 telelaguntza-zerbitzuari, % 7,43 eguneko/gaueko zentroetako zainketei eta % 5,65 zerbitzu garrantzitsuei, besteak beste.

IV.2.21 KOADROA. MENDEASUNERAKO ARRETA AUTONOMIA ERKIDEGOKA. ONURADUNAK ETA PRESTAZIOAK. EGOERA 2022-12-31N.									
	ONURADUNAK BIZTANLERIARI DAGOKIONEZ			PRESTAZIOAK ONURADUN BAKOITZEKO			FAMILIA ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOEN %		
	2020	2021	2022	2020	2021	2022	2020	2021	2022
ANDALUZIA	2,7	3,04	3,19	1,36	1,4	1,44	23,63	21,84	19,86
ARAGOI	2,37	2,65	2,83	1,18	1,18	1,16	43,23	44,22	43,85
ASTURIAS	2,38	2,74	2,86	1,28	1,27	1,28	30,13	30,74	29,35
BALEARRAK	1,97	2,09	2,23	1,6	1,61	1,60	45,57	45,39	45,28
KANARIAK	1,15	1,23	1,60	1,06	1,07	1,11	36,37	35,05	35,55
KANTABRIA	2,94	2,97	3,00	1,53	1,55	1,57	35,6	33,96	32,67
GAZTELA-MANTXA	4,41	4,56	4,79	1,34	1,36	1,35	20,34	20,33	20,24
GAZTELA ETA LEON	2,93	3,11	3,29	1,23	1,26	1,27	18,31	18,17	17,81
KATALUNIA	2,02	2,15	2,42	1,23	1,22	1,21	41,56	40,76	42,74
VALENTZIAKO ERK.	2,02	2,32	2,65	1,08	1,09	1,27	59,68	61,88	53,81
EXTREMADURA	2,73	2,93	3,10	1,09	1,08	1,11	20,56	19,34	17,31
GALIZIA	2,31	2,41	2,53	1,18	1,19	1,21	19,28	19,78	19,17
MADRIL	1,97	2,26	2,43	1,27	1,3	1,33	21,47	20	19,09
MURTZIA	2,34	2,44	2,49	1,25	1,24	1,25	51,47	50,83	48,89
NAFARROA	2,07	2,14	2,30	1,26	1,28	1,32	52,32	47,7	46,61
EAE	2,96	2,97	2,95	1,35	1,37	1,38	40,21	38,58	37,55
ERRIOXA	2,39	2,5	2,67	1,47	1,47	1,50	13,84	11,66	10,06
CEUTA ETA MELILLA	1,63	1,77	1,88	1,31	1,33	1,35	40,39	39,33	37,70
ESTATUA, GUZTIRA	2,37	2,58	2,77	1,27	1,28	1,32	31,57	30,75	29,93

Iturria: IMSERSOREN datuekin egindakoa. Información estadística del Sistema para la Autonomía y la Atención a la Dependencia (SAAD). Abenduaren 31ko datuak



²³ 39/2006 Legearen 26. artikulua xedatzen du mendetasun-egoera hiru gradutan sailkatzen dela:

- I. gradua. Mendetasun arina: Kasu hauetan, pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jardura aurrera eramateko, eta hori gutxienez egunean behin, edo tarteka laguntza mugatua behar du, autonomia pertsonalarekin laguntzeko.
- II. gradua. Mendetasun larria: Pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jardura aurrera eramateko, eta hori egunean bi edo hiru aldiz, baina ez du nahi kanpoko zaintzaile batek etengabe laguntzea, edo laguntza-premia zabalak ditu autonomia pertsonalaren arloan.
- III. gradua. Mendetasun handia: Pertsonak laguntza behar du eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jardura aurrera eramateko, egunean hainbat aldiz, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensoriala erabat galdu duenez, beste pertsona batek lagundu behar dio nahitaez eta etengabe, edo laguntza orokorra behar du autonomia pertsonalrik ezaren ondorioz.

Prestazioen jasotzaileak 65.206 pertsona onuradun izan ziren (ratioa 1,38 prestaziokoa da pertsona bakoitzeko, pertsona bat zerbitzu edo prestazio bat baino gehiagoren onuradun izan baitaiteke). Kopuru hori prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten 89.904 pertsonen % 72koa da.

Zifra horien osagarri, Espainiako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Kudeatzaileen Elkarteko kideek osatutako **“Mendetasunaren Espainiako Behatokiaren”** txostenek aukera ematen dute Autonomia eta mendetasunaren Arretarako Legetik abiatuta AMASaren autonomia-erkidegoen arabera hedapenaren balorazio profesionala jarraipena egiteko; IMSERSOren zifretatik abiatuta eginga. Azken irizpena, 2022ko abenduako datuekin. Nabarmentzekoa da EAE dela artatutako pertsonen kopurua handitzen ez duen autonomia-erkidego bakarra (535 pertsona gutxiago), gainerako autonomia-erkidegoetan batez beste % 7,47 igo baita. Hori dela eta, gure erkidegoari buruzko irizpenaren balioespenak nabarmen egin du okerrera aurreko urteekin alderatuta.

IV.2.22 KOADROA. MENDEASUNAREN BEHATOKIAK MENDEASUNARI EMANDAKO ARRETAREN EBALUAZIOA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA. EGOERA URTE BAKOITZEKO ABENDUAN*. 2013-2022.											
	2013	2014	2015*		2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
			AURREKO ESKALA	ESKALA BERRIA							
GAZTELA ETA LEON	9,6	10	9,2	8,6	8,9	9,3	9,3	9,3	8,9	8,4	8,5
GAZTELA-MANTXA	5,4	5	5,8	5,7	6,8	8,2	8,2	8,6	7,1	8,1	7,9
ANDALUZIA	5,8	7,1	7,9	7,5	6,8	6,4	6,8	6,4	7,1	7,5	7,6
MADRIL	4,2	4,2	4,6	5,7	6,1	3,9	6,8	5	3,2	7,2	6,5
VALENTZIako ERK.	0,4	1,7	1,7	-	3,2	3,6	3,6	3,9	3,9	5	6,2
BALEARRAK	2,9	3,8	2,5	2,1	3,6	2,1	2,9	5	6,1	6,3	5,6
ERRIOXA	6,3	6,3	6,7	6,1	7,9	6,1	7,1	6,8	5	5,9	5,3
GALIZIA	5	4,2	5	4,3	6,1	6,1	5,4	5,4	6,8	4,4	5,3
NAFARROA	5	5	3,3	2,5	2,9	3,9	4,3	3,6	3,9	3,4	5
EXTREMADURA	5,4	6,7	6,7	3,6	5	2,5	5	2,9	5	4,7	4,7
ARAGOI	3,8	3,3	3,8	2,1	2,5	3,2	5	5,7	3,2	6,3	4,4
CEUTA ETA MELILLA	1,3	1,7	3,8	3,2	4,3	3,6	3,9	3,9	2,5	3,4	4,4
EAE	8,3	7,5	8,3	6,8	5,4	5,7	6,1	6,1	5,4	5,3	3,8
ASTURIAS	3,8	5	5	3,6	4,6	3,2	2,9	1,1	4,3	4,7	3,5
KANTABRIA	6,3	4,6	5,4	3,2	3,6	5,4	4,3	5,7	3,6	3,4	3,5
KATALUNIA	5,4	4,6	4,6	3,6	3,9	2,5	2,9	2,1	1,4	2,8	3,5
KANARIAK	0,8	1,7	1,7	0,7	1,8	1,8	1,8	1,8	2,1	1,6	2,9
MURTZIA	5	4,2	2,9	2,9	6,1	5,7	4,6	4,3	3,9	3,4	2,4
ESTATUKO BATEZ BESTEKO	4,7	4,8	4,9	4	5	4,6	5	4,9	4,64	5,1	5,1

Iturria: MENDEASUNAREN BEHATOKIA.
 (*) Espainiako Gizarte Zerbitzuetako Zuzendari eta Kudeatzaileen Elkarteak Mendetasunaren Arretarako Sistemaren hedapen-mailari eta funtzionamenduari buruz sei hilean behin emandako puntuazioa, Otik 10era. Erkidegoak puntuazio handienetik txikienera ordenatu dira 2022rako aldagai horretan. Koloreak Behatokiaren beraren balorazioari dagozkie.
 (**) 2015ean ebaluazioaren metodologia aldatu zen. Aurreko metodologiaren (sistemaren ezarpena) eta metodologia berriaren (egonkortzea) arabera puntuazioa eman da.

Sistemaren ezarpen-zifren eta profesionalen balorazioen laburpen gisa, Behatokiak erkidegoak puntuatzen ditu eta ranking bat aurkezten du. 2015ean, AMAS ezartzeko aldia amaituta zegoela ondorioztatu zen, eta, beraz, ebaluazio-metodologia aldatu zen (sortutako enplegua, jardunbide egokiak edo gardentasun-maila kontuan hartzeko), bigarren egonkortze-etapa bat baloratu ahal izateko, eta urte horretan bi puntuazio eman ziren, metodologia zaharrarekin eta berriarekin.

2022ko abenduako rankingean (metodologia berriaren zortzigarren urtea), Gaztela eta Leon da buru (10etik 8,5eko "notarekin"), eta EAE hamahirugarren postuan dago (bost postu jaitsi da 2021aren aldean), 3,8 punturekin (puntu eta erdiko jaitsiera), 2015era arte, metodologia zaharrarekin, posizio askoz hobeak izan baitzituen, eta urte horietan mendetasunaren arretarako sistemaren ezarpena aurreratua zen gure erkidegoan Estatuko beste askotan baino.

Behatokiak 2022ko datuetarako egiten duen balorazioa ez da positiboa, uste baitute Estatuko Gobernuak hasitako talka-planak ez dituela helburuak erdiesten, autonomia-erkidegoen eraginkortasunik eta konpromisorik ezagatik. Ildo horretan, aipatzen da Estatuak betetzen duela Mendetasunerako Talka-planaren aurrekontu-igoera, baina gobernu autonomikoek ez dituzte erdiesten itzarote-zerrendak murrizteko, prestazioak eta zerbitzuak handitzeko edo

aurrekontua gauzatzeko helburuak. Balorazio hori argi eta garbi islatzen da Estatuak lortutako batez besteko puntuazioan (5,1 puntu), aurreko urteko batez bestekoa baino bi hamarren gutxiago.

EAEn dagokionez, nabarmendu da arreta jaso duten pertsonen kopurua igo ez den erkidego bakarra dela berriro, nahiz eta itzarote-zerrendak Estatuak batez bestekoaren gainetik murriztu diren. Era berean, sektorean 125 lanpostu inguru sortu dira, nahiz eta oraindik ez diren pandemiaren aurreko mailak berreskuratu.

2.5. GIZARTE-AURREIKUSPENEN SISTEMA OSAGARRIAK EAE-N

EAEn, gizarte-aurreikuspen osagarriko sistema pribatuak Borondatezko Gizarte-aurreikuspeneko Erakundeak (BGAE) eta horiek osatzen dituzten aurreikuspen-planak ditu protagonista nagusi. Euskal zergapekoek errentaren gaineko zergaren aitorpenean gizarte-aurreikuspen osagarriko erakundeei ordaindutakoagatik kentzen dutenaren % 92 inguru BGAEetara bideratzen dute. Gainerako % 8 beste figura batzuetara bideratzen dute, besteak beste, pentsio-plan eta -funtsetara, aseguru-kontratu kolektiboetara, mutualitateetara eta abar.

Gizarte Segurantzako sistema publikoen osagarri diren pentsio-plan pribatuak dituzten herrialde guztietan bezala, EAEn bi plan mota nagusi daude: enplegu- edo okupazio-aurreikuspenekoak, langileei zuzenduak eta enpresaren eta lan-harremanen esparruan artikulatzen direnak, eta finantza-erakundeek sustatutako banakako aurreikuspen-planak edo kontu pertsonalak, zeinetara edozein pertsona fisiko elkartu baitaiteke. Azkenik, gure legerian hirugarren modalitate bat ere badago: aurreikuspen-plan elkartuak. Plan horien bazkideak elkarte, sindikatu, elkargo edo antolakunde bateko kideak dira eta ez daude besteak bezain zabaldua.

2.5.1. Magnitude nagusiak


Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak EAEko gizarte-aurreikuspen Osagarriari buruz egindako txostenaren arabera, 2021ean (eskura zegoen azken datua) EAEko BGAEek 29.081 milioi euroko ondarea zuten, aurreko urtearen aldean % 7 handitu den zenbatekoa, aurtengo BPGdaren % 37,6; behin-behineko datuekin. Era berean, erakunde horietan 1,28 milioi pertsona daude elkartuta edo atxikita²⁴ (kontuen kopurua kontuan hartuta eta ez pertsonen kopurua, zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden etenda ekarpenetan), hau da, 2020an baino 12,3 gehiago.

Lehenengo aldiz gainditu da 2010ean erregistratutako balioa, 1,27 milioi atxikimendu izan baitira, % 1,5eko igoerarekin. Ondareari dagokionez, horrek ere goia jo du, 29.081 milioi euro guztira, hau da, 2010ean baino % 50 gehiago. 2021eko abenduaren 31n, Euskadin 71 BGAE zeuden; horietatik 42 enpleguko BGAE ziren, 27 banan-banakakoak eta 2 elkartutakoak.

²⁴ Aurreikuspen-planetan sartuta dauden pertsonen kopurua hartzen da halakotzat. 2021eko abenduaren 31n 1.289.750 bazkide zeuden; kopuru horretan bikoiztasunak egon daitezke, pertsona berak hainbat aurreikuspen-plan sinatuta izan ditzakeelako.

BGAE bakoitzaren eremuan, pertsona batek behin bakarrik zenbatzen du bazkide gisa, kontuan hartu gabe erakunde berean aurreikuspen-plan bat baino gehiago sinatuta dituen. Irizpide horren arabera, 1.143.748 bazkide daude; hori da, estatistika-ondorioetarako, BGAEetan dauden pertsonen guztizko kopurua. Kopuru horretan ere bikoizketak eman daitezke, pertsona bat BGAE batean baino gehiagotan bazkide izan daitekeelako, eta, beraz, bazkide den erakunde-kopurua adina aldiz zenbatzen da kopuru horretan.

2021eko abenduaren 31n, Euskadik 71 BGAE zituen; horietatik 42 enpleguko BGAE ziren, 27 banakakoak eta 2 elkartuak.



Bazkideen erdia baino gehiago, % 55, banakako BGAEtan zeuden, eta horien atzetik enplegukoak (bazkideen % 44,9). Ondareari dagokionez, % 44,9 enpleguko BGAEei dagokie, eta gainerako ia guztia banakakoei (% 55); ordaindutako prestazioak, berriz, enplegu-erakundeetan eta indibidualetan biltzen dira gehienbat (guztizkoaren % 71,1 eta % 28,9, hurrenez hurren).

Azkenik, kuotak, gehienbat, banan-banakako BGAEei dagozkie (guztizkoaren

IV.2.23 KOADROA. EUSKADIKO BGAE: DATUAK 2021-12-31N (DATU EKONOMIKOAK EUROTAN)						
	ERAKUNDE BAZKIDEAK	BAZKIDEAK	KUOTAK	ONDAREA	PRESTAZIOAK	ERRESKATEAK
ENPLEGUA	42	513.456	399.840.299	13.055.645.712	446.294.908	2.818.928
INDIBIDUALAK	27	628.925	442.181.745	15.991.675.975	181.353.076	111.849.380
BAZKIDEAK	2	1.367	232.835	34.758.709	275.338	170.492
BGAE, GUZTIRA	71	1.143.748	842.254.879	29.081.080.396	627.923.322	114.838.800

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Ekonomia eta Ogasun Saila.

% 52,5), eta, ondoren, enplegukoak (% 47,5). 2021eko balantze gisa, Euskadiko BGAEen ondarea 29.081 milioi eurotik gorakoa da, eta % 6,7 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Ondare horrek EAEko BPGdaren % 37,62 hartzen du, eta ratio hori Estatuko batez bestekoa (% 10,5) baino askoz handiagoa da, eta EB-14ko batez bestekotik (% 35,2) hurbil dago. Aldi berean, ELGAko batez bestekotik urrun dago, Euskadiko BGAEen federazioak % 63,5ean zenbatesten duena.

IV.2.24 KOADROA. EUSKADIKO BGAE. MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA							
	2017	2018	2019	2020	2021	% ALD. 19/20	% ALD. 20/21
BAZKIDEAK	1.127.091	1.135.778	1.137.741	1.146.867	1.143.748	0,8	-0,3
KUOTAK (€)	697.194.974	727.207.826	775.113.077	799.416.273	842.254.879	3,1	5,4
PRESTAZIOAK (€)	622.105.961	634.923.273	660.591.971	647.347.902	627.923.322	-2,0	-3,0
ONDAREA (€)	25.708.104.293	24.826.018.697	26.760.090.678	27.256.865.559	29.081.080.396	1,9	6,7
% KUOTAK BPGdARI DAGOKIONEZ	1,09	1,11	0,97	1,12	1,09		
% ONDAREA BPGdARI DAGOKIONEZ	33,47	32,32	33,64	38,11	37,62		

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egindakoa. Ekonomia eta Ogasun Saila.


Genero-ikuspegitik, % 55 gizonak dira eta % 45 emakumeak, aurreko urteen antzera.

Gainera, bazkideen % 13,08k 65 urtetik gora dituzte, eta 65 urtetik beherako pertsonak soilik kontuan hartzen badira, horien batez besteko adina 49 urtekoa da (2019. urteko datu bera), eta kopuru hori berdina da bi sexuetan. Kolektibo

horren % 31,5ek 46 urte baino gutxiago ditu; % 44,6, berriz, 46 eta 60 urte bitarteko adin-tartean dago, eta % 11,4, azkenik, 60 eta 65 urte bitartean.

Kuotak edo ekarpenak, berriz, 2021ean, 842,3 milioi eurokoak dira guztira, eta % 5,4 igo dira 2020. urtearekin alderatuta. Genero-ikuspegiaren arabera portaera aurreko ekitaldikoaren antzekoa izan da. Izan ere, sistemari egindako ekarpenen % 57 gizonek ordaindu dituzte, eta % 43 emakumeek.

IV.2.14 GRAFIKOA. AURREIKUSPEN-PLANAK DITUZTEN BGAE-TAKO BAZKIDEEN BANAKETA, ADINAREN ETA SEXUAREN ARABERA. EAE, 2021.



Ekarpen horien zenbatekoari dagokionez, % 51k 900 eurotik beherako ekarpenak egin zituen. Emakumeen kasuan, ehuneko hori % 55era iritsi zen, eta gizonen kasuan, berriz, % 49ra. Beste muturrean, 1.800 eurotik gorako ekarpenak kolektiboaren % 30ek egin zituen, eta ekarpenak egiten dituzten pertsonen artean % 33k, enpleguko BGAEei soilik erreparatzen badiegu²⁵.

Bestalde, BGAEek ordaindutako prestazioak 627 milioi eurotik gorakoak dira; hau da, 2020koa baino % 3 txikiagoa. Batez besteko zenbatekoa 11.191 eurokoa da, eta datu hori sexuaren arabera kalkulatu bada, gizonen jasotako batez besteko zenbatekoa emakumeek jasotakoa baino % 34 handiagoa da (13.403 € eta 8.060 €, hurrenez hurren). Gainera, prestazioetan ordaindutakoaren % 75 erretiro-kontingentziari dagokio, eta % 17 erakundean sartutako pertsona baten heriotzari. Gainerako % 8a baliaezintasun iraunkorrari eta iraupen luzeko langabeziari dagokie.

Era berean, 2021ean, guztira 114,8 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz, 131,4 milioi euro, hau da, % 12ko beherakada²⁶. Genero-ikuspegitik, erreskateekin pentsioekin gertatzen denaren antzeko zerbait gertatzen da, hau da, 2021ean erreskatatu duten gizonen ehunekoak % 56 da, eta jasotako ehunekoak, berriz, % 60.


Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren txostenak batera aztertzen du ekarpenen, prestazioen eta erreskateen bilakaera, eta adierazten du ekarpenengatik bildutakoaren eta ordaindutako prestazioen baturaren eta aurreikuspen-planetan egindako erreskateen arteko aldeak saldo negatiboa duela 2017-2019 aldian. 2019an 27,2 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako, aurreko urtean baino % 56,2 gutxiago.

²⁵ Kontuan izan behar da, Eusko Jaurlaritzaren txostenak adierazten duen bezala, 1.800 euroko zenbateko hori 30.000 euroko urteko soldata gordinaren % 6 dela. Euskadiko Gizarte-aurreikuspen Osagarriko Planean jasotzen denez, urteko soldata gordinaren % 6ko ekarpenak egin behar dira 37 urtez, erretiroa hartu aurreko soldataren % 20ren pareko pentsioa lortzeko.

²⁶ BGAEei aplikatu beharreko araudiak aukera ematen die modalitate individual edo elkartuko BGAEetako bazkideei hamar urtetik gorako antzintasuna duten eskubide ekonomikoak alde aurretik eskuratzeko. Bestalde, enplegu-modalitateko BGAEek ez dute baimentzen hamar urterako erreskatea, salbuespen iragankor batekin: xedapen aurreratuen aukera hori BGAEei buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legea indarrean sartzean erreskate-aukera hori zuten planek soilik jasotzen dute, eta data horretan zeuden eskubide ekonomikoengatik.

IV.2.25 KOADROA. EUSKADIKO BGAE. EKARPENEN, PRESTAZIOEN ETA ERRESKATEEN BILAKAERA (EUROTAN)							
	2017	2018	2019	2020	2021	% 19/20	% 20/21
1. EKARPENAK	697.194.974	727.207.826	775.113.077	799.416.273	842.254.879	3,1	5,4
2. PRESTAZIOAK	622.105.961	634.923.273	660.591.971	647.347.902	627.923.322	-2,0	-3,0
3. ERRESKATEAK	162.161.658	154.346.121	141.713.727	131.367.442	114.838.800	-7,3	-12,6
SALDOA 1- (2+3)	-87.072.645	-62.061.567	-27.192.621	20.700.929	99.492.757	-176,1	380,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egindakoa. Ekonomia eta Ogasun Saila.



2021ean, saldoa positiboa izan da bigarren aldiz 2013tik, 99,4 milioi euroko balioarekin; izan ere, alde batetik, ekarpenak hazi egin dira eta prestazioak murriztu egin dira, eta, bestetik, erreskateengatik ordaindutako zenbatekoak urtez urte beherantz jarraitzen du, IV.2.25 koadroan ikus daitekeen bezala.

2.5.2. Zerga-araubidea

BGAEEK EAEn lortu duten garapen garrantzitsua, neurri handi batean, aurrezki-formula horren erakargarritasuna areagotu duen zerga-pizgarriari zor zaio, batez ere PFEZaren bidez (zenbaki-bazkideentzat), baina baita sozietateen gaineko zergaren bidez ere (bai erakundeentzat eurentzat, bai enpresa edo bazkide babesleek enplegu-planetan parte har dezaten sustatzeko).

EAEn, zergari buruzko eskumenak lurralde historiko bakoitzeko foru aldundiak eta batzar nagusiek gauzatzen dituzte. Oro har, bazkideek egindako ekarpenen zenbatekoak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zerga-oinarritik daitezke²⁷. Bestalde, errenta geroratutzat jotzen direnez, BGAEetatik jasotako prestazioak (eta erreskateak edo

IV.2.26 KOADROA. PFEZ-AREN LIKIDAZIOA: PENTSIOPLANETARAKO ETA BGAE-ETARAKO EKARPENENGATIKO ZERGA-OINARRI OROKORREN MURRIZKETAK				
	ZENBATEKOA (MILAKA EUROTAN)	AITORTZAILEAK		BATEZ BESTEKO MURRIZKETA (€)
		KOPURUA	% GUZTIZ KOARI DAGOKIONEZ	
2014	650.214	356.947	34,0	1.822
2015	647.360	344.683	31,1	1.878
2016	670.098	343.690	30,8	1.950
2017	699.035	349.538	31,1	2.000
2018	735.444	398.184	35,1	1.847
% 16/17	4,3	1,7	1,0	2,6
% 17/18	5,2	12,9	13,9	-7,7

Iturria: ZERGA KOORDINATZEKO ORGANAREN datuak erabiltuta egindakoa.

²⁷ Ondarearen gaineko zerga bereziari dagokionez, elkartekidearen eskubide finkatuak soilik zenbatzen dira zerga honen aitortpena aurkezteko betebeharra dagoen zehazteko, nahiz eta eskubide salbuetsitatzat hartzen diren eta, beraz, ez diren haren zerga-oinarriaren parte.

kontingentzia jazo aurretik ordaindutako zenbatekoak) norberaren lanaren etekin osotzat jotzen dira, baita atxikipenari dagokionez ere²⁸.

Zergak Koordinatzeko Organoak 2019ko txostenetik aurrera emandako 2018ko PFEZaren likidazioaren datuen arabera (eskuragarri dagoen azkena), BGAEei egindako ekarpenengatiko eta gainerako aurreikuspen-formulengatiko murrizketa 735,4 milioi eurokoa izan zen, 2017an baino % 5,2 gehiago, hau da, urte horretan EAEko BPGdaren % 0,96 (2017an % 0,95), 398.184 aitortzaile gutzira, aurreko urtean baino % 13,9 gehiago, eta aitortzaileen % 35,1.

Lurraldeka, Arabak aitortzaileen % 13,4 eta zerga-oinarriaren murrizketen guztizko zenbatekoaren % 14,9 hartzen ditu (53.191 aitortzaile eta 109,9 milioi euroko murrizketa); Bizkaiak, berriz, aitortzaileen % 43,7 eta murrizketaren % 44 ditu, eta Gipuzkoak aitortzaileen % 42,9 eta zenbateko murriztuaren % 41,1.

Zenbateko horrek esan nahi du 1.847 euroko batez besteko murrizketa egon dela, aurreko ekitaldiko batez besteko murrizketa baino % 7,7 txikiagoa, eta batez besteko ekarpena aldatu egiten da errenta-mailaren arabera: 1.252 euro errenta-maila txikienetan (30.000 euroko likidazio-oinarrira arte), non zergadunen % 26,3k bakarrik egiten dituen ekarpenak; 2.379 euro 30.000 eta 90.000 € bitarteko oinarriak dituzten zergadunen kasuan (% 56,6k egiten ditu ekarpenak); eta 4.909 euro errenta-maila altuetan, non ekarpenak egiten dituzten zergadunen ehunekoak % 62,1 baita.

ITURRIAK

1. **EUSTAT (2022)**: Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika. 2020ko datuak.
2. **EUSTAT (2023)**. Gizarte-babesaren kontua EAEn. 2021eko datuak.
3. **EUSKADIKO BGAE-EN FEDERAZIOA (2023)**. 2022ko IV. Hiruhilekoaren estatistika-datuak
4. **EUSKO JAURLARITZA (2016)**. Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoa 2016-2019
5. **EUSKO JAURLARITZA (2021)**. Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoaren Ebaluazioa 2016-2019
6. **EUSKO JAURLARITZA (2017)**. V. Inklusio Plana 2022-2026
7. **EUSKO JAURLARITZA. EKONOMIA ETA OGASUN SAILA (2022)**. Euskadiko Gizarte-aurreikuspen Osagarriaren Txostena. 2021. urtea.
8. **IMSERSO (2023)**. Información Estadística del Sistema para la Autonomía y la Atención a la Dependencia (SAAD). 2022ko abenduaren 31ko datuak.
9. **IMSERSO (2023)**. Información Estadística sobre Pensiones no contributivas (PNC). 2022ko abendua.
10. **GSIN. BASE DE DATOS (2023)**. 2022ko abendua.
11. **LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA (2023)**. DSBEaren hileko txostena. 2022ko abendua.
12. **GIZARTE ESKUBIDEEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTERIOA (2022)**. Informe de Rentas Mínimas de Inserción 2021.
13. **LAN ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA (2023)**. Boletín de Estadísticas Laborales. 2022ko abendua.
14. **MENDE TASUNAREN BEHATOKIA (2023)**. XXIII Dictamen del Observatorio. 2022ko abenduaren 31ko datuak.
15. **EUSKO JAURLARTZIAREN ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA (2022)**. 2019ko urteko txostena.
16. **REVISTA DIGITAL "SEGURIDAD SOCIAL"**. 2022KO ABENDUA. Bizitzeko gutxieneko errenta Estatuan ezartzeari buruzko datuak.
17. **GSDN (2022)**. Memorias anuales. 2021. urtea.

²⁸ Prestazioa kapital gisa jasotako kopurua bada, % 40ko kenkaria dakar, eta errenta bada, aldiz, oso-osorik sartzen da zerga-oinarrian.

3. BIZI BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA LABURPENA ETA GOGOETAK

3.1. LABURPENA

3.1.1. Bizi Baldintzak

Memoria sozioekonomikoaren kapitulu honek, lehenengo atalean, EAEko biztanleriaren bizi-baldintzen 2021eko zifra adierazgarri nagusiak aurkeztu dizkigu, bai eta estatuko eta Europako testuinguruan duen kokapen konparatiboa ere, pandemiaren osteko normaltasun berrira eta gizartera egokitzeko garaian. Zifra horien arabera, 2018tik, bizi-baldintzek **okerrera egin izanaren zantzuak** jaso dira, aurreko aldiko hobekuntzaren kontrara.

...

Lehenik eta behin, 2008an hasitako krisiaren ondorioz, EBn pobrezia- edo bazterketa-arriskuan zeuden herritarren ehunekoa nabarmen hazi zen, eta 2012an goia jo zuen eta % 25 ingurura iritsi zen, eta ordutik eta 2019ra arte, behera egin zuen pixkanaka; 2020an 1,1 puntu hazi zen. Arrisku- edo bazterketa-arriskuak 2021ean (eskura dugun azken datua), biztanleen % 21,7ri eragiten die, hots, EBko 95,3 milioi herritarrei, Europa 2020 estrategietan eta 2030 Agendan finkatutako irizpideen arabera, ezarritako irizpideen arabera, estrategia horri **“AROPE tasa” (population at risk of poverty and exclusion)** deritzo. 2020aren aldean, badirudi Batasunaren batez besteko tasak beheranzko joera berreskuratu duela, 0,3 puntu jaitsi baita (1,5 milioi pertsona gutxiago kaltetuta). Espainian, 2021eko ratioa % 27,8koa da, Europako batez bestekoa (13 milioi pertsona kaltetuta) baino 6,1 puntu handiagoa, eta 1,4 puntu igo da aurreko urtearekin alderatuta.

EAEn (munduko testuinguruan 14. postuan mantentzen da, Zelanda Berriaren eta Kanadaren artean, NBEn 2021eko Giza Garapenaren Indizearen sailkapenaren arabera), pobrezia- eta bazterketa-arriskuak biztanleriaren % 16ri eragiten dio 2021ean (EUROSTAT eta EINren metodologiaren arabera), edo, bestela esanda, 350.000 pertsonari (oso interesgarria izango litzatekeen arren, ez dago sexuaren araberako informaziorik), 2020an eta 2008an baino 2,1 puntu gehiago. Tasa hau nahiko baxua da Europarekin alderatuta, eta Eslovakiakoarekin aldera daiteke (% 15,6), Europar Batasuneko laugarren tasarik baxuena duena, Finlandiaren (% 14,2), Esloveniaren (% 13,2) eta Txekiar Errepublikaren (% 10,7) atzetik.

EAEk Europako testuinguruan duen posizio konparatiboa oso aldekoa da AROPE tasa osatzen duten hiru elementuetan, baina adierazi behar dugu azken urtean (2020-2021) elementu horien bilakaera irregularra izan dela (lehenak okerrera egin du, bigarrenak hobera egin du eta hirugarrenak okerrera egin du), eta ez dela egon beti joera orokorrarekin erabat lerrotatuta:

1. EBko biztanleen % 16,8 *transferentzia sozialen ondoren pobrezia-arriskuan* zegoen 2021ean. Egoera horretan dago, kontsumo-unitate bakoitzeko diru-sarreraren banaketaren medianaren % 60tik beherako diru-sarrerak dituelako herrialde bakoitzean (“pobreziaren atalasea” deritzona; beraz, herrialde bakoitzean, gutxieneko errenta-atalase horretara iristen ez den biztanleriaren ehunekoa neurtuko luke, hau da, “atalase monetarioa”). Ehuneko hori 3 hamarren jaitsi da 2020ko datuekin alderatuta, eta bost pertsonatik bat baino gehiago daude egoera horretan, besteak beste, Bulgarian (% 22,6), Errumanian (% 22,6), Letonian (% 23,4), Espainian (% 21,7), Lituania (% 20) eta Estonian (% 20,6). Ratorik txikiak Txekiar Errepublikan (% 8,6), Finlandian (% 10,8) eta Eslovenian (% 11,7) daude. EAEn, tasa % 12,2koa da, 2020an baino 2,2 puntu gehiago, eta 267.500 pertsona ingururi eragiten die.
2. 2021ean, EBko herritarren % 6,3k *gabezia material eta soziala larria* izan dute; izan ere, baliabide-faltak eragindako bizi-baldintzak dituzte, hala nola faktorei aurre egiteko gaitasuna (etxeko ohiko gastuei buruzkoak), etxea bero edukitzea edo urtean astebeteko oporraldia hartu ahal izatea. Ratio hori mantendu egin da 2020koaren aldean, baina 2008ko % 8,5aren azpitik mantentzen da. Batasunean, gabezia horren intzidentzia oso modu zabalean aldatzen da herrialdeen artean, Suediatik eta Finlandiatik hasi (% 1,5etik behera daude) eta Bulgariaraino (ia % 20ra iristen da), azken urtean horietako talde handi batek bere emaitzetan okerrera egin baitu. Espainiak % 8,3ko tasa du (2020an baino 1,3 puntu gehiago), eta EAEk % 4,6koa (2020ko datuarekin alderatuta 4 hamarren gutxiago), hau da, 101.200 pertsonari eragiten die, aurreko urtean baino 8.800 pertsona gutxiagori.

3. 2021ean, EBko biztanleen % 8,9 lan-intentsitate oso baxuko etxeetan bizi zen; izan ere, egoera hori dela jotzen da etxeko 64 urte baino gutxiagoko helduek azkenengo urtean guztizko lan-ahalmenaren % 20 baino gutxiago lan egiten dutenean (2020an baino 4 hamarren gehiago eta 2008an baino 3 hamarren gutxiago). Irlanda (% 13), Grezia (% 12,1) eta Belgika (%11,9) dira Europar Batasuneko zerrendaburuak, eta Eslovakia, Polonia, Eslovenia eta Errumania, berriz, % 5aren azpitik daude. EAeko datuak apur bat egin du okerrera azken urtean, 2020an 7,4 puntu izatetik 2021ean 7,5 puntu izatera igaro baita (164.500 pertsona inguru kaltetuta, 2020an baino 2.200 gehiago).

...

Bigarrenik, Eusko Jaurlaritzak egiten duen **Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko 2020ko Inkestaren** emaitza nagusia da, 2016 eta 2018 artean gertatu zen prekaritate-adierazle orokorren okertze orokorrekin kontrastean, azken biurtekoan hobekuntza hauteman dela PGDI adierazle nagusietan, bai ongizaterik ezari dagokionez, bai pobrezia hertsiairen arriskuari dagokionez. Ez da gauza bera gertatzen, ordea, errentaren banaketari dagokion desberdintasun-adierazleetan.

PGDI inkestaren 2020ko emaitzen txostenak nabarmentzen du 2008an hasitako krisiaren garapenarekin batera desberdintasuna nabarmen handitu zela 2014ra arte, baina 2014 eta 2016 artean enplegua berreskuratu izanak eta egoera ahulenean zeuden kolektiboen emigrazioak lagundu zutela gorakada hori neurri batean murrizten. Ildo positibo hori hautsi egin da 2016 eta 2018 artean; biurteko horretan, desberdintasun-adierazleak areagotu egin baitziren berriro Euskadin. PGDI inkestaren arabera, 2018 eta 2020 artean desberdintasuna handitu egin da:

- Lehenik eta behin, *Gini Indizea*²⁹ 1,5 puntu hazi da azken biurtekoan: 2012ko 25,3ra arte etengabe jaitsi (hobetu) ondoren, 2014an 27,1era igo zen, eta 2016an berriz ere 25,8ra jaitsi zen. 2018an, goranzko joerari heldu zion berriro eta 26,7ra arte hazi zen. Joera horri eutsi zaio azken biurtekoan, eta 28,2ra iritsi da 2020an. Europar Batasunean indize horrek 4 hamarren egin du behera (hobera) 2020an, 2018aren aldean (30,4tik 30era igaro zen). Espainian, hobekuntza 9 hamarrenekoa izan da, 2018ko 33tik 32,1era jaitsi baita.
- Deskribatutako joera antzekoa da EAeko biztanleen % 20 aberatsenen diru-sarrerak eta % 20 behartsuenen diru-sarrerak (S80/S20) lotzen dituen zatidura kontuan hartzen bada. Kasu horretan, indize hori 4,2tik 3,6ra jaitsi zen 1996-2008 aldian, eta 2012an 3,7ra igo zen apur bat, eta nabarmenago 2014an, 4,2ra arte. 2016an 3,9ra jaitsi zen ratio hori, baina 2018an 4,1era igo zen berriro. 2020an gora egiten jarraitu zuen eta 4,4ra iritsi zen (+3 hamarren). EBn, batez besteko datua nahiko egonkor mantendu da aztertutako urteetan (beti 5 inguruan), eta 4,9ra iritsi da 2020an, 2018an baino bi hamarren gutxiago.
- Beste dinamika kezkarri bat biztanleriaren diru-sarrera guztien zatiari dagokion adierazleari dagokio, hau da, EAEn baliabide gutxien dituzten pertsonen % 10i. 2000ko % 3,55etik 2008ko % 3,88ra igo ondoren, adierazlea % 3,41era jaitsi zen 2014an. Pixka bat gora egin ondoren (hobetu), 2016an % 3,48raino iritsi zen; 2018an, berriz, % 3,35era jaitsi zen, eta, 2020an, beste minimo batera iritsi zen (% 3,2). Europar Batasunean, azken bi hamarkadetan, tasak bere horretan jarraitu zuen, % 3 inguruan, eta 2020an 2,9ra iritsi zen. Espainia % 3an zegoen 2000. urtean, eta 2014ko 1,8ra arte jaitsi zen, baina ordutik 4 hamarren berreskuratu ditu, 2020ko 2,2ko ratoria arte, EAeko 3,2aren azpitik.

²⁹ Beste adierazleen artean, *Gini-ren indizea* aztertzen da. Ekonomia bateko kideen edo familien diru-sarreraren banaketaren eta berdintasunezko banaketaren artean dagoen aldea neurtzen du, halako moldez non 0 indizeak berdintasun perfektua adierazten baitu, eta 100eko indizeak, berriz, berdintasunik ez perfektua.

...

Bestalde, EINren "**Bizi-baldintzen Inkestaren**" 2021eko zifren arabera, aurreko bi urteetan bezalaxe, hobera egin dute adierazle batzuk eta okerrera egin dute beste batzuk; hala ere, badirudi bilakaera negatiboa gero eta handiagoa dela:

- Errenta pertsonalak eta familiarrak okerrera egin dute 2020aren aldean, % 1,7 eta % 1,9 jaitsi baitira, hurrenez hurren, biak Estatuko batez bestekoa baino proportzio handiagoan. Hala ere, bi adierazleek autonomia-erkidegoen araberako rankingetako lehenengo postuetan mantentzen dute EAE.
- 2020an bezala, 2021ean ere murriztu egin da hilaren amaierara iristeko zailtasunak dituzten familien ehunekoak, % 32,4tik % 31,7ra igaro baitira; urtean astebeteko oporraldia onartu ezin dutenena (3 puntu jaitsi da, % 16,4ra arte) eta ustekabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna aitortzen dutenena (1,8 puntu jaitsi da, % 18,4ra arte). Aitzitik, familien % 7,4k etxebizitzarekin lotutako ordainketetan atzerapenak aitortu ditu 2021ean, 2020an baino 6 hamarren gehiago.

2021ean, gora egiten jarraitzen du pobrezia energetikoak jotako familien ehunekoak (% 9,2, 2020an baino 1,1 puntu gehiago) eta gutxienez bi egunetik behin haragia, oilaskoa edo arraina jan ezin duten familien ehunekoak (% 2,9tik % 4,3ra). Ziurrenik zailtasun eta gabezia handienak islatzen dituzten bi adierazleak dira.

...

Bestalde, EAEko **familia-sistemen** tipologia nabarmen aldatu da azken hamarkadetan, prozesu demografiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa nabarmenen artean, honako hauek daude: etxe-moten dibertsitate handiagoa; batez besteko tamainaren murrizketa; aldaketa handiak etxe horietako erreferentziatzko pertsonen profilean; etxean dauden adingabeen proportzioaren murrizketa eta menpekotasun-egoeren areagotzea.

Azkenengo urteotan, familia-erakundean egondako eraldaketa handiek eta horrek ugalkortasunean izandako eraginak interes publiko handia sorrarazi dute, horrek guztiak dituen ondorioak direla-eta. Ugaltzeko eta laneratzeko adin aproposak bat datozenez gero, emakumezko gazteak egoera zailean daude, seme-alabak izateko erabakiari dagokionez.

EUSTATEk "*Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta*" egin ohi du, eta inkesta horren 2021eko emaitzak nabarmentzekoak dira: etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gizonen baino % 40 ordu gehiago ematen dituzte egunean seme-alaba adingabeak zaintzen, eta % 57 gehiago mendeko pertsonak zaintzen; gainera, beren kideek baino % 31 denbora gehiago ematen dute etxeko lanetan. Gizonen 3,5 ordu ematen dituzte egunero adingabeak zaintzen (3,4 ordu 2020an); emakumeek, berriz, 4,9 (4,6 2020an). Alde hori dezente handiagoa da mendeko pertsonen zaintzari dagokionez; jarduera horretan egunean 1,4 ordu ematen dituzte gizonen (2020an 1,6) eta 2,2 ordu emakumeek (2020an 2,3). Gainera, emakumezkoek, batez beste, 2,1 ordu ematen dituzte etxeko lanak egiten, gizonen 1,6 ordu (2,2 eta 1,6, hurrenez hurren, 2020an).

Batez besteko horiek batuz, emakumeek etxeko lanetan eta zainketa lanetan emandako denbora, guztira, 9,2 ordu dira, gizonen 6,5 orduen aurrean. Beraz, arrakala % 41,5koa da. Ratio hori % 37,9koa zen 2020an; beraz, arrakala hori handitu egin da. Bere gain hartutako kargen desberdintasun horrek etxeko lanen banaketarekiko asebetetze-mailari eragiten dio; izan ere, emakumeek, batez beste, 10etik 6,1eko asebetetze-maila adierazten dute beren ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanak egiteko eskaintzen duen lankidetzari buruz, eta gizonen 7,5koa.

Enpresan edo erakundean baimen jakin batzuk eskatzeko zailtasunari dagokionez, datuek erakusten dute zailtasun horiek areagotu egin direla 2017ra arte, eta harrezkero murrizten ari direla aztertutako aldagai gehienetan. EUSTATEN inkestaren arabera, landunek, batez beste, 10etik 3,3ko zailtasun-maila dute (2010ean 2,6koa), eta, 2,4koa, zehazki, norberaren arazoak konpontzeko lanetik irteteko baimena lortzeko (2010ean 1,4koa). Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzea errazteko neurrien artean, eszedentziek 3,9ko batez besteko zailtasuna dute (3,2koa 2010ean), lanaldi-murrizketak ere 3,9ko zailtasuna (3,2koa 2010ean), eta enplegurik eta soldatarik gabeko egunek 10etik 3,1eko zailtasun-indizea dute (2,4koa 2010ean).

Orokorrean, zailtasun horietan ez da antzeman sexuaren araberako desberdintasunik, eta adinak, ziur aski lanpostuko antzintasunari lotuak, aipatutako uztartze-neurriak lortzeko zailtasunak murrizten ditu. Hala ere, emakumeen artean gizonen artean baino beldur handiagoa dago uztartzearekin lotutako zenbait alderdik beren ibilbide profesionalean izan dezaketen eragin negatiboa dela eta (emakumeen % 30,5ek uste du hori, eta gizonen artean, berriz, % 26,5ek) (2020ko datuak).

Horren isla da gizonek neurri horietan (eszedentzien eta lanaldi-murrizketen eskaerak) izan duten parte-hartze baxua, eta, gainera, ez da modu esanguratsuan aldatu azken urteotan. Hala, Eusko Jaurlaritzari adingabeak zaintzeko lan-eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartzeko egindako laguntza-eskaeren % 11,2 soilik sinatu zituzten gizonek 2020an. Gauza bera esan litzake mendeko senideak zaintzeko laguntzei dagokienez. Hala ere, horietan, gizonezkoen parte-hartze ratioetan zertxobait handiagoak dira (eskaeren % 15,5 2020an).

Ordutegi-motei eta malgutasunari dagokienez, EUSTATen Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestaren arabera, 2021ean, EAEko langileen % 21,4k ia egunero luzatu behar dute lanaldia (eta % 17,9k batzuetan). 2020. urteari dagokionez, lanaldia normalean edo noizbehinka luzatu behar duten pertsonen ehunekoa pixka bat murriztu da. Ildo beretik, EUROSTATEk *"Antolaketa eta lanaldiari"* buruz egindako inkestaren arabera, 2019an, EBko langileen % 21ek, astean behin, lanaldia egokitu behar zuten beren enpleguaren eskakizunetara (imajinatzen dugu lanaldia luzatu behar izan zutela) eta % 19 baino gehiagok hilean behin (ratioak % 13 eta % 10 dira Espainian, hurrenez hurren) (eskuragarri zeuden azken datuak).

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkestaren arabera, irteera-ordutegi malgua, uztartzea hobetzeko tresna osagarria, EAEko langileen % 47,1k baliatzen dute (% 32,6k 2020an), eta neurri txikiagoan emakumeek (% 43,3) gizonek baino (% 50,6). Norberaren etxean lan egiteari dagokionez, % 10,3k lantzean behin egiten du lan etxean eta % 8,4k egun erdia gutxienez (2020an baino 2,4 puntu gutxiago). Oro har, beraz, enplegua duten pertsonen % 18,7k noizean behin edo maizago lan egiten du etxean (% 18,1 2020an eta % 15,5 2019an), eta ziur asko COVID-19ak eragin dio ratio horri. Hala ere, etxetik gutxienez egunen erdia lan egiten duten pertsonen ratioak behera egin du 2020arekin alderatuta, ziurrenik COVID-19aren ostean aurrez aurreko modalitatean lan egitera itzuli direlako.

Azaldutako egoera horiek arintzeko, familiei laguntzeko planak abiarazi zituen Eusko Jaurlaritzak 2002an, zertarako eta familiek seme-alaba kopurua askatasunez erabakitzea galarazten duten eragozpen ekonomikoak eta gizarte eta laneko eragozpenak gainditzeko. Hala, Familiei Laguntzeko Legea onetsi zuen 2008an, markoari lerrun juridiko handiagoa emateko eta familia politika integralerako oinarriak ezartzeko, betiere familien eta familiako kideen ongizatea eta bizikaltatea hobetze aldera. III. Planaren bilakaera familien aldeko politikei buruzko gogoetarako abiapuntua izan zen, baita 2018an EAEko administrazio guztietarako sinaturiko *"Familien eta haurren aldeko ituna"* sinatzeko ere. Itun hori diagnostiko partekatu batean oinarritzen da, 2018-2022 aldirako Familiei Laguntzeko IV. Plana diseinatzeke balio izan duena.

Aurrekontua gauzatzeari buruzko informazioari dagokionez, badakigu 2022an Eusko Jaurlaritzako Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritzak 44,6 milioi euro bideratu zituela guztira familientzako transferentzia horietara, 2021ean baino % 11,4 gutxiago; horietatik 22,9 milioi seme-alabak dituzten familientzako laguntzetarako (gutzizkoaren % 51,4) eta 21,7 milioi uztartzeko laguntzetarako (gutzizkoaren % 48,6).

...

Genero-berdintasunaren Indizea (GBI) adierazle sintetiko bat da, eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak laburbiltzen ditu, haien ongizatean eta garapen pertsonalean eragina duten alderdi garrantzitsu batzuetan. EAerako, EUSTATEk kalkulatu du, [“Genero Berdintasunerako Europako Institutuaren” \(EIGE\)](#) metodologia erabiliz, bai eta erakunde horrek Europar Batasuneko 28 herrialdeei buruz emandako informazioa erabiliz ere. Metodologia horren aplikazioak, beraz, EAEn genero-berdintasunean egindako aurrerapenak EBko herrialdeek eskaintzen duten erreferentziarekin alderatzeko aukera ematen du. Adierazle sintetiko horrek eskala adimentsional batean laburbiltzen ditu —eskala horretan, 1ek erabateko desberdintasuna eta 100 erabateko berdintasuna adierazten ditu— gizonen eta emakumeen artean oraindik ere dauden desberdintasunak, haien ongizateari eta garapen pertsonalari eragiten dieten alderdi garrantzitsu batzuetan.

EAEko 2022ko GBIak 73,1ekoa da, 100etik (2019ko datuak). Aurreko neurketan bezala (2017), EB-27ko batez bestekoak baino puntuazio hobea lortu du aztertzen diren dimentsio guztietan. Gainera, baliorik altuenak, Euskadin, osasunaren, diruaren eta enpleguaren dimentsioetan lortzen dira, eta baxuena, berriz, boterean.

Azttertutako aldian (2010-2019), EAEko GBIaren bilakaera positiboa izan da: 68,8 puntu lortu zituen 2010ean, 69,1 2012an, 69,3 2015ean, 71,1 2017an eta 73,1 2019an. Gainera, genero-berdintasunaren adierazleak hobetu egin dira arlo guztietan, batez ere Ezagutzaren arloan, adierazleak 4,4 puntu irabazi baititu. Boterearen dimentsioan ere hobekuntza bat dago; izan ere, aurrerapena 8,4 puntukoa da, 62,7ra iritsi arte. Botere politikoaren azpidimentsioa nabarmentzen da, 15 puntu hobetu baitu, 96,7ra iritsi arte. Denboraren arloari dagokionez, 2019an adierazleak okerrera egin zuen 2010arekin alderatuta, baina 2021ean hobera egin du, 74,1 puntu lortuta, 2010ean baino 0,7 puntu gehiago. Hobekuntza hori, batez ere, zainketekin lotutako jardueren hobekuntzari zor zaio, 2010ean 88,7 puntu izatetik 2019an 93,7 izatera igaro baita.

Europako konparazioan, EAE Suedia, Danimarka, Herbehereak, Frantzia, Finlandia, Espainia eta Irlandaren atzetik dago, baina Europar Batasuneko gainerako 20 kideen aurretik, bai eta Europako batez bestekoaren eta Europako batez bestekoaren aurretik ere. Espainiako GBi EAEkoa baino altuagoa zen 2017an; lehen aldiz 2010az geroztik (0,6 puntu gehiago). Hala ere, Euskadik 2019an Espainiak baino balio altuagoak lortu ditu GBiaren dimentsioen erdia baino gehiagoko adierazle partzialetan: Espainiako emaitzak nasaiaigo gainditzen dituen dimentsioa Denborarena da, non distantzia 10,1 puntukoa baita, baina Dirua (+7), Osasuna (+2,1) eta Enplegua (+0,9) arloen aurretik ere dago. Aitzitik, desabantailan dago Ezagutzaren (-2,3) eta, batez ere, Boterearen (-7) dimentsioetan, eta, bereziki, Botere sozialaren (-18,6) eta Ekonomiaren (-25) azpidimentsioetan, baina ez, ordea, Botere politikoaren dimentsioan, non EAEk ia 10,2 puntutan gainditzen baitu Estatuak.

3.1.2. Gizarte-babesa

Lehenik eta behin, EUSTATen 2021eko **“EAEko Gizarte Babesaren Kontuaren”** azken datuen arabera, Euskadin eginkizun horretarako erabilitako baliabideak 22.084 milioi euro izan ziren aipaturiko urtean, 2020an baino % 3 gehiago. Kopuru hori urte horretako BPGaren % 28,3 da (+8,5 puntu 2008aren aldean, eta 2020an baino 1,6 puntu gutxiago). Gizarte-babeseko gastu osoak etengabe egin du gora denbora serie erabilgarrian, eta biztanleko gastua 6.402 eurokoa izan zen 2008an, eta 10.085 eurokoa 2021ean (+% 52,6). Gainera, EUROSTATEk 2020rako emandako azken datuak izanik, EAEko gizarte-babeseko per capita gastua, erosketa-ahalmenaren parekotasunean neurtuta, 9.967 eurokoa izan zen, EBko batez bestekoaren (9.066 €) eta Estatukoaren (6.752 €) gainera, baina euroguneko biztanle bakoitzeko 10.095 eurotik beherakoa.

...

Bigarrenik, 2022an, milioi erdi pertsona baino gehiago (527.881, lehen zenbatespenaren arabera) **Gizarte Segurantzaren sistemako pentsioen** onuradunak izan ziren gure Erkidegoan (kotizaziopekoak eta kotizazio gabekoak³⁰),

³⁰ Kalkulu horietan ez dira barne hartu laguntza-pentsioak eta Desgaitasunen bat duten pertsonen gizarteratzeari buruzko Legearen ondoriozkoak, desagertuz joan direnak. Gainera, ez dago informazio eguneraturik. Dena den, guztizkoaren gaineko pisua % 0,4 azpitik dago.

aurreko urtean baino % 0,5 gehiago. Azken urteotan gertatzen ari den bezala, igoera hori kotizaziopeko pentsioen onuradunen kolektiboaren pisuaren eta bilakaeraren ondorio da, gainerako modalitateak, oro har, gutxieneko kopuruetan mantentzen baitira. Gizarte Segurantzak emandako prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten EAEko biztanleen portzentajea % 25,8ra heldu zen, aurreko urtean baino 1,8 puntu gehiago.

Kotizaziopeko pentsioei dagokienez (pentsioen onuradunen % 97,6 eta gastuaren % 99,3), 2022an batez beste 514.961 onuradun daude (+% 0,4), eta 568.500 pentsio jasotzen dituzte (+% 0,6). Izan ere, pertsona batek kotizaziopeko pentsio bat baino gehiago jaso ditzake, eta urteko gastua 10.718 milioi eurokoa izan zen, hau da, 2021ean baino % 4,3 gehiago. Kotizazio gabeko pentsioek, bestalde, 12.920 pertsona estaltzen zituzten 2022an (urteko batez besteko datua), eta 84 milioi euroko gastua sortzen zuten (+% 16,7). Laburbilduz, EAEn pentsioetan egindako guztizko gastua, 2022an, 10.803 milioi eurora igo zen, behin-behineko datuekin, eta % 4,4ko igoera izan zuen 2021. urtearekin alderatuta. Hala, BPGaren gaineko pisua 7 hamarren hazi da, % 14,1eraino (EUSTATen behin-behineko datuekin).

Gizarte Segurantzaren kontribuziopeko pentsioen EAEko gastua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren kuoten bilketa-zifrak erlazioztatzen baditugu, 2021ean, bi zifrak eskuragarri dauden azken ekitaldian, gastua 10.279,10 milioi eurokoa zen, 7.896,63 milioi diru-sarreraren aurrean, eta, beraz, saldoa negatiboa izango litzateke, 2.832,47 milioi eurokoa, 2020an baino % 6,1 txikiagoa.

...

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren oinarrizko prestazioa, Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legetik abiatuta, diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE) deiturikoa da. Laguntza horien ondorioz, 2020ko PGDI inkestaren arabera, Euskadin pobrezia-atalase-mailaren azpian bizi diren pertsonen kopurua % 33,3 jaitsi da. Zifra horietatik ere ondorioztatzen da sistema hori pobrezia-arriskuan zeuden biztanleen % 70,2 zela erreferentziako urtean: 127.953 lagun (biztanleria osoaren % 5,9).

2022. urtean 49.413 bizikidetz-unitatek jaso zuten DSBEa (abenduko datua, hain zuzen ere, 82.263 onuradun dagokiena). 2021. urtearen amaieran, berriz, 52.723 lagunek jasotzen zituzten laguntza horiek. Horrek esan nahi du % 6,3ko jaitsiera izan dela, eta aurreko aldiko beherakadarekin jarraitzen duela, % 3,7koa izan baitzen. 2022ko abenduan Lanbiden aktibo zeuden espedienteen fitxaren arabera, halaber, inskribatutako bizikidetz-unitateen 49.413 titularretatik % 43,3 gizonezkoak ziren eta % 56,7 emakumezkoak. Onuradun gehien zituen adin-tartea 45-54 urte bitartekoena da (guztizkoaren % 24), eta nabarmentzekoa da, halaber, 7.636 hartzailek (% 15,5) 34 urte baino gutxiago dituztela.

Lanbideren arabera, hauxe da bizikidetz-unitate hartzailearen pertsona titularren profila (aztertutako sailean ia aldatzen ez dena): espainiar nazionalitateko emakumea, 40 urtetik gorakoa eta oinarrizko ikasketak dituen (% 68,6k nahitaezko ikasketak ditu, % 10,1ek lanbide titulazioaren bat eta % 4,3k unibertsitateko titulazioa). Prestazioa jasotzen duten atzeritarrak, 15.842, titular hartzaileen % 32,1 dira (% 30 2021an), eta titular hartzaileen % 25,8 pentsiodunak dira (% 24,5 2021ean). Era berean, 7.677k, bizikidetz-unitate hartzaileen % 15,5ak DSBEa jasotzen dute soldata-errenten osagarri gisa (-0,2 puntu 2021. urtearekin alderatuta), eta unitate horietako 7.147 titularrek guraso bakarra izateagatik osagarri bat jasotzen dute (% 16,7).

2010ean, 18/2008 Legea garatzeko, etxebizitzarako prestazio osagarria (EPO) jarri zen abian. DSBEaren osagarria den prestazio ekonomikoaren sistema bat bideratzea du helburu, biztanleriaren talde zaugarrienei etxebizitzarekin lotutako gastuei aurre egitea ahalbidetuko diena. Indarraldiko lehen urtean (2010), guztira 50 milioitik gorako gastua izan zuen EPOak, eta urtez urte joan da handitzen gastua, 2016ko 91 milioi euroraino (orain arte hori izan da gehieneko zenbatekoa). 2022an 76,65 milioi euro erabili ziren prestazio horretarako (+% 1,1 2021eko datuekin alderatuta). Titular hartzaileen kopuruari dagokionez, 2022ko abenduan DSBEaren 23.527 bizikidetz-unitate onuradunek gainera EPOa jaso zuten (aurreko urtean baino % 9 gutxiago).

EPOa abian jarri ondoren, gizarte-larrialdietarako laguntzek (GLL), Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren hirugarren tresnak, jatorrizko helburua berreskuratu dute (oinarrizko premia espezifikoei aurre egitea, batez ere etxebizitzarekin zerikusia dutenei, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastuei aurre egiteko behar adinako baliabiderik ez duten pertsonen noizean behin gertatutakoak), eta nabarmen murriztu dute aurrekontu-partida. 2020an, datu ofizialak dituen azken urtean, 33.304 kontsumo-unitate hartzaile zenbatu ziren, 2019an baino % 17 gehiago; horietatik 4.582 Araban bizi ziren (guztizkoaren % 13,8), 8.863 Gipuzkoan (% 26,6) eta gainerako 19.859ak Bizkaian (% 59,6). Guztira, urtean 68,928 laguntza eman ziren hainbat kontzepturengatik, besteak beste, oinarrizko premiak (10.000 laguntza), alokairua (12.328) edo interesen amortizazioa (3.807). Laguntza bakoitzeko batez bestekoa 669 eurokoa izan zen (+% 12,8 2019.urteko datuekin alderatuta).

Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak, 2022an, 418,9 milioi euro gastatu zituen orotara, 2021ean baino % 10,4 gutxiago. Honelaxe daude banatuta: 302 milioi diru-sarrerak bermatzeko errentan egindako gastuari dagozkio (guztizkoaren % 72,1 eta 2021ean baino % 13,7 gutxiago), 77,7 milioi etxebizitzarako prestazio osagarriko (guztizkoaren % 18,5 eta 2021ean baino % 1 gehiago) eta, azkenik, 39,2 milioi euro gizarte-larrialdietarako laguntzetarako (Sistemaren guztizkoaren % 9,4 eta 2021ean baino % 4,2 gutxiago); azken zifra hori kalkulu bat da, ez baitugu datu ofizialik.

Konparazioa egite aldera, Eskubide Sozialen eta 2030 Agendaren Ministerioaren “Gizarteratzeko Gutxieneko Errenten Txostenari” esker, autonomia-erkidegoen diru-sarrerak bermatzeko sistemen zifra handien urteko jarraipen konparatiboa egin daiteke, araudien heterogeneotasuna eta sistema horien garapen-mailak kontuan hartuta betiere. 2021ari dagokion txostenaren arabera (argitaratu den azkena), gure Erkidegoak Estatuan prestazio horietarako emandako funts guztien % 24,9 erabili zuen DSBERako gehi EPO, autonomia erkidegoen arabera. Euskal biztanleriak Estatu osoan duen pisuaren arabera egokitu beharko litzaiokeena baino askoz portzentaje handiagoa da; izan ere, % 4,7koa da aipaturiko urtean.

2020an, Estatuan *bizitzeko gutxieneko errenta* sortu zen. Pandemiaren krisialdi bete-betea agertu zen, eta COVID-19ak Espainian eragindako zaugarritasun ekonomiko eta sozialaren gorakadari erantzun zion. Hala ere, ez da pandemiari lotutako koiunturazko neurria, egiturazko tresna bat baizik, zeinaren agerpena osasun-krisiak bizkortu egin baitu, eta haren helburua da konponbidea jartzea diru-sarrerak bermatzeko Espainiako ereduaren ahuleziei eta lurralde-aniztasunari. Martxan jarri zen unean gobernuak kalkulatu zuen bizitzeko gutxieneko errenta Espainian 850.000 etxek jaso ahalko zutela, 2,3 milioi lagunek gutxi gorabehera. 2022ko abenduan, GSINK 549.679 etxeri aitortu zien prestazio hori, eta, beraz, 1.542.675 pertsonak jaso zuten prestazioa (% 42,7 adingabeak). EAEn, 22.968 ebazpen onartu ziren 2022ko abenduaren 31n, 47.402 onuraduni dagozkienak; horietatik % 33,7 adingabeak. Era berean, LANBIDEk “bizitzeko gutxieneko errentaren kotizazio gabeko prestazio” gisa 2022ko aurrekontu-likidazioan aitortutako obligazioen zifretatik abiatuta, Euskal Enplegu Zerbitzuak 133,84 milioi euroko laguntza horiek izapidetu zituela ezagutzen da.

Azkenik, esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatuz gizarteratzea bultzatzeko programen barruan, 2022an Eusko Jaurlaritzak esku-hartze sozialaren eremuan hirugarren sektoreko jarduerak sustatzeko dirulaguntzak eman zituen, guztira 4,79 milioi eurokoak, aurreko urteko zenbateko bera. Laguntza horietatik, 3,74 milioi (% 78,1) “esku-hartze soziala” ildora bideratu ziren, % 12,5 (599.000 euro) “elkarte-indartzera” eta gainerako % 9,4 (450.000 euro) “ezagutzaren kudeaketa” ildora. Eusko Jaurlaritzaren programa zehatz horren zenbatekoak dira, baina beste erakunde batzuek (foru aldundiak eta udal ugari) ere funtsak bideratzen dituzte helburu horietara, eta ez dago programa horiei buruzko informaziorik.

...

Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistema (GZES) arretako sare publiko egituratua da, erantzukizun publikokoa, eta bere helburua da gizarteratzea, autonomia eta ongizatea bideratzea pertsona, familia eta talde guztiei, sustapen-, prebentzio, babes- eta laguntza-eginkizuna garatuz, funtsean pertsonen eta harremanen arlokoak diren prestazioen eta zerbitzuen bidez. Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arautzen eta antolatzen du sistema hori, eta hauek dira haren ezaugarri nagusiak: gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eskubide subjektiboa ezartzea, Sistema osatzen duten Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa definitzea, horrela eskubide horren irismena zehaztuz eta haren garapena eta

ezarpena bermatuz, eta, azkenik, katalogo hori garatzeko aurreikuspena, prestazio eta zerbitzuen zorro baten bidez, zeinak ezaugarri nagusiak eta sarbide-baldintzak definitzen baititu.

GZES “Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoarekin” osatzen da. Plan horren 2016-2019 aldirako lehenengo edizioan, sarbide-baldintzak betetzen dituzten eta hala eskatzen duten pertsona guztiei Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemaren zerbitzu eta prestazio ekonomiko guztietarako sarbidea bermatzea bilatzen zen, eta horrek berekin dakar GZESren zerbitzu eta prestazio ekonomikoen estaldurak —eta, hala badagokio, intentsitatea— mapan eta haren eranskinetan (lurralde-mapak) ezarritakora egokitzea, eta gastu publiko arrunta handitzea, kontuan hartuta GZESren zerbitzu eta prestazio ekonomikoetan lurralde bakoitzeko abiapuntua (plaza erabilgarriak edo erabiltzaileak edo hartzaileak).

Planaren Ebaluazio Txostenak (2021) agerian utzi zuen, ikuspegi kuantitatibotik eta inplikaturako erakunde bakoitzaren autoebaluazioa kontuan hartuta, bere gauzatze-maila orokorra % 77,3koa izan zela. 1. ardatzeko ekintzak (arretaren unibertsalizazioa, lurralde-antolamendua eta ekitatea sarbidean) eta, ondoren, 4. ardatzekoak (baliabideak optimizatzea, baliabideak premietara egokitzea eta efizientzia eta eraginkortasuna hobetzea) izan ziren ekintza horien ardura duten erakundeek gehien gauzatu dituztenak. 2. ardatzeko ekintzak (eredu komunitarioa finkatzea eta garatzea eta, bereziki, ikuspegi prebentiboa eta arretaren pertsonalizazioa) eta, bereziki, 5. ardatzekoak (beste sistema batzuekiko lankidetzak) modu ezberdinean gauzatu zituzten erakundeek, eta 3. ardatzekoak (sistemaren barne-artikulazioa eta GZESren gobernu eta kudeaketa sistemaren garapena) orekatuagoak izan dira.

...

EAEko Gizarte-zerbitzuen gastua 2020an (urte horretakoa da daukagun azken informazioa) 2.865 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtean baino % 1 gehiago, EUSTATen “Gizarte-zerbitzuei eta Gizarte-ekintzari buruzko Estatistikaren” arabera. Gastu hori gure erkidegoaren urte horretako BPGaren % 4 da eta biztanle bakoitzeko batez beste 1.302 euroko gastua, 2019an baino % 0,4 gehiago.

Gizarte-zerbitzu ugarien artean, biztanleentzako eta adineko pertsonentzako zerbitzuak dira baliabide gehien jasotzen dituztenak, bien artean gastuaren % 56,2 hartzen baitute (guztizkoaren % 33,1 eta % 23,1, hurrenez hurren). Herritar guztientzako baliabideen artean, familientzako transferentziak nabarmentzen dira, 787,8 milioi euro, gastu osoaren % 27,4; azken urtean % 2 hazi dira. Adinekoei dagokionez, haiei ematen zaien arreta batez ere honako prestazio hauek dira: egoitza-zerbitzuak, eguneko laguntza-zentroak, etxeko etxeko laguntza zerbitzuak eta telelaguntza. Adinekoentzako egoitza-zentroei dagokionez, EAEn 434 zentro zeuden 2019an (2019an baino 14 gutxiago), eta horietatik 146 titulartasun publikokoak ziren eta 288 titulartasun pribatukoak. Sistema horrek, erreferentziazko urtean, 661 milioi euroko gastua eragin zuen (–% 14,6 2019ko datuekin alderatuta), gizarte-zerbitzuetan egindako gastu osoaren % 23.

2007ko Mendetasunaren Legea ezartzeari dagokionez, *Adinduen eta Gizarte Zerbitzuen Institutuaren (IMSERSO)* 2022ko abenduaren 31ko azken datuen arabera, aipaturiko data horretan, EAEk 108.983 balorazio-eskaera zituen erregistraturik Mendetasunaren Arretarako Sistemari. Horietatik (gainerako erkidegoetan bezala) gehienak mendekotasun-gradua aintzatesteko berrikuspenei dagozkie. Eskatzailearen profila emakumeari dagokio (guztizkoaren % 63,2), 80 urte edo gehiagokoa (eskaeren % 52,8).

Erregistraturako 107.110 irizpen-eskaeretatik, % 99,48k zegokion ebazpena jaso zuten jada (Estatuan, batez beste, % 93,5), eta 70.067 pertsonari, irizpena jaso zuten kasuen % 72,93, prestazioa jasotzeko eskubidea onartu zieten. Portzentaje hori Estatuko batezbestekoa (% 80,58) baino txikiagoa da. Baina biztanleria osoaren gaineko onuradunen ratioa kontuan hartzen badugu, tasa handiagoa da EAEn Estatuan baino: Biztanleriaren % 4,9 EAEn, eta % 3,9 Estatuan.

...

Amaitzeko, **EAEko borondatezko gizarte-aurreikuspeneko sistemaren** bilakaeraren balantzea egiteko, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailak adierazten du 2021ean EAEko BGAEek 29.081 milioi euroko ondarea zutela (azken datu erabilgarria). Zenbateko hori % 7 handitu da aurreko urtearekin alderatuta, eta % 37,6 da. Era berean, erakunde horietan 1,28 milioi pertsona daude elkartuta edo atxikita (kontuen kopurua kontuan hartuta eta ez pertsonen kopurua, zaila baita zehaztea zenbat dauden bikoiztuta edo zenbat bazkide dauden etenda ekarpenetan), hau da, 2020an baino % 12,3 gehiago. 2021eko abenduaren 31n, Euskadin 71 BGAE zeuden; horietatik 42 enpleguko BGAE ziren, 27 banan-banakakoak eta 2 elkartutakoak.

Bazkideen erdia baino gehiago, % 56, banan-banakako BGAEetan zeuden elkartuta, eta horien atzetik enplegukoak (elkartutakoen % 43,9). Ondareari dagokionez, % 54,2 enpleguko BGAEei dagokie, eta gainerakoa banan-banakakoei; aldiz, ordaindutako prestazio gehienak enplegu-erakundeei dagozkie (% 69,6), eta banan-banakakoei (% 30,4).

Azkenik, kuotak, gehienbat, banan-banakako BGAEei dagozkie (gutzizkoaren % 52,5), eta, ondoren, enplegukoak (% 47,47) eta elkartutakoak (% 0,03). 2021eko balantze gisa, Euskadiko BGAEen ondarea 29.081 milioi eurotik gorakoa da, eta % 6,7 hazi da aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Bestalde, ordaindutako prestazioak 627 milioi eurotik gorakoak dira; hau da, 2020koa baino % 3 txikiagoa. Era berean, 2021ean, guztira 114,8 milioi euro erreskatatu ziren; aurreko urtean, berriz, 131,3 milioi euro, hau da, % 12,6ko beherakada.

3.2. BIZI-BALDINTZAK ETA GIZARTE BABESA

3.2.1. Bizi-baldintzak

Aurten ere, Euskadi oso posizio onean dago bizi-kalitatearen nazioarteko rankingetan (GGI), bai eta Europako AROPE tasaren hainbat eremutan eta Bizi-baldintzen Inkestaren adierazle gehienetan ere.

Hala eta guztiz ere, 2021eko Memoriak EAEko bizi-baldintzekin lotutako alderdi aipagarrietan hobekuntzak nabarmentzen bazituen ere, 2022ko memoria honek zenbait hobekuntza azaltzen ditu, baina baita kontrako datuak ere alderdi garrantzitsuetan, eta horiei buruz ohartarazi nahi dugu.

Lehenik eta behin, eta 2020an etendako beheranzko bilakaerari berriro heltzen diola dirudien Europako joeraren aurka, EAEn okerrera egin dute hiru AROPE adierazleetatik bik, tasa orokorrak bezalaxe, eta agerian utzi du pobrezia- eta bazterketa-arriskuan dagoen biztanleriaren gorakada. Era berean, Pobreziaren eta Gizarte Desparekotasunei buruzko Inkestak (PGDI) erakusten du Euskadin errenten arteko desberdintasuna areagotu egin dela 2018 eta 2020 artean, eta badirudi areagotu egin dela aurreko biurtekoan antzemandako joera.

Bestalde, EINren Bizi-baldintzen Inkestaren adierazle garrantzitsuetan ere okerrera egin dela ikusten dugu, errentari zein gabetasunari dagokienez. Bereziki kezagarria da hazi egin dela haragia, oilaskoa edo arraina gutxienez bi egunetik behin jan ezin duten etxeen ehunekoak, izan ere, 2021ean, seriearen gehieneko ratoria iritsi da, pobrezia energetikoarekin gertatzen den bezalaxe. Okerrera egin izan hori prezioen bilakaerarekin lotzen dugu, eta fenomeno horrek jarraitu egin du 2022an.

Aitzitik, hilaren amaierara iristeko eta urtean astebeteko oporrak hartu ahal izateko zailtasuna, ustekabeko gastuei aurre egiteko ezintasuna bezala, hobetu (murriztu) egin dira 2020arekin alderatuta.

Gure ustez, adierazle horiek guztiek jarraipen xehatua merezi dute, batez ere prezioen bilakaerarekin lotura zuzenena dutenek.

Bestalde, gogorarazi nahi dugu, aurten ere, ezinbestekoa dela kontuan hartzea familia-tipologietan gertatzen ari diren aldaketak eta aldaketa horien ondorioak. Familiek botere publikoen lehentasunezko arreta behar dute; izan ere, tipologia desberdinak izan arren, gure gizartean beren zentralitatea mantentzen jarraitzen dute.

Eta, familia-politikei dagokienez, Eusko Jaurlaritzak azken urteetan garatutako ekimenen emaitzei buruzko informazioa behin eta berriz falta denez, ezin dira baloratu arlo horretan egiten diren ahalegin publikoak; beraz, gabezia hori konpontzeko eskatzen zaie arduradunei.

Gainera, adierazi behar dugu, enpresek lana eta norberaren bizi-tza uztartzeko egiten dituzten ekimenei dagokienez, oraindik ere beharrezkoa dela dauden neurriak berritzeko eta berriz diseinatzeko ahalegina egitea, langileen eta zerbitzuak ematen dituzten enpresen beharrak bateratu ahal izateko. Horrek aukera emango luke azken urteotan alor horretan ikusten ari den hobekuntza bizkortzeko. Neurri horiek, gainera, lan-merkatuan jarduera- eta okupazio-tasa handitzea lor dezakete.

2020arekin alderatuta, 2021ean hobera egin dute lana, familia eta norberaren bizi-tza uztartzeari buruzko adierazleek, nahiz eta kezagarria den oraindik ere genero-desberdintasuna zaintza-lanetan, bai seme-alaben kasuan, bai mendeko pertsonen kasuan.

Azkenik, EAEko Genero-berdintasunaren Indizeak hobera egiten jarraitzen du aurreko urteekin alderatuta, eta Europako batez bestekoak baino puntuazio hobea lortu du aztertzen diren dimentsio guztietan. Indize horri dagokionez, urteak igaro ahala genero-arrakala hobetu egin dela ikusten bada ere, genero-berdintasuna lehentasuntzat hartu behar da euskal gizartearentzat, eta botere publikoek bultzatzen jarraitu behar dute.

3.2.2. Gizarte-babesa

Kapitulu honetan azaldutako datuek erakusten dute EAEko gizarte-babeseko sistemak bere estaldura mantentzen duela, Europako herrialde nagusien pareko mailetan. EAEko Gizarte Babesaren Kontuak erakusten du 2021ean gizarte-babesera bideratutako baliabideen bolumenak gora egiten jarraitzen zuela. Era berean, EAEko gizarte-babeseko per capita gastua EBko eta Estatuko batez bestekoaren gainetik zegoen.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemari dagokionez, gure ongizate-sistemaren tresna garrantzitsua den horri dagokionez, alegia, Eusko Jaurlaritzaren azken PGDIk (2020ko datuekin) berretsi zuen Sistemak funtzionatzen zuela Euskadin pobrezia murriztea ahalbidetzen zuen aldetik, baita babeserako beharrezkoen igoera hain garrantzitsua izan zen aldian ere.

Izan ere, kapitulu honetako "Bizi-baldintzak" atalean ikusi den bezala, pobrezia- eta bazterketa-arriskuaren Europako adierazleak (ARPE) maila onean mantentzen dira EAEn, 2021ean, estatuko eta Europako testuinguruan. Hala ere, ez dugu ahaztu behar Euskadin oraindik 120.000 pertsona baino gehiago daudela (biztanleriaren % 5,6) benetako pobrezia-egoeran, PGDIk definitutako terminoen arabera.

Era berean, ikusi dugu 2022an berriz ere jaitsi dela Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak jasotzen dituzten titularren kopurua, eta, bereziki, beren soldata-errenten osagarri gisa diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenena (kopuru absolutuetan zein erlatiboetan). Hala, azken memorietan unitate hartzaileen profiletan ikusi ditugun aldaketak benetakoak direla baieztatu daiteke. Izan ere, Espainiako nazionalitatea duen 40 urtetik gorako eta oinarrizko ikasketak dituen emakumearen profila mantentzen den arren, DSBEa jasotzen duten titularren artean nagusi den bezala, pandemiari eta nazioarteko testuinguru konplexuari lotutako aldaketek premia berriak dituzten kolektibo berriak azaleratuko dituzte seguru asko, eta premia horiei erantzun egin beharko zaie. Ildo horretan, 2022an egiaztatu ahal izan da gora egin duela DSBEa jasotzen duten atzerritarren eta pentsiodunen ehunekoak.

Gizarte-zerbitzuen Euskal Sistemari dagokionez, azpimarratu behar da 2026-2019 Gizarte-zerbitzuen Plan Estrategikoaren Ebaluazio-txostenean ondorioztatu zela EAEk Sistema finkatua duela ibilbide luzeko krisi baten testuinguruan, eta nabarmen hazi dela bere magnitude nagusietan.

Eta, Mendetasunaren Arretarako Sistemari dagokionez, Mendetasunaren Espainiako Behatokiaren txostenek nabarmentzen dute EAEk beste autonomia-erkidego batzuek baino garapen handiagoa duela, bai baloratutako pertsonen ehunekoari dagokionez, bai emandako prestazioei dagokionez; hala ere, azken urte honetan, hainbat posizio galdu ditu autonomia-erkidegoen rankingean, sistemaren balorazio orokorrari dagokionez.

Gizarte Segurantzaren pentsioei dagokionez, beste urte batez kezkatzen gaitu, horien saldo defizitarioaz gain, sistemaren iraunkortasunak eta ekitateak. Arlo horretan, gogorazi nahi dugu berrikuntza-neurri berriek aplikazio-aldi bat behar dutela ondorioak egiaztatzeko, eta, beraz, jarraipena eta analisisa egin behar direla, inpaktua eta planteatutako helburuetara egokitzen den egiaztatzeko.

Edozelan ere, 2022. urteak agerian utzi du, beste urte batez, gizarte-babeseko sistema sendoa izateak duen garrantzia, gure gizarteak dagoeneko bere gain hartu dituen erronkei, geroz eta premia handiagoei eta balizko erronka eta errealitate berriei aurre egiteko.

1. HEZKUNTZA ETA KULTURA

Hezkuntza da pertsonen eta gizartearen aurrerapenean gehien eragiten duten faktoreetako bat; izan ere, beharrezkoa da ongizatean eta gizarte-kohezioan eta hazkunde ekonomikoan mailarik onenak lortzeko, zientzia, teknologia eta berrikuntza sustatzeko zein komunitatea hobetzen lagunduko duten herritar demokratiko, kritiko eta solidarioak lortzeko. Garrantzitsua izan da beti garapen ekonomikorako eta sozialerako, baina gaur egungo munduan, neurri batean zientziaren aurrerapenak eta horren aplikazioek eragindako eraldaketa sakonak bizi diren munduan, gero eta garrantzi handiagoa hartu du, bai eta horiek bezain azkar garatzen diren IKTek eragindako eraldaketengatik ere.

Ekonomia modernoetan, ekoizpenaren faktorerik garrantzitsuenetako bat bilakatu da ezagutza. Arlo ekonomikoan eta sozialean gehien aurreratu diren gizarteak dira ezagutzan oinarrituriko aurrerapena lortu dutenak, eskolaren bidez transmititzen den ezagutzan nahiz ikerketaren bidez sortzen denean. Hezkuntzak, zientziak eta berrikuntza teknologikoak geroz eta eragin handiagoa dute produktibitatean eta lehiakortasun ekonomikoan, bai eta lurraldeen garapen sozialaren eta kulturalaren zati handi batean ere.

Bosgarren kapituluko lehenengo atala bi bloketan banatuta dago, alde batetik, hezkuntza aztertzen delarik, eta, bestetik, kulturaren alorreko zenbait alderdi.

Lehenengo blokea, lehenengo hiru ataletan azaltzen da, eta, bertan, ikasleek unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan egindako matrikulen bilakaera, unibertsitatean matrikulatutakoen eta graduatutakoen bilakaera, lanbide heziketako eta hezkuntza unibertsitarioko ikasleen laneratzea eta lau atal handi hauetan banatutako zenbait hezkuntza-adierazle jasotzen dira: eskolaz- eta hezkuntza-testuinguruko adierazleak, hezkuntza-finantzazioko adierazleak, hezkuntza-emaitzetako adierazleak, eta zenbait unibertsitate-adierazle.

Bigarren blokean, kulturari buruzko laugarren atala lantzen da. Lehenik eta behin, kultura-ohiturei buruzko zenbait adierazle aztertzen dira, bigarrenik, kultura-enpresak eta horien enplegua aztertzen dira, hirugarrenik, autonomia-erkidegoen administrazioek kulturaren egindako gastu publikoa eta etxeetako kultura kontsumoaren gastua aztertzen dira, eta gero euskarak gure erkidegoan bizi duen egoera aurkezten da.

1.1. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAK

1.1.1. Araubide orokorreko irakaskuntzetan matrikulatutako ikasleak

EUSTATEN “Eskola-jardueraren Estatistika (EJE)” errolda-ekimena da, urtean behin egiten dena, eta, horri esker, aurretiazko azterketetan hezkuntza-sistema ezagutzen da, eta, bertan, irakaskuntza arautua ematen duten ikastetxe guztiak kontuan hartzen dira, hau da, Eusko Jaurlaritzako Ikastetxeen Erregistroan daudenak, publikoak zein pribatuak. Bertan, araubide orokorreko eta araubide bereziko irakaskuntzak ezberdintzen dira. Lehenengoan artean, honako hauek daude: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH), Batxilergoa, Lanbide Heziketa (LH) eta Helduen Hezkuntza (HHE). Araubide bereziko irakaskuntzak honako hauek dira: hizkuntzak, musika, kirola, arte plastikoak, dantza eta arte dramatikoak.

Estatistika honen arabera, unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetan 368.414 pertsona zeuden matrikulatuta 2021/22 ikasturtean (HHEkoak kanpo), eta, horrek esan nahi du, aurreko ikasturtearekin alderatuz % 0,9ko jaitsiera egon zela (3.198 ikasle gutxiago).

Mailen arabera, eta hezkuntza berezia zenbatu gabe, beheko mailetan (Haur eta Lehen Hezkuntza) 202.276 ikasle matrikulatu ziren (76.387 Haur Hezkuntzan (-% 2,8ko jaitsiera, aurreko aldietan ere jaitsierak egon zirelarik), 125.889 Lehen Hezkuntzan (-% 1,7), DBHn 87.091 (-% 0,1) eta Oinarrizko LHn 4.746 (-% 1,5).

Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondoko Hezkuntzari dagokionez, Batxilergoan 32.640 pertsona¹ (+% 0,4 aurreko urtekoaren aldean) matrikulatu ziren eta Erdi-mailako LHn 16.289 (+% 3,4). Hala, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasleen % 66,7k Batxilergoa aukeratu zuen, eta % 33,3k, berriz, Erdi-mailako Lanbide Heziketan eskaintako moduluetakoa bat egitea erabaki zuen. Bestalde, goi-mailako Lanbide Heziketan 23.749 pertsona matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 3 gehiago².

EUSTATen informazioaren arabera, Haur Hezkuntzaren kasuan, jaitsiera egon den bederatzigarren ikasturtea izan da jarraian, eta horrek esan nahi du 2012/13 ikasturtetik matrikulazioa jaitsi egin dela, 20.000tik gora matrikula gutxiago. Aitzitik, erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasle-kopurua sei ikasturte segidan igo da, eta, erregistroak daudenetik lehen aldiz, 40.000 ikasletik gora izan ziren.

Era berean, 2021-22 ikasturtean, lanbide-heziketako³ [espezializazio-ikastaroak](#) ezarri ziren EAEn: 33 ikasle matrikulatu ziren erdi-mailako espezializazio-ikastaroetan, eta 110 goi-mailako espezializazio-ikastaroetan.

V.1.1. KOADROA. ARAUBIDE OROKORREAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, MAILAREN ARABERA (1)									
	2017/2018	2018/19	2019/20	2020/21	2021/22	ALD. % 2019/20 2020/21	ALD. % 2020/21 2021/22	DIF. 2019/20 2020/21	DIF. 2020/21 2021/22
GUZTIRA	375.318	375.949	376.104	371.612	368.557	-1,2	-0,8	-4.492	-3.055
HAUR HEZKUNTZA	89.023	87.243	85.239	78.613	76.387	-7,8	-2,8	-6.626	-2.226
LEHEN HEZKUNTZA	130.625	131.057	130.041	128.125	125.889	-1,5	-1,7	-1.916	-2.236
HEZKUNTZA BEREZIA –HB– (HAUR HEZKUNTZA-LEHEN HEZKUNTZA)	486	484	458	472	531	3,1	12,5	14	59
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH)	83.225	85.142	86.304	87.189	87.091	1,0	-0,1	885	-98
HEZKUNTZA BEREZIA (DBH)	363	403	422	495	490	17,3	-1,0	73	-5
OINARRIZKO LANBIDE HEZIKETA	4.607	4.570	4.700	4.820	4.746	2,6	-1,5	120	-74
BATXILERGOA	30.398	30.272	31.234	32.502	32.640	4,1	0,4	1.268	138
ERDI MAILAKO LH	14.520	14.732	15.102	15.752	16.289	4,3	3,4	650	537
ERDI MAILAKO LH-KO ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK					33			0	33
GOI MAILAKO LH	21.505	21.468	22.016	23.056	23.749	4,7	3,0	1.040	693
GOI MAILAKO LH-KO ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK					110			0	110
HEZKUNTZA BEREZIA: ZEREGINEN IKASKUNTZA	566	578	588	588	602	0,0	2,4	0	14
ERDI MAILAKO LH ETA BATXILERGOA (A)	44.918	45.004	46.336	48.254	48.962	4,1	1,5	1.918	708
ERDI MAILAKO LH / A (%)	32,3	32,7	32,6	32,6	33,3			0	1
BATXILERGOA / A (%)	67,7	67,3	67,4	67,4	66,7			0	-1

(i) Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak. Ez da barnean sartzen Helduen Hezkuntza Etengabea
Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

Sexuen banaketari dagokionez⁴, EUSTATEk 2021/22 ikasturteari buruz dituen datuen arabera, LHn gizonen ehunekoak % 64a gaintzen duen arren, Batxilergoan, emakumeen ehunekoak guztizkoari dagokionez altuagoa da: % 53,9 emakumeak eta % 46,1 gizonak.

¹ Batxilergoan bi ikasturte akademiko daude, ohiko moduan 16 eta 18 urte artean egiten direnak.

² Lanbide Heziketaren irakaskuntza-sisteman 16 urterekin sartzen dira ikasleak erdi-mailako graduari, batxilergoaren alternatiba gisa, eta 18 urterekin goi-mailako graduari, betiere, hezkuntza tertziarioaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan. Erdi-mailako heziketa-zikloekin teknikari titulua lortzen da, eta goi-mailako heziketa-zikloekin, goi-mailako teknikari-titulua.

³ Hezkuntza-sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duen uztailaren 29ko 1147/2011 Errege Dekretuak 27. artikuluan arautzen ditu lanbide-heziketako espezializazio-ikastaroak, eta espezializazio-ikastaro horiek bete behar dituzten betekizunak eta baldintzak zehazten ditu. Artikulu horretan bertan adierazten denez, erreferentziako tituluen ezagutza-arloan sakontzea dakarten arloei buruzkoak izango dira, edo titulu horietan jasotako gaitasunak zabalteak dakarten arloei buruzkoak. Beraz, espezializazio-ikastaro bakoitzean zehaztu behar dira ikastaro horretan sartzeko aukera ematen duten lanbide-heziketako tituluak.

Ildo horretan, espezializazio-ikastaroek azkar erantzun behar diete produkzio-sisteman sortzen diren berrikuntzei, bai eta erreferentzia-tituluetan jasotako prestakuntza osatzen duten esparru berriei ere.

Era berean, aipaturiko errege-dekretuaren 9. artikuluan espezializazio-ikastaroen egitura ezartzen da, eta 27. artikuluan adierazten denez, ikastaro horien izaera kontuan hartuta, prestakuntzaren zehaztapen osoa eskatzen da; hala ere, hezkuntza-administrazioek zehaztapen puntualak txertatu ahal izango dituzte, beren lurraldeko produkzio-sektorearen ezaugarrien arabera.

⁴ Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako sexuen banaketa ez da aztertu, horrek, ez baitu zerikusirik hautaketa-arrazoiekin.

V.1.2. KOADROA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, HEZKUNTZA MAILAREN ETA SEXUAREN ARABERA (1)						
	2020/21			2021/22		
	2018/19	GIZONAK	EMAKUME AK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUME AK
GUZTIRA (HHE GABE)	371.612	195.977	175.635	368.557	52,8	47,2
HAUR HEZKUNTZA	78.613	51,6	48,4	76.387	51,7	48,3
HB (HAUR HEZKUNTZA)	32	46,9	53,1	51	49,0	51,0
LEHEN HEZKUNTZA	128.125	51,5	48,5	125.889	51,3	48,7
HB (LEHEN HEZKUNTZA)	440	71,8	28,2	480	70,0	30,0
DBH	87.189	51,5	48,5	87.091	51,6	48,4
HB (DBH)	495	66,5	33,5	490	67,1	32,9
BATXILERGOA	32.502	46,0	54,0	32.640	46,1	53,9
ERDI MAILAKO LH	15.752	65,8	34,2	16.289	65,6	34,4
ERDI MAILAKO LH-KO ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK				33	93,9	6,1
GOI MAILAKO LH	23.056	63,7	36,3	23.749	63,7	36,3
GOI MAILAKO LH-KO ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK				110	79,1	20,9
HB (ZEREGINEN IKASKUNTZA)	588	62,1	37,9	602	64,5	35,5
OINARRIZKO LH	4.820	73,1	26,9	4.746	73,0	27,0

(i) Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak. Ez da barnean sartzen Helduen Hezkuntza Etengabea Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn matrikulazioa handiagoa da sare publikoan pribatuan baino. Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondoko Hezkuntzari dagokionez, hauek dira emaitzak: Batxilergoko matrikulazioa sare pribatukoa baino pixka bat handiagoa da (% 53,9 pribatuan eta % 46,1 publikoan) eta Lanbide Heziketan nagusi dira zentro publikoetako matrikulak.

V.1.3. KOADROA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO ARAUBIDE OROKORREKO IRAKASKUNTZETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, HEZKUNTZA MAILAREN ETA IKASTETXEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA (1)						
	2020/21			2021/22		
	GUZTIRA	PUBLIKOA	PRIBATUA	GUZTIRA	PUBLIKOA	PRIBATUA
GUZTIRA, HHE GABE	371.612	51,0	49,0	368.557	52,8	47,2
HAUR HEZKUNTZA	78.613	52,8	47,2	76.387	51,7	48,3
HB (HAUR HEZKUNTZA)	32	15,6	84,4	51	49,0	51,0
LEHEN HEZKUNTZA	128.125	51,8	48,2	125.889	51,3	48,7
HB (LEHEN HEZKUNTZA)	440	40,9	59,1	480	70,0	30,0
DBH	87.189	46,6	53,4	87.091	51,6	48,4
HB (DBH)	495	51,5	48,5	490	67,1	32,9
BATXILERGOA	32.502	48,2	51,8	32.640	46,1	53,9
ERDI MAILAKO LH	15.752	63,3	36,7	16.289	65,6	34,4
ERDI MAILAKO LH-KO ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK				33	93,9	6,1
GOI MAILAKO LH	23.056	57,3	42,7	23.749	63,7	36,3
GOI MAILAKO LH-KO ESPEZIALIZAZIO IKASTAROAK				110	79,1	20,9
HB (ZEREGINEN IKASKUNTZA)	588	63,9	36,1	602	64,5	35,5
OINARRIZKO LH	4.820	28,3	71,7	4.746	73,0	27,0

(i) Araubide orokorreko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak. Ez da barnean sartzen Helduen Hezkuntza Etengabea Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

1.1.2. Batxilergoa: modalitateen arabera matrikulatutako ikasleak

Modalitateen arabera⁵, 2021-2022 ikasturtean, ikasleen % 53,9 Zientzietan matrikulatu zen, % 33,9 Gizarte-zientzietan, % 8 Giza Zientzietan eta % 4,2 Arteetan.

Emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa izan da Arteetan (% 76,1), Giza Zientzietan (% 65) eta Gizarte-zientzietan (% 56,7). Hala ere, gizonen ratioa igo egin da. Aldiz, Zientzietan matrikulatutako gizonen ehuneko emakumeena baino handiagoa da (% 51,3 vs % 48,7).

⁵ 2015-2016 ikasturteak aurrera, Batxilergoko modalitateak Zientziak, Giza Zientziak, Gizarte-zientziak eta Arteak dira.

V.1.4. KOADROA. IKASLEEN BATXILERGOKO BANAKETA, MODALITATEAREN ETA SEXUAREN ARABERA

	2019/2020			2020/21				2021/22				AL GUZ 2020 2021/
	GUZTIRA	% HORIZONTALA		GUZTIRA	% BERTIKALA	% HORIZONTALA		GUZTIRA	% BERTIKALA	% HORIZONTALA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK			GIZONAK	EMAKUMEAK			GIZONAK	EMAKUMEAK	
GUZTIRA	31.234	100	14.154	32.502	100	14.950	17.552	32.640	100,0	46,1	53,9	
ARTEAK	1.241	4,0	26,6	1.261	3,9	26,8	73,2	1.384	4,2	23,9	76,1	
GIZA/GIZARTE ZIENTZIAK (GIZA ZIENTZIAK)	2.537	8,1	32,4	2.547	7,8	35,0	65,0	2.616	8,0	35,	65,0	
GIZA/GIZARTE ZIENTZIAK (GIZARTE ZIENTZIAK)	10.346	33,1	41,2	10.932	33,6	42,3	57,7	11.059	33,9	43,3	56,7	
ZIENTZIAK	17.110	54,8	51,1	17.762	54,6	51,2	48,8	17.581	53,9	51,3	48,7	

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika.

1.1.3. Erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketa: lanbide-arloaren arabera matrikulatutako ikasleak eta ikasleen laneratzea

1.1.3.1. Matrikulatutako ikasleak, lanbide-arloaren arabera. 2021-2022 ikasturtea

	V.1.5. KOADROA. IKASLE KOPURU GEHIEN DUTEN ADARRAK					
	ERDI MAILA (% bertikalak)			GOI MAILA (% bertikalak)		
	19-20	20-21	21-22	19-20	20-21	21-22
GUZTIRA	15.102	15.752	16.322	22.016	23.056	23.859
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROL-JARDUERAK	0,7	0,8	1,3	3,5	3,4	3,5
ADMINISTRAZIOA ETA KUDEAKETA	8,1	8,2	7,7	11,2	10,9	11,0
NEKAZARITZA	1,7	1,7	1,6	1,2	1,1	1,0
ARTE GRAFIKOAK	1,7	1,7	1,7	1,2	1,2	1,1
MERKATARITZA ETA MARKETINA	2,6	2,7	2,7	5,3	5,4	5,2
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	1,0	1,2	1,1	1,3	1,4	1,2
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	8,9	9,1	9,4	10,8	10,7	10,8
ENERGIA ETA URA	0,0	0,0	0,0	0,5	0,6	0,9
FABRIKAZIO MEKANIKOA	15,1	14,7	13,2	15,0	14,6	13,2
OSTALARITZA ETA TURISMOA	5,5	5,5	5,1	4,4	4,2	3,9
IRUDI PERTSONALA	5,0	4,8	4,7	1,8	2,0	1,9
IRUDIA ETA SOINUA	0,3	0,3	0,3	2,6	2,5	2,8
ELIKADURA-INDUSTRIAK	1,1	1,1	1,0	0,1	0,2	0,2
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	7,3	7,3	7,5	9,8	10,4	10,3
INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK	7,8	8,1	8,1	7,0	7,2	7,5
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	1,9	1,8	1,9	0,3	0,4	0,5
ITSASOA ETA ARRANTZA	1,2	1,1	1,2	1,1	1,2	1,3
KIMIKA	0,7	0,7	0,7	2,2	2,0	2,1
OSASUNA	14,7	15,0	16,5	7,3	7,2	7,4
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	0,0	0,0	0,0	0,5	0,6	0,7
GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	6,9	6,8	6,4	9,5	9,6	10,0
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	0,2	0,1	0,3	0,5	0,5	0,5
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	7,6	7,4	7,5	2,7	2,8	2,8

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

2021-22 ikasturtean, erdi mailako adar profesionaletan matrikulatu ziren ikasle gehienak: Osasuna (% 16,5, +% 13,6), Fabrikazio Mekanikoa (% 13,2, -% 6,6), Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,4, +% 6,3), Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 8,1, +% 4,3), Administrazioa eta Kudeaketa (% 7,7, -% 2,1), Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 7,5, +% 5,5) eta Informatika eta Komunikazioak (% 7,5, +% 6,8). Fabrikazio Mekanikoak eta Administrazio eta Kudeaketak izan ezik, aipatutako gainerakoetan matrikulazioak gora egin du.

Goi-mailako titulazioen artean hauek nabarmendu ziren matrikulazio bolumenaren arabera: Fabrikazio mekanikoa (% 13,2, -% 6), Administrazioa eta Kudeaketa (% 11, % 4,2), Elektrizitatea eta Elektronika (% 10,8, % 5,1), Informatika eta Komunikazioak (% 10,3, % 1,7), Zerbitzu soziokulturalak (% 10, +% 7,9), Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 7,5, +% 7,9) eta Osasuna (% 7,4, +% 6,7). Fabrikazio Mekanikoak izan ezik, aipatutako guztiek izan dute igoera matrikulazioan.

Emakumeen parte-hartzea oso handia da honako arlo hauetan: irudi pertsonala, ehungintza, jantzigintza eta larrugintza, osasuna eta zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzako zerbitzuak. Bigarren garrantzi-talde batean, honako arlo hauek nabarmentzen dira: Administrazioa eta Kudeaketa, Elikagaien industriak, Merkataritza eta marketina eta Kimika. Hala ere, batez beste, emakumeek gizonen baino gutxiago parte hartzen dute lanbide-ikasketetan (maila ertainean, % 34,4 eta % 36,2, hurrenez hurren; gizonen kasuan, berriz, % 65,6 eta % 63,8), eta, gainera, profil teknikoagoa duten lanbide-arloetan emakumeen matrikulazio txikia egon da, eta arlo horiek dute, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, laneratze onena. Hala, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio mekanikoa, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze-lanak, Garraioa eta Ibilgailuen mantentze-lanak sailetan emakumeen matrikulazioa % 15,2ra iristen da, kasurik onenean.

V.1.6. KOADROA. ERDI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, LANBIDE-ARLOAREN ARABERA. EAE													
	2019-20		2020-21		2021-22		ALDAKUNTZA, GUZTIRA		ALDAKUNTZA, EMAKUMEAK		% EMAKUMEAK		
	GUZTI RA	EMAK UMEAK	GUZTI RA	EMAK UMEAK	GUZTI RA	EMAK UMEAK	19/20-20/21	20/21-21/22	19/20-20/21	20/21-21/22	2019-20	2020-21	2021-22
GUZTIRA	15.102	5.230	15.752	5.385	16.322	5.610	4,3	3,6	3,0	4,2	34,6	34,2	34,4
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROL-JARDUERAK	112	24	124	23	220	39	10,7	77,4	-4,2	69,6	21,4	18,5	17,7
ADMINISTRATIOA ETA KUDEAKETA	1.217	741	1.286	733	1.259	659	5,7	-2,1	-1,1	-10,1	60,9	57,0	52,3
NEKAZARITZA	258	47	261	61	263	58	1,2	0,8	29,8	-4,9	18,2	23,4	22,1
ARTE GRAFIKOAK	257	107	275	126	278	122	7,0	1,1	17,8	-3,2	41,6	45,8	43,9
MERKATARITZA ETA MARKETINA	396	181	426	196	435	220	7,6	2,1	8,3	12,2	45,7	46,0	50,6
ERAKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	148	34	195	35	178	42	31,8	-8,7	2,9	20,0	23,0	17,9	23,6
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	1.350	55	1.441	57	1.532	67	6,7	6,3	3,6	17,5	4,1	4,0	4,4
ENERGIA ETA URA	-	-	-	-	-	-							
FABRIKAZIO MEKANIKOA	2.284	137	2.311	129	2.158	104	1,2	-6,6	-5,8	-19,4	6,0	5,6	4,8
OSTALARITZA ETA TURISMOA	828	300	861	321	837	313	4,0	-2,8	7,0	-2,5	36,2	37,3	37,4
IRUDI PERTSONALA	759	676	750	668	768	682	-1,2	2,4	-1,2	2,1	89,1	89,1	88,8
IRUDIA ETA SOINUA	49	10	48	11	54	11	-2,0	12,5	10,0	0,0	20,4	22,9	20,4
ELIKADURA-INDUSTRIAK	166	95	167	103	165	99	0,6	-1,2	8,4	-3,9	57,2	61,7	60,0
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	1.109	85	1.144	87	1.222	88	3,2	6,8	2,4	1,1	7,7	7,6	7,2
INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK	1.181	45	1.270	50	1.325	46	7,5	4,3	11,1	-8,0	3,8	3,9	3,5
ZURA, ALTZARIARIK ETA KORTXOA	284	39	288	33	302	32	1,4	4,9	-15,4	-3,0	13,7	11,5	10,6
ITSASOA ETA ARRANTZA	174	9	177	11	202	8	1,7	14,1	22,2	-27,3	5,2	6,2	4,0
KIMIKA	108	59	115	59	112	55	6,5	-2,6	0,0	-6,8	54,6	51,3	49,1
OSASUNA	2.213	1.677	2.367	1.750	2.690	2.029	7,0	13,6	4,4	15,9	75,8	73,9	75,4
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	-	-	-	-	-	-							
GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	1.045	839	1.064	855	1.048	833	1,8	-1,5	1,9	-2,6	80,3	80,4	79,5
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	23	18	19	14	47	41		147,4		192,9		73,7	87,2
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	1.141	52	1.163	63	1.227	62	1,9	5,5	21,2	-1,6	4,6	5,4	5,1

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

V.1.7. KOADROA. GOI-MAILAKO LANBIDE HEZIKETAKO IKASLEAK, LANBIDE-ARLOAREN ARABERA. EAE

	2019-20		2020-21		2021-22		ALDAKUNTZA, GUZTIRA		ALDAKUNTZA, EMAKUMEAK		% EMAKUMEAK		
	GUZTIRA	EMAKU MEAK	GUZTIR A	EMAKU MEAK	GUZTIR A	EMAKU MEAK	19/20- 20/21	20/21- 21/22	19/20- 20/21	20/21- 21/22	2019- 20	2020 -21	2021 -22
GUZTIRA	22.016	7.990	23.056	8.371	23.859	8.648	4,7	3,5	4,8	3,3	36,3	36,3	36,2
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROL-JARDUERAK	760	179	779	189	828	196	2,5	6,3	5,6	3,7	23,6	24,3	23,7
ADMINISTRATIOA ETA KUDEAKETA	2.462	1.564	2.516	1.586	2.622	1.612	2,2	4,2	1,4	1,6	63,5	63,0	61,5
NEKAZARITZA	255	52	264	58	249	66	3,5	-5,7	11,5	13,8	20,4	22,0	26,5
ARTE GRAFIKOAK	270	153	279	160	274	161	3,3	-1,8	4,6	0,6	56,7	57,3	58,8
MERKATARITZA ETA MARKETINA	1.161	488	1.250	538	1.240	546	7,7	-0,8	10,2	1,5	42,0	43,0	44,0
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	295	108	317	128	294	106	7,5	-7,3	18,5	-17,2	36,6	40,4	36,1
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	2.375	195	2.456	200	2.582	185	3,4	5,1	2,6	-7,5	8,2	8,1	7,2
ENERGIA ETA URA	115	11	131	13	219	13	13,9	67,2	18,2	0,0	9,6	9,9	5,9
FABRIKAZIO MEKANIKOA	3.308	427	3.359	399	3.156	349	1,5	-6,0	-6,6	-12,5	12,9	11,9	11,1
OSTALARITZA ETA TURISMOA	975	479	960	471	940	466	-1,5	-2,1	-1,7	-1,1	49,1	49,1	49,6
IRUDI PERTSONALA	397	375	469	431	448	412	18,1	-4,5	14,9	-4,4	94,5	91,9	92,0
IRUDIA ETA SOINUA	572	145	571	167	657	201	-0,2	15,1	15,2	20,4	25,3	29,2	30,6
ELIKADURA-INDUSTRIAK	20	12	41	25	54	26		31,7		4,0	60,0	61,0	48,1
INFORMATIKA ETA KOMUNIKAZIOAK	2.165	321	2.405	364	2.447	371	11,1	1,7	13,4	1,9	14,8	15,1	15,2
INSTALAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK	1.546	106	1.668	131	1.800	140	7,9	7,9	23,6	6,9	6,9	7,9	7,8
ZURA, ALTZARIAK ETA KORTXOA	73	25	90	26	122	26	23,3	35,6	4,0	0,0	34,2	28,9	21,3
ITSASOA ETA ARRANTZA	240	7	268	14	299	19	11,7	11,6	100,0	35,7	2,9	5,2	6,4
KIMIKA	490	295	471	285	506	321	-3,9	7,4	-3,4	12,6	60,2	60,5	63,4
OSASUNA	1.607	1.242	1.662	1.295	1.773	1.366	3,4	6,7	4,3	5,5	77,3	77,9	77,0
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	116	39	139	47	161	58	19,8	15,8	20,5	23,4	33,6	33,8	36,0
GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	2.101	1.638	2.210	1.711	2.385	1.860	5,2	7,9	4,5	8,7	78,0	77,4	78,0
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	108	95	114	100	130	115	5,6	14,0	5,3	15,0	88,0	87,7	88,5
GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	605	34	637	33	673	33	5,3	5,7	-2,9	0,0	5,6	5,2	4,9

Iturria: EUSTAT. Eskola-jardueraren Estatistika

1.1.3.2. Ikasleen laneratzea. 2018-2020 promozioak

Hurrengo koadroko datuak promozioiko ikasleen laneratzea erakusten dute. Hortik ondorioztatzen denez, igarotako ikasle gehien dituzten 8 lanbide-arloetatik (Fabrikazio Mekanikoa, Osasuna, Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak, Administrazioa, Elektrizitatea eta Elektronika, Produktorako Zerbitzuen Mantentze-lanak, Informatika eta Ibilgailu Autopropulsatuen Mantentze-lanak), hauek dira gizarteratze-ratio handienak erregistratzen dituztenak: Produktorako zerbitzuen mantentzea (okupazio-tasa: % 87,8), Fabrikazio mekanikoa (% 83,1), Ibilgailu autopropulsatuen mantentze-lanak (% 81,8), Informatika (% 80,9) eta Osasuna (% 80).

Kapitulu honen aurreko puntuan erakutsi dugun bezala, arlo horietan emakumeen matrikulazioa, kasurik onenean, % 15era baino ez da iristen, hori horrela, horietako batzuetan oso baxua da.

Aipatutako 8 lanbide-arloetako heziketa-ziklo bakoitzaren okupazio-tasak V.1.9 koadroan azaltzen dira, eta honako hau ikus daiteke:

- Igarotako 100 ikasle baino gehiago eta % 85 inguruko edo hortik gorako okupazio-tasa duten zikloak honako hauek dira:
 - Elektrizitatean eta Elektronikan, Goi-mailako Gradua Automatizazioan eta Robotika Industrialean eta Goi-mailako Gradua Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuetan.
 - Fabrikazio mekanikoan, Goi-mailako Gradua Fabrikazio Mekanikoko produkzioaren programazioan.
 - Informatikan, Goi-mailako Gradua Plataforma anitzeko aplikazioen garapena.
 - Ibilgailuen Mantentze-lanetan, Goi-mailako Gradua Automozioan.
 - Produkzioaren Zerbitzuetan eta Mantentze-lanetan, Goi-mailako Gradua Mekatronika Industrialean.
 - Osasunean, Erdi-mailako Gradua Farmazia eta Parafarmazian eta Goi-mailako Gradua Aho-hortzetako higiean.
- Honako hauek dira % 90etik gorako okupazio-tasa duten zikloak (igarotako ikasle-kopurua kontuan hartu gabe):
 - Ibilgailuen Mantentze-lanetan, Erdi-mailako Gradua Makineriako Elektromekanikan.
 - Produkzioaren Zerbitzuak eta Mantentze-lanetan, Erdi-mailako Gradua Beroa ekoizteko instalazioetan, Goi-mailako Gradua Mekatronika Industrialean eta Goi-mailako Gradua Instalazio termikoen eta fluidoan instalazioen mantentze-lanetan.
 - Osasunean, Erdi-mailako Gradua Osasun-larrialdietan, Goi-mailako Gradua Anatomia patologikoa eta zitodiagnostikoan eta Goi-mailako Gradua Aho-hortzetako higiean.
 - Zerbitzu soziokulturaletan eta komunitatearentzako zerbitzuetan, Goi-mailako Gradua Animazio Soziokultural eta Turistikoan.

V.1.8. KOADROA. IKASLEEN OKUPAZIO-TASEN ETA KOPURUAREN BILAKAERA LANBIDE-ARLOEN ARABERA 2018-2020 PROMOZIOAK						
	OKUPAZIOA-TASA			IKASLEAK		
	2018	2019	2020	2018	2019	2020
NEKAZARITZA-JARDUERAK	78,8	80,2	76,2	163	160	140
ITSASO ETA ARRANTZA JARDUERAK	76,5	83,5	77,8	104	158	89
JARDUERA FISIKOAK ETA KIROL-JARDUERAK	93,1	86,9	85,4	353	402	325
ADMINISTRAZIOA	81,4	74,9	77,6	1.105	1.257	1.154
ARTE GRAFIKOAK	73,4	71,0	73,1	175	169	151
MERKATARITZA ETA MARKETINA	79,9	74,7	74,9	463	571	528
KOMUNIKAZIOA, IRUDIA ETA SOINUA	68,0	51,5	70,6	220	301	212
ERAIKUNTZA ETA OBRA ZIBILA	96,4	75,0	79,5	75	101	83
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	86,5	78,6	79,1	1.085	1.217	1.063
FABRIKAZIO MEKANIKOA	84,2	77,6	83,1	1.519	1.837	1.675
OSTALARITZA	80,8	78,0	78,1	361	404	302
TURISMOA	87,3	62,9	70,0	138	203	159
IRUDI PERTSONALA	81,5	70,5	74,2	418	448	350
ELIKADURA-INDUSTRIAK	72,0	74,2	68,8	50	62	56
INFORMATIKA	85,0	83,2	80,9	784	880	829
ZURGINTZA ETA ALTZARIGINTZA	84,6	73,2	79,4	79	85	75
AUTOPROP. IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	84,8	85,9	81,8	532	614	521
PRODUKZIOAREN ZERBITZUEN MANTENTZE-LANAK	89,1	84,3	87,8	687	933	775
KIMIKA	80,2	73,1	62,4	186	207	196
OSASUNA	78,6	85,0	80,0	1.436	1.599	1.382
ZERBITZU SOZIOKUTURALAK ETA KOM.	80,6	77,6	76,1	1.182	1.297	1.179
EHUNGINTZA, JANTZIGINTZA ETA LARRUGINTZA	75,0	67,9	75,0	36	55	30
ENERGIA ETA URA	90,0	88,9	66,7	21	26	24
SEGURTASUNA ETA INGURUMENA	72,2	57,9	83,3	57	48	40
GUZTIRA	82,6	78,5	79,1	11.229	13.034	11.338

Iturria: LANBIDE.

V.1.9. KOADROA. PROMOZIOKO IKASLE-KOPURU HANDIENA DUTEN ZIKLOETAKO IKASLEEN OKUPAZIO-TASAK ETA KOPURUA. 2018KO PROMOZIOA*

2020. URTEA					
HEZIKETA-ZIKLOAK	TASA	IKASLEAK	HEZIKETA-ZIKLOAK	TASA	IKASLEAK
4101 Administrazio-kudeaketa EMHZ	% 66,7	373	17101 Elektronikako Mantentze-lanak. EMHZ	% 78,6	274
4201 Administrazioa eta finantzak EMHZ	% 79,7	682	17104 Beroa ekoizteko instalazioak. EMHZ	% 90,0	56
4202 Zuzendaritzarako Laguntza. EMHZ	% 79,6	99	17105 Hozteko eta girozteko instalazioak. EMHZ	% 85,7	19
ADMINISTRAZIOA	% 77,6	1.154	17202 Mekatronika Industriala. EMHZ	% 90,1	359
9103 Instalazio Elektrikoak eta Automatikoak EMHZ	% 60,3	284	17204 Laneko arriskuen prebentzioa EMHZ	% 78,6	24
9104 Telekomunikazio-instalazioak EMHZ	% 70,0	79	17205 Instalazio termikoen eta fluidoan instalazioen mantentze-lanak EMHZ	% 96,2	43
9203 Automatizazio eta Robotika Industriala. EMHZ	% 84,7	388	MANTENTZE-LANAK ETA EKOIZPENERAKO ZERBITZUAK	% 87,8	775
9204 Telekomunikazio- eta informatika-sistema EMHZ	% 75,7	90	19101 Erizaintzako Zainketa Lagungarriak EMHZ	% 79,8	589
9205 Sistema Elektroteknika eta Automatizatuak. EMHZ	% 85,9	119	19102 Farmazia eta Parafarmazia EMHZ	% 84,4	103
9206,00 9206-Elektromedikuntza klinikoa EMHZ	% 66,7	6	19103 Osasun-larrialdiak. EMHZ	% 93,9	64
ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA	% 79,1	1.063	19201 Anatomia patologikoa eta zitodiagnostikoa EMHZ	% 92,3	42
10102 Mekanizazioa EMHZ	% 77,0	556	19202 Dietetika EMHZ	% 80,0	108
10103 Soldadura eta Galdaragintza EMHZ	% 75,0	156	19203 Osasun-dokumentazioa eta -administrazioa EMHZ	% 73,7	48
10201 Metalezko Eraikuntzak EMHZ	% 80,4	101	19204 Aho-hortzetako higieena EMHZ	% 94,3	130
10202 Fabrikazio Mekanikoko Diseinua EMHZ	% 82,2	268	19205 Diagnosi-irudia eta medikuntza nuklearra EMHZ	% 73,8	77
10205 Fabrikazio Mekanikoko produkzioaren programazioa EMHZ	% 86,9	594	19206 Laborategi klinikoa eta biomedikoa	% 70,6	155
FABRIKAZIO MEKANIKOA	% 83,1	1.675	19207 Ortoprosesiak eta Laguntza-produktuak EMHZ	% 66,7	23
14102 Sistema Mikroinformatikoak eta Sareak EMHZ	% 73,5	329	19208 Hortz-protesiak EMHZ	% 75,0	14
14202 Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapena. EMHZ	% 89,8	147	19209 Erradioterapia eta Dosimetria EMHZ	% 53,8	21
14203 Sareko informatika-sistemen administrazioa EMHZ	% 76,1	212	19210 Ingurumen-osasuna EMHZ	% 33,3	8
14204 Web Aplikazioen Garapena. EMHZ	% 81,3	141	OSASUNA	% 80,0	1.382
INFORMATIKA	% 80,9	829	20101 Menpekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta. EMHZ	% 76,1	340
16101 Karrozeria EMHZ	% 64,7	109	20201 Animazio Soziokultural eta Turistikoa. EMHZ	% 90,0	25
16102 Ibilgailuen Elektromekanika EMHZ	% 84,2	201	20202 Haur-hezkuntza EMHZ	% 68,0	418
16103 Makineriako Elektromekanika. EMHZ	% 100,0	9	20203 Gizarteratzea EMHZ	% 81,6	396
16201 Automozioa EMHZ	% 87,4	202	GIZARTE- ETA KULTURA-ZERBITZUAK ETA KOMUNITATERAKO ZERBITZUAK	% 76,1	1.179
IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK	% 81,8	521			

* Ez dira barne hartzen igarotako ikaslerik gabeko epigrafeak

Iturria: LANBIDE

1.2. UNIBERTSITATEKO IRAKASKUNTZAK

1.2.1. Unibertsitateko matrikulazioa

EUSTATen “Unibertsitatearen estatistikan” jasotako datuen arabera, 2020-21 ikasturtean, EAEko unibertsitateetan 69.933 ikasle zeuden matrikulatuta, hau da, aurreko ikasturtearekin alderatuta, kopurua % 2,5 igo zen. Graduak guztizkoaren % 84 izan ziren, hau da, % 2,1 gehiago. Gainerako % 16a graduondoko ikasketetan matrikulatu zen (master ofizialak eta doktoretzak), lehenengoak % 5,3 igo zirelarik, eta bigarrenak % 3,8. Graduondoko ikasleen hazkundea % 4,6koa izan da.

EUSTATen arabera, 2020/21 ikasturtean 2.903 pertsona matrikulatu ziren gradu bikoitzean⁶, aurreko ikasturtean baino % 8 gehiago. Matrikula-kopuru handiena duen gradu bikoitza Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza Zuzenbidearekin uztartzen dituen da, eta, ondoren, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak Lehen Hezkuntzarekin uztartzen dituen.

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Graduaren zeharkakotasuna dela-eta, programazio bateratu horietan gehien parte hartzen duen titulazioa da, eta berarekin batera doazen graduak askotarikoak izatea ahalbidetzen du, Zuzenbidetik hasi eta Ingeniaritza Mekanikoraino, adibidez. Gradu bikoitzeko ikasleen ia % 40ak ikasgaien artean Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza zituen programazioan matrikulatu ziren.

Ikastetxeen titulartasunaren arabera, ikasleen % 71,1 unibertsitate publikoan matrikulatu zen (ratio horrek jaisten jarraitzen du). Graduetan, ratioa % 71ekoa da, master ofizialetakoa % 61,6koa eta doktoretzetako ratioa % 86koa.


Unibertsitateko ikasle gehienak emakumeak izan ziren (% 54,2). Graduetan % 54,9 dira eta graduondoko programetan banaketa orekatuagoa da, emakumeen ratioa % 50,5 delarik.

V.1.10. KOADROA. EAE-N UNIBERTSITATEAN Matrikulatutako ikasleen bilakaera, ikasketen arabera							
	2016/17	2017/18	2018/19	2019/20	2020/21		ALDAKUNTZA (%)
					GUZTIR A	% BERTIKALA	2019/20-2020/21
GUZTIRA	66.286	66.757	67.374	68.237	69.933	100,0	2,5
LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOETAN Matrikulatutakoak	3	---	---	---			
GRADUETAN Matrikulatutakoak	56.177	56.558	56.845	57.534	58.734	84,0	2,1
GRADUONDOETAN Matrikulatutakoak	10.106	10.199	10.529	10.703	11.199	16,0	4,6
MASTER OFIZIALAK	5.934	6.075	6.137	6.230	6.558	9,4	5,3
DOKTORETZAK	4.172	4.124	4.392	4.473	4.641	6,6	3,8

Iturria: EUSTAT. Unibertsitateko estatistika

⁶ Gradu bikoitzak programazio bateratuak dira, non irakasgaien sekuentziak antolatzen baita eta bi gradu desberdinetako ordutegia koordinatzen baita, ikasleek aldi berean bi titulazio lor ditzaten, modu independentean eginez gero beharko luketen denbora baino denbora laburragoan.

V.1.1. GRAFIKOA. EAE-N UNIBERTSITATEAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA, IKASKETEN ARABERA



V.1.11. KOADROA. EAE-KO UNIBERTSITATEAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK IKASKETEN, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA

	2018-19			2019-20			2020-21		
	GUZTIRA	EMAKU-MEEN %	IKASTETXE PUBLIKOEN %	GUZTIRA	EMAKU-MEEN %	IKASTETXE PUBLIKOEN %	GUZTIRA	EMAKU-MEEN %	IKASTETXE PUBLIKOEN %
GUZTIRA	67.374	53,8	72,0	68.237	54,0	71,6	69.933	54,2	71,1
LEHENENGO ETA BIGARREN ZIKLOETAN MATRIKULATUTAKOAK	---	---	---	---	---	---	---	---	---
GRADUETAN MATRIKULATUTAKOAK	56.845	54,4	72,0	57.534	54,7	71,4	58.734	54,9	71,0
GRADUONDOETAN MATRIKULATUTAKOAK	10.529	50,3	72,4	10.703	50,3	72,7	11.199	50,5	71,7
MASTER OFIZIALAK	6.137	49,6	62,2	6.230	50,8	62,4	6.558	50,9	61,6
DOKTORETZAK	4.392	51,3	86,6	4.473	49,6	87,1	4.641	49,9	86,0

Iturria: EUSTAT. Unibertsitateko estatistika

V.1.12. KOADROA. UNIBERTSITATEAN MATRIKULATUTAKO IKASLEAK, IKASKETA-ADARREN ETA SEXUAREN ARABERA.

	2018-19			2019-20			2020-21		
	GUZTIRA	% HORIZONTALAK		GUZTIRA	% HORIZONTALAK		GUZTIRA	% HORIZONTALAK	
		GIZONAK	EMAKUMEAK		GIZONAK	EMAKUMEAK		GIZONAK	EMAKUMEAK
GUZTIRA	67.374	46,2	53,8	68.237	46,0	54,0	69.933	45,8	54,2
Artea eta giza zientziak	6.139	37,9	62,1	6.189	37,3	62,7	6.309	36,3	63,7
Zientziak	4.232	48,5	51,5	4.312	49,3	50,7	4.417	49,2	50,8
Osasun-zientziak	8.843	23,2	76,8	8.969	23,2	76,8	9.286	23,1	76,9
Gizarte- eta zuzenbide-zientziak	32.768	41,2	58,8	33.005	40,8	59,2	33.623	40,9	59,1
Ingeniaritza eta arkitektura	15.392	72,7	27,3	15.762	72,3	27,7	16.298	71,6	28,4
Titulazio bikoitza	2.165	45,3	54,7				3.064	42,8	57,2

Iturria: Eustat. Unibertsitateko estatistika

LHko matrikulazioan gertatzen den bezala, unibertsitate-ikasketak aukeratzeak genero-estereotipoei erantzuten die oraindik ere. Hala, ikusten denez, emakumeek unibertsitateko adar teknikoetan duten parte-hartzea (Ingeniaritza eta Arkitektura) gizonen baxuagoa da (2020-21 ikasturtean % 28,4 eta % 71,6).

Emakumeen aldeko desoreka handiena izan zuten graduak Haur Hezkuntza, Erizaintza eta Pedagogia izan ziren; izan ere, horietako batean ere, gizonen ez zuten gaintu matrikulatutako ikasle guztizkoaren % 15a. Aitzitik, hoguei gradutan emakumeen presentzia % 25etik beherakoa izan zen, guztiak ingeniaritzaren adarrekoak.

1.2.2. Unibertsitateko tituluak lortzea

2020-21 ikasturtean 14.404 pertsona graduatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 2,9 gehiago. Emakumeak, guztira, % 55,9 izan ziren. Ikasketa-moten arabera, 10.217 ikaslek gradu-titulua lortu zuten, 3.639 ikaslek master ofizialeko titulua, eta 548 ikaslek doktoretza-titulua lortu zuten.

Graduko ikasketetara joz gero, ikasleen % 52,4 Gizarte-zientzien eta Zientzia Juridikoen adarreko ikasketetan graduatu ziren, eta ondoren, % 21,1 Ingeniaritzan eta Arkitekturan. Neurri txikiagoan Osasun-zientzietan (% 13,5), Arteetan eta Giza-zientzietan (% 7,8) eta Zientzietan (% 5,2).

Sexuen arteko aldeak ikusten dira graduko ikasketen adarraren hautaketan, eta emakumeek nahiago dituzte osasun-zientzien barruan sartzen diren programak (guztizkoaren % 79,4 emakumeak dira), arteak eta giza zientziak (% 68,5), gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak (% 62,3) eta zientziak (% 57,5), irakaskuntza teknikoak baino (emakumeak % 27 baino ez).

V.1.13. KOADROA. EAE-KO UNIBERTSITATEETAN MATRIKULATUTAKO IKASLEEN BILAKAERA							
	2017/18	2018/19	2019/20	2020/21			
				GUZTIRA	% BERTIKALAK	% EMAKUMEAK (HORIZONTALA)	AURREKO IKASTURTE AREKIKO ALDAKUNTZA
GRADUAK	9.209	9.316	10.146	10.217	100,0	57,4	0,7
ARTEA ETA GIZA ZIENTZIAK	741	715	777	798	7,8	68,5	2,7
ZIENTZIAK	466	485	546	527	5,2	57,5	-3,5
OSASUN-ZIENTZIAK	1.294	1.322	1378	1.382	13,5	79,4	0,3
GIZARTE- ETA ZUZENBIDE-ZIENTZIAK	4.792	4.871	5402	5.351	52,4	62,3	-0,9
INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	1.916	1.923	2043	2.159	21,1	27,0	5,7
TITULAZIO BIKOITZAK (*)	205	335		483		54,9	
MASTER OFIZIALAK	3.244	3.219	3.421	3.639		53,0	6,4
DOKTORETZA-TESIAK	367	458	435	548		46,5	26,0
GUZTIRA	12.820	12.993	14.002	14.404		55,9	2,9

(*) Aurreko erregistroetan jadanik gehitutako zenbatekoa
Iturria: EUSTAT. Unibertsitateko estatistika

1.2.3. Unibertsitate-ikasleen laneratzea. 2018an egresatutako gradu-promozioa.

Atal honetan, EAEko hiru unibertsitateetan 2018an egresatutako gradu-promozioak 2021eko abenduan izan zuen laneratzea aztertzen da, LANBIDEn informaziotik abiatuta. Datuak telefono bidezko elkarrizketa pertsonalen bidez lortu ziren, 2021eko azaroa eta abendua bitartean, eta emaitzak zuzeneko erantzunen arabera aurkeztu dira, haztatu gabe.

LANBIDEn datuen arabera, 8.457 pertsona elkarrizketatu ziren, eta guztizkoaren % 58 emakumeak izan ziren. Karrera euskaraz egin zutenen ehunekoak % 47koa izan zen. Ikasketak amaitu zituztenen batez besteko adina 24 urtekoa izan zen, karreraren batez besteko iraupena 4,5 urtekoa eta batez besteko nota 7,2koa.

Laneratzeari dagokionez, jarduera-tasa⁷ % 91koa izan zen, enplegu-tasa⁸ % 79koa, okupazio-tasa⁹ % 87koa eta langabezia-tasa¹⁰ % 13koa. Ratio horiek aurreko promozioetan ikusitakoekin alderatuz gero, ikusten da egoerak okerrera egin duela azken urteetan.

Ikasketak amaitu eta lehen enplegua¹¹ lortu bitartean 11 hilabete igaro dira, aurreko urteetan baino gutxiago.

Gizonen eta emakumeen arteko konparazioak aldeak azaltzen ditu jarduera- eta enplegu-tasetan; ez, ordea, lan- eta langabezia-tasetan, ez eta lehen enplegua aurkitzeko behar duten denboran ere.

V.1.14. KOADROA. EAE-KO UNIBERTSITATEETAN EGRESATUTAKO BIZTANLERIAREN LANERATZEA 2016-18 PROMOZIOAK.									
	2016			2017			2018		
PROMOZIOAREN DESKRIBAPENA									
EGRESATUTAKO PERTSONA-KOPURUA	8.965			8.255			8.457		
% EMAKUMEA, GUZTIZKOAREN GAINEAN	57			58			58		
BATEZ BESTEKO ADINA KARRERA AMAITZEAN	24			24			24		
KARRERA EUSKARAZ EGITEN DUTENEN %	47			48			47		
KARRERAREN BATEZ BESTEKO IRAUPENA, URTETAN	4,7			4,5			4,5		
KARRERAKO BATEZ BESTEKO NOTA	7,1			7,2			7,2		
LANERATZEARI BURUZKO DATUAK									
	EGOERA 2019-IV. HIRUHIL.			EGOERA 2020-IV. HIRUHIL.			EGOERA 2021-IV. HIRUHIL.		
	GUZTI RA	EMAKUM EAK	GIZON AK	GUZTI RA	EMAKUM EAK	GIZON AK	GUZTI RA	EMAKUM EAK	GIZON AK
JARDUERA-TASA	93	94	94	93	93	93	91	91	92
ENPLEGU-TASA	84	84	84	81	81	81	79	79	80
OKUPAZIOA-TASA	90	90	90	87	87	87	87	87	87
LANGABEZIA-TASA	10	10	10	13	13	13	13	13	13
IKASKETAK AMAITZETIK LEHENENGO ENPLEGURA BITARTEKO DENBORA (BATEZ BESTEKO HILABETEA)	13	13	12	11	12	11	10	10	10

Iturria: LANBIDE. Laneratzeari buruzko azterlana. Laneratzea 2021eko abendua. Euskal unibertsitateen multzoa

Ezagutza-arloen arabera, osasunari eta espezialitate teknikoei lotutakoek dituzte enplegu-tasa handienak, bi kasuetan, % 87. Ondoren, arlo ekonomiko-juridikoak (% 79) eta esperimentalak (% 77) daude.

Langabezia-tasarik txikienak osasunari eta espezialitate teknikoei lotutako ezagutza-arloetan daude, % 8 eta % 6, hurrenez hurren. Tasarik altuenak giza zientzietan (% 19) eta gizarte-esparruetan (% 18) erregistratu dira.

Prestakuntzari lotutako enpleguari dagokionez, hirugarren mailako prestakuntzari lotutako lanak (unibertsitatekoa edo goi-mailako profesionala)¹² dituzten pertsonen ehuneko gisa neurtua, % 83koa da; tasarik

⁷ Jarduera-tasa: lan bat egiten duten pertsonen eta lanik ez duten, baina lana bilatzen duten eta lanean hasteko prest dauden pertsonen ehunekoa. Pertsona aktiboak honako hauek dira: landunak eta langabeak.

⁸ Enplegu-tasa: enplegu ordaindua duten edo jarduera independente bat burutzen duten pertsonen ehunekoa, erantzun guztiei dagokienez.

⁹ Okupazio-tasa: ordaindutako enplegua duten pertsonen ehunekoa, pertsona aktibo guztiei dagokienez

¹⁰ Langabezia-tasa: ordaindutako enplegurik ez duten pertsonen ehunekoa

¹¹ Lan-esperientzia duen biztanleria aktiboak erantzun du, ikasketak amaitu aurretik lanean zeudenak izan ezik.

¹² Enpresen zuzendaritza eta gerentzia, unibertsitateko titulazioari lotutako profesional zientifikoak eta intelektualak, eta laguntza-teknikariak eta -profesionalak.

handienak arlo teknikoetan daude (% 95), eta ondoren osasunarekin lotutako arloetan (% 94) eta arlo esperimentaletan (% 91).

Bestalde, beren lanak burutu dituzten ikasketekin NAHIKO edo OSO lotuta daudela uste duten landunen ehunekoak % 79koa da. Ratorik handienak arlo hauetan erregistratu dira: osasuna (% 90), arlo teknikoak (% 85) eta arlo ekonomiko-juridikoak (% 78).

V.1.15. KOADROA. EAE-KO UNIBERTSITATEETAN EGRESATUTAKO BIZTANLERIAREN LANERATZEA					
EZAGUTZA-ESPARRUAREN ARABERA. DATUAK EHUNEKOETAN.					
2017KO PROMOZIOA 2020KO LAUGARREN HIRUHILEKOAN					
	JARDUERA-TASA	ENPLEGU-TASA	LANGABEZIA-TASA	NEURRIKO ENPLEGU-TASA	IKASKETEKIN NAHIKO EDO OSO LOTUTA DAGOEN ENPLEGUA (%)
ESPERIMENTALAK	87	73	16	92	81
TEKNIKOAK	96	87	9	96	83
OSASUNA	93	87	7	94	90
SOZIALAK	94	77	17	80	73
EKONOMIKO-JURIDIKOAK	92	80	12	77	76
GIZA ZIENTZIAK	90	72	20	82	71
GUZTIRA	93	81	13	86	79
2018KO PROMOZIOA 2021EKO LAUGARREN HIRUHILEKOAN					
ESPERIMENTALAK	89	77	14	91	77
TEKNIKOAK	94	87	8	95	85
OSASUNA	93	87	6	94	90
SOZIALAK	90	74	18	78	73
EKONOMIKO-JURIDIKOAK	89	79	11	74	78
GIZA ZIENTZIAK	90	73	19	72	64
GUZTIRA	91	79	13	83	79

Iturria: LANBIDE. Laneratzeari buruzko azterlana. Laneratzea. Euskal unibertsitateen multzoa

1.3. HEZKUNTZA-ADIERAZLEAK

Hezkuntza-sistema baten alderdi anitzak diseinatzeko orduan sailkapen asko erabil badaitezke ere, epigrafe honek Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren “*Mapa del Sistema Estatal de Indicadores de Educación*” (Hezkuntza-adierazleen Estatuko Sistemaren Mapa) du oinarri.

Memoria sozioekonomiko honetan ohikoa den moduan, zenbait adierazletan urteko jarraipena egiten da, eta beste batzuk bi urtean behin edo hiru urtean behin aztertzen dira, hala, beste adierazle batzuk aztertu ahal izateko; eta modu paraleloan, beste adierazle batzuk, informazio berria eskuragarri dagoenean aztertzen dira (PISA, Ebaluazio diagnostikoa...).

Epigrafearen amaieran, Unibertsitate Sistemako beste adierazle batzuk eta unibertsitateek Shanghaiko sailkapenean duten postua azaldu dira.

Epigrafe honetan zehar kontuan izan behar dira Hezkuntzako Normalizatutako Nazioarteko Sailkapena (CINE 2011)- eta Hezkuntzako Sailkapen Nazionala (CNED 2014), memoria honetako glosarioan jasota daudenak.

V.1.16. KOADROA. ADIERAZLEEN SAILKAPENA	
Eskolatzeta eta hezkuntza-ingurunea	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolatzeta eta biztanleria • Eskolatzeta-tasak • Ikasle atzerritarrak • Ikasleak, talde eta irakasle bakoitzeko • Lanbide Heziketa • Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza • Irakasleak • Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea • IKT
Hezkuntza-finantzaketa	<ul style="list-style-type: none"> • Hezkuntzako gastu osoa • Hezkuntzako gastua ikasle bakoitzeko
Hezkuntza-emitzen adierazleak	<ul style="list-style-type: none"> • Oinarrizko gaitasunak Lehen Hezkuntzako laugarren mailan • Oinarrizko gaitasunak DBHko bigarren mailan • 15 urterekin izan beharreko ezinbesteko gaitasunak (PISA) • Ikasleen adinaren egokitasuna • Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea • Titulua lortu dutenen tasak • Helduen prestakuntza-maila • Jarduera- eta langabezia-tasak prestakuntza-mailaren arabera • Laneko diru-sarrerak, prestakuntza-mailaren arabera • Helduen gaitasun-maila • Gutxieneko gaitasun-maila irakurketan eta matematikan

Iturria: Hezkuntza-adierazleen estatuko sistema. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta guk egindakoa

1.3.1. Eskolatzeta eta hezkuntza-ingurune adierazleak


Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza: atzerriko hizkuntza ikasgai gisa.

Hizkuntzek zubiak eraiki ditzakete pertsonen artean, eta beste herrialde eta kultura batzuetara sartzea eta elkar hobeto ulertzea erraztu dezakete. Atzerriko hizkuntzak ezagutzea ere gero eta garrantzitsuagoa da, gazteen enplegarritasuna handitzen baitute, eta enpresen lehiakortasun-faktore baitira. Europako Kontseiluak atzerriko bi hizkuntza ezagutzea proposatu du ikasle guztientzat, eta Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (CEFR) eta Hizkuntzen Portfolio Europarra (ELP) proposatu ditu, Europako eleaniztasuna, kultura-aniztasuna eta mugikortasuna sustatzeko eta bultzatzeko.

Atzerriko hizkuntza bat gutxienez ikastea nahitaezkoa da derrigorrezko etapetan eta Batxilergoan, eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen ehuneko oso altuak dagoeneko kontaktua dauka atzerriko hizkuntza batekin, nahiz eta ratioa txikiagoa den EAEn Estatuan baino: % 78,7 EAEn eta % 84,1 Estatuan 2019-2020 ikasturtean.

Ia ikasle guztiek ingeleza ikasten dute atzerriko lehen hizkuntza gisa.


V.1.2. GRAFIKOA. ATZERRIKO HIZKUNTZA IKASTEN DUTEN HAUR HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOKO IKASLEEN EHUNEKOAK. 2019-2020



Iturria: Hezkuntza-adierazleen estatuko sistema. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa eta guk egindakoa.

Aukerako atzerriko bigarren hizkuntza ikasten duten ikasleak ere daude, baina EAEko ratioak ere Estatuko batez bestekoak baino txikiagoak dira: DBHko ikasleen kasuan % 20,4 EAEn eta % 43,3 Estatuan; Batxilergoko ikasleen kasuan, % 7 EAEn eta % 24 Estatuan; eta Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, % 0,8 EAEn eta % 20,3 Estatuan; gehienbat, frantsesa. Hala,

- DBHn, non atzerriko bigarren hizkuntza hautazko irakasgai gisa eskaini behar den ikastetxe guztietan, bigarren atzerriko hizkuntza bat ikasten duten ikasleen ehuneko handienak dituzten bi erkidegoak Kanariak (% 77,9) eta Galizia (% 69,9) dira, eta, ondoren, beste lau erkidego eta hiri autonomo bat (horiek ere % 50a gainditzen dute). Beste muturrean, berriz, hiru erkidego ez dira % 30era iristen, eta horietako bat EAE da (% 20,4).
- Batxilergoan, atzerriko bigarren hizkuntza bat ikasten duten ikasleek ehuneko desberdina da Andaluziaren (% 64,8) eta gainerako autonomia-erkidegoen (Nafarroa buru dela, % 21,8arekin) artean; bi erkidego eta hiri autonomo bat % 10etik behera daude. Horietako bat EAE da; esan bezala, ratioa % 7koa da.
- bigarren atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza Lehen Hezkuntzan esanguratsua da Andaluzian (% 67,6), eta nabarmenduta ageri da; ondoren, Kanarietan (% 36,8), Murtzian (% 32,5), Aragoian (% 27,5) eta Kantabrian (% 21). Ratio txikia duten autonomia-erkidegoen artean EAE dago (% 0,8).



EBko herrialde gehienetan, atzerriko hizkuntza baten ikaskuntza orokortzen hasi da Lehen Hezkuntzan. Bigarren Hezkuntzako lehen etapan, ikasleen zati handi batek hautazko bigarren hizkuntza bat ere ikasten du, nahiz eta herrialdeen artean desberdintasun esanguratsuak egon; adibidez: Luxenburgoren batez beste 2,5 atzerriko hizkuntza ikasten dituzte, Finlandian 2,2, Hungarian 1,1 eta Irlandan 0,9; Espainiako Estatuan 1,5 hizkuntza ikasten dira. Bigarren Hezkuntzan (bigarren etapa orokorra), zenbait herrialdetan gora egin du ikasitako atzerriko hizkuntzen batez besteko kopuruak. Belgika eta Eslovenia nabarmendu behar dira, 1,4 hizkuntzatik 2,1era eta 1,3tik 2,0ra igaro baitira, hurrenez hurren. Beste batzuetan, berriz, eutsi egin zaio, eta beste batzuetan behera egin du. Portugal eta Grezia nabarmen dira, 1,9 hizkuntzatik 0,8ra eta 1,9tik 0,7ra, hurrenez hurren.

Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza: ikasbide-hizkuntza gisa atzerriko hizkuntza bat erabiltzea.



Honela definitzen da: atzerriko hizkuntza irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzen duten hezkuntza-espereziak burutzen dituzten ikasle matrikulatuen ehunekoa eta esperientzia horiek eskaintzen dituzten ikastetxeen ehunekoa.

Atzerriko hizkuntza baten bidez ikasgaiak irakasteak bi helburu ditu: hizkuntza ikastea eta edukiak ikastea. Espainiako hezkuntza-administrazioek ezar dezakete curriculumeko jakintzagaien zati bat atzerriko hizkuntzetan irakastea, curriculumaren oinarriko alderdiak aldatu gabe, eta ahaleginak egingo dituzte ikasleek, etapan zehar, ikasgaien berezko terminologia bi hizkuntzetan eskura dezaten.

2019-20 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako EAeko ikasleen % 33,4k ikasbide-hizkuntza gisa atzerriko hizkuntza bat erabiltzen duen hezkuntza-espereziaren batean parte hartu zuen, Estatuko % 44,4ko batez bestekoaren azpitik. DBHn, ikasleen % 43,2k parte hartzen du esperientzia horietan, Estatuko % 33,4ko batez bestekoaren gainetik.

Oro har, ingelesa da irakaskuntza-hizkuntza gisa gehien erabiltzen den hizkuntza, eta Estatu osorako datuekin, atzerriko hizkuntza bat irakaskuntza-hizkuntza gisa erabiltzen duten esperientzietan parte hartzen duten ikasleen hazkundera etengabea izan da 2015-16 ikasturteetik. Lehen Hezkuntzan, esperientzia horietan parte hartzen duten

ikasleen proportzioa handiagoa da itunpeko ikastetxeetan, eta Bigarren Hezkuntzan handiagoa da ikastetxe publikoetan.



Etengabeko ikaskuntzan parte hartzea

Inkesta egin aurreko lau asteetan edozein hezkuntza- edo prestakuntza-mota jaso duten 25 eta 64 urte arteko biztanleen ehuneko gisa definitzen da.

Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko Europako lankidetzarako esparru estrategiko berriaren barruan (2021-2030), etengabeko ikaskuntza guztiontzako errealitate bihurtzea lehentasun estrategikoa da. Guztiontzako kalitatezko etengabeko ikaskuntzaren eskaintzan aurrera egitea, bereziki ikaskuntza-ibilbideen arteko iragazkortasuna eta malgutasuna bermatuz, hezkuntza- eta prestakuntza-modu eta -maila desberdinetan, eta ikaskuntza ez-formala eta informala baliozkotzea beharrezkoa izaten jarraitzen du.

2030 Agendaren 4. GHaren barruan ere 4.3 xedea ere sartzen da: gaurtik 2030era, emakume eta gizon guztiak prestakuntza tekniko, profesionala eta goi mailako kalitatezko prestakuntza jasotzen dutela bermatzea, unibertsitateko irakaskuntza barne, eta 4.3.1. adierazle orokorra definitzen da: Ikasleen eta helduen prestakuntza akademikoko eta ez akademikoko eta aurreko 12 hilabeteetako trebakuntzako parte-hartze tasa.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren “Las cifras de la educación en España” (Hezkuntzaren zifrak Espainian) urtekariaren 2023ko edizioko datuen arabera, 2021ean EAEn, 25 eta 65 urte arteko biztanleriaren % 16,9k inkesta egin baino aurreko lau asteetan prestakuntza jardueraren batean parte hartu zuen. Modu horretan, EAE EB27ko batez bestekoaren gainetik dago (% 10,8) baina oraindik Europa iparraldeko herrialdeetako parte-hartze ratioetatik urrun dago: Suedia (% 34,7), Finlandia (% 30,5), Herbehereak (% 26,6) eta Danimarka (% 22,3).

V.1.17. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA HEZKUNTZAN ETA PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEN DUTEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN %. 2021			
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
GUZTIRA	14,4	12,7	16,0
ANDALUZIA	12,7	11,7	13,6
ARAGOI	15,3	12,9	17,7
ASTURIAS	14,7	12,6	16,8
BALEAR UHARTEAK	13,6	12,1	15,1
KANARIAR UHARTEAK	13,4	11,4	15,4
KANTABRIA	16,2	14,9	17,5
GAZTELA ETA LEON	14,8	12,4	17,3
GAZTELA-MANTXA	12,0	10,6	13,6
KATALUNIA	13,0	11,2	14,8
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	17,3	14,8	19,8
EXTREMADURA	12,7	11,4	13,9
GALIZIA	15,2	14,1	16,3
MADRIL	15,6	14,3	16,8
MURTZIA	13,8	12,4	15,2
NAFARROA	16,1	14,2	18,0
EAE	16,9	14,6	19,2
ERRIOXA	14,2	11,8	16,5
CEUTA	12,9	13,0	12,7
MELILLA	13,1	13,2	13,0

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

Autonomia-erkidegoei dagokienez, ehunekorik handienak Valentziako Erkidegoan (% 17,3), Euskadin (% 16,9), Kantabrian (% 16,2) eta Nafarroan (% 16,1) daude.

Lurralde gehienetan (EBko estatuetan eta autonomia-erkidegoetan) emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da. EAEn, % 19,2 eta % 14,6, hain zuzen ere.

V.1.18. KOADROA. ETENGABEKO PRESTAKUNTZA. HEZKUNTZAN ETA PRESTAKUNTZAN PARTE HARTZEN DUTEN 25-64 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN %									
	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2011	2016	2021	2011	2016	2021	2011	2016	2021
EB27	8,1	10,3	10,8	7,5	9,4	10,1	8,6	11,1	11,6
ALEMANIA	7,9	8,5	7,7	7,9	8,7	7,8	7,8	8,3	7,6
AUSTRIA	13,5	14,9	14,6	12,3	13,5	13,3	14,6	16,3	15,8
BELGIKA	7,4	7,0	10,2	7,0	6,5	10,0	7,8	7,5	10,4
BULGARIA	1,6	2,2	1,8	1,5	2,1	1,7	1,6	2,3	1,9
ZIPRE	7,8	6,9	9,7	7,7	6,7	9,9	7,9	7,1	9,5
KROAZIA	3,1	3,0	5,1	2,9	3,1	3,7	3,3	2,9	6,4
DANIMARKA	32,3	28,0	22,3	25,7	23,0	18,1	38,9	33,0	26,6
ESLOVENIA	16,0	11,6	18,9	13,8	10,2	17,4	18,3	13,2	20,6
ESPAINIA	11,2	9,4	14,4	10,3	8,6	12,7	12,1	10,2	16,0
ESTONIA	11,9	15,3	18,4	9,2	12,2	14,4	14,5	18,2	22,5
FINLANDIA	23,8	26,4	30,5	19,9	22,6	25,5	27,7	30,3	35,8
FRANTZIA	5,5	18,8	11,0	5,1	16,3	9,9	5,9	21,2	12,1
GREZIA	2,8	4,0	3,5	2,9	4,0	3,5	2,6	4,0	3,4
HUNGARIA	3,0	6,3	5,9	2,8	5,6	5,8	3,1	7,0	5,9
IRLANDA	7,2	6,5	13,6	6,9	6,1	12,0	7,6	6,8	15,2
ITALIA	5,7	8,3	9,9	5,3	7,8	9,8	6,1	8,7	10,0
LETONIA	5,4	7,3	8,6	4,1	6,1	5,5	6,5	8,5	11,5
LITUANIA	6,0	6,0	8,5	4,5	5,1	6,7	7,3	6,8	10,2
LUXENBURGO	13,9	16,8	17,9	14,5	16,7	17,4	13,3	16,9	18,3
MALTA	6,6	7,8	13,9	6,2	7,0	12,9	7,1	8,7	14,9
HERBEHEREAK	17,1	18,8	26,6	16,9	18,0	25,7	17,3	19,6	27,5
POLONIA	4,4	3,7	5,4	3,9	3,4	5,0	4,9	4,0	5,9
PORTUGAL	11,5	9,6	12,9	10,8	9,6	12,0	12,1	9,7	13,7
TXEKIAR ERREPUBLIKA	11,6	8,8	5,8	11,4	8,6	5,6	11,9	9,0	5,9
ESLOVAKIAR ERREPUBLIKA	4,1	2,9	4,8	3,5	2,6	4,6	4,6	3,2	4,9
ERRUMANIA	1,6	1,2	4,9	1,7	1,2	5,2	1,5	1,2	4,7
SUEDIA	25,3	29,6	34,7	18,7	22,7	28,3	32,0	36,7	41,4

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

1.3.2. Hezkuntza-finantzaketaren adierazleak

EUSTAT: Hezkuntzaren kontua.

EUSTATen Hezkuntzaren Kontuan hezkuntza-alor guztietako (araututako eta ez arautuak) ohiko gastua eta kapital gastua jasotzen dira, hezkuntza-erakundeetan eta bestelako zentroetan eta enpresetan egindakoak, eta iturri publikoekin eta pribatuekin finantzatuak izan direnak.

2020ari buruzko datuen aurrerapenak erakusten du gastua % 0,2 hazi zela 2019aren aldean. Hazkunde-tasa horri eta BPGaren bilakaera negatiboari (zeina % 9,6 jaitsi baitzen) esker¹³, hezkuntzan egindako gastua BPGarekiko % 5,78ra iritsi da, eta ehuneko 0,56 puntu igo da 2019koaren aldean.

Finantzaketa-egiturari dagokionez, finantzaketa publikoa % 75etik gora mantendu da aztertutako urte guztietan; azken urtean, 2020an, % 76,9ra iritsi da.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 2021eko Memoria Sozioekonomikoaren ediziora bideratzen ditugu irakurleak, Memoriaren kapitulu honen amaieran ez baita datu berririk argitaratu.

¹³ Hezkuntza-sektorea, gainerako jarduerak guztiak bezala, COVID-19ak eragindako krisiak aldatu zuen 2020an.

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa: hezkuntzako gastu publikoa, administrazio-motaren arabera

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren *Las cifras de la educación en España. Edición 2022* (Espainiako hezkuntzaren zifrak, 2022ko edizioa) txostenean jasotako datuen arabera, EB27ko¹⁴ hezkuntzako gastu publikoa 2019an BPGaren % 4,7koa izan zen, estatuko % 4,08ko ratioaren gainetik. Ratio handienak dituzten herrialdeak aurreko urteko berberak dira (aldaketekin rankingean): Finlandia (% 6,06), Suedia (% 7,06), Danimarka (% 6,36), Belgika (% 6,25), Finlandia (% 9,06), Frantzia (% 5,35), Zipre (% 5,24), Herbehereak (% 5,16) eta Austria (% 4,71).

V.1.19. koadroan azaltzen den moduan, Hezkuntza eta LHko Ministerioaren datuen arabera, 2021ean, estatuko administrazio eta unibertsitate guztien hezkuntzako gastu publikoa (finantza kapituluak kenduz, hala, gorabeherak kentzen direlarik eta nazioarteko konparazioak egin daitezkeelarik) 59.425,4 milioi eurokoa izan zen, hau da, BPGaren % 4,92 (2020ko ratio berdina).

V.1.19. KOADROA. HEZKUNTZAKO GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA, ADMINISTRAZIO-MOTAREN ARABERA (MILA €). GASTU PUBLIKOA, FINANTZA-KAPITULUAK KANPO								
	GASTUA				% GASTUA/BPG			
	2018	2019	2020	2021	2018	2019	2020	2021
ESTATUA, GUZTIRA	50.455.042	52.856.048	54.970.492	59.425.385	4,19	4,24	4,92	4,92
HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA ETA HEZKUNTZA-ESKUMEN GUZTIAK EZ DITUZTEN EAE-KO HEZKUNTZA-ADMINISTRAZIOAK	44.250.967	46.397.230	48.964.473	52.570.147	3,68	3,73	4,38	4,36
<i>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa</i>	2.185.106	2.215.426	2.579.491	5.178.448	0,18	0,18	0,23	0,43
<i>Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, autonomia-erkidegoetara egindako transferentziak kenduta</i>	1.820.979	1.849.634	1.903.426	2.286.003	0,15	0,15	0,17	0,19
Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioak (Hezkuntza Kontseilaritzak/Sailak)	42.429.988	44.547.596	47.061.047	50.284.143	3,52	3,58	4,21	4,17
ANDALUZIA	8.118.668	8.424.026	8.903.703	9.862.430	5,06	5,11	5,98	6,14
ARAGOI	1.219.199	1.268.254	1.305.580	1.369.475	3,31	3,33	3,68	3,61
ASTURIAS	830.903	866.769	903.874	936.119	3,58	3,66	4,25	3,99
BALEAR UHARTEAK	955.167	1.006.072	1.028.903	1.108.932	2,92	2,96	3,93	3,66
KANARIAR UHARTEAK	1.698.521	1.770.256	1.901.142	2.050.322	3,71	3,75	4,92	4,81
KANTABRIA	588.723	617.618	636.823	670.466	4,28	4,36	4,96	4,84
GAZTELA ETA LEON	2.182.941	2.244.792	2.401.492	2.471.405	3,73	3,75	4,38	4,25
GAZTELA-MANTXA	1.700.148	1.828.487	1.923.473	2.067.644	4,10	4,31	4,89	4,89
KATALUNIA	6.653.436	6.946.446	7.474.819	8.056.703	2,90	2,91	3,52	3,51
VALENTZIA	4.654.896	4.935.892	5.149.166	5.438.461	4,17	4,27	4,92	4,83
EXTREMADURA	1.064.098	1.116.324	1.129.411	1.213.722	5,30	5,45	5,98	6,03
GALIZIA	2.442.203	2.548.970	2.642.174	2.796.680	3,91	3,97	4,51	4,42
MADRIL	5.166.939	5.514.667	5.912.917	6.245.951	2,23	2,28	2,71	2,66
MURTZIA	1.426.659	1.523.214	1.620.769	1.661.721	4,59	4,71	5,45	5,16
NAFARROA	675.027	729.001	788.562	827.541	3,36	3,49	4,16	4,06
EAE	2.762.043	2.902.797	3.009.417	3.150.289	3,84	3,92	4,53	4,39
ERRIOXA	290.416	304.011	328.823	356.282	3,38	3,45	4,05	4,14
<i>Hezkuntza-eskumen guztiak ez dituzten autonomia erkidegoak</i>	---	---	---	---
<i>Beste administrazio batzuk</i>	3.679.354	3.914.004	3.820.083	4.562.276	---	---	---	---
ADMINISTRAZIOAREN ARABERA BANATU GABEKO GASTUA - Egotzitako gizarte-kotizazioak	4.445.000	4.489.000	4.380.000	4.352.000	---	---	---	---
<i>Estatuko administrazioek tokiko erakundeei egindako transferentziak - DOIKUNTZA-PARTIDA</i>	-244.173	-267.156	-427.435	-479.284	---	---	---	---

Iturria: Baliabide ekonomikoak. Gastu publikoa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, INE eta guk egindakoa

¹⁴ Erabilitako metodologiak ez du Haur Hezkuntzako gastua barne hartzen.

Estatuko gastu publikoa Administrazioen arabera aztertuz, ikusi da, espero zen bezala, zati handiena Hezkuntza Ministerioari eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioei dagokiela (Hezkuntza Kontseilaritzak eta Sailak). 2021eko autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioen gastua 52.570,5 milioi eurokoa izan zen (aurreko urtean 48.964,4 milioi), hau da, BPGaren % 4,36 (aurreko urtean, % 4,38). EAEn, gastu hori 3.150,3 milioi eurokoa da (3.009,4 milioi 2020an), hau da, BPGaren % 4,39, estatuko ratioa baino 0,03 puntu handiagoa eta 2020an gure erkidegoan erregistratutakoa baino 0,14 puntu txikiagoa.

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazioen multzokoak), lehenengo paragrafoan aipatutakoak. Horrenbestez, EAeko eta Europako batez bestekoak (lurralde gehiago izateagatik) ez dira zuzenean konparagarriak, baina hurbilketa bat ematen digute, eta horietan oinarrituta esan dezakegu gure erkidegoak gastu publiko txikiagoa duela BPGaren gainean erreferentziazko herrialdeek baino.

Gastu publikoa unibertsitateaz kanpoko eta unibertsitateko hezkuntzan, administrazio-motaren arabera

V.1.20 koadroak erakusten duen bezala, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, 2021ean Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan egindako ahaleginak (BPGaren gaineko gastuaren ehunekoak) autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioen batez bestekoak egindako ahalegina gainditzen du (BPGaren % 3,63 eta % 3,27, hurrenez hurren); ez, ordea, unibertsitate-hezkuntzan egindakoa (% 0,66 eta % 0,84, hurrenez hurren).

V.1.20. KOADROA. GASTU PUBLIKOAREN BILAKAERA (KAPITULU FINANTZARIOAK KENDUTA) UNIBERTSITATEAZ KANPOKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEETAN ETA UNIBERTSITATE-HEZKUNTZAKO ERAKUNDEETAN, ADMINISTRAZIO-MOTAREN ARABERA								
	GASTUA (MILAKA EUROTAN)				GASTUA/BPG (%)			
	2018	2019	2020	2021	2018	2019	2020	2021
UNIBERTSITATEAZ KANPOKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEAK								
GUZTIRA	35.742.956	37.681.970	39.854.345	42.935.653	2,97	3,03	3,56	3,56
Hezkuntza Ministerioa eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioak	33.172.408	34.946.939	37.285.599	39.961.136	2,76	2,81	3,34	3,31
Hezkuntza Ministerioa	612.004	624.870	826.242	2.254.568	0,05	0,05	0,07	0,19
Hezkuntza Ministerioa, autonomia-erkidegoetara egindako transferentziak kenduta	523.680	549.183	470.491	512.290	0,04	0,04	0,04	0,04
Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioak	32.648.728	34.397.756	36.815.108	39.448.846	2,71	2,76	3,29	3,27
EAE Hezkuntza Kontseilaritza/Saila	2.247.723	2.384.155	2.468.805	2.605.853	3,13	3,22	3,72	3,63
Beste administrazio batzuk	2.814.621	3.002.087	2.995.967	3.453.586	0,23	0,24	0,27	0,29
Estatuko administrazioek tokiko erakundeei egindako transferentziak - DOIKUNTZA-PARTIDA	-244.073	-267.056	-427.220	-479.069	-0,02	-0,02	-0,04	-0,04
UNIBERTSITATEKO HEZKUNTZA-ERAKUNDEAK								
GUZTIRA	9.398.570	9.791.446	9.986.805	10.523.683	0,78	0,79	0,89	0,87
Hezkuntza Ministerioa eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioak	9.367.463	9.756.070	9.951.177	10.477.427	0,78	0,78	0,89	0,87
Hezkuntza Ministerioa	243.732	241.166	307.938	313.868	0,02	0,02	0,03	0,03
Hezkuntza Ministerioa, autonomia-erkidegoetara egindako transferentziak kenduta	243.732	241.166	307.938	313.868	0,02	0,02	0,03	0,03
Autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioak	9.123.731	9.514.904	9.643.238	10.163.560	0,76	0,76	0,86	0,84
EAE Hezkuntza Kontseilaritza/Saila	444.083	449.511	461.852	469.840	0,62	0,61	0,70	0,66
Beste administrazio batzuk	31.207	35.476	35.844	46.470				
Estatuko administrazioek tokiko erakundeei egindako transferentziak - DOIKUNTZA-PARTIDA	-100	-100	-215	-215				

Iturria: Baliabide ekonomikoak. Gastu publikoa. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa, INE eta guk egindakoa
Bekak ez dira barne hartzen

Unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako gastu publikoa ikasle bakoitzeko. Estatuko konparazioa

Ikasle bakoitzeko eta autonomia-erkidegoen arabera gastu publikoa unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzarentzat kalkulatzeko, ELGAK adierazleen proiektuan adierazle hori eskuratzeko aplikatzen duen arau-metodologia erabiltzen da. Beraz:

- Autonomia-erkidegoan hezkuntzan egindako gastu publiko guztia barne hartzen da (beken gastua salbuetsiz), albo batera utzita hura finantzatzen duen erakundea. Horren ondorioz, hezkuntzakoak ez diren administrazioen hezkuntza-gastuak gehitzeaz gain, egotzitako gizarte-kotizazioen gastua lurraldeen arabera banatzen da.
- Kapitulu finantzarioak gastuaren zenbatekoan kentzen dira.
- Urte bateko ikasle gisa, bi ikasturteko zifrak haztatzearen emaitza erabiltzen da (adibidez, 2017rako, 2016-2017ko eta 2017-2018ko ikasleak erabiltzen dira), unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako estatistikan agertzen direnak. Horrez gain, irakaskuntza ezberdinetan matrikulatutako zenbatekoa denbora osoko baliokideetara eraldatzen da, nazioarteko estatistikan erabiltzen diren konbertsio-faktore berdinekin.
- "Ikasle publiko eta itundu bakoitzeko gastu publikoa" "Ikasle publiko bakoitzeko gastu publikora" pasatzeko, hitzarmen ekonomikoetarako eta itundutako ikastetxe pribatuen dirulaguntzetarako zenbatekoa kentzen da, eta, ikasleen datuen artean, bakarrik ikastetxe publikoetako ikasleak jasotzen dira. Lanbide-prestakuntzako jarduerekin lotutako gastua ere kanpoan utzi da.

Beste alde batetik, adierazlean eragin dezaketen askotariko faktoreak daude, kalkuluan jasota ez daudenak, besteak beste, banaketa geografikoa, ikasleak hezkuntza-maila ezberdinetan banatuta egotea eta eskaintza publikoaren eta pribatuaren garrantzia.

V.1.21. KOADROA. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLE BAKOITZEKO GASTU PUBLIKOA (1), AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA										
	IKASLE PUBLIKO ETA ITUNDU BAKOITZEKO GASTU PUBLIKOA (EUROTAN)					IKASLE PUBLIKO BAKOITZEKO GASTU PUBLIKOA (EUROTAN)				
	2017	2018	2019	2020	Ald. % 2017/20	2017	2018	2019	2020	Ald. % 2017/20
ESTATUA	5.014	5.163	5.395	5.667	13,0	5.779	5.968	6.236	6.540	13,2
ANDALUZIA	4.536	4.617	4.800	5.090	12,2	5.077	5.210	5.439	5.778	13,8
ARAGOI	5.318	5.536	5.689	5.843	9,9	6.213	6.485	6.521	6.680	7,5
ASTURIAS	5.936	6.032	6.295	6.587	11,0	6.927	7.053	7.377	7.702	11,2
BALEAR UHARTEAK	5.465	5.672	5.902	6.011	10,0	6.493	6.767	7.042	6.945	7,0
KANARIAR UHARTEAK	5.281	5.238	5.495	5.994	13,5	5.903	5.853	6.063	6.612	12,0
KANTABRIA	5.915	6.154	6.443	6.652	12,5	6.864	7.183	7.526	7.738	12,7
GAZTELA ETA LEON	5.654	5.833	5.974	6.445	14,0	6.761	6.942	7.191	7.840	16,0
GAZTELA-MANTXA	4.859	5.151	5.508	5.683	17,0	5.255	5.594	5.988	6.165	17,3
KATALUNIA	4.868	5.042	5.250	5.531	13,6	5.557	5.798	6.024	6.292	13,2
VALENTZIAKO ERK.	4.944	5.127	5.362	5.543	12,1	5.609	5.803	6.074	6.310	12,5
EXTREMADURA	5.856	6.124	6.481	6.613	12,9	6.539	6.846	7.253	7.402	13,2
GALIZIA	5.985	6.151	6.386	6.714	12,2	6.932	7.134	7.404	7.747	11,8
MADRIL	4.039	4.159	4.399	4.745	17,5	4.727	4.892	5.144	5.607	18,6
MURTZIA	4.674	4.838	5.083	5.331	14,1	5.262	5.391	5.725	5.973	13,5
NAFARROA	6.035	6.173	6.477	6.920	14,7	7.456	7.622	7.977	8.478	13,7
EAE	6.601	6.720	7.071	7.329	11,0	9.298	9.415	9.944	10.214	9,9
ERRIOXA	5.257	5.430	5.631	5.982	13,8	6.215	6.420	6.669	7.121	14,6

(Ikasle bakoitzeko gastu publikoa unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetan, beraz, lanbide-prestakuntza kenduta. Ikasleak denbora osoko baliokideetara aldatu dira, nazioarteko estatistikan erabiltzen den metodologiarekin bat eginez.)

Iturria: Hezkuntzaren zifrak Espainian.


Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, ikasle bakoitzeko (publikoa eta itundua) unibertsitateaz kanpoko hezkuntzan egindako gastu publikoa 7.329 eurora iritsi zen EAEn 2020. urtean, eta EAEK lehen postua lortu zuen berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean. Gastu hori % 11 hazi da 2017ko datuekin alderatuta, eta Estatuan, berriz, % 13. Estatuko batez bestekoa 5.667 eurokoa izan zen; beraz, EAEko ikasle bakoitzeko gastua Estatukoa baino % 29,3 handiagoa izan zen.

2020. urtean, unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa 10.214 eurokoa izan zen EAEn, eta, beraz, gure erkidegoak du, berriz ere, ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Gastu hori % 9,9 igo da 2017koarekin alderatuta, eta Estatuan, berriz, % 13,2. Estatuko batez bestekoa 6.540 eurokoa izan zen; beraz, EAEko ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko batez besteko gastua Estatukoa baino % 56,2 handiagoa izan zen.

Ikasleko gastuak (EAP erabiliz bihurturiko euroak) hezkuntza-erakundeetan. Nazioarteko konparazioa

Aurreko adierazleak ez bezala, adierazle honek erakunde publiko eta pribatuetan gastu publikoa nahiz pribatua kontuan hartzen ditu, lanerako prestakuntza sartzeaz gain eta eurotan kalkulatuta dago. Dena den, EAPa erabilia bihurtu dira. Hezkuntza-maila guztiei erreparatzen zaie, haurren hasierako hezkuntza-garapenari (Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa) izan ezik.

EUROSTATen arabera, 2019an, ikasle bakoitzeko gastua 6.856 euro izan zen estatuan, hezkuntza erakunde publikoetan eta pribatuetan, eta 7.486 eurokoa erakunde publikoetan. Berriz, bi gastuak Italian, Frantzia, Finlandian, Herbehereetan, Danimarka, Belgikan, Malta eta Zipren jasotako azpitik daude, eta Austrian eta Luxenburgon erregistratutakoetatik urrun.



Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren gastua (hezkuntzaren arloa soilik), 2021ean, 3.189,8 milioi eurokoa izan zen. Horrek esan nahi du % 4,7 igo dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zenbateko horrek Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuaren % 25,1eko partaidetza izan zuen, aurreko urtean baino pixka bat txikiagoa (% 25,9). Gastu hori EAEko BPGaren % 4,09 da, 2020an erregistratutakoa (% 4,24) baino txikiagoa. Ikasle bakoitzeko hezkuntzako gastu-ratioa (ikasleena, guztira, hau da, araubide orokorreko¹⁵ zein bereziko¹⁶) berriro igo zen 2020 eta 2021 bitartean, 6.251 eurotik 6.617 eurora.

Bestalde, 2022ko aurrekontuetan, Hezkuntzarako partida 3.008,8 milioi eurokoa da. Hots, % 4,2ko gehikuntza aurreko urteko aurrekontuko gastuaren aldean. Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren gastuen aurrekontuan duen partaidetza-ehunekoa: %23. Gastu hori EAEko BPGaren % 3,54 da.

V.1.22. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAK HEZKUNTZAN LIKIDATUTAKO/AURREKONTUETAN SARTUTAKO GASTUAREN BILAKAERA								
Urteak	Mila eurotan	Jaurlaritzaren guztizkoa (mila eurotan)	EJK likidatutako guztizko gastuaren gaineko %	BPG (mila €)	BPGaren gaineko %	2013 oinarria = 100	Ikasleak guztira (1)	Gastuak ikasle bakoitzeko, eurotan
Aurrekontu likidazioekin								
2017	2.788.757	10.823.734	25,8	73.697.375	3,78	100	486.550	5.732
2018	2.798.940	11.317.546	24,7	76.888.235	3,64	100	486.335	5.755
2019	2.944.662	12.038.657	24,5	79.537.107	3,70	106	485.959	6.059
2020	3.047.202	11.779.674	25,9	71.828.616	4,24	109	487.480	6.251
2021	3.189.797	12.717.982	25,1	78.004.109	4,09	114	482.063	6.617
Ald. 20/21	4,7	8,0		8,6			-1,1	5,9
Aurrekontuekin								
2020	2.823.633	11.774.000	24,0	71.828.616	3,93	101	487.480	5.792
2021	2.887.662	12.442.365	23,2	78.004.109	3,70	104	482.063	5.990
2022	3.008.747	13.107.800	23,0	84.972.626	3,54	108	--	--
Ald. 21/22	4,2	5,7		8,9				

(1) *Ikasle guztien artean araubide orokorreko ikasleak eta araubide bereziko ikasleak sartzen dira. Araubide orokorreko ikasleen artean unibertsitateaz kanpoko ikasleak —zeinen artean Hezkuntza Bereziko ikasleak eta Helduen Etengabeko Hezkuntza sartzen baitira— eta unibertsitateko ikasleak daude. Araubide bereziko ikasleen artean arte plastiko eta diseinuko, hizkuntzetako, musikako, dantzako, kirolko eta diseinuko goi-mailako ikasketetako ikasleak sartzen dira.*
Iturria: Geuk egina, EUSTATen, EAEko Kontu Orokorren, eta azken hiru urteetako aurrekontuen datuak oinarri hartuta.

1.3.3. Hezkuntza-emitzen adierazleak

Goi-mailako ikasketetako titulua dutenen ehunekoa gazteen artean

Adierazle hau erreferentziak adin-taldean goi-mailako hezkuntza duten pertsonen kopuruaren portzentaje-erlazioa da.



Europako Hezkuntza Esparrura eta harago begira Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko Europako lankidetzarako esparru estrategiko berriaren barruan (2021-2030), Europako goi-mailako hezkuntza indartzeko lehentasun estrategikoa jaso da, eta helburu gisa planteatu da goi-mailako irakaskuntza amaitzen duten pertsonen kopurua handitzea (unibertsitatea eta goi-mailako LH). Hala, 2030erako, Europako erreferentzia-puntu gisa ezarri da goi-mailako hezkuntza amaitu duten 25 eta 34 urte bitarteko pertsonen ehunekoa gutxienez % 45ekoa izan behar dela.

¹⁵ Unibertsitarioa eta ez-unibertsitarioa.

¹⁶ Arte plastikoak eta diseinua, hizkuntzak, musika, dantza, kirola eta diseinuko goi-mailako ikasketak.

Hezkuntza Ministerioaren “Sistema estatal de indicadores de innovación 2022” (Berrikuntza Adierazleen Estatuko Sistema 2022) txosteneko datuen arabera, 2021eko datuekin, Euskadi da ehunekorik handiena erregistratzen duen erkidegoa, % 66arekin (% 45eko helburuaren gainetik), ondoren Nafarroa (% 61,7) eta Madril (% 57) daude. Estatuko batez bestekoa % 48,7koa izan da, eta, EBkoa % 40,5ekoa. Ratio handienak dituzten estatuak Luxenburgo (% 62,6), Irlanda (% 61,7) eta Zipre (% 58,3) dira. Ehunekorik txikiak Errumanian (% 23,3) eta Italian (% 28,3) ageri dira, % 30etik beherako herrialde bakarrak.

Gizonen eta emakumeen arteko aldea handia da (ehuneko 7,6 puntu 2021ean), eta emakumeen aldekoa: % 69,8 emakumeak eta % 62,2 gizonak.



Helduen prestakuntza-maila

Adierazlea prestakuntza-maila jakin bat osatu duten helduen (25-64) ehunekoa da.

Biztanleria helduaren prestakuntza-maila giza kapitalaren eta, oro har, biztanleriaren eta, bereziki, biztanleria aktiboaren gaitasun-mailaren neurria da. Ildo horretan, hezkuntza-mailek eta horiei lotutako titulazioek hezkuntza formalaren bidez lortutako ezagutza eta gaitasun motei buruzko informazioa ematen dute.

Hezkuntza Ministerioaren “*Sistema estatal de indicadores de innovación 2022*” (Berrikuntza Adierazleen Estatuko Sistema 2022) txosteneko datuen arabera, 2021eko datuekin, EAEko 25-64 urteko biztanleen % 76,9k gutxienez Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketak amaituta zituen, eta % 84,6ra arte igo zen 25-34 urteko adin-tartean. Europako batez bestekoak % 79,3 eta % 85,2 dira, hurrenez hurren, 25-34 urteko adin-tartean.

Estatu osoarentzat, ratioak honako hauek izan ziren: % 63,9 eta % 72,3. Gutxienez Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketak dituzten pertsonen ehuneko handienak dituzten autonomia-erkidegoak, bi adin-taldeetan, Asturias (% 69,3 eta % 79,5, hurrenez hurren), Aragoi (% 69,5 eta % 79,1), Madril (% 74,7 eta % 78,6), Nafarroa (% 71,7 eta % 85,4) eta Euskadi dira (esan dugun bezala: % 76,9% eta % 84,6).

Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea

Gehienez bigarren hezkuntzako lehen etapa edo aurreko hezkuntza mailak dituzten (INSN 0, 1 eta 2) eta inolako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jarraitzen ez duten 18-24 urte bitarteko pertsonen ehunekoa da.

Europako Hezkuntza Esparrura eta harago begira Hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko Europako lankidetzarako esparru estrategiko berriaren barruan (2021-2030), hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan guztien kalitatea, ekitatea, inklusioa eta arrakasta areagotzeko lehentasun estrategikoa jaso da, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehen uzten duten pertsonen kopurua murrizteko helburua planteatu da, izan ere, Europako erreferentzia-puntu gisa, 2030erako, hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten duten pertsonen ehunekoa % 9tik behera egon behar dela ezartzen da. Bigarren hezkuntzako bigarren etapako gutxieneko prestakuntza-maila lortu gabe uzteak ondorioak eta kostuak dituzte gizabanakoentzat eta gizartearentzat, bai lan-merkatuaren ikuspegitik, bai ongizatearen ikuspegitik, oro har. Gazteen ingurune sozioekonomikoa funtsezkoa da prestakuntza uzteko orduan.

2021eko Memoriaren edizioan aipatu genuen bezala, gure erkidegoko hezkuntza eta prestakuntza goiz uztearen tasak beheranzko joera du, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren “*Las cifras de la educación en España. Edición 2023*” (Espainiako hezkuntzaren zifrak. 2022ko edizioa) txosteneko datuen arabera, 2021ean % 4,8an kokatu zen, Estatuko baxuena, non batez bestekoa % 13,3koa den. Hala, EAEk soberan gainditu du 2030erako Europako helburua. EB27ko batez bestekoa 2021ean % 9,7koa zen.

V.1.23. KOADROA. GUTXIENEZ BIGARREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ETAPARA IRITSI DEN BIZTANLERIAREN EHUNEKOA. EUOPAR BATASUNA (2021)		
	25-64 urte	25-34
LITUANIA	94,9	93,9
TXEKIAR ERREP.	94,4	92,9
ESLOVAKIAR ERREP.	93,3	93,7
POLONIA	93,2	93,0
LETONIA	92,2	91,5
ESLOVENIA	91,3	95,8
ESTONIA	89,5	88,2
FINLANDIA	88,9	90,3
IRLANDA	87,5	94,8
SUEDIA	87,5	88,9
KROAZIA	87,2	95,1
HUNGARIA	86,3	86,8
AUSTRIA	85,9	89,4
ALEMANIA	84,8	85,4
ZIPRE	84,6	90,1
BULGARIA	83,4	82,7
FRANTZIA	82,2	88,1
DANIMARKA	82,1	83,6
BELGIKA	81,5	87,4
ERRUMANIA	81,0	80,9
HERBEHEREAK	80,6	89,8
LUXENBURGO	80,3	89,0
GREZIA	79,8	92,9
EB (27)	79,3	85,2
ESPAINIA	63,9	72,3
ITALIA	62,7	76,8
MALTA	61,6	79,4
PORTUGAL	59,5	83,3
EAE	76,9	84,6

Iturria: Hezkuntza-adierazleen estatuko sistema. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

1.3.4. Unibertsitateko adierazleak

a) Errendimendu akademikoaren adierazleak. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa 2022ko edizioa.¹⁷

Errendimendu, arrakasta, eskola-uzte eta aldaketa tasak: graduiko ikasleak

EAEko ikasle horien **errendimendu tasa** (gainditutako eta matrikulatutako kredituen arteko lotura) 2020-21 ikasturtean % 88,4koa izan zen, estatuko batez bestekoa baino altuagoa (% 80,5). Hain zuzen ere, gure erkidegoak lehenengo toki du autonomia-erkidegoen rankingean. Emakumeen tasak gizonenak baino altuagoak dira autonomia-erkidego guztietan. EAEn kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehunekoazko 7,8 puntutan (% 91,8 % 84aren aurrean).

EAEko **arrakasta tasa** (gainditutako kredituen eta aurkeztutako kredituen arteko lotura) % 91,5koa izan zen, estatuko batez bestekoaren gainera (% 89,1). Gure Erkidegoa bigarren tokian dago autonomia-erkidegoen rankingean, Kataluniaren atzetik. Emakumeek gizonak baino tasa handiagoak dituzte. EAEn kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehuneko 4,9 puntutan.

Ikasketen lehenengo urtean eskola uzten dutenen tasa (titulazioan izena ematen duten eta lehenengo urtean ikasketak uzten dituzten ikasleek ehunekoak) % 13,9koa izan zen 2018-19 ikasturte hasieran, estatuko batez bestekoa baino baxuagoa, hain zuzen ere (% 22). EAEn dago, Nafarroarekin batera, tasarik txikiena.

Ikasketen lehenengo urteko aldaketa-tasa, 2018-19 ikasturteko ikasleetan EAEn % 7,1koa izan zen, batez bestekoa baino baxuagoa (% 8,8). Euskadik bigarren tasa baxuena du, Errioxaren atzetik.

V.1.24. KOADROA. GRADUA. ERRENDIMENDU, ARRAKASTA, ESKOLA-UZTE ETA ALDAKETA TASA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

	Errendimendu-tasa 2020-21 ikasturtea			Arrakasta-tasa 2020-21 ikasturtea			Lehenengo urtean eskola uzten dutenen tasa	Lehenengo urtean aldatzen dutenen tasa
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Kohorte berria: 2018-19	Kohorte berria: 2018-19
GUZTIRA	80,5	75,0	84,6	89,1	86,1	91,2	22	8,8
ANDALUZIA	77,8	70,8	83,2	88,0	84,5	90,4	17,5	8,8
ARAGOI	79,5	74,5	83,6	87,9	85,1	90,0	16	8,0
ASTURIAS	74,7	68,3	79,9	85,4	82,1	87,9	20,9	10,6
BALEAR UHARTEAK	78,4	72,0	82,6	85,6	81,6	88,0	22,8	11,8
KANARIAR UHARTEAK	79,2	72,1	84,1	88,8	85,2	91,0	21,4	8,8
KANTABRIA	80,6	75,6	85,2	87,2	84,4	89,6	19,4	10,8
GAZTELA-MANTXA	78,7	71,8	83,6	86,3	82,6	88,7	19,1	9,8
GAZTELA ETA LEON	82,7	77,9	86,2	88,9	85,9	90,8	18,7	9,5
KATALUNIA	86,5	82,4	89,7	91,6	88,9	93,7	20,8	8,7
VALENTZIako ERK.	83,4	78,4	87,1	89,6	86,6	91,7	16,0	7,8
EXTREMADURA	59,6	56,8	61,8	87,2	87,9	86,6	15,0	7,2
GALIZIA	79,9	73,1	85,1	87,3	83,2	90,3	17,1	8,0
MADRIL	77,3	70,2	82,9	86,4	82,1	89,4	15,7	8,9
MURTZIA	82,8	77,3	87,0	89,2	85,6	91,7	17,9	8,3
NAFARROA	76,8	71,0	81,0	86,9	84,0	88,8	13,9	7,6
EAE	88,4	84,0	91,8	91,5	88,2	94,0	13,9	7,1
ERRIOXA	83,5	78,2	87,8	90,7	87,5	93,1	17,9	4,4

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

¹⁷ Biztanleria-esparrua aldatu egiten da adierazle bakoitzean, baina denbora-esparrua finkoa da, eta argitalpenean, n hizkia n-1 ikasturteari edo n-2 urteari dagokio (arlo ekonomikoan).

Errendimendu, eskola-uzte eta aldaketa tasak: masterreko ikasleak

EAEko 2019-2020 ikasturteko ikasle horien **errendimendu tasa** % 94,8koa izan zen, graduko ikasketetako errendimendu tasa (% 88,4) baino altuagoa. Estatuko batez bestekoarekin alderatuta, EAEn ratioa ere altuagoa da (% 94,8 eta % 89,9). Horrela, EAE autonomia erkidegoen rankingeko hirugarren postuan dago, hain zuzen ere, Nafarroa eta Kantabriaren atzetik. Emakumeen tasak gizonenak baino altuagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehunekoazko 2 puntutan (% 95,8 % 93,8aren aurrean).

EAEko ikasle horien arrakasta tasa(gainditutako eta aurkeztutako kredituen arteko lotura) 2020-21 ikasturtean % 98,7koa izan zen, estatuko batez bestekoa baino pixka bat altuagoa (% 98,5). Horrela, Estatuko rankingean Euskadi tarteko posizioan dago. Emakumeen tasak gizonenak baino altuagoak dira autonomia erkidego guztietan. EAEn kasuan, emakumeek gizonak gainditzen dituzte ehunekoazko 1,2 puntutan (% 99,3 % 98,1aren aurrean).

Masterren **lehenengo urtean eskola uzten dutenen tasa** (titulazioan izena ematen duten eta lehenengo urtean ikasketak uzten dituzten ikasleen ehunekoak) % 5,4koa izan zen 2018-19 ikasturtean, estatuko batez bestekoa baino baxuagoa, hain zuzen ere (% 9,3). Hala, EAEk bigarren uzte-tasarik baxuena du, Nafarroaren atzetik.

Ikasketen lehenengo urtean beste ikasketa batzuetara aldatutako ikasleen tasa % 0,7koa izan zen, estatuko batez bestekoa baino gutxiago (% 1,3). EAEk hirugarren tasarik txikiena du autonomia-erkidegoen rankingean, Errioxaren eta Nafarroaren atzetik eta Kantabriak bezala.

V.1.25. KOADROA. MASTERRAK. ERRENDIMENDU, ARRAKASTA, ESKOLA-UZTE ETA ALDAKETA TASA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

	Errendimendu-tasa 2020-21 ikasturtea			Arrakasta-tasa 2020-21 ikasturtea			Lehenengo urtean eskola uzten dutenen tasa	Lehenengo urtean aldatzen dutenen tasa
	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	2018-19 ikasturte hasierako taldea	2018-19 ikasturte hasierako taldea
GUZTIRA	89,9	87,8	91,5	98,5	98,0	98,8	9,3	1,3
ANDALUZIA	86,2	82,8	88,8	98,5	97,9	99,0	7,6	1,2
ARAGOI	91,9	90,1	93,6	98,7	98,2	99,2	5,9	0,8
ASTURIAS	90,9	88,8	93,2	99,3	99,0	99,6	6,8	0,6
BALEAR UHARTEAK	88,9	86,3	90,5	98,3	97,8	98,6	9,0	1,9
KANARIAR UHARTEAK	88,7	86,1	90,4	97,6	97,2	97,8	6,3	0,8
KANTABRIA	95,8	94,4	96,9	99,4	99,1	99,6	8,7	0,7
GAZTELA-MANTXA	90,1	87,7	92,5	98,3	97,6	99,1	8,4	0,9
GAZTELA ETA LEON	94,0	92,7	95,1	98,6	98,4	98,9	8,5	0,8
KATALUNIA	91,4	89,8	92,8	98,3	97,9	98,6	12,0	2,0
VALENTZIako ERK.	90,5	88,6	92,0	98,5	98,0	98,9	6,9	0,8
EXTREMADURA	89,6	88,3	90,6	98,7	98,4	99,0	8,9	1,5
GALIZIA	88,0	85,9	89,9	98,6	98,1	99,0	7,0	1,0
MADRIL	88,0	86,0	89,6	98,1	97,7	98,4	8,8	1,2
MURTZIA	91,2	88,7	93,1	98,7	98,3	99,1	7,1	1,0
NAFARROA	95,2	94,3	96,4	99,5	99,6	99,5	4,3	0,3
EAE	94,8	93,8	95,8	98,7	98,1	99,3	5,4	0,7
ERRIOXA	93,5	91,6	94,8	99,0	98,6	99,3	9,8	0,6

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

b) Nazioartekotzea. 2018-19 ikasturtea. Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa 2020ko edizioa.

Espainiako Unibertsitate Sisteman sartzea (SUE)

Nazioarteko ikaslea: SUEen sartzen dena, unibertsitate presentzial batean, ohiko bizilekua atzerriko herrialdea izanik. Sarreretan, *credit mobility (mugikortasun-programak)* eta *degree mobility (ohiko matrikula)* zenbatzen dira, eta 2015-2016 ikasturtetik aurrera, doktoretzan ohiko matrikula duten nazioarteko ikasleak barne hartu dira.

Credit mobility (mugikortasun-programak): atzerriko unibertsitatean matrikulaturiko ikasleei dagokie, aldi jakin batean Espainiako unibertsitate presentzian ikasten dutenak mugikortasun-programa baten bidez (Erasmus barne), baina helburua ez da titulua Espainian eskuratzea.

Degree mobility (ohiko matrikula): ohiko moduan Espainiako unibertsitate presentzial batean matrikulatzen diren ikasleak, eta, aldi berean, familiaren ohiko etxebizitza atzerriko herrialde batean dutenak.

2020-21 ikasturtean EAEko unibertsitate batean sartu ziren nazioarteko ikasleak 2.225 izan ziren, hau da, ikasle guztien % 3,7, eta SUE osoan, berriz, % 6,6. Bi kasuetan, bi ratioek jaitsiera izan dute (kontuan izan behar dugu urte horretan aktibo egon zirela COVID-19aren ondoriozko mugikortasun-murrizketak).

2.225 horiek, zehazki, aurreko ikasturtean baino % 39,4 gutxiago dira. Estatuko jaitsiera % 29,2koa izan zen (129.354tik 91.555era). Mugikortasun-motari dagokionez, % 34,7 mugikortasun-programa baten bidez matrikulatu zen, eta % 65,3 berriz, modu arruntean. Estatuan ratioak, hurrenez hurren, honako hauek dira: % 21,5 eta % 78,5.

Euskadin, % 62,7 unibertsitate publikoan matrikulatu zen eta % 37,3 pribatuan. Sexuari dagokionez, % 51,6 emakumeak ziren eta % 48,4 gizonak.

V.1.26. KOADROA. UNIBERTSITATE-SISTEMAN SARTZEN DIREN NAZIOARTEKO IKASLEAK, IKASLE GUZTIEN GAINEAN (%)		
	ESTATUA (SUE)	EAE
2015-2016	7,2	4,9
2016-2017	8,3	5,5
2017-2018	9,0	5,9
2018-2019	9,3	6,1
2019-2020	9,5	6,3
2020-2021	6,6	3,7

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

V.1.27. KOADROA. NAZIOARTEKO IKASLEEN SARRERAK, MUGIKORTASUN-MOTAREN ARABERA.							
	2019-20 IKASTURTEA			2020-21 IKASTURTEA			ALDAKUNTZA
	GUZTIRA	MUGIKORTASUN-MOTA (% horizontalak)		GUZTIRA	MUGIKORTASUN-MOTA (% horizontalak)		
	Ikasleak	Mugikortasun-programak (credit mobility)	Ohiko matrikula (degree mobility)	Ikasleak	Mugikortasun-programak (credit mobility)	Ohiko matrikula (degree mobility)	
ESTATUA	129.354	43,0	57,0	91.555	21,5	78,5	-29,2
EAE	3.669	58,4	41,6	2.225	34,7	65,3	-39,4

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

V.1. 28 KOADROA. NAZIOARTEKO IKASLEEN SARRERAK, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATE TITULARTASUNAREN ARABERA.										
	2018-19 IKASTURTEA					2019-20 IKASTURTEA				
	GUZTIRA	SEXUA (% horizontalak)		UNIBERTSITATE-MOTA (% horizontalak)		GUZTIRA	SEXUA (% horizontalak)		UNIBERTSITATE-MOTA (% horizontalak)	
		Gizonak	Emakumeak	Unib. publikoak	Unib. pribatuak		Gizonak	Emakumeak	Unib. publikoak	Unib. pribatuak
ESTATUA	129.354	42,8	57,2	71,9	28,1	91.555	46,1	53,7	64,9	35,1
EAE	3.669	44,7	55,3	62,6	37,4	2.225	48,4	51,6	62,7	37,3

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

Jatorrizko herrialdeari dagokionez, EAEn eta Estatuan EB28tik datozen ikasleak nabarmentzen dira (guztizkoaren % 50,3 EAEn eta % 45,2 Estatuan), bai eta Latinoamerikatik eta Karibetik datozenak ere (% 34,9 EAEn eta % 33,8 Estatuan).

V.1.29. KOADROA. NAZIOARTEKO IKASLEEN SARRERAK, NAZIONALITATEAREN ARABERA						
	ESTATUA (% bertikala)			EAE (% bertikala)		
	2018/19	2019/20	2020/21	2018/19	2019/20	2020/21
GUZTIRA	125.675	129.354	91.555	3.561	3.669	2.225
EB28	45,2	44,5	45,2	48,9	48,8	50,3
EUROPAKO GAINERAKO HERRIALDEAK	4,6	4,5	5,0	4,1	4,7	3,8
AEB ETA KANADA	8	7,6	2,6	3,7	3,5	1,5
LATINOAMERIKA ETA KARIBEA	31,7	32,1	33,8	36,1	34,1	34,9
AFRIKA IPARRALDEA	2,4	2,6	4,2	0,9	1,1	1,0
AFRIKAKO GAINERAKO HERRIALDEAK	0,7	0,8	1,1	0,4	0,6	1,0
ASIA ETA OZEANIA	7,4	7,9	8,3	5,9	7,1	7,4

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

Espainiako Unibertsitate Sisteman (EUS) sartzea

Ikasleen irteerak islatzen dituzten estatistiketan soilik mugikortasun-programa baten bidez mugitzen direnak (credit mobility) hartzen dira kontuan, eta ez dira doktoretzako ikasleak kontuan hartzen.

2020-21 ikasturtean 1.681 ikasle atera ziren EAetik mugikortasun-programa baten bidez, hau da, ikasle guztien % 3,1, eta SUE osoan, berriz, % 1,6.

1.681 horiek aurreko ikasturtean baino % 52,6 gutxiago dira. Estatuan % 51,4 jaitsi zen. Bi kasuetan, COVID-19aren eragina islatzen da. EAetik irten zirenetatik, % 41,8 unibertsitate publikotik irten ziren eta % 58,2 unibertsitate pribatu batetik. Sexuari dagokionez, % 52,7 emakumeak ziren eta % 47,3 gizonak.

V.1.30. KOADROA: IKASLE GUZTIEKIKO MUGIKORTASUN-PROGRAMA BATEKIN IRTETEN DIREN NAZIOARTEKO IKASLEAK (%)		
	ESTATUA (SUE)	EAE
2015-2016	2,9	5,0
2016-2017	3,1	5,7
2017-2018	3,3	6,1
2018-2019	3,5	6,2
2019-2020	3,3	6,5
2020-2021	1,6	3,1

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

V.1.31 KOADROA. IKASLEEN IRTEERAK, MUGIKORTASUN PROGRAMA BATEN BIDEZ, SEXUAREN ETA UNIBERTSITATEAREN TITULARTASUNAREN ARABERA.								
	2018-19 IKASTURTEA	2019-20 IKASTURTEA	2020-21 IKASTURTEA				2019/20-2020/21 IKASTURTEA	
	Ikasleak	Ikasleak	Ikasleak	SEXUA		UNIBERTSITATE-MOTA		
				Gizonak	Emakumeak	Unib. publikoak		Unib. pribatuak
ESTATUA	42.002	44.297	20.531	45,6	54,4	83,4	16,6	-53,7
EAE	3.277	3.312	1.681	47,3	52,7	41,8	58,2	-49,2

Iturria: Unibertsitateko estatistikak, Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

c) Academic Ranking of World Universities (Shanghaiko rankinga)

Nahiz eta iturri publikoa ez izan, ARWU unibertsitateen ranking orokorren aitzindaria da, eta fidagarriena baita ere.

ARWUk urtero munduko 500 unibertsitate garrantzitsuenak aurkezten ditu, metodologia gardena eta hirugarrenen datu objektiboak erabiliz.

ARWU rankingak Nobel sariak, Fields dominadunak, sarri aipatutako ikerlariak edo Nature edo Science bezalako aldizkarietan argitaratutako artikuluak dituzten unibertsitateak hartzen ditu kontuan. Gainera, Science Citation Index-Expanded-ek (SCIE) eta Social Science Citation Index-ek (SSCI) indexatutako artikulu asko dituzten unibertsitateak sartzen dira.

Unibertsitateak jarduera akademikoko edo ikerketako zenbait adierazleren bidez daude sailkatuta, Nobel sariak eta Fields dominak irabazten dituzten, sarri aipatutako ikertzaileak diren, Nature eta Science aldizkarian argitaratutako lanak dituzten eta aipuen indize nagusietan indexatutako artikuluak dituzten ikasle ohiak eta langileak barne. Hala, erakunde baten per capita jarduera akademikoa ere kontuan hartzen da¹⁸.

V.1.32. KOADROA. SHANGHAIKO UNIBERTSITATEKO RANKINGA: ADIERAZLEAK ETA PISUAK			
Irizpidea	Adierazlea	Kodea	Pisua
Hezkuntzaren kalitatea	Nobel sariak eta Fields dominak irabazi dituen erakunde bateko ikasleak	Ikasleak	10
Fakultatearen kalitatea	Nobel sariak eta Fields dominak irabazi dituen erakunde bateko langileak	Saria	20
	21 gai-kategoria anitzetan aipamen garrantzitsuak dituzten zientzialariak	HiCi	20
Ikerketa-emaitzak	Nature and Science-n argitaratutako artikuluak*	N&S	20
	Science Citation Index-Expanded-en (SCIE) eta Social Science Citation Index-en (SSCI) indexatutako agiriak	PUB	20
Per capita etekina	Erakunde baten per capita etekin akademikoa	PCP	10
GUZTIRA			100

* Giza eta Gizarte Zientzietan espezializatutako erakundeentzat, besteak beste, London School of Economics, N&S ez da kontuan hartzen, eta N&S-ren pisua beste adierazle batzuetara aldatu da

V.1.33. KOADROA. SHANGHAIKO UNIBERTSITATEKO RANKINGAREN ADIERAZLEEN DEFINIZIOA

Adierazlea	Definizioa
Ikasleak	Erakunde horretako lizentziatura, maisutza edo doktoretza tituluak lortzen dituzten ikasleak. Pisuak graduak lortzeko aldien arabera ezartzen dira.
Saria	Fisika, Kimika, Medikuntza eta Ekonomia Nobel Sariak eta Matematikako Fields Dominak irabazten dituzten pertsonak. Pisuak sariak irabazteko aldien arabera ezartzen dira.
HiCi	Aipamen garrantzitsuak dituzten eta Thomson Reuters-ek aukeratutako ikertzaileak. Aipamen garrantzitsuak dituzten ikertzaile nagusien afiliazioak bakarrik hartzen dira kontuan.
N&S	Urte zehatz batzuen artean, Nature eta Science aldizkarietan argitaratutako lanak. Autorearen afiliazio ordena ezberdintzeko, pisu ezberdinak esleitzen dira.
PUB	Urte horretan SCIE-n eta SSCIn indexatutako artikulu guztiak. Bakarrik 'Article' motako argitalpenak kontuan hartzen dira. Erakunde bateko agiri guztiak kalkulatzeko, pisu berezia ezarri zitzaizen Social Science Citation Index-en indexatutako artikuluak.
PCP	Aurreko bost adierazleetatik haztatutako puntuazioak, langile akademikoak oinarri hartuz lanaldi osoan banatuta.

Iturria: Geuk egina ARWUren datuekin

¹⁸ Adierazle bakoitzeko puntu gehienak dituen erakundeari 100 puntu esleitzen zaizkio eta beste erakunde batzuenak kalkulatzeko, puntuaziorik altuenaren ehunekoari jotzen da. Adierazle bakoitzaren datuei buruzko banaketa aztertzen da, edozein distortsio ondorio adierazgarri antzemateko; teknika estatistikoa estandarrez baliatzen da beharrezkoa izanez gero, adierazle bakoitzaren puntuak V.1.26 koadroan adierazitako moduan haztatzen dira, erakunde baten azken puntuazio orokorrera iritsi arte. Puntu gehienak lortzen dituen erakundeari 100 puntu ematen zaizkio eta beste erakunde batzuenak, puntuazio altuenetik abiatuta ehunekoetan kalkulatu dira. Erakundearen tarteak horren gainetik kokatzen diren erakundeen kopurua islatzen du.

Sailkapen orokorra

2022ko ranking orokorrean, lehenengo bost unibertsitateak AEBetan eta Erresuma Batuan daude, eta honako unibertsitate hauek dira: Harvard (AEB), Stanford (AEB), Massachusettseko Teknologia Institutua (MIT), Massachusetts Institute of Technology-MIT (AEB), Cambridge (Erresuma Batua), eta Kalifornia, Berkeley (AEB).

Beraz, lehen 20en artean unibertsitateak dituzten herrialdeak honako hauek dira: AEB (15), Erresuma Batua (3), Frantzia (1) eta Suitza (1).

Espainiako Estatuak 500 unibertsitate onenen (TOP 500) artean 11 unibertsitate zituen 2022an. Lehenengoa Bartzelonako Unibertsitatea da, TOP 200ean dagoena mundu mailan. Jarraian, TOP 300 delakoen artean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Complutense, Granadako eta Valentziakoa daude. UPV-EHU rankingeko TOP 400 zerrendan zegoen eta estatu mailako zortzigarren postuan, ondorengo koadroan jasota dagoen moduan.

V.1.34. KOADROA. ARWU-REN RANKINGEKO TOP 20-AN DAUDEN UNIBERTSITATEAK					
2019	2020	2021	2022	ERAKUNDEA	HERRIALDEA
1	1	1	1	Harvardeko Unibertsitatea	AEB
2	2	2	2	Stanfordeko Unibertsitatea	AEB
4	4	4	3	Massachusettseko Teknologia Institutua (MIT)	AEB
3	3	3	4	Cambridgeko Unibertsitatea	ERRESUMA BATUA
5	5	5	5	Kaliforniako Unibertsitatea, Berkeley	AEB
6	6	6	6	Princetoneko Unibertsitatea	AEB
7	9	7	7	Oxfordeko Unibertsitatea	ERRESUMA BATUA
8	7	8	8	Columbiako Unibertsitatea	AEB
9	8	9	9	Kaliforniako (Caltech) Teknologia Institutua	AEB
10	10	10	10	Chicagoko Unibertsitatea	AEB
12	11	11	11	Yaleko Unibertsitatea	AEB
13	12	12	12	Cornelleko Unibertsitatea	AEB
11	13	14	13	Kaliforniako Unibertsitatea, Los Angeles	AEB
16	15	16	14	Johns Hopkins Unibertsitatea	AEB
17	19	15	15	Pennsylvaniako Unibertsitatea	AEB
	14	13	16	Paris-Saclay Unibertsitatea	Frantzia
14	17	19	17	Washingtongo Unibertsitatea	AEB
15	16	17	18	Londresko University College	ERRESUMA BATUA
18	18	18	19	Kaliforniako Unibertsitatea, San Diego	AEB
19	20	21	20	ETH Zurich	Suitza
20	21	20	21	Kaliforniako Unibertsitatea, San Frantzisko	AEB

Iturria: ARWU

EHUko espezialitateen arabeko sailkapena

Espezialitateen arabeko azterketak erakusten du UPV-EHU 150 unibertsitate onenen artean (TOP 150) dagoela hiru diziplinan: Ingeniaritza Metalurgikoa, Ingeniaritza Kimikoa eta Kimikoa, eta 200 onenen artean (TOP 200) beste lau: Matematika, Materialen Zientzia eta Ingeniaritza, Nanozientzia eta Nanoteknologia, eta Elikagaien Zientzia eta Teknologia.

V.1.35. KOADROA. ARWUREN TOP500 RANKINGEAN DAUDEN ESPAINIAKO UNIBERTSITATEAK

	ARWU 2018	ARWU 2019	ARWU 2020	ARWU 2021	ARWU 2022
TOP100	-	-	-	-	-
TOP200	1. Bartzelonako Unibertsitatea 2. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea 3. Pompeu Fabra U. 4. Granadako U.	1. Bartzelonako Unibertsitatea	1. Bartzelonako Unibertsitatea	1. Bartzelonako Unibertsitatea	1. Bartzelonako Unibertsitatea
TOP300	5. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa 6. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa	2. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa 3. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea 4. Granadako U. 5. Valentziako U.	2. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa 3. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea 4. Valentziako U.	2. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa 3. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea 4. Granadako U.	2. Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa 3. Madrilgo Unibertsitate Konplutentsea 4. Granadako U. 5. Valentziako U.
TOP400	7. UPV-EHU	6. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa 7. Pompeu Fabra U.	5. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa 6. Valentziako U. Politeknikoa 7. Pompeu Fabra U. 8. UPV-EHU	5. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa 6. Valentziako U. Politeknikoa 7. UPV-EHU 8. Valentziako U.	6. Madrilgo Unibertsitate Autonomoa 7. Pompeu Fabra U. 8. UPV-EHU
TOP500	8. Valentziako U. Politeknikoa 9. Santiago de Compostelako U. 10. Valentziako U.	8. Valentziako U. Politeknikoa 9. Oviedoko U. 10. Sevillako U. 11. Balear Uharteetako U. 12. UPV-EHU 13. Zaragozako U.	9. Oviedoko Unibertsitatea 10. Santiago de Compostelako U. 11. Sevillako U. 12. Zaragozako U.	9. Pompeu Fabra U. 10. Salamancako U. 11. Santiago de Compostelako U. 12. Sevillako U.	9. Valentziako U. Politeknikoa 10. Santiago de Compostelako U. 11. Sevillako U.

Iturria: ARWU eta guk egindakoa.

1.4. KULTURA¹⁹

Kultura kontsumitzeko modua asko aldatu da azken urteotan, eta horren ondorioz eta aldi berean, kultura aldatzen ari da. Digitalizazioak, doakotasunaren kulturak eta globalizazioak kultura-agertokia aldatu dute, eta horrek zehaztasun handiagoa eskatzen du diagnostikoan.

1.4.1. Kultura ohiturak eta praktikak

Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen “*Anuarios de Estadísticas Culturales*” (Kultur Estatistiken Urtekaria) urtekariko datuen arabera, 2019ra arte, EAEn Estatuan baino handiagoa da ekipamenduetara joateko (museoak, erakusketak, arte-galeriak, monumentuak edo arkeologi-aztarnategiak), liburuak irakurtzeko, liburutegi, antzerki ikuskizun, opera, zarzuela, balet, dantza edo egungo musika ikuskizunetara eta abarrera joateko kultura ohitura zuten 15 urtetik gorako pertsonen ehunekoa, eta joera hori goranzkoa zen. Aitzitik, jarduera artistikoak egiteari dagokionez (idaztea, margotzea, marraztea, argazkigintza, dantza/balleta, abesbatza batean abestea edo instrumentu bat jotzea), hau da, praktika aktiboetan, ratioak handiagoak izan ohi ziren Estatuan.

Hala ere, COVID-19ak eragindako krisiak desberdin eragiten die EAeko biztanleen kultura-ohiturei eta Estatukoei; izan ere, bi kasuetan ohitura bakoitza egiten duen biztanleriaren ehunekoak behera egiten badu ere, EAEn beherakada handiagoa da. Biztanleria-ratio desberdinak handiagoak izan dira Estatuan EAEn baino. Hori

¹⁹ Informazio-iturriak lau, bost edo gehiago urtez behin egiten diren inkestak edo azterlanak izaten direnez, epigrafe honetan egiten den analisia urte batetik bestera aldatzen da.

aztertutako ohitura guztietan gertatzen da, "telesailetako, filmetako eta abarretako bideoak ikustea" izan ezik (% 83,4 EAE eta % 77,7 Estatuan).

Kultura-jarduera aktiboei dagokienez, espero zitekeen bezala, jarduera horiek (idatzi ezean) murriztu egin dira Estatuan eta EAE, eta gure Erkidegoak Estatuak baino gauzatze-tasa txikiagoak erregistratzen jarraitzen du.

Zehazki, 2019an EAEko biztanleen artean hedatuen zeuden ohitura eta praktika kulturalak honako hauek izan ziren: musika entzutea eta kontzertuetara joatea (15 urte eta gehiagoko biztanleen % 85,6 2019an), telesail, film eta bestelakoen bideoak ikustea (% 74,7) eta liburuak irakurtzea (% 70,9). Hiru ohitura horiek ere hedatuenak dira 2022an.

Jarduera kultural aktiboetan, 2019an, EAE duen maiztasunagatik, arte plastikoekin lotutakoak nabarmentzen dira, hala nola argazkigintza egitea (% 24,7), bideoak egitea (% 14,5) eta margotzea edo marraztea (% 13,1). 2022an argazkiak egitea (% 8,8), margotzea edo marraztea (% 7,6) eta idaztea (% 6,3) nabarmentzen dira.

V.1.36. KOADROA. 15 URTE ETA GEHIAGOKOEN KULTURA OHITURAK ETA PRAKTIKAK
(KOLEKTIBO BAKOITZAREN %)

	EAE			ESTATUA			DIF. EAE ETA ESTATUA	
	2015	2019	2022	2015	2019	2022	2019	2022
OHITURAK								
MUSEOETARA BISITAK	39,7	48,2	18,0	33,2	40,5	20,1	7,7	-2,1
ERAKUSKETETARA BISITAK	25,4	34,3	12,3	23,8	29,8	14,5	4,5	-2,2
ARTE-GALERIETARA BISITAK	11,8	16,4	6,1	12,7	16,0	6,9	0,4	-0,8
MONUMENTUETARA BISITAK	41,9	51,1	21,9	41,4	49,3	26,4	1,8	-4,5
ARKEOLOGI-AZTARNATEGIETARA BISITAK	12,8	22,4	7,3	16,6	21,8	11,6	0,6	-4,3
LIBURUTEGIETARA SARTZEA (MODU PRESENTZIALEAN EDO INTERNET BIDEZ)	31,9	32,5	15,2	25,6	26,8	18,4	5,7	-3,2
LIBURUAK IRAKURTZEA	65,9	70,9	61,0	62,6	65,8	61,7	5,1	-0,7
ARTE ESZENIKOETAKO IKUSKIZUNAK IKUSTEA (1)	31,8	32,3	7,9	29,9	30,8	10,5	1,5	-2,6
MUSIKA ENTZUTEA ETA KONTZERTUETARA JOATEA	89,2	85,6	79,6	87,2	87,2	85,7	-1,6	-6,1
ZINEMA ARETOETARA JOATEA	59,5	56,1	19,4	54	57,8	27,7	-1,7	-8,3
SERIEAK, PELIKULAK ETA BESTELAKOAK IKUSTEA		74,7	83,4		65,1	77,7	9,6	5,7
PRAKTIKAK							0	0
IDAZTEA	7,6	4,4	6,3	7,8	8,7	6,4	-1,3	-0,1
MARGOTZEA, MARRAZTEA	13,2	13,1	7,6	13,7	16,1	10,1	-3	-2,5
ARGAZKIAK ATERATZEA	26,1	24,7	8,8	28,9	28,2	13,1	-3,5	-4,3
BIDEOAK EGITEA	12	14,5	3,7	15	16,7	7,1	-2,2	-3,4
WEBGUNEAK DISEINATZEA	3,7	2,9	0,6	3	3,2	1,4	-0,3	-0,8
ANTZERKIA EGITEA	1,3	1	0,3	2,2	2,2	1,3	-1,2	-1
DANTZA, BALLETA EGITEA	4,3	4,9	1,3	4,9	6,2	2,6	-1,3	-1,3
MUSIKA-TRESNA BAT JOATEA	7,6	7,3	4,3	7,8	9,6	6,5	-2,3	-2,2
ABESBATZA BATEAN ABESTEA	1,8	1,9	0,6	2,4	2,7	1	-0,8	-0,4

(1) Antzerkia, opera, zartzuela, balleta, dantza, zirkua, eta abar.

Iturria: Hezkuntza eta Kirol Ministerioa. Kultura Estatistiken urtekaria, 2022

1.4.2. Kultura enpresak eta enplegua

Epigrafe honen emaitzak Hezkuntza eta Kirol Ministerioaren "Anuario de Estadísticas Culturales" (Kultura Estatistiken Urtekaria) urtekarian jasotzen dira, eta datuen iturri nagusiak EINaren *Directorio Central de Empresas* —DIRCE— (Enpresen Direktorio Nagusia) eta *Encuesta de Población Activa* —EPA— (Biztanleria Aktiboaren Inkesta)²⁰ dira, EINarena azken hau ere.

²⁰ EPAren ustiapen espezifikoko baten bidez, kultura-eremuarekin lotutako jarduera ekonomiko eta okupazio jakin batzuetan enplegua zenbatesten da.

EAE en beren jarduera ekonomiko nagusi gisa jarduera kulturala duten enpresen kopuruak % 0,8 egin zuen gora 2020tik 2021era bitartean (osasun-krisiaren ondorioz bizi izandako egoera berezia hartu behar da kontuan), eta 6.269 izan ziren. Bestalde, enpleguak²¹ gora egin zuen, % 11,1 (31,5 mila pertsonatik 35 milara). Estatuan, aldi berean, enpresen kopurua % 2,6 jaitsi zen eta enplegua % 3,4 hazi zen.

EAE en kultur enpresetan lan egiten duten 35 mila lagun horiek EAEko lanpostu guztien % 3,8 dira, Estatuako batez bestekoa baino pixka bat handiagoa (% 3,5).

V.1.37. KOADROA. KULTURA-ENPRESAK ETA ENPLEGUA						
	EAE			ESTATUA		
	ENPRESAK	ENPLEGUA		ENPRESAK	ENPLEGUA	
		MILAKOTAN	% ENPLEGUAREN GUZTIZKOTIK		MILAKOTAN	% ENPLEGUAREN GUZTIZKOTIK
2016	6.148	34,9	3,9	115.955	656,3	3,6
2017	5.804	32,1	3,6	118.407	687,2	3,7
2018	6.014	29,9	3,2	122.673	690,3	3,6
2019	6.010	29,4	3,1	127.581	710,2	3,6
2020	6.218	31,5	3,4	132.203	668,1	3,5
2021	6.269	35	3,8	128.741	690,8	3,5
Ald. 2019-20	3,5	7,1	---	3,6	-5,9	-
Ald. 2020-21	0,8	11,1	---	-2,6	3,4	---

Iturria: Hezkuntza eta Kirol Ministerioa. Anuario de Estadísticas Culturales 2021 y anteriores

Kultura-enplegu gehien sortzen duten autonomia-erkidegoen zerrendan, EAE bosgarren postuan dago, Kataluniaren (% 5), Madrilen (% 4,9), Balearren (% 4,4) eta Nafarroaren (% 4,1) atzetik.

Autonomia-erkidegoen arabera bereizitako daturik ez dagoen arren, datu agregatuek erakusten dute kultura-enpleguaren ezaugarri nagusia batez bestekoa baino prestakuntza akademiko handiagoa dela, eta oro har ikusitakoak baino goi-mailako hezkuntza-tasa handiagoak dituela, % 72,7 eta % 46,2, hurrenez hurren.

V.1.38. KOADROA. KULTURA-ENPLEGUA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA (ENPLEGUAREN GUZTIZKOAREN EHUNEKOTAN)					
	2017	2018	2019	2020	2021
ESTATUAREN BATEZ BESTEKOA	3,7	3,6	3,6	3,5	3,5
ANDALUZIA	3,1	3,1	3,1	2,6	2,7
ARAGOI	2,2	2,3	2,6	2,5	2,8
ASTURIAS	2,9	2,8	2,6	2,5	2,1
BALEAR UHARTEAK	4,2	3,4	4,3	4,5	4,4
KANARIAR UHARTEAK	2,8	2,9	3,5	2,5	2,9
GAZTELA ETA LEON	2,4	2,4	2,3	2,1	2,4
GAZTELA-MANTXA	2,3	2,7	2,5	2,5	2,1
KATALUNIA	4,7	4,4	4,5	4,6	5,0
VALENTZIako ERK.	2,9	3,3	3,0	3,2	2,9
GALIZIA	3,5	3,2	3,1	3,2	3,2
MADRIL	5,7	5,4	5,3	5,1	4,9
MURTZIA	2,1	2,3	2,4	2,2	1,8
NAFARROA	2,7	3,0	3,1	3,1	4,1
EAE	3,6	3,2	3,1	3,4	3,8
KANTABRIA, EXTREMADURA, ERRIOXA, CEUTA ETA MELILLA	2,5	2,2	2,2	2,1	2,2

Iturria: Hezkuntza eta Kirol Ministerioa. Anuario de Estadísticas Culturales. 2021 y anteriores

1.4.3. Kulturako gastu publikoa

Kulturaren sektoreak EAEko ekonomian eta gizartean duen pisua zenbatesteko, zeharkako iturriak erabiltzen dira, hain zuzen ere, Hezkuntza eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen "Anuario de Estadísticas Culturales" (Kultura Estatistiken Urtekaria) delakoa²².

²¹ Enpleguari dagokionez, kontuan izan behar da enplegu-etenaldia duen aldi baterako enplegu-erregulazioko espediente batek (ABEEE) eragindakoak EPAn landuntzat jotzen direla.

²² Ikerketa honen esparruan sartutako kultura-sektoreak honako hauek dira: Kultura-ondasun eta -zerbitzuak (monumentu historikoak, museoak, aztarnategi arkeologikoak, agiritegiak eta liburutegiak); arte plastikoak eta eszenikoak (erakusketak, argazkilaritza, musika, dantza eta antzerkia); liburuak eta ikus-entzunezkoak (zinema, bideoa eta grabatutako musika); diziplina artekoa (kultura-sustapena eta -hedapena, administrazio eta zerbitzu orokorrak eta hizkuntza-politika).

Kultura Ministerioaren Urtekari horrek kulturako gastu publikotzat hartzen du “administrazio publikoek aitortutako betebeharren fasean kulturara bideratutako gastu likidatua. Beraz, finantzatzailearen izaera da gastuaren izaera publikoa edo pribatua zehazten duena, eta ez hartzailearena”. Ez dira kentzen kultura-erakunde publiko jakin batzuk eduki ditzaketen jatorri pribatuko sarrerak, adibidez, museoek eduki ditzaketenak. Enpresek edo partikularrek kultura-erakunde publikoei emandako babesengatik, dohaintzengatik, eta abar izan ditzaketen balizko zerga-arintzeak ere ez dira sartzen kulturako gastutzat.

EAEko administrazioak 2020an kulturaren likidatutako gastua, Kultura eta Kirol Ministerioaren arabera, 133,7 milioi euro izan ziren, 2019an baino 8,2 milioi gehiago. Horrek esan nahi du, gehikuntza % 6,5ekoa izan zela. Gastu hori, era berean, 2020an, estatuko autonomia erkidegoetako administrazioek likidatutako gastuaren % 9,9 da eta Eusko Jaurlaritzak urte horretan egindako gastuaren % 1,13. Gainera, gure erkidegoko BPGaren % 0,20 da, autonomia-erkidego guztietako batez besteko ratioaren gainetik (% 0,12). Adierazle honetan, buruan ageri diren erkidegoak Nafarroa, EAE eta Extremadura dira, betiere, dituzten ezaugarri bereziengatik Ceuta eta Melilla alde batera utzita. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 61,1 eurora iritsi zen 2020. urtean, 2019. urtean baino 3,5 gehiago, eta kopuru hori estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (28,6 €).

V.1.39. KOADROA. AUTONOMIA-ERKIDEGOETAKO ADMINISTRATIOEK KULTURAN LIKIDATU DUTEN GASTUA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA										
	BALIO ABSOLUTUAK		ESTATU-MAILAN KULTURAN LIKIDATU DEN GASTUAREN %		AUTONOMIA-ERKIDEGOEN GUZTIRA LIKIDATUTAKO GASTUAREN %		BPG-AREN %		BIZTANLE BAKOITZEKO BATEZ BESTEKO GASTUA (€)	
	(MILA EUROTAN).		2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020	2019	2020
ESTATUA, GUZTIRA	1.201.422	1.355.075	100	100	0,57	0,55	0,10	0,12	25,6	28,6
ANDALUZIA	178.602	206.453	14,9	15,2	0,50	0,49	0,11	0,14	21,2	24,4
ARAGOI	19.507	21.340	1,6	1,6	0,30	0,32	0,05	0,06	14,8	16,0
ASTURIAS	22.756	23.512	1,9	1,7	0,52	0,50	0,10	0,11	22,3	23,1
BALEAR UHARTEAK	23.132	24.950	1,9	1,8	0,43	0,40	0,07	0,09	19,5	20,6
KANARIAR UHARTEAK	28.419	30.401	2,4	2,2	0,33	0,24	0,06	0,08	12,9	13,6
KANTABRIA	16.647	20.994	1,4	1,5	0,59	0,68	0,12	0,16	28,6	36,0
GAZTELA ETA LEON	65.641	69.656	5,5	5,1	0,61	0,57	0,11	0,13	27,3	29,0
GAZTELA-MANTXA	32.506	32.610	2,7	2,4	0,33	0,27	0,08	0,08	16,0	15,9
KATALUNIA	256.740	337.365	21,4	24,9	0,65	0,70	0,11	0,16	33,9	44,1
VALENTZIAKO ERK.	112.986	129.796	9,4	9,6	0,49	0,49	0,10	0,12	22,7	25,8
EXTREMADURA	40.237	34.103	3,3	2,5	0,76	0,60	0,20	0,18	37,8	32,1
GALIZIA	84.144	91.858	7,0	6,8	0,67	0,66	0,13	0,16	31,2	34,0
MADRIL	93.374	102.484	7,8	7,6	0,41	0,38	0,04	0,05	14,1	15,2
MURTZIA	29.700	27.323	2,5	2,0	0,49	0,37	0,09	0,09	20,0	18,2
NAFARROA	48.804	48.481	4,1	3,6	1,11	1,06	0,23	0,25	75,1	73,8
EAE	125.514	133.666	10,4	9,9	1,05	1,13	0,17	0,20	57,6	61,1
ERRIOXA	8.305	9.095	0,7	0,7	0,49	0,48	0,09	0,11	26,5	28,8
CEUTA	4.605	3.680	0,4	0,3	1,59	1,18	0,26	0,22	54,3	43,8
MELILLA	9.805	7.309	0,8	0,5	3,76	2,74	0,60	0,48	115,8	86,5

Iturria: Hezkuntza eta Kirol Ministerioa. Kultura Estatistiken urtekaria, 2022

1.4.4. Familien gastua kulturaren kontsumoan

Kultura eta Kirol Ministerioak EINaren Familia Aurrekontuen Inkestatik atera eta 2022ko Kultur Estatistiken Urtekarian jasotako datuen arabera, euskal etxeek kultura-ondasun eta -zerbitzuetan egindako gastua 531,8 milioi eurokoa izan zen 2021ean, hau da, % 0,4ko igoera. Gastu hori EAEko ondasun eta zerbitzuetan eginiko gastuaren % 1,8 da, autonomia-erkidego guztien batez bestekoa baino baxuagoa (% 2).

V.1.40. KOADROA. ETXEEK ONDASUNETAN ETA ZERBITZU KULTURALETAN EGITEN DUTEN BATEZ BESTEKO GASTUA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA

	BALIO ABSOLUTUA		ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU OSOAREN %		ETXEETAKO BATEZ BESTEKO (EUROTAN)		PERTSONEN BATEZ BESTEKO (EUROTAN)	
	(MILIOI EUROTAN)		2020	2021	2020	2021	2020	2021
	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021
ESTATUA, GUZTIRA	10.484,9	10.773,5	2,1	2,0	556,4	571,0	223,6	230,0
ANDALUZIA	1.612,5	1.664,3	2,0	1,9	494,7	507,6	191,4	197,3
ARAGOI	342,2	304,3	2,3	2,0	629,5	559,6	261,5	235,0
ASTURIAS	219,3	228,6	2,1	1,9	482,6	504,4	218,4	229,2
BALEAR UHARTEAK	208,8	249,7	1,6	1,7	448,4	537,5	172,4	206,1
KANARIAR UHARTEAK	403,4	431,2	2,1	2,0	467,5	499,2	180,9	193,2
KANTABRIA	101,1	118,9	1,7	1,8	416,2	487,0	175,3	205,8
GAZTELA ETA LEON	575,7	641,8	2,2	2,3	561,7	627,8	245,7	275,6
GAZTELA-MANTXA	406,4	335,5	2,2	1,7	512,4	420,4	201,2	165,9
KATALUNIA	1.789,0	1.852,2	2,0	1,9	582,0	603,2	236,3	244,6
VALENTZIako ERK.	1.192,5	1.235,7	2,3	2,2	587,6	603,6	238,5	246,6
EXTREMADURA	208,1	216,0	2,1	2,0	481,6	499,7	198,8	207,4
GALIZIA	641,6	616,3	2,3	2,0	581,7	555,9	239,7	230,8
MADRIL	1.645,3	1.700,5	1,9	1,9	621,1	647,7	246,0	255,5
MURTZIA	356,4	368,0	2,6	2,4	648,2	661,8	237,3	244,0
NAFARROA	145,2	164,7	1,8	1,9	556,8	631,6	223,7	254,2
EAE	529,9	531,8	1,8	1,8	580,2	584,5	244,8	247,3
ERRIOXA	75,1	74,6	2,2	2,1	570,1	565,1	240,0	239,2
CEUTA ETA MELILLA	32,4	39,3	2,2	2,6	587,1	714,3	193,5	237,7

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa, Anuario de Estadísticas Culturales 2022

Etxeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE zortzigarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean, 584,5 euroekin, Ceuta eta Melilla, Murtzia, Madril, Nafarroa, Gaztela eta Leon, Valentiako Erkidegoa eta Kataluniaren atzetik.

Gastu taldeari erreparatuz (liburuak eta aldizkako argitalpenak; kultura zerbitzuak; ikus-entzunezko euskarri, ekipamendu eta osagarriak eta informazioa tratatzekoak; eta telefono mugikorrek eta Internetekin lotutako zerbitzuak), EAEko etxe bakoitzean gastatutako 584,5 euroen % 29,7, ikus-entzunezko ekipamendu eta osagarrietara eta informazioa tratatzekoetara bideratu zen; % 29,1 liburu eta argitalpenetara; % 25,5 telefono mugikorretara eta Internetekin lotutako zerbitzuetara; eta % 15,8 kultura-zerbitzuetara.

Pertsonako batez besteko gastuan, EAE laugarren postuan dago sailkapenean, 247,3 euroekin, Gaztela eta Leon, Madril eta Nafarroaren atzetik.

V.1.41. KOADROA. ETXE BAKOITZEAN KULTURA-ONDASUN ETA -ZERBITZUETAN EGITEN DUTEN BATEZ BESTEKO GASTUA, AUTONOMIA-ERKIDEGO BAKOITZAREN ETA GASTU TALDEAREN ARABERA (EUROTAN)										
	GUZTIRA		LIBURUAK ETA ALDIZKAKO ARGITALPENAK		KULTURA-ZERBITZUAK		IKUS-ENTZUNEZKO EUSKARRIAK, EKIPAMENDUAK ETA OSAGARRIAK ETA INFORMAZIOA TRATATZEKOAK		TELEFONO MUGIKORRAK ETA INTERNETEKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021
ESTATUA, GUZTIRA	556,4	571,0	114,7	112,6	51,0	72,2	187,9	196,5	202,8	189,8
ANDALUZIA	494,7	507,6	57,2	73,0	50,7	54,1	164,8	168,5	222,0	212,1
ARAGOI	629,5	559,6	159,1	114,1	63,9	82,4	211,2	175,9	195,3	187,2
ASTURIAS	482,6	504,4	84,9	119,3	28,1	44,3	159,2	147,5	210,5	193,3
BALEAR UHARTEAK	448,4	537,5	101,4	129,2	70,0	60,7	139,4	173,0	137,5	174,7
KANARIAR UHARTEAK	467,5	499,2	57,0	71,3	24,6	41,9	173,5	185,0	212,4	201,1
KANTABRIA	416,2	487,0	91,5	99,1	38,3	49,5	134,2	176,3	152,2	162,2
GAZTELA ETA LEON	561,7	627,8	158,1	194,4	31,7	74,4	177,5	175,0	194,4	183,9
GAZTELA-MANTXA	512,4	420,4	109,9	76,8	42,2	31,4	138,6	119,7	221,6	192,6
KATALUNIA	582,0	603,2	113,8	106,6	47,4	65,9	204,6	245,9	216,2	184,8
VALENTZIako ERK.	587,6	603,6	106,5	95,7	52,1	77,5	230,5	230,6	198,5	199,8
EXTREMADURA	481,6	499,7	84,7	96,0	24,8	58,4	154,8	154,1	217,4	191,3
GALIZIA	581,7	555,9	163,4	150,6	51,2	45,0	164,8	183,9	202,2	176,5
MADRIL	621,1	647,7	156,3	132,4	76,9	131,5	208,9	214,0	179,1	169,7
MURTZIA	648,2	661,8	93,2	113,0	37,3	60,5	251,6	219,9	266,1	268,4
NAFARROA	556,8	631,6	161,3	159,1	72,1	135,8	157,6	184,4	165,8	152,4
EAE	580,2	584,5	178,1	169,8	56,4	92,1	181,2	173,4	164,5	149,2
ERRIOXA	570,1	565,1	166,0	136,2	34,6	35,3	160,0	238,3	209,4	155,4
CEUTA ETA MELILLA	587,1	714,3	---	---	---	---	---	---	---	---
EHUNEKO-BANAKETA HORIZONTALA										
ESTATUA, GUZTIRA	100	100	20,6	19,7	9,2	12,6	33,8	34,4	36,4	33,2
EAE	100	100	30,7	29,1	9,7	15,8	31,2	29,7	28,4	25,5

* Ikuskizunak eta bestelako kultura-zerbitzuak barne

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa, Anuario de Estadísticas Culturales 2022

V.1.42. KOADROA. PERTOSNA BAKOITZAK KULTURA-ONDASUN ETA -ZERBITZUETAN EGITEN DUEN BATEZ BESTEKO GASTUA, AUTONOMIA-ERKIDEGO BAKOITZAREN ETA GASTU TALDEAREN ARABERA (EUROTAN)										
	GUZTIRA		LIBURUAK ETA ALDIZKAKO ARGITALPENAK		KULTURA-ZERBITZUAK		IKUS-ENTZUNEZKO EUSKARRIAK, EKIPAMENDUAK ETA OSAGARRIAK ETA INFORMAZIOA TRATATZEKOAK		TELEFONO MUGIKORRAK ETA INTERNETEKIN LOTUTAKO ZERBITZUAK	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021	2020	2021
ESTATUA, GUZTIRA	223,6	230,0	46,1	45,4	20,5	29,1	75,5	79,2	81,5	76,4
ANDALUZIA	191,4	197,3	22,1	28,4	19,6	21,0	63,8	65,5	85,9	82,4
ARAGOI	261,5	235,0	66,1	47,9	26,5	34,6	87,7	73,9	81,1	78,6
ASTURIAS	218,4	229,2	38,4	54,2	12,7	20,1	72,0	67	95,2	87,8
BALEAR UHARTEAK	172,4	206,1	39,0	49,5	26,9	23,3	53,6	66,3	52,9	67,0
KANARIAR UHARTEAK	180,9	193,2	22,1	27,6	9,5	16,2	67,2	71,6	82,2	77,8
KANTABRIA	175,3	205,8	38,5	41,9	16,1	20,9	56,5	74,5	64,1	68,5
GAZTELA ETA LEON	245,7	275,6	69,2	85,4	13,9	32,7	77,6	76,8	85,0	80,8
GAZTELA-MANTXA	201,2	165,9	43,2	30,3	16,6	12,4	54,4	47,2	87,0	76,0
KATALUNIA	236,3	244,6	46,2	43,2	19,2	26,7	83,1	99,7	87,8	74,9
VALENTZIako ERKIDEGO	238,5	246,6	43,2	39,1	21,2	31,7	93,5	94,2	80,6	81,6
EXTREMADURA	198,8	207,4	35,0	39,8	10,2	24,2	63,9	64,0	89,7	79,4
GALIZIA	239,7	230,8	67,4	62,5	21,1	18,7	67,9	76,4	83,3	73,3
MADRIL	246,0	255,5	61,9	52,2	30,5	51,9	82,7	84,4	70,9	67,0
MURTZIA	237,3	244,0	34,1	41,7	13,7	22,3	92,1	81,1	97,4	98,9
NAFARROA	223,7	254,2	64,8	64,0	29,0	54,7	63,3	74,2	66,6	61,3
EAE	244,8	247,3	75,2	71,8	23,8	39,0	76,5	73,4	69,4	63,1
ERRIOXA	240,0	239,2	69,9	57,7	14,6	14,9	67,4	100,9	88,2	65,8
CEUTA ETA MELILLA	193,5	237,7	----	---	----	---	----	---	----	---
EHUNEKO-BANAKETA HORIZONTALA										
ESTATUA, GUZTIRA	100,0	100,0	20,6	19,7	9,2	12,7	33,8	34,4	36,4	33,2
EAE	100,0	100,0	30,7	29,0	9,7	15,8	31,3	29,7	28,3	25,5

*Ikuskizunak eta bestelako kultura-zerbitzuak barne Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa, Anuario de Estadísticas Culturales 2021

1.5. EUSKARAREN EGOERA EAE-N: VII. INKESTA SOZIOLINGUISTIKOA 2021

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak bultzatutako azterlan soziolinguistikoak euskararen aldeko ekintza positiboko politikak aldian-aldian ezartzeko eta ebaluatzeko borondatearen adierazgarri dira. Ildo horretan, inkesta soziolinguistikoak, bost urtean behin egiten direnak, euskalduntze-prozesua ebaluatzeko tresna zientifiko erabilgarrienak eta xehatuenak dira.

Inkesta Soziolinguistikoak 16 urte edo gehiagoko euskal herritarrek hartzen ditu kontuan, eta lau ikerketa-eremu ebaluatzen ditu.


- Herritarren hizkuntza-gaitasuna
- Hizkuntza-transmisioa
- Euskararen erabilera hainbat eremutan (etxean, lagunen artean, eremu formaletan eta abar)
- Euskararen erabilera sustatzearekiko jarrera

Hizkuntza-gaitasuna

Hiru hiztun mota bereizten dira, euskara hitz egiteko edo ulertzeko duten gaitasunaren arabera:


- Euskal hiztuna (elebiduna): euskara ondo edo nahiko ondo hitz egiteko eta ulertzeko gai da.
- Euskal hiztun pasiboa (elebidun pasiboa): ez da gai euskara ondo edo nahiko ondo hitz egiteko. Hala ere, euskararen ezagutza-maila jakin bat du. Zehazki, talde honetan sartzen da gutxienez baldintza hauetako bat betetzen duena:
 - ✓ Euskara "zerbait" ulertzeko eta hitz egiteko gai da.
 - ✓ Euskara "ondo" edo "nahiko ondo" ulertzeko gai da.
- Ez euskal hiztun: ez da gai euskara ez hitz egiteko ez ulertzeko.

2021eko Inkesta Soziolinguistikoaren arabera, EAEko 16 urte eta gehiagoko biztanleen % 36,2 euskal hiztunak dira, % 18,6 euskal hiztun pasiboak eta % 45,3 gaztelania-hiztunak. EAEn 16 urte edo gehiagoko 680.629 euskal hiztun daude, 1991n baino 261.000 gehiago; euskal hiztunen ehunekoa 12 puntu hazi da azken 30 urteetan (% 24,1 versus % 36,2). Euskal hiztunen kopuruak gora egin du hiru lurraldeetan eta hiru hiriburuetan.



Sexuaren arabera, emakumeen % 36,5 euskal hiztuna da, eta gizonen kasuan, % 35,8.

Adinaren arabera, euskaldunen ehuneko handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean ematen da: 16 eta 24 urte bitartekoen % 74,5 euskal hiztunak dira, eta 1991n, berriz, % 25. Duela 30 urte euskal hiztun gehien zituen adin-tartea, 65 urtetik gorakoena, gaur egun euskararen gaitasun txikiena duena da (% 22,1 da euskal hiztuna). Horrela, euskal hiztunen profila gartzatu egin da azken hogeita hamar urteetan.



Duela 30 urte euskal hiztunen % 60 hirugarren eta laugarren eremu soziolinguistikoetan²³ bizi zen, hau da, euskal hiztunen ehuneko oso altua edo nahiko altua duten eremuetan, eta % 40 lehen eta bigarren eremu soziolinguistikoan, hau da, euskaldunen ehuneko oso txikia edo nahiko txikia duten eremuetan. Gaur egun, kontrakoa gertatzen da. Euskal hiztunen erdia baino gehiago (% 55,4) lehen eta bigarren eremu soziolinguistikoan bizi da, eta % 44,7 hirugarren eta laugarren eremu soziolinguistikoan; beraz, euskal hiztun askok eta askok oso sare mugatua dute beste euskal hiztun batzuekin harremanak izateko. Hain zuzen ere, lehen eta bigarren eremuetako euskal hiztunak bi eremu horietako biztanleria osoaren laurdena baino ez dira (% 26,5).

Euskararen erabilera

VII. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzen arabera, euskararen erabilera ere gora egin du. Herritarren % 21,9k euskara gaztelania adina edo gehiago erabiltzen du. Guztira, 2021ean, 412.821 pertsona, eta duela hogeita hamar urte, 271.121 pertsona (6,4 puntuko igoera azken 30 urteetan). Igoera hori hiru lurraldeetan ez ezik, hiru hiriburuetan ere gertatu da.

Adin-tarteak aztertuta, eta ezagutzari buruzko datuekin gertatu zen bezala, euskara erabiltzen duten pertsonen ehuneko handiena gazteen artean ematen da (% 33,5); eta txikiena 65 urtetik gorakoen artean (% 16,7).

Gorakada hori biztanle gehienak bizi diren inguruetan gertatu da (lehen, bigarren eta hirugarren eremu soziolinguistikoetan: 4,4 lehenengoan; 6,4 bigarreanean; 7,3 hirugarrenean). Laugarren eremuan —batez ere herri txikiz osatua— euskararen erabilera behera egin du (–9,7). Aldaketa horretan eragina izan du, besteak beste, lurralde barruko eta lurralde arteko mugikortasunak.

Euskararen erabilera eragin handiena izan duten faktoreak harreman sarea eta euskarazko erraztasuna izan dira. Bi baldintzek bat egiten dutenean, euskara erabiltzeko aukerak handiagoak dira. Hala, inkesta soziolinguistikoan erabilera-eremuak ere aztertzen dira, eta ikusten da erabilera gora egin duela testuinguru formal eta informaletan.

²³ Eremu soziolinguistikoak: lehenengoa erdaldunena da eta laugarren euskaldunena

Udal-zerbitzuetan erabiltzen da gehien euskara (% 27,4). Atzetik datoz: lankideen artean (% 26,8), osasun-zerbitzuetan (% 23,1) eta lagunen artean (% 22,1). Datu horiek esanguratsuak dira, agerian uzten baitute geroz eta gehiago aukeratzen dela euskara Administrazioarekiko harremanetan.

Euskararen transmisioa

Euskararen transmisioari dagokionez, gora egin du euskal hiztunen bikoteetan zein bikote mistoetan. 3-15 urteko seme-alabak dituzten familien hizkuntza-portaera zein den jakiteko, inkesta egin zaien pertsonei galdetu zaie zer hizkuntza transmititu dieten seme-alabei. Transmisio hori aztertzeko, gurasoen hizkuntza-gaitasuna eta lehen hizkuntza hartu dira kontuan.


Bi gurasoak euskal hiztunak direnean eta haien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 98ri euskara baino ez zaie transmititzen, eta % 2ri euskara eta gaztelania. Guraso bakarra bada euskal hiztuna eta haren lehen hizkuntza euskara bada, % 84k euskara eta gaztelania transmititzen ditu eta % 16k gaztelania.

Gurasoa aita edo ama den, aldea dago transmisioan sexuaren arabera. Ama edo aita bakarrik bada euskal hiztuna, amen % 49,9ak euskara eta gaztelania transmititzen ditu, eta aiten % 41,7ak euskara eta gaztelania.

Euskararen erabilera sustatzearen inguruko jarrera positiboa.

16 urte edo gehiagoko pertsonek % 67 euskararen erabilera sustatzearen aldekoa da, % 26,3k ez du aukera zehatzik eta % 6,8 kontrakoa da. Horrela, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 30 urteetan. 1991 eta 2021 bitarteko datuak alderatuta, euskararen erabilera sustatzearen aldeko pertsonek ehuneko 12 puntu igo da (% 67 2021ean eta % 55 1991n).

V.1.11 GRAFIKOA. EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEAREN INGURUKO JARRERAREN BILAKAERA. EAE, 1991-2021(%)



Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa

ITURRIAK

1. **Academic Ranking of World Universities (ARWU)**. Shangaiko Unibertsitate-rankinga. 2022ko datuak
2. **EUSTAT** Unibertsitatearen Estatistika. 2020/21 ikasturtea.
3. **EUSTAT**. Kontu ekonomikoak.
4. **EUSTAT**. Eskola-jardueraren Estatistika. 2021-2022 ikasturtea
5. **EUSTAT**. Hezkuntzaren Kontua. 2020
6. **EUSTAT**. Unibertsitatearen Estatistika. 2020-2021 ikasturtea
7. **Eusko Jaurlaritza**. EAEko Kontu Orokorrak eta EAEko Aurrekontuak.
8. **Eusko Jaurlaritza**. VII. Inkesta Soziolinguistikoa 2021
9. **EUSKO JAURLARITZA. Kulturaren euskal behatokia**. EAEko parte-hartze kulturalari buruzko inkesta. 2018
10. **EIN**. Contabilidad Regional de España.
11. **LANBIDE**. LHko ikasleen laneratzea. 2018ko promozioa.
12. **LANBIDE**. Unibertsitateko ikasketak amaitu dituen biztanleriaren laneratzeari buruzko azterlana. 2018an egresatutako gradu-promozioa.
13. **HEZKUNTZA ETA KIROL MINISTERIOA**. Anuario de Estadísticas Culturales. Edición 2020/21.
14. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Estadísticas universitarias. Edición 2022.
 - ✓ Internacionalización. Curso 2020-21
 - ✓ Rendimiento académico. Curso 2020-21
15. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Las Cifras de la Educación en España. Edición 2022.
16. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Recursos económicos. Gasto Público.
17. **HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETAKO MINISTERIOA**. Sistema estatal de indicadores de la educación, 2022.

2. INGURUNEA ETA ENERGIA

Atal hau bi bloke handitan banatzen da. Lehenengoa natura-inguruneari buruzkoa da, eta bigarrena energia-ekoizpen eta kontsumoari buruzkoa.

Garapenaren kontzeptua aldatu egin da urteekin, eta, gaur egun, herrialdeek erabaki dute garapen iraunkorra, oparotasuna eta aukera ekonomikoak, gizarte-ongizate handiagoa eta ingurumenaren babesa sustatzen dituen, bide egokia dela egungo biztanleriaren bizitza hobetzeko, etorkizuneko belaunaldiak euren bizitzak asetzeko duten gaitasuna arriskuan jarri gabe.

Iraunkortasunak eta garapen jasangarriak printzipio honi jarraitzen diote: eskura dauden baliabideak ezin dira bereizketarik egin gabe agortu; natura-baliabideak babestu behar dira, eta hazkunde ekonomikoa eta natura-baliabideen kontsumoa banantzea lortu behar da. Testuinguru horretan, gobernuak, gizartea eta enpresak ingurumenarekin erlazionatzeko modua aldatzen hasi dira, ekonomia lineal batetik atera, ekoizti, erabili eta tiratzetik ekonomia zirkularra murriztu, berrerabili eta birziklatzera igarota.

V. kapituluko (*EAEko Bizi-kalitatea*) bigarren atal honen helburua da gure erkidegoan ingurumenarekin zerikusia duten gai nagusien errealitatea eta azken aldiko bilakaeraren berri izatea. Bereziki, ingurumen-adierazle jakin bat, hain zuzen euskal gizartea sentibilizazio mailaren eta ingurumenean eragina duten ohituren, airearen kalitatearen, berotegi-efektuko gasen emisioen, ur gezaren kontsumoaren eta hondakinen sorreraren eta kudeaketaren arabera kokatzea ahalbidetzen duena. Azken puntuan, manufaktura-industriak ingurumena babesteko egindako gastuen azterketa laburra ageri da.

Epigrafe batzuetan, azterketa 2020ko datuekin egiten da (eskuragarri dagoen azkena), eta horien emaitzak jarduerari ezarritako murrizketen ondorioz bizi izandako salbuespen egoerak baldintzatzen ditu.

Energiaren ekoizpenari eta kontsumoari buruzko atalean, barne kontsumo gordina edo energiaren eta azken kontsumoaren eskariaren bilakaera aztertuko da, baita energia primarioaren ekoizpenarena, energia intentsitatearena eta energiaren fakturarena ere.

2.1. INGURUMEN-ADIERAZLEA: FAMILIAK

Ingurumen-adierazlea sintesi baten bidez lortzen da, eta euskal gizarte osoa 0 eta 10 puntu arteko eskalan kokatzeko modua ematen du, sentibilizazio mailaren eta ingurumenean eragina duten ohituren arabera. 7 dimentsio ditu: Ingurumenaren gaineko jarrera, Garraioa eta mugikortasuna, Kontsumorako jarraibideak, Noizbehinkako hondakinen tratamenduak, Ohiko hondakinen tratamendua, Energia eta ura aurrezteak.

EUSTATen Familiei egindako Ingurumenari buruzko Inkestaren (FII) datuen arabera (bost urtean behin egiten da inkesta), EAEko familiek 10etik 6,7 puntu lortzen dituzte sentibilizazio mailan eta ingurumenean eragina duten ohituretan, EUSTATEk landutako datuen arabera. Ingurumen-adierazlean lortutako puntuazio hori duela bost urteko emaitzekiko (+0,1) aurrerapen txikia da. Argibide gehiago nahi izanez gero, jo beza irakurleak 2021eko gure Memoriara.

2.2. AIREAREN KALITATEA. 2021

Airearen kalitatearen ebaluazioa inguruneke airean kutsatzaile maila jakin batzuk baloratzeko prozesua da. EAEko airearen kalitatearen ebaluazioa egunero egiten da, Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratzen den AIREAREN KALITATEAREN INDIZEAREN bidez. Bertan, airearen kalitatearen egoera balioesten da, kontzentrazio-tarte baten arabera definitutako kategoria bat erabiliz. Bestalde, urtero sare osoan erregistratutako datuen analisia egiten da, araudiak ezartzen duen lurraldea ebaluatzeko betebeharrari erantzuten dion URTEKO TXOSTENA egiteko.

2.2.1. Airearen kalitatearen indizea eta iraunkortasun-adierazlea. 2021

Airearen Kalitatearen Indize Nazionala (AKI) adierazle bat da, herritarrei airearen kalitatearen berri modu argi eta errazean emateko balio duena. Hori lortzeko, eremu desberdinetan banatutako estazioetan

EGUNEKO AKI Mg/m ³ -tan	SO ₂	NO ₂	O ₃	PM ₁₀	PM _{2,5}
OSO ONA	0-100	0-40	0-80	0-20	0-10
ONA	101-200	41-100	81-120	21-35	11-20
HALA MODUZKOA	201-350	101-200	121-180	36-50	21-25
TXARRA	351-500	201-400	181-240	51-100	26-50
OSO TXARRA	501-1250	401-1000	241-600	101-1200	51-800

kutsatzaile batzuk denbora errealean neurtzen dira. AKIk har ditzakeen balioen multzoa tartetan taldekatzen da, eta horiei eremu jakin bateko airearen kalitatearen berezko bilbe edo kolore bat lotzen zaie. 2019ra arte, ez zen informazio horren parametroak Europan bateratzeko erreferentziarik egon. 2019an, TEC/351/2019 Agindua onartzean, maila bakoitzean kutsatzaile bakoitzerako ezarritako tartekak aldatu eta bateratu egiten dira Europa mailan, erantsitako taulan agertzen direnak izanik.

Bestalde, iraunkortasun-adierazlea airearen kalitate-kalifikazioa hala moduzkoa, txarra edo oso txarra²⁴ ez den egunen kopurua ehunekotan laburtzeko balio duen adierazlea da.

V.2.1. TAULA AIREAREN KALITATEA. IRAUNKORTASUN-ADIERAZLEA (1), ZONAREN ARABERA.						
	ESTAZIO KOP.	2018		2019*	2020	2021
1: ENKARTERRIAK - NERBIOI GARAIA	2	% 100,00	HAUSTURA METODOLOGI KOA	% 96,16	% 96,45	% 93,97
2: NERBIOI BEHEREA	21	% 93,42		% 79,45	% 69,67	% 74,79
3: KOSTALDEA	3	% 92,33		% 98,63	% 93,17	% 97,53
4: DONOSTIALDEA	11	% 90,41		% 84,11	% 80,87	% 81,64
5: IBAIZABAL GARAIA - DEBA GARAIA	6	% 90,14		% 91,51	% 91,26	% 83,29
6: GOIERRI	4	% 99,18		% 89,86	% 86,61	% 92,05
7: ARABAKO LAUTADA	5	% 98,90		% 94,25	% 94,26	% 90,96
8: EAE - ERRIBERA	2	% 93,42		% 97,53	% 96,72	% 95,89
EAE	54	% 94,73		% 91,44	% 88,63	% 88,77

(*) 2019an mailak aldatu ziren, Airearen Kalitatearen Indize Nazionala onartzen duen 2019ko martxoaren 18ko TEC/351/2019 Aginduaren arabera
Iturria: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren informazioaren arabera, iraunkortasun-adierazleak 2021ean, hau da, oso kalifikazio ona eta oneko kalifikazioa duten egunen ehunekoa guztizkoaren % 88,77 da, 2019koa baino ratio txikiagoa (% 91,44), eta horrek esan nahi du okerrera egin duela. 2020an erregistratutakoaren antzekoa da 2021ekoa (% 88,63), baina kontuan hartu behar da 2020an jarduera sozioekonomikoa txikiagoa izan zela pandemiak ezarritako murrizketen ondorioz.

²⁴ Urteko iraunkortasun-adierazlea: ("Oso ona" duten egunen kopurua + "Ona" kalifikazioa duten egunen kopurua)/urteko egunen kopuru osoa. ("Oso ona" kalifikazioa duten egunen kop. + "Ona" kalifikazioa duten egunen kopurua)/urteko egunen kop. osoa).

Zehazki, 2021ean airearen kalitate txarreko 73 egun erregistratu ziren, eta oso txarreko 3 egun. 2019an, kalifikazio txarreko 67 egun erregistratu ziren, eta bat bera ere ez oso txarrekoa. Bestalde, hala moduzko kalitateko egunak ere igo egin dira, 183tik 252ra. Airearen kalitate txarreko edo oso txarreko 76 egun horietatik 19 Nerbioi Beherean ikusi ziren, 17 Donostialdean, 9 Goierrin, 9 Arabako Lautadan eta 8 Debagoiengan.

V.2.2. TAULA AIREAREN KALITATE-INDIZEAREN BILAKAERA												
	2019				2020				2021			
	OSO ONA ETA ONA	HOBETU DAITEKE/HALA MODUZKOA	TXARRA	OSO TXARRA	OSO ONA ETA ONA	HOBETU DAITEKE/HALA MODUZKOA	TXARRA	OSO TXARRA	OSO ONA ETA ONA	HOBETU DAITEKE/HALA MODUZKOA	TXARRA	OSO TXARRA
1: ENKARTERRIAK - NERBIOI GARAIA	351	14	0	0	353	9	4	0	343	16	5	1
2: NERBIOI BEHEREA	290	51	24	0	255	82	29	0	273	73	19	0
3: KOSTALDEA	360	5	0	0	341	19	6	0	356	6	3	0
4: DONOSTIALDEA	307	42	16	0	296	61	9	0	298	50	17	0
5: IBAIZABAL GARAIA - DEBAGOIENA	334	24	7	0	334	26	6	0	304	53	7	1
6: GOIERRI	328	29	8	0	317	42	7	0	336	20	9	0
7: ARABAKO LAUTADA	344	12	9	0	345	18	3	0	332	24	8	1
8: EAE - ERIBERA	356	6	3	0	354	10	2	0	350	11	4	0
EGUN KOPURUA, AIREAREN KALITATEAREN ARABERA.	2.670	183	67	0	2.595	267	66	0	2.592	252	73	3
EGUNEN % AIREAREN KALITATEAREN ARABERA.	91,43	6,27	2,29	0,0	88,63	9,12	2,25	0,0	88,77	8,63	2,50	0,1

Iturria: Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila EUSKO JAURLARITZA

2.2.2. EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostena. 2021

Neurtzen diren kutsatzaileek eta neurtzeko sarearen ezarpenak airearen kalitateari buruzko Europako araudia betetzen dute. Araudi hori airearen kalitatearen mugak ezarri eta kudeaketa arautzen duen 102/2011 Errege Dekretuan txertatu zen²⁵. Araudi horretaz gain, Eusko Jaurlaritzaren neurketak kontuan hartzen ditu Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) gomendioak.

Osasuna babesteko mugak dituzten kutsatzaileak hauek dira: SO₂ (sufre dioxidoa), NO₂ (nitrogeno dioxidoa), PM₁₀ (10 mikratik beherako diametroa duten partikulak), PM_{2,5} (2,5 mikratik beherako diametroa duten partikulak), CO (karbono monoxidoa), O₃ (ozonoa), C₆H₆ (bentzenoa), Pb (beruna), As (arsenikoa), Cd (kadmioa), Ni (nikela) eta B(a)P (bentzo(a)pirenoa).

²⁵ 39/2017 Errege Dekretua, urtarrilaren 27koa, Airearen kalitatea hobetzeari buruzko urtarrilaren 28ko 102/2011 Errege Dekretua aldatzen duena.

2.2.2.1. Lurraldearen zonakatzea ebaluaziorako

Gure erkidegoko airearen kalitatearen ebaluazio orokorra euskal lurraldeak zonalde eta aglomerazioetan duen banaketaren arabera egiten da. Lurraldearen zonakatzea ere kutsatzailearen mende dago. Airearen kalitatearen ebaluazio orokorra egiteko, EAEko lurraldea 8 eremutan banatzen da, indarrean dagoen araudiaren eskakizunen arabera. Gainera, 5 zonalde dituen zonakatzeko espezifikoa aplikatzen da ozonorako, gainerako kutsatzaileekiko portaera desberdina duelako.

- SO₂, NO₂, CO eta partikulen kasuan (PM₁₀, PM_{2,5}), 8 zonan banatzen da EAE, antzeko orografiako aireko arroen arabera: Enkarterri-Nerbioi Garaia, Nerbioi Beherea, Kostaldea, Donostialdea, Ibaizabal-Debagoiena, Goierri, Arabako Lautada eta EAE-Erribera. Hau da, maparen goiko aldeko zonakatzea erabiltzen da, eskuinaldean erakusten dena.

- Ozonoaren kasuan, kutsatzailearen portaera desberdina da. Izan ere, azterketa estatistikoak agerian uzten du urtaro-zikloan alde nabarmena dagoela estazioetan erregistratutako batez besteko mailen artean, itsasotik dagoen distantziaren arabera.


Ondorioz, ozonorako 5 zonaldeak hauexek dira: Itsasertza, Bilbo-Barakaldo, Kantauriko Haranak, Barruko Arroak eta Ebro Harana, beheko aldeko mapan jasotzen den bezala. Hau da, maparen zonakatzea erabiltzen da beheko aldean, eskuinean.

- C₆H₆, Pb, metal astunak eta bentzo(a)pirenoaren ebaluazioa EAE osorako egiten da modu globalean.

NEURTZEKO ZONAKATZEA
SO₂, NO₂, CO eta partikulak



NEURTZEKO ZONAKATZEA
OZONO TROPOSFERIKOA



2.2.2.2. Airearen kalitatearen helburuak

Eusko Jaurlaritzaren airearen kalitatearen gaineko txostenen edizioetan aipatzen den bezala, airearen kalitateari buruzko hainbat helburu daude:

- Muga-balioa, ezagutza zientifikoetan oinarrituta finkatutako maila, efektu kaltegarriak saihesteko, prebenitzeko edo murrizteko, eta gainditu behar ez dena.
- Balio objektiboa, maila hori, ahal den neurrian, ez da gainditu behar ondorio kaltegarriak saihesteko, prebenitzeko edo murrizteko.
- Epe luzerako helburua, epe luzera gainditu ezin den maila, salbu eta neurri proportzionatuak erabilita hori ezinezkoa denean, efektu kaltegarrietatik eraginkortasunez babesteko.
- Informazio-atalasea: kutsatzaile baten maila. Maila horretatik aurrera, iraupen laburreko esposizio batek arriskua dakar bereziki ahulak diren biztanleria-taldeen giza osasunerako, eta administrazio eskudunek berehalako informazio egokia eman behar dute.
- Alerta-atalasea: maila horretatik aurrera, iraupen laburreko esposizio batek giza osasunerako arriskua dakar, biztanleria osoari eragiten dio eta administrazio eskudunek berehalako neurriak hartzea eskatzen du.

Bestalde, airearen kalitatea hobetzeari buruzko araudian ezarritako mugak hauexek dira:

		BATEZBESTEKOA	MUGA-BALIOA	ALERTA-ATALASEA
SO ₂	ORDURO		350 µg/m ³ (gehienez 24 gainditze urtean)	500 µg/m ³ (3 ordutan)
	EGUNERO		125 µg/m ³ (gehienez 3 gainditze urtean)	
NO ₂	ORDURO		200 µg/m ³ (gehienez 18 gainditze urtean)	400 µg/m ³ (3 ordutan)
	URTEKOA		40 µg/m ³	----
PM ₁₀	EGUNERO		50 µg/m ³ (gehienez 35 gainditze urtean)	----
	URTEKOA		40 µg/m ³	----
PM _{2,5}	URTEKOA		25 µg/m ³	----
LO	BATEZBESTEKO MUGIKORREN EGUNEKO MAXIMOA		10 µg/m ³	----
O ₃	ORDURO		Informazio-atalasea: 180 µg/m ³	240 µg/m ³ (3 orduz jarraian)
	BATEZBESTEKO MUGIKORREN EGUNEKO MAXIMOA		Balio objektiboa: 120 µg/m ³ (gehienez 25 gainditze urtean, batez beste 3 urteko aldian)	Epe luzerako helburua: 120 µg/m ³
BENTZENOA	URTEKOA		5 µg/m ³	----
METALAK	BERUNA	URTEKOA	0,5 µg/m ³	----
	ARTSENIKOA	URTEKOA	6 ng/m ³	----
	KADMIOA	URTEKOA	5 ng/m ³	----
	NIKELA	URTEKOA	20 ng/m ³	----
BENTZO(A)/PIRENOA	URTEKOA		1 ng/m ³	----

2.2.3. Emaitzak. 2021

2021ean, airearen kalitatea neurtzeko aurreikusitako kutsatzailei buruzko balio guztiak araudian ezarritako mugen azpitik izan dira, eta, gainera, beheranzko joerak jarraitzen du (2019ko balioekin alderatuta, zeren eta 2020ko aparteko jaitsiera pandemiaren ondoriozko murrizketek markatu baitzuten). **Kutsatzailearen araberako** egoera taula honetan ageri da.

V.2.3. TAULA AIREAREN KALITATEA EAE-KO KUTSATZAILA ATMOSFERIKOEN EMAITZEN LABURPENA. 2021		
	BALORAZIO OROKORRA	XEHETASUNA
Sufre dioxidoa, SO ₂	Mailak airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako mugen barruan daude.	<p>Industria-jarduerarekin lotutako kutsatzailea da.</p> <p>2021erako kalkulaturako datuak 2020koen antzekoak izan ziren.</p> <p>Inola ere ez da gainditu ordu pilaketarako araudian ezarritakoa. Horren arabera, ezin da 350 µg/m³-ko orduko balioa urtean 24 aldiz baino gehiagotan gainditu. Eguneko batezbestekoetarako ezarritako muga-balioa ere ez zen gainditu. Ordu-kontzentrazioetarako jasotako bi erregistro altuenak Abantoko estazioan (219 µg/m³) eta Las Carrerasen (190 µg/m³) jaso ziren.</p>
Nitrogeno dioxidoa, NO ₂	Airearen kalitateari buruzko araudian ezarritako muga-balioak betetzen dira.	<p>Trafikoarekin lotutako kutsatzailea da.</p> <p>Oro har, urteko batez bestekoak % 87 igo dira, 2020ko batezbestekoekin alderatuta; izan ere, COVID konfinamenduak eta joan-etorrien debekuak eragin zieten. Hala ere, 2021ean erregistraturako mailak 2019koak baino txikiagoak dira.</p> <p>Hiriburuetako trafiko-estazioetan (Ategorrieta (Donostia), Easo (Donostia), Gasteiz etorbidea (Gasteiz), María Díaz de Haro (Bilbo) eta Mazarredo (Bilbo)) ez zen detektatu 200 µg/m³-tik gorako orduko baliorik. Estazio horien orduko balio maximoak 113-116 µg/m³ artekoak izan ziren.</p> <p>Easo eta María Díaz de Haro izan ziren urteko batez besteko handienak izan zituzten estazioak.</p>
PM10 eta PM25	Bi kutsatzaileen mailak airearen kalitateari buruzko araudiak ezartzen dituen mugen barruan daude.	<p>PM10 partikulak hainbat emisio-iturriekin daude lotuta (industria, trafikoa, obrak, etab.). Oro har, mailak 2019an erregistraturako tartean daude. 2021ean, estazio gehienetarako eguneko gehieneko batezbestekoak otsailaren 19an erregistratu ziren, Saharako intrusio batekin bat etorritz.</p> <p>PM2,5 partikulen urteko batezbestekoak (trafikoarekin gehien lotutako kutsatzailea) araudiak ezarritako urteko mugaren azpitik daude. Urteko batezbestekoak Pagoetan eta Valderejon (landa-estazioak) erregistraturako 5,1 eta 4,9 µg/m³-ko gutxienekoaren eta Barakaldon eta Puyon erregistraturako 12 µg/m³-ko urteko batezbestekoaren artean kokatu ziren.</p>
CO	Azken 5 urteetako joera positiboari eusten dio. Mailak oso baxuak dira estazio guztietan, muga-balioaren oso azpitik.	Ordu-balio handienak dituen estazioa Erandioko trafikoko estazioa da, José Luis Goyoaga, z/g (Altzagako pasabidea) BI-711 errepidetik gertu.
O ₃ (ozonoa)	Urtaroen zikloan, urtaroretan erregistraturako batez besteko mailen arteko aldea, itsasotik duen hurbiltasunaren arabera.	<p>Ez zen erregistratu 180 µg/m³-tik gorako baliorik (herritarrentzako informazio-atalasea).</p> <p>Giza osasuna babesteko helburu-balioari dagokionez (gehienez 25 aldiz 120 µg/m³-tik gora, batez beste hiru urtean), ez da gainditu.</p> <p>120 µg/m³-ko epe luzerako helburua gehien gainditu zuten estazioak honako hauek izan ziren: Valderejo eta Jaizkibel. Estazio horiek altitude handiagoan eta landa-eremuetan daude.</p>
Bentzenoa	Urteko batez bestekoak baxuak dira, eta urteko araudiak ezarritako mugaren barruan daude; hau da, 5 µg/m ³ urteko batez besteko gisa.	
Metalak eta bentzo(a)pirenoa	Metalen eta bentzo(a)pirenoaren mailak oso baxuak dira neurtu diren lau estazioetan: M ^a Díaz de Haro (Bilbo), Erandio (Erandio), Tolosa (Donostia) eta Martxoaren hirua (Gasteiz).	<p>Azpimarratzekoa da determinazio-mugaren azpitik dauden datuen ehuneko handia, batez ere Tolosa etorbidean eta Martxoaren hiruan.</p> <p>Oro har, 2021ean 4 metaletarako eta bentzo(a)pirenoan erregistraturako urteko batez bestekoak 2019koen antzekoak dira, 2020an mailak oso baxuak izan baitziren COVIDaren ondorioz. Horietatik guztietatik, Erandion detektatzen dira mailarik altuenak Cd, Ni, As, Pb eta benzo(a)pirenorako. Asen kasuan, M^a Díaz de Haron hauteman dira maila altuagoak.</p>

Iturria: EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostena. 2021. EUSKO JAURLARITZA

2.3. KLIMA-ALDAKETA. BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN ISURKETAK. 2020

Klima-aldaketa XXI. mendeko ingurumenaren gaineko erronka nagusietako bat da. Nazio Batuek 2014an argitaratutako Klima Aldaketarako Gobernu Arteko panelaren bosgarren ebaluazio-txostenaren arabera, planetako batez besteko tenperatura 0,85°C igo da azken mendean, eta 3,7°C-tik 4,8°C-ra arteko tartea egon daiteke XXI. mendearen amaieran. Klima Aldaketari buruzko Gobernuen arteko Adituen Taldearen 2019ko Txosten Bereziaren arabera, tenperatura 1°C igoko zen.

Parisko 2015eko goi-bileran, 175 alde, hau da, 174 herrialdek eta EBk, akordioa sinatu zuten. Akordio horren arabera, munduko batez besteko tenperaturaren igoera industria-aurreko mailekiko 2°C-tik oso behera mantentzea erabaki zen, eta industria-aurreko mailekiko 1,5°C-ra murrizteko ahaleginekin jarraitzea.

EBk konpromisoa hartzen du 2020an % 20 eta 2030ean % 55 murrizteko emisioak, 1990. urtearekin alderatuta, 2020. urtera arteko klima eta energiako neurri-sortaren eta EBk Parisko Akordioari egindako ekarpen eguneratuaren arabera. Izan ere, ekarpen horrek handitu egiten du klima eta energiaren 2030erako markoak ezarritako % 40ko anbizioa. Epe luzean, bai 2050erako epe luzerako estrategiak, bai Europako Itun Berdea deritzonak (European Green Deal), baita klimaren neutraltasuna lortzeko europar erregelamenduaren proposamenak ere, 2050ean edo lehenago, ahal bada, klimaren neutraltasuna lortzeko beharra ezartzen dute, hau da, emisioak puntu horretaraino murriztea, xurgapenek konpentsatu ditzaten. Gainera, 2030ean isurketak 1990. urtearekin alderatuta % 55 gutxitzeko bitarteko helburua ezartzen du, baita hainbat elementu ere:

- EBko karbono-hustubidea hobetzeko beharra aitortzea, LULUCF erregelamendu handinahiago baten bidez.
- 2040rako helburu klimatikoa ezartzeko prozesua.
- 2050etik aurrerako isurketa negatiboekiko konpromisoa.
- Klima Aldaketari buruzko Europako Aholku Batzorde Zientifikoa ezartzea, aholkularitza zientifiko independentea emateko.
- Klima-aldaketara egokitzeari buruzko xedapen zorrotzagoak.
- Sektoreekin lankidetzan aritzeko konpromisoa, hain zuzen ekonomiaren hainbat arlotan neutraltasun klimatikorako bidea egingo duten sektoreko ibilbide-orri espezifikoak prestatzeko.

Hala eta guztiz ere, Kiotoko protokoloarekin gertatu zen bezala, 1990eko errentak eta biztanleko emisioek ez dute aukerarik ematen Europako murrizketa helburu horiek 1990etik herrialde guztietara zuzenean ekartzeko. Oraingoan, emisio-eskubideen merkataritza abian jarri ondoren, EBk emisio barreiatuen helburu lotesleak ezarri ditu 2005. urtearekin alderatuta.

Hala, emisioen murrizketa bi bloke handitan banatzen da:

- Emisio-eskubideen merkataritzari buruzko Europako araudiak (EU-ETS) araututako sektoreak; EBk 2005ean bultzatutako sistema. Oro har, industria edo energia instalazio handiak dira, eta emisio-intentsitate handia dute. Haien emisioak EBk arautzen ditu, emisio-eskubideak esleituta. Eskubideak eta, beraz, emisioak % 21 gutxituko dira 2020. urtean, eta % 43, 2030. urtean, 2005. urtearekin alderatuta.
- Sektore lausoak (etxebizitza, nekazaritza, hondakinak, garraioa, etab.), emisioak murrizteko estatu-helburu lotesleak dituztenak. EBn, batez beste, % 10 murriztu nahi da 2020an, eta % 30 2030ean, 2005. urtearekin alderatuta.

2030erako helburuak eguneratu egin beharko dira, arestian aipatutako % 55 murrizteko konpromiso berriarekin.

Eskualdeek ez dute berotegi-efektuko gasak (BEG) murrizteko helburu juridikoki loteslerik, baina, Euskadin, Euskadiko Klima Aldaketarako 2050 Estrategiak (Klima 2050), 2015ean onartu zenak, honako helburu hauek ezarri ditu: 2030erako berotegi-efektuko gasen (BGE) emisioak gutxienez **% 40 murriztea 2030erako 2005. urtearekiko eta gutxienez % 80 2050erako eta EAEk klima aldaketarako duen erresilientzia bermatzea**. Gainera, beste helburu batzuk ere baditu: 2050. urtean azken kontsumoaren % 40ko energia berriztagarriaren kontsumoa lortzea.

“Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Efektuko Gasen Isurien Inbentario”ko azken datuen arabera, CO2 baliokidearen arabera neurtutako berotegi-efektuko gasen isurketak % 1,7 murriztu dira 2020an, 2019. urtearekin alderatuta. 2005. urteari dagokionez²⁶, isurketak % 35,5 murriztu dira. 1990. urteari dagokionez, isurketak % 21,5 murriztu dira.

Sektore ekonomikoen emisioak 2020an

Orain, sektorearen arabera egoera eta bilakaera erakutsiko ditugu, baina jakin badakigu jarduerari ezarritako murrizketek datuak baldintzatzen dituztela. Energiaren sektorearen isurketak gainerako sektoreei emandako energia-horniduraren ondorio direnez, banaketa aztertu da, eta sektore bakoitzean elektrizitate kontsumoaren ondoriozko isurketak sartu dira (zeharkako emisioak). Ikuspegi horretatik, BEG isurien inbentarioari ekarpen handiena egiten dioten sektoreak garraioa eta industria dira. Biak ala biak isurketen % 67 dira.

- Energiaren transformazioa. EAEko isurketen % 8,7 da. Isurketak % 42,3 jaitsi ziren 2019arekin alderatuta. 2005. urtearekin alderatuta, % 51 jaitsi ziren, eta 1990. urtearekin alderatuta, % 49,4.
- Industria. EAEko isurketen % 32,1 da. Emisio horiek % 4 murriztu ziren 2019arekin alderatuta. 2005etik % 50,4 murriztu dira isurketak, eta 1990etik % 51,8.
- Garraioak. Isurketen % 34,9 da. Isurketak % 11,1 jaitsi ziren 2019arekin alderatuta. 2005. urtearekin alderatuta, berriz, % 1,3 igo dira, eta 1990. urtearekin alderatuta, % 104.
- Zerbitzuen sektorea. Isurketen % 7,3 da. Emisio horiek % 9,4 murriztu ziren 2019arekin alderatuta. 2005etik, isurketak % 32,4 jaitsi dira, eta 1990etik, % 76,8.
- Bizitegi-sektoreak GEISen % 8,9 hartzen du, eta % 1,5 murriztu ditu isurketak 2019arekin alderatuta. Bestalde, zerbitzuen sektoreak GEISen % 7,3 hartzen du, eta % 9,3 murriztu dira.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. Isurketen % 3,6 dira. Isurketak % 0,2 igo dira 2019. urtearekin alderatuta, eta % 48,8 murriztu dira 2005. urtearekin alderatuta, eta % 46,1 1990. urtearekiko.
- Hondakinen sektorea. EAEko isurketen % 4,6 da. Isurketak % 6,5 murriztu dira 2019. urtearekin alderatuta, % 39,4 2005. urtearekin alderatuta eta % 31,2 1990. urtearekin alderatuta. Isurketen murrizketa hainbat faktoreren ondorio da; besteak beste, birziklatzearen ehunekoak handitzearen ondoriozko isurketa-tasa txikiagoa izatea, zabortegietako aurretratamendua, balorizazioa, konpostaren ekoizpena etab.

²⁶ Klima 2050 Euskal Estrategiarena nahiz Europako herrialdeen oinarrizko urtea, emisio nahasien ahaleginak banatzeko erabakiaren barruan (406/2009/CE).

V.2.4. TAULA. BEG ISURKETAK, SEKTOREKA EAE-N (CO2 BALIOKIDEEN MILAKA TONA)									
	1990	2005	2018	2019	2020		ALD. 2019-20	ALD. 2020AREKIKO	
					GUZTIRA	BERT. %		2005	1990
ENERGIAREN TRANSFORMAZIOA	2.817.043	2.907.791	2.651.339	2.468.323	1.424.645	8,7	-42,3	-51,0	-49,4
INDUSTRIA	10.891.199	10.587.947	5.590.046	5.470.227	5.251.207	32,1	-4,0	-50,4	-51,8
GARRAIOA	2.799.272	5.634.481	6.462.964	6.423.366	5.708.764	34,9	-11,1	1,3	103,9
BIZITEGIA	1.505.005	2.096.522	1.566.817	1.483.718	1.460.861	8,9	-1,5	-30,3	-2,9
ZERBITZUAK	679.623	1.777.805	1.324.758	1.323.935	1.201.443	7,3	-9,3	-32,4	76,8
NEKAZARITZA, ABELTZAINZA ETA ARRANTZA	1.081.639	1.138.422	575.940	581.663	583.113	3,6	0,2	-48,8	-46,1
HONDAKINAK	1.088.388	1.237.039	821.410	801.582	749.086	4,6	-6,5	-39,4	-31,2
ISURIAK, GUZTIRA	20.862.168	25.380.008	18.993.273	18.552.814	16.379.118	100,0	-11,7	-35,5	-21,5

Iturria: IHOBE, Euskal Autonomia Erkidegoko Berotegi Eftuktuko Gasen Isurketen Inbentarioa

EAEko isurien adierazleak

2020rako informazio gehiago argitaratu ez denez eta, gainera, urte horretan salbuespenezkoa izan denez (konfinamenduak jarduera sozioekonomikoari ezarritako murrizketak), 2019ko datuak ekarriko ditugu berriro.

Horien arabera, isurketen intentsitatea, hau da, BPGd-aren unitate bat ekoizteko sortutako isurketak, % 39 jaitsi ziren 2019an 2005. urtearekin alderatuta, eta % 54 1990. urtearekin alderatuta. Horrek adierazten du EAEko ekonomiaren desakoplamendu maila, sortutako isurketeki dagokienez. Gure isurketen intentsitatea Europako batez bestekoaren azpitik dago, erosketa-parekotasunari dagokionez.

Biztanle bakoitzeko isurketak % 30 murriztu dira 2005etik, eta % 15 1990etik. Hala eta guztiz ere, gure biztanleko isurketak 28en EBko batez bestekoa baino pixka bat handiagoak dira oraindik ere. EBn alde handiak daude biztanle bakoitzeko emisioetan, hainbat faktoreren ondorioz: produkzio-sistemaren egitura, biztanle bakoitzeko errenta maila, kontsumitutako energia mota, urteko batez besteko tenperatura, etab.

Emisioetan intentsiboenak diren sektoreak (EU-ETS) kenduta, gure biztanleko emisio lausoak 28ko EBren batez bestekoaren azpitik daude.

2.4. UR GEZA HARTZEA ETA KONTSUMITZEA. 2020

Ur-hornidura gizartearen garapen demografiko, sozial eta ekonomikorako oinarrizko zerbitzuetako bat da, eta herri-administrazioek nahitaez eman behar dute. Hiriko ur-eskariaren ezaugarri nagusietako bat erabileraren heterogeneotasuna da, etxeko erabilerak zein uraren beste erabilera batzuk, udalekoak, kolektiboak, industrialak, merkataritzakoak eta nekazaritzakoak barne hartzen baititu. Era berean, industria turistikoak eta bigarren bizitokiak, eremu askotan, hornikuntza-eskari handia sortzen dute, eta hori ohiko moduan bizi diren biztanleei dagokiena gainditzera ere irits daiteke (zuzenbidezko biztanleak).

INEren “Uraren Hornidurari eta Saneamenduari buruzko Estatistika” ren arabera²⁷ (bi urtean behingo egitura-eragiketa), 2020an, 15,3 Hm3 ur hornitu ziren hiri-hornidurako sare publikoetara, 2018an baino % 2,8 gutxiago, eta beheranzko joerak jarraitu zuen. 15,3 Hm3 horietatik, % 78,1 (117,3 Hm3) erregistratutako ur-bolumenak izan ziren (erabiltzaileen edukiontzietan neurtuta) eta gainerakoak erregistratu gabeko ur-bolumenak izan ziren (edukiera bidez kalkulatu edo neurtu gabe).

²⁷ Inkestaren helburu nagusia da uraren ziklo integralarekin lotutako jarduerak unitate fisikoetan kuantifikatzea eta magnitude ekonomikoetan baloratzea. Ziklo hori ur-hornidurak (hornidura) eta saneamenduak (estolderia eta hondakin-uren arazketa) osatzen dute.

Erregistratutako eta banatutako 117,3 Hm³-etatik (bolumena % 4,5 jaitzi da 2018. urtearekin alderatuta), erabiltzaile-taldean arabera berezita, 77,6 Hm³ (guztizkoaren % 66,2) etxeak hornitzeko erabili ziren; 32,7 Hm³ (% 27,9) sektore ekonomikoetarako (industria, zerbitzuak eta abeltzaintza) eta 7 Hm³ (% 6) udal kontsumoetarako (lorategiak ureztatzea, kaleak urez garbitzea eta beste erabilera batzuk).

2018. urtearekin alderatuta, kontsumoak behera egin du erabiltzaile-talde guztietan: etxeetako kontsumoa % 5,6, sektore ekonomikoena % 0,9 eta udal kontsumoena % 8,1.

Erregistratu gabeko ura honelaxe bereizten da: itxurazko galerak (neurketa erroreak, iruzurrak eta kalkulaturako kontsumoak) eta benetako galerak (saneamendu-sareko ihesak, hausturak eta matxurak). Azken horiek sare horiei hornitutako ur guztiaren % 13,2 izan ziren 2018an, aurreko urteetako ratioen gainetik (horrek goranzko joera erakusten du), baina Estatuan zenbatetsitako % 15,4aren azpitik.

V.2.5. TAULA. EAE-KO HORNIDURA PUBLIKORAKO KONTROLATUTAKO ETA BANATUTAKO UR-BOLUMENA					
	2014	2016	2018	2020	Ald. % 18/20
SAREARI HORNITUTAKO UR BOLUMENA (milaka m³)					
1. HORNIDURA PUBLIKOKO SAREARI HORNITUTAKO UR BOLUMENA (A)	184.827	167.276	154.531	150.256	-2,8
1.1. ERREGISTRATUTAKO ETA BANATUTAKO UR-BOLUMENA GUZTIRA	146.602	136.487	122.753	117.282	-4,5
1.2. ERREGISTRATU GABEKO UR BOLUMENA	38.225	30.789	31.778	32.974	3,8
1.2.1. GALERA ERREALAK (B)	16.475	14.070	19.819	19.802	-0,1
1.2. 2. ITXURAZKO GALERAK	21.750	16.719	11.959	13.172	10,1
BANAKETA-SARE PUBLIKOAN GALDUTAKO URAREN %: GALERA ERREALAK (B/A)	8,9	8,4	12,8	13,2	
URAREN BANAKETA ERABILTZAILE MULTZO HANDIEN ARABERA (milaka m³)					
ERREGISTRATUTAKO ETA BANATUTAKO UR-BOLUMENA, ERABILTZAILE MOTAREN ARABERA	146.602	136.487	122.753	117.282	-4,5
ETXEAK	91.899	88.622	82.150	77.586	-5,6
SEKTORE EKONOMIKOAK	45.211	38.287	32.956	32.666	-0,9
UDAL KONTSUMOAK ETA BESTELAKOAK	9.492	9.578	7.647	7.030	-8,1
BANATUTAKO URAREN GUZTIZKO ZENBATEKOA (MILA EUROTAN)	123.555	129.051	122.730	117.873	-4,0
HORNIDURA ZERBITZUETAN EGINDAKO INBERTSIOAREN GUZTIZKO ZENBATEKOA (MILA €)	5.434	2.744	5.361	3.001	-44,0

Iturria: EIN. Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika eta geuk egina

EAEko uraren per capita kontsumoa berriz ere Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa izan zen (97/133 litro/biztanle/egun), eta % 6,7 jaitzi zen 2018arekin alderatuta, Estatuan egonkorra izateari eutsi baitzion.

Bestalde, EAEko uraren kostu unitarioa (ur-horniduragatik ordaindutako zenbatekoak gehi saneamendu eta isurketako kanonak eta estolderia, arazketa eta saneamendu eta isurketako kanonak, eta erregistratutako eta erabiltzaileei banatutako ur-bolumena), 2020an, 2,14 euro/m³ izan zen (% 47,2 hornidura-tasei dagokie, eta % 52,8 saneamendu-tasei), eta horrek % 4,4ko igoera ekarri zuen 2018ko balioarekin alderatuta. Estatuan, batezbesteko kostu unitarioa txikiagoa izan zen (1,92 euro/m³), eta igoera % 0,5ekoa izan zen.

2020an, uraren kostu unitarioaren baliorik handienak Katalunian, Balear Uharteetan, Murtziako Eskualdean, Kanarietan eta Euskadin izan ziren. Gaztela eta Leonen, Errioxan eta Galizian daude baxuenak.

V.2.6. TAULA. URAREN BATEZ BESTEKO KONTSUMOA ETA BALIO UNITARIOA ETXEETAN											
	BATEZ BESTEKO KONTSUMOA (LITRO/BIZTANLE/EGUN)					URAREN KOSTU UNITARIOA (€/ M3)					
	2014	2016	2018	2020	ALD. % 18/20	2014	2016	2018	2020		
									GUZTIRA	HORNIDURA	SANEAMEN- DUA
ANDALUZIA	126	129	128	138	7,8	1,74	1,81	1,83	1,85	1,06	0,79
ARAGOI	130	137	129	134	3,9	1,46	1,45	1,53	1,61	0,71	0,90
ASTURIAS	134	150	140	136	-2,9	1,32	1,32	1,40	1,38	0,66	0,72
BALEAR UHARTEAK	124	134	121	117	-3,3	2,71	2,19	2,54	2,52	1,33	1,19
KANARIAR UHARTEAK	144	150	135	125	-7,4	2,03	2,09	2,10	2,20	1,82	0,38
KANTABRIA	152	155	172	165	-4,1	1,56	1,75	1,67	1,63	0,80	0,83
GAZTELA ETA LEON	166	152	148	144	-2,7	1,00	0,95	1,13	1,10	0,61	0,49
GAZTELA-MANTXA	125	128	135	126	-6,7	1,28	1,28	1,25	1,30	0,86	0,44
KATALUNIA	118	127	123	124	0,8	2,54	2,75	2,67	2,66	1,54	1,12
VALENTZIako ERK.	162	163	175	157	-10,3	2,03	0,07	2,05	2,04	1,19	0,85
EXTREMADURA	125	129	126	120	-4,8	1,49	1,52	1,47	1,54	1,01	0,53
GALIZIA	129	138	125	130	4,0	1,19	1,11	1,28	1,24	0,69	0,55
MADRIL	131	133	125	129	3,2	2,02	2,08	1,93	1,92	1,24	0,68
MURTZIA	126	132	149	150	0,7	2,73	2,73	2,57	2,51	1,66	0,85
NAFARROA	111	112	114	120	5,3	1,47	1,41	1,43	1,32	0,67	0,65
EAE	116	112	104	97	-6,7	1,52	1,75	2,05	2,14	1,01	1,13
ERRIOXA	106	115	116	124	6,9	1,06	1,15	1,01	1,17	0,58	0,59
CEUTA ETA MELILLA	105	103	119	122	2,5	1,95	1,97	1,92	1,78	1,42	0,36
ESTATUA	132	136	133	133	0,0	1,83	1,89	1,91	1,92	1,14	0,78

Iturria: EIN. Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika

2.5. EKONOMIA ZIRKULARRA. HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA. 2020

EBk hondakinen problematikari ikuspegi zabalago eta globalago batetik heltzeko apustua egin du, hondakinak kudeatzeko hierarkia betetzea oztokatzen duten alderdi guztiak azpimarratuta. Ekonomia zirkularra esaten zaio, eta haren oinarriko helburua produktuak, materialak eta baliabideak ahalik eta denbora gehien mantentzea da ekonomian, ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta ahalik eta gehien aprobetxatzea saihestu ezin izan diren hondakinak. Ziklo biologikoei zein teknologikoei aplikatzen zaie.


Hondakinak biltzeko eta kudeatzeko moduak birziklatze-tasa handiak eta materialak ekonomiara itzularaz dezake, edo, aitzitik, eraginkortasunik gabeko sistema bat, non hondakin birziklagarri gehienak zabortegetan edo errauskailuetan amaitzen diren.

Hondakinei eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2011 Legearen (BOE, 2011/07/29) 3.m) artikulua arabera, hondakinak bildu, garraiatu eta tratatzea, eragiketa horien zaintza barne, eta zabortegeiak itxi ondorengo mantentze-lanak, negoziatzaile edo eragile egindako jarduerak barne.

Bestalde, 8.1 artikulua ezarri duenez, hondakinen prebentzioari eta kudeaketari buruzko politikak eta legeria garatzeko eskumena duten administrazioek hondakinen hierarkia aplikatuko dute, ingurumenaren gaineko

emaitza global onena lortzeko, lehentasun-ordena honetan: a) Prebentzioa; b) Berrerabiltzeko prestatzea,²⁸ eta²⁹, eta c) Birziklatzea³⁰, d) Beste balorizazio mota bat, balorizazio energetikoa barne; eta e) Deuseztatzea³¹.

V.2.1. GRAFIKOA. HONDAKINEN HIERARKIA



Iturria: Hainbat iturritatik abiatuta egina

2.5.1. Hondakinak kudeatzea. 2020

Eskuragarri dauden azken datuak 2020koak dira, eta, beraz, bizi izandako inguruabar bereziek dute eragina.

2.5.1.1. Hondakin ez-arriskutsuak kudeatzea. 2020

Epigrafe honetan, EINEk autonomia-erkidegoen araberrako informaziorik ematen ez duenez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estatistikak/inbentarioak erabili ditugu. Hondakin ez-arriskutsuek edozein hondakin mota hartzen dute barne, hondakin arriskutsuak, hiri-hondakinak eta eraikuntza eta eraispenerako hondakinak izan ezik. Industriako hondakin ez-arriskutsuak sartzen dira (fabrikazio, eraldaketa, erabilera, kontsumo, garbiketa edo mantentzeko prozesuetatik sortutako hondakinak), baita jarduera ekonomiko guztietan sortutako hondakin ez-arriskutsuak ere, baldin eta jarduera horietan sortutako hondakinei buruzko informazioa badago, bai nekazaritzako elikagaien sektorekoak, bai zerbitzuetakoak.

²⁸ Berrerabiltzeko prestatzea: egiaztatu, garbitu edo konpontzean datzan balorizazioa. Horren bidez, hondakin bihurtu diren produktuak edo produktuen osagaiak prestatu egiten dira, aurretik beste eraldaketarik gabe berrerabil daitezkeen (22/2011 Legearen 3.s art.).

²⁹ Balorizazioa: edozein eragiketa da, baldin eta emaitza nagusia hondakinak xede erabilgarri baterako erabiltzea bada, bestela funtzio jakin bat betetzeko erabiliko liratekeen beste material batzuk ordeztan, edo hondakina instalazioan edo ekonomian oro har eginkizun hori betetzeko prestatzea den (22/2011 Legearen 3.s artikulua).

³⁰ Birziklatzea: balorizazio-eragiketa bat da, eta horren bidez, hondakin-materialak produktu, material edo substantzia bihurtzen dira berriro, bai jatorrizko helbururako, bai beste edozein xedetarako. Material organikoaren eraldaketa ere barnean du, baina ez energia balioespena, ez erregai gisa edo betelanetarako erabiliko diren material bihurtzea.

³¹ Deuseztatzea: balorizazioa ez den beste edozein eragiketa; bigarren mailako ondorio gisa substantzien aprobetxamendua edo energia duen eragiketa denean ere (22/2011 Legearen 3.v. art.)

2018 eta 2020 artean³², kudeatutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kopurua % 5,3 murriztu zen, eta 3.266.349 tona izatera iritsi zen. Horien artean, hauek nabarmentzen dira: prozesu termikoen industriako hondakinak (guztizko hondakin ez-arriskutsuen % 27), metalen mekanizazioko hondakinak (% 17,9), olio erabiliak (% 10,2), zuraren eta paperaren industriako hondakinak (% 9) eta hondakinak tratatzeko industriako hondakinak (% 9). Deigarria da 18. puntuari buruzko hondakinen hazkundea (zerbitzu medikoak, albaitariak); igoera hori, kontuan hartuta 2020. urtea dela COVID-19aren pandemiaren lehen urtea, baliteke horren ondorio izatea.

Hondakin horien tratamenduari dagokionez, % 64,9 birziklatu edo konposta egin zen (% 53 2018an), % 1,7 energetikoki balorizatu zen eta gainerako % 33,4 ezabatu egin zen (% 43,8 aurreko aldian).

V.2.7 TAULA. HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN BILAKAERA EAE-N, EHZ* KODEEN ARABERA* (tonak)							
	2016		2018		2020		Aldaketa: 2018-20
	GUZTIRA	GUZT. BERTIKAL AREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZT. BERTIKAL AREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZT. BERTIKAL AREN GAINEKO %-a	
01-MEATEGIAK ETA HARROBIAK	7.884	0,2	11.018	0,3	945	0,0	-91,4
02-NEKAZ., BARATZEZAINZA, AKUJIKULTURA...	68.553	2,1	73.318	2,1	106.327	3,3	45,0
03-IND.: ZURA ETA PAPEREA	274.051	8,3	291.964	8,5	293.252	9,0	0,4
04-IND.: LARRUGINTZA ETA EHUNGINTZA	105	0,0	135	0,0	393	0,0	190,8
05-PETROLIOA BIRFINTZEA	1.281	0,0	547	0,0	1.243	0,0	127,2
06-IND.: KIMIKA EZORGANIKOA	18.275	0,6	16.609	0,5	18.560	0,6	11,7
07-IND.: KIMIKA ORGANIKOA	49.504	1,5	42.827	1,2	56.269	1,7	31,4
08-PINTURAK, BERNIZAK ETA TINDUAK	7.796	0,2	5.259	0,2	1.951	0,1	-62,9
09-IND. FOTOGRAFIKOA	159	0,0	131	0,0	122	0,0	-6,6
10-IND.: PROZESU TERMIKOAK	981.123	29,7	929.434	27,0	882.895	27,0	-5,0
11- METALAK TRATATZEA ETA ESTALTZEA	5.099	0,2	6.328	0,2	5.771	0,2	-8,8
12-IND.: METALEN MEKANIZATUA	788.191	23,8	552.181	16,0	584.930	17,9	5,9
15-BILGARRIAK ETA ZAPIAK	199.450	6,0	351.948	10,2	333.152	10,2	-5,3
16-BESTELAKO HONDAKINAK	159.080	4,8	143.633	4,2	146.433	4,5	1,9
18-MEDIKUNTZA, ALBAITARITZA ZERBITZUAK...	35	0,0	19	0,0	6.188	0,2	
19-IND.: HONDAKINEN TRATAMENDUA	747.392	22,6	1.022.963	29,7	827.917	25,3	-19,1
GUZTIRA	3.307.978	100,0	3.448.313	100,0	3.266.349	100,0	-5,3

* EHZ Europako Hondakinen Zerrenda
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Geuk egina

V.2.8. TAULA EAE-N SORTUTAKO HONDAKIN EZ-ARRISKUTSUEN KUDEAKETA							
	2016		2018		2020		
	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	
HONDAKINAK, GUZTIRA	3.307.978	100	3.448.313	100	3.266.349	100	
BERRESKURATZE KO ERAGIKETAK	BIRZIKLAPENA+BERRERABIL PENA+KONPOSTAJEA	1.794.845	54,3	1.826.940	53	2.119.694	64,9
	ENERGIA BALORIZAZIOA	113.978	3,4	111.459	3,2	56.865	1,7
DEUSEZTATZEKO ERAGIKETAK	ERRAUSKETA						
	DEUSEZTATZEA (ZABORTEGIA)	1.399.155	42,3	1.509.915	43,8	1.089.790	33,4

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Geuk egina

³² 2020ko Memoria Sozioekonomikoaren edizioan aipatu genuen bezala, 2020ko otsailean, Zaldibarko industria-hondakin ez-arriskutsuen zabortegian lur-jausia izan zen, eta, ondorioz, 2 pertsona hil ziren, baita ingurumen-eraginak ere, bereziki airearen eta uraren kalitatean.

2.5.2. Hiriko hondakinak sortzea. 2020

Eusko Jaurlaritzako *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren ingurumen-estatistiketako* definizioetan, hiri-hondakinak edo udal-hondakinak (HH) honela definitzen dira: etxe partikularretan, dendetan, bulegoetan eta zerbitzuetan sortutako hondakinak, bai eta arriskutsuztat jotzen ez diren eta beren izaera edo osaeragatik aurreko leku edo jardueretan sortutakoekin pareka daitezkeen guztiak ere. Hiriko hondakinak dira, halaber, bide publikoak, berdeguneak, jolasguneak eta hondartzak garbitzetik datozenak; etxeko animalia hilak, altzariak, tresnak eta abandonatutako ibilgailuak; baita eraikuntzako eta etxeko konponketako obra txikietatik datozen hondakinak eta obra-hondakinak ere.

Bestalde, 22/2011 Legearen 3.b artikulua etxeko hondakintzat jotzen ditu etxeetan etxeko jardueren ondorioz sortzen direnak (arriskutsuak ez direnak), baita zerbitzu eta industrietan aurrekoen antzekoak ere. Kategoria horretan sartzen dira etxeetan sortzen diren gailu elektrikoak eta elektronikoak, arropen, pilen, metagailuen, altzarien eta etxeko tresnen hondakinak, baita eraikuntza eta etxe konponketa lan txikietatik datozen hondakinak ere. Etxeko hondakintzat hartuko dira, halaber, bide publikoak, berdeguneak, aisialdi-guneak eta hondartzen garbiketako hondakinak, etxeko animalia hilak eta abandonatutako ibilgailuak.

EINen *Estatistikaren arabera ("Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika"*. *Hiriko hondakinak*), 2020an, hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek 805.486 tona hiri-hondakin jaso zituzten EAEn, aurreko urtean baino % 7 gutxiago. Bilketa motaren arabera bereiziz gero (nahastuta edo gaika bilduta), hondakin gehienak (% 56,3) nahastuta egon ziren. 2019aren aldean, nahastutako % 10,2 egin zuten behera, eta gaika bildutakoak % 2,5. Estatuan, bestalde, nahastuak % 2,4 gutxitu ziren eta jasotakoak % 1,6 gehitu ziren.

V.2.9. TAULA. HIRIKO HONDAKINAK SORTZEA (Tonak)

	EAE				ESTATUA				ESTATUAREN GAINEKO EAE-KO %-a 2020
	2018	2019	2020	ALD. 2019/20	2018	2019	2020	ALD. 2019/20	
HIRIKO HONDAKINAK (HH)	1.017.952	866.007	805.486	-7,0	22.686.134	22.761.799	22.411.644	-1,5	3,6
HH NAHASTUAK (1)	634.347	505.072	453.752	-10,2	18.284.563	17.756.652	17.327.572	-2,4	2,6
HH-EN GAIKAKO BILKETA	383.605	360.935	351.734	-2,5	4.401.571	5.005.147	5.084.072	1,6	6,9
HH NAHASTUEN %-A GUZTIZKOAREKIKO	62,3	58,3	56,3		80,6	78,0	77,3		
% HH-EN GAIKAKO BILKETA GUZTIZKOAREKIKO	37,7	41,7	43,7		19,4	22,0	22,7		

(1) Nahastutako hondakinak, etxeko hondakinak eta antzekoak eta tamaina handiko hondakin nahastuak barne. Iturria: EIN. Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiri-hondakinak eta geuk egina.

EAEn gaika bildutako hiri-hondakinen artean, bolumenaren arabera, nabarmentzekoak izan ziren papera eta kartoia (147.094 Tm, guztizkoaren % 41,8), beira (58.452 eta % 16,6), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (53.521, % 15,2) eta animalia eta landare hondakinak (37.720, % 10,7). Estatuan nabarmentzekoak dira papera eta kartoia (guztizkoaren % 26,4), animalia eta landare hondakinak (% 24,6), ontzi mistoak eta bilgarri nahastuak (guztizkoaren % 17,5) eta beira (% 16,3).

Per capita kopuruetan, EAEn, 2020an, hiri-hondakinen 367,9 kg/biztanle jaso ziren (guztira, nahastuta nahiz bereizita), Estaturako zenbatetsitakoa (473,3 kg/biztanle) baino zifra txikiagoa. Izan ere, Euskadi da bildutako per capita hondakin kopuru txikiena erregistratzen duen Autonomia Erkidegoa. Bereizitako hondakin motaren arabera bereiziz (nagusien artean), 24,4 kg/bizt. ontzi misto eta bilgarriak (estatuan 18,7 kg/bizt), 67,2 kg/bizt paper eta kartoi (estatuan 28,3 kg/bizt) eta 26,7 kg/bizt beira (estatuan 17,5 kg/bizt) daude.

V.2.10. TAULA. GAIKA JASOTAKO HIRI-HONDAKINEN BILKETA, HONDAKIN TIPOLOGIAREN ARABERA

	EAE				ESTATUA				EAE-KO/ESTATUKO %-A 2020
	2019		2020		2019		2020		
	KANTITATE A (TM)	%-a GUZTIARE KIKO	KANTITATEA (TM)	%-a GUZTIARE KIKO	KANTITATEA (TM)	%-a GUZTIARE KIKO	KANTITATE A (TM)	%-a GUZTIARE KIKO	
0.6. METALEZKO HONDAKINAK	1.016	0,3	1.339	0,4	21.887	0,4	46.296	0,9	2,9
0.7.1 BEIRA HONDAKINAK	63.400	17,6	58.452	16,6	904.986	18,0	828.865	16,3	7,1
07.2 PAPER ETA KARTOI HONDAKINAK	153.648	42,6	147.094	41,8	1.287.418	25,6	1.340.017	26,4	11,0
0.74 PLASTIKO HONDAKINAK	2.334	0,6	2.217	0,6	39.506	0,8	14.254	0,3	15,6
0.75 ZUR HONDAKINAK	23.361	6,5	24.483	7,0	139.473	2,8	149.713	2,9	16,4
0.76 EHUNGINTZAKO HONDAKINAK	12.214	3,4	3.714	1,1	47.258	0,9	39.972	0,8	9,3
08.2 ETA 08.43 BAZTERTUTAKO EKIPO ELEKTRIKOAK ETA BAZTERTUTAKO EKIPO ELEKTRIKOEN OSAGAIK	1.736	0,5	2.592	0,7	57.710	1,1	99.486	2,0	2,6
08.41 PILEN ETA METAGAILUEN HONDAKINAK	105	0,0	157	0,0	2.047	0,0	2.197	0,0	7,1
09. ANIMALIA ETA LANDARE HONDAKINAK	33.865	9,4	37.720	10,7	1.168.659	23,3	1.253.212	24,6	3,0
10.21 ONTZI MISTOAK ETA BILGARRI NAHASIAK	50.012	13,9	53.521	15,2	827.965	16,5	887.731	17,5	6,0
11. LOHI ARRUNTAK (LEHORRAK)	0	0,0	0	0,0	0	0,0	0	0,0	
12. HONDAKIN MINERAL (ERAIKUNTZA- ETA ERAISPEN-HONDAKINAK BARNE)	19.227	5,3	20.419	5,8	521.572	10,4	420.979	8,3	4,9
BESTE BATZUK	17	0,0	26	0,0	1.491	0,0	1.350	0,0	1,9
GUZTIRA	360.935	100	351.734	100	5.019.972	100	5.084.072	100	6,9

Iturria: EIN. Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak eta geuk egina

V.2.11. TAULA HIRI-HONDAKINEN BILKETA AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA (Kg biztanleko)

	2018	2019	2020				
			GUZTIRA	HONDAKIN NAHASIAK	BEREIZITAKO BILKETA (ADIERAZGARRIENAK)		
	GUZTIRA	GUZTIRA			ONTZI MISTOAK ETA BILGARRI NAHASIAK	PAPER ETA KARTOI HONDAKINAK	BEIRA HONDAKINAK
ESTATUA	485,7	483,7	473,3	365,9	18,7	28,3	17,5
ANDALUZIA	526,7	510,2	539,8	469,0	13,3	14,7	12,2
ARAGOI	494,4	491,9	462,9	355,9	16,0	36,3	15,6
ASTURIAS	489,1	497,6	480,1	376,4	15,9	39,9	17,0
BALEAR UHARTEAK	809,3	737,7	572,8	427,4	27,6	30,2	24,2
KANARIAR UHARTEAK	608,3	577,7	546,7	436,8	16,0	41,3	15,7
KANTABRIA	566,1	579,6	556,5	464,6	12,9	9,7	19,1
GAZTELA ETA LEON	450,4	453,0	453,7	380,4	13,3	20,2	19,6
GAZTELA-MANTXA	476,4	462,1	469,7	423,2	14,1	11,6	7,7
KATALUNIA	463,5	499,0	481,0	290,0	24,1	53,7	23,9
VALENTZIAKO ERK.	514,3	499,5	483,3	401,0	14,0	15,9	16,6
EXTREMADURA	476,9	460,4	472,2	419,3	14,5	27,5	8,7
GALIZIA	421,7	435,5	415,6	348,6	12,0	15,2	17,3
MADRIL	386,1	398,5	378,7	268,0	27,8	21,3	17,1
MURTZIA	493,5	510,4	545,3	465,0	15,5	17,4	17,2
NAFARROA	455	451,2	451,3	267,4	37,1	41,2	24,7
EAE	473	396,9	367,9	207,3	24,4	67,2	26,7
ERRIOXA	428,9	425,4	418,1	341,2	20,3	25,7	26,6

Iturria: EIN. Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiri-hondakinak

Hiri-hondakinen kudeaketa udalerriei dagokie. Udalerriek, beren kabuz edo mankomunitateetan elkartuta, nahitaezko zerbitzu gisa eman behar dute horiek biltzea, garraiatzea eta kudeatzea. Biltzeko sistemei dagokienez, edukiontzia da aukerarik zabalduena. Gaur egun, unitate espezifikokoak daude zati organikoa, beira, ontziak, paper-kartoa, landare-olioa, pilak, frakzio berrerabilgarria (arropa, oinetakoak eta beste osagarri batzuk, etxetresna txikiak, liburuak, jostailuak eta etxeko bestelako tresneria) gaika biltzeko eta bereizteko, eta gainerako frakzioa metaka biltzeko.

Tratamendua aztertzeko, eta kontuan hartzen badugu EINek ez duela horri buruzko informaziorik ematen autonomia-erkidegoen arabera, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren "EAEko hiri-hondakinen estatistika" erabiliko dugu. Horren arabera, EAEn, 2020an, 493 kg hiri-hondakin kudeatu ziren biztanleko (ikus EINek erregistratutakoekiko aldea). Hala, 2018 eta 2020 artean beherakada erregistratu da, 513 kg/biztanle izatetik 493 kg/biztanle izatera igaro baita.

493 kg/biztanle horietatik 189 birziklatu ziren, 35 konposta (ongarri organikoa) izan ziren³³, 123 balorizazio energetikoa eta errausketa izan ziren eta 93 zabortegira eraman ziren.

2019. urtearekin alderatuta, hondakin birziklatuak 7 kg/bizt. gutxiago izan ziren, ongarri organiko bihurtutakoak 1 kg/bizt. gehiago izan ziren, energetikoki balorizatutakoak eta erraustutakoak 21 kg/biztanle gehiago izan ziren, eta zabortegian botatutakoak 49 kg/bizt. gutxiago izan ziren.

V.2.12. TAULA. EAE-N SORTUTAKO HIRI-HONDAKINAK SORTZEA ETA KUDEATZEA (kg/biztanleko)*					
		2018	2019	2020	DIFERENTZIA 2019-20
SORTUTAKO ETA KUDEATUTAKO HIRIKO HONDAKINAK, GUZTIRA		535	513	493	-20
BERRESKURATZEKO ERAGIKETAK	BIRZIKLAPENA	192	196	189	-7
	KONPOSTAJEA	31	34	35	1
DEUSEZTATZEKO ERAGIKETAK	ENERGIA BALORIZAZIOA ETA ERRAUSKETA	105	102	123	21
	ZABORTEGIAN UZTEA	168	142	93	-49

* Aldeek ez dute guztizkoa batzen; gure ustez, ukapenak eta/edo galerak daudelako gertatzen da.
Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta geuk egina

2.5.3. Hiriko hondakin arriskutsuak.2020

Hondakin ez-arriskutsuen kasuan gertatzen den bezala, epigrafe honetan Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren estatistikak erabiliko ditugu, EINek ez baitu autonomia-erkidegoen arabera bereizitako informaziorik ematen hizpide dugun gaiari buruz.

Eusko Jaurlaritzak, Estatuko araudiari jarraituz (22/2011 Legearen 3.e artikulua), honela definitzen du hondakin arriskutsua: aipatutako legearen III. eranskinean zerrendatutako ezaugarri arriskutsuetako bat edo batzuk dituen hondakina, eta, Europako araudian edo Espainia partaide den nazioarteko hitzarmenetan ezarritakoaren arabera, Gobernuak onar dezakeena, baita horiek eduki dituzten ontziak ere.

Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera, 2019 eta 2020 artean, hondakin arriskutsuen guztizko kopuruak % 3,4 egin zuen behera. Horien artean berriz nabarmentzen dira prozesu termikoen industriako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien % 43,3), eraikuntzakoak eta eraispeneoak (% 11,5), metalen tratamendu eta estaldurakoak (% 10,2), metalen mekanizazio-industriako hondakinak (% 8) eta olio erabiliak (% 6,8).

³³ 22/2011 Legearen 3.y) artikuluaen arabera, bereiz bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobio eta termofilatik lortutako medeagarri organikoa da. Ez da konpostatzen hartuko hondakin nahastuen tratamendu mekaniko biologikoko instalazioetatik lortutako material organikoa; material bioegonkortua deituko zaio.

Hondakin horien tratamenduari dagokionez, 2020an % 59,1 birziklatu edo konposta egin zen, % 1 energetikoki balorizatu zen, % 0,3 erraustu egin zen eta gainerako % 39,6 zabortegira eraman zen.

V.2.13. TAULA. HONDAKIN-ARRISKUTSUEN BILAKAERA EAE-N, EHZ* KODEEN ARABERA* (tonak)							
	2018		2019		2020		ALDAKUNTZA 2019-20
	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	
01-MEATEGIAK ETA HARROBIAK	0	0,0	0	0,0	0	0,0	
02-NEKAZ., BARATZEZAIINTZA, AKUIKULTURA...	16	0,0	3	0,0	1	0,0	66,7
03-IND.: ZURA ETA PAPERA	0	0,0	0	0,0	0	0,0	
04-LARRUGINTZA ETA EHUNGINTZA	0	0,0	0	0,0	0	0,0	
05-PETROLIOA BIRFINTZEA	970	0,3	1.145	0,3	218	0,1	-81,0
06-IND. KIMIKO EZORGANIKOA	2.201	0,7	2.720	0,8	1.931	0,6	-29,0
07-IND. KIMIKO ORGANIKOA	4.858	1,5	5.749	1,7	5.443	1,7	-5,3
08-PINTURAK, BERNIZAK ETA TINDUAK	6.328	1,9	7.110	2,2	6.994	2,2	-1,6
09-IND. FOTOGRAFIKOAK	201	0,1	222	0,1	171	0,1	-23,2
10-IND.: PROZESU TERMIKOAK	138.309	42,4	147.244	44,7	137.899	43,3	-6,3
11-METALAK TRATATZEA ETA ESTALTZEA	42.440	13,0	39.103	11,9	32.552	10,2	-16,8
12-IND.: METALEN MEKANIZATUA	29.389	9,0	27.896	8,5	25.313	8,0	-9,3
13-OLIO ERABILIAK	34.211	10,5	32.371	9,8	21.689	6,8	-33,0
14-DISOLBATZAILERABILIAK	2.595	0,8	2.045	0,6	1.984	0,6	-3,0
15-ONTZIAK ETA ZAPIAK	9.476	2,9	9.991	3,0	7.965	2,5	-20,3
16-BESTELAKO HONDAKINAK	13.107	4,0	14.210	4,3	13.613	4,3	-4,2
17-ERAIKUNTZA ETA ERAISKETA	20.565	6,3	18.771	5,7	36.687	11,5	95,4
18-MEDIKUNTZA, ALBAITARITZA ZERBITZUAK...	1.515	0,5	1.574	0,5	3.036	1,0	92,9
19-IND.: HONDAKINEN TRATAMENDUA	12.983	4,0	13.150	4,0	15.837	5,0	20,4
20-UDALEKOAK ETA HORREN PAREKOAK	7.003	2,1	6.058	1,8	6.885	2,2	13,7
GUZTIRA	326.169	100,0	329.363	100,0	318.218	100	-3,4

** EHZ Europako Hondakin Zerrenda / Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

V.2.14. TAULA EAE-N SORTUTAKO HONDAKIN ARRISKUTSUEN KUDEAKETA							
	2018		2019		2020		
	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	GUZTIRA	GUZTIZKO BERTIKALAREN GAINEKO %-a	
HONDAKINAK, GUZTIRA	326.169	100	329.363	100	318.218	100	
BERRESKURATZE KO ERAGIKETAK	BIRZIKLAPENA+BERRERABIL PENA+KONPOSTAJEA	211.019	64,7	213.982	65,0	188.064	59,1
	ENERGIA BALORIZAZIOA	3.054	0,9	3.606	1,1	3.179	1,0
DEUSEZTATZEKO ERAGIKETAK	ERRAUSKETA	414	0,1	716	0,2	1.027	0,3
	DEUSEZTATZEA (ZABORTEGIA)	111.682	34,2	111.058	33,7	125.948	39,6

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta geuk egina

2.6. INGURUMENAREN BABESA ETA MANUFATURA-INDUSTRIA. 2020

Manufaktura-enpresek ingurumena babesteko egindako gastuaren analisia EINen "Ingurumen-babeseko industriaren gastuari buruzko Inkesta"n oinarrituta egin da. Inkesta horrek industria-sektoreak ingurumena babesteko egiten duen gastua aurkezten du, bai gastu arruntak, bai inbertsio-gastuak, bere jarduera egitearen ondoriozko kutsadura saihestu, murriztu edo deuseztatzeko (airera egindako kutsatzaileak, kutsadura akustikoa, hondakin-uren eta sortutako hondakin solidoen tratamendua, etab.).


2020an, manufaktura-enpresek ingurumena babesteko egindako guztizko gastua (gastu arrunta eta inbertsioa) 177,5 milioi eurokoa izan zen EAEn, hau da, % 15,4 jaitsi zen 2019an erregistratutakoarekin alderatuta.

Gastua BPGd-aren ehunekotan neurtuta, jaitziera ageri da. 2020an % 0,27 izan zen, aurreko urteko ratioa baino ehunen bat beherago, baina Estatuko batez-bestekoa (% 0,21) baino 6 hamarren gorago. Hala, 2020an, EAE zortzigarren postuan dago ahalegin handiena egiten duten erkidegoen zerrendan, Nafarroa (% 0,55), Kantabria, Asturias, Gaztela-Mantxa, Murtzia, Aragoi eta Errioxaren (% 0,31) atzetik eta Gaztela eta Leonen parean.

V.2.15. TAULA MANUFETURERAKO ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGITEN DUTEN GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA								
	GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA (€)				BPG-AREN GAINEN EHUNEKOA *			
	2017	2018	2019	2020	2017	2018	2019	2020
ANDALUZIA	286.893.860	316.308.516	305.541.205	338.851.189	0,18	0,20	0,19	0,23
ARAGOI	100.399.167	107.765.391	100.617.681	111.437.995	0,28	0,29	0,26	0,31
ASTURIAS	90.604.311	113.662.571	122.438.953	82.135.480	0,40	0,49	0,52	0,39
BALEAR UHARTEAK	6.116.577	6.788.775	6.840.809	7.395.341	0,02	0,02	0,02	0,03
KANARIAR UHARTEAK	22.609.693	24.791.063	23.597.608	22.975.916	0,05	0,05	0,05	0,06
KANTABRIA	48.697.405	54.449.682	51.257.248	49.662.495	0,37	0,40	0,36	0,39
GAZTELA ETA LEON	141.654.129	153.983.032	164.363.294	149.531.521	0,25	0,26	0,27	0,27
GAZTELA-MANTXA	126.583.058	140.845.592	141.151.184	142.157.892	0,32	0,34	0,33	0,36
KATALUNIA	516.792.915	535.571.222	561.455.553	535.132.291	0,23	0,23	0,24	0,25
VALENTZIA	218.373.848	234.525.434	245.658.276	242.336.961	0,20	0,21	0,21	0,23
EXTREMADURA	16.564.808	19.298.470	18.716.340	19.003.493	0,08	0,10	0,09	0,10
GALIZIA	119.775.156	136.458.077	159.364.149	135.398.067	0,20	0,22	0,25	0,23
MADRIL	103.202.008	99.782.781	107.843.198	104.926.692	0,05	0,04	0,04	0,05
MURTZIA	82.624.741	87.514.597	101.374.562	94.516.651	0,27	0,28	0,31	0,32
NAFARROA	83.728.232	86.586.154	93.102.175	104.989.024	0,43	0,43	0,45	0,55
EAE	177.395.567	205.462.340	209.687.175	177.448.649	0,25	0,29	0,28	0,27
ERRIOXA	22.384.073	24.277.888	24.847.052	25.036.026	0,27	0,28	0,28	0,31
ESTATUA*	2.164.399.548	2.348.071.585	2.437.856.462	2.342.935.683	0,19	0,20	0,20	0,21

* Estatuaren BPGd-ak Ceuta Melilla eta erregioz kanpokoa hartzen ditu barne.
Iturria: EIN eta geuk egina

V.2.2. GRAFIKOA. MANUFATURA-ENPRESEK INGURUMENA BABESTEKO EGITEN DUTEN GASTU ARRUNTA ETA INBERTSIOA, BPGaren GAIANEAN, EAE, 2020 (EHUNekoak)



2.7. ENERGIAREN EKOIZPENA ETA KONTSUMOA


Inportatutako energiaren eraldaketa EAEn jardura ekonomikoaren barruan pisu adierazgarria duen industria da, petrolioaren finantzeko eta energia elektrikoa sortzeko sektoreekin batera. Aldi berean, azken urteetan gas eta elektrizitateko azpiegitura berriek izandako sarrerak energiaren euskal eskaintzaren kalitatea indartu du.

Energia balantzeetan ezberdindu egiten da barne kontsumo osoaren edo energia eskariaren eta amaierako kontsumoa. Energiaren edo barne-kontsumo gordinaren eskaria lurraldean bertan sortutako energia primarioaren berdina da, batez ere, gehi inportazioen, esportazioen eta galeren arteko balantzea (garraio, biltegiak eta banaketa bidez). Amaierako kontsumoa azken kontsumitzaileen sektoreen kontsumoaren batura da, hau da, industria, garraioa, lehen sektorea, zerbitzuak eta bizitegiak.

EEEn *Euskadi Energia 2021* txostenak erakusten duenez, energia primarioaren edo energiaren barne-kontsumo gordinaren (hau da, ekoiztutako energia gehi inportatutako energia ken esportatutakoa) guztizko eskaria % 7,5 handitu zen 2021ean, hots, 6.329 Ktep izatera iritsi zen.


Bestalde, energiaren azken kontsumoak % 10,1 egin zuen behera (4.923 Ktep), eta sektore guztietan egin zuen behera, lehen sektorean izan ezik. Industriaren sektorean izan zen igoerarik handiena (% 19,5). Garraioaren sektoreak % 5,9 egin zuen gora, zerbitzuak % 1,3 eta bizitegi-sektorearenak % 6,3.

V.2.3. GRAFIKOA. BARNE-KONTSUMO GORDINA ETA ENERGIAREN AMAIERAKO KONTSUMOA



Iturria: EEE eta geuk egina

V.2.4. GRAFIKOA. ENERGIA PRIMARIOAREN EKOIZPENA (KTEP)



Iturria: EEE eta geuk egina

Halaber, 2020 eta 2021 bitartean, oinarrizko energiaren ekoizpena % 15,9 handitu zen, hain zuzen ere 655 Ktep-etik 699 Ktep-era; eta ekoizpen hori, nagusiki, energia berriztagarrietan (iturri propio nagusia) oinarritu zen, hain zuzen ere 6,4 jaitsita (623 Ktep-etik 679 Ktep-era).

Oinarrizko energiaren ekoizpen propio horri esker (699 Ktep), EAEn energia-eskariaren (6.329 Ktep) % 10,7 baino ezin izan zen bete (barneko kontsumo gordina). Ondorioz, EAEn kanpoko energia-mendetasuna % 89,3koa izan zen. Hala, EAEn energia-mendetasuna Estatukoa eta 28ko EBkoa baino handiagoa da: 2020ko datuekin, ratioak % 68,8 eta % 54,9 dira, hurrenez hurren (EAEn, 2020an: % 89,9). Mendekotasun maila txikiena duten herrialdeak hauexek ekoizten dituztenak dira: petrolio eta gas naturala (Erresuma Batua eta Danimarka), energia berriztagarriak (Europako iparraldeko herrialdeak) eta energia nuklearra (Frantzia eta Suedia).

Iturri berriztagarrietan oinarritutako ekoizpenak (679 Ktep) azken kontsumoaren % 14,2 betetzea ahalbidetu zuen (4.929 ktep); hau da, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten partaidetza-ratioa Euskadiko 2020rako Energia Estrategian (3E2030) gure erkidegoarentzat ezarritako % 21eko helburutik 6,8 puntura dago.

Izan ere, energia motaren arabera aztertzen badugu azken kontsumoa (oso interesgarria da ingurumenaren aldetik, energia mota bakoitzak eragin desberdinak baitakartza), hauxe ikusiko dugu: petrolioaren eta horren deribatuen kontsumoa orain ere nagusia da kontsumo horretan, % 44,6, eta gainera, igoera izan zen Ktep-etan aurreko urtearen aldean, % 8koa hain zuzen. Atzetik datoz, garrantziari dagokionez, energia elektrikoa (azken kontsumoaren % 24,6) eta gas naturala (% 21,6). Oso urruti energia berriztagarriak, erregai solidoak (ikatza eta

deribatuak) eta energia deribatuak daude (horien barruan, gehienbat, industria prozesuetatik edo energia eraldatzeko prozesuetatik (baterako sorkuntza, adibidez) berreskuraturiko beroa sartzen da.


V.2.16. TAULA. EAEn ENERGIA BALANTZEA (Ktep)*

	2020							2019-20KO ALDAK.						
	Erregai solidoak	Petrolio eta deribatuak	Gas naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Argindarra	Guzt.	Erregai solidoak	Petrolio eta deribatuak	Gas Naturala	Energia deribatuak	Energia berriztagarriak	Argindarra	Guzt.
LEHEN MAILAKO ENERGIAREN EKOIZPENA	0	0	0	20	679	0	699				0,0	16,5		15,9
BARNE KONTSUMO OSO ESKURAGARRIA (ESKARIA)	26	2.710	2.237	20	617	719	6.329	52,9	4,5	12,2	0,0	7,1	4,5	7,5
TRANSFORMAZIO SARRERAK	0	7554	1006	8	144	0	8.712		-0,6	10,9	0,0	11,6		0,8
TRANSFORMAZIO IRTEERAK	0	7430	0	0	0	566	7.995		0,0					0,9
AMAIERAKO ENERGIA KONTSUMOA	26	2.198	1.067	12	408	1.212	4.923	52,9	8,0	16,7	-7,7	6,8	9,2	10,1
INDUSTRIA	26	127	730	12	232	703	1.830	52,9	15,5	22,7		22,8	15,8	19,5
GARRAIOA	0	1.919	1	0	115	15	2.050		6,8	0,0		-8,0	7,1	5,9
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	0	31	2	0	1	5	39		-13,9			0,0	0,0	-9,3
ZERBITZUAK	0	30	82	0	13	275	400		36,4	-6,8		-35,0	3,8	1,3
BIZITEGIA	0	91	252	0	47	215	604		24,7	9,6		0,0	-1,8	6,3

Iturria: EEE eta geuk egina


Intentsitate energetikoari dagokionez (ekonomia baten eraginkortasun energetikoaren adierazlea, BPGd-aren unitateko ktep-eko azken kontsumoan neurtzen dena), 2011 eta 2021 artean hobera egin duela ikus dezakegu (11 puntu jaitsi da). Hala eta guztiz ere, 2020. urtearekin alderatuta, okerrera egin du (4 puntu igo da); izan ere, kontsumoa 9 puntu igo da, eta BPGd-a, berriz, 5 puntu. Sektoreen arabera, zerbitzuen sektorean izan ezik, energia-intentsitatea handitu egin zen, eta, beraz, denetan egin zuen okerrera.

V.2.5. GRAFIKOA. ENERGIA-INTENSITATEAREN BILAKAERA



Iturria: EEE

V.2.6. GRAFIKOA. ENERGIA-INTENSITATEAREN BILAKAERA SEKTOREEN ARABERA




Energia-faktura nabarmen handitu da 2021ean aurreko urtearekin alderatuta (% 23,8), eta 6.047 milioi eurokoa da. Kostu horretatik, % 51 garraio-sektorekoa izan zen, % 21,3 industriakoa, % 15,5 bizitegi-sektorekoa, % 11,4 zerbitzu-sektorekoa eta % 0,8 lehen sektorekoa.

Etxebizitzaren sektorean, biztanleko faktura % 14,4 hazi da 2020 eta 2021 artean, eta 428 eurora iritsi da; etxeko faktura, berriz, % 13,6 igo da, eta 1.028 eurora iritsi da.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren % 92,2 dira. Industrian, argindarra fakturaren % 72,6 da eta gas naturala, berriz, % 25,3.

V.2.7. GRAFIKOA. ENERGIA-FAKTURAREN BILAKAERA



V.2.17. TAULA. ENERGIA-FAKTURAREN BILAKAERA SEKTOREEN ARABERA
EUROAK, MILIOITAN*

	2016	2017	2019	2020	2021	%-a GUZTIAREKI KO	ALD. (%)
INDUSTRIA	1.102	1.172	1.128	904	1.288	21,3	42,5
GARRAIOA	2.373	2.723	3.148	2.523	3.084	51	22,2
BIZITEGIA	803	858	891	823	937	15,5	13,9
ZERBITZUAK	637	644	713	591	689	11,4	16,6
LEHEN SEKTOREA	62	70	59	44	48	0,8	9,9
GUZTIRA	4.978	5.468	5.939	4.885	6.047	100	23,8

Iturria: EEE eta geuk egina

* Guztizkoak eta sektoreen batura ez datoz bat biribiltzearen ondorioz

V.2.18. TAULA. ENERGIA-FAKTURAREN ADIERAZLEAK ETXEBIZITZEN SEKTOREAN

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	Ald. 2020-21
KONTSUMOA BIZTANLEKO (€ BIZTANLEKO)	432	408	421	370	395	446	414	374	428	14,4
KONTSUMOA ETXEKO (€ ETXEKO)	1.081	1.011	1.037	906	962	1.083	1.003	905	1.028	13,6

Iturria: EEE

ITURRIAK

1. **EUSTAT.**
 - Ingurumenari buruzko familientzako inkesta (IFI) 2020
2. **EUSKO JAURLARITZA.** Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
 - EAEko airearen kalitateari buruzko urteko txostena. 2021
 - Airearen Kalitatearen Indizea. 2021.
 - Hondakin ez-arriskutsuen estatistika. 2020
 - Hiri Hondakinen estatistika. 2020
 - Hondakin arriskutsuen estatistika. 2020
3. **IHOBE.**
 - Berotegi-efektuko gasen EAEko isurien inbentarioa. 2020
4. **EIN.**
 - Uraren hornidurari eta saneamenduari buruzko estatistika. 2020
 - Hondakinen bilketa eta tratamenduari buruzko estatistika. Hiriko hondakinak. 2020
 - Industriaren ingurumen-babeseko gastuari buruzko inkesta. 2020
5. **EEE.**
 - Euskadi Energia 2020. Energiari buruzko datuak 2021.

3. OSASUNA ETA OSASUN-SISTEMA

Osasuna ongizate fisiko, mental eta sozialeko egoera bat da, eta ez bakarrik afekziorik edo gaixotasunik eza. Osasuna pertsona batek harmonia biopsikosoziala izateko duen aukera da, bizi den ingurunearekiko elkarreragin dinamikoan. Eta hainbat faktorek baldintzatzen dute, batez ere, ingurumenak, bizimoduak, osasun-sistemak eta giza biologiak.

Kapitulu honetan, lehenik eta behin, biztanleriaren osasun egoerara hurbiltzea ahalbidetzen duten adierazle batzuk aurkezten dira, hala nola bizi-itxaropena, erikortasuna (osasun mentalari buruzko atal zehatz batekin) eta heriotza-tasa. Bigarrenik, biztanleria talde jakin batean (gazterian) osasunaren alderdi erabakigarri batzuk aztertzen dira. Hirugarrenik, labor-labor aztertzen da Osakidetzak eskaintzen duen asistentzia-jarduera. Erakunde autonomo horrek osasun-laguntza integrala ematen die herritarrei, eta aurrekontu publikoen bidez finantzatzen da. Ondoren, osasun pribatuaren adierazle nagusien bilakaera aurkezten da. Eta amaitzeko, osasun sistemaren finantzaketa eta gastua aztertzen dira eta Eusko Jaurlaritzaren 2013-2020 Osasun Planaren jarraipena aurkezten da, bere datuetan oinarrituta.

3.1. OSASUN EGOERA


3.1.1. Bizi-itxaropena

Bizi-itxaropena x adin batean honela defini daiteke: x adin horretako gizabanako batek bizitzea espero duen batez besteko urte kopurua, adinaren araberako heriotza-tasa espezifikotik gaur egungo joerei eusten bazaie. Batez besteko hori (itxaropena) biztanleriaren banako guztiei dagokie, eta ez gizabanako jakin bati, zeinak bizi-itxaropenak adierazitakoa baino gehiago bizi ahal izango baita, edo, aitzitik, dagokion itxaropenaren aurretik hil. Neurri hipotetiko bat da, ez baititu neurtzen bizirauteko benetako probabilitateak. Kalkulua egungo heriotza-tasetan oinarritzen da, eta, logikoa denez, horiek denboran zehar aldaketak jasaten dituzte. Horren abantaila nagusia da hainbat eskualde edo herrialde konparatzeko eta denboran zehar izan duen bilakaera behatzeko erabil daitekeela, erkatu beharreko komunitateen adinaren araberako egituraren dauden ezberdintasunek ez baitute eragiten.

3.1.1.1. Bizi-itxaropena jaiotzean

Osasun Ministerioak 2022ko abenduan argitaratutako *Bizi-itxaropena 2020* txostenaren arabera, 2020an EAEn 83,4 urteko bizi-itxaropena jaiotzean (Blj) izan zen, Estatuko 82,2 urteko bizi-itxaropena baino handiagoa. COVID-19aren pandemiaren ondorioz, bizi-itxaropena jaiotzean 2020an urte 1 jaitsi zen EAEn eta 1,5 urte Estatuan. Hala ere, EAeko bizi-itxaropena EBko herrialdeetako altuenetakoa da.

EUSTATen datuen arabera, 2020an gizonen jaiotzako bizi-itxaropena 80,7 urtekoa izan zen, 2019an baino hamarren bat txikiagoa; emakumeena, berriz, 3 hamarren jaitsi zen, eta 86,3 urtekoa izan zen. Heriotza-tasaren egoera hori gertatu izan ez balitz, bizi-itxaropena 81,3 urtera iritsiko zen gizonen kasuan eta 86,8ra emakumeen kasuan, hau da, 2019an baino 5 hamarren gehiago gizonen kasuan eta 2 hamarren gehiago emakumeen kasuan. Denboraren araberako azterketak erakusten du 1976tik (emakumeen bizi-itxaropena 76,9 urte eta gizonena 69,6 urte) emakumeen bizi-itxaropena 9,4 urte igo dela, eta gizonena 11,1 urte. Gizonen bizitzak 3 hilabete gehiago irabazi ditu urte bakoitzean 80,7 urtera iritsi arte; emakumeenak, berriz, 2,6 hilabete gehiago irabazi ditu urtean, eta 86,3 urtera iritsi dira. Bi sexuen bizi-itxaropenen arteko aldea 5,6 urtera murriztu da, duela 25 urte eman zen 8,7ko maximotik. Aipatu behar dugu gutxi direla hain bizi-itxaropen handia duten herrialde garatuak, bereziki emakumeen kasuan.



3.1.1.2. Bizi-itxaropen 65 urterekin

Osasun Ministerioaren *Bizi-itxaropena 2020* txostenaren arabera, 2020an Estatuko 65 urteko bizi-itxaropena 20,4 urtekoa izan zen. 2020an bizi-itxaropen handiena izan zuten erkidegoak Galizia (21,9), Kanariar Uharteak (21,7), Balear Uharteak (21,6) eta Euskadi (21,4) izan ziren.

Estatuko 65 urteko bizi-itxaropenaren eredu geografiko hori ez dator bat 2020a baino lehen ikusitakoarekin. Aurreko urteetan, bizi-itxaropen handiena Madrilen, Gaztela eta Leonen, Nafarroan eta Euskadin zegoen. Erkidego horiek, ordea, (Madril, Gaztela eta Leon eta, neurri txikiagoan, Euskadi) bizi-itxaropena murriztu zuten 2020an 65 urterekin, 2019arekin alderatuta, COVID-19aren pandemiak 65 urtetik gorakoengan eragin handiagoa izan baitzuen. Madrilen murriztu zen gehien bizi-itxaropena 65 urterekin (3,4 urte). EAEn urtebete murriztu zen. Estatuko batez bestekoa 1,5 urtekoa da.

V.3.1. TAULA BIZI-ITXAROPENA 65 URTEREKIN, AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA, 2020an, ETA ALDEA 2019tik 2006ra

	2020	ALDEA	
		2020-2019	2020-2006
ESTATUA	20,4	-1,5	0,4
ANDALUZIA	20,0	-0,8	1,1
ARAGOI	20,0	-2,1	-0,2
ASTURIAS	20,4	-1,1	0,5
BALEAR UHARTEAK	21,6	-0,4	1,9
KANARIAR UHARTEAK	21,7	-0,1	2,4
KANTABRIA	21,2	-0,7	0,9
GAZTELA-MANTXA	19,0	-2,7	-1,3
GAZTELA ETA LEON	20,3	-2,2	-0,9
KATALUNIA	20,2	-2,0	-0,1
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	20,8	-0,7	1,2
EXTREMADURA	19,8	-1,3	0,3
GALIZIA	21,9	-0,4	1,5
MADRIL	19,9	-3,4	-1,0
MURTZIA	20,5	-0,4	1,3
NAFARROA	21,0	-1,6	-1,2
EAE	21,4	-1,0	0,8
ERRIOXA	20,5	-1,6	-0,2
CEUTA ETA MELILLA	18,6	-2,1	0,6

Iturria: Bizi-itxaropena, 2020. OSASUN MINISTERIOA

3.1.2. Ospitaleko erikortasuna

Erikortasun hitza erabiltzen da populazio batean leku eta aldi jakin baterako gaixotasun batek dituen ondorioez mintzatzeko. Populazio batean gaixotasun batek duen presentziaren eta ondorioen azterketa eta kuantifikazioa neurtzeko, biztanleek beren osasun-egoerari buruz egiten duten autobalorazioa hartu behar da kontuan (hautemandako erikortasuna esaten zaio, eta Osasun Inkestan jasotzen dira haren datuak), edo osasun-zentro batean artatu eta tratatu diren eta ospitaleko asistentziaren kasuan Ospitaleko Erikortasunaren Estatistikan zehazten den biztanleriaren gaixotasunen erregistroa.

V.3.2. TAULA EUSKADIKO AKUTUEN OSPITALEETAKO OSPITALERATZEAK, GAIXOTASUN TALDE OHIKOENEN ARABERA*								
	2019		2020		2021		ALDAKUNTZAK	
	GUZTIRA	% BERTIKALA	GUZTIRA	% BERTIKALA	GUZTIRA	% BERTIKALA	2019-2020	2020-2021
GUZTIRA	234.674	100	209.150	100	221.264	100	-10,9	5,8
Digestio-aparatua	31.706	13,5	27.097	13,0	28.887	13,1	-14,5	6,6
Zirkulazio-aparatua	30.154	12,8	26.429	12,6	29.046	13,1	-12,4	9,9
Arnas aparatua	27.829	11,9	18.859	9,0	17.500	7,9	-32,2	-7,2
Tumoreak	22.070	9,4	19.800	9,5	21.118	9,5	-10,3	6,7
Traumatismoak eta lesioak	21.452	9,1	19.477	9,3	21.100	9,5	-9,2	8,3
Aparatu muskulueskeletikoa	20.629	8,8	16.405	7,8	18.182	8,2	-20,5	10,8
Haurdunaldia, erditzea eta erdiberriroa	16.893	7,2	15.829	7,6	15.436	7,0	-6,3	-2,5
Aparatu geniturinarioa	n.d	----	14.635	7,0	15.946	7,2		9,0
Helburu berezien kodeak (COVID-19)**			10.481	5,0	11.247	5,1		7,3

* ohiko taldeak bakarrik sartzen dira, eta guztizkoa ez da taldeen batura.
 ** 2020ko lehen hiruhilekorako, zenbatetsitako datuak.
 Iturria: EUSTAT. Ospitaleetako erikortasunaren estatistika

Erikortasunari buruzko inkesta³⁴ horren datuen arabera, 2020an, COVID-19aren eraginak Euskadiko akutuen ospitaleetako ospitaleratzearen eta kirurgia anbulatorioaren modalitateko jardueraren beherakada ekarri zuen, batez ere konfinamendu-hilabeteetan (jaitsiera handiena martxoan, apirilean eta maiatzean gertatu zen), eta, horrez gain, ospitaleetako batez besteko egonaldia eta heriotza-tasa igo egin ziren.

Akutuen ospitaleetan, hau da, egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak eta ospitale psikiatrikoak kontuan hartu gabe, 209.150 **ospitaleratze** erregistratu ziren, 2019an baino % 10,9 gutxiago. 2019an bezala, diru-sarreraren % 84 sektore publikoan erregistratu ziren. Alta eman zitzaizen pertsona guztietatik, % 89,5 sendatu edo hobetzeagatik izan ziren, % 3,9 heriotzagatik (% 3,2 2019an) eta gainerakoak beste zentro batzuetara eramateagatik edo beste arrazoi batzuegatik. Kalkuluen arabera, ospitaleratzeetatik 10.481ek COVID-19 izan zuten kausa nagusi (ospitaleratze guztien % 5). Gainera, ospitaleratze horiek 96.619 egonaldi eragin zituzten, hau da, 9,2 eguneko batez besteko egonaldia, kausa guztien batez bestekoaren gaineratik (5,8 egun).

Kirurgia anbulatorioaren modalitatean, ospitaleratze egunean bertan ebazten diren prozesuak artatzen dira, eta 65.731 gertakari zenbatu ziren (-% 20,3, 2019. urtearekin alderatuta). Begietako eta haien eranskinetako

³⁴ OMEk larrialdi kode bat ezarri zuen Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenean (GNS-10) COVID-19 infekzioak kodetzeko. Espainian kodetze hori 2020ko uztailan inplementatu zen, eta, beraz, COVID-19ak eragindako 2020ko lehen seihilekoko ospitaleratzeak identifikatzeko, kasu horien zenbatespen bat egin da, ospitaleratzea eragin zuen diagnostiko nagusia kontuan hartuta (arnas aparatuari eragin zitoten nagusiki), ospitale-gertakari berari lotutako bigarren mailako beste diagnostiko batzuekin batera. Estatu barruko eta nazioarteko konparagarritasun arrazoiak direla eta, ospitaleratze modalitatean egun bateko edo gehiagoko egonaldia duten gertakariak bakarrik hartzen dira kontuan, hau da, ez dira kontuan hartzen 0 eguneko egonaldia dutenak. Egonaldiaren iraupena honela kalkulatu da: ospitaleratze datuen eta alta datuen artean igarotako egun kopurua, ospitaleratze edo alta emateko orduak kontuan hartu gabe.

gaixotasunen multzoa izan zen ohikoena, ebakuntza kirurgiko gehien % 35,4, eta begi-lausoko kirurgia izan zen gehien tratatu zen patologia.

2021ean, akutuen ospitaleek % 5,8ko igoera izan zuten, 221.264 **ospitaleratze** guztira. 2020arekin alderatuta, arnas aparatuko gaixotasunen taldeak % 7,2 egin zuen behera, gripearen, pneumoniaren eta arnasketako beste nahasmendu batzuen kasuen kopurua murriztu zelako, eta horrek seigarren postuan jarri zuen (bosgarren 2020an eta hirugarren 2019an). Ospitaleratzeetatik 11.247k COVID-19 izan zuten arrazoi nagusi, hau da, ospitaleratzeen % 5,1ek. Gainera, ospitaleratze horiek 106.608 egonaldi eragin zituzten, hau da, 9,5 eguneko batez besteko egonaldia.

Kirurgia ambulatorioan 82.104 gertakari zenbatu ziren (+% 25, 2020koaren aldean), pandemia aurreko balioetatik hurbil (82.490, 2019an), eta begietako eta haien eranskinetako gaixotasunen taldean egin ziren ebakuntza kirurgiko gehien (% 32,9), begi-lausoko kirurgian bereziki.

3.1.3. Osasun mentala: nahasmendu mentalak

2022ko ekainean, OMEk txostena hau argitaratu zuen: *Osasun mentalari buruzko munduko txostena: osasun mentala guztiontzat eraldatzea. Egoera orokorra*. Bertan aipatzen da munduan zortzi pertsonatik batek, gutxi gorabehera, buruko gaitzen bat duela, buruko nahasmenduen prebalentzia aldatu egiten dela sexuaren eta adinaren arabera, eta antsietate- eta depresio-nahasmenduak direla ohikoenak, bai gizonen artean, bai emakumeen artean.

Osasun Ministerioaren *Osasun Sistema Nazionalaren 2020-2021 Txostenaren* datuen arabera, Estatuko lehen mailako arretako historia klinikoetan gehien erregistratutako osasun mentaleko arazoak antsietate-nahasmenduak dira, eta, ondoren, loaren nahasmenduak eta nahasmendu depresiboak. Haurtzaroan eta nerabezaroan (25 urtetik beherakoak), arazo ohikoenak antsietate-nahasmenduak izaten dira, eta gero arazo hiperzinetikoak eta ikaskuntza-nahasmendu espezifikokoak.

Nahasmendu mentalak helduen artean

Osasun Ministerioaren datuen arabera, buruko nahasmenduen prebalentziak goranzko joera erakusten du, nahiz eta 2020ko datuek erakusten duten beherakada 2017koaren aldean. Era berean, autonomia-erkidego guztietan emakumeek gizonek baino prebalentzia handiagoa dute.

EAEn kasu partikularrean, osasun-inkestetan buru-nahasmendua zutela adierazi zuten helduen ehunekoa (16 urte edo gehiago) % 8,2tik % 9,2ra igo zen 2011tik 2020ra eta 2017tik 2020ra bitarte, % 10,2tik % 9,2ra. Gizonak eta emakumeak berezita, aldea 6,9 puntukoa da 2020an: % 12,5 emakumeen kasuan eta % 5,6 gizonen kasuan.

V.3.3. TAULA HELDUEN NAHASMENDU MENTALEN AITORTUTAKO PREBALENTZIA, SEXUAREN ARABERA

	2011			2014			2017			2020		
	GIZ.	EMAK.	GUZTI RA	GIZ.	EMAK.	GUZTI RA	GIZ.	EMAK.	GUZTI RA	GIZ.	EMAK.	GUZTI RA
ANDALUZIA	5,6	13,2	9,5	7,6	17,0	12,4	8,1	15,7	12,0	5,6	10,1	7,9
ARAGOI	4,5	11,3	7,9	5,7	11,3	8,5	4,9	12,2	8,6	4,4	9,6	7,0
ASTURIAS	12,1	19,0	15,7	7,7	19,3	13,8	12,6	24,2	18,7	7,9	17,1	12,7
BALEAR UHARTEAK	5,0	12,7	8,9	6,0	15,0	10,5	5,5	10,6	8,1	7,4	14,9	11,2
KANARIAR UHARTEAK	7,6	16,1	11,9	9,0	17,8	13,4	6,9	12,4	9,7	8,1	15,1	11,7
KANTABRIA	6,6	8,7	7,7	5,8	14,4	10,2	8,7	15,5	12,2	6,1	7,5	6,8
GAZTELA ETA LEON	4,7	12,2	8,5	4,4	14,2	9,4	8,9	11,7	10,3	7,3	13,6	10,5
GAZTELA-MANTXA	4,2	18,0	11,1	6,1	10,3	8,2	5,8	16,6	11,2	6,6	11,7	9,1
KATALUNIA	6,8	14,9	11,0	8,0	14,1	11,1	6,4	14,2	10,4	5,3	12,0	8,7
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	5,0	13,7	9,4	6,4	12,0	9,2	7,4	13,3	10,4	7,4	12,2	9,9
EXTREMADURA	3,4	17,7	10,6	7,8	20,0	13,9	5,4	12,1	8,8	4,1	10,3	7,2
GALIZIA	8,0	17,9	13,2	9,1	21,3	15,5	9,9	21,9	16,2	9,0	18,7	14,1
MADRIL	4,0	6,7	5,4	3,8	10,5	7,3	5,4	10,7	8,2	3,7	10,4	7,2
MURTZIA	6,9	17,9	12,4	6,7	14,1	10,4	8,2	12,2	10,2	7,5	20,1	13,9
NAFARROA	5,6	16,5	11,1	8,1	10,3	9,2	8,4	13,0	10,7	6,4	9,3	7,9
EAE	4,6	11,5	8,2	6,3	11,9	9,2	6,9	13,2	10,2	5,6	12,5	9,2
ERRIOXA	3,5	5,5	4,5	4,2	13,7	9,0	5,0	11,1	8,1	3,9	12,1	8,0
ESTATUA	5,7	13,4	9,6	6,7	14,4	10,7	7,2	14,2	10,8	6,0	12,3	9,2

Iturria: Osasun Ministerioa

Antsietate eta/edo depresio arazoak euskal gazteen artean

Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkestaren (EAEIOI (hamabost egunez behingoa da)) eta Gazteen Euskal Behatokiaren datuen arabera, 2018an Euskadiko 15-29 urteko gazteen % 8,3k antsietate eta/edo depresio arazoren bat izan zuten galdera egin aurreko lau asteetan. Antsietate eta/edo depresio arazoak izan zituztela zioten gazteen ehunekoak behera egin zuten, aurreko urteekin alderatuta.

Gizonen eta emakumeen arteko aldeak kontuan hartuta, adin horretako emakumeek (15-29 urte) arazo horietakoren bat izan zutela aitortu zuten gizonen baino gehiago (% 11,4 eta % 5,1, hurrenez hurren, 2018an). Gizon eta emakume gazteen arteko alde horiek seriearen lau urteetan ikusten dira.

V.3.4. TAULA ANTSIETATE ETA DEPRESIO ARAZOEN PREBALENTZIA 15 ETA 29 URTE BITARTEKO GAZTEEN ARTEAN, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA

	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	15-19 URTE	20-24 URTE	25-29 URTE
2002	12,2	9,8	14,9	11,1	11,5	13,4
2007	12,5	7,6	17,6	11,5	11,7	13,5
2013	13,7	9	18,7	11,6	16	13,1
2018	8,3	5,1	11,4	8,2	7,4	9,6

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkesta

Gazte guztien ratioa txikiagoa zen Euskadiko biztanleria osoan erregistratutakoa baino (gazteen % 8,3 eta biztanleria osoaren % 13,1). Biztanleria orokorrean ere ikusten da arazo horien prebalentzia handiagoa dela emakumeen artean (% 16,5) gizonen artean baino (% 9,3).

EAEIOI berriak 2018tik gazteen artean osasun mentalak izan duen bilakaerari buruzko datuak emango ditu, baina zenbait datuen arabera, pandemiaren ondorioz okerrera egin du.

Errealitate horretara hurbiltzeko, Osakidetzaren osasun mentaleko sarean 2019-2021 hirurtekoan 18 urte arteko pertsonen buruz egindako esku-hartzeen datuak aurkezten ditugu, baita Gazteen Euskal Behatokiak pandemiaren hasieran eta 2020ko udazkenean egindako bi inkesten emaitzak ere.

2019an 14.146 pertsona desberdin artatu ziren Osakidetzako osasun mentaleko sarean. 2020. urtean, konfinamendua gertatu zen eta neurri murriztaileen indarrean egon ziren urtean, pazienteen kopuruak oso gora egin zuen (+% 1,4) eta lehen kontsultak jaitsi egin ziren (-% 9,2), ziurrenik arreta normaltasunez mantentzeko ezintasunagatik. Hala ere, 2021ean % 15,8 igo da artatutako pertsonen kopurua (16.610) eta % 26,9 lehenengo kontsulten kopurua (7.585).

V.3.5. TAULA OSAKIDETZAKO OSASUN MENTALEKO SAREAN ARTATUTAKO PERTSONAK (18 URTERA ARTEKOAK)					
	2019	2020	2021	Ald. 2019-20	Ald. 2021-2021
ARTATUTAKO PERTSONA DESBERDINAK	14.146	14.344	16.610	1,4	15,8
LEHENENGO KONTSULTAK	6.582	5.977	7.585	-9,2	26,9

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Eusko Jaurlaritzaren Osasun Inkesta

Pandemiak eragin argia izan du arlo emozionalean, ez soilik gazteengan, baina baita gazteengan ere, eta bizitzako aldi horren ezaugarri bereziek osasun mentaleko arazoak areagotzea ekar dezakete.

3.1.4. Heriotza-tasa

Hilkortasunari buruzko datuak populazioen osasun-egoera ebaluatzeko erabiltzen dira, balio handia baitute denbora- eta geografia-konparazioetarako. Hilkortasunaren erregistroen zehaztasunak eta jasotzen duten fenomenoaren objektibotasunak tresna egokia bihurtzen dituzte hilkortasun-adierazleak osasun arazoak monitorizatzeko eta osasun lehentasunak ezartzeko.

3.1.4.1. Heriotzak

Osasun Ministerioaren datuen arabera (2023ko otsailean argitaratutako *Hilkortasun ereduak Espainian, 2020* txostena), 2019an Estatu osoko heriotza-tasa gordina 100.000 biztanleko 888,6 heriotzakoia izan zen (921,0 gizonetan eta 857,9 emakumeetan). Urtebete geroago, tasek COVID-19aren eragina islatzen dute, 100.000 biztanleko 1.042,7 hildako tasa gordinera iritsi baita, 1.075,7 gizonetan eta 1.010,9 emakumeetan. EAEn, tasa gordina 100.000 biztanleko 1.107,7 heriotzatan kokatzen da, hau da, Estatuko ratioa baino handiagoa.

EUSTATen "*Heriotzen estatistika*"ren informazioaren arabera, 2019tik 2021era bitartean heriotzak 21.560 izan ziren 2019an, 24.247 2020an eta 23.073 2021ean. Hau da, 2020an izandako gorakadaren ondoren, 2020tik 2021era % 4,8ko jaitsiera erregistratu da. % 50,1 gizonak izan ziren eta % 49,9 emakumeak.


Heriotza gehienak adin handieneko kohorteetan gertatzen dira oraindik. Hala, heriotzen % 65,3 (15.076) 80 urtetik gorakoak dira, 2020an erregistratutakoa baino zenbateko txikiagoa, baina 2019koa baino handiagoa. Zehazki, 80-89 urtekoen taldean 7.845 heriotza izan ziren, 90-99 urtekoetan 6.810 eta 100-109 urtekoetan 421. Ez zen 110 urte edo gehiagoko pertsonarik hil. 100-109 urterekin hildako 421 pertsonetatik % 83,1 emakumeak ziren.

2021ean hildako pertsonen batez besteko adina 81 urtekoa izan zen, eta hamar urte lehenago, 2011n, 78,2 urtekoa; hau da, 2,8 urteko igoera izan da azken hamarkadan. Gizonak batez beste 78 urterekin hil ziren eta emakumeak 84 urterekin 2021ean; 2011n, berriz, batez bestekoak 74,8 eta 81,8 urtekoak izan ziren, hurrenez hurren.

Haurren heriotza-tasari dagokionez (bizitzako lehen urtean), 35 haur hil ziren, 39 2020an eta 45 2019an.

V.3.6. TAULA HERIOTZEN BILAKAERA EAEko KOHORTE ZAHARRENETAN									
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	>=80	80-89	90-99	100-109	>=110	GUZTIZKOAREN GAIKEKO >=80
		% HORIZONTALA	% HORIZONTALA						
2016	21.223	50,8	49,2	13.853	8.165	5.394	294	0	65,3
2017	21.632	50,0	50,0	14.288	8.310	5.633	345	0	66,1
2018	21.745	50,0	50,0	14.383	8.073	5.948	362	0	66,1
2019	21.560	49,9	50,1	14.186	7.717	6.091	378	0	65,8
2020	24.247	49,7	50,3	16.068	8.614	7.045	407	2	66,3
2021	23.073	50,1	49,9	15.076	7.845	6.810	421	0	65,3

Iturria: EUSTAT, Heriotzen estatistika eta geuk egina



Heriotza-kausei dagokienez, 2021ean “gainerako gaixotasunei” dagozkienak guztizkoaren % 33,8 dira, baina % 14,7 jaitsi dira 2020aren aldean. Bigarrenik, tumoreen ondoriozko heriotzak (guztizkoaren % 27,1 eta % 0,3ko igoera, pandemiaren lehen urtean izandako beherakadaren ondoren); hirugarrenik, zirkulazio-aparatuko gaixotasunen ondoriozko heriotzak (guztizkoaren % 25,6 eta % 5,4ko igoera, 2020an izandako beherakadaren ondoren); eta laugarrenik, arnas sistemako gaixotasunen ondoriozko heriotzak (guztizkoaren % 5,8 eta jaitsiera berriro, % 12,9koa).

EUSTATen datuen arabera, COVID-19 izan zen heriotzen % 7,3an kausa nagusia 2021ean, eta 1.682 heriotza izan ziren guztira, 2020an baino % 45,7 gutxiago. Heriotza horiek 2 taldetan sailkatzen dira: analisi espezifikorekin baieztatutako COVID-19ko heriotzak, 1.650 heriotza, edo COVID-19 probablegatik, analisi bidez baieztatu gabeko kasuak, baina COVID-19a parte medikoan heriotza-kausa nagusia den kasuak, 32 heriotzarekin.

V.3.7. TAULA HERIOTZAK, HERIOTZA-KAUSAREN ARABERA EAEn

	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2020- 21 ALDAKUNT ZA
GUZTIRA	21223	21632	21745	21560	24247	23073	-4,8
TUMOREAK	6320	6352	6360	6309	6223	6243	0,3
ZIRKULAZIO-SISTEMA	5733	5763	5776	5620	5611	5915	5,4
ARNAS SISTEMA	2055	2345	2330	2158	1547	1348	-12,9
DIGESTIO-SISTEMA	933	922	1012	956	986	1078	9,3
KANPOKO KAUSAK	784	829	733	756	750	698	-6,9
GAINERAKO GAIXOTASUNAK	5398	5421	5534	5761	9130	7791	-14,7
HERIOTZA-KAUSA ARRUNTENEN ARTEKO EHUNEKOEEN BANAKETAREN BILAKAERA							
TUMOREAK	29,8	29,4	29,2	29,3	25,7	27,1	---
ZIRKULAZIO-SISTEMA	27,0	26,6	26,6	26,1	23,1	25,6	---
ARNAS SISTEMA	9,7	10,8	10,7	10,0	6,4	5,8	---
DIGESTIO-SISTEMA	4,4	4,3	4,7	4,4	4,1	4,7	---
KANPOKO KAUSAK	3,7	3,8	3,4	3,5	3,1	3,0	---
GAINERAKO GAIXOTASUNAK	25,4	25,1	25,4	26,7	37,7	33,8	---

Iturria: EUSTAT. Heriotzen estatistika eta geuk egina

3.1.4.2. Hilkortasun goiztiarra. 2019-2021 aldia

Hilkortasun goiztiarraren eragina baloratzeko, Galdutako Bizitza Urte Potentzialak (GBUP) kalkulatu dira. Hainbat irizpide komun dituzten eta behaketa epidemiologiko prospektibo baten parte diren pertsona talde batentzat eratzten da, behar baino lehen (70 urte baino lehen) hildako pertsonak bizi izan ez dituzten bizi-urteak oinarritzat hartuta (heriotzaren adinaren eta 70 urte arteko alde batura metatua).

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren datuen arabera, gizonen kasuan, hilkortasun goiztiarraren hiru kausa nagusiak honako hauek dira: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak, kardiopatia iskemikoak eta suizidioak eta eragindako autolesioak. 2021ean, bizitzako urte potentzial gehien galarazi dituzten sei kausak hauek dira, garrantziaren arabera: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa, kardiopatia iskemikoa, suizidioa eta autolesioak, COVID-19, ibilgailu motordunen trafiko-istripuak eta drogen ondoriozko ustekabeko pozoitzea.

Emakumeen kasuan, bi heriotza kausa nagusiak bularreko tumore gaiztoak eta trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoak dira. 2021ean, bizitzako urte potentzial gehien galarazi dituzten sei kausak hauek dira, garrantziaren arabera: bularreko tumore gaiztoa, trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa, COVID-19, entzefaloko tumore gaiztoa, gaixotasun zerebroaskularrak eta obulutegiko tumore gaiztoak.

Taula hau irakurri ondoren ondoriozta daitekeenez, COVID-19ak gehiago eragin zien gizonei emakumeei baino, eta gizonentzat, berriz, heriotza goiztiarraren laugarren kausa izan zen; emakumeei dagokienez, hirugarren kausa izan zen.

V.3.8. TAULA GALDUTAKO BIZITZA URTE POTENTZIALAK, SEXUAREN ETA KAUSA NAGUSIEN ARABERA EAEn			
GIZONAK 2018		EMAKUMEAk 2018	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	3.688	BULARREKO T.G.	1.808
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	2.690	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	1.643
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	1.630	PANKREASKO T.G.	698
GIBEL ETA BEHAZUN-BIDE INTRAHEPATIKOETAKO T.G.	1.020	SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	660
GAIXOTASUN ZEREBROBASKULARRA	968	OBULUTEGIKO T.G.	658
ENTZEFALOKO T.G.	830	ENTZEFALOKO T.G.	605
GIZONAK 2019		EMAKUMEAk 2019	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	3.558	BULARREKO T.G.	1.573
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	2.615	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	1.558
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	1.830	GAIXOTASUN ZEREBROBASKULARRA	658
IBILGAILU MOTORDUNEN TRAFIKO ISTRIPUAK	973	OBULUTEGIKO T.G.	633
DROGEN ONDORIOZKO USTEKABEKO POZOITZEA	950	KOLONEKO T.G.	583
ENTZEFALOKO T.G.	935	KARDIOPATIA ISKEMIKOA	583
GIZONAK 2020		EMAKUMEAk 2020	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	3.218	BULARREKO T.G.	1.723
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	2.496	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	1.490
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	2.045	COVID-19 BAIEZTATUA ETA PROBABLEA	1.033
COVID-19 BAIEZTATUA ETA PROBABLEA	1.535	GAIXOTASUN ZEREBROBASKULARRA	683
DROGEN ONDORIOZKO USTEKABEKO POZOITZEA	1.183	OBULUTEGIKO T.G.	625
IBILGAILU MOTORDUNEN TRAFIKO ISTRIPUAK	868	SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	555
GIZONAK 2021		EMAKUMEAk 2021	
TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	2.758	BULARREKO T.G.	1.680
KARDIOPATIA ISKEMIKOA	2.520	TRAKEA, BRONKIO ETA BIRIKETAKO T.G.	1.640
SUIZIDIOA ETA AUTOLESIOAK	1.818	COVID-19 BAIEZTATUA ETA PROBABLEA	813
COVID-19 BAIEZTATUA ETA PROBABLEA	1.498	ENTZEFALOKO T.G.	777
IBILGAILU MOTORDUNEN TRAFIKO ISTRIPUAK	1.038	GAIXOTASUN ZEREBROBASKULARRA	628
DROGEN ONDORIOZKO USTEKABEKO POZOITZEA	938	OBULUTEGIKO T.G.	580

Iturria: Hilkartasunaren erregistroa. Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko Zuzendaritza. Osasun Saila. EUSKO JAURLARITZA

3.2. OSASUN-BALDINTZATZAILA EZ-MEDIKOAK EAeko GAZTEEN ARTEAN

Aipatu dugunez, pertsonen osasunean eragina dute, osasun-sistemak eta gaixotasunaren arretak ez ezik, gizarte-sistemak, faktore biologikoek eta ingurune fisikoak ere. Horrela, elikadura orekatuak, beste ohitura osasungarri batzuekin batera -hala nola ariketa fisikoa, beharrezko orduak lo egitea, tabakorik ez kontsumitzea, edari alkoholodunen kontsumoa moderatzea-, gaixotasun ugari prebenitzea ahalbidetzen du (kardiobaskularrak, minbizi motaren bat, gizentasuna, metabolismoaren nahasmenduak, hortzetako txantxarra, osteoporosia eta immunitate-sistemaren alterazio batzuk).

Epigrafe honetan osasunaren alderdi erabakigarri batzuk aztertzen dira biztanleria talde jakin batean: gazterian.

Informazioa Gazteen Euskal Behatokiak egindako azterlanei dagokie, bai Eusko Jaurlaritzaren Adikzioei buruzko Inkestako bai Osasun Sailaren Osasun Inkestako datuekin (bost urtean behin, azkena 2018an).

Gehiegizko edo arriskuko alkohol-kontsumoa: 2017an Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen % 20,3k esan zuten azken hilabetean gehiegizko edo arriskuko alkohol-kontsumoa egin zutela. Horrek esan nahi du hilabete horretako egunen batean 65 gramotik gorako alkohol kantitatea kontsumitu zutela, hau da, zortzi kaña garagardo baino gehiago, adibidez. 2017an alkohola gehiegi edo arriskuz kontsumitu zutela zioten gizon gazteen ehunekoa (% 25,3) emakume gazteena (% 15,3) baino hamar puntu handiagoa zen.

V.3.9. TAULA GEHIEGIZKO ETA ARRISKUKO ALKOHOL-KONTSUMOAREN BILAKAERA ASTEBURUETAN 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, SEXUAREN ARABERA			
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2004	39	49,3	28,2
2006	31,3	41,8	20,3
2008	36,7	39,1	17,6
2010	22,5	25,5	19,3
2012	24,5	32,6	16,6
2017	20,3	25,3	15,3

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Gehiegizko edo arriskuko kontsumo horrek behera egin du pixkanaka 2004tik, eta 2017an 2004an hasitako seriean erregistratutako baliorik txikiena lortu du. Alkohola kontsumitzen hasteko batez besteko adina 16,8 urtekoa zen 2017an.

Hala ere, serie estatistikoan, alkohola gehiegi edo arriskuz kontsumitzen duten gazteen ehunekoa handiagoa da biztanleria osoarena baino. 2017an, % 20,3 eta % 8,2, hurrenez hurren.

Tabakoaren ohiko kontsumoa: 2017an (Adikzioei buruzko EAEko inkesta sortaren azken txostena, Eusko Jaurlaritzarena), 15 eta 29 urte bitarteko biztanleen % 18,5 ohiko tabako-erretzailea zen, eta ia ez zegoen alderik mutilen eta nesken artean (% 18,9 eta % 18,2, hurrenez hurren).

V.3.10. TAULA TABAKOAREN OHIKO KONTSUMOAREN BILAKAERA 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, SEXUAREN ARABERA			
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2006	40,4	44,5	36
2008	32,8	33,0	32,7
2010	32,8	33,0	32,7
2012	23,5	26,6	20,4
2017	18,5	18,9	18,2

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

2006tik 2017ra hogeit hamar puntu baino gehiago jaitsi da beren burua ohiko tabako-erretzailatzat duten gazteen ehunekoa. Ehuneko hori 2006ko % 40,4tik 2017ko % 18,5era jaitsi da. Tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adina 16-17 urtekoa zen 2017an.

2012ra arte, ohiko erretzaileen ehunekoa handiagoa zen gazteen artean 15 eta 74 urte bitarteko biztanleriaren artean baino. 2012an, lehen aldiz, ohiko erretzaileen ehunekoa handiagoa izaten hasi zen biztanleria orokorrean (% 25,7) gazteen artean baino (% 23,5), eta joera horrek bere horretan jarraitzen du 2017an (% 18,5 biztanleria gaztean eta % 22,1 15-74 urteko biztanlerian). Bestela esanda, tabakoaren kontsumoa jaitsi egin da eta 15-74 urteko biztanleriaren batez bestekoaren azpitik dago.

Kalamuaren ia eguneroko kontsumoa: Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko pertsonen % 4,2k adierazi zuten 2017an aurreko hilean kalamua egunero edo ia egunero erre zutela (hau da, astean lau egunetan edo gehiagotan). Alkoholarekin gertatzen den bezala, Kalamuaren kontsumoa hedatuago dago gizon gazteen artean (% 7,3) emakume gazteen artean baino (% 1,0). Kalamua kontsumitzen hasteko batez besteko adina gutxi aldatu da azken urteetan, eta 2017an 2012ko balio bera mantendu da: 18,6 urte.

V.3.11. TAULA KALAMUAREN EGUNEROKO KONTSUMOAREN BILAKAERA 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLERIAN, SEXUAREN ARABERA			
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2004	9,7	14,4	4,8
2006	9,6	14,7	4,2
2008	11,0	16,9	4,5
2010	7,5	10,5	4,2
2012	4,3	7,1	1,6
2017	4,2	7,3	1,0

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Kalamuaren kontsumoa ohikoagoa da gazteen artean Euskadiko biztanleria orokorraren artean baino (% 2). Nolanahi ere, kontsumo horrek nabarmen egin du behera, eta 2017an Kalamua erretzen zutela zioten gazteak 2008ko erdiak baino gutxiago ziren, urte horretan lortu baitzen serieko ehunekorik altuena (% 11).

Substantzia psikoaktiboen kontsumoagatiko tratamendua. Drogen kontsumoa oso fenomeno urria da herritar guztiei egindako inkestetan, gizartearen gaitzespenaren mende baitago eta prebalentzia urria baitu. Haren bilakaera aztertzeko, kontsumoari buruzko datuak osatzen dituzten inkestez bestelako tresna bat erabiltzen da: droga-mendetasunengatiko tratamendu hasieren erregistroa.

V.3.12. TAULA SUBSTANTZIA PSIKOAKTIBOAK KONTSUMITZEAGATIK TRATAMENDUREN BAT HASI DUTEN 15 ETA 29 URTE ARTEKO GAZTEEN KOPURUAREN BILAKAERA (ADIN TALDE HORRETAKO 1.000 GAZTEKO TASA)			
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK
2009	2,2	3,6	0,6
2011	1,9	3,3	0,5
2013	2,1	3,4	0,7
2015	1,9	3,2	0,6
2017	2,0	3,4	0,5
2019	1,8	3,0	0,6
2020	1,4	2,4	0,5

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Toxikomanien Informazio Sistema)

Substantzia psikoaktiboak kontsumitzeagatik EAEko 15-29 urteko gazteen artean tratamenduan hartutako kopuruak behera egin du pixkanaka azken urteetan, eta 2020an lortu dute daturik txikiena: 15-29 urteko 1,4 gazte adin horretako 1.000 pertsonako.

Droga-kontsumoari buruzko beste adierazle batzuen moduan, adierazle horrek erakusten du gizon gazteek neurri handiagoan hasten dituztela droga-mendetasunengatiko tratamenduak emakume gazteek baino (2,4 eta 0,5, hurrenez hurren, sexu eta adin-talde bereko 1.000 gazteko).

Zenbaki absolutuetan, 15-29 urteko 438 pertsonak hasi zuten droga-mendekotasunagatiko tratamenduren bat 2020an, hau da, urte horretan tratamenduan hartutako pertsona guztien % 21,9k. 438 pertsona horietatik, 196 (tratamenduren bat hasi zutenen % 44,8) kalamuarekiko adikzioagatik hasi ziren; 99 kokainarekiko adikzioagatik (% 22,6) eta 88 alkoholari lotutako arazoengatik (% 20,1).

Biztanleria osoari dagokionez, tratamendu eskaera dakarten substantzien banaketa desberdina da: tratamendu hasiera gehien eragiten duen substantzia alkohola da, tratamendu hasieren % 44,1, kokainak % 21,3 eta kalamuak % 17,4.

V.3.13. TAULA DROGA-MENDEKOTASUNEN ONDORIOZKO TRATAMENDUAK HASTEA 15 ETA 29 URTE BITARTEKO BIZTANLEEN ARTEAN, DROGA MOTAREN ETA SEXUAREN ARABERA (PERTSONA KOPURUA)

	2015			2017			2018			2020
	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	GUZTIRA	GIZONAK	EMAKUMEAK	
GUZTIRA	554	471	83	563	490	73	587	494	93	438
HEROINA	28	22	6	13	8	5	11	8	3	nd
KOKAINA	404	362	42	133	123	10	146	132	14	99
NFETAMINAK	32	25	7	26	18	8	33	24	9	nd
SPEEDA	7	4	3	3	3	0	2	2	0	nd
ESTASIA	1	1	0	3	3	0	1	1	0	nd
KALAMUA	291	252	39	275	238	37	289	245	44	196
ALKOHOLA	63	48	15	72	63	9	76	58	18	88
BESTE SUBSTANTZIA BATZUK	27	25	2	38	34	4	29	24	5	nd

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila (Toxikomanien Informazio Sistema)

3.3. OSAKIDETZAREN ASISTENTZIA-JARDUERA

3.3.1. Baliabideen erabilera: batez besteko egonaldia eta okupazio-indizea

Batez besteko egonaldia Efizientzia-adierazletzat hartzen da, praktika kliniko erabakitzaila garatzeari lotuta, eta batez besteko egonaldia jaisteak eta errotazio-indizea handitzeak produktibitate handiagoa dakar ospitalizazio eremuan.

Osakidetza emandako datuen arabera, 2022an akutuen ospitaleetako eta egonaldi ertain eta luzeko ospitaleetako batez besteko egonaldia 5 egunekoa izan zen, eta egonkor iraun zuen 2021eko datuekin alderatuta. Batez bestekoaren oso gaitetik daude errehabilitazioko (35,9), psikiatriko (13,5) eta zainketa aringarrietako (12,6) zerbitzu medikoak.

Asistentzia-eskariak gora egin du sare osoko batez besteko okupazio-indizea 2021ean erregistratutako % 72,3tik 2022an erregistratutako % 74,5era igaro den heinean, nahiz eta oraindik ez den iristen pandemiaren aurreko mailara. Hala ere, barne-medikuntzak eta pneumologiak % 100etik gorako mailak dituzte, % 158,4 eta % 148,3, hurrenez hurren.

V.3.14 TAULA. BALIABIDE PUBLIKOEN ERABILERA OSAKIDETZAN, ESPEZIALITATEAREN ARABERA (BATEZ BESTEKO EGONALDIA ETA OKUPAZIO-INDIZEA)														
	BATEZ BESTEKO EGONALDIA (EGUNAK)							OKUPAZIO INDIZEA (%)						
	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
GLOBALA	5,0	6,0	4,7	4,9	5,1	5,0	5,0	77,0	79,7	78,9	76,6	67,8	72,3	74,5
ZERBITZU MEDIKOAK														
BARNE-MEDIKUNTZA	6,9	6,9	6,7	6,9	6,8	6,6	6,7	122,5	126,8	137,4	143,6	146,4	144,5	158,4
KARDIOLOGIA	4,4	4,2	4,3	4,4	4,0	4,1	4,3	87,7	83,0	80,0	82,9	64,2	74,6	76,6
DIGESTIBOIA	6,5	6,4	6,3	6,0	6,1	6,3	6,2	104,3	105,2	101,4	101,7	85,7	97,4	98,6
HEMATOLOGIA	7,7	8,2	9,0	8,6	9,4	9,7	10,0	77,8	95,1	96,8	87,6	80,0	81,8	91,5
PNEUMOLOGIA	5,9	5,6	5,6	5,7	6,2	6,0	6,0	148,4	142,5	150,4	138,7	153,8	152,0	148,3
PSIKIATRIA	14,2	14,06	14,7	14,6	13,8	13,8	13,5	99,0	91,7	97,9	98,0	82,1	92,3	95,6
ERREHABILITAZIOA	33,9	35,8	37,2	33,9	32,1	32,8	35,9	84,5	87,8	84,3	86,9	69,2	82,2	86,6
ZAINKETA ARINGARRIAK	13,8	13,6	13,8	13,3	12,1	12,0	12,6	92,0	87,3	93,8	95,0	81,7	81,1	81,9
ZERBITZU KIRURGIKOAK														
KIRURGIA OROKORRA	3,6	3,7	3,6	3,5	3,4	3,4	3,2	72,4	69,0	66,7	66,6	53,4	55,8	58,0
KIRURGIA PLASTIKOA	3,6	3,6	3,4	3,7	3,3	3,1	3,4	60,7	56,9	56,5	68,1	57,3	61,3	62,7
KIRURGIA KARDIOBASKULARRA	4,2	5,1	5,1	5,2	4,6	5,0	4,5	114,2	115,6	105,4	103,2	86,8	89,6	86,2
KIRURGIA BASKULARRA	4,9	5,4	5,1	5,5	5,4	5,7	6,1	69,6	71,6	76,4	76,9	66,5	77,3	81,5
TORAXEKO KIRURGIA	4,1	3,8	3,7	3,6	3,6	3,3	3,2	91,6	87,4	92,4	87,9	68,5	72,0	70,4
NEUROKIRURGIA	5,0	5,4	5,4	5,5	4,9	4,6	4,7	84,1	79,9	81,4	82,6	64,1	69,4	71,5
TRAUMATOLOGIA	4,1	4,0	3,8	3,7	3,5	3,5	3,6	83,0	80,7	80,5	83,5	64,7	71,2	74,1
UROLOGIA	3,8	3,6	3,4	3,4	3,1	3,1	3,0	103,9	100,8	94,6	91,5	70,1	77,9	81,7

Iturria: Osakidetza. Akutuen ospitaleak + egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

3.3.2. Itxaron-zerrendak kanpo-kontsultetan eta kirurgia programatuan

3.3.2.1. Kanpo-kontsultak

Osakidetza datuen arabera bilakaera

Kanpoko kontsultetako itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopuruak gora egin du berriro 2021etik 2022ra bitartean, eta 135.190 dira (+% 43). Zerrendan paziente gehien dituzten espezialitateak traumatologia (19.990), oftalmologia (16.354), dermatologia (14.811) eta errehabilitazioa (12.497) dira.

V.3.15. TAULA KANPO KONTSLUTEN ITXARON-ZERRENDAK (paziente gehien dituzten espezialitateak) OSAKIDETZAN

	PAZIENTE KOP.						ALDAKUNTZAK (%)				
	2017	2018	2019	2020	2021	2022	17-18	18-19	19-20	20-21	21-22
ALERGOLOGIA	3397	4015	2743	1138	2453	3208	18,2	-31,7	-58,5	115,6	30,8
KARDIOLOGIA	3091	3292	3520	2230	3268	3362	6,5	6,9	-36,6	46,5	2,9
DERMATOLOGIA	12496	13452	13036	3633	9039	14811	7,7	-3,1	-72,1	148,8	63,9
DIGESTIBOA	3360	3159	3347	2032	2752	3590	-6,0	6,0	-39,3	35,4	30,5
ENDOKRINOLOGIA	1624	1850	1801	1469	1739	2234	13,9	-2,6	-18,4	18,4	28,5
NEUROLOGIA	4295	4170	4387	2622	3905	6217	-2,9	5,2	-40,2	48,9	59,2
ERREHABILITAZIOA	9012	9017	8217	4094	6735	12497	0,1	-8,9	-50,2	64,5	85,6
KIRURGIA OROKORRA	2478	3152	2919	2052	3140	4477	27,2	-7,4	-29,7	53,0	42,6
OFTALMOLOGIA	11486	11581	11828	7952	9830	16354	0,8	2,1	-32,8	23,6	66,4
OTORRINOLARINGOLOGIA	5989	6405	5864	5290	6062	10557	6,9	-8,4	-9,8	14,6	74,2
TRAUMATOLOGIA	17184	18955	16124	9863	17917	19990	10,3	-14,9	-38,8	81,7	11,6
UROLOGIA	3648	4936	3349	2304	3368	5177	35,3	-32,2	-31,2	46,2	53,7
GINEKOLOGIA	7661	7312	8456	6542	7468	10101	-4,6	15,6	-22,6	14,2	35,3
BESTE BATZUK	14379	16173	16245	10939	16839	22615	12,5	0,4	-32,7	53,9	34,3
GUZTIRA	100100	107469	101836	62160	94515	135190	7,4	-5,2	-39,0	52,1	43,0

Iturria: Osakidetza. Akutuen ospitaleak + egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Atzerapen-denborari dagokionez, zerrendetan dauden biztanleen % 61ek hilabete baino gehiago itxaroten dute, eta % 39k, berriz, hilabete baino gutxiago.

V.3.16. TAULA KANPO KONTSLUTEN ITXARON-ZERRENDAK ETA ATZERAPEN DENBORAK (%) OSAKIDETZAN

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
< HILABETE	59,5	57,0	54,1	64,1	52,7	39,0
> HILABETE	40,5	43,0	45,9	35,9	47,3	61,0

Iturria: Osakidetza, akutuen ospitaleak + egonaldi ertain eta luzeko ospitaleak

Estatuarekiko alderaketa
V.3.17. TAULA ITXARON-ZERRENDEEN EGOERA OSASUN SISTEMA NAZIONALEKO KONTSLUTETAN. 2021eko ABENDUKO DATUAK

	PAZIENTE KOPURUA 1.000 BIZTANLEKO OSASUN-TXARTELAREKIN	ATZERAPEN-DENBORA EGUNETAN	> 60 EGUNEKO HITZORDUEN EHUNEKOAK
ANDALUZIA	106,5	105	18,4
ARAGOI	76,1	160	35,0
ASTURIAS	89,5	79	30,6
BALEAR UHARTEAK	38,5	51	6,5
KANARIAR UHARTEAK	56,3	118	88,2
KANTABRIA	81,3	70	59,1
GAZTELA ETA LEON	65,1	77	42,8
GAZTELA-MANTXA	24,2	69	45,2
KATALUNIA	36,9	93	31,3
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	61,4	95	45,8
EXTREMADURA	43,0	64	18,1
GALIZIA	73,9	56	35,8
MADRIL	53,3	56	70,4
MURTZIA	47,1	77	62,3
NAFARROA	92,1	109	11,9
EAE	14,7	34	14,5
ERRIOXA	42,6	59	75,2
ZEUTA	35,1	31	57,8
MELILLA	38,4	19	30,6
GUZTIRA	77,2	89	52,2

Iturria: Itxaron-zerrende buruzko informazio-sistema Sal30,6ud Sistema Nazionalean (SISLE-SNS)

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrende buruzko Informazio Sistemaren datuen arabera, 2021eko datuekin, osasun-txartela duten 1.000 biztanleko kontsuluten itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua txikiagoa da EAEn Estatuko batez bestekoa baino (14,7 vs 77,2). Izan ere, EAE da autonomia-erkidegoen rankingean ratio txikiena duena.

Atzerapen-denborari dagokionez, autonomia-erkidegoen rankingean, eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak alde batera utzita, EAE da denbora laburrena erregistratzen duena, 34 eguneko, Estatuko batez bestekoa 89 eguneko izanik.

Arreta jasotzeko zain 60 egunetik gora dauden hitzorduen ehunekoari dagokionez, ratioa EAEn % 14,5ekoa da, Estatuko batez bestekoa (% 52,2) baino txikiagoa. Balear Uharteek eta Nafarroak gure erkidegoak baino ratio txikiagoa dute.

3.3.2.2. Kirurgia programatua

Osakidetzaren datuen arabera bilakaera

2021etik 2022ra bitartean, adierazle guztiek egin dute gora. Hala, zerrendan 22.264 paziente izatetik 23.647 izatera igaro da (9,7 izatetik 10,2 izatera osasun-txartela duten mila biztanleko). Atzerapen-egunen batez besteko kopurua 70,8tik 73ra igaro da. Bestalde, 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoak % 26,6tik % 28,9ra igo da.

V.3.18. TAULA KIRURGIAKO ITXARON-ZERRENDAK ETA BATEZ BESTEKO ATZERAPENA OSAKIDETZAN					
	2018	2019	2020	2021	2022
PAZIENTE KOP.	17795	17512	16827	22264	23647
PAZIENTEEN KOPURUA OSASUN-TXARTELA DUTEN 1.000 BIZTANLEKO	8,1	7,9	7,4	9,7	10,2
BATEZ BESTEKO ATZERAPENA (EGUNAK)	49,1	47,91	68,2	70,8	73,0
> 3 HILABETEKO PAZIENTE KOPURUA	2.415	2.181	3.935	5.920	6.829
> 3 HILABETEKO PAZIENTEEN %	13,6	12,5	23,4	26,6	28,9

Iturria: Osakidetza

Estatuarekiko alderaketa

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren datuen arabera, 2021eko datuekin, EAEn osasun-txartela duten 1.000 biztanleko itxaron-zerrenda kirurgikoetan dauden pazienteen kopurua Estatukoak baino txikiagoa da (4 vs 5,6). EAE autonomia-erkidegoen rankingean ratio txikiena duen hirugarren autonomia-erkidegoa da, Nafarroaren eta Madrilen atzetik. Melilla Hiri Autonomoak horiek guztiek baino ratio are txikiagoa du: 0,7.

V.3.19. TAULA OSASUN SISTEMA NAZIONALEKO ITXARON-ZERRENDA KIRURGIKOEN EGOERA. 2021eko ABENDUKO DATUAK			
	PAZIENTE KOPURUA 1.000 BIZTANLEKO OSASUN-TXARTELAREKIN	6 HILABETETIK GORAKO PAZIENTEEN EHUNEKOA	BATEZ BESTEKO ITXARONALDIA EGUNETAN
ANDALUZIA	4,6	11,0	72
ARAGOI	8,0	23,1	136
ASTURIAS	8,5	10,8	0
BALEAR UHARTEAK	4,4	19,1	124
KANARIAR UHARTEAK	4,6	16,5	109
KANTABRIA	7,6	20,9	114
GAZTELA ETA LEON	8,1	22,8	124
GAZTELA-MANTXA	6,1	0,2	102
KATALUNIA	7,4	21,9	123
VALENTZIAKO ERKIDEGOAK	4,1	6,4	69
EXTREMADURA	7,5	17,2	109
GALIZIA	7,8	4,7	70
MADRIL	3,7	8,1	71
MURTZIA	6,3	11,7	85
NAFARROA	3,7	9,8	78
EAE	4,0	4,3	62
ERRIOXA	8,9	22,0	106
ZEUTA	5,1	14,8	106
MELILLA	0,7	0,0	46
GUZTIRA	5,6	13,1	96

Iturria: Itxaron-zerrendei buruzko informazio-sistema Sal30,6ud Sistema Nazionalean (SISLE-SNS)

Ebakuntza egiteko zain 6 hilabetetik gora dauden pazienteen ehunekoari dagokionez, EAeko ratioa % 4,3 da, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, % 13,1. Melilla Hiri Autonomoak baino ez du ratio txikiagoa (% 0). Atzerapen-denborari dagokionez, autonomia-erkidegoen rankingean, eta Melilla hiri autonomia alde batera utzita, EAE da denbora laburrena erregistratzen duena, 62 egunekoa, Estatuko batez bestekoa 96 egunekoa izanik.

3.4. OSASUN-ARRETA PRIBATUAREN ESTADISTIKA: ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEAK

EUSTATen “Osasun-arreta pribatuaren estatistika” bi urtean behingo estatistika-eragiketa da, eta EAEn establezimenduren bat duten aseguru libreko erakundeen (aurrerantzean, ALE) baliabideei eta jarduerari buruzko informazioa izatea du helburu.

Haren datuen arabera, Euskadin lan egiten duten ALE-ek 504.762 pertsona zituzten osasun-aseguru pribatu batek estalita 2021ean, hau da, % 6,4ko igoera 2019aren aldean. Ondorioz, EAeko biztanleen % 23k osasun-aseguru pribatu bat du kontratatuta. Lurralde historikoen arabera, proportzio hori handiagoa da Bizkaian (% 30,4), gero Araban (% 17,9) eta, azkenik, Gipuzkoan (% 13,6).

ALE-ek 366,2 milioi euro bildu zituzten prima gisa, hau da, 2019an baino % 6,5 gehiago eta 2021eko BPGdaren % 0,47. Aseguratutako pertsona bakoitzeko batez besteko prima 726 eurokoa da. V.3.20. TAULA ASISTENTZIA ASEGURU LIBREKO ENTITATEEN BILAKAERA EAEn

	2011	2015	2017	2019	2021	ALDAKUNTZA 2019-21
POLIZAK	213328	226692	243344	264056	303250	14,8
ASEGURATUTAKO PERTSONAK	382610	407171	435219	474462	504762	6,4
ASEGURATUTAKO BIZTANLEAK (%)	17,6	18,7	20	21,7	23,0	
PRIMAK (MILA EUROTAN)	277.731	312.694	328.513	343.882	366.238	6,5
PRIMA ASEGURATUTAKO PERTSONAKO (EUROTAN)	726	768	755	725	726	
PRIMA BIZTANLEKO (EUROAK)	128	144	151	157	167	6,4
PRIMA/BPGd	0,42	0,45	0,45	0,43	0,47	

** Guztizkoa hainbat erakunderi buruzkoa da, nahiz eta horiek lurralde batean baino gehiagotan jardun dezaketen
Iturria: EUSTAT. Osasun-arreta pribatuaren estatistika*

Estalitateko pertsona guztietatik, % 52,8 emakumeak izan ziren eta % 47,2 gizonak, eta gehienak 45-64 urteko eta 25-44 urteko adin-tarteetan daude (biek aseguratutako biztanleriaren % 61 biltzen zuten).

Kontratututako polizaren modalitatea kontuan hartuta, pertsonen % 33,9k (171.269) banakako edo familiako aseguruia dute, % 5,4k (27.486) funtzionarioen mutualitate publikoa eta % 60,6k bestelako aseguru kolektiboa.

Adierazi dugun bezala, aseguru bakoitzeko batez besteko prima 726 eurokoa da. Poliza motaren arabera bereiziz, aseguratutako pertsona bakoitzeko primarik handiena mutualitate publikoena da (966 €), ondoren banakako edo familiako aseguruena (870 €) eta beste kolektibo batzuen (623 €).


V.3.21. TAULA EAEko ASEGURU LIBREKO ERAKUNDEEK ASEGURATUTAKO PERTSONEN EZAUGARRIAK					
ASEGURATUTAKO PERTSONEN EZAUGARRIAK					
	2017	2019	2021		ALD. 2019-21 GUZTIRA
	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIZKOAREN GAINEKO %	
PERTSONAK GUZTIRA	435219	474462	504762	100,0	6,4
GIZONAK	204469	221850	238238	47,2	7,4
EMAKUMEAK	230750	252612	266524	52,8	5,5
0-14 URTE	56867	63161	64492	12,8	2,1
15-24 URTE	32282	38021	43763	8,7	15,1
25-44 URTE	126265	132690	139308	27,6	5,0
45-64 URTE	147003	154396	168829	33,4	9,3
65-74 URTE	44012	50494	52712	10,4	4,4
75 URTE ETA GEHIAGO	28790	35700	35658	7,1	-0,1
ASEGURATUTAKO PERTSONAK MODALITATEAREN ARABERA					
	2017	2019	2021		ALD. 2019-21
	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIRA	GUZTIZKOAREN GAINEKO %	
BANAKAKOAK EDO FAMILIAKOAK	148022	168705	171269	33,9	1,5
FUNTZIONARIOEN MUTUALITATE PUBLIKOAK	31205	29027	27486	5,4	-5,3
BESTE KOLEKTIBO BATZUK	255992	276730	306007	60,6	10,6

Iturria: EUSTAT. Osasun-arreta pribatuaren estatistika eta geuk egina

V.3.22. TAULA EUSKADIKO OSASUN-ARRETA PRIBATUKO POLIZAK, POLIZA MOTAREN, KONTZEUAREN ETA ALDIAREN ARABERA						
		2011	2015	2017	2019	2021
GUZTIRA	POLIZA KOP.	213.328	226.692	243.344	264.056	303.250
	ASEGURUA DUTEN PERTSONAK	382.610	407.171	435.219	474.462	504.762
	PRIMEN BOLUMENA (MILA EUROTAN)	277.731	312.694	328.513	343.882	366.238
	PRIMAK ASEGURATUTAKO PERTSONA BAKOITZEKO	726	768	755	725	726
BANAKAKOAK EDO FAMILIAKOAK	POLIZA KOP.	87.990	86.033	93.636	103.039	109.295
	ASEGURUA DUTEN PERTSONAK	140.450	139.217	148.022	168.705	171.269
	PRIMEN BOLUMENA (MILA EUROTAN)	130.371	137.411	143.802	145.310	149.076
	PRIMAK ASEGURATUTAKO PERTSONA BAKOITZEKO	928	987	971	861	870
MUTUALITATE PUBLIKOAK	POLIZA KOP.	21.074	18.866	18.430	18.230	22.217
	ASEGURUA DUTEN PERTSONAK	37.063	33.273	31.205	29.027	27.486
	PRIMEN BOLUMENA (MILA EUROTAN)	27.756	27.163	26.135	26.600	26.555
	PRIMAK ASEGURATUTAKO PERTSONA BAKOITZEKO	749	816	838	916	966
BESTE KOLEKTIBO BATZUK	POLIZA KOP.	104.264	121.793	131.278	142.787	171.738
	ASEGURUA DUTEN PERTSONAK	205.097	234.681	255.992	276.730	306.007
	PRIMEN BOLUMENA (MILA EUROTAN)	119.605	148.119	158.577	171.973	190.607
	PRIMAK ASEGURATUTAKO PERTSONA BAKOITZEKO	583	631	619	621	623

Iturria: EUSTAT. Osasun-arreta pribatuaren estatistika

V.3.3 GRAFIKOA ASEGURATUTAKO PERTSONA KOPURUAREN ETA PRIMEN BILAKAERA POLIZA MOTAREN ARABERA



3.5. OSASUN-SISTEMAREN GASTUA ETA FINANTZAKETA

3.5.1. EUSTATen Osasunaren kontua

Osasun-gastuak osasunerako ondasunen eta zerbitzuen azken kontsumoa neurtzen du, hau da, edozein agente finantzatzailek egindako gastu arrunta. Gastu horren finantzaketaren barruan sartzen dira administrazio publiko guztiak, nahitaezko osasun-aseguruak, borondatezko osasun-aseguruak eta etxeen zuzeneko ordainketa.

EUSTATen datuen arabera, EAeko osasun gastu arrunta, Osasun Kontuen Sisteman argitaratutako ELGaren metodologiaren arabera kalkulatuta (*System of Health Accounts-SHA 2011*), 7.993,6 M€ izan zen 2021ean, aurreko urtean baino % 8,2 gehiago. Gastuaren bolumen hori urtean sortutako BPGd-aren % 10,2 izan zen. Biztanleko gastua 3.650 eurokoa izan zen, 2020ko 3.364 euroen gainetik.

Finantzaketari dagokionez, 2021ean 7.993,6 M euroko gastu arruntetik 5.572,8 M€ administrazio publiko eta nahitaezko ordainketako aseguru guztiei dagozkie, eta 2.420,8 M€, berriz, borondatezko ordainketako osasun-aseguru guztiei eta etxeen zuzeneko ordainketari. Bigarren talde horren finantzaketa hazi zen gehien, % 9,5, eta administrazio publiko guztiek batera, ordea, % 7,6 egin zuten gora.

2020an, COVID-19ak gehien eragindako urtean, administrazio publiko guztien ekarpena ekarpen pribatuaren oso gainetik hazi zen; ekarpen pribatua % 0,6 baino ez zen hazi, batez ere etxeen zuzeneko ordainketaren murrizketaren ondorioz, eta administrazio publiko guztien hazkundera % 6,4koa izan zen.

V.3.23. TAULA EAEko OSASUN KONTUAREN ADIERAZLEAK, 2005-2019

	2017	2018	2019	2020	2021	% BERTIKAL A 2021	Ald. 2020/21
Gastu arrunta, guztira (milioi €)	6418,1	6728,6	7065,0	7390	7993,6	100	8,2
Administrazio publikoak. Nahitaezko aseguruak (milioi €)	4456,5	4611,1	4868,2	5179,7	5572,8	69,7	7,6
Borondatezko ordainketa sistemak. Etxeen ordainketa (milioi €)	1961,6	2117,5	2196,8	2210,2	2420,8	30,3	9,5
Gastua biztanleko (€)	2947	3081	3220	3364	3650		8,5
Gastu arrunta BPGd-ren gainean (%)	8,7	8,8	8,9	10,3	10,2		
Administrazio osasun-gastua administrazio publikoaren gastuaren ehunekoan	15,9	16,2	16,2	16,0	-		

Iturria: EUSTAT. EAEko Osasunaren Kontua

Osasunaren Kontuaren datuen azterketa zehatzago batek erakusten du, **eginkizunen arabera gastuaren** banaketan, sendatzeko osasun-laguntza dela pisurik handiena duena, 2021ean gastu arruntaren % 57,3ra iritsiz, eta gehien igotzen dena (% 10,6). Garrantziari dagokionez, bigarren eginkizuna produktu medikoei dagokiena da (produktu farmazeutikoak, material sanitarioa eta terapeutikoa), gastu arruntaren % 16,3 hartzen baitu, eta igoera neurritsuagoa izan zuen 2021ean, % 4,2. Hirugarrenik, egonaldi luzeko osasun-laguntzako gastua (mendekotasuna duten pertsonei osasun-arreta ematera bideratutako gastua barne) gastu arruntaren % 15,0 izan zen, eta 2021ean % 3,1 handitu bazen ere, haren pisua murriztu egin da, 2018ko % 16,5etik 2021eko % 15,0ra, 2020an gutxien hazi zen eginkizunetako bat izan zelako.

2020an, COVID-19a hasi zen urtean, hauek izan ziren gehien hazi ziren eginkizunak: osasun zerbitzu osagarriak (analisi klinikotako gastua barne), % 14,0ko igoerarekin, eta produktu medikoak, % 7,4ko igoerarekin. Gastua murriztu zuen eginkizun bakarra errehabilitazioko osasun-laguntza izan zen, % 0,6 jaitsi baitzen.

V.3.24. TAULA EAEko OSASUNeko GASTU ARRUNTA (MILAKA EURO), EGINKIZUNEN ETA ALDIAREN ARABERA

	2017	2018	2019	2020	2021	2021 % BERT.	ALD. 2019-20	ALD. 2020-21
OSASUNeko GASTU ARRUNTA GUZTIRA	6.418.107	6.728.636	7.065.026	7.389.796	7.993.583	100,0	4,6	8,2
-HC.1 OSASUN-LAGUNTZA SENDAGARRIA	3.523.199	3.721.741	3.977.123	4.137.931	4.576.863	57,3	4,0	10,6
-HC.2 ERREHABILITAZIOKO OSASUN-LAGUNTZA	126.734	130.326	136.631	135.836	150.237	1,9	-0,6	10,6
-HC.3 LUZAROKO OSASUN-LAGUNTZA	1076794	1109299	1.146.354	1.160.132	1.196.510	15,0	1,2	3,1
-HC.4 OSASUN-ZERBITZU OSAGARRIAK	314.716	328.452	342.407	390.283	430.798	5,4	14,0	10,4
-HC.5 PRODUKTU MEDIKOAK (EGINKIZUN BATI ESLEITU GABEAK)	1.103.118	1.148.567	1.166.527	1.253.000	1.305.007	16,3	7,4	4,2
-HC.6 PREBENTZIO-ZERBITZUAK	91.781	93.809	94.011	97.972	96.941	1,2	4,2	-1,1
-HC.7 OSASUN-SISTEMAREN ETA OSASUN-FINANTZAKETAREN GOBERNANTZA ETA ADMINISTRAZIOA	181.765	196.442	201.973	214.642	237.227	3,0	6,3	10,5

Iturria: EUSTAT. Osasunaren kontua

Nazioarteko konparazioari dagokionez, ELGak herrialde guztietarako argitaratutako azken datuak 2020koak dira. Konparaziorako adierazle nagusiak gastua BPGd-ren ehunekotan eta PPPko osasuneko per capita gastua (\$) dira. 2020an, Euskadi ELGaren batez bestekoaren gainetik dago bi adierazleetan. Euskadiko osasuneko gastu arrunta BPGd-ren % 10,3 izan zen, ELGaren batez bestekoa (% 9,7) baino 0,6 puntu handiagoa. PPPko osasuneko per capita gastua (\$) hobe da, 4.929ra iritsi baitzen Euskadin, eta horrek ELGaren eta zenbait herrialderen, hala nola Finlandiaren (4.566), batez bestekoaren gainetik jarri zuen. Beste muturrean, Suitzatik (7.179), Alemaniatik (6.939) eta Norvegiatik (6.536) urrun, guztiak taularen goiko muturrean. Adierazle hori ELGaren batez bestekoaren gainetik dago 2003tik.

V.3.25. TAULA GASTUAREN ADIERAZLEAK HERRIALDEAREN ARABERA, 2020					
	Gastu publikoa BPGd-aren ehunekotan	Gastu publikoa guztizko gastuaren ehunekotan	Gastu arrunta BPGd-aren ehunekotan	Gastu arrunta biztanleko (PPP, US\$)	BPGd biztanleko (PPP (\$))
OCDE-38	:	15,4	9,7	4272	:
ALEMANIA	10,9	20,1	12,8	6939	54845
AUSTRIA	8,8	16,2	11,5	5883	55686
BELGIKA	8,5	15,7	10,8	5274	53096
KANADA	9,7	18,6	12,9	5828	46572
DANIMARKA	8,9	16,8	10,5	5694	60230
ESPAINIA	7,8	15,3	10,7	3718	37755
AEB	15,9	22,3	18,8	11859	63028
FINLANDIA	7,5	13,8	9,5	4566	50937
FRANTZIA	10,3	15,4	12,2	5468	46858
IRLANDA	5,6	20,3	7,1	5373	93356
ISLANDIA	7,9	16,3	9,5	4620	53617
ITALIA	7,3	13,2	9,6	3747	41995
NORVEGIA	9,8	17,5	11,3	6536	62645
ERRESUMA BATUA	9,9	19,7	12,0	5019	46527
SUEDIA	9,9	18,8	11,5	5757	55065
SUITZA	8,2	11,1	11,8	7179	71732
EAE	7,2	16,0	10,3	4929	47912

Iturria: EUSTAT. EAEko Osasunaren kontua eta ELGaren Health Statistics

3.5.2. Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren gastua

2021ean, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-likidazioak erakusten duenez, Osasun Atalaren gastu-aurrekontua 3.994,4 M eurotik 4.395,5 M eurora aldatu zen, eta 4.395,5 M€ horien partiden arabera banakapenak 214,4 M€ azaleratzen du. Zenbateko hori ez da programetako bakar batean ere zenbatzen (Egitura eta laguntza, Finantzaketa eta kontratazio sanitarioa, Osasun publikoa, Ikerketa eta plangintza sanitarioa, Farmazia eta Adikzioak), eta CESeK "Beste partida batzuk" partidaren barruan sartu du.

Azkenean, Osasun atalean egindako gastua 4.382,4 milioi eurokoa izan zen. Baliabideen ehunekoari dagokionez, lehenengo tokian geratu zen, gastu osoaren % 34,5 (programa nagusia Osakidetzari egindako transferentziei dagokie) eta BPGd nominalaren % 5,62, aurreko urtearen azpitik (% 5,72). Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa eta Farmazia programek guztizko gastu likidatu ia osoa hartzen dute (% 93,6). Zehazki, Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa % 81,4 da, eta Farmazia % 12,2. "Beste partida batzuk" guztizkoaren % 4,9 dira.

Aurrekontuan jasotako zenbateko osoaren eta benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, Osasun Atalean likidatutako gastua (4.382,4 M€) aldatutako aurrekontua (4.395,5 M€) baino txikiagoa da, eta horrek 13,1 M euroko beheranzko desbideratzea dakar.

Bestalde, 2022rako berariaz sanitarioak diren partiden gastuen aurrekontua 4.191,4 milioi eurokoa da (+%4,9, 2021ean hasieran aurrekontuan sartutako gastuaren aldean). Gastu hori BPGd nominalaren % 4,93 da, 2022an erregistratutakoa baino ratio txikiagoa (bai aurrekontuari dagokionez, bai likidazioari dagokionez).

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren datuen arabera, EAEn biztanle bakoitzeko osasun-gastu publikoak³⁵ gora egin du 2021etik 2022ra bitarte, 1.930 eurotik 2.028 eurora biztanle bakoitzeko. Horrela, gure erkidegoak, 2021ean biztanleko gehien gastatzen duten autonomia-erkidegoen rankingean lehen postua galdu zuenak, Asturiasen atzetik kokatuz, 2022an lehen postua berreskuratu du biztanleko 2.028 eurorekin. Estatuko batez bestekoa 1.559 euro per capita da.

V.3.26. TAULA EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILAREN GASTUAREN BANAKAPENA
(programa bakoitzeko, mila eurotan)

	2019	2020	2021				ALDEA (L-AA)	2022	HASIERAKO AURREKONTUEN ALDAKUNTZA (%)
			HASIERAKO AURREKONTU A	ALDATUTAKO AURREKONTU A	LIKIDAZIOA				
	AURREKONTU-LIKIDAZIOAK				ABS.	% BERT.	HASIERAKO AURREKONTU A	2021-22	
EGITURA ETA LAGUNTZA	18.736	15.437	19.615	16.041	13.853	0,3	-2.188	20.532	4,7
FINANTZAKETA ETA KONTRATAZIO SANITARIOA	3.422.225	3.293.442	3.376.724	3.572.515	3.567.086	81,4	-5.429	3.567.632	5,7
OSASUN PUBLIKOAK	38.651	39.928	48.353	40.517	38.319	0,9	-2.198	50.981	5,4
IKERKETA ETA PLANGINTZA SANITARIOA	8.080	9.861	13.880	12.235	11.480	0,3	-755	15.972	15,1
FARMAZIA	514.566	522.507	530.961	535.475	533.924	12,2	-1.551	531.410	0,1
ADIKZIOAK	3.969	3.976	4.879	4.266	4.142	0,1	-124	4.885	0,1
BESTE PARTIDA BATZUK	3.049	221.741	0	214.444	213.622	4,9	-822		
OSASUNA GUZTIRA	4.009.276	4.106.892	3.994.412	4.395.493	4.382.426	100,0	-13.067	4.191.412	4,9
Elren GASTUA, GUZTIRA	12.038.657	11.779.674	12.442.365	13.618.113	12.717.982		-900.131	13.107.800	5,3
BPGd	79.537.107	71.828.616	78.004.109	78.004.109	78.004.109			84.972.626	---
OSASUNAREN % GUZTIZKOAREN ALDEAN	33,3	34,9	32,1	32,3	34,5			32,0	---
OSASUNA % BPGd-ren ALDEAN	5,04	5,72	5,12	5,63	5,62			4,93	---

Iturria: EAEko Kontu Orokorrak eta Aurrekontuak, EUSTAT eta geuk egina

V.3.27. TAULA BALIABIDE EKONOMIKOAK. HASIERAKO AURREKONTUAK AUTONOMIA-ERKIDEGOEN ARABERA.
Euro biztanleko* 2021era eguneratuta

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022 bb
Autonomia-erkidegoak	1.146	1.178	1.221	1.268	1.313	1.344	1.389	1.495	1.559
ANDALUZIA	978	1.007	1.050	1.109	1.169	1.251	1.303	1.383	1.463
ARAGOI	1.206	1.207	1.367	1.443	1.516	1.515	1.558	1.749	1.707
ASTURIAS	1.402	1.425	1.463	1.627	1.637	1.727	1.796	1.944	2.010
BALEAR UHARTEAK	1.071	1.172	1.226	1.297	1.358	1.456	1.429	1.587	1.658
KANARIAR UHARTEAK	1.233	1.239	1.238	1.262	1.349	1.366	1.407	1.474	1.540
KANTABRIA	1.339	1.348	1.383	1.419	1.470	1.503	1.583	1.708	1.759
GAZTELA ETA LEON	1.282	1.322	1.348	1.431	1.487	1.492	1.493	1.834	1.841
GAZTELA-MANTXA	1.152	1.175	1.286	1.337	1.381	1.379	1.478	1.814	1.785
KATALUNIA	1.118	1.145	1.141	1.193	1.185	1.173	1.279	1.276	1.392
VALENTZIAKO ERKIDEGOAK	1.084	1.112	1.198	1.233	1.292	1.334	1.345	1.492	1.545
EXTREMADURA	1.208	1.287	1.454	1.453	1.524	1.613	1.667	1.801	1.934
GALIZIA	1.202	1.247	1.292	1.334	1.428	1.477	1.521	1.701	1.705
MADRIL	1.094	1.142	1.160	1.179	1.202	1.221	1.210	1.212	1.298
MURTZIA	1.110	1.126	1.191	1.206	1.262	1.290	1.278	1.446	1.453
NAFARROA	1.403	1.467	1.551	1.636	1.646	1.672	1.772	1.907	1.913
EAE	1.586	1.602	1.616	1.671	1.734	1.731	1.817	1.930	2.028
ERRIOXA	1.265	1.276	1.319	1.350	1.403	1.400	1.482	1.747	1.750

* Estatistikako Institutu Nazionalak argitaratutako erroldako biztanleriaren datuak. (bb) behin-behinekoa

Iturria: Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioa

³⁵ Autonomia-erkidegoek aurrekontu bateratuetan sartu dituzten erakundeek hasierako osasun-aurrekontuak islatzen dituzte datuek, autonomia-erkidego bakoitzaren mailan bateratuta daudenak. Beraz, kanpoan geratzen dira osasunaren arloan jarduerak egiten dituzten fundazioak, partzuergoak, enpresa publikoak eta gutxi gorabeherako aurrekontua duen beste edozein erakunde publiko. Biztanleriaren datuak EINEk argitaratutako erroldari dagozkie.

3.5.3. Osakidetzaren gastua

EAEko sektore publikoaren urteko aurrekontuen eta kontuen likidaziotik abiatuta egindako Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak erakusten duenez, erakundeak 3.878,2 milioi euroko gastua egin zuen 2021ean. Hala, gastua % 15,4 igo da 2020tik 2021era. BPGd nominalaren % 5 da, eta ratioa 2020koa baino hiru hamarren handiagoa da. Gehikuntza hori inbertsioen eta ustiapen-gastuen hazkundeak azaltzen du, nahiz eta lehenengoen hazkundera nabarmenagoa izan. Likidatutako gutzizkoaren % 94,9 ustiapen-gastuei dagokie, eta % 5,1 inbertsioei.

Likidatutako ustiapen-gastuak 3.681,2 milioi eurokoak dira, hau da, % 13,1eko igoera 2020ko likidazioarekin alderatuta. Langileen gastuak (soldatak eta gizarte-kotizazioak), ustiapen-gastuen % 68,1, 2.507,7 milioi euro, aurreko urtearen aldean % 16 igo dira. Funtzionamenduko gastuak 1.115,7 milioi eurokoak izan dira, hau da, aurreko aldian baino % 2,5 gehiago. Funtzionamenduko gastu horien % 81,7 hornikuntzei dagozkie, eta % 0,2 jaitsi dira.

Likidatutako kapitaleko gastua 197,1 milioi eurokoa da, 2020an likidatutakoa baino % 86,6 handiagoa.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoaren eta 2021ean benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidatutako gastua aurrekontukoa baino handiagoa da (+338,1 M€), eta inbertsioei (+77,6 M€) eta ustiapen-gastuei (+260,5 M€) dagokie.

V.3.28. TAULA OSAKIDETZAREN GASTUEN LIKIDAZIOA (milaka euro)*						
	2017	2018	2019	2020	2021	ALD (%) 2020-21
KAPITAL-AURREKONTUA GAUZATZEA: INBERTSIOAK	102.371	141.428	240.508	105.610	197.067	86,6
USTIAPEN-AURREKONTUA GAUZATZEA: USTIAPEN-GASTUAK	2.768.141	2.970.419	3.131.957	3.254.034	3.681.157	13,1
<u>I. LANGILEEN GASTUAK</u>	1.858.536	2.016.625	2.019.405	2.161.287	2.507.717	16,0
<u>II: FUNTZIONAMENDU-GASTUAK</u>	857.332	910.438	947.665	1.088.755	1.115.714	2,5
HORNIKUNTZAK	698.175	739.171	777.688	913.491	911.389	-0,2
FUNTZIONAMENDUKO BESTE GASTU BATZUK	159.157	171.267	169.977	175.264	204.325	16,6
<u>BESTE BATZUK</u>	52.273	43.356	164.887	3.992	57.726	
<ul style="list-style-type: none"> • FINANTZA-GASTUAK (hirugarrenetikiko zorreatatik) • ERAKUNDEAK EMAN BEHARREKO DIRULAGUNTZAK ETA EGIN BEHARREKO TRANSFERENTZIAK • (...) 						
INBERTSIOAK ETA GASTUAK GAUZATZEA, GUZTIRA	2.870.512	3.111.847	3.372.465	3.359.644	3.878.224	15,4
BPGd	73.697.375	76.888.235	79.537.107	71.828.616	78.004.109	8,6
BPGd-ren GAINEKO GASTUA (%)	3,9	4,0	4,2	4,7	5,0	

Iturria: EAEko sektore publikoaren urteko aurrekontuen eta kontuen likidazioa; auditoretza-txostena, urteko kontuak eta OSAKIDETZaren kudeaketa-txostena, eta geuk egina

** Gutzizkoak ez datoz beti bat zifren biribiltzearen baturarekin*

V.3.29. TAULA OSAKIDETZAREN AURREKONTUAK ETA GASTUEN LIKIDAZIOA (milaka euro)*

	2019			2020			2021		
	AURREKONTU ALDATUA	LIKIDAZIOA	ALDEA (L-A)	AURREKONTU ALDATUA	LIKIDAZIOA	ALDEA (L-A)	AURREKONTU ALDATUA	LIKIDAZIOA	ALDEA (L-A)
INBERTSIOAK	255.810	240.508	-15.302	92.503	105.610	13.107	119.486	197.067	77.581
USTIAPEN-GASTUAK	3.110.275	3.131.957	21.682	3.209.793	3.254.034	44.241	3.420.663	3.681.157	260.494
LANGILEEN GASTUAK	2.019.919	2.019.405	-514	2.161.790	2.161.287	-503	2.271.793	2.507.717	235.924
FUNTZIONAMENDU-GASTUAK	948.920	947.665	-1.255	1.043.965	1.088.755	44.790	1.144.048	1.115.714	-28.334
BESTE BATZUK (FINANTZA-GASTUAK, DIRULAGUNTZAK...)	141.436	164.887	23.451	4.038	3.992	-46	4.822	57.726	52.904
GUZTIRA	3.366.085	3.372.465	6.380	3.110.275	3.372.465	262.190	3.540.149	3.878.224	338.075

Iturria: EAEko sektore publikoaren urteko aurrekontuen eta kontuen likidazioa; auditoretza-txostena, urteko kontuak eta OSAKIDETZAREN kudeaketa-txostena, eta geuk egina

** Guztizkoak ez datoz beti bat zifren biribiltzearen baturarekin*

3.6. EUSKO JAURLARITZAREN 2013-2020 OSASUN PLANAREN JARRAIPENA

Eusko Jaurlaritzaren 2013-2020 Osasun Plana lehenetsunezko 5 arlotan egituratzen da, eta horietako bakoitzak plan horri lotutako helburuak, ekintzak eta adierazleak jasotzen ditu.

- 1. ARLOA: Osasuna eta osasun-ekitatea txertatzea politika publiko guztietan, eta euskal osasun-sistema ekitatiboa eta kalitatezkoa indartzea.
- 2. ARLOA: Biztanlerian esku hartzea, morbiditate eta herritarrengan eragin handiena duten gaixotasunen mendekotasuna murrizteko.
- 3. ARLOA: Zahartze osasungarria sustatzea.
- 4. ARLOA: Haurtzaroen eta gaztaroen osasun-baldintzak eta -aukerak hobetzea.
 - 5. ARLOA: Ingurune eta bizimodu osasungarriak, sektoreen arteko lankidetzaren eta tokiko eta komunitateko lanaren bidez. 1. eta 5. arloak zeharkakoak dira, eta 2., 3. eta 4. eremuak, berriz, talde eta populazio espezifikoetarako buruzkoak.

V.3.30. TAULA EUSKO JAURLARITZAREN 2013-2020 OSASUN PLANA. LEHENTASUNEZKO ARLOAK ETA HELBURUAK				
1. ARLOA: EKITATEA ETA ERANTZUKIZUNA	2. ARLOA: GAIXOTASUNA DUTEN PERTSONAK	3. ARLOA: ZAHARTZE OSASUNGARRIA	4. ARLOA: HAURREN ETA GAZTEEN OSASUNA	5. ARLOA: INGURUNE ETA JOKABIDE OSASUNGARRIAK
1.1 helb. Osasuna politika guztietan	2.1 helb. Arreta soziosanitario integrala, integratua eta pertsonak ardatz dituen	3.1 helb. Zahartze aktiboa	4.1 helb. Haurren osasuna	5.1 helb. Jarduera fisikoa
1.2 helb. Zuzentasuna	2.2 helb. Farmakoen erabilera egokia	3.2 helb. Laguntza soziosanitaria	4.2 helb. Arreta goiztiarra	5.2 helb. Osasuna eta elikadura
1.3 helb. Osasunean eta osasuneko ekitaterik ezetan eragina duten egiturazko eta bitarteko baldintzatzaileak	2.3 helb. Segurtasun klinikoak	3.3 helb. Gaitasun funtzionala eta autonomia	4.3 helb. Haurren eta gazteen gizentasuna	5.3 helb. Sexu- eta ugalketa-osasuna
1.4 helb. Pertsonen parte-hartzea eta ahalduak	2.4 helb. Egoera terminala eta zainketa aringarriak	3.4 helb. Teknologia berriak	4.4 helb. Nerabezaroa eta gaztaroa	5.4 helb. Adikzioak
1.5 helb. Genero-indarkeria	2.5 helb. Minbizia	3.5 helb. Etxeko arreta		5.5 helb. Osasun mentala
1.6 helb. Osasuneko desberdintasunak monitorizatzea	2.6 helb. Gaixotasun kardiobaskularrak			5.6 helb. Ingurunea
1.7 helb. Ikerketa eta berrikuntza	2.7 helb. Diabetesa eta sindrome metabolikoa			5.7 helb. Lan-ingurunea
	2.8 helb. Gizentasuna			
	2.9 helb. Biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK)			
	10. helb. Gaixotasun mentala			
	11. helb. Sexu-transmisioko infekzioak			
	12. helb. Beste gaixotasun garrantzitsu batzuk			

Kapitulu honen amaieran, ez dago 2020rako eguneratutako daturik 2013-2020 Osasun Planaren emaitzen txostenari buruz. Argitaratutako azkenak 2019koak dira 101 adierazleri buruzko informazioa izan zenean (gutzizkoaren % 92). 101 horietatik, 2020rako helburua beteta dago edo helbururako joera erakusten du 43 adierazletan (% 39), 24k (% 24) hobekuntza erakusten dute oinarriko egoeraren aldean, baina egungo joerarekin ez da 2020rako helburua lortzea aurreikusten, eta 34tan (% 31) egoera okertu egin da oinarriko egoeraren aldean.

V.3.31. TAULA EUSKO JAURLARITZAREN 2013-2020 OSASUN PLANA. ADIERAZLEEN JOERA 2019AN		
Kop.	%	JOERA
43	39	LORTUTAKO HELBURUA EDO 2020ko HELBURUA LORTZEKO JOERA
24	24	HOBKUNTZA OINARRIZKO EGOERAN, BAINA EGUNGO JOERAREKIN EZ DA 2020ko HELBURUA LORTZEA AURREIKUSTEN.
34	31	OKERTZEA OINARRIZKO EGOERAREKIN ALDERATUTA

Deigarria da diabetesari, osasun mentalari, antidepresiboen eta antsiolitikoaren kontsumoari eta sexu-transmisiozko gaixotasunei buruzko adierazleek ez dutela bilakaera onik.

V.3.32. TAULA EUSKO JAURLARITZAREN 2013-2020 OSASUN PLANAREN JARRAIPENA. 2019ko DATUAK					
Kop.	ADIERAZLEA	ABIAPUNTUKO EGOERA	2019KO EGUNERATZEA	HELBURUA 2020	ITURRIA
1	Osasun Planaren Zuzendaritza Batzordea eta Osasun Batzorde Teknikoa eratzea eta abian jartzea politika guztietan	---	Beteta	2013ko abendua/2014ko martxoa	Eusko Jaurlaritza Osasun Saila
2	Sektoreek Osasun Planarekin duten konpromisoa baliozkotzea	---	Beteta	1. txostena 2016an	Eusko Jaurlaritza
4	Sektoreek Osasun Planarekin duten konpromisoa baliozkotzea	---	Beteta	1. txostena 2015ean	Eusko Jaurlaritza Osasun Saila
5	Lehen mailako arretako gastu arrunta (asistentzia sanitario anbulatorioa) / osasun arloko gastu arrunt osoa proportzioa	16,829	17,030	>% 21	Eustat. Osasunaren kontua
6	Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI). Gizonak (urteak)	69,3	70,531	↑% 5	EAEIOI
6bis	Desgaitasunik gabeko bizi-itxaropena (DGBI). Emakumeak (urteak)	73,1	72,8	↑% 5	EAEIOI
7	Gizarte desberdintasunak bizi-itxaropenean 30 urterekin. Gizonak (%) 32	14,1	12,133	↓% 10	Osasun Saila Osasun Ikasketa eta Ikerketa Zerbitzua
7bis	Gizarte desberdintasunak bizi-itxaropenean 30 urterekin. Emakumeak (%)	9,0	8,2	↓% 5	Osasun Saila Osasun Ikasketa eta Ikerketa Zerbitzua
8	Desberdintasunak osasun-zerbitzuen eskuragarritasunean Itxaron-zerrenda kirurgikoan dauden paziente onkologikoen %, 28 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Gizonak	98,234	98,7	Mailaz mailako igoera	Osakidetza
8bis	Desberdintasunak osasun-zerbitzuen eskuragarritasunean Itxaron-zerrenda kirurgikoan dauden paziente onkologikoen %, 28 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Emakumeak	98,7	98,7	Mailaz mailako igoera	Osakidetza

8bis2	Desberdintasunak osasun-zerbitzuen eskuragarritasunean ltxaron-zerrenda kirurgikoan dauden paziente kardiakoen %, 80 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Gizonak	96,2	98,6	Mailaz mailako igoera	Osakidetza
8bis3	Desberdintasunak osasun-zerbitzuen eskuragarritasunean ltxaron-zerrenda kirurgikoan dauden paziente kardiakoen %, 80 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Emakumeak	96,8	97,8	Mailaz mailako igoera	Osakidetza
8bis4	Desberdintasunak osasun-zerbitzuen eskuragarritasunean ltxaron-zerrenda kirurgiko orokorretako batez besteko atzerapena, 55 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Gizonak	51,7	51,2	Pixkanakako murrizketa	Osakidetza
8bis5	Desberdintasunak osasun-zerbitzuen eskuragarritasunean ltxaron-zerrenda kirurgiko orokorretako batez besteko atzerapena, 55 egun edo gutxiagoko atzerapenarekin. Emakumeak	52,1	51,1	Pixkanakako murrizketa	Osakidetza
9	Hautemandako osasun txarreko desberdintasunak, maila sozialaren eta sexuaren arabera, gizonak (DIE)	2,4	2,631	↓% 10	EAEOI
9bis	Hautemandako osasun txarreko desberdintasunak, maila sozialaren eta sexuaren arabera, emakumeak (DIE)	2,6	2,8	↓% 20	EAEOI
10	Gazteen langabezia-tasa (16-24 urte), gizonak (%)	32,835	19,636	% 15	Eustat. BJA
10bis	Gazteen langabezia-tasa (16-24 urte), emakumeak (%)	28,8	21,9	% 15	Eustat. BJA
11	Pobrezia-arriskua. Errenta pertsonalaren Gini indizea 37	0,5	0,538	↓% 5	Eustat. Errenta pertsonal eta familiarren azterlana
12	Benetako pobrezia egoeran dauden etxeak, erreferentziako pertsonaren arabera, gizonak (%)	3,7	4,531	↓% 10	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte-premiei buruzko inkesta 2018
12bis	Benetako pobrezia egoeran dauden etxeak, erreferentziako pertsonaren arabera, emakumeak (%)	11,1	9,3	↓% 10	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Gizarte-premiei buruzko inkesta 2018
14	Eskola-uzte goiztiarra (18-24 urte), gizonak (%) 39	8,3	10,031	↓% 10	Eustat. BJA
14bis	Eskola-uzte goiztiarra (18-24 urte), emakumeak (%)	7,1	7,5	↓% 10	Eustat. BJA
15	Osasun-aholku aktibo eta operatiboak	---	0	2 bilera urtean	Osasun Saila
17	Pazienteen eta euskal osasun-sistemaren erabiltzaileen eskubide eta betebeharren Karta berria berrikustea eta argitaratzea.	---	EHAAn argitaratua 40	2015	Osasun Saila
18	Osakidetzaren berdintasun-politikak bultzatzeko eta koordinatzeko administrazio-unitatea sortzea 41	---	Bai 42	2015	Osakidetza

19	Osasunaren Euskal Behatokia sortzea	---	Ez	Bai, 2015ean	Osasun Saila
20	Gizarte-estratifikazioko aldagaiak sartzeara osasun-informazioko sistemetan	---	Bai	Bai, 2016an	Osasun Saila Osakidetza
21	Osasuneko gizarte desberdintasunei buruzko txostena	---	Bai 43	2015	Osasun Saila
22	Indexatutako argitalpenak (n)	722	1,37231	↑% 40	Bioef
23	Laguntza-bide klinikoen hedapena Erakunde Asistentzial Integratuetan 44 (%)	---	65,8	% 100	Osakidetza
24	Lehenetsitako patologien zaintzaileentzako prestakuntza-plana	---	Bai	Bai, 2016an	Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila Osakidetza
25	Ezarritako preskripzio partekatuko prozesua	---	Ezarrita ⁴⁵	2015	Osakidetza Osasun Saila
26	Mikrobioen eta erresistentzien aurkako zaintza-programa	---	Beteta	Bai, 2015ean	Osakidetza Osasun Saila
27	ESI/eskualde guztietako zerbitzu/unitateetako gertakariak jakinarazteko sistemaren benetako erabilera-maila (%)	5	20	20	Osakidetza- Segurtasun Klinikoa
28	Pazienteak unibokoki identifikatzeko sistema/protokoloa ezartzea (%)	75	100	100	Osakidetza- Segurtasun Klinikoa
29	Erakunde sanitario integratuetan/eskualdeetan aplikatutako zainketa aringarrien planak (%)	---	100	100	Programa- kontratua
30	Aurretiatzko borondateen adierazpena duten biztanleak, gizonak (%)	0,146	1,1	>% 15	Osasun Saila
30bis	Aurretiatzko borondateen adierazpena duten biztanleak, emakumeak (%)	0,1	1,9	>% 15	Osasun Saila
31	Onkologia medikoa duten zerbitzu-erakundeak, tumoreen batzordeen bidez azterketa ezarrita dutenak (%) 47	0	100	10048	Osakidetza
32	Minbiziaren intzidentzia 65 urtetik beherakoengan, gizonak (tasa/100.000)	263,549	258,850	↓% 10	Minbiziaren Erregistroa
32bis	Minbiziaren intzidentzia 65 urtetik beherakoengan, emakumeak (tasa/100.000)	215,5	242,0	↓% 10	Minbiziaren erregistroa
33	Minbiziagatiko heriotza-tasa 65 urtetik beherakoengan, gizonak (tasa/100.000)	99,3	72,231	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
33bis	Minbiziagatiko heriotza-tasa 65 urtetik beherakoengan, emakumeak (tasa/100.000)	55,4	51,6	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
34	Biriketako minbiziaren intzidentzia 65 urtetik beherakoengan, gizonak (tasa/100.000)	37,849	38,750	↓% 10	Minbiziaren erregistroa
34bis	Biriketako minbiziaren intzidentzia 65 urtetik beherakoengan, emakumeak (tasa/100.000)	16,5	17,3	Goranzko joera geldiaraztea	Minbiziaren erregistroa
35	Biriketako minbiziagatiko heriotza-tasa 65 urtetik beherakoengan, gizonak (tasa/100.000)	29,9	22,831	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
35bis	Biriketako minbiziagatiko heriotza-tasa 65 urtetik	11,5	9,7	Goranzko joera geldiaraztea	Hilkortasunaren erregistroa

	beherakoengan, emakumeak (tasa/100.000)				
36	Koloneko, ondesteko eta uzkiko minbiziaren intzidentzia (tasa/100.000), gizonak	90,949	73,050	↓% 10	Minbiziaren erregistroa
36bis	Koloneko, ondesteko eta uzkiko minbiziaren intzidentzia (tasa/100.000), emakumeak	39,8	37,3	↓% 10	Minbiziaren erregistroa
37	Koloneko, ondesteko eta uzkiko minbiziagatiko heriotza-tasa (tasa/100.000), gizonak	30,9	23,531	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
37bis	Koloneko, ondesteko eta uzkiko minbiziagatiko heriotza-tasa (tasa/100.000), emakumeak	13,6	10,8	↓% 5	Hilkortasunaren erregistroa
38	Kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programan parte hartzea, gizonak (%)	62,9	69,931	↓% 10	Kolon eta ondesteko minbizia bahetzeko programa
38bis	Kolon eta ondesteko minbiziaren detekzio goiztiarreko programan parte hartzea, emakumeak (%)	68,7	74,9	↓% 10	Kolon eta ondesteko minbizia bahetzeko programa
39	Bularreko minbiziaren intzidentzia (tasa/100.000)	94,849	108,150	↓% 5	Minbiziaren erregistroa
40	Bularreko minbiziagatiko heriotza-tasa (tasa/100.000)	18,1	14,931	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
41	Birbaskularizazioa duten emakumeen/gizonen proportzioa sindrome koronario akutuaren kasuetan	0,7	0,8	>0,8	Osakidetza
42	Errehabilitazio kardiakoko programan artatutako biztanleak. Gizonak (%)	25,452	23,453	>75	Osakidetza
42bis	Errehabilitazio kardiakoko programan artatutako biztanleak. Emakumeak (%)	10,6	10,5	>75	Osakidetza
43	MIAgatiko hilkortasun goiztiarra 54 (25-74 urte), gizonak (tasa/100.000)	47,7	36,131	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
43bis	MIAgatiko hilkortasun goiztiarra (25-74 urte), emakumeak (tasa/100.000)	7,1	8,5	Tasa egonkortzea	Hilkortasunaren erregistroa
44	Istripu zerebrobaskularra (GHI) izan eta errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatua duten gizonak (%)	19,8	34,2	>75	Osakidetza
44bis	Istripu zerebrobaskularra (GHI) izan eta errehabilitazio goiztiarreko plan pertsonalizatua duten emakumeak (%)	20,2	31,2	>75	Osakidetza
45	Hemoglobina glikosilatua <% 7 diabetes mellitusa duten gizonengan (%)	42,6	41,1	>50	Osakidetza
45bis	Hemoglobina glikosilatua <% 7 diabetes mellitusa emakumeengan (%)	42,4	43,2	>50	Osakidetza
46	Gizarte desberdintasunak DM IIren prebalentzian, gizonak (DIE)	1,2	2,131	↓% 5	EAEOI
46bis	Gizarte desberdintasunak DM IIren prebalentzian, emakumeak (DIE)	2,3	3,4	↓% 5	EAEOI
47	Diabetesari lotutako giltzurrun-gutxiegitasun larria milioi pertsonako, gizonak	19	19,831	↓% 10	Osakidetza. UNIPAR

47bis	Diabetesari lotutako giltzurrun-gutxiegitasun larria milioi pertsonako, emakumeak	6	8,3	↓% 10	Osakidetza. UNIPAR
48	Diabetesaren ondoriozko bigarren mailako anputazioen tasa (1000 biztanleko), gizonak	5,755	5,731	↓% 15	Osasun Saila DGOB
48bis	Diabetesaren ondoriozko bigarren mailako anputazioen tasa (1000 biztanleko), emakumeak	1,1	1,6	↓% 15	Osasun Saila DGOB
49	Hilkortasun goiztiarra (25-74 urte) mellitus diabetesagatik 56 (tasa/100.000), gizonak	7,6	5,931	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
49bis	Hilkortasun goiztiarra (25-74 urte) mellitus diabetesagatik (tasa/100.000), emakumeak	2,5	2,8	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
50	Gehiegizko pisua duten pertsonak, gizonak (%)	43	40,131	↓% 10	EAEOI
50bis	Gehiegizko pisua duten pertsonak, emakumeak (%)	28,2	27,4	↓% 10	EAEOI
51	Gizentasuna duten pertsonak, gizonak (%)	13,9	13,731	↓% 10	EAEOI
51bis	Gizentasuna duten pertsonak, emakumeak (%)	12,6	11,4	↓% 10	EAEOI
52	Gizarte desberdintasunak gizentasunaren prebalentzian, gizonak (DIE)	1,6	1,731	↓% 10	EAEOI
52bis	Gizarte desberdintasunak gizentasunaren prebalentzian, emakumeak (DIE)	2,8	3,1	↓% 15	EAEOI
53	Berrosptaleratzeak 30 egunera BGBK duten pazienteetan, gizonak (%)	20	18,6	↓% 15	Osakidetza
53bis	Berrosptaleratzeak 30 egunera BGBK duten pazienteetan, emakumeak (%)	17	15,9	↓% 15	Osakidetza
54	Errehabilitazio-programa duten BGBK pazienteak. Gizonak %	---	7,3	>% 75	Osakidetza
54bis	Errehabilitazio-programa duten BGBK pazienteak. Emakumeak %	---	6,7	>% 75	Osakidetza
55	Heriotza-tasa gaixotasun mentalengatik (100.000ko), gizonak	21,1	21,631	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
55bis	Heriotza-tasa gaixotasun mentalengatik (100.000ko), emakumeak	18,8	21,2	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
56	Gizarte desberdintasunak ideia suiziden prebalentzian sexuaren arabera, gizonak (I. taldea: 3,9. V. taldea: 6,0) (%)	2,1	2,231	↓% 5	EAEOI
56bis	Gizarte desberdintasunak ideia suiziden prebalentzian sexuaren arabera, emakumeak (I. taldea: 2,7. V. taldea: 7,3) (%)	4,6	1,6	↓% 10	EAEOI
57	Suizidioaren ondoriozko heriotza-tasa (100.000ko). Gizonak	9,5	8,431	↓% 10	Hilkortasunaren erregistroa
57bis	Suizidioaren ondoriozko heriotza-tasa (100.000ko). Emakumeak	3,4	3,3	↓% 5	Hilkortasunaren erregistroa
58	Antsiolitikoen kontsumoa DBE 57	54	88,9	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza
58a	Antsiolitikoen kontsumoa DBE, gizonak	55,458	61,3	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza
58b	Antsiolitikoen kontsumoa DBE, emakumeak	106,2	112,4	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza

58bis	Antidepressiboen kontsumoa DBE	61	63,4	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza
58bis a	Antidepressiboen kontsumoa DBE, gizonak	29,358	36,7	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza
58bis b	Antidepressiboen kontsumoa DBE, emakumeak	73,6	87,0	Goranzko joera geldiaraztea	Osasun Saila Farmazia Zuzendaritza
59	GIBagatiko infekzio berrien kopurua, gizonak	132	147	↓% 10	Hiesaren eta STIen plana
59bis	GIBagatiko infekzio berrien kopurua, emakumeak	29	25	↓% 10	Hiesaren eta STIen plana
60	GIBagatiko infekzioen diagnostiko berantiarren tasa, gizonak (%)	43,0	51,1	↓% 30	Hiesaren eta STIen plana
60bis	GIBagatiko infekzioen diagnostiko berantiarren tasa, emakumeak (%)	59,0	64	↓% 30	Hiesaren eta STIen plana
61	Aitortutako sifili kasuak, gizonak	147	22131	↓% 30	Osasun Saila - EAEIMS
61bis	Aitortutako sifili kasuak, emakumeak	41	21	↓% 30	Osasun Saila - EAEIMS
62	Aitortutako gonokozia kasuak, gizonak	159	45731	↓% 30	Osasun Saila - EAEIMS
62bis	Aitortutako gonokozia kasuak, emakumeak	32	98	↓% 30	Osasun Saila - EAEIMS
63	Giltzurrun-dialisia duten pazienteak milioi bat pertsonako (MBP) 59, gizonak	78,460	75,431	↓% 5	Osakidetza-UNIPAR
63bis	Giltzurrun-dialisia duten pazienteak milioi bat pertsonako (MBP), emakumeak	34,4	37,3	↓% 5	Osakidetza-UNIPAR
64	Gaixotasun arraroen erregistroa sortzea		Sortua	2014	Osasun Saila - Gaixotasun arraroen erregistroa
65	"Hiri adeitsuak adinekoekin" programa duten hirietan bizi diren biztanleak	% 37	% 69	>% 75	Eudel Osasun Saila Eustat
66	64 urtetik gorako pertsona sedentarioak, gizonak (%)	28	2131	↓% 10	EAEOI
66bis	64 urtetik gorako pertsona sedentarioak, emakumeak (%)	44	38	↓% 15	EAEOI
67	60 urtetik gorako gizon elkartuen ehunekoa	10,0	36,8	↑% 15	Eustat. Bizi baldintzei buruzko inkesta 2019
67 bis	60 urtetik gorako emakume elkartuen ehunekoa	14,0	28,8	↑% 15	Eustat. Bizi baldintzei buruzko inkesta 2019
69	Historia klinikoaren eskuragarritasuna eremu soziosanitario osorako (%)	-	98,5	% 100	Osakidetza
71	Adinekoentzako Arreta Plana ezarri duten osasun-zentroak (%)	-	78,6	% 100	Osakidetza
72	Adinekoentzako zerbitzu teknologikoen zorroa ezartzea	-	Prozesuan	2015ean	Osasun Saila
73	75 urtetik gorako pertsonak hilabete baino gutxiagoan berrospitaleratzea, gizonak (%)	10,5	10,4	↓% 20	Osakidetza
73bis	75 urtetik gorako pertsonak hilabete baino gutxiagoan berrospitaleratzea, emakumeak (%)	7,8	7,9	↓% 20	Osakidetza
74	Jaiotzean pisu txikia duten haurrak (%)	7,0	6,931	↓% 10	Jaioberrien baheketa programa

75	Amagandiko edoskitzea 6 hilabetera, gizonak (%)	26,0	65,6	>% 35	Osakidetza
75bis	Amagandiko edoskitzea 6 hilabetera, emakumeak (%)	26,0	67,7	>% 35	Osakidetza
76	Haurren hortzak zaintzeko programaren estaldura (%)	66,0	68,2	>% 75	Haurren hortzak zaintzeko programa
77	12 urterekin txantxarrak ez duten haurrak (CAOD%=0)	74,0	76,0	% 80	Haurren hortzak zaintzeko programa
78	Erakunde sanitario integratuak/Arreta goiztiarren ereduaren sartutako eskualdeak	1	Guztiak	Guztiak	Osakidetza
79	Gehiegizko pisua duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), mutilak (%)	25,061	20,0	↓% 10	Osakidetza. OBIEE
79bis	Gehiegizko pisua duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), neskek (%)	14,0	15,1	↓% 10	Osakidetza. OBIEE
79-1	Gizentasuna duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), mutilak (%)	4,3	4,6	↓% 10	Osakidetza. OBIEE
79-1bis	Gizentasuna duten adingabeak (6, 10 eta 14 urte), neskek (%)	4,1	4,2	↓% 10	Osakidetza. OBIEE
80	Gatza eskola-menuetan (gramoak eguneko)	---	4,2331	< 1,7562	Osasun Saila
81	Gantz guztien edukia eskola-menuetan (kcal %)	---	36,031	< 30	Osasun Saila
81bis	Gantz asean edukia eskola-menuetan (kcal %)	---	7,031	< 10	Osasun Saila
82	Jarduera fisiko osasungarriak egiten ez duten gazteen (14-24 urte) prebalentzia, mutilak (%) 63	18,1	14,331	↓% 20	EAEOI
82bis	Jarduera fisiko osasungarriak egiten ez duten gazteen (14-24 urte) prebalentzia, neskek (%)	26,7	17,3	↓% 20	EAEOI
83	Heriotza-tasa zirkulazio-istripuegatik, mutilak (15-29 urte) (tasa/100.000)	6,7	2,731	↓% 20	Hilkortasunaren erregistroa
83bis	Heriotza-tasa zirkulazio-istripuegatik, neskek (15-29 urte) (tasa/100.000)	2,0	1,3	↓% 20	Hilkortasunaren erregistroa
84	Heriotza-tasa suizidioagatik (15-29 urte), mutilak (tasa/100.000)	7,1	4,931	↓% 20	Hilkortasunaren erregistroa
84bis	Heriotza-tasa suizidioagatik (15-29 urte), neskek (tasa/100.000)	1,6	1,4	↓% 20	Hilkortasunaren erregistroa
85	HBEak 20 urtetik beherakoetan (tasa x1000)	10,0	6,931	↓% 50	HBEen erregistroa
86	Sedentarisismoaren prebalentzia, gizonak (%)	26,6	20,131	↓% 10	EAEOI
86bis	Sedentarisismoaren prebalentzia, emakumeak (%)	34,0	25,4	↓% 15	EAEOI
87	Gizarte desberdintasunak sedentarisismoan, sexuaren eta gizarte-mailaren arabera, gizonak (DIE)	1,4	1,131	↓% 10	EAEOI
87bis	Gizarte desberdintasunak sedentarisismoan, sexuaren eta gizarte-mailaren arabera, emakumeak (DIE)	1,2	1,3	↓% 10	EAEOI
88	Fruta egunero kontsumitzen duten pertsonak, gizonak (%)	62,0	67,831	↑% 20	EAEOI
88bis	Fruta egunero kontsumitzen duten pertsonak, emakumeak (%)	69,2	75,1	↑% 20	EAEOI
89	Barazkiak egunero kontsumitzen dituzten pertsonak, gizonak (%)	21,7	27,131	↑% 20	EAEOI

89bis	Barazkiak egunero kontsumitzen dituzten pertsonak, emakumeak (%)	32,1	37,0	↑% 20	EAEOI
90	Gantz guztien edukia menu kolektiboetan (kcal %)	---	--64	< 30	Osasun Saila
90bis	Gantz asean edukia menu kolektiboetan (kcal %)	---	--64	< 10	Osasun Saila
94	Episiotomia erditze eutozikoan (%)	38,065	27,2	<% 15	Osakidetza
95	Haurdunaldiaren borondatezko etendura (HBEak), 1.000 emakumeko tasa (adin ugalkorrean daudenak)	9,9	9,831	↓% 50	HBEen erregistroa
96	Gizarte desberdintasunak tabakismoan (15-44 urte), gizonak (DIE)	2,0	1,931	↓% 20	EAEOI
96bis	Gizarte desberdintasunak tabakismoan (15-44 urte), emakumeak (DIE)	2,4	1,8	↓% 20	EAEOI
97	Besteren tabako-kearen eraginpean dauden pertsonak, gizonak (%).	17,1	14,331	↓% 50	EAEOI
97bis	Besteren tabako-kearen eraginpean dauden pertsonak, emakumeak (%).	15,6	12,8	↓% 50	EAEOI
98	Tabakismoari buruzko osasun-aholkua lehen mailako arretan (%)	33,7	28,4	>% 60	Osakidetza
99	Tabakismoaren tratamenduan dauden gizon erretzaileak (%)	1,9	0,7	↑% 15	Osakidetza
99bis	Tabakismoaren tratamenduan dauden emakume erretzaileak (%)	2,5	1,1	↑% 15	Osakidetza
100	Alkohola kontsumitzen hasteko adina, gizonak	15,8	16,231	↑18	Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017
100bis	Alkohola kontsumitzen hasteko adina, emakumeak	17,3	17,5	↑18	Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017
101	Epe luzera alkohol-kontsumoari lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duten gazteen (15-24 urte) prebalentzia (%), gizonak 66	17,3	11,931	↓% 30	EAEOI
101 bis	Epe luzera alkohol-kontsumoari lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duten gazteen (15-24 urte) prebalentzia (%), emakumeak 66	17,9	12,4	↓% 30	EAEOI
102	Alkoholaren gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa asteburuetan gazteen artean, gizonak (15-34 urte) (%)	29,267	21,9	↓% 20	Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017
102 bis	Alkoholaren gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa asteburuetan gazteen artean, emakumeak (15-34 urte) (%)	15,9	13,0	↓% 20	Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017
103	Epe luzera alkohol-kontsumoari lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duen biztanleriaren prebalentzia (%), gizonak 28	25,1	16,831	↓% 10	EAEOI
103bis	Epe luzera alkohol-kontsumoari lotutako osasun-arazoak izateko arrisku handia duen biztanleriaren prebalentzia (%), emakumeak	14,7	11,1	↓% 10	EAEOI
104	Kalamuaren eguneroko kontsumoa gazteen artean, gizonak (15-34 urte) (%)	2,5	6,131	↓% 10	Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017


104bis	Kalamuaren eguneroko kontsumoa gazteen artean, emakumeak (15-34 urte) (%)	0,9	1,4	↓% 10	Adikzioei buruzko Euskadiko Inkesta 2017
105	Osasun mental onaren prebalentzia, gizarte mailaren eta generoaren arabera (MHI-5). Gizonak (I. taldea: 76,1. V. taldea: 70,1) (%)	6,0	2,931	↓% 50	EAEOI
105bis	Osasun mental onaren prebalentzia, gizarte mailaren eta generoaren arabera (MHI-5). Emakumeak (I. taldea: 69,3. V. taldea: 66,1) (%)	3,2	4,8	↓% 30	EAEOI
106	Airearen kalitatea PM1068 < 20 windog/m3 airean duten EAEko biztanleak (%)	59,0	96,7	% 75	Osasun Saila
107	Kontsumorako ura tratamenduko azpiproduktuekin (< 50 windog/l) jasotzen duen populazioa	47,0	% 50,7	>% 95	Osasun Saila EKUIS
108	Gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasa, gizonak (tasa/1.000)	4,2	3,331	↓% 10	OSALAN
10bis	Gaixotasun profesionalen intzidentzia-tasa, emakumeak (tasa/1.000)	1,5	1,9	↓% 10	OSALAN
109	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia-tasa, gizonak (tasa/100.000)	8,7	8,231	↓% 10	OSALAN
109bis	Lan-istripu hilgarrien intzidentzia-tasa, emakumeak (tasa/100.000)	0,9	0,5	↓% 10	OSALAN
110	Laneko arriskuen prebentzio-zerbitzuen tutoretzapeko enpresak (%)	54,3	65,031	>% 95	OSALAN
Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN 2013-2020 OSASUN PLANA. 2019an eguneratutako adierazleak					

1. **EUSTAT.** Osasun Inkesta. 2019
2. **EUSTAT.** Osasun-arreta pribatuaren estatistika 2021.
3. **EUSTAT.** Heriotzen estatistika 2021 eta 2022.
4. **EUSTAT.** Ospitaleetako erikortasunaren estatistika. 2021
5. **EUSKO JAURLARITZA.** EAEko Administrazio Orokorraren aurrekontu-likidazioak eta urteko kontuak
6. **EUSKO JAURLARITZA.** Zuzenbide pribatuko erakunde publikoen, sozietate publikoen eta sektore publikoko fundazioen (OSAKIDETZA) aurrekontu-likidazioak eta urteko kontuak
7. **EUSKO JAURLARITZA.** Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak
8. **EUSKO JAURLARITZA,** Osasun Saila. Hilkortasunaren erregistroa. Berariazko eskaera.
9. **EUSKO JAURLARITZA.** EAEko Osasun Inkesta (EAEOI 2018)
10. **EUSKO JAURLARITZA.** 2013-2020 Osasun Planaren jarraipena. 2019ko datuak
11. **GAZTEEN EUSKAL INSTUTUA**
12. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEKO MINISTERIOA.** Espainiako Osasun Inkesta Nazionala 2019
13. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEKO MINISTERIOA.** Osasun Sistema Nazionalaren urteko txostena 2019
14. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEKO MINISTERIOA.** Funtsezko adierazleak
15. **OSASUN, KONTSUMO ETA GIZARTE ONGIZATEKO MINISTERIOA.** Osasun Sistema Nazionalaren baliabide ekonomikoak.
16. **OSAKIDETZA.** Berariazko eskaerak. 2022ko datuak.

4. ETXEBIZITZA

Ondoren, EAEko 2022ko etxebizitzari buruzko zifra nagusiak azalduko dira, eskaintzaren aldetik (salerosketa eta prezioak), nahiz eskariaren aldetik (eskuratze beharra, aldaketa eta birgaikuntza, eta etxebizitza babestuaren eskaria ere bai). Alokairuaren inguruan, Eusko Jaurlaritzako Alokairu Merkatuko Estatistikaren (AME) emaitzak eta etxebizitza libreko transakzioen batez besteko balioari buruzko autonomia erkidegoen araberrako konparazioa eguneratu dira. Ondoren, urteko eraikuntza jarduerari buruzko datu nagusiak aurkeztu dira.

Era berean, etxebizitzaren krisiaren inpaktua aztertu da (hipotekak eta kaleratzeak), eta, bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak, bere plan zuzentzailearen bidez eta foru aldundiek ohiko etxebizitzagatiko PFEZren kenkariaren bidez gauzatuak politikak ebaluatu da.





EAEko higiezin merkatuak 2022an izan duen bilakaeraren ezaugarri nagusia da, Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Salerosketaren Estatistika berriaren (HSEE) emaitzen arabera, etxebizitzaren salerosketen kopuruak % 9,6ko hazkundera izan duela, aurreko urteko +% 20,6ari gehitu zaiona, 23.600 eragiketa gainditu arte. Bestalde, etxebizitza librearen (berriaren eta erabiliaren) metro koadro erabilgarriaren batez besteko prezioa 2.932,2 eurokoa da, 2021ean baino % 2,5 gehiago.

4,1. ETXEBIZITZA ESKAINTZA

4.1.1. Etxebizitzaren salerosketa eta prezioak: Eusko Jaurlaritzaren Higiezin Salerosketaren Estatistika (HSEE)

1994tik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren "Higiezin Eskaintzaren Estatistika" (HEI) higiezin merkatuan salgai edo alokairuan dauden higiezin eskaintza-prezioak eskaintzeaz arduratu den estatistika-eragiketa izan da. Horrela, higiezin merkatuaren dinamikaren jarraipena egin ahal izan da eskaintzaren ikuspegitik, bai dimentsionamenduari eta kualifikazioari dagokienez, bai prezioen bilakaerari dagokienez. Hala ere, azken hamarkadetan higiezin merkatuak izan dituen aldaketa garrantzitsuak direla eta, administrazio publikoek ez dute etxebizitzaren eskaintza-prezioei buruzko informaziorik erabili, eta, gaur egun, etxebizitzaren informazio estatistiko ofizialaren hornitzaile nagusiak higiezin salerosketa-prezioetan oinarritzen dira. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren Estatistika Organoak Higiezin Eskaintzaren Estatistika

amaitzea erabaki zuen 2021ean, eta horren ordez **Higiezin Salerosketaren Estatistika (HSEE)** jarri zuen, Erregistratzaileen Elkargoak eskura duen informaziotik abiatuta higiezin salerosketa-prezioen informazioa eskaintzen duena. 2022ko Memoria horretatik aurrera, beraz, iturri horretatik datozen datuak emango dira. Datu horiek, gainera, aurreko edizioetako "Higiezin jarduera: etxebizitzaren salerosketa" epigrafea ordeztzen dute, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioa iturri zuena.



2022an 23.623 etxebizitza salerosi dira Euskadin, 2021ean baino % 9,6 gehiago eta 2012an baino % 87,7 gehiago. Azken hamarkadan, etxebizitza erabilien salerosketen bilakaera nabarmendu behar da, % 187,7 igo baitira (+% 10, 2021eko datuekin alderatuta). Salerosketa guztien % 15,4 etxebizitza berriak izan ziren eta % 84,6 etxebizitza erabiliak. Lurralde-banaketari dagokionez, salerosketen % 16,2 Araban egin dira (+% 14 2021ekoaren aldean), % 52,9 Bizkaian (+% 13,2 2021ekoaren aldean) eta % 30,9 Gipuzkoan (dezente gutxiago igo dira, % 1,9, aurreko urtearen aldean).

V.4.1 KOADROA. EAEko ETXEBIZITZEN (LIBREEN ETA BABESTUEN) SALEROSKETA KOPURUAREN BILAKAERA. URTETIK URTERAKO DATUAK												
	ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA			EAE		
	BERRIA	ERABILIA	GUZTIRA	BERRIA	ERABILIA	GUZTIRA	BERRIA	ERABILIA	GUZTIRA	BERRIA	ERABILIA	GUZTIRA
2012	1.720	1.220	2.940	2.232	3.218	5.450	1.674	2.519	4.193	5.626	6.957	12.583
2013	1.157	1.160	2.317	2.111	3.335	5.446	1.239	2.058	3.297	4.507	6.553	11.060
2014	747	1.150	1.897	1.689	4.089	5.778	1.216	2.799	4.015	3.652	8.038	11.690
2015	439	1.497	1.936	1.954	5.702	7.656	896	3.632	4.528	3.289	10.831	14.120
2016	527	1.699	2.226	1.647	6.697	8.344	1.306	3.944	5.250	3.480	12.340	15.820
2017	468	2.249	2.717	1.440	7.449	8.889	1.358	4.360	5.718	3.266	14.058	17.324
2018	531	2.654	3.185	1.697	8.476	10.173	1.373	5.200	6.573	3.601	16.330	19.931
2019	475	2.811	3.286	1.572	8.474	10.046	1.499	5.699	7.198	3.546	16.984	20.530
2020	451	2.928	3.379	1.576	7.291	8.867	1.125	4.505	5.630	3.152	14.724	17.876
2021	394	2.962	3.356	1.890	9.155	11.045	1.108	6.054	7.162	3.392	18.171	21.563
2022	667	3.158	3.825	2.042	10.456	12.498	924	6.376	7.300	3.633	19.990	23.623
12/22 %	-61,2	158,9	30,1	-8,5	224,9	129,3	-44,8	153,1	74,1	-35,4	187,3	87,7
20/21 %	-12,6	1,2	-0,7	19,9	25,6	24,6	-1,5	34,4	27,2	7,6	23,4	20,6
21/22 %	69,3	6,6	14,0	8,0	14,2	13,2	-16,6	5,3	1,9	7,1	10,0	9,6


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Salerosketaren Estatistika (HSEE)

Euskadiko etxebizitzaren salerosketen metro koadroko prezioari dagokionez, etxebizitza librearen prezioa 2.932,2 €/ m² izan da 2022an, 2021ean baino % 2,5 gehiago eta 2012an baino % 1,2 gehiago. Erabilitako etxebizitza librearen prezioa 3.318,3 €/ m² izan da (+% 9,2 2021ekoaren aldean), eta etxebizitza libre berriena 2.859,5 €/ m² (+% 0,9).

Etxebizitza babestuaren metro koadroko prezioa zertxobait igotzen hasi zen 2013an, eta nabarmen jaitsi zen 2020an, 1.973,2 €/ m²-ra iritsiz. 2022an, prezioa % 43,4 igo da 2021eko prezioarekin alderatuta, 2.763,2 €/ m²-ra iritsita, eta 2012tik izandako prezioa maximoa erregistratu da.

V.4.2 KOADROA. EAEko ETXEBIZITZEN SALEROSKETEN BATEZ BESTEKO PREZIOAREN BILAKAERA. €/M ² ERAIKIAK.				
	ETXEBIZITZA LIBREA			ETXEBIZITZA BABESTUA
	LIBREAK, GUZTIRA*	ERABILIA	BERRIA	
2012	2.898,7	2.758,7	3.145,9	1.965,9
2013	2.653,5	2.543,9	2.851,2	1.757,6
2014	2.423,0	2.368,3	2.556,6	1.832,5
2015	2.384,9	2.603,1	2.349,8	1.949,9
2016	2.416,7	2.464,9	2.406,4	2.091,3
2017	2.449,1	2.615,7	2.415,0	1.997,4
2018	2.532,2	2.697,7	2.497,7	2.016,1
2019	2.705,8	2.956,4	2.653,3	2.304,9
2020	2.847,7	3.485,1	2.726,9	1.973,2
2021	2.860,0	3.039,3	2.832,7	1.927,6
2022	2.932,2	3.318,3	2.859,5	2.763,2
12/22 (%)	1,2	20,3	-9,1	40,6
20/21 %	0,4	-12,8	3,9	-2,3
21/22 (%)	2,5	9,2	0,9	43,4

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Salerosketaren Estatistika (HSEE)
* Etxebizitza berrien eta erabilien batez besteko prezioa



V.4.3 KOADROA. ERABILITAKO ETXEBIZITZEN (LIBREEN ETA BABESTUEN) SALEROSKETA KOPURUAREN BILAKAERA, BATEZ BESTEKO PREZIOAK M² ERABILGARRIAREN ARABERA (€) ETA BATEZ BESTEKO PREZIOAK (MILA €), LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA. IV. HIRUHILEKOA.


	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	Kop.	Prezioa, m ²	Prezioa etxebizitzako	Kop.	Prezioa, m ²	Prezioa etxebizitzako	Kop.	Prezioa, m ²	Prezioa etxebizitzako	Kop.	Prezioa, m ²	Prezioa etxebizitzako
2012	1.464	2.536,3	210,6	261	1.815,5	177,2	686	2.485,2	201,2	517	2.812,5	232,0
2013	1.459	2.354,2	207,8	177	1.652,9	159,4	839	2.256,6	196,2	443	2.757,3	244,8
2014	2.022	2.309,0	201,2	242	1.613,2	153,6	1.068	2.149,2	186,4	712	2.797,4	240,9
2015	2.720	2.349,8	201,7	373	1.727,1	133,1	1.382	2.347,0	200,4	965	2.489,8	210,4
2016	2.714	2.406,4	202,8	352	1.685,7	165,1	1.489	2.305,3	197,2	873	2.855,0	230,3
2017	3.207	2.415,0	206,8	571	1.719,0	234,9	1.668	2.302,0	196,1	968	2.966,2	251,1
2018	3.566	2.497,7	211,0	576	1.712,8	144,4	1.793	2.424,8	209,7	1.197	2.889,1	229,6
2019	3.681	2.653,3	224,2	571	1.987,7	221,2	1.791	2.585,5	219,8	1.319	2.996,0	246,6
2020	3.658	2.726,9	231,9	692	2.158,2	222,5	1.740	2.621,0	221,1	1.226	3.146,7	256,1
2021	4.128	2.832,7	243,7	729	2.080,2	226,0	2.039	2.773,1	239,5	1.360	3.236,9	271,3
2022	4.155	2.859,5	238,8	671	2.579,8	225,1	2.149	2.691,2	225,4	1.335	3.400,6	274,8
20/21 %	12,8	3,9	5,1	5,3	-3,6	1,6	17,2	5,8	8,3	10,9	2,9	5,9
21/22 %	0,7	0,9	-2,0	-8,0	24,0	-0,4	5,4	-3,0	-5,9	-1,8	5,1	1,3

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Salerosketaren Estatistika (HSEE)

EAEko bigarren eskuko etxebizitzaren salerosketen batez besteko prezioa 2.859,5 €/m² izan da 2020an, aurreko urteko batez bestekoa baino % 0,9 gehiago. Lurraldeka, Bizkaian % 3 jaitsi dira prezioak, eta Gipuzkoan eta Araban, berriz, % 5,1 eta % 24 igo dira, hurrenez hurren Ondorioz, prezioak 3.400,6 €/m² (Gipuzkoa) eta 2.579,8 € (Araba) artekoak dira, eta Bizkaia tarteko posizioan dago, 2.691,2 €/m² batez beste. Etxebizitzako prezioetan, EAEko batez bestekoa 238.800 € da (-% 2 2021ekoaren aldean): handiena Gipuzkoan, 274.800 €, eta txikiena Araban, 225.100. Bizkaia beste bien artean dago berriro ere: 225.400 € etxebizitza bakoitzeko.


Etxebizitza motari dagokionez, salerosketen % 76,1 erabilitako etxebizitza libreak dira (2021ean baino % 9,1 gehiago eta 2012an baino % 54,2 gutxiago), % 14,3 etxebizitza libre berriak (2021ean baino -% 4 eta 2012an baino +% 62,7), % 5 erabilitako etxebizitza babestuak (+%44,8 2021ean baino eta -% 66,3 2012an baino) eta gainerako % 4,7 etxebizitza babestu berriak (-% 52 2021ean baino eta -% 39,9 2012an baino). Ikus daitekeenez, azken hamarkadan, etxebizitza libre berrien salerosketa % 60 baino gehiago hazi da, eta erabilitako etxebizitzena, libreena zein babestuenena, % 40 baino gehiago jaitsi da oro har, eta % 65 baino gehiago erabilitako etxebizitza babestuen kasuan.

V.4.5 GRAFIKOA. ETXEBIZITZEN SALEROSKETEN EHUNEKOAREN BILAKAERA EAEn, BABES MAILAREN ETA ETXEBIZITZA MOTAREN ARABERA.



Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Higiezinaren Salerosketaren Estatistika (HSEE)

Euskadiko lurraldeetako hiriburuei erreparatzen badiegu, etxebizitzaren prezioak gora egin du urteetan zehar hiru hirietan. Gasteizen prezioa 2.765,8 €/m²-ra iritsi da 2022an, 2021ean baino % 20,9 gehiago eta 2017an baino % 55,6 gehiago. Donostiak metro koadroko preziorik garestiena du, 5.332 €/m²; prezioa % 7,3 igo da 2021aren aldean eta % 33,6 2017aren aldean. Azkenik, Bilboko prezioa erdian dago 2.950,1 €/m², hau da, % 0,5eko jaitsiera 2021aren aldean eta % 23,6ko igoera 2017aren aldean. Beraz, nahiz eta Donostiak hiru hiriburuetak metro koadroko preziorik altuena duen, igoerarik handiena Gasteizen erregistratu da, 2021eko eta 2017ko datuekin alderatuta.



4.1.2. Eusko Jaurlaritzako alokairu merkatuaren estatistika (AME)

Alokairuaren prezioari buruz duela gutxi arte eskura egon diren datuek (Eusko Jaurlaritzaren HEI, Idealista, Fotocasa, eta abarretako informazioa) higiezinaren eskaintzari buruzko informazioa ematen zuten, eta, horren arabera, eskaintzen ziren etxebizitzak gutxi ziren, eta, horrenbestez, beste tresna bat behar zen, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak sortu zuen alokairu merkatuaren estatistika (AME), hain zuzen ere; estatistika horrek, 2018az geroztik, loturak ezartzen ditu alokairuko kontratuetan sinatutako prezio eraginkorrekarekin edo errentarekin. AME Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legetik aurrera sortutako erregistroetan gordailututako fidantzetan oinarritzen da, eta, beraz, nahitaezkoa da hiri-errentamenduen kontratuak erregistratzea eta etxebizitzak alokatzeko kontratuen fidantzak gordailutzea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eusko Jaurlaritzan duen ordezkari bakoitzean. Nabarmendu egin behar da eragiketa horrek alokairuko prezioen kalitatezko datuak ematen dituela, izan ere, datu horiek, errolda batetik lortzen dira.

AMEk egiaztatu duenez, 2022ko abenduaren 31n alokairu libreko 77.272 kontratu zeuden erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuan (merkatuko prezioan). Horietatik, 2.130 sasoiako etxebizitzak dira, eta, duten berezitasunagatik, analisi honetatik kanpo geratzen dira. Era berean, ikerketa honetan ez dira aintzat hartzen familia bakarreko etxebizitzak dagozkien 1.539 kontratuak, ohiko etxebizitza-erabilera izan arren, ezaugarri bereizgarriak direla-eta, berriazko analisi bat egitea merezi baitute.

V.4.4 KOADROA. 22-12-31n INДАРREAN DAUDEN FIDANTZAK. ETXEBIZITZA LIBREK ALOKATZEKO KONTRATUEI LOTUTAKOAK (MERKATUKO PREZIOETAN), ETXEBIZITZA MOTAREN ETA LURRALDEAREN ARABERA. EAE.

		LURRALDEAK			EAE, GUZTIRA
		ARABA	GIPUZKOA	BIZKAIA	
OHIKO ETXEBIZITZA	ERABILERA KOLEKTIBOA	10.414	26.848	36.341	73.603
	FAMILIA BAKARREKOA	369	498	672	1.539
	GUZTIRA	10.783	27.346	37.013	75.142
SASOIKO ETXEBIZITZA	ERABILERA KOLEKTIBOA	263	928	874	2.065
	FAMILIA BAKARREKOA	11	34	20	65
	GUZTIRA	274	962	894	2.130
GUZTIRA	ERABILERA KOLEKTIBOA	10.677	27.776	37.215	75.668
	FAMILIA BAKARREKOA	380	532	692	1.604
	GUZTIRA	11.057	28.308	37.907	77.272

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Alokairu Merkatuaren Estatistika. 2022.

Beraz, alokairu libreko 73.603 kontratutan (V.4.4 koadroa) ezarrita dago Eusko Jaurlaritzak AMERi buruz egindako txostenak aztertzen duen stocka: ohiko etxebizitzarako egoitza-erabilera duten eta alokairu libreko kontratuak 2022ko abenduaren 31n indarrean zituzten eraikin kolektiboetan kokatutako etxebizitzak. Lurraldeka, alokatutako etxebizitzaren % 14,1 Araban daude (10.414 fidantza), % 36,5 (26.848 fidantza) Gipuzkoan, eta gordailu-kopuru handiena (36.341 fidantzari dagozkien % 49,4) Bizkaian.

V.4.5 KOADROA. ALOKAIRU MERKATUAREN ESTADISTIKA: JARRITAKO FIDANTZA KOPURUAREN ETA BATEZ BESTEKO ALOKAIRU ERRENTEN BILAKAERA, LURRALDEKA. 2016-2020 URTEKO ETA 2021-2022 HIRUHILEKOKO DATUAK*.

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	FIDANTZAK	ERRENTA		BERMEAK	ERRENTA		BERMEAK	ERRENTA		BERMEAK	ERRENTA	
		€/etxebizitza	€/m ²		€/etxebizitza	€/m ²		€/etxebizitza	€/m ²		€/etxebizitza	€/m ²
2016	17.334	628,9	8,4	2.562	545,8	7,1	8.367	642,8	8,9	6.390	644,1	8,4
2017	21.433	639	8,6	3.151	559,3	7,3	10.356	650,4	9,1	7.943	656,0	8,5
2018	21.939	667,1	8,9	3.133	592,5	7,7	10.436	671,1	9,3	8.422	690,0	9,0
2019	20.843	688,4	9,2	3.184	621,8	8,2	9.555	689,7	9,5	8.104	713,4	9,2
2020	18.399	703,3	9,4	2.734	635,5	8,3	8.513	701,7	9,7	7.452	730,3	9,4
2021 I	5.267	694,2	9,3	758	629,9	8,4	2.424	690,0	9,7	2.085	722,9	9,3
II	5.211	711,5	9,5	699	644,6	8,6	2.446	704,5	9,8	2.066	742,8	9,5
III	5.375	722,0	9,7	859	651,0	8,6	2.506	727,5	10,1	2.010	745,8	9,7
IV	5.227	713,4	9,6	736	657,5	8,7	2.553	708,6	9,9	1.938	741,6	9,6
2022 I	5.381	716,4	9,7	721	653,1	8,5	2.645	713,0	10,0	2.015	743,7	9,6
II	5.236	733,2	9,9	743	673,0	9,0	2.591	726,3	10,2	1.902	765,7	9,8
III	5.027	751,7	10,1	794	696,7	9,1	2.464	748,4	10,5	1.769	781,2	10,1
IV	4.434	744,6	10,1	684	649,9	9,0	2.330	742,5	10,4	1.420	771,8	10,0


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Alokairu Merkatuaren Estadistika. 2022.

* Alokairu-kontratuak kontratuaren hasierako hiruhilekoaren/urtearen arabera sailkatzen dira, gaur egun aktibo jarraitzen duten edo ez kontuan hartu gabe.

2022ko azken hiruhilekoan eratutako fidantzek 744,6 €-ko batez besteko errenta lortu dute, hau da, urte arteko % 4,4ko igoera. Eraikitako m² bakoitzeko prezioa kontuan hartuz gero, 2021eko laugarren hiruhilekoan 9,6 €/m² izatetik 2022ko aldi berean 10,1 €/m² izatera igaro da (+% 5,2). Hiruhileko horretan jarritako fidantzei dagokienez, % 15,2 jaitsi dira urte arteko tasan. Hona hemen aldagai horien xehetasunak, lurraldeka:

- Araban, etxebizitza libreak alokatzeko 10.414 kontratu zeuden indarrean (merkatuko prezioetan) 2022ko abenduaren 31n, eta laugarren hiruhilekoko hileko batez besteko errenta 649,9 eurokoa da, 2021eko hiruhileko berean baino % 1,2 gutxiago. Gainera, Euskadiko errentarik baxuena duen lurraldea da, bai kopuru absolutuetan, bai m²-ko batez besteko errentan (9 €/m² laugarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino % 3,4 gehiago). Laugarren hiruhileko horretan, gainera, 684 fidantza berri gordailatu ziren, 2021eko aldi berean baino % 7,1 gutxiago.

V.4.7 GRAFIKOA. EAEn JARRITAKO ALOKAIRU FIDANTZEN HILEKO BATEZ BESTEKO ERRENTAREN BILAKAERA (eurotan), LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA



Iturria: Etxebizitza Sailaren datuekin egina. EUSKO JAURLARITZA.AME.

- 2022ko abenduaren 31n, indarrean zeuden 36.341 fidantza zeuden erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren gordailuan, Bizkaiko lurralde historikokoak. Hileko alokairu-errenta, laugarren hiruhilekoan, 742,5 € (+% 4,8) eta 10,4 €/m²-ra (+% 5,1 aurreko urtearen aldean) iritsi da. 2022ko laugarren hiruhilekoan eraturako fidantzei dagokienez, % 8,7ko jaitsiera ikusten da urte arteko analisian, 2.330 fidantzara iritsiz.
- Gipuzkoan 26.848 kontratu zeuden indarrean 2022/12/31n, eta laugarren hiruhilekoan 1.420 fidantza berri jarri ziren (2021eko aldi berean baino % 26,7 gutxiago). Gainera, alokairuko errenta absoluturik handiena erregistratzen du hiru lurraldeetan (771,8 €/ hileko, 2021ean baino % 4,1 gehiago). Hala ere, lurralde horretako m² bakoitzeko batez besteko prezioa (10 €/m²) Bizkaiko prezioa baino 0,4€ txikiagoa da, eta EAEko batez bestekoa baino hamarren bat txikiagoa ere bai.

4.1.3. Etxebizitzaren salerosketa prezioen konparazioa, autonomia erkidegoen arabera

Lehenik eta behin, EINK "Etxebizitzen Prezioen Indizea" (EPI) egiten du, prezio libreko etxebizitzaren (berrien zein bigarren eskuko) salerosketa-prezioen mailaren denbora-bilakaera neurtzeko³⁶.

Horren eremutik kanpo daude, hortaz, etxebizitza babestuak, haien prezioak araututa daudelako eta ez direlako merkatuaren ohiko mekanismoen bidez arautzen.

Inkestako emaitzek erakusten dutenez, prezioek 2008-2013 epealdian behera egin ostean, neurri desberdinekin, 2014an lehen igoerak izan ziren estatu mailan, eta bilakaera askoz orekatuagoa da EAEn (izan ere, aldakuntza nulua izan zen). 2015ean, erkidego guztiek izan zituzten tasa positiboak, eta joera horri eutsi zaio ordutik, nahiz eta ratioak gero eta txikiagoak izan diren.

V.4.6 KOADROA. ETXEBIZITZA LIBREAREN PREZIOEN INDIZEA: URTEKO ALDAKUNTZA-TASAK.												
	GUZTIRA				ETXEBIZITZA BERRIA				BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZA			
	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022
ESTATUKO BATEZBESTEKOAK	5,1	2,1	3,7	5,5	7,3	6,5	4,6	6,2	4,7	1,4	3,6	5,3
ANDALUZIA	5,4	2,3	4,6	6,5	7,6	7,4	6,6	8,7	5,1	1,6	4,3	5,9
ARAGOI	6,1	2,6	3,8	4,3	7	4	3,2	5	5,8	2,1	4	4,1
ASTURIAS	4,2	3,2	4,2	4,6	5,9	6,4	2,7	7,3	3,9	2,7	4,4	4,1
BALEAR UHARTEAK	6	4,1	5,8	5,9	7,8	10,6	7,3	6,5	5,9	3,5	5,8	5,8
KANARIAR UHARTEAK	3,8	1,2	5,7	8,1	5,3	5,6	4,8	11,1	3,7	0,8	5,8	7,9
KANTABRIA	3,1	1,2	5,5	8,6	4,9	5,6	4,5	10,6	2,8	0,6	5,7	8,3
GAZTELA ETA LEON	4,8	2,4	3,6	4,1	8,4	5,6	3,9	6,3	4,4	1,9	3,5	3,6
GAZTELA-MANTXA	3,5	1,3	2,4	4	10,3	2	1,2	6,6	2,3	1,1	2,6	3,5
KATALUNIA	5,2	2	3,5	5,5	7	8,6	3,9	5,9	5	1,3	3,5	5,4
VALENTZIAKO ERKIDEGOA	4,2	2,2	4,3	5,1	6,9	5,4	4	6,7	3,8	1,7	4,4	4,7
EXTREMADURA	2	0,5	2,3	2,8	10,1	0,2	2,2	4,6	1,5	0,6	2,3	2,7
GALIZIA	4	2,2	4,6	4,5	7	5,5	3,3	7	3,5	1,8	4,8	4
MADRIL	5,9	1,7	2,5	4,9	7,6	6,3	5,3	4,1	5,5	0,7	1,9	5,2
MURTZIA	4,6	3,1	5,2	4,8	8,8	6,9	6,7	7,1	4	2,6	5	4,5
NAFARROA	3,8	1,7	2,8	7,2	6,1	4,9	0,3	8,5	2,9	0,2	4	6,7
EAE	4,3	2,3	2,1	4,9	7,1	6,9	3,1	4,7	3,8	1,2	1,9	5,0
ERRIOXA	5,4	1,9	3,5	5,4	8,2	5,8	5,5	7,8	5,1	1,5	3,3	5,1
CEUTA	7,7	4,4	3,7	8	:	:	:	:	:	:	:	:
MELILLA	5,2	4,5	6,3	8	:	:	:	:	:	:	:	:

Iturria: EIN. EPI.

³⁶ EPI Europar Batasunaren estatistika harmonizatuen produkzioaren eremuan planteatutako informazio eskaerari dagokio; beraz, haren helburuetako bat estatu kideak alderatzeko tresna izatea da, etxebizitza librearen prezioen bilakaerari dagokionez. Notarioen Kontseilu Nagusiak emandako datu-baseetako informazioa darabil, Egiaztapenerako Notarioen Agentziaren bitartez. Administrazio-erregistroak erabili, batetik, biztanleria guztiaren informazio osoa dago eskuragai, eta horri esker, ez dago zertan laginketara jo; bestetik, edozein salerosketako informazioa gertatzen den unean sar daiteke indizearen kalkuluan: funtsezkoa da hori adierazle koiunturala izan nahi duen indize batean.

2022an (batez besteko datuak), EAeko etxebizitza librearen prezioak % 4,9 igo ziren, Estatuko batez bestekoa (% 5,5) baino gutxiago. Extremadurak du Estatuko ratoririk txikiena (% 2,8), eta haren atzetik daude Gaztela-Mantxa eta Gaztela eta Leon (% 4 eta % 4,1, hurrenez hurren). Beste muturrean, Kantabrian eta Kanarietan % 8tik gorako igoera izan da etxebizitzaren prezioetan.

Etxebizitza berrietan, EAEn KPIaren urteko hazkundea % 4,7koa izan da, eta Estatuan, berriz, % 6,2koa batez beste. Kasu horretan, bilakaerak Madrilgo % 4,1etik eta Extremadurako % 4,6tik Kanarietako eta Kantabriako % 11 inguruko datuetara bitartekoak dira. Bigarren eskuko etxebizitzetan, azkenik, EAeko hazkunde-tasa % 5koa izan da 2022an, Estatuko batez bestekoaren (+% 5,3) azpitik. Extremadurak du autonomia-erkidegoetako ratoririk baxuena (% 2,7), eta beste muturrean daude, beste behin, Kantabria eta Kanariak, azken urtean % 8,3 eta % 7,9 igoerak izanda, hurrenez hurren.

Bigarrenik, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak (lehenago Sustapena) **etxebizitza libreko** (berria eta bigarren eskukoa) **higiezinaren transakzioen batez besteko balioak** zenbatetsi ditu hiru hilean behin bere Estatistika Buletinean, Notarioen Estatistikak emandako informazioarekin. Informazio horretatik abiatuta, 2020tik 2022ra bitarteko urteko batez besteko balioak kalkulatu ditugu.

2022an (behin-behineko datuak), EAEn saldutako etxebizitza librearen batez besteko balioa, notario-erregistroetan agertzen denez, 232.831 eurokoa izan zen, 2021ean baino % 2,4 gehiago eta Estatuko batez bestekoa (182.425 euro) baino % 27,6 gehiago (+% 3,7). Oro har, preziorik altuenak Balearretan eta Madrilgo Erkidegoan daude, eta baxuenak Gaztela-Mantxan, Extremaduran eta Murtziako Eskualdean.

V.4.7 KOADROA. ETXEBIZITZA LIBREKO HIGIEZINEN TRANSAKZIOEN BATEZ BESTEKO BALIOA. DATUAK EUROTAN.									
	GUZTIRA			ETXEBIZITZA BERRIA			BIGARREN ESKUKO ETXEBIZITZA		
	2020	2021	2022*	2020	2021	2022*	2020	2021	2022*
ESTATUKO BATEZBESTEKOAK	166173	175.852	182.425	248.359	255.473	260.787	155.193	166.868	174.625
ANDALUZIA	146145	162.263	170.539	226.164	238.364	236.770	135.034	152.440	163.381
ARAGOI	126150	122.580	127.804	217.414	220.426	225.029	112.809	113.302	116.156
ASTURIAS	113.893	114.891	116.601	167.989	176.517	175.113	105.515	109.565	111.740
BALEAR UHARTEAK	317267	372.341	402.739	483.540	587.041	517.446	297.158	352.821	389.933
KANARIAR UHARTEAK	152886	161.942	174.582	184.742	199.952	218.383	150.399	159.334	171.457
KANTABRIA	137.384	144.070	153.117	170.599	160.586	184.036	133.148	142.156	150.100
GAZTELA ETA LEON	106.311	109.126	108.983	176.980	208.434	173.038	100.262	100.721	102.980
GAZTELA-MANTXA	94.695	94.838	94.796	141.332	138.544	127.954	89.206	91.011	92.295
KATALUNIA	198.076	206.396	211.178	289.822	282.319	288.413	188.445	199.498	204.853
VALENTZIako ERKIDEGOA	125.547	132.147	140.117	204.684	208.568	225.317	115.664	123.205	131.817
EXTREMADURA	87.380	93.804	83.321	105.425	115.275	112.120	86.280	93.136	82.345
GALIZIA	121.105	122.654	125.634	172.038	170.249	178.352	115.635	117.627	121.398
MADRIL	265.161	279.083	297.794	324.645	347.630	385.594	252.644	268.380	287.367
MURTZIA	98.892	101.738	108.860	146.782	156.235	173.014	93.992	97.481	104.176
NAFARROA	159.056	170.614	173.585	224.672	228.671	236.041	144.374	155.753	158.254
EAE	224.848	227.350	232.831	303.163	296.062	279.561	208.977	218.544	225.284
- ARABA	182.028	190.023	192.979	243.187	247.817	226.936	172.870	183.727	187.039
- GIPUZKOA	256.239	253.574	262.906	329.018	309.699	292.978	236.246	245.373	256.694
- BIZKAIA	216.391	220.913	225.684	295.206	296.544	296.459	202.920	211.716	217.230
ERRIOXA	112.548	112.711	157.332	127.508	163.809	186.024	111.663	107.611	108.623
CEUTA	165.494	166.575	160.747	221.815	228.916	262.210	154.351	163.815	155.879
MELILLA	154.849	165.708	153.996	196.707	194.763	172.202	144.638	152.994	149.557

Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiriko Agendako Ministerioa. Estatistika buletina. Geuk egina.
** 2022ko datuak behin-behinekoak dira.*


Eraikuntza berriko etxebizitzak bakarrik kontuan hartzen baditugu, EAeko datua 279.561 euroraino igotzen da, 2021ean baino % 5,6 txikiagoa. Zifra hori Estatuko batez bestekoa (260.787 euro) baino % 7,2 handiagoa da, azken urtean % 2,1 igo baita. Erabilitako etxebizitzari dagokionez, EAeko batez besteko balioa, 2022an, 225.284 eurokoa da, 2021ean baino % 3,1 gehiago. Estatuko datua 174.625 da (+% 4,6), beraz, bien arteko aldea da nabarmenena, % 29koa.

4.1.4. Etxebizitzaren egoitzazko alokairuko errenten alderaketa, autonomia-erkidegoen arabera

Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioaren (lehenago sustapena) "Etxebizitzaren eta Lurzoruaren Behatokiak", aldian-aldian, Etxebizitza Alokairuari buruzko Aldizkari Berezi bat egiten du, bere Estatistika Buletinaren monografia gisa. Buletin horretan, autonomia-erkidegoen arabera konparazio bat jasotzen da, azkena 2022ko datuekin, Estatuan ezarpen handia duten bi higiezin ataritako (Fotocasa eta Idealista) informaziotik abiatuta.

2022an preziorik altuenak Katalunia, Madril eta Balear Uharteetan daude, etxebizitzen 13,5-15,2 €/m² inguruko balioekin. Laugarren postuan, Fotocasaren eta Idealistaren arabera, Euskadi dago, batez besteko alokairu-errenta 13,6 €/m²-koa baita lehen atariaren arabera, eta 12,6 €/m²-koa bigarrenaren arabera. Bi zifra horiek Estatu osorako 10,4 eta 11,2 euro/m²-ko batez bestekoaren gainetik daude. Iturrien artean alde batzuk dauden arren, bi atariak erakusten dute batez besteko alokairu-errenta hazi egin dela erkidego guztietan 2021eko errentarekin alderatuta.

V.4.8 GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN ALOKAIRUKO BATEZ BESTEKO ERRENTEN BILAKAERA EAEn ETA ESTATUAN, HIGIEZINEN ATARIEN



Iturria GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDA KO MINISTERIOA. Geuk egina.

4.2. ETXEBIZITZAK ERAIKITZEA

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak jakinarazi duenez, EAEn **hasitako etxebizitzak** guztizko kopuruak ikurra aldatu zuen 2010-2011 biurtekoan, hazkunde nabarmena izanik, 2008an eta 2009an jaitsiera handia izan ondoren. 2012tik 2015ra bitartean, hasitako etxebizitzaren kopuruak behera egin zuen intentsitate desberdinekin, eta 2016 eta 2019 artean, hasitako etxebizitzaren kopuruak gora egin du oro har, nahiz eta urtetik urtera tasa txikiagoak izan (+% 0,9 2019an). 2020an 4.443 etxebizitza hasi ziren, aurreko urtean baino % 30,7 gutxiago; 2021ean, berriz, tasa positiboetara itzuli zen (+% 7,9), etxebizitza babestuen eraikuntza suspertzearen ondorioz.

2022an joera positibo horrek jarraitu du, 5.827 etxebizitza eraikitzen hasi baitziren, aurreko urtean baino % 21,6 gehiago. 5.827 etxebizitza horietatik, 2.348 etxebizitza babestuak dira (+% 46,9 2021eko datuekin alderatuta) eta 3.479 etxebizitza libreak (% 13,1 gehiago 2021eko datuekin alderatuta), behin-behineko datuekin dena.

V.4.8 KOADROA. ERAIKUNTZA JARDUERA EAEn: HASITAKO ETA AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK.						
	HASITAKO ETXEBIZITZAK			AMAITUTAKO ETXEBIZITZAK		
	LIBREAK	BABESTUAK**	GUZTIRA	LIBREAK	BABESTUAK	GUZTIRA
2016	4.407	1201	5.608	1.869	1.729	3.598
2017	2.920	1.344	4.264	3.380	357	3.737
2018	4.617	1.732	6.349	3.562	859	4.421
2019	4.326	2.083	6.409	3.409	1.344	4.753
2020	3.124	1.319	4.443	3.390	562	3.952
2021	3.077	1.598	4.793	3.343	1.032	4.375
2022	3.479	2.348	5.827	3.562	1.198	4.760
20/21 %	-1,5	21,2	7,9	-1,4	83,6	10,7
21/22 %	13,1	46,9	21,6	6,6	16,1	8,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.
** Behin-behineko datuak.*
*** Ikusi tipologiaren xehetasunak V.4.11 koadroan.*

Etxebizitza babestuen ehunekoak gora egin du azken bi urteetan, eta 2022an hasitakoan % 40,3 dira (2021ean, % 34,2), duela sei urte izandakoaren ia bikoitza (% 21,4).

2022an 63 zuzkidura-bizitoki eraikitzen hasi ziren (2021ean 10 baino ez) eta 412 udal-etxebizitza tasatu eraikitzen, % 100 jabetzan (+% 70,2). Halaber, Eusko Jaurlaritzaren kalifikazioa duten etxebizitzaren artean, 1.744 BOE (+% 114,8), 68 etxebizitza sozial (-% 74,6) eta 61 etxebizitza tasatu (-% 77,1) hasi ziren.

V.4.9 KOADROA. EAEn HASITAKO ETXEBIZITZA BABESTUEN BILAKAERA, TIPOLOGIAREN ARABERA.						
	Ejren KALIFIKAZIOA DUTENAK			Ejren KALIFIKAZIOAZ KANPOKOAK		GUZTIRA
	BOEak	SOZIALAK	TASATUAK	ZUZKIDURA-BIZITOKIAK	UDALAREN TASATUTAKO ETXEBIZITZAK (JABE+ALOK)	
2017	598	284	207	160	95	1.344
2018	1.050	105	72	305	200	1.732
2019	1.502	76	184	217	104	2.083
2020	909	139	144	99	28	1.319
2021	812	268	266	10	242	1.598
2022	1.744	68	61	63	412	2.348
20/21 %	-10,7	92,8	84,7	-89,9	764,3	21,2
21/22 %	114,8	-74,6	-77,1	530,0	70,2	46,9

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. Etxebizitzaren Behatokia.
** Behin-behineko datuak.*

Bestalde, EAEn 2022an **amaitutako etxebizitza** guztiak 4.760 dira, aurreko urtean baino % 8,8 gehiago, amaitutako etxebizitza babestuen segmentuan (+% 16,1) eta libreetan (+% 6,6) izandako gorakadaren ondorioz. Horren ondorioz, etxebizitza babestuak EAeko eraikuntza-jardueran duen partaidetzak gora egiten jarraitzen du urte honetan, amaitutako etxebizitzaren pisua 2021eko % 23,6tik 2022ko % 25,2ra igaro baita.

Bigarrenik, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2019ko 2022ko bere "**Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko estatistikan**" nabarmentzen duenez, finkatu egin da aurtien eraikuntzako obren tipologiaren joera, gero eta gehiago birgaikuntzara bideratuta, krisia hasi zenetik ikusi izan denez.

2022an, EAeko udalek guztira 3.839 obra handiko lizentzia eman zituzten (lizentzia berriak, birgaitzekoak eta eraistekoak zenbatuz), 2021ean baino % 9,9 gehiago. Lizentzietatik % 13,4 solairu berriko eraikuntzetarako izan ziren, % 1,9 eraisteko, eta % 84,6 eraikinak birgaitzeko (2021ean, % 82,6), hau da, 10etik 8, 2003 aurretik lizentzia guztien % 50 baino gutxiago izaten zirelarik.

Lurraldeka, lizentzien % 52 Bizkaian eman ziren, eta gainerako % 48 berdin banatu ziren Araban eta Gipuzkoan (% 25,5 lurralde bakoitzean). Lizentzia motari dagokionez, nabarmentzekoa da birgaitzeko lizentzien pisu handiagoa Bizkaian (lizentzien % 87,6, eta batez bestekoa, berriz, % 84,6), eta, ondoren, Gipuzkoan (% 86,1). Ratorik txikiena Araban dago (% 76,1), oin berrikoak % 21 baitira, EAeko batez bestekoaren aldean (% 13,4).

V.4.10 KOADROA. EAE-KO OBRA NAGUSIEN LIZENTZIEEN GARAPENA, MOTAREN ETA LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.											
		2008	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	21/22 %	08/22 %
EAE	GUZTIRA	3.133	3.145	3.087	3.329	3.304	2.885	3.494	3.839	9,9	22,5
	OIN BERRIKOAK	1024	518	459	475	436	377	519	516	-0,6	-49,6
	BIRGAITZEAK	2019	2.567	2.563	2.778	2.800	2.445	2.885	3.249	12,6	60,9
	ERAISTEAK	90	60	65	76	68	63	90	74	-17,8	-17,8
ARABA	GUZTIRA	977	810	786	820	827	704	891	863	-3,1	-11,7
	OIN BERRIKOAK	368	137	128	136	133	113	191	181	-5,2	-50,8
	BIRGAITZEAK	588	659	644	664	673	568	668	657	-1,6	11,7
	ERAISTEAK	21	14	14	20	21	23	32	25	-21,9	19,0
BIZKAIA	GUZTIRA	1.447	1.646	1.695	1.773	1.744	1.528	1.775	1.997	12,5	38,0
	OIN BERRIKOAK	386	243	202	216	178	161	203	224	10,3	-42,0
	BIRGAITZEAK	1.028	1.380	1.462	1.530	1.541	1.348	1.547	1.749	13,1	70,1
	ERAISTEAK	33	23	31	27	25	19	25	24	-4,0	-27,3
GIPIZKOA	GUZTIRA	709	689	606	736	733	653	828	979	18,2	38,1
	OIN BERRIKOAK	270	138	129	123	125	103	125	111	-11,2	-58,9
	BIRGAITZEAK	403	528	457	584	586	529	670	843	25,8	109,2
	ERAISTEAK	36	23	20	29	22	21	33	25	-24,2	-30,6

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Eraikuntza eta etxebizitzari buruzko estatistika


2008-2022ko epealdian gertaturikoa hartzen badugu kontuan, %22,5 gehitu da obra nagusiko lizentzia kopurua (eraiispak barne), eta etxebizitza berriak eraikitzeko lizentzien jaitsiera handia nabarmentzen da: % 49,6. Birgaitzeko lizentziak, aldiz, nabarmen igo dira aldi berean, % 60,9, eta eraispak, berriz, % 17,8 jaitsi dira.

4.3. ETXEBIZITZEN ESKARIA


4.3.1. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta, 2021

a) Etxebizitza izateko beharra

Gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte arteko pertsonen lehenengo etxebizitza izateko beharrari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren "Etxebizitzaren Beharrei eta Eskariari buruzko Inkesta" (EBEI) egiaztatu zuten, 2017an, diru-sarrerak zituzten 64.859 pertsonen lehenengo etxebizitza eskuratzeko beharra zutela, eta, beraz, 2019ko inkestarekin alderatuz, % 0,2ko igoera egon zen. Pertsona horiek behar duten etxebizitza kopuruari dagokionez (baxuagoa da, etxebizitza banaka edo bikotean eskuratu dezaketelako), guztira 58.137 pertsona dira, bi urte lehenago baino % 8,8 gehiago. Bilakaera horren arabera, lehen etxebizitza eskuratzeko eskaria egonkortu



egin da Euskadin, 2009. urtean izandako beheranzko bilakaeraren ondoren (ikus V.4.9 grafikoa). Urte horretan iritsi zen maximora, 125.514 pertsona, eta 110.667 etxebizitzako eskaria.



Horrekin bat etorritik, etxebizitza horiek EAEko etxeen gain duten pisu erlatiboa neurtzen duen adierazlea ere egonkortu da. 2021ean, lehenengo etxebizitzari lotuta egindako eskari kopurua EAEko etxe guztien % 6,5 izan zen, 2019an baino 5 hamarren gehiago, eta 2009ko % 13,2ko kopuruarekin alderatuz, erdia baino gutxiago.

Bilakaera-dinamika horrek hurbildu egin ditu, azken urteotan, lurraldeen premia-indizeak, eta, ondorioz, 2021ean haien arteko aldeak txikiak dira. Gipuzkoa da premia-indize handiena duen lurraldea, % 6,9 (% 6,6 2019an). Bizkaian indizeak gora egin du pixka bat, 2021eko % 6tik 2022ko % 6,1era, indize baxuenari eutsiz. Araban, bestalde, indizea 2,1 puntu igo da aurreko urtearen aldean, % 6,7an kokatuz.

Lehen etxebizitza eskatzen duten pertsonen profila aztertuz gero, batez ere 25-34 urtekoen taldean pilatzen dira, % 53,5, 35-44 urtekoen artean % 19,7 dira eta 18-24 urtekoen % 26,8. Batez besteko adina 29 urtekoa da, 2019an baino 1,6 gutxiago.

V.4.11 KOADROA. ETXEBIZITZA ESKURATU BEHAR DUTEN BIZTANLEEN EZAUGARRIAK, EAEN. 2011-2021. EHUNEKO BERTIKALAK, BEHARRA DUEN KOLEKTIBO OSOAN.

	2011	2013	2015	2017	2019	2021
ADINA						
18-24	14,7	12,9	11,9	15,6	16,3	26,8
25-44	71,9	73,2	68,2	62,7	58,3	53,5
35-44	13,4	13,9	19,8	21,7	25,5	19,7
BATEZ BESTEKO ADINA	28,8	28,0	30,3	30,0	30,6	29,0
SEXUA						
EMAKUMEA	48,1	48,6	42,5	47,5	45,2	47,1
GIZONA	51,9	51,4	57,5	52,5	54,8	52,9
ESKURATZE MOTA						
BANAKOAK	47,4	52,3	49,9	55,2	43,7	55,4
BIKOTEAN	52,6	47,7	50,1	44,8	56,3	44,6
IKASKETA MAILA						
IKASKETARIK EZ / LEHEN MAILAKOAK	18,0	11,4	11,4	11,2	12,0	12,1
IKASKETA PROFESIONALAK	26,0	32,5	35,2	34,8	29,8	37,9
BIGARREN MAILAKO IKASKETAK	10,4	10,6	8,5	11,8	14,5	8,7
UNIBERTSITATEKO IKASKETAK	45,6	45,5	44,9	42,1	43,7	41,3
ERLAZIOA JARDUERAREKIN						
BERE KONTURA LAN EGITEN DU	7,9	11,0	13,3	9,4	10,8	6,3
LANDUNA, KONTRATU FINKOAK	69,1	44,1	37,7	38,4	44,8	36,6
LANDUNA, ALDI BATERAKOAK	14,6	36,6	44,7	45,7	39,4	51,1
LANGABEA	5,8	5,5	3,0	4,0	2,9	5,3
BESTE EGOERA BAT ETA ED/EE	2,6	2,9	1,3	2,5	2,1	0,7
EDUKITZE ARAUBIDEA						
JABETZA	52,0	36,7	26,5	36,1	40,3	39,6
ALOKAIRUA	17,8	38,7	52,2	49,0	45,7	42,4
BATA NAHIZ BESTEA	30,3	24,6	22,4	14,9	14,0	18,0

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN datuekin egina. EBEI.

Gizonak eskatzaileen % 52,9 dira, eta emakumeak, berriz, % 47,1. Ikasketa mailari dagokionez, % 41,3k unibertsitateko titulua du, %37,9k lanbide ikasketak eta % 8,7k bigarren mailakoak. Lehen mailako ikasketak dituztenak %12,1 dira.

Gainera, lehen etxebizitza eskatzen dutenek, kasuen % 36,6an, inoren konturako lana eta kontratu finkoa dituzte, eta % 51,1etik behera aldi baterako kontratua. Bere kontura lan egiten duten langileak % 6,3 dira, eta % 5,3 langabezian dago. Etxebizitza motaren arabera lehentasunei dagokienez, % 42,4k alokairuaren aukera lehenesten du, eta % 39,6k, berriz, jabetza. Sei urtean, ia 10 puntu jaitsi da lehen aukera, eta 13 puntu igo bigarrena.

Eskaria egiteko zioari dagokionez, familiaren emantzipazioa aipatzen dute % 78,1ek zio nagusi gisa, eta % 17,4k, berriz, bikotekidearekin independizatzearekin dute lotura. Gainerako % 4,5ek beste arrazoi batzuk aipatzen dituzte, hala nola lan arrazoiengatik lekualdatzeko beharra.

Aurkezten diren datuak baloratzeko orduan, ordea, ez da ahaztu behar 58.137 etxebizitza eskatu direla, eta eskaera egin duten familien herenek baino zertxobait gutxiagok (% 28,2k) nahikoa diru-sarrera dituztela epe labur edo ertainean eskaera horri erantzuteko (% 36k 2019an). Egoera hori hiru lurraldeen berdina da, baina zertxobait hobea Bizkaian, eskatzaileen % 30,8k nahikoa diru-sarrera baitituzte, eta % 25,2k Araban eta % 26k Gipuzkoan.

V.4.12 KOADROA. ETXEBIZITZA ESKARIEN BANAKETA, DIRU-SARREREN ARABERA. 18-44 URTE BITARTEKO EMANTZIPATU GABEKO PERTSONENTZAT BEHAR DIREN ETXEBIZITZEN KOPURUA. 2019-2021.						
		DIRU-SARRERA NAHIKOEKIN		NAHIKOAK EZ DIREN EDO IRREGULARRAK DIREN DIRU-SARREREKIN		ESKARIA GUZTIRA, DIRU-SARREREKIN
		ETXEBIZITZAK	% H	ETXEBIZITZAK	% H	
2019	ARABA	2165	34,4	4.137	65,6	6.302
	BIZKAIA	11240	40,2	16.717	59,8	27.958
	GIPUZKOA	5.850	30,5	13.337	69,5	19.187
	EAE	19.255	36,0	34.192	64,0	53.447
2021	ARABA	2.324	25,2	6.913	74,8	9.237
	BIZKAIA	8.799	30,8	19.814	69,2	28.613
	GIPUZKOA	5.269	26,0	15.018	74,0	20.288
	EAE	16.392	28,2	41.745	71,8	58.137

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. EBEL. Geuk egina.

2019ekin alderatuz, murriztu da eskari eraginkorra (diru-sarrera nahikoak direla-eta) 19.255 etxebizitza 2021eko 16.392 etxebizitzara, hain zuzen ere (-% 14,9). Hazkunde hori Araban pilatzen da, % 7,3ko hazkundetasarekin, Bizkaian eta Gipuzkoan % 21,7 eta % 9,9 murriztu baitira, hurrenez hurren.


Eta, etxebizitza eskuratzeko beharra zehazteko, norberaren diru-sarreraren erabilgarritasuna baldintza gisa jarriko ez balitz, 2021ean eskatutako 58.137 etxebizitzak 89.162raino handituko lirateke, diru-sarrerarik ez duten 31.026 etxebizitza gehiago.

b) Aldaketa beharra

2021. urtean, 82.326 euskal familiak zioten etxebizitza aldatu beharra zuela, familia guztien % 9,1ek. Hau da, % 1,3ko jaitsiera 2019aren aldean: urte horretan guztien % 9,3 ziren etxebizitza horiek. Datu horiek, 2019arekin alderatuta pixka bat jaitsi diren arren, 2011n hasitako goranzko bidea sendotu dute, 2013-2015 aldiko beharakadaren ondoren (ikus V.4.12 grafikoa).

Lurraldeka, portaera desberdinak ikusten dira. Gipuzkoan bakarrik igo da etxebizitza aldatzeko eskaera, % 9,8ko hazkundearekin (26.612 etxe). Bizkaian, aldiz, behera egin du aldatzeko beharra duten familien kopuruak: eskaera hori 7,1 jaitsi da, beharra duten 45.226 etxetaraino. Araba, bestalde, ez da aldatzen 2019. urtearen aldean, urte horretan % 13,6 jaitsi baitzen beharra zuten familien kopurua; beraz, premia-indize txikiena du, % 7,6koa, eta ondoren Gipuzkoa dator, % 9,1ekin (+0,7 puntu). Bizkaiak, bestalde, ratio handiagoa du (etxeen % 9,6, -0,8 puntu).

V.4.11 GRAFIKOA. ETXEBIZITZA ALDATZEKO PREMIAREN BILAKAERA EAEn.



82.326 etxebizitzek dute aldatzeko beharra, eta hurrengo urtean hori egiteko aurreikuspena dute % 24,3k (20.045), beraz, 2019. urtearekin alderatuz, 3,7 puntu jaitsi da, hau da, % 28. Gainera, % 39,2k aurreikusi dute etxebizitza hurrengo bi urteetan aldatu ahal izango dutela (32.233 etxek) eta gainerako % 56,5ek ez dute uste 4 urte igaro aurretik aldatu ahal izango dutenik.

V.4.13 KOADROA. ETXEBIZITZA ALDATZEKO BEHARRAREN KUANTIFIKAZIOA EAEn, LURRALDE HISTORIKOKA.


	ETXEBIZITZAK			PREMIA-INDIZEA		
	2017	2019	2021	2017	2019	2021
ARABA	12.140	10.493	10.488	9	7,7	7,6
BIZKAIA	40.987	48.672	45.226	8,9	10,4	9,6
GIPUZKOA	22.843	24.245	26.612	7,9	8,4	9,1
EAE	75.970	83.410	82.326	8,6	9,3	9,1

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ENDV 2021.

Etxebizitzaren tamaina desegokia da orain ere etxebizitza aldatzeko arrazoia; izan ere, hala aipatzen dute %33,3k, eta ondoren egungo etxebizitzaren irisgarritasuna eta egoera txarra (% 12,7). Ondoren, alokairu merkeagoa bilatzea (% 11,5) eta etxebizitza bat jabetzan izan nahia (% 11,1); horiexek dira arrazoirik ohikoena.

c) Birgaikuntza beharra

V.4.12 GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO PREMIAREN BILAKAERA EAEn.



EBEIren zenbatespenen arabera, 87.857 euskal familiek behar dute etxebizitza birgaitzeko jarduketa 2021ean. Hala, kopuru hori EAEko famili etxebizitza parkearen % 9,7 da. Bilakaeraren aldetik, etxebizitza birgaitzeko beharrak gora egin zuen 2019aren aldean, bai familien bolumenean (+% 28,4), bai behar horren eragin erlatiboan (ehuneko +2 puntu). 2019ra arte, epe luzeko ikuspegi batetik (ikus V.4.12 grafikoa), datu horiek nolabaiteko egonkortzea ekar lezakete, gorabehera batzuen ondoren, 2009az geroztik ikusten den birgaitzeko beharra duten familien ehunekoan (urte horretan erregistratu zen mota horretako jarduketan beharra zuten etxebizitzaren gehieneko kopurua, 142.099). Hala ere, birgaitzeko beharra duten etxebizitzek 2010eko balioak gainditu dituzte 2021ean (urte horretan 80.969 erregistratu ziren), baina oraindik ez dira iristen 2009ko balioetara.


Lurraldeen azterketak agerian uzten du 2021ean birgaitze-premien gorakada nabarmena lurralde guztietan. Gipuzkoan, esku-hartze hori behar duten etxeen kopurua batez bestekoaren gainetik igo da, % 34,5. Bizkaian eta Araban ere gora egin dute, baina batez bestekoaren azpitik (% 28,4), % 27,9 eta % 14,4, hurrenez hurren. Bilakaera horren ondorioz, Araba da, oraindik ere, premia-tasarik txikiena duen lurraldea, % 7 (9.582 etxebizitza behar horretan); Bizkaia eta Gipuzkoak, berriz, batez bestekoa (% 9,7) baino tasa handiagoa dute: % 10,3 Bizkaian (48.525 etxebizitza) eta % 10,2 Gipuzkoan (29.750 etxebizitza).

V.4.14 KOADROA. ETXEBIZITZA BIRGAITU BEHARRAREN KUANTIFIKAZIOA
EAEn, LURRALDE HISTORIKOKA.

	ETXEBIZITZAK			PREMIA-INDIZEA		
	2017	2019	2021	2017	2019	2021
ARABA	9.790	8.374	9.582	7,2	6,1	7,0
BIZKAIA	43.590	37.934	48.525	9,4	8,1	10,3
GIPUZKOA	22.906	22.115	29.750	7,9	7,6	10,2
EAE	76.286	68.423	87.857	8,6	7,7	9,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ENDV 2021.


Beharrezko birgaikuntzaren ezaugarri dagokienez, ia familien erdiarentzat gutxi gorabehera (% 39,9), familia etxebizitzetako elementu pribatuak dira beharraren ardatza (komunak, lurra, berokuntza instalazioa, leihoak aldatzea, etab.). % 21,4k etxebizitza barruan eta eraikineko eremu komunetan birgaitzea behar dute, eta gainerako % 38,7 eraikineko eremu komunetan soilik egiten diren birgaitze-ekintzei dagozkie.



4.3.2. Familien finantza ahalegina

Lehenik eta behin, Espainiako Jabetza, Ondasun Higiezin eta Merkataritzako Erregistratzaileen Elkargoaren "Higiezin Erregistro Estatistikak" adierazten du EAEko etxeek beren etxebizitzak ordaintzeko egiten duten finantza ahalegina, hileko batez besteko hipoteka kuotaren eta soldata kostuaren arabera neurtuta, % 28,5koa dela 2022ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urtean baino 0,3 puntu gehiago. Estatu osoari dagokionez, ibilbidea antzekoa da; izan ere, ahalegin hori batez besteko soldata kostuaren % 31ra iristen da 2022aren amaieran, duela urtebete baino 0,9 puntu gehiago.

V.4.14 GRAFIKOA. HILEKO BATEZ BESTEKO HIPOTEKA-KUOTAREN ETA SOLDATA-KOSTUAREN ARTEKO ERLAZIOAREN BILAKAERA EAEn ETA ESTATUAN.IV HIRUHILEKOAK. DATUAK %TAN.



Iturria: JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOEA.

Ikuspegi zabalago batetik, azken seiurtekoan (2016tik 2022ra bitartean) finantza ahalegin hori 1,6 puntu handitu da EAEn, eta bikoitza baino gehiago (3,4) Estatu osoan.

Bigarrenik, EINren "**Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta**" k aukera ematen du jakiteko, ECOICOP (European Classification of Individual Consumption by Purpose) gastuaren sailkapenaren lau digituko desagregaziotik abiatuta, zer gastu egiten duten etxeek beren etxebizitza nagusiaren alokairua ordaintzeko, bai eta etxebizitza nagusiari jabetzan egotzitako alokairua ere (halako etxebizitza baten jabe den etxeak ordainduko lukeen errenta, etxebizitza horretako maizterra balitz). Datu horiek etxe bakoitzeko batez besteko gastuari eta familia-unitatearen urteko gastuaren gaineko ehunekoari dagokienez ematen dira.

2021ean, informazioa dagoen azken urtean, EAEko etxeek, batez beste, 7.594,74 euro gastatu zituzten urtean ohiko etxebizitza ordaintzeko, 2020an baino % 2,4 gehiago, etxebizitza horri jabetzan egotzitako alokairua kontuan hartuta. Zenbateko hori urteko familia gastuaren % 22,98 da (-0,56 puntu aurreko urtearen aldean). EAEko gastua, gainera, Estatu batez bestekoa (5.366,52 €) baino % 41,5 handiagoa da, hau da, Espainiako familien gastuaren % 18,35.

Alde hori aldatu egiten da etxebizitzaren alokairu-gastua kontuan hartzen badugu: EAEko etxeek, batez beste, 750,78 euro gastatu zituzten 2021ean (urteko gastuaren % 2,27) ohiko etxebizitzaren alokairuan; Estatu osoan, berriz, gastu hori handiagoa da, bai kopuru absolutuetan (949,59 euro), bai erlatiboetan (guztizko gastuaren % 3,25).

V.4.15 KOADROA. FAMILIEN AHALEGINA ETXEBIZITZA ORDAINTEKO (ALOKAIRUA ETA JABETZA). EHUNEKOA, GASTU OSOAREN GAINEAN.

	ALOKAIRUA		JABETZA*	
	EAE	ESTATUA	EAE	ESTATUA
2017	2,2	3,05	19,91	15,45
2018	2,11	3,06	20,25	15,87
2019	2,26	3,34	20,59	16,08
2020	2,56	3,71	23,54	19,21
2021	2,27	3,25	22,98	18,35
19/20	0,3	0,37	2,95	3,13
20/21	-0,29	-0,46	-0,56	-0,86

Iturria: EIN. FAI. Geuk egina.


* Jabetzako etxebizitzari egotzitako alokairua.

4.3.3. Etxebiden, Euskal Etxebizitza Zerbitzuan, erregistratutako etxebizitza babestuen eskaria

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak "**Etxebide zerbitzuaren ebaluazio orokorreko 2021eko txostena**" izenekoan adierazten duenez, Etxebiden, Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan, inskribatutako etxebizitza babestuen eskariak % 17,2ko igoera nabarmena izan zuen 2017an, eta inflexio-puntua izan zen aurreko urteetan erregistratutako


dinamikarekin alderatuta³⁷, gaur egungo joerari eutsiz; hala, 2021ean (behin-behineko datua) 77.640 etxebizitza babestu eskatu ziren Euskadin, aurreko urtean baino 387 gehiago (+% 0,5). Sexuaren arabera banaketa nahiko egonkorra izan da azken urteetan, eta emakumeak pixka bat gehiago izan dira (pertsone bakarrekoko eskaeren % 54,8).

V.4.15 GRAFIKOA. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKARIAREN BILAKAERA EAEn, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA.



Lurraldeka, etxebizitza babestuen eskariak gora egin du 2021ean, bereziki Araban (+% 4,3), eta Gipuzkoako batez bestekoak ere gora egin du (+% 0,5). Bizkaian % 0,6 jaitsi da. Hala ere, Bizkaiko eskaria erdia baino gehiago da oraindik ere (% 52,1), ondoren, Gipuzkoakoa (% 33,9) eta hirugarrenik, Arabakoa (% 14) daudelarik.

V.4.16 GRAFIKOA. ETXEBIDEN IZENA EMANDA DAUDEN PERTSONEK ESKATUTAKO ETXEBIZITZA MOTAREN BILAKAERA.



Eskatutako etxebizitza motari dagokionez, 2013an izena emandako biztanleen % 58,1k alokairuaren alde egin zuten, eta 2021ean, berriz, ratioa % 77,4ra igo da (% 22,6k erostea aukeratu dute).

³⁷ 2014 eta 2016 artean, ia ez zen aldatu Etxebideko eskari kopurua, 2013an jaitsiera nabarmena egon ondoren nagusiki araubide bat indarrean jarri zelako; horren arabera, izen-emateak bi urtean behin berritu behar dira, bestela, baja egoera aitortzen baita.

Analisiaren ardatzean 2020an (eskuragarri dagoen azken datua) Etxebiden inskribatutako pertsonen kolektiboaren ezaugarriak jarrita, lehenik eta behin, biztanleria eskatzaileen batez besteko diru-sarrera mailak behera egiten du, urtean 15.244 euroko diru-sarrera haztatuak izanik, 2019an baino % 15,8 gutxiago. 2019. urtearekin alderatuta, eutsi egiten zaio erosteko etxebizitza babestua eskatzen duten biztanleen diru-sarreraren mailari (24.418 €), baita alokairuko etxebizitza babestua eskatzen dutenenari ere (12.706 €). Etxebizitza babestu baten eskatzaileek hilero aitortzen duten ordaintzeko gaitasunari dagokionez, kalkulatzen da, batez beste, 355,5 eurokoa dela ordaintzeko gaitasuna, 2019an baino % 0,4 txikiagoa. Gaitasun hori altuagoa zen erosteko etxeen eskatzaileen artean (472,2 euro/hilean) babestutako alokairuko etxebizitzaren eskatzaileen artean baino (318 euro/hilean).

V.4.16 KOADROA. EAEko ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKATZAILEEN BATEZ BESTEKO DIRU-SARREREN MAILA. URTEKO DATUAK, EUROTAN			
	ALOKAIRU ESKARIA	EROSKETA ESKARIA	GUZTIRA
2018	12.434	23.234	17.970
2019	12.411	23.627	18.108
2020	12.706	24.418	15.244
18/19 %	-0,2	1,7	0,8
19/20 %	2,4	3,3	-15,8

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIDE.


4.4. HIPOTEKA EGIKARITZEAK, BOTATZEAK ETA KALERATZEAK

Krisiak bizi-baldintzetan duen eraginetako bat da hipotekak edo alokairuko errentak ezin ordaintzeagatik etxebizitza galtzen duten familien kopuruak gora egiten duela. Hipoteka egikaritzeen, botatze judizialen eta kaleratzen bilakaera aztertzean, fenomeno horri buruzko informazioa eskuratu dezakegu.

4.4.1. Hipoteka egikaritzeak

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) Hipoteka egikaritzeen baitan, bahi edo hartzekodunarentzako hipotekaren bidez bermaturiko zorrak ordaintzeko lehen instantziako epaitegietan izapideturiko prozedurak bildu dira, hartzekodunaren aldeko hipoteka eskritura dutenak eta jabetza erregistroan inskribatuak. Komeni da azpimarratzea jabeek jabeak ez direla hasten diren egikaritze guztietan botatzen eta prozedura judizialek hipoteka egikaritzeengatik hainbat ziurtagiri egiteko aukera ematen duela. Gainera, hipoteka egikaritze horiek pertsona fisiko eta juridikoen hiri finkenak dira (etxebizitzak, orubeak eta abar barne).

V.4.17 GRAFIKOA. EAEen AURKEZTUTAKO HIPOTEKA-EGIKARITZEEN ETA ESTATUAREN GUZTIZKOAREN GAINEKO PISUAREN BILAKAERA.



Iturria: BJKN. Krisiak organo judizialean eragindako ondorioei buruzko estatistikak.

BJKNk hiru hilean behin estatistika txosten bat egiten du krisiak organo judizialean dituen ondorioei buruz, eta Euskadiko lehen instantziako epaitegietan³⁸ aurkezturiko hipoteka egikaritzeen jarraipena egiten du, eta adierazi duenez, 2022an 519 egikaritze erregistratu ziren, hots, % 21eko jaitsiera aurreko urtearen aldean, urte horretan % 28,6 igo ondoren. 2010etik (2016an izandako igoera txiki bat salbuetsiz) era horretako prozedurak behera egiten ari ziren, 2009an egikaritze gehien erregistratu ondoren, 1.255, hain zuzen ere. 2022an aurkeztutako 519 egikaritzeak Estatu osoko 24.952 exekuzioen % 2,1 izan ziren (-% 10,5 2021aren aldean).


Lurraldean arabera, Araban 81 egikaritze egin ziren, 2021ean baino % 32,5 gutxiago eta EAEko % 15,6, Bizkaian, 304 hipoteka egikaritze egin ziren, aurreko urtean baino % 17,8 gutxiago, eta guztien % 58,6. Gipuzkoan, 2022an, 134 egikaritze aurkeztu ziren, aurreko urtean baino % 19,8 gutxiago, eta EAEko guztien % 25,8.

4.4.2. Kaleratzeak eta etxegabetzeak

Hipoteka egikaritzea egin eta zenbait hilabete igaro ondoren, higiezinaren desjabetzea etorriko litzateke, zeinaren bidez higiezinaren jabetza kentzen zaion pertsona bati, epaileak emandako ebazpena betearazteko. Etxegabetze deritzo prozesu horri, baina termino hori ez da zuzena, zeren eta etxegabetzea soilik alokairu edo errentamendu kasuei baitagokie.

Guztira, 2022an, EAEn 1.382 kaleratze egin zituzten (kaleratze bat ondasun higiezin bakoitzeko, kaleratzea edo jabetza ematea sortzen dituen ezartzeak eta erabakitzen den prozesu mota edo prozesuaren fasea albo batera utzita erabakitzen denean, betiere, higiezinaren jabetza aldatzen bada, eta kontuan hartu gabe landa edo hiri finka den edo etxebizitza den edo ez), 2021ean baino % 13,6 gutxiago. Datu hori Estatuan egindako kaleratzeen % 2,2 da, eta kasu horretan ere jaitsi egin dira, % 3.


V.4.18 GRAFIKOA. EAEn JASOTAKO KALERATZE JUDIZIALEN URTEKO KOPURUAREN BILAKAERA.



Bestalde, lehen instantziako epaitegiek egindako kaleratzeen zifrak banandu egin daitezke hipoteka egikaritzeetatik, Hiri Alokairuetako Lege prozeduretatik (nagusiki ordaindu gabeko alokairuak) edo beste arrazoi batzuegatik (arbitrajeko laudoak, familia prozesuak, eta abar) eratortzen diren heinean.

³⁸ Aurkeztutako egikaritzeen bilakaera aztertu zuten, ez ebatzitako egikaritzeena, ezin baita jakin zenbateko eragina duen 2012an ezarritako luzamenduak berez aldatzea den egikaritzeen ebazpenen tasan.

V.4.19 GRAFIKOA. EAEn EGINDAKO KALERATZE JUDIZIALEN BANAKETAREN BILAKAERA, KAUSAREN ARABERA.




Iturria:BJKN.Krisiak organo judizialean eragindako ondorioei buruzko estatistikak.

Hala, 2022an, Euskadin, lehen instantziako epaitegiek 792 kaleratze egin zituzten, aurreko urtean baino % 8,2 gutxiago, eta Estatuko guztien % 2,1. Horietatik 144 hipoteka egikaritzeak izan ziren (-% 14,8, 2021arekin alderatuz), 806 etxebatze prozedurak (-% 7,3) eta 72 beste prozedura batzuk (+% 5,7). Guztizkoaren gaineko ehunekoan, egiaztatzen da eskuragarri dagoen serie osoan errentamenduagatiko etxebatzeek hartzen dituztela kaleratze gehienak, % 77,1 2022an, 2021ean baino 0,7 puntu gehiago eta 2020an baino 5,6 gutxiago, aztertutako seriearen pisurik handiena lortu baitzen orduan (% 82,7).

Alokairua ez ordaintzeagatiko etxebatzezei dagokienez, egiaztatu da Euskadin 2022an egindako 611 etxebatzeak (-% 7,3) Estatuko guztien % 2,2 direla. Lurraldeka, bilakaerak alde batzuk ditu: Araban 129 etxebatze izan dira, 2021ean baino % 21,8 gutxiago, eta guztien % 21,1. Bizkaian 382 etxebatze izan dira, aurreko urtean baino % 14 gutxiago eta guztien % 62,5. Gipuzkoan, aldiz, goranzko bilakaera izan du: 100 etxebatze izan dira, 2021ean baino % 100 gehiago eta gure erkidegoko guztien % 16,4.

V.4.20 GRAFIKOA. EAEn ALOKAIRUA EZ ORDAINTEAGATIK EGINDAKO ETXEGABETZEEN BILAKAERA




Iturria: BJKN. Krisiak organo judizialean eragindako ondorioei buruzko estatistikak.

4.5. ETXEBIZITZA HUTSAK ETA JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZAK. 2021.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak "EAEko etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta" egiten du bi urtean behin, gure erkidegoan hutsik dauden etxebizitzaren parkearen dimentsioa eta kudeatzeko posibilitateak zein diren jakiteko, informazio garrantzitsua baita hutsik dauden etxebizitzak mugiarazteko politikak sortzeko.

2021eko inkestaren emaitzei buruzko txostenaren arabera (eskuragarri dagoen azkena), urte horretan milioi bat etxebizitza baino gehiago zenbatu ziren EAEn, eta horietatik % 92,8 okupatuta egon ohi dira (% 91,8 2019an). Eta hutsik dauden edo nagusiak ez diren etxebizitzaren % 7,2tik (76.904 unitate), % 2,8 sasoiko etxebizitzak dira, eta gainerako % 4,4 (46.757 etxebizitza) **jenderik gabeko etxebizitzaren parkeari** dagozkio (% 5,1 2019an).



Lurraldeka, Gipuzkoan jenderik gabeko etxebizitzaren tasa txikiena izan da 2021ean. % 3,7 dira; Bizkaian eta Araban, berriz, % 4,4 eta % 3,8, hurrenez hurren. 2019aren aldean, jaitsiera esanguratsua izan da jenderik gabeko etxebizitzaren kopuruan (-% 12,7 balio absolututan), eta EAeko tasa orokorra 7 hamarren jaitsi da, % 5,1etik % 4,4ra.

Udalerrien tamainaren arabera, jenderik gabeko etxebizitzaren ehuneko handiena da (% 9,8) 2.500 biztanlelik beherako udalerrietan (% 11,9 2019an). Ratioa % 5,9 da 2.500 eta 10.000 biztanle arteko udalerrietan (% 6,4 2019an) eta % 4,5 10.000 eta 20.000 biztanle arteko udalerrietan (% 6,2 2019an). Etxebizitzaren % 4,4 jenderik gabe daude 20.000 eta 40.000 biztanle arteko udalerrietan (% 4,6 2019an) eta % 4,6 40.000 eta 100.000 biztanle artekoetan (% 4,3 2019an). Azkenik, 100.000 biztanlelik gorako udalerrietan, hau da, hiru lurraldeetako hiriburuetan, jenderik gabeko etxebizitzaren ratioa % 2,6koa da (% 3,1 2019an).

V.4.17 KOADROA. EAeko JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZEN PARKEAREN BILAKAERA UDALERRIAREN TAMAINAREN ARABERA. 2017-2021.

	DATU ABSOLUTUAK					ETXEBIZITZA GUZTIEN GAINEKO RATIOA		
	2017	2019	2021	19-21 ALD.	19/21 %	2017	2019	2021
GUZTIRA	69.231	53.533	46.757	-6.776	-12,7	6,6	5,1	4,4
< 2.500	9.093	9.104	7.592	-1.512	-16,6	12,3	11,9	9,8
2.501 – 10.000	13.675	9.796	8.360	-1.436	-14,7	9,1	6,4	5,9
10.001 – 20.000	14.047	9.802	7.483	-2.319	-23,7	8,5	6,2	4,5
20.001 – 40.000	8.410	4.980	5.593	613	12,3	7,2	4,6	4,4
40.001 – 100.000	8.897	8.106	7.858	-248	-3,1	5,3	4,3	4,6
> 100.000	15.109	11.745	9.871	-1.874	-16,0	4,1	3,1	2,6

Iturria: Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA.

Beraz, 2019tik 2021era bitartean behera egin du hutsik dauden etxebizitzaren ehunekoak udalerriaren tamainaren maila guztietan, 40.001 biztanletik 100.000 biztanlera bitartekoetan izan ezik, % 0,3 egin baitu gora. Gainera, jenderik gabeko etxebizitzaren presentzia nabarmen txikiagoa da EAEko hiriburuetan (% 2,6 batez beste). Zehazki, tasa % 2,4koa da Bilbon, % 3,3koa Donostian eta % 2,2koa Gasteizen.

Deskribatutako dinamikaren ondorioz, 2021ean hutsik zeuden 5 etxebizitzatik bat bakarrik dago EAEko hiriburuetan (% 21,1), eta herenak baino gehiago (% 34,1) 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan daude. Halaber, 40.000 biztanletik gorako udalerrietan, jenderik gabeko etxebizitzak % 37 ziren 2019an, eta % 37,9, berriz, 2021ean.


Beraz, EAEko jenderik gabeko etxebizitzaren bolumena eta ezaugarriak aztertuta, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmendu du etxebizitza horietako batzuk dagoeneko eskainita daudela salerosketa-

V.4.18 KOADROA. EAEko JENDERIK GABEKO ETXEBIZITZEN PARKEAREN BANAKETA MOTAREN ARABERA. 2019-2021.						
	2019		2021		19/ 21 ALDAK.	
	KOP.	PARKEAREN G/ %	KOP.	PARKEAREN G/ %	KOP. %	PARKEAREN G/ % PPetan
NAGUSI EZ DIRENAK	86.979	8,2	76.904	7,2	-11,6	-1,0
SASOIKOAK	33.446	3,2	30.147	2,8	-9,9	-0,4
JENDERIK GABEAK	53.533	5,1	46.757	4,4	-12,7	-0,7
Eskaintzan	17.869	1,7	13.850	1,3	-22,5	-0,4
*Kudeagarriak	34.068	3,2	32.908	3,1	-3,4	-0,1
** Kudeagarriak lekualdaketak kanpo	26.207	2,5	26.132	2,4	-0,3	-0,1

Iturria. Etxebizitzaren Behatokia. EUSKO JAURLARITZA. Geuk egina.
** Bigarren bizileku ez diren eta merkatuan eskaintzan (salmenta edo alokairua) agertzen ez diren etxebizitzak.*
*** Aurrekoetz gain, kanpoan geratzen dira lan, hezkuntza, osasun, mendekotasun edo gizarte-larrialdiko arrazoiengatik bizileku lekualdaketak.*

merkatuan eta, neurri txikiagoan, alokairu-merkatuan. Beraz, etxebizitza horiek ez dira kudeagarriak etxebizitza hutsak mobilizatzeko programen ondorioetarako. Halaber, beste batzuk aldi baterako daude hutsik, ezinbestean, jabeen osasunarekin lotutako arrazoiengatik edo lanagatik.

Hori dela eta, Etxebizitzaren Erabilerari buruzko Inkestak **jenderik gabeko etxebizitza "kudeagarriei"** erreparatzen die: 2021ean 26.132 etxebizitza guztiz kudeagarri zenbatu dira guztira (lekualdatzeak kenduta), 2019an baino % 0,3 gutxiago, eta etxebizitza parkearen % 2,4 eta jenderik gabeko etxebizitzaren erdiak, gutxi gorabehera (2019an etxebizitzaren parke osoaren % 2,5).



EAEko jenderik gabeko etxebizitza kudeagarrien ezaugarri nagusiak kontuan hartuta, % 82,6k 100 m² erabilgarri baino gutxiago dituzte, eta horietako gehienek (% 39,6k) 51-74 m² dituzte. 50 m² baino gutxiagoko apartamentuen presentzia erlatibo oso txikia da (% 9,4). Era berean, etxebizitza horien % 45,7k 5 logela dituzte

(egongela eta sukaldea barne) eta % 80,1ek bainugela bat dute (% 17,9k bi dituzte). Bestalde, % 35ek hodi bidezko gas-instalazioa dute, eta % 14,1ek erantsitako instalazioak dituzte (trasteleku motakoak).

4.6. ETXEBIZITZA POLITIKA

4.6.1. Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politika

a) 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana.

2010etik aurrera, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza politikaren oinarria alokairuko etxebizitza publikoaren parkea gehitzea eta hiri birgaitze eta berrikuntza politika berria sustatzea izan da, irtenbide eraginkor eta jasangarri gisa, hain zuzen ere. Halaber, lurzorua kudeatzeko politika aktiboari eutsi nahi dio, etxebizitza berriaren eraikuntzaren sektorea dinamizatzeko eta lurralde banaketa orekatuagoa lortzeko xedearekin, betiere, etxebizitza politikaren zerbizurako baliabideen erabileran eraginkortasun handiagoa izateko testuinguruan, baina kontuan hartuta etxebizitzaren merkatua errotik aldatu dela finantza krisiagatik eta higiezinaren burbuila lehertu izanagatik.

2021ean jarri zen indarrean 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana³⁹. Hau da plan horren **xedea**, "etxebizitza duin eta egoki baten beharra duten pertsonen erantzun integrala bermatzea, eta, horretarako, alokairu eskuragarriko eta etxebizitza-parkearen bizigarritasun-eta jasangarritasun-baldintzak hobetzeko baliabide-eskaintza areagotzea". Izan ere, **ikuspegi** hau du: "Etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatuko duten prestazioen sistema ezarrita eta finkatuta edukitzea, alokairu eskuragarriko etxebizitza-parkearen hazkundea eta kohesio soziala erraztuz; horretaz gainera, etxebizitza-parke publiko eta pribatua birgaitzeko bidea bultzatzea, eta, horretarako, Europako Funtsak optimizatzea, birgaitze-politiken aldaketa estrategiko bat sustatuz –alegia, eraikinen kalitatea eta bizigarritasuna, birgaitze integrala, irisgarritasuna, energiaren efizientzia, inpaktu klimatikoa murriztea eta berrikuntza–".

Planaren arkitektura honako ardatz eta estrategia hauetan banatzen da:



³⁹ Memoria honen 2020ko edizioak aurreko 2018-2020 EGparen betetze-mailaren ebaluazio osoa jasotzen du, eta 2021ekoak zehatz-mehatz aurkezten ditu 2021-2023 EGparen ildo nagusiak.

Azkenik, 2021-2023 EGparen aurrekontu-kostua 1.237,6 milioi eurokoa da, eta Etxebizitza Sailburuordetzak (4312 Etxebizitza Programaren bidez) eta Visesa eta Alokabide sozietate publikoek gauzatzen duten gastu kontsolidatua jasotzen du, sozietateen arteko elkarrekiko gastu-harremanak ezabatu ondoren, lehenik, eta sozietate horien eta etxebizitza-programaren artekoak, ondoren. 2021-2023an ekonomia errealean gauzatu beharreko gastu eta inbertsio efektiboaren zifra da, eta 119 milioi euroko (% 11) gehikuntza dakar, aurreko 2018-2020 aldirako Gida Planarekin alderatuta.

EGP berri horren berritasun aipagarri gisa, etxebizitzari lotutako gastu fiskala, 2021-2023 aldirako, 1.263,6 milioi eurokoa dela kalkulatu dena, lehen aldiz, aurrekontuko zuzeneko gastuaren oso antzeko zifretan mugitzen da, eta, horrela, hautsi egiten da EAeko gastu fiskalak etxebizitzako zuzeneko gastua askogatik gainditzeko joera historiko bat.

b) Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036 aldirako

2022ko azaroan, Euskadiko 2022-2036 aldirako Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala sinatu zen. Tresna estrategikoa eta egiturazkoa da, eta eragile publiko eta pribatu askok konpromisoa hartzen dute 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean modu koordinatuan aurrera egiteko. Guztira, 88 erakundek egin dute bat Itunarekin, gizarte zibiletik edo kolektibo profesionaletatik hasi eta erakunde eta enpresetaraino.

Hau da Itunaren helburu nagusia: "*etxebizitzarako eskubidea eskubide eraginkor gisa bizkortzea. Etxebizitza duin eta arrazoizko prezioa eskuratzea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat da, zeinarekin erabat konprometituta baitago Euskadi*".

Era berean, helburu nagusi hori lau **helburu kuantitatibotan** zehazten da, Itunaren esparruan garatzen diren jarduerak gidatuko dituztenak:


- **1. helburua.** Arrazoizko prezioa alokairuaren eskaintza publikoa Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 5ekoa izatea 2036. urtearen amaieran.
- **2. helburua.** 2036an babes publiko iraunkorreko etxebizitzak Euskadin dauden etxebizitza nagusien % 12 izatea, 2021eko % 7,7arekin alderatuta.
- **3. helburua.** Eraikin guztien % 1,5eko urteko birgaikuntza-indizetik % 3ra pasatzea, Europako zuzentzarauak eta politikek 2030erako eta 2050erako ezarritako helburuak betetzeko.
- **4. helburua.** Talde kaudimendunei etxebizitza libreen eskaintza ahalbidetzea, bai obra berria bai etxebizitza berriak, birgaitze-prozesuak egin ondoren, sustatuz.

Era berean, Ituna lehentasunezko 6 jarduera-ildoren inguruan eratzen da, eta horietatik 4 zuzeneko eragina duten ildoak dira (inbertsio handiagoa etxebizitzan, dimentsio soziala, txertatzea orokortzea eta eraikuntzaren sektore erakargarria), eta zeharkako laguntza 2 ildo (udal estrategia eta inplikazio eta lankidetzak publikoak, pribatuak eta sozialak).

Azkenik, Itunak partaidetza-, lankidetzak- eta gobernantza-eredu bat ezartzen du, Etxebizitza Sailburuordetzak bultzatua, baina parte hartzen duten eragile guztiek osatua. Era berean, jarraipen-adierazle batzuk ezartzen ditu, Itunaren helburu kuantitatiboak eta jarraibideak betetzen diren ebaluatzeko. Adierazle horien bidez, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak jarraipen-txosten bat egingo du urtero.

C) Etxebizitzako gastua

V.4.23 GRAFIKOA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUAREN BILAKAERA KAPITULUKA. EUROAK, MILIOITAN.



Etxebizitza politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak gehieneko kopuruak 2009an izan zituen 207,4 milioi euroekin, eta 2015ean erdira gutxitu zen (99,8 milioi euro), kontrako egoera baten ondorioz. 2016tik aurrera, berriz ekin zaio hazkunde bideari, 2019an 224 milioi eurora iritsi arte, eta, beraz, 2009ko maximoa gainditu da.

2020an (eskuragarri dagoen azken datua), ordea, gauzatutako gastuak beherakada handia izan du, 118 milioi euro guztira (-% 47,3 2019koaren aldean). Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren ebaluazio txostenak onartzen du pandemiaren ondoriozko krisiak zaildu egin duela hainbat proiektu abian jartzea eta/edo izapidetzea, eta horrek azkenean gauzatutako aurrekontua murriztea ekarri duela. Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 0,16 da, aurreko urtean baino 12 ehunen gutxiago, gastuaren bilakaeraren eta ekonomiaren hazkundearen ondorioz.

Hurrengo puntuetan, Etxebizitza Sailak 2018-2020 aldirako Etxebizitzaren Gida Planaren jarraibideak aplikatuz 2020an egindako birgaitze- eta alokairu-politiken jarduketan laburpena aurkezten da⁴⁰.

d) Birgaitzea. 2020ko jarduketak.

2020. urteko gauzatzei dagokienez, Etxebizitzaren Behatokiaren kalkuluen arabera, urtean emandako laguntzek 7.519 etxebizitza birgaitzen lagundu zuten EAEn (-% 32,8 2019koaren aldean), guztira 14,2 milioi euro (-% 27,2) emanda. Bilakaerari dagokionez, dirulaguntzen kopurua eta birgaitutako etxebizitzak nabarmenki jaisten ari ziren 2009ko gehieneko historikotik, eta, orduan, 20.142 etxebizitza birgaitzeko lanak hasi zituzten, (22,4 milioi euro), 2016tik aurrera, suspertzen hasteko, baina badirudi susperraldia eten egin dela 2020an (ikus


V.4.19 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAREN GASTU LIKIDATUAREN BILAKAERA ETA BPGd-n DUEN PISUA.

	ETXEBIZITZA SAILAREN GASTUA		EAEko BPGd PREZIO KORRONTETAN		% SAILA BPGd-aren gainean
	Mili. Euroak	Geh. %	Mili. Euroak	Geh. %	
2014	107,1	-14,7	66.378	0,7	0,16
2015	99,8	-6,8	68.497	3,2	0,15
2016	108,1	8,3	71.239	4,0	0,15
2017	143,1	32,4	73.697	3,5	0,19
2018	152,9	6,8	76.888	4,3	0,20
2019	224,0	46,5	79.537	3,4	0,28
2020	118,0	-47,3	71.528	-10,1	0,16

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Behatokiaren eta EUSTATen datuak erabilia egindakoa.

⁴⁰ Memoria honen 2021eko edizioan jasotako informazioa ezin izan denez eguneratu, aipatutako gaien laburpena eskaintzen da.

V.4.24 grafikoa) . 2020ko datuei erreparatuta ikusten denez, batez besteko diru-laguntza 1.889€ izan zen etxebizitzako, aurreko ekitaldian baino % 8,4 gehiago.



e) Alokairua. 2020ko jarduketak.

Alokairuko etxebizitzaren sustapena bultzatzeko xedea izanik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, etxebizitza babestuen zuzeneko sustatzaile gisa jarduteaz gain, diru-laguntzen gaineko politikari eusten dio, eta beste eragile publiko eta pribatu batzuentzako laguntzak ematen ditu alokairu araubidea

V.4.20 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAKO ETXEBIZITZA SAILAK ALOKAIRURAKO EMANDAKO DIRULAGUNTZEN ETA LAGUNTZEN BILAKAERA. ERAGINPEKO ETXEBIZITZAK ETA GASTUA, EUROTAN.

	ETXEBIZITZAK	ALOKAIRURAKO LAGUNTZAK (EUROAK)			
		DIRULAGUNTZAK	LAGUNTZAK	GUZTIRA	ALD. %
2013	22	880.000	916.957	1.796.957	-94,6
2014	229	5.159.000	3.361.788	8.520.788	374,2
2015	0	0	0	0	-100,0
2016	184	8.019.600	7.679.699	15.699.299	-
2017	104	3.936.200	106.515	4.042.715	-74,2
2018	1	49.692	0	49.692	-98,8
2019	83	2.421.000	845.637	3.226.637	6.393,3
2020	76	3.040.000	1.403.837	4.443.837	37,7

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA BEHATOKIA.

sustatzeko; bestalde, oso ibilbide irregularra izan dute azken urteotan, bai ukitutako etxebizitzaren, bai bideratutako funtsen kopuruari dagokionez.. 2020an, 4,44 milioi euro bideratu ziren laguntza horietara, aurreko urtean baino % 37,7 gehiago, alokairuko 76 etxebizitza sustatzeko. Kopuru horretatik, % 68,4, 3,04 milioi, dirulaguntzetarako erabili ziren, eta gainerako % 31,6, subsidioetarako.

Gainera, gobernuak maileguak ematen ditu baldintza berezietan alokairuko etxebizitza sustatzaileentzat. 2020an 2,89 milioi euroko maileguak formalizatu ziren alokairuko etxebizitza berriak sustatzeko, 2019ko 16 milioien aldean. Ez zen inolako mailegurik eman zuzkidura etxebizitzak

V.4.21 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA SAILAK ALOKAIRUA SUSTATZEKO EMATEN DITUEN MAILEGUEN BILAKAERA. EUROAK.

	BERRIA, ALOKAIURUAN	ZUZKIDURA ETXEBIZITZAK	BABESTUTAKO ALOKAIURUA	GUZTIRA
2013	7.700.000	5.125.000	0	12.825.000
2014	0	0	0	0
2015	0	0	3.740.000	3.740.000
2016	8.300.000	0	0	8.300.000
2017	6.430.000	0	542.000	6.972.000
2018	0	0	0	0
2019	16.005.000	2.542.000	0	18.547.000
2020	2.894.375	0	0	2.894.375

Iturria: EUSKO JAURLARITZAREN ETXEBIZITZA BEHATOKIA.

sustatzeko, ezta errentamendu babestuak sustatzeko ere; beraz, mailegu horien guztizko bolumena 2,89 milioi eurokoa da, 2019an baino % 84,3 gutxiago (V.4.21 koadroa).

Bestalde, Etxebizitza Sailaren "Bizigune" programaren helburua etxebizitzaren alokairua erraztea da jabeek jasotzen duten errenta baino kopuru baxuagoan Modu horretan, EAEko etxebizitza hutsak erabiltzen dira, babestutako alokairuan horiek eskainiz. 2020an, errentariak ordaindu zuten hileko batez besteko errenta 235,7€ da; jabeek, berriz, 519,9€ jaso dituzte hilean, batez beste. Laguntza horien guztizko zenbatekoa 30,5 milioi eurokoa da, 2019an baino % 4,7 gehiago.

V.4.22 KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN "BIZIGUNE" PROGRAMAREN LAGUNTZEN BILAKAERA.				
	ETXEBIZITZAK ESKURATUTAKOAK	DIRULAGUNTZAK (MILIOI EUROTAN)	EURO/ETXEB.	ALD. %
2013	5.174	20,49	3.959,6	-12,2
2014	4.590	19,27	4.199,0	6,0
2015	4.589	19,27	4.199,9	0,0
2016	4.499	19,50	4.334,3	3,2
2017	4.639	24,00	5.173,5	19,4
2018	5.325	23,50	4.413,2	-14,7
2019	6.004	29,13	4.851,8	9,9
2020	6.451	30,50	4.732,0	-2,5

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.

2012ko abenduan eskuratu eta kudeatutako 6.451 etxebizitzekin, 2019. urtearekin alderatuz, % 7,4ko hazkundera egon da, eta programa hori martxan jarri zenetik egon den zifra altuena da. Bilakaera horren ondorioz, batez besteko diru-laguntza 4.732 eurokoa da etxebizitza bakoitzeko, 2019an baino % 2,5 gutxiago.

Eusko Jaurlaritzak, partikularren artean errentamendu-erregimena sustatzeko beharra ikusita, 2012tik aurrera alokairu libreko merkatuan bitartekaritza-programa bat garatzen du, "ASAP programa" (Alokairu segurua Arrazoizko Prezioa), eta, gainera, Bizigunek, emaitzak gorabehera, kostu handia dakarkio Sailari. 2020an 276 errentamendu-kontratu formalizatu ziren. Era berean, Etxebizitzaren Behatokiak nabarmendu du 2020an programak 313 etxebizitza dituela inskribatuta, aurreko urtean baino 42 gehiago, eta, beraz, okupatutako etxebizitzaren tasa % 88,2koa da (2019an, % 82,3). Bestalde, batez besteko alokairu-errenta 506 eurokoa izan zen 2020an (+% 1,5 aurreko urtearekin alderatuta).

V.4.23 KOADROA. "ASAP" ALOKAIUAREN BITARTEKARITZA PROGRAMA. EMAITZA NAGUSIAK		
	ETXEBIZITZAK INSKRIBATUTAKOAK	SINATUTAKO ALOKAIRU KONTRATUAK
2015	233	145
2016	254	221
2017	260	209
2018	263	212
2019	271	223
2020	313	276

Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.


Azkenik, 2019an, "Gaztelagun" programa jarri zen abian, alokairua ordaintzeko zuzeneko laguntzen bidez gazteen emantzipazioa bultzatzeko. 2020an 1.800 pertsonari eman zitzaizkien laguntzak (2019an baino 1.054 gehiagori), guztira 3 milioi euro (aurreko urtean baino 2 gehiagori), eta, beraz, batez beste 1.663,92 euroko laguntza eman zitzaizkien onuradun bakoitzeko (2019an baino % 28,4 gehiagori).

V.4.24 KOADROA. "GAZTELAGUN" PROGRAMA. EMAITZA NAGUSIAK			
	PERTSONA JASOTZAILEAK	ZENBATEKOA GUZTIRA (€)	ZENBATEKOA BATEZ BESTE (€)
2019	746	966.528,0	1.295,60
2020	1.800	2.995.069,0	1.663,92


Iturria: EUSKO JAURLARITZA. Etxebizitzaren Behatokia.

4.6.2. Foru aldundien etxebizitzarako zerga politikak

Eusko Jaurlaritzak garatu duen etxebizitza politikaz gain, interesgarria da gastu fiskalen kopuru handiak ezagutzea, foru aldundiek etxebizitza gaietan esku-hartze publikoa egiteko tresna gisa erabiltzen dituztelako. Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren "Etxebizitzari lotutako PFEZaren gastu fiskala Euskadin" txostenak nabarmentzen du, lehenik eta behin, euskal ogasunek 2011-2019 aldirian guztira 3.624,1 milioi euro sartzeari utzi ziotela etxebizitzari lotutako PFEZaren kenkari fiskalengatik, hau da, urtean 400 milioi euro inguru batez beste.




Gastu fiskalaren zenbatekoa erosketaren PFEZren kenkariei (eta etxebizitza kontuei), alokairuari eta birgaikuntzari dagozkie, baina intentsitate ezberdinarekin: etxebizitza erosteko pizgarrien zioz 2011-2019 aldian kobratzeari utzitako 2.874,3 milioi euroekin du zerikusia gasturik handienak (guztizkoaren % 79,3). Alokairuaren ziozko kenkariarekin lotutako gastu fiskala, berriz, 659,5 milioi eurokoa izan zen epealdi berean (etxebizitza guztien % 18,2). Azkenik, birgaitzarekin lotutako gastu fiskala % 2,5 baino ez zen izan, 90,3 milioi euro.



Datu erabilgarriak dituen azken ekitaldiari dagokionez, etxebizitzagatikoko kenkariaren zenbatekoa 2019an 424,8 milioi eurokoa izan zen, 2018an baino % 3,8 gehiago. Zenbateko hori Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak urte horretan egindako gastuaren % 189,6 da (224,0 milioi euro), arestiko puntuan ikusi denez. Behatokiak, halaber, adierazi du zenbateko hori ekitaldi horretan PFEZagatik bildutako zenbatekoaren % 7,6 dela.

V.4.27 GRAFIKOA. ETXEBIZITZAREN ARABERAKO KENKARIA DUTEN PFEZ AITORPENEN BANAKETA, MOTAREN ARABERA.. 2019.



Iturria: ETXEBIZITZAREN BEHATOKIA, Foru Aldundien datuekin.

Behatokiak nabarmendu duenez, azken urteetan gastu fiskala murrizteko prozesua gertatu da, etxebizitzaren erosketarekin lotuta. Alokairukoa, aldiz, pixka bat gehitzen zen. Hala ere, 2018an bezala, 2019ko datuek adierazten dute joera aldaketa egon daitekeela; izan ere, erosketari lotutako gastu fiskala 296,3 milioi eurotik gorakoa da, 2018an baino % 1,5 handiagoa, eta zenbateko hori kendutako guztiaren % 69,8 da (% 72,4 etxebizitza kontuak gehituz gero). Alokairuari lotutako gastuak goranzko joerarekin jarraitzen du, 97,8 milioi euroraino, 2018an baino % 6,2 gehiago (guztizkoaren % 23). Era berean, birgaitzeari lotutako gastu fiskala % 20,7 hazi da, 17 milioi euroko kota gainditu arte, eta, horrela, haren garrantzia handitu da, etxebizitza bakoitzeko kendutako guztizkoaren % 4.

Bestalde, etxebizitzari lotutako PFEZren kenkari motaren bat duten aitorpenen kopurua nahiko egonkor mantendu da azken urteetan, nahiz eta 2014tik aurrera ohiko etxebizitzan inbertsioaren eta kenkari mugak gutxitu egin ziren⁴¹, kengarria den gehieneko inbertsioa 8.500 eurokoa delarik, % 18ko kenkari orokorreko zenbatekoarekin eta ez % 23 baino altuagoa, bakarrik 30 urte baino gutxiago dutenentzat eta familia ugariak dituztenentzat.

Era berean, 2019an, orotara 312.939 aitorpenek izan zuten ohiko etxebizitza eskuratzearen ziozko kenkaria (etxebizitzaren ziozko 443.589 kenkariaren % 70,5). Alokairuko kenkariari dagokionez, berriz, askoz txikiagoa da kopurua, orotara 95.118 aitorpen besterik ez baitira (aitorpen guztien % 21,4). Kopuru horiek, beraz, bat datoz EAEko etxebizitzaren merkatuaren errealitatearekin, non jabetzapeko etxebizitzaren pisua askoz handiagoa den.

⁴¹ 2013ko ekitaldian estatuan, orokorrean kendu ziren etxebizitza erosteko PFEZ kenkariak, Euskadin eta Nafarroan izan ezik, eta 2015etik aurrera, kendu egin ziren kontratu berrientzako alokairua ordaintzeko kenkari orokorrak. Orain dela gutxi, Nafarroako Foru Komunitateak kenkari horiek kendu ditu baita ere, eta, beraz, gaur egun, EAE da kenkari horiek mantentzen dituen autonomia erkidego bakarra (bakarrik autonomia erkidego batzuk mantentzen dituzte kenkari batzuk alokairua ordaintzeko, eta, edonola ere, horien garrantzia baxua da, kolektibo eta inguruabar oso espezifikotara bideratzen baitira).

ITURRIAK

1. **JABETZAREN ERREGISTRATZAILEEN ELKARGOA (2023)**. Higiezin Erregistroari buruzko Estatistika. 2022ko IV. hiruhilekoa
2. **BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA (2023)**. Kriaiak organo judizialean eragindako ondorioei buruzko estatistikak. 2022ko IV. hiruhilekoa
3. **EUSKO JAURLARITZA (2021)**. 2021-2023 aldirako Etxebizitzaren Gida Plana.
4. **EUSKO JAURLARITZA (2022)**. Euskadiko Etxebizitzaren Erabilerari buruzko Txostena 2021
5. **EUSKO JAURLARITZA (2022)**. Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala 2022-2036 aldirako
6. **EUSKO JAURLARITZA (2023)**. Higiezin Salerosketaren Estatistika (HSEE) 2022ko IV. hiruhilekoa
7. **EUSKO JAURLARITZA (2023)**. Alokairuko Merkatuaren Estatistika (AME), 2022
8. **EUSKO JAURLARITZA (2023)**. Eraikuntza eta etxebizitzari buruzko estatistika 2022ko IV. hiruhilekoa
9. **EUSKO JAURLARITZA (2022)**. Etxebizitzaren Behar eta Eskariari buruzko Inkesta, 2021
10. **EUSKO JAURLARITZA. ZERGAK KOORDINATZEKO ORGANOA (2022)**. Euskal ogasunaren urteroko txosten integratua, 2019
11. **EIN (2023)**. Etxebizitzaren Prezioen Indizea (EPI). 2022ko IV. hiruhilekoa
12. **EIN (2022)**. Familia Aurrekontuei buruzko Inkesta. 2021
13. **GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDA KO MINISTERIOA (2023)**. Higiezin transakzioei buruzko Estatistika. 2022ko IV. hiruhilekoa
14. **GARRAIO, MUGIKORTASUN ETA HIRI AGENDA KO MINISTERIOA. ETXEBIZITZAREN ETA LURZORUAREN BEHATOKIA (2023)**. Etxebizitza Alokairuari buruzko Buletin Berezia 2022
15. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2022)**. Etxebizitzari lotutako PFEZko gastu fiskala Euskadin. 2019 eta 2020.
16. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2022)**. Etxebide Zerbitzuaren Ebaluazio Orokorren Txostena. 2021eko iraila
17. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2021)**. 2020ko birgaitze politikaren ebaluazioa
18. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2021)**. 2020ko alokairu politikaren ebaluazioa
19. **ETXEBIZITZAREN EUSKAL BEHATOKIA (2021)**. 2018-2020 aldirako Etxebizitza Politiken ebaluazio integrala.

5. BIZI KALITATEA LABURPENA ETA GOGOETAK

5.1. LABURPENA

5.1.1. Hezkuntza eta kultura

Hezkuntza

EUSTATen arabera, 2021/22 ikasturtean 371.612 ikasle matrikulatu ziren unibertsitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzan EAEn⁴² (+% 1,2 aurreko ikasturtearen aldean).

Hezkuntza berezia alde batera utzita, beheko mailetan (haur- eta lehen-hezkuntza) 368.414 ikasle matrikulatu ziren: 76.387 haur-hezkuntzan (-% 2,8, beheranzko joerarekin jarraitzen du) eta 125.889 lehen-hezkuntzan (-% 1,7, aurreko urteari gehituta); DBHn 87.091 (-% 0,1) eta Oinarrizko Lanbide Heziketan 4.746 (-% 1,5).

Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondoko Hezkuntzari dagokionez, Batxilergoan 32.640 pertsona⁴³ (+% 0,4 aurreko urtekoaren aldean) matrikulatu ziren eta Erdi-mailako Lanbide Heziketan 16.289 (+% 3,4). Hala, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasleen % 66,7k Batxilergoa aukeratu zuen, eta % 33,3k, berriz, Erdi-mailako Lanbide Heziketan eskainitako moduluetakoa bat egitea erabaki zuen. Bestalde, goi-mailako Lanbide Heziketan 23.749 pertsona matrikulatu ziren, aurreko ikasturtean baino % 3 gehiago⁴⁴.

EUSTATen informazioaren arabera, Haur Hezkuntzaren kasuan, jaitziera egon den bederatzigarren ikasturtea izan da jarraian, eta horrek esan nahi du 2012/13 ikasturtetik matrikulazioa jaitsi egin dela, 20.000tik gora matrikula gutxiago. Aitzitik, erdi-mailako eta goi-mailako Lanbide Heziketako ikasle-kopurua sei ikasturte segidan igo da, eta, erregistroak daudenetik lehen aldiz, 40.000 ikasletik gora izan ziren.

Ikastetxeen titulartasunari dagokionez, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn matrikulazioa handiagoa da sare publikoan pribatuan baino. Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondoko Hezkuntzari dagokionez, hauek dira emaitzak: Batxilergoko matrikulazioa sare pribatukoa baino pixka bat handiagoa da (% 53,9 pribatuan eta % 46,1 publikoan) eta Lanbide Heziketan nagusi dira zentro publikoetako matrikulak.

Batxilergoari dagokionez⁴⁵, 2021-2022 ikasturtean, ikasleen % 53,9 Zientzietan matrikulatu zen, % 33,9 Gizarte Zientzietan, % 8 Giza Zientzietan eta % 4,2 Arteetan. Emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa izan da Arteetan (% 76,1), Giza Zientzietan (% 65) eta Gizarte Zientzietan (% 56,7). Hala ere, gizonen ratioa igo egin da. Aldiz, Zientzietan matrikulatutako gizonen ehunekoak emakumeena baino handiagoa da (% 51,3 vs % 48,7).

Ikasketa profesionaletan, EUSTATen arabera, 2021-22 ikasturtean, ikasleen bolumen handiena bildu zuten erdi-mailako lanbide-arloak berriz ere hauek izan ziren: Osasuna (% 16,5, +% 13,6), Fabrikazio Mekanikoa (% 13,2, -% 6,6), Elektrizitatea eta Elektronika (% 9,4, +% 6,3), Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 8,1, +% 4,3), Administrazioa eta Kudeaketa (% 7,7, -% 2,1), Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 7,4, +% 5,5) eta Informatika eta Komunikazioak (% 7,5, +% 6,8). Fabrikazio Mekanikoak eta Administrazio eta Kudeaketak izan ezik, aipatutako gainerakoetan matrikulazioak gora egin du. Goi-mailako titulazioen artean hauek nabarmendu ziren matrikulazio bolumenaren arabera: Fabrikazio mekanikoa (% 13,2, -% 6), Administrazioa eta Kudeaketa

⁴² Helduentzako hezkuntza eta araubide bereziko irakaskuntzak salbuetsita

⁴³ Batxilergoan bi ikasturte akademiko daude, ohiko moduan 16 eta 18 urte artean egiten direnak.

⁴⁴ Lanbide Heziketaren irakaskuntza sisteman 16 urterekin sartzen dira ikasleak erdi-mailako graduari, batxilergoaren ordean, eta 18 urterekin goi-mailako graduari, betiere, hezkuntza tertziarioaren edo goi-mailako irakaskuntzaren baitan.

Erdi-mailako prestakuntza zikloekin teknikari titulua lortzen da, eta goi-mailako prestakuntza-zikloekin, goi-mailako teknikari titulua.

⁴⁵ 2015-2016 ikasturtetik aurrera, Batxilergoko modalitateak Zientziak, Giza Zientziak, Gizarte Zientziak eta Arteak dira.

(% 11, % 4,2), Elektrizitatea eta Elektronika (% 10,8, % 5,1), Informatika eta Komunikazioak (% 10,3, % 1,7), Zerbitzu soziokulturalak (% 10, +% 7,9), Instalazioa eta Mantentze-lanak (% 7,5, +% 7,9) eta Osasuna (% 7,4, +% 6,7). Fabrikazio Mekanikoak izan ezik, aipatutako guztiek izan dute igoera matrikulazioan.

Emakumeen parte-hartzea oso handia da honako arlo hauetan: irudi pertsonala, ehungintza, jantzigintza eta larrugintza, osasuna eta zerbitzu soziokulturalak eta komunitatearentzako zerbitzuak. Hala ere, batez beste, emakumeek gizonen baino gutxiago parte hartzen dute lanbide-ikasketetan (maila ertainean, % 34,4 eta % 36,2, hurrenez hurren; gizonen kasuan, berriz, % 65,6 eta % 63,8), eta, gainera, profil teknikoagoa duten lanbide-arloetan emakumeen matrikulazio txikia egon da, eta arlo horiek dute, hain zuzen ere, laneratze onena. Hala, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio mekanikoa, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze-lanak, Garraioa eta Ibilgailuen mantentze-lanak sailetan emakumeen matrikulazioa % 15,2ra iristen da, kasurik onenean.

Horrela, LANBIDEk Lanbide Heziketako ikasleen laneratzeari buruz dituen datuen arabera (2018-2020 promozioak), igarotako ikasle gehien dituzten 8 lanbide-arloetatik (Fabrikazio Mekanikoa, Osasuna, Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak, Administrazioa, Elektrizitatea eta Elektronika, Produktorako Zerbitzuen Mantentze-lanak, Informatika eta Ibilgailu Autopropulsatuen Mantentze-lanak), hauek dira gizarteratze-ratio handienak erregistratzen dituztenak: Produktorako zerbitzuen mantentzea (okupazio-tasa: % 87,8), Fabrikazio mekanikoa (% 83,1), Ibilgailu autopropulsatuen mantentze-lanak (% 81,8), Informatika (% 80,9) eta Osasuna (% 80).

Aipatutako 8 lanbide-arloetako heziketa-ziklo bakoitzaren okupazio-tasei dagokienez, honako hau ikus daiteke:

- Igarotako 100 ikasle baino gehiago eta % 85 inguruko edo hortik gorako okupazio-tasa duten zikloak honako hauek dira:
 - Elektrizitatean eta Elektronikan, Goi-mailako Gradua Automatizazioan eta Robotika Industrialean eta Goi-mailako Gradua Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuetan.
 - Fabrikazio mekanikoan, Goi-mailako Gradua Fabrikazio Mekanikoko produkzioaren programazioan.
 - Informatikan, Goi-mailako Gradua Plataforma anitzeko aplikazioen garapena.
 - Ibilgailuen Mantentze-lanetan, Goi-mailako Gradua Automozioan.
 - Produktorearen Zerbitzuetan eta Mantentze-lanetan, Goi-mailako Gradua Mekatronika Industrialean.
 - Osasunean, Erdi-mailako Gradua Farmazia eta Parafarmazian eta Goi-mailako Gradua Aho-hortzetako higiean.
- Honako hauek dira % 90etik gorako okupazio-tasa duten zikloak (igarotako ikasle-kopurua kontuan hartu gabe):
 - Ibilgailuen Mantentze-lanetan, Erdi-mailako Gradua Makineriako Elektromekanikan.
 - Produktorearen Zerbitzuak eta Mantentze-lanetan, Erdi-mailako Gradua Beroa ekoizteko instalazioetan, Goi-mailako Gradua Mekatronika Industrialean eta Goi-mailako Gradua Instalazio termikoen eta fluidoan instalazioen mantentze-lanetan.
 - Osasunean, Erdi-mailako Gradua Osasun-larrialdietan, Goi-mailako Gradua Anatomia patologikoa eta zitodiagnostikoan eta Goi-mailako Gradua Aho-hortzetako higiean.
 - Zerbitzu soziokulturaletan eta komunitatearentzako zerbitzuetan, Goi-mailako Gradua Animazio Soziokultural eta Turistikoan.

Unibertsitate-irakaskuntzei dagokienez, 2020-21 ikasturtean 69.933 pertsona matrikulatu ziren guztira EAeko unibertsitateetan, hau da, % 2,5 gehiago aurreko urtearekin alderatuta. Ikasleen % 71,1 unibertsitate publikora doa. Bestalde, sexuaren arabera banaketari jarraikiz, emakumeak gehiago sartzen dira oraindik unibertsitateera (% 54,2 emakumeak dira).

Lanbide Heziketako matrikulazioan gertatzen den bezala, unibertsitateko arlo teknikoetan (Ingeniaritza eta Arkitektura) emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa da (% 28,4 vs % 71,6).

Unibertsitateko graduazioari dagokionez, datuak % 2,9 igo dira, 14.404 pertsonatan kokatuz, eta horietatik % 55,9 emakumeak dira. Graduako ikasketetara joz gero, ikasleen % 52,4 Gizarte-zientzien eta Zientzia Juridikoen adarreko ikasketetan graduatu ziren, eta ondoren, % 21,1 Ingeniaritzan eta Arkitekturan. Neurri txikiagoan Osasun-zientzietan (% 13,5), Arteetan eta Giza-zientzietan (% 7,8) eta Zientzietan (% 5,2). Sexuen arteko aldeak ikusten dira graduako ikasketen adarraren hautaketan, eta emakumeek nahiago dituzte osasun-zientzien barruan sartzen diren programak (gutzizkoaren % 79,4 emakumeak dira), arteak eta giza zientziak (% 68,5), gizarte-zientziak eta zientzia juridikoak (% 62,3) eta zientziak (% 57,5), irakaskuntza teknikoak baino (emakumeak % 27 baino ez).

Unibertsitateko ikasleen laneratzeari dagokionez, LANBIDEn datuen arabera (2018an ikasketak amaitu dituen promozioa EAEko hiru unibertsitateetan, 2021eko abenduko datuekin), jarduera-tasa % 91koa izan zen, enplegu-tasa % 79koa, okupazio-tasa % 87koa eta langabezia-tasa % 13koa. Ratio horiek aurreko promozioetan ikusitakoekin alderatuz gero, ikusten da egoerak okerrera egin duela azken urteetan.

Ikasketak amaitu eta lehen enplegua lortu bitartean 11 hilabete igaro dira, aurreko urteetan baino gutxiago. Gizonen eta emakumeen arteko konparazioak aldeak azaltzen ditu jarduera- eta enplegu-tasetan; ez, ordea, lan- eta langabezia-tasetan, ez eta lehen enplegua aurkitzeko behar duten denboran ere.

Ezagutza-arloen arabera, osasunari eta espezialitate teknikoei lotutakoek enplegu-tasa handiagoak dituzte (% 87 bi kasuetan), eta langabezia-tasa baxuagoak, % 8 eta % 6, hurrenez hurren.

Prestakuntzari lotutako enpleguari dagokionez, hirugarren mailako prestakuntzari lotutako lanak (unibertsitatekoa edo goi-mailako profesionala) dituzten pertsonen ehuneko gisa neurtua, % 83koa da; tasarik handienak arlo teknikoetan daude (% 95), eta ondoren osasunarekin lotutako arloetan (% 94) eta arlo esperimentaletan (% 91). Bestalde, beren lanak burutu dituzten ikasketekin NAHIKO edo OSO lotuta daudela uste duten landunen ehunekoa % 79koa da. Ratorik handienak arlo hauetan erregistratu dira: osasuna (% 90), arlo teknikoak (% 85) eta arlo ekonomiko-juridikoak (% 78).

Hezkuntza-adierazleei dagokienez:

- Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza: atzerriko hizkuntza ikasgai gisa.

Atzerriko hizkuntza bat gutxienez ikastea nahitaezkoa da derrigorrezko etapetan eta Batxilergoan, eta Haur Hezkuntzako bigarren zikloko ikasleen ehuneko oso altuak dagoeneko kontaktua dauka atzerriko hizkuntza batekin, nahiz eta ratioa txikiagoa den EAEn Estatuan baino: % 78,7 EAEn eta % 84,1 Estatuan 2019-2020 ikasturtean. Ia ikasle guztiek ingelesa ikasten dute atzerriko lehen hizkuntza gisa. Aukerako atzerriko bigarren hizkuntza ikasten duten ikasleak ere daude, baina EAEko ratioak ere Estatuko batez bestekoak baino txikiagoak dira: DBHko ikasleen kasuan % 20,4 EAEn eta % 43,3 Estatutuan; Batxilergoko ikasleen kasuan, % 7 EAEn eta % 24 Estatuan; eta Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, % 0,8 EAEn eta % 20,3 Estatuan; gehienbat, frantsesa.

- Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza: ikasbide-hizkuntza gisa atzerriko hizkuntza bat erabiltzea.

2019-20 ikasturtean, Lehen Hezkuntzako EAEko ikasleen % 33,4k ikasbide-hizkuntza gisa atzerriko hizkuntza bat erabiltzen duen hezkuntza-esperientziaren batean parte hartu zuen, Estatuko % 44,4ko batez bestekoaren azpitik. DBHn, ikasleen % 43,2k parte hartzen du esperientzia horietan, Estatuko % 33,4ko batez bestekoaren gainetik. Oro har, ingelesa da ikasbide-hizkuntza gisa gehien erabiltzen den hizkuntza.

- Ikaskuntza iraunkorreko parte-hartzea.

EAEn, 2021ean, 25 eta 65 urte bitarteko biztanleen % 16,9k prestakuntza-jardueraren batean parte hartu zuen inkestaren aurreko lau asteetan. Modu horretan, EAE EB28ko batez bestekoaren gainetik dago (% 10,8) baina oraindik Europa iparraldeko herrialdeetako parte-hartze ratioetatik urrun dago: Suedia (% 34,7), Finlandia (% 30,5), Herbehereak (% 26,6) eta Danimarka (% 22,3). Autonomia-erkidegoei dagokienez, ehunekorik handienak Valentziako Erkidegoan (% 17,3), Euskadin (% 16,9) eta Nafarroan (% 16,1) daude. Lurralde gehienetan (EBko estatuetan eta autonomia-erkidegoetan) emakumeen parte-hartzea gizonena baino handiagoa da. EAEn, % 19,2 eta % 14,6, hain zuzen ere.

- Hezkuntzako gastu publikoa, Administrazio motaren arabera.

EB27an, 2019an, Hezkuntzako gastu publikoa BPGaren % 4,7ra iritsi zen, Estatuko % 4,08tik gorako ratioa. Ratio handienak dituzten herrialdeak aurreko urteko berberak dira (aldaketekin rankingean): Suedia (% 7,06), Danimarka (% 6,36), Belgika (% 6,25), Finlandia (% 9,06), Frantzia (% 5,35), Zipre (% 5,24), Herbehereak (% 5,16) eta Austria (% 4,71).

Hezkuntzako gastu publikoa 2021ean, Estatuko administrazioetan eta unibertsitateetan⁴⁶ 59.425,4 milioi eurokoa izan zen, beraz, BPGaren % 4,92 (aurreko urteko ratio bera).

2021eko autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioen gastua 52.570,5 milioi eurokoa izan zen (aurreko urtean 48.964,4 milioi), hau da, BPGaren % 4,36 (aurreko urtean, % 4,38). EAEn, gastu hori 3.150,3 milioi eurokoa da (3.009,4 milioi 2020an), hau da, BPGaren % 4,39, estatuko ratioa baino 0,03 puntu handiagoa eta 2020an gure erkidegoan erregistratutakoa baino 0,14 puntu txikiagoa.

Europako eta erreferentziako herrialdeetako batez bestekoarekin konparatzeko, guztizko gastuak izan ditugu aintzat (administrazioen multzokoak), lehenengo paragrafoan aipatutakoak. Horrenbestez, EAeko eta Europako batez bestekoak (lurralde gehiago izateagatik) ez dira zuzenean konparagarriak, baina hurbilketa bat ematen digute, eta horietan oinarrituta esan dezakegu gure erkidegoak gastu publiko txikiagoa duela BPGaren gainean erreferentziako herrialdeek baino.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko hezkuntzan egindako ahalegina autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioen batez bestekoa baino handiagoa da (BPGaren % 3,63 eta % 3,27, hurrenez hurren); ez, ordea, unibertsitate-hezkuntzan egindakoa (% 0,66 eta % 0,84, hurrenez hurren).

Aldi berean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren gastua 3.198,8 milioi eurokoa izan zen 2022an. Horrek esan nahi du % 4,7 igo dela aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Partaidetza hori, Eusko Jaurlaritzaren guztizko gastuan, % 25,1ekoa izan zen. Gastu hori EAeko BPGaren % 4,09 da, 2020an erregistratutakoa (% 4,24) baino txikiagoa.

- Ikasle bakoitzeko gastu publikoa unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan. Estatuko konparazioa

Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren datuen arabera, ikasle bakoitzeko unibertsitatez kanpoko hezkuntzan (publikoa eta itundua) egindako gastu publikoa 7.329 eurora iritsi zen EAEn 2020. urtean, eta EAek lehen postua lortu zuen berriz ere autonomia-erkidegoen sailkapenean. Gastu hori % 11 hazi da 2017ko datuekin alderatuta, eta Estatuan, berriz, % 13. Estatuko batez bestekoa 5.667 eurokoa izan zen; beraz, EAeko ikasle bakoitzeko gastua Estaturkoa baino % 29,3 handiagoa izan zen.

2019. urtean, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan ikastetxe publikoko ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa 10.214 eurokoa izan zen EAEn, eta, beraz, gure erkidegoak du, berriz ere, ikasle bakoitzeko gasturik handiena. Gastu hori % 9,9 igo da 2017koarekin alderatuta, eta Estatuan, berriz, % 13,2. Estatuko batez

⁴⁶ Finantza kapituluak kenduta, horrek gorabeherak deuseztatzen baititu eta nazioarteko konparaketa egitea ahalbidetzen baitu.

bestekoa 6.540 eurokoa izan zen; beraz, EAEko ikastetxe publikoetan ikasle bakoitzeko batez besteko gastua Estatukoa baino % 56,2 handiagoa izan zen.

- Ikasle bakoitzeko gastua (PPS erabiliz bihurtutako euroak) hezkuntza-erakundeetan. Nazioarteko konparazioa⁴⁷

2019an, ikasle bakoitzeko gastua 6.856 eurora iritsi zen Estatuan, hezkuntza-erakunde publiko eta pribatuetan; eta 7.486 eurora, erakunde publikoetan. Berrito, bi gastuak Italian, Frantzia, Finlandian, Herbehereetan, Danimarka, Belgikan, Maltan, Suedian eta Zipren jasotako azpitik daude, eta Austrian eta Luxenburgoren erregistratutakoetatik urrun.

- Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-gastua ikasle bakoitzeko

Ikasle bakoitzeko hezkuntzako gastu-ratioa (ikasleena, guztira, hau da, araubide orokorrekoa zein bereziko) berrito izan zen 2020 eta 2021 bitartean, 6.251 eurotik 6.617 eurora.

- Goi-mailako ikasketetako titulua dutenen ehunekoa gazteen artean

2021ean, Euskal Autonomia Erkidegoa da ehunekorik handiena erregistratzen duena, % 66arekin (% 45eko helburuaren gaineratik), ondoren Nafarroa (% 61,7) eta Madril (% 57) daude. Estatuko batez bestekoa % 48,7koa izan da, eta, EBkoa % 40,5koa. Ratio handienak dituzten estatuak Luxenburgoko (% 62,6), Irlanda (% 61,7) eta Zipre (% 58,3) dira. Ehunekorik txikiak Errumanian (% 23,3) eta Italian (% 28,3) ageri dira, % 30etik beherako herrialde bakarrak. Gizonen eta emakumeen arteko aldea handia da (ehuneko 7,6 puntu 2021ean), eta emakumeen aldekoa: % 69,8 emakumeak eta % 62,2 gizonak.

- Helduen prestakuntza-maila

2021ean, EAEko 25-64 urteko biztanleen % 76,9k gutxienez Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketak amaituta zituen, eta % 84,6ra arte igo zen 25-34 urteko adin-tartean. Europako batez bestekoa, hurrenez hurren, honako hauek dira: % 79,3 eta % 85,2. Estatu osoarentzat, ratioak honako hauek izan ziren: % 63,9 eta % 72,3. Gutxienez Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketak dituzten pertsonen ehuneko handienak dituzten autonomia-erkidegoak, bi adin-taldeetan, Asturias, Aragoi, Madril, Nafarroa eta Euskadi dira.

- Hezkuntza eta prestakuntza goiz uztea

Beharrezko joera du, eta 2021ean % 4,8koa izan zen, Estatuko txikiena, non batez bestekoa % 13,3koa baita. Hala, EAEko soberan gainditu du 2030erako Europako helburua. EB27ko batez bestekoa 2021ean % 9,7koa zen.

- Nazioartekotzeko unibertsitate-adierazleak

2019-20 ikasturtean nazioarteko 2.225 ikasle sartu ziren EAEko unibertsitate batean, aurreko ikasturtean baino % 39,4 gutxiago. Estatuko jaitziera % 29,2koa izan zen. Kontuan izan behar dugu urte horretan aktibo egon zirela COVID-19aren ondoriozko mugikortasun-murrizketak. Mugikortasun-motari dagokionez, ikasleen % 34,7 mugikortasun-programa baten bidez matrikulatu ziren, eta % 65,3, berriz, modu arruntean. Estatuan ratioak, hurrenez hurren, honako hauek dira: % 21,5 eta % 78,5. Euskadin, % 62,7 unibertsitate publikoan matrikulatu zen eta % 37,3 pribatuan. Sexuaren arabera, % 51,6 emakumeak izan ziren eta % 48,4 gizonak.

⁴⁷ Aurreko adierazleak ez bezala, adierazle honek erakunde publiko eta pribatuetan egindako gastu publiko nahiz pribatua kontuan hartzen ditu, lanerako prestakuntza sartzeaz gain eta eurotan kalkulatu dago. Dena den, PPSa erabilia bihurtu dira. Hezkuntza-maila guztiei erreparatzen zaie, Haur Hezkuntzaren lehenengo zikloa izan ezik.

- Shanghaiko Unibertsitate-rankinga

Espainiak, 2022an, 11 unibertsitate ditu TOP 500ean. Rankingan lehena Bartzelonako Unibertsitatea da, TOP 200ean dagoena mundu-mailan. Jarraian, TOP 300en artean, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoa, Madrilgo Complutense, Granadakoa eta Valentziakoa daude. UPV-EHU sailkapeneko TOP 400en artean dago eta estatuko sailkapenean zortzigarren postuan.

Kultura

Kultura eta Kirol Ministerioak argitaratzen duen “Kultur Estatistiken Urtekariko” datuen arabera, 2019ra arte, EAEn Estatuan baino handiagoa da ekipamenduetara joateko (museoak, erakusketak, arte-galeriak, monumentuak edo arkeologi-aztarnategiak), liburuak irakurtzeko, liburutegi, antzerki ikuskizun, opera, zarzuela, balet, dantza edo egungo musika ikuskizunetara eta abarrera joateko kultura ohitura zuten 15 urtetik gorako pertsonen ehunekoa, eta joera hori goranzkoa zen. Aitzitik, jarduera artistikoak egiteari dagokionez (idaztea, margotzea, marraztea, argazkigintza, dantza/balleta, abesbatza batean abestea edo instrumentu bat jotzea), hau da, praktika aktiboetan, ratioak handiagoak izan ohi ziren Estatuan.

Hala ere, COVID-19ak eragindako krisiak desberdin eragiten die EAEko biztanleen kultura-ohiturei eta Estatukoiei; izan ere, bi kasuetan ohitura bakoitza egiten duen biztanleriaren ehunekoak behera egiten badu ere, EAEn beherakada handiagoa da. Bestalde, kultura-jarduera aktiboek dagokienez, espero zitekeen bezala, jarduera horiek (idatzi ezean) murriztu egin dira Estatuan eta EAEn, eta gure Erkidegoak Estatukoak baino gauzatze-tasa txikiagoak erregistratzen jarraitzen du.

Datu-iturri beraren arabera, EAEn beren jarduera ekonomiko nagusi gisa jarduera kulturala duten enpresen kopuruak % 0,8 egin zuen gora 2020tik 2021era bitartean (osasan-krisiaren ondorioz bizi izandako egoera berezia hartu behar da kontuan), eta 6.269 izan ziren. Bestalde, enpleguak gora egin zuen, % 11,1 (31,5 mila pertsonatik 35 milara). Estatuan, aldi berean, enpresen kopurua % 2,6 jaitsi zen eta enplegua % 3,4 hazi zen. EAEn kultur enpresetan lan egiten duten 35 mila lagun horiek EAEko lanpostu guztien % 3,8 dira, Estatuko batez bestekoa baino pixka bat handiagoa (% 3,5). Kultura-enplegu gehien sortzen duten autonomia-erkidegoen zerrendan, EAE bosgarren postuan dago, Kataluniaren (% 5), Madrilen (% 4,9), Balearren (% 4,4) eta Nafarroaren (% 4,1) atzetik. Autonomia-erkidegoen arabera bereizitako daturik ez dagoen arren, datu agregatuek erakusten dute kultura-enpleguaren ezaugarri nagusia batez bestekoa baino prestakuntza akademiko handiagoa dela, eta oro har ikusitakoak baino goi-mailako hezkuntza-tasa handiagoak dituela, % 72,7 eta % 46,2, hurrenez hurren.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak kulturaren 2020an likidatutako gastua, Kultura eta Kirol Ministerioaren datuen arabera, % 6,5 hazi zen 2019aren aldean. Gastu hori gure erkidegoko BPGaren % 0,2 da, autonomia-erkidego guztietako batez besteko ratioaren (% 0,12) gainetik. Biztanleko egin den gastuari dagokionez, EAEn kopuru hori 61,1 eurora iritsi zen 2020. urtean, 2019. urtean baino 3,5 gehiago, eta kopuru hori Estatu osoko batez bestekoa baino altuagoa da (28,6 €).

Bestalde, 2021ean 531,8 milioi euro gastatu zituzten euskal etxeek kultura-ondasun eta -zerbitzuetan, hau da, % 0,4 gutxiago (Ministerioaren datuak, EINren Familia-aurrekontuei buruzko Inkestatik abiatuta).

Etxeko batez besteko gastuari dagokionez, EAE zortzigarren postuan dago autonomia-erkidegoen rankingean, 584,5 eurekin, Ceuta eta Melilla, Murtzia, Madril, Nafarroa, Gaztela eta Leon, Valentziako Erkidegoa eta Kataluniaren atzetik. Gastu taldeari erreparatuz (liburuak eta aldizkako argitalpenak; kultura zerbitzuak; ikus-entzunezko euskarri, ekipamendu eta osagarriak eta informazioa tratatzekoak; eta telefono mugikorrek eta Internetekin lotutako zerbitzuak), EAEko etxe bakoitzean gastatutako 584,5 euroen % 29,7, ikus-entzunezko ekipamendu eta osagarrietara eta informazioa tratatzekoetara bideratu zen; % 29,1 liburu eta argitalpenetara; % 25,5 telefono mugikorretara eta Internetekin lotutako zerbitzuetara; eta % 15,8 kultura-zerbitzuetara.

Pertsonako batez besteko gastuan, EAE laugarren postuan dago sailkapenean, 247,3 euroekin, Gaztela eta Leon, Madril eta Nafarroaren atzetik.

Amaitzeko, euskal herritarren artean euskararen erabilerari buruzko ondorio nagusiak jasotzen dira, VII. Inkesta soziolinguistikoaren datuen arabera:

- *Hizkuntza-gaitasuna.* 2021ean, 16 urte edo gehiagoko 680.629 euskal hiztun zeuden EAEn, 1991n baino 261.000 gehiago. Horrela, euskal hiztunen ehunekoa 12 puntu hazi da azken 30 urteetan (% 24,1 vs % 36,2). Emakumeen % 36,5 euskal hiztuna da, eta gizonen kasuan, % 35,8. Euskal hiztunen ehuneko handiena 16 eta 24 urte bitarteko gazteen artean dago. Duela 30 urte euskal hiztun gehien zituen adin-tartea, 65 urtetik gorakoena, gaur egun euskararen gaitasun txikiena duena da (% 22,1 da euskal hiztuna). Horrela, euskal hiztunen profila gaztetu egin da azken hogeita hamar urteetan.

Duela 30 urte euskal hiztunen % 60 hirugarren eta laugarren eremu soziolinguistikoetan bizi zen⁴⁸, hau da, euskal hiztunen ehuneko oso altua edo nahiko altua duten eremuetan, eta % 40 lehen eta bigarren eremu soziolinguistikoan, hau da, euskaldunen ehuneko oso txikia edo nahiko txikia duten eremuetan. Gaur egun, % 55,4 lehen eta bigarren eremu soziolinguistikoan bizi da, eta % 44,7 hirugarren eta laugarren eremu soziolinguistikoan; beraz, euskal hiztun askok eta askok oso sare mugatua dute beste euskal hiztun batzuekin harremanak izateko. Hain zuzen ere, lehen eta bigarren eremuetako euskal hiztunak bi eremu horietako biztanleria osoaren laurdena baino ez dira (% 26,5).

- *Euskararen erabilera* hazi egin da. Guztira, 2021ean, 412.821 pertsona, eta duela hogeita hamar urte, 271.121 pertsona (6,4 puntuko igoera azken 30 urteetan). Adin-tarteak aztertuta, eta ezagutzari buruzko datuekin gertatu zen bezala, euskara erabiltzen duten pertsonen ehuneko handiena gazteen artean ematen da (% 33,5); eta txikiena 65 urtetik gorakoan artean (% 16,7). Gorakada hori biztanle gehienak bizi diren inguruetan gertatu da (lehen, bigarren eta hirugarren eremu soziolinguistikoetan: 4,4 lehenengoan; 6,4 bigarrean; 7,3 hirugarrean). Laugarren eremuan —batez ere herri txikiz osatua— euskararen erabilerak behera egin du (-9,7). Aldaketa horretan eragina izan du, besteak beste, lurralde barruko eta lurralde arteko mugikortasunak.

Erabilera-eremuen azterketak erakusten du erabilerak gora egin duela testuinguru formal eta informaletan. Udal-zerbitzuetan erabiltzen da gehien euskara (% 27,4). Atzetik datoz: lankideen artean (% 26,8), osasun-zerbitzuetan (% 23,1) eta lagunen artean (% 22,1). Datu horiek esanguratsuak dira, agerian uzten baitute geroz eta gehiago aukeratzen dela euskara Administrazioarekiko harremanetan.

- *Euskararen transmisioa:* gora egin du euskal hiztunen bikoteetan zein bikote mistoetan.

3-15 urteko seme-alabak dituzten familietan, bi gurasoak euskal hiztunak direnean eta haien lehen hizkuntza euskara denean, seme-alaben % 98ri euskara baino ez zaie transmititzen, eta % 2ri euskara eta gaztelania. Guraso bakarra bada euskal hiztuna eta haren lehen hizkuntza euskara bada, % 84k euskara eta gaztelania transmititzen ditu eta % 16k gaztelania.

- *Euskararen erabilera sustatzearekiko jarrera positiboa.* 16 urte edo gehiagoko pertsonen % 67 euskararen erabilera sustatzearen aldekoa da, % 26,3k ez du aukera zehatzik eta % 6,8 kontrakoa da. Horrela, euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrerak gora egin du azken 30 urteetan. 1991 eta 2021 bitarteko datuak alderatuta, euskararen erabilera sustatzearen aldeko pertsonen ehunekoa 12 puntu igo da (% 67 2021ean eta % 55 1991n).

⁴⁸ Eremu soziolinguistikoak: lehenengoa erdaldunena da eta laugarren euskaldunena

5.1.2. Ingurune naturala eta energia

Ingurune naturala

Atal honen zati handi batean eskuragarri dauden azken datuak 2020koak dira, eta, beraz, kontuan izan behar da emaitzak jardueraren murrizketen ondorioz bizi izandako salbuespenezko egoerak baldintzatzen dituela. Airearen kalitateari buruzko atalean baino ez ditugu 2021ari buruzko datuak.

EAEko **airearen kalitatearen** ebaluazioa egunero egiten da, Eusko Jaurlaritzaren webgunean argitaratzen den AIREAREN KALITATE-INDIZEAREN bidez. Bertan, airearen kalitatearen egoera balioesten da, kontzentrazio-tarte baten arabera definitutako kategoria batekin. Bestalde, urtero sare osoan erregistratutako datuen analisia egiten da, araudiak ezartzen duen lurraldea ebaluatzeko betebeharrari erantzuten dion URTEKO TXOSTENA egiteko.

Airearen kalitate-indizearen arabera, 2021ean airearen kalitate txarreko 73 egun erregistratu ziren, eta oso txarreko 3 egun. 2019an, kalifikazio txarreko 67 egun erregistratu ziren, eta bat bera ere ez oso txarrekoa. Bestalde, hala moduzko kalitateko egunak ere igo egin dira, 183tik 252ra. Iraunkortasun-adierazlea, hau da, kalifikazio oso ona eta ona duten egunen ehunekoak, guztizkoaren % 88,77 da, 2019koa baino ratio txikiagoa (% 91,44), esan nahi du egoerak okerrera egin duela. 2021ekoa 2020an erregistratutakoaren antzekoa da (% 88,63), baina kontuan hartu behar da 2020an jarduera sozioekonomikoa txikiagoa izan zela pandemiak ezarritako murrizketen ondorioz.

Hauek dira airean dauden kutsatzaileak, osasuna babesteko mugak dituztenak: SO₂ (sufre dioxidoa), NO₂ (nitrogeno dioxidoa), PM₁₀ (10 mikratik beherako diametroa duten partikulak), PM_{2,5} (2,5 mikratik beherako diametroa duten partikulak), CO (karbono monoxidoa), O₃ (ozonoa), C₆H₆ (bentzenoa), Pb (beruna), As (arsenikoa), Cd (kadmioa), Ni (nikela) eta B(a)P (bentzo(a)pirenoa). 2021ean, airearen kalitatea neurtzeko aurreikusitako kutsatzaileei buruzko balio guztiak araudian ezarritako mugen azpitik izan dira, eta, gainera, beheranzko joerak jarraitzen du (2019ko balioekin alderatuta, zeren eta 2020ko aparteko jaitsiera pandemiaren ondoriozko murrizketek markatu baitzuten).

Klima-aldaketa XXI. mendeko ingurumenaren gaineko erronka nagusietako bat da. EBK konpromisoa hartzen du bere emisioak % 40 murrizteko 2030erako (1990arekiko), “2030erako klima eta energia esparrua”n eta 2050erako karbono maila txikiko ekonomia esparruan ezarritako plangintzaren ildotik: 2050erako BEG isurketak % 80 murriztea (1990aren aldean) lortzeko plangintza ezarri da bertan). Eskualdeek ez dute berotegi-efektuko gasak murrizteko helburu juridikoki loteslerik, baina 2050erako EAEko Klima Aldaketaren Estrategiak borondatezko helburu hau ezartzen du: 2030erako gutxienez % 40 murriztea berotegi-efektuko gasen emisioak, eta 2050erako gutxienez % 80.

EAEko Berotegi Efektuko Gasen Isurien Inbentarioko azken datuen arabera, CO₂ baliokidearen arabera neurtutako berotegi-efektuko gasen isurketak % 1,7 murriztu dira 2020an, 2019. urtearekin alderatuta. 2005. urteari dagokionez⁴⁹, isurketak % 35,5 murriztu dira. 1990. urteari dagokionez, isurketak % 21,5 murriztu dira.

Orain, sektorearen arabeko egoera eta bilakaera erakutsiko ditugu, baina jakin badakigu jarduerari ezarritako murrizketek datuak baldintzatzen dituztela. Energiaren sektorearen isurketak gainerako sektoreei emandako energia-horniduraren ondorio direnez, banaketa aztertu da, eta sektore bakoitzean elektrizitate kontsumoaren ondoriozko isurketak sartu dira (zeharkako emisioak).

⁴⁹ Bai Klima 2050 Euskal Estrategiaren oinarri-urtea, bai Europako herrialdeena, 406/2009/EE emisio lausoen ahaleginak banatzeko erabakiaren barruan.

- Energiaren transformazioa. EAEko isurketen % 8,7 da. Isurketak % 42,3 jaitsi ziren 2019arekin alderatuta. 2005. urtearekin alderatuta, % 51 jaitsi ziren, eta 1990. urtearekin alderatuta, % 49,4.
- Industria. EAEko isurketen % 32,1 da. Emisio horiek % 4 murriztu ziren 2019arekin alderatuta. 2005etik % 50,4 murriztu dira isurketak, eta 1990etik % 51,8.
- Garraioak. Isurketen % 34,9 dira. Isurketak % 11,1 jaitsi ziren 2019arekin alderatuta. 2005. urtearekin alderatuta, % 1,3 igo dira, eta 1990. urtearekin alderatuta, % 104.
- Zerbitzuen sektorea. Isurketen % 7,3 da. Emisio horiek % 9,4 murriztu ziren 2019arekin alderatuta. 2005etik, isurketak % 32,4 jaitsi dira, eta 1990etik, % 76,8.
- Bizitegi-sektoreak GEISen % 8,9 hartzen du, eta % 1,5 murriztu ditu isurketak 2019arekin alderatuta. Bestalde, zerbitzuen sektoreak GEISen % 7,3 hartzen du, eta % 9,3 murriztu dira.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza. Isurketa % 3,6 dira. Isurketak % 0,2 igo dira 2019. urtearekin alderatuta, eta % 48,8 murriztu dira 2005. urtearekin alderatuta, eta % 46,1 1990. urtearekiko.
- Hondakinen sektorea. EAEko isurketen % 4,6 da. Isurketak % 6,5 murriztu dira 2019. urtearekin alderatuta, % 39,4 2005. urtearekin alderatuta eta % 31,2 1990. urtearekin alderatuta. Isurketen murrizketa hainbat faktoreren ondorio da; besteak beste, birziklatzearen ehunekoak handitzearen ondoriozko isurketa-tasa txikiagoa izatea, zabortegietako aurretratamendua, balorizazioa, konpostaren ekoizpena etab.

Edateko urari dagokionez, EINen datuen arabera, 2020an, hiri-hornidurako sare publikoei 150,3 Hm³ ur eman zitzaizkien EAEn, 2018an baino % 2,8 gutxiago, eta beheranzko joerari eutsi zitzaion. Ikus daitekeenez, saneamendu-sareko ihesen, hausturen eta matxuren ondorioz galdutako ura sare horiei hornitutako ur guztiaren % 13,2 izan zen, aurreko urteetako ratioen gainetik (horrek goranzko joera erakusten du), baina Estatuan kalkulaturako % 15,4ren azpitik.

Per capita kontsumoa berriz ere Estatuko batezbestekoa baino txikiagoa izan zen: 133 litro biztanleko eta eguneko 97. 2018 eta 2020 artean % 6,7 jaitsi zen, baina Estatuan egonkor eutsi zitzaion.

Uraren kostu unitarioa (zati ur-horniduragatik ordaindutako zenbatekoak gehi estolderia, arazketa eta saneamendu eta isurketa kanonak, eta erregistraturako eta erabiltzaileei banatutako ur-bolumena), 2020. urtean, 2,14 euro/m³ izan zen, eta horrek, kasu honetan, % 4,4ko igoera ekarri zuen 2018ko balioarekin alderatuta. Estatuan, batez besteko kostu unitarioa txikiagoa izan zen (1,92 euro/m³).

Hondakinak sortzeari eta kudeatzeari dagokionez, 2018 eta 2020 artean % 5,3 murriztu ziren kudeatutako hondakin ez-arriskutsuak.

Hiri-hondakinei dagokienez, EINen datuen arabera, 2020an hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek 805.486 tona hiri-hondakin bildu zituzten EAEn, aurreko urtean baino % 7 gutxiago. Bilketa motaren arabera bereiziz gero (nahastuta edo gaika bilduta), hondakin gehienak (% 56,3) nahastuta egon ziren. 2019aren aldean, nahastutako % 10,2 egin zuten behera, eta gaika bildutakoak % 2,5. Estatuan, bestalde, nahastuak % 2,4 gutxitu ziren eta jasotakoak % 1,6 gehitu ziren.

Per capita kopuruetan, EAEn, 2020an, hiri-hondakinen 367,9 kg/biztanle jaso ziren (guztira, nahastuta nahiz bereizita), Estaturako zenbatetsitakoa (473,3 kg/biztanle) baino zifra txikiagoa. Izan ere, Euskadi da bildutako per capita hondakin kopuru txikiena erregistratzen duen Autonomia Erkidegoa. Bereizitako hondakin motaren arabera bereiziz (nagusien artean), 24,4 kg/bizt. ontzi misto eta bilgarriak (estatuan 18,7 kg/bizt), 67,2 kg/bizt paper eta kartoi (estatuan 28,3 kg/bizt) eta 26,7 kg/bizt beira (estatuan 17,5 kg/bizt) daude.

Tratamendua aztertzeko, eta EINek autonomia-erkidegoen arabera informaziorik ematen ez duenez, Eusko Jaurlaritzaren EAEko hiri-hondakinen estatistika erabiltzen dugu. Horren arabera, EAEn, 2020an, hiri-hondakinen 493 kg kudeatu ziren biztanleko. Hala, 2018 eta 2020 artean beherakada erregistratu da, 513 kg/biztanle izatetik 493 kg/biztanle izatera igaro baita. 493 kg/biztanle horietatik 189 birziklatu ziren, 35 konposta (ongarri organikoa) izan ziren, 123 balorizazio energetikoa eta errausketa izan ziren eta 93 zabortegira eraman ziren.

2019. urtearekin alderatuta, hondakin birziklatuak 7 kg/bizt. gutxiago izan ziren, ongarri organiko bihurtutakoak 1 kg/bizt. gehiago izan ziren, energetikoki balorizatutakoak eta erraustutakoak 21 kg/biztanle gehiago izan ziren, eta zabortegian botatakoak 49 kg/bizt. gutxiago izan ziren.

Hondakin arriskutsuei dagokienez, hondakin arriskutsuen gutzizko kopuruak % 3,4 egin zuen behera. Horien artean berriz nabarmentzen dira prozesu termikoen industriako hondakinak (hondakin arriskutsu guztien % 43,3), eraikuntzakoak eta eraispenekoak (% 11,5), metalen tratamendu eta estaldurakoak (% 10,2), metalen mekanizazio-industriako hondakinak (% 8) eta olio erabiliak (% 6,8).

Hondakin horien tratamenduari dagokionez, 2020an % 59,1 birziklatu edo konposta egin zen, % 1 energetikoki balorizatu zen, % 0,3 erraustu egin zen eta gainerako % 39,6 zabortegira eraman zen.

Amaitzeko, EINen ***Ingurumenaren babeserako industriaren gastuari buruzko Inkestaren*** azken datuek erakusten dute EAEn, 2019an, gastu hori (gastu arrunta eta inbertsioa) % 15,4 jaitsi zela 2019arekin alderatuta. Ahaleginari dagokionez (hau da, BPGd-aren ehuneko gisa), jaitsiera ere ikusten da, eta % 0,27an kokatu da, aurreko urteko ratioa baino ehunen bat beherago, baina Estatuko batez bestekoa (% 0,21) baino 6 hamarren gorago. Hala, 2020an, EAE zortzigarren postuan dago ahalegin handiena egiten duten erkidegoen zerrendan, Nafarroa (% 0,55), Kantabria, Asturias, Gaztela-Mantxa, Murtzia, Aragoi eta Errioxaren azpitik (% 0,31) eta Gaztela eta Leonen parean.

Energia

Euskadi Energia 2020 txostena. Datu energetikoez, EEEk argitaratuek, erakusten dute energia primarioaren eskari osoa edo energiaren barne-kontsumo gordina (gehien inportatutako energia ken esportatua) % 7,5 handitu zela 2021ean, eta 6.329 Ktep izatera iritsi zela. Bestalde, energiaren azken kontsumoak % 10,1 egin zuen behera (4.923 Ktep), eta sektore guztietan egin zuen behera, lehen sektorean izan ezik. Industriaren sektorean izan zen igoerarik handiena.

Energia primarioaren produkzioa % 15,9 handitu zen, 655 Ktep-etik 699 Ktep-era; eta ekoizpen hori, batez ere, energia berriztagarrietan oinarritu zen (iturri propio nagusia), % 16,5 handitu baitziren (623 Ktep-etik 679 Ktep-era).

Oinarritzko energiaren ekoizpen propio horri esker (699 Ktep), EAEn energia-eskariaren (5.888 Ktep) % 10,7 baino ezin izan zen bete (barneko kontsumo gordina). Ondorioz, EAEko energia-mendetasuna Estatukoa eta EB28koa baino handiagoa da, non, 2020ko datuekin, ratioak % 68,8 eta % 54,9 baitira, hurrenez hurren (EAEn, 2020an: % 89,9).

Iturri berriztagarrietan oinarritutako ekoizpenak (679 Ktep) azken kontsumoaren % 14,2 betetzea ahalbidetu zuen (4.929 ktep); hau da, energia berriztagarriek azken kontsumoan duten partaidetza-ratioa Euskadiko 2020rako Energia Estrategian (3E2030) gure erkidegoarentzat ezarritako % 21eko helburutik 6,8 puntura dago.

Intentsitate energetikoari dagokionez (ekonomia baten eraginkortasun energetikoaren adierazlea, BPGd-aren unitateko ktep-eko azken kontsumoan neurtzen dena), 2011 eta 2021 artean hobera egin duela ikus dezakegu (11 puntu jaitsi da). Hala eta guztiz ere, 2020. urtearekin alderatuta, okerrera egin du (4 puntu igo da); izan ere, kontsumoa 9 puntu igo da, eta BPGd-a, berriz, 5 puntu. Sektoreen arabera, zerbitzuen sektorean izan ezik, energia-intentsitatea handitu egin zen, eta, beraz, denetan egin zuen okerrera.

Energia-faktura nabarmen handitu da 2021ean aurreko urtearekin alderatuta (% 23,8), eta 6.047 milioi eurokoa da. Kostu horretatik, % 51 garraio-sektorekoa izan zen, % 21,3 industriakoa, % 15,5 bizitegi-sektorekoa, % 11,4 zerbitzu-sektorekoa eta % 0,8 lehen sektorekoa. Etxebizitzen sektorean, biztanleko faktura % 14,4 hazi da 2020 eta 2021 artean, eta 428 eurora iritsi da; etxeko faktura, berriz, % 13,6 igo da, eta 1.028 eurora iritsi da.

Petrolioaren deribatuak garraioaren fakturaren % 92,2 dira. Industrian, argindarra fakturaren % 72,6 da eta gas naturala, berriz, % 25,3.

5.1.3. Osasuna eta osasun-sistema

EUSTATen datuen arabera, 2020an gizonen jaiotzako **bizi-itxaropena** (Blj) 80,7 urtekoa izan zen, 2019an baino hamarren bat txikiagoa; emakumeena, berriz, 3 hamarren jaitsi zen, eta 86,3 urtekoa izan zen. Heriotzatasaren igoera hori gertatu izan ez balitz, bizi-itxaropena 81,3 urtera iritsiko zen gizonen kasuan eta 86,8ra emakumeen kasuan, hau da, 2019an baino 5 hamarren gehiago gizonen kasuan eta 2 hamarren gehiago emakumeen kasuan. Denboraren araberrako azterketak erakusten du 1976tik emakumeen Blj 9,4 urte igo dela, eta gizonena 11,1 urte. Bi sexuen bizi-itxaropenen arteko aldea 5,6 urtera murriztu da, duela 25 urte eman zen 8,7ko maximotik. Aipatu behar dugu gutxi direla hain bizi-itxaropen handia duten herrialde garatuak, bereziki emakumeen kasuan.

Osasun Ministerioak 2022ko abenduan argitaratutako **Bizi-itxaropena 2020** txostenaren arabera, 2020an EAEn 83,4 urteko Blj izan zen, Estatukoa baino handiagoa (82,2 urte). COVID-19aren pandemiaren ondorioz, bizi-itxaropena jaiotzean 2020an urte 1 jaitsi zen EAEn eta 1,5 urte Estatuan.

Bestalde 2020an Estatuko 65 urteko bizi-itxaropena 20,4 urtekoa izan zen. 2020an bizi-itxaropen handiena zuten erkidegoak Galizia (21,9 urte), Kanariar Uharteak (21,7), Balear Uharteak (21,6) eta EAE (21,4) izan ziren. Estatuko 65 urteko bizi-itxaropenaren eredu geografiko hori ez dator bat 2020a baino lehen ikusitakoarekin. Aurreko urteetan, bizi-itxaropen handiena Madrilen, Gaztela eta Leonen, Nafarroan eta Euskadin zegoen. Erkidego horiek, ordea, (Madril, Gaztela eta Leon eta, neurri txikiagoan, Euskadi) bizi-itxaropena murriztu zuten 2020an 65 urterekin, 2019arekin alderatuta, COVID-19aren pandemiak 65 urtetik gorakoengan eragin handiagoa izan baitzuen. Madrilen murriztu zen gehien bizi-itxaropena 65 urterekin (3,4 urte). EAEn urtebete murriztu zen. Estatuko batez bestekoa 1,5 urtekoa da.

Ospitaleetako erikortasunari dagokionez, 2020an, COVID-19aren eraginak Euskadiko akutuen ospitaleetako ospitaleratzearen eta kirurgia anbulatorioaren modalitateko jardueraren beherakada ekarri zuen, horrez gain, ospitaleetako batez besteko egonaldia eta heriotza-tasa igo egin ziren. 2021ean, akutuen ospitaleek % 5,8ko igoera izan zuten, 221.264 **ospitaleratze** guztira. 2020arekin alderatuta, arnas aparatuko gaixotasunen taldeak % 7,2 egin zuen behera, gripearen, pneumoniaren eta arnasketako beste nahasmendu batzuen kasuen kopurua murriztu zelako, eta horrek seigarren postuan jarri zuen (bosgarren 2020an eta hirugarren 2019an). Ospitaleratzeetatik 11.247k COVID-19 izan zuten arrazoi nagusi, hau da, ospitaleratzeen % 5,1ek. Gainera, ospitaleratze horiek 106.608 egonaldi eragin zituzten, hau da, 9,5 eguneko batez besteko egonaldia. **Kirurgia anbulatorioan** 82.104 gertakari zenbatu ziren (+% 25, 2020koaren aldean), pandemia aurreko balioetatik hurbil (82.490, 2019an).

Osasun mentalari dagokionez, Osasun Ministerioaren arabera, buruko nahasmenduek goranzko joera erakusten dute, nahiz eta datuek 2020an beherakada erakusten duten. Era berean, autonomia-erkidego guztietan emakumeek gizonen baino prebalentzia handiagoa dute. EAEn kasu partikularrean, osasun-inkestetan buru-nahasmendua zutela adierazi zuten helduen ehunekoa (16 urte edo gehiago) % 8,2tik % 10,2ra igo zen 2011 eta 2017 artean, eta 2020an % 9,2koa izan zen. Gizonak eta emakumeak bereizita, aldea 6,9 puntukoa da 2020an: % 12,5 emakumeen kasuan eta % 5,6 gizonen kasuan.

Biztanleria gaztera mugatuta, 2019an 14.146 pertsona desberdin artatu ziren Osakidetzako osasun mentaleko sarean. 2020an, konfinamendua gertatu zen eta neurri murriztaileen indarrean egon ziren urtean, pazienteen kopuruak gora egin zuen (+% 1,4) eta lehen kontsultak jaitsi egin ziren (-% 9,2), ziurrenik arreta normaltasunez mantentzeko ezintasunagatik. Hala ere, 2021ean % 15,8 igo da artatutako pertsonen kopurua (16.610), eta % 26,9 lehenengo kontsulten kopurua (7.585).

Hilkortasunari dagokionez, EUSTATen “Heriotzen estatistika”ren arabera, 2019tik 2021era bitartean heriotzak 21.560 izan ziren 2019an, 24.247 2020an eta 23.073 2021ean. Hau da, 2020an izandako gorakadaren ondoren, 2020tik 2021era % 4,8ko jaitsiera erregistratu da. % 50,1 gizonak izan ziren eta % 49,9 emakumeak. Zehazki, 80-89 urtekoen taldean 7.845 heriotza izan ziren, 90-99 urtekoetan, 6.810 eta 100-109 urtekoetan 421. Ez zen 110 urte edo gehiagoko pertsonarik hil. Haurren heriotza-tasari dagokionez (bizitzako lehen urtean), 35 haur hil ziren, 39 2020an eta 45 2019an. Hildakoen batez besteko adinak goranzko joera erakusten du: 2021ean 81 urtekoa izan zen, eta duela 10 urte 78,2koa. Handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino (84 vs 78).

Heriotza-kausei dagokienez, 2021ean “gainerako gaixotasunei” dagozkienak guztizkoaren % 33,8 dira, baina % 14,7 jaitsi dira 2020aren aldean. Bigarrenik, tumoreen ondoriozko heriotzak (guztizkoaren % 27,1, +% 0,3 pandemiaren lehen urtean izandako beherakadaren ondoren); hirugarrenik, zirkulazio-aparatuko gaixotasunen ondoriozko heriotzak (guztizkoaren % 25,6 eta +% 5,4 2020an izandako beherakadaren ondoren); eta laugarrenik, arnas sistemako gaixotasunen ondoriozko heriotzak (guztizkoaren % 5,8 eta jaitsiera berriro, % 12,9koa). EUSTATen datuen arabera, COVID-19 izan zen heriotzen % 7,3an kausa nagusia 2021ean, eta 1.682 heriotza izan ziren guztira, 2020an baino % 45,7 gutxiago.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak egindako **hilkortasun goiztiararen** analisiak erakusten duenez, 2021ean, gizonen bizitzako urte potentzial gehien galarazi dituzten sei kausak hauek dira, garrantziaren arabera: trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa, kardiopatia iskemikoa, suizidioa eta autolesioak, COVID-19, ibilgailu motordunen trafikoko istripuak eta drogen ondoriozko ustekabeko pozoitzea. Emakumeen kasuan, bularreko tumore gaiztoa, trakeako, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa, COVID-19, entzefaloko tumore gaiztoa, gaixotasun zerebrobaskularrak eta obulutegiko tumore gaiztoak dira.

Osasun-baldintzatzaile ez-medikoei dagokienez, Memoriaren edizio honetan horietako batzuk aztertzen dira, zehazki alkoholaren arrisku-kontsumoa, tabakoaren ohiko kontsumoa, kalamuaren eguneroko kontsumoa eta substantzia psikoaktiboaren kontsumoa, biztanleriaren talde jakin batean: gazteria.

Alkoholaren⁵⁰ gehiegizko edo arriskuaren barruko kontsumoa aitortu duten gazteen ehunekoak behera egin du 2004-2017 aldirian, eta 2004an hasitako seriean erregistratutako baliorik txikiena izan da. Hala ere, serie estatistikoan, alkohola gehiegi edo arriskuz kontsumitzen duten gazteen ehunekoa handiagoa da biztanleria osoarena baino (15-74 urte). 2017an, % 20,3 eta % 8,2, hurrenez hurren.

Gazteen artean **tabakoaren** kontsumoa jaitsi egin da eta biztanleriaren batez bestekoaren azpitik dago. Hala, beren burua ohiko tabako-erretzailetzat duten gazteen ehunekoa % 40,4tik % 18,5era jaitsi da 2006tik 2017ra bitartean. 2012ra arte, ohiko erretzaileen ehunekoa handiagoa zen gazteen artean biztanleria osoaren artean baino. 2012an, lehen aldiz, ohiko erretzaileen ehunekoa handiagoa izaten, hasi zen biztanleria orokorrean gazten

⁵⁰ Inkestan aipatzen den hileko egunen batean 65 gramotik gorako alkohol kantitatea kontsumitu zela esan nahi du, hau da, zortzi kanabera garagardo baino gehiago.

artean baino, eta joera horrek bere horretan jarraitzen du 2017an (% 18,5 biztanleria gaztean eta % 22,1 15-74 urteko biztanlerian).

Kalamuaren kontsumoa ohikoagoa da gazteen artean (% 4,2 2017) Euskadiko biztanleria orokorraren artean baino (% 2). Nolanahi ere, kontsumo horrek nabarmen egin du behera, eta 2017an Kalamua erretzen zutela zioten gazteak 2008ko erdiak baino gutxiago ziren, urte horretan lortu baitzen serieko ehunekorik altuena (% 11).

Substantzia psikoaktiboak kontsumitzeagatik EAEko gazteen artean tratamenduan hartutako kopuruak behera egin du pixkanaka azken urteetan, eta 2020an lortu dute daturik txikiena: 15-29 urteko 1,4 gazte adin horretako 1.000 pertsonako. Zenbaki absolutuetan, 438 gazte hasi zuten tratamendua, hau da, urte horretan tratamenduan hartutako pertsona guztien % 21,9k. 438 pertsona horietatik, % 44,8k kalamuarekiko adikzioagatik hasi zuten; % 22,6k kokainarekiko adikzioagatik, eta % 20,1ek alkoholarekin lotutako arazoengatik. Biztanleria osoari dagokionez, banaketa bestelakoa da: alkohola tratamendu hasieren % 44,1 da, kokaina % 21,3 eta kalamua % 17,4.

Euskadiko **baliabideei eta asistentzia-jarduerari buruzko adierazle** batzuk aurkezten ditugu orain, Osakidetzaren datuen bidez. Horien arabera, 2021ean asistentzia eskariak gora egin du, baina ez da iristen pandemiaren aurreko mailara. Horrela, sareko batez besteko okupazio-indize globala 2021ean erregistratutako % 72,3tik 2022an erregistratutako % 74,5era igaro da. % 100etik gorako mailetan pneumologia eta barne-medikuntza daude. Batez besteko egonaldia 5 egunekoa izan da, 2021koaren parean. Batez bestekoaren oso gainetik daude errehabilitazioko (35,9), psikiatriako (13,5) eta zainketa aringarrietako (12,6) zerbitzu medikoak.

Itxaron-zerrendei dagokionez, Osakidetzaren datuen arabera, **kanpoko kontsultetako** itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopuruak gora egin du berriro 2021etik 2022ra bitartean, 135.190 baitira (+% 43). Zerrendan paziente gehien dituzten espezialitateak traumatologia (19.990), oftalmologia (16.354), dermatologia (14.811) eta errehabilitazioa (12.497) dira. Atzerapen-denborari dagokionez, zerrendetan dauden biztanleen % 61ek hilabete baino gehiago itxaroten dute, eta % 39k, berriz, hilabete baino gutxiago.

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren datuen arabera, 2021eko datuekin, EAEn osasun-txartela duten 1.000 biztanleko kontsulten itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopurua Estatukoa baino txikiagoa da (14,7 vs 77,2). Izan ere, EAE da autonomia-erkidegoen rankingean ratio txikiena duena. Atzerapen-denborari dagokionez, autonomia-erkidegoen rankingean, eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak alde batera utzita, EAE da denbora laburrena erregistratzen duena, 34 egunekoa, Estatuko batez bestekoa 89 egunekoa izanik. Arreta jasotzeko zain 60 egunetik gora dauden hitzorduen ehunekoari dagokionez, EAEko ratioa % 14,5ekoa da, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, % 52,2koa da. Balear Uharteetan baino ez dago ratio txikiagoa (% 6,5).

Bestalde, **kirurgia programatuan** ere, Osakidetzaren arabera, gora egin dute adierazleek 2021etik 2022ra bitartean. Hala, zerrendan 22.264 paziente izatetik 23.647 izatera igaro da (9,7 izatetik 10,2 izatera osasun-txartela duten mila biztanleko). Atzerapen-egunen batez besteko kopurua 70,8tik 73ra igaro da. Eta 3 hilabete baino gehiago itxaron behar duten pazienteen ehunekoa % 26,6tik % 28,9ra igo da.

Osasun Sistema Nazionalaren (SISLE-SNS) itxaron-zerrendei buruzko Informazio Sistemaren datuen arabera, 2021eko datuekin, EAEn osasun-txartela duten 1.000 biztanleko itxaron-zerrenda kirurgikoetan dauden pazienteen kopurua Estatukoa baino txikiagoa da (4 vs 5,6). EAE autonomia-erkidegoen rankingean ratio txikiena duen hirugarren autonomia-erkidegoa da, Nafarroaren eta Madrilen atzetik. Melilla Hiri Autonomoak horiek guztiek baino ratio are txikiagoa du: 0,7. Ebakuntza egiteko zain 6 hilabetetik gora dauden pazienteen ehunekoari dagokionez, EAEko ratioa % 4,3 da, eta Estatuko batez bestekoa, berriz, % 13,1. Melilla Hiri Autonomoak baino ez du ratio txikiagoa (% 0). Atzerapen-denborari dagokionez, autonomia-erkidegoen rankingean, eta Melilla hiri autonomoa alde batera utzita, EAE da denbora laburrena erregistratzen duena, 62 egunekoa, Estatuko batez bestekoa 96 egunekoa izanik.

Osasun-arreta pribatuari dagokionez, EUSTATen arabera, 504.762 pertsona zeuden osasun-aseguru pribatu baten pean 2021ean, hau da, 2019an baino % 6,4 gehiago. Ondorioz, EAEko biztanleen % 23k osasun-aseguru pribatu bat du kontratatuta. Zerbitzua ematen duten aseguru libreko entitateek 366,2 milioi euro bildu zituzten prima gisa, hau da, % 6,5eko igoera.

Orain, **osasun-sistemaren gastuaren** azterketa egingo dugu.

EUSTATen **Osasun Inkestaren** datuen arabera, EAEko osasun gastu korrontea, ELGaren metodologiaren arabera kalkulatua, 7.993,6 M eurokoa izan zen 2021ean (+ % 8,2 2020ren aldean). Gastu hori EAEko BPGd-ren % 10,2 da. Biztanleko gastua 3.650 eurokoa izan zen, 2020ko 3.364 euroen gainetik. 2021ean 7.993,6 M euroko gastu arruntetik 5.572,8 M€ administrazio publiko eta nahitaezko ordainketako aseguru guztiei dagozkie, eta 2.420,8 M€, berriz, borondatezko ordainketako osasun-aseguru guztiei eta etxeen zuzeneko ordainketari. Bigarren talde horren finantzaketa hazi zen gehien, % 9,5, eta administrazio publiko guztiek batera, ordea, % 7,6 egin zuten gora.

2020an, administrazio publiko guztien ekarpena ekarpen pribatuaren oso gainetik hazi zen; ekarpen pribatua % 0,6 baino ez zen hazi, batez ere etxeen zuzeneko ordainketaren murrizketaren ondorioz, eta administrazio publiko guztien hazkundea % 6,4koa izan zen.

Nazioarteko alderaketan (2020ko datuekin), EAEko osasuneko gastu korrontea (BPGd-ren % 10,3) ELGaren batez bestekoa (% 9,7) baino 0,6 puntu handiagoa izan zen. PPPko osasuneko per capita gastua (\$) hobea da, 4.929ra iritsi baitzen Euskadin, eta horrek ELGaren eta zenbait herrialderen, hala nola Finlandiaren (4.566), batez bestekoaren gainetik jarri zuen. Beste muturrean, Suitzatik (7.179), Alemaniatik (6.939) eta Norvegiatik (6.536) urrun, guztiak taularen goiko muturrean. Adierazle hori ELGaren batez bestekoaren gainetik dago 2003tik.

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzaren** 2021eko **aurrekontu-likidazioak** erakusten duenez, Osasun Atalaren gastu-aurrekontua 3.994,4 M eurotik 4.395,5 M eurora aldatu zen, eta 4.395,5 M€ horien partiden arabeko banakapenak 214,4 M€ azaleratzen du. Zenbateko hori ez da programetako bakar batean ere zenbatzen (Egitura eta laguntza, Finantzaketa eta kontratazio sanitarioa, Osasun publikoa, Ikerketa eta plangintza sanitarioa, Farmazia eta Adikzioak), eta CESeK "**Beste partida batzuk**" partidaren barruan sartu du.

Azkenean, Osasun atalean egindako gastua 4.382,4 milioi eurokoa izan zen. Baliabideen ehunekoari dagokionez, lehenengo tokian geratu zen, gastu osoaren % 34,5 (programa nagusia Osakidetza egindako transferentzietan dagokie) eta BPGd nominalaren % 5,62, aurreko urtearen azpitik (% 5,72). Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa eta Farmazia programek guztizko gastu likidatu ia osoa hartzen dute (% 93,6). Zehazki, Finantzaketa eta Kontratazio Sanitarioa % 81,4 da, eta Farmazia % 12,2. "**Beste partida batzuk**" guztizkoaren % 4,9 dira.

Aurrekontuan jasotako zenbateko osoaren eta benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, Osasun Atalean likidatutako gastua (4.382,4 M€) aldatutako aurrekontua (4.395,5 M€) baino txikiagoa da, eta horrek 13,1 M euroko beheranzko desbideratzea dakar.

Bestalde, 2022rako berriaz sanitarioak diren partiden gastuen aurrekontua 4.191,4 milioi eurokoa da (+%4,9, 2021ean hasieran aurrekontuan sartutako gastuaren aldean). Gastu hori BPGd nominalaren % 4,93 da, 2022an erregistratutakoa baino ratio txikiagoa (bai aurrekontuari dagokionez, bai likidazioari dagokionez).

Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizate Ministerioaren datuen arabera, EAEn biztanle bakoitzeko osasun-gastu publikoak gora egin du 2021etik 2022ra bitarte, 1.930 eurotik 2.028 eurora biztanle bakoitzeko. Horrela, gure erkidegoak, 2021ean biztanleko gehien gastatzen duten autonomia-erkidegoen rankingean lehen postua galdu zuenak, Asturiasen atzetik kokatuz, 2022an lehen postua berreskuratu du biztanleko 2.028 eurorekin. Estatuko batez bestekoa 1.559 euro per capita da.

EAEko sektore publikoaren urteko aurrekontuen eta kontuen likidaziotik abiatuta egindako **Osakidetzaren aurrekontu-likidazioak** erakusten duenez, erakundeak 3.878,2 M euroko gastua egin zuen 2021ean. Hala, gastua % 15,4 igo da 2020tik 2021era. BPGd nominalaren % 5 da, eta ratioa 2020koa baino hiru hamarren handiagoa da. Gehikuntza hori inbertsioen eta ustiapen-gastuen hazkundeak azaltzen du, nahiz eta lehenengo hazkundea nabarmenagoa izan. Likidatutako guztizkoaren % 94,9 ustiapen-gastuei dagokie, eta % 5,1 inbertsioei.

Likidatutako osakidetzaren ustiapen-gastuak 3.681,2 milioi eurokoak dira, hau da, % 13,1eko igoera 2020ko likidazioarekin alderatuta. Langileen gastuak (soldatak eta gizarte-kotizazioak), ustiapen-gastuen % 68,1, 2.507,7 M euro, aurreko urtearen aldean % 16 igo dira. Funtzionamenduko gastuak 1.115,7 M eurokoak izan dira, hau da, aurreko aldiaren baino % 2,5 gehiago. Funtzionamenduko gastu horien % 81,7 hornikuntzei dagozkie, eta % 0,2 jaitsi dira.

Bestalde, likidatutako kapitaleko gastua 197,1 milioi eurokoa da, 2020an likidatutakoa baino % 86,6 handiagoa.

Aurrekontuan jasotako zenbatekoaren eta 2021ean benetan egikaritutakoaren arteko desbideratzeari dagokionez, likidatutako gastua aurrekontukoa baino handiagoa da (+338,1 M€), eta inbertsioei (+77,6 M€) eta ustiapen-gastuei (+260,5 M€) dagokie.

Azkenik, 2013-2020 Osasun Planaren emaitzen urteko txostenean jasotako datuen arabera, 2019an 101 adierazleren informazio eguneratua dago, guztizkoaren % 92 (aurreko urtean 90 adierazle izan ziren). 101 horietatik, 2020rako helburua beteta dago edo helbururako joera erakusten du 43 adierazletan; 24k hobekuntza erakusten dute oinarrizko egoeran, baina egungo joerarekin ez da aurreikusten 2020rako helburua lortzea, eta 34tan okerrera egin du oinarrizko egoerari dagokionez.

5.1.4. Etxebizitza

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzaren Higiezinaren Salerosketari buruzko Estatistikaren arabera, 2022. urtean 23.623 salerosketa erregistratu dira Euskadin, 2021. urtean baino % 9,6 gehiago eta 2012an baino % 87,7 gehiago. Azken hamarkadan bereziki nabarmentzekoa da erabilitako etxebizitzaren salerosketen bilakaera, % 187,7 igo baitira (+% 10 azken urtean). Lurralde-banaketari dagokionez, 2022ko salerosketen % 16,2 Araban egin dira, % 52,9 Bizkaian eta % 30,9 Gipuzkoan.

Etxebizitza motari dagokionez, salerosketen % 76,1 etxebizitza libre erabiliak dira (2021ean baino % 9,1 gehiago eta 2012an baino % 54,2 gutxiago), % 14,3 etxebizitza libre berriak (-% -2021arekin alderatuta eta +% 62,7 2012arekin alderatuta), % 5 etxebizitza babestu erabiliak (+% 44,8 2021aren aldean eta % -66,3 2012aren aldean) eta gainerako % 4,7a etxebizitza babestu berriak (-% 52 2021arekin alderatuta eta % -39,9 2012aren aldean).

Euskadiko etxebizitza-salerosketen metro koadroko prezioari dagokionez, etxebizitza librearen prezioa (berriak eta erabiliak) 2.932,2 €/m²-koa izan da 2022an, 2021ean baino % 2,5 handiagoa. Erabilitako etxebizitza libreen prezioa 3.318,3 €/m²-koa izan da (+% 9,2), eta etxebizitza libre berriena 2.859,5 €/m²-koa (+% 0,9). Bestalde, etxebizitza babestuaren metro koadroko prezioa apur bat igotzen hasi zen 2013an, eta nabarmen jaitsi zen 2020an, 1.973,2 €/m²-raino. 2022an, prezioa % 43,4 igo da 2021arekin alderatuta, eta 2.763,2 €/m²-koa da. Hortaz, 2012tik aurrerako gehieneko prezioa erregistratu da.

EAEko bigarren eskuko etxebizitzaren salerosketen batez besteko prezioa 2.859,5 €/ m²-koa izan da 2022an, aurreko urtean erregistroetako batez bestekoa baino % 0,9 handiagoa. Lurraldeka, Bizkaian % 3 jaitsi dira prezioak; Gipuzkoan % 5,1 eta Araban % 24. Ondorioz, prezioak 3.400,6 €/ m² (Gipuzkoa) eta 2.536,8 € (Araba) artekoak dira, eta Bizkaia tarteko posizioan dago, 2.691,2 €/m² batez beste. Etxebizitza bakoitzeko prezioei dagokienez, EAEko batez bestekoa 238.800 € da (-% 2koa 2021aren aldean), eta 274.800 €-tik 225.100 €-ra bitartekoa da Gipuzkoan eta 225.100 Araban. Bizkaia beste bien artean dago berriro ere: 225.400 euro etxebizitza bakoitzeko.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak alokairuaren **merkatuaren estatistika (AME)** egiten du 2019az geroztik, EAEko alokairuaren merkata aztertzeko. Eragiketa hori Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legetik aurrera sortutako erregistroetan gordailututako fidantzetan oinarritzen da, eta, beraz, nahitaezkoa da hiri-errentamenduen kontratuak erregistratzea eta etxebizitzak alokatzeko kontratuen fidantzak gordailutzea Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak Eusko Jaurlaritzan duen ordezkari bakoitzeari.

AMEk egiaztatu du 2022ko abenduaren 31n eskuragarri dagoen azken egun horretan indarrean zeuden alokairu libreko 77.272 kontratu zeudela erregistratuta Eusko Jaurlaritzaren fidantza-gordailuan (merkatuko prezioan). Horietatik 2.130 sasoiko etxebizitzak dira, eta, duten berezitasunagatik, azterketa honetatik kanpo geratzen dira. Era berean, ikerketa honetan ere ez dira kontuan hartu familia bakarreko etxebizitzetara dagozkien 1.539 kontratuak. Izan ere, ohiko etxebizitza-erabilera izan arren, beren ezaugarri bereizleak direla-eta azterketa espezifiko egitea merezi dute. Horrenbestez, alokairu libreko 73.603 kontratutan ezarrita geratzen da Eusko Jaurlaritzak AMEri buruz egindako txostenak aztertzeko duen stocka: ohiko etxebizitza bizitegi-erabilera duten eraikin kolektiboetan kokatutako etxebizitzak, 2022ko abenduaren 31n alokairu libreko kontratuak indarrean zituztenak. Lurraldeka, alokatutako etxebizitzaren % 14,1 Araban daude (10.414 fidantza), % 36,5 Gipuzkoan (26.848 fidantza) eta gordailu gehienak Bizkaian daude (% 49,4 eta 36.341 fidantza, hurrenez hurren).

2022ko azken hiruhilekoan eratutako fidantzek 744,6 euroko batez besteko errenta lortu dute, hau da, % 4,4ko urte arteko igoera. Aldi berean, eraikitako m² bakoitzeko prezioa kontuan hartzen badugu, 2021eko laugarren hiruhilekoan 9,6 €/ m²-koa izatetik 2022ko aldi berean 10,1 €/ m²-koa izatera igaro da (+% 5,2). Hiruhileko horretan jarritako fidantzen kopuruari dagokionez, % 15,2 jaitsi dira urte arteko tasan.

Etxebizitza librearen salerosketa-prezioei dagokienez, Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agendako Ministerioak etxebizitza librean, berrien eta bigarren eskukoaren higiezinaren transakzioen batez besteko balioak kalkulatu ditu, notario-estatistikak emandako informazioarekin, eta horrek autonomia-erkidegoen araberrako konparazioa egitea ahalbidetzen du.

2022an (behin-behineko datuak), EAEn saldutako etxebizitza librean batez besteko balioa, notario-erregistroetan jasotakoaren arabera, 232.831 eurokoa izan zen, 2021ean baino % 2,4 handiagoa eta Estatuko batezbestekoa baino % 27,6 handiagoa, azken hori 182.425 eurokoa izan baitzen (+% 3,7). Oro har, preziorik altuenak Balear Uharteetan eta Madrilgo Erkidegoan daude, eta baxuenak Gaztela-Mantxan, Extremaduran eta Murtziako Eskualdean. Eraikuntza berriko etxebizitzak soilik kontuan hartzen baditugu, EAEko datua 279.561 eurora igo da, 2021ean baino % 5,6 txikiagoa. Kopuru hori Estatuko batez bestekoa (260.787 euro) baino % 7,2 handiagoa da, azken urtean % 2,1 igo baita. Erabilitako etxebizitzari dagokionez, EAEko batez besteko balioa 225.284 eurokoa izan zen 2022an, 2021ean baino % 3,1 gehiago. Estatuko datua 174.625 da (+% 4,6). Hortaz, bien arteko alderik handiena da, % 29koa.

Eraikuntza-jarduerari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren Behatokiak adierazi du EAEn hasitako etxebizitzaren gutzitako kopuruan, 2008an eta 2009an nabarmen jaitsi ondoren, aldaketa gertatu zela 2010-2011 biurtekoan, eta nabarmen hazi zela. 2012 eta 2015 artean, hasitako etxebizitzaren kopuruak behera egin zuen intentsitate desberdinekin, eta 2016tik 2019ra, hasitako etxebizitzaren kopuruak gora egin du oro har, nahiz eta urtetik urtera tasa txikiagoak izan (+% 0,9 2019an). 2020an 4.443 etxebizitza hasi ziren, aurreko urtean baino % 30,7 gutxiago, eta 2021ean tasa positiboetara itzuli zen (+% 7,9), etxebizitza babestuen eraikuntzaren susperraldiaren ondorioz. 2022an joera positibo horrek bere horretan jarraitzen du, 5.827 etxebizitza eraikitzen

hasi baitziren, aurreko urtean baino % 21,6 gehiago. 5.827 etxebizitza horietatik, 2.348 etxebizitza babestuak dira (+% 46,9 2021arekin alderatuta) eta 3.479 etxebizitza libreak, hau da, % 13,1 igo da 2021arekin alderatuta, eta hori guztia behin-behineko datuekin.

Bestalde, EAEn 2022an amaitutako etxebizitzak 4.760 dira guztira, aurreko urtean baino % 8,8 gehiago, amaitutako etxebizitza babestuen segmentua (+% 16,1) eta etxebizitza libreena (+% 6,6) igo izanaren ondorioz. Horren ondorioz, etxebizitza babestuak EAeko eraikuntza-jardueran duen partaidetzak gora egiten jarraitzen du aurtun, zeren eta amaitutako etxebizitzaren pisua 2021eko % 23,2tik 2022ko % 25,2ra igaro baita.

Etxebizitza-eskariari dagokionez, gurasoekin edo tutoreekin bizi diren 18 eta 44 urte bitartekoek lehen etxebizitza eskuratzeko dutenen beharretara hurbilduta, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitzaren beharrei eta Eskariari buruzko azken Inkestaren (EBEI) arabera (2021ekoa), diru-sarrerak zituzten 64.859 pertsonak lehen etxebizitza eskuratzeko beharra zuten, eta horrek esan nahi du % 0,2 handitu dela lehen etxebizitza eskuratzeko beharra zutenen ehuneko 2019ko inkestaren aldean. Pertsona horiek behar duten etxebizitza kopuruari dagokionez (baxuagoa da, etxebizitza banaka edo bikotean eskuratu dezaketelako), guztira 58.137 pertsona dira, bi urte lehenago baino % 8,8 gehiago. Bilakaera horren arabera, egonkortu egin da Euskadin lehen etxebizitza eskuratzeko eskaera, 2009an izandako beheranzko bilakaeraren ondoren. Urte horretan, 125.514 pertsonako gehienekora iritsi zen, 110.667 etxebizitzako eskariarekin, eta 2013an.

Halaber, 82.326 familiak etxebizitza aldatzeko beharra adierazi dute, etxebizitza guztien % 9,1ek. Hau da, % 1,3ko jaitsiera 2019aren aldean: urte horretan guztizkoaren % 9,3 ziren etxebizitza horiek. Datu horiek, nahiz eta apur bat jaitsi diren 2019arekin alderatuta, 2011. urtean hasitako goranzko bidea sendotzen dute, 2013-2015 aldiko beherakadaren ondoren.

Azkenik, Etxebizitza Beharren eta Eskariaren Inkestak adierazten du, guztira, 87.857 euskal etxek behar zutela 2021ean birgaitzarako egitea. Hala, magnitude hori EAeko familia-etxebizitzaren parkearen % 9,7 da. Bilakaerari dagokionez, ikusten da birgaitzeko beharrak gora egin duela 2019arekin alderatuta, bai etxeen bolumenean (+% 28,4), bai premia horren intzidentzia erlatiboan (+ % 2). 2019ra arte, epe luzeko ikuspegitik, datu horiek nolabaiteko egonkortzea adieraz lezakete, gorabehera jakin batzuen ondoren, birgaitzeko beharra duten familien ehunekoan, 2009az geroztik ikusten dena (urte horretan erregistratu zen gehienez ere horrelako jarduketan beharra zuten 142.099 etxebizitza).

EAeko etxeen unitateek beren etxebizitzak ordaintzeko egin duten **finantza-ahaleginari** dagokionez, lehenik eta behin, Jabetzako, Ondasun Higiezinak eta Merkataritzako Erregistratzaileen Espainiako Elkargoaren "Higiezin Erregistro Estatistikak" dakar aipaturiko ahalegin hori, hileko batez besteko hipoteka-kuotaren eta soldata-kostuaren arteko erlazioaren arabera neurtuta, % 28,25 dela 2022ko 4. hiruhilekoan, aurreko urtean baino 0,3 puntu gehiago. Estatu osoari dagokionez, ibilbide desberdina da, 2022. urtearen amaieran ahalegin hori batez besteko soldata-kostuaren % 31 baita, aurreko urteko 0,9 puntu gehiago. Ikuspegi zabalagoan, azken bosturtekoan (2016 eta 2022 artean) finantza-ahalegin hori 1,6 puntu handitu da EAEn, eta bikoitza baino gehiago (3,4) Estatu osoan.

Bigarrenik, EINen "Familia Aurrekontuen Inkestak" (FAI) aukera ematen du jakiteko, ECOICOP (European Classification of Individual Consumption by Purpose) gastuaren sailkapeneko lau digituko desagregaziotik abiatuta, familiek zer gastu egiten duten beren etxebizitza nagusiaren alokairua ordaintzeko, baita zer alokairu egozten zaion etxebizitza nagusi bati (etxebizitza baten jabe den familiak ordainduko lukeen errenta, etxebizitza horren maizterra balitz). Datu horiek etxe bakoitzeko batez besteko gastuari eta familia-unitatearen urteko gastuaren gaineko ehunekoari buruzkoak dira.

2021ean, informazioa dugun azken urtean, EAEko familiek urtean 7.594,74 euro gastatu zituzten, batez beste, ohiko etxebizitza ordaintzeko, 2020an baino % 2,4 gehiago, etxebizitza horri jabetzan egotzitako alokairua kontuan hartuta. Zenbateko hori urteko familia-gastuaren % 22,98 da (-0,56 puntu aurreko urtearen aldean). EAEko gastua, gainera, Estatuko batez bestekoa (5.366,52 €) baino % 41,5 handiagoa da, hau da, Espainiako familien gastuaren % 18,35. Aldea nabarmena da etxebizitzaren alokairuaren gastua kontuan hartzen badugu: EAEko familiek 750,78 euro gastatu zituzten 2020an batez beste (urteko gastuaren % 2,27) beren ohiko etxebizitzaren alokairuan. Estatuan, aldiz, gastu hori handiagoa da, bai kopuru absolutuetan (949,59 euro), bai kopuru erlatiboetan (gastu osoaren % 3,25).

Bestalde, **bizi-baldintzen krisiaren ondorioetako bat** da hipotekak edo alokairu-errentak ordaindu ezin dituztelako etxebizitzak galtzen dituzten familien kopurua handitzea. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak (BJKN) Euskadiko lehen auzialdiko epaitegietan aurkeztutako hipoteka-exekuzioen jarraipena egiten du, eta adierazten du 2022an 519 exekuzio erregistratu zirela, hau da, aurreko urtearekin alderatuta, % 21eko jaitsiera. 2022an aurkeztutako exekuzio horiek Estatu osoko 24.952 exekuzioen % 2,1 dira (-% 10,5 2021arekin alderatuta). Era berean, 2022an, 792 exekuzio agindu zituzten Euskadin lehen auzialdiko epaitegiek, aurreko urtean baino % 8,2 gutxiago, eta Estatuko guztizkoaren % 2,1. Horietatik 144 hipoteka egikaritzeak izan ziren (-% 14,8, 2021arekin alderatuz), 806 kaleratze prozedurak (-% 7,3 eta 37 beste prozedura batzuk (+% 5,7)).

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak **“EAEko etxebizitzaren erabilerari buruzko inkesta”** egiten du, gure Erkidegoan hutsik dauden etxebizitzaren parkearen dimentsioa eta kudeatzeko posibilitateak zein diren jakiteko, informazio garrantzitsua baita hutsik dauden etxebizitzak mugiarazteko politikak sortzeko. 2021eko azken emaitzak aztertuta, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak nabarmendu du EAEn milioi bat etxebizitza baino pixka bat gehiago zenbatu direla, eta horietatik % 92,8 okupatuta egon ohi direla (2019an, % 91,8). Eta hutsik dauden edo nagusiak ez diren etxebizitzaren % 7,2tik (ia 76.904 etxebizitza) % 2,8 sasoiko etxebizitzak dira, eta gainerako % 4,4 (46.757 etxebizitza) jenderik gabeko etxebizitzaren parkeari dagokio (% 5,1 2019an). Lurraldeka, Gipuzkoan jenderik gabeko etxebizitzaren tasa hiruretatik txikiena da 2021ean. % 3,7 da, Bizkaian % 4,4 eta Araban % 3,8. 2019arekin alderatuta, nabarmen jaitsi da jenderik gabeko etxebizitzaren kopurua (-% 12,7 kopuru absolutuetan), eta EAEko tasa orokorra 7 hamarren jaitsi da, % 5,1etik % 4,4ra.

Etxebizitzaren Behatokiak nabarmentzen duenez, etxebizitza horietako zenbait dagoeneko merkatuan daude eta ezin kudea daitezke etxebizitza hutsak mugiarazteko programen ondorioetarako. Halaber, beste batzuk aldi baterako daude hutsik, ezinbestean, jabeen osasunarekin lotutako arrazoiengatik edo lanagatik. Horregatik, hutsik dauden etxebizitza kudeagarriak erreparatzen die: 2021ean, 26.132 etxebizitza guztiz kudeagarri zenbatu dira guztira (lekualdaketak alde batera utzita), 2019an baino % 0,3 gutxiago eta etxebizitza-parkearen % 2,4, eta jenderik gabeko etxebizitzaren erdia, gutxi gorabehera (etxebizitzaren parke osoaren % 2,5 2019an).

Etxebizitza politikari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak gauzatutako gastua, 2009an 207,4 milioi eurokoa izan zena, erdira jaitsi zen 2015ean (99,8 milioi eurora arte), egoera txar baten ondorioz. 2016tik aurrera, gorako bideari ekin zitzaion berriro, 2019an 224 milioi eurora iritsi arte; beraz, 2009ko maximoa gainditu zen. 2020an (eskuragarri dagoen azken datua), ordea, beherakada handia gertatu da gauzatutako gastuan, eta guztira 118 milioi euro dira (2019. urtearekin alderatuta -% 47,3). Zenbateko hori EAEko BPGd-aren % 0,16 da, aurreko urtean baino 12 ehunen gutxiago, gastuaren bilakaeraren eta ekonomiaren hazkundearen ondorioz.

2021ean, **2021-2023 Etxebizitzaren Plan Gidaria** jarri da indarrean. Plan horren xedea da etxebizitza duin eta egokia behar duten pertsonen erantzun integrala bermatzea, alokairu eskuragarria eta dagoen bizitegi-parkearen bizigarritasun- eta iraunkortasun-baldintzak hobetzera bideratutako baliabideen eskaintza handituz. Izan ere, honela definitzen da haren ikuspegia: “2024rako, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzen duten prestazioen sistema ezarri eta finkatu izana, alokairu eskuragarria bideratutako etxebizitza-parkearen hazkundera eta kohesio soziala erraztuz, eta etxebizitza-parke publikoaren eta pribatuaren birgaitzea bultzatu izana, Europako funtsak optimizatuz, birgaitze-politikan aldaketa estrategiko bat eginez eraikinen kalitateari eta bizigarritasunari, birgaitze integralari, irisgarritasunari, energia-eraginkortasunari eta klimaren

eraginkortasunari dagokienez. 2021-2023 Planaren aurrekontuaren kostua 1.237,6 milioi eurokoa da, eta Etxebizitza Sailburuordetzak 4312 Etxebizitza Programaren bidez gauzatzen duen gastu finkatua jasotzen du, baita VISESA eta Alokabide sozietate publikoek gauzatzen dutena ere, kapital eta ustiapen aurrekontuak egikaritzearen bidez hain zuzen ere, sozietateen arteko gastuen erlazioak ezabatu ondoren, lehenik, eta sozietateen eta etxebizitza-programaren arteko erlazioak, gero.

Era berean, 2022ko azaroan, **2022-2036 aldirako Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala** sinatu zen. Tresna estrategikoa eta egiturazkoa da, eta eragile publiko eta pribatu askok konpromisoa hartzen dute modu koordinatuan aurrera egiteko 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean. Guztira 88 erakunde atxiki zaizkio Itunari, gizarte zibiletik edo kolektibo profesionaletatik hasi eta instituzio eta enpresetaraino. Itunaren helburu nagusia da etxebizitza-eskubidea eskubide eraginkor eratzeko prozesua bizkortzea, etxebizitza duin eta eskuragarria eskuratzea giza garapen jasangarriaren funtsezko elementuetako bat dela ulertuta, Euskadik giza garapen iraunkorarekin duen konpromisoarekin.

Azkenik, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak nabarmendu du euskal ogasunek 2011 eta 2019 artean guztira 3.624,1 milioi euro sartzeari utzi ziotela etxebizitzari lotutako **PFEZeko zerga-kenkariengatik**, edo, bestela esanda, urtean 400 milioi euro inguru. Gastu fiskalaren zenbateko hori erosketari (eta etxebizitza-kontuei) egindako PFEZaren kenkariarekin lotzen da, baita alokairuarekin eta birgaitzearekin ere, baina intentsitate desberdinarekin: lotutako gastu handiago hori lotuta dago 2011-2019 aldirian etxebizitza erosteko pizgarriengatik sartu ez diren 2.874,3 milioi euroekin (guztizkoaren % 79,3), eta alokairurako kenkariarekin lotutako gastu fiskala 659,5 milioi eurokoa izan zen (guztizkoaren % 18,2) aldi horretan bertan. Azkenik, birgaitzearekin lotutako gastu fiskala % 2,5 baino ez da izan, 90,3 milioi euro.

Azken ekitaldiari dagokionez, eskuragarri dauden datuekin, etxebizitzagatiko kenkariaren zenbatekoa 424,8 milioi eurokoa izan zen 2019an, 2018an baino % 3,8 gehiago, hau da, Eusko Jaurilaritzako Etxebizitza Sailak urte horretan egindako gastuaren % 189,6 (224,0 milioi euro), kapitulu honetan ikusi den bezala.

5.2. BIZI KALITATEA

5.2.1. Hezkuntza eta Kultura

Hezkuntza

Honako puntu hauei erreparatu behar zaiela deritzogu:

- Derrigorrezko hezkuntza-mailek geldialdi demografikoa islatzen dute. Horrela, haur-hezkuntzako matrikulazioaren beheranzko joera lehen hezkuntzara iritsi da, bai eta DBHra ere.
- Lanbide Heziketako erdi-mailako eta goi-mailako ikasleek 40.000 ikasle baino gehiago dituzte, lehen aldiz erregistroak daudenetik.
- Euskadi kualifikazio altuko gazteak izateagatik nabarmentzen da, bai Estatuarekin, bai EBko batez bestekoarekin alderatuta.
- Unibertsitate-graduako ikasleen erdia baino gehiago Gizarte Zientzien eta Zientzia Juridikoan adarreko ikasketetan graduatu ziren. Lanbide Heziketan, hauek izan ziren ikasle gehien izan zituzten 8 lanbide-arloak: Fabrikazio Mekanikoa, Osasuna, Zerbitzu Soziokulturalak eta Komunitatearentzako Zerbitzuak, Administrazioa, Elektrizitatea eta Elektronika, Produktorako Zerbitzuen Mantentze-lanak, Informatika eta Ibilgailu autopropulsatuen Mantentze-lanak.

- Arlo teknikoek eta osasun-arloek, unibertsitate-hezkuntzan zein goi-mailako lanbide-heziketan, Prestakuntzari lotutako enpleguaren tasarik altuenak dituzte.
- Lanbide Heziketan, Produktzioarako zerbitzuen mantentze-lanak, Fabrikazio mekanikoa, Ibilgailu autopropulsatuen mantentze-lanak, Informatika eta Osasuna lanbide-arloek erregistratzen dituzte, oraindik ere, laneratze-ratio handienak. Horregatik, interesgarria iruditzen zaigu gertaera horri buruzko informazio-ekintzak egitea, bai herritarren artean, bai euskal gazteen artean.
- Goi-mailako ikasketen adar teknikoetan (Goi-mailako Lanbide Heziketa eta unibertsitate-ikasketak) emakumeen parte-hartzea gizonena baino txikiagoa da. Lanbide Heziketaren kasuan, emakumeen parte-hartzea oso handia da irudi pertsonalean, ehungintzan, jantzigintzan eta larrugintzan, osasungintzan eta zerbitzu soziokulturetan eta komunitatearentzako zerbitzuetan, eta oso txikia profil teknikoagoa duten lanbide-arloetan, horiek baitira, hain zuzen ere, laneratze onena dutenak. Hala, Elektrizitatea eta Elektronika, Fabrikazio mekanikoa, Informatika eta Komunikazioak, Instalazioa eta Mantentze-lanak, Garraioa eta Ibilgailuen mantentze-lanak sailetan emakumeen matrakulazioa % 15,2ra iristen da, kasurik onenean.

Berriz ere funtsezkotzat jotzen dugu neska gazteek sektore maskulinizatuetoako beharrezko ikasketak (eta mutil gazteek sektore feminizatuetoako beharrezko ikasketak) aukeratu ditzatela sustatzea, garapen profesionalerako aukerak aukera-berdintasunarekin lotuz eta emakumeen agerikotasuna sustatuz, emakume gazteentzat erreferente izan daitezen.

- Euskal Autonomia Erkidegoko 25 eta 65 urte bitarteko biztanleek bizitzan zehar prestakuntza-jardueretan duten parte-hartzea oraindik urrun dago arlo horretan erreferente diren herrialdeetan (Suedia, Finlandia, Herbehereak eta Danimarka) jasotako balioetatik.

Kultura

Atsegin handiz egiaztatu dugu beren jarduera ekonomiko nagusi gisa jarduera kulturala duten enpresen kopuruak eta horiek sortutako enpleguak gora egiten jarraitzen dutela, baina gure Erkidegoa kultura-enplegu gehien sortzen duten Autonomia Erkidegoen rankingean laugarren postuan dagoenez, hobetzeko tarte dagoela uste dugu.

Berriz ere harritzen gaitu EAEko etxeak izanik, batez beste, 2020an per capita errenta erabilgarri handiena izan zutenak, Autonomia Erkidegoen rankingean zortzigarren postuan jarraitzea etxeko batez besteko gastuan eta laugarrenean pertsonako batez besteko gastuan.

Eta amaitzeko, atsegin dugu ikustea azken 30 urteotan gora egin duela euskal hitzunen ehunekoak, euskararen erabilerak eta euskara sustatzearen aldeko jarrerak. Era berean, positibotzat jotzen dugu erabilera handitu izana, testuinguru formaletan zein informaletan.

5.2.2. Ingurune naturala eta energia

Ingurune Naturala

Aipatu dugun legez, epigrafe honen zati handi batean eskuragarri dauden azken datuak 2020koak dira. Beraz, zenbait adierazletan (berotegi-efektuko gasen isurketa eta hiri-hondakinen, hondakin ez-arriskutsuen eta hondakin arriskutsuen sorrera, besteak beste) ikusitako hobekuntzek jarduerari ezarritako murrizketen ondorioz bizitako salbuespenezko izaeran dute azalpenaren zati handi bat. Airearen kalitatearen kasuan soilik ditugu 2021erako datuak.

Ildo horretan, adierazi behar dugu, airearen kalitatea neurtzeko estazio guztiek mugako eta helburuko balioak bete bazituzten ere, deigarria dela airearen kalitatearen jasangarritasunaren adierazleak okerrera egitea 2019arekin alderatuta. Jasangarritasun-adierazlea, hau da, kalifikazio oso ona eta ona duten egunen ehunekoak, guztizkoaren % 88,77 da, 2019koa baino ratio txikiagoa (% 91,44) esan nahi du egoerak okerrera egin duela.

2020. urtera itzuliz -hobekuntzak ikusi zirenen orduan-, atsegina da guretzat ikustea, gainera, hiri-hondakinak kudeatzen dituzten enpresek Estaturako zenbatetsitakoa baino per capita zenbateko txikiagoa jasotzen zutela.

Uraren kudeaketari dagokionez, ur-kontsumoaren beheranzko joerak baliabide horren erabilera arrazionalagoa adierazten badu ere, banaketa-sareetan gero eta ur gutxiago dagoela ohartarazten dugu, eta horrek banaketa-sarea hobetzeko eta mantentzeko neurriak hartzera bultzatu beharko luke.

Pandemiak agerian jarri du natura-ingurunearen garrantzia, eta, horregatik, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak oraindik ere uste du eragile guztiak (gizartea, enpresak eta administrazioak) sentsibilizatzen jarraitu behar dela berotegi-efektuko gasen eta hondakinen murrizketa erraztuko duten bizi-ohituretan, eta garapen ekonomiko jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatuko duten ekintza eta politika publikoak ezarri behar direla.

Energia

Gaur egun bizi dugun trantsizio ekologiko-energetikoan funtsezkoa da energia-eredua aldatzea, erregai fosilen erabilera gutxituz joateko; ekoizpen garbian eragingo duen ekoizpen-eredua aldatzea; eta kontsumo, erabilera eta birziklatze indibidualako ereduak aldatzea. Gure ustez, balantze orekatua lortu behar da trantsizio horien erritmoen eta enpleguan dituzten ondorioen artean.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da Euskadin energia berriztagarrien ekoizpena handitzea, ingurumenari dagokionez ez ezik, maila ekonomikoari eta mendekotasun energetikoari dagokionez ere dakartzan abantailak

direla eta. Horretarako, komenigarria litzateke abantaila horiek azaltzea eta herritarrak, enpresak eta administrazioak kontzientziatzeko lana egitea, lurraldean energia berriztagarrien arloko azpiegiturak eta proiektuak instalatzeko beharraz jabetu daitezen, baita horrek dakartzan kostuez ere, betiere ingurumenaren gaineko eraginaren nahitaezko kontrolari kalterik egin gabe.

5.2.3. Osasuna eta osasun-sistema

Pandemia hasi zenetik bi urte baino gehiago igaro direnean, osasun-arreta ona bermatzeko egitura nahikoak izateko beharra ikusten jarraitzen dugu. Prebentzio-lanaren egitura da ahulena, eta lehen mailako arretak egiten du lan hori. Beharrezkoa da lehen mailako arreta eta osasun publikoko prebentzio-estrategiak indartzea.

Osasun-laguntzaren eskaria handia da, eta espezialitate jakin batzuetan okupazio-indizea % 100etik gorakoa da; aldi berean, itxaron-zerrendetan dauden pazienteen kopuruak gora egiten jarraitzen du, bai kanpo-kontsultetan, bai programatutako kirurgian. Horren ondorioz, osasun-arreta jasotzeko batez besteko atzerapen-egunen kopurua handitu egiten da. Ondorioz, atzerapenak murrizteko bultzada bat behar da, eta horrek ahalegin handia ekarriko du, bai ekonomikoki, bai sistemaren barne-antolaketari dagokionez.

Prebentzioko osasuneko gastu publikoa ez da alde batera utzi behar. Izan ere, pandemiak agerian utzi du langile nahikoak eta prebentzio-mekanismoak izatea garrantzitsua dela, eta, testuinguru horretan, funtsezkoak dira hobekuntza zientifiko-teknologikoak eta horien aplikazioa, bai eta pazienteen parte-hartzea ere, beren osasunaren ardura duten pertsona gisa.

Osasunari buruzko ikerketak eta digitalizazioak funtsezko zeregina beteko dute osasun-sisteman. Gure ustez, ikerketa-azterlanak eta saiakuntza klinikoak garatzeak, teknologia digitalean, edizio genetikoan eta Big Datan egindako aurrerapenekin batera, osasunaren prebentzioan eta hobekuntzan aurrera egitea ahalbidetuko dute, aurrerapen teknologiko horiek diagnostiko eta tratamendu askoz pertsonalizatuagoak eskainiko baitituzte. Telemedikuntza edo teleterapia hartzea, aurrez aurreko arretaren osagarri gisa, etorkizunean gero eta eginkizun handiagoa izatera deitua dago. Ildo horretan, arreta berezia jarri behar da arrakala digitalak kolektibo jakin batzuei eragiten dizkien ondorio negatiboetan, teknologia berrietan gaitasun gutxien duten pertsonen osasun-sistema eskuragarri izan dezaten eragozteko saihestuz.

Desiragarria da, halaber, herritarrek parte hartzea osasun-zerbitzu publikoen diseinuan, plangintzan eta antolaketan, gure osasun-sistemaren kalitatean nahi ez diren desberdintasunak eta ondorioak saihesteko proposamen bideratuak eta eraginkorrak lortzeko. Horrela, herritarren parte-hartzea ahalbidetzeaz gain, gardentasuna eta erantzunkidetasuna emango dizkiegu politika publiko horiei.

Pandemiak azkenaldian larriagotzen ari den arazo bat azaleratzen lagundu du, osasun mentalaren egoeraren okertzea, eta, horri esker, gizarteak bestelako ikuspegia izan dezake horrelako arazoei buruz. Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu administrazio publikoek osasun mentaleko nahasmendu gero eta handiagoei aurre egiteko eta horiek konpontzeko arreta jartzea eta baliabideak eta ahaleginak eskaintzea. Era berean, gomendatzen dugu gizarte-zerbitzuek jarraipen prebentiboa egitea suizidioek eta autolesioek eragindako hilkortasun goiztiarrari.

Gainera, bilakaera txarra duten beste osasun-arazo batzuei buruz ohartarazten dugu, hala nola diabetesari, antsiolitikoek eta antidepresiboek kontsumoari edo sexu-transmisiozko gaixotasunei lotutakoak.

Bestalde, EAEko osasun-arloko pazienteak, batez beste, 65 urtetik gorakoa da, patologia anitzekoa, baina bizi-itxaropen handia du oraindik. Horretarako, beharrezkoa da (eta gero eta gehiago) sistema sanitarioa, soziala eta soziosanitarioa etengabe diseinatzea eta egokitzea, bai eta arlo horietan inbertsio handiak egitea ere. Gure gizartearen erronka nagusia euskal herritarren urte osasungarrien kopuruan irabaztea da.

5.2.4. Etxebizitza

Kapitulu honetan aztertutako etxebizitzaren merkatuari buruzko datu nagusien arabera, susperraldi ia erabatekoa gertatu da azken urte honetan, COVIDak 2020an izan zuen inpaktuarekin alderatuta. Etxebizitzen salerosketak eta eraikuntzako jarduerak gora ere ez da nahikoa, ez segmentu pribatuan, ez publikoan. Gainera, alokairu pribatuaren errentei eutsi arren, errenta horiek egiten jarraitu dute 2022an, 2021ean orduan aipatu ziren joerak finkatuta, eta egonkorra izateari eusten dio eskariak. Prezioek, berriz, gorantz jarraitzen dute.

Alokairuko etxebizitzen eskaintza, bestalde, oraindik handiak izaten jarraitzen dute eskatzaileen ordainketa-gaitasunari dagokionez, eta horrek zaildu egiten du errenta hori eskuratzea. Kolektibo zabaletan izan dezakeen eragina kezagarria dela iruditzen zaigu, hala nola gazteen artean eta baliabide gutxien dituzten pertsonen artean.

Testuinguru horren aurrean, EGABek etxebizitza-politikak behar bezala garatzearen eta gauzatzearen garrantzia nabarmentzen du. Ildo horretan, positibotzat jotzen dugu indarrean dagoen 2021-2023 aldirako Gida Plana diseinatzea. Izan ere, 2021. eta 2022. urteetan izan duen bilakaera ezin dugu baloratu, ez baitugu horri buruzko informaziorik. Era berean, uste dugu Euskadiko Etxebizitzaren aldeko Itun Soziala tresna estrategikoa eta egiturazkoa dela, eta bertan eragile publiko eta pribatuek konpromisoa hartzen dutela modu koordinatuan aurrera egiteko 2015eko Legeak ezarritako etxebizitzarako eskubide subjektiboaren eraginkortasunean.

Planteamenduari dagokionez, bat gatoz alokairu eskuragarria eta birgaitzea sustatzearen aldeko apustuarekin, baita etxebizitza babestuaren eskaintza etxebizitza eskuratzeko zailtasunak dituzten kolektiboentzat zabaltzeko ekimenarekin ere, horrek gazteen emantzipazioa errazten lagun baitezake: bereziki garrantzitsua da hori bizi-proiektuak garatzeko. Era berean, gure ustez, birgaitzearen eremuan oso interesgarria da Next Funtseko baliabideak erakartzea, eraikinak birgaitzeko eta etxebizitzen energia-eraginkortasuna bultzatzeko laguntza-programak garatzeko eta gauzatzeko, besteak beste, alokairu sozialeko etxebizitzak eraikitzeko.

Bestalde, kezagarriak iruditzen zaizkigu etxebizitza bezalako gai garrantzitsu eta sentikor batean izan ditzakeen ondorioak, hala nola inflazioa, goranzko interes-tasak, kostuen eta prezioen igoera, finantzaketa-kostuak eta finantza-erakundeek hipoteka-maileguak eskuratzeko baldintzak gogortzea, baita etxebizitzaren lege berriaren ondorioak ere. Egoera hori kontuan hartu beharko da etxebizitzaren arloan gauzatzen diren ekimenak eta programak egokitzeko eta doitzeko.

EAErentzako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak azaltzen du EAEn eskumena dela gai jakin batzuetan legeria garatzea eta bere lurraldearen barruan estatuaren oinarriko legeria betearaztea. Era berean, lege horrek adierazten du EAEko botereak Legebiltzarraren bidez, Eusko Jaurlaritzaren bidez eta lehendakariaren bidez gauzatuko direla, eta lurralde historikoek beren Foru Erakundeak estatutuan xedatutakoaren arabera edukiko eta antolatuko dituztela.

EAEko autogobernurako erakundeak indarrean sartzean, ezinbestekoa suertatu zen, Autonomia Estatutuan ezarritakoarekin bat etorritik, Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzaren antolaketa eta eskumenei buruzko legeak eta erakunde komunen eskumen-maila eta lurralde historikoen eskumen-maila arautzeko legeak onestea.

Eusko Jaurlaritzaren egitura, haren eskumenak eta Legebiltzarrarekin dituen harremanak finkatzeko helburuarekin, Gobernuari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea onetsi zen. Beste eskumen batzuen artean, legeak zehazten du gobernuak honakoak gauzatu behar dituela: lege-ekimena, Lege Proiektuak onetsiz eta Legebiltzarrari bidaliz; legegintzarako eskuordetzea, Legegintzako Dekretuen bidez; eta araudiak egiteko ahalmena, Dekretuen eta Aginduen bidez.

Gerora, Autonomia Erkidegoko erakunde komunen eta bertako lurralde historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legea aldarrikatu zen. Lege horrek Eusko Legebiltzarrak izendatzen du lege-maila duten arauak onesteko gaitasuna daukan erakunde bakar gisa Autonomia Erkidego osoan, baldin eta lege horien gaia Autonomia Estatutuaren arabera Autonomia Erkidegoari badagokio eta estatutuan lege honek edo ondorengo legeek ez badiete gaia lurralde historikoetako Foru Organoei esleitzen. Tradizio historikoarekin bat etorritik, lurralde historikoetako Foru Organoak Batzar Nagusiak eta Foru Aldundiak dira.

Era berean, lurralde historikoetako eskumenak arautzen ditu. Ezartzen duenez, beraien eskumenekoak soilik diren gaietan lurralde historikoei dagokie arauak egiteko ahalmena, bakoitzaren Batzar Nagusien Foru Arauen bidez.

Legegintza Botereak eginiko araua da legea zentzu hertsian, hots, Legebiltzarrak eginikoa. Zenbait kasutan, oso espezifikoetan, Gobernuak onetsitako lege-mailako arauak onartzen dira: Legegintza Dekretuak (EEren 82. artikulutik 85.era bitartekoak) eta Lege Dekretuak (EEren 86. artikulua).

Legegintzako ekimena, hau da, prozedura legegilea martxan jartzeko gaitasuna, honako hauek proposa dezakete:

- Legebiltzarreko taldeak, edo legebiltzarkide batek, beste lauren sinadura jasoz gero.
- Gobernuak.
- Lurralde historikoak ordezkatzeko dituzten erakundeak.
- Legegintzako herri-ekimenak, EAEko 30.000 herritarren sinadurarekin.


Ekimena Eusko Jaurlaritzarena denean Lege Proiektu deritzo; gainerako kasuetan, Lege Proposamena da.

Eusko Legebiltzarrak, legeak egiteko bere eginkizuna betetz, 15 lege onetsi zituen, guztira, 2022an; honako hauek:

- 1/2022 Legea, martxoaren 3koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legea bigarrenez aldatzeari buruzkoa.
- 2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa, Gazteriarena.
- 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena.
- 4/2022 Legea, maiatzaren 19koa, Euskal Kasazio Errekurtso Zibilar buruzkoa.
- 5/2022 Legea, ekainaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena.
- 6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurarena.
- 7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Landa Ingurunearen Garapenarena.
- 8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jarduteari buruzkoa.
- 9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa, etxeko animaliak babesteari buruzkoa.
- 10/2022 Legea, azaroaren 7koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorri baimena ematen diona Vitoria-Gasteizko Udalarekin hitzarmen bat sinatzeko, José Uruñuela Udal Dantza Kontserbatorioa integratzeko.
- 11/2022 Legea, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoarena.
- 12/2022 Legea, abenduaren 15ekoa, kable bidezko garraioarena.
- 13/2022 Legea, abenduaren 15ekoa, Kiroleko dopinaren aurkako Legea bigarren aldiz aldatzekoa.
- 14/2022 Legea, abenduaren 22koa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemarena.
- 15/2022 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituen.

Bestalde, **Eusko Jaurlaritzak**, arauak egiteko bere ahalmena erabiliz, guztira **159** Dekretu onartu ditu 2022an.

VI.1. GRAFIKOA. LEGEBILTZARRAREN ETA EUSKO JAURLARITZAREN LEGEGINTZA-JARDUERA 2017 ETA 2021 ARTEAN



Era berean, ezaguna da Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldia (2020-2024) osatzen duten urteetarako **Legegintza Programa**, Gobernu Kontseiluak onetsitakoa 2020ko azaroaren 10ean.

VI.1 koadroak xehetasunez azaltzen du aurreikusitako arauak izapidetzeko prozesuaren egoera, 2022ko abenduaren 31koa.

VI.1. KOADROA. XII. LEGEGINTZALDIA (2020-2024). LEGEGINTZALDI-PROGRAMA ETA 2022KO ABENDUAREN 31KO EGOERA				
SAILA	AURREIKUSITAKO ARAUA	EGAB-EN* IRIZPENA	GOBERNUKO EGOERA (Hala badagokio, onespén-data)	LEGEBILTZARREKO EGOERA
1. LEHENDAKARIORETZA ETA SEGURTASUNA	Suteak prebenitzea eta itzaltzea eta salbamendua	16/2022 IRIZPENA	Izapidetzen	
2. LEHENDAKARIORETZA ETA LANA ETA ENPLEGUA	Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte-inklusiorako Legearen aldaketa Izen berria: Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema	11/2021 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2022/05/10	14/2022 Legea, abenduaren 22koa
	Enpleguko Euskal Sistema Izen berria: Euskal enplegu-sistema	15/2022 IRIZPENA	Izapidetzen	--
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	Euskal Autonomia Erkidegoko Administraziooko kidegoak eta eskalak		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2020/12/01	7/2021 Legea, azaroaren 11koa
	Euskal Enplegu Publikoa	9/2015 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/07/06	3/2022 Legea, maiatzaren 12koa
	Gardentasuna eta herritarren parte-hartzea	12/2015 IRIZPENA	Izapidetzen	
	Euskal Sektore Publikoa	13/2015 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2020/12/29	Legebiltzarrean izapidetzen
	Xedapen orokorrak egiteko prozedura		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/03/23	6/2022 Legea, ekainaren 30ekoa
	Euskal administrazio publikoen zehatzeko ahalmenari buruzko Legea		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/11/23	Legebiltzarrean izapidetzen
	Kasazio-errekurtso zibila		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/06/01	34/2022 Legea, maiatzaren 19koa
EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA	Euskadiko natura-ondarea kontserbatzea	3/2019 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2020/11/24	9/2021 Legea, azaroaren 24koa
	Euskadiko ingurumen-administrazioa	4/2019 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2020/11/03	10/2021 Legea, abenduaren 9koa
	Trantsizio energetikoa eta klima-aldaketa	11/2022 IRIZPENA	Izapidetzen	
	Landa Ingurunearen Garapenari buruzko Legearen aldaketa	4/2020 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/06/29	7/2022 Legea, ekainaren 30ekoa
	Animaliak babesteari buruzkoa** Izen berria. Etxeko animaliak babesteari buruzkoa		Lege Proposamena (EAJ/PNV-PSE), 2021/02/02an onartua	9/2022 Legea, ekainaren 30ekoa
	Ekarpenak		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/07/27	4/2021 Legea, urriaren 7koa
	2005 eta 2018 bitarteko ekitaldiei dagozkien EAEko aurrekontu orokorraren likidazioak onartzea***		2022/02/01eko Gobernu Kontseiluaren akordioa. Eusko Legebiltzarrera bidali da, eta ez da beharrezkoa Legegintza Programan aurreikusitako lege-proiektuak onartzea.	
	Euskal Autonomia Erkidegoko diru-laguntzen araubidea arautzen duena	20/2015 IRIZPENA	Izapidetzen	
	2023-2026ko Estatistikako Euskal Plana		Izapidetzen***	
	Finantzen Euskal Institutua		Izapidetzen	
HEZKUNTZA	Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntzako		Izapidetzen	
LURRALDE-PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA	Mugikortasun jasangarria	7/2021 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2022/03/29	Legebiltzarrean izapidetzen
OSASUNA	Euskal Autonomia Erkidegoko osasun publikoa	12/2021 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege	Legebiltzarrean izapidetzen

		Proiektua 2022/07/26		
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE-POLITIKAK	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna	14/2019 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2020/11/17	1/2022 Legea, martxoaren 3koa
	Gazteriaren euskal Legea	15/2019 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2020/11/24	2/2022 Legea, martxoaren 10ekoa
	Garapenerako lankidetzazko lizenziak: Lankidetzazko eta elkartzatzen buruzko euskal Legea	3/2023 IRIZPENA	Izapidetzen	---
	Euskadiko memoria historiko eta demokratikoa	1/2021 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/07/27	Legebiltzarrean izapidetzen
	Haurren eta nerabeen eskubideak	12/2022 IRIZPENA	Izapidetzen	
	Aniztasunaren ildotik berdintasunaren eta sexu-orientazioagatik diskriminazioaren aurkako borrokaren Legea Izen berria: Tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako Legea		Izapidetzen hasteke	
	Kultu-lekuak, -zentroak eta erlijio-aniztasuna	3/2012 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/06/15	Legebiltzarrean izapidetzen
14/2012 Legea, ekainaren 28koa, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, bigarren aldiz aldatzen duena.**	1/2022 IRIZPENA	Lege Proposamena (EAJ/PNV-PSE), 2021/02/18an onartua	Legebiltzarrean izapidetzen	
KULTURA ETA HIZKUNTZA- POLITIKA	Euskal Autonomia Erkidegoan kirolaren arloko lanbideetan sartzeari eta jardutea	11/2015 IRIZPENA	Lege Proposamena (EAJ/PNV-PSE), 2021/01/13an onartua	8/2022 Legea, ekainaren 30ekoa
	Euskal Autonomia Erkidegoko jardueren fisiko eta kirola		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/07/27	Legebiltzarrean izapidetzen
	Kirolako dopinaren aurkako Legearen eguneraketa Izen berria: Kirolako dopinaren aurkako Legea bigarren aldiz aldatzekoa	8/2021 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/12/28	13/2022 Legea, abenduaren 15ekoa
	Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentu-kudeaketa Integralaren eta Dokumentu-ondarearena	16/2019 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2021/04/20	5/2022 Legea, ekainaren 23koa
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	Kontsumitzaileen estatutua	9/2021 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2022/02/15	Legebiltzarrean izapidetzen

Iturria: LEHENDAKARITZA *Gobernu-programaren laburpena. 2022ko abendua. Geuk egina.*

* Oharra: EGAB-en irizpenak beste arau batzuetan oinarrituz egin ahal izan dira, aurreko legegintzaldietakoak baitira.

** Lege proposamen gisa izapidetuta, legebiltzarreko Euskal Nazionalistek eta Euskal Sozialistek hala eskatuta.

*** Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2023/01/10. Legebiltzarrean izapidetzen ari da

Era berean, 2022an, hasierako Programan jaso ez ziren beste legegintza-proiektu batzuk jarri dira abian:

VI.2. KOADROA. HASIERAKO LEGEGINTZA-PROGRAMAN JASO EZ ZIREN BESTE LEGEGINTZA-PROIEKTU BATZUK				
IZENA	SAILA	EGAB-EN IRIZPENA	GOBERNUKO EGOERA	LEGEBILTZARREKO EGOERA
Datu pertsonalen eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren babesa	1. LEHENDAKARIORDETZA ETA SEGURTASUNA		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2022/12/07	Legebiltzarrean izapidetzen
Zibersegurtasuneko Euskal Agentzia sortzea			Izapidetzen	
Euskal ondare-eskubidearen eta ondarearen eta familia-empresaren babesaren arloko berezitasunak	GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA		Izapidetzen	
Baimena ematen da "José Uruñuela" dantza-kontserbatorioa ikastetxe publikoetan integrazteko hitzarmen bat sinatzeko eta kontserbatorio publiko berria sortzeko Dekretu Proiektua sinatzeko.	HEZKUNTZA		Gobernu Kontseiluan onartutako Lege Proiektua 2022/07/26	10/2022 Legea, azaroaren 7koa
Kable bidezko garraioa	LURRALDE-PLANGINTZA,	04/2021 IRIZPENA	Gobernu Kontseiluan	12/2022 Legea,

	ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA		onartutako Lege Proiektua 2022/02/08	abenduaren 15ekoa
--	--------------------------	--	--	-------------------

Iturria: LEHENDAKARITZA Urteko Araubide Plana 2022. Geuk egina.


Eusko Jaurlaritzak urtero onesten du **Urteko Araubide Plana**. Bertan jasotzen dira lege-proiektuak eta dekretu-maila duten xedapen orokorrak, hain zuzen ere, Gobernuaren Planaren barne daudenak, eta Sail bakoitzak urtean onestea aurreikusten dituenak.

2022rako aurreikusitako planean 142 dekretu-proiektu zeuden. Horietatik 28 onetsi ziren (VI.3. koadroa).

VI.3. KOADROA. EUSKO JAURLARITZAREN 2022KO URTEKO ARAUBIDE-PLANA (DEKRETUAK). BETETZE-MAILA 22/12/31N				
	PROIEKTU-KOP.	ONARTUAK	IZAPIDETZEN	HASI GABE
LEHENDAKARITZA	4	2	1	1
SEGURTASUNA ETA 1. LEHENDAKARIORDETZA	7	4	3	
ENPLEGUA ETA LANA ETA 2. LEHENDAKARIORDETZA	9	2	7	
GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA	9	2	6	1
EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA	29	4	23	2
EKONOMIA ETA OGASUNA	6	2	4	
HEZKUNTZA	26	3	19	4
LURRALDE-POLITIKA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOA	4	1	3	
OSASUNA	16	3	6	7
BERDINTASUNA, JUSTIZIA ETA GIZARTE-POLITIKAK	18	3	8	7
KULTURA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA	8	1	6	1
TURISMOA, MERKATARITZA ETA KONTSUMOA	6	1	5	
GUZTIRA	142	28	91	23

Iturria: LEHENDAKARITZA Egikaritze-balantzea. Gobernu-programa. 2022ko ekitaldia


Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiei dagokienez, hona hemen 2022an izan duten araugintza-jarduera, onetsitako Foru Arauak oinarri hartuta neurtu dena: Araban 24 foru-arau onartu dira; Bizkaian, 10; eta, Gipuzkoan, 6.



Azkenik, **Euskadiko EGABek**, erakunde aholku-emailea den aldetik, hamazazpi irizpen eman ditu 2022an:

- [1/2022 Irizpena](#), urtarrilaren 14koa, EAEn aseguru eta berraseguru pribatuak banatzeko jarduera antolatzeari eta berrikusteari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [2/2022 Irizpena](#), urtarrilaren 25ekoa, bidaia-agentziei buruzko Dekretua bigarren aldiz aldatzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [3/2022 Irizpena](#), otsailaren 15ekoa, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoari buruzkoa
- [4/2022 Irizpena](#), otsailaren 25ekoa, etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [5/2022 Irizpena](#), martxoaren 21ekoa, 14 urtetik beherako seme-alabak zaintzeko langileak kontratatze laguntzei buruzko Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [6/2022 Irizpena](#), apirilaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko higiezinaren kredituko bitartekarien eta higiezinaren mailegu-emaileen baimena eta erregistroa eta haiek gainbegiratzeko eta zehatzeko eginkizunak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.
- [7/2022 Irizpena](#), ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan elikagaien hurbileko salmenta arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [8/2022 Irizpena](#), ekainaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoko txerri-azienda estentsiboko ustategiak antolatzeko oinarritzko arauak garatzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [9/2022 Irizpena](#), ekainaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 7-15 urte bitarteko biztanleen aho-hortzetako osasunaren arloko osasun-prestazioari buruzko Dekretu Proiektuari dagokiona
- [10/2022 Irizpena](#), uztailaren 12koa, EAEn jasangarritasunerako hezkuntza sustatzeko Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [11/2022 Irizpena](#), uztailaren 27koa, Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Legearen Aurreproiektuari buruzkoa
- [12/2022 Irizpena](#), irailaren 30ekoa, Haur eta Nerabeen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa
- [13/2022 Irizpena](#), urriaren 18koa, EAeko Hirugarren Sektore Sozialeko Erakundeen Errolda sortzen duen eta haren funtzionamendua arautzen duen Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [14/2022 Irizpena](#), urriaren 26koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Zerbitzuko itun sozialaren araubidea eta hitzarmenak arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa
- [15/2022 Irizpena](#), urriaren 26koa, Enpleguko Euskal Legearen Aurreproiektuari buruzkoa
- [16/2022 Irizpena](#), azaroaren 8koa, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko eta salbamenduko zerbitzuen Lege Aurreproiektuari buruzkoa
- [17/2022 Irizpena](#), abenduaren 12koa, Ingurumeneko Aholku Batzordearen osaera, kideak izendatzeko prozedura, antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa

DEFINIZIOEN ETA KATEGORIZAZIOEN GLOSARIOA



EKOIZPEN SEKTOREAK

- **ESJNren egitura**

Lau mailatan dago egituratuta (atalak, multzoak, taldeak eta klaseak):

	ESJN 93	ESJN 99
Atalak (kode alfabetikoa)	17 atal	21 atal
Multzoak (bi digitudun zenbakizko kodea)	60 multzo	88 multzo
Taldeak (hiru digitudun zenbakizko kodea)	222 talde	272 talde
Klaseak (lau digitudun zenbakizko kodea)	512 klase	629 klase

Ondoren, ESJN 2009 azalduko da multzoen arabeko kategorizazioraino:

A	Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza
01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin lotutako zerbitzuak
02	Basogintza eta basoen ustiapena
03	Arrantza eta akuikultura
B	Erauzketa-industriak
05	Antrazitaren, harrikaitzaren eta lignitoaren erauzketa
06	Petrolioaren eta gas naturalaren erauzketa
07	Mineral metalikoen erauzketa
08	Beste erauzketa-industria batzuk
09	Erauzketa-industrietan laguntzeko jarduerak
C	Manufaktura-industria
10	Elikagaien industria
11	Edarien fabrikazioa
12	Tabakoaren industria
13	Ehungintza
14	Jantzien ebaketa
15	Larrugintza eta zapatagintza
16	Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak, saskigintza eta espartzugintza salbu
17	Papergintza
18	Arte grafikoak eta grabaturiko euskarrien erreprodukzioa
19	Kokea lortzeko eta petrolio fintzeko fabrikak
20	Industria kimikoa
21	Produktu farmazeutikoen fabrikazioa
22	Kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa
23	Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa
24	Metalurgia; burdingintza, altzairugintza eta burdinaren aleazioen fabrikazioa
25	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa izan ezik
26	Produktu informatikoen, elektronikoen eta optikoen fabrikazioa
27	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa
28	BESG makineriaren eta ekipamenduaren fabrik.
29	Motordun ibilgailu, atoi eta erdiatuen fabrikazioa
30	Beste garraio-material baten fabrikazioa
31	Altzarien fabrikazioa
32	Beste manufaktura-industria batzuk
33	Makineriaren eta ekipoen konponketa eta instalazioa
D	Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura:
35	Argindarraren, gasaren, lurrunaren eta aire egokituaren hornidura
E	Ur hornidura, saneamendu-jarduerak, hondakinen kudeaketa eta kutsadura garbitzea
36	Uraren bilketa, arazketa eta banaketa
37	Hondakin-ura biltzea eta tratatzea
38	Hondakinak biltzea, tratatzea eta desagerraraztea; balioestea
39	Kutsadura kentzeko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk
F	Eraikuntza
41	Eraikinen eraikuntza
42	Ingeniaritza zibila
43	Eraikuntza espezializatuko jarduerak
G	Handizkako merkataritza, txikizkako, ibilgailu motordunen eta motorren konponketa
45	Motordun ibilgailuen eta bizikleten salmenta eta konponketa
46	Handizkako merkataritza eta merkataritza bitartekariak, motordun ibilgailuena eta motozikletena izan ezik
47	Txikizkako merkataritza, motordun ibilgailuak eta motozikletak izan ezik

H	Garraioa eta biltegitzea
49	Lurreko eta hodiedetako garraioa
50	Itsasoko eta barruko bide nabigagarrietako garraioa
51	Aireko garraioa
52	Biltegitzea eta garraioari lotutako jarduerak
53	Posta jarduerak
I	Ostalaritza
55	Ostatu zerbitzuak
56	Janari eta edari zerbitzuak
J	Informazioa eta komunikazioak
58	Edizioa
59	Zinema, bide eta telebista saioretako jarduerak, soinu grabazioa eta edizio musikala
60	Programazio eta irrati eta telebistako emisioko jarduerak
61	Telekomunikazioak
62	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin lotutako beste jarduerak batzuk
63	Informazio zerbitzuak
K	Finantza- eta aseguru-jarduerak
64	Finantza-zerbitzuak, aseguruak eta pentsio-funtsak izan ezik
65	Aseguruak eta pentsio-funtsak, nahitaezko Gizarte Segurantza izan ezik
66	Finantza-zerbitzuetan eta aseguruen jarduerak osagarriak
L	Higiezin arloko jarduerak
68	Higiezin arloko jarduerak
M	Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak
69	Lege eta kontabilitate jarduerak
70	Egoitza nagusien jarduerak; enpresak kudeatzeko aholkularitza jarduerak
71	Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak; entsegu eta analisi teknikoak
72	Ikerketa eta garapena
73	Publizitatea eta merkatu azterketak
74	Beste jarduerak profesional, zientifiko eta tekniko batzuk
75	Albaitaritza jarduerak
N	Administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarriak
77	Alokairu jarduerak
78	Enpleguarekin lotutako jarduerak
79	Bidaia-agentzien, operadore turistikoek, erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin lotutako jarduerak
80	Segurtasun eta ikerketa jarduerak
81	Eraikinetarako zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak
82	Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak
O	Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza
84	Administrazio publikoa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantza
P	Hezkuntza
85	Hezkuntza
Q	Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak
86	Osasun jarduerak
87	Laguntza egoitza establezimenduetan
88	Gizarte zerbitzuen jarduerak ostaturik gabe
R	Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak
90	Sorkuntza, arte eta ikuskizunetako jarduerak
91	Liburutegi, artxibo, museo eta bestelako kultur jarduerak batzuk
92	Ausazko jokoen eta apustuen jarduerak
93	Kirol, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak
S	Beste zerbitzu batzuk
94	Elkartegintzako jarduerak
95	Ordenagailuen konponketa, norberaren gauzak eta etxean erabiltzeko produktuak
96	Beste zerbitzu pertsonal batzuk
T	Familien jarduerak etxeko pertsonalaren enplegatzaile gisa; familien jarduerak norberaren erabilerarako ondasunen etazerbitzuen ekoizle gisa
97	Familien jarduerak etxeko pertsonalaren enplegatzaile gisa
98	Lurralde kanpoko erakundeen jarduerak
99	Lurralde kanpoko erakundeen jarduerak

- **EUSTAT**

Bere sailkapena du, baina EJSNrekiko korrespondentziak ezartzen ditu:

A3

Kodea	Izenburua	JESN-2009 Mailak
1	Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	A
2	Erauzteko industriak; manufaktura industria; energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren homidura; ur homidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa; eraikuntza	B, C, D, E eta F
3	Zerbitzuak	G, H, I, J, K, L, M, N, O, P, Q, R, S, T eta U

A4

Kodea	Izenburua	JESN-2009 Mailak
1	Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	A
2	Erauzteko industriak; manufaktura industria; energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren homidura; ur homidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	B, C, D eta E
3	Erauzteko industriak; manufaktura industria; energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren homidura; ur homidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa; eraikuntza	F
4	Zerbitzuak	G, H, I, J, K, L, M, N, O, P, Q, R, S, T eta U

A10

Kodeak	Izenburua	JESN-2009 Mailak
01	Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	A
02	Erauzteko industriak; manufaktura industria; energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren homidura; ur homidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	B, C, D eta E
03	Eraikuntza	F
04	Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa; garraioa eta biltegiatzea; ostalaritza	G, H eta I
05	Informazioa eta komunikazioak	J
06	Finantza jarduerak eta aseguruetoakoak	K
07	Jarduerak higiezinekin	L
08	Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak; administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	M eta N
09	Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzaz; hezkuntza; osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	O, P eta Q
10	Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak eta beste zerbitzu batzuk	R, S, T eta U

A21

Kodea	Izenburua	Atala	Maila
A	Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	A	01-03
B	Erauzteko industriak	B	05-09
C	Manufaktura industria	C	10-33
D	Energia elektrikoaren, gasaren, lurinaren eta aire girotuaren homidura	D	35
E	Ur homidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	E	36-39
F	Eraikuntza	F	41-43
G	Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa	G	45-47
H	Garraioa eta biltegiatzea	H	49-53
I	Ostalaritza	I	55-56
J	Informazioa eta komunikazioak	J	58-63
K	Finantza jarduerak eta aseguruetoakoak	K	64-66
L	Jarduerak higiezinekin	L	68
M	Jarduera profesionalak, zientifikoak eta teknikoak	M	69-75
N	Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	N	77-82
O	Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzaz	O	84
P	Hezkuntza	P	85
Q	Osasun eta gizarte zerbitzuetako jarduerak	Q	86-88
R	Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	R	90-93
S	Beste zerbitzu batzuk	S	94-96
T	Etxeetako jarduerak etxeko lanak egiteko langileei lana emateko moduan; etxeetako jarduerak ondasunen ekoizle moduan eta erabilera propiorako zerbitzuak	T	97-98
U	Lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak	U	99

A38

Kodea	Izenburua	Maila
AA	Nekazaritza, abeltzaintza, basozaintza eta arrantza	01-03
BB	Erauzteko industriak	05-09
CA	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	10-12
CB	Ehunen industria, janzkiak egitea, larruaren eta oinetakoen industria	13-15
CC	Egurraren, paperaren eta arte grafikoen industria	16-18
CD	Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	19
CE	Industria kimikoa	20
CF	Botiken fabrikazioa	21
CG	Kaubu produktuen, plastikoen eta metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	22-23
CH	Oinarizko metalen eta produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoak salbu	24-25
CI	Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	26
CJ	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa	27
CK	Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoaren fabrikazioa	28
CL	Garraio materialaren fabrikazioa	29-30
CM	Altzarien fabrikazioa; manufaktura beste industria batzuk; makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa	31-33
DD	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	35
EE	Ur hornidura, saneamendu jarduerak, hondakinen kudeaketa eta deskontaminazioa	36-39
FF	Eraikuntza	41-43
GG	Handizkako eta txikizkako merkataritza; ibilgailu motordunen eta motozikleten konponketa	45-47
HH	Garraioa eta biltegiak	49-53
II	Ostalaritza	55-56
JA	Argitaratzeko, ikus-entzunezko ekintzak eta irrati eta telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak	58-60
JB	Telekomunikazioak	61
JC	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin uztarturiko beste jarduerak batzuk; informazio zerbitzuak	62-63
KK	Finantza jarduerak eta aseguru-entzakoak	64-66
LL	Jarduerak higiezinekin	68
MA	Jarduerak juridikoak eta kontabilitatekoak; egoitza nagusien jarduerak; enpresa kudeaketako aholkularitza jarduerak; arkitekturen eta ingeniariaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak	69-71
MB	Ikerketa eta garapena	72
MC	Publizitatea eta merkatu azterlanak; beste jarduerak profesional, zientifiko eta tekniko batzuk; albaritza jarduerak	73-75
NN	Administrazio jarduerak eta zerbitzu lagungarriak	77-82
OO	Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurtasuna.	84
PP	Hezkuntza	85
QA	Osasun jarduerak	86
QB	Gizarte zerbitzuak	87-88
RR	Arte, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	90-93
SS	Beste zerbitzu batzuk	94-96
TT	Etxeetako jarduerak etxeko lanak egiteko langileei lana emateko moduan; etxeetako jarduerak ondasunen ekoizle moduan eta erabilera propioarako zerbitzuak	97-98
UU	Lurraldetik kanpoko erakundearen jarduerak	99

A64

Kodea	Izenburua	Maila
01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak	01
02	Basogintza eta baso ustiaketa	02
03	Arrantza eta akuikultura	03
04	Erauzteko industriak	05-09
05	Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	10-12
06	Ehunen industria, janzkiak egitea, larruaren eta oinetakoen industria	13-15
07	Egurraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik; otargintza eta espartzugintza	16
08	Paperaren industria	17
09	Arte grafikoak eta grabatutako euskarrien erreproduzioa	18
10	Kokea lortzeko eta petrolioaren fintzeko fabrikak	19
11	Industria kimikoa	20
12	Botiken fabrikazioa	21
13	Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa	22
14	Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa	23
15	Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa	24
16	Produktu metalikoen fabrikazioa, makineria eta ekipoa salbu	25
17	Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	26
18	Material eta ekipu elektrikoaren fabrikazioa	27
19	Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	28
20	Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatoien fabrikazioa	29
21	Beste garraio material baten fabrikazioa	30
22	Altzarien fabrikazioa; manufaktura beste industria batzuk	31-32
23	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa	33
24	Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	35
25	Ura hartu, araztu eta banatzea	36
26	Hondakin urak hartu eta tratatzea; hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatu; balorizazioa; deskontaminazioa jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk	37-39
27	Eraikuntza	41-43
28	Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	45
29	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen eta motozikletena salbu	46
30	Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak salbu	47
31	Lurreko eta hodi-sare bidezko garraioa	49
32	Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	50
33	Aireko garraioa	51
34	Biltegiatzea eta garraioarekin uztartutako jarduerak	52
35	Posta zerbitzuak	53
36	Ostalaritza	55-56
37	Argitalpena	58
38	Zinemako, bideoa eta telebista saioetako jarduerak, soinu grabazioak eta musika edizioak; irrati eta telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak	59-60
39	Telekomunikazioak	61
40	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin uztarturiko beste jarduerak batzuk; informazio zerbitzuak	62-63
41	Finantza zerbitzuak, aseguruak eta pentsio fondoak salbu	64
42	Aseguruak, berraseguruak eta pentsio fondoak, derrigorrezko Gizarte Segurantzaren salbu	65
43	Finantza zerbitzuen eta aseguruaren jarduerak lagungarriak	66
44	Jarduerak higiezinekin	68
45	Jarduera juridikoak eta kontabilitateari lotutakoak	69-70
46	Arkitektura eta ingeniarietako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak	71
47	Ikerketa eta garapena	72
48	Publizitatea eta merkatu azterlanak	73
49	Beste jarduera profesional, zientifiko eta tekniko batzuk; albaitaritzako jarduerak	74-75
50	Alokairu jarduerak	77
51	Enpleguarekin uztartutako jarduerak	78
52	Bidaia-agentzien, bidaia-agentzia handizkarien eta erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin guztiekin uztartutako jarduerak	79
53	Segurtasun eta ikerketa jarduerak; zerbitzuak eraikinetako eta lorezaintzako jarduerak; bulegoko administrazio jarduerak eta enpresentzako lagungarri diren beste jarduerak batzuk	80-82
54	Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzaren	84
55	Hezkuntza	85
56	Osasun jarduerak	86
57	Gizarte zerbitzuen jarduerak	87-88
58	Sormen, arte eta ikuskizun jarduerak; liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduerak batzuk; zori jokoaren eta apustuaren jarduerak	90-92
59	Kirol, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	93
60	Elkartegintzako jarduerak	94
61	Ordenagailuen, norberaren beste gauza batzuen eta etxean erabiltzeko artikuluen konponketa	95
62	Beste zerbitzu pertsonal batzuk	96
63	Etxeetako jarduerak etxeko lanak egiteko langileei lana emateko moduan; etxeetako jarduerak ondasunen ekoizle moduan eta erabileraren propiorako zerbitzuak	97-98
64	Lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak	99

A86

Kodea	Izenburua	Maila/ Taldea
01	Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta horiekin zerikusia duten zerbitzuak	01
02	Basogintza eta baso ustiaketa	02
03	Arrantza eta akuikultura	03
04	Erabuzteko industriak	05-09
05	Haragiaren tratamendua eta mantentzea eta haragi produktuak egitea	101
06	Arrainak, krustazeoak eta moluskuak tratatzea eta mantentzea	102
07	Esne produktuen fabrikazioa	105
08	Errotako eta okindegiko produktuen eta elikatzeke pasten fabrikazioa	106-107
09	Beste elikadura-industriak	103-104, 108 eta 109
10	Edariak fabrikazioa	11
11	Tabakoaren industria	12
12	Ehunen industria, janziak egitea, larruaren eta oinetakoaren industria	13-15
13	Eguraren eta artelazkiaren industria, altzariak izan ezik; otargintza eta espartuzigintza	16
14	Paperaren industria	17
15	Arte grafikoa eta grabatutako euskarrien erreproduzioa	18
16	Kokea lortzeko eta petrolio finitza fabrikak	19
17	Oinarriko produktu kimikoen eta pestiziden eta beste produktu agrokimiko batzuen fabrikazioa	201-202
18	Margo, garbiketarako artikulak, lurrinen eta kosmetikoen eta beste produktu kimiko batzuen fabrikazioa	203-206
19	Botiken fabrikazioa	21
20	Kautxu produktuen fabrikazioa	221
21	Kautxu produktuen eta plastikoen fabrikazioa	222
22	Beiraren eta beira produktuen fabrikazioa	231
23	Zementuaren, karearen eta igeltsuaren fabrikazioa	235
24	Beste mineral-produktu ez-metalezkoen fabrikazioa	232-234, 236-237 eta 239
25	Siderurgia	241-243
26	Metal preziatuen eta burdinazkoak ez diren beste metal batzuen ekoizpena	244
27	Metalen galdaketa	245
28	Metalezko gaien fabrikazioa, eraikuntza, tanga, metal-biltegi handi eta lurrun-sorgailuetarako	251-253
29	Metalen forjaketa, estanzazioa eta enbutzioa; hautsen metalurgia	255
30	Metalen tratamendua eta estaldura; ingeniaritza mekanikoa hirugarren batzuen kontura	256
31	Arma eta munizio, burindegiko artikulak eta beste produktu metalikoen fabrikazioa	254, 257 eta 259
32	Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	26
33	Material eta ekipo elektrikoaren fabrikazioa (etxetresnarik ez)	271-274 eta 279
34	Etxeko tresnen fabrikazioa	275
35	Erabilera orokorreko makineriaren, nekazaritzarako eta basogintzarako makineriaren eta erabilera zehatzetarako beste makina batzuen fabrikazioa	281-283 eta 289
36	Metala lantzeko makina-erremintaren eta beste makina-erreminta batzuen fabrikazioa	284
37	Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatzen fabrikazioa	29
38	Ontzigintza	301
39	Beste garraio materialaren fabrikazioa (itsasontzigintza ez)	302-304 eta 309
40	Altzarien fabrikazioa	31
41	Manufaktura beste industria batzuk	32
42	Makineria eta ekipoen konponketa eta instalazioa	33
43	Energia elektrikoaren ekoizpena, garraioa eta banaketa	351
44	Gas, lurrun eta aire egokituaren hornidura	352-353
45	Ura hartu, araztu eta banatzea	36
46	Hondakin urak hartu eta tratatzea; hondakinak bildu, tratatu eta deuseztatu; balorizazioa; deskontaminazio jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk	37-39
47	Eraikuntza	41-43
48	Ibilgailu motordunen eta motozikleten salmenta eta konponketa	45
49	Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen eta motozikletena salbu	46
50	Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak salbu	47
51	Trenbide garraioa	491-492
52	Bidaariak garraiatzeko lurreko beste garraio batzuk	493
53	Salgaien beste lur-garraio bat	494 eta 495
54	Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	50
55	Aireko garraioa	51
56	Biltegiatzea eta garraioarekin uztartutako jarduerak	52
57	Posta zerbitzuak	53
58	Ostalariak	55-56
59	Argitalpena	58
60	Zinemako, bideoa eta telebista saioetako jarduerak, soinu grabazioak eta musika edizioak; irrati eta telebistako saioak programatu eta eskaintzeko jarduerak	59-60
61	Telekomunikazioak	61
62	Programazioa, aholkularitza eta informatikarekin uztarturiko beste jarduerak; informazio zerbitzuak	62-63
63	Finantza zerbitzuak, aseguruak eta pensio fondoak salbu	64
64	Aseguruak, berraseguruak eta pensio fondoak, derrigorrezko Gizarte Segurantzak salbu	65
65	Finantza zerbitzuen eta aseguruaren jarduerak lagungarriak	66
66	Jarduerak higiezinekin	68
67	Jarduerak juridikoak eta kontabilitateari lotutakoak; egoitza nagusien jarduerak; enpresa kudeaketako aholkularitza jarduerak	69-70
68	Arkitektura eta ingeniaritzako zerbitzu teknikoak; saiakerak eta azterketa teknikoak	71
69	Ikerketa eta garapena	72
70	Publizitatea eta merkatu azterlanak	73
71	Beste jarduerak profesional, zientifiko eta tekniko batzuk; albaitaritzako jarduerak	74-75
72	Alokairu jarduerak	77
73	Enpleguarekin uztartutako jarduerak	78
74	Bidaia-agentzien, bidaia-agentzia handizkarien eta erreserba zerbitzuen jarduerak eta horiekin guztiekin uztartutako jarduerak	79
75	Segurtasun eta ikerketa jarduerak; zerbitzuak eraikinetako eta lorezaintzako jarduerak; bulegoko administrazio jarduerak eta enpresentzako lagungarri diren beste jarduerak batzuk	80-82
76	Herri administrazioa eta defentsa; derrigorrezko gizarte segurantzak	84
77	Hezkuntza	85
78	Osasun jarduerak	86
79	Gizarte zerbitzuen jarduerak	87-88
80	Sormen, arte eta ikuskizun jarduerak; liburutegi, agiritegi eta museoko jarduerak eta beste kultur jarduerak batzuk; zori jokoak eta apustuen jarduerak	90-92
81	Kirol, aisialdi eta entretenitzeko jarduerak	93
82	Elkartegintzako jarduerak	94
83	Ordenagailuen, norberaren beste gauza batzuen eta etxean erabiltzeko artikuluen konponketa	95
84	Beste zerbitzu pertsonal batzuk	96
85	Etxeetako jarduerak etxeko lanak egiteko langileei lana emateko moduan; etxeetako jarduerak ondasunen ekoizle moduan eta erabilera propiorako zerbitzuak	97-98
86	Lurraldetik kanpoko erakundeen jarduerak	99

ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA

- Enpresa berritzailea izango da inkestan kontuan hartutako tartean berrikuntzaren bat sartu duen enpresa.
- Berrikuntzat hartuko da produktu (edo zerbitzu) berria nahiz zeharo hobetua, prozesu berria, komertzializazio- metodo berria edo antolakuntza-metodo berria sartzea enpresaren barne-praktiketan, lantokiaren antolakuntzan edo kanpoko harremanetan. Berrikuntza guztien ezaugarri komuna zera izango da, aldaketa horiek dagoeneko sartuta egon beharko direla enpresaren lanean, hau da, merkatura atera direnak. Prozesu, komertzializazio-metodo edo antolakuntza-metodo bat sartuta dagoela esan daiteke modu eraginkorrean sartzen denean enpresaren eginkizunetan.

Definizio hori kontuan hartuta, bi berrikuntza mota bereiz daitezke: berrikuntza teknologikoak eta berrikuntza ez teknologikoak. Berrikuntza teknologikoa produktu bat (ondasun bat edo zerbitzu bat, berria edo nabarmenki hobetua denean eta merkaturan sartuta dagoenean) edo prozesu bat (establezimenduan bertan prozesu berria edo nabarmenki hobetua ezartzea) izan daiteke, eta berrikuntza ez teknologikoak antolakuntzaren edo komertzializatzeko moduaren berrikuntzek osatzen dituzte.

- Jarduera berritzaileak dituen enpresa inkestan aztertutako urteetan berrikuntza-jarduerak garatu dituen enpresa da, abian diren berrikuntzak eta bertan behera utzitako berrikuntzak dituzten enpresak barne.

LAN MERKATUA

BJA-RI (EUSTAT), BAI-RI (EIN) ETA LFS-RI (EUROSTAT) BURUZKO DEFINIZIOAK

- L.N.B. Biztanleria aktiboa. Lanaren Nazioarteko Bulegoaren arabera (LNB), ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko lan egiten duten pertsona guztiak dira, eta une horretan lanik ez dutenak, lan bila dabilzanak eta lanean hasteko moduan daudenak. Biztanleria Landunak (LNB) eta Biztanleria Langabeak (LNB) osatzen duten multzoa da.
- L.N.B. Biztanleria ez-aktiboa: LNBren arabera, Biztanleria Aktiboa ez den biztanleria da. Talde hauetan sailkatzen dira: etxeko lanak egiten dituztenak, ikasten ari direnak, erretiroan daudenak, pentsiodunak, errentistak eta ezinduek.
- L.N.B. Biztanleria landuna. LNBren arabera, ordaindutako lana duten edo aparteko jarduera egin eta lanean ari diren pertsona guztiak dira, edo beren lanarekin lotura formala dutenak, edo oporrengatik, gaixotasunagatik, lan-gatazkagatik, gorabehera teknikoengatik, etab. lanetik kanpora izandakoak.
- L.N.B. Langabezian dagoen biztanleria. LNBren arabera, soldatapeko lanik edo aparteko lanik ez duten pertsonak dira, egun lan bila ari direnak eta lanerako moduan daudenak.
- 2002. urteaz geroztik, langabe daude, aurreko baldintzak betetzeaz gain, aurreko lau asteetan lana bilatzeko aipaturiko erregelamendu horretan aktibotzat jotako pertsonen kudeaketaren bat egin dutenak. Ez da bilaketa aktibotzat jotzen lan eskaera berritzeko izapidea edo prestakuntza ikastaroak direla-eta enplegu bulego publikoarekin kontaktatzea.
- Jarduera-tasa. Talde jakin baten jarduera-tasa da biztanleria aktiboan eta talde horren barruan dauden pertsonen proportzioa.

- B.J.A.n, 16 urte (urteak beteta) eta gehiagokoen gainean kalkulatzeko dira.

$$\text{Jarduera-tasa} = \frac{\sum \text{aktiboak}}{16 \text{ urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

- L.N.B. Okupazio-tasa. Landun pertsonen adin horietako biztanleria osoarekiko proportzioa da okupazio-tasa.

Lehenik eta behin, 16-64 urteko (adina beteta) biztanleen gainean kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen ditu web guneak bere tauletan, halako moldez non bateragarria baita Eurostatek darabilen definizioarekin.

$$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{16 - 64 \text{ urtekoak}} \times 100$$

Bigarrenik, 16 urtetik gorako (adina beteta) biztanleriarekiko kalkulaturiko okupazio-tasa eskaintzen du Datu-bankuak:

$$\text{Okupazio-tasa} = \frac{\sum \text{landunak}}{16 \text{ urte eta gehiagokoak}} \times 100$$

Alabaina, Europa 2020 helburuan, 20-64 urteko adin-tartea ezarri da.

- Langabezia-tasa. Langabezian dauden talde horretako pertsona aktiboen proportzioari deritza talde batekolangabezia-tasa

B.J.A.n, 16 urte eta gehiagokoen (adina beteta) biztanleekiko kalkulatzeko dira.

$$\text{Langabezia-tasa} = \frac{\sum \text{langabeak}}{\text{aktiboak}} \times 100$$

LAN-KOSTUEI BURUZKO HIRUHILEKO INKESTA (EIN):

a) LAN EGINDAKO ETA LAN EGIN GABEKO DENBORA

1. Lan egindako orduak

- Benetako orduak: egiaz lan egindako orduak dira, laneko ohiko aldietan nahiz aparteko lanaldian, lantokiak galdutako orduak barne; egiazko denbora da indarreko araudia dela bide. Itundutako orduen eta aparteko orduen edota ordu osagarrien batura da, ken lan egin gabeko orduak; ordu horietatik kanpo gelditzen dira lantokian galdutako orduak, benetako lantzat jotzen baitira. Laburbilduz, lan egindako orduak dira (ohiko lanaldian edo apartekoan) ken lan egin gabeko orduak.
- Lanaldi itundua: langilearen eta enpresaren artean ahozko akordioaren, banako kontratuaren edo hitzarmen kolektiboaren bidez lege ezarritako orduak dira.
- Aparteko orduak: itundutako lanalditik gorako orduak dira, nahitaez egin beharrekoak (aparteko ordu estrukturalak) edo borondatezkoak (estrukturalak ez diren aparteko orduak).
- Ordu osagarriak: lanaldi partzialeko kontratuan itundutako orduak dira ohiko orduen osagarri gisa. Ohiko ordu gisa ordaintzen eta kotizatzen dira.

2. Lan egin gabeko orduak

2.1. Lan egin gabeko orduak eta ordainduak. Arrazoi hauengatik lan egin gabeko orduak sartzen dira:

- Oporraldiak eta hilean izandako jaiegunak.
- Aldi baterako ezintasun bajako egunak.
- Amatasun, adopzio eta norberaren arrazoiengatik baimen egunak.
- Aparteko orduengatik konpentsazioan emandako atsedenaldiak.
- Ordezkaritza sindikaleko orduak, ezinbesteko betebeharra betetzekoak eta azterketetara eta medikuaren bisitetara joatea, besteak beste.
- Arrazoi teknikoak, antolakuntzakoak edo ekoizpenekoak direla-eta lan egin gabeko orduak edo egunak dira: langileak zerbitzua emateari edo ondasunak ekoizteari aldi batez uztea (etenaldi egunak) edo lanaldi murrizketak (murrizpen orduak), enpresen krisialdiak gainditzeko xedearekin.
- Lantokian galdutako orduak: ez langileari ez enpresaburuari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik lan egin gabeko orduak dira hala nola lanera lantzean behin ez azaltzea, makinak haustea, lehengairik eza, ezbehar atmosferikoak, mugimendu-indarra edo bestelako ezinbesteko kausak. Lan egin gabeko ordu horiek berreskuratzea ahalbidetzen du legeak, egunean ordu bat lan eginda, baina aurretik jakinarazpena egin bada eta kontrako akordiorik ez badago. Berreskuratu ez diren orduak baizik ez dira biltzen osagai honetan eta, beraz, benetan lan egin gabeko ordutzat har daitezke.

2.2. Lan egin gabeko eta ordaindu gabeko orduak. Hauexek sartzen dira

- - Lan-gatazka: Grebengatik galdutako guztizko ordu kopurua da, greben toki, sektore edo enpresa eremukoak diren edo greba osoak edo partzialak diren aintzat hartu gabe. Ez da zenbatzen ondoren berreskuraturiko denbora.
- – Absentismoa; legezko zaintza; ugazaben itxiera....

Ugazaben itxieran, enpresaburuak lantokia ixten du talde-gatazkagatik, indarkeria edo kalte arriskuak daudenean, lantokia legez kanpo hartzen denean edo ekoizpenaren ohiko prozesua galarazten duten irregulartasunak direnean.

Legezko zaintza lanaldi murrizketa da berau eskatzen duten langileentzat, bere zaintzape zuzenean 6 urtetik beherako adingabea edo lanik egiten ez duen ezindu fisikoa edo psikikoa duelako.

b) LAN-KOSTUAK

Enplegatzaileak lan-faktorea erabiltzeagatik egiten duen kostuari deritzo lan-kostua. Bi ikuspegitik aztertzen da:

- **Lan-kostua lan unitateko:** langile eta hile bakoitzeko lan-kostua da. Langile bati hilabetearen enplegua emateak enpresarioari dakarkion kostua neurtzen du.
- **Lan-kostua denbora unitateko:** benetako lan egindako ordu bakoitzeko lan-kostua da. Benetako lan ordu batekin enpresarioari dakarkion kostua neurtzen du.

Kopuru garbietan neurtu behar da kostua enplegatzailearentzat, hots, jasotako diru-laguntzak kenduta, eta partida-multzo zabala dakar, inkestak bi bloke nagusitan biltzen duena: lan-kostua eta beste kostu batzuk.

1. LAN KOSTUA

Inoren konturako laneko zerbitzuen lanbide prestazioagatik langileei eskudirutan edo gauzatan eginiko diru-kopuru guztiak biltzen ditu, dela benetan lan egindako lana ordaintzekoak, ordaintzeko era edozein delarik ere, edo lan gisa zenbaturiko atsedenaldirakoak.

Hauexek biltzen dituzte **soldatako diru-kopuruak**: oinarrizko soldata, soldata osagarriak, aparteko orduen edota ordu osagarrien ziozko ordainketak, aparteko dohaintzak eta gauzatako soldata.

Aparteko orduen edota ordu osagarrien ziozko ordainketak: aparteko orduen ziozko ordainketei dagozkie, bai estrukturalak (nahitaezkoak), bai ez-estrukturalak (borondatezkoak), eta ordu osagarrien ziozko ordainketei dagozkie lanaldi partzialeko langileen kasuan.

Aparteko dohaintzak: hilabetetik gorako aldizkakotasuna duten ordainsariak dira: aparteko pagak, etekinetan, primetan eta helburuetan parte hartzearen ziozko ordainketak eta ezohiko bestelako edozein ordainketa.

Ordainketa atzeratuak: erreferentziako hilean ordaindu diren baina aurreko epealdian sortu diren ordainketa guztiak dira.

2. BESTE KOSTU BATZUK

Beste kostuek barne hartzen dituzte soldatakoak ez diren diru-kopuruak eta Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak.

Soldatakoak ez diren diru-kopuruak: langilek jasotako diru-kopuruak dira, ez bere lan jardueragatik, baizik lana betearazteak eragindako gastuak konpentsatzeko edo langileari ezin egotz dakizkiokeen betebeharrak edo egoerak estaltzeko.

Gizarte Segurantzarako nahitaezko kotizazioak: lege ezarritako ekarpenak dira, enplegatzaileak bere langileen alde Gizarte Segurantzaren Sistemari eginikoak, Sistemak ezarritako prestazioak estaltzeko, eta egoera hauen ondoriozkoak dira: gaixotasuna, amatasuna, laneko istripuak, baliaezintasuna, erretiroak, familia, bizirik irautea, langabezia, lanbide heziketa, soldata bermea edo Gizarte Segurantzaren Sistemak estalitako bestelako edozein kontingentzia.

KALERATZE MOTAK ETA ENPLEGUA ERREGULATZEKO ESPEDIENTEAK

KALERATZE MOTAK

1. **Diziplinazko kaleratzea:** Enpresariaren aldebakarreko erabakia da, langilearen arau-hauste larri eta errudunaren ondorioz lan-kontratua suntsitzera daramana. Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 54. Artikuluak arautzen du.
Honako hauek kontratuaren arau-haustetzat joko dira:
 - a) Behin eta berriz eta justifikatu gabe berandu joatea edo ez joatea lanera.
 - b) Diziplinarik eza edo desobedientzia lanean.
 - c) Enpresariari edo enpresan lan egiten duten pertsoneri egindako irainak, ahozkoak zein fisikoak, bai eta pertsona horiekin bizi diren familiarrekoei egindakoak ere.
 - d) Kontratuaren fede ona urratzea nahiz lana gauzatzean konfiantza gehiegikeriak egitea.
 - e) Lan errendimendu normala edo adostua modu jarraituan eta borondatez murriztea.
 - f) Ohiko mozkorkeria edo toxikomania, baldin eta lanean negatiboki eragiten badute.
 - g) Arraza edo etnia jatorria, erlijioa edo sinesmenak, desgaitasuna, adina edo orientazio sexuala dela eta egindako jazarpena eta jazarpen sexuala edo sexuagatikoa egitea enpresariari edo enpresan lan egiten duten pertsoneri.

2. **Kaleratze objektiboa:** (Kolektiboa edo banakakoa izan daiteke) enpresariaren aldebakarreko erabakia da, eta lan-kontratua suntsitzea dakar, enpresaren antolaketa edo funtzionamenduari eragiten dieten arrazoientzat (arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketa edo ekoizpenekoak). Urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 52 artikuluan arautzen da, eta horren bidez onesten da Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina. Kontratua honako arrazoi hauengatik suntsitu ahal izango da:
 - a) Langilearen trakestasunagatik, aurretiaz ezaguna edo enpresan eraginkorki kokatu ostean azaldutakoa izanda ere. Probaldi bat bete aurretik izandako trakestasuna ezin izango da alegatu hori bete ostean.

 - b) Langilea ez egokitzeagatik bere lanpostuan egindako aldaketa teknikoetara, baldin eta aldaketa horiek arrazoizkoak badira. Aurrez, enpresariak langileari ikastaro bat eskaini beharko dio, egindako aldaketetara egokitzea erraztuko duena. Prestakuntzari eskainitako denbora laneko denbora efektibotzat joko da beti, eta enpresariak ordura arteko batez besteko soldata ordainduko dio langileari. Enpresariak ezin izango du suntsitzea erabaki harik eta gutxienez bi hilabete igarotzen diren arte aldaketa txertatu zenetik edo egokitze prestakuntza amaitu zenetik.

 - c) 51.1 artikuluan aurreikusitako kasuren bat gertatzen denean eta suntsitzeak artikuluko horretan ezarritakoa baino pertsona kopuru txikiagoari eragiten dionean
Langileen ordezkariak lehentasuna izango dute enpresan gelditzeko atal honetan aipatzen den kasuan.

d) Lanera ez joateagatik, justifikatuta egon arren aldizka gertatzen denean eta bi hilabetez jarraian lansiaio baliiodunen ehuneko hogeira iristen denean. Hori guztia, baldin eta aurreko hamabi hilabeteetako asistentzia faltak, guztira, egun baliiodunen ehuneko bostera iristen badira, edo ehuneko hogeita bostera hamabi hilabeteke aldiaren baitako lau hilabete ez-jarraitian.

Ez dira asistentzia falta gisa zenbatuko, aurreko paragrafoko ondorioetarako, honako arrazoi hauen ondorioz gertatzen direnak: greba orokorra (greba horrek irauten duen bitartean); langileen legezko ordezkarien jarduerak gauzatzea; amatasuna, haurdunaldiko eta edoskitzeko arriskua; haurdunaldiak, erditzeak edo edoskitzeak eragindako gaixotasunak; aitatasuna; lizentziak eta oporrak; gaixotasuna edo lanekoa ez den istripua, baldin eta baja osasun zerbitzu ofizialek adostu badute eta hogei egun baino gehiagoko iraupena badu; genero biolentziatik eratorritako egoera fisiko edo psikologikoak eragindako kasuetan, baldin eta arretako gizarte zerbitzuek edo osasun zerbitzuek, kasuan kasu, egiaztatu badute.

Minbiziarengatik edo gaixotasun larri batengatik tratamendua hartzeagatik hutsegiteak ere ez dira zenbatuko.

e) Irabazi asmorik gabeko erakundeek plan eta programa publiko zehatzak egikaritzeko zuzenean hitzartutako kontratu mugagabeen kasuan, zuzkidura ekonomiko egonkorrik ez dutenean eta administrazio publikoek finantzatzen dituztenean urteko aurrekontuko edo aurrekontuz kanpoko kontsignazioen bidez, izaera finalistako kanpo-ordainketen ondorio gisa, lan-kontratua mantentzeko beharrezko kontsignazioa nahikoa ez izateagatik.

Suntsitzeak 51.1 artikuluan ezarritako langile kopuruari edo gehiagori eragiten badie, artikuluko horretan aurreikusitako prozedurari jarraitu beharko zaio.

2.- BANAKAKO KALERATZEA VS KOLEKTIBOA

Kaleratzea banakakoa izango da langile bakarrari eragiten badio edo ez bada iristen 51. artikuluko atalasetara. Kaleratze bat kolektibotzat jo daiteke soilik arrazoi ekonomikoak, teknikoak, antolaketakoak edo ekoizpenekoak baldin badaude tarteko, eta gutxieneko langile kopuru bati eragin behar dio.

Langileen Estatutuaren testu bategina onetsi zuen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 51. artikulua araberak, kaleratze kolektibotzat joko da arrazoi ekonomikoetan, teknikoetan, antolaketakoetan edo ekoizpenekoetan oinarritutako kontratu-suntsipena, lauogeita hamar eguneko tartean, honako hauei eragiten badie gutxienez:

- a) Hamar langile, ehun langile baino gutxiagoko enpresen kasuan.
- b) Langile kopuruaren ehuneko hamarra, ehun eta hirurehun langile artean dauzkaten enpresen kasuan.
- c) Hogeita hamar langile, hirurehun langile baino gehiagoko enpresen

kasuan Hau da, honako kasu hauetan jo behar da **kaleratze kolektibora**:

- Lan-kontratuen suntsitzeak, arrazoi ekonomikoengatik, teknikoengatik, antolaketakoengatik edo ekoizpenekoengatik, honako langile kopuru honi eragiten badio 90 eguneko tartean:
 - 10 langile, 100 langile baino gutxiagoko enpresen kasuan.
 - Langile kopuruaren % 10, 100 eta 300 langile artean dauzkaten enpresen kasuan.
 - 30 langile 300 langile baino gehiagoko enpresen kasuan.

Laneko kontratua suntsitzeak enpresako plantilla osoari eragiten dionean, baldin eta ukitutako langilekopurua bost baino handiagoa bada.

3.- ENPLEGUA ARAUTZEKO ESPEDIENTEAK

Urriaren 29ko 1483/2012 Errege Dekretuaren bidez arautzen da kaleratze kolektiboen eta kontratuak etetearen nahiz jardunaldia murriztearen prozeduren araudia.

Hiru kasu hartzen dira aintzat:

- a) Arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoengatik suntsitzea kontratuak
- b) Lan-kontratua etetea (“Langileen Estatutuaren 47. artikuluan aipatzen diren arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoengatik eten ahal izango da lan-kontratua, kapitulu horretan aurreikusitako prozeduraren arabera, baldin eta langileak egiten zuen jarduera eteteak egun osoei, jarraituei edo txandakakoei eragiten badie, gutxienez lansaio arrunt batean zehar”).
- c) Jardunaldia murriztea arrazoi ekonomiko, tekniko, antolamenduzko edo ekoizpenekoengatik (lansaiorearen ehuneko 10 eta 70 arteko aldi baterako murrizketa, eguneroko, asteroko, hileroko edo urteroko lansaiorearen oinarriaren gain kalkulatu).

HEZKUNTZA

- Hezkuntzaren Nazioarteko Sailkapen Normalizatuak (HNSN 2011) eta Hezkuntzaren Sailkapen Nazionalak (HSN 2014) honako kategorizazio hau ezarri dute:

HNSH 2011	HSN 2014
0. Lehen haurtzaroko hezkuntza edo lehen hezkuntzaren aurrekoa	0. Haur hezkuntza
1. Lehen hezkuntza	1. Lehen hezkuntza
2. Bigarren hezkuntza baxua	2. Bigarren hezkuntzako lehen etapa edo antzekoa
3. Bigarren hezkuntza altua	3. Bigarren hezkuntzako bigarren etapa eta antzekoa
4. DBH ondorengo hezkuntza ez tertziarioa	4. Goi-mailakoa ez den DBH ondorengo hezkuntza
5. Hezkuntza tertziarioa edo maila handiagokoa 5 Ziklo laburreko hezkuntza tertziarioa	5. LHko irakaskuntzak, arte plastikoak eta diseinua eta goi graduako kiroletakoak eta baliokideak; batxilergo titulua behar duten unibertsitateko titulu propioak, 2 urtekoak edo luzeagoak
6. Hezkuntza tertziarioko edo maila baliokideko gradu	6. Gehienez 240 ECTS kredituko unibertsitate graduak, unibertsitate diplomaturak, adituaren edo espezialistaren unibertsitate titulu propioak eta antzekoak
7. Maisutzaren maila, espezializazioa edo baliokidea	7. 240 ECTS kreditutik gorako unibertsitate graduak, lizentziaturak, Osasunaren Zientzietako masterrak eta espezialitateak egoitza sistemaren bidez eta antzekoak
8. Doktorego maila edo baliokidea	8. Doktorego irakaskuntzak
	9. Hezkuntza ez formala

- Unibertsitateko graduak jakintza-adarrei atxikitzea:

JAKINTZA-ADARRAK				
ARTEAK ETA HUMNITATEAK	ZIENTZIAK	OSASUNAREN ZIENTZIAK	INGENIARITZA ETA ARKITEKTURA	GIZARTE ETA LEGE ZIENTZ.
Arte Gradua	Biologia Gradua	Osasun Biologiako Gradua	Arkitektura Gradua	Antropologia Sozialeko eta Kulturako Gradua
Arte Eszenikoetako Gradua	Biokimika Gradua	Erizaintza Gradua	Diseinua Gradua	Jarduera Fisikoko Zientzietako Gradua
Arte Ederretako Gradua	Bioteknologia Gradua	Farmazia Gradua	Informatika Gradua	Kirolaren Zientzietako Gradua
Dantzaren Zientzietako Gradua	Elikagaien Zientziako eta Teknologiako Gradua	Fisioterapia Gradua	Ingeniaritza Aeronautikoko Gradua	Lanaren eta Giza Baliabideen Zientzietako Gradua
Antzinateko Zientzietako eta Hizkuntzetako Gradua	Ingurumen Zientzietako Gradua	Logopedia	Ingurumen Ingeniaritza Gradua	Lan Harremanetako eta Giza Baliabideetako Gradua
Diseinua Gradua	Zientzia Esperimentaleko Gradua	Medikuntza Gradua	Ingeniaritza Biomedikoko Gradua	Lan Harremanetako eta Enpleguko Gradua
Barnealdean Diseinuko Gradua	Fisika Gradua	Giza Elikadura Dietetikako Gradua	Ingeniaritza eta Konputagailuen Gradua	Merkataritza Gradua
Moda Diseinuko Gradua	Geologia Gradua	Odontologia Gradua		Garapen, Merkataritza Kudeaketa eta Merkaturako Estrategietako Gradua
Multimedia Diseinu eta Diseinu Grafikoko Gradua	Estatistika Aplikatuko Gradua	Optika eta Optometria Gradua	Eraikuntza Ingeniaritzako Gradua	Marketin Gradua
Espainiera Gradua: hizkuntza eta literatura	Matematika Gradua	Optika, Optometria eta Audiologia Gradua	Energiaren Ingeniaritza Gradua	Marketing eta Kudeaketa Komertzialeko Gradua
Asia eta Afrika Gradua: Arabiera, Txinera eta Japoniera	Matematika eta Estatistika Gradua	Podologia Gradua	Softwarearen Ingeniaritza Gradua	Kriminologia Gradua
Ikasketa Hispanikoetako Gradua:	Kimika Gradua	Psikologia Gradua	Ingeniaritza Elektrikoko Gradua	Zuzenbide Gradua

espainiera eta bere literaturak				
Ikasketa Ingelesetako Gradua: Hizkuntza, Literatura eta Kultura		Lan-terapiako Gradua	Komunikazioetako Ingeniaritza Elektronikoko Gradua	Ekonomia Gradua
Filologia Klasikoko Gradua		Albaitaritza Gradua		Estatistika eta Enpresa Gradua
Filosofia Gradua			Komunikazio Zibiletako Ingeniaritza Gradua	Haur Hezkuntzako Gradua
Geografia eta Historia Gradua			Diseinu Industrialeko eta Produktuaren Garapeneko Ingeniaritza Gradua	Lehen Hezkuntzako Gradua
Kultur Kudeaketako Gradua			Industrial eta Produktuaren Garapena	Gizarte Hezkuntzako Gradua
Historia Gradua			Elektronika, Industria eta Automatika Ingeniaritza Gradua	Pedagogia Gradua
Artearen Historiako Gradua			Materialen Ingeniaritza Gradua	Enpresen Administrazioiko eta Zuzendaritzako Gradua
Historiako eta Musikaren Zientzietako Gradua			Ikus-entzunekeo Sistemen Ingeniaritza Gradua	Enpresen Zuzendaritzako eta Sorkuntzako Gradua
Humanitate Gradua			Ikus-entzunekeo Sistemen Ingeniaritza eta Multimedia Gradua	Finantza Zuzendaritza eta Kontabilitateko Gradua
Hizkuntza eta Literatura Espainoleko Gradua			Komunikazio Sistemen Ingeniaritza Gradua	Finantza eta Kontabilitateko Gradua
Komunikazioan eta Marketinean Aplikaturiko Hizkuntzetako Gradua			Informazio Sistemetako Ingeniaritza Gradua	Merkataritza eta Finantza Kudeaketako Gradua
Hizkuntza Moderno eta Itzulpengintza Gradua			Soinu eta irudiaren Ingeniaritza Gradua	Geografia eta Lurraldearen Antolamenduko Gradua
Hizkuntza Modernoaren eta Bere Hizkuntzen Gradua			Teknologia Industrialeko Ingeniaritza Gradua	Hirigintza, Lurralde Antolamendu eta Iraunkortasuneko Gradua
Hizkuntza Moderno, Kultura eta Komunikazio Gradua			Telekomunikazio Teknologietako Ingeniaritza Gradua	Publizitate Komunikazioko Gradua
Paisajismo Gradua			Ingeniaritza Industrialeko Gradua	Ikus-entzunezko eta Multimedia Gradua
Itzulpengintza Gradua			Ingeniaritza Matematikako Gradua	Kazetaritza Gradua
Itzulpengintza eta Interpretazio Gradua			Ingeniaritza Mekanikoko Gradua	Publizitate Gradua
			Ingeniaritza Kimikoko Gradua	Publizitate eta Harreman Politiketako Gradua
			Telekomunikazio Sistemen Ingeniaritzako Gradua	Zientzia Politiketako Gradua
			Antolaketa Industrialeko Gradua	Zientzia Politikoko eta Administrazio Politikoko Gradua
				Zientzia Politikoko eta Merkataritza Kudeaketako Gradua
				Nazioarteko Harremanetako Gradua
				Soziologia Gradua
				Turismo eta Aisialdi Enpresen Nazioarteko Zuzendaritza Gradua
				Garraioaren eta Logistikaren Zientzietako Gradua
				Gizarte Laneko Gradua
				Informazio eta Dokumentazio Gradua

GIZARTE BABESA

- **Adinkeria**

Adinaren ziozko diskriminazioa, ingelesezko "ageism" terminoarekin ere ezaguna (aldi berean, Europako Batzordeak «edaísmo» itzuli du gaztelaniara) adinaren zioz pertsonen edo taldeen kontra eginiko estereotipifikazioa eta diskriminazioa da. Pertsonak adinaren arabera diskriminatzen dituzten zenbait sinesmen, arau eta balio biltzen ditu adinkeriak.

- **Gizarte Babesaren Kontua¹.**

SEEPROS Gidaliburuaren arabera, hauexek biltzen ditu Gizarte Babesaren kontzeptuak: "ezarritako zenbait arriskuk edo beharrek familientzat eta banakoentzat dakarten karga arintzeko erakunde publikoek edo pribatuek eginiko esku-hartzeak, betiere aldibereko, elkarrekiko edo banako akordiorik ez badago". Banako "akordiorik" ez izateak berekin dakar taldeka egitea arriskuaren, kontingentziaren edo behararen estaldura, eta beraz, kanpoan gelditzen dira banako ekimenen, partikularren edo soilik bere alde hartutako familien ondoriozko balizko gastuak.

Soilik Gizarte Segurantzaren Sistemetako erakundeek buruturiko ekintzak biltzen dituzten gizarte babesaren arloko beste estatistika batzuen aurrean, hala nola Lanaren Nazioarteko Bulegoa, SEEPROS metodologian, definizio orokorreko beharkizunen arabera gizarte babesteko ekintzak burutzen dituen edozein erakundetara dago irekita behatze-eremua, publikoa nahiz pribatua.

Hona hemen Gizarte Babesaren kontzeptuaren barruko estaldura duten kontingentziak:

- **Gaixotasun funtzioa / Osasun arreta: Funtzio horretan, bi prestazio mota sartu behar dira:**
 - Gaixotasunaren ziozko sarreraren galera ordeztzeko eskudiruzko prestazioak.
 - Irizpide horrek berekin dakar baliaezintasunagatik edo amatasunagatik emandako laguntza funtzio horretan sartzeko baliaezintasunaren edo familiaren/semi-alaben ordezkari hurrenez hurren. Langileari enpresan emandako osasun arreta ez dago bilduta, ekoizpen prozesuko beharrezko input gisa hartzen baita; errendimendua lortzen du enpresarioak horregatik.
- **Baliaezintasun funtzioa:** funtzio horren barruan, bi mota handitan sailka daitezkeen hainbat prestazio biltzen dira:
 - Alde batetik, lan jarduera egiteko gaitasuna osorik edo zati batez galtzearen ziozko sarrerak murrizketa konpentsatzeko onuradunari emandako prestazio ekonomikoak, legerian ezarritakoaren arabera.
 - Bestalde, errehabilitazio zerbitzuak eta beste batzuk, gaixotasun / osasun arreta funtzioan zenbatzen den osasun laguntzakoak izan ezik.

Garrantzizkoa da zehaztea soilik zenbatzen direla funtzio honetan erretiro adinera iritsi ez diren onuradunek jasotako baliaezintasun pentsioak. Adin hori gaindituta, zahartzaro funtzioari egozten zaio prestazioa. Era berean, ez dira hemen sartzen lan ezintasuneko aldietako diru eta laguntza prestazioak (legean ezarritako irizpideekin bat etorritik), gaixotasun / osasun arreta funtzioan.

- **Zahartzaro funtzioa:** zahartzaroaren ondorioak nolabait arintzeko sortutako prestazio multzo osoa hartzen du bere baitan, hauexek barne: sarreraren galera, ohiko atazak egiteko autonomia galera edo gizarte jardueraren gutxipena.

¹ http://www.eustat.eus/estadisticas/tema_94/opt_0/tipo_5/ti_Cuenta_de_la_Proteccion_Social/temas.html

ESSPROS 2008ko Gidaliburuan ezarritakoaren arabera, erretiro eta zahartzaro pentsioak eta baliaezintasun pentsioak biltzen ditu funtzioak, baldin eta onuradunak 65 urte edo gehiago badituzte.

- Bizirik irauten dutenen funtzioa: funtzio honetan, diru-iturri nagusia den senidearen edo pertsonaren galera izan dutenei emandako prestazio ekonomiko guztiak daude bilduta. ESSPROS 2008ko Gidaliburuan ezarritakoaren arabera, bizirik irauteari dagozkion pentsio guztiak daude bilduta.

Era berean, heriotzak eragindako kargak betetzeko zenbait konpentsazio biltzen dira, hala nola ehorztetxeko gastuak.

- **Familia / Seme-alabak** funtzioak: seme-alaben jaiotzak eta hazkuntzak dakartzan gastuak gutxitzeko familiei emandako diru-laguntzak sartzen ditu, baita familiako beste kide batzuen mantentzea ere. Emakume langileei erditu aurretik edo ondoren emandako errentak mantentzea ere sartzen da.

Halaber, funtzio honetan biltzen dira familia erakundea eta bereziki seme-alabak babesteko gizarte zerbitzu guztiak hala nola zentro espezializatuetako edo etxe partikularretako ostatu-hartzea, edo haurtzaindegi zerbitzuak.

- **Langabezia funtzioa:** SEEPROS 1996ko Gidaliburuan funtzio horrek, enplegu politiketako ohiko sailkapenaren arabera, neurri pasiboak biltzen dira alde batetik, hots, ordaindutako enplegurik ez izateak dakartzan ondorioak arintzeko –bereziki sarrera-iturri nahikorik ez izatearekin lotutakoak-, eta bestetik, neurri aktiboak, langabezia egoerei aurrea hartzeko edo gutxitzeko.

Horrenbestez, langabezia subsidioek (zati batekoa edo osoa), bizirik irauteko errentak edo erretiro aurreratuko pentsioak osatzen dute funtzioa, betiere erretiroa hartzeko arrazoia lan-merkatuaren egoeran badago, baita lanbide heziketako subsidioak eta onuradunak gaur egun eta geroan enpleguaren aldetik izan ditzakeen posibilitateak hobetzeko era guztietako laguntzak eta prestazioak. Horrez gain, INEMek bere kargura dauden langabeek zenbait onura jasotzeko duten eskubidea bermatzeko Gizarte Segurantzari eginiko kotizazioak zenbatzen dira funtzio honetan.

- **Etxebizitza funtzioa:** kasu honetan, etxebizitza gastuei aurre egiteko familiei emandako laguntzak dira. Okupatzaileentzako laguntzak izan behar dute, etxebizitzaren jabeak izan zein alokairuan izan, eta ez eraikitzaileentzat edo beren etxebizitzak okupatzen ez dituzten jabeentzat. Honakoak dira, funtsean, laguntzak: alokairu kostuak edo hipoteka interesen ordainketak gutxitzeko ohiko transferentziak.

Aurreko edizioen aldean, Eusko Jaurlaritzak etxebizitzaren arloko eskumenak erabiltzearen ondoriozko gastuak biltzen dira edizio honetan. Ildo horretan, aldatu egin da serie osoa, emaitzak bateratuak izan daitezkeen denboraren aldetik. Metodologia dela-eta, etxebizitza eskuratzen dutenen aldeko zuzeneko diru-laguntzen eta interesen subsidioen zenbatekoak zenbatu dira soilik, baita alokairuko etxebizitzaren sustatzaileentzako eta eskuratzaileentzako laguntzak ere.

- **Beste tokiren batean sailkatu gabeko Gizarte Bazterketa funtzioa:** funtzio honen garrantzia oso txikia da SEEPROS 1996ko Gidaliburuak planteatzen duen eskema funtzionalaren eraketan. Beste ezein funtziotan sartzen ez diren arriskuekin eta beharrek lotutako prestazioak daude bertan. Funtzioak, jakina, prestazio sorta heterogenoa biltzen du, zeinen ezaugarri komuna diru-baliabide urriarekin lotutako gizarte bazterketak galarazten edo arintzen saiatzea baita, edo osasunaren, hezkuntzaren edo enpleguaren arloko arazoaren presentziarekin loturikoak.

Bestalde, hona hemen sistemak eta sistema-taldeak Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Babeseko Kontuan:

- **Gizarte Segurantzaren Sistema.** Gizarte Segurantzako erregimenek osatzen dute. Erregimen horiek kudeatzen dituzte Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak, Itsasoko Gizarte Institutuak eta laneko istripuen eta gaixotasun profesionalen mutualitateek. Gizarte segurantzaren familia-babesa dago bilduta berariazko sistema batean. Gizarte Segurantzaren Konpentsazio Fondoa fikziozko sistema da, gizarte

segurantzaren superabita eta defizita duten erregimenen arteko transferentzien konpentsazio-ganbera gisa diharduena eta erregimen horien artean ezin bana daitezkeen gastuak eta sarrerak egozten zaizkionak.

- Enplegu Institutu Nazionala. Erakunde independente bat da eta garrantzi handia du langabeen gizarte-babesean.
- Funtzionario publikoen erregimenak. Epigrafe honetan Funtzionario Publikoen Araubide Berezia dagokien langileen gizarte-babeserako diru-sarrerak eta gastuak daude jasota. Horren barruan sartzen dira oinarrizko prestazioak deritzenak edo klase pasiboaren erregimena, eta administrazio-mutualismoari dagozkionak, aipaturiko aldiaren indarrean dauden funtzionarioen hiru mutualitateek ordaindutakoak: Estatuko Funtzionario Zibilen Mutualitatea (MUFACE), Indar Armatuen Gizarte Erakundeak (ISFAS) eta Mutualitate Orokor Judiziala (MUGEJU). Multzo horretan sartzen da, baita ere, herri-administrazioek haien langileek aldi baterako ezintasunen bat dutenean edo seme-alabaren bat izaten dutenean haien soldata eta ordainsariei eusteko jartzen dituzten zenbatekoen balioespena.
- Bestelako Gizarte Babeseko Sistemak: askotariko sistemak eta erakundeek emandako gizarte babesa biltzen duen gainerako multzoa da eta, beraz, taldeetako heterogeneoa da. Hona hemen taldekatzen dituen sistemarik garrantzitsuenak:
- Osasun sistema publikoa, osasunaren arloko beren eskumenak direla bide euskal administrazioek eginiko jarduketak biltzen ditu.
- Gizarte zerbitzuen sistema publikoa, EAEko administrazioen maila desberdinek gizarte zerbitzuen arloan dauden erantzukizunak biltzen dituena. Langileen enplegatzaileengandik zuzenean jasotzen dituzten eta prestazio horien nahitaezkotasunaren arabera bi sistematan banantzen direnak.
- Gizarte aseguru pribatuaren definizioari dagozkion aseguru fenomenoak, Kontuen Europako Sistemaren (KES-95) arabera, bereziki Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde zati bat (honetakotzat har daiteke).
- Gizarte babesaren arloan berariazko helburua duten erakunde publikoen ekintza, hala nola Soldatak Bermatzeko Fondoa (FOGASA).
- Gizarte zerbitzuen arloan diharduten Irabazteko Asmorik gabeko Erakunde Pribatuen jarduketa.